



EUSKO
LEGEBILTZARRARENTZAKO
TXOSTENA
2009

ararteko

Herriaren Defendatzailea
Defensoría del Pueblo

**EUSKO
LEGE BILTZARRAREN
TXOSTENA
2009**



© ARARTEKO

Itzulpena: Hori Hori S.A.L.

Fotokonposaketa eta inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.

Paper ekologikoa.

L.G.: VI 112-2010

ararteko

**EUSKO
LEGEBILTZARRARENTZAKO
TXOSTENA
2009**





AURKIBIDEA



AURKEZPENA	17
I. ATALA. JARDUERARIK GARRANTZITSUENEN ANALISIA ALORREZ ALOR.....	21
II. ATALA. LEHENTASUNEZKO TALDEAK.....	229
III. ATALA. GOMENDIO OROKORRAK.....	565
IV. ATALA. TXOSTEN BEREZIAK.....	587
V. ATALA. GIZA ESKUBIDEAK ERRESPELATZEKO ETA GIZARTE ZIBILAREKIN NAHIZ ESKUBIDEAK BERMATZEKO ERAKUNDEEKIN HARRE- MANAK IZATEKO KULTURA SORTZEN LAGUNTZEN DUTEN BESTE JARDUERA BATZUK.....	609
VI. ATALA. ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERA KOPURUTAN.....	653
VII. ATALA. ADMINISTRAZIOAREN SAIL BATZUEK ARGIBIDEAK EPE BARRUAN EZ EMATEARI EUSTEA.....	695
VIII. ATALA. ARARTEKOAREN GOMENDIOAK ETA IRADOKIZUNAK ZENBATE- RAINO BETE DIREN.....	725
IX. ATALA. ONDORIOAK. ESKUBIDEAK ETA ASKATASUNAK.....	739
ERANSKINA GRAFIKOAK.....	773
GAIEN AURKIBIDEA	789

AURKEZPENA	17
I. ATALA. JARDUERARIK GARRANTZITSUENEN ANALISIA ALORREZ ALOR	21
1. Gizarte Ekintza.....	25
2. Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa.....	53
3. Kultura eta Elebitasuna.....	59
4. Hezkuntza.....	67
5. Funtzio Publikoa.....	81
6. Ogasuna.....	93
7. Herrizaingoa.....	105
8. Justizia.....	129
9. Ingurumena.....	151
10. Herri Lanak eta Zerbitzuak.....	163
11. Animaliak Babestea.....	175
12. Osasuna.....	179
13. Lana eta Gizarte Segurantza.....	193
14. Hirigintza eta Lurralde Antolamendua.....	199
15. Etxebizitza.....	211
16. Zenbait Gestio.....	225
II. ATALA. LEHENTASUNEZKO TALDEAK	229
1. Berariazko arreta emakumeen berdintasunari eta osotasun fisikoari.....	233
2. Berariazko arreta adinekoei.....	257
3. Berariazko arreta adingabeei.....	281
4. Berariazko arreta ezgaitasuna duten pertsoneri.....	415
5. Berariazko arreta etorkinei.....	439
6. Berariazko arreta ijito herriari.....	467
7. Berariazko arreta gizartean baztertuta edo pobrezian bizi diren pertsoneri.....	481
8. Berariazko arreta terrorismoaren eta jazarpen indarkeriaren biktimei.....	513
9. Berariazko arreta lesbiana, gay, bisexual, transgenero eta transexualei.....	521
10. Berariazko arreta espetxeratuei.....	531
11. Berariazko arreta gaixo kronikoei.....	541

III. ATALA. GOMENDIO OROKORRAK	565
1. Etorkinei beren eskubideez baliatzean laguntzeko, administrazioaren arduraz zerbitzu publikoen hizkuntza erabilgarritasunaren bermeari dagokionez.....	567
2. Administrazioarekiko auzibideko apelazioen arriskuak: erabiltzaileentzako informazioa hobetzeko eta administrazioak kostu gisa erreklamatzeko dituen profesionalen ordainsariak neurtzeko beharra.....	574
3. Igogailuak instalatzeari lehentasuna eman behar zaie, arrapal eta eskailera mekanikoei baino.....	581
IV. ATALA. TXOSTEN BEREZIAK	587
1. 2009. URTEAN AURKEZTUTAKO TXOSTEN BEREZIAK.....	589
1.1. Euskadin terrorismoaren biktimei erakundeek emandako arretari buruzko txosten berezia.....	589
1.2. Adingabekoei balioak transmititzeari buruzko txosten berezia.....	594
1.3. Transgeneroen eta transexualen egoera Euskadin izenburuko txosten berezia.....	600
2. 2009. URTEAN EGITEN ARI DIREN TXOSTEN BEREZIAK.....	606
V. ATALA. GIZA ESKUBIDEAK ERRESPETATZEKO ETA GIZARTE ZIBILAREKIN NAHIZ ESKUBIDEAK BERMATZEKO ERAKUNDEEKIN HARREMANAK IZATEKO KULTURA SORTZEN LAGUNTZEN DUTEN BESTE JARDUERA BATZUK	609
1. GIZA ESKUBIDEAK ERRESPETATZEKO ETA GIZARTE ZIBILAREKIN HARREMANAK IZATEKO KULTURA SORTZEN LAGUNTZEKO JARDUERAK.....	611
1.1. Taldeekin, elkarteekin eta gizarte-eragileekin lankidetzan jarduteko harremanak.....	611
1.2. Arartekoak ematen dituen ikerketa bekak.....	622
1.3. EHUren udako ikastaroetan antolatutako "Haurrak babesteko sistemak eta horien erronkak" jardunaldia.....	623
1.4. Argitalpenak.....	624
1.5. Giza eskubideen arloan sentsibilizatzeko jarduerak.....	625

2.	GIZA ESKUBIDEAK BABESTEKO ERAKUNDEEKIN BIDERATUTAKO JARDUERAK.....	627
2.1.	Herriaren Defentsa-erakundeen XXIV. Koordinazio Jardunaldiak.....	627
2.2.	Ombudsmanaren Nazioarteko Institutuaren (ONI) IX. Munduko Konferentzia eta Suediako ombudsman parlamentarioen bigarren mendeurrenaren ospakizuna.....	635
2.3.	Ombudsmanaren Iberoamerikako Federazioaren (OIF) XIV. Biltzarra eta urteko Batzarra.....	638
3.	ARARTEKO ERAKUNDEAREN BESTE JARDUERA BATZUK.....	641
3.1.	Arartekoaren 20. urteurrenaren harira antolatutako ekitaldiak.....	641
3.2.	Arartekoaren informazio guneak bulego publikoetan.....	644
3.3.	Urteko jardueren zerrenda.....	645
VI. ATALA.	ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERA KOPURUTAN.....	653
1.	OHAR ETA DATU OROKORRAK.....	655
2.	ESTATISTIKA ALORREZ ALOR.....	659
3.	ESTATISTIKA ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERA.....	663
	A) Eusko Jaurlaritzaren aurka aurkeztutako kexak.....	664
	B) Foru administrazioen aurka aurkeztutako kexak.....	666
	C) Toki administrazioaren aurka aurkeztutako kexak.....	667
	D) Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuen aurka aurkeztutako kexak.....	671
	E) Justizia administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoan dituen administrazio zerbitzuen aurka aurkeztutako kexak.....	671
4.	LURRALDE ESTATISTIKA (KEXEN BANAKETA LURRALDEEN ARABERA).....	672
5.	PROZEDURARI BURUZKO ESTATISTIKA (KEXEN EGOERA).....	676
6.	ESTATISTIKA SOZIOLOGIKOA (SEXUA, HIZKUNTZA, ERREKLAMATZEKO ERA).....	687
7.	ARRETA ZUZENEO BULEGOEN JARDUERA (BISITAK ETA TELEFONO BIDEZKO KONTSULTAK).....	689
8.	OFIZIOZKO JARDUERAK.....	691
9.	ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAREN BALORAZIOA (ERABILTZAILEEI EGINDAKO INKESTAREN EMAITZAK).....	692

VII. ATALA. ADMINISTRAZIOAREN SAIL BATZUEK ARGIBIDEAK EPE BARRUAN EZ EMATEARI EUSTEA	695
1. SARRERA ETA OHARRAK.....	697
2. ARARTEKOAK 2009. URTEAN EGINDAKO INFORMAZIO ESKAEREI ETA AGINDEIEI ADMINISTRAZIOEK EMANDAKO ERANTZUNA.....	700
A) Eusko Jaurlaritza.....	700
B) Foru aldundiak.....	701
C) Udalak.....	703
D) Beste erakunde publiko batzuk.....	708
3. ARARTEKOAK 2009. URTEAN INFORMAZIOA LORTZEKO EGIN DITUEN AGINDEIEN ZERRENDA.....	709
A) Eusko Jaurlaritza.....	709
B) Foru aldundiak.....	713
C) Udalak.....	715
D) Beste erakunde publiko batzuk.....	722
4. ARARTEKOAK 2009. URTEAN EGINDAKO OHARTARAZPENEN ZERRENDA.....	723
Udalak.....	723
VIII. ATALA. ARARTEKOAREN GOMENDIOAK ETA IRADOKIZUNAK ZENBATERAINO BETE DIREN	725
1. ONARTUTAKO GOMENDIOAK ETA IRADOKIZUNAK.....	730
A) Eusko Jaurlaritza.....	730
B) Foru administrazioa.....	730
C) Tokiko administrazioa.....	731
D) Eragindako beste erakunde batzuk.....	731
2. ONARTU EZ DIREN GOMENDIOAK ETA IRADOKIZUNAK.....	732
A) Eusko Jaurlaritza.....	732
B) Foru administrazioa.....	733
C) Tokiko administrazioa.....	733
D) Eragindako beste erakunde batzuk.....	734
3. ERABAKI GABE DAUDEN GOMENDIOAK ETA IRADOKIZUNAK.....	735
A) Eusko Jaurlaritza.....	735
B) Foru administrazioa.....	735
C) Tokiko administrazioa.....	736
4. BERTAN BEHERA UTZITAKO GOMENDIOAK ETA IRADOKIZUNAK.....	738
Tokiko administrazioa.....	738

IX. ATALA. ONDORIOAK. ESKUBIDEAK ETA ASKATASUNAK	739
1. BERDINTASUN PRINTZIPIOA.....	743
2. OINARRIZKO ESKUBIDEAK ETA ASKATASUN PUBLIKOAK.....	747
2.1. Bizitzeko eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea.....	747
2.2. Askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea. Atxilotuen eskubideak.....	749
2.3. Intimitaterako eskubidea eta norberaren datuak babesteko eskubidea.....	751
2.4. Funtzio publikoan sartzeko berdintasunaren printzipioa.....	752
2.5. Babes judizial eraginkorrerako eskubidea. Errugabetasun ustearen printzipioa.....	752
2.6. Askatasunik ez duten pertsonen eskubideak.....	754
2.7. Hezkuntzarako eskubidea.....	755
3. HERRITARREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.....	757
3.1. Zerga-sistema bidezkoa. Berdintasun, progresibotasun eta legezkotasun printzipioak.....	757
3.2. Jabetza pribaturako eskubidea.....	758
4. GIZARTE ESKUBIDEAK.....	759
4.1. Familiaren babesa. Adingabeen eskubideen babesa.....	759
4.2. Osasunerako eskubidea.....	762
4.3. Ingurumen egokia izateko eskubidea.....	764
4.4. Etxebizitza duina izateko eskubidea.....	766
4.5. Ezgaitasun fisikoa, sentimenezkoa edo psikikoa dutenen eskubideak.....	767
4.6. Adinekoen eskubideak.....	769
5. LABURBILKETA.....	770
ERANSKINA: GRAFIKOAK	773
- 1. Diagrama: Arartekoak zenbatetan ikusi duen jarduera okerra administrazioaren jokoeran 2009an burututako kexetan.....	775
- 2. Diagrama: Ararteko erakundearen esku-hartzea zenbateraino izan den eraginkorra.....	775
- 3. Diagrama: Arartekoak jasotako kexa kopuruaren bilakaera (2000-2009).....	776
- 4. Diagrama: 2009an jasotako kexen egoera onarpen prozesuaren ondoren....	776
- 5. Diagrama: Zuzenean bideratutako kexen banaketa, jarduera alorren arabera.....	777
- 6. Diagrama: Zuzenean bideratutako kexen banaketa, eragindako administrazioen arabera.....	777
- 7. Diagrama: Eusko Jaurlaritzaren aurka aurkeztutako kexen banaketa, alorren arabera.....	778

- 8. Diagrama:	Eusko Jaurlaritzaren aurka aurkeztutako kexen banaketa, sailen arabera	778
- 9. Diagrama:	Foru aldundien aurka aurkeztutako kexen banaketa, alorren arabera.....	779
- 10. Diagrama:	Udalen aurka aurkeztutako kexen banaketa, alorren arabera.....	779
- 11. Diagrama:	Lurralde bakoitzetik jasotako kexen bilakaera (2000-2009).....	780
- 12. Diagrama:	Lurralde bakoitzetik jasotako kexen bilakaera 10.000 biztanleko (2000-2009).....	780
- 13. Diagrama:	Jasotako kexen banaketa, kexagileen ezaugarrien arabera	781
- 14. Diagrama:	Jasotako kexen banaketa, erabilitako hizkuntzaren arabera.....	781
- 15. Diagrama:	Jasotako kexen banaketa, aurkezteko eraren arabera.....	781
- 16-17. Diagramak:	2009an arreta zuzeneko bulegoetan jasotako bisitak (kopurua eta ezaugarriak).....	782
- 18. Diagrama:	Banaketa adin taldeen arabera.....	782
- 19. Diagrama:	Kexa bilakatutako bisitak.....	783
- 20. Diagrama:	Ofiziozko jarduerak (2009). Banaketa alorrez alor.....	784
- 21. Diagrama:	Ofiziozko jarduerak (2009). Eragindako administrazioen araberrako banaketa.....	784
- 22-27. Diagramak:	Kexagileek Ararteko erakundearen jardueraz egin duten balorazioa (inkestaren emaitzak)	785
- 28-29. Diagramak:	Euren arazoa "ez da konpondu" edo "nahiko txarto konpondu da" dioten kexagileek Ararteko erakundearen jardueraz egin duten balorazioa.....	788
GAIEN AURKIBIDEA		789

AURKEZPENA

Atsegin handiz aurkezten dut Ararteko erakundearen 2009. urteko ohiko txostena. Aipatu txostenak urte horretan Arartekoan, alegia, Euskadiko Ombudsmanaren erakundearen, 51 pertsonak baino gehiagok burutu dituzten jarduerak bildu ditu eta ohorea da niretzat aipatu erakundea zuzentzea eta bertako ordezkari izatea.

Aurten, urteko txostenak hiru formatu ditu: urteko jarduera laburtzen duen liburua, CDa eta pendrive-a. Azkeneko bi horietan liburuaren edukia bilduko da, baita urtean zehar emandako ebazpenak eta ateratako argitalpenak ere. Hala, Ararteko erakundeak 2009. urtean burutu dituen jardunen eta jardueren katalogo zabala ikusi eta eskuratu ahal izango du interesdunak.

Urteko txostenean Arartekoan izapidetutako kexa-espeditenteei buruzko informazioa jaso da. Kexa-espeditenteeok gaika multzokatu dira, erakundearen jarduera egituratzen den arlo materialari jarraiki eta herritarrek Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio baten jarduerari edo jarduerarik ezari buruz aurkeztu dituzten erreklamazioen arabera. Kexaren prozedurarekin bat, eragindako administrazioari entzun egin behar zaio, jarrera edo iritzia funtsez dezan. Hala ere, berriz ere esan behar dugu tamalez eskaera egin zaion administrazioak askotan ez duela behar bezain azkar erantzuten edo nahikoa ez den informazioa bidaltzen duela –aipatu informazioa ez dator bat egindako eskaerarekin– eta horrek guztiak modu negatiboan eragin dio ematen dugun zerbitzu publikoaren kalitateari.

Horregatik, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen erantzukizuna eskatzea beharrezkoa da, Ararteko erakundearekin elkarlanean behar bezala ari daitezen; ondorioz, herritarrei emandako zerbitzua hobetuko baita eta pertsonen eskubideak babesten dituzten bermeak indartzen baitira.

Kexak izapidetzeaz gain, Ararteko erakundeak, joan den urtean, bere ustez, enfasi berezia eman behar zitzaion taldeei eta egoerei buruzko txosten berezien argitalpenarekin jarraitu zuen, Euskadin eskubideen baliatzeak herritar guztientzat behar bezalako babesa, baldintza berberetan, izan dezan.

Txosten bereziekin batera, Arartekoak, oinarritzko eskubideei dagokienez zaugarritasun, eskasia edo arrisku egoeran dauden taldeak edo pertsonak aintzat hartzen zituen makina

bat jarduera burutu zituen, hala nola: gizarte erakundeekin eta herri-administrazio batzue-tako arduradunekin izandako bilerak; mintegi, kongresu eta jardunaldietan parte hartzea; ikerketa bekak, etab. Ildo horretan, bereizkeria, bazterkeria, berdintasunik eza eta osotasun fisikoaren eta moralaren aurka egon daitezkeen arriskuak ezaba daitezzen eta aipatu taldeen eskubideak errespetatu daitezzen, gure lanari heltzeko jorratzen dugun zeharkako ikuspegia-ren garrantzia eta balio kualitatibo altua gailendu behar dira. Horretarako, herri-administrazio eskuduntzako ekimenak planteatzen ditugu, hain zuzen, aztertutako egoeraren espezi-fikotasunetik baina, aldi berean, diziplina anitzeko ikuspegi integraletik.

2009. urtean 20 urte bete ziren Arartekoaren erakundea 1989ko martxoaren 8an abian jarri zenetik. Juan San Martín izan zen lehenengo arartekoa eta herrialde askotan Ombudsman edo Herriaren Defendatzailea izena zuen antzeko erakundea martxan jarri zuen. Urtean zehar makina bat jarduera antolatu zen urteurren hori ospatzeko aldera. Maiatzean, Bilboko Euskalduna Jauregian jardunaldi batzuk antolatu ziren honako izenburu honen pean: “Politika publikoen erronkak demokrazia aurreratuan.” Bertan, hogeita hamar bat adituk demokrazia hobetzeko eta herritarren eskubideen defentsa bermatzeko aukera posibleak jorratu zituzten.

Halaber, ekainaren 17an Gasteizko Artium museoan ekitaldi instituzional bat egin zen, Arartekoaren 20. urteurrena ospatzeko. Ekitaldi horretara erakunde publikoetako eta hainbat esparrutan lan egiten duten eta Arartekoarekin harreman estua duten elkarrekin ordezkaritza asko joan ziren. Bertan, 20 urte hauetan erakundearen arduradun nagusi izan diren pertsonen aintzatespen publikoa, hau da, omenaldia, egin zitzaion. Honako hauei, hain zuzen: Juan San Martín (1989-1995), Xabier Markiegi (1995-2000) eta Mertxe Agúndez (2004ko ekainera arte ararteko lanetan ziharduen). Egindako lana eskertzeko, Judas Arrieta artista-ren obra originala eman zitzaion eta, Juan San Martinen kasuan, haren alargunari, M^a Paz Ibeas andreari hain zuzen. Omenaldiak, Juan San Martín jaunaren ondokoa, hots, Jesús M^a Arteaga (Mertxe Agúndez Xabier Markiegiaren ondokoa), baita 20 urte hauetan Arartekoan lan egin duten edo lan egiten duten pertsona guztiak ere, barne hartu zituen.

Erakundearen 20. urteurrena zela-eta, joan den urtean herritarrek Arartekoaren berri izan zezaten lanak ugartu genituen, Euskadin bizi diren pertsona guztiek erakunde honek ematen duen zerbitzu publikoak zertan datzan eta zertan lagun dezakeen jakin dezaten. Horregatik, Arartekoaren informazio guneak jartzean zetzan informazio kanpaina abian jarri genuen. Gune horiek EAEko udaletan jarritako baliabide batzuk ziren, kartoiz eta harriz egindako eskultura baten antzekoak eta urteko aldizkariaren liburuxkak eta aleak biltzen zituzten. Gure ideia informazio kanpaina horrekin jarraitzea da eta, horretarako, aurtun hiru foru aldundietako eta Eusko Jaurlaritzako herritarrentzako arreta bulegoetan ere informazio gune horiek jarriko ditugu.

Herritarrei Ararteko erakundera hurbiltzeko aukerak asmoa guretzat oso garrantzitsua da, iritziak, iradokizunak eta herritarren ekarpen oro biltze aldera, ematen dugun zerbitzu publikoaren kalitatea etengabe hobetu dadin. Horren harira, teknologia berriak bultzatzen jarraituko dugu, eta, bereziki, gure web ataria (www.ararteko.net). Web orrialde horretan

gure jardunari buruzko informazio erabilgarria aurkitzeaz gain, herritarren elkarrekintzan ari-zeko baliabidea izan dadin.

Bestalde, giza eskubideak defendatzen dituen erakundea den aldetik, Arartekoak arreta be-rezia eman nahi dio giza eskubideen kultura indartzeko premiari. Hala, botere publikoek eta herritarrek giza eskubideak errespetatzeko printzipioa sustatzen lan egingo dute, guztion artean Euskadiko giza eskubideen egoera hobeto dezagun eta egunetik egunera pertsonen eskubideak errespetatzeko balioak eraiki eta berreraiki ditzagun, giza eskubideak suntsitu edo mugatzen dituzten eragileak ezabatuz.

Horregatik, aurten ere ETari desager dadin eskatu behar diogu, erakunde terrorista horren indarkeriazko ekintzek edo derrigortze eta estortsio ekintzek pertsonen oinarrizko eskubi-deen eta askatasunen aurkako zapalketa larria eta etengabeko mehatxua dakartelako. Indar-keria terroristaren biktimek behar bezalako kalte-ordain morala eta soziala lor dezaten eta duintasuna berrezarrita eduki dezaten aktiboki lagundu behar dugu. Horrez gain, Zuzenbide Estatu Demokratikoa osatzen duten erakundeei eta organoei eskatu behar diegu pertsonen eskubideak eta horien berme sistemak guztiz errespetatu ditzatela. Hala, herritarrak printzi-pio eta balio demokratikoekin ustez bateraezina den jarduera baten ondotik egiten duen salaketak sistemaren gardentasunaren gainean egon daitekeen zalantza argitzen duen edo, hala badagokio, erantzukizun bereizleak argituko dituen ikerketarako bidea ematen duen erantzuna behar du une oro.

Joan den urteko urrian, hurrengo bost urteetarako ararteko berrizendatu ninduen Eusko Legebiltzarrak, eta ohore handiz hartu nuen. Julia Hernandez erakundearen ondoko gisa berrizendatu nuen. Niretzat erronka ezin hobea da horrenbeste sinisten dudana erakunde honetan lan egitea. Erakunde honek pertsonen eskubideen bermea osatzen du, baita her-ritarren eta gizarte erakundeen eta herri-administrazioen arteko bitartekaritza ere. Erakun-deak demokraziaren kalitateari ekarpenak egiten dizkio. Nire erantzukizunei behar bezala aurre egiteko indarra, inspirazioa eta entzuteko eta autokritika egiteko gaitasuna izango ditudala espero dut. Euskadiko herritarrak Ararteko erakundearen lanarekin kontent egotea eta ematen ditugun zerbitzuek ahal den kalitateari onena izatea nahiko nuke.

Arartekotik, beraz, ahal den neurrian, eta inpartzialtasun eta independentzia oroz, noranzko horretan bidea egiten jarraituko dugu. Horretarako, legeak gure esku jartzen dituen baliabi-deak erabiliko ditugu eta EAEko herritar guztiengana helduko diren elementu komunikatzai-leak sortuko ditugu eta, horien bidez, komunikazio bideetatik giza eskubideak errespetatze-ko balio komunak igaroko dira.

Iñigo Lamarca Iturbe
ARARTEKOA

ararteko

I. ATALA

JARDUERARIK GARRANTZITSUENEN ANALISIA ALORREZ ALOR



EAEko herritarren eskubideak babesteko ardura esleitu diote Arartekoari, EAEko herri-administrazioen irregulartasunen, akatsen, gehiegikeriaren eta jardun okerraren aurrean jardun dezan. Horretarako, oinarrizko bi lanabes erabiltzen ditu:

- herritarrek egiten dituzten kexa-espeditenteak ebaztea, horretarako aldeztatik ezarri diren bideetatik: Arartekoaren edozein hiru bulegoetara joan daitezke herritarra, posta bidez, edo, interneten, Arartekoaren web orriaren bidez (gero eta gehiago erabiltzen den modua) jar daitezke harremanetan.
- ofiziozko jardunen bitartez (halakoetan, Arartekoak jarrera proaktiboa hartzen du), ofiziozkoa, jardun administratibo batek funtsezko eskubideren bat kaltetu dezakeela hautematen badugu, eta indarrean dagoen legeria urratu dezakeela iruditzen bazaigu.

2009 urtean 1.917 kexa jaso ditugu; beste urte batzuekin alderatuz, igoera nabarmena egon da. Horrekin batera, ofiziozko 75 espeditente hasi ditugu.

Hurrengo kapituluan jardun guztiak taldekatu ditugu, Arartekoaren bulegoa antolatzen zuten 16 arloen arabera. Arlo bakoitzean jardunik adierazgarrienak aztertuko ditugu, eta arlo horietako kexa garrantzitsuenetan sakonduko dugu. Era berean, 2009 urtean egon diren lege aldaketak aipatuko ditugu.

Beste behin, gizarte ekintza arloak herritarren kexa gehien jaso ditu, eta bi talde nabarmen daude horren barruan: izaera ekonomikoko prestazio sozialen arazoak eta haurrei eta nerabeei laguntzeko zerbitzuak. Ofiziozko jardunetan ere gizarte ekintzak eragiten ditu espeditente gehien; izan ere, jardunen erdiak mota horretako gaien harira sortzen dira.

I.1

GIZARTE EKINTZA

1. GIZARTE EKINTZA

1. Sarrera

2009. urtean, 226 kexa jaso ditugu eremu honetan, erreklamazio guztietatik % 11,79.

Kexa hauek zein administraziori eragiten dioten kontuan hartuta, sailkapen hau egin daiteke:

- Foru administrazioa	159
- Tokiko administrazioa	41
- Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra	31

Administrazio horietako bakoitzak arloaren eskumen batzuk dauzka; beraz, hiru administrazioen artean gizarte gaien gaineko eskumenak nola banatu diren, horren arabera izango da, neurri handi batean, administrazio bakoitzak duen kexa kopurua.

Arlo honetan planteatutako gaien edukia kontuan hartzen badugu, azpiarlo hauetan sailka daitezke:

- Eduki ekonomikoa duten gizarte prestazioak	73
- Haurrentzako eta nerabeentzako laguntza	72
- Mendetasuna	27
- Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa	22
- Adinekoentzako laguntza	13
- Familientzako laguntza	8
- Arreta bereziko taldeentzako laguntza	4
- Ezgaitasunen bat duten pertsonentzako laguntza	3
- Emakumeentzako laguntza	2
- Eskubideak eta askatasunak	1
- Besterik	1

Atal honetan, aurten EAEko gizarte politikari eragin dieten alderdirik garrantzitsuenak jaso ditugu, bai eta Arartekoaren jarduna ere, batez ere izapidetu ditugun kexen analisiaren ingurukoa.

2. Arau berriak

laz, gizarte politikari nabarmen eragin zieten hainbat lege onartu ziren: 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa; 8/2008 Legea, abenduaren 23koa, Gizar-teratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko; eta Familia Babesteko eta Laguntzeko Legea.

Lege horiek garatzen dituzten araudiak onartzeko dauzka oraindik Eusko Jaurlaritzak. Foru aldundiek eta udalek tresna berriak behar dituzte araudi berrietan ezarritako zerbitzuak eta prestazioak kudeatzeko. 8/2008 Legearen kasuan, espero dugu etxebizitzaren prestazio osagarria laster arautzea; izan ere, sartu da Euskal Autonomia Erkidegoko 2010eko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean, handi daitezkeen kredituen barnean.

Araudia onartzeko atzerapen hori, ordea, zailtzen ari da gizartegintzan jardutea, eta erantzun desberdinak ematen ari dira, prestazioa edota zerbitzua kudeatzen duen lurralde administrazioaren arabera. Horregatik, kontsulta bat egin diogu Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailari, Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen araudi bidezko garapenari buruzko informazioa eskatzeko. Kontsulta horretan, jakinarazi genion hainbat eragozpen ari ginela sumatzen diru sarrerak bermatzeko errentaren eskaeretan, araua zein irizpideren arabera interpretatu behar den jakiteko asmoz, Eusko Jaurlaritza baita errenta hori kudeatzeko erakunde eskuduna. Zailtasun horiek arloko konturik garrantzitsuenak aztertu ditugun atalean aipatu ditugu.

Aurten gizarteratzeko laguntzen inguruan martxan jarri diren araudi berrien artean, honako hauek aipatu behar ditugu: Eusko Jaurlaritzak, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren bidez (2009ko azaroaren 25eko Agindua), laguntza berezien deialdi bat egin du langabeak edota diru sarrerak bermatzeko errentaren hartzaileak kontratatuzko. Laguntza horiek irabazteko asmorik gabeko erakunde publiko edo pribatuentzat dira, halako pertsonak lanaldi osoz kontrata ditzaten, interes orokorreko edota gizarte erabilgarritasuneko jarduerak egiteko. Diru laguntzak sei hilabeterako emango dira.

Gipuzkoan, Gizarteratzeko Diru Laguntzak arautzen dituen uztailaren 28ko 29/2009 Foru Dekretuak batez ere bi talde hauek hartzen ditu kontuan: batetik, diru sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko baldintza guztiak betetzen dituzten pertsonak, urtebetez erroldatuta egoteko eta benetako bizilekua egiaztatzeko baldintzak izan ezik. Pertsona horiek Gipuzkoan sei hilabete daramatzatela egiaztatzen badute jaso ahaliko dute diru laguntza hori. Bestalde, adin nagusitasunera iritsita haur eta nerabeentzako arreta eta babesa galdu dutenak eta orain arte gizarteratzeko osasun zerbitzurik lortu ez dutenak. Lurralde horretan bertan, Gizarteratze Gaietako Aholku Kontseilua sortu da, urriaren 27ko 32/2009 Foru Dekretuaren bidez. Aholku organo bat da, helburu honekin sortua: *“pertsona baztertuen edo bazterketa arriskuan daudenen kolektiboak eta gizarte bazterketarekin lotura duten erakunde eta organismoek parte hartzeko foro espezifiko bat izan dezaten, herritar sektore horren ongizaterako politika eta jarduketan plangintzan eta jarraipenean laguntze aldera”*.

Arabian, ekainaren 30eko 56/2009 Foru Dekretua onartu da. Dekretu horrek gizarteratze ibilbideetan parte hartzen duten pertsonentzako prestazio ekonomikoa arautzen du. Laguntza horren helburua gastu espezifiko hauei erantzutea da: a) prestakuntza ikastaroetarako edo laneko zentroetarako joan-etorriak; b) halako joan-etorriak egiten dituzten pertsonen mende daudenak zaintzeko eta artatzeko gastuak; eta c) B1 gidabaimena lortzeko prestakuntza. Laguntza horiek lortzeko, ezinbestekoa da halako gastuei aurre egiteko baliabiderik ez izatea eta gizarteratze hitzarmen bat sinatzea.

Azkenik, garrantzitsua da gizarte eskubideen finantzaketari erreparatzea. Gaur egungo finantza eta enplegu krisiak gizarte babeseko politiken finantzaketaren inguruko eztabaia da piztu du, bai kotizazio bidezko pentsio publikoko sistemako funtsei dagokienez –horri, neurri handi batean, langabeak gero eta gehiago izateak eta biztanleria zahartzeak eragiten dio– eta bai laguntza-sistemako funtsei dagokienez –batez ere baztertuta edo mendetasun-egoeran dauden pertsonak artatzen ditu–.

Gizarte beharrianak handitu direla eta, urtero gizarte gastura bideratzen diren aurrekontuak ere areagotu egin behar izan dira. Gizarte gastuaren finantzaketa erabakigarria da, eta erantzun egin behar zaio, Gizarte Ongizatearen Estatua mantentzeko.

3. Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen garapenari buruzko analisia. Bereziki prestazio ekonomikoak kontuan hartuta

laz, atal honetan adierazi genuen foru aldundi bakoitzak araudi bat garatu duela, eta, horren ondorioz, tratamendua desberdina dela lurraldearen arabera. Uste dugu beharrezkoa dela gaur egungo desberdintasunak gutxitzearen alde lan egitea, 12/2008 Legearen bidez sortutako gizarte zerbitzuen sistemak modu homogeneoan trata ditzan gure autonomia erkidegoan sortzen diren mendetasun egoerak. Alde horretatik, espero dugu lege horrek sortu duen Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoak (44. artikulua) lagunduko duela gaur egun lurraldearen arabera dauden alde horiek gutxitzen.

Bizkaiko Foru Aldundiak **mendetasun egoera onartzeko prozedurari buruzko araudi berria** onartu du: 162/2009 Foru Dekretua, abenduaren 1ekoa. Horren bidez, arindu egin nahi ditu egoera hori onartzeko eta dagokion prestazio edo zerbitzua eskatzeko izapideak. Alde horretatik, bi hilabetera murriztu du ebazteko eta administrazioaren isiltasuna interpretatzeko epea. Halaber, prestazio edo zerbitzuak formalki eskatutzat jo ahalko dira, ondorioetarako data kontuan hartuta, baldin eta banakako arreta programa (BAP) egitean planteatzen badira eta horretarako eskatzen diren baldintzak betetzen badituzte. Mendetasun gradua edo maila berrikusteari dagokionez, araudiak gutxienez bi urteko epea ezartzen du azken ebazpena eman zenetik aurrera, baina lehenago berrikusteko ere eskatu ahalko da, betiere aldaketa hori egiaztatzeko mediku txosten bat aurkezten bada (baldintza horiek eskatzen dira, halaber, ezintasuna berrikusteko). Azkenik, desagertu egin da RAI balioesperearen aipamena, orain indargabetu den dekretuan agertzen zena.

Halaber, Bizkaiko Aldundiak Gizatek sortu du, orientatzeko eta laguntzeko produktuak mailegatzeko foru zerbitzu publikoa. Neurri hori mendetasuna prebenitzeko eta autonomia pertsonala sustatzeko arloaren barruan sartzen da; zerbitzu hori eskuratzeko bidea otsailaren 17ko 24/2009 Foru Dekretuaren bidez arautu da, eta horren kudeaketa Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen esku utzi da, helburuak zehaztuta (BAO, 2009ko martxoaren 3koa). Zerbitzu horren funtzioen artean, batzuk herritar guztientzat zabalik egongo dira, hala nola produktuen demostrazioa eta erakusketa, sentsibilizazioa eta langile

teknikoen, kaltetuen eta zaintzaileen prestakuntza; beste batzuk, mendetasun egoeran dauden edo gutxienez %33ko ezgaitasuna duten pertsonentzat izango dira. Orientazio eta aholkularitza lan pertsonalizatuak dira, kasuan-kasuan produkturik egokiena zein den azaltzeko eta mailegatzeko. Halaber, zerbitzuak aholkuak emango ditu produktuak mailegu bidez edo diru laguntzen bidez eskuratzeko beharrezko administrazio elementuen gainean; horretarako, produktu horren egokitasunari buruzko txosten teknikoak beharko da. Testuinguru horretan, laguntzeko produktuak eskuratzeko laguntza horien deialdia egin du Bizkaiko Foru Aldundiak (23/2009 Foru Dekretua, otsailaren 17koa). Deialdi horretan zehaztuta datoz diruz lagunduko diren produktuen katalogoa eta produktu horiek eskuratzeko baldintzak, hala orokorrak nola produktu mota bakoitzerako espezifikoak. Diru laguntzaren zenbatekoa aldatu egingo da bizikidetzaren unitate bakoitzaren diru sarreren arabera, baina gehienez 3.000 euroko muga izango du.

Zerbitzu hori garrantzitsua iruditzen zaigu; izan ere, handitu egin du "laguntza tekniko" deiturikoetarako laguntzen bidez orain arte eskaintzen ziren produktuen katalogoa, eta laguntza horiek edonoren eskura jarri ditu, adina edozein dela ere. Hori horrela, orain arte egin diren laguntza deialdiak 39/2006 Legeari egokitu zaizkio, eta ezabatu egin da aurreko deialdietan agertzen zen adinaren muga, 65 urtekoa.

Antzeko zerbitzu bat bada Gipuzkoan ere –Etxetek–. Alabaina, Arabak ez dauka horien pareko zerbitzurik. Laguntza horiei esker, mendeko pertsonak beren etxeetan gera daitezke, eta egoitzetan sartzeko eguna atzeratu ahalko dute, edo ez dute egoitzetan sartu beharrik ere izango.

Horrez gain, Gipuzkoako Foru Aldundiak araudi bat onartu du **39/2006 Legetik eratorritako hiru prestazioen gainean**: uztailaren 21eko 25/2009 Foru Dekretua, hain zuzen ere. Araudi berri horrek hainbat berrikuntza dakartza familia ingurunekeo zaintzarako prestazioari dagokionez, hala nola: prestazio hori lortzeko aukera ematea kongregazio erlijiosoetako kideei, eta gehienez ere mendeko bi pertsonako muga ezartzea zaintzaile bakoitzeko.

Arabian, **aldatu** egin dute 70/2007 Foru Dekretua, **familia ingurunekeo** zaintzarako prestazioa arautzen duena, otsailaren 3ko 9/2009 Foru Dekretua onartuta. Araudi berri horrekin, aldatu egin da prestazioak beste zerbitzu batzuekin batera ematen denean izaten duen murrizketa. Etxez etxeko laguntzarekin batera ematen denean, murrizketa %20koa izango da, baina bere hartan utziko dira aurreko baldintzak. Eguneko zentro, lanerako ikastegi edo eguneko arretarako landako zentro bateko zerbitzuarekin batera ematen denean, %25 murriztuko da prestazio ekonomikoa, laguntza lanegunetan ematen bada, %15 soilik aste-buruetan ematen bada, eta %40 modu jarraituan ematen bada.

Nolanahi ere, alde handiak daude oraindik lurraldeen artean **aldi berean familia ingurunekeo zaintzarako prestazio ekonomikoa eta zerbitzuren bat (etxez etxeko laguntza, eguneko zentroa, lanerako ikastegia...)** ematen denean. Bizkaian, bateraezinak dira oraindik ere prestazio hori eta beste edozein prestazio (telelaguntza eta aldi baterako egoitza zerbitzua izan ezik). Uste dugu gogoeta egin beharko litzatekeela alderdi horren eta bere ondorioen gainean. Gipuzkoan eta Araban bateragarri izan daitezke bai etxez etxeko

laguntzarekin (EEL) eta bai eguneko arretarako zerbitzuekin (eguneko zentroa, lanerako ikastegia...). Bi kasuetan, prestazio ekonomikoa murriztu egiten da. Murrizketa %20koa da bi lurraldeetan, EELrekin batera ematen bada (Arabian 9/2009 Foru Dekretuaren bidez egin den aldaketaren ondoren). Alabaina, aldeak daude prestazioa eguneko zentro, lanerako ikastegi edo antzeko zerbitzu batekin batera ematen denean. Kasu horietan, Gipuzkoan prestazioa %50 murrizten da, eta Araban zerbitzuaren erabileraren arabera murrizten da, gehienez ere %40, asteko zazpi egunetan erabiltzen bada. Aurreikuspen horiei jarraiki, zerbitzua astelehenetik ostiralera ematen denean –kasurik gehienetan–, Gipuzkoan aplikatzen den murrizketa (%50) Araban aplikatzen denaren halako bi da (%25); eta bi gizarte baliabideak batera ematen direnean, Gipuzkoan prestazioa %60 murrizten da, eta Araban, portzentaje hori murrizt daitekeen gehiena da (EEL %20, eta eguneroko eguneko zentroa %40).

Familia inguruneko zaintzarako prestazio ekonomikoari dagokionez, iazko txostenean adierazi genuen aztergai izan genituen hainbat kasutan ezin izan zutela prestazioa lortu, ez zutelako betetzen eskatutako baldintzetako bat, zehazki ahaidetasun harremanaren edo bizikidetzaren baldintza. Kasu horiek ez daude jasota 39/2006 Legean, kasuistika askotarikoa delako, baina justizia materialekoa dirudi legeak eman nahi duen babes hori ere egoera horietara iristek. Gaur egun, esan dezakegu egoera horietako batzuk ongi konpondu direla aurten, eta beste batzuk laster konpontzea aurreikusten da; dena dela, zenbait egoera erakundeen erantzunik gabe geratuko dira oraindik.

Aipaturiko egoeretako bat kongregazio erlijiosoetan sortzen da, mendeko pertsonaren eta haren zaintzailearen artean ez baita izaten ahaidetasun zibileko harremanik. Kasu hori Gipuzkoako moja batekin agertu zitzaigun. Aldundira jo genuen, eta hainbat ohar egin genizkion, gisa honetako komunitate edo kongregazio erlijiosoak familiazat hartuak izateko legearen ondorioetarako, bertako kideek familia inguruneko zaintzarako prestazioa lortzeko modua izan dezaten, betiere gainerako baldintza guztiak betetzen badituzte. Gipuzkoako Aldundiak ondo hartu zuen proposamena, eta kasu hori arauan sartu zuen, uztailaren 21eko 25/2009 Foru Dekretu berrian. Hauxe dio 14.d) artikulua, profesionalak ez diren zaintzaileen eskakizunei buruzkoak: *“familia lotura hori ez da eskatuko zaintzaileak onuradunaren komunitateko erlijiosoak edo beste motako kideak direnean”*.

Arabako eta Bizkaiko foru dekretuek ez dute kasu hori jasotzen, baina jakin dugu kontuan hartzen ari direla, horren inguruan hartutako irizpide baten bidez. Oso ongi irizten diogu egoera horietan prestazioa onartzeko erabakia hartzeari, baina uste dugu, segurtasun juridikoagatik, komeni dela erabaki horiek dagokion araudiaren parte izatea.

Dirudenez, Bizkaian laster onartuko dute familia inguruneko zaintzarako prestazioari buruzko araudi berria, eta kongregazio erlijiosoen egoera ere hartuko du kontuan. Halaber, espero dugu lehen haurtzaroz geroztiko familia harreraren kasuak ere jasotzea; izan ere, iaz gure txostenean aipatu genituen kasuetako beste bat da hori: familia batek semetzat/alabatatzat hartu zuen bere lehen haurtzaroan gaur egun adinekoa den pertsona bat, baina ez zuen adopzioa formalizatu; horren ondorioz, pertsona horrek ez du arauak eskatzen duen ahaide-tasun harremanik bere zaintzailearekin, nahiz eta elkarrekin bizi izan diren, modu jarraituan, familia etxe berean.

Alabaina, oraindik ere zenbait egoerari ez die erantzuten gaur egungo araudiak, eta ez dugu egoera horiek nola tratatuko diren Bizkaiko araudi berrian. Hain zuzen, iaz aipaturiko beste kasu bati buruz ari gara: berarekin bizitzeko eta berari laguntzeko senitartekorik ez duen mendeko pertsona baten kasuaz. Horregatik, lan hori familiakoa ez duen pertsona batek egiten du; berarekin bizi da, eta lan harreman bat du berarekin. Kasu honetan, beste bi euskal lurraldeetan ere lortuko zuen prestazioa, betiere III. mendekotasun gradua onartua izanez gero: Gipuzkoan, laguntzaile pertsonalaren prestazioaren bidez, eta Araban, araudian jasota dagoelako (urriaren 23ko 70/2007 Foru Dekretuko 7. artikulua). Arabako arau horrekin berarekin, zuzeneko senitarteko batek artatzen duen mendeko pertsona baten kasuari ere erantzuten zaio; senitarteko hori ez da mendeko pertsona horrekin bizi, baina bai metro gutxi batzuetara. Alabaina, ez Gipuzkoan (oso mendekoa ez delako) eta ez Bizkaian eskuratu ahalko zuen prestazioa.

Atal honetan, Arabako Aldundiak ematen duen laguntza ere aipatu behar da. Laguntza hori bateragarria eta, hala badagokio, osagarria da familia inguruneke zaintzarekin. Helburu berbera du, mendeko adineko senitartekoak etxean artatzen dituzten pertsonentzako diru laguntza baita. Horren xedea da adineko horiei laguntza osoa ematea beren bizikidetzan nukleoan, eta, hala, egoitzetan sartzeko eguna atzeratzea edo saihestea. Laguntza hori aurreko urtean emandako zaintzarenatik ordaintzen da, eta, alde horretatik, 2008an emandako zaintzarenatik laguntzaren aurtengo deialdia irailaren 8ko 82/2009 Foru Dekretuaren bidez egin zen. Laguntza familiaren diru sarreraren arabera ematen da, baina zertxobait handitu dezake errentarik txikieneko familiek jasotzen dituzten laguntzen guztizkoa. Baldintzak antzekoak dira bi laguntzetan, baina aldea da foru laguntza lortzeko hiru urtez egon behar dela errolatuta, eta mendekoaren eta zaintzailearen artean familia lotura izan behar dela, hori besterik zehaztu gabe. Beraz, laguntza hori jaso dezakete Mendekotasunaren Legeak ezarritako ahaidetasun baldintza betetzen ez duten pertsonak.

Laguntzaile pertsonala izateko prestazio ekonomikoari dagokionez, 39/2006 Legeak honako hau dio 19. artikuluan laguntzailearen helburuari buruz: *“que facilite al beneficiario el acceso a la educación y al trabajo, así como una vida más autónoma en el ejercicio de las actividades básicas de la vida diaria”*. Helburu hori bere hartantxe gorde du Gipuzkoako araudiak (gaur egun, 25/2009 Foru Dekretuko 15. artikulua), eta, horri esker, hainbat egoera hartzen ditu kontuan. Alabaina, Arabako eta Bizkaiko foru aldundiek, prestazio horren inguruko araudian definizioa bere hartan utzi badute ere, prestazioa lortzeko ezinbestean eskatzen dute *“hezuntzaren edota lanaren esparruan jardueraren bat garatzea”* (Araban 11/2008 Foru Dekretuko 5.1.d artikulua, eta Bizkaian 99/2007 Foru Dekretuko 5.1.c artikulua). Beraz, bi lurralde horietan baztertu egin da legean aipaturiko hirugarren helburua, hau da, *“una vida más autónoma en el ejercicio de las actividades básicas de la vida diaria”*, nahiz eta horrek hainbat egoerari erantzuteko modua emango lukeen. Azken hori, gure iritziz, legearen interpretazio murriztailea da.

Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoari dagokionez, Bizkaiko Foru Aldundiak ez du oraindik halakorik arautu. Iaz adierazi genuen bezala, ofizioz esku hartu genuen arloan honetan. Gizarte Ekintzako Sailarekin hainbat kudeaketa egin ostean, sail horrek adierazi zigun bazuela asmoa prestazio hori arautzeko, eta jakinarazi zigun, hain zuzen ere, horretan ari

zirela lanean, bereziki adinekoentzako egoitzen esparruan hauteman zuten beharrizan bat zelako. Hala ere, urtea amaitu da, eta ez dute arautu oraindik.

Hutsune hori, zenbait kasutan, adinekoak egoitzetan sartzeko banakako laguntzen bidez ari dira betetzen, baina laguntza horiek beste mota batekoak dira eta ez dute ordezkatu hizpide dugun prestazioa. Hala ere, kexa bat jaso eta izapidetu dugu horren inguruan. Hain zuzen, pertsona batek Bizkaiko Foru Aldundiari eskatu zion ordain ziezaiola bere amaren egoitzako gastu pribatua prestazio horren bidez, eta Aldundiak, emandako ebazpenean, ukatu egin zion, "ez dagoelako eskatutako prestazio ekonomikoaren inguruko araudirik". Horregatik, berriro ere diogu beharrezkoa dela prestazio ekonomiko hori, 39/2006 Legearen ondoriozkoa, lehenbailehen arautzea Bizkaian; izan ere, modu horretan, legea behar bezala garatzeaz gain, segurtasun juridikoa emango zaio herritar kaltetuari, eta ez ditu pairatu beharko araudirik ez izatearen ondorioak.

39/2006 Legearen aplikazioaren inguruan **jasotako kexei** dagokienez, aipaturikoez gain, ondoko hauek ere jorratu ditugu 1.4 atalean, arloko konturik esanguratsuenen analisiari buruzkoan, eta, zehazki, 1.4.4 azpiatalean, mendeko pertsonen laguntzari buruzkoan.

Estatuko Administrazio Orokorrak ere hartu ditu hainbat erabaki 39/2006 Legearen inguruan. Batetik, erabaki du lege horren babesean emandako prestazio ekonomikoak eta gauzazkoak ez direla kontuan hartuko errentan, kotizazio gabeko pentsioaren eraginetarako (PRE/3113/2009 Agindua, azaroaren 13koa. BOE, 2009-XI-20).

Bestalde, bereziki interesgarria da **profesionalak ez diren zaintzaileak trebatu eta informatzeko akreditazio irizpide erkideen** gaineko erabakia. Beregaintasunerako eta Mendekoak Artatzeko Sistemaren Prestazioetarako Lurralde Kontseiluaren erabaki bat da hori, Gizarte Politikako eta Kontsumoko Idazkaritza Nagusiaren 2009ko azaroaren 4ko ebazpenaren bidez argitaratua (BOE, 2009-XI-27). Horren bidez, oinarriko ezagutzak eman nahi zaizkie mendekoak zaintzeko gizarte eta osasun arloko kontuen inguruan, estrategiak erakutsi nahi zaizkie norberaren autonomia hobetzeko eta ingurunearekin harremanak izateko, eta informazioa eman nahi zaie laguntza produktuei buruz eta gizarte eta osasun arloko baliabideei buruz. Halaber, planaren bidez, laguntza emozionala eman nahi zaie zaintzaileei, bai eta gizarte aintzatespena ere. Erabakiaren arabera, prestakuntza presentziala, urrutikoa edo mistoa izango da, eta programak honela eratuko dira: hasierako prestakuntza, gutxienez 15 ordukoa, eta prestakuntza espezifikoa, gutxienez 10 ordukoa, kasuan kasuko beharrizan zehatzen araberakoa. Erabakian prestakuntza programa hauen edukiak argitaratu dira, eta adierazi da dagokion administrazioak gehienez ere urtebetez antolatu beharko dituela.

Gaur egun ez da kontuan hartzen zaintzaile informalek prestakuntzarik baduten edo ez, ez eta haien lanak mendekoaren ongizatean zenbateraino eragiten duen ere. Hala, garrantzitsua iruditzen zaigu alderdi horiek nolabait neurtzea.

Beregaintasunerako eta Mendekoak Artatzeko Sistemari txertatuko den autonomia erkidegoetako informazioa argitaratu da, estatistikak egin eta sistemaren funtsezko elementuak zein diren jakin ahal izateko. Interesgarria da zein eratako datuak eman behar diren azaltzea;

izan ere, administrazioek horren arabera antolatu beharko dute beren informazioa. Beregaintasunerako eta Mendekoak Artatzeko Sistemaren Lurralde Kontseiluaren beste erabaki bat da hori ere, aurreko Idazkaritza Nagusiaren beraren egun bereko ebazpenaren bidez argitaratua (BOE, 2009-XI-27).

Azkenik, txosten honetako bigarren kapitulura jo behar dugu bai 39/2006 Legeak eta bai lege horren garapenak nolako eragina izan duten eta erasandako taldeetan nola ezarri diren jakiteko.

4. Saileko konturik garrantzitsuenen analisia

4.1. Eduki ekonomikoa duten gizarte prestazioak

- Prestazioa ukatzea, udal erroldan inskribatuta ez egoteagatik

Gizarte Zerbitzuen Lege berriak xedatzen duenez, udal erroldan inskribatuta egon behar da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari sartzeko: *“Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzu eta prestazioetarako eskubidearen titular dira Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietako edozeinetan erroldatuta dauden pertsonak, baldin eta legezko eta benetako bizilekua bertan badute”* (12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa, 3. artikulua).

Atal honetan aipatu ditugun esku-hartzeak prestazioak onartzeko orduan erroldak duen eraginaren ingurukoak dira.

Erroldan inskribatzeko zailtasunak ostatu egokia izateko edo pertsonak identifikatzeko agiriak lortzeko zailtasunen ondorio dira, atzeritarren kasuan. Beraz, dokumentu hori izatea ezinbesteko baldintza da prestazioa emateko.

Arartekoak egindako bi ebazpenetan, honako alderdi hauek aztertu ditu: errolda agiriak duen froga balioa, prestazioak emateko eskakizunak arautzeko orduan Administrazioak dituen mugak eta froga prozedura administratiboan. Alde horretatik, garrantzitsua da gogoratzea administrazio publikoek laguntzei buruzko araudian jasotako baldintzak betetzen diren edo ez egiaztatu behar dutela. Hala, bada, zuzenbidean baliozkoak diren froga bideak onartu behar ditu, eta baztertu egin behar ditu nabarmen bidegabeak edo alferrekoak diren frogak, ebazpen arrazoitu baten bidez (Herri Administrazioetako Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari (AJAPE) buruzko 30/1992 Legeko 80. artikulua).

Arartekoak, [2009ko uztailaren 23ko ebazpenean](#)¹, horren inguruko kasu bat aztertzen du, Gipuzkoako Foru Aldundiak laguntza bat ukatu baitzuen data jakin batetik aurrera, errolda

¹ Arartekoaren ebazpena, 2009ko uztailaren 23koa. Honen bidez Gipuzkoako Foru Aldundiari gomendatzen zaio, familia inguruneke zainketarako diruzko prestazioa eman dezan, mendetasun balorazioaren eskaera aurkeztu zen datatik hasita.

agiria ez aurkezteagatik. Ebazpen horretan, laguntzei buruzko araudiak zer eskakizun ezartzen dituen aztertzen dugu, eta, zehazki, errolda agiria aurkeztu behar dela, froga bide bakar gisa, zaintzailea zaintza behar duen pertsonaren etxe berean bizi dela egiaztatzeko.

Kexaren sustatzaileak, bizikidetza egiaztatzeko, bizi izen herriko Udalak emandako bizikidetza ziurtagiria aurkeztu zuen. Foru Aldundiak ez zion inolako baliorik eman dokumentu horri, eta ez zuen ezer egin, bere eskuduntzak baliatuz, eskatzaileak alegatutakoa egia ote zen ikertzeko eta behar beste judizio elementu izateko bizikidetza hori egiaztatzeko. Eta hala jardun zuen, nahiz eta eskakizun hori ez den agertzen Mendekotasunari buruzko Legean prestazioa emateko berariazko baldintza gisa, baizik soi-soilik froga bide gisa.

Alde horretatik, gogorarazi behar dugu administrazio publikoek froga bideak antola badi-tzakete ere ezin dituztela bide horiek dokumentu bakar batera mugatu, ez eta froga bideak murriztu ere, lege mailarik ez duen xedapen baten bidez.

Bizileku jakin batean erroldatuta egotea bada pertsonaren bizilekua frogatzeko bide bat, be-tiere pertsonaren bizilekua eta erroldakoa bat badatoz. *Iuris tantum* presuntzioa duen froga bide bat da, eta, beraz, ez dago horren kontrako frogarik. Beraz, gerta liteke bat ez etortzea erroldan ageri den bizilekua eta benetako bizilekua.

Argudio bide horri jarraituz, garrantzitsua da adieraztea, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak lanbidea eta familiako bizitza bateratzeko neurriak arautzen dituen uztailaren 17ko 118/2007 Dekretuan xedatzen duenarekin bat eginez, eskaerarekin batera dokumentu hauek aurkeztu behar direla (10.5 d artikulua):

“Eskatzailearen erroldatze-ziurtagiri eguneratuak, bizilekuan bizi diren lagun guztien zerrenda eta eskatzailea udalerrian erroldatu zen eguna barne. Laguntza eskaera aurkezten den eguna baino hilabete bat baino lehenago emandako erroldatze-ziurtagiriak ez dira onartuko.

Erroldatze-ziurtagiriak frogatzen ez badu eskatzailea udalerrian bizi dela, laguntzaren organo kudeatzaileak eskaera egingo dio eskatzaileari udalerrian bizi dela egiaztatzen duten dokumentuak aurkez ditzan.”

Beraz, beste laguntza horiei buruzko araudian aurreikusten du gerta litekeela erroldan ageri den bizilekua bat ez etortzea benetako bizilekuarekin, eta froga aldi bat irekitzeko aukera ezartzen du. Lege aurreikuspen hori bat dator erroldaren izaerarekin.

[Arartekoaren 2009ko abuztuaren 10eko ebazpenean](#)² ere aztertu genuen prestazioak emateko orduan erroldak duen eragina. Arabako Foru Aldundiaren araudiak (ALHAO, 2006ko

² Arartekoaren ebazpena, 2009ko abuztuaren 10ekoa. Horren bidez, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politika eta Gizarte Zerbitzuetako Sailari gomendatzen zaio bizikidetasuna egiaztatzeko zuzenbidean baliozkoak diren beste frogabide batzuk onartzea eta, legezko izapideen ondoren, mendeko adineko senide bat bere etxebizitzan zaintzen duen pertsona honi laguntza ekonomikoa ematea.

azaroaren 13koa), adineko mendeko senitartekoak etxean artatzen dituzten pertsonentzako diru laguntzen 2006. urteko deialdi publikoa arautzen duenak, baldintza gisa ezartzen zuen zaintza behar zuen pertsonak eta zaintzaileak elkarrekin bizi behar zutela 2006. urte osoan. Kexaren sustatzaileak egiaztatu zuen eskaera aurkeztu aurreko hiru urteetan egon zela erroldatuta Arabako Lurralde Historikoko udalerrri horretan, eta hainbat froga bide aurkeztu zituen "2005. urte osoan adinekoarekin batera bizi izan zela" egiaztatzeko, baina ez zuen errolda agiria aurkeztu.

Errolda agiririk aurkeztu ez zuenez, ez zituen bete laguntzen deialdiko baldintzak, eta, beraz, ukatu egin zioten laguntza. Bestalde, espedientean aztertu zen ordenamendu juridikoaren arabera ote den froga bideak eta errolda agiriaren frogak balioa murriztea. Ondorioak antzekoak izan ziren, hau da, bizikidetzaren egiaztatzeko bide bakartzat errolda agiria aurkeztea ez datorrela bat ordenamendu juridikoarekin, frogatzeko eskubidearen erabilera murrizten baitu.

Horren inguruko beste kexa bat ere jaso dugu aurten. Salaketa jartzaileak adierazitako bizileku horretan benetan bizi zela egiaztatu bazuen ere, ez zegoen herri horretan erroldatuta (354/2009); horren ondorioz, ukatu egin behar zioten diru sarrerak bermatzeko errenta. Alabaina, udal gizarte zerbitzuek txosten bat egin zuten, eta, horri esker, prestazioa eman diote, errolda agiria aurkeztu gabe, bizilekua egiaztatzen duten beste frogak bide batzuk erabilita.

Bestalde, hainbat kexa izapidetu ditugu erroldatik baja eman zuten pertsona batzuei prestazio ekonomikoa ukatu zaiela eta. Gasteizko Udalak protokolo bat egin du baztertua geratzeko arriskuan dauden pertsonak erroldatzeko prozedura arautzeko. Protokolo hori izapidetzeko fasean dago oraindik. Halaber, erroldatik ofiziozko baja emateko prozedura bat aurrekusi du. Udalak, 1067/2009 espedientean jakinarazi digunez, diru sarrerak bermatzeko errenta ukatu dio pertsona bati, udal erroldan urtebete lehenagotik inskribatuta dagoela egiaztatu ez duelako, eta ofiziozko baja emateko prozedura hasi du, jakin duelarik pertsona hori ez dela bizi erroldatzean adierazi zuen bizilekuan. Errolda Unitateak egiaztatze lanak egin ditu pertsona horrek emandako datuak egiazkoak diren edo ez ikusteko, eta jakinarazi du nor ez diren bizi udal erroldan ageri den bizileku horretan. Prozeduran bete da jakinarazteko betebeharra, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 59. artikuluan jasotzen duenarekin bat; horren arabera, bi egun eta ordu desberdinetan saiatu behar da jakinarazpena entregatzen; hartzaileak jasotzen ez badu, posta zerrandan utzi behar da, eta, ondoren, ALHAOn argitaratzen da.

Aurten, zenbait pertsonaren kexak jaso ditugu, gizarte prestazioren bat eskatu dutenean edo bizilekuz aldatu direla jakinaraztera joan direnean erroldatuta ez zeudela jakin dutelako. Kasu guztietan adierazi dute Gasteizen bizi izan direla ordura arte, baina zekitelako ofiziozko baja emateko prozedura bat hasi zutenik haien aurka. Arartekoak, halako kasuetan, aztertu egiten du Gasteizko Udalak ofiziozko baja emateko prozedura bete duen ala ez, eta pertsonak Udalarik bizileku aldaketaren berri eman dion edo ez. Garrantzitsua da gogoraraztea daturen bat aldatuz gero jakinarazi egin behar zaiola Errolda Unitateari.

Erroldatik ofizioz baja emateko ebazpenen ondorioz, zenbait pertsonak ezin izan dute aurkeztu errolda agiria herrian benetan bizi direla frogatzeko, eta ukatu egin diete diru laguntza; halaxe gertatu da, esaterako, 1067/2009 eta 1346/2009 espedienteen kasuan. Bi kasuetan, pertsona horiek jakin zuten ez zeudela udal erroldan inskribatuta bizilekuz aldatu zirela jakinarazi zutenean, eta, beraz, erroldan alta eman zitzaie, ez-egitez. Ez-egitezko altak ez du atzeraeraginik; beraz, ofiziozko bajak eta ez-egitezko altak kalte egin die gizarte laguntza onartzeko orduan.

- ***Diru sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa ukatzea, bizikidetzaren modu independentea ez egiaztatzeagatik***

Prestazioak ukatzeko beste arrazoi batzuek etxebizitza egokirik ez izatearekin dute zerikusia. 931/2009 espedientearen, Bizkaiko Foru Aldundiak diru sarrerak bermatzeko errentaren eskatzaileari eskatu zion egiazta zezala bizikidetzaren unitate ekonomiko independentea osatzen zuela, gizarteratzeko gutxieneko diru sarrera arautzen duen apirilaren 20ko 198/1999 Dekretuan azaltzen den eran. Izan ere, horixe da aplikatzeko den araudia, harik eta Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 8/2008 Lege berria garatuko duen dekretua onartzen den arte. Kexaren sustatzaileak logela baten kontratua aurkeztu zuen, eta Foru Aldundiak eskatu zion aurkez zezala edo azpierrementamendu kontratu bat edo ostatatze zein apopilatze kontratu bat. Etxebizitzaren jabea ez zen sartzen formula horietako bakar batean ere; beraz, ezin izan zuen aurkeztu eskatutako dokumentazioa, eta ukatu egin zioten eskaera. Foru Aldundiak bere kexan dio aplikatzeko den araudiak, 198/1999 Dekretuak, ez duela jasotzen logela kontratua gaur egungo araudiak exijitzen duen "bizikidetzaren modu independentea" egiaztatzearen modu gisa.

Espediente hau eta Diru Sarrerak Bermatzeko Legearen aplikazioaren inguruko beste kexa batzuk kontuan hartuta, lehen adierazitako kontsulta egin genion Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailari, hau da, zer interpretazio egin asmo duen bizikidetzaren independentea egiaztatzearen moduari dagokionez; halaber, erakunde honek gomendio orokorrean agerian jarri zuen arazo bat gogorarazi genion: "*Oinarrizko errentaren prestazioa arautzen duen apirilaren 20ko 198/1999 Dekretuko bizikidetzaren unitate ekonomiko independentea berrikusteko behararen inguruan*" (Eusko Legebiltzarrentzako txostena, 2006). Txosten horretan adierazi genuen zenbait pertsonak zailtasunak dituztela etxebizitza independentea dutela egiaztatzearen, etxebizitza berean logela bat partekatzen dutenean. Alde horretatik, hauxe adierazi diogu Administrazioari: "Denbora aurrera doan arren, segitzen dugu kexak jasotzen, egoera ekonomiko larrian dauden pertsonen ezin dutelako oinarrizko errentaren prestazioa jasotzeko baldintzak betetzen dituztela erakutsi, gela bat soilik alokatu dutelako, eta ezin dutelako apopilo kontraturik edo errentamendu edo azpierrementamenduko kontraturik aurkeztu, edo biak, kasuren batean eskatzen zaien bezala. Horren harira, Lurralde Historikoen edo udalerrien arabera, barbarako, Gasteizen, ezberdin jokatzeko delako ohartu gara. Legea eta, zehazki, etxebizitzaren prestazio osagarria arautegiz garatzeak egoera horiek argitzen lagunduko du, ziurrenik; kasu askotan 2006an planteatu genituen antzekoak dira: etxebizitzaren alokairu garestiek eragozten dute gizarte laguntzen onuradunek etxebizitza bat alokatzea eta, ondorioz, bizitoki independentearen frogaren beharrari

ematen zaion tratamenduak garrantzi handia hartzen du.“Txosten hau amaitzean erantzunik jaso gabe geunden oraindik.

- Atzerritarrei beren jatorriko herrialdeko ondasun ziurtagiria eskatzea

Erakunde honetan izapidetu ditugun kexa espedienteetan, besteak beste prestazioak ukatzeko arrazoietako bat izan da atzerritarrei beren jatorriko herrialdeko ondasun ziurtagiria eskatzen zaiela (808/2009 zenbakiko espediente); kasu batean, arazo hori konpondu da atzerritar horrek ondasunik ez duela dioten lekukoen –herrikideen– zinpeko aitortpena aurkeztuta, eta beste batean, Pakistango kontsularen ziurtagiri baten bidez, adierazi baitu herritar horrek ez duela ondasunik bere jatorriko herrialdean. Halaber, kontsulta bat egin diogu Eusko Jaurlaritzari II. kapituluan jasotzen den lehentasunezko arreta taldeei buruzko atalean (ETORKINAK) aipaturiko kontu baten inguruan.

- Bidegabeki jasotako zenbatekoak itzultzea

Prestazio honekin lotuta jaso ditugun kexen artean, prestazio bat itzultzeko eskaera bat dago. Hain zuzen ere, martxoaren 15eko 357/1991 Errege Dekretuak arautzen du prestazio hori, kotizazio gabeko pentsioei dagokienez Gizarte Segurantzaren kotizazio gabeko prestazioak ezartzen dituen abenduaren 20ko 26/1990 Legea garatzen duenak. Egiatztatzen bada familia unitateak prestaziorako eskubidea onartzeko araudian muga gisa ezarritakoa baino diru-sarrerara gehiago dituela, itzuli egin behar du jasotako zenbatekoa (1518/2008 espediente).

Horrekin lotuta, adierazi behar dugu komeni litzatekeela Administrazioak al baita azkarren berrikustea prestazioak, bidegabeko kobrantzen ondorioz halako zor handirik ez sortzeko. Dena dela, oro har egiten diren berrikuspenak bat etorri ohi dira ordenamendu juridikoarekin, ez baita preskribitu itzultzeko betebeharra.

Beste espediente batean ere (361/2009) zalantzan jartzen zen bidegabeki kobratutako diru kopuru bat itzultzeko betebeharririk ba ote zen; izan ere, diru asko zen, eta hartzaileak ez zuen baliabide ekonomikorik. Administrazioaren jarduna, hau da, zenbatekoa bidegabeki ordaindu zela adieraztea eta jasotako zenbateko horren itzulketa likidatzea, bat zetorren ordenamendu juridikoarekin; izan ere, ahalmen hori lau urteren buruan preskribitzen da (Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeko 39. artikulua), eta Foru Aldundiak martxoaren 5eko 37/2002 Foru Dekretua aplikatu zuen, bidegabeko kobrantzen zatikapenak eta konpentsazioak arautzen dituena. Araudi horretan ezartzen da Bizkaiko Foru Aldundiak zer prozedurari jarraitu behar dion bidegabeki jasotako zenbatekoak itzul daitezela eskatzeko.

- Pentsioaren osagarria ukatzea

Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 8/2008 Legeak areagotu egin du funts publikoekin ordaindutako pentsioa jasotzen duten pertsonen babesa. Kasu

horietan –betiere ezarritako gainerako baldintzak betetzen badira–, pertsona horiek diru sarrerak bermatzeko errentarekin (DBE) osa dezakete beren pentsioa. Neurri horren bidez, hobetu egiten dira pentsio txikiak jasotzen dituzten pertsonen baldintzak, nahiz eta diru sarrerak dituzten beste pertsona batzuekin bizi, betiere ezkontidea alde batera utzita.

Garrantzitsua iruditzen zaigu adieraztea osagarri horrek ordezkatu egiten duela babes sistema nagusia, hau da, Gizarte Segurantzako sistema, eta pentsio txikiak osatzen dituela.

Prestazio hori lortzeko baldintzetako bat da bizikidetzaren unitatea osatzea. Kontzeptu hori 9. artikuluan jasotzen du legeak. Hain zuzen ere, artikuluko 9. idatz-zatiak salbuespen egoerak aipatzen ditu, eta, alde horretatik, adierazten du besteak beste honako hauek hartuko direla bizikidetzaren unitatez: *“Zahartzaro, baliaezintasun edo alarguntasuneko ordaindutakoaren arabera diren edo horren arabera ez diren pentsioen onuradunak, baita haien ezkontidea edo haiekin ezkontzaren antzeko harreman iraunkor baten bidez batutako pertsona eta ekonomikoki haien mende dauden pertsonak ere.”* Aipatzen diren pentsio guztiak finantzaketa publiko bidezkoak dira. Horri “pentsio osagarria” deitu zaio, eta gehieneko muga lanbide arteko gutxieneko soldatarena du.

Arau horren ildotik, pentsio publikorik jasotzen ez zutela-eta hor sartzen ez ziren zenbait pertsonaren kasuak azaldu zaizkigu. Denak ziren emakume bananduak edo dibortziatuak, pentsio publikorik eskuratu ezin zutenak edo publikoa ez zen pentsioen bat kobratzen zutenak, hala nola pentsio osagarria, haien senar ohiek edo bikotekide ohiek emandakoa. Egoera horiek gehienbat seme edo alabaren batekin bizi diren emakumeei eragiten diete, eta, hain zuzen ere, halaxe zen kasu guztietan. Garrantzitsua litzateke Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko neurri hori betetzen ote den ikustea –zehazki 18. eta 45. artikulua–, bai eta emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa betetzen ote den ikustea ere.

Hori horrela, Gizarte Ongizateko Funtseko pentsioa lortzeko aukera aztertu beharko litzateke; izan ere, pentsio hori publikoa da, eta hori lortzeko soil-soilik eskatzailearen diru sarrerak hartzen dira kontuan. Hala eginez gero, pertsona horiek, pentsiodun bihurtuta, diru sarrerak bermatzeko errentaren bidez osa dezakete pentsio hori. Alabaina, hori ez da beti posible izaten, zer baldintza eskatzen diren kontuan hartuta, batez ere honako hauek kontuan hartuta: a) pentsio hori oso txikia da (2.098 euro urtean, 2009an), eta, beraz, eskatzailearen baliabideak ezin dira izan zenbateko horretatik gorakoak; b) 65 urte beteak izan behar dira; edo c) adin horretatik beherakoa izanez gero, %45eko ezgaitasunen bat izan behar da.

Pentsio hori edo beste edozein pentsio publiko lortzerik ez bada, pertsonak ezin du lortu DBEren osagarria, nahiz eta haren diru sarrerak ez iritsi ezarritako mugara. Alde horretatik, pertsona horiek baldintza txarragoetan gelditzen dira diru-sarrera gehiago dituztelarik –baina beti pentsio publiko batekoak–, DBEren osagarria jasotzen dutenak baino.

Agertu zitzaigun kasu batean, 60 urtetik gorako emakume batek pentsio osagarri bat kobratzen zuen, eta, horregatik, ezin zuen jaso diru sarrerak bermatzeko errenta (DBE), nahiz

eta oso pentsio txikia kobratzen zuen –hilean 100 euro, Gizarte Ongizateko Funtseko pentsiorako ezarritakoa baino gutxiago–. Ondorioz, kasu honetan, pentsio hori eskuratzeko izapideak egin ziren, publikoa baita; modu horretan, emakume horrek bere pentsioaren osagarria eskuratu ahal izan zuen, DBEren bidez. Alabaina, hori ez da beti posible izaten, aipaturiko pentsio hori oso txikia baita.

Hala, agertu zitzaigun beste kasu batean, alaba batekin bizi zen emakume batek, 60 urtetik gorakoa hori ere, pentsio osagarria jasotzen zuen, baina zenbatekoa Gizarte Ongizateko Funtseko pentsiorako ezarritakoa baino gehiago zen; beraz, ezin zuen pentsio hori jaso, eta ezta DBE ere, nahiz eta ez zen mugara iristen. Beste kasu batzuetan, pentsio publiko hori lortzeko baldintza ekonomikoak betetzen dira, baina beste baldintza batzuk ez. Esate baterako, eskatutako ezgaitasun maila (%45) ez duten 60 urtetik beherako pertsonak ere ezingo dute lortu aipaturiko osagarri hori.

Beste emakume baten kasua ere agertu zitzaigun. Bananduta edo dibortziatuta zegoen bera ere, eta epai judicialak xedatzen zuen senar ohiak pentsio osagarri bat ordaindu behar ziola aldi jakin batez. Aldi hori igarota, emazte ohiari pentsioa ordaintzen jarraitu zuen. Egoera horretan zela, senar ohi hil egin zen, eta emakumeak senarra izan zuen harekin bizi izandako denborarengatik zegokion alarguntasun pentsioa eskatu zion Gizarte Segurantzari. Pentsio hori ukatu egin zitzaion; izan ere, pertsona bananduek edo dibortziatuek Gizarte Segurantzako alarguntasun pentsiorako eskubidea izateko, ezinbestekoa da kausatzailea hiltzean ezkontide ohi jasotzen ari zen pentsio osagarria etetea. Halaxe dio Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren testu bategina onartzen duen 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuko 174.2 artikulua, abenduaren 4ko 40/2007 Legeko 5. artikulua emandako idazkera berrian. *“El derecho a la pensión de viudedad de las personas divorciadas o separadas judicialmente está condicionado, en todo caso a que, siendo acreedoras de la pensión compensatoria a que se refiere el artículo 97 del Código Civil, ésta quedara extinguida por el fallecimiento del causante”*. Arau horri jarraiki, emakume hori alarguntasun pentsiorik gabe gelditu da, eta ezin du lortu DBEren osagarria ere. Gizarte Ongizateko Funtseko pentsioa lortzeko, adierazitako baldintzak bete beharko ditu.

Neurri horrek zenbat pertsonari eragiten dien kontuan hartuta, aldatu egin da berriki onartutako Estatuko 2010eko Aurrekontu Orokorren Legean, 2010eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin (azken xedapenetako hirugarrena, hamalagarrena). Aldaketa horrekin, alarguntasun pentsiorako eskubidea izateko ez da beharreako izango pertsona banandua edo dibortziatua pentsio osagarriaren hartzekodun izatea, batez ere baldintza hauek betetzen badira: a) banantze edo dibortzio egunetik heriotzaren egunera hamar urte baino gehiago ez igaro izana; b) ezkontza loturak gutxienez hamar urte iraun izana; eta c) ezkontideek elkarrekin seme-alabak edukitzea edo bizirik geratu den ezkontideak 50 urte baino gehiago edukitzea pentsioaren kausatzailea hiltzen denean.

Idazkera berriak aukera ematen die zenbait pertsonari alarguntasun pentsioa jasotzeko, baina alde batera uzten ditu beste asko, hala nola 50 urtetik beherako gutziak.

Agertu zaizkigun kasu konkretuetan dauden pertsoneri, aipatu berri dugun aldaketa berriarekin, tratu desberdina eman zaie errealitatean egoera berean dauden beste pertsona batzuen aldean. Bananduta edo dibortziatuta egoteak ezin ditu egoera okerragoan utzi pertsona batzuk beste batzuen aldean, hau da, horrek ez du justifikatzen tratu desberdina ematea. Pertsona horiek, adina eta osasuna dela eta, lan egiteko ezintasun egoera berean egon daitezke, eta behar beste diru-sarrera ez izan. Horregatik guztiagatik, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailera jo dugu, 8/2008 Legea garatzeko atera behar duen araudian aurreko kasu hori kontuan hartzeko aukera balora dezan.

4.2. Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa

Jasotzen ditugun kexa askok prozedura administratiboarekin dute zerikusia, edo, bestela, nolabait prozedura horren ingurukoak dira. Asko aurreratu da gizarte zerbitzuak prozedura administratiboari egokitzeko bidean, baina oraindik ere ikusten dugu zenbait talderi dagokienez, hala nola gizartean larri baztertuta dauden pertsoneri dagokienez, arazoak sortzen direla haien interesei eta eskubideei nahiz prozedurako beste zenbait alderdiri eragiten dieten ebazpenak jakinarazteko orduan.

Halaber, errolda inskripzioa ez egiaztatzeagatik prestazio ekonomikoa ukatu zaien kasuei buruz aritu garenean aipatu dugun bezala, garrantzitsua da gogoraraztea arauen hierarkiaren printzipioa. Izan ere, Administrazio publikoa behartuta dago goragoko mailakoak diren prestazio eta zerbitzuei buruzko arauetako aurreikuspenak betetzera, hala nola pertsonak baliatu nahi dituen froga bideak aurkezteko eskubidea betetzera eta froga aldia irekitzera (Herri Administrazioetako Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeko 80. artikulua).

Nabarmendu behar dugu administrazio publikoek ez dutela baliatzen entzuna izateko izapidea egitateaz eztabaidagarria denean, nahiz eta entzunaldia prozeduraren bermea den eta administrazio ona izateko eskubidearen parte den. Izapide hori ezinbestekoa da; izan ere, aukera ematen du pertsonen eskubidearen oinarri diren bideak aurkezteko. Administrazioak interes orokorra aldezteko jardun behar du (Espainiako Konstituzioko 103. artikulua), eta froga jarduerak aukera ematen dio Administrazioari egiaztatzeko bete dela bere erabakia hartzeko oinarri izan den egitatearen premisa. Erroldako inskripzioaren froga balioaren inguruan lehen aipaturiko ebazpenetan egin dizkiogu halako oharra administrazioei.

- Prestazio ekonomikoak jasotzeko eskubidea etetea

Aurten hainbat kexa izapidetu ditugu Gasteizko Udalak daturen bat gizarte zerbitzuetako erabiltzaileak emandako informazioarekin bat ez datorrela jakin duenean jarraitutako prozedura administratiboaren inguruan (398/2009 eta 1065/2009 espedienteak). Bi kasuetan, Udalak eten egin du diru sarrerak bermatzeko prestazioa, eta bidegabeki jasotako zenbatekoak itzultzeko eskatu du.

Horietako lehenengoan, datuak ezkutatzegatik eten zuen Udalak oinarrizko errentaren prestazioa, onuraduna ezkondu egin zela eta genero indarkeriagatik urruntze agindua ezarria ziotela jakin zuenean. Halaber, gizarte behar larrietarako laguntza ordaintzeari utzi zion, uste baitzuen ez zegoela beharizan egoerarik. Horrez gain, egun jakin batetik aurrera jasotako zenbatekoak itzultzeko eskatu zion. Aurreko gertaera horiek ikusita, Arartekoak hainbat ohar bidali zituen aurrez Gasteizko Udalak bete zuen prozedura administratiboaren inguruan eta gizarte zerbitzuetako erabiltzaileak bizikidetzaren unitate ekonomikoari eragiten dion aldatetaren bat jakinarazteko betebeharra ez betetzearen ondorioen inguruan.

Beharrezkoa da agerian jartzea araudiak ez duela lotzen pertsonaren portaera prestazio ekonomikoak lortzearekin, non eta portaera horren helburua ez den baldintzak bete gabe prestazio ekonomiko batzuk jasotzea edo mantentzea. Horren ondorioz, gerta liteke pertsona batek oso portaera gaitzesgarria izatea, hala nola genero indarkeriagatik zigor bat izatea, eta diru laguntzak jasotzea. Baldin eta legegileak laguntza jasotzeko eskubidea herri-tar orori exijitzeko zaion portaerarekin lotu nahi bazuen, prestazioaren araudian jaso behar zuen hori. Alabaina, araudiak soil-soilik gizarteratze hitzarmenean hartutako konpromisoak ez hartzeari edo ez betetzeari loturiko portaerak aipatzen ditu (198/199 Dekretuko 39.2 eta 3. artikulua), eta gaur egungo araudian, aurrekoek gain (26.1 b), enplegagarritasunari loturikoak aipatzen ditu.

Araudian, beraz, aurreikusi da gizarte zerbitzuen erabiltzaileen portaerak arau-hauste izan daitezkeela eta zeha daitezkeela. Portaera horiek –2008. urtean indarrean zegoen araudian– 12/1998 Legeko 51. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoak ziren. Lege horrek dio zehapenak jarriko direla aurrez arau-hausteak tipifikatzean deskribatutako portaera jakin batzuk izanez gero, hala nola datuak ezkutatu edo manipulatu badira prestazioa lortzeko edo mantentzeko, prestazioen titularrak prestazio hori jasotzeko baldintzak betetzen ez dituztenean. Kontua da prestazio ekonomikoak arautzen dituen araudiak ez duela ezer esaten datuak ezkutatzearen inguruan eta prestazioak eten, iraungi edo ukatzeko arrazoi gisa urruntze agindu bat izatearen inguruan.

Araudi berrian hobetu egin da arauketa, eta aurreikusten du zehapen prozedura bat izatea diru sarrerak bermatzeko prestazioa amaitzeko kausa dela. Nolanahi ere, beharrezkoa da aurrez zehapen prozedura bat izapidetzea, zehapen hori jartzeko arau-haustea egin dela jo ahal izateko. Horrez gainera, aurreko araudian espediente bat izapidetu behar zen, araudiak espediente bat izapidetzera behartzen baitzuen edozein zehapen prozeduratan (Herri Administrazioetako Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeko 127. artikulua).

Gure idazkian, honako hau adierazi genuen: *“Diru-laguntzen onuradunak diren pertsonen jokabide jakin bat eduki behar duten ala ez kontuan hartu beharreko elementua izan daiteke diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko euskal sistema aldatu aurretiko eztabaidan. Prestazio horiek kudeatzerakoan izandako esperientzia eta Gasteizko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen ikuspuntua, zentzu horretan, aberasgarria izan daiteke. Hala ere, ez lehengo araudiak eta ez oraingoak ez dute prestazioak jasotzea transzendentzia penala duten pertsonen jokabidera moldatzeko aurreikuspenik”*.

Halaber, araudiak dio prozedura bat izapidetu behar dela bidegabeki jasotako prestazioak itzultzeko betebeharraren inguruan. Espediente hori izapidetzen ari da oraindik, eta Gasteizko Udalak ez die erantzun adierazitako epean ez informazio eskaera berriari eta ez aurrez igorritako oharrei.

1065/2009 espedientean, Gasteizko Udalak eten egin zituen oinarrizko errentaren prestazioak, eta ukatu egin zituen gizarte behar larrietarako laguntzak, iritzi baitzion prestazioaren onuradunak datuak ezkutatu zituela, eta, ondorioz, ez zituela bete prestazioa eskuratzean bere gain hartu zituen betebeharrak Eteteak atzeraeragina zuen, eta, beraz, Udalak erreklamatu egin zion onuradunari bidegabeki jaso zuela iritzi zion zenbatekoa. Udalarari aurrez bidali genizkion oharretan, adierazi genion 8/2008 Legeak prestaziorako eskubidea eteteko arrazoiaren artean ez duela aipatzen datuak ezkutatzea. Halaber, adierazi genion araudiak kasu hauetan zehurtziaz indargabe uztea eta zehapen prozedura bat jarraitzea aurreikusten duela, pertsonak zehatzekoa den arau-hausterik egin duen jotzeko. Garrantzitsua iruditzen zaigu nabarmentzea alde handia dagoela zehurtziaz indargabe uztearen eta prestaziorako eskubidea etetearen artean; halaber, nabarmendu nahi dugu garrantzitsua dela prozedura administratiboa betetzea, bai pertsonari zehapen bat jartzea bidezkoa denean, eta bai bidegabeki jaso den zenbateko bat itzultzea bidezkoa den kasuan. Araudiak prozedura espezifikoak ezartzen ditu zehapen bat jartzeko eta bidegabeki jasotako zenbatekoak itzultzeko. Horregatik guztiagatik, hau adierazi genuen:

“Ustez datuak ezkutatzek prestaziorako eskubidea etetea eragiten badu, halakorik balego, lehen esan dugun moduan, arau-haustea ekar lezake –18/2008 Legearen 99. artikulua eta hurrengoak– eta behar den zigorra ekar lezake. Aurreko araudiak jasotzen dituen zigorren artean prestazioa jasotzeko eskubidea etetearena ezartzen da. Garrantzitsua da aipatzea eskubidea etete hori gauzatuko dela pertsona batek arau-hauste bat baino gehiago egin duenean eta, betiere, arau-hausteetako bi gutxienez, **oso larriak** direnean, 18/2008 Legeko 105. artikulua.

Prestazioa jasotzeko eskubidea 2008ko uztailaren 1etik 2009ko maiatzaren 21era arte etetea **neurritz kanpoko** zigorra da, burututako ustezko gertaerak aintzat hartuta. Ustez pertsona horrek datuak ezkutatu izanak ez du prestazioa jasotzeko eskubidea aldatzea, etetea edo galtzea eragin. Izan ere, Hakim Maloumek, bai 2008ko uztailean, eta baita 2009ko martxoan ere, errentaren prestazioa jasotzeko titularra izateko 18/2008 Legearen 16. artikuluan ezarrita dauden baldintzak betetzen zituen.”

(Erreklamazio jartzaileak erreklamazio judizial bat aurkeztu du. Beraz, erakunde hau sortu duen eta arautzen duen 3/85 Legeko 13. artikulua xedatutakoarekin bat, erakunde honek esku-hartzeak eten ditu).

4.3. Adinekoentzako laguntza

Atal honen zati handi bat adinekoen egoitzen inguruko kontuei buruzkoa da. Adinekoen kasuan, oso garrantzitsuak dira egoitzetako langileen grebek dituzten ondorioak.

laz, Gasteizko Ariznabarra egoitzako greba aipatu genuen. Foru Aldundiaren mendeko zentro publikoa da hori, baina kudeaketa pribatukoa. Enpresa horretako langileen gatazka konpondu gabe dago oraindik, nahiz eta greban aspaldi hasi ziren.

Gisa honetako gatazkek kezkatu egiten dute Arartekoa; izan ere, mendekotasun handia duten eta, beraz, oso egoera ahulean dauden pertsoneri eragiten diete.

Aipatutako horrez gain, aurten beste zenbait langile gatazka sortu dira Gipuzkoako hainbat egoitzatan. Greba egin duten pertsonak zentro publiko batean egiten dute lan –foru edo udal zentroetan–, baina zerbitzu osoa edo zati bat itundua duen enpresa pribatu baten mendekoak dira. Batez ere, aldarrikatu dute pareka daitezela soldatak zuzenean Administrazioaren mendekoak diren egoitzetako langileen soldatekin. Zehazki, Gipuzkoako zentro hauetan egin dute greba: foru aldundiaren mendeko bi zentrotan: Eibarko Egogainen eta Donostiako Aldakonean; eta udalen mendeko hiru zentrotan: Andoaingo San Juanen, Villabonako Santiagon eta Ordiziako San Josen. Horietako gehienetan amaitu da lanuztea, baina Aldakonea egoitzan oraindik ere jarraitzen dute greban. Foru Aldundia da zentro horren titularra, baina enpresa pribatu batek kudeatzen du, itun bidez.

Zentro horren inguruan, egoitzako pertsona batzuen senitartekoen kexa jaso genuen, eta aipaturiko gainerako zentzoei dagokienez, ofizioz esku hartu genuen, horietan sortzen ari ziren egoeren berri jakin baikenuen.

Gatazka eremu pribatuan sortu denez –enpresa eta langileak–, erakunde honek ez du eskumenik horietan esku hartzeko. Alabaina, zerbitzua publikoa da, eta oso egoera ahulean dauden pertsona batzuei eragiten die, lehen adierazi dugun bezala. Alde horretatik, pertsona horien egoerak kezkatzen gaitu, behar bezalako arreta jasotzeak eta grebak albait gutxien eragiteak. Horretarako, gutxieneko zerbitzuen inguruko informazioa eskatu genion Eusko Jaurlaritzari, eta Ariznabarra eta Aldakonea zentroak bisitatu genituen, zein egoeratan zeuden ikusteko.

Bi kasuetan, ikusi dugu betetzen direla gutxieneko zerbitzuak, eta egoitzetan bizi diren pertsonak behar bezalako oinarrizko arreta jasotzen dutela. Alabaina, greba luzea izaten ari da, eta horrek asper eta neke sentipena sortzen du bai egoitzan bizi direnen artean eta bai senitartekoen artean, ez baitiote irtenbiderik ikusten egoerari. Horrekin batera, hainbat kudeaketa egin ditugu foru aldundiekin, eta ikusi dugu horiek, ikuskatze zerbitzuaren bidez, etengabe bisitatzeko greban dauden zentroak.

Greba, are aipaturiko zerbitzu publiko horietan, oso kontu zaila da heltzeko, hor babestu beharreko bi eskubide elkartzen baitira. Batetik, grebarako eskubidea, Konstituzioak 28.2 artikuluan oinarrizko eskubide gisa onartzen duena. Bestetik, egoitzetan bizi diren pertsonak osasunerako eta arreta osorako duten eskubidea; arreta hori gizarte eta osasun arlokoa da, eta bizitzaren zeregin oinarrizkoetarako laguntza ere sartzen da horren barruan, hala nola elikadura, garbitasun pertsonala, jaikitze eta oheratzeko laguntza eta abar, pertsona bakoitza zein egoeratan dagoen kontuan hartuta.

Grebetan ezartzen diren gutxieneko zerbitzuen helburua da egoitzan bizi diren pertsonen oinarrizko laguntza bermatzea, eta zerbitzu horiek ezartzeko orduan, Eusko Jaurlaritzak kontuan hartzen ditu egoitza zerbitzuetan sortzen diren egoera bereziak eta egoitzetan bizi diren pertsonen beharrezkoak (eskura ditugun aginduetatik ondorioztatzen denez). Gutxieneko zerbitzuek ez dute ziurtatzen zerbitzuaren funtzionamendu normala; hori ezinbestean okertzen da, baina eragozpen hori onartu beharra dago, Konstituzio Auzitegiak emandako ekainaren 19ko 183/2006 Epaiarekin bat. Alabaina, ebazpen horrexek dio soilik arrazoizko muturretaraino nahasi behar dela zerbitzuaren funtzionamendu normala, eta langileek grebaren bidez beren interesak aldezteko eta sustatzeko duten eskubidea amaitzen dela hori gertatzean edo grebalariek duten baino kalte larriagoa eragin daitekeenean. *“Komunitateak ezinbesteko prestazio horietarako duen eskubideak lehentasuna du grebaren eskubidearen aurretik,” adierazi du goi auzitegiak.*

Egoitzetako grebek kezkatu egiten gaituzte; izan ere, egoitzetan bizi diren pertsonak zuzenean pairatzen dituzte, eta horiek ez daukate zerikusirik grebaren zio diren gertaerekin, eta ez dute ahalmenik gatazkan esku hartzeko; grebak aldatu egiten du pertsona horiek egoitzan egiten duten bizimodua, eta jardueren garapen normala aldatzen du; gainera, gatazka beren etxean gertatzen da, hor ematen baitituzte 24 ordu; izan ere, egoerak bultzatuta aldatu ziren egoitzara beren bizitzako azkenaldian, mendekoak direlako, alegia.

Uste dugu gizarteak gogoeta sakona egin behar duela egoitzak kudeatzeko ereduaren inguruan, gaur egungo arazoak murriztu edo gainditu ahal izateko. Gaur egun erantzukizun publikoko zentroak ditugu, batetik, eta beste hainbat kudeaketa modu dituzten zentroak, bestetik –publikoa, pribatua eta are mistoa–, eta, horren ondorioz, alde handiak sortzen dira langileen lan baldintzetan, duten loturaren eta hitzartua duten itun motaren arabera. Alde horiek gatazkak sortzeko bide ematen dute, hala nola hemen hizpide ditugun gatazkak.

Ahalegin handia egin behar izaten dutela eta gaur egungo egoera ez dela egokiena finantza publikoetarako. Horregatik guztiagatik, oso interesgarria eta garrantzitsua da aipatu dugun gizarte gogoeta hori egitea eta arlo horretan adostasun handi bat lortzea.

II. kapituluko ADINEKOAK arloari dagokion atalean ere aipatu dugu hori.

4.4. Mendeko pertsonentzako laguntza

- Araban aurrez erroldatzealdi bat eskatzea prestazioak lortzeko

Arartekoak adineko baten erreklamazioa jaso zuen. Adineko hori Gipuzkoan bizi izan zen, baina haren osasunak okerrera egin zuenean, Arabara joan zen bizitzera, semearen eta haren familiaren etxera. II. graduako mendekotasun egoera onartu zitzaion, eta prestazio ekonomikoa eskatu zuen, familia inguruneke zaintzarako. Arabako Aldundiak ukatu egin zion, eskaera aurkeztu zuen garaian mendeko pertsonak eta haren zaintzaileak urtebete ere ez zeramatelako elkarrekin bizitzen. Baldintza hori prestazioa arautzen duen urriaren 23ko

20/2007 Foru Dekretuko 7. artikuluko 4. idatz-zatian ezarrita dago. Beraz, pertsona horrek ezin zuen lortu prestazioa Araban, baina ezta Gipuzkoan ere, jadanik ez zegoelako lurralde horretan errolatuta eta ez zelako han bizi, uztailearen 21eko 25/2009 Foru Dekretuko 51.b) artikulua exijitzen duen bezala. Alabaina, pertsona horrek prestazioa lortzeko oinarrizko baldintzak betetzen zituen: mendekotasun gradua eta maila benetan izatea eta zuzeneko senitartekoren batek etxean zaintzea.

39/2006 Legeak (14.4 artikulua) dioenez, beharrezkoa da mendeko pertsona eta zaintzailea elkarrekin bizitzea, eta maiatzaren 11ko 615/2007 Errege Dekretuak (1.1 artikulua) ezartzen du bien artean nolako ahaidetasun harreman mota izan behar den (ezkontideak edo hirugarren mailara arteko ahaideak). Dena dela, inon ere ez da ezartzen zenbat denbora bizi behar duten elkarrekin prestaziorako eskubidea izateko. Bestalde, baldintza hori beste bi euskal lurraldeetan aztertu ostean, ikusi dugu bai Bizkaian eta bai Gipuzkoan eskatzen den gauza bakarra dela prestazioa eskatu den lurralde historikoan errolatuta egotea, baina aurretik aldi jakinik ezarri gabe. Ondorioz, EAE barruan mugitu eta Bizkaira edo Gipuzkoara aldatu den pertsona batek berehala jaso dezake prestazioa, baina Arabara aldatu bada, urtebete itxaron behar du jasotzeko. Gure erkidegoan egoera berari erantzuteko dagoen alde hori ez zaigu egokia iruditzen, eta arrazoizkoagoa izango litzateke elkarrekikotasuna izatea. Horregatik guztiagatik, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politikaren Sailera jo genuen, eta eskatu genion har zitzala kontuan aurreko gogoeta horiek, araudian ezarritako baldintza hori aldatzeko. Alabaina, ez dugu erantzunik jaso oraindik.

Beharrezkotzat jotzen dugu nabarmentzea komeni dela ez eskatzea alde aurretiko errolatze aldirik; izan ere, batez ere adinekoen kasuan, nahiko ohikoa da seme-alabek zaintzea, txandaka. Horrek lurraldez aldatzea ekar dezake, eta batzuetan are autonomia erkidegoz aldatzea ere, eta egoera hori zuzendu egin beharko litzateke. Horri dagokionez, berriro diogu komeni dela, errolda alde batera utzita, autonomia organo batek lurraldeen arteko halako mugimendu egoerei erantzuten saiatzea, aipaturiko kasu horri ere eragiten baitio.

- Tratamendu desberdina ematea hezkuntza zentro batera joan edo gizarte zentro batera joan

Honen inguruan, hainbat kexa jaso ditugu, zenbaitetan zaila delako ulertzea hezkuntza bereziko zentro batetik lanerako ikastegi batera aldatzeak dituen ondorioak. Kexetan, egoera honen berri ematen zen: ezgaitu batek, adingabea eta bere etxean bizi zena, prestazio ekonomikoa jasotzen zuen, familia inguruneko zaintzarako. Gainera, hezkuntza bereziko zentro batera joaten zen (hezkuntza sarearen mendekoa). Adin nagusitasunera iristean, zentro berera joaten jarraitu zuen, baina beste unitate batera, zeina lanerako zentro bihurtu baitzuten (gizarte zerbitzuen sarearen mendekoa). Hala, prestazio bat kobratzen zuen, batetik, eta gizarte baliabide bat erabiltzen, bestetik, eta egoera horrek bere ondorioak ditu. Bizkaiko beste kasu batean, bateraezinak zirela eta, iraungi egin zen prestazio ekonomikoa, eta Gipuzkoako beste batean, prestazioari eutsi zitzaion, baina %50 murriztuta. Bi erantzunak, nahiz eta desberdinak izan, babesa zuten araudian, baina ulertezinak ziren kaltetuentzat.

- Familia inguruneko zaintzarako prestazioa murriztea, etxean mendeko pertsona bat baino gehiago dagoenean

Arabako hainbat familiaren kexak jaso genituen. Familia horiek bi seme-alaba mendeko zeuzkaten etxean, adingabeak edo gazteak, eta familia-inguruneko zaintzarako prestazioa jasotzen zuten. Kexaren arrazoia da ez daudela ados Aldundiak prestazio bakoitzari aplikatzen dion %25eko murrizketarekin. Araban prestazio hori arautzen duen urriaren 23ko 70/2007 Foru Dekretuko 9.2 artikuluan oinarrituta dago murrizketa hori. Honela dio: *“Laguntzen titularrak eta mendekotasun egoeran dauden beste batzuk etxe berean bizi badira, horietako bakoitzari %25 murriztuko zaio prestazioa”*.

Arau horrek ez ditu kontuan hartzen zenbait alderdi garrantzitsu, hala nola: zaintzaile kopurua (askotan ez da nahikoa izaten bakarrarekin); mendeko pertsonen adina (laguntzaren beharra nabarmen aldatzen da bizitzaren etapa bakoitzean; hala, lehenengo etapetan, etengabeago laguntza behar da); laguntzak pertsonalizatua izan behar duela; adingabe horiek sortzen dituzten gastuak, horiek ere banakakoak (aulki bereziak, fisioterapia saioak, estimulazioa, logopedia eta abar); familia horiek behar dituzten ibilgailu bereziak; dedikazio etengabea behar dutela eta askotan lan bizitza ere utzi behar izaten dutela; eta abar. Gainera, prestazio bakoitzean egindako kenkari hori hileko 250 eurotik gorakoa ere izan daiteke mendekotasun handiko bi seme-alaba dituzten familietan, eta zenbateko hori aintzat hartzeko modukoa da gastu bereziak dituzten familietan. Bestalde, halako murrizketarik ez dago beste bi lurralde historikoetan.

Funtsean, uste dugu badela nahikoa arrazoi neurri horren ondorioen gainean gogoeta egiteko, eta hala jakinarazi diogu Arabako Aldundiko Gizarte Politikaren Sailari ofiziozko espediente batean, lehen adierazitako arau hori aldatzeko aukera balora dezan.

- Prestazioak eta zerbitzuak

Horren inguruan, kexa bat izapidetu dugu (1058/2008 zenbakiko espedientea). Kexa jartzailea ez zegoen ados Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren abenduaren 18ko 246/2007 Foru Dekretuko 9. artikulua aplikatuz jasotako arreta goiztiarreko laguntzekin. Kasu horretan, Foru Aldundiak aski iritzi zion neskatoak estimulazio goiztiarreko programa fisioterapiarik gabe jasotzeari. Gurasoek, ordea, uste zuten agindua egokia izateko fisioterapia modulu espezifiko bat ere sartu behar zela. Balioespen eta orientazio lantaldea arduratu zen gurasoen eskaeraz, eta beste balioespen bat egin zuen; balioespen horretan, baieztatu zuen agindutako hori zela egokia.

Beste espediente batean (1147/2009), kexa jartzaileari ukatu egin zitzaion familia inguruneko zaintzarako prestazio ekonomikoa, iritzi baitzitzaion ez zituela betetzen espainiar nazionalitatea ez dutenek prestazioa eskatzeko bete behar dituzten baldintzak. Prestazioa ukatzeko arrazoia zen aurkeztutako eskaerek ez zutela betetzen autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeko 5. artikulua eta azaroaren 20ko 133/2007 Foru Dekretuko 5. artikulua. Alabaren

kasuan, ez zuelako egiaztatu estatuko lurraldean legezko bizilekua izan zuela bost urtez, eta semearen kasuan, amak ez zuelako bete bost urtez legezko bizilekua izateko baldintza, eta baldintza hori bete beharrekoa da, semea 5 urtetik beherakoa delako.

II. kapituluan, ETORKINAK atalean, aipatu dugu kexa hori talde horri eragiten dioten Arartekoaren esku-hartzeak aztertzean.

- *Ordainketa partekatua*

Honekin lotuta, kexa bat izapidetu dugu (207/2009 zenbakiko espedientea). Izan ere, kexa jartzailea ez zegoen ados etxez etxeko laguntza zerbitzuaren prezio publikoa kalkulatzeko moduarekin, hau da, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean arautu den ordainketa partekatuarekin. Kexa hori ama batek aurkeztu zuen. Hark adierazi zuenez, haren semearen ezgaitasuna III. graduako 2. mailarekin balioetsi zuten, eta etxez etxeko laguntza zerbitzua eskatu zuen. Barakaldoko Udalak, prezio publikoa ezartzeko orduan, etxebizitzan bizi ziren pertsona guztien diru sarrerak hartu zituen kontuan, hau da, gurasoen diru sarrerak.

Gizarte Zerbitzuen Legeak dio bakar-bakarrik erabiltzailearen baliabide ekonomikoak hartuko direla kontuan, eta salbuespen gisa gainerako senitartekoenak hartuko direla kontuan, ekonomikoki onuradunaren mende daudenean (57.4. b) artikulua). Barakaldon etxez etxeko laguntza zerbitzua emateko prezio publikoa arautzen duen ordenantzak, lege honen aurretik onarturikoak, honako hau hartzen du familia unitate naturaltzat: ezkontideek edo ezkontzaren antzeko beste harreman mota iraunkor baten bidez elkarturiko kideek, emantzipatu gabeko 18 urtetik beherako ondorengo adingabeek eta diru-sarrerarik gabeko 18 urtetik gorako ondorengoek osatutakoa. Ordenantza horrek oinarrizko errentaren gizarte prestazioa arautzen duen indarreko araudira edo haren ordezkari araudira bideratzen du, "familia unitate naturalaren baliabide ekonomikoak zehazteko". Hau da, familia unitateko kideei dagokienez, araudi propioa ezartzen du, eta beste araudi batera bideratzen du baliabide ekonomikoak kalkulatzeko.

Araudi hau Barakaldoko etxez etxeko laguntza arautzen duen araudia, Gizarte Zerbitzuen Lege berriaren aurreikuspenak eta Beregaintasunerako Sistemarako eta Mendetasuna Aratzeko Lurralde Kontseiluaren 2008ko azaroaren 27ko Aginduko aurreikuspenak ez bezala araututa dago. Udalari bidali genizkion oharren artean, adierazi genion araudi batek alderdi konkreturen batean beste araudi batera bideratzen duenean garbi gelditu behar duela zein den bideratze horren xedea. Hala, prezio publikoa arautzen duen ordenantzak ezin du soilik oinarrizko errentaren prestazioa arautzen duen araudira bideratu ordenantzak berak arautzen dituen kontueterako, batez ere kontuan hartuta bi araudien xedea eta izaera oso desberdinak direla.

"Legegileak ez du jaso zerbitzuen baterako ordainketak arautzen duenean elkarrekin bizi diren pertsona guztien sarrerak kontuan hartzea. Ordea, bazterkeriaren kontrako borrokaren baliabideen arauketak aintzat hartzen ditu. Hain zuzen ere, prestazio horien

onuradun izateko baldintza baliabide ekonomikoak ez izatea delako. Aipatutako baldintza ez da etxez etxeko laguntza zerbitzuan jasotzen. Oinarrizko errentaren izaera eta helburua eta etxez etxeko laguntza zerbitzuarenak oso desberdinak dira. Beraz, arauketak desberdintasun hori kontuan hartu beharko luke, araudia aplikatzean gizarte langileek egiten dituzten interpretazioan eta kalkuluetan nahasmenduak saihesteko. Gainera, bazterkeriaren kontrako borroka baliabideak erabiltzailearentzat dohainik dira. Beraz, finantza erregimena oso desberdina da.”

“Azken batean, beharrezkoa da zerbitzuen arauketa Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren lege esparru berrira egokitzea. Barakaldon onuradunaren ekarpen ekonomikoa arautzen duen araudia ez da ezarpen horietara egokitzen. Bestalde, desberdin arautzen da zerbitzua eta prezio publikoa. Hortaz, nahasmendua sor dezake.”

Barakaldoko Udalak bere erantzunean jakinarazi zigun Udalbatzak ez zuela onartu 2009. urteko etxez etxeko laguntzaren prezio publikoa arautzen duen udal ordenantzaren aldaketa. *“En dicha propuesta ya se modificaba la definición de lo que se entendía por Renta y por Unidad Familiar a los efectos del cálculo del precio público, asimismo se modificaba la fórmula para dicho cálculo y se actualizaban las deducciones y criterios complementarios, adecuándose a la Ley 39/2006, de 14 de Diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia y normativa de desarrollo.*

Dicha propuesta se adecuaba también a lo recogido al respecto en el modelo de Reglamento Municipal regulador del Servicio de Ayuda a Domicilio, aprobado en mayo de 2008 por la Comisión Territorial de Bizkaia de Eudel, y elaborado por un grupo técnico de las diversas comarcas de Bizkaia, estando presente Barakaldo.

Por otra parte el Ayuntamiento Pleno si aprobó, en sesión ordinaria Nº 2/2009, de fecha 29 de enero de 2009, el Reglamento regulador de Ayuda Domiciliaria en el Municipio de Barakaldo, tomando como modelo el anteriormente citado de Eudel.”

Ondorioz, Barakaldoko Udalak kontuan hartu ditu bidalitako oharrak. Hala, zerbitzuen onuradunaren diru sarrerak hartu ditu kontuan, eta ez bizikidetzaren unitateko gainerakoena, zerbitzua arautzen duen araudiko 9. A artikulua familia unitatearen inguruan aurreikusten duena eta Gizarte Zerbitzuen Lege berriak xedatutakoa aplikatuz, *“en tanto se realiza de nuevo el trámite administrativo correspondiente para elevar a la aprobación del órgano competente la nueva regulación del precio público”.*

Azkenik, hemen aipatzea interesgarri iruditzen zaigun gogoeta bat egiten du: *“Señalar que, dado que buena parte de la nueva Ley de Servicios Sociales está pendiente de desarrollo, y ante la posibilidad de diferencias de interpretación de unas entidades a otras, lo que puede conducir a desigualdades, bueno sería establecer foros donde señalar criterios comunes, que posibiliten efectivamente la igualdad de trato en todo el territorio, y la claridad y veracidad de la información que se trasmite al ciudadano.”*

4.5. *Familiatzako laguntzak*

- *Lanbidea eta familiako bizitza bateratzea*

Arartekoan bi kexa izapidetu dira kaleratzeek lanbidea eta familiako bizitza bateratzeko neurrietan dakartzaten ondorioen inguruan (556/2008 eta 1284/2008 espedienteak). Kaleratze horien ondorioz, pertsona horiek laguntzak itzuli behar izan dituzte, eta itzulketa prozedura baten xede izan dira, 2006. urtean indarrean zegoen araudia aplikatuz. Bi espedienteetan, nabarmendu genuen laguntza itzuli behar zutela, lan harremana murriztea edo eszedentzia eskatu zuten langileen borondateaz eta interesez besteko erabaki baten ondorioz. Enpresaburuak langilea kaleratzea erabaki zuen, hau da, lan harremana desegitea, eszedentzian edo lanaldi murriztuarekin zegoen bitartean, eta Administrazioak askoz geroago abiarazi zuen jasotako zenbatekoak itzultzeko prozedura.

Laguntzak itzul daitezela eskatzeko jarduna oso konkretua da; izan ere, egoera jakin bat kontuan hartuta eman ziren: lanaldiaren murrizketa. Egoera aldatu denez gero, laguntza itzultzeko betebeharra ordenamendu juridikoaren arabera da; izan ere, administrazio publikoak ezin du diru laguntza eman aurreikusitakoez bestelako helburuetarako, eta ezin du eman ezarritakotik gorako zenbatekorik. Uztailaren 17ko 118/2007 Dekretuan jasotako araudi berriaren ondorioz, diru laguntzak hiru hilean behin eman eta ordaintzen dira, eta, beraz, halako egoerarik ez da gertatuko aurrerantzean. Eusko Jaurlaritzari adierazi diogu garrantzitsua dela informazio hau ematea laguntzen deialdian: "informazio ahal bezain osatua eta zenbatekoaren, ordainketa dataren eta laguntzak ematearen ondorioen gaineko informazioa ahal bezain goizen edukitzeak garrantzi handia dauka. Horrek errealitatearekin bat ez datozen esperantzak saihestuko ditu eta erabakiak hartzen lagunduko du".

871/2009 zenbakiko kexaren zioa zen Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren ustez ez zela egiaztatu eskatzailea bere alabarekin batera bizi zenik; izan ere, hura beste etxebizitza batean zegoen erroldatuta; hala, ebazpenean arrazoitu zen etxe desberdinetan erroldatuta egoteak ondorio dakarrela elkarrekin ez direla bizi uste izatea, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 16.1 artikulua eta Biztanle eta Lurralde Mugei buruzko Araudiko 53.1 artikulua arabera. Presuntzio hori, aipaturiko ebazpenaren arabera, ez zen indargabetu behar beste frogatik bide baliatuta. Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak erakunde honen irizpideari jarraitzen dio, hau da, errolda agiriaren gain beste frogatik bide batzuk onartzen ditu benetako bizilekua egiaztatzeko. Espedientea aztertu ostean, Eusko Jaurlaritzak zuzen jardun zuela balioetsi genuen; izan ere, ez zegoen argi familiako kide batzuk zergatik zeuden erroldatuta helbide batean eta beste batzuk beste batean, hori ez baita ez ohikoa eta ez Toki Araubideko Oinarriari buruzko Legeko 15. artikulua arabera.

- *Tratamendu desberdina ematea hezkuntza zentroa izan edo gizarte baliabideko zentroa izan –salaketa jartzailearen seme/alaba joaten da halako zentro batera–, lanbidea eta familiako bizitza bateratzeko laguntzak eskuratzeko eraginetarako*

Alaba zaintzeko lanaldia murriztu zuen ama baten kasua suertatu zitzaigun. Alabak, 18 urtetik gorakoa bera, ezgaitasun handi bat zuen, eta mendeko gisa kalifikatua zegoen. Lanbidea eta familiako bizitza bateratzeko neurriak arautzen dituen uztailaren 17ko 118/2008 Dekretuan xede horretarako (eszedentzia edo lanaldi murrizketa) jasotzen den diru laguntza lortu nahi zuen. Alabaina, ukatu egin zitzaion eskaera, alaba, 18 urtetik gorakoa bera, eguneko zentro espezializatu batera joaten zelako. Dekretu horretako III. kapituluak arautzen ditu mendeko senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartu duten edo lanaldia murriztu duten langileentzako laguntzak. Dekretu horretako 16.2 artikulua honako hau dio: *“Mendetasun-egoeran dagoenak –hori zaintzeko eskatu delarik eszedentzia edo lanaldi-murrizketa– ez du modu iraunkorrean sartuta egon beharko egoitza-zentro batean eta ez du gizarte-zerbitzuetako eguneko zentro batek artatuko”* (azpimarratua gu-rea da). Kasu honetan, adierazi dugun bezala, alaba gizarte zerbitzuen sarearen mendeko eguneko zentro batera joaten zen.

Alabaina, eszedentzia edo lanaldi murrizketa 18 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko eskatzen bada (dekretu bereko II. kapituluak), ez dago adierazitakoa bezalako baldintzarik –adingabea zentroren batera joatea– diru laguntza lortzeko. Areago, suposatzen da zentro batera joaten dela, eta zentro hori mota hauetakoren bat izan daitekeela: haur eskola, irakaskuntza arrunteko ikastetxea edo hezkuntza bereziko ikastetxea. Pertsona bat, adina edozein duela ere, zentro batera joaten denean –hezkuntza sarearen edo gizarte zerbitzuen mendekoa–, antzeko ordu kopuru batez jasotzen du laguntza: 6 eta 8 ordu bitartean jarraian, astelehenetik ostiralera (batzuetan –ez beti–, eguneko zentroak eman dezake arreta asteburuetan eta jaiegunetan ere, baina ez zen hori kasua). Beraz, familiak, bi kasuetan, denbora askoan eman behar izaten dio arreta mendeko pertsonari. Horri, gainera, zentroko oporrak erantsi behar zaizkio. Premisa horiek kontuan hartuta, gerta liteke bi pertsonak eszedentzia hartzea edo lanaldia murriztea beren seme-alabak zaintzeko, bi kasuetan seme-alabak zentroren batera joatea, eta batek laguntza ekonomikoa jasotzea eta besteak ez.

Arrazoia, soil-soilik, seme edo alaba horren adina izango da: adingabea bada, ikastetxe batera joango da, eta laguntza jasoko du; adinduna bada, gizarte baliabideren bat erabiliko du, eta ez du diru laguntzarik jasoko. Ez genuen behar beste motibo aurkitzen 118/2007 Dekretuak adierazitako egoera horiek desberdin tratatzeko, eta ez du ematen bereizketa hori koherentea denik xedapenaren helburuarekin ere; izan ere, laguntza horren bidez honako hau lortu nahi da: *“emakumea lan-arloan sartzeko erraztasunak ematea, eta emakumearen lanbide-karrera garatzea, emakumeek eta gizonek familia-eremuan duten erantzunkidetasuna sustatzea, eta bereziki, seme-alabak zaintzeari eta hezteari dagokionez, baita familia- arloko eta lan-arloko erantzukizunak bateragarri izateko erraztasunak ematea ere”*. Horregatik, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailera jo genuen, egoera azaltzeko. Sailak, bere erantzunean, adierazi zigun aztertuko zuela kontu hori.

4.6. Beste laguntza batzuk: haurrak eta nerabeak, babes bereziko taldeak...

Talde horiei eragiten dieten esku-hartze guztien berri izateko, ikus txosten honetako II. kapitulua. Bertan azaldu dugu nola jardun den adingabeei eta bereizkeria edo gizarte bazterketa pairatzen duten pertsoneri nahiz beren eskubideak baliatzeko oso egoera ahulean daudenei dagokienez.

5. Ondorioak

Hona hemen, laburki, Gizarte Ekintza Sailari eragiten dioten alderdirik garrantzitsuenak:

- Desberdintasunak daude prestazioen eta zerbitzuen garapenean, zehazki autonomia pertsonala sustatzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legetik eta diru sarrerek bermatzeko eta gizarteratzeko abenduaren 23ko 8/2008 Legetik (araudi bidez garatzeko dago oraindik) eratorritako prestazio eta zerbitzuen garapenean.
- Enpresaren eta langileen arteko gatazkek eragina dute adinekoak artatzeko zerbitzuen kudeaketan, hala nola egoitzen kudeaketan, eta horrek erasaten dien pertsonen eskubideetan.
- Erroldatzeak garrantzia du eskubideak onartzeko, eta beste froga bide batzuk baliozkoak dira bizikidetza egiaztatzeko, Udalaren errolda agiriko bizilekua pertsonaren benetako bizilekuarekin bat ez datorrenean.
- Pentsioaren osagarri berriak ez die erantzuten egoera guztiei; zehazki, funts publikoekin ordaindutako pentsiorik jasotzen ez duten eta Gizarte Ongizateko Funtseko pentsioa jasotzeko baldintzak betetzen ez dituzten pertsoneri, batez ere emakumeei.
- Garrantzia du gizarte zerbitzuen jarduna prozedura administratiboari egokitzeak.
- Desberdintasunak daude Diru Sarrerek Bermatzeko Legean jasotako figuren artean: zuhurtasunez etetea, prestaziorako eskubidea etetea eta arau-hauste tipifikaturen bat egiteagatik zehatzea.
- Tratamendu desberdina ematen da gizarte zerbitzuen sareko zentro batera joan edo hezkuntza sareko zentro batera joan.
- Familia inguruneke zaintzarako prestazioa murriztu egiten da etxean mendeko pertsona bat baino gehiago dagoenean, besterik kontuan hartu gabe.
- Ondarea osatzen duten ondasunek garrantzia dute onuradunari dagokion prezio publikoa kalkulatzeko (ordainketa partekatua), ondasun horiek onuradunarenak edo bizikidetza unitateko pertsona guztienak baldin badira.

1.2

**NEKAZARITZA, INDUSTRIA,
MERKATARITZA ETA TURISMOA**

2. NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMOA

Sarrera

2009an guztira 25 kexa egin dira nekazaritza, industria, merkataritza eta turismoaren arloan; alegia, ekitaldi honetan erakundearen jasotako kexa guztietatik %1,3.

Kexek honako administrazio hauetan izan dute eragina:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza)	15
- Foru administrazioa	7
- Toki administrazioa	5

Horien edukiari dagokionez, jasotako kexak honako azpiarlo hauetan banatzen dira:

- Industria	7
- Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	5
- Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura	5
- Merkataritza	3
- Beste batzuk	3
- Kontsumoa	2

Oro har, aipatu behar dugu, aurreko ekitaldian bezalaxe, arlo honetan izapidetutako kexak gutxi direla. Baina esan dezakegu, era berean, kontsumoaren eremuan koka daitezkeen kexa asko (60 baino gehiago) bazter utzi direla, gure eskumenetik kanpo egoteagatik. Horien artean, kexa asko oinarritzekoak dei ditzakegun zerbitzuen erabiltzaileek egin dituzte, adibidez elektrizitate eta gas hornidura, edo telefonia zerbitzuei buruzkoak. Zerbitzu horiek enpresa pribatuek ematen dituztenez, ezin dugu esku hartu, gure Autonomia Erkidegoko herri-administrazioerik tartean ez dagoelako.

Hortaz, bazter utzitako kexen kasuan, tartean dauden herritarrei jakinarazten diegu azaldutako gaiari buruzko arau esparrua zein den eta nora jo dezaketean beren eskubideak defendatzeko (kontsumitzaileari informatzeko udal bulegoetara, kontsumo gaiak eta zerbitzuen kalitate parametroak kontrolatzen dituzten Eusko Jaurlaritzako sailak, etab.). Tartean dagoen pertsona erkidegoko administrazioaren jarduerarekin, hau da, halako zerbitzuen prestazioan legeak ezartzen dituen parametroak modu eraginkorrean betetzen direla bermatzeko administrazioak duen funtzioarekin, ados ez dagoenean soilik har dezakegu esku. Horixe aztertu ahal izango dugu, nagusiki, industria eta kontsumo gaien buruzko ataletan.

Jarraian, ekitaldi honetan zehar azpiarlo desberdinetan aipagarriak iruditu zaizkigun alderdiak aipatuko ditugu.

1. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza

Atal honetan ehizari buruzko jarduerak aipa ditzakegu. Basurdeen ehiztari talde batek egindako kexa izapidetu dugu. Talde hori hainbat eremutako (Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Burgos eta Kantabria) bederatzi koadrilak osatzen dute eta kexa Bizkaiko Lurralde Historikoan ehizatzeke eskatzen diren baldintza zehatz batzuekin bat ez etortzeagatik egin zen. Talde horrek adierazi zuen, ehiza-erregimen arrunteko lurzoruetan basurdeak ehizatzeke garaian, koadrila bateko %15 baino gehiago bizkaitarra ez bada, taldea ez bizkaitartzat jotzen dela. Hortaz, talde bizkaitarrak hautatu ondoren hartuko dute parte zozketan eta ondorioz, ezin dute ehizako egutegia osatu eta mendi edo eremu txarrenak baino ezin dituzte eskuratu.

Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren iritziz, Bizkaiko Lurralde Historikoko ehiztariari ehiza modalitate zehatz batzuk burutzeko zenbait lehentasun emateak ez zuen beste ehiztarien jarduera funtsean eragozten. 1970eko apirilaren 4ko Ehizari buruzko Legea (EL) eta hori garatzeko 1971ko martxoaren 25eko Araudia (EA) gure Autonomia Erkidegoan aplikagarriak dira, gaiari buruzko araudi propiorik ez dagoelako. Horiek biak ez dute ehiza-aprobetxamendu arrunteko lurretan ehiztari jakin batzuentzat lehentasunik edo apartekotasunik ezartzen eta, hortaz, murrizketa hori ez dator legearekin bat. Horren ondorioz, [2009ko azaroaren 27ko ebazpena eman genuen](#)³, sailak urtero ematen duen debekualdien agindu orokorrak, zegokien zozketetan, bereizketarik ezar ez zezan talde bizkaitarren eta ez bizkaitarren artean.

Ehiza arautzen duen estatuko araudia zaharkitua dago, onartu zenetik igaro den denbora dela-eta. Araudi horren aplikazioari dagokionez, esan daiteke Eusko Jaurlaritzak argitaratutako legeria-egutegiaren arabera Ehizari buruzko Legearen Proiektua 2010eko lehenengo hiruhilekoan aurkeztuko dela aurreikusten dela. Horren helburua da ehiza jarduera arautzea eta ehizatzeke lurren zonakatzea ezartzea.

Bestalde, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Sailak burututako jarduera hizpide zuen kexa bateko esku-hartzea amaitu dugu, sai arreek ganaduari eragindako kalteak ordaintzeko bi eskaera gaitzesteagatik. Ardien heriotzaren kausa egiaztatzeko bertaratu ziren zerbitzu teknikoek egindako txostenen arabera, sailaren ustez ez zen egiaztatuta geratu kalte horiek sai arreek eragin zituztenik. Horrenbestez, eskatutako kalte-ordainak ematea ez zen bidezkoa. Horri dagokionez adierazi zuen aintzat hartu behar zela saia espezie nekrofagoa dela eta, antza, isolatuta, hilzorian edo ahulduta dauden animaliei soilik erasotzen diela; halako animaliak natura ingurunetik ez kentzeak horrelako gertaerak eragiten duten arriskua gain hartzea dakarrela (424/2009).

³ Arartekoaren ebazpena, 2009ko azaroaren 27koa. Horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailari gomendatzen zaio ehiza-erregimen arrunteko lurzoruetan basurdea ehizatzeke koadrila bizkaitarren eta ez bizkaitarren arteko bereizketa ezabatzeke.

2. Kontsumoa

Sarreran aipatu dugun moduan, arlo honetan konpainia pribatuek ematen dituzten zerbitzuen jardueri buruzko kontsulta asko jaso ditugu. Erakunde honek ez du gai horietan esku hartzeko aukerarik, Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek edo Euskal Autonomi Erkidegoko edozein udalek zuzenean eta berehala parte hartzen ez duelako. Horrela, aurreko urteetan bezalaxe, kexa gehienak elektrizitate eta gas hornidurei buruzkoak izan dira. Hala ere, telefonari, banku eta posta zerbitzuei eta aireko zerbitzuei buruzko kontsultak ere jaso ditugu. Kontsulta horiek ere gai desberdinei buruzkoak dira: Konpainia hornitzaileek fakturatutako kontsumoekiko desadostasuna, gas instalazioak berrikusterakoan izandako arazoak, zerbitzuak ematerakoan burututako gehiegizko jarduerak, Internet bidezko iruzurra, patenteak, publizitate engainagarria, informazio falta, etab.

Kontsumo arloan izapidetutako kexei dagokienez, herritar baten desadostasuna aipa dezakegu. Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren Bizkaiko Lurralde Bulegoko buruak herritar horren erreklamazioa artxibatzea erabaki zuen, administrazioaren arau-haustea izan zela egiaztatu ez zelako. Interesdunak erreklamazio bat aurkeztu zuen farmazia batean botika zehatz bat eman nahi izan ez ziotelako, mediku batek emandako errezeta eduki arren. Gainera, ez zioten erreklamazio orria eman. Hori, bere ustez, arau-hauste bat izan zen, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzko abenduaren 22ko 6/2003 Legearen arabera (922/2009).

Eusko Jaurlaritzaren Kontsumo zuzendaritzak adierazi zigun erreklamazio orririk ez dagoenean establezimenduari galera hori konpontzeko eskatu ohi zaiola eta, gero, ikuskapen bisitaldiaren bidez hori konpondu dela egiaztatzen dela. Oinarrizko gaiari dagokionez, jakinarazi zigun ez zuela eskumenik eta, hortaz, interesdunak Farmazialarien Elkargora jo behar zuela. Ondoren, ikuskapen bisitaldiaren bidez egiaztatu zen erreklamazio orriak eskuragarri zeudela eta horixe adierazten zuen kartel bat zegoela establezimenduan. Horregatik, galera konpondu zela egiaztatu zen eta, hortaz, adierazitako irizpideen arabera, zigortzeko espedientea izapidetzea ez zen bidezkoa.

3. Merkataritza

Gai honi dagokionez, aipagarria da Euskal Autonomia Erkidegoko Kontsumoko Arbitraje Bartzordeak emandako laudoaren edukiarekin ados ez zegoen pertsona batek egindako kexan gure esku-hartzea amaitu izana. Interesdunak kexa egin zuen, bere ustez ez zelako baloratu telefoniako enpresa batek Datuak Babesteko egungo Legea urratzeko aukera. Era berean, burututako prozedura zalantzan jarri zuen, bere ustez prozedura horrek ez baitzituen ase-bete legezko bitartekorik eta legeari buruzko ezagutzarik ez duten herritarren eskubideak. Alde horretatik, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Erakundeko (KEE) ordezkariarekin harremanik ez erraztearen falta igarri zuen.

Arbitrajearen jatorria, kontsumoan edo beste edozein arlotan, zuzenbide pribatuko negozioa da eta hori konpromiso kontratua da. Hau da, alderdiek beren eskubide propioez baliatzeko

gaitasuna dute eta, horregatik, hirugarrenei eskumenak eman diezazkiekete euren artean sortutako eztabaidak konpontzeko. Horrela, hirugarrenak (arbitroak) eztabaidari ematen dion ebazpenak derrigorrezko izaera izango du bi alderdientzat. Bestela esanda, arbitroak emandako ebazpena kontratu bat da eta estatuak kontratu horri ebazpen judizial batek dituen ondorio juridikoen antzekoak ematen dizkio. Hori egin daiteke aurrez aurre dauden alderdiek arbitroek ematen duten ebazpena onartzeko konpromisoa hartu dutelako.

Arbitroen elkargoak kasu bakoitzerako osatzen dira eta kideek inpartzialak eta independenteak izan behar dute. Hiru pertsonak osatu ohi dituzte Kontsumoko Arbitraje Batzordeen esparruan jarduten duten elkargoak eta kontsumoaren eskubideari lotutako profesionalen artean izendatzen dira. Arbitroetako bat kontsumitzaile eta erabiltzaileen interesen ordezkari izateak, KEEko ordezkaria bere kasuan, ez du arbitroa erreklamatzaila defendatzen duen abokatu bihurtzen.

Azkenik, argitu beharra dago ezin dela arbitroaren laudo baten aurkako errekurtsorik egin, laudoaren oinarria azkenik emandako ebazpenarekiko desadostasuna denean. Laudoa defendatzearen arrazoia da ordenamendu juridikoak alderdiek aldeztetik hartutako konpromisoa errespetatzea eta babestea. Hori dela eta, jurisdikzio zibilaren aurrean aurka jartzen dituen gatazka planteatzeari uko egin diote eta arbitroek emandako ebazpena onartzea erabaki dute.

Gure ordenamendu juridikoak laudo bati aurka egiteko ematen duen aukera bakarra baliogabetzea eskatzea da. Baina laudoa kasu zehatz batzuetan soilik baliogabetu daiteke, arbitrajea arautzen duen abenduaren 23ko 60/2003 Legeak aipatzen dituen kasuetan hain zuzen.

Hori guztia kexagileari jakinarazi genion eta gure esku-hartzea amaitu genuen (550/2009).

4. Industria

Sarreran aipatu dugunaren harira, Iberdrolaren jarduerarekin eta Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren jarduerarekin ados ez dagoen herritar baten kexak gure jarduteko aukeren mugak argi erakusten ditu. Interesdunak adierazi zuen bi erakundeek ez zutela energia elektrikoaren hornidura eten izanak eragindako gastuen erantzukizuna gain hartu (281/2009).

Kasu honetan, erakunde honek ezin zuen Iberdrolaren ustezko erantzukizun horren gaineko iritzia eman, erantzukizun horiek partikularren arteko harremanetik baitatoz.

Legez ezarritako kalitate parametroak betetzeko kontrola Eusko Jaurlaritzako Industria, Kontsumo eta Turismo Sailari legokioke, sinpleki esatearren. Gutxieneko parametro horiek betetzen direnean, eta kasu honetan hala dela dirudi, enpresa erantzukizunetik aske geratzen da administrazioaren aurrean. Baina horrek ez du bazter uzten enpresa herritarren aurrean kalte-galerengatik erantzukizun zibilean erortzeko hipotesia. Hala ere, gure ordenamendu juridikoaren arabera, erantzukizun hori aztertzea jurisdikzio zibileko justizia auzitegiari dagokio.

1.3

KULTURA ETA ELEBITASUNA

3. KULTURA ETA ELEBITASUNA

Sarrera

2009an guztira 20 kexa jaso ziren arlo honetan. Honela banatuta egon ziren:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritzza)	9
- Tokiko administrazioa	8
- Foru administrazioa	3

Gaiaren arabera, honela sailka daitezke:

- Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa	7
- Elebitasuna	4
- Beste batzuk	4
- Kultura ondarea	3
- Kirola	1
- Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazio erantzukizuna	1

Elebitasuna

Hizkuntza ofizialen erabilera dela-eta hizkuntz eskubideei buruz jaso ditugun ia kexa gehienak justizia administrazioaren esparruan kokatu dira.

Kexok euskara erabiltzeko hizkuntz eskubidearekin duten harremana argi geratu bada ere, horregatik, arlo honetan berariaz adierazi behar ditugu, justiziaren arloan, kalifikatu dira, hain zuzen, administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa azpiarloaren barruan. Arrazoiak 2008ko txostenean adierazitakoarekin dauka zerikusia. Alegia, oraindik ez ziren bete Euskal Autonomia Erkidegoko erregistro zibil guztietan Justizia Ministerioak egindako aplikazio informatikoaren azken bertsioa ezartzeko aurreikuspenak. Autonomia erkidegoko administrazioak itzuli ditu euskarara aipatu aplikazioaren txantiloak eta horien bidez seme-alaben jaiotzak zuzenean euskaraz inskribatzeko eskatzen duten gurasoek hala egin ahal izango dute.

Jaso ditugun kexak egoera gutxi aldatu izanaren adierazle dira. Adierazi dugun moduan, atal hau garatzeko justizia arloari heldu diogu.

Hala ere, egokia da aipatzea kexa guztiak ez direla bideratu aplikazio informatikoaren atzerapenagatik. Horren adibide da euskararen koofizialtasunaren okerreko pertzepzio gisa kalifikatu behar dugun kasu bat. Bertan, probidentzia bitartez epaitegi batean aurkeztutako idazkia itzuli zen, interesdunak espainieraz berriz ere aurkez zezan. Jarduera horrek ez dauka tokirik euskarak aitortua duen ofizialtasunean.

Gure esku hartzeko gaitasuna mugatua dagoen esparruan, pertsona batek Europako Parlamentuak sustatutako aurkezpen instituzionalean, Bilbon, euskara erabiltzeko izan zuen zailtasunaren ondotik egindako kexa bat jaso genuen.

Egoerak Europako Parlamentuaren erakundeari eragiten zion eta horrek gure eskumenetatik at dagoen esparruan kokatzen gaitu. Bestalde, pertsona horrek azaldu zigun jarreraren inguruko desadostasun legitimoa onartuta, euskararen ofizialtasunaren lotura aipatu erakunde parlamentarioaren izaerak bazter utzi zuela. Horrek ez zuen esan nahi estatuko hizkuntza ofiziala ez den beste hizkuntzen ofizialtasuna indiferentea denik Europako erakundeentzat eta interesdunari horren berri eman genion.

Hala, Europako Kontseiluaren ondorioek, 2005eko ekainaren 13koek, kontseiluan eta, hala badagokio, Europar Batasuneko beste erakunde eta organo batzuetan beste hizkuntza batzuen erabilera ofizialari buruzkoek (2005/C 148/1) (2005-06-18ko Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala) adierazi dute estatu bakoitzeko hizkuntza ofizialak ez direla indiferenteak Europar Batasuneko erakundeentzat, ezta Europako Parlamentuarentzat ere. Europako herriaren defendatzailearen erakundearen kasuan, kexa egiteko bertara jo zuela azaldu zigun, Espainiaren eta Europako herriaren defendatzailearen hitzarmena topatu dugu. Kasu honetan, estatuko herritar batek erreklamazioa espainiera ez den beste hizkuntza nazional ofizialean egitea erabakitzen badu, horretarako prozedura ezartzen du aipatu hitzarmenak.

Elebitasunari buruzko atal honetan, pertsona batek udalari euskaraz bakarrik jasotzen ziotuen jakinarazpen batzuk espainieraz ere helarazteko eskatu zion kexa aipatu behar dugu. Hala jokatu zuen euskara ez zekielako.

Administrazioak euskara bakarrik erabiltzen duela dioten beste kexa batzuen ondotik (ikusi 2008ko txostena), adierazi dugu hizkuntza hori bakarrik erabiltzea ez zela bere horretan apeltaldia izan, euskal hiztun asko dagoen herrietan *erabil baitaiteke euskara bakarrik komunikatzeko tresna gisa*. Ikuspegi hori ez da Konstituzio Auzitegiak 10/1982 Legeari buruz emandako doktrinaren aurkakoa. Horren arabera, *"la utilización por los poderes públicos de una sola de las lenguas cooficiales puede hacerse indistintamente por propia iniciativa o a elección de los interesados, cuando así se regula, siempre que no se lesionen los derechos de ningún interesado que pueda alegar desconocimiento de la lengua utilizada"*(9. oinarria).

Bestalde, Legebiltzarrerako Eusko Jaurlaritzaren 2001eko otsailaren 28ko txostenak, tokiko erakunde publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko ekimenei buruzko atalean bi hizkuntzen baterako erabilera malgutzea komeni dela aipatzen du, bereziki euskaldun asko dagoen guneei dagokienez. *"Lerroalde honetan eremu honetako lege-neurri espezifikoak aipatzen dira. Lehenengo neurria, zalantzarik gabe, Euskararen Erabilpena Arauzotzeko Legearen araudi orokorra malgutzea izango da, toki-administrazioen jardunean erkidegoko hizkuntza ofizial bien erabilera bateratuari dagokionez, gehiengo euskalduna duten gunee-tan. Toki-administrazioan du euskararen erabilerak bizitasunik handiena, eta etorkizunean erabilera hori gehitu daiteke eta komunikatzeko benetako tresna edo benetako hizkuntza bihur daiteke, nahitaez gaztelaniarekin batera joan beharrik gabe, nahiz eta gaztelania erabili*

behar duten edo nahi duten pertsonak ez diren diskriminatu behar, administrazioarekin ad extra harremanak edukitzeko hizkuntza ofizial denez.” (Euskararen Aholku Batzordearen Lege Garapenerako Batzorde-atalak prestatuturiko txostena, 1999ko abenduaren 10eko saioan Eusko Legebiltzarrak onartu zuen 4garren erabakiarekin lotua, 94 orr.)

Kexa testuinguru horretan kokatu ondoren, esan dezakegu ez dela bideragarria euskara bakarrik erabiltzea alde batera uztea, betiere, *erabilitako hizkuntza ez dakiela alega dezakeen interesdun baten eskubideak urratzen ez badira*. Egun espedientea irekita dago, udalak erabilitako irizpideak eta kexagilearen hizkuntz eskubideari erantzuna emateko aurreikusitako mekanismoak zehazteke.

Euskara ikasteari lotutako prozesuetan, ezagutza mailak egiaztatzeko HABEk iragarri zituen proben sarbidearekin zerikusia duten kexa batzuk jaso ditugu.

Hala, horietako bi kexagilek esan zuten bazter geratu zirela eskaerak epez kanpo izapidetu zirela pentsatzeko aukera eman zuen akats batengatik. Beste kexa batek alderdi materiala planteatu zuen, matrikula egin nahi zuen maila baino lehenagoko maila ez gainditzeagatik bazter geratzeari buruzkoa. Pertsona horrek esan zuen duela 13 urte gainditu zuela baina HABEk adierazi zion mailak aitortzeko gehienezko epea gainditu zuela (hori zein zen azaldu gabe).

Lehenengo bietan, egin genituen jarduerak ez zuten agerian jarri aipatutako akatsa HABEri egotzi ahal zitzaionik. Aurretiko maila aitortzeari dagokionez, eskatu genuen txostenak 2000. urtetik onartutako mailak bakarrik aitortzen zituela zeukan jasota. Data horretan helduei euskara irakasteko oinarrizko curriculuma, homologatutako euskaltegi guztien erreferentziazko esparru didaktikoa, ezarri zen (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 2000ko otsailaren 8koa).

Kasu zehatz hori ezagutzera emanda, HABEk esan zigun, egoera horiek saiheste aldera, hurrengo deialdietan euskaltegietako ebaluazioen baliozkotasunaren gehienezko data espresuki aipatuko dela. Honela, pertsonak herri-administrazioekin dituzten harremanetan nagusitu behar den segurtasun juridikoa bermatzen da.

Proba horiei dagokienez, proba egin behar zen egun bat lehenago ospitaleratu eta proba egunean haurra edukitzeagatik joan egin izan zuen emakume batek planteatutako azken kexa dugu hizpide. Ildo horretan, HABEri Ararteko erakundeak –enplegu publikoa eskuratzeko prozesuetan– izandako irizpidea helarazi genion. Aipatu irizpidea deialdi bakarraren azterketako data edo tokia aldatzearen aldekoa da, betiere, prozedurako egoera zehatza alde zuzenetik aztertuta. Egindako balorazioaren berri izateko zain geratu ginen.

Kultura

Udalek sustatutako kultur jardueren artean ikastaro batzuen egitea dago. Oro har, hezkuntza arautukoak ez diren ikastaroak dira eta, horregatik, ez dago iragarritakoa eskainitakoarekin

bat ote datorren argitzeko erreferentzia objektibo edo ukaezin gisa erabil daitekeen curriculumik, hori eztabaidatzen denean. Hala da, hain zuzen, kexa batzuen kasuan.

Kasu honetan ez zegoen elementu objektiborik irakatsitakoa iragarritakoarekin bat ez zetorrelako ondorioztatzeko. Udalak emandako erantzunean azaldu zitzaion ez zuela kontu hori hizpide zuen beste pertsona batzuen kexarik jaso. Hori dela eta, asmoak bat ez zetozela onartuta, ez genuen arrazoirik antzeman pertsona horrek ordaindutako prezio publikoaren itzulketarako eskubidea zuela ondorioztatzeko; kexa kokatu behar genuen arauzko testuingurua.

Eskolako kirolarekin nolabaiteko lotura duen kexa bat jaso dugu. Kexa hori klubean kirolari gisa izena emateko baldintza gisa NANA eskatu zitzaion 12 urteko mutilaren aitak sustatu du. Bizkaiko Foru Aldundiaren 119/2009 Foru Dekretuan jasotako baldintza da; 2009/2010 denboraldian Bizkaiko eskolako kirolaren programa arautzeko araudia, 12. artikulua.

14 urtetik gorakoek eskolako kiroleko jardueretan parte har dezaketela kontuan hartuta, zuk eskatzen duzunak ez dakar arazorik alde horretan, baina bai 14 urtetik beherakoei dagokienez. Ikuspegi horretatik, 119/2009 Foru Dekretuko 12. artikuluan ezarritako NANaren eskakizuna zuzena da baldintzaren hartzaileak 14 urtetik gorakoak direnean. Ordea, adin hori ez dutenen artean zalantzak planteatzen ditu. Izan ere, jakin badakigu nortasun agiri nazionalaren arauketari jarraiki, edonork daukala agiri horretarako eskubidea baina aipatu agiria lortzea nahitaezkoa da 14 urtetik aurrera.

Espedientea irekita dago, foru aldundiaren balorazioa ezagutzeke eta aztertzeke.

Planteatu dizkiguten kontu batzuek kulturaren arlo hau denarekin dute zerikusia. Hala ere, interesdunek Ararteko erakundera jotzeko arrazoi nagusia ez da kultur adierazpenari lotuta egotea, edozein jarduera publikotan zeharkako proiektioak izan dezakeen eskubideei lotuta egotea baizik.

Horietako bat Pirritx eta Porrotx pailazoak kontratatzeari buruz jaso genuen kexa baten ondotik aztertu genuena izan da. [Arartekoaren ebazpenean, 2009ko azaroaren 2koan](#)⁴ adierazi da profesionalen proposamen artistikoen eta horien curriculumaren edukiarekin zerikusia duten irizpideak bakarrik hartu beharko direla aintzat, nahi zen kontratazioaren xedeekin bat etorritz.

Beste kexa batean, Donostiako danborradaren desfilean, hiriko zona batean edo bestean, parte hartzea planteatu zen. Espediente batean zalantzak sortu ziren, eskaera elkartearen gizarte lokala oinarri hartuta aurkeztu baitzen. Ordea, kontua konpondu egin zen egoitza soziala beste zona batean zein zen kontuan hartuta.

⁴ Arartekoaren ebazpena, 2009ko azaroaren 2koa, Bilboko Udalak Pirritx eta Porrotx pailazoak kontratatzeari buruzkoa.

Kulturaren arloan kokatzen diren adierazpenen barruan, Laudioko herritar batek elkarte bati emandako laguntza eta diru-laguntzengatik eta horiek Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea egokitzeagatik kexa aurkeztu zuen.

Zenbait alderdik jarduera pribatuaren esparrua zuten hizpide. Beraz, gure eskumenetatik at zeuden. Hori dela eta, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundera bidali ziren.

Egon zitekeen aldi baterako udal babesari dagokionez, udalari balorazioa helarazi genion eta aipatu udalak, modu esplizituan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean jasotako berdintasun printzipioak ezarritakoa behar bezala betetzeko eta elkarteari ekintzak aipatu legera egokitzeko duen asmoaren berri eman zigun. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako berariazko arretaren arloak, II. kapituluak, Ararteko erakundearen balorazioa jaso du.

Kultura ondarearen atalean, fundazio batek esan zigun larrituta zegoela Gallartako (Abanto Zierbena) Bodovalle meategiaren egoera zela-eta. Gure informazio eskaerari erantzunez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazi zigun babestu beharreko ondasuna aztertzen jarraitzen zutela, nahiz eta, kontuaren konplexutasuna aintzat hartuta, kalifikazio espedientea hasteko informazio nahikoa ez eduki. Aurten kontu honi buruzko jarduera parlamentario batzuk burutu dira. Hala, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari monumentu multzo inbentariatu gisa barne hartzeari buruzko informazioa eskatu zaio.

Joan den urteko txostenean Debako udalerrian dagoen Praileaitz I haitzuloaren historiaurreko santutegiaren egoera zela-eta kexa baten ondotik egindako jarduerak bildu genituen. Ildo horretan, kontu horri buruzko jarduera parlamentarioak ere burutu ziren, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuari galderak eginda.

[2008ko abenduaren 18ko ebazpenaren](#)⁵ betetzeari buruz egin dugun jarraipenaren barruan, Kultura Sailak jakinarazi dugu, 120/2007 Dekretuak 11. artikuluan xedatutako ezarpenaren esparruan, Zaintzako Planaren Jarraipen Batzordea bildu dela eta, besteak beste, Praileaitz I haitzuloaren ingurua zabaltzeko erabakia hartu duela. Horretarako, kultura ondasun hori babesteko araubidea aldatzeko aurretiko lanak burutzen ari dira.

⁵ Arartekoaren ebazpena, 2008ko abenduaren 18koa. Horren bidez, Kultura Sailari gomendatzen zaio Praileaitzko historiaurreko santutegiaren mugaketan aldaketa sustatzeko aukera azter dezala. Aldaketa horrek barne hartu beharko luke haitzuloaren inguruko mendi-mazela osoa.

1.4

HEZKUNTZA

4. HEZKUNTZA

Sarrera

2009an, hezkuntza arloan 76 kexa jaso dira, hau da, erakunde honek bideratutako kexa guztietatik %3,96.

Kexa horien eraginpeko administrazioak honako hauek izan dira:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza)	61
- Tokiko administrazioa	5
- UPV/EHU	5

Edukiari dagokionez, jasotako kexak honako arloei edo azpiarloei buruzkoak izan dira:

- Eskubideak eta betebeharrak	13
- Bekak eta beste laguntza batzuk	8
- Eskola garraioa	7
- Ikasleak onartzea	6
- Jantokia	6
- Haur hezkuntza	6
- Hezkuntza-premia bereziak	6
- Unibertsitateko irakaskuntza	5
- Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa	4
- Beste alderdi batzuk	4
- Hizkuntzen irakaskuntza	3
- Ikastetxeak – antolaketa	2
- Hezkuntzako plangintza/programazioa	2
- Batxilergoa	1
- Ikastetxeak – instalazioak	1

Onartzea/eskolatzea

Familiek gero eta interes handiagoa dute seme-alabek hezkuntza ibilbidea gero eta goizago hasteko; horren ondorioz, hezkuntza zerbitzuak sortzeari buruzko ohiko kexak haur hezkuntzako lehenengo hezkuntza etapara iritsi dira.

Hala eta guztiz ere, kexak beti eragin dituzten zioak errepikatzen dira; esate baterako, **ikas-tetxeetan eta eskoletan sartzeko lehenetsunezko onartze irizpideak, plaza nahikorik ez dagoenean.**

Horri dagokionez, 2008ko urteroko txostenean egin genuen bezala, esan nahi dugu egoia dela ikastetxe publikoetan eta itunpeko pribatuetan eta Haurreskolak Partzuergoaren mendeko eskoletan sartzeko irizpide komunak ezartzea; erakunde honek aurretiazko gomendioa eman zuen jarduketara horretan.

Era berean, **onartze prozesuak kudeatzearen alderdi formalei** loturiko kexa zioak ere errepikatu egin dira. Jasotako kexen artean, gure ustez, interesgarria da Haurreskolak Partzuergoaren mendeko haur eskola batean jarraituriko prozesuaren eraginez aurkeztutakoa.

2009an, partzuergo horrek haur eskoletan sartzeko aukera guztiak eskaini nahi izan ditu; horrela, esaterako, maiatzean izena emateko aldian, aukera eman du 2009ko ekainaren 16tik 30era jaiotako adingabeen familiek eskabidea 2009ko uztailaren 1era arte aurkezteko.

Kexa jasotzean, ez genekien ea adingabe horiek plazak hutsik egonez gero soilik sartzen ziren (hau da, behin-behineko zerrendetan jasotako beste adingaberen bati lekua kendu gabe), ala, aldiz, behin betiko zerrenden argitalpena uztailaren 3rako aurreikusi zenez (ekainaren 16tik 30era bitartean jaiotako adingabeen eskabideak aurkezteko epea amaitu eta bi egun igarota), ea behin-behineko zerrendetan jasotako beste adingaberen bati lekua kenduta, eskubide hobea egiaztatuz gero.

Azken jarduera horren errealitatea egiaztatu ondoren (pertsonek guztiak aukera berdintasuna izatea), erakunde honek halako prozesuen kudeaketan kontuan hartu behar diren prozedura mailako bermeak gogorarazi zituen. Horrela, aditzera eman genuen, zuhurtasuna ezarri arren (esate baterako, alegazioaren karga eta eskabideak egiteko epearen barruan adierazi nahi diren merezimenduen egiaztapena), ezin direla ahaztu interesdunek prozedura administratibo guztietan dituzten eskubideak; adibidez, **eskabideak zuzentzeko eta hobetzeko** aukerari loturiko eskubidea.

Kexa honen kasuan, familiak, eskabidea aurkeztean eta epeekin ozta-ozta zebilenez, aditzera eman zuen ezin zituela zenbait agiri aurkeztu; esaterako, adingabearen erroldatzea, aitaren lan egoera eta lantokia (enpresak emandako lan egoeraren ziurtagiria, lan egiteko tokia ere adierazita) eta osasun txartelaren zenbakia (hori geroago eman zuen).

Berriro ere lankidetzara erakutsi nahirik, Partzuergoko Gerentziak prozedura ikuskatzeko konpromisoa hartu du, eskabideetan ikusitako balizko akatsak edo eskubideak konpontzeko eskaerari dagokionez, zerbitzu ahalik eta onena eskaini ahal izateko.

Bestalde, adingabeei zuzendutako zerbitzu horien eskaintza antolatze moduak (udal parte hartzea funtsezkoa izan da Haurreskolak Partzuergo finkatzeko), gure iritzian, nolabaiteko berezitasuna duten beste kexa batzuk aurkeztea azaltzen du. Horixe gertatzen da, esate baterako, ikastetxe horietara doazen **adingabeak lekualdatzeko aukeri** buruzko kexarekin, **horiek Partzuergoaren barruko edozein haur eskoletan eskolatu ondoren**.

Kexa hori ikertzean, halako eskoletarako sarbidea kudeatzeko aintzat hartzen den errealitatean oinarritu gara. Jakina denez, haur eskolan okupaturiko plaza kopurua eskainitako plaza guztien %60koa edo hortik beherakoa denean, izena emateko epeak irekita jarraitzen du. Aldiz, okupaturiko plaza kopurua %60tik gorakoa denean, errespetatu egin behar dira izena emateko ohiko epeak.

Gure ustez, ulergarria da bigarren kasuan Partzuergoak, hori justifikatzen duten arrazoi objektiborik egon ezean, ahalegina egitea eskola aldatzeko eskabideak izena emateko ohiko aldietara birbideratzeko, eta, horrela, sartzeko aukera berdintasuna segurtatu ahal izateko.

Halaber, Gerentziak emandako informazioa baloratu ondoren, ulertzekoa da adierazitako antolamendu mailako zergatiak (balizko bilketei aurrea hartu beharra, etab.) baliozkoak izatea hutsik dauden ratioak erlazionatzea justifikatzeko, eta, horrela, sartzeko berriak antolatze (60%), eskolako plazen edota zuzkiduren guztizkoan oinarrituz, eta ikasgelek une jakinean duten antolamenduan oinarrituz (haurren adinaren arabera antolamendua).

Baina, nolana ere, Gerentziari ondo arrazoituriko lekualdatze aukerak agortzeko iradoki diogu; baldin eta, eskolan hutsik dauden plaza guztiei dagokienez finkaturiko muga bete ez arren (baina bai adin tartean, kasu honetan gertatzen denez), lekuz aldatzeko baimenak antolaketa aurreikuspenak arriskuan jartzen ez baditu.

Kexa hori dela eta, aditzera eman behar dugu beste hezkuntza etapa batzuetan ere jaso direla lekualdatzeko edo beste ikastetxe batera joateko eskabideak.

Erakunde honek badaki, arau orokortzat eta salbuespenen kasuan izan ezik (eskola jazarpena, eskolan berandu sartzea, etab.), beste ikastetxe batera joateko eskabideak ikasleak onartzeko urteroko prozedurara birbideratzen direla.

Horrenbestez, pentsatu genuen horixe izan zitekeela kexetariko bat eragin zuen ebazpen indargabetzailea azaltzeko arrazoia. Gainera, kasu horretan, gure iritziz, ezin zen ahaztu ikastetxearen jarrera; izan ere, familiak zioenez, semea beste ikastetxe batera eramateko benetako aukera zegoela esan zioten.

2008ko urteroko txostenean, eskolatze alderdiak aztertzean, jasotako zenbait kexaren sustatzaileek **adopzioan hartutako adingabeen eskolatzea** adingabeon benetako ezauzgarrietara (adina, heldutasuna, etab.) egoki nahi izan zuten.

Aurten horri buruzko kexa gehiago iritsi zaizkigu. Gure ustez, hezkuntza administrazioaren erreakzioa egokia da; hain zuzen ere, izapide edo ekimen judizialak agortu beharra planteatu du, baina ikasturtean eskolatze prozesua egokitzeko neurriak baztertu barik; adibidez, lehen hezkuntzako eta haur hezkuntzako maila jakinen batean urtebete baino gehiago gelditzea, laguntzako zerbitzuen txostena aztertu ondoren.

Ikasteko beka eta beste laguntza batzuk

Ikasteko beka eta beste laguntza batzuei buruzko keak asko izan dira beti. Arlo honetan gehiagi ez luzatzeko, esan behar dugu halakoetan sortzen diren gaiak, oro har, bi ordena desberdinetan biltzen direla:

Lehenengoaren barruan sartzen diren keak, izatez ere, administrazioak ebazpena ematean berandutzearen aurkakoak dira, sustatzaileek diotenaren arabera; horrek, batez ere, interesdunaren aldeko erabakietan iragarritako ordainketa egitean dauka eragina. Zenbait kasutan, gainera, ez da **berandutzerik** egon: ebazteko epea gehiegizkotzat hartu da, haien premia ekonomikoak kontuan hartuta.

Bestearen barruan, laguntza ez emateko (**baldintza ekonomikoak edota akademikoak** ez betetzeagatik) ebazpenarekiko desadostasunak eragindako keak sartzen dira. Kexa horiek, ezespina bera zalantzan jarri baino gehiago, haien interesen aurkako emaitzaren aurkako protesta egiten dute, justiziarik loturiko irizpideak nabarmenduta, legezketasuna bera baino gehiago.

Azken horiei dagokienez, berretsi egin behar dugu kezkatuak gaudela hezkuntza administrazioak honako honetarako egiten duen ahalegin handiak batzuetan sortzen dituen arazoekin: administrazio horrek beka eta laguntzak errentagarritasun errealeko irizpideen arabera esleitzeko ahalegina egiten du. Izan ere, Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailak oraindik ez du erabakirik hartu, enpresak edo langileek lehenagoko gastuak konpentsatzeko ordaindutako zenbatekoen tratamenduaren balizko ikuskapenari buruz; gai horrek 2007ko martxoaren 2ko Ebazpena eragin zuen.

Ikastetxeak

Ikastetxeen **instalazioen** egoerari buruzko keak aipatu behar izaten ditugu, urtero. Aurten izapidetutakoen artean, aipatzekoa da familia talde batek aurkeztutakoa; familia horren seme-alabak Bilboko Mugika Solokoetxe LHIn dabilta. Egindako kudeaketen bidez, egiaztatu egin behar da eraikin historiko horren erreforma aurreratu egingo dela (2010eko aurrekontu ekitaldirako), oraingo **oztopo arkitektonikoak** ezabatze eta eraikina indarreko araudira egokitzeko, Eusko Legebiltzarrak 2011-2012 ikasturterako onetsitako Ikastetxeen Azpiegiturak Hobetzeko Plan Bereziaren barruan (2008-2012).

Haurreskolak Partzuergoaren mendeko haur eskolak dituzten instalazioek ere zenbait kexa jaso dituzte. Kexarik garrantzitsuena, aurten, Beasaingo Seaska haur eskolaren inguruan aurkezturikoa izan da.

Beasaingo Alkatetzari bere garaian (2008ko azaroa) bidalitako txosten batean azaldukoaren arabera, Partzuergoak balorazio orokorra egin zuen, haur eskola honen

instalazioetan behar diren hobekuntza neurriak buruz. Horretarako, hiru epe ezarri ziren, eta azkena 2009-09-01ean amaitzen zen.

Erakunde honek kasuaren jarraipena egin du, eta horren azken pausoa instalazioek 2009-2010 ikasturte honetarako duten benetako egoera zehaztea izan da. Beasaingo alka-teak esan digunez, "*instalazioak egoera oso onean daude, abenduaren 17ko 297/2002 Dekretura egokitzen dira eta funtzionamenduan dabilta*".

Nolanahi ere, gure esku-hartzea amaitutzat jo baino lehen, Partzuergoaren Gerentziaren lankidetzak eskatu dugu; izan ere, gure ustez, lehen hezkuntzako adingabeentzako zerbitzuok ondo emateko behar diren instalazioak eta egokitze obrak ikuskatu behar ditu, berak baitauka horren erantzukizuna. Une honetan, haien iritzia berrestearen zain gaude.

Bizikidetasuna eta gatatzak ikastetxeetan

Orain arteko txostenetan esan dugunez, 2009an **Baloreen transmisioa adingabeei** izeneko **txosten berezia** argitaratu da (informazio gehiago lortzeko, begiratu txosten honetako IV. kapituluko 1.2 atala).

Txosten horretan esaten denez (eta bertan esaten dena ia hitzez hitz azalduko dugu), datu guztiek agerian jartzen dute eskolak baloreen transmisioan duen eginkizuna mugatua dela, baina horrek ez du esan nahi eginkizun hori garrantzitsua ez denik. Hori, berez, ez litzateke datu kezagarria izango, egiaztapen hutsa baizik. Kezagarriena hauxe da: hori horrela izanik, adingabeak hezteko ardura osoa eskolaren esku uztea eta beste eragile batzuei jarri beharreko arreta ahaztea; esaterako, familiari eta teknologia berriei, horiek eskola bezain garrantzitsuak edo garrantzitsuagoak baitira.

Txosten honetan, Arartekoaren txosten guztietan bezala, gomendio batzuk egiten dira, horietariko zenbait (13.etik 19.era) **hezkuntza sistemari buruzkoak**. Gomendioak honako hauek dira:

- ikastetxe guztietan barneratzea eta aniztasuna sustatzea. Ghettorik ez sortzea;
- irakasleen eta familien arteko loturak eta lankidetzak hobetzea;
- gurasoen eskolak edo baloreen hezkuntzan hezteko beste modu batzuk sustatzea;
- tutoretza lana indartzea;
- herritarren hezkuntzaren ezarkuntza ikuskatzea;
- adingabeen parte-hartzea eta erantzukizuna hobetzea;
- lankidetzako metodologiak sustatzea.

Gure iritziz, baloreen hezkuntza indartzeko egin dugun apustuaren bidez, ikastetxeetako bizikidetasun baldintzak hobetu eta, horrela, murriztu egin ahal izango da jazarpen kasuei buruzko **salaketak (bullying-a)**; kasu horiek, zoritxarrez, behin eta berriro gertatzen dira.

Irakaskuntzak

Ikastetxeei buruzko kexak berriro hartuta, baina beste mota bateko alderdiak aztertuz (ikas-tetxeen antolaketari eta ikasgai eskaintzari loturiko alderdiak), gure ustez aipagarriak dira Batxilergoko arteen modalitatearen eskaintzaren inguruan jaso diren bi kexa, baita heziketa eta kirola bateratzen ari den ikasle bati emandako tratamenduaz arduratuta dagoen aita batek aurkezturiko kexa ere.

Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Saileko arduradunak ulerkor agertu dira, planteaturiko kasu horiei dagokienez. Jakitera eman digutenez, Antolaketa Akademikoaren zerbitzuak honako hauek errazago bateratzeko neurriak ezarri dituen araudia landu du: **Musika eta Dantzako lanbide irakaskuntzak** eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa. Halaber, **maila edo errendimendu altuko kirolaria** izateak eta Dantzako lanbide irakaskuntzek Soin Hezkuntzan izan behar dituzten ondoreak ere ezarri ditu.

Adierazi digutenaren arabera, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko aukerako arlo guztien balioztatzea jasotzen duen araudi hau (egoera horretan dagoen ikasleak bere aukerakotasuna egiten duela eta ikasle horren eskola karga nahikoa dela onartzen baitu), izapidetze fase aurreratuan dago, eta lehenbailehen helaraziko da ikastetxeetara.

Musika irakaskuntzei dagokienez, aipatzekoa da udal titulartasuneko zentro bateko (musika eskola) gurasoek sustaturiko pare bat espedienteren izapidetzea; kexa, espediente horietan, zentroak matrikulazio baldintzetan eta matrikularen eraginkortasunean jarritako baldintzei buruzkoa zen.

Eskolak jasotako berritasunen jatorria, bestalde, hezkuntza komunitatea zentro barruko bizikidetasunerako jokabide egokiak garatu beharraz jabearazteko erabakia zen.

Borondate hori gauzatzeko orduan, gehiago ala gutxiago asma daiteke; ikuspegi horretatik, ondo ikusi genuen polemikaren sortzailea ondo birbideratzeko udal erabakia.

Hizkuntzen irakaskuntzaren atala, bestalde, denborarekin garrantzi handia lortu duten ataletariko bat da; ezaugarri hori estu lotuta dago Administrazioak zentro berriak irekitzea sustatzeko duen borondatearekin, halako irakaskuntzak dituzten zentroek adin guztietako pertsonen konfiantza baitute. Horrela, matrikulazio prozesuei eta hasitako irakaskuntzei jarraipena emateari buruzko kexak iritsi zaizkigu.

Euskararen irakaskuntza

Iaz polemika handia egon zen Euskal Autonomia Erkidegoaren hizkuntza eta hezkuntza antolaketaren arloan. Gure txostena egitean, besteak beste, **Euskal hizkuntza eta Literaturaren salbuespenari** buruz jasotako kexa kopuru handia aipatu genuen; salbuespen

hori Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak ezarri zuen urriaren 16ko 175/2007 Dekretuko bigarren xedapen gehigarriak arlo horretan sarturiko aldaketaren eraginezkoa izan zen.

Kexa horietan aipaturiko ikasleek, oinarrizko hezkuntza atzerriko ikastetxeetan egin ondoren (lizeo frantsesa, ikastetxe amerikarra, alemana, etab.), Euskal Autonomia Erkidegoaren sareko beste ikastetxe batzuetan hasi zituzten Batxilergoko ikasketak. Erakunde honen ustez, atzerriko ikastetxeetako ikasle horiei tratamendu espezifikoak eskaini behar izatearen ondorioz (Euskal hezkuntza eta Literatura ikasi behar izateari dagokionez), euren egoera honako ikasle hauen egoerarekin konparatzeko edo parekatzeko modukoa zen: lehenagoko ikasturteetan salbuespena izan ondoren, salbuespen horren berriztapena eztabaidagai ez zuten ikasleen egoerarekin.

Hezkuntza administrazioari iritzi arrazoitua eskatu genion. Administrazio horren ardura-dunek esan ziguten 175/2007 Dekretua Euskal hezkuntzan eta Literaturan salbuespenak ematearen aldetik ere aldatzeko asmoa zutela (jendartean jakina zen asmo hori), ikasleen banakako eskubideak babesteko.

Gainera, aditzera eman ziguten bilerak egin zituztela kexak aurkeztu zituzten amekin (ikasleen ordezkariak); bilera horietan balizko soluzioei buruzko informazioa eman zen. Sorturiko egoerarako soluzioak bilatzen ari zirela esan zuten, ikasle horiek unibertsitatean sartzeko 2010eko probetan berdintasun baldintzetan aurkeztu ahal izateko.

Halaber, esan zuten aintzat hartzen zutela Arartekoak arazoa konpontzeko bidetzat adierazitako arrazoibidea; ikasle horien egoera, hain zuzen ere, aurreko ikasturtean salbuespena lortu ondoren salbuespena mantentzen zuten ikasleen egoerara asimila zitekeela esan zuen Arartekoak, eta, era berean, hori 175/2007 Dekretuan ezarritako aldaketei buruz irekitako hausnarketa prozesuan sartu zuen.

Hezkuntza premia bereziak

Gure ustez, hezkuntza premia berezien epigrafe hau egokia izan daiteke **PROA programaren** inguruan garaturiko jarduketak jakinarazteko. Laguntzeko eta indartzeko programa hori garatzen duten institutuek inguruari loturiko hezkuntza desabantailan (ikasteko zailtasunak) eskolatzen dute Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasle ehuneko handia.

Programa horren bidez, aurre egin nahi zaio ohiko baliabideekin nahiko ez duten ikasleak jasotzen dituzten ikastetxeen egoerari; izan ere, ikasle horientzat ohiko antolaketa eta funtzionamendua ez dira eraginkorrak. Horri dagokionez, konpentsazioko mekanismo egokiak zuzkitu nahi dira, baliabide gehiago edukitzeko eta antolaketako nahiz funtzionamenduko prozedura berriak ezartzeko.

Bi institutuk kexak helarazi dizkigute, Pedagogia Berrikuntzako Zerbitzuak 2008-2009ko gainerako zatian libramendu berriak egiteko ezintasuna jakinarazi dienean; ezintasun hori,

berriz, finantza zailtasunen ondoriozkoa izan da, zailtasunok blokeatu egin baitute, dirudie-nez, halako ordainketei aurre egiteko behar diren kredituen lorpena.

Egindako kudeaketetan, Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailak agerian jarri du programako ekintzekin jarraitzeko konpromisoa; gainera, beharrezko kredituak zuzkitzeko ahalegin handia egiteko asmoa ere azaldu du, seguru baitaki programako ekintzak eraginko-rrak direla gizarte bazterkeria eta deserrotzea ekiditeko.

Hezkuntza premia berezien atal honetan, gure ustez, interesgarria izan daiteke **itunpe-ko ikastetxe** batean eskolaturiko **Down sindromedun adingabe** baten amak egindako kexa adieraztea. Interesdun horrek, bere kexa arrazoitzeko, esan du bere semeak ez duela berdintasunezko traturik jasotzen, eta ez duela adituen laguntzarik (laguntzaileak), horien presentzia ezinbestekoa izan arren, ikastetxeak oporretan eskaintzen duen **hautzaindegi zerbitzua** erabiltzeko. Horri dagokionez, emakume horren iritzian, semearen egoerari udal administrazioak eman behar dio erantzuna, gizarte ekintzako arlotik.

Hala eta guztiz ere, gure esku-hartzeak sorturiko erreakzioa ikusita, erakunde hau bat da-tor eraginpeko alkateak adierazitakoarekin; izan ere, horren ustez, egokiena ikastetxeak hautzaindegi zerbitzu osagarri hori eskaintzeko baldintzei buruzko hausnarketa egitea zen. Horrela, zaintzaileen arduraldia eta zerbitzu horri loturiko beste alderdi batzuk aurrekusi dituen bezala, gure iritzian, ikastetxeko Eskola Kontseiluak erabakia hartu behar du planteaturikoa bezalako eskabideei erantzuna emateko aukerari buruz.

Halaber, **arthritis erreumatoidea duen neska gazte** baten familiak egindako kexa aipatu nahi dugu. Kexan emandako datuen arabera, gazte horrek etxez etxeko hezkuntza arretari esker egin zituen derrigorrezko irakaskuntzak, eta, horrela, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatua lortu zuen.

2008-2009 ikasturtean, neskak administrazio kudeaketako maila ertaineko zikloa ikastetxe batean hastea erabaki zuen (familiak dioenez, etxez etxeko hezkuntza arretako langileek gomendatuta), baina bere hezkuntza premia bereziei aurre egiteko behar ziren laguntzak eduki gabe; horren ondorioz, ez du aprobetxamendu edo emaitza onik lortu.

Aurrekari horiekin, 2009-2010 ikasturterako, neskak berriro heldu nahi zion bere heziketa ibilbideari, hezkuntza sistemaren barruan izan ditzakeen **laguntza espezifikoei** (garraioa ere barne) buruzko zalantza guztiak argituta.

Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Saileko arduradunek emandako informazioaren arabera, neska gazte horrek berriro hartu ditu administrazio kudeaketako ikerketak, langile adituen laguntzarekin, eta, beraz, uste dugu eskolatze egokia izango duela.

Zerbitzu osagarriak – eskola garraioa

Oso ezaguna da eskola garraioaren eta jantokiaren zerbitzu osagarriak nola eratzen diren. Horri dagokionez, erreferentziarik berehalakoena Administrazio eta Kudeaketa Ekonomikoaren zuzendariaren TE-1/2008 Zirkularreko hiru garren puntuak aurkitzen dugu; zirkular hori Haur Hezkuntzako (2. zikloa), Lehen Hezkuntzako eta DBHko (1. eta 2. zikloak) eskola garraiorako irizpide orokorren aplikazioari buruzkoa da. Bertan ezartzen denez, eguerdian jantoki eta garraio zerbitzuak ez dira bateragarriak.

Hala ere, zenbait kasutan, ikastetxe batzuen berezitasunari esker, bertako ikasleek **eguerdiko ordutegian** ere izan dute **eskola garraioko zerbitzua**. Esate baterako, Duranako lkasbide ikastolak.

Hain zuzen ere, seme-alabak ikastetxe horretan eskolaturik dituzten familia batzuek bere kezka agertu diote erakunde honi, hezkuntza administrazioak eguerdian eskola garraioko zerbitzua neurri batean ezabatzeko asmoa zuelako.

Familiek azaldutakoaren arabera, sail horrek berrantolatu egin nahi zuen eguerdiko garraio zerbitzua, irizpidetzat familien bizilekua erabilita, eta Gasteizetik kanpoko landa inguruan bizi ziren familiei ukatu egin nahi zien garraio hori edukitzeko aukera, garraio zerbitzuaren kudeaketan zailtasun edo eragozpen handiagoak ekiditeko.

Lehenengo ikerketa egitean ikusi genuenez, garraio zerbitzuaren antolaketa ikuskatzeko asmo hori zuzen lotuta zegoen jantoki zerbitzuan eskaintza handiagoa eta hobea eskaintzeko aukerekin. Aurrekari horiek aintzat hartuta, eta, beraz, hezkuntza administrazioak garraio zerbitzua eskolako jantoki zerbitzuan hobekuntzak egiteko aukeraren arabera berrantolatu nahi izatea bidezkoa dela onartuta, berrantolaketa hori arrazoituriko irizpide objektiboen arabera egin behar izatea adierazi genuen, eraginpeko ikasleen artean bereizkeriarik ez sortzeko.

Azkenik, hala ere, hezkuntza administrazioak baztertu egin du, oraingoz, familia horiek adierazitakoarekin zerikusia duen ezein aldaketa egitea.

2009an egindako zenbait kexatan, aurreko urteetan bezala, herri administrazioak garraio zerbitzua ematea aurreikusita duten eta, dena delakoagatik (funtsean, **garraioaren ibilbideekin** bat ez etortzea), horren erabiltzaileak izan barik gelditu diren ikastetxe publikoetan ikasten duten ikasleen kasuak adierazi dira.

Lehen esan dugunez, halako kasuetan, gure eginkizuna zalantzan jarritako administrazio erabakiek arrazoibide nahikorik ote duten ikuskatzea da, eta **garraioaren banakako esleipenak** izenekoak ezin dira, gehiagoko barik, arrazoibidetzat erabili.

Aurten izapidetutako kasuetariko batean, aintzat hartuta hezkuntza administrazioak egiten duen eskola garraioko zerbitzuaren plangintza programatuaren defentsa, interesatuei jakitera eman behar diegu hezkuntza erabaki horien aurka egitea oso zaila dela, hezkuntza

arduradunen diskrezionalitatearen edo iritzi askearen barruan sartzen diren erabakiak dire-lako; erabaki horien helburua hezkuntza zerbitzuaren antolaketa hobea eta eraginkorragoa izatea da.

Atal honetan, aipatzekoa da, berria baita, **Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldetik kanpo unibertsitatez kanpoko hezkuntzan** dabiltzan biztanleria sektoreek egindako kexa, garraio zerbitzua lortzeari buruzkoa.

Eusko Jaurlaritzak ez ditu halako segmentuak sartzen eskola garraioaren arloko aurreikuspenetan, edo, orokorrago, laguntza eta diru-laguntza politiken diseinuan; gure ustez, horrek oinarri nahikoa dauka eta diskrezionalitate espazio bat dauka mugitzeko.

Horri dagokionez, aipatzekoa da askatasunak (ikastetxea hautatzeko askatasuna ere barne) erabiltzeko eskubidean ikastetxe jakin bat aukeratu ahal dela, beste baten kaltetan. Zilegia den hautapen horrek ez du esan nahi laguntza ekonomiko baterako eskubide jakina lortzen denik.

Zerbitzu osagarriak – eskola jantokiak

Guraso talde baten ekimenez, aurtan Lasarte-Oriako Udalak Garaikoetxea-Landaberri ikastolan eskolaturiko ikasleei eskainitako jantoki zerbitzuari buruzko informazioa eskatu behar izan dugu.

Alkatetzak esan digunez (eta berak esandakoa hitzez hitz azalduko dugu), Lasarte-Oriako Udalak, ekintzako subsidiarotasunaren oinarritzako printzipioan oinarrituz, bere gain hartu zuen udalerriko eskola jantokiaren zerbitzua. Hala eta guztiz ere, urte hauetan, gizartean eta kulturaren izandako aldaketa sakonek beste familia inguru bat eratu dute, eta, bertan, hezkuntza eremua, apurka-apurka, zerbitzu osagarriak sartzen ari da. Horiek, eduki akademikoekin zuzenean lotuta egon ez arren, garrantzi handia hartzen ari dira ikastetxeetan. Horri dagokionez, zuzeneko kudeaketa duten jantokiak erantzun egokia ematen diete familien interesei, eta, egindako aurreikuspenaren arabera, epe ertainean ikastetxe guztiek zerbitzu hori edukiko dute. Epeak betetzen diren bitartean, Udalak zerbitzua eskaintzen jarraitu du, horren kostu ekonomikoa bere gain hartuz. Hala ere, zuzeneko kudeaketako jantoki zerbitzuaren ezarkuntza Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailaren eskumenekoa da, eta bera da eskabidea egiteko Ordezkaritza Organo Gorena.

Erantzun hori zentzuzkoa dela ikusita, baztertu egin dugu edozein jarduketa egitea.

Halaber, 2009an, oraingo egoera sozioekonomiko bereziekin kezkatutako familia batek, besteak beste, seme-alabek ohiko mahaikide izaera ez galtzeko aukera planteatu du, baldin eta enplegua erregulatzeko espedienteak inaktibitate aldiak sortu eta, aldi horietan, haurrek jantoki zerbitzua erabiltzen ez badute.

Horri dagokionez, hezkuntzako arduradunek familien alderdi ekonomikoak aztertzearen aldeko apustu garbia egiten dute, ikasteko laguntzen deialdiaren barruan; halaber, eskola jantokien antolaketa eta funtzionamendua ez aldatzeko apustua ere egiten dute.

Alderdi horretatik, kexari dagokionez, berretsi egin dute euren ustez kasu honetan egokia den jarduketa (egoera ekonomikoa goitik behera aldatu baita) familia ikasteko laguntzen deialdian horretarako ezarritako aukeraz baliatzea da (hurrengo ikasturterako iragarriko den aukera), unibertsitatekoak ez diren mailetako ikasleak eskolatzeko; izan ere, beka tokatzen bazaie, jantokian lehentasuna eduki eta konpentsatu egingo zaie ordaindu beharreko kuota.

Azkenik, aipagarria da urteko zenbait unetan sektorean eragina izan duen **lan gatazkak** izandako protagonismoa.

Hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailak kontratatuturiko enpresekiko lan lotura duten langileek zerbitzuak titulartasun publikoko ikastetxeetan emateko egin dituzten **greba egunei** buruz ari gara. Hortaz, ez dira langile publikoak.

Kexak, izan ere, gurasoak eta zerbitzua erabiltzen duten adingabeak jantokiko kuotak ordaintzearekin ados ez egotearen eraginezkoak dira, kontuan hartuta hori etenaldian gera daitekeela gatazka egunetan.

Kexak izapidetzean, jakin genuen arlo hau arautzen duen araudiko alderdiak, eztabaidaturiko kobrantzan ahalbidetzen zituztenak, aldatu egingo zirela, eta horixe gertatu zen, guraso erreklamaziogileak adierazitako zentzuan.

Unibertsitatea

Jarduketa espezifikoak garatu beharra eragin duten arloetariko batzuk, unibertsitateko irakaskuntzen arloan, ikasleak **onartzeko prozeduren** eraginezko alderdiak izan dira.

Gure ustez aipagarrienak direnen zabalkundea egiteko asmoz, batez ere orain arte agertu ez diren alderdiak aintzat hartuta, Euskal Herriko Unibertsitatean sartzeko plaza kopuru mugatua duen karrera bat ikasteko eskabidea ez onartzearen aurka sustaturiko kexa azalduko dugu.

Kexaren berezitasunetariko bat interesduna hogeita bost urteko ikasleriarako erreserba kuoparen barruan sartuta egotea da; hala ere, beste unibertsitate batean proba gaudituta eduki du.

Ikasle horren eskabideari uko egiteak alderdi hori azpimarratzen zuen; gainera, ez zegoen bi unibertsitateen arteko akordiorik, sartzeko probak onartzeari dagokionez, eta, halaber, sartzeko prozesuen berezko dinamika ere aintzat hartu behar da, mugak dituzten karrerak direnean.

Kexako espedientea izapidetu ondoren, ondorioztatu genuen administrazio erabakiak oinarri nahikoa zuela eta ezin zitzaion aitzakiarik jarri.

Era berean, aurreko urteetan bezala, aipatzekoak dira **ikertzaileentzako laguntzak** lortzeko interesdunek aurkezturiko kexak; horiek, oro har, beken eta laguntzen ohiko deialdietako arazo berberak izaten dituzte.

Halaber, aipatzekoa da 2008ko ekainaren 23ko Aginduari lotuta sustaturiko kexa; agindu horren bidez, 2008-2009 ikasturtean unibertsitateko zerbitzu akademikoak emateagatik ordaindu beharreko prezioak finkatu dira; hain zuzen ere, arau horren murriztapena egiten da, unibertsitateko **tasen salbuespena** aplikatzean, **ikasleen familietan ezgaitasuna duen pertsonaren bat** dagoenean.

Unibertsitate tasei dagokionez, eta, hain zuzen ere, familian ezgaitasuna duen kideren bat duten ikasleei aplikatzeko moduko salbuespenari dagokionez, EAEko Unibertsitate Sistemari buruzko 3/2004 Legeko 39. artikuluan, erabateko salbuespena izateko aukera ezartzen da, arauzko xedapenen esparruan, baldin eta ezgaitasuna duen kideren bat duten familiak direnean. Horri dagokionez, aditzera ematen da prezio publikoak onesteko aginduan edo erabakian aurreko zenbakian aipaturiko baldintzak zehaztu eta beste salbuespen batzuk (gutzizkoak edo partzialak) ezarri ahal izango direla, baldin eta horiek bereizkeria arbitrariorik eragiten ez badute.

Hain zuzen ere, Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailak prezioei buruzko 2008ko Aginduan erabili du oraintxe azaldu dugun lege ahalmena. Egindako "zehaztapena"; lehen ikusi dugunez 3/2004 Legeko 39.2 artikuluan berariaz baimenduta dagoena, familiek ezgaitasunagatik duten salbuespen osoaren onura 100eko 65eko edo hortik gorako ezgaitasuna duten kasuetara murriztea izan da.

Horrenbestez, murriztapen horrek kalteturiko pertsonen artean haserrea eragin arren, esan behar da Sailaren jarduketa horrek beharrezko estaldura juridikoa duela.

I.5

FUNTZIO PUBLIKOA

5. FUNTZIO PUBLIKOA

Sarrera

2009an, Funtzio Publikoan 159 kexa jaso dira. Zifra horrek planteaturiko erreklamazio guztien %8,29 adierazten du. Horrenbestez, esan daiteke Funtzio Publikoa oraindik ere jarduerarik handienetarikoa dela erakundearen barruan, izapidetutako gai kopuruari dagokionez.

Kexa horien eraginpeko administrazioak honako hauek izan dira:

- Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritza)	66
- Foru administrazioa	17
- Tokiko administrazioa	14

Edukia kontuan hartuta, beste alde batetik, kexak honako azpiatalekin lotuta egon dira:

- Ordezkapenak	69
- Aukeraketa	34
- Beste eskubide eta betebeharrak	11
- Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa	10
- Lanpostuak betetzea	8
- Ordainsariak	7
- Beste batzuk	6
- Eskubideak eta askatasunak	5
- Administrazio egoerak	3
- Lizentziak eta baimenak	2
- Diziiplina araubidea	2
- Ezin bateratuzkoak	1
- Lanpostuen balorazioa	1

I. SARBIDEA

I.1. *Hautapen prozesu batean ordenamendu juridikoaren kontrakoak diren esperientzia baloratzeko betekizun bat eta baldintza batzuk ezartzea*

Enplegu publikoa eskuratzea hizpide duten alderdiei buruzko lehen atal hau –erakunde hau aipatu alderdien jakitun izanda– Lemoizko Udalak, 2008an, igeltsero bat kontratatze-ko iragarri zuen prozesua aipatuz hasiko dugu. Hala, udal jardueraren ondotik esku hartu genuen, hain zuzen, lanpostu batean interesa eduki arrear, publizitatearekin zerikusia zuten urritasunek parte hartzeko aukera gabetu zioten pertsona batek sustatutako kexa bat zela-eta.

Aipatu urritasunaz gain, espedientea izapidetzerakoan, interesdunei udalerrikoa izatea eta deialdiaz arduratu zen udalean emandako zerbitzuei mugatutako esperientziaren balorazioa eskatzen zien naturaltasunaren betekizuna aztertu genuen.

Azterlana [2009ko urtarrilaren 13ko ebazpenarekin](#)⁶ amaitu zen. Bertan, honako hauek jarri genituen agerian: enplegu publikoa eskuratzeko prozesu ororen publikitatearen konstituzio printzipioaren nahitaezkotasuna, merezimenduarena ez den izaera eta udalerrikoa izatearen gaitasuna, zerbitzu berdinei balio bera emateko beharra, aipatu zerbitzua jaso zuen herri-administrazioa edozein zela ere.

1.2. Ezagutza informatikoak egiaztatzeko agiriak

2008 ekitaldia ixterakoan, administrazio eta zerbitzuetako langileen administratzaileen eskalan karrerako funtzionario gisa sartzeko deitutako hautapen prozesuaren bideratzean, Euskal Herriko Unibertsitateak hartu zuen erabakiaren ondotik hasitako kexa-espediente batzuk izapidetu genituen. Erabakiak Microsoft Excel XP moduluaren maila aurreratua ukatzean zetzan, hain zuzen, IT Txartela egiaztagirien sistemari zegokion. Hori guztia, oposaketaren ariketa bat, nahitaezkoa eta baztertzaila, gainditzeko oinarriek ezartzen zuten moduluaren oinarritzko maila egiaztatze aldera.

Aurrekariak, baita erakundeak oinarriekin eutsitako jarrera ere, aurtan Legebiltzarri aurkeztutako ohiko txostenean jaso dira, nahiz eta unibertsitateak egin genuen saiakera berriaren aurrean emango zuen erantzuna ezagutzeke geunden.

Ekimen hori behar bezalako emaitzarik gabe alde batera utzi ondoren, ebazpen batean ([2009ko apirilaren 2ko ebazpena](#))⁷ kexagileek zuten arrazoiaren aintzatespena eta, beraz, unibertsitateari maila aurreratuko Microsoft Excel XP moduluaren egiaztapena onar zezan egindako gomendioa jaso behar izan genituen. Aipatu egiaztapena IT Txartela sistemari jarraiki eman zen.

Unibertsitateko kudeatzaileen aldeko erantzuna lortzeko saiakerak behin eta berriro egin arren, espedienteak erakundearen erantzunik jaso gabe itxi ziren.

Esku-hartze horren amaierarekin bat etorritik, arazo bera eztabaidagai izan zen berriz ere. Kasu honetan, administrazio orokorreko eskalaren administratzaile azpieskalan lanpostu batzuk karrerako funtzionario langileekin betetzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak iragarri zituen hautapen proba batzuen garapenean.

⁶ Arartekoaren ebazpena, 2009ko urtarrilaren 13koa. Horren bidez, Lemoizko Udalaren igeltsero baten aldi baterako kontratazioaren inguruko kexa baten ziozko esku-hartzeari amaiera ematen diona.

⁷ Arartekoaren ebazpena, 2009ko apirilaren 2koa. Horren bidez, Euskal Herriko Unibertsitateari (EHU) eskatzeko, IT Txartela sistemarekin bat ematen den Microsoft Excel XP aurreratua moduluaren egiaztagiria onar dezala.

Aldundiak, segurtasun juridikoki arrazoiei helduta, esan digu ez duela gure iritzia onartuko, etorkizunean egingo diren deialdietan baloratzeko aukeraren kaltetan izan gabe. Hori dela eta, txosten hori itxita, jakinarazteke eta, ondorioz, argitaratzeko dagoen ebazpena egin da.

1.3. Europar Batasuneko hizkuntzak ezagutzen direla egiaztatzeko agiriak

Hautapen prozesuek hizkuntzen ezagutza, dela baldintza edo merezimendu gisa, barne hartzea ohikoa da lanpostu jakin batzuk eskuratzeko.

Horren adibide da Etxepare Euskal Institutuak aurtengo ikasturtean egindako iragarkia. Prozesu horietako baten berriazko oinarriak onartzearen ondotik, interesdun batek kexaren bidez jakinarazi zigun hizkuntzen egiaztapena agiri bidez bakarrik egin zitekeela, alegia, ezagutza ebaluatzeko proben deialdia espresuki alde batera utzita.

Aztertutako jardueretan, ingelesaren ezagutza baldintza bat zen eta, hori egiaztatzeko, oinarrietan lanpostu bakoitza burutzeko eskatzen zen mailaren baliokideak ziren tituluen edota ziurtagirien zerrenda aipatu zen. Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuari jarraiki (HEEMB), hizkuntz eskumena graduatzen den hainbat mailari dagokion gakoan bidez identifikatu zen maila. Aldi berean, erakundeko lanpostuen zerrendaren bitartez zehaztutako betekizunak oinarrietara bideratu dira.

Europako Kontseiluak, 2001ean, onartu zuen HEEMB. Hain zuzen, hizkuntz programak, curriculumaren nondik norakoak, azterketak, eskuliburuak eta Europar Batasuneko hizkuntzei buruzko beste edozein alderdi burutzeko oinarri komuna ematen duen agiria da. Xedea ikaste testuinguruetan lortutako titulazioen elkarrekiko aintzatespena ematea eta, hala, Europako lurraldean pertsonen joan-etorria laguntzea da.

Sistemak homogeneousotasun eta objektibotasun onurak ematen ditu, baita eskatutako ezagutza mailaren erabateko bermea ere. Herri-administrazio batek, langileak aukeratzekoan, uka ezin ditzakeen abantailak dira eta, gainera, nekez estaliko lirateke, egiaztatzeko bide horren orde, hizkuntzen ezagutza ebaluatzeko probak egitea aukeratuko balu.

Euskararen ezagutzei dagokienez, esan behar dugu Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuaren bidez sisteman euskararen egiaztapena barne hartzeko araudia jada badaukagula (64/2008 Dekretua, apirilaren 8koa, otsailaren 24ko 48/2009 Dekretuaren bidez aldatua), Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, hizkuntz profil jakin bat eskatzen duten lanpostuak eskuratzeko, deialdiak berriazko proba bat egiteko beharra barne hartzeko ezartzen jarraitzen duen aurren. Horregatik, euskararen ezagutzak egiaztatu behar direnean, bi aukera daude.

1.4. Enplegu publikorako hautagaien hizkuntz eskubideak

[2009ko irailaren 2ko ebazpenak](#)⁸ Osakidetzak, 2008ko Lan Eskaintza Publikoaren esparruan deitutako hautapen prozesu batzuetan, euskara oposaketa egiteko hizkuntz ofizial gisa aukeratu duten hautagaiei ematen ari zen tratamenduagatik kezkatuta zeuden hainbat hautagaik eta taldek hala eskatuta hasitako esku-hartzeari amaiera eman zion.

Kexetan aipatutako hautapen prozesuek honako gai hau zuten hizpide: oposaketaren ariketak galdera-sorta itxia oinarri zuen galdeketa erantzutean zetzan. Aipatu galdera-sorta Osakidetzak eman behar zuen.

Hizkuntz arloan eskubideekin bat datozen oinarri batzuk aintzat hartuta, prozesuen izapidetzeak tratamendu bereizia sartu zuen hautagaiei galdera-sorta hori ematea aipatzen zen zatian. Aipatu tratamendua aukeratutako hizkuntzaren araberakoa zen.

Tratamendu desberdin horrek honetan zetzan: oinarrietan aurreikuspenik ez zuen eta aipatu oinarriak aintzat hartuta beharrezkoa ez zen izapide batean gehitutako lehenengo adierazpena. Izapide hori euskara aukeratu zutenei bakarrik zegoen zuzenduta eta aukera berresteko edo, bestela, espainierara aldatzeko xedea zuen.

Bigarren adierazpena, euskarazko bertsioan, galdera-sorta itxian topatu zen eta aipatu hautagaiei espainiera aukeratu zutenei zuzendutako egintza hori bete ondoren jakinarazi zitzaien.

Hori guztia dela eta, ondorioztatu genuen ez zela errespetatu bi hizkuntzen koofizialtasuna zuzentzen duen araudia eta, hizkuntz eskubideei dagokienez, ez zela behar bezala bermatu tratu berdintasuna.

1.5. Deialdi bakarrean iragarritako oposaketa ariketak egiteko eguna edota lekua aldatzeko eskaeren tratamendua

Ildo honetan, esan daiteke gizabanako askok parte hartzen duten hautapen prozesuak entseguak egiteko laborategizat jo daitezkeela, sor daitezkeen egoerak eta gertakariak makina bat eta anitzak izan baitaitezke. Batzuetan, ordenamendu juridikoak ezarpenik ez duen alderdiak izan ditzakete hizpide eta, ondorioz, herri-administrazioek kasu bakoitzaren azterlan egokia egin behar dute eta, hala badagokio, neurriak hartu eta jarduerak bideratu behar dituzte, lanpostuak beteko dituzten hautagaien eta hautatzeko mekanismoen funtzionamenduaren mesedetan.

⁸ Arartekoaren ebazpena, 2009ko irailaren 2koa. Horren bidez, erakundeak bukatu du bere jarduera honako gai honetan: Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak, 2008ko lan-eskaintza publikoko aukeraketa-prozesu batzuetan, oposizio-azterketari zegokion galdera-sortaren euskarazko edizioa ematea.

Horren adibidea Osakidetzak iragarritako deialdietan topa dezakegu berriz ere. Deialdi horietako azkenaren ondotik –2008. urtean onartutakoa–, hautagai batzuek gure esku-hartzea eskatu zuten. Hain zuzen, berariazko erantzunik jaso ez arren, beren arduradunek ez baitzuten neurririk hartzeko asmorik oposaketa azterketa deialdi bakarrari jarraiki egiteko iragarritako eguna edo tokia edo biak ez ziren beste batean burutze aldera.

Haurdunaldia oso aurreratua zuten hautagaiak ziren eta erditzeko data probaren deialdi egunean edo ingurukoetan zehaztu zen.

Hala, Osakidetzaren lankidetzak eskatu genuen eta jakinarazi zigun, haurdun dauden edo bularra hartzen ari diren haurrak dituzten hautagaiei dagokienez, honako neurriok hartu zirela: bularra emateko kabina jartzea eta baliabide medikoa ezartzea. Era berean, azterketa egiteko lekutik gertu ospitaleko estaldura zegoen.

Egiazki, neurriak arrazoizkoak eta egokiak ziren egoera jakin batzuei aurre egiteko. Hori horrela, kexagileak, jaioberri baten amak, bularra emateko kabina erabili ahal izan zuen.

Ordea, hautagaiak gainontzeko parte hartzaileekin proba egiteko gai ez zirenean, alegia, probak haurdunaldiarekin edo haurdunaldia baino lehenagoko edo geroagoko uneekin bat egiten bazuen, ezin ziren probara bertaratu eta, ildo horretan, aipatu neurriak ez zuten balio.

Azkenik, arriskua ez zen jazo eta hautagai guztiak bertaratu ziren azterketa egiteko lekura. Hori gorabehera, egokia iruditu zitzaigun gure esku-hartzea amaitutzat ez ematea. Hori dela eta, administrazioak, hautapen prozesuak kudeatzen dituenek, ildo horretan duen jokaeraren aldaketa sustatzeko aukera aprobeztatu genuen, jakinda etorkizunean egingo diren prozesuetan azterketa eguna edota lekua aldatzeko eskaera berriak planteatu daitezkeela, hain zuzen, bertaratzea galaraziko duten zenbait kausagatik.

Gauzak horrela, ebazpen baten idazketa abian da eta modu esplizituan egoera horiei buruzko arauzko ezarpenik ez dagoela onartzen duten gogoetek jurisprudentzia dute oinarri, prozesua iragarri duen administrazioak, deialdi bakarrari jarraiki, azterketa egiteko zehaztutako baldintzak aldatzeko eskaerak azter eta ebatz dituzten. Aipatu eskaerak deitutako ekitaldira ez joatekoa arrazoia –behar bezala justifikatuta eta babes juridikoa merezi duena– duten hautagaiek egin dituzte. Hala ulertu dugu eta ebazpenaren zirriborroaren oinarrietan adierazi dugu. Izan ere, aldaketa horrek nahitaez berdintasun printzipioa urratzea ez dakarrela kontuan hartuta, hautagai guztien enplegu publikoaren sarbidean berdintasuna bermatzeko beharretik sortu den eskaera da.

1.6. Lanpostu jakinak eskuratzeko adinaren berariazko betekizuna

Nolabaiteko maiztasunarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko polizi kidegoen agente kategorian sartzeko hautapen prozesu batzuen deialdiarekin bat etorritik, prozesu horietan

parte hartu nahi duten arren, adinaren betekizuna dela-eta parte hartu ezin duten pertsonak sustatutako keak jaso ditugu. Maiztasun hori aintzat hartuta, interesgarria izan daiteke kontu honi zati bat ematea.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua onartu ondoren (7/2007 Legea, apirilaren 12koa), enplegu publikoa eskuratzeko gutxieneko eta gehieneko adina ezarri ziren. Hala, gutxieneko adina hamasei urte beteta edukitzea da eta, gehienekoa, berriz, nahitaezko erretirorako ezarritakoa. Ordea, legegileak arau orokor horren aldaketa baimen dezake, gutxieneko beste adin bat ezartzen duen legearen bitartez. Azken adin hori eta aurretiaz aipatutakoa desberdinak izan behar dira.

Poliziaren arloan muga propioak dituen adinaren betekizuna ezartzen duten legeak babes-ten ditu baimen horrek. Egun, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legeari eta garatzen duen Aukeraketa eta Prestakuntza Araudiari, alegia, Euskal Autonomia Erkidegoko polizi kidego guztiei aplikatzen zaizkien arauari jarraiki, gutxieneko adina 18 urte –beteta– da eta, gehienekoa, berriz, hogeita hamar –bete gabe–. Ordea, salbuespen gisa, araudiak adinaren gehieneko muga hautagaiak Udaltzaingoaren kidegoan eman dituen zerbitzu urteekin konpentsatzeko aukera ematen du, Udaltzaingoaren kidegoetan sartu nahi bada.

Beraz, hainbat deialditako oinarriek, aipatu moduan adinaren betekizuna hizpide dutenean, indarrean dagoen legezko tasuna baino ez dute betetzen.

Konstituzio Auzitegiak gehieneko adinaren mugak eragiten duen berdintasun printzipioaren urratzearen susmoak atzera bota ditu. Auzitegi horren arabera, adinaren muga objektiboa ezartzeak ez dakar urratzerik, betiere, legegileak hizpide den lanpostuaren ezaugarriak aintzat hartzen baditu.

II. BETETZEA

Urte honen hasieran, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta erakunde autonomoen esparruan, C eta D titulazioetako taldeei atxikitako lanpostuak –karrerako funtzionarioei erreserbatuak– betetzeko, iragarritako lehiaketa orokorraren berriazko oinarrietatik ateratako lanbide esperientziaren balorazioaren inguruan, 2008an, egin genuen azterlanaren amaierako ebazpena onartu eta Arartekoaren web orrialdean argitaratu genuen.

Ildo horretan, [Arartekoaren ebazpena, 2009ko urtarrilaren 26koa](#)⁹, dugu hizpide. 2008an, Eusko Legebiltzarrentzako ohiko txostenean jaso ziren aipatu ebazpenaren prestatzeko lanak eta administrazioa zuzentzeko azkenean erabilitako modua (118. orria).

⁹ Arartekoaren ebazpena, 2009ko urtarrilaren 26koa. Horren bidez, C eta D titulazioetako taldeei atxikitako lanpostuak hornitzeko lehiaketa orokorrean lan esperientzia kontuan hartzeari buruzko jarduera amaitzen da. Lanpostu horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta beren erakunde autonomoetako karrerako funtzionarioei erreserbatzen zaizkie.

III. ORDEZKAPENAK

III.1. Ukaezina da baldintza beretan enplegu publikoa eskuratzeko eskubideak garrantzi berezia duela ezgaitasuna duten pertsonak direnean. Hori dela eta, egungo ordenamendu juridikoak pertsona horien sarbiderako baldintzak modu espezifikoan hobetzen dituzten arauak eta xedapenak barne hartzen ditu.

Hala, egun ez dauka kontraesanik lanpostuen erreserba kupoa errespetatzeko beharrak, lanpostua aukeratzeko fasean nolabaiteko lehentasunak, edo lanpostua eta horren ingurua lanpostu hori beteko duen pertsonen premietara egokitzeak.

Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundean aldi baterako lanerako hautagai batek sustatu zuen keak hizpide izan du azken alderdi hori. Kexa hori aztertu ondoren, berriz jarri da agerian ezgaitasunen bat duen pertsona batek enplegua eskuratzeko dituen zailtasun esanguratsuak, enplegu hori aldi baterako denean eta, bereziki, esku artean dugun kasu honetan bezala, lanpostuen eskaintzak oso aldi laburrerako ordezkapenak egiteko burutzen direnean.

Honako hau gertatzen da: lanpostuak egokitzearen arloan, legezko xedapen guztiek (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua eta ezgaitasunen bat duten pertsonak enplegu publikoan sartzea eta lanpostuak betetzea arautzen duen abenduaren 3ko 2271/2004 Errege Dekretua) hauxe dute berdina: horietan lanpostuak behin betiko betetzea edo titulartasun baldintzak aipatzen direla.

Egia da, aldi baterako estalduraren testuinguruan, ezin dela alde batera utzi pertsonaren premia zehatzak zein diren ez aipatzeagatik sor daitekeen zailtasunak lanpostuaren egokitzapenaren zeregin teknikoari eragiten diola. Aipatu egokitzapena traba arkitektonikoak kentzea baino harago doa. Horrez gain, premia horiek lanpostua aldi baterako bete dezaketen pertsonak duten ezgaitasunaren izaeraren arabera alda daitezke.

III.2. Ingurumen Zientzietako lizentziadun askok erakundera jo dute, hain zuzen, ikasturtea joan ikasturtea etorri ahala, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak unibertsitateaz kanpoko irakasleen ordezkapenak egiteko hautagaien zerrendan parte hartzeko eskaerak ukatu dituelako. Izan ere, ordezkapenen zerrenda kudeatzeko jarraibideek onartutako titulazio eta espezialitate taulak ez zuen barne hartu hizpide dugun lizentziatura.

Ildo horretan, adierazi zuten, Ingurumen Zientzietako lizentziaturaren ikasketa planari jarraiki, natura zientzia, biologia, biologia eta geologia, fisika eta kimika, matematikak eta laborategia espezialitateak emateko gai zirela. Horrez gain, aipatu saileko langile-riaren kudeaketa zuzendariak hezkuntzako ikuskaritzak espezialitate horiek emateko lizentziatura horren egokitasunari buruz egindako txosten bat aipatzen zuen agiri bat eman ziguten eta, bertan, ordezkapenak egiteko kudeaketan erabilitako espezialitate eta titulazioen taularen aldaketa sakona egiteko aukera aztertzen ari zela aipatu zen.

Administrazioak aldeko txostena zuen egoera horretan, jarraibideetan jasotako ezarpena gehituta –ezarpen horren bidez ikasturte bakoitza hasi baino lehen taulari titulazio berriak gehitzeko aukera aintzat hartzen da–, administrazioari esan genion egokia izango zela gai zehatz horren tratamendua etorkizuneko aldaketa sakon batetara ez atzeratzea.

Hezkuntza arduradunek erakunde honetara jo zuten eta euren jarrera oso ona zela iruditu zitzaigun. Hala, esan ziguten, Ikasketen Antolamenduko Zuzendaritzaren txostena oinarri hartuta, Ingurumen Zientzietako lizentziaturari titulazio eta espezialitate taulan emandako ezaugarriak aldatzeari ekin ziotela. Aldaketa horiek bidezko xedapen baten bidez burutu dira. Aipatu xedapena zerrrenda kudeatzeko jarraibideetan aldaketa sartzeko onartu zen.

IV. ORDAINSARIAK

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eutsitako irizpidearen arabera, sailaren buruzagitzaren osagarria lanpostuaren titularrari ordaintzen zaion ordainsaria da.

Irizpide orokor hori oinarri hartuta, Bigarren Hezkuntzako Institutu bateko irakasle bateko osagarria jasotzeko eskubidea aitor ziezaioten egin zuen eskaera sailak gaitzetsi egin zuen. Aipatu irakaslea lanpostuaren titularra ordezkatzeko izendatu zen eta titular horrek saileko buruzagitzaren funtzioak burutzen zituen.

Erabaki horren aurrean, erakunde honek eskaeraren bidezkotasuna defendatu zuen, unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioen ordainsariak arautzen dituen araudiak (ekainaren 26ko 177/1990 Dekretua) bitarteko funtzionarioek oinarriko ordainsariak eta hartu duten lanpostu hutsekoa den edo aldi baterako ordezkatzeko duten karrerako funtzionarioaren kasuan kasuko kidego edo eskalako lanpostu mailako osagarria jaso beharko dutela xedatzen baitu, baita betetzen duten egitekoari emandako berariazko osagarria ere. Osagarri horietako bat saileko buruzagitzari dagokiona da. Gainera, arauzko ezarpen hori bat dator hainbat pronuntziamentu judizialean aipatutakoaren. Horien arabera, karrerako funtzionarioen eta bitarteko funtzionarioen arteko lanpostua dela-eta emandako ordainsari kontzeptuei dagokienez, tratu desberdina berdintasun printzipioaren aurkakoa da.

Bestalde, ukoa ez zectorren bat sailak bitarteko langileen baldintzak hobetzeko zuen asmoarekin. Horretarako, karrerako funtzionario langileekin nortasun edo antzekotasun gehiago bilatu nahi zen. Asmo hori unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioaren testuan jasotako adierazpena zen.

Arrazoiketa horiek ikusirik, administrazioak gure proposamena onartu zuen eta sailaren buruzagitzak lanak egin bitartean osagarria jasotzeko irakaslearen eskubidea aitortu zuen.

V. **BESTE ESKUBIDE BATZUK**

Adinekoak zaintzeko egoitzen eskaera handitu den une honetan, titulartasun publikokoak diren zentro horietako langileek lan-baldintzak hobetzeko eskatu dute, alegia, titulartasuna duen herri-administrazioaren zerbitzura lan egiten duten langileei aplikatzen zaizkienekin parekatzeko. Parekatzeko premia hori bistakoagoa da zentro berean langile talde bat baino gehiago dagoenean.

Arartekoak gai horri buruzko zenbait kexari erantzuna eman die. Tamalez, ordea, ezin izan dugu babesik eman egoera horietan ezin baita enplegu publikoari buruz mintzatu.

Pertsona horiek beren egitekoa herri-administrazioaren mendeko zentro batean (udala edo foru aldundia) burutu arren eta zaintzen dituzten adinekoak zerbitzu publikoaren erabiltzaileak izan arren, legean jasotako kudeaketa formula batzuen pean, egoera honako hau da: enpresa pribatu batek kontratatu ditu langile horiek eta, ondorioz, aplikatzen zaizkien lan-baldintzak beren lan-kontratuetan, enpresarekin negoziatutako hitzarmen kolektiboan edo, hala ezean, zentroa kokatua dagoen lurralde historikoko egoitza sektorearentzat onartutako hitzarmenean ezarritakoak dira.

Ikuspegi horretatik, teknikoki ezingo litzateke bereizkeriaz hitz egin enplegatu publikoei aitortutako lan-baldintza hobeen aurrean. Hori dela eta, zuzenbidearen mendeko erakunde batek, Arartekoak adibidez, ezingo du bazter utzi.

Ordea, uste dugu egoera hori gainditu daitekeela, gizarte zerbitzuen eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzearen arloan izandako arauzko bilakaerari esker. Bertan, ezarpen batzuk daude jasota eta, horien arabera, enpleguaren kalitatea lan hori egingo duten zentroak eta zerbitzuak egiaztatzeko prozeduran eta zerbitzua emateko administrazio kontratazioan baloratu beharreko irizpidea izan behar da.

I.6

OGASUNA

ararteko

6. OGASUNA

Sarrera

2009an, ogasun arloan 85 kexa jaso ditugu guztira, erakunde honetan jasotako guztietatik %4,43.

Herritarren kexek honako administrazio hauetan izan dute eragina:

- Tokiko administrazioa	36
- Foru administrazioa	33
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza)	8

Honela banatzen dira kexak, hizpide izan dituzten arlo edo azpiarloen arabera:

- Foru zergak, PFEZ	20
- Udal zergak	20
- Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa	16
- Udal tasak	9
- Beste batzuk	6
- Foru zergak, BEZ	4
- EAEko prezio publikoak	3
- Udalaren prezio publikoak	3
- EAEko tasak	3
- Foru prezio publikoak	1

Foru zergak

- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ)

PFEZ da erakunde honetan kexa gehien eragiten duen foru zerga. 2007ko urtarrilean indarrean sartu ziren PFEZa hiru lurralde historikoetan arautzen duten arau berriak (Arabian 3/2007 FA; Gipuzkoan 6/2006 FA eta Bizkaian, 10/2006 FA) Nolanahi ere, arau horiek lehenago aipatu dugun erregulazioan berrikuntza nabarmenak eragin dituzten arren, aplikazioa nahiko lasai ari da izaten; baldin eta hori erakundearen sortzen ari diren kexekin. Hala ere, hori ez da oztopo alderdi batzuk berrikusi ahal izateko.

2008an burututako jardunei dagokien txostenean, erakunde honek zehaztasunez adierazi zuen beharrezkoa zela **erabateko ezintasun osoaren pentsioen** zerga ordainketa berrikusi behar zela, Gipuzkoan zein Bizkaian. Izan ere, araudi berriak berdintasun eta gaitasun ekonomikoren printzipioa arriskuan jartzen ari zen. Espero genuen, denbora igaro den arren

–arauok 2007an jarri ziren indarrean–, antzeman genituen gabeziak konponduko zirela, eta, beraz, berandutzeak foru ogasunetan izan zituen eraginak neutralizatuko zirela. Horretarako kaltetutako pertsonengan atzera eraginezko aplikazioa egingo zen.

Zoritxarrez, aipatutako administrazioek ez dute eman guk espero genuen erantzuna. Egun, Bizkaiko Foru Aldundiak ez du iritzirik plazaratu gure proposamenaren gainean, eta Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoaren ebazpenaren zain dago. Gipuzkoako Foru Aldundiak, aldiz, PFEZa arautzen duen foru arauaren 9. artikuluko aldaketa egin du, baina 2009ko urtarilaren 1ean indarrean sartzen den atzera eraginarekin.

Jokaera horri buruzko azalpena eskatu genuen, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak esan digu martxoaren 17ko 1/2009 foru Arauko aldaketak salbuetsitako errentei ere eragin diela, nahiz eta hasieran halakorik aurreikusi ez. Araua Batzar Nagusietan izapidetzen ari zirenean, talde sozialistak aurkeztutako zuzenketa baten ondorioz gehitu zen testuan aldaketa.

Aldaketa hori ez da atzera eraginarekin onartu, eta, ondorioz, eragina 2009ko PFEZaren aitorpenean hasiko da nabaritzen, 2010ean aurkezten denean.

Horren ondorioz, Ararteko erakundeak uste du ez dela onartu apirilaren 14an Gipuzkoako Foru Aldundiari egin zion 6/2008 Gomendioa, izan ere, gure asmoa zen arau aldaketa horrek 2007 eta 2008 ekitaldiei zegozkien deklarazioetan ere eragina izatea ([Arartekoaren ebazpena, 2008ko apirilaren 14koa](#))¹⁰.

Arazoaren mamia hobeto ulertze aldera, gogora ekarri behar dugu, Gipuzkoako (6/2006 Foru Araua) eta Bizkaiko (10/2006 foru Araua) foru aldundiek bere hartan mantendu zituztela baliaezintasun absolutuko eta baliaezintasun handiko prestazioen zergak –salbuetsita jarraitzen dute–, baina erabateko ezintasuna. Horrela, aurreko arauak ezintasun iraunkor partziala eta ezintasun iraunkor osoaren bi aldaerak zerga ordaintzetik salbuesten zituen; arau berriak, ordea, salbuespenaren aplikazioa murrizten du eta 55 urtetik gorakoei aintzatsitako ezintasun iraunkor oso eta kualifikatuko kasuetara mugatzen du.

Erabateko ezintasuna kualifikazioa Gizarte Segurantzaren erregimen orokorraren baitan sortu zen hasieran, eta, gero, 463/2003 Errege Dekretuaren erregimen berezietara zabaldu zen: nekazaritzakoa, itsasokoa eta autonomoak. Hala ere, zabalkundeak muga nabarmena izan zuen Gizarte Segurantzako erregimen berezietan, 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera onartu ziren erabateko ezintasun egoerei bakarrik aplikatuko zitzaielako.

¹⁰ Arartekoaren ebazpena, apirilaren 14koa. Horren bidez, Gipuzkoako Ogasun eta Finantza Departamentuari gomendatzen zaio ezintasun iraunkor osoagatiko prestazioengatik ordaindu behar den PFEZ aldatzea susta dezala.

Pertsona horiek ez ziren Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean egon 2003ko urtarrilaren 1a baino lehen, eta, ondorioz, kalteak bikoitzak izan ziren: alde batetik, pentsioan %20 ko igoera ezin zuten jaso, eta, bestetik, 2007ko urtarrilaren 1az geroztik beren pentsioa PFEZetik salbuetsita egotea eragotzi zieten. Izan ere, paradoxa bada ere, kualifikatutako erabateko ezintasun osoaren arabera onartu zen.

Nolanahi ere, adierazi dugun legez, Gipuzkoan egoera birbideratu da, 2009ko ekitaldiko errentari dagokionez.

Familien zerga ordainketak ere kexak eragiten ditu erakunde honetan. Izan ere, batzuetan, foru ogasunek ez dute onartzen ondorengoak bere kargu dituen gurasoari dedukzio osoa aplikatzea, nahiz eta bikotearen kide horrek beste bikotekide ohiak banaketa-hitzarmeneko mantenu baldintzak betetzen ez dituela demostratzeko gai izan (643/2009).

Mantenua ordaintzen ez den kasu horietan, kenkariaren doiketa, ondorengoak mantentzea onartzen duen gurasoari berresleitzea, proba kontu huts bilakatzen da.

Kendutako kopuruak erreklamatzeko neurriak (hitzarmen arautzailea urratzegatik) nahitaez betearazteko prozedura abiatzen duen epaitegiaren autoaren kopia aurkeztea nahikoa izan behar da beste gurasoak hitzarmeneko baldintzak betetzen ez dituela justifikatzeko, eta, beraz, ondorengoak beren kabuz bakarrik mantentzen dituzten aitorpenei kenkariaren %100 aplikatzeko.

Beste kasu batzuetan, baterako aitorpena egiteko aukera mugatzen dute foru ogasunek. Adibidez, Araban bizi den herritar batek zalantzan jarri zuen foru ogasun horren jardunaren legezketasuna, PFEZeko araudian ezarritako baldintzak aplikatzeari dagokionez (matrimonio banaketa kasuetan baterako aitorpena egiteko aukera egiteko eskubidea).

3/2007 Foru Arauko 100.2 artikularekin bat, bi gurasoen hitzarmena behar da bietako batego bakarrik osa dezan familia unitatea seme-alabekin. Ez zuten hitzarmen hori egin, eta hitzarmena lortzea zailtzen ari zen foru administrazioaren jarduna.

Arazoaren garrantziarekin konturatu zen Arabako Foru Aldundia, eta eragindako kalteak konpontzek konpromisoa hartu zuen (1125/2009).

2009n aztertutako gainerako kexek aurreko urtetakoen antza daukate. Batzuk errentaren araudia errespetatzen duten arren, zergaren konplexutasunarekin batera egoten den informazio falta salatzen dute. Adibide gisa, honakoak aipa ditzakegu:

- Berandutzako interesak kobratzea, baita kendutako zenbatekoak ere, etxebizitza-kontuaren indarraldia amaitzean egon eta etxebizitarik erosi ez denean (1369/2009).
- Ondorengoengatik %50eko kenkaria aplikatzea, matrimonioa banatuta dagoenean eta familiako kargak bi gurasoek jasaten dituztenean (771/2009).
- Elkarteei ekintza zehatzak ordainduz gero, kontuan egindako sarrera gisa atxikipenak egiteko betebeharra (634/2009).

- Emantzipazioaren oinarrizko errenta ondare irabazi bezala konputatu (gazteek etxebizitza alokatzeko laguntza), etxebizitzako inbertsio gisa desgrabatu ahal izateko etxebizitzaren alokairuaren kenkarien atalean (662/2009).
- Tributazio aukeran, ekitaldian denboran mugatzea (826/2009).

- Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZa)

Zerga honekin lotuta urte honetan egin ditugun analisi urrietan, BEZ kontzeptu gisa ordaindutako kopurua itzultzeko prozedurari buruzkoak izan dira (609/2009), baita akats batengatik komunitate barruko eragileen eroldan alta ematea. Azken hori zerga administrazioak konpondu zuen berehala (933/2009).

- Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezia (Matrikulazio Zerga)

Ekonomia Itunaren 33. artikulua dio aldundiek eskatuko dutela zerga mota hau, garraio bi-deak behin betiko matrikulatuko badira EAEko lurretan. Une oro, estatuak aplikatzen dituen arauak aplikatuko dituzte, eduki eta forman.

Zerga honen bilketari lotuta, ekainaren 10eko 3/2008 Foru Dekretu Arautzaileak jasotzen dituen laguntzak aipa daitezke. Dekretu horretan, 2008ko ekainean egon ziren uholdeen kalteak arintzeko larritasuneko neurriak jasota daude. Dekretu horretako 9. artikulua zioen 1200 €ko laguntza emango zutela, Bizkaian egiten zituzten ibilgailu berri edo erabilien lehen matrikulazioetarako. Ibilgailu horiek uholdeen ondorioz erabateko ezbeharra jasandako beste ibilgailu batzuk ordezkatzeko erosten bazituzten.

Laguntza hondatutako ibilgailuak ordezkatzeko erosten ziren ibilgailuak ordaintzeko zen; beraz, zero kilometroko ibilgailuek ezin zuten laguntza jaso.

Gogoan izan behar dugu saltokiak auto matrikulatzerakoan salneurria jaitsi behar duela: salneurri ofizialaren ia %20. Erosleak 2.000 eta 3.000 euro artean aurrezten ditu. Halakoak gertatzen dira ibilgailua jada matrikulatuta dagoelako; bigarren eskukotzat jotzen da, nahiz eta estreinatuzko egon (744/2009).

Tokiko zergak

- Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (OHZ)

Aurreko urteetan bezala, beren etxebizitzari ematen dieten **katastroko balorazioarekin** bat ez datozen herritarren kexak jasotzen jarraitzen dugu. Kexa horiek agerian utzi dute herritarren nahasmena: herritarrek badakite beren etxean baloratzean akatsa egin dutela, eta, ondorioz, berrikuspen bat eskatzen dute Katastro eta Balorazio Zerbitzuan. Erantzun gisa,

txosten oso teknikoa jasotzen dute eta ez dute ulertzen, baina hori nahiko da egin duten katastroko berrikuspena atzera botatzeko.

Bizkaiko Lurralde Historikoko herritarrek Kastro eta Balorazio Zerbitzuan beren higieziei buruz duten informazioa eskura izan dezaten, zuzenketak hasi ditzaten, egiaztagiriak lortu ahal ditzaten, etab., Ogasun eta Finantza Sailak informazio grafiko ugari jarri zuen Bizkaiko Katastroko web orrian.

Etxebizitza bateko babes ofizialak ez dauka eragin zuzenik katastroko balioa gutxitzerakoan, baina gehienez eman dakioken balioa mugatzen du. Etxebizitza libre batek ezin du katastroan duen balioaren gainekoa, eta BOE batek ezingo luke administrazioak ezarri dion gehienezko salmenta prezioa baino balio handiagoa izan; izan ere, etxebizitza mota horietan, gehienezko salneurriak merkatuko balio gisa funtzionatzen du (21/2009).

Baina horrek ez du esan nahi BOEk ez dutela abantaila fiskalik OHZn; izan ere, %50eko hoberia daukate behin betiko kalifikazioa eman eta hurrengo hiru urteetan, gehienez. Hobari hori jasotzeko, interesdunak berak eskatu behar du, eta eskatzen den epeko zerga aldiaren ondorengotik aurrera ditu eraginak.

- Hiri Lurren Balioa Gehitzearen gaineko Zerga (HLBGZ)

2008ko txostenean Barakaldoko udalak 2006an egin zuen arau aldaketak sortu zen gatazkarren berri eman genuen. Aldaketa haren bidez %10eraino igo zuen HLBGZren zerga-tasa. Igoerak 2006an eta 2007an kendutako kuotei eragin zien. Baina, 2008 ekitaldian aplikatu beharreko ordenantzan, %2ra jaitsi zen.

Egoera horren aurrean, kaltetutako pertsona batzuek erakundera jo zuten, banaka erreklamatzera. Beste askok plataforma bat osatu zuten, udalak 2008ko ordenantza atzerako eraginarekin aplikatu zezan lortzeko.

Arazoa %2ko zerga tasa 2008 urteari bakarrik aplikatu ahal izateagatik sortu zen. 2006 eta 2007 urteetako kenkariei ezin zitzairen aplikatu, eta urte haietako %10ekoa zen. Hau da, beherapena 2008 urterako onartzean, udalak ez zuen adierazi aurreko urteetan egindako likidazioan arazorik egon zenik. Ondorioz, aurreko urteetakoak zuzentzat jotzen ziren, orduan indarrean zegoen legea errespetatuta kalkulatu zirelako.

Kaltetutakoek egindako eskaera hartu ahal izateko, udalak ildo horretan jardutea ahalbidetuko zuen formula bilatu behar zuen, legez kontrakorik egin gabe. Izan ere, ezin ziren 2006 eta 2007 urteetako zerga ordenantzak aldatu, eta, bestalde, udalak ehuneko ehunean bete behar zuen indarreko legea.

Luzaroan berririk eduki gabe, udal politikariek hitzarmena lortu zuten 2009ko urtarrilaren 29an, eta, orduan, HLBGZren zati bat itzultzea adostu zuten. Itzuliko zuten kopurua 2006 eta 2007 urteetan kendutako kuotengatik izango zen.

Kuotak itzultzeko erabili zuten formula juridikoa diru-laguntzak ematea izan zen. Udalak ofizioz jarduteko konpromisoa hartu zuen, eta, apiriletik aurrera, kaltetutakoekin harremanetan jartzen hasi zen. Kontu korrante zenbaki bat eskatu zieten kaltetutakoei, ordaindu zuten kuotaren %80 sartzeko. Kopuru hori ordainduta, kaltetutakoen egoerak 2008an zerga ordaindu zutenen parekoa zen, gutxira %2 ordaindu zutelako (1333/2008).

Gainera, zehaztu behar da, diru-laguntza gauzatzeko konpentsazioa arautzen zuen xedapenak honela zioela 3. artikuluan: “ez da inoiz konpentsazioaren kalkuluan aintzat hartuko errekarquak, interesak edo zigorrak sorrarazi izana” (918/2009).

-Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zerga (TMIZ)

Ezgaitasunagatik zerga honetatik salbuestea Arartekora, 2009an, TMIZi buruz ekarri diguten gai nabarmenena izaten jarraitzen du.

Onartu behar dugu tokiko erakundeek nekez onartzen dituztela foru arauak 2004an TMIZen egin zituzten aldaketak. Izan ere, aldaketa horien arabera, salbuespena %33ko ezgaitasuna edo handiagoa egiaztatzen dutenei aplikatu behar zaie, baldin eta ibilgailua beren izenean matrikulatuta badute eta ezgaitasuna duen pertsona horrek bakarrik erabiliko badu. Baldintza horiek hainbat ibilgailutan jazotzen badira, horietako bakarrari aplikatuko zaio salbuespena.

Erreparoa dela eta, batzuetan, salbuespena duen ibilgailua egokituia izatea eskatzen dute, salbuespen ahal izateko. Horrek salbuespen honen esparrua nabarmenki murrizten du, eta tokiko ogasunen erreforma aurreko mailan ezartzen du salbuespena; hau da, 2003 urtera arte izan zuen salbuespen konfigurazioan.

Arazoa Iruña Okako Udalarekin sortu zen. Tokiko erakunde horrek ibilgailua egokitu izana egiaztatzeko eskatu zion eskatzaileari, TMIZen ordenantza arautzaileko 4.2 artikulua harira.

Arauren aldaketa argitu ondoren, udalak 2009 urterako bere ordenantzaren idazketa aldatu zuen, eta ezgaitasunagatik salbuespena aplikatzerakoan ibilgailua egokitzeko baldintza ezabatu.

Hala ere, preskribatu gabeko epeari dagokionez (ordenantza okerra indarrean egon zen urteak: 2005, 2006, 2007 eta 2008), udalak salbuespena aplikatzea ukatu zuen. Hartara, argudiatu zuen ordenantza hura ez zela zalantzan jarri, eta erreklamazioek ez zutela errekurtsorik jarri.

Udala bere funtzioez gaindi joan zen, udal ordenantza baten bidez zergen oinarriko elementu bat aldatu zuelako. Izan ere, elementu hori foru arauen erreserba printzipioa errespetatu behar du. Horregatik, Arartekoak udal horri eskaera egin zion zerga ordenantza zuzenean aplikatetik eman zituen egintzak indargabetzeko; izan ere, ez zetozen bat Tokiko Ogasunak

arautzen dituzten 41/1989 Foru Arauko 7. eta 2. artikuluekin (arau horiek erregulatzen dute TMIZ). ([Arartekoaren ebazpena, 2009ko otsailaren 17koa](#))¹¹.

Txosten hau ixteko egunean, Iruña Okako Udalak ez du ezer erantzun gomendioa betetzea-ri buruz (1361/2007).

Gogoan izan behar dugu, arauak dioenez salbuespen ibilgailu bakar bati eta titular bati aplika dakiokela ekitaldi bakoitzean (398/2009), eta ezin dela kopurua zatitu. Zerga urte bakoitzeko urtarilaren 1ean kobratzen da; beraz, data horretan bete behar ditu zergadunak baldintzak salbuespena aplikatzeko (350/2009).

Kobranta eguna ondoren egiaztatzen bada ezgaitasuna, hurrengo urtean salbuespena aplikatzeko eskubidea eskuratzen da (1434/2008).

Tasak

Tasak sarrera iturri garrantzitsua dira tokiko erakundeen finantzazioan. Zergekin ez bezala, administrazioko jardun zehatz bat ordaintzeko ez baitira, tasek honako premisa hauetako bat betetzen dute:

- Jabari publikoko ondasunen erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia.
- Subjektu pasiboari bereziki eragiten dioten edo onura berezia dakarkioten toki eskumeneko zerbitzuak egitea edo jarduerak burutzea.

Tokiko erakundeak esfortzu nabarmenak ari dira egiten, herri guneeetan eman ohi diren zerbitzuak udalerriko landa guneeetara **zabaltzeko**. Erabakia hartu ondoren ordainagiriak bidaltzen dira, eta, batzuetan, ez da aztertzen ordainduko duen herritarrak zerbitzua benetan jasotzen duen.

Arazo hori Aretxabaletako Udalaren zabor tasak kobratzerakoan sortu da. Baina, gure esfortzuak esfortzu, erakunde horrek ez du onartu Arartekoak bidali zion gomendioa ([Arartekoaren ebazpena, 2009ko otsailaren 11koa](#))¹².

Subjektu pasiboak onura partikularra jasotzearen printzipioak duen garrantzia horren da handia, doktrinak honakoa sortu duela: tasaren subsidiarioritasun printzipioa, zerbitzuari dagokionez: udalak zerbitzua edo jarduna emateak ez du helburu tasak kobratzea, udalerririk

¹¹ Arartekoaren ebazpena, 2009ko otsailaren 17koa. Horren bidez Iruña Okako Udalarik gomendatzen zaio ibilgailua teknikoki egokitu ez duten pertsonen TMIZen ezgaitasunagatik salbuespena ezeztatzeko eman dituen ebazpenak balio gabetzea.

¹² Arartekoaren ebazpena, 2009ko otsailaren 11koa. Horren bidez, Aretxabaletako Udalarik gomendatzen zaio ofizioz balio gabetu ditzala auzokide bati 2007. urteaz geroztik zabor-tasa gisa bidali dizkion likidazioak, hari ez baitio beraren etxebizitzan zabor-bilketa zerbitzurik egiten.

edo banakoek dituzten beharrianak benetan asebetetzea baizik. Tasa zerbitzua egotearen araberakoa da, eta ez zerbitzua tasaren araberakoa.

Ildo beretik, prestazioa benetan ez ziotela ematen adierazi zigun Durangoko saltzaile batek. Saltokia itxi eta hilabeteak igaro ondoren, saltzaileak Hirigintzako Lizentziak eta bestelakoak Emateko Zerbitzuaren Tasa jaso zuen, bere tokian aplikatutako neurri zuzentzaileak betetzen ziren egiaztatzeko lanegatik.

Baina ezin izan zuten tokia benetan egiaztatu, eta hala onartu zuen udalak beran Ingurumeneko Zerbitzuak egin zuen txosten batean. Izan ere, ikuskaritza egiten saiatu zirenerako lokala itxita zegoen.

Egoera horrela, eta kargatutako egintza jardunak egoki funtzionatzen duela egiaztatzea baino ez zenez (lokaleko gailu eta instalazioak titularrek lizentzia eskatzeko aurkeztu zuten dokumentazioarekin bat etortzea), bidali zioten likidazioa ofizioz indargabetzeko eskatu gunden: Durangoko Udalak eskatutakoa bete zuen (356/2009).

Prezio publikoak

- Udal prezio publikoak

Prezio publikoak udalek erabiltzen duten figura da, herritarrek eskatzen dituzten zerbitzuak emateko behar duten finantzazioa eskuratzeko. Prezio publikoak dira, adibidez, tokiko erakundeek antolatzen dituzten kulturako, kiroleko edo aisialdiko jardueretan parte hartze-gatik ordaintzen den dirua.

Atal honetako kexetan, herritarrek diru bilketa sistema eta altak eta bajak kudeatzeko modua jartze dute zalantzan, baita ordaindutako kopurua hasieran eskatu zen jardunaren bestelakoa den jarduna egiteko ezin erabiltzea.

Gasteizko Udalak beren beregi honela dio kirol jardunen programan: "*Izena eman duen pertsonak delako jardueran esku hartzerik ez badu, hura hasi aurretik jakinarazi beharko du; hala egin ezean, galdu egingo du ordaindutako kuota. Kuota itzultzen bada, berriz, dena delakoaren kontu korrontean sartuz egingo da.*"

Programaren ezarpen horrek nahasmena eragin dezake, baina prezio publikoak definitzen dituzten ezaugarriekin bat dator. Eta ezaugarrien arabera, ordaindutako kopurua bakarrik itzuliko da, prezio publikoa ordaindu behar duenari egotzi ezin dakizkion arrazoiengatik ekintza bertan behera geratu bada (125/2009).

- Euskal Autonomia Erkidegoak ordainarazten dituen prezio publikoak

2009an, Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU aurrerantzean) hainbat ikaslek adierazi zuen informazio gutxi ematen ziela administrazio horrek, ezgaitasunen bat duten pertsonak

dituzten familientzako unibertsitateko prezio publikoetan dituzten salbuespenen legezkotasuna ezartzeko ezarri diren epe eta izapide bereziei buruz.

3/2004 Legeak EAEko unibertsitate sistema arautzen du. Lege horrek salbuespena sortu zuen ezgaitasunen bat zuten pertsonak zituzten familientzat. Baina, onura hori ez zen jatorrizko aplikazio normalizatu baten ondorio.

Zehazki, 2004-2005 eta 2005-2006 ikasturteetan salbuespena ez zen aplikatu Hezkuntzako Saila ez zelako egoki aritu, ez baitzuen egoki zen prezioen aginduan sartu. Eta, ondorengo ikasturteetan, EHUK berak ez zuen bere eskabideetan sartu, nahiz eta urte haietarako aginduan beren beregi jaso zuten salbuespena. Horren guztiaren ondorioz, salbuespena ez zen benetan aplikatu.

2007ko bukaeran, eragindako familia batzuek gure erakundera jo zuten, eta horrek guk gaian zuzenean esku-hartzea ekarri zuen.

Erantzukizuna zuten erakundeekin (EHU eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila) hainbat harreman izan genuen, eta salatutako egoera onartu zuten. Era berean, legezkotasuna ezartzeko beharra zutela onartu zuten: atzera eraginezko printzipioa aplikatuko zieten baldintzak betetzen zituztenei, betiere, 2008ko ekainaren 28a baino lehen eskatu bazuten. Epe hori guztiz ez ohikoa izan zen.

Gure ordenamenduan oso ohikoa da epe preklusiboak ezartzea eskubideak baliatzeko (prestazioetarako eskubidea, diru-laguntzak, etab). Epeak ezartzeko joera hori segurtasun juridikoagatik sortzen da, nagusiki.

Egoera honetan ezin dugu zalantzan jarri epe zehatza jarri izana, eta, ondorioz, ezarritako epearekin lotutako bi alderdi baloratzea baino ezin dugu:

- Epearen iraupena nahikoa izan al da, epeak zuen helburua aintzat hartuta?
- Epearen berri egoki eman al da? Hau da, balizko hartzaileek epeari buruzko eta horren edukiari buruzko informazioa jaso al izan dute?

Horren ildotik, EHUK prentsa oharra egin zuen 2008ko apirilaren 17an, ikasleei jakinarazteko ekainaren 30a arteko epea zutela salbuespenak eskatzeko. Helburu horrekin berarekin, iragarki bat jarri zuen web orrian, orrialde nagusian zein ikasleen orrialdean.

Halako egoeran, aurkeztutako eskabideak epez kanpo aurkezteagatik atzera bota izana ezin dugu zalantzan jarri (564/2009 eta 1390/2009).

Azkenik, adierazi behar da, egun, ezgaitasuna ikasleek dutenean aplikatzen den salbuespena, ezgaitasuna %33 edo gehiago izatearen mendekoa da. Senitartekoei eragiten badie, aldiz, %65ekoa edo handiago izan behar da (1391/2009).

1.7

HERRIZAINGOA

7. HERRIZAINGOA

Sarrera

2009an, Arartekoak 116 kexa jaso ditu herrizaingoaren arloan, aldi honetan aurkezturiko kexa guztietatik %6,05. Kexen banaketa, eraginpeko herri administrazioak eta kexetan azal dutako arloak kontuan hartuta, hauxe da:

Administrazioak:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza)	66
- Tokiko administrazioa	51

Arloak:

- Trafikoa	87
- Eskubideak eta askatasunak	13
- Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa	7
- Hiritarren segurtasuna	6
- Beste alderdi batzuk	3

Gainera, 11 espediente ofizioz tramitatu ditugu, honako arlo hauei buruzkoak:

- Trafikoa	4
- Atxiloketa zentroak	3
- Beste alderdi batzuk	2
- Eskubideak eta askatasunak	1
- Herritarren segurtasuna	1

1. Lege berriak

Aurten, arlo honetan eragina duten lege berriak sortu dira. Esate baterako, azaroaren 23ko 18/2009 Legea onetsi da, Trafikoari, Motorreko Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legeko Testu Artikulatua onetsi duena¹³. Lege horrek aldaketa garrantzitsuak sartu ditu zigortzeko prozeduran eta zigortzeko araubidearen barruko beste alderdi batzuetan. Hala eta guztiz ere, 2010era arte ez da indarrean sartuko; hau da, azaroaren 24ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 6 hilabete igaro arte (zenbait manutan baino ez, gainera), urratzaileen aldeko xedapenen kasuan izan ezik, horiek azaroaren 25etik baitaude indarrean.

¹³ Martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuak onetsita.

Bestalde, aipagarria da Arartekoari Torturaren Prebentziorako Nazio Mekanismoaren funtzioak esleitzea, azaroaren 3ko 1/2009 Lege Organikoaren bitartez¹⁴.

2. Trafikoa

Trafikoaren arloan jasotako kexa kopurua, 2009an, aurreko aldikoa baino txikiagoa izan da. Kexarik gehienak Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren jarduketan ondoriozkoak dira, azken urteotan bezala. Tokiko arloan, kexarik gehien jaso dituen administrazioa Bilboko Udalak izan da, baina kexa kopuruak murriztapen handia izan du, aurreko urteko kopuruarekin konparatuta. Beste udal batzuen aurkako kexak ere izan dira; esate baterako, Barakaldo, Basauri, Donostia, Gernika, Getxo, Hernani, Portugalete, Santurtzi, Sopela, Gasteiz eta Zarautz, eta horietariko batzuek kexa bat baino ez dute izan.

2.1. Zigortzeko araubidea

Orain arte gertatu den bezala, arlo honetan planteatu diren kexarik gehienak zigortzeko araubideari buruzkoak izan dira, eta, hain zuzen ere, zigorrak ezartzeko jarraituriko **prozedurari** buruzkoak; horri dagokionez, betiko arazoak agertu dira berriro: jakinarazpenak egiteko modua eta prozeduren tramitazio estandarra.

Aurten jasotako kexa batzuetan esaten zenez, agintaritzaren agenteek formula generikoak edo salaketako buletinetan aurretiaz inprimaturiko formulak erabili zituzten, agiri hori **berehala jakinarazi** ez izana justifikatzeko.

Kezkagarria iruditzen zaigu halako formulak erabiltzea, defentsarako eskubidearekin duten lotura kontuan hartuta, batez ere salaketek aipaturiko urratzeetan (lor daitezkeen froga bakarrak salatzailearen eta salatuaren arteko bertsioak direnez) egozketa froga bakarra eta ukaezina salaturiko gertaerek legez eratzikita duten egiazkotasun ustea denean (martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuko 76. art.¹⁵). Adibidez, gidatzean telefonia mugikorrek disositiboak eskuz erabiltzeagatik jarritako salaketak, edo segurtasun uhala jarri barik gidatzeagatik jarritakoak; horietan, salaturiko pertsonak, gainera, gertaera negatibo batzuk frogatu behar izaten ditu, egiazkotasun ustea suntsitzeko, eta hori oso zaila da.

Gogoratu behar da derrigorrezko salaketak berehala jakinarazi behar direla eta arau orokor hori legez ezarritako kasuetan soilik salbuetsi ahal dela. Jakinarazpen atzeratua baliozkotzat onartzeko, gainera, beharrezkoa da salaketan aditzera ematea berehalako jakinarazpena ekidin duten arrazoi zehatzak eta espezifikoak, eta arrazoi horiek legez ezarritako salbues-

¹⁴ Lege honek azken xedapen bakar bat erantsi dio Herriaren Defentsariaren apirilaren 6ko 3/1981 Lege Organikoari.

¹⁵ Txosten hau amaitzeko unean indarrean zegoen idazketa.

penen barruan sartu ahal izatea (lehen aipaturiko martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuko 77. art. eta otsailaren 25eko 320/1994 Errege Dekretuko 10. art.¹⁶).

Aurten erakunde honetara hainbat pertsonak jo dute, zigortzeko prozeduraren tramitazioaren eta ezarritako zigorraren berri eduki ez izanagatiko kexa aurkezteko; izan ere, geroagora arte ez dute horren berri izan: kasu batzuetan, bide betearazlea hasi arte, eta, beste zenbaitetan, Trafiko Zuzendaritza Nagusiak puntuak kentzeari buruz egindako jakinarazpena jaso arte.

Aurreko urteetan bezala, tramiteak interesdunari berari jakinarazteko ahaleginak alferrekoak izatearen eraginezkoak izan dira kasu horietariko gehienak; hain zuzen ere, jakinarazpenok okerreko helbidean egin direlako edo jasotzaileak bertan ez zeudelako. Horren ondorioz, ediktu bidezko jakinarazpena egin da, eta horrek, dirudienez, pertsona horiei ez die aukerarik eman jakinarazitako egintzen ezagupen erreala eta benetakoa edukitzeko.

Horrela, halako prozedurak tramitatzen dituzten administrazioei, berriro ere, eraginkortasuna eskatu behar diegu, jakinarazpenak zein helbidetan egin behar dituzten zehazteko orduan.

Berretsi egin behar dugu, halaber, **ediktu bidezko jakinarazpena** irtenbide berezia dela, eta, hori erabiltzeko, beharrezkoa dela Administrazioak jakinarazpena jasotzaileari berari egitea bermatzen duten bide guztiak agortzea; era berean, berretsi egin behar dugu 2008ko txostenean gaiari buruz adierazi genuen iritzia.

Berriro planteatu da enpresei ediktu bidezko errekerimendua egitearen baliozkotasuna, errekerimendu horren helburua enpresen titulartasuneko ibilgailua gidatzen duen pertsona identifikatzea denean, arlo honetako betebeharra urratu egin dela ulertzeko (2008ko txostenean azaldutakoa)¹⁷. Aurten, gainera, aurreko urteetako bi kexa espediente itxi ditugu; horietan, kasuaren gorabeherak haztatu ondoren, ulertu genuen Bilboko Udalak ez zuela egiaztatu erreklamazioa egin zuten enpresek (betebeharra urratzeagatik zigorra jaso zutenak) euren gai horri buruz bidalitako errekerimenduaren berri izan zutenik; hori, aipaturiko txostenean adierazi genuenez, gure iritzian, beharrezko izateko kasua da errekerimenduari (inolako arrazoirik gabe) kasurik egin ez zaiela ulertzeko, eta, horrenbestez, urratze hori egin duena zigortzeko (martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuko 72.3 art.¹⁸).

Administrazioari prozeduraren **tramitazio estandarizatu**a egitea leporatzen diotenen kexa nagusia, aurreko urteetan bezala, haien defentsan azaldu zituzten alegazioak eta frogak ez baloratzea da, eta horiek isilbidez ukatzea, prozedurari hasiera eman zioten nahitaezko salaketetan jasotako gertaeren egiazkotasun ustean oinarrituz.

¹⁶ Txosten hau amaitzeko unean indarrean zegoen idazketa.

¹⁷ Ibilgailu berriak matrikulatzen dituzten pertsona juridikoentzako nahitaezko helbidearekin, legeria berrian ezarzen duenarekin (azaroaren 23ko 18/2009 Legea), segurutik, desagertu egingo da arazo hau.

¹⁸ Txosten hau amaitzeko unean indarrean zegoen idazketa.

Halako kexak behin eta berriro agertzen direla kontuan hartuta, berretsi egin behar dugu halako prozeduren tramitazioan aurretiaz ezarritako ereduak erabilia ez direla urritzen interesdunen bermeak eta eskubideak¹⁹.

Enpresek euren titulartasuneko ibilgailua gidatzen zuen **pertsona identifikatzeko betebeharrak betetzeko moduak** ere, bestalde, prozedurazko arazoak eragin dituzten kexak sortu ditu. Kexa horiek, kasu batzuetan, enpresek gidariaren helbidetzat enpresaren helbidea bera adieraztearen eta, horren eraginez, jakinarazpena alferrekoa izatearen (adierazitako helbidean pertsona hori ez baitzen ezaguna, kexa jakinarazteko ardua zuen postako operadorearentzat) ondoriozkoak ziren; beste zenbaitetan, identifikazioko idazkiak administrazio zigortzailearenak ez ziren erregistro publikoetan aurkeztearen ondoriozkoak.

Halaber, **interesdunei** Herrizaingo Sailaren zigortzeko prozedurei buruzko **informazioa emateko moduan ere disfuntzioak** egon dira, informazio hori Zuzenean (Eusko Jaur-laritzako Herritarren Arreta Zerbitzua) izeneko zerbitzu orokorraren bidez bideratzearen eraginezkoak.

2009an jaso ditugun kexa batzuk, aurreko aldietan bezala, **oraindik amaitu gabe zeuden prozedurei** buruzkoak izan dira. Horrenbestez, berretsi egin behar dugu guk ezin dugula halako kasuetan esku hartu, harik eta zigortzeko prozedura amaitu arte. Aditzaera eman behar dugu, era berean, guk esku hartzeko, ezinbestekoa dela gure iritzipean jartzen diren gaiak prozeduran alegatuta egotea, Administrazioak horiei buruzko erabakia hartu ahal izateko.

Prozeduratik kanpoko alderdiak planteatzen dituzten zigortzeko araubideko gaiak dagokienez, aipatzekoa da **San Mamés futbol-zelaiaren inguruetan (Bilbo) partida dagoenean aparkatzea debekatzen duten seinale batzuen** egokitasuna berriro ere zailtzan jarri duen kexa bat. Kexa planteatzeko unean guk ezin izan genuen esku hartu, prozedura amaitu barik zegoelako; beraz, erreklamazioegileari geure eta Bilboko Udalaren jarreraren berri ematea baino ezin izan dugu egin. Bata eta bestea gaiari buruz eman ditugun gomendioetan jasota daude²⁰, baita 2001eko, 2004ko eta 2008ko txostenetan ere.

Herritar batek aurkeztu digun kexa ere aipagarria da; bertan esaten denez, kezkatu dago administrazio batzuek **substantzia sorgogorriak, psikotropikoak, estimulatzaileak edo antzekoak detektatzeko probak**, Zirkulazioko Erregelamendu Orokorreko 28. artikuluan ezarritakoak (azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretua), egiteko moduarekin; izan ere, herritar horren ustez, kasu batzuetan ez dira errespetatzen manu horretan ezarritako irizpideak.

¹⁹ Gomendio orokorrean adierazitakoaren ildotik: "Trafiko, motorreko zirkulazio eta bide segurtasunaren arloko zigortzeko prozeduretan aurretiaz ezarritako ereduaren araberako tramitazioa: defentsa eskubideari loturiko arazo batzuk" (2003ko txostena).

²⁰ Abuztuaren 30eko 29 eta 30/2000 gomendioak.

Kexa hori ikusita, ofiziozko jarduketa bat hastea erabaki dugu; jarduketa horren bidez, kasu horretara mugatu barik, ondo jakingo dugu artikulua hori gure eskumen eremuan nola aplikatzen den, eta, horrela, lorturiko datuen arabera, jarraibideak ezarri ahal izango ditugu.

Aurten 2005eko txostenean adierazitako arazoa sortu da; hau da, aldizkari ofizial batean argitaraturiko zigor baten **ediktu bidezko jakinarazpenean jasotako norberaren datuak Interneten gelditu** dira, jakinarazpenak bere helburua bete ondoren.

2.2. Zigortzeko araubidearekin zerikusirik ez duten alderdiak

Arlo honetan planteatu diren alderdiak, **zigortzeko araubidearekin zerikusirik ez dutenak**, oro har, honako honi buruzkoak izan dira: trafikoaren antolaketa, TAOren araubidea ezartzea, TAOko gunean egoiliar txartela lortzeko eta mantentzeko baldintzak betetzea, mugikortasun urriko pertsonak aparkatzeko txartela lortzea, bizikletak espaloietatik ibiltzea, zirkulazio istripu bati buruzko polizia txostenaren edukia eta oinezkoen gune batean sartzeko gontz hidraulikoen funtzionamendu txarra.

2.3. Beste defentsa erakunde batzuetara bidali eta onartu ez diren kexak

Jaso ditugun kexa batzuk **Kataluniako Herriaren Defentsariaren eta Síndic de Greuges** izenekoaren kontrolpeko gaiei buruzkoak izan dira. Kexa horiek adierazitako erakunde homologoetara bidali ditugu, eta zigortzeko prozeduren tramitazioari eta Europar Batasuneko beste herri batean lorturiko autokarabana baten matrikulazioari buruzkoak izan dira.

Aurreko urteetan bezala, zenbait kexa **ezin** izan ditugu **onartu**. Ez onartze horren zergati nagusiak oinarririk ez edukitzea, legezko epeak heldu arte itxaron behar izatea eta Administrazioari aldez aurretik erreklamazioa ez egitea izan dira. Kexarik gehienak zigortzeko prozedurei buruzkoak izan dira, baina batzuek trafikoaren antolaketari loturiko alderdiak planteatu dituzte.

Bai beste defentsa erakunde batzuetatik jaso ditugun eta bai onartu ez ditugun kexak ez daude jasota sarrera honen hasieran islatu ditugun datu kuantitatiboetan.

2.4. Aurreko urteetako kexak

Aurten, aurreko urteetako kexa espediente batzuetan **esku-hartzea amaitu dugu**, baina ez dugu Administrazioak guk adierazitakoaren arabera jarduterik lortu.

Horixe gertatu da, esate baterako, lehen aipatu ditugun Bilboko Udalaren bi espedienteetan: enpresei euren titulartasuneko ibilgailua gidatzen zuen pertsona identifikatzeko egindako errekerimenduaren ediktu bidezko jakinarazpena.

2008ko txostenean aipaturiko kexa baten kasuan ere horixe gertatu zen; kexa horretan, hain zuzen ere, Ategorrietako Galtzada Zaharreko bide segurtasunari buruzko alderdi batzuk planteatzen ziren. Donostiako Udalak guri adierazitakoaren arabera, kexa horren ondorioz neurriak hartu ziren, sorturiko egoera konpondu ahal izateko; neurri horiek, erreklamazio-gilearen ustez, ez ziren nahiko izan. Horrenbestez, salatutako arrisku egoera eta, kexan esaten zenez, arrisku hori eragiten duten gertakariak egiaztatzeko eskatu genion Udalari; halaber, egoera konpontzeko bidezko neurriak hartzeko ere eskatu genion, neurri horiek beharrezkoak izanez gero. Eskabide hori zenbait aldiz egin ondoren, gaiari buruzko erantzun egokirik jaso barik amaitu behar izan dugu gure jarduketa.

Azkenik, Sestaoko Udalaren jarduketa bati buruzko kexa espediente bat aipatu behar dugu; gure ustez, administrazio horrek ez du ondo egiaztatu legez eskaturiko izateko kasuak daudenik, erreklamazio-gilearen ibilgailua bide publikotik kendu ahal izateko; gure iritzian, ibilgailua berreskuratzeko ordaindutako tasa itzuli behar zion interesdunari (martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuko 71. artikulua²¹).

3. Beste arlo material batzuk

2009an, Herrizaingoaren barruko gainerako arlo materialetan jasotako kexa kopurua ere 2008koa baino txikiagoa izan da. Hala eta guztiz ere, kexa horiek jaso dituzten azpiarloak ez dira aldatu, eta aurreko urteko berberak dira.

Berrito ere, kexarik gehienak Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren jarduketari buruzkoak izan dira, baina eragina izan dute Bilbo, Donostia, Irun eta Portugaleteko udaletan.

Aurten, Herrizaingo Sailak **inkomunikazio egoeran atxiloturiko pertsonen** familiei pertsona horiei buruzko informazioa emateko ezarritako protokoloaren aplikazioak kexak eragin ditu. Sail horri, familiari kontaktuko telefonoa ez ematea leporatzen zitzaion, atxilotetari buruzko informazioa eskatu ahal izateko; era berean, atxiloteta zergatik egin zen, non egin zen eta atxilotuaren osasun egoera zein zen ez azaltzea ere leporatzen zitzaion. Herrizaingo Sailak, hala eta guztiz ere, aditzera eman zigun bete egin zuela protokoloa eta atxilotuaren familiari tresna horrek ezarritakoa baino informazio gehiago ere eman ziola.

Kexa batzuetan, aurreko urteetan bezala, agenteek, polizia egoitzetatik kanpo garaturiko jarduketetan, **indarra neurritz kanpo erabili** izana salatu da. Kexa horietan, salatutako pertsonak aditzera eman zuten, oro har, osasun laguntza jaso behar izan zutela, jasotako lesioen ondorioz.

Salaketak Ertzaintzaren eta Bilboko Udaltzaingoaren aurkakoak izan dira. Hala ere, kasu guztietan, salatutako alderdiak zigor jurisdikzioari jakinarazi zaizkio, eta, hortaz, ezin izan

²¹ Txosten hau amaitzeko unean indarrean zegoen idazketa.

dugu horiei buruzko erabakirik hartu, eta indarraren erabilera kontrolatzeari buruz eman ditugun gomendioak bete diren ala ez egiaztatu baino ezin izan dugu egin²².

Gainera, kexa horietariko bitan, Herrizaingo Sailak eta Bilboko Udalak ukatu egin zuten agenteek indarra erabili zutela; horrela, frogako beste elementurik ez dagoenez, plan orokor horretan ere ezin izan dugu esku hartu.

Planteatu zaizkigun gainerako kasuetan, berariaz onartu dute indarra erabili zutela; baina bi administrazio horietariko ezeinek ere ez du egiaztatu adierazitako gomendioak bete dituenik; beraz, ulertu behar izan dugu haien jarduketa ez dela egokitzen guk finkaturiko jarraibideetara, eta, horrenbestez, berretsi egin behar diegu jarraibideetara egokitu eta bete egiten direla bermatzeko behar diren mekanismo guztiak artikulatu behar dituztela.

Jaso ditugun kexa batzuk **jatorriz atzerritarrek diren pertsonak** aurkeztu dituzte, eta, kexa horietan, poliziaren jarduketa haiek jatorriz atzerritarrek izatearen eraginezkoa izan dela diote.

Horixe gertatzen da, esate baterako, Bilboko Udaltzaingoari buruz aurkezturiko lehengo kexetariko batean. Kexa gazte marokoar batek aurkeztu zigun; gazte hori ustezko desobeditze delitu bategatik eta agenteei mehatxu egitearen eraginezko beste delitu bategatik atxilotu zuten. Gaztearen ustez, bai atxilotetak eta bai poliziaren esku hartzeak (gaztearen iritzian, oso zakarra) ez zuten justifikaziorik izan; izan ere, berak dioten arabera, ez zen ezer txarrik egiten ari. Gazteak dioenez, bera oinez zihoan, beste bi lagunekin, San Frantzisko auzoko (Bilbo) kaletik, eta pertsona batzuek (gero, kaleko jantzitako Udaltzaingoko agenteak zirela jakin zuen) atzetik hurbildu eta aldean zuten guztia ateratzeko agindu zieten. Erreklamaziogileak atxilotetaren ondorioz tramitaturiko prozedura judizialean emandako autoren kopia eman zigun; bertan, kasua behin-behinean largestea eta prozedura artxibatzea erabaki zen. Agiri hori kategorikoa zen, identifikazioaren eta erregistroaren justifikaziorik ezari buruz. Bertan esaten zenez, ez zegoen inolako oinarrikerik interesdunak delituren bat (penala edo administratiboa) egin zuela susmatzeko, eta poliziaren jarduketa ere ezin zitekeen sartu halako delituen prebentzioan. Kontuan hartuta erabaki judiziala eta Bilboko Udalak kexari buruz guri emandako informazioa (bertan ez zen argitzen agenteek bi jarduketa horiek egin izanaren zergatiak), ulertu genuen administrazio horrek gure gomendiora (estereotipoetan edo pertsonen kanpoko ezaugarrietan oinarrituriko jarduketak ekiditeko gomendioa²³) egokitu behar zuela poliziaren jarduketa, edozein bereizkeria saihestu ahal izateko.

Gai hori planteatu duen beste kexa bat Ertzaintzaren jarduketari buruzkoa da. Kexa hori ere gazte marokoar batek aurkeztu zuen; izan ere, agenteek *l'poda* kendu zioten, horren jatorria

²² "Poliziaren jarduketak San Frantziskon (Bilbo), jatorriz atzerritarrek diren pertsonekin" txostena [1998ko txostena, 7. eta 8. c) gomendio espezifikokoak].

²³ "Poliziaren jarduketak San Frantziskon (Bilbo), jatorriz atzerritarrek diren pertsonekin" txostena [8. a) gomendio espezifikokoak].

zilegia izatearen susmoa zutelako, gazteak ez baitzuen erosketaren faktura. Kexan esaten denez, bai identifikazioa eta bai gaztearen gauzen miaketa eta konfiskazioa haren kanpo itxuraren eta nazionalitatearen ondoriozkoak izan ziren.

Bilboko Udaltzaingoaren jarduketari buruzko kexaren sustatzaileak, halaber, agente batek lepotik heldu eta burua hormaren kontra jo ziola ere salatu zuen. Udalari poliziaren jarduketa gure gomendioaren (**lepotik heltzea, droga edukitzearen susmagarriak hori ez irenste-ko**) araberakoa izan ote zen aztertze eskatu genion²⁴; izan ere, interesdunak adierazitakoa eta epaileak gaiari buruz emandako ebazpena aintzat hartuta, uste dugu agenteek ez zutela gure gomendioa ezagutzen. Udalak gaiari buruz informaziorik eman ez digunez, ulertu behar dugu udalak ez zuela azterketa hori egin, eta egin beharra duela esan behar diogu berriro.

Kexa horri dagokionez, Bilboko Udalak ez du eman guk honako hau egiaztatzeko planteatu genizkion alderdiei buruzko informaziorik: ea kontuan hartu zituen eraginpeko agenteek jasotako balizko beste kexa edo salaketa batzuei buruzko datuak. Horrenbestez, ulertu behar izan dugu ez zuela azterketa hori egin, eta, beraz, berriro esan behar diogu hori egin beharra duela eta **jasotako kexak kontrolatzeko** tresnak artikulatu behar dituela, guk horri buruz ezarritako jarraibideak aintzat hartuta²⁵.

Bilboko Udalak kexa hori eragin zuten gertakariak argitzeko garaturiko **ikerketari** buruzko informaziorik ere ez zigun eman; beraz, ulertu behar izan genuen alderdi horretan ez zituela gure gomendioak kontuan hartu²⁶. Bilboko Udaltzaingoari buruzko beste kexa batean ere ondorio bera ateratu behar izan dugu; izan ere, polizia arduradunek argi eta garbi esan zuten kasu horretan ez zutela gure gomendioa aplikatu, gaiari buruz egindako atestatuan oinarrituz. Hala eta guztiz ere, jasotako informazioan oinarrituz, ondorioztatu genuen kasu horretan gertaerak nolabait ere ikertu egin zirela.

Bi kexek behin eta berriro agertzen den alderdi bat planteatu dute, hau da, **ez-zilegi penalen eraginezko atxiloketa**; horietariko asko agenteekin eurekin zuten zerikusia, eta, **jurisdikzio penalean, faltatzat kalifikatzen dira hasiera-hasieratik**; gainera, agenteek horrela baloratuz gero, ez zuten atxiloketarik eragingo. Bilboko Udalak gaiari buruz emandako informazioa aintzat hartuta, ulertu genuen ez zituela aztertu kexa eragin zuten jarduketak, gure gomendioetan halako egoerak zuzentzeko adierazitakoaren ikuspegitik; beraz, horixe egin behar zuela esan genion²⁷.

²⁴ "Poliziaren jarduketak San Frantziskon (Bilbo), jatorriz atzerritarrak diren pertsonekin" txostena [8. c).2 gomendio espezifikokoak].

²⁵ "Poliziaren jarduketak San Frantziskon (Bilbo), jatorriz atzerritarrak diren pertsonekin" txostena (7. gomendio espezifikokoak), eta gomendio orokor hau: "Polizi kidegoek kontrol-tresnak ezarri beharra, agenteek arauz kanpo jarduten duten kasuetarako" (2003ko txostena).

²⁶ Gomendio orokorra: "Polizi kidegoek kontrol-tresnak ezarri beharra, agenteek arauz kanpo jarduten duten kasuetarako"

²⁷ "Poliziaren jarduketak San Frantziskon (Bilbo), jatorriz atzerritarrak diren pertsonekin" txostena [8. e) gomendio espezifikokoak].

Aurten ere **bidegabeko polizia tratuari** buruzko kexak jaso ditugu. Horien artean, aipatzekoa Ertzaintzaren kontrol batean ibilgailua gelditu behar izan zuen pertsona batek aurkeztutakoa; pertsona horren iritzian, agindua eman zuen agenteak errespeturik gabeko tratua eman zion. Erreklamaziogilearen ustez, gainera, jasotzen ari zen tratuagatik protesta egin zuenean, agenteak esan zion salatu egin zuela, abiadura murrizteko aginduari kasurik ez egiteagatik; baina erreklamaziogileak esan zuen hori ez zela egia eta **agintekeria** egon zela.

Salaketa polizia egoitzetan **jaso nahi ez izatea** behin eta berriro agertu da aurten ere, Ertzaintzari dagokionez. Planteaturiko kasu guztietan, salaketak Ertzaintzaren edo beste polizia batzuen jarduketei buruzkoak izan dira. Kasu batzuetan, Herrizaingo Sailak esan zigun ezin izan zela egiaztatu erreklamaziogileek salaketa egin nahi izan zutela. Beste kexa batean, hala ere, aditzera eman zigun, Ertzaintzari buruzko jarduketa zenez, agenteek egin zuten gauza bakarra salatzaileari salaketa guardiako epaitegian ere jar zezakeela jakinaraztea izan zela. Gure ustez, informazio hori egokia da, baldin eta tramitea polizia egoitzan bertan egiteko aukera bermatzen bada, eta gaiari buruz ematen diren azalpenak argiak eta zalantzarik gabeak izanez gero.

Aurten, halaber, **poliziak** laguntza eskabide bati **laguntzarik ez ematea** ere jarri da gure iritzipean. Halako kexa bat Donostiako denda bateko langile batek aurkeztu zigun; berak adierazitakoaren arabera, Udaltzaingoaren patruila bati laguntza eskatu zion oihuka eta keinu nabarmenak eginez; izan ere, une horretan establezimenduan delituak egiten ari ziren, eta langilea bere osotasun fisikoaren beldur zen; baina agenteek ez zioten eskabideari kasurik egin. Udalak guri jakinarazitakoaren arabera, gertaerak ezin izan ziren egiaztatu, agenteek aurkako bertsioa aurkeztu baitzuten. Hala ere, beste pertsona batzuek erreklamaziogilearen babesik ezaren pertzepzio hori ez edukitzeko, polizia arduradunei eskabidea egin genien, Udaltzaingoko kideei herritarren laguntzaren eta babesaren arloan dituzten betebeharrak gogorarazteko [Segurtasun Indarrei eta Kidegoei buruzko martxoaren 13ko 2/1986 Lege Organikoko 5.2.b) art.].

Aurten jaso ditugun **gainerako kexak**, oro har, jai eremuak ETako presoan argazkiak erakusteari buruzkoak, norberaren datuak ezeztatzeari eta herritarren segurtasunaren arloko zigortzeko prozeduren tramitazioari buruzkoak izan dira.

Halaber, espediente bat ofizioz hasi dugu, Ertzaintzak **burutik gaixo dauden pertsonak gogoz kontra barneratze** kasuetan bete beharreko jarduketa protokoloari buruz. Jarduketa horren xehetasunak Osasun arloari buruzko sarreran jasota daude.

3.1. Herriaren Defentsariari bidali eta onartu ez diren kexak

Jasotako zenbait kexatan ezin izan dugu esku hartu, kexa horiek ukapeneko legezko kasuren baten barruan egoteagatik edo Herriaren Defentsariaren eskumenen arlokoak izateagatik. Lehen esan dugunez, kexa horiek ez dira aintzat hartu sarrera honen hasieran eskaini ditugun datu kuantitatiboetan.

Onartu ez diren kexen artean aipagarriak dira herritarren segurtasunik ezari loturiko arazoei buruz aurkezturiko kexa anonimoak. Onartu ez arren, kexa horiek administrazio eskuduntara bidali ditugu, jakitun gera daitezen eta, bidezkoa izanez gero, neurri egoki guztiak har ditzaten. Kexak ez onartzeko beste zergati batzuk honako hauek izan dira: arlo pribatuko gairen bati buruzkoak izatea, gertaerei buruzko erabaki judiziala lehendik egotea, erreklamaziogileek kexa tramitatzeko behar ditugun datuak ez aurkeztea edo jarduketara ez egokia ez dela ageri-agerikoa izatea.

Herriaren Defentsariari bidali dizkiogun kexetan, honako honi buruzko alderdiak planteatzen zituzten: pertsona baten identifikazioaren eta horren gauzen miaketaren justifikazioa, poliziaren kontrolak, aurretiazko hitzorduaren sistemaren funtzionamendua (Nortasun Agiri Nazionala eskatzeko) eta arma baimenaren berriztapena.

3.2. Beste urte batzuetako kexak

2009an aurreko urteko kexa espediente batzuetako **esku-hartzea amaitu dugu**; espediente horiek poliziaren jarduketara desegokiei buruzkoak izan dira. Espedienteak, hurrenez hurren, Ertzaintzari eta Donostiako eta Barakaldoko udaltzaingoei buruzkoak izan dira. Kasu guztietan, gure ustez, polizia arduradunek, kexak ikertzeko orduan, ez dituzte aplikatu gure iritzian derrigorrezkoak diren jarraibideak²⁸. Udaltzaingoen txostenetan, gainera, ikusi dugu indarraren erabilera kontrolatzeari buruzko gomendioa ere ez dela bete (lehen adierazi dugun gomendioa). Ertzaintzaren eta Donostiako Udaltzaingoaren kasuan, era berean, gure iritziz, Herrizaingo Sailak ([Arartekoaren 2009ko otsailaren 17ko Ebazpena](#))²⁹ eta Udalak ([Arartekoaren 2009ko martxoaren 10eko Ebazpena](#))³⁰ ez diote erantzun egokirik eman guk egindako lankidetzara eskabideari.

Atal honetan beste kexa bat ere aipatu behar dugu; kexa horren arabera, Gasteizko Udalak ez zion erantzun egokirik eman udalerrian DVD piraten salmenta ibiltariaren arazoari. Udalak arazoa onartu baina ez zituen hartu erreklamaziogileak eskaturiko neurriak.

²⁸ Gomendio orokorra: "Polizi kidegoek kontrol-tresnak ezarri beharra, agenteek araz kanpo jarduten duten kasuetarako."

²⁹ Arartekoaren ebazpena, 2009ko otsailaren 17koa. Horren arabera, amaitu egiten da Arartekoaren esku-hartzea Ertzaintzaren araz kanpoko balizko jarduera salatzen zuen kexan.

³⁰ Arartekoaren ebazpena, 2009ko martxoaren 10koa, amaitutzat ematen duena bere esku-hartzea Donostiako Udaltzaingoaren eskutik ustezko tratu desegokia jaso duten bi atzerritarrei buruzko kexari dagokionez.

4. Gure funtzioak garatzeko arazoak

Azkenik, agerian jarri behar ditugu gure funtzioak arlo honetan ondo garatzeko izan ditugun zailtasunak. Aurreko urteetan bezala, zailtasunok administrazioek gure lankidetzaren eskabideari erantzunez ematen digun informazioa guk planteaturiko gaien buruzkoa ez izatearen ondoriozkoak dira, batik bat.

Aurten, hori Bilboko Udaltzaingoak gazte marokoar batekin izandako jarduketari buruzko kexan gertatu da; izan ere, bertan, informazioa falta da Udalarik planteatu dizkiogun alderdiarik gehienei buruz, eta alderdiok ezinbestekoak dira gure ustez kasu honetan aplikagarriak ziren gomendioak nola bete diren egiaztatzeko; beraz, gure iritzian, administrazio horrek ez ditu gure gomendioak bete.

Ertzaintzari eta Donostiako Udaltzaingoari buruzko kexetan ere antzeko zerbait gertatu da; kexa horiek lehen aipatu ditugu, eta 2009an itxi ditugu.

Herrizaingo Sailak iaz Ertzaintzaren egoitzetara egin genuen bisitaldiaren eraginez tramitaturiko espediente batean eskaturiko dokumentazioa ere ez digu eman, atal honetan esan dugunez.

Beste batzuetan esan dugunaren arabera, jokabide horrek guztiz baldintzatzen du planteatzen dizkiguten alderdiak ondo aztertzei aukera. Gainera, justifikaziorik gabe atzeratzen du kexen tramitazioa, eta hori oso kezagarria da atzerapenak poliziaren jarduketaren barne ikerketan eragina duenean, horrek ikerketa bera baldintzatzeko arriskua baitago.

Horrenbestez, aurten lankidetzaren printzipioa aplikatzeko eskabidea egin behar dugu, halako gauzarik ez gertatzeko. Gainera, berriro esan behar dugu jarduteko modu horiek guztiz oztopatzen dutela gure funtzioen ohiko garapena, eta, halaber, erabat urritzen dituzte geugana (ordenamendu juridikoak euren eskubideak defendatzeko eskaintzen dizkien tresnak erabiliz) datozenen eskubideak.

5. ERTZAINZAREN ETA UDALTZAINGOEN ATXILOKETA-ZENTROAK

Ziegak. Udalaren eta Ertzaintzaren atxiloketa-zentroak (1991) izeneko txosten berezian egindako gomendioen betetze maila egiaztatzeko burutu ditugun jardueren esparruan, erakunde honetako ordezkari batzuk, aurten, Erandioko eta Eibarko Ertzaintzaren atxiloketa-zentroetara joan dira, baita Galdakaoko Udaltzaingoaren bulegoetara ere, aipatu zentroetako egoerari buruzko datu eguneratuak lortze aldera.

Bisitaldi horien ondoren, gure balorazioa Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari eta Galdakaoko Udalarari helarazi genien, horren inguruan zuten iritzia aditzera eman ziezaguten eta egin genituen iradokizunak burutzeko prest ote zauden jakinaraz ziezaguten.

Galdakaoko Udalak adierazi genion moduan jardungo duela esan digu. Ordea, Herrizaingo Sailak egin genizkion ohar batzuk baino ez ditu onartu. Gainontzeko alderdiei dagokienez, uste dugu eman zaigun informazioak ez zituela gure ondorioak aldatzen.

Jarraian, aipatu balorazioaren alderdirik garrantzitsuenak emango ditugu aditzera.

Hori baino lehen, esan behar dugu 2009. urtean gure esku-hartzea amaitu behar izan dugula joan den urtean Gasteizko Ertzaintzaren atxiloketa-zentrora egin genuen bisitaldiaren ondotik izapidetu genuen espedientean. Horren harira, ez dugu lortu Herrizaingo Sailak eskatu genizkion agiriak eman diezazkigun. Agiri horiek 2008ko txostenean aipatu genituen.

Horrez gain, adierazi behar dugu Udaltzaingoaren egoitzara 2008an egin genuen bisitaldiaren balorazioari erantzuna eman diola aurten Errenteriako udalak –urte horretako txostenean erantzun hori jaso genuen–. Oro har, gure oharrak onartu ditu eta, adierazi digunarekin bat, horietako batzuk abian jarri ditu.

5.1. Erandioko Ertzaintzaren atxiloketa-zentrora egindako bisita

5.1.1. Instalazioak, ezaugarri fisikoei dagokienez, oro ohar, ez dira aldatu, 2005. urtean egin genuen bisitarekin alderatzen badugu.

Instalaziook daukaten xederako, oro har, egokiak direla uste badugu ere, antzeman dugu zentro horretan ez dagoela adingabeen zaintzarako egokia den eta pertsona nagusientzako direnetatik bereizita dagoen eremurik, adingabeen erantzukizun penalarri buruzko urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoak eskatzen duen moduan (17.3 art.).

Beste aldi batzuetan agerian jarri dugun gabezia hori aipatu legea indarrean jarri denetik bisitatu ditugun Ertzaintzaren atxiloketa-zentro ia guztietan antzeman dugu eta zuzendu egin beharko litzateke.

Beraz, iruditzen zaigu zentro horretako ziegen bi zonetako komunen konfigurazioa ez dela egokia atxilotuen intimitaterako eskubidea behar bezala bermatzeko. Izan ere, korridoreko angelu batzuetatik barrualdea bete-betean ikus daiteke.

Instalazioen mantentze-lanei dagokienez, Erandioko komisariari esleitutako ziegen zona, bisita egin genuen egunean, baldintza onetan zegoen. Ordea, Krimen Gaie-tarako Ertzaintzaren Dibisioan erabiltzen diren ziegetan gabezia batzuk antzeman ditugu.

Hala, ziega batzuen hormen mantentze-lanak –gure hizketakideen arabera, bulego horietan egondako azken atxiloteten ondotik buru ziren–, eten egin ziren eta amaitu gabe zeuden, alegia, pinturaren akaberarik gabe.

Horrez gain, zona horretako komunean usain txarra zegoen eta tutuetatik zetorrela iruditzen zaigu.

Ildo horretan, mantentze-lanen urritasun horiek eta ziegen zonako komunen konfigurazioaren ondotik aipatu ditugunak zuzendu beharko liratekeela uste dugu.

Gure balorazioari erantzuna emanez, Herrizaingo Sailak mantentze-lanen gabeziak konpontzeko konpromisoa hartu du.

Bestalde, bisitan antzeman genuen Erandioko komisariako gelaxketako ateetan jarrita dauden argibideak gaztelaniaz bakarrik daudela idatzita. Hori dela eta, euskaraz ere jarri behar direla gogorarazi behar dugu.

5.1.2. Bisita egiterakoan laguntza eman ziguten polizi arduradunen informazioa kontuan hartuta, zentroak bideo-grabazio sistema dauka eta atxilotua polizi ibilgailura sartzen denetik ziegen zonara eraman arte eta horien joan-etorri area guztiak kontrolatzen ditu, komunak eta ziegen barrualdea izan ezik.

Sistema jada abian dago eta ez da aldatu aurretiaz egin genuen bisitatik, kamera kopuruari eta kokapenari dagokionez. Salbuespen bakarra eta garrantzitsua hauxe da: atxilotuei deklarazioa hartzen zaien geletan ere badaude.

Hala ere, deklarazio gela guztiek ez dute irudiak hartzeko bitarteko hori. Bost gelatik bik baino ez dituzte kamerak. Kamerok, hizketakideek esandakoaren arabera, Krimen Gaie-tarako Ertzaintzaren Dibisioak eta Erandioko komisariak dituzte. Informazio horri jarraiki, gainontzeko hiru gelek ez dute baliabide hori –gela horietako bat aipatu dibisioak erabiltzen du eta bestea, berriz, komisariak–.

Eman zitzaizkigun azalpenetatik ondorioztatu genuenaren arabera, bideo-grabazio sistema ohiko baliabidea da ziega zonak erabiltzen dituzten unitate guztietan eta poliziaren dibisioetan.

Azalpen horiek, ordea, ez ziguten biderik eman honako hau jakin ahal izateko: sistemari euskarri teknikoa ematen dioten ekipoak zona jakinen arabera partekatuta ote dauden edo banatuta ote dauden. Horrez gain, ez genuen aipatutako unitate eta dibisio bakoitzak horien gainean duten esku-hartze eta erabilgarritasun graduaren berri izan.

Hala ere, eman zitzaigun informazioaren arabera, ulertu genuen sistemaren kudeaketa zona guztietan funtsean bat datorrela 2006ko txostenean (I, 7.1 kapitulua) aztertu genuen ereduarekin. Ondorioz, horren ondotik egin genituen gogoeta orokorrak aipatu behar ditugu berriz ere.

Bisita horretan, Krimen Gaietarako Ertzaintzaren Dibisioetako ziegen zonan sartu gineko grabazioaren zati bat eta dibisio horrek 2009. urtean egindako inkomunikatutako atxiloketa baten zati batzuk ikusi genituen.

Hizketakideek une hartan arazo tekniko batzuen berri eman ziguten, 2008an Arkauteko atxiloketa-zentrora (Iradier eraikina) egin genuen bisitan bezala eta, ulertu genuenaren arabera, ekipoen ezaugarriekin zerikusia eduki dezakete.

Azalpenetatik ondorioztatutakoari jarraiki, Herrizaingo Sailak jada badauka arazo horiek behin betiko konponduko dituen eta sistema hobetuko duen aldaketa batzuk sartzea proposatzen duen azterlana.

Gure ustez, oso gomendagarria izango litzateke aukera aprobetxatzea, hain zuzen, Ertzaintzaren atxiloketa-zentro guztietan grabatutako materialaren ondorengo ikuskapena egitea ahalbidetzen duten hobekuntzak sartzeko bideragarritasuna, egun baino errazago, aztertzeko.

- 5.1.3. Hizketakideek eman ziguten informazioa aintzat hartuta, Krimen Gaietarako Ertzaintzaren Dibisioaren mende dauden bulegoek ez dute adingabeentzat atxiloketen erregistro espezifikorik, 5/2000 Lege Organikoaren Araudia onartzen duen uztailaren 30eko 1774/2004 Errege Dekretuko 3.5. artikulua eskatzen duen moduan; Hala, Gasteizko Ertzaintzaren komisariara 2008an egin genuen bisitaren ondotik izapidetu genuen espedientean, sail horrek esan zigun, bere aurreikuspenen arabera, atxiloketa-zentroek liburu hori eskuragarri eduki ahal izango zutela 2009ko lehenengo seihilekoan.

Ordea, Erandioko komisariako arduradunak adierazi zigun bere zentroak adingabeentzat independentea den aplikazio informatikoa daukala.

- 5.1.4. Eman zitzaigun informazioari jarraiki, 2009an bisita egin arte, Ikerketa eta Analisi Unitateak bost atxiloketa egin zituen eta atxilotu guztiak inkomunikatu zituzten. Hala

ere, baldintza judizialek eragindakoak baztertu egin ziren. Horietako bi, gainera, luza-tu egin ziren.

Datu hori ez dator bat joan den urtean Arkauteko atxiloketa-zentrora (Iradier eraikina) egin genuen bisitan bildu genuen informazioarekin. Izan ere, aipatu informazioaren arabera, 2006tik ez zen inkomunikatutako atxiloketarik eskatu, ezta burutu ere.

Egoera berri hori dela eta, honako hau gogorarazi behar dugu berriz ere: giza eskubideak defendatzen dituzten nazioarteko organismoek³¹ eta erakunde honek³² adierazitako moduan inkomunikazio erregimena berrikusten ez den bitartean, horren ildotik Prozedura Kriminalaren Legeak (520 bis eta 527. artikulua) ezartzen dituen mugak ez dira modu sistematikoan aplikatu behar.

- 5.1.5. Polizi bulegoetan egindako egonaldian, Krimen Gaietarako Ertzaintzaren Dibisioko Informazio eta Anlisi Unitateak 2009. urtean egindako atxiloketa batzuen erregistro elektronikoa ikusi ahal izan genituen. Hala ere, emandako informazioaren arabera, atxilotuak ez ziren atxiloketa-zentro horretan egon, unitate bereko beste bulego batean baizik.

Euskal Autonomia Erkidegoarentzat bakarra izaten jarraitzen duen unitate horretako atxilotuen liburuko konfigurazioa ez da aldatu 2008an atxiloketa-zentro batetara (Arkauteko Iradier eraikina) egin genuen azken bisitatik. Urte horretako txostenean jaso genuen bisita horren balorazioan agerian jarri genuen moduan, konfigurazio horrek ez du aukerarik ematen kontsulta arrunt baten bitartez zentro bakoitzeko atxilotu kopurua zein den jakiteko eta, gure ustez, hori zuzendu egin beharko litzateke.

Balorazio berean honako premia hau azpimarratu genuen: eskubideak informatzeko aktaren edukia Prozedura Kriminalaren Legeko 520. artikuluan ezarritakora egokitzeko beharra eta, manu horrek xedatzen duen moduan, atxilotuari egozten zaizkion gertakariak eta askatasunaz gabetzea eragin duten arrazoiak jaso daitezela.

Kontu horri buruzko datu eguneratuak edukitze aldera, bi atxiloturen eskubideak informatzeko aktak kontsultatu genituen. Bertan, egiaztatu genuen horietako batek gertakarien berri aipatutako artikulua adierazitako moduan ematen zuela. Besteak,

³¹ Aurten, bisitaren ondoren, Nazio Batuen Torturaren Aurkako Batzordeak honako gomendio hau egin du: “inkomunikazio erregimena berrikus dadila, indargabe dadin, eta askatasuna kendu dieten pertsona guztiek atxilotuaren oinarritzko eskubide hauek eskura ditzaketela berma dadin: a) aukerako abokatua hautatzeko eskubidea; b) aukerako medikuak bisitatzeko eskubidea; c) familiako bati edo atxilotuak nahi duen pertsonari atxiloketaren eta uneoro zainduta dagoen tokiaren berri emateko eskubidea; d) abokatu batekin isilpean hitz egiteko eskubidea” (913 eta 914 saioak, 2009ko azaroaren 12 eta 13an egindakoak).

³² “Ararteko erakundeak torturaren inguruan egindako adierazpena (2004ko txostena).

berriz, egozten zitzaion delituak aipatzeagatik eta ez, ordea, kalifikazio hori eragin zuten gertakariak aipatzeagatik kalifikazio juridikoaren berri ematen jarraitzen zuen.

Hori horrela, positiboa iruditu zitzaigun kontsultatutako aktetako bat behar bezala egina egotea. Dena den, beti horrela egiten ez dela egiaztatzeak honako hau gogoraztea dakar: askotan agerian jarri dugun egoera irregular horrek eta, ondorioz, behin eta berriro aipatu dugunak, badirudi Ertzaintzaren atxiloketa-zentro guztiei eragiten diela eta aldatu egin beharko litzateke.

5.2. Eibarko Ertzain-etxera egindako bisita

5.2.1. Ziegen zonak duen konfigurazioa eta Ertzaintzaren beste atxiloketa-zentro batzuen antzekoa da eta, gure ustez, duen xederako egokia da.

Hala ere, zentro horretan oraindik ez dago adingabeen zaintzarako egokia den eta pertsona nagusientzako direnetatik bereizita dagoen eremurik, adingabeen erantzukizun penalari buruzko urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoak eskatzen duen moduan (17.3 art.) eta, gure ustez, egoera hori konpondu beharko litzateke.

Bestalde, uste dugu komunaren konfigurazioa ez dela egokia atxilotuen intimitatea behar bezala bermatzeko. Izan ere, hizpide dugun kasuan, korridoreko angelu batzuetatik barrualdea bete-betean ikus daiteke.

5.2.2. Bisita egin genuen unean, instalazioak baldintza onetan zeuden, garbiketari eta zaintzeari dagokienez.

Ordea, ziega baten apalean, esbastika baten irudia irudikatzen zuten ebaki batzuk ikusi genituen eta kendu beharko lirатеkeela uste dugu.

5.2.3. Gure hizketakideek adierazitakoari jarraiki, atxilotuari ez zaio inolaz ere jatordu osoa ematen eta, atxiloketak 24 ordu baino gehiago irauten baditu, eman beharko litzatekeela iruditzen zaigu.

5.2.4. Zentroak bideo-grabazio sistema du. Erakunde honetako kideekin egon ziren polizi arduradunek emandako informazioaren arabera, sistema horrek ziegen zonan atxilotutako pertsonen joan-etorri area guztiak kontrolatzen ditu –komunak eta ziegen barrualdea izan ezik–, baita polizi ibilgailutik zona horretara daraman sarrera eta deklarazioa hartzeko eta aipamena egiten den gela ere.

Ildo horretan, kamerak beste leku batzuetan ere badaudela ohartu gara eta ziegetan egin dugun grabazioaren zati bat ikusi dugu.

Solaskideek azaldutakoaren arabera, itxura denez sistema, funtsean, antzeko ezau-garriak dituzten Ertzaintzaren beste atxiloketa-zentro batzuetan sail horrek ezarri duen ereduarekin bat dator.

Erakunde honek delako sistemaren inguruan egindako balorazioa 2006ko ohiko txostenean jasota dago (I. atala, 7.1) eta, beraz, horri dagokionez, bertan egindako gogoeta orokorreki lotzen gatzaizkio.

5.2.5. Zentroak ez dauka adingabeen atxiloketen berariazko erregistro libururik, adingabeen erantzukizun penalari buruzko urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren Araua onartzen duen uztailaren 30eko 1774/2004 Errege Dekretuaren 3.5 artikulua ezar-tzen duen moduan, eta hori zuzendu egin beharko litzateke.

5.2.6. Bisitan, erakunde honetako ordezkariak atxiloketarekin zerikusia duten erregistro agiri batzuk ikusi ahal izan zituzten eta, hala, egiaztatu zuten –Ertzaintzaren beste atxiloketa-zentro batzuetan gertatzen den modua– eskubideak informatzeko aktak ez zuela gertakarien berri ematen Prozedura Kriminalaren Legeko 520. artikulua xedatu bezala; aktak egotzitako delitua aipatzeagatik kalifikazio juridikoa baino ez zuen jasotzen.

Herrizaingo Sailak gure oharra onartuko duela adierazi dugunean ere, gogora ekarri behar dugu berriz ere, agiri horretan jasota geratu behar dela atxilotuari egotzen zaiz-kion gertakarien eta askatasunaz gabetzea eragin duten arrazoien berri eman behar zaiola, aipatutako aginduak xedatu bezala.

5.3. Galdakaoko Udaltzaingoaren komisariara egindako bisita

5.3.1. Bisitatu genuen Udaltzaingoaren egoitza eta barne hartzen duen eraikina berriki bir-moldatu dira, polizi zerbitzuak bertan egon daitezen.

Eman ziguten informazioaren arabera, soilik bisita egin baino astebete lehenago al-datu zen Udaltzaingoa aurreko kokalekutik eraikin eraberritura. Beraz, zenbait gune, ziegen esparrua barne, ez zeuden oraindik erabiltzeko moduan.

Berriki birmoldatua badago ere, bai eraikineko sarbide orokorra, bai ziegetara dara-man sarbide independentea eta azken gune horren eta deklarazio gelaren arteko zatia, eta bai eta polizia erabilera eskusiborako diren beste gune batzuetarako sarbi-dea ere, ezin iritsizkoak dira pertsona ezgaituentzat, eskailerak baitaude eta ez baita beste formularik jarri oztopo horiek gaintzeko.

5.3.2. Ziegetarako erabiltzen diren instalazioek atxilotutako pertsonentzat sarrera indepen-dentea dute eta, gure ustez, oro har egokiak dira beren erabilerarako, aipatutako

irisgarritasun arazoak eta aintzat hartu beharko liratekeen honako alderdi hauek izan ezik:

- a) Gelaxkako hormak eta zorua alikatatuta daude. Gure ustez, aipatutako estaldura ez da gomendagarria, puskatzeko eta horren zatiak tresna zorrotz gisa erabiltzeko arriskua baitago. Hori horrela, iruditzen zaigu hobeak direla arrisku hori saihesten duten estaldurak, hala nola, pintura garbigarria.
- b) Bisita egin genuen egunean, osasun zerbitzuek barne hartzen duten espazioa irekita zegoen eta ziegen korridoretik primeran ikus zitekeen; gure hizketakideen arabera, hori hala zen berritzeko obrak oraindik amaitu ez zirelako. Hala ere, espazio horren egungo konfigurazioak intimitatea bermatzen ez duela egiaztatuta, eskubide hori babesteko premia gogorarazi behar dugu eta, aldi berean, atxilotutako pertsonen zaintza ahalbidetu behar da.
- c) Ziegek ez dute aireztapenik eta, gure hizketakideak berogailu sistema eraikineko orokorra dela azaldu ziguten arren, barruan geundela ez genuen bero iturririk antzeman.
- d) Ziegen zonan suteak antzemateko sistemarik ez zegoela ikusi genuen.

5.3.3. Zentro horretan ez dago adingabeen zaintzarako egokia den eta pertsona nagusientzako direnetatik bereizita dagoen eremurik, adingabeen erantzukizun penalari buruzko urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoak eskatzen duen moduan (17.3 art.) eta hori zuzendu egin beharko litzateke.

5.3.4. Ziegen zonak ez dauka atxilotuen zaintza bisuala egiteko berariazko espaziorik. Gure hizketakideek diotenari jarraiki, zaintza ziegen artean dagoen korridoretik edo eraikinaren sarreran dagoen kontrol postutik egiten da. Azken puntu hori, ordea, ziegetatik urrun dago eta, gure ustez, hori traba bat da zaintza behar bezalako baldintzetan egiteko.

5.3.5. Hizketakideek eman ziguten informazioa eta bisitan ikusi genuena kontuan hartuta, zentroak ez dauka atxilotuen joan-etorri area guztiak eta deklarazio gela barne hartzen dituen bideo-grabazio sistemarik.

Zehazki, sistemak ez du barne hartzen zona hori polizi ibilgailutik sartzeko bide independentearekin lotzen duen ziegen zonaren aurreko korridorearen tartea, ezta ziegak deklarazio gelarekin lotzen dituen tartea ere.

Ulertu genuenaren arabera, mekanismoaren oinarrizko ezaugarriak honako hauek dira:

- Sistemak etengabe grabatuko du eta grabazioa ezin da ez deskonektatu ezta eten ere.
- Kontrol postuko langileak grabazioa ikuskatzen du zuzenean.
- Grabazioen arduraduna Udaltzaingoaren burua da.
- Sistema kontrolatzen duen ekipo informatikoa gela jakin batean jarriko dela aurreikusi da, hain zuzen, Udaltzaingoaren buruaren bulegoaren ondoan eta ez dirudi mugatua dagoenik bertara fisikoki sartzea.
- Oro har, ez da aurreikusi grabatutako materialaren ondorengo berraztertzea egitea.
- Ez da aurreikusi ikuskapenean antzemandako behin-behineko gorabeheri buruzko erregistro espezifikorik sortzea.
- Grabatutako materiala ekipoan bertan gordetzen da.
- Grabaturiko materiala gordetzeko epea gutxi gorabehera 15 egunekoa da.

Erakunde honen ustez, ona da aipatutako grabazio sistema ezarri izana. Beste aldi batzuetan adierazi dugun bezala, gure ustez, neurri horrek aurrerapauso handia dakar atxilotuen osotasunaren eta duintasunaren aurkako jardunbideen prebentzioan, eta tresna egokia da eremu horretan izan daitezkeen jarduera irregularrak argitzeko eta polizi funtzionarioak jaso daitezkeen oinarririk gabeko kexa edo salaketen aurrean babesteko.

2008ko txostenean agerian jarri genuen moduan, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari zuzendu genion urriaren 6ko 81/1999 Gomendioan kontu hori aztertu genuen eta ondorioztatu genuen, era honetako etengabeko kontroleko sistema bat eragin-korra izan dadin, gutxienez, honako baldintza hauek bete behar dituela:

- a) Arduradun hori atxilotetak gauzatzen eta atxilotuak zaintzen dituzten unitateen jardunarekiko eta antolaketarekiko independentea izatea eta grabatutako materiala sistematikoki gainbegiratzea.
- b) Grabatutako materiala grabatutako jardunen ondoriozko erantzukizun administratibo eta penal posibleak preskribatzeko gehieneko epealdiari dagokion beste denboraz gordeko zela bermatzea eta, orobat, kontuan hartzea giza eskubideak bermatzeaz arduratzen diren erakundeek (besteak beste, Ararteko erakundeak) esku hartzeko duten epea.
- c) Erregistro bat sortzea, agiri bidez jasota gera daitezen egindako grabazioak, baita grabazioak ikustean nabaritu diren gorabeherak ere, halakorik izan bada. Horrela,

erakunde honek edo eskubideak babesteko beste erakunde batzuek sistemaren funtzionamendu orokorrari buruzko informazioa lortu ahal izango dute.

Horrez gain, uste dugu sistema kontrolatzen duten ekipoetarako, ekipook dauden geletarako eta horiek gordetzen diren lekurako sarbidea mugatua izan behar dela.

Gure gogoetak zuzenak badira, Udaltzaingoak ezarri duen sistemak ez ditu aipatutako baldintzak betetzen eta ez ditu atxilotuaren joan-etorri area guztiak barne hartzen.

5.3.6. Eman zitzaizkigun azalpenei jarraiki, ziegetarako erabiliko diren bulegoak ziega gisa erabiltzeko baldintzak ez dituzten bitartean, Udaltzaingoak egiten dituen atxiloteten bideratzea Ertzaintzak egingo du. Ertzaintzak, gainera, atxilotuen ardurak hartzen du, bide segurtasunarekin zerikusia duten delituak ez badira. Azken delitu horien diligentiak Udaltzaingoak egiten ditu bere bulegoetan.

Ordea, hori ez zen oztopo bat izan guk Udaltzaingoak aurretiaz bideratutako atxiloteta batzuen agiri erregistroak egiazta genitzan eta atxilotetarekin zerikusia zuten liburuak eskura genitzan. Aipatutako horiek ez dute urteko izaera eta, gure ustez, gomendagarria da.

Atxilotetaren alderdi garrantzitsuenak erregistratuta geratzen diren zaintza liburuak ez du aukerarik ematen kontsulta arrunt baten bitartez une bakoitzean atxilotuen urteko kopurua zein den jakiteko eta iruditzen zaigu hori gomendagarria litzatekeela. Ordea, prozedura horren bitartez atxilotetan zehar jazotako gorabehera nagusiak ezagutu daitezke eta hori oso positiboa dela uste dugu.

Hala, iruditzen zaigu komenigarria izango litzatekeela atxiloteten erregistroa urteko izaera duen eta atxiloteta bakoitzaren erregistro korrelatiboa barne hartzen duen atxiloteten erregistro liburu bakarrean bateratzea, bideratzean gerta daitekeen edozein gorabehera jasotzeko espazio nahikoarekin (zaintzaz arduratzen diren agenteak, mediku azterketak, ematen den medikazioa, irteerak, bisitak, abokatuaren laguntza, interpretea, etab).

Bestalde, aipatutako erregistro agiriak berraztertzerakoan, ikusi dugu eskubideak informatzeko aktan ez zegoela jasota atxilotuari *“egozten zitzaizkion gertakarien eta askatasunaz gabetzea eragin zuten arrazoien”* berri eman ote zitzaion (Prozedura Kriminalaren Legeko 520. artikulua), informazio hori jasotzeko tokia egon arren.

Kontsultatutako agiriek horren ildotik emandako informazio bakarra aktaren goiburuan zegoen jasota eta atxiloteta eragin zuen delitua zuen hizpide.

Gure hizketakideek esan ziguten atxilotuari beti ematen zaiola ahoz egozten zaizkion gertakarien berri, lege ezarrita dagoen moduan.

Hala ere, iruditzen zaigu ahoz ematen den informazioa ez dela nahikoa eta eskubideak informatzeko aktan horren edukia jaso behar dela.

Bestalde, emandako informazioari jarraiki, Udaltzaingoak egun ez dauka atxilotuarentzat eskubideak informatzeko aktaren eredurik euskaraz, atxiloketa hizkuntza horretan bideratzeko baldintzetan egon arren.

Dena den, informazio horrekin bat etorritz, badu eredu hori beste hizkuntza batzuetan, hala nola, frantsesez eta errumanieraz.

Erakunde honek oso positibotzat jo du akta egun bi hizkuntza horietan edukitzea, baita atxiloketa euskaraz bideratzeko gaitasuna ere. Ordea, Udaltzaingoak aktaren eredia euskaraz eduki beharko lukeela uste du.

- 5.3.7. Hizketakideek eman ziguten informazioarekin bat etorritz, zentroak oraindik ez du adingabeen atxiloketen berariazko erregistro libururik, adingabeen erantzukizun penalari buruzko urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren Araudia onartzen duen uztailaren 30eko 1774/2004 Errege Dekretuaren 3.5 artikulua ezartzen duen moduan, eta hori zuzendu egin beharko litzateke.

1.8

JUSTIZIA

ararteko

8. JUSTIZIA

Sarrera

Justizia arloan 2009an guztira 146 kexa izapidetu dira, Arartekoak urtean zehar jaso zituenetatik %7,61. Jakina denez, erakunde honek justizia administrazioaren erabiltzaileen eskubideen alde esku har dezake eskubide horiek euskal administrazioen egintzek edo hutsegiteek urratuz gero; horrek administrazio zentralaren erakundeei egotz dakizkien jarduerak zein jurisdikzio organoek hartutako erabakiak baztertzeko ditu. Azken horiek apartekoak izateak zera esan nahi du: haien jurisdikzio ebazpenak auzitegi nagusi baten aurrean errekurtsioa aurkeztuz bakarrik eztabaida daitezkeela, eta haien jardueraren kontrako diziplinazko eta gobernuko edukia duten kexak ere Legeak ezartzen dituen epailetza organoek aztertu behar dituztela.

Horrek, azken arrazoia dela eta aurkeztutako kexak formaz izapidetzea eragotzi digu; hala ere, bi jarduera mota gauzatu ditugu: alde batetik, Justizia Auzitegi Nagusiaren Gobernu Salari, Fiskaltzari edo Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Ikuskaritza Zerbitzuari jakinarazi dizkiogu eta beste aldetik, kexagileek beren eskubideak baliatzeko eragozpen materialak izan dituztela azaldu zutenez, eragozpen horiek epaitegietan zuzenean esku hartuz konpontzen saiatu gara. Aurrerago kasu horietako batzuk aipatuko ditugu.

Gure eskumenen esparruan dauden administrazio egintzak direla eta espedienteak irekitzea eragin duten kexak arlo ezberdinetan banatzen dira, jarraian datorren bezala:

- Bestelako gaiak	72
- Justizia administrazioaren funtzionamendua	41
- Espetxe arloko jarduerak	19
- Doako laguntza juridikoa	11
- Abokatuen elkargoak eta prokuradoreak	3

Azpiraratzekoa da aipatutako lehenengo taldean sailkatutako kexa guztiak berdin-berdinak zirela, beraz, batera izapidetu ditugu. Kexa horietan banantze edo dibortzio kasuetan seme-alaben zaintza partekatua aukeratzean izaten dituzten oztopoak gainditzeko beharra azaldu zuten, eta horretarako Arartekoak Kode Zibilaren aldaketa bultzatzeko eskatzen zuten (gai horri aurrerago helduko diogu).

1. JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREN FUNTZIONAMENDUA

a) *Epaitegien zerbitzura lan egiten duten langileek justizia administrazioaren erabiltzaileekin duten jokaera*

Arrazoi hori dela eta aurkeztutako kexa batzuk errespetugabeko jokabideei, prozedura baten interesdunei informazioa ematea ukatzeari, dokumentuak galtzeari eta izapidetzeko

orduan izandako atzerapenei buruzkoak izan dira. Arlo horretako kasuez haraindi, eta beste urte batez esperientziak baieztatzen digunaren arabera, arlo honetan gure esku hartzearen eraginkortasuna hiru ikuspegitatik balora daitekeela esan dezakegu:

Lehenengoa: pertsonen eskubideen urraketa eragiten duten balizko akatsak eta arduragabekeriak zuzentzea eta kexagileei azalpenak ematea da. Emaitzak ikusita egokitzat jo behar dugu. Horiek ez lirateke posible izango jaso dugun laguntzarik gabe, eta epailetza, idazkaritza judiziala eta fiskaltza eta bereziki Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Administrazio Saila osatzen dutenei eskerrak eman behar dizkiegu, ondorio horietarako haiekin jartzen baikara harremanetan.

Bigarrena: antzemandako akatsak berriz ere egin ez daitezten beharrezko neurriak hartzeari dagokionez, gure lanaren eragina erlatiboagoa da. Izan ere, beste urte batez arlo honetan antzemandako akatsak oraindik egiturazko eta aurrekontuen faktoreen ondoriozkoak dira neurri handi batean; horiek artean azpimarratzekoa da **epaitegietako langileen bajak eta ordezkapenak** betetzeko modua. Hori dela eta bi arazo nabaritu ditugu:

- Alde batetik, baja horiek ez dira betetzen hamabost egun pasa arte; egun horietan, epaitegiko idazkaritzak berak erabaki behar du lanean ez dagoen pertsonaren kideek haren lana nola hartu behar duten. Zentzuzko konponbidea izango litzateke, izan ere, horrek praktikan, eta erakunde honetan izapidetutako espedienteek adierazten dutenaren arabera, bajaran dagoen pertsona berriz lanera itzuli eta ordezkatu arte hain presakotzat jotzen ez diren prozedurak gelditzea eragin dezake. Kontu batek lehentasunik izan ezean, hainbat kasutan egiaztatu ahal izan dugu kontu hori ez dela izapidetu –eta interesdunari ez zaio horren berri eman– nahiz eta izapide bat egitea bakarrik falta izan, besterik gabe kontu horren ardura ez duelako inork hartu.
- Beste alde batetik, baja behin-behineko langile batek betetzen duenean ere, baliteke langile horrek epaitegi jakin batean lan egiteko oinarritzko ezagutza espezifikorik edo inolako prestakuntza juridikorik ez izatea. Zenbait kasutan auzitegiko jarduerarekin loturarik ez duten diziplinetatik etorritakoak izaten diren langile horiek zuzenbide prozesalaren inguruan gutxieneko gaitasuna dutela bermatzerik behar ez dutenek osaturiko lan poltsa batetik hartzen dira. Horregatik, trebakuntza lortzeko beharrezkoa izaten den egitekoak, lan guztien hasieran nahitaezkoa denak, epaitegian behar besteko trebakuntza eta esperientzia duten langileei eskatuko litzaikeena baino ahalegin osagarri handiagoa izatea eragin dezake, eta hori, izapidetutako kexetan adierazten denaren arabera, erabiltzaileek jasotzen duten zerbitzuaren kalitatearen kalterako izaten da.

Beharbada **erregistro zibilak** dira halako kasuak gehien izaten dituen eremua; arrazoi hori dela eta egindako erreklamazio gehienetan horiek aipatzen dira behintzat. Jarraian aukeratu ditugun kasuak, guztiak behar bezala konpontzeaz gain, justizia administrazioak herritarrenganako jokaeran beti mantendu behar duen sentsibilitatearen adierazgarri direla uste dugu.

Lehenengoa Getxoko erregistro zibilera ezkontzera joan ziren bi emakumek aurkeztu zituzten. Ustekabe ezatsegina izan zuten ezkontzeko izena emateko ardua zuten langileak ezkontideetako bat gizon bezala jaso zuelako. Protesta ikusita, epaitegiak akatsa onartu eta zuzentzeko esan zien. Zuzenketa, hala ere, bietako baten sexuari lotutako bazterreko ohar bat baino ez zen izan, gizona zioen lekuan emakumea jarri behar zela azalduz. Gure ustez, erregistroak berak sortutako arazoari emandako konponbidea behar bestekoa ez izateko arrazoi berdintasunerako oinarritzko eskubidea zen. Izan ere, sexu bereko pertsonen arteko ezkontza berritasuna da eta gure gizarteko testuinguruan normalizatutako errealitate bezala ikusteko oraindik asko falta da. Horregatik, praktikan, zaila da saihestea inguruabar horiek dituztenek gizon batek eta emakume batek osaturiko ezkontza izanez gero, inertziak ziurtzat jotzen duen moduan, beharrezkoak izango ez liraterkeen azalpenak eman behar izatea ezkontzaren egon izanaren baldintza baliatu nahi duten bakoitzean.

Jakina da sexu bereko ezkontideei inertzia horrek sortzen dien arazo mota guztiak gainditzea pentsaera aldatzean duela. Hori denbora pasa ahala bakarrik lortuko da eraginkorra izatea eta, beren sexu orientazioa edozein dela ere botere publikoek pertsona guztien berdintasuna sustatzeko duten egitekoaz haraindi, zalantzarik gabe gizarte osoa sartzen du tartean. Baina hasiera batean epaitegiak emakume horientzat eskaini zuten konponbide bakarra haien ezkontza ziurtatu behar duten edozein egoeratan aurkeztu beharreko agirian bietako bat betirako gizon bezala azaltzea zen, hortaz, akatsa, berau zuzendu zuten bazterreko oharrari aipamen esplizitua eginez bakarrik argitu zezaketen. Horrek erakusten duen sentsibilitaterik ezaz gain –bi emakumeek adierazi zuten nahigabe handia eragin zela–, kasu honetan, aipatutako arrazoiak direla eta, eskubideak berdintasunez baliatu ahal izatea jadanik zaila izanik, botere publikoen jarduerak zailagotu egin zuten; hortaz, haiei zegokien oztopoak baztertzea, azkenean gertatu zen bezala.

Genero arrazoi bat dela eta beste kexagile bat ere baztertuta sentitu zen. Legez familia liburuan gezurrezko gizon izen bat jartzera behartu zuten hazi jartze bidez izan zuten haurraren aita bezala. Araudia aldatu ondoren, Bilboko erregistro zibilera jo zuten familia liburu berri bat egin ziezaioten. Bertako langileak eman zion konponbide bakarra bere haurraren aitarentzako espazioaren ondoren bere izena jartzea izan zen, aurreko liburuan agertzen zen izena marra batez ordezkaturik. Erregistroan kudeaketa egin genuen, eta bertako idazkari judizialak kexagileari bera ama bezala eta titular bakar gisa agertzen zuten familia liburu berri bat emateko arreta handiz jardun zuten.

Irailean Amurrioko erregistro zibilean gertatu zena aipatutako langileen arazoaren adibide argia da. Langileek enplegatutako baten baja betetzeko eskatu zutenean, Justizia Sailean erregistro zibilaren arloan ezagutzak zituen pertsona bat jartzeko eskatu zuten. Ordezkapenen poltsan ez zegoen profil horrekin bat zetorren inor, eta horrek bi ondorio izan zituen: alde batetik, baja ez zen bete funtzionarioa hilabeteren ondoren itzuli zen arte; bestetik, denbora horretan epaitegiko langile bat ere ez zen arduratu bajaran zegoen langileari zegokion ezkontza espediente batez, ondorio horietarako ez baitzuen lehentasunik izan, eta horrek kontu horren izapideak arrazoirik gabe luzatzea eragin zuen. Kexagileak, behin eta berriz egindako informazio eskaeraren erantzunik jaso ez zuenez, Arartekora jo zuten kexaz.

Justizia eta Herri Administrazio Sailak kasua konpontzeko prestasunez lankidetzan jarduteaz gain, adierazitako akatsen ondorioz, laguntzeko eta ordezkatzeko langileen trebakuntza zehatza zein gure erkidegoko bulego judizial guztiek funtzionatzeko protokoloa barne hartzen dituen plana helarazi zigun. Tutoretza programa bat, zereginen eta erantzukizunen definizioa eta alderdi guztietan etengabe hobetzeko Sailak idazkari judizialekin egiten duen lan bateratua biltzen du; erakunde honek egingo du horren guztiaren jarraipena.

Hirugarrena: Aipatutako azken ikuspegia gure jarduerak **diziplina erantzukizunei** dago-kienez duen eraginkortasuna baloratzen duena da. Esperientzian oinarrituta gai horretan gure eraginkortasuna eskasa dela ondoriozta dezakegu, erantzukizunak eskatzeko ardura duten barneko kontrol mekanismoek jarraitzen dituzten irizpideak kontuan hartuz. Irizpide horiek izapidetutako erreklamazioetako batean ageri dira. Beharrezkoa iruditzen zaigu erreklamazio hori eragindako ondasun juridikoaren larritasunagatik laburpen honetan jasotzea –hara-hona ibiltzeko eskubidea– Arartekoarentzat bere esku hartzeen hirugarren ikuspuntu honek duen garrantzi erlatiboagatik jasotzea baino gehiago, izan ere, esku hartze horien helburua, jakina den bezala, ez da batez ere kexaren xede diren jardueren errudunak zigortzea, baizik eta gure ikuskapeneko instituzioekin eta erakundeekin lankidetzan aritzea bezala, jarduerak zuzendu eta prebenitze aldera ahaleginak bateratzeko.

Erreklamazioa Bizkaiko Talde Psikosozial Judizialeko psikologo bezala lanean aldizka aritzen emakumeak aurkeztu zigun Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailburuordetzarekin lotzen zuen kontratua amaitu ondoren. Lau hilabete beranduago, Getxoko epaitegi batek, kexagileak haren aurrean psikologo bezala jarduteko egindako eskakizunei erantzunik ematen ez zionez, bere udalerriko Udaltzaingora honako agindua igorri zuen *“talde psikosozialeko psikologoa, bizilekuan duena egoitza judizialera indarrez eramateko irailaren 15eko goizeko 10etarako adierazitako azken izapidea burutu dezan”*. Interesdunak bere egoera jakinarazi zion Justizia eta Herri Administrazio Sailari, eta hau Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu Idazkaritzarekin jarri zen harremanetan eta azaldu zion pertsona hori hilabete batzuetatik jadanik ez zela talde psikosozial horretako kide eta hori zela psikologo zerbitzuak emateko eskatuz bidaltzen zitzaizkion zitazioak jaso ez izanaren arrazoia. Irailaren 14an, jarduera burutu behar zen egunaren bezperan, epaitegi berberak agindu hori baliogabetu zuen. Baliogabetzea, aldiz, Udaltzaingoari ez zitzaion kontrako agindua jakinarazi zitzaion bide beretik zuzenean jakinarazi; baliogabetzearen jakinarazpena epaitegiko idazkaritzatik udaleko bulego orokorrera faxez igorri zen 18:25ean, udalak baieztatu zigunaren arabera.

Horren ondorioz, hurrengo egunean, agindua bete behar zen orduan, interesdunak ez eta udaltzaingoak ere ez zuen agindua indargabetzearen berri izan, beraz, udaltzaingoak agindua betearazteari ekin zion. Kexagileari ez zion ezertarako balio izan bere egoera azaltzeak, ez eta bajan egon izanak. Agenteeek ohartarazi zioten haiek zekiten gauza bakarria agindua behar zutela zela. Getxora iritsi zirenean, epaitegiko idazkariak jakinarazi zion agindua aurreko egunean indargabetu zutela eta kexagileari joatera behartzeko arrazoia izan zen izapidea ez zela egingo, hortaz, aske geratu zen.

Kasuan, beraz, askatasuna bidegabe kendu zen eta nabaria da, ez udaltzaingoak –ez zekien agindua bertan behera geratu zela– ez eta epaitegiak ere –udaltzaingoari indargabetzea denboran eta forman jakinarazi zitzaiola uste zuen– ez zutela borondaterik izan. Hala ere, kexagileak adierazi zuen epaitegiak kontu handiagokoz jokatu behar izan zuela agindua burutzeko ardura zuten indarrek indargabetzearen berri zehazki izan zutela ziurtatuz, are gehiago, kaltetutakoa bezalako ondasun juridiko garrantzitsua arriskuan zegoela kontuan izanik. Ondorioz, ez zitzaion egokia iruditu epaitegiak bulego orokorrari ebazpena fax baten bidez bakarrik jakinarazi izana; gainera, ordu horretan itxita egongo zela suma zitekeen. Aldiz, telefonoz zuzenean harremanetan jarri eta lehenago jada indargabetuta zegoen agindua hartu zuen udaltzaingoak jaso izana egiaztatu behar litzatekeen.

Kasua Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Gobernu Salara igorri genuen, epaitegiak behar besteko arretaz jokatu zuen ala ez zehazteko eskumena hari zegokiola uste izan genuelako. Gobernu Salak kasua Getxoko epaile dekanuari bidali zion. Epaileak txostena egin zuen esanez azaldutako gaia jurisdikzionala zela, eta ez gobernuarena, eta kasua bideratzeko biderik egokiena legeek horretarako ezartzen dituzten baliabideak zirela. Hori ikusita, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko lehendakariak jarduerak artxibatzea erabaki zuen.

Epaitegiaren jokaerak, kexaren arabera, bi osagai zituen: alde batetik, udaltzaingoari kexagileak indarrez epaitegira eramateko agindu zion epaitegietara atxikitako talde psikosozialeko psikologo bezala izapideak burutzeko; bestetik, polizia-indarrak ez zuen agindua indargabetu izanaren berri izan jadanik beranduegi izan zen arte, garai eta modu ezegokietan jakinarazi zelako. Ondorioz, eta legeak erakunde honi jarduera baloratzea eragozten diola albo batera utzita, agerikoa da jardueraren aurka ez zela errekurtsorik jarri behar izan, eta gaia jarduera ikertzeko eta ebazteko gaitasuna zuten organoei jakinaraztea erakunde honen betebeharra zela. Hori dela eta, eta aipatu den artxibatzea ikusita, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Ikuskaritza Zerbitzura igorri genuen, eta honek aurretiazko informazioa hasi zuen organo horretako Diziiplina Kontseiluari bidaltzeko; txosten hau idazten amaitu zen egunean oraindik ez zuen kasuaren inguruko erabakirik hartu.

b) Erabiltzaileen hizkuntz eskubideak

Arartekoak hizkuntz eskubideei buruz buruturiko jardueren artean bi arlo ezberdin bereizi behar dira: alde batetik, bi hizkuntza ofizialetako bat ere behar beste ezagutzen ez duten atzeritarrei zerbitzu publiko hau erabili ahal izatea erraztera bideratutakoa; bestetik, koofizialtasuna praktikan benetan betetzeari buruzkoa.

Atzeritarrak

Lehenengo alderdia Inmigratioko II Euskal Planaren jarraipenerako ofiziozko jarduera batean eman da. Zehazki, Institutio Antolaketa Arloaren 1. araua jasotzen duen 10. neurrian, aipatutako planak Inmigratio Zuzendaritzari **EAEko hizkuntza ofizialak ez dakizkiten**

erabiltzaile atzerritarrekin harremanetan jartzen diren herri administrazioei zerbitzuak emango dizkieten interpreteen sare bat sortzea bultzatzeko beharra eman zion. Bestalde, Berme Juridikoen Arloaren 4. arauaren aurreikuspenak justizia eta barne administrazioetako itzulpen eta interpretazio zerbitzuei buruzkoak dira.

Aurreko Etxebizitza eta Gizarte gaietako Sailak bere garaian jakinarazi zigun horretarako Gobernuaren jarduera arlo guztientzako egitura sortzea erabaki zela, sail bakoitzean antolatzeak eragingo lituzkeen kostuak kontuan izanik. Zerbitzua 2008an abian izango zela uste izan zen, eta interpreteen sare bat gauzatuko zela, hura bultzatzea eta planifikatzea Immi-grazio Zuzendaritzari egokitzuz.

2008 amaitu ondoren, egiaztatu genuen aurreikuspenak ez zirela bete, eta oraindik ere kexak jasotzen genituen. Kexa horietan administrazioak, hizkuntzaren eta kulturaren gaiari arreta emateko orduan, gai horren inguruan zuen jarduera behar bestekoa ez izateak atzerritarrek askatasun osoz komunikatzeko ez eskubiderik ez eta autonomiarik ere ez izatea eragin zuela azaltzen zen, eta horrek, atzerritarrak komunikatu nahi zuten mezua eredu edukia zein beren adierazpen askatasuna gutxitzen zuten pertsonen mende egotera behartzen zituela, pertsona horiek borondate ona izan arren.

Hori guztia dela eta, Arartekoak sail horri interpreteen sarearekin loturiko konpromisoa betetzeko eskatu zion, eta abian jartzeko planei buruzko zalantza batzuen inguruan ere galdetu genion:

- zerbitzua kudeatzeko eta egiteko kontratazio modua.
- sarearen parte izateko ziurtapen sistema.
- lan egiteko moduan dauden profesionalen kopurua optimizatzeko modua interpreteak dagoen beharizanaren arabera zerbitzuetan jarriz: ibiltarritza, gehien behar diren hizkuntzen araberako kopurua, eta abar.
- kontraturiko itzultzaileen eta interpreteen hizkuntz trebakuntza eta kultura arteko gaitan prestakuntza kontrolatzeko sistema. horri dagokionez unibertsitateak duen zeregina.
- erabiltzaileekin komunikatu ahal izateko zerbitzu publikoetako profesionalen trebakuntza interpreteen bidez.

Ez genuen jaso gure lankidetzara eskaeraren erantzunik, hortaz, errekerimendu bat bidali behar izan genuen. Horren ondoren, txosten bat jaso genuen, gizarte zerbitzuen arloan aipatutako beharizanak beteko ziren moduari buruzkoa bakarrik zena. Aldiz, ez ziguten ezer esan administrazio jardueraren gainerako esparruen inguruan; horietan itzulpen sistemen eraginkortasunak eta kalitateak atzerritarrek beren eskubideak baliatzea baldintzatzen dute.

Sailak adierazi zigun, egindako balorazioaren ondoren, zerbitzua emateko modu egoki eta bideragarriena Sailaren eta Eudel Euskadiko Udalen Elkartearen arteko lankidetzara hitzarmenaren bidez zela. Hitzarmen horren bitartez bertan egon gabe baina denbora errealean eta eskuko telefono bidez ematen den itzulpen-interpretazio zerbitzu bat

abian jarri eta garatzea finantzatuko litzateke, atzerritar gehien dituzten udaletako gizarte zerbitzuetarako bakarrik. Zerbitzuen kalitatea eta prestakuntza kontrolatzeko eta ziurtatzeko sistemei buruzko galderei erantzunez, Sailak adierazi zigun esleipendun enpresa izango litzatekeela itzultzaile-interpreteten taldearen parte izateko beharrezko ziurtapenen arduraduna, baita lan egiteko moduan dauden profesionalen kopurua eta kalitatea optimizatzeko ardura duena ere.

Aurreko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak garatutako proiektua, beraz, gure esku hartzeak erreferentzia egiten zion administrazio jardueraren alderdi oso partzial bati buruzkoa zen: udal esparruko zati batean kudeatutako gizarte zerbitzuen sarearekin loturikoa. Horrekin atzerritarrek arlo honetan izaten dituzten beharrianen plangintza bateratuari uko egin zion, eta horrek bere garaian hartutako konpromisoa ez betetzea esan nahi zuen, bai plana burutu nahi zen eremua murriztua zelako eta baita jasotako erantzunaren kalitatekerik ezagatik ere. Izan ere, eskatzen diren gutxienerako irizpide profesionalak ezartzeko ardura esleipendun enpresaren eskuetan utziz gero, proiektuak ez ditu itzulpen-interpretazio zerbitzu baten kalitatearen oinarriko hiru adierazleak kontrolatzeko mekanismo egokiak: **langileen aukera egokia, beren lana irizpide etiko eta profesional batzuetara egokitzea, eta beren emaitzak kontrolatu eta ebaluatzeko behar bezalako sistema.**

Ondorioz, horrekin guztiarekin lotuta Gomendio Orokor³³ bat proposatu genuen, gaiarekiko interesa duten administrazio ezberdinek ontzat eman zutena. Horren harira EUDELeK eman duen laguntza bereziki eskertu behar dugu, bai **interpretazio sozialaren** irizpideak barne hartzeko beharra onartzeagatik eta baita langile teknikoak jartzeagatik beharrianak eta jarduteko arloak antzemateko.

Euskararen koofizialtasuna

Beste urte batez ere, oraindik justizia administrazioan euskara gaztelaniaren baldintza berberetan erabiltzeko eskubidea urratzen duten oztopoen inguruko kexak jasotzen ari gara. Kexagileak ez dira izan eskubideen urraketa jasan dutenak bakarrik, baita Bizkaiko Abokatu-en Elkargo entzutetsua ere. Kexa horietako gehienak **itzulpen zerbitzuak** erabiltzeko beharrien ondorioz sortzen diren arazoengatik dira, baita Bake Epaitegietan **seme-alaben jaiotza euskaraz erregistratu** ezin izanari buruzkoak ere.

Lehenengo motako kexen artean adibide gisa abokatu baten kasua aipa dezakegu. Abokatuak Barakaldoko epaitegi batean bere defentsa idazkia euskaraz bakarrik aurkeztu zuenean, epaitegian gaztelaniarako itzulpena eskatu zioten. Kexa epaile magistratu dekanok eta tartean zegoen epaitegiak berehala ikertu zuten. Epaitegiak akatsa onartu eta barkamena eskatu zuen. Justizia eta Herri Administrazio Sailak Bizkaiko Abokatu-en Elkargoak igorritako beste kasu bat ikertu –eta baieztatu– egin zuen: Elkargoko letradu baten bezeroak

³³ GOMENDIO OROKORRA: “Etorrinei beren eskubideez baliatzean laguntzeko, administrazioaren ardura zerbitzu publikoen hizkuntza erabilgarritasunaren bermeari dagokionez”

Bilboko Guardiako Epaitegian euskaraz deklaratu nahi zuela adierazi zuenean, horretarako interpretea iritsi arte bizpahiru ordu itxaron beharko zuela esan zioten funtzionarioek, al-diz, gaztelaniaz deklaratzeko aukeratuz gero izapidea berehala burutuko zela. Egoera horren aurrean, bezeroak bere eskubidea baliatzeari uko egin eta gaztelaniaz deklaratu zuen. Antzeko beste kasu bat eman zen Bergarako erregistro zibilean. Letradu bati bere idazkia gaztelaniaz aurkeztuz gero horren ebazpena berehala emango ziotela jakinarazi zioten, al-diz, euskaraz eginez gero itxaron egin beharko lukeela itzultzailea oporretan zegoelako; hori dela eta, bezeroak idazkiaren bere itzulpena aurkeztu behar izan zuen berehala.

Bigarren kexei dagokienez, gure esku hartzea Konstituzio Auzitegiak 123/1988 eta 56/1990 epaietan zehaztutako baldintzetan koofizialtasunari buruzko edukian oinarritu da. Baldintza horietatik estatuak erregistro publikoak arautzean errespetatu behar dituen ondorengo betekizunak ondorioztatzen dira: a) hizkuntza koofizialean idatzitako agiriek, erregistroaren ondorioetarako, gaztelaniaz idatzitako eraginkortasun eta balio berbera izan behar dute; b) autonomia erkidegoko hizkuntzan idatzitako agiriek ez dute inolako zailtasunik edo atzerapenik izan behar, eta c) ziurtapenak eta idazpenei buruzko gainerako jakinarazpenak eskatzailearen hizkuntza ofizialean egin behar dira.

Arazo hori gure iazko txostenean ere jaso genuen. Txostenean Justizia Ministerioaren erantzunaren berri ere eman genuen: "erregistroak eskatzaileak aukeratzen duen hizkuntza ofizialean egin ahal izango dira Inforeg-4 aplikazio informatikoa eragingarria denean; urteko lehenengo hiru hilabetearen amaieran –hala esan ziguten– ezarpena osatuta egongo da. Aitzitik, barruti judizialeko buruetan bakarrik ezarri da, baina ez da iritsi erregistro zibilaren ordezkari bezala jarduten duten bake epaitegietara. Horren ondorioz, bitokia dela eta erregistroa bake epaitegietan eskatu behar dutenek eskubidea baliatu ahal izan gabe jarraitzen dute, ekainaren 22ko 12/2005 Legearen arabera jarduten duen Erregistro Zibilaren Legearen aldaketatik urratzen ez bada ere, eta baita goian aipatutako jurisprudentziako eta legeko oinarria izan arren ere. Hori guztia ikusita, autonomia erkidegoko administrazioan eta administrazio zentralean berriz ere honako hau azaldu genuen: aipatutako araua indarrean jartzen denetik zenbat eta denbora gehiago pasa, geroz eta zentzugabekoagoa da eskubide hori baliatzeko ezintasuna justifikatzeko bitarteko materialik eza apelatzea.

Horren harira, Justizia eta Herri Administrazio Sailak arrazoa du, erregistro zibilak Justizia Ministerioaren eskumenekoak izanik, gure bake epaitegietan dauden erregistro zibilen ordezkarietan aplikazioa zein unetan ezarriko den zehaztea haien arabera dela esaten duenean. Horrez gain egiaztatu ahal izan dugu Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiak, Ministerio barera atxikitakoak, 2008ko martxotik oraindik ebatzi gabe duela garrantzi handiko kontsulta bat. Kontsulta hori, bitarteko materialik ezaren ondorioz, arlo horretako legeko aurreikuspenek bete gabe jarrai ez dezatela lortzeko neurriak antolatzen da. Kontsulta Bergarako erregistro zibilarena izan zen. Bitarteko materialak emateko ardura duen administrazioaren gelditasuna kontuan izanik, eta gabezia horrek jarraitu bitartean, erregistro horiek euskaraz egiteko aparteko liburua zabaltzea baimentzeko eskatu zuen, Erregistro Zibilaren Legearen 23. artikulua babestean. Txosten hau idazten amaitu zenean kontsulta oraindik ebatzi gabe zegoen. Atzerapenak bidezkoa dena ere gainditzen du eta gaiaren inguruan oraindik aurkeztu diren eskakizunei ezezkoa ematea eragiten ari da.

Hala ere, 2008ko urtarrilean ere bake epaitegietan Inforeg-4 ezarri izana Eusko Jaurlaritzaren eta Red.es Enpresa Erakunde Publikoaren artean izenpetutako urte beteko hitzarmena izan zen, nahiz eta haren aurrekontu baliabideak aurreikusitako jarduerak abian jartzea baldintzatu izan. Horren ondorioz hitzarmen berri bat egin behar izan zen urtea amaitzean, baina abenduan oraindik izenpetu gabe zegoen, hortaz, Arartekoak Justizia eta Herri Administrazio Sailari ahalik eta lasterren egiteko eskatu zion. Sailak 2010 urtearen hasieran egiteko asmoa zuela jakinarazi zigun, aplikazioa maiatzerako bake epaitegi guztietan ezarri-ta izateko helburuarekin; espero dugu horrek arazoa behin betiko konpontzea.

Azken finean, aurreko Eusko Jaurlaritzak zein egungoak egoera guzti horiek azaltzen direnean ikertzeko eta zuzentzeko eta egoera horiek saihesten laguntzen duten bitarteko materialak ahal duen neurrian emateko duen interesa egiaztatu ahal izan badugu ere, beste urte batez kexek adierazten dute euskararen eta gaztelaniaren koofizialtasunari errealitate normalizatua izateko asko falta zaiola. EAeko justizia administrazioaren zerbitzura dauden funtzionario guztiak koofizialtasunaren esanahiaz jabetzea lortze aldera tartean dauden instantzia guztiek batera lan egiteko beharraz ere ohartarazi digute.

Baina gure epaitegiek tresna ofimatikoak izatea ez da nahikoa. Neurri handi batean formularioak betetzean edo erregistroak egitean oinarritzen den beren jardueren zati bat euskaraz egitea ahalbidetuko dute. Gainerako jarduerak, hau da, harreman pertsonaletik hasita autoak eta epaiak emateraino, baita prozesuko hainbat izapide ere, euskaraz garatzea egiturazko faktore materialek eta giza faktoreek baldintzatzen dute. Horiek aurreragoko txostenetan aipatu genituen eta, praktikan oraindik euskal hiztunak diren erabiltzaileei epaitegian beren hizkuntzan hitz egiteko nahia kentzen diete. Horren guztiaren ondorio bezala, gure epaitegiek eta auzitegiek beren jardueraren zati oso txikia egiten dute euskaraz. Zati hori, edonola ere, ez dator bat herritarrek duten hizkuntzaren ezagutza zein eremu publikoan edo beste administrazio batzuekiko harremanean duten erabilera mailarekin.

Pasadizozkoa izan daitekeen arren, izapidetutako espedienteetako batetik ondorioztatutako honako datu hau esaten ari garenaren adibidea izan daiteke: Getxoko erregistro zibileko idazkariak esan zigun ez duela gogoratzen epaitegian ezkontza bat ere euskaraz egin izana karguan zeramatzan hiru urteetan. Getxoko euskal hiztunen portzentajea duen eta duela 30 urtetik euskara hizkuntza ofizial den udalerriko errealitatea halakoa izatea euskal herritarren hizkuntz eskubideak errespetatzeko eta babesteko ardura duten instantzia guztiek hausnartu beharrekoa da.

Baina ez da gure epaitegiek euskaraz garatzen duten jarduerak ugaritzeak berez helburu bat osatzen duela uste dugulako. Helburua hizkuntza bat edo bestea aukeratzea nolabait askea izatea lortzea da. Lehenago aipatutako konstituzio jurisprudentziaren arabera, horrek esan nahi du arrazoizkoa dena gainditzen duten kostuek edo oztopoek ezin dutela eragotzi. Hori hala noraino den jakiteko, eskubidea baliatu nahi den unea eta lekua kontuan izanik neurtu beharko da kasu bakoitzean; baina batzuetan ahaztu egiten den faktore bat ere kontuan izan behar da: herritar bati euskara erabiltzeak eragiten dion kostua ezin daiteke baloratu beste hizkuntzen moduan, izan ere, beste hizkuntzen kasuan interpretazio zerbitzuak gure hizkuntza ofizialak ez dakizkien erabiltzailearen gabezia betetzen du.

Aldiz, justizia administrazioaren zerbitzura dauden langileen hizkuntza mugek herritarrek hizkuntza ofizialetako bat erabiltzeko eskubidea baliatzeko aukerak baldintzatzen dituztenean euskarara interpretatzea eta itzultzea justizia administrazioari laguntzeko da, ez partikularrari. Horregatik, espediente edo izapide jakin baten ardua duen funtzionarioak hizkuntza bietako bat jakin ezean epaitegietako bulego bakoitzean administrazio publikoko langile elebidun nahikoekin konpentsatu beharko litzateke, eta hala ezin denean, azaldu-tako akatsak bizkortasunez saihestuko dituen itzulpen eta interpretazio sistema bat.

Ez ditugu alde batera utzi erkidegoko administrazioak hala izanez gero izango lituzkeen aurrekontu eta eskumen mugak, ez eta berriki emandako epai judizialek epaitegien zerbitzura lan egiten duten funtzionarioak euskalduntzeko administrazioaren planetan izan duten eragina. Hala ere, botere publikoak legeetan aitortzen diren eskubideen eraginkortasuna baldintzatzen duten eragozpenak zeintzuk diren jabetu behar dira. Emaizten ebaluazio errealista baten bidez bakarrik baloratu ahal izango da eskubideen eraginkortasuna lortzeko orain arte hartutako neurrien egokitzapena, baita gure epaitegietan indarrean den eta eskatzen den agindu bezala azaltzen den hizkuntz eskubideen dekalogo gaur egun dena, hainbat alditan alegia, izaten jarrai ez dezan beharrezkoak diren ekimenak identifikatzea ere; honako hau da gaur egun dekalogo hori: asmoen borondatezko aitortpena, bitartekoen erabilgarritasunaren araberakoa dena, errealitatearekin duen aldea askotan erabiltzaileentzat zein eragile juridikoentzat nabaria dena.

2. ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN JURISDIKZIOA

Arlo honen inguruan jasotako kexak administrazioarekiko auzien bidean jarritako erreklamazioa gaitzetsi ondoren Justizia Auzitegi Nagusira apelatzera jo duten pertsonak bidali dituzte, gaitzesteko epaitza baieztatu ondoren bigarren instantziaren kostuak ezarri dizkietelako. Alde batetik, administrazioaren defentsa juridikoaren ordainsarien ondorioz izan zuten zenbatekoagatik eta erreklamaturako kopuruaren arabera bakarrik kalkulatu direnez neurrigabekoak zirela uste zutelako egin zuten protesta; beste aldetik, abokatuaren aurka protestatzen dute, azaldu-takoaren arabera, kontrako epai bat apelatzea erabakitzeak dakartzan kostuen arriskuaren berri ez ematearren. Horrek bi motatako kalteak eragin zizkieten: aurrez horren inguruan ohartarazi ez zieten, apelazioaren jatorria baloratzeko orduan oinarritzko epaitzeko elementu bat kendu zieten; kasu batzuetan, gainera, ez zieten jakinarazi epai irmoa eman ondoren ere, beraz, zorraren berri epaiaren aurka egiteko beranduegi zenean izateaz gain, ordaindu ez izanak interesak eta errekarquak sortu zituen, eta horiek, zenbait kasutan nabarmen handitu zuten printzipala.

Kasu horietan ezin dugu baloratu letraduak burutako lan profesionala, bere lana kode deontologikora egokitzen dela elkargo profesionalak bakarrik azter baitezake, eta oker bete ahal izan zuen erantzukizun zibila bide judizialek bakarrik zehaztu daiteke, konponbide arbitralak albo batera utzita. Halaber, kostuen aurka auzitegien aurrean egiten denean eta auzitegiek horiek zuzenbidera egokitu direla erabakitzen dutenean, 3/85 Legearen 13. artikulua guk gai horretan esku hartzea galarazten du. Hortaz, erabaki horiek hartzen ez direnean bakarrik esku har dezakegu, baita zorraren erreklamazioa egiteko orduan egon

ahal izan diren jakinarazpen akatsak izanez gero ere, izan ere, printzipala murrizten ez bada ere, betearazpen bidean erreklamazioa egitean atzeratu izanagatik errekareruak eta interesak balio gabetuko lituzkete.

Baina akats berberaren bi alderdi direla ikusteak kezkatzea saihestezina da: alde batetik, egoera medikoaren edo sozialaren larritasuna dela eta lehenengo instantzian erreklamazioa ukatu zaien eta, juridikoki bidezkoa denaz haraindi, administrazioa erantzule egiten duten pertsonen kasuek gora egin dute, eta ukapen horrek apelatzera eramaten ditu, haien uzia bideragarria ez bada ere, oinarriari edo kopuruari dagokionez; beste alde batetik, horren ondoriozko errekurtsuaren gaitzespenak kostuak eragiten ditu, alderdi irabazlearen defentsa letraduaren ordainsariak besteak beste. Hori zehazteko, administrazioak jurisprudentzialki emandako haztapan irizpideak baztertzen ditu batzuetan kontu horretan eragin dezaketen kopuruak baloratzeko, eta galtzaileak eskatutako kalte-ordainetan bakarrik oinarritzea aukeratzen du. Horrek, kostuen erreklamazio batzuk, beharbada ereduagarriak izan eta eragozteko balio dezaketenak, errekurtsu egileak ordaindu ezin ditzakeen zenbateko handietara iristea eragiten du, eta hala ezegonkortasun egoera nabarmen handitzea eragiten du.

Ondorioz, Gomendio Orokor bat egin behar dela uste dugu, tartean dauden eragile juridiko guztien partetik arrazionaltasun irizpideak barne hartzea aurrez proposatzu³⁴. Horren bidez gure helburua bi joerek bata bestea goranzko espiral baten moduan bultzatzea saihesten laguntzea da, justiziaren zerbitzu hobea sortuz, eta erabiltzaileen eskubideen alde eginez.

Gai horren inguruko beste gomendio bat ere Osakidetza-ri zuzendu genion ([2009ko ekainaren 29ko Arartekoaren ebazpena](#))³⁵ egin zuen 53.964,50 euroko erreklamazioagatik, eta errekareruagatik beste 5.396,45 euro erreklamatu. Kopuru hori istripu baten ondorioz ebakuntza kirurgikoa izan zuen gazte bati erreklamatu zion. Gazteak auzitegitara jo zuen 1.200.4000 euroko kalte-ordaina eskatuz paralisia zuelako ondorio bezala. Eskatutako fakturak behar ez zen partida bat zuen gehituta, baita administrazioak antzeman behar izan zuen kalkulu akats bat ere, erreklamazioan urte bete baino gehiago iraunez. Akatsa antzematea gure esku hartzearen lehenengo zatia izan zen, eta horrek administratioari 31.290,50 euroko beste erreklamazio bat egitea eragin zuen, aurrekoa ondorio gabe utziz eta zenbatekoa ordaintzeko borondatezko epe berri bat emanez. Bigarren zatia bigarren erreklamazioaren zenbatekoa berriz kalkulatzeko gomendatzea izan zen, ondorio horietarako jurisprudentziak xedatzen dituen haztapan irizpideak ezarriz. Hortaz, gure ebazpenak ez zuen adierazten zein izan behar litzatekeen zenbateko berria, ez eta zenbateko hori eskatutakoak baino

³⁴ GOMENDIO OROKORRA: "Administratioarekiko auzibideko apelazioen arriskuak: erabiltzaileentzako informazioa hobetzeko eta administratioak kostu gisa erreklamatu dituen profesionalen ordainsariak neurtzeko beharra"

³⁵ Arartekoaren ebazpena, 2009ko ekainaren 29koa. Horren bidez Osakidetza-ri gomendatzen zaio, prozesuko kostu gisa, kexagileari eskatutako zenbatekoaren kalkulua berriro egitea, ondorio horietarako jurisprudentziak xedatzen dituen haztapan irizpideak ezarriz.

txikiagoa izan behar litzatekeen; balorazioa egitean administrazioak kontuan izan ez zituen irizpideak haztatzeko bakarrik adierazten zuen.

Euskal Osasun Zerbitzuak gomendioa baztertu egin zuen espedientearen hasieran egingdako alegazioetan oinarrituta, gomendioa betez gero konparaziozko bidegabekeria egoera sortuko lukeelako, Legeak baimentzen ez dituen interes publiko kobratzeari uko egiteaz gain. Hala ere, ebazpenak, alegazioei erantzunez, aurkako iritzia oinarritzeko erabilitako azterketaren kontrakoa dioen arrazoiaketa batean ere ez da oinarritzen goian aipatutako ezer. Erakunde honen aldetik, beraz, ez dugu uste aldatzeko arrazoirik dagoenik.

3. JURISDIKZIO ZIBILA

Jasotako hainbat kexa **nazioarteko adopzioaren eta foru erakundeen kargura dauden adingabeen tutoretzari, eta familia harrerari buruzko gaien ingurukoak izan dira.** Kexetako bat izapidetzean Gipuzkoako Foru Aldundiaren familia harrera profesionalaren programara ekarpenak egiteko eman zigun aukera azpimarratzekoa da. Kexa aurkezteko orduan adingabe bat zaintzen zuen kexagileak aipatutako harreraren inguruan foru zerbitzuekin izandako bileretan bere bikotea bertan egon ezin izana adierazi zuen, ez eta berak hartutako umea adopzio aurreko familia batean pixkanaka sartzeko egindako batzarretan ere.

Familia harrera profesionalen programak, Catalina de Erauso elkartearekin sinatutako hitzarmen baten bidez antolatutakoak, harrera egiten duen pertsonarekin bananakako harreman juridikoa ezartzen du. Hala ere, inguruabar hori soilik ez da ezkontidea –edo antzeko figura– Aldundiarekin edo adopzio aurreko familiarekin izandako bileretatik baztertzeko arrazoi nahikoa, bikoteak umea hartzen duen familia unitatea osatuz gero. Aldiz, harrera garatzen duen programak ez du baztertzeko pertsona hartzailea bere bikotearekin batera bizi izatearen aukera, berez sarritan ematen dena. Ondorioz, hori hala izanik, harrera arrakastatsua izan dadin familia unitateko kide guztiak parte hartzea beharrezkoa da; horrek hasiera batean bikotea bileretan egotea gomendatuko luke. Parte hartze hori harreraren oinarritzeko elementua da, hala begiesten da harrera borondatezkoa denean, eta harrera profesionala denean horren garrantzia ez da gutxitzen harrera hori banakako pertsona batekin egindako adostasun baten bidez antolatuta dagoelako. Hori guztia, jakina, kasu zehatz batean bikotea bileretan azaltzea debekatzeko moduko arrazoirik ez balego; hori hala balitz, kasuaren berriazko ebazpen arrazoitua eman beharko litzateke.

Hortaz, administrazioari harrera mota horiek arautzen dituen araudian pertsona hartzailearen bikoteak harreraren fase ezberdinetan izan dezakeen eta izan behar duen zereginari buruzko aurreikuspena eransteko iradoki diogu. Aurreikuspen horrek, prozesua ahalik eta arrakastatsuen izan dadin, administrazioarekin egingo diren bileretan eta topaketetan hartzailearen bikotea ere bertan egon ahal izatea jasoko du, baita bikotea egote eragotzi behar diren kasuak ere, beti hala ez izatea aholkatzen duen banakako txosten arrazoitu bat oinarri izanik. Administrazioak hasiera batean esan zuen kontuan izango zuela kasuan kasuko arauen berriak berriak berriak, eta ondoren irizpide horiek erantsi zirela jakinarazi zigun.

Beste urte batez, jurisdikzio honekin lotuta aurkeztutako erreklamazio gehienak **ezkontza hausturen** ondoriozko arazoei buruzkoak izan ziren. Horietako zenbait auzitegiek erantzuteko orduan izandako atzerapenak eragindako kalteez kexu ziren, gurasoetako batek, **egitezko bidetik, bien seme-alabei beste gurasoarekin komunikatzea eragozten zienean**. Kexagileek kasu guztietan egintza penal eta zibil egokiak burutu zituzten, horren ondorio bakarra eginbide judizialak zabaltzea bakarrik izanik; hala ere, eginbide horiek bideratzen ziren bitartean egoerari ez zioten konponbiderik ematen. Kasuetako batean eginbidea lau hilabetez luzatu zen Durangoko epaitegi baten epaian ezarritakoa bete ez zelako. Txosten hau amaitu zenean epaiak oraindik ez zen bete eman zenetik jadanik sei hilabeteren ondoren. Beste adibide bat ere aipatzekoa da duen konnotazio humanitarioa dela eta; egiaztatu izan genuenaren arabera, ezohiko inguruabar bi zituen gizon baten kasua zen: alde batetik, bere alabaren amarengandik tratu txarrak jaso zituen biktima zen. Alabaren amak, paradoxa den arren, berak ezarrita zuen urruntzeko agindua zuela alegatu zuen epaiketara arte alabak, lau hilabetez geroztik, aitarekin harremana izatea eragozteko; beste alde batetik, minbizia zuen, eta ebakuntza kirurgiko larri bat egitera behartuta egoteaz gain, bizitzeko aukera emaitza ziurra ez duen eta pixkanaka ahultzen zion kimioterapia tratamendu gogorraren arrakastaren arabera zen.

Adierazgarria iruditzen zaigun beste kasu bat amak Durangotik Rotara lekualdatu zuen haurrarena da. Rotan arrisku larriko baldintzetan zuen haurra, amaren droga-mendetasunagatik; horrek Cadizen adingabeen fiskaltzak eta Zigor Arloko Epaitegi batek ebazpenak ematea eragin zuen adingabearen eta aitaren arteko harremana berriz hastea gomendatuz, eta haurra zegoen bazterketa egoeraz ohartarazi eta zaintza aitari ematea baloratzeko iradokitzen zuten. Hala ere, egoerak 18 hilabetez luzatu zen, aita Durangoko epaitegi batek ezarritako aita-semeen arteko harreman erregimena betearazteko alferrik eskatzen aritu zen denbora alegia, Bizkaiko Probintzia Auzitegiak dibortzio epaia baliogabetu eta aita guraso zaintzaile izendatu zuen arte. Amak ebazpena ontzat hartzeari uko egin zionez, aitak, ebazpenean xedatutakoa betetzeko, epaitegian Rotako gizarte eta polizia zerbitzuari haurra aurkitzeko eskatzeko erregutu zuen aitaren zaintzapean ahalik azkarren jar zezaten. Aitak, hilabeteren ondoren egindako eskaeraren inguruko ezer jaso ez zuenez, Arartekora jo zuen kexaz.

Erakunde hau ezin izan da kexa horietaz zuzenean arduratu, izan ere, horrek bide judizialetik hartu behar diren neurriak eskatzeko modukoak izan ziren gaien inguruan esku hartzea esan nahiko luke. Hala ere, bien bitartean adingabeen eskubideak urratzeko arriskuaz ohartarazi gintuzten neurrian, adingabeen defentsa arloan Legeak fiskaltzari agintzen dizkion eginkizunak kontuan hartuta, egoera horiek guztien berri ematera behartuta geunden. Horren harira, Ministerio Publikoak kasu horiei konponbidea aurkitzen laguntzeko duen prestasuna eta zorrotasuna aipatu behar dugu.

Adingabeek bi gurasoekin eta familiarekin zuzenean eta sarritan harremana izateko eskubideari lotutako beste 72 kexa jaso genituen 2009an, eta azaldu dugun bezala modu bateratuan aztertu ditugu, antzeko edukia izan dutelako. Azken urteetan izandako ezkontza hausturen igoera dela eta eskubide horren urraketa jasaten duten adingabe asko daudela azaldu zuten, Euskal Autonomia Erkidegoko epaitegiek 10 kasutatik 9tan zaintza eta

babespea amari ematen diotelako. Horrek pasa den mendeko eredu sexistak jarraitzen dituela salatu zuten, eta hori gainditzea beharrezkoa zela emakumeen eta gizonen arteko funtsezko berdintasuna bermatze aldera. Horregatik, erakunde honek Lege egokia aldatzeko bultzatzea eskatu zuten, gurasoen artean adostasunik lortzen ez den kasuetan **guraso bien seme-alaben zaintza eta babespe partekatua** judizialki ezartzeko aukera ezohikoa izan ez dadin, Frantzia eta Italia bezalako herrialdeetan bezala.

Gure azken ohiko bi txostenetan arazo honen inguruan gogoeta egiteko aukera izan dugu, Arartekoan geroz eta kexa gehiagoren gaia dena. Aurten pilatu den eskari ugarien aurrean bidezkoa iruditzen zaigu bi alderditan jardutea: Alde batetik, estatuko Herriaren Defentsa bulegoei gaiaren inguruan dugun iritzia azaltzea, gogoeta horretan garatutako baldintzetan, egoera Gorte Nagusiei azaldu diezaien eta hala denean, eskuduna den legegintzako organoa izanik, legearen aldaketa egokia iradokitzea; beste aldetik Eusko Legebiltzarrari, gaiaren inguruan legeak egiteko eskumenik ez duela albo batera utzita, gaiari buruzko lege proposamen bat egiteko aukera aztertu dezan edo, ahal denean, Gorte Nagusietan legegintza ekinbidea izatea.

4. JURISDIKZIO PENALA

Atal honetan instrukzioan zehar izandako identifikazio akatsei eta atzerapenei loturiko **akats materialek** eragindako erreklamazio ugari daude. Hasieran azaldutako arrazoiak tarteko kexa horiei esku hartze formal baten bidez arreta eman ezin badiegu ere, epaitegian egindako kudeaketan bidez konpondu ahal izan ditugu. Kexa horien artean beharbada deigarriena 1996an utzitako fidantza baten inguruan egindakoa da; akats baten ondorioz fidantza hori epaitegi batetik beste batera eraman zuten eta urte hauetan guztietan ez zen berreskuratu gaia 1997an artxibatu zen arren. Hori ebazteko Justizia Ministerioaren laguntza eskatu –eta lortu– genuen, Administrazioa Eraberritzeko eta Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren bidez.

Beste alde batetik, erakunde honetan aurkeztutako kexetako batzuek hainbat izapide egiteko epaitegietan zitazioen arloan hobetzeko dagoen tartea agerian utzi dute, baina oraindik prozesu judizialeko arazoak zuzenean azaldu gabe.

Izapideak bizkortzea eta hauek errepikatzea saihestea, interesdunei beharrezko informazio guztia ematea eta hizkera egokia eta ulergarria erabiltzea, besteak beste, zitazio horien kalitatea hobetzen lagunduko dute; neurri horiek Arartekoak aurreko ohiko txostenetan Legebiltzarrean ere azaldu zituen. **Epaiketa azkarren** arloan ere aurten mota horretako akatsak azaldu dira. Horien adibide bat emakume batek epaitegi batetik jaso zuen zitazioa izan daiteke; epaitegiaren aurrean agertu behar zuen “bestelako arrazoiak” zirela eta akusatuta, egotzi zitzaizkion egitateei zegokien tipo penala inprimakia betetzeko erabilitako programan azaltzen zen hondarren kategorian bakarrik jar zitekeelako. Beste kexagile batzuk beren defentsa prestatzeko denborarik ez zutelako ziren kexu. Beste kexa batzuetan, azkenik, pertsonak guardiako epaitegian lehenengoz agertzean zuten nahastea egiaztatu ahal izan genuen, bai auzitegitik akusazioak eta defentsak adostutako kondena batekin

ateratzeko aukerari dagokionez, eta baita defentsarako eskubidea erabili eta epaituari dagokion eskubide eta betebeharrak jakiteari dagokionez ere.

Hori dela eta Arartekoak ofiziozko jarduera bat hasi zuen izapide horien kudeaketa hobetzen laguntzeko justizia administrazioaren erabilzaileek jasotzen duten zerbitzuaren alde, hobekuntza hori gure eskumenen esparruan dauden administrazioei egokituz gero. Horretarako Eusko Jaurlaritzaren Justizia eta Herri Administrazio Sailera jo genuen eta ondoren datozen esparruetan azaldukoaren inguruko irizpideak bateratzeko beharra azaldu genion:

- Esparru polizialean, udaltzaingoek eta Ertzaintzak zitazioen hartzaileei bidaltzen dizkieten inprimakietako informazioaren bidez.
- Esparru judizialean, dekanotza bakoitzak epaiketa azkarren agerpenetarako koordinatuz ezartzen duen egutegiari lotuta.

Bi alderdi horiei lotuta Arartekoak ebazpen bat eman zuen ([2009ko abenduaren 1eko Arartekoaren ebazpena](#))³⁶ eta aipatutako Saileko Justizia Zuzendaritzarekin elkartu ginen. Zuzendaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko epaiketa azkarrak ezartzeko jarduera protokoloak ematen duen egintza tartean dauden eragile guztien ahaleginen buru izateko konpromisoa hartu du, honako hauek lortzen laguntzeko:

- Prozedura mota horretarako zitazioak argiagoak izatea, baita protokoloan adostutako ereduera egokitzen ez diren kasuetan berdintasuna izatea ere.
- Epaituari prozeduraren ondorioen informazio hobea ematen dioten profesionalen eta funtzionarioen trebakuntza hobea.
- Indarrean den legeria hautsi gabe, epaituari defendatzeko eskubide osoa izan dezan nolabaiteko tarte emateko konponbidea aurkitzea, auzipetutako egitea egin eta hurrengo egun baliodunean izaten baita zitazioa, defentsa libre aukeratzeko denborarik gabe.

Gomendioa egitea eragin zuen beste kexa bat ere izan genuen, herritar batek, **absolbitu zuten arren, prozedura penal batean izateak sortu zizkion kalteak** zirela eta aurkeztu ziguna ([2009ko apirilaren 20ko Arartekoaren ebazpena](#))³⁷. Emazte ohiak tratu txarren delitu bat salatu zuen kexagilearen kontra eta epaitegiak absoluzio epaia eman zuen; epaia irmoa zen salaketa kontraesankorra izanik sinesgarritasuna falta zuelako eta banantze prozesu liskartsu bateko desoreka paranoidea zegoelako tartean. Hala ere, aste bete berandago, emakumeak Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Saileko

³⁶ Arartekoaren ebazpena, 2009ko abenduaren 1ekoa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Sailari iradokitzen zaio epaiketa laburretarako zitazioei buruzko irizpideak batera ditzala, defentsa eskubidea eraginkorra izango dela bermatzeko.

³⁷ Arartekoaren ebazpena, 2009ko apirilaren 20koa. Horren bidez, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Sailari gomendatzen zaio bere espedientetik ken dezala genero indarkeriaren biktimak diren emakumeei laguntzeko zerbitzuaren txosten bat, honek sortutako kalteak zuzen ditzala baita aurrerantzean txostenak egiteko irizpideak ere. Txosten horrek delitua delitu horretatik absolbitutako pertsona bati egotzen zion.

etxean tratu txarrak jasotzen dituzten eta sexu erasoen biktimei laguntza psikologikoa emateko zerbitzura jo zuen. Zenbait terapia saioen ondoren, foru erakundeak zerbitzu hori emateko hitzartuta duen bulegoak erabiltzaileak eskatutako txosten bat egin zuen eta bertan emakumea auzitegiek absolbitu zituzten senar ohiaren egitate berberen biktima izan zela egiaztatu zen.

Kexagileak zioen, agerian faltsua zen salaketa baten biktima izanak dakartzan kalteak jasan ondoren, txosten hori egin izanak defentsarik gabeko egoeran jartzen zuela, epaitegiaren aurrean errugabe bezala agertu izana jada baliogabea izanik. Horren harira esan zuen agiriak, instituzio bermearekin, delitu larriak egin izana egoztean alde batetik bere ohoreari larri erasotzen ziola. Adierazitakoaren arabera, horrez gain, min eta ardura gehien eragiten ziona, emazte ohiak kexagileak bere seme-alabekiko zuen komunikazioari jarri nahi zizkion mugak justifikatzeko erabiltzea zen, epaiketari adostutako neurriak hautsiz.

Kasua aztertuta, Sailak bi zentzutan oker jokatu zuela ondorioztatu genuen: alde batetik, Sailaren zerbitzuek egindako txostenak kexagilearen ohorea bidegabeki eraso zuten; bestetik, Arartekoak Saila akatsaz ohartarazi ondoren, zuzentzeko hartutako neurriak ez zitzaizkigun behar bestekoak iruditu. Hala jakinarazi genion, zuzenketa hori ezagutzen zuen epai irmo batetik eratorritako errealitate juridiko saihestezinari lehentasuna ematen ziola esanez. Ondorioz, txostena baliogabetzeko itzultzea eskatzeko eta horren guztiaren berri kexagileari emateko gomendatu genion, eragindako kalteagatik barkamena eskatuz. Administrazioak lehenengo hiru alderdiak onartu zituen, baina interesdunari sortutako kaltean izan zuen erantzukizuna ez zuen aitortu, eta interesdunari eragin ahal izan zizkion kalteak deitoratzen zituela bakarrik adierazi zuen.

Gure ebazpenak, halaber, etorkizunean mota horretako txostenak egiteko irizpide batzuk proposatu zituen. Irizpide horien inguruan Emakunderekin eta Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta emateko zuzendaritzarekin batera lan egiteko aukera izan genuen kasuan kasuko Erakundeen arteko Talde Teknikoan eta Batzordean jarduteko protokoloak lantze aldera.

Egindako beste gomendioetako bat, prozesu penaletan, prozesua dela eta, epaileak **ondasun higigarri bat bahitzeko edo epailearen zainpean uzteko** agintzen duenean, **eta dituen tamaina edo ezaugarri bereziengatik epaitegian ondorio horietarako jarritako gordetegian babestu ezin denean** eta ondorioz kanpoko zerbitzu batera jo behar izateak sortzen duen kostuari aurre egiteak dakarren arazoa izan zuen helburu,

Kontua bereziki larria da ibilgailuen kasuan, izan ere, gure eskumenekoa den esparru geografikoan udalaren titulartasuna diren gordetegi zehatzetara eramaten dira; biltegi horietan ibilgailuen narriadura saihestezina da instalazioetan eta mantentze-lanetan behar besteko inbertsioa egin ezean. Horri lotuta justizia administrazioaren erabiltzaileen eskubideak izan behar ditugu kontuan. Justizia Administrazioaren betebeharra da gordetegian gordetzea erabakitzen dituen ibilgailuak ematea, baita adosten den denboran zehar erabiltzeari uko egitea; ez ordea ibilgailuak kontserbazio eta segurtasun baldintza egokietan zainduz gero saihestu ahal izango lirakeen kalteak izaten uztea. Hala ere, kontua da ez dela zentzuzkoa

udal gordetegiek, egonaldi labor samarretarako diseinatutakoak, ibilgailuek agintaritzaren esku eman dezaketen denboran ibilgailuen egoera ona zaintzeko eginkizuna beteko dutela itxarotea –batzuetan kontuan hartzekoa izaten da-, horrek sortzen duen gas-tuari aurre egiteko bitartekoak eman ezean.

Hortaz, autonomia erkidegoko administrazioak higikor horiek mantentzen lagundu behar du, justizia administrazioak bere eginkizunak behar bezala garatzeko behar duen bitarteko materiala den neurrian. Horregatik, kostuetarako kondenarik ez dagoen kasuetan, agintaritzaren judizialak balore judizialtzat jotzen diren ondasun higikorretan ezartzen duen zaintzatik eta gordetegitik ondorioztatutako gastuei aurre egiteko bitartekoak gaitzeko gomendatu diogu, Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duen epaitegi edo auzitegi batek izapidetutako prozedura penal baten esparruan, dituzten ezaugarri bereziak direla eta ondorio horietarako jarritako gordetegi judizialean zaindu ezin direnean ([2009ko ekainaren 18ko Arartekoaren ebazpena](#))³⁸.

Atal honi amaiera emateko, **inkomunikazio erregimenean atxilotuta daudenei egingandako tratu txarrak eta torturak** salatuz jaso ditugun kekek aipatu behar ditugu. Estatuko Herriaren Defentsariari igorri dizkiogu kasu guztietan Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen jarduerari egiten dietelako erreferentzia.

Hori albo batera utzita, Arartekoaren eskumen esparruak, pertsona guztien eskubideen berme bezala, Ertzaintzaren inkomunikazioaren erabilera hartzen du barne. Horri lotuta, fitura eztabaidagarri horren erabilerak sortzen digun kezka adierazi nahi dugu, izan ere, horri jarraiki, Legeak atxilotetan zehar askatasuna kendu zaion pertsonaren eskubide batzuen murrizketa baimentzen du.

Eztabaida hori, jakina den bezala, inkomunikazioak, atxilotutakoari ematen zaizkion tratu txarrak edo tortura prebenitzeko bermeen eraginkortasuna baldintza dezaketen edo atxilotuak aurkez ditzakeen salaketan ikerketa zailagotzen duten opakutasun guneak sortzeko arriskuaren ondorioz sortu da. Hala adierazten du berariaz Eusko Jaurlaritzak 2006ko abenduan eta 2007ko urtarrilean.

Aurten gure kezka hazi egin da 2009an zehar ezagutzera eman ziren bi epai garrantzitsutatik eratorritako ondorioak direla eta.

- Lehenengoa atzera begirako azterketa da, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritzak 2009ko martxoan eskatutakoa eta argitaratutakoa azken zortzi urteetan inkomunikatutako atxilotuen tortura eta/edo tratu txarren kasu posibleei buruzkoa: *2000tik 2008ra Euskal Autonomia Erkidegoan inkomunikatutako atxilotuek jasandako torturaren dokumentazioa: ikuspegi zientifikoa*. Azterketa Auzitegiko Me-

³⁸ Arartekoaren ebazpena, 2009ko ekainaren 18koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Sailari gomendatzen zaio ibilgailuen eta antzerako ondasun higigarrien gordailu judizialek eratorritako Justizia Administrazioaren gastuei aurre egiteko bitartekoak jar ditzala.

dikuntzako Euskal Erakundeko mediku batek zuzenduriko mediku talde entzutetsu batek egindakoa da eta azterketa aldi inkomunikatutako pertsona atxilotu guztiek egindako alegazioak egon diren ala ez ikertu zuen, atxilotutakoek aurkeztutako testigantza eta salaketa judizialetan azaldutako tortura eta tratu txarrak emateko moduak kasu bakoitzean egindako auzitegiko txosten medikoetan azaldutakoekin alderatuz. Halaber, kriminologiako eta prozesuko zenbait aldagai aske tratu txarren edo torturen alegazioen maiztasunarekin lotzeko modua aztertu zuten: atxiloketaren arrazoia, inkomunikazioaren iraupena, atxiloketa burutu zuen polizia taldea eta inkomunikazioaren ondorengo egoera legala. Horrekin guztiarekin tortura salaketa guztiak edo ia guztiak faltsuak direla eta instrukzio orokor bat jarraitzen dutela dioten hipotesiaren aurkako hainbat adierazle estatistiko daudela ondorioztatu zuen, baita inkomunikatutako pertsona atxilotuen tortura prebenitzeko neurriak eskasak eta ez eraginkorrak direla defendatu ere.

- Bigarrena Nazio Batuen Torturaren Aurkako Batzordeak egindako Azken Oharrak dira 2009ko azaroaren 12an eta 13an Genevan egindako 914 eta 914 bilkuretan Espainiako Aldizkako Bosgarren Txostena (CAT/C/ESP/5) aztertu ondoren. Batzordeak, Espainiak gai horren inguruko legeak, politikak eta prozedurak aldatzeko egindako ahaleginak ontzat eman ondoren, oraindik ere alderdi guzti horien eta Itunak Torturaren eta bestelako Tratu edo Zigor bihozgabe, anker eta laidogarrien aurka ezartzen dituen bermeen arteko desadostasuna nabarmentzen duten hainbat puntu aipatu zituen. Puntu horietatik bi bereziki aipagarriak iruditzen zaizkigu: alde batetik, tortura delitua zehatzeko zigorrak ez datoz bat delituaren larritasunarekin (8. oharra); bestetik, inkomunikazio erregimenak zuzenbide estatu bateko tratu txarren eta tortura egintzen aurkako babesa urratzen du (12. oharra). Ondorioz, estatuak aparteko erregimen hori berrikusi behar duela adierazten du, indargabetu dezan. Erakunde hau ere indargabetzearen aldekoa da 2004ko abenduko torturari buruzko aitortzea egin zuenetik.

5. DOAKO JUSTIZIA ETA ABOKATUEN ELKARGOAK

Egia da Doako Justizia eskaintzearen ukapenei buruz jasotako kexak ez dutela administrazioaren jardura desegokia planteatzeko beharrezkoa islatzen, baina hala ere, kexa horietako batzuek hobetu dezakegun tarte bat antzemateko aukera eman digute. Hobetu beharreko arlo hori eskaera egiten duen pertsonaren eta onura hori aplikatzea dagokion instantziaren arteko komunikazio prozesuari buruzkoa da. Jarraian gai hori zehazten dituzten ildoak laburbildu eta urte honetan zehar inplikaturako instantzietan planteatu dizkiegun arloak azalduko ditugu, hausnarketa bateratua eta erakundeen arteko beharrezko koordinazioa lortzeko asmoz. Gai honi buruz jaso dugun jarrera hartzailea eta laguntzailea aitortzea ere justua da, bidenabar, Justizia eta Herri Administrazioa Saitetik zein Abokatuen Elkargoetatik.

- Alde batetik, korporazio administrazio diren aldetik, esparru horretan Abokatuen Elkargoek izan duten jardura azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazioeko Prozedura Erkideari buruzko 30/92 Legea egokitu

behar da. Horren ondorioz, ulertzen da Doako Justizia eskatzen duten pertsonei Argibide Juridikoen Zerbitzuak (AJZ) zuzentzen dizkien komunikazio eta eskakizunek aipatutako Legeko 59 eta 61. artikuluetan aurreikusitako arauak bete behar dituztela, batez ere jakinarazpenen ziurtagiriei dagozkien atalak, bai jaso izanaren adierazpenaren zein zuzenbidean onar daitekeen beste modu baten bitartez.

- Beste alde batetik, beharrezkoa da eskatutako dokumentazioa aurkeztu ez izanagatik inpugnatu daitezkeen artxibatutako erabakiei buruz irizpideak adostea; hortaz, eskakizun hori zuzenbideari egokitu ez den kasuetan (zalantzarik gabe, ohiz kanpokoak), arrazoi hori dela medio egindako ukapenak zuzendu daitezke. Hori xedatzen du, hain zuzen ere, Doako Justiziaren Legearen 20. artikulua; horrez gain, ez dirudi aurka egiteko aukera ezin daitezkeen iritsi Batzordearen ukapen ebazpenetara edo dokumentu berdinarekin 14. artikulua *in fine* Abokatuen Elkargoei ematen dizkien artxibatutako gaitasunaren babespean erakunde horiek emandako ebazpenetara. Aitzitik, aukera horren indarra murriztu egingo litzateke interpretatuz gero soilik lehenengoei eta ez bigarrenari egiten diela erreferentzia. Izan ere, badirudi irizpide hori jarraitu dela aztertu ditugun zenbait ukapenen kasuetan. Hortaz, ulertzen dugu aipatutako sailak berak gai horri buruzko irizpidea ezarri behar duela, sail horren eskumenen barruan baitaude Batzordearen jarrera irizpideak eta Doako Justiziaren Legea EAEn garatzeko Araudia osatzea ere. Edonola ere, aipatutakoa egiteko Abokatuen Elkargoen iritzia kontuan hartzea oso komenigarria litzateke.
- Hirugarrenik, izapidetutako txostenetan irizpide zehatzak proposatu ditugu, interesdunei eskatzen zaizkien dokumentuen berri eman eta horiek zeri buruzkoak diren azaltzeko bidaltzen zaizkien idazkien komunikazio kalitatea hobetzeko.

Horrek guztiak erreferentzia egiten dio, azken finean, AJZ eta Doako Justiziako Batzordeek erabiltzaileei eskaintzen dizkien zerbitzuen ikuspegiari. Erakunde honen betebeharra da biek ala biek esparru honetan garatzen duten lanaren osagai soziala nabarmentzea, Doako Justizia arautzen duen Legeak lortu nahi duena, alegia: Laguntza juridikoa behar duten gizarte egoera ahuleko herritarrak babestu, haien legezko eskakizunak bete ditzaten edo eskubideak defendatzen laguntza jaso dezaten.

Ildo beretik, kezkatzeko bi arrazoi nagusi izan ditugu: Lehena dohainik auzitan aritzeko beharrezko eskakizun ekonomikoak aztertzerakoan antzeman dugu. Batzuetan, eta objektibotasuna bermatzeko eta konparaziozko bidegabekeria saihesteko, azterketa burutzerakoan soilik genero aldeko kategoria estereotipoak aplikatzen dira, eta horrek praktikan bidegabeko egoerak edo egoera paradoxikoak eragiten ditu. Hori gertatu zen, esaterako, bere jatorrizko herrialdetik bere alabak ekarri nahi zituen emakume bati laguntza ukatu ziotenean, beharrezko diru-sarrerak ez zituelako eta gizarte behar larrietarako laguntzekin osatu behar zituelako. Ebazpen horren aurka egiteko doako justizia eskatu zuenean ez zioten onartu zituen diru-sarrerak, laguntza horiek zenbatu gabe, gehiegizkoak zirelako. Doako Justizia arautu berriak horrelako laguntzetatik eratorritako errenten tratamenduan mota horretako akatsak saihesten laguntzea espero dugu; modu horretan onura horretarako eskubidea izateko eskakizun ekonomikoen lehia Batzordeak balioetsi beharko ditu eskatzaileen egoera

pertsonalak ahal bezain sakon eta zehatz aztertu ondoren; modu batean hori ez da bateragarria Batzordearen jarrera zuzendu behar duen inpartzialtasunarekin, ez eta iruzurreko edo oinarri legalik ez duten eskaerak antzeman eta ukatzeko zorrotzasunarekin ere.

Bestalde, pertsona horiek askotan aurkeztu ohi dituzte mota guztietako gabeziak, ez soilik alor ekonomikoan. Batzuetan, aurkeztu beharreko dokumentazioa lortzeko beharrezko gaitasun eta baliabide sozial eta kulturala ere falta zaizkie, baita dokumentu horien edukia edo doako justiziaren onuren irisgarritasuna eta mugak ulertzeko ere. Horregatik ulertu behar dugu Argibide Juridikoan Zerbitzuak ematen dien arreta ezin dela mugatu onura hori jasotzeko eskubidea ematen duen eskakizun legalak ondo betetzen dituztela frogatze hutsera. Izenari jarraiki, zerbitzuak pertsona horiei aholkularitza eta laguntza eskaini behar die gabeziek eskubide lagungarriak epaitegien aurrean erabiltzeko aukera oztopatu ez dezaten, eta hori guztia errespetuzko eta enpatiazko jarreratik burutzea.

Azken puntu horren haritik Gipuzkoako Abokatuen Elkargo Prestuarekin bilera bat izatea eskatu genuen, horri buruz jasotako zenbait erreklamaziok elkarte horrek emandako zerbitzuari egiten baitie erreferentzia, baita diziplina espediente bat artxibatzearen gainean egindako gomendio batek ere ([Arartekoaren ebazpena, 2009ko uztailaren 17koa](#))³⁹. Elkargo horretako dekanoak eskainitako jarrera eraikitzaile eta kolaboratzailea eskertu behar dugu, baita korporazioa agiriaren, artxiboko ebazpenen arrazoien eta AJZren lanaren printzipio iradokitzaileen inguruan jakiteko aukerari buruz guk adierazitako irizpideekin bat zetorrela esateko ondoren helarazi zigun idazkiagatik ere, eta etorkizunean elkargoen zerbitzuen funtzionamendua irizpide horietara egokituko zela jakinarazi zigun.

³⁹ Arartekoaren ebazpena, 2009ko uztailaren 17koa. Horren bidez, Gipuzkoako Abokatuen Elkargoari gomendatzen zaio deontologia arau-hausteak salatzen dituzten pertsonen jardueretako agiriaren berri ematea eta arau-hauste horiek artxibatzearen arrazoiak beti ematea, bai diziplina espedienteak, bai informazio eginbideak amaitzat jotzen direnean.

1.9

INGURUMENA

9. INGURUMENA

Sarrera

Arlo honetan 82 kexa jaso dira. Azpiarloka duten banaketaren arabera, honela sailkatu daude:

- Egoitza lurzoruko jarduera sailkatuak	48
- Ingurumeneko beste eragin batzuk	23
- Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa	6
- Industria lurzoruko jarduera sailkatuak	4
- Hondakinak eta isurketak	1

Eraginpeko administrazioak kontuan hartuta, kexak honela sailkatu ahal ditugu:

- Tokiko administrazioa	77
- Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza)	7
- Foru administrazioa	3

Aurten ere, aditzera eman behar dugu erreklamaziogileak gure hiri eta landa inguruak jasan-dako erasoekin kezkatuiko taldeak edo elkarteak izan direla, baita gugana zuzen-zuzen jo duten norbanakoak ere, ingurumen eraginaren zuzeneko eragina jaso dutelako.

Erakunde honek, arlo honetan, ikuskatu egin behar ditu ingurumenaren arloan eskumenak dituzten Euskadiko Herri Administrazioek garaturiko jarduketak, arauzko esparruan ezarri-tako baldintzetara egokitzen direla egiaztatzeko.

Konstituzio testuko 45.2 artikulua honetara behartzen ditu herri botereak: *“ingurumen baliabideak zentzuz erabiltzen direla zaintzera, bizi kalitatea babesteko eta hobetzeko eta ingurumena suspertzeko, taldeko ezinbesteko elkertasunean euskarriz.”*

Baldintza hori kontuan hartuta, atal honetan labur-labur aztertuko ditugu aurten arlo honetan izapidetu diren alderdiak.

- Egoitza lurzoruko jarduera sailkatuak

Aurreko Arlo honetan salaketarik gehien eragin dituzten kexak, aurreko ekitaldian bezala, egoitzako hiri lurzorian kokaturiko jardueren (jarduera sailkatuak izena dutenak) funtziona-mendu irregularren ondoriozko zaratek, usainek eta keek sorturiko eragozpenei buruzkoak izan dira.

Erreklamazio horiek, jakina denez, eredu bera dute; hau da, halako instalazioen eraginpeko zonetan bizi diren pertsonak salaketak egiten dituzte udaletan, eta, zenbait hilabetetan (kasu batzuetan, urteak) alfer-alferrik toki erakundearen soluzioaren zain egon ondoren, erakunde honetara jotzen dute.

Jarduera lizentziak funtzionamendu lizentzia ezagunen arlokoak dira, baimena ematen duen administrazioaren kontrol iraunkorra behar duten instalazioetarako ematen baitira, harik eta horiek itxi arte, halako jardueren garapenak ingurumenean eraginak sortzeko arrisku iraunkorra baitago. Horrenbestez, Administrazioak, edozein unetan, neurri zuzentzaileak ezartzeko ahalmena dauka, ekitaldi horretan sortzen diren arazoak konpontzeko; gainera, neurriok ikuskatzeko eta gaurkotzeko ahalmena ere badauka, funtzionamendu egokia bermatzeko eraginkortasunik ez badute.

Ekitaldi honetan hasitako espedienteen izapidetzean, aurtan ere ikusi dugu kezkarria dela Udal Administrazioak arlo honetan duen lan fiskalizatzailea. Tresna juridiko-tekniko egokiak ditugu, halako jarduerak sorturiko eragozpenen eraginpeko pertsonen funtsezko eskubideak urratzea sortzen duten alderdiak konpontzeko; hala ere, oraindik ere handia da jarduera sailkatuen (batez ere, ostalaritzako establezimenduen) ikuskapen eta kontrol funtzioak gutxien dituzten EAEko udalari kopurua. Sarritan, ez die arreta egokirik ere jartzen, eta haien kudeaketa egokiak behar dituen baliabideak ere (materialak eta giza baliabideak) ez dizkiete eskaintzen.

Egoera horren ageriko adibide bat [Arartekoaren abenduaren 15eko ebazpenean](#)⁴⁰ aurkitu daiteke; ebazpen horren bidez, Zamudioko Udalari gomendatu zitzaion udalerriko ostalaritza establezimendu bati indarreko legerian ezarritakoa bete zezala eskatzeko.

Hain zuzen ere, egindako gomendioan neurketa egokiak egiteko eskatu genuen, aipaturiko jardueraren isolamendu akustikoa zehazteko, baita establezimenduaren gaineko etxebizitzako inmisio mailak ere, jarduera errendimendu betean dagoenean, eta, behar izanez gero, gaueko ordutegian ere bai. Gainera, eta behin-behinean, lokaleko musika aparatuak, telebistak eta abar berehala kendu beharra berretsi genuen.

Bestalde, Iruneko zonako jabeen erkidego batzuek erakunde honetan aurkezturiko kexa aipatu nahi dugu. Erkidego horiek idazkian salaturikoaren arabera, Udalak ez zituen bere erantzukizunak betetzen, haien kalean ostalaritzako establezimendu gehiegi baitzegoen. Hain zuzen ere, jabeen erkidego horiek ziotenez, azken urteotan zonan gaueko zarata sortzen zuten jardueren hazkunde itzela egon zen, bai instalaturiko ostalaritzako jarduera kopurua eta bai horien inguruan garatzen diren egintzak kontuan hartuta.

Egindako kudeaketetan ikusi genuen Udala kezkatuta zegoela, eta bazekitela zona horretan esku hartu beharra izango zutela, bertako kutsadura akustikoa ahalik eta gehien murrizteko;

⁴⁰ Arartekoaren ebazpena, 2009ko abenduaren 15ekoa. Horren bidez, Zamudioko Udalari gomendatzen zaio udalerriko ostalaritza establezimenduari indarrean dagoen araudiak ezarritakoa bete dezala eskatzeko.

gainera, lan agiri bat egin eta, bertan, eraginpeko zonaren diagnostiko zehatza zegoen egin da, kale hartako zarata guneak aztertu baitziren.

Alde batetik, ostalaritza establezimenduen gehiegizko metaketak sorturiko eragozpenak identifikatzen ziren; hain zuzen ere, gutxienez, ostalaritzako lau establezimendu eta disko-teka bat zeuden, gehienez 50 metrotan.

Bestalde, zonan ingurumen zarata handia nabaritzen zen, besteak beste, edariak lokaletatik kanpo ateratzen zirelako, zaborrak biltzen zirelako, ibilgailuen trafikoa zegoelako, jarduera batzuetan zamalanak egin behar izaten zirelako eta kaletik jendea zebilelako; horri dagokionez, gizalegezkoak ez ziren jarduera batzuk aipatu behar dira, gehienbat gauez gertatzen zirenak.

Lorturiko emaitzen ondorioz, jakitera eman ziguten, besteak beste, establezimendu publikoen titularrei neurri gehigarriak hartzeko eskabidea egin zietela, lokalen isolamendu akustikoa hobetzeko. Halaber, gainerako jarduerak sorturiko zaratak ahal zen neurrian murriztea erabaki zuten, zonan neurgailuak instalatuta, mapa egokiak egiteko eta, horrela, jarduketa plan zehatzagoak ezartzeko, Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legeak ezarritakoaren arabera.

Egindako diagnostikoa eta proposaturiko jarduketa neurriak interesgarriak zirela zirudien, zonako auzotarrek jasandako ingurumen eraginak gainditzeko abiapuntutzat; hala eta guztiz ere, auzotar horiek ez zeuden pozik eskaintako erantzunarekin, eta Udalak soluzio berehalakoagoak hartzeko eskabidea egiten zuten, gai horretan erantzukizuna zuelakoan, kontuan hartuta araudian ezarritako zigortzeko neurri aplikagarriak.

Horrenbestez, erakunde honek bidezkotzat jo zuen iritzi horiek udalbatzarrari jakinaraztea, eta konpromisoa hartu zuen Udalak zonako auzotarrek jarritako salaketei (hain zuzen ere, ixteko ordutegiak ez betetzeari buruzkoak) aurre egiteko harturiko ikuskapeneko eta zigortzeko neurrien jarraipena egiteko.

Atal honetan, gure udalerrietako martxako zonetan instalaturiko **ogitarteko saltokien eta okindegien** inguruan sorturiko gatazkak ere aipatu behar ditugu.

Arartekoak halako jardueren funtzionamenduaren eraginezko arazoa aztertu zuen, 1997ko gomendio orokor batean; bertan, gaueko ogitarteko saltokien funtzionamenduari loturiko arazoak aztertu ziren, eta halakoak kaltegabetzat jotzen ziren. Gomendio horretan, hau eskatu genuen: ogitarteko saltokiek eta pintxoak eta ogitarteko hotzak eta beroak saltzen dituzten tabernen jarduerak antzeko ezaugarriak dituztenez, saltoki horiek jarduera sailkatutzat hartzea, eta, beraz, ostalaritzako eta antzeko jarduerari aplikaturiko araudira egokitu behar izatea, aintzat hartuta antzeko ezaugarriak dituztela.

Hortaz, udalei ostalaritza establezimenduak arautzen dituzten ordenantzak aldatzeko proposamena egin genien, ogitarteko saltokiak jarduera sailkatutzat jasotzeko, inguruan soinu efektu gehigarriak sortzen zituztelako eta horiek eragin kaltegarria zutelako halako lokaletatik hurbil bizi ziren pertsonen bizi kalitatean.

Ekitaldi honetan, espedienteen izapidetzean egiaztatu dugu udal batzuek jarduera sailkatu-tzat jaso dituztela euren ordenantzetan, eta, funtzionamendurako, gainerako establezimendu publikoen baldintza eta muga berberak aplikatu dizkietela.

Bestalde, aditzera eman nahi dugu udalak eskurik ez hartzearen eraginezko salaketen hazkunde nabaria egon dela, ordutegia etengabe urratu baita ostalaritza establezimenduei atxikitako eta horien kanpoaldean kokaturiko **terrazen eta mahai hankabakarren** funtzio-namenduan.

Hain zuzen ere, erakunde honetara jo duten kexen sustatzaileek agerian jarri dutenez, halako instalazioek eragozpen handiak sortzen dituzte (zaratak sortu, zikinkeria metatu, kentzeko ordutegia urratu, atarietarako eta garajeetarako sarbidea oztopatu, etab.). Kontuan hartu behar da mahai hankabakar horiek, gaur egun, sarritan urte osoan egoten direla instalatuta, eta urratu egiten dutela arauz ezarritako ordutegia; zenbaitetan, gainera, baimendutakoa baino azalera handiagoa hartzen dute. Horrenbestez, instalazio horiek arazorik ez sortzeko, beharrezkoa da udalek instalazio horiek urte osoan duten funtzionamenduaren kontrol ego-kiak egiteko behar diren baliabide guztiak edukitzea.

Bestalde, aire egokituko aparatuek eta keak nahiz usainak aireztatzeko eta ateratzeko siste-ma akastunek sorturiko arazoei (gehienbat, jatetxeetan) buruzko salaketak ere ugariak izan dira. Halaber, supermerkatuek (batez ere, gaueko ordutegian) sorturiko zaratei buruz ere erreklamazio asko egin dira; zaratok hotz ganberetako konpresoreen funtzionamenduan eta intsonorizatu gabeko barrutietan egindako zamalanetan sortzen dira. Harategietan eta arrandegietan janariak manipulatzeko sortzen diren kolpeen eraginezko eragozpenek ere salaketak sortu dituzte.

- Industria lurzoruko jarduera sailkatuak

Azpiarlo honen barruko erreklamazioak **industria jardueretatik** hurbil bizi diren pertsonen jasandako eraso eta arazo larrien eraginezkoak dira. Osasun eta ingurumen eskubidea erre-bindikatzeko jo dute erakunde honetara, eragin larriak jaso eta horiek kalte larria sortzen baitute euren bizi kalitatean.

Urte hauetan guztietan, egin diren txostenen bitartez, esan dugu azterturiko gairik gehienu-tan ikusi dugula ia ez dagoela administrazio kontrolrik, industria jardueren funtzionamenduan; permisitibitate eta pasibotasun hori oso kezagarria da, batik bat oso kutsagarriak diren jarduerari dagokienez.

Jarduera horiek baimen araubide espezifikoa edukitzeko, jakina denez, beharrezkoa da euren funtzionamenduak efektu kaltegarriak edo eragozpenak sortzea. Horrela, jarduera neurri zorrotzagoen mende egotearen helburua interes orokorra babestea da, eta, kasu honetan, kalitatezko ingurumena eta osasuna edukitzeko eskubidea bermatzea, kutsagarriak izan daitezkeen instalazio horien inguruetan bizi diren pertsonen dagokienez.

Kutsaduraren Prebentzioari eta Kontrolari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak administrazio esku-hartzeko irudi berria sortu du; horren barruan, baimen bakarraren bidez, lege hori baino lehenagoko ingurumen baimenak sartzen eta ordeztzen dira, eta, gainera, legez-tatzeko prozedura administrazio bakarrean zentralizatzen du.

Horri dagokionez, esan daiteke arau hori indarrean sartu denetik, Ingurumen Baimen Integratua (aurrerantzean IBI) fiskalizazio administratiboko teknikarik garrantzitsuenetakoa dela ingurumen eskubidean, industria instalazio berrietan eta lehendik daudenetan. Bestalde, 1. eranskinean jasotako instalazioen zerrendan egiaztatzen denez, barruan ez dira industria sektore kutsagarri guztiak sartzen; baina, kutsadurarik handiena sortzen dutenak eta, beraz, Legean ezarritako ingurumen prebentzioko helburuak lortzeko kontrol handiagoa behar dutenak barruan sartuta daude.

2007ko urriaren 30ean amaitu egin zen epea lege honen eraginpeko instalazioen titularrak arauan ezarritakora egokitze eta, hortaz, manuzko IBI edukitzea. Hala eta guztiz ere, Legeak ezarritakoaren arabera, epe horretatik aurrera IBIrik ez duten enpresek behin-behinean funtzionatzen jarraitu ahal izango dute, baldin eta 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen baimena eskatzen badute, baita ingurumen organoak manuzko ebazpenak epe barruan eman ezin izan dituenen ere.

Aurten izapidetutako kasuetan egiaztatu dugunez, EAEko ingurumen organoak eskabidea egin duten instalazio guztiei eman die IBI, eraginkortasuna honako honetara baldintzatuz: (1) enpresak agirien bidez egiaztatu behar du baimenean ezarritako baldintzak betetzen dituela, eta (2) ingurumen organoari atxikitako zerbitzu teknikoek egiaztatu egin behar dute instalazioak aurkezturiko proiektuen arabera eraikita eta hornituta daudela, eta bete egiten dituztela ebazpenean ezarritako baldintzak. Baldintza horiek guztiak betetzen direla egiaztatzeko, 6 hilabeteko epea ezartzen da, manuzko ebazpena jakinarazi eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Horri dagokionez, 16/2002 Legeko 22. artikuluan ezarritakoaren arabera, IBIk honako alderdi hauek zehaztu behar ditu, gutxienez:

- a) Isurpenaren mugako balioak, oraingo teknika hobeetan oinarrituz, 7. artikuluan ezarritakoaren arabera, substantzia kutsagarrietarako, hain zuzen ere, 3. eranskinean zerrendaturikoetarako (instalazioak isuri ahal dituen substantziak); halaber, horiek osatzen edo ordeztzen dituzten parametroak edo neurri tekniko baliokideak.
- b) Lurzoruaren eta lurpeko uren babesa bermatzen duten preskripzioak.
- c) Instalazioak sorturiko hondakinak kudeatzeko erabiliko diren prozedurak eta metodoak.
- d) Distantzia luzeko edo mugaz gaindiko kutsadura ahalik eta gehien murriztea bermatzen duten preskripzioak.
- e) Isurpen eta hondakin guztien tratamendurako eta kontrolerako sistemak eta prozedurak, neurketarako metodologia, maiztasuna eta neurketak ebaluatzekeo prozedurak adieraziz.

- f) Ingurumenean eragina sor ditzaketen ezohiko ustiapen baldintzei buruzko neurriak; esate baterako, martxan jartzea, ihesak, funtzionamendu akatsak, aldi baterako geraldia edo behin betiko itxiera.
- g) Legeria sektorial aplikagarriak ezarritako beste edozein neurri edo baldintza.

Hortaz, erakunde honen ustez, ingurumen organoak hurrengo hilabeteetan zuzenduko dituen kontroleko jarduketek jarraipena egin behar da, beharrezko baliabideak (materialak eta giza baliabideak) erabiltzen direla eta IBIn ezarritako baldintza guztiak betetzen direla egiaztatzeko; horrek bermatu egingo du industria jardueren funtzionamenduaren eraginpean egon daitezkeen pertsonen bizi kalitatearen funtsezko eskubideak segurtatzen dituzten ingurumen kalitateko maila onargarriak lortzen direla.

- Beste ingurumen eragin batzuk

Ekitaldi honetan, elkarte ekologista batzuek salaketak egin dituzte, kezkatu baitaude **Euskal Autonomia Erkidegoko Energia Eolikoaren Lurralde Plan Sektorialak (aurreantzean, LPS) Araban izango duen eraginaz**. Lurralde horretan, zenbait parke eoliko egitea dago aurreikusita, Natura 2000 Sareko Eredu Babestuetan; adibidez, Arkamon, Iturrietan eta Perriainen. Horrek elkartearen kezka eragin du, haien ustez halako jarduketek aldatu egingo baitute 120 hektareatik gorako azalera, ekologiararen eta paisaiaren aldetik kalitate berezikoak eta oso zaurgarriak diren zona batzuetan.

Elkarteek diotenez, halaber, mendiko gailurrak (natura interesaren ondorioz babestuek) zentral eolikoak instalatzeko okupatzeak aldatu egingo lituzke orain arte aldaketa barik egon diren gailurrok; horrek ekologian eta paisaian eraginak sortu eta, gainera, biodibertsitatearen galera kritikoa eragingo luke.

Elkarteek parke eolikoaren LPS ikuskatzeko eskabidea egin dute, hori gaurkotu eta egokitu beharra dela uste baitute, errealitate teknologiko berria kontuan hartuta, horrek, elkartearen iritziz, aukera ematen duelako kokaleku berriak eremu gizatiartuagoetan ezartzeko, ingurumen balio urriagoko eremuetan; kokaleku horiek ordeztu egin ditzakete babes bereziko eremuetan aurreikusita daudenak. Bestalde, aditzera eman dute energia eolikoaren LPS egokitu egin behar dela paisaia garrantzitsuak, natura eta biodibertsitatea babesteko ingurumen legeria berrira.

Halaber, zenbait erakundek LPS ikuskatzeko eskabidea egin zioten Eusko Jaurlaritzari, sortu zenetik (orain dela 6 urte) plan horrek gaurkotasuna galdu baitu; halaber, esan zioten plan horren izapidetzearen lehenengo faseetan (orain dela 10 urte) proposaturiko kokalekuak ez zirela bateragarriak ondoren onetsitako ingurumen araudiarekin eta tresna berriekin.

Hain zuzen ere, ikuskapena egiteko eskabidea honako organo hauek egin zuten:

1. Eusko Legebiltzarrak: Transakzio Zuzenketa, 2008ko martxoaren 14koa.

2. Arabako Biltzar Nagusiek: 22/2005 Mozioa, ekainaren 28koa, eta 2/2008 Mozioa, urtarrilaren 21ekoa.
3. Bizkaiko Batzar Nagusiek: Arauzkoa ez den Proposamena, 2007ko otsailaren 20koa.

Bildutako informazioa aztertu ondoren ondorioztaturikoaren arabera, energia eolikoak, ordu-ra arte, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanlerik gehienek onartzen zuten, baina eztabaida, izatez ere, hori ezartzeko moduaren ingurukoa zen. Aintzat hartu behar da gure lurraldearen artifizializazio mailak oso handiak direla, eta gelditzen den lurzoru urria, batez ere mendietan eta gailurretan, okupazio eta eraldaketa prozesurik gabe mantendu ahal izan dela, orain arte. Gure mendietako gailurrak naturaren eta biodibertsitatearen gordeleku nagusia dira, eta EAEko herritarrek guztiz baloratzen dituzte. Arlo horreketan kokatu genuen administrazio batzuek Euskal Autonomia Erkidegoko energia eolikoaren Lurralde Plan Sektoriala ikuskatzeko eta gaurkotzeko egindako eskabidea.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari ere horixe adierazi genion.

Egindako eskabideari erantzunez, sail horrek txosten luzea bidali zigun; bertan, ondo zehaztuta zeuden bere garaian Energia Eolikoaren LPS onesteko jarraituriko jarduketak.

Horri buruz, txostenean esaten zen LPSk hautaturiko kokalekuak, izatez ere, herri administrazioen eta gizarte zibileko eragile interesdunen arteko lanketa eta koordinazio prozesu luze baten ondoriozkoak zirela, prozesu horren helburua adostasun ahalik eta handiena lortzea izan zela eta, bertan, ingurumen faktoreari garrantzi erabakigarria eman zitzaiola.

Era berean, jakitera eman ziguten, LPSren garapenaren aurkako erabakien eraginez, eta Eusko Legebiltzarrean onetsitako zuzenketa betetzeko, Energiari buruzko Erakundeen arteko Lantaldea bildu zela; bertan, honako hauen ordezkariak hartu zuten parte: Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Saila; Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila; Energiaren Euskal Erakundea; hiru Foru Aldundiak, eta Eudel.

Bilera horretan ikerketak egitea erabaki zen, kokalekuak gaurkotzeari buruz, indarreko araudi berriak ezartzen dituen ingurumen alderdietan oinarrituz.

Hala ere, 2009ko ekainaren 18an, eztabaidatu eta aho batez onetsi zen NV, SV, PV, Aralar, Misto-EA, Misto-EB eta Misto-UPyD taldeek sinaturiko zuzenketa transakzional hau:

1. Eusko Legebiltzarrak parke eolikoan (indarreko Energia Eolikoaren Lurralde Plan Sektorialaren eraginezkoak eta parke txikiak) izapidetze administratiboa eteteko eskabidea egiten dio Eusko Jaurlaritzari; horrela, etete horrek dirauen aldirian, abiatuturiko planei buruzko adostasuna lortu behar da erakundeen artean eta gizartearen barruan; gainera, azken urteotan onetsitako ingurumen araudia (izapidetzen ari diren parke eolikoek ingurumenean sorturiko eraginaren ebaluazio prozedurei buruzkoa) aplikatu behar da.

2. Eusko Legebiltzarrak eskabidea egin dio Eusko Jaurlaritzari, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailari eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari informazioa emateko, IKT kontsulta-entresari eskaturiko ikerketari eta erakundeen arteko lankidetzaren (lurralde plan sektoriala ekainaren amaiera baino lehen ikuskatzeko sorturiko lantaldea) behin betiko ondorioei buruz; halaber, irailaren amaieran, batzorde horiei informazioa emango die aurreko atalean aipaturiko erakundeen arteko eta gizartearen barruko adostasuna lortzeko egon ziren zailtasunei eta egindako aurrerapausoei buruz.
3. Eusko Legebiltzarrak eskabidea egin dio Eusko Jaurlaritzari, 2009a amaitu baino lehen energia eolikoaren bigarren lurralde plan sektoriala lantzen hasteko; lurralde plan sektorial berri horretan (2002ko maiatzaren 14ko oraingo lurralde plan sektoriala 104/2002 Dekretuaren bidez indarrean sartu denetik onetsitako era guztietako arauzko eskakizunen arabera idatzitako plana), urte hauetan garaturiko ingurumen eta teknologia berrikuntza guztiak jasoko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko natura eta paisaia ondarea zaindu egiten dela bermatzeko.
4. Energia eolikoaren bigarren lurralde plan sektoriala, beste energia berriztagarri bartzuen garapenarekin batera, 2010ean ikuskatuko den EAEko energia estrategiaren barruan sartuko da, eta, bertan, funtsezko eginkizuna izango du.

Proposamen hori kontuan hartuta, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak, Industria eta Berrikuntza Sailarekin koordinatuta, lanean jarraitzeko konpromisoa hartu du, erakundeen arteko eta gizarte barruko adostasun ahalik eta handiena lortzeko, orain izapidetzen ari diren parke eolikoaren ingurumen eraginaren ebaluazio prozeduren inguruan.

Halaber, Industria eta Berrikuntza Sailarekin lankidetzat estua garatzea erabaki dute, 2009aren amaiera baino lehen izapidetzen hasi behar den LPS berriak ingurumen beritasun guztiak jasotzeko, eta, horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko natura eta paisaia ondarearen zaintza bermatzeko. Konpromiso horretan, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak esan du lehentasunezko bi ingurumen helburu bateratzen saiatuko dela:

- Alde batetik, Euskadirako funtsezkoa den energia berriztagarriko iturri bat garatzea, Europar Batasuneko (2020an energia berriztagarria %20, eta %20ko murriztapena negutegi efektuko gasen isurpenetan) eta Kyotoko Protokoloko (Estatu osorako, 2012an 1990eko negutegi efektuko gas isurpenak %15 baino gehiago ez handitzea) ingurumen helburuak betetzeko.

Gaur egun, EAEn jatorri berriztagarriko energia ez da %5era heltzen. Instalaturiko potentzia eolikoa 150 MW-koa da. Beste autonomia erkidego batzuetan, berriz, 3000 MW-tik gorakoa da; esate baterako, Galizian, Gaztela-Mantxan edo Gaztela Leonen.

- Bestalde, biodibertsitatearen eta, hain zuzen ere, Natura 2000 Sareko eremu naturalen kontserbazioa (Erkidego Garrantziko 52 Leku —EGL— eta Hegaztien Babes Bereziko 6 Zona —HBBZ—); guztira, Euskadiko azalera osoaren %20 betetzen dute, eta, orain arte, ez dute kudeaketa planik onetsita, euren funtzionamendua arautzeko; sare horretako eremuetan azpiegiturak garatzea *a priori* ekiditen duen araudirik ere ez dute.

Bidalitako txostenaren arabera, erakunde honek ondorioztatu du lehentasunezkoa dela gai horretan adosturiko erabakiak lortzea, bai erakundeen artean eta bai gizartearen barruan, dagoeneko bideraturik dauden ingurumen eraginaren ebaluazio prozeduren izapidetzean. Hori dela eta, herritarrek hasita dauden prozeduretan parte hartzeko bide berriak ezarri behar dira; bideok prozesuetan parte hartzeko aukera eman behar diete elkarte interesdunei, bidezko ohar eta iritzi guztiak azaltzeko, eta, horrela, horiek kontuan hartu ahal izateko planteaturiko ingurumen arazoei soluzioa emateko hartzen diren erabakietan; hori guztia, gainera, uztailaren 18ko 27/2006 Legean (ingurumenaren arloko informaziorako, parte-hartze publikorako eta justiziarako eskubideak arautu dituen legea) gaiari buruz jasotako xedapenak aintzat hartuta egingo da.

Egin dugun azalpenaren bidez, bidezko espedienteen izapidetzeari dagokionez, agerian jarri nahi dugu gai honek, erakunde honen ustez, merezi duen interes handia, gehienbat kontuan hartuta Lurralde Plan Sektorial berriaren lanketa hasiko dela, eta horren helburua, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak berak adierazitakoaren arabera, honako hauetan ezarritako ingurumen eta aldi helburuetara egokitzea dela: Europar Batasunaren araudian eta Kyotoko Protokoloaren eraginez garatzen joan diren baldintzetan.

Bestalde, aditzera eman behar dugu **gauzez bide publikoan egiten diren obren** zaratek salaketa asko eragin dituztela.

Aurten aztertu diren kasuetan, berriro ere, egiaztatu dugu batzuetan nahitaezkoa dela obrak gauzez egitea, egunez trenbideak edo ibilgailuen trafikoa ahalbidetzen duten azpiegiturak trafiko barik utzi behar ez izateko.

Hala eta guztiz ere, egiten diren obren handitasuna aintzat hartuta, Administrazioak eskatu eta, aldi berean, kontrolatu egin behar du obrak egitean beharrezko neurri guztiak hartzen direla, erabilitako makinek sortzen dituzten zaratak ahal den neurrian arintzeko eta murrizteko; gainera, ahal izanez gero, gaueko ordutegian zaratarik gutxien ateratzen duten lanak egingo dira, herri botereek bermatu egin behar baitute herritarrek atsedenerako duten eskubidea.

Amaitzeko, azpiarlo honetan berriro aipatu behar ditugu **telefonía mugikorrek antenen instalazioei** buruz jaso ditugun kexak; antena horiek hiri zonetan eta zona urbanizaezinetan instalatuta daude. Aurten ere, norbanakoei aurkezturiko kexa kopuru handia izapidetu du erakunde honek, baita elkarteek aurkezturikoak ere, kezkatu baitaude halako instalazioek sorturiko eremu elektromagnetikoen gizakien osasunean eragin ditzaketan kalteekin.

Telefonia mugikorraren erabilera masiboaren ondorioz, halako azpiegituren instalazioak hazkunde itzela izan du, eta horrek, aldi berean, alarma sortu du biztanleengan.

Azken urte hauetan, erakunde honek arlo honetan egindako jarduketaren helburua, alde batetik, gaia aztertzeke egin diren ikerketen jarraipena egitea izan da, eta, orain arte, ondoriozta daiteke ez dagoela frogarik, telefonia mugikorreko antenek sorturiko erradiazio elektromagnetikoen eta biztanleen artean gaixotasun larriak agertzearen arteko kausa-efektua baieztatzeko. Era berean, Estatuko Administrazioak halako instalazioak arautzen dituzten udal ordenantzen aurka egindako salaketei buruzko erabaki judizialak ere ikusi ditugu. Horri dagokionez, esan daiteke Agintaritza Judizialak baliogabetu egin dituela udalen eskumenez gaindiko gorabeherak (hau da, hirigintza antolamenduz gaindikoak) arautzen dituzten xedapenak.

Bestalde, jasotako erreklamazioei dagokienez, instalazio horien hirigintza legalitatea zorrotz kontrolatzen saiatu gara; azterturiko kasurik gehienetan, ikusi dugu instalaturiko telefonia mugikorreko antenarik gehienak udal baimenik gabe jarri direla.

Horri dagokionez, berriro esan behar dugu kezkarria dela udal agintariak, telefonia mugikorreko antenek gizarte alarma sortzen dutela jakinik, ez jardutea edo jardun hori gehiegi atzeratzea, indarreko legeriaren arabera bidezkoak diren neurriak hartzeko orduan, salaturiko instalazioa ezkutukoa dela egiaztatzen denean; eta ez da ahaztu behar arlo honetan udal permisibitateak ez duela hirigintza antolamendua errespetatzen.

Herritarrak kezkatu daude, telefonia mugikorreko antenek sorturiko eremu elektromagnetikoei loturiko arriskua egon daitekeelako; horrenbestez, herri administrazioek gogor egin behar dute halako azpiegituren ezkutuko instalazioaren aurka. Gainera, ez da ahaztu behar telefonia mugikorreko instalazioak ez direla ezein kasutan ere kaltegabeak, horien funtzionamendutik beste arazo batzuk sortu ahal direlako; esate baterako, zaratak, sute arriskuak, etab. Beraz, Administrazioaren jarduketa eska daiteke, ingurumen lizentzietan oinarriturikoa, instalazio horietako jarduerarekin herritarren eskubideei kalterik egiten ez zaiela bermatzeko prebentzio printzipiotzat.

I.10

HERRI LANAK ETA ZERBITZUAK

10. HERRI LANAK ETA ZERBITZUAK

Sarrera

2009an 181 kexa jaso ditugu herri lanen eta zerbitzuen arloan; hau da, erakundearen aurkeztu dizkiguten erreklamazio guztietatik %9,44.

Kexek honako administrazio hauetan izan dute eragina:

- Tokiko administrazioa	136
- Foru administrazioa	24
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza)	18

Horien edukiari dagokionez, jasotako kexak honako azpiarloan hauetan sailkatzen dira:

- Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa	50
- Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazioaren erantzukizuna	40
- Tokiko zerbitzu publikoak	33
- Garraioak	25
- Azpiegiturak	15
- Obrak egitea	8
- Eskubideak eta askatasunak	4
- Irisgarritasuna	3
- Beste batzuk	3

Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa

Atal honetan, herritarrek administrazio publikoekin dituzten harremanetan duten **informazioarako eskubidearen** barruan sailka daitezkeen kexak hartuko ditugu hizpide aurrena. Herri-administrazioek eskubide hau baliatzeari buruzko eskaera bati erantzun behar diotenean, eskaera modu positiboan bideratzeko premisa hartu beharko lukete abiapuntu. Horrela, udal jarduera herritarrari ematen zaion zerbitzuarekin bat etorriko da, informazioa ematerakoan eraginda egon daitezkeen beste hirugarrenen eskubideak kontuan hartu behar izatearen kaltetan izan gabe. Hirugarren horiek ere babesa jasotzeko eskubide bera dute.

Aldiz, aurten izapidetu ditugun kexen arabera, batzuetan, administrazioek informazioa emateko oztopoak jartzen dituztela ikus daiteke. Legezko argudioak ematen dituzte, eta mota askotakoak izan daitezke erabiltzen dituzten arrazoiak, informazioarako sarbidea ukatu nahi dutenean. Esaterako, [Arartekoaren ebazpena, 2009ko uztailaren 13koa](#)⁴¹. Kexa

⁴¹ Arartekoaren ebazpena, 2009ko uztailaren 13koa, Gueñesko Udalak 'pub' bateko titularrari dagozkion datuak ezetsi izanari buruzkoa, lokalean lesioak jasan zituen pertsona batek eskatutakoak horiek.

Gueñeseko Udalean “pub” bateko jabearen datuak eskatu zituen pertsonak jarri zuen, udalak ez zizkiolako datuak eman. Gure aburuz, eskatutako informazioa emateari uko egitea araz kanpoko da. Izan ere, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege organikoak hainbat salbuespen ditu alde aurreko baimen gabe interesdunaren datuak emateari dagokionez. Adibidez, lege horretako 11.2 artikulua dio bere aurreko artikuluan (11.1) eskatutakoa ez dela beharrezkoa izango, besteak beste, lagatzea lege batean baimentzen denean edo datuak iturri publiko batetik lor daitezkeenetan.

Ondorio horietarako, interesdunak egindako eskaera azaroaren 26ko Herri-Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 37.3. artikulua arautzen dituen artxibategi eta erregistroetara sartzeko eskubidearen barruan jaso daiteke. Gainera, gure ustez, Ikuskizun Publikoen eta Aisialdiko Jardunen 4/1995 Legea ere aplika daiteke. Lege horren arabera, lokalaren toki ikusgarri batean egon behar da udalak ematen duen lizentzia plaka. Plakan jasotzen dira, besteak beste, lokalaren titularraren datuak.

Ildo beretik, Abanto-Zierbenako Udalarekin jardun genuen, elkarte ekologista bati informazio zehatz bat jasotzeko eskubidea ukatu ziotelako; [Arartekoaren ebazpena, 2009ko uztailaren 2koa](#)⁴². Kasu honetan, elkarteak hainbat azterlan teknikoren kopiak eskatu zituen, baita bost fasetan burutzeko asmoa zuten proiektua ere (laugarren fasean abian zen). Hori eskatzeko, ingurumeneko informazio publikoa izateko eskubidea baliatu zuten (27/2006 Legea, uztailaren 18koa, ingurumen arloan informaziorako eskubidea, parte-hartze publikoa justiziarako eskubidea arautzen dituen). Hasieran, ukoaren arrazoiak eskaera oraindik sortzen ari zen materialari, edo amaitu gabeko dokumentu edo datuei buruzkoa izatea izan zen. Gure esku-hartzearen ondoren, jabetza intelektualeko eta industrialeko eskubideek eragin negatiboak jasan zitzaizkela iritzi zuten, nahiz eta proiektua udalak berak agindu eta ordaindu zuen.

Halaber, **heritarrek gai publikoetan duten parte hartzeari** buruzko kexak nabarmendu ditzakegu. Toki Araubidearen Oinarriari buruzko 7/1985 Legeko 70. artikulua (Tokiko gobernu modernizatzeko neurriari buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legeko bosgarren xedapen gehigarriak gehitu zuen artikulua) ezartzen du udalek arau organikoak, prozedurak eta organo egokiak ezarri behar dituztela, heritarrek tokiko jardun publikoan parte hartu ahal izateko.

Plentziako herritar batek eskatu zuen ezarpen hori betetzea. Eta udalak erantzun zion heritarrek parte hartzeko hainbat bide zuela ezarrita. Hala ere, ikuspuntu formaletik, parte hartzeko bide eta bitarteko horiek aipatutako arauak araudi organikoan sartzeak prozedura zehatza duten azterketa eta eztabaida dakartza –araudia aginduzkoa da aipatu arauaren arabera–. Horrela korporazio osoak eta auzotarrek parte har dezakete, alegazioak aurkeztuz eta jendaurrean jartzeko aginduzko fasean proposamenak eginez. Udalak planteamendua onartu zuen, eta nahitaezko araudia izapidetzeko asmoa zuela adierazi zuen.

⁴² Arartekoaren ebazpena, 2009ko uztailaren 2koa; Abanto-Zierbenako Udaleko saiakuntza proiektu baten inguruko informazio zehatza ezin eskuratzeari buruzkoa.

lido beretik, herritarrek udal gaietan parte har dezaten sustatzeko eta hobetzeko, 7/1985 Legeko 128. artikulua –175.000 biztanletik gorako hiriburuei aplikatzekoa– dio barrutiak osatu behar direla, eta itundu gabeko lurraldeko kudeaketa organoak izango dituztela. Joan den urteko memorian Donostiako herritar batek egindako kexa aipatu genuen, udal barrutiak ez direlako sortzen kexu baitzen (943/2008). Horri dagokionez, udalak guri eman zigun informazioa bidali genion interesdunari. Informazio haren arabera, udalerrriaren ezaugarriekin bat zetorren eredia bilatzeko lanean ari zen udala. Hala ere, kexa aurkeztu zuen herritarrak berriro galdetu zuen gaiari buruz, eta, berriz ere, informazioa eskatu genuen. Aurrerapenik ez zenez egon, Donostiako Udalarari jakinarazi genion deszentralizatutako kudeaketa irudia sortu behar zuela; [Arartekoaren ebazpena, 2009ko urriaren 23koa](#)⁴³.

Bestalde, ekitaldi publikoetan hautatutako kargu gisa parte hartzeari dagokionez, zinegotzien kexak heltzen zaizkigu. Haien aburuz egoki zaizkien funtzioen jardunean eskubideak urratzen zaizkie. Adibidez, Gordexolako zinegotzi baten kexa jaso genuen. Informazio batzordeez kexu: ez zelako aktarik egiten eta ez zirelako landutako gaiei irizpen botorik ematen. Horrek guztiak esan nahi zuen parte-hartzaileen botoa ez zela inon jasotzen.

Erroldari dagokionez, udal erroldan izena emateko zailtasunek kexak eragiten dituzte, baita erroldan izena ezin emateak dituen zailtasunak ere, pertsonen eskubideak baliatzeari eragiten diolako.

Erroldan izena emateko arazoak dituzten pertsona asko egoera zaurgarrian daude, atzerriko pertsonak direlako eta dokumenturik ez dutelako, edo beren bizilekua egiaztatzen duen lojamendua edo dokumentazioa ez dutelako. Txosten honetako II kapituluaz luze jaso dugu eskubideak baliatzeko zailtasunak dituzten eta bereizkeria, bazterkeria edo egoera zaurgarria pairatzen duten pertsonen egoera. Eta, besteak beste, erroldatzeko arazoak izango ditugu hizpide.

Aurten burutu ditugun jardunen artean, ofiziozko 43/2009 espedientea nabarmendu dezakegu. Haren bidez, informazioa eskatu genion Gasteizko Udalarari, etxerik ez duten ([Arartekoaren ebazpena, 2008ko irailaren 15ekoa](#)⁴⁴) eta bazterkeria pairatzeko arriskua duten pertsonak ([Arartekoaren ebazpena, 2008ko irailaren 15ekoa](#)⁴⁵) erroldan inskribatzeko arazoa aztertzeko eta izena emateko moduak bateratuko dituen protokoloa sor dezan. Iaz egun genituen iradokizunen eskutik sortutako konpromisoaren arabera, eta protokolo hori

⁴³ Arartekoaren ebazpena, 2009ko urriaren 23koa. Donostiako udalerrria barrutitan banatzeari buruzkoa.

⁴⁴ Arartekoaren ebazpena, 2008ko irailaren 15ekoa. Horren bidez, Gasteizko Udalarari iradokitzen zaio erroldatzeko baldintzei eta eskubideari buruzko informazioa hobetu dezan; eskaera idatziz aurkeztu dezan; eta erroldan izena emateko etxerik gabeko pertsonen izena ematea mantentzeko zailtasunak kontuan hartzen dituen jardura protokoloa landu dezan.

⁴⁵ Arartekoaren ebazpena, 2008ko irailaren 15ekoa. Horren bidez, Gasteizko Udalarari iradokitzen zaio erroldatzeko baldintzei eta eskubideari buruzko informazioa hobetu dezan; eskaera idatziz aurkeztu dezan; eta gizarte bazterkeria jasateko arriskuan dauden pertsonen, erroldan izena emateko edo mantentzeko zailtasunak kontuan hartzen dituen jardura protokoloa landu dezan.

formalizatu ote den jakinarazi gabe horren beste denbora igarota, udalera berriro jo genuen. Izan ere, pertsonak erroldako inskripzioan jasotako helbidean bitzeari utzi eta gero, jarraitzen den ofiziozko bajari dagozkion kexak jasotzen jarraitzen dugu. Txosten hori itxi dugu, baina ez dugu erantzunik jaso.

Azkenik, bi jardun nabarmendu nahi ditugu, erroldan izena emanda egoteak prestazioak onartzean duen eraginari dagokionez. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2208 Legeak honela ezartzen du: “Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzu eta prestazioetarako eskubidearen titular dira Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietako edozeinetan erroldatuta dauden pertsonak, baldin eta legezko eta benetako bizilekua bertan badute.” Prestazioak jasotzeko zerbitzu bakoitzeko erregulazioak ezartzen dituen baldintzen artean alde aurreko erroldatze epea egiaztatu ahal izatea dago. Agiri hori aurkeztea prestazioa jasotzeko betekizun bihurtzen da. Arartekoak bi gomendio egin ditu, erroldan inskribatzearen egiaztatgiriak duen frogagiri-balioa aztertzeko: ([Arartekoaren ebazpena, 2009ko abuztuaren 10ekoa](#)⁴⁶ eta [Arartekoaren ebazpena, 2009ko uztailaren 23koa](#)⁴⁷).

Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazioaren erantzukizuna

Zati honetako analisisia **ondarearen erantzukizunarekin** lotutako gaiekin hasiko dugu. Herri-tarrek diru konpentsazio bila administrazioetara zuzentzen dituzten kexek kexa-espeditente mota berezi bat egiaztatu dute, aurreko urteetan bezala.

Espeditente hauek kalte ordainen eskaerak biltzen dituzte. Herritarren aburuz, zerbitzu publikoen funtzionamenduak eragindako kalteak ez dituzten zertan jasan, eta hori izaten da eragilea. Kexek oso profil antzekoa izaten dute, aurreko ekitaldietan izapidetutakoekin alde-ratuta, baita aurreko txostenetan hizpide izan ditugunekin alderatuta ere. Azaldutakoarekiko lotura ez galtzeko, guregana behin eta berriz heltzen direnak gogoraziko ditugu.

Adibidez, administrazio jakinen aurrean egindako eskaerak daude. Ezarritako epeak igarota, partikularrak ez du bere nahien erantzunik jaso. Talde honetan sartzen dira ere izapideren bat izan arren ebazpenik gabe geratzen direnak.

Deskribatu dugun kexa motarekin bat –administrazioaren jardun ezak edo haren funtzioen berandutzeak eragiten ditu–, erreklamaziogileen nahiak ez onartzeko ematen diren ebazpenak gutxi arrazoitzeak eragiten dituzten kexak ditugu. Erreklamazioen eskaera horiek

⁴⁶ Arartekoaren ebazpena, 2009ko abuztuaren 10ekoa. Horren bidez, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politika eta Gizarte Zerbitzuetako Sailari gomendatzen zaio bizikidetasuna egiaztatzeko zuzenbidean baliozkoak diren beste frogabide batzuk onartzea eta, legezko izapideen ondoren, mendeko adineko senide bat bere etxebizitzan zaintzen duen pertsona honi laguntza ekonomikoa ematea.

⁴⁷ Arartekoaren ebazpena, 2009ko uztailaren 23koa. Honen bidez Gipuzkoako Foru Aldundiari gomendatzen zaio, familia inguruneke zainketarako diruzko prestazioa eman dezan, mendetasun balorazioaren eskaera aurkeztu zen datatik hasita.

administrazioaren erabakia ezezkoa izateari aurka egiten diote, besterik ez: ez dute argudio-rik ematen. Azken horiei dagokienez, aurrerago adieraziko dugunera jotzea da egokiena.

Era berean, jarraian azalduko ditugun kexen txanda helduko da; izan ere, etengabe ugaritzen ari direla hauteman dugu. Kexa mota hau aurreko txostenetan ere izan genuen hizpide.

Beraz, bi kexa mota hauei buruz mintzatuko gara, labur-labur: Lehen taldean erreklamatzeko eskubidea nola baliatu jakiteko informazioa eskatzen diguten erreklamazioak dira. Hau da, gai bat erreklamazio gisa formalizatu aurretik, gaia nola bideratu jakin nahi izaten dute herri-tarrek, eta gaiaren berri alde aurretik ematen digute guri.

Bigarren taldean jada bukatuta dauden espedienteak aztertzeke eskaerak daude. Kasu horietan erreklamaziogileen interesen aurkako ebazpen administratiboa ematen da, eta, adierazi dugun bezala, desadostasuna adierazteaz gain ez dute zehazten zergatik dauden ebazpenaren aurka.

Kexagileek berek ekartzen dizkiguten datuetatik bertatik ondorioztatzen da epaitegietara jotzeko aukera albo batean uzten den kasuak dira, eta gure esku-hartzea baliatu nahi dute beren erreklamazioen oinarriari buruzko azken irizpena nahi dute. Halakoak gertatzen dira ere egoki den kontsulta organoak bere irizpena eman duenean (egoki den batzorde juri-dikoa).

Horrekin bat, eta aurretik aurreratu dugunaren ildotik, oso-oso deigarria da administrazio publikoek herritarrek hasitako ondare erantzukizunari buruzko espedienteak garaiz kanpo ebazten dituzten kopurua.

Azkenik, aurtan esku hartu dugun ondarearen erantzukizunaren kexen eredu gisa, honako jardunak nabarmenduko ditugu: [Arartekoaren ebazpena, 2009ko maiatzaren 26koa](#)⁴⁸, [Arartekoaren ebazpena, 2009ko martxoaren 25ekoa](#)⁴⁹ eta [Arartekoaren ebazpena, 2009ko abuztuaren 21ekoa](#)⁵⁰.

Ondare publikoekin lotuta; Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailari bidali genion iradokizuna aipatu behar dugu. Haren bidez eskatu genion bere titulartasunekoak diren portuetako amarreak esleitzeko irizpideak aldatzea ([Arartekoaren ebazpena, 2009ko abenduaren 4koa](#)⁵¹).

⁴⁸ Arartekoaren ebazpena, 2009ko maiatzaren 26koa. Horren bidez amaitutzat jotzen dugu Gipuzkoako Foru Aldundiaren titulartasuneko gerontologia zentro batean bizi den andreak jasan dituen lesioak direla-eta bere alabak aurkeztutako erreklamazioa.

⁴⁹ Arartekoaren ebazpena, 2009ko martxoaren 25ekoa. Honen bidez Lekeitioko (...) kaleko auzotarren komunitateak saneamendu saretik datozen ur beltzen isuriak konpontzeko aurkeztutako erreklamazioa bukatuko da.

⁵⁰ Arartekoaren ebazpena, 2009ko abuztuaren 21ekoa. Horren bidez Lemoizko Udalarari gomendatzen zaio zuhaitz baten erorketak ibilgailu batean eragindako kalteengatik egindako erreklamazioa gaitzetsi izana berrius dezala.

⁵¹ Arartekoaren ebazpena, abenduaren 4koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailari bere titulartasunekoak diren portuetan amarrazteak esleitzeko irizpideak alda ditzala iradokitzen zaio.

Kexa aurkeztu zuen pertsonaren arabera, aurreko baimena agortuta dutenei edo baimenik gabe amarrea okupatzen zuten pertsoneri aldi baterako amarrea baimentzea lehenesteak, baimen baten zain zeuden gainerakoei tratu bereizlea ematea zekarren. Onura publikoko ondasun honi aplikatu behar zaion araudia aztertuta, ondorioztatu genuen lehentasun sistematik isilbidezko luzapena dakar, denbora mugarik gabe. Horrek beste erabiltzaile posibleek tokia hartzea oztopatzen du, eta ondarearen legerian ezarritako epea baino luzaroagoan eduki daiteke jabetza publikoa. Arrazoi horregatik uste dugu egun indarrean dauden irizpi-deak aldatu behar direla.

Udal ondasun publikoen arloan, aurtan hainbat kexa izapidetu dugu. Haietan adierazi zuten erantzun falta, ukoa edo formalizazio falta egon zirela udalaren lursailetan zeuden etxebizitzak jabeen alde egin diren salerosketa eragiketetan. Nagusiki, Bizkaiko Lurralde Historikoan jazo ziren halakoak. Katalogatuta zeuden onura publikoko lursailak ziren; hortaz, ondasun horiek kalifikazio juridikoa egiteko nahitaezko espedientea hasita beharrezkoa zen, eta horretarako aldundietako mendi sailen esku hartzea behar zen. Nahitaezko espedientea ez izapidetu izanak egindako hitzarmenak baliogabetu zituen, lege ezarrita dagoen prozedura administratiboa ez zelako bete. Hala agintzen du Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, 102. artikuluan. Karrantzako Udalak, zehazki, mota horretako espedientea hasi zuen; izan ere, okertu egin zen eta onura publikoko mendiak ziren lursail batzuk saltzea hitzartu zuen (25/2009).

Arlo honetan, kasu askotan azpimarratu dugu administrazioek, bereziki udalek, ordenamendu juridikoak ematen dizkien eskubideak erabili behar dituztela, ondare publikoa babesteko. Hala ere, azpimarratu behar dugu eskumen horiek ezarritako arauak oso-osorik errespeta-tuz erabili behar direla.

Arlo horretan, Gatzaga Buradongo herritar batzen kexa izapidetu genuen. Bertako administrazio batzarrak mugaketa bat egin nahi zuen interesdunak beretzat jotzen zuten lursail batean. Eragindako administrazioarengana jo genuenean, mugaketa ahalmena baliatu behar dutela eta horren aurretik administrazioeko espedientea egin behar dutela esan genien; hala zehazten baitu Toki Erakundearen Ondasunen Araudiko 57. artikulua (1372/1986 ED, ekainaren 13an). Ahalmena bideratzeko, egiaztatze eragiketa teknikoak egin behar dira, eta, hala badagokio, guztiz egiaztatutako egoera juridikoak zuzendu behar dira; hori guztia egiteko dauden zantzu eta proba guztiak sakon aztertuta. Eragindako administrazioak proba gehiago biltzeko prozedura eten zuen.

Tokiko zerbitzu publikoak

Atal honetan, izapidetutako kexak oinarrizko zerbitzu publikoak emateko moduak hobetzeko eskarien gainekoak izan dira, oro har. Besteak beste, ur hornidura, estolderia eta hondakinen bilketa azaldu dira. Hondakinen bilketan edukiontzien kokapena nabarmendu behar da. Aipatutako kasuez gain, batzuetan herritarrek ekipamendu publikoen kalitate estandarrez kexu dira. Zehazki, gabeziak ikusten dituzte hiri altzarien eta gunen publikoen kontserbazioan

eta mantentzean. Hala ere, arau bereziak dituzten alderdiez gain (segurtasuna, osasungarritasuna, irisgarritasuna, etab.), oro har, ez dago araurik estandar funtzionalak ezin estetikoak zehazteko. Ildo horretan, parek batek izan behar duen kalitatea, adibidez, subjektiboa da, eta parkea mantentzeko ardura duen administrazioaren exijentziaren arabera izango da. Gainera, tartean dira ere administrazioan dituen lehentasun eta baliabide ekonomikoak. Gai honetan, beraz, administrazioek aintzat hartu behar dute herritarrek administrazioek ematen dizkieten zerbitzuekin duten asebetetasun maila.

laz, gomendio orokor bat egin genien **hilerrien** zerbitzua emateko eskumena duten administrazio guztiei. Erlijio sinismen ezberdinak kontuan hartuta, hilerriak egokitzeke eskatu genien; eta bereziki musulmanen komunitatea aintzat hartzeko eskatu genien. Horren harira, hainbat administrazio publikorekin eta erakunderekin hasi ditugu jardunak; daukaten iritzia eta asmoak bildu nahi izan ditugu, testuan jaso genituen gairen batek administrazio horien jardun esparruan eraginik izanez gero. Jaso ditugun erantzunekin eta gure gogoetekin jarraipen ebazpena egin dugu ([Arartekoaren erantzuna, 2009ko abenduaren 28koa](#)⁵²). Gogoeta eta jardun horiek erreferentziako esparru erabilgarria izan daitezke gaia mahai gainean duten administrazioentzat, edo epe labur edo ertainean bideratu beharko dutenentzat.

Azkenik, aipatu nahi dugu, Lezamako Udalari ebazpen bat bidali diogula: [Arartekoaren ebazpena, 2009ko abenduaren 10ekoa](#)⁵³. Ebazpena Udal Elkartearen Erregistroan izena eman nahian bi urte zeramatzan auzotarren elkarte batek aurkeztutako kexaren harira eman genuen. Elkartek ez zuen bere eskaerentzako erantzunik ematen; eta horren ondorioz, elkarteari ezinezkoa zitzaion udal baliabideak erabiltzea: lokalak lagatzea, diru-laguntzak eta udal web orrian txoko bat uztea.

Garraioak

Lanerako, aisialdirako, etab. lekualdatu behar izateak apustu sendoa eskatzen die administrazioei garraio publikoaren alde; baldin eta herritarrek beren ibilgailua benetan aparkatu, eta mugikortasun beharrianak asebetetzeko garraio kolektiboa erabiltzea nahia badu.

Asmo horren harira, EAEko hiru foru aldundiek urteak daramatzate jardunean. Ildo horretan, begi onez ikusten dugu etorkizunean Gipuzkoako garraio publikoa bateratuko duen partzuergoa eratzea. Gipuzkoako Garraioaren autoritate berriak 2007an izen horrekin berarekin sortu zena ordezkaturiko du; eta jardunerako benetako botera izango du. Horretarako erakundea osatuko duten erakundeek (Eusko Jaurilaritza, foru aldundia eta Donostiako eta Irungo

⁵² Arartekoaren ebazpena, 2009ko abenduaren 28koa, "Hilerrietako zerbitzu publikoak erlijio sinismen ezberdinetara egokitzea. Batez ere musulman komunitateari." gomendio orokorrari egindako jarraipenari buruzkoa. Erreferentzia berezia musulmanen komunitateari."

⁵³ Arartekoaren ebazpena, 2009ko abenduaren 10ekoa. Horren bidez, Lezamako Udalari gomendatzen zaio esanbidezko ebazpena ematea, (.....) elkartea udal Elkartearen Erregistroan inskribatzeari buruzkoa.

udalak, momentuz) emandako eskumenak baliatu beharko ditu. Hori guztia abenduaren 15eko Euskadiko Garraio Agintaritzaren 5/2003 Legearen babesean. Lege horrek ezartzen du aipatu ditugun erakundeak ezarri zituen, garraioaren politika bateratua sustatzeko, eta garraio kolektiboaren erabilera bultzatzeko.

Egindako esfortzuak, hala ere, ez du saihestu arazo eta eskaera berriak sortzea. Eta kontu berri horiek garraio kolektiboa ibilgailu pribatuarentzako benetako alternatiba izateko ibili beharreko bidearen azaleko itxura baino ez dute ematen. Lurraldebus zerbitzuko erabiltzaile batek hobekuntzak egiteko komenigarritasuna azaldu zigun, bai kexak eta erreklamazioak kudeatzeari dagokionez bai Gipuzkoako Foru Aldundiak erabiltzaileei ematen dien informazioari dagokionez (1047/2009). Horri dagokionez, eta adibide gisa, Donostia eta Gasteiz lotzen dituen linearen erabiltzaile gisa izan zuen esperientzia kontatu zigun. Zehazki ordainketa sistemaren arazoak eta erreklamazioak azkar jartzeko sistemaren gabeziak bidaiariei eragiten zizkien eragozpenak izan zituen hizpide.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Lurraldearen Antolamenduko Departamentuak onartu zuen ordainketa sistema ez zegoela guztiz finduta, eta, horregatik, gidariei zein erabiltzaileei ematen dieten informazioa hobetuko zutela. Halaber, neurri teknikoak ezartzeko konpromisoa hartu zuen, ordainketa bikoitzak saihesteko.

Gasteizko Udalak Mugikortasun Plana onartu zuen, udalerriko mugikortasun beharrianak modu integratuan kudeatzeko asmoz. Planaren ezarpena bi fase handitan banatu da orain arte. Lehenengo fasea tranbia martxan jartzearekin bat etorri zen, 2008ko abenduan. Bigarrenean, 2009 urrian, hiri garraioaren lineak eta eredia goitik behera aldatu dira, eta horrek hirian zeuden garraioaren errutinak aldatu ditu.

Hartutako neurriek eztabaida eragin dute, eta herritarren erantzunak sortu ditu. Halakoak Arartekoarengana heldu dira; izan ere, tranbia martxan jartzearekin batera, haren paralelo ziren hiri autobus garraioak kendu zituzten (147/2009). Hasieran, erabiltzaileak linea kentzearen kontra zeuden. Orain, aurrekoaz gain, haserre daude TUVISAk autobus garraioan dituen hobariak ez direlako tranbiaren erabileran aplikatu: ikasle txartela (1404/2009) eta gizarte bonoa (1705/2009).

Aintzat hartu behar da Gasteizko hiriko garraioaren zerbitzu publikoa TUVISAk egiten duela, udal sozietate anonimoa. Tranbia, aldiz, Eusko Tranek kudeatzen du, Eusko Jaurlaritzako Garraio Sailean atxikitako enpresa, alegia.

Azpiegiturak

Atal honetan, beste urte batzuetan bezala, estatuko administrazio orokorraren eskumen diren azpiegituren eraikuntzek jaso dituzten kexak nabarmendu daitezke. Eta, estatukoak diren aldetik, erakunde honek ez du eskumenik halakorik izapidetzeko. Halako kasuetan, eraginak jasaten dituzte herritarrei proiektuaren informazioa ematea izaten da, eta kasu bakoitzean aplikatu behar den araudia ematen diegu ere. Ildo honetan, abiadura handiko

trenaren lanekin lotura duten jardun batzuk izan ditugu, baita Bizkaian tentsio altuko linea baten trazatuarekin dagoen desadostasunari buruzkoak ere.

Bestalde, badago tokiko edo foru azpiegiturarik ere kexak jasotzen dituen, eta errepideekin eta bideekin lotutakoak nabarmendu ditzakegu. Foru errepideetatik orube pribatuetara sartzeko bideak ixteagatik izapidetu ditugu hainbat kexa, baita errepideak jausi direlako, trafikoko intentsitate handirako bide txikiak daudelako edo baserrietako pistak egoera txarrean daudelako ere, baita bestelakoak ere.

Obrak burutzea

Kexa honetan Laudioko herritara batzuek egindako kexa nabarmenduko dugu. Herritarrek ezin dute beren garajeetara sartu, beren garajearen ondoan zegoen udal garajearen zeuden oztupoek ez zietelako uzten. Izan ere, beren garajera sartzeko udalekotik igaro behar ziren, Laudioko Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak hala ezartzen duelako lurrazpiko bi garajeetara sartzeko berrantolamenduan. Udalak ez zien onartzen lehenengo okupazioko eta jarduneko lizentzia ematen, nahiz eta ezarri zizkieten betebeharrak guztiak bete zituzten. Udal aparkamenduaren alde ezarri zieten bide-zorra ere bete zuten. Arazoa honela sortu zen: udal aparkamenduaren emakidadunak herritarrek sarbidea kontrolatzeko gastuetan parte hartzea nahi zuten. Kontrol neurri horiek beharrezkoak ziren errotazioko aparkalekua zelako. Herritarrek gastuetan parte hartu ezean ez zien beren garajetan sartzeko utziko.

Hainbat izapiderekin ondoren, gure balorazioa egin eta ebazpena bidali genien: [Arartekoaren ebazpena, 2009ko urriaren 29koa](#)⁵⁴. Han adierazi genien Laudioko Udalak lehen erabilerako eta jardunerako lizentzia eman behar ziela, sustatzaileak bete zituelako bere garaian eman zitzaion obra lizentzian ezarritako guztia. Bestalde, gure ustez, udalak udal garajera sartzeko erabilera ezartzean, hirigintzako antolamenduak sarbidea batera jartzearen ondorioz sortzen zen nahitaezko eta elkarrekiko izaera aintzat hartu behar zuen. Beraz, beharrezko neurriak hartu behar zituela uste genuen, garajeetara sartzeko bidea ahal bezain azkar emateko.

⁵⁴ Arartekoaren ebazpena, 2009ko urriaren 30ekoa. Honen bidez higiezin baten jabeek Laudioko Udalaren aurka hasitako erreklamazioa bukatzen da. Jabeek ezin dute beren garajeetara sartu udal aparkaleku batetik igarota.

I.11

ANIMALIAK BABESTEIA

11. ANIMALIAK BABESTEA

Animalien babesari buruzko atal honetan, gure autonomia erkidegoan animalien babesaren egoerarekin lotutako erreklamazioak eta kexak bildu ditugu.

Eragindako administrazioen arabera, kexak honela banatzen dira:

- Tokiko administrazioa	6
- Foru administrazioa	3
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza)	1

Azpiarloei dagokienez, berriz, honela:

- Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa	4
- Animaliak edukitzea	3
- Gune zoologikoak	1
- Beste batzuk	1

Nabarmendu behar dugu animalien babesari buruzko 6/1993 Legea, urriaren 29koa, berrikusi dela. Eusko Legebiltzarrak 49/2009 Legez besteko proposamena onartu du, Animalien babesari buruzko 6/1993 Legea, urriaren 29koa, aldatzeko. Haren bidez Eusko Jaurlaritzari eskatu diote ahal bezain azkarren legearen aldaketa prestatu eta ganberan aurkezteko deza, egoera juridikoarekin eta gizartearen sentsibilitatearekin egokitzeko. Era berean, legea azken 15 urteetan aplikatu izanaren esperientzia aurkezteko eskatu diote ere.

Arlo honen eduki zehatzari dagokionez, erreklamaziogileek ekartzen dizkiguten kasuak honakoekin lotuta daude: animaliak edukitzea, animaliek etxe partikularretan duten ongizatea, animaliek gune publikoetan duten ongizatea, eta, bereziki, harrera edo egonaldi zentroetan duten ongizatea, gune zoologikoak gisa ezagunak ere.

Erreklamazio horien beste joera batek ez ditu animalien bizi baldintzak edo tratua hizpide hartzen, aurreko horiek herritarrengan duten ondorioak baizik; hau da, gizakien eta animalien arteko bizikidetasunean sortzen diren gatazkak.

Gune zoologikoen kontrol administratiboaren atalaren barruan, animalien eskubideak defendatzen dituzten hainbat elkarteek aurkeztu zuten kexa bideratu genuen. Haien helburua Santurtzin dagoen animaliei harrera emateko zentro baten egoera salatzea zen. Ildo horretatik, udalak adierazi digu zentroa ixteko agindua eman zuela, zentroak ez dituelako betetzen Ingurumena Babesteko 3/1998 Legeko ezarpenek jasotzen dituzten baldintzak.

Animalien eskubideak defendatzen dituen beste elkarte batek Bilbon abandonatuta dauden txakur eta katuen bilketa udal zerbitzuaren kudeaketaren inguruko gai batzuk ekarri

dizkigu. Erreklamazioaren arrazoia udal bulegoetan jasotako txakur eta katu kopurua handia da. Animalia horiek adopzioan Europar Batasuneko beste estatu batzuei (nagusiki, Alemania, Suitza eta Herbehereak) ematen zaizkie. Elkarte horrek esan du kezkatuta dagoela, bere ustez, tokiko biztanleek adopzioak egiteko zailtasunak izan ditzaketelako. Batez ere, Basurtoko txakurren udal zentroak mugatutako irekiera ordutegia duela aipatu du. Ondorioz, animaliak eskuratu ahal izateko, nagusiki teknologia berriak erabiltzea dakar, adibidez internet. Horrez gain, "sartzeko edo animalia *in situ* ikusteko baimena ukatzea" gehitu du. Arrazoi horiek medio, elkarteak txakurrentzako udal zerbitzuko erregistrora sartzeari eskatu zuen. Bestalde, Bilboko eta Euskal Autonomia Erkidegoko pertsonen lehentasuna eman-go dien eta animalia horiek atzerrira eramateko beharra saihestuko duen adopzio sistema planteatu du. Katuei dagokionez, elkarteak esterilizatutako katuen kolonien programaren beharra defendatu du, Bilbon animalien izatea eta babesaren arautzen duen Ordenantzako 10.4. artikuluan ezartzen denari jarraiki.

Bilboko Udalak txosten bat bidali digu, elkartearekin etengabe izan duten harremanaren berri emateko, eta atzerrira egiten diren adopzioen datuak emateko. Udalaren txostenak adierazi denez, ez dago adopzio eskubidean gure inguruko jendeari lehentasuna emateko beharrik. Izan ere, kopuruei begiratuta, ondorioztatu da gure eragin esparruko jende dezentez adoptatzen dituela animaliak. Udalak adierazi du atzerriko adopzio guztietan indarrean dagoen legeriak ezartzen dituen betekizun guztiak errespetatu direla (osasun kartila, animalien pasaporte, txertoen kartila). Era berean, egoki den administrazioaren erroldan jaso dituzten altak eta bajak. Udal zerbitzuko erregistroan dauden datuetara sartzeari dagokionez, udalak ez ditu halakoak eskura jarrai nahi. Hori justifikatzeko, esan du animalien datuekin batera jabeen datu pertsonalak daudela. Erregistro administratiboan dagoen dokumentaziora sartzeko eskubidearen kaltetan izan gabe, udal erregistroan gordeta dauden datuen intimitate eta konfidentzialtasunak lehentasuna izan behar duela uste du udalak. Nolanahi ere, animalien identifikaziorako erregistro orokorra (AIEO) Eusko Jaurlaritzako Nekazaritzako Sailaren eskumena da, eta erakunde horri legokioke erregistroan dauden datuetara sartzeko baimena ematea. Era berean, animaliak jasotzeko zerbitzuaren antolamenduaz udalak dituen gogoetak helarazi dizkigu erakundeak. Azkenik, udalak aukera posible gisa ezarri du katuen udal kolonia sortzea.

I.12

OSASUNA

ararteko

12. OSASUNA

Sarrera

Arlo honetan guztira 84 kexa jaso dira eta honela banatuta egon dira eragindako administrazioen arabera:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza)	86
- Foru administrazioa	3
- Tokiko administrazioa	2

Azpiarloen araberako banaketarekin bat etorriz, honela sailkatzen dira:

- Erabiltzaileen eskubideak	45
- Osasun laguntza	19
- Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa	13
- Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazio erantzukizuna	2
- Buruko osasuna	2
- Osasun publikoa	2
- Beste batzuk	1

Gaixoen nahiak edo asmoak laguntzaren alderdi tekniko medikoak baino harago doaz. Neurrri handi batean laguntza horren alderdi instrumentalekin dute zerikusia. Alderdi horiek, hala nola, informazioaren zenbait dimentsio (**zerrendak**, zerbitzu zorroa, prestazioak eskuratzeko prozedura) edo zerbitzu batzuen, propioak edo itundutakoak, funtzionamendua (adibidez, osasun-garraioa edo ebakuntza aurrekoaren egitearen eta ebakuntzaren arteko koordinazioa) izan daitezke.

Kexa horietako askok laguntza prozesu osoagoak garatzera bideratutako antolaketa aldaketak nahi dituzten gaixoak erakusten dizkigute. Horrek, aldi berean, erabiltzailearen traturako eta informaziorako gaitasun hobea edukitzeko beharrea pentsatzea dakar.

Informazioa –oro har ez da xede bat bere horretan– asmo edo nahi horien zati da eta, horregatik, beharrezkoa da osasun sistema bere faseetan ulergarriagoa izaten ahalegintzea. Ahaleginak ez dira laguntzaren dimentsio teknika bakar horretan zentratu behar.

Erabiltzaileen eskubideak

Joan den urteko txostenean, laguntza prozesuaren inguruan aurreikusitako itzaroteari buruzko informazio pertsonalizatua eskuratzeko aukera emango duen sistema abian jartzeko, garatzen ari ziren jarduerak izan genituen hizpide. Aurten abian jartzeak informaziorako banakako eskubide hori ematen lagunduko duelakoan gaude.

Osasun zerbitzuen informazioari eta funtzionamenduaren hobekuntzari buruzko aurrerapen horiekin batera, zerbitzuen arteko koordinaziorik gabeko egoerak jazotzen dira.

Hala ematen dute aditzera ebakuntza kirurgikoaren zain dauden gaixoen kexek eta kasuan kasuko ebakuntza aurreko probak egin ondoren kexak aurkezten dituztenek. Aipatu kexak esku hartzeko datarik eman gabe "iraungi" egin dira. Esku artean ditugun kexa horiek errekurritu ahal dira. Hori dela eta, pentsa daiteke koordinatuta egon behar diren prozesuak koordinatuta ez daudela.

Informazioaren eta **agiri kliniko**en arloko eskubideen eta betebeharren esparruan, historia klinikoari buruzko alderdien tratamendua gaixoen kexek hizpide izaten duten gaia da. Gaixo horiei sarbiderako eskubidea mugatu zitzaizen hain zuzen. Ildo horretan, ez dira izan jarduteko irizpide orokorrekin zerikusia eduki ahal izan duten desberdintasunak eta, Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari kexak aipatzen zituen erabakien berri eman ondoren, kontu horiek bideratu egin dira.

Kexak historia klinikoa eskuratzeko eskubide hori baliatzeko prozedura ere hizpide izan du, gaixoak uste baitzuen agiriak posta arrunt bidez bidaltzea ez zela egokia. Bidea bere horretan ez da okerra. Ordea, eskaera orriek posta ziurtatu bidezko bidalketaren aukera barne hartzeko aukera planteatu genuen. Horren bidez, gainera, norberaren datuen tratamenduari dagozkion arauen ikuspegitik, fitxategiaren titularrak sarbiderako eskubidea aintzat hartzeko betebeharraren betetzea egiazta dezake. Agiri klinikoak posta ziurtatu bidez bidaltzeko iradokizun hori Osakidetzak egokitzat jo zuen eta ospitale sarean ezartzen saiatuko zirela jakinarazi zигun.

Horrez gain, kexa batzuk, lehen mailako arretan emandako osasun txartelen kopurua murrizte aldera, egokitzapenen ondotik egindako **mediku aldaketei** buruzkoak dira. Ez aldatzeko nahia zilegi denez (aldatzeko eskubidea eta ez egiteko korrelatiboa), horietako batzuk lanbidea eta seme-alaben zaintza bateratzea eta beren uzia modu objektiboan hartzen duten aurrekari medikoak aipatzen zituzten.

Herritarrei jakinarazi diegu inguruabar hori Osakidetzak erabakia hartzen duen unean kokatu behar dela, etorkizuneko eskaerak aintzat hartzeko gertakaria ez duela baldintzatu behar, aldaketak egin ondoren.

Kexak eta erreklamazioak edukitzen jarraituko da eta hori ez da zertan egiturazko funtzionamendu txarraren zantzua. Ordea, planteatu zaizkigun egoera batzuek honako hau adierazten dute: erreklamaterakoan arazo horiek diraute eta erabiltzaileek jasotzen dituzten erantzunek ahalegin handiagoa edo berezia eskatzen dute, behar bezalako erantzuna lortzeko. Kexa batzuek ilustratu dezakete.

Gaixoek planteatzen dituzten erreklamazioetan, asko dira zentro pribatuetako laguntzak jaso ondoren, **gastuen itzulketa ukatzearekin** zerikusia dutenak. Kexa horietako batzuen alegazioek, gure ustez, ez dute egiaztapen nahikorik aipatu kexek oinarri dituzten

inguruabarrek izan dezaketen oinarriaren gainean. Horrela, administrazio justiziaren bi-deek laguntza prozesuak berriz ere aztertzeo eskaintzen duten aukera galtzen da.

Erreklamazioen tratamendua egokia ez bada –horrek ez du esan nahi nahitaez onartu behar direnik–, gaixoen eta osasun sistemaren arteko berdintasun jarrera kaltetzen da. Eguneroko laguntza trafikoa makina bat egoeraren adierazle da eta, horietan, erabiltzaileei sistemak berak berari eskatzen diona baina ardura edo eginbide gehiago eskatzen zaie.

Beste kasu batean, gaixo batek bere medikuak hala gomendatuta, alde aurretiko baimen eskaera aurkeztu zuen erradioenbolizazio tratamendu bati zegokionez. Tratamendu horrentzako simulazioa egin ondoren, eskaera berria aurkeztu zuen aurrekoa gogoratu eta, bertan, ebakuntzarako data zehatza eman zitzaioa adierazi zuen. Alde aurretiko baimenaren espedientea ez zen ebakuntza baino lehen ebatzi.

Ez zen gaixoak zentro pribatu batetara jo zezan azalpen edo iradokizun bat bakarrik, txostenak kasua gibleko tumoreei buruzko bileran jorratu zela baitzioen. Bertan, erradioenbolizazio aukera planteatu zen eta zentro pribatu batetara jotzeko gomendioa egin zen gure autonomia erkidegoan teknika hori ez zegoelako, hain zuzen. Horregatik, Osasun eta Kontsumo Sailari bi inguruabarrak baloratzeko eskatu genion.

Ildo horretan, ugaltzeko aukera galtzeagatik hazia izozteko beste kasu batean, ebakuntza onkologikoa baino lehen, osasun publikoaren utzikeria egon ez zela ondorioztatzeko bidea ematen zuten inguruabarrak, egiaztatu gabeak, zeuden.

Zentro publiko batetara bidaltzeko izapideak hasi zituen baina ezin izan zituen osatu ebakuntza onkologikoa baino lehen eta, fakultatiboaren irizpidez, hori ezin zen atzeratu.

Kexa eragin zuen ebazpen ezlesleak honako hau aipatzen duen: fakultatibo publikoaren gomendioak ez du osasun administrazioa lotzen eta ez ditu gaixoak alegatutako inguruabarrak baloratu.

Osasun laguntza

Herritarrak osasun sistema publikoan sartzeari dagokionez, zenbait kexak honako hau argitzeko balio izan digute: oraindik ez dago argi herritarren eskubidea ote den (herritarrak dauka herritarra izateagatik) edo Gizarte Segurantzarekin lotutako zerbait ote den (zergak ordaindu dituenarentzat edo errenta jakin batetara iristen ez denarentzat).

Nahastea argitzeko egokitasunari egindako aipamen hori erretorikoa izan daiteke. Hala ere, hausnarketa hori ez da desegokia. Izan ere, osasunerako eskubidearen izaera unibertsalaren inguruan dagoen nahasteagatik (osasun txartelarentzat oraindik baliabide ekonomikoak egiaztatzea eskatzen da), herritar guztiak barne hartzen dituela uste da, baita Gizarte Segurantzak kotizatu ez dutenak ere; hori, ordea, ez da hala.

Unibertsaltasun hori ez da modu materialean lortu oraindik, osasunerako eskubidea ez baitago herritar guztien eskura dohainik herritar izateagatik bakarrik. Gaur egun, osasuna aurrekontuen kargura finantzatzen den arren, banakako osasun txartela eskuratzea baldintza jakin batzuk eskatzearekin lotzen jarraitzen da.

Osasun sistema publikorako eskubidea duten pertsonentzat **zerbitzu zorroak** prestazioen oinarritzko edukia definitzen du, ondorioz, bertan kokatu behar ditugu ezinbestean kexa asko eta asko.

Osasun laguntzak ezaugarri propioak ditu eta horiek aplikatzerakoan, prestazio eskubide batzuei eragiten dien esparruei dagokienez, irizpide desberdintasun handiagoa egotea azal dezakete. Hori horrela, hasiera batean antzeko tratamendua behar luketen egoerek, bazuetan, erantzun desberdinak jaso ditzakete.

Illo horretan, entzumen ezgaitasuna duten pertsonen kexak jasotzen jarraitzen dugu, hain zuzen, **kokleako inplanteak** egitearekin zerikusia duten alderdi batzuei buruz. Alderdi horien artean, besteak beste, prestazio hori eskuratzeko irizpide homogeneousik ez edukitzea eta prestazio horren ondorengo jarraipena, berritzea finantzatzeko aukera barne hartuta, daude.

Osasun administrazioari helarazitako jakinarazpenetan honako hau adierazi dugu: 1.030/2006 Errege Dekretuak ezartzen du osasun administrazioak erabakiko dituela prestazioak eskuratzeko eta agintzeko baldintzak. Horrez gain, prestazioak gaixoen osasun beharrak bermatuz eskuratuko dira; horretarako, arreta espezializatuko medikuaren agindua beharko da hasieratik.

Gure ustez, horiek prestazioa aurrera eramatearen alderdiak dira, eta protokolo batean jaso beharko lirateke.

Osasun administrazioak 2009. urteko lehenengo hiruhilekoan emandako informazioari jarraiki, prestazioa burutze aldera jarraibide homogeen batzuk egiteko lanean ari ziren. 2009ko abenduan emandako informazioaren arabera, Osakidetza aipatu protokoloa egiteko lanean ari da, Donostia Ospitalea gure autonomia erkidegoko erreferentziatzko zentroa izateko aurreikuspenarekin. Horretarako, beharrezkoa izango da kasuan kasuko bitartekoz hornitzea.

Kexa horiek aipatzen duten alderdietako bat bigarren inplantea egitea da. Kontu horri dago-kionez, jakinarazi zaigu indikazio terapeutikoa bilakaera fasean dagoela ez baitu zuzenean egoera aldatzen. Ondorioz, egun inplante bat baino ez da egiten, osasun prestazio gisa jada barne hartzen duen autonomietako osasun zerbitzu batzuk badauden arren.

Zerbitzu zorroaren edukia eta prestazioak egiteko modua zehaztearen esparru horretan, **transexualen** behar terapeutikoei eta sexua berresleitzeko kirurgiari buruz egindako jarduerak kokatu behar ditugu. Erakunde honek egin duen Euskadiko transgenero eta transexualen egoerari buruzko txosten monografikoan, honako hau gomendatzen du osasun

esparruari dagokionez (V. Osasun Arreta ataleko 17. Gomendioa): pertsona horien behar terapeutikoei erantzun osoa emateko Osasun eta Kontsumo Sailak ezarritako jarduerak burutzen ez badira, neurriak har daitezten. Neurri horiek ahalbidetuko dute sexua berresleitzeko tratamendu osoari buruzko osasun prestazioa eta EAEko Osasun Sistema Publikoak finantzatutako beste prestazioak baldintza beretan burutu daitezela.

Pertsona horien behar terapeutikoei erantzun osoa emateko Osakidetza egiten ari zen jarduerekin batera (sexua berresleitzeko kirurgiari dagokionez, abenduan lehenengo ebakuntza egin zen Gurutzeta Ospitalean), honako bi kontu hauek mahaigaineratu ziren: prestazio hori erabat onartzeko eredu berrirako trantsizioa nola artikulatu eta halako ebakuntza jada eginda zuten eta horren finantzaketarako laguntzak eskatzea aurreikusita zuten pertsonen egoerak bideratzeko aukera emango zuen mekanismoa. Aipatu laguntzak, lehen, osasun administrazioa ez zen beste administrazio batek artikulatzen zituen.

Arreta espezializatuko esparru horretan zerbitzu zorroarekin zerikusia duten beste kexa batzuk **antzutasunaren aurkako tratamenduari** buruzkoak izaten jarraitzen dute. Hala, hizpide duten gaia hauxe izan da: sartzeko baldintzarekin ados ez egotea.

Finantzaketa publikoko sistema batean, lagunduriko giza ugalketa tekniketari itxaron zerrendetan dauden gaixoei, uste dugu irizpide ezagunak oinarri dituen jarduera (Estatuko Osasun Sistemako Lagunduriko Giza Ugalketa Zentroetako Interes Taldeak hartutakoak) ez dela arbitrarioa eta ez duela oinarririk.

Kexa horietako batean pronuntziamentu judizial bat aipatzen zen, aipatu irizpideak ezartzeari buruzkoa. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko epai bat zela ulertu genuen eta, bertan, erabilitako irizpideen aplikazioa zalantzan jarri zen, aintzat hartuta hizpide zen ospitaleko lagunduriko ugalketa unitateko buruaren informazio gida batean jasotakoak baino ez zirela.

Alde batetik, iruditzen zitzaigun epai hori ezin zitzaiela beste egoera batzuei aplikatu eta, bestetik, Estatuko Osasun Sistemako Lagunduriko Giza Ugalketa Zentroetako Interes Taldeak jasotako lehentasunak dira, Euskal Osasun Sistemak/Osakidetzak onartu eta gain hartutakoak.

Halaber, epai horrek auzitegiko magistratu baten boto partikularra gehitzen zuela kontuan hartu genuen. Boto horretan ez zettorren bat epaiko edukiarekin eta eman zituen arrazoiengatik, uste zuen, lagunduriko giza ugalketaren tratamenduetarako lehentasun horiek ezartzeak ez zuela oinarririk finantzaketa publikoko sistema batean, alegia, gure sisteman.

Esparru horretan, sortzetiko malformazioak dituzten pertsonen **ortodontzia** tratamendua jasotzea Ararteko erakundeak jasotzen dituen kexek hizpide duten beste gai bat da. Hala izan da adingabe baten kasua, ortodontzia tratamendua behar baitzuen ebakuntza kirurgikoa baino lehen. Txosten klinikoak zioen, Osasun eta Kontsumo Sailari kontsulta egin ondoren, ortodontzia tratamendua zerbitzu zorrotik kanpo geratzen zela.

Zerbitzu zorroa ezartzen duen 1030/2006 Errege Dekretuak, aho-hortzen oinarrizko arretan, ortodontzia tratamenduen bazterzea xedatzen du. Ez da zalantzarik egon behar aipatu prestaziorako sarbidea modu isolatuan aztertzerakoan; bai, ordea, sistema publikoak egingo duen ondorengo beste ebakuntza kirurgiko batekin zerikusia dagoenean.

Eusko Legebiltzarrarentzat egindako aurreko txostenetan (2004 eta 2006) gure iritzia jaso dugu, alegia, aurpegi masaileko kirurgia prozesua zabalagoan sartuta egondakoan, logikoa da ortodontzia tratamendua gain hartzea zerbitzu zorroarekin.

Halaber, berriz ere azterketa ginekologikoekin zerikusia duten kexak jaso ditugu. Zehazki, erreklamazioegilea ez zegoen ados, haren ustez, aldizkako azterketak etengo zirelako.

Kexa hori planteatzeko moduak informazio desegokiko kasu baten aurrean egon gitezkeela iradokitzen zuen. Azterketa horiei buruzko kontua legebiltzarrarentzat egindako aurreko txostenetan jorratu da. Ildo horretan, erabiltzaile asko kexatu dira berariazko programe-tatik kanpoko aldizkako azterketa horiei buruz. Hala, aipatu erabiltzaileak ez zeuden ados ginekologia kontsulta jakin batzuetan itxaron behar zuten denborarekin. Egindako analisitik honako hau pentsatzeko arrazoiak zeudela iruditu zitzaigun: pertsona horiei osasun zentrotan kontsulta ginekologikoa egiteko arrazoiak ez zeudela eta eskatutakoa osasun programa espezifiko batek aurreikusi gabeko aldizkako azterketa zela esan beharrean, hitzordua, gu-txienez, handik urtebetera ematea aukeratu zela.

Hala, uste dugu egoera beste bat baldin bada, alegia, hitzorduak sintomarik gabeko emakumeentzat baziren, erantzunak desberdina izan behar zuela, osasun programa espezifikoetara bideratuz.

Eusko Legebiltzarrarentzako 2008ko ohiko txostenean, **gaixo kronikoen** errehabilitazioa aipatu genuen eta, zehazki, **gaixotasun neurologikoei** eragiten zien kontu bati buruzko informazioa eskatu genuela adierazi genuen.

Hain zuzen, esan genuen zaila zela Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak ematen duen doktrina alde batera uztea, zehazki, suspertze neuropsikikora bideratutako errehabilitazio tratamendua behar duten gaixoek tratamendu hori jaso dezaten.

Osasun Finantziario eta Kontratazioko Zuzendaritzaren martxoaren 24ko lehenengo erantzunak, horren inguruan planteatutako iradokizuna onartzeko, gastuak itzultzeko mekanismo bat erabiltzeak ekarriko zuen traba zuen hizpide.

Arazoaren mamiak gastuak itzultzeko ohiko egoera bat baino ez duenez aintzat hartzen, uste dugu erantzun horrek ez zituela planteatzen genituen inguruabarrak baloratzen (duela gutxiko epaiak). Horregatik, Osasun eta Kontsumo Saileko arduradun berriengana jo dugu, pertsona horien errehabilitazioa aipatu epaiak iradokitzen duten moduan jorratzeko aukerari buruz duten iritzia jakiteko, laguntza osoa sistema publikoaren bitartekoekin ahalbidetzen duten ezarpenak gauzatu bitartean.

2009ko abenduan administrazioaren erantzuna jaso genuen. Bertan, jakinarazi zaigu Donostia Ospitalea prest dagoela fisioterapia, logopedia, terapia okupazional eta errehabilitazio neuropsikologikoko tratamenduak emateko, gaixoak hala eskatzen badu; tratamendu osoa hartutako kalte zerebrala duten gaixoen kasuetan. Tratamendu berezituagoa eta biziagoa nahi izatea ulergarria izanik, hori ezin zuen sistema publikoak ordaindu.

Erantzun hori aztertuko dugu. Izan ere, administrazioari egindako gure informazio eskaeran adierazi genuen moduan, zaila zen Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak berriki emandako epaiak alde batera uztea (azken epaia 1725/2008, ekainaren 24koa), zehazki, suspertze neuropsikikora bideratutako errehabilitazio tratamendua behar duten gaixoei tratamendu hori jaso dezaten, zentro pribatu batetara jo dezaten.

Egin genuen ohar horri dagokionez, sailak erantzunean hauxe dio: *“no es menos cierto que las últimas son favorables al Departamento, basándose en que en la actualidad la norma establece: el tratamiento de rehabilitación no es una urgencia vital y además Osakidetza-Servicio vasco de salud se ofrece el tratamiento rehabilitador”*.

Erantzun hori baloratuko dugu, kontuan hartuta erantzun horrek epaiak aipatu baino ez di-tuela egiten –ez erantsi–, argitu gabe geratu diren alderdi batzuk baitaude: adibidez, ez du zehazten epai horietan auzitegiak errehabilitazio mota berbererako sarbidearen inguruan epaitu ote duen.

Buruko osasuna

Gaixo kronikoen arretaren esparruan, **buru osasuneko** arazo larriak eta kronifikatuak dituzten pertsonak ditugu hizpide. Pertsona horien egoerak oso desberdinak dira.

Lehentasunezko arreta duten taldeei buruzko II. kapituluan, gaixo kronikoei emandako arreta hizpide den atalean, egindako jarduerak jasotzen dira, batez ere, arreta soziosanitarioari buruzko txosten bereziarekin zerikusia dutenak.

Laguntza Psikiatrikorako eta Buru Osasuneko Plan Estrategikoarentzat (2004-2008) ezarritako epea amaituta, Buruko Osasunaren Aholku Batzordeak 2009an EAEko Buruko Osasunerako Estrategiaren proposamena egin du. Txosten hau egiterakoan Osasun eta Kontsumo Sailarentzat proposamen bat baino ez den agiri horrek hurrengo urteetan lehentasunezko aurreikuspenarekin burutu behar diren ekintzak biltzen ditu. Proposamen horrek jorratzen dituen kontuetako batzuk, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen aplikazioari buruzkoak, hala nola, gizarte arretako banakako planak eta osasun tratamenduko planak edo mendetasunaren balorazio eskala koordinatzeko beharra, II. kapituluan jorratuko dira, ezgaitasunen bat duten pertsonen arreta espezifikoa hizpide den atalean.

Buruko gaixotasuna duten pertsonen familiartekoei planteatu dizkiguten kexa batzuen ondotik, egoera jakin batzuei buruzko informazioa eskatu genuen, zehazki, aipatu pertsonei laguntzeko

eta lekualdatzeko egin diren jardueri buruz, borondatearen aurkako barneratzea bidezkoa ote den edo ez. Kexa horiek honako hau dute hizpide: gaixoa poliziek inguratuta eraman zuten eta gaixoen eta familien artean tentsio handia sortu zen. Agenteen jokabidea ez zen zalantzan jarri baina esan digute, uniformeak jantzita zutenez, egundoko ikusmina sortu zela. Izan ere, jendea familiaren aurrean taldetan bildu eta komentario desatseginak egiten zituen.

Buruko gaixotasunak dituzten pertsonen eta poliziaren arteko bideratzearen esparruan kokatu behar diren egoerak dira. Bertan, aurreikusi da uniforme jantzita ez duten unitateak izango direla beharrezko jarduera mota horiek burutzeko lekura joango direnak, gaixoen nahasmendua ez handitzeko.

Egoera horiek esku-hartzea gomendagarria den gutxieneko esku-hartze irizpidera egokitu behar dela dioen printzipioarekin egiaztatzeko, Herrizaingo Sailari informazioa eskatu genion.

Krisi egoeretan esku hartzeko koordinazio planaren definizio onena Euskadiko Buruko Osasun Aholku Batzordearen 2009ko proposamenean jasotzen da. Barneratzeen protokolo berria berriz planteatzeko egokitasuna buruko gaixotasunen bat duten pertsonen arretari buruzko aurre txostenetan egin dugun jarraipenean jasota geratu da. Osakidetzak, gizarte zerbitzuek, poliziak, organo judizialek, buruko gaixotasunaren esparruan lan egiten duten erakundeek eta elkarteek protokolo horren garapenean parte hartzen dute.

Goian azaldu dugun Ertzaintzaren esku-hartzeari buruzko jarduera esparru horretan koka daiteke.

Erakunde honetan berriz mahaigaineratu da elikadura nahasteak dituzten pertsonen egoera. Kasu batean, zentro espezifikoak sortzeko eta, beste batean, aldiz, zentro pribatu bateko laguntzaren ondoren, gastuen diru itzulketa eskatzeko.

Egindako balorazioak honako honi egin dio erreferentzia: buruko gaixotasunen bat duten pertsonen emandako arreta komunitarioari buruzko erakunde honen txostena, 2000. urtekoa; ordutik hartutako neurriak eta, guztiek laguntza unibertsal berbera jasotzeko ikuspegitik, botere publikoen aukera, alegia, baliabide espezifiko horiek ez sortzea. Aipatu aukera ez dirudi arbitrarioa denik edo funtsik duenik. Alderdi hori osasun sisteman dauden berariazko programen bidez jorratzea beste kontu bat da.

Bigarren kasuan, ohartu gara ez zela alde aurretiko baimenaren espedientea izapidetu, erreferentziatzeko ez zen beste zentro batetara joateko. Ezin genuen alde batera utzi laguntza sistema publikoan bidera zitekeela, ezta kontrakoa ere. Beraz, bere buru osasuneko zentrori joateko esan genion, bertan balora zezaten.

Osasun zerbitzuen funtzionamendua

Osasun-garraioaren erabiltzaileek garraio horren funtzionamenduari buruzko kexak aurkeztu dituzte.

Bizkaian, aldian-aldian ospitaleetara joaten diren gaixoen lekualdatzeei buruzkoak dira eta garraioak, oro har, iristeko izaten duen atzerapenak errehabilitazio saioak atzeratzea edo galtzea dakarrela adierazi dute.

Kalte horrez gain, anbulantzia esleitura ez izateagatik, oro har, etxera itzultzeko itxaron behar zuten denboraz kexu ziren.

Ohiko komunikazio bideak, errepideak, erabiltzen dituen zerbitzua denez, argi dago ibilgai-luen trafikoa aztoratzen duten egoerek nahitaez zerbitzu honengan eragin dezaketela.

Ikuspegi horretatik, ezinezkoa da esatea, aurreikusi ezin daitezkeen faktoreekin lotuta dagoen zerbitzuak ez duela horien eraginik pairatuko, esaterako trafiko dentsitatea. Hala ere, zentzuzkoa da, kalte horien iturria anbulantzien zerbitzua emateko sinatutako hitzarmenean ezarritako baldintzak ez betetzetik ez izatea; edo hitzarmeneko baldintzak berrikustea, arazoa bere hartan balego.

Kalte horrez gain, gaixo horiei beti konpontzen ez zaien beste arazo bat planteatu da: etxera itzultzeko itxaron behar duten denbora luzea, batzuetan ez baitute anbulantzia esleitura izaten.

Txosten hau egiterakoan, kalte horien zioak egiaztatze aldera, egiaztapenei eta osasun garraioa etxera itzultzeko esleipenarekin izapidetzeko aukerari buruzko informazio eskaeraren erantzuna jasotzeko zain gaude.

Halaber, osasun zerbitzuen funtzionamenduari dagokionez, kexa batzuek garrantzi eta iris-men desberdineko alderdiak planteatu dituzte. Ordea, horiek guztiek laguntzaren kalitateari eragiten dioten egoerekin dute zerikusia.

Horietako batean, ospitaleratua egon zen gaixo baten familiartekoa kexu zen itundutako zentro batean emandako osasun laguntza eskasaz, agiri bidez egiaztatu du. Itundutako laguntza dela kontuan hartuta, Osasun eta Kontsumo Sailari informazioa eskatu genion eta erantzunean zentro horretan gaixotasun kronikoak dituzten gaixoei eta zainketa aringarriak behar dituzten gaixoei emandako arretari buruz egindako eta egitea aurreikusita dauden jardueren berri eman zigun.

Aipatu kexen artean, **ama-haurrentzako** arretarekin zerikusia duten inguruabarrak planteatu dizkigute. Horietako batek, Donostia Ospitalean, eremu horretako instalazioen baldintzak zituen hizpide. Osakidetzak egiaztatu duen premia bat da, aurreikusitako osasun inbertsioen jardueren zati baita.

Halaber, ospitaleratutako gaixoak kexu dira logelan zuten beste pertsonaren bisitek eragindako eragozpenengatik.

Ospitale batzuetako web orrialdean dagoen informazioari jarraiki, gaixoen eskubideek dute lehentasuna –baita alboko gaixoaren atsedena ere–, bisitan etortzen diren familiarteko edo

lagunen gainera. Jendeak guri ekartzen dizkigun kexak ez dira zertan errealitatearen erradiografia izan. Kasu honi dagokionez, ezinezkoa zaigu jakitea eragozpenak saihestezinak direnak baino gehiago ote diren. Hala ere, badirudi kexa horiek funtsa dutela eta, horregatik, zuri haien berri ematea egoki iritzi dut, aintzat har daitezten.

Gor-mutu batek eduki ditzakeen zailtasunen artean irisgarritasuna izan daiteke horietako bat, hain zuzen osasun zentroetara joan eta osasun laguntza jasotzerakoan.

Espainoleko zeinu hizkuntzak onartzen dituen eta gorren, entzuteko urritasuna duten eta itsu-gorren ahozko komunikazioarekin laguntzeko bitartekoak arautzen dituen urriaren 23ko 37/2007 Legeak ezartzen du osasun administrazioek, erabiltzaileak ahozko komunikaziorako laguntza behar duenean, laguntza bitartekoak sustatuko dituztela pertsona horiek artatzen diren osasun zentroetan.

Osasun administrazioaren azken erantzunaren arabera, urte honetako iraila amaierakoa, lantaldearen funtzionamenduari heldu zaio berriz ere, irisgarritasuna emateko. Horrek aipatu arazoa urriaren 23ko 27/2007 Legeak jasotzen dituen premisekin aztertzen du. Hilabete gutxiren buruan taldeak proposamenen bat egingo duela aurreikusi da.

Horregatik, gaitasuna mugatua duten pertsonen inguruabarrak kontuan hartu beharko lirarteke beren egoerak baloratzerakoan eta banakatuago egin beharko litzateke. Gaitasunaren muga hori aintzat hartuta, atal honetan gaixo baten alabak egindako kexa koka dezakegu. Aipatu gaixoari bere kasuarentzat ezarritako denborarako aurreikusitako errezeten gehieneko kopurua bisatu zitzaion. Aitaren kargu egin zenean, alabak ondoren aurkeztu zituenak itzuli egin zitzaizkion inguruabar hori argituta.

Bisatua botiken arrazoizko erabilera dagoela laguntzen kontrolatzeko mekanismoa baldin bada, adibidez, gastu publikoa murriztuz, errezetak bisatu baziren, ikuskaritzaren erabakia printzipioz zuzena zen.

Ordea, errezetak fakturatzeko prozedurak errezetak –bisatuak izan arren– behar bezala erabili ez zirela egiaztatzeko bidea ematen badu, orduan errezeten gehieneko kopuruaren bisatu irizpidea salbuetsi zitekeen.

Hori dela eta, lurralde zuzendaritzak hasieran ukatu arren, Osasun eta Kontsumo Sailari balorazio horren berri eman genion eta bertako Farmazia Zuzendaritzak, erabili ez zirela egiaztatu ondoren, errezeta berrien bisatua onartu zuen.

Osasun publikoa

Arlo hau tabakoaren kontsumoari buruzko kexa baten aipamenarekin itxiko dugu. Jarraikako txosten arruntetan, arauak ezarritako debekuen betetzeari buruzko egoera aipatu behar izan dugu. Kexek iradokitzen zuten beharrezkoa zela eskumenak, salmenta kasuak eta legezko drogen kontsumoa eta pertsona zaurgarriek lokaletara sartzeko duten aukera gehiago zehaztea.

Aurten eskatu dugun informazioari jarraiki, establezimendu publiko guztietan ez erretzaileen eskubideei lehentasuna emateko bidea emango duten arauzko egokitzapenak ari dira sustatzen Droga-Mendetasunaren Zuzendaritzan.

Horren bidez aurreko txostenetan agertu izan ditugun kexen arazoa bideratu da. Kexak langileek egin zituzten, legegileak bezeroak erretzaileen “ketik” babestu behar izateko jazo diren arrazoi berak jasan behar baitzituzten haien establezimenduetan. Langile horiek ezin dute beste establezimendu bat aukeratu, aitzitik, bistan da eragozpenak pairatu behar dituztela.

I.13

LANA ETA GIZARTE SEGURANTZA

13. LANA ETA GIZARTE SEGURANTZA

2009an, guztira 11 kexa aurkeztu dira Lan eta Gizarte Segurantzaren arloan.

Kexak eragin dituzten arrazoiak enpresak sortzeko, autoenplegurako, etengabeko prestakuntzarako eta prestakuntza ikastaroetarako laguntzekin edo Lanbiden emandako zerbitzuarekin lotutako egoerekin izan dute zerikusia, nagusiki. Halaber, talde jakin batzuk enplegua erregulatzeke espedienteetan sartzeko hainbat alderdirekin egon dira lotuta kexak.

Kultura Ekintzailea eta Enpresak Sortzea babesten duen abenduaren 23ko 328/2003 Dekretuak arautzen dituen diru-laguntzek ere hainbat kexa eragin dute.

Kexetako batean, herritar bati diru-laguntza esleitu zioten, baina ez zioten ordaindu; nahiz eta administrazioaren aurrean hainbat eginbide egin zituen.

Ez zegoen arazo materialik, ordainketa espedienteko barruko kudeaketakoak baino. Hala ere, arazoak konponduta onartu zioten kopurua kobratu ahal izan zuen.

Enpresa bat sortzeko diru-laguntza berandu eman izana Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailaren aurrean kexa bat eragin zuen (328/2003 Dekretuak arautzen dituen diru-laguntzak). Berandutzea ezin zitzaion interesdunari egotzi; eta, laguntza hainbat hilabetez berandutu zen arren, azkenean jaso zuen onartutako diru-laguntza.

Diru-laguntza horiek berek bestelako kexa bat ere eragin zuten. Gure ustez, administrazioak erabakia hartzeko, herritarrak aurkeztu zuen espedienteetan egiaztatutako baldintzak hartu zituen irizpide. Itxuraz, egora bestelakoa bazen, ez zen halakorik egiaztatu herritarraren espedienteetan.

Talde honetan ere, gora jotzeko errekurtsio bati ez erantzuteak eragin zuen kexa. Errekurtsioa laguntza bat ukatu zuen ebazpenaren aurkakoa izan zen.

Esan-bidezko ebazpena emateko epea agortuta zegoela aintzat hartuta, kexaren berri eman genion Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Sailari.

Gaian sakon sartu gabe, administrazioari gogora ekarri genion berariazko ebazpena emateko betebeharra zuela. Era berean, esan genion herritarrak errekurritu zuen erabakiaren zentzuak ez zuena nahikoa funtsik ebazpenean. Azkenean, errekurtsioa ebatzi zuten, eta errekurritutako egintza berretsi zuten. Horretarako oinarria interesdunak eskatzen ziren baldintza betetzen zituela egiaztatzeke nahikoa agiriarik ez aurkeztu izan zen.

Lanbideko prestakuntza ikastaroen esparruan, langabe batek kexa egin zuen, laneko arriskuak prebenitzeko ikastaro batean ez zutelako onartu. Filologiako lizentziaduna zen, eta iragarkian jasotako baldintzak betetzen zituela uste zuen.

Lan-Ekintza zentro batera jo zuen, eta han adierazi zioten ikastaroko hartzaileek bete beharrekoak ez zituela betetzen. Berak azaldu zuen aurretik egin zituela giza baliabideei buruzko ikastaro batzuk, eta horregatik burutu nahi zuela ikastaro hark eskaintzen zuen prestakuntza osagarria.

Kexak funtsduna ematen zuen. Izan ere, Lanbideko interneteko orrian ikastarorako argitaratu ziren betekizunetan, lizentziaduna izatea baino ez zuten eskatzen; bestelako azalpenik gabe. Hala ere, informazioa egiaztatzea derrigorrezkoa da, eta, horregatik, herritarra ikastarotik kanpo uzteari buruzko informazioa eskatu genuen. Orain, jasoko dugun informazioa aztertzeko zain gaude.

Prestakuntza ikastaro horiekin ere lotuta, atzerriko pertsona batek kexa aurkeztu zuen, lana egiteko baimenik ez zuelako ikastarotik baztertu zutela uste zuelako.

Administrazioak helarazi zigun informazioan argi azalduta zegoen ez onartzea ikastaroan sartzeko baldintza bat ez betetzearekin lotuta zegoela, eta ez lanerako baimena ez edukitzearekin. Azalpen hori babesteko, pertsona hori bera beste prestakuntza ikastarotan onartu zutela jakinarazi ziguten. Era berean, Eusko Jaurlaritzako erantzuna jaso zuen telefono bidez, Lan eta Prestakuntza Zuzendaritzan egin zuen kexari erantzuteko.

Lanbideko funtzionamenduari dagokionez, pertsona batek kexa egin zuen, lan eskaintza batean aurkezteko bere curriculuma eguneratzeko arazoak izan zituelako. Zioenez, ezin izan zuen eguneratu eskaintzaren epe barruan. Horren harira bildu genuen informaziotik, berriz, ondorio bat atera genuen: ez zen funtzionamendu txarrik egon, eta interesdunak ez zuen curriculuma eguneratzeko oztoporik izan. Curriculuma eguneratu gabe hainbat urte zeraman.

lazgo txostenean Lanbideko kexa bat izan genuen hizpide. Kexa hartako gaia lan eskaintza batzuei buruzkoa zen: eskaintza haiei buruz informazioa jasotzeko diru kostua zekarren telefono deia egin behar zen.

Gerora jaso genuen erantzunean adierazi ziguten arazoa bideratu zutela, eta eskaintza haiek borratu zituztela. Zerbitzuak arazoaren berri zuen jada, salaketa batzuk izan zituztelako.

Aurreikusita dagoen prozeduraren arabera, eskaintzen telefonoak iruzurrerako erabiltzen badira, eskaintzaren ezaugarrien berri ematen zaio Lanbideko zerbitzu zentralari. Beraz, eskaintza haiek arazoaren berri jaso eta hurrengo eguneraketan borratzen zituzten. Gero, salatutako telefono zenbakia etorkizuneko eskaintzek ezin izan dezaketen telefono zerrendan sartzen zen.

Kexa haren bidez agerian geratu zen aurreikusitako prozedura ez zela nahikoa. Halako egoerak saiheste aldera, Enplegurako Euskal Orientazio Zerbitzuak, LANBIDE, adierazi zigun barruko prebentziorako eta iruzurrei aurre egiteko barruko prozeduran aldaketak egitea aztertzen ari zirela; besteak beste, honakoak:

- Eskaintza bakoitzeko goiburuan agertuko den oharraren bistako ezaugarriak birdefinitzea, eta nabarmenago egitea.
- Erredakzioa aldatzea, argiagoa izan dadin.
- Prestakuntza berezia eman erabiltzaileentzako arreta ematen duten langileentzat, oharrak tratatzeari dagokionez.

Txanda-kontratuarekin aurre erretiratuta dauden pertsona ugari kexa aurkeztu zuten, beren enpresan zegoen enplegua erregulatzeko espedienteak (ERE) berengan eraginik ez zuela izan zehar uzte zutelako. Haien espedientea baimendu zuenean, administrazioak ez zuen kontutan hartu interesdunek gora jotzeko errekurtsioan agertutako egoera. Horri buruz aritu ginen gure informazio eskaeran.

Erakunde honen irizpidea da, EREan ezaugarri horiek dituen pertsona taldea sartzeari adineko pertsonak, erretirotik hurbil daudenak eta txanda-kontratuen bidez ordezkaturakoak ezohiko gertakaria da. Izan ere, ohikoena talde zaugarrienak mota honetako espedienteetatik at uztea da (langabezia jasotzeko eskubiderik ez duten langileak, zati batean erretiratuta daudenak, etab.).

Administrazioaren ardura da talde zaugarrienak zaintzea. Eta, zentzu horretan, azpimarratu behar dugu, arreta berezia jarri behar zaiola adin gehien duten langileentzako laguntzari, baita pertsona nagusiak sozialki eta ekonomikoki integratzeko hartutako neurriei ere. Hala ezartzen baita langileen funtsezko gizarte eskubideen gutun komunitarioan eta Europako Kontseiluak onartutako laneko jarraibideetan.

Gizarte Segurantzarekin lotutako alor batean, EAEko Aurre Jubilatuen eta Pentsiodunen Elkarteen Federazioak (FEVAAS) eta Estatuko Aurre Jubilatuen eta Pentsiodunen Konfederazioak (CEPYP) erakunde honen aurrean desadostasuna azaldu dute egun pentsioak arautzeko dagoen araudiarekin, eta legezko esparrua aldatzeko eskaera egin dute. Helburua da 65 urte dituen pentsionista orok –35 urte kotizatu baditu– bere oinarri arautzailearen %100 kobratzekoa aukera izatea, aurretik erretiratu zen aintzat hartu gabe.

Gizarte Segurantzako legeari buruzko edozein gai estatuko eskumenen esparrukoa dela kontuan hartuta, estatuko Herriaren Defendatzaileari eman genion kexaren berri. Horrela, berak izapidetuko du kexa, hark baitauka eskumena estatu mailako gaiak bideratzeko.

I.14

HIRIGINTZA ETA LURRALDE ANTOLAMENDUA

14. HIRIGINTZA ETA LURRALDE ANTOLAMENDUA

Sarrera

Hirigintza eta lurralde antolamendua arloak Arartekoak diziplina horretan burutu dituen jardunak biltzen ditu. Diziplina horretan jasotzen dira hiri antolamendua, lurzorua eraldatzen duten hirigintzako prozesuak –urbanizazioa eta eraikuntza– eta hirigintzako legezkotasuna.

Hirigintza eta lurralde antolamenduko arloan 84 kexa jaso ditugu, alegia, kexa guztietatik %4,38. Eragindako administrazioen arabera, kexak honela banatzen dira:

- Tokiko administrazioa	75
- Foru administrazioa	5
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza)	2

Azpiarloei dagokienez, berriz, honela:

- Hirigintzako diziplina eta aurria	40
- Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa	18
- Irisgarritasuna	9
- Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazioaren erantzukizuna	6
- Hirigintzako kudeaketa	5
- Hirigintzako antolamendua	5
- Beste batzuk	1

Lurzoruko eta hirigintzako araudiari buruzko aipuari dagokionez, gai honetan adierazi behar dugu Hirigintzari eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeak (LHL), ekainaren 30ekoak, ez duela araudirik garatu. Lege horretan ezarrita dagoenez, EAEko gobernuak garapen araudi bat sortu behar zuen, legea indarrean sartu eta urtebeteko epean; hau da, 2007ko irailaren 20 baino lehen. Epe hori igaro den arren, araudia onartzeke dago oraindik. Eusko Legebiltzarrak horri buruzko informazioa eskatu du, legebiltzarreko galdera baten bitartez. Eusko Jaurlaritzak erantzun duenez, garapenerako araudiaren zirriborroa dauka. Nolanahi ere, 2009ko azaroaren bukaeran, Etxebizitza, Herrilan eta Garraio Saila berrikusteke zeukan oraindik zirriborroa; eta urrats hori eman behar da, gero izapidetzeko, xedapen orokorrerako ezarrita dagoen prozedurarekin bat.

Bestalde, EAEko Auzitegi Nagusiak 2009ko irailaren 16an eman zuen epaian –horren bidez ebatzi zituzten 105/2008, ekainaren 3koa, LHL garatzeko premiazko neurriei buruzko dekretuaren hainbat ezarpenen aurkako errekurtsioa–, erabat deusez izendatu zuen 13. artikulua (3. puntuko zatia) eta 14.2 artikulua.

Hirigintza eta lurraldearen antolamenduaren arloaren sarrera honen helburu da ere herritarrek aurkeztu dituzten kexak eta erreklamazioak. Kexa eta erreklamazio horietan administrazioak gai honen aurrean izan duen jarduna zalantzan jarri dute. Kexa eta jardun horien analisi sistematikoa biltze aldera, beste urtetan bezala, herritarrek gai honetan dituzten eskubideen eta askatasunen multzoari jarraipena egingo diogu. Eskubide eta askatasun horiek Lurzoruari buruzko legearen testu bategina (LLTB) onartzen duen ekaiaren 20ko 2/2208 Legegintzako Errege Dekretuko 4. artikuluan dauden jasota.

- Etxebizitza duinaz, egokiaz eta irisgarriaz gozatzeko eskubidea

Etxebizitza izateko eskubidearen edukia konstituzioko 47. artikuluan dago jasota, eta eragin berezia dauka hirigintzako esparruan. Hirigintzako antolamendu prozesuen eta horien ondorengo kudeaketak sortzen duten eragin nagusia herritarrek duten gizarte eta ekonomi politikaren printzipio gidariak onartzearen nahian nabari da. Hirigintzako legeriak jarraitzen duen ildoan etxebizitza duin, egoki eta irisgarriaz gozatzeko aukera planteatzen du; isurtze kutsatzailerik gabe eta ingurumen eta paisaia egokiaren baitan.

Testuinguru horretan, herritarrek erakunde honetara jotzen dute. Aipatutako eskubidea bermatu nahi izaten dute, lurzoruaren urbanizatzeko edo birurbanizatzeko esku-hartze publikoen eraginpean daudenean. Kasu bat: **hiria biziberritzeko** jardunak, hiriko auzoetan edo lehengoratzten dauden edo degradatuta dauden aldeetan. Lan horren barruan, administrazioen helburu nagusien artean egon behar da herritarrek duten eskubide bat asebetetzea: etxebizitza duina eta hiri ingurune egokia izateko eskubidea.

Pertsona talde batek azaldu digunez, Abanto-Zierbena udalerriko Santa Juliana auzoak hondamen soziala eta hirigintzakoa ditu. Auzoko eraikinak eta hiri ingurunea hondatuta daude; horregatik, erreklamaziogileek bertako udalera jo dute, zerbitzu publikoak auzo horretan emateko dauden zailtasunen berri emateko: argiteria, bide publikoen garbiketa eta oztopo arkitektonikoak. Era berean, erreklamaziogileak kezkatuta daude, aurri huts diren eta abandonatuta dauden eraikinetan jendea dagoelako, egoki den titulua gabe. Egoera horiek auzotarren arteko gatazkak sortu dituzte, eta horrek auzoa hondatzen du. Erakunde horri erantzuteko, Abanto-Zierbenako Udalak auzoa berrantolatzeko asmoa dauka. Horretarako, Hiri Antolamendurako Plan Orokorra berrikusiko du. Antolamendu horretan auzoa kokatua dagoen lurzoria birkalifikatzea aurreikusi da, ondoren, urbanizatzeko eta etxebizitza berriak eraikitzeo. Etxebizitza horietan, eraitsi beharreko eraikinek eragindako pertsonen bizilekua emango zaie. Plan horren sustapenean aurrera egiteko, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailarekin elkarlanean ari da. Orain arte, udalak hasieran onartu du Hiri Antolamenduko Plan Orokorren berrikuspina. Aurretik, jendaurrean egon zen epe batez, egoki ziren alegazioak aurkezteko. Bestalde, plan orokorraren berrikuspina barne hartutako proposamenak ezagutze aldera, udalak informazio bileraren batera deitu ditu bizilagunak. Nolanahi ere, hainbat auzotarrek Arartekora jo du, bizitzen ari diren trantsizio garaia eragiten dien kezka berri emateko, hiria biziberritzeko prozesuak eragiten ari dizkien ondorio pertsonalak argitze aldera.

Erreklamazio honi izapide egokia emate aldera, Abanto-Zierbenako Udalera jo dugu, auzo hori legez okupatzen duten pertsonen bizi baldintzak hobetuko dituen hiriaren biziberritzea susta dezan. Hori helburu, hainbat gogoeta eta proposamenen berri eman genion udalari, gizarte eta hirigintzako esku-hartze neurriak dituen plan zehatza ahalbidetzeko. Neurri horien artean, herritarren parte-hartzerako programa sartu beharko lukete, honako helburuekin: gizartea eta hirigintza onera ekartzeko eta HAPOko berrikuspenean ezarritako jardunetarako. Programa horren bidez, proposatu den hirigintzako antolamenduaren aukerak herritarrei jakiteko aukera eman beharko litzaieke, baita lurzoruaren jabeek dituzten eskubide eta betebeharrei buruz ere. Eta, bereziki, etxebizitzak legez okupatzen dituztenez bizitoki berria jasotzeko eskubidea dutela argitu beharko luke. Era berean, gai honen berri eman diogu Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailari eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako Sailari.

Administrazio horiek auzoa biziberritze aldera orain arte burutu diren jardunen berri eman digute. Gero, hainbat bilera izan ditugu auzotar batzuekin, udalerriko ordezkariekin eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailarekin; helburua hirigintzako prozesu honi buruzko informazioa biltzea izan da. Espediente hau ixteko egunean, Arartekoak ez du oraindik prestatu behin betiko ondorioen ebazpena.

Hiria biziberritzeko prozesua administrazioak bideratu behar du, eta legezko pertsona okupatzaileei **bizilekua berriro emateko eskubidearen** aldeko apustu garbia izan behar du. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko uztailaren 30eko 2/2006 Legeak etxebizitzaren legezko okupatzaileei berriz ere bizilekua ematea bermatzen du, ohiko etxebizitza denean eta utzaraztea eskatzen duen hirigintzako jardueragatik kaltetuak direnean.

Erakunde honetan jaso ditugun erreklamazioek eragindako pertsonen duten informazio falta agerian utzi dute: ez dakite eskubide honen edukia zein den, aipatutako araudiari dagokionez. Adibidez, Getxoko etxebizitza batean bizi den pertsona batek kezka duela adierazi digu, hirigintzako desjabetze espedientea hasi delako eta ez dakielako berriz ere bizilekua jasotzeko eskubidea duen. Getxon, erabilera publikoko eta oinezkoentzako pasealekuetarako Hirigintzako Antolamendurako Plan Orokorra martxan dago, eta interesdunaren lursaila bertan jasota dago. Erakunde honek udalari jakinarazi zion hirigintzako eskubide hau balioespena ezarri aurrekoa dela eta guztiz independentea. Hori dela eta, erakunde honen ustez, beharrezkoa da, hirigintzako desjabetze espedientea hasi baino lehen, hirigintzako desjabetzea jasango duten etxebizitzetako legezko okupatzaileak, berriz ere bizilekua emateko eskubidea izan dezaketena, zehaztea. Eusko Jaurlaritzako 39/2008 Dekretuko 38. artikulua, EJKo sustapen propioen araudia arautzen duenak, dio berriz ere bizilekua ematea desjabetze espedientearen sartuta dauden ondasun eta eskubideen titularren zerrendarekin hasten dela. Hala izaten da desjabetzeaz bestelako kudeaketa sistema erabiltzen duen hirigintzako jardunetan. 2/2008 Legeko bigarren xedapen gehigarriak dio urbanizatzeko jardunaren programa izapidetu bitartean osatu behar dela bizilekua berriz ere eman behar zaien legezko okupatzaileen zerrenda.

Bada erakunde honetan behin eta berriz azaltzen ditugun egoera: ez diete okupatzaileei bizilekua berriz jasotzeko eskubidea onartzen, eraikin bat aurri izendatu eta hura bota

ondorengorako. Erabiltzeko eta gozatzeko baldintza egokietan mantendu behar du etxebizitza jabeak, eta testuinguru horretan kokatu behar da eraikinaren aurri deklarazioa. Eraikina mantentzeko betebeharrean huts egiteak eraikina eraitsi beharra eta okupatzaileak etxebizitzak erabili eta gozatzeko eskubidea galtzea dakar. Eraikina bota ondoren, ezin da etxebizitzaren legezko okupatzaile izaera mantendu; eta izaera hori berriro bizilekua emateko funtsezko baldintza da. Salbuespen bakarra hiri errentamenduei buruzko legeak ezartzen duen itzultzeko eskubidearen eraginpean egotea da.

Nolanahi ere, aurri deklarazioa, etxea uzteko agindua eta eraikin baten eraispena ez dira desegoki erabili behar: hirigintzako sustatzailearen eginkizuna errazteko bidea emango duen hirigintza kudeaketa teknika gisa. Eta, are gutxiago, bide horretatik beren etxebizitza nola desagertzen den, bizilekua berriro emateko eskubidea nola galtzen duten eta etxebizitza berri bat beren bitarteko eskasekin nola eskuratu behar duten ikus dezaketen legezko okupatzaileen eskubideak urritzeko.

Gai honekin lotuta, eta Sestaoko alde industrialaren hirigintzako biziberritze planaren barruan, honakoa ebazpena bidali diogu udalari: [Arartekoaren ebazpena, 2009ko irailaren 7koa](#)⁵⁵. Ebazpenean, etxebizitza baten jabeak planteatutako egoerari buruzko gogoeta batzuk jaso genituen: etxebizitza ordenamendutik kanpo zegoen, eta aurri deklaraturata. Jabeak berriro bizilekua emateko eskubidea erreklamatu zuen, Sestaoko hainbat auzoen hirigintzako biziberritze prozesuaren baitan.

Hirigintzako egoera horrek kezkatuta dauzka herritarrak, eta erreklamazio ugari sortzen ditu jabeek beren etxebizitza **ordenamendutik kanpo daukatenean**. Kasu honetan, Santurtzi eta Sestaoko hainbat jaberren erreklamazioak jaso ditugu. Erreklamazioen bidez azaldu digute zer egoeratan dauden beren eraikinak, egoki zaien hirigintzako antolamenduko plangintza orokorra onartu dutenetik. Azaldu diguten arazo nagusia ordenamendutik kanpoko egoera gehiegi luzatzen dela da. Halakoetan, eraikina desagerraraziko duten hirigintzako ezarpenak ez dira burutzen, eta jabeentzat eta legezko okupatzaileentzat dagozkien hirigintzako eskubideak gauzatzea ezinezkoa izaten da.

Ordenamendutik kanpo dagoen eraikina aintzat hartzeko, zehaztasunez ordenamendua garatuko duen plan berezia onartu behar da askotan. Plangintza hori izapidetzeko ekimen partikularra zein udalarena dira zilegi. Hala ere, garapen plangintza aurkezteko berandutzeak askotan eragiten du eraikinak bere horretan jarraitzea.

Eta, eraikina ordenamenduz kanpo dagoen bitartean, etxebizitzak dituen eraikuntza aukerak egoera horren eraginpean daude. Kasu horretan, hirigintzako legeriak ordenamenduz kanpo dauden eraikinetan indartze eta eraberritze obrak egiteko aukera ematen du, hirigintzako araudiaren barruan aurreikusitako baldintzei jarraiki. Era berean, ordenamenduz

⁵⁵ Arartekoaren ebazpena, 2009ko irailaren 7koa, Iparraldeko industrialdearen hiri biziberritzeak eragiten dion Sestaoko etxebizitza bateko jabeak aurkeztutako erreklamazioari bukaera ematen diona.

kanpo egoerak zailtasunak ekartzen dizkie jabeei, higiezina eskualdatzen edo harentzako finantzazioa lortzen saiatzen badira; izan ere, hipoteken merkatuan, ordenamenduz kanpoko higiezinak ezin dira onartu berme gisa (apirilaren 24ko 716/2009 Errege Dekretua).

Erakunde honek azpimarratu izan du eraikinak ordenamendutik kanpo egotea ordenamendu juridikoarekin bat datorrela; hala suertatu delako, jada bertan dauden eraikinak aurreikusitako plangintzaren ordenamenduaren kontrakoak direnean. Egoera hori jazo dadin, lege-riak ezartzen dituen izapideak eta prozedurak onartu behar dira. Horien artean, alegazioen izapidea irekitzea dago, baita plangintzaren behin betiko onarpena aldizkari ofizialean argitaratzea ere. Ez dago, ordea, norberari jakinarazteko izapiderik, plangintzako zehaztapenen eragina paira dezaketen eraikinen jabeentzat.

Hala suertatu delako, ordenamenduz kanpo geratu behar diren eraikinak banaka identifikatzea hirigintzako zehaztasunezko ordenamendutzat hartzen da gure legerian (LHLko 56.i. artikulua). Ordenamenduz kanpoko egora gure erkidegoan arautzen duen legeak –zehaztasunezko hirigintzako ordenamendurako egoki den tresnaren bitartez– tarteko egoera hori murrizten du, eta horrek eragiten du kezka gehien. Nolanahi ere, udal gehienek hirigintzako ordenamenduko plan orokorrean jaso duten ordenamendutik kanpoko eraikinak identifikatzeko lana, edo, bestela, arau subsidiarioetan; hala agintzen zuen lehengo hirigintzako legeak. Ez dituzten ezarpenak egungo hirigintzako legearekin egokitu.

- Hornidura publikoak eta guztion ekipazioak erabiltzeko eskubidea

Eskubide honen helburua herritarrak guztion ekipazioetara eta hornidura publikoetara irisgarritasun fisikoa dutela bermatzea da. Horretarako, tartean egon daitezkeen oztopo arkitektonikoak kentzen dira. Ekipazio edo hornidura kontzeptuaren barruan, herritarrei zerbitzu publikoak (hirigintza, garraioa, hezkuntza, gizarte zerbitzuak, kultura, etab.) emateko beharrezkoak diren azpiegiturak jasotzen dira.

Erakunde honetan jaso ditugun kexek pertsonak eraikin edo espazio publikoetara sartzeko dituzten zailtasunak dituzte hizpide; bereziki, mugitzeko arazoak dituzten pertsonenak. Zailtasunok oztopo arkitektonikoek edo hiri espazioa gehiegikeriaz erabiltzeak eragiten dituzte (gaizki aparkatutako ibilgailuak, arautu gabeko lokaletako terrazak...).

Kasu batzuetan, arazoa egiturazkoa da, eta auzo batzuetara heltzea zailtzen du. Mugikortasun arazo horiek **hirigintzako irisgarritasunerako** elementuen faltak eragiten ditu. Egoera hala, erreklamazioak izapidetu ditugu, udal administrazioei jakinarazteko etxadi eta auzo guztietan oinezkoentzat egokiak diren hiri bideak egokitu behar direla; eta, bereziki, mugikortasun arazoak dituztenentzat. Neurri horien artean, igogailuak instalatzeari lehentasuna eman behar zaio; horren bidez oztopoak kentzen dira. Arrapalak edo eskailerak jartzeak, ordeaz, mugikortasuna errazten dute, baina ez dituzten irisgarritasun unibertsalak dituen arazoak konpontzen. Horregatik, gai horri buruzko gomendio orokor bat sartu dugu aurten.

Beste kasu batean, arazoa aldi baterakoa da: hiriko espazioa aztoratzen duten urbanizazio obrek eragiten dute arazoa. Halako egoeran zeuden Barakaldoko herritar batzuk. Urbanizazio proiektuan sartuta zegoen zona batetik igaro behar ziren, eta proiektuaren betearazpena berandutu zen hasierako epeei dagokienez. Erakunde honetatik, gogoeta batzuk bidali genizkion udalari, bide publikoetan obrak egiteak eragin ditzakeen arazoei buruzkoak. Urbanizazioa hobetzeko egindako obrek herritarren bizitzan eta trafiko arruntan aldaketa batzuk eragiten dituzte, nahiz eta hiri ingurunearen kalitatea hobetzeko izan. Nolanahi ere, gogoratu beharra dago udalek –urbanizazio obrak baimentzen edo sustatzen dituzten administrazio gisa– obren eraginaren berri emateko beharrezkoak diren neurriak hartu behar dituztela, baita pertsonen eragozpenak txikiagotzeko ere; horretarako, oinezkoen pasagunearentzat aukerako ibilbide seguruak ezarri.

- Hirigintzako ordenamenduko eta aplikagarri diren hirigintzako araudiaren eta baldintzen informazioa jasotzeko eskubidea

Hirigintzako informazio jasotzeko eskubidearen baitan, azpimarratu behar dugu partikularrek eta elkarteek zailtasunen berri ematen jarraitzen dutela; Izan ere, hirigintzako ordenamenduari buruz udaletan eskatzen duten informazioa eskuratzea ez da erraza izaten.

Adibidez, pertsona batek kexa bat aurkeztu zuen, **berak egindako salaketari ez ziotelako erantzun**. Orozko udalerrian, lur urbanizagarrian, sektore bateko kudeaketa eta betearazpenari buruzko jardun batzuk eta eskatutako informazioa ez ematea tarteko, erabaki zuen salaketa egitea. Orozkoko Udalak interesdunak azaldutako gaiak baloratu zituen, eta haren aburuz sektorean egindako jardunetan suertatu ziren hirigintzako irregulartasunak ez ziren nahiko egiaztatu. Behin baino gehiagotan eskatu zuen informazioari eta dokumentazioari dagokionez, udalak zioen eman ziotela eskatutakoa. Hala ere, bide batez, gogorarazi genion administrazio orok betebeharrak dituela udalean bertan eta bera partaide den sozietateetan dagoen agiritegi eta erregistroen informazioari eta sarbide eskubideari dagokionez. Hori guztia azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko 31. eta 37. artikuluekin bat. Horren harira, Orozkoko Udalari eta Zubiaur Eraikuntzak udal enpresari adierazi genien, sektorearekin lotutako espediente eta dokumentazio guztia jarri behar zutela erreklamazio gilearen esku, aztertu eta kopiak atera zitzaizkion.

Besteak beste, hirigintzako informazioa eskuratzeko eskubidea baliatzea oztokatzen duen udalaren erantzun falta planteatu genuen [Arartekoaren ebazpenean, 2009ko maiatzaren 20an](#)⁵⁶. Ebazpen horretan, besteak beste, gogora ekarri genion Belauntzako Udalari herri-administrazioak berriazko erantzuna eman behar ziola baserri bateko jabeen, baserriari itsatsita zegoen borda bat berreraikitzeari buruz.

⁵⁶ Arartekoaren ebazpena, 2009ko maiatzaren 20koa. Horren bidez, Belauntzako Udalari gomendatzen zaio berriaz erantzun diezaiela egindako eskaerei.

- Hirigintzako ordenamendu prozeduretan eta planen ingurumenaren ebaluazioan benetan parte hartzeko eskubidea

Hirigintzako prozeduretan benetan **parte hartzeko eskubidea**, informazioa jasotze-koarekin bat, erakunde honetan jasotzen ditugun kexa askoren sortzaile dira. Kexok ordenamenduaren eta lurzoruaren erabilera batzuekin bat ez datozen taldeek eta herritarrek egiten dituzte.

Gai honi dagokionez, herritar talde batek jakinarazi zigun Mendexako arau subsidiarioak aldatzeko prozesuan parte hartzeko eta informazioa eskuratzeko zailtasunak zituztela. Kasu hartan, jaso genuen informazioaren bidez, jakin genuen Mendexako udalak herritarren parte hartzearen eskubidea betetzen ari zela, ekaiaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 108, artikuluko ezarpenekin bat. Horren harira, Arau Subsidiarioen aldaketarako jarraitutako prozeduran, udalak zegozkion tramiteak jarraitu zituen, interesa zuen publikoaren partaidetza ahalbidetzeko. Halaber, informatzeko eta parte hartzeko saioak antolatu zituen, sektore honentzat aurreikusitako ordenamenduan ekarpenak eta proposamenak egin ahal izateko.

Udal gaitan (hirigintza bezala) parte hartzeko beste modu bat **herri-ekimena** da. Herri-ekimena apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarrien 7/1985 Legeko aldaketa batek ekarri du. Udal horrek tokiko eskumeneko gaiei buruz adostasunez sortutako proposamenak aurkezteko aukera ematen du. Gero, osoko bilkuran eztabaidatu eta bozkatzen dira eta eskumena duen organoan ebatzi. Horretarako, ekimenak udalerriko herritarren ehuneko baten sinadurak eduki behar ditu. Herritarrek udal goi hauteskundearen bozka emateko eskubidea dutenak izan behar dira. Jarraitu behar den prozeduraren baitan, proposamena onartu behar da, aztertzeko. Aurretik, betekizunak betetzen dituela egiaztatzen da –udal idazkariak egiten duen legezketasunari buruzko txostena–; eta, eduki ekonomikoko eskubideak tartean badira, udal kontu-hartzailetzako titularrak ere egin behar du txostena. Ekimen hori udalbatzak eztabaidatu eta bozkatu behar du, eskumendun organoak ebatzi behar izaten kaltetan izan gabe.

Ildo beretik, Berangoko herritar talde batek adierazi zigun udalak ez zuela erantzunik eman udal plangintzak birkalifikatzeko asmoa duen gune berde bat mantentzeari buruz aurkeztu zuten herri-ekimenarentzat. Ekimen hori udalerrian bizi diren pertsonen sinadurak babesten dute (herritarren %15), Toki Araubidearen Oinarriei buruzko 7/1985 Legeko 70bis artikuluko ezarpenekin bat. Udalak ez zuen erantzun, sinadura bilketan formazko akatsen bat zegoelako, eta horrek aurkeztutako ekimena izapidetzea oztopatzen zuelako. Erreklamazioa izapidetzea onartuta, udalak ezezko ebazpena eman zuen. Izan ere, herri-ekimenak ez zuen sufragio aktiboa duten herritarren portzentaje zehatz baten sinadurarik. Bestalde, erreklamaziogileek berraztertzeko errekurtsioa aurkeztu zuten. Harekin batera beharrezko sinadura kopurua aurkeztu zuten, ekimena gai zerrendan sartu ahal izateko eta berriz ere aintzat har zezaten eskatzeko. Erantzunean, alkateak jakinarazi zigun herri-ekimena izapidetzea onartu zela. Ebazpen hori osoko bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeke dago.

Hirigintzako planen **ingurumeneko ebaluazio estrategikoaren** bidez herritarrek parte hartzeari dagokionez, Arartekoak ofiziozko jardun bat bukatu du: gure erkidegoan izapidetzen diren hirigintzako ordenamendu planen ingurumeneko ebaluazioaren beharrari buruzko jarduna, [Arartekoaren ebazpena, 2009ko abenduaren 23koa](#)⁵⁷. Bertan lur urbanizagarrian egiten diren zatiko planetan eta hiri lurzorua garatzeko plan berezietan ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa egitea nahitaezkoa dela esaten jarraitzen dugu; betiere, ingurumenaren gainean eragin nabarmena izan badezakete. Hori guztia Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2001eko ekainaren 27ko 2001/42/CE Zuzentarauarekin bat –hainbat plan eta programari buruzkoa–, baita estatuko apirilaren 28ko 9/2006 legearekin bat, plan eta programa jakinek ingurumenaren duten eraginari buruzkoa.

- Lurraldearen, hirigintzaren eta ingurumenaren antolamenduaren zehaztapenak errespetarazteko jardun publikoa burutzeko eskubidea

Atal honetan jaso dira herritarrek burutu duten jardun publikoa: hirigintzako legezkotasuna aplikatzea salatu dute administrazio publikoen aurrean.

Kexek hizpide izan zuten herritar horiek kexak izapidetzean jasan behar dituzten berandutzeak. Hirigintzako ikuskaritzarako botere publikoak baliatzea eskatu zuten, beharrezko baimenik ez duten obra jakin batzuen edo erabilera partikularren gainean.

Ohikoa da administrazioek ikuskaritza jardun falta justifikatzea, bai gatazka partikulartzat jotzen delako bai administrazioak baliabide teknikoek falta duelako. Nabarmendu behar dugu hirigintzako diziplinaren esparruan agintariek eta funtzionarioek ezin diotela uko egin ahalak baliatzeari, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak ezartzen duenaren arabera. Udalak aurkeztutako salaketak izapidetzeko betebeharra dauka, eta beharrezko neurriak hartu behar ditu hirigintzako legezkotasuna berreskuratzeko. Eta hori guztia salatzailaren eta salatuaren artean egon ohi diren gatazkatik at egin beharrezkoa da; izan ere, gatazka horiek bi interesdunen esparru pribatuan geratu behar dira. Hirigintzako ikuskapen lanak udalei dagozkie eta, behar izanez gero, lurralde historikoei. Udal guztiek bermatu behar dute ikuskapen funtzioa bere kabuz edo hirigintzan eskuduna den foru sailaren lankidetzaren bidez garatzen dela.

Arartekoak administrazioen erantzun faltaren aurrean eman dituen ebazpenen artean, honakoa nabarmendu nahi dugu: [Arartekoaren ebazpena, 2009ko martxoaren 25ekoa](#)⁵⁸. Ebazpen honetan, obrak egiteagatik eta abereak ukuiluan edukitzeagatik egindako salaketa baten harira, Sondikako Udalarari adierazi genion obra gatazkatsuen legeztatze espedientea

⁵⁷ Arartekoaren ebazpena, 2009ko abenduaren 23koa. Honen bidez bukatu da ofizioz hasitako jarduna, gure autonomia erkidegoan izapidetzen diren hirigintzako planek duten ingurumeneko ebaluazioaren beharrari buruzkoa.

⁵⁸ Arartekoaren ebazpena, 2009ko martxoaren 25koa. Horren bidez, Sondikako Udalarari gomendatzen zaio udalerriko auzokide batzuek salatu dituzten jarduera eztabaidagarriak legeztatze espedientearekin jarrai dezala.

izapidetzearen alde egin zezala. Halaber, eskatu genion beharrezko neurriak har zitzala hirigintzako eta ingurumeneko legezkoatasuna bermatzeko.

Beste alde batetik, Bergarako herritar talde batek salaketa aurkeztu zuen, lur urbanizaezinean abereak gordetzeko instalazioak zeudelako. Egiaztatu ahal izan genuenez, udalak ez zuen salaketa izapidetu, eta, horregatik, [2009ko azaroaren 25eko ebazpena](#) eman genuen⁵⁹.

Durangoko Uribarri kaleko 23 zenbakian dagoen eraikinean, lizentziarik gabe ostalaritzako jarduna garatzen duen lokal batek eragiten dituen arazo eta eragozpenen aurrean udalak esku-hartzerik ez zuela ikusita, herritar talde batek guregana jo zuen: [2009ko apirilaren 20ko ebazpena](#)⁶⁰.

- Jabetzak dakartzan eskubideak eta betebeharrak

Atal honetan administrazio publikoen jardunak hizpide dituzten kexak jaso dira. Halako kexetan, hirigintzako legezkoatasuna arrazoitzat hartuta administrazioek jabetzaren eskubideaz gozatzeko jartzen dituzten mugak dira hizpide.

Gure ordenamendu juridikoak duen hirigintzako sistemak abiapuntu bat dauka: lurzorua jabetzan edukitzeko eskubidea horrek duen funtzio sozialaren arabera arautu eta mugatzen da. Jabetza eskubideak erabilera, gozamen eta ustiaketa ahalmenak biltzen ditu, lurzoruari eta hirigintzako antolamenduaren legeriari jarraiki. Hiri lurzorua aldatu eta eraikitzeo ahalmena botere publikoei dagokie, eta ez jabetzaren eskubideari. Horregatik, lurzoruaren jabeen eskubideak eta betebeharrak kasu bakoitzari dagokion hirigintzako legearen arabera egiten dira.

Eskubidearen muga horiek kexak eragiten dituzte batzuetan; izan ere, pertsona batzuek zalantzan jartzen dute udalak obrak edo erabilera aldaketak egiteko lizentzia eman behar izatea, nahiz eta jardunak udal planeamenduaren aurkakoak izan. Arazo horiek ez dira legez kontrako jarduerak, hirigintzako diziplinako eskumenez baliatzearen ondorioa baizik.

Hiri lurzoruak dituen betebeharren baitan, lursail bateko jabeak adierazi digu Barakaldoko Udalarekin bat ez datorrela. Udalak espediente bat ireki zuen eraikuntza ez zelako horretarako jarritako epearen barruan egin eta lursaila nahitaezko salmenta egoeran zegoelako. Gai hori aztertu ondoren, ikus ahal izan genuen lursail horrek orube izaera hartua zuela, urbanizatze lanak bukatu ondoren. Beraz, Hirigintzari eta Lurzoruari buruzko ekaiaren 30eko 2/2006 Legearen arabera, jabeak urtebeteko epea dauka eraikitzeo. Epe hori igaro

⁵⁹ Arartekoaren ebazpena, 2009ko azaroaren 25ekoa, Horren bidez Bergarako Udalarri gomendatzen zaio urbanizagarria ez den lurlean txabola eraikitzeari dagokion espedientea behar bezala tramitatzeko eta txakurtegi erabilerak behin betiko eragozteko

⁶⁰ Arartekoaren ebazpena, 2009ko apirilaren 20koa. Honen bidez ezkutuko jarduera batek eragiten dituen eragozpenen ondorioz Durangoko pertsona talde batek aurkeztutako erreklamazioa amaitu da.

ondoren, administrazioak eskubidea dauka lursaila desjabetu eta eraikinak garaiz egiten direla ziurtatzeko.

Zigoitian lurzati bat daukan jabeak bere udalerriko arau subsidiarioek ezartzen dituzten betebeharrak zalantzan jarri zituen. Izan ere, zeharbide bateko obrak egiteko, bere lurzatiaren zati bat lagatu behar du, nahitaez eta doan. Lurzatiak hiriko lurzoru kalitatea zuen; eta arau subsidiarioek ezartzen zizkioten hirigintzako aldaketa obrak ez zituen egin (urbanizatzea). Zehazki, doan lagatzea, bideak, kaleak eta tokiko sistema orokorreko zeharbidea egiteko.

Lurrak eskuratzeko, udalak aurreikusi zuen lurrak alde zurretik lor zitzakeela, okupazio zuzeneko mekanismoa bidez –Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekaiaren 30eko 2/2206 Legeko 188 artikulua. Hirigintzako kudeaketa tresna horren bidez nahitaezko lagapeneko lursailak eskura daitezke, baina integratutako jardunetan atxikita badaude, bakarrik. Alegia, betearazpen unitateetan egon behar dira sartuta. Horretarako, prozesuaren berri emango duten arauak jarraitu behar dira, eta, horien artean, okupatzeko akta egiaztatzaileko eskubidea dago. Akta horretan lursailean eraikitzeo daukaten eskubidea adierazi behar da. Akta horrek birlurzatikatzea dakar, eta Jabetzaren Erregistroan inskriba daiteke. Lursailak integratutako jardunetan sartuta ez badaude, administrazioak nahitaezko desjabetzearen prozesua jarraitu beharko du.

Hirigintzako diziplinan, bada nabarmendu beharreko beste alderdi bat: arau-hausteen araubidea eta **hirigintzako zigorrak**. Atal honetan, [2009ko ekainaren 11ko Arartekoaren ebazpena](#)⁶¹ sartu dugu. Bertan aztertzen da Ondarroako Udalak partikular bati jarritako zigorra, ganbara batean obrak lizentzia gabe egiteagatik.

⁶¹ Arartekoaren ebazpena, 2009ko ekainaren 11koa. Horren bidez, Bermeoko Udalari gomendatzen zaio baliogabe dezala hirigintza araudia urratzeagatik ezarritako zigor bat

I.15

ETXEBIZITZA

15. ETXEBIZITZA

Sarrera

2009an guztira 123 kexa jaso ditugu etxebizitza arloan, hau da, Ararteko erakundean izapidetu ditugun guztietatik %6,42. Kexak honela banakatzen dira, eragindako administrazioak aintzat hartuta:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza)	177
- Tokiko administrazioa	13

Bestalde, kexak honela banatu dira, hizpide izan dituzten gaiei jaramon eginez:

- Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa	38
- Etxebizitza babestuetan eraikuntza akatsek eragindako kalteak	23
- Etxebizitzak esleitzeko prozedura	22
- Babestutako etxebizitzak alokatzea	21
- Etxebizitzaren beharra egiaztatzea	8
- Beste batzuk	6
- Etxebizitza erosteko eta birgaitzeko laguntzak	3
- Irisgarritasuna	1
- Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazioaren erantzukizuna	1

Urte honetan izan ditugun esku-hartze nabarmenetara sarrera egite aldera, epe horretan izan diren **arauen** berritasun **nabarmenenak** hartuko ditugu hizpide.

Hasteko, azaroaren 23ko 19/2009 legeari buruzko aipamen txikia egingo dugu. Legeak alokairua sustatu eta arintzeko eta energiaren efizientziari buruzko neurri prozesalak ditu hizpide, eta estatuko oinarrizko legeria aldatzen du: Hiri alokairuen legea eta Prozedura Zibilaren legea, alokairuen merkatua sustatzeko; eta Jabetza Horizontalaren legea, eraikinen energia efizientzia hobetuko duten jardunak errazteko.

EAEko esparruaren baitan nabarmendu behar dugu martxoaren 10eko 61/2009 Dekretatuaren argitalpena. Horrek 316/2002 Dekretua hirugarren aldiz aldatu zuen, eta hutsik dauden etxebizitzaren programa sustatzen du. Era berean, programaren araubide juridikoa ezartzen du eta haren kudeaketa Etxebizitza Alokairuetarako Sozietate Publikoa SAri agintzen dio. Araudi honen barruan 2003. urtean abiatu zen "Hutsik dauden Etxebizitzak" programako araudirako aldaketak daude. Helburu dauka programa publikoan sar daitezkeen etxeen kopurua handitzea; izan ere, horrela, diruz laguntzen den etxebizitzaren alokairu eskaintza eta hutsik dauden etxebizitzaren okupazioa handituko dira.

Era berean, aipamen berezia egin behar diogu aurtengo argitalpen bati: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako 2009ko otsailaren 12ko agindu bidez onartu ziren Babes Ofizialeko Etxebizitzen Diseinuari buruzko ordenantza berriak. Horietan jasotzen dira babes ofizialeko etxebizitzak konfiguratzeko nahitaezkoak diren diseinuko arau teknikoak; eta EAEn egiten diren babes ofizialeko etxebizitzek izan behar dituzten baldintzen arau esparrua osatzen dute, Eraikuntzako Kode Teknikoarekin batera.

Era berean, Eusko Legebiltzarrak 2009ko irailaren 23an etxebizitzako esparruan krisiari aurre egiteko onartu zuen hitzarmena betetze aldera, aginduak onartu dituzte Etxebizitza, Herri lan eta Garraio Sailean. Lehenengoa 2009ko irailaren 24ko Agindua, sustatzaile pribatuen etxebizitza berriak mugitzeko finantza neurriei buruzkoa. Horren bidez hutsik dauden etxebizitza berriak alokatuko dira, aldi baterako kudeaketa publikoaren bidez. Bigarrena 2000ko azaroaren 4koa Agindua, Hutsik dauden Etxebizitzen Programako lagapen baldintzei eta esleipen prozedurei buruzkoa. Horren bidez ezartzen da lehentasuna "Hutsik dauden Etxebizitzen Programako" alokairuko etxebizitzak langabezian dauden eta ohiko etxebizitza kendu dieten pertsoneri emateko. Pertsona horiek ez dute etxebizitzarik finantza erakunde batek hipoteka exekutatu dielako.

Antolamenduari dagokionez, Lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuak ezartzen duen EAEko administrazioaren sail egitura berria ezartze aldera⁶², azaroaren 24ko 607/2009 Dekretua onartu da. Horren bidez ezartzen da Etxebizitza, Herri lan eta Garraio Saileko egitura organikoa eta funtzionala; eta, besteak beste, sail horri agindu zaio herritarrek duten etxebizitza Duina izateko eskubidea zerbitzu publiko bidez gauzatzea.

Tokiko administrazioaren esparruan, azpimarratuko dugu aurten EAEko udal askok⁶³ baliatu duela Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko zortzigarren xedapen gehigarrian ezarrita dagoen eskumena. Tasatutako udal etxebizitzetako buruzko tokiko ordenantzak egin dituzte, eta, horren bidez, babestutako etxebizitza kalifikazioa duten etxebizitzaren parke publikoa handitu dute. Beraz, etxebizitza horiek behin betiko izango dute ezarrita gehieneko trantsizio prezioa, eta lehentasuna erosteko eskubidea eta atzera eskuratzeko eskubidea EAEko herri-administrazioen alde.

Aldez aurreko azalpen honekin bukatzeko, uste dugu interesgarria dela Etxebizitza, Herri lan eta Garraio Sailetik helarazi dizkiguten datuak azaltzea. Datuak 2009ko ekitaldian hasi diren babes publikoko etxebizitzaren kopurua eta ezaugarriak dira. Honakoak dira:

⁶² 4/2009 Dekretua, maiatzaren 8koa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena, eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena.

⁶³ 2009an udal etxebizitza tasatua arautzeko ordenantzak egin dituzten udalen artean, honakoak azpimarra daitezke: Azkoitia, Getaria, Lemoiz, Iurreta, Samaniego, Bakio, Zaldibar, Ortuella, Berrobi eta Elciego.

**HASITA DAUDEN ETXEBITZIAK ETA EUSKO JAURLARITZAREN
EGIAZTAGIRIA DUTENAK, 2009**

Mota	Lurraldea	Hasiera urtea
		2009
BOE	ARABA	1.503
	BIZKAIA	623
	GIPUZKOA	813
BOE guztira		2.939
Erkidegoko etxebizitza tasatuak	GIPUZKOA	37
Erkidegoko etxebizitza tasatuak, guztira		37
Etxebizitza sozialak	GIPUZKOA	91
Etxebizitza sozialak, guztira		91
Guztira, oro har		3.067

**HASITA DAUDEN ETXEBITZIAK ETA EUSKO JAURLARITZAREN
EGIAZTAGIRIA DUTENAK, 2009**

Erregimena	Etxebizitza kop.	Portzentajea
Errentamendua	176	%5,74
Azalera eskubidea	486	%15,85
Jabetza	2.405	%78,42
Guztira	3.067	%100,00

**HASITA DAUDEN ETXEBITZIAK ETA EUSKO JAURLARITZAREN
EGIAZTAGIRIA EZ DUTENAK, 2009**

Datuak, 2009ko 3. hiruhilekoan

Mota	Lurraldea	2009
Zuzkidura bizitokiak	ARABA	0
	BIZKAIA	0
	GIPUZKOA	0
Zuzkidura bizitokiak, guztira		0
Tasatutako udal etxebizitzak, jabea dutenak	ARABA	0
	BIZKAIA	99
	GIPUZKOA	24
Tasatutako udal etxebizitzak, guztira		123
Tasatutako udal etxebizitzak, jabea dutenak, guztira	ARABA	0
	BIZKAIA	0
	GIPUZKOA	0
Tasatutako udal etxebizitzak, guztira		0
Guztira, oro har		123

HASITAKO ETXEBIZITZAK, GUZTIRA

Lurraldea	2009
ARABA	1.503
BIZKAIA	722
GIPUZKOA	965
Guztira, oro har	3.190

**EAE-KO KALIFIKATUTAKO ETXEBIZITZA PUBLIKOAK,
ALOKAIRU ERREGIMENEAN**

Lurraldea	Guztira
ARABA	4.148
BIZKAIA	3.410
GIPUZKOA	3.254
Guztira, oro har	10.812

BIZIGUNE PROGRAMA

Lurraldea	Guztira
ARABA	741
BIZKAIA	2.735
GIPUZKOA	1.081
Guztira, oro har	4.557

ALOKAIRUAN DAUDEN ETXEBIZITZAK

Lurraldea	Guztira
ARABA	31
BIZKAIA	4.042
GIPUZKOA	553
Total general	4.626

ALOKAIRUAN DAUDEN ETXEBIZITZAK, GUZTIRA

Lurraldea	Guztira
ARABA	4.920
BIZKAIA	10.187
GIPUZKOA	4.888
Guztira, oro har	19.995

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak eman duen informazioan, argi ikusten da babes publikoko etxebizitzaren sustapenean etxebizitzak alokairuan hartzea ia hutsala dela.

Horren harira, 14/2009 Legez besteko proposamena ekarri behar dugu harira. Eusko Legebiltzarrean hartu zuten, 209ko irailaren 24an. Haren bidez EAEko administrazioei eskaria egiten zaie *progresiboki igo ditzaten alokatzeko etxebizitza babestuen ehunekoa, legegintzaldiaren amaieran guztizko zenbatekoaren %40 lortzeko*.

2007an, *Gazteentzako Etxebizitza Politika Publikoak EAEn* ezohiko txostenaren kariatara Arartekoak emandako gomendioetan, adierazi genuen herri-administrazioek egun dagoen alokairuko etxebizitza babestuen eskaintza igo behar zutela: helburu handiagoak lortu behar zituzten, alokairuan dauden parke publiko sendoa osatzeko.

Goian azaldutako datuak Eusko Jaurlaritzak eman zituen, eta, besteak beste, adierazten dute 2009an hasi ziren babes publikoko etxebizitzaren %5,74 bakarrik erabiliko dela alokairurako. Datu horien aintzat hartuta, uste dugu lehen aipatu dugun gomendioak zentzua duela oraindik ere, eta, gomendioa gauzatzeko, etxebizitzaren esparruan eskumenak dituzten botere publikoek orain arte egindako esfortzua baino handiagoa egin beharko dute.

Etxebizitza area osatzen duten atal bakoitzean garatutako jardun nabarmenenak aztertu aurretik, honakoa aipatu nahi dugu: **Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroko izapideak eta jakinarazpenak egokitzeko beharra, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearekin lotutakoak deituriko gomendio orokorren jarraipena**. 2008ko Arartekoaren ohiko txostenean sartu genuen, gomendio orokorrei buruzko atalean.

Gomendio horren justifikazioa hainbat herritarrek lehengo Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari buruz egindako kexa mordo bat ziren. Izan ere, herritarren salatu zutenenez, ez zegoen prozedura bermerik sailak Etxebizitza Eskatzaileen Erregistrotik bajan ematen zituen bajan espedienteetan: entzunaldiaren izapidea saihesten zuten eta jakinarazpenak ediktu bidez ematen zituzten.

2008an gomendio orokorra eman aurretik, [Arartekoak 2008ko urriaren 27ko ebazpena](#)⁶⁴ bidali zien. Ebazpen haren bidez gure esku-hartzea bukatu genuen 407/2005/30, 1221/2005/30, 1319/2005/30, 428/2006/30, 836/2007/34 eta 1040/2007/34 kexetan; eta desagertu den Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari eskatu genion baja ebazpenak berrikusteko, eta erreklamaziogileei Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan zuen antzinatasuna aitortzeko.

lazko urteko txostena ixtean, eman genien gomendioa onartzeari buruzko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren erantzuna jaso gabe geunden. Hala balitz, onartu balute, Etxebizitza Eskatzaileen Erregistrotik at utzitako erreklamaziogileen baja-ebazpenak berrikusiko zituzten. Gero, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak jakinarazi zigun Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroko kexagileentzako ebazpenen jakinarazpen prozedura nahikoa eta egokia

⁶⁴ Arartekoaren 2008ko urriaren 27ko ebazpena. Horren bidez Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari gomendatzen zaio Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroko izapidetze eta jakinarazpenak 30/1992 Legeari egokitzea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.

iruditzen zitzaiola, izan ere, bere esanean, *“Horrenbestez, Etxebiden espedientearen baja emateko ebazpenaren alde aurreko entzunaldi-fasea erredundantetzat hartzen da, prozeduraren barruan dagoeneko etxebizitza-eskatzaillearen alegazioak behar bezala biltzea ahalbidetzen dituzten faseak baitaude, eta kasu gehienetan zuzentzeko izapidean edo dokumentazioaren ekarpenean dagoeneko eskuratu den dokumentazioaz gain dokumentazio gehiago emango ez dela aurreikusiz”*. Azken batean, desagertu den Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak, argudio zaharrekin, Arartekoak emandako gomendioari uko egin zion, eta modu okerrean egin ziren baja ebazpenak ez zituela berrikusiko adierazi zuen.

2009an beste kexa-espediente batzuen inguruan jarduteko aukera izan dugu (1604/2008/34, 1619/2008/34, 263/2009/34, 513/2009/34 eta 732/2009/34). Espediente horietan kexa bera planteatu ziguten: erregistroko bajen izapidetzako arazoa. Erreklamaziogileek salatzen zuten etxebizitza eskatzaileen erregistrotik at utzi zituztela (antzinatasuna ere galdu zuten), eta, kasu batzuetan, babes publikoko etxebizitzaren zozketetan parte hartzea ukatu zieten. Hori guztia Etxebizitza Eskatzaileen Erregistrotik bajan eman izanari behar bezala ezin aurka eginda.

Erreklamazio horiek egungo Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak berrikusi ditu. Eta, tamalez, ikerketa izapideetan bildu dugun informazioaren arabera, sailak ez dauka asmorik Etxebizitza Eskatzaileek Erregistroko baja ebazpenen izapideen harira egindako eskaerak berrikusteko.

Behin eta berriz eskatu diogu Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailari Arartekoak etxebizitza eskatzaileen erregistroko funtzionamenduaren harira egindako gomendioak aztertzeko. Aurreko sailak zeukan irizpidea aldatzeko eskatu diogu espresuki. Erakunde hau ziur dago babestutako etxebizitza behar tuen pertsonen eskaeren kudeaketa prozedura berme guztiekin egin behar dela, eta uneoro saihestu behar dela interesduna defentsarik gabe uztea. Hori guztia etxebizitza duin eta egokia izateko eskubideari dagokionez.

Idazpuru honen bukaera gisa, iazko gomendioak oraindik baiezkorik ez duela jaso egiaztatuta, honakoa adieraziko dugu: Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroko ebazpenen izapidetzea egokitu behar da, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko ezarpenekin bat etor dadin.

Etxebizitzaren beharra egiaztatzea

Aurten hainbat kexaren berri izan dugu babestutako etxebizitzaren esleipendunen eskutik. Pertsona horiek etxebizitza aldatzeko proposatzen zuten, bizikidetasun unitateko kideak ugaritu zirelako.

Erreklamazioetako bitan (886/2008/34 eta 650/2009/34) arrazoiak seme-alaba bat jaiotzeaz zutela eta logela bakarreko etxebizitzan bizi zirela zen. Eskatzaileek administrazioa jo zuten, eta etxebizitza aldatzea eskatu zuten. *Baina ez lehengo Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak, ezta egungo Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak ez dute babestutako etxebizitza horietako okupatzaileen eskaera aintzat hartu. Izan ere, Babes Ofizialeko Etxebizitzaren parke*

*barruko ibilbideak arautzen dituen arauak*⁶⁵ kasu bakarrean jasotzen dutelako etxebizitza aldaketa: pertsona bakoitzeko 15 m²ko ratioa betetzen ez den bizikidetasun unitateetan aldatu ahal izango da etxebizitza. Baina baldintza hori ez zen kasu batean ere jazo; izan ere, arazoa ez ziren etxebizitzaren dimentsioak, banaketa baizik (logela bakarreko apartamentuak).

Egia esan, pertsona bakoitzeko 15 m²ko ratio azpiko salbuespena kanpo, administrazioak ez du aurreikusi babes ofizialeko etxebizitzaren onuradunen gela-kopuruaren beharrak aldatzea etxebizitza esleitu eta hurrengo urteetan eta beste ezaugarri (tamaina edo banaketa) batzuk dituen etxebizitza behar izatea. Ez du aurreikusi, era berean, erkidegoko beste toki batean behar izate etxebizitza. Alegia, aintzat jo dute familia unitate baten osaera eta ezaugarriak denboran aldaezin geratu behar direla.

Kexa hauek aztertu ondoren, berriz ere bistan ageri da “Babes Ofizialeko Etxebizitzaren parke barruko ibilbideak” deiturikoek araudi eskas dutela. Eta, beraz, Arartekoak EAEko etxebizitza-politika publikoei buruzko txosten berezian emandako gomendioa guztiz zilegi dela. Haren bidez eskatu genien EAEko herri-administrazioei “beharrezko neurriak hartzeko, etxebizitzaren parkearen kudeaketak familia unitatea egitura aldakortzat har zezan”.

Hirugarren kexa (333/2009/34) ez zegoen lotuta administrazioak etxebizitza aldatzea ukatu izanarekin. Kasu hartan, legezko betekizunak jazo ziren eta lurralde ordezkariak etxebizitza aldatzeko beharra onartu zuen, baina erreklamaziogileak salatu zuen urte erdi baino gehiago igaro zela aldatzeko eskubidea onartu ziotenetik, baina ez oraindik aldaketa egin gabe zegoela.

Administrazioa geldirik zegoela ikusita, lehengo Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari txosten bat eskatu genion, babes ofizialeko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza neurriei buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuko 29. artikuluan ezarritako neurriak aplikatzea oztopatzen zuten arazoak ezagutzeko. *Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak hasieran eman zigun erantzunak etxe aldaketa egin gabe egon izan justifikatu zuen: “Beste hainbat aldiz adierazi den bezala, ibilbidean bideragarritasuna oso konplikatu da, Sail hau ez baita familia handientzat egokiak diren ezein etxebizitzaren titularrak” Gero, jakin genuen erreklamaziogileak bere bizikidetasun unitatearekin bat zeterren etxebizitza jaso zuela.*

Etxebizitza babestuetan eraikuntza akatsek eragindako kalteak

Beste urtebetez, babes ofizialeko etxebizitzaren eraikuntza akatsekin lotutako erreklamazioak ugaritzen ikusi ditugu. Arartekoan jaso ditugun kexen artean gehien ugaritu direnak alokairu erregimenean lagatakoak dira. Halakoak etxebizitza sozialak edo babes ofizialekoak dira

⁶⁵ 39/2008 Dekretuko 29. artikulua, martxoaren 4koa, “babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzkoa”.

(1641/2008/34, 580/2009/34 eta 626/2009/34), baita “Hutsik dauden Etxebizitzen Programakoa” ere (955/2008/34, 287/2009/34 eta 779/2009/34).

Ohikoena administrazioaren mantsotasunak eragindako erreklamazioak dira, ez baitituzte etxebizitzetan agertutako akatsak berehala konpontzen. Eta, batzuetan, erreklamaziorik ez diren etxebizitzak eskatzera bultzatzen dituzte, bizi diren etxea gero eta okerrago dagoelako. Etxebizitza aldatu izanaren kasu bakarra izan genuen 2009an (287/2009/34). Lehengo Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak etxez aldatzeko eskubidea onartu zion erreklamaziorik ez zuten etxebizitzetan egotea ezinezkoa egiten zuen hezetasuna berriro agertu zelako. Etxebizitza “Hutsik dauden Etxebizitzen Programakoa” zen.

Arlo honi dagokionez, behin eta berriz eskatuko dugu administrazioek azkar eta eraginkor erantzutea alokairuko programa publikoetako eta babestutako etxebizitzetan erakundean akatsak konpontzerakoan. Izan ere, etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea berez dago lotuta administrazioak herritarren eskura jartzen dituen etxebizitzetan bizigarritasunarekin eta kalitatearekin.

Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa

Lehenik, Berantevillako herritar batzuek egindako kexaren harira egin genuen ikerketaren emaitzak aipatu behar ditugu. Kexa haren bidez udalak lurzoru publikoan etxebizitza tasatuak egin izanaren legezketasuna zalantzan jarri zuten, eta kexa hura iazko txostenetan ere izan genuen hizpide.

[Arartekoaren ebazpena, 2009ko urtarrilaren 23koa](#)⁶⁶; horren bidez bukatu genuen kexa-espeditzean izan genuen esku-hartzea. Bertan egiaztatu genuen Berantevillako Udalak ez zigula kexa-espeditzearen instrukzioan eskatutako informazioa eman (edo, izapideren batean, erdizka entregatu izana), eta, ondorioz, gure esku-hartzeak ez ziela askorik lagundu herritar erreklamaziorik ez zuten etxebizitzetara jo zuten kexaren gaia konpontzeko.

Aurrekoa zela eta, gure esku-hartzea bukatu eta honakoa ondorioak bidali behar izan genituen:

- “1. Berantevillako Udalak ez dio behar bezala erantzun helarazi genion laguntza eskatzen. Hain zuzen, Prominber udal baltzuak prezio finkoko udal etxebizitzetara esleitzean zuten prezioa igotzeko eskubidea zuten ala ez egiaztatzeko behar genituen datuak eta informazioa eskatu genizkion.

⁶⁶ Arartekoaren ebazpena, 2009ko urtarrilaren 23koa. Horren bidez, Arartekoak bukatu du bere jardueraren PRO-MINBER, SA udal baltzuak sustaturiko etxebizitza tasatu batzuen prezioa ustez arauz kanpo igo izanagatik Berantevillako herritar talde batek egindako kexan. Berantevillako Udala da baltzu horretako partaidea bakarra.

2. Ondorioz, ezin izan dugu zehaztu ea Prominber, SA udal baltzuak sustaturiko etxebizitza tasatuen azken prezioa igotzea justifikatuta ote zegoen etxebizitza tasatuak eraikitzeko proiektuan zuzenbidearen arabera aldaketa bat egin zelako.”

Atal honetan, beste gai bati ere jarri diogu arreta: lehengo Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailak babes ofizialeko etxebizitzaren arloan ezarritako zigorrek (1535/2008/34, 64/2009/34, 179/2009/34, 191/2009/34 eta 233/2009/34). Kexa haietan, erreklamaziogileak ez zetozen bat administrazioaren ebazpenekin. Ebazpen haien bidez zigorra jaso zuten, babestutako etxebizitzaren araudia urratzeagatik: jaso zuten babes ofizialeko etxebizitzaren *ohiko bizileku eta bizileku iraunkor* izaera urratzea.

Beranduago aipatuko dugun kasu bat izan ezik, aztertutako gainerako kexetan ondorioztatu dugu administrazioak ezarritako zigorrek ez zutela irregulartasunik, eta, beraz, ezarritako zigorrek indargabetezko arrazoirik ez zela erabaki dugu. Hori guztia ondorioztatzeko erreklamaziogileek eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak bidalitako informazioa baliatu dugu.

Erreklamaziogileei bidalitako ondorioetan doktrina jurisprudenziala aipatu genuen. Doktrina horren arabera, babes ofizialeko etxebizitza ohiko bizitoki iraunkor gisa okupatzeko betebeharra eten daiteke salbuespen kasuetan, zilegi diren arrazoiak badaude (lana edo gaixotasuna). Hala ere, doktrina hori salbuespena izateak interpretazio zehatzak eta zuhurrak egin behar izatea dakar. Bestela jokatzuz gero, guztiz zentzukoa den betebeharrak bat eskatzeari uko egingo genioke, eta hala adierazi genuen ondorioen idatzian. Izan ere, babestutako etxebizitzak ondare publikoa direnez gero, etxebizitzarik ez duten pertsonen bizitoki beharrak asetzeko erabili behar da, eta etxebizitza ohiko bizitoki eta iraunkor gisa erabiliko dutenentzat.

Aldiz, ezgaitasun psikikoa zuen neba baten izenean kexa egin zuen herritar bati bestelako balorazioa egin genion. Emakume haren nebak ere Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Salaren zigorra jaso zuen, haren babes ofizialeko etxebizitza ohiko bizitoki iraunkor gisa erabiltzeko betebeharra urratu zuelako.

Erreklamaziogileak kexa-idazkian zioenez, bidegabekeria iruditzen zitzaion nebari jarri zioten zigorrean hark bizi duen egoera pertsonala kontuan hartu izana. Izan ere, nebaren egoera bereziak zalantzarik gabe baldintzatu zuten babes ofizialeko etxebizitzari ohiko bizitoki iraunkor erabilera ematea.

Kexagileari gomendioa egin genion, zigor ebazpena errekurritu zezan. Aldi berean, Arartekoak Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailera jo zuen, elkarlanean aritu zedin. Eskaera egin genion erreklamaziogileak aurkeztutako alegazioak eta atxikitako ezintasun aitortpenaren epaia arretaz azter zitzan. Epai harrek adierazten zuen erreklamaziogilearen nebak ezgaitasun psikikoa zuela, eta egunerokotasunean laguntza, orientazioa eta gainbegiratzea behar zituela.

Erreklamazio hartako argudioak gure hartu genituen, eta administratioari adierazi genion erreklamaziogilearen nebaren egoera pertsonalei egoki erreparatu beharko zirela zigor

egintza berrikustean. Era beran, adierazi genion, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari etxebizitza ohiko bizi-eremu iraunkor gisa ez zela erabili pentsarazi zioten zantzuak (ur erabilera eskasa) etxebizitza hartako jabearen ezgaitasun intelektualarekin bat zetorren erabilera baino ez zirela. Zentzuzkoa denez, erabilera hura izateko, jabeak egoera berriarekin egokitze epea behar izan zuen; arrebaren laguntza behar izan zuen eta etxebizitza gutxi erabili izan arren, justifikatuta zegoen. Izan ere, egoera bat dator bizitzako esparru guztietan normaltasunez integratuta egon nahi duen ezgaitasun psikikoa duen pertsona baten errealitatearekin.

Era beran, aipatutako sailari gogora honakoa ekarri genion gogora: Espainiako konstituzioaren 49. artikuluan ezarritako agindu bidez, botere publikoari dagokien ezintasuna duten pertsonen beharrezko babes ematea, gainontzeko herritarrek bezala berdintasun egoeran eskubide eta askatasun konstituzionalak baliatu ahal izateko. Horretarako, batez besteko ereduaren patroia araberako egituratu den gizartearen dauden oztupo eta baldintza mugatzaileak kendu behar dituzte.

Azkenean, zorionez, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak erreklamazioak aurkeztuta errekurtsio onartu zuen. Horrela, haren nebari bidegabe ezarri zioten zigorra indargabetu zen.

Etxebizitzak esleitzeko prozedura

Arartekoan herritarren kexak jasotzen jarraitzen dugu, babes publikoko etxebizitzak esleitzeko prozesuetan kanpo uzten dituztelako, eta aurretik etxebizitza esleitu zieten ondoren ezeztatzen dietelako. Aztertutako kasu gehienetan, babestutako etxebizitza baten onuradun izateko ezarritako legeko baldintzak (diru sarrerak, etxebizitzarik ez izatea, errolda, etab.) ez betetzeak gure esku-hartzea eskatu duten herritarrei emandako administrazioaren ebazpenak justifikatu ditu. Kasu horietan guztietan administrazioak hartutako erabakia legekoa zela azaltzea izan da gure lana. Erabakiok herritar horien interesen aurkakoak ziren, baina babes osoa zuten babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozeduretan, eta babes publikoko etxebizitzaren sustapenerako deialdietan.

Aurrekoaren salbuespen gisa, etxebizitzaren esleipena ezeztatu zioten herritar baten kexa daukagu (1560/2008/34). Etxebizitza Gasteizko Udaleko Ensanche 21 Zabalgunea SA enpresa publikoak ezeztu zion; enpresaren aburuz, etxebizitzaren behin-behineko esleipendunak ez zuen gutxienezko diru sarreraren baldintza betetzen. Erreklamazioak esleipena ezeztu izana errekurritu zuen, eta Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan zeuden datuak okerrak zirela alegatu zuen. Datuok Arabako foru ogasunak emandakoak ziren, eta okerrak ziren; izan ere, babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko oinarri arautzaileak eskatutako urtean, haren diru sarrerak eskatutakoak baino nabarmenago handiagoak ziren.

Hainbat izapidetzeren ondoren, erreklamazioak zioena zuzena zela egiaztatu genuen: akatsa mekanikoa egon zen erreklamazioaren pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren aitorpenean. Beraz, herritarrek baldintza guztiak betetzen zituen babes ofizialeko etxebizitza

baten onuradun izateko, eta Gasteizko Udalari eskatu genion babes ofizialeko etxebizitzaren esleipena ezeztatu izana berrikusteko. Gure esku-hartzearen ondorioz, Ensanche 21 Zabalgunea SA enpresa publikoak onartu zuen herritar erreklamaziogilea babes ofizialeko etxebizitzaren zozketako itxaron zerrendan sartzea, eta Gasteizko Udalak sustapen berean egingo zuen ondorengo esleipenaren barrua egotea.

Arreta bereziko taldeak: burutik gaixo daudenak eta indarkeriaren biktima diren emakumeak

Talde biek in lotutako bi ebazpen egin ditugu, hurrenez hurren.

Burutik gaixo dauden pertsonen dagokienez, aspalditik irekita genuen kexa-espeditente bat bukatu behar izan genuen; izan ere, Donostiako Udalak ez zuen inondik ere Arartekoarekin elkarlanean aritu nahi izan. Erreklamaziogileak buruko gaixotasun larria zuen alaba zuen, eta behin eta berriz eskatu zuen Donostiako Udaleko esku-hartzea, gizarte zerbitzuen bitartez eta orduko Etxebizitzaren Udal Patronatuaren bitartez. Etxebizitza premia handia zuen, oso egoera eskasean zegoelako: bere etxebizitza beste pertsona batzuekin elkarbanatu behar zuen, baita alabarekin ere. Alaba adinez nagusia zen, baina legezko tutoretza amak zuen. Haren eskaerak ez zuen sekula udaleko erantzunik jaso, ezta ezezko erantzunik ere. Arartekoak ere ez zuen udalaren erantzunik lortu. [Arartekoaren ebazpenean, 2009ko uztailaren 29koan](#)⁶⁷, Donostiako Udalaren jarreraren berri eman behar izan genuen, gure lana guztiz oztopatu zuelako eta gure erakundearen lanean kalte larria eragin zuelako. Azkenean, interesdunak lortu zuen bere beharra asetzea, Eusko Jaurlaritzako "Hutsik dauden Etxebizitzen Programa, Bizigune" k alokairuko etxe bat esleitu ziolako. Era berean, gure ebazpenean herritarri eragindako kalteen berri eman nahi izan genuen. Emakumeak premia bereziko egoera bizi zuen, eta egoki egiaztatuta zegoen. Eta, hasieran behintzat, aipatutako udaleko gizarte zerbitzuei zegokion arazoa bideratzea. Herritarrak egin zituen eskaera bat ere erantzun ez izanak, eta jarera pasiboak bere eskaerari izatezko ezetza eman dionez, udalaren jarrera kaltegarria izan da ere interesdunaren defentsa aukeratarako.

Genero indarkeriaren biktima diren emakumeen dagokienez, kasu hauetan aplikatzen den etxebizitza araudiari buruzko gaiak bideratu ditugun kexa-espeditenteak askotarikoak izan dira. Oro har, gai honetan, administrazioek borondate handia izaten duten eragindako emakumeek agertzen dituzten arazoak konpontzeko. Hala ere, egokia da, gure ustez, [Arartekoaren ebazpena, 2009ko azaroaren 3koa](#)⁶⁸ eragin zuen espeditentea aipatzea. Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko kapituluan, arreta handiagoarekin heldu genioen ebazpen horren edukiari, eta, oro har, indarkeriaren biktima diren emakumeek etxebizitza izateko

⁶⁷ Arartekoaren ebazpena, 2009ko uztailaren 23koa. Horren bidez, erakundearen esku-hartzea amaitzen da premia bereziko egoeran etxebizitza eskaerari erantzunik ez ematearekin zerikusia duen kexa batean, Donostiako Udalak Arartekoaren erakundearekin elkarlanean aritzeko erabateko lankidetzarik eza adieraziz.

⁶⁸ Arartekoaren ebazpena, 2009ko azaroaren 3koa. Horren bidez genero indarkeriaren biktima den emakume bat etxebizitzaz aldatzeko premiazko beharri buruzko kexan esku-hartzea amaitzen da.

duten aukerari. Nolanahi ere, Eusko Jaurlaritzari helarazi genion ondorioetako bat aipatuko dugu hemen, administrazio horretako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren funtzionamenduari zuzenean eragiten diolako. Genero indarkeria jasan duten emakumeei dagokien espediente oro, Etxebizitza eta Gizarte Gaien Sailburuak emandako 2006ko urriaren 4ko aginduko 4.2 eta 6. artikuluen esparruan, alegia, genero indarkeriaren biktima izandako emakumeentzat etxebizitzaren arloan ekintza positiboko neurriei buruzko aginduan, eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza neurriei buruzko Eusko Jaurlaritzaren 39/2008 Dekretuko 12.3 artikulua esparruan dauden espedienteak, etorkizunean, interes publikoko arrazoiengatik, premiazko izaeraz izapidetu beharko lirateke, betiere, eskaera egin duen emakumea arrisku objektiboko egoeran dagoenean eta egoera hori behar bezala egiaztatzen denean. Orain hizpide dugun kasuan, arrisku objektiboa zegoen, eta, azkenean eragindako emakumeari etxe bat eman zioten arren, hasierako eskaeratik esleipenera iragan zen denbora murriz zitekeen izapidetze azkarrago baten bitartez. Gobernuak, aldiz, gero jakinarazi zigun epeak egokiak izan zirela uste zuela. Izan ere, besteak beste, gobernu aldaketa bat egon zen lehen eskaeraren eta espediente honen bukaerako ebazpenaren artean.

I.16

ZENBAIT GESTIO

16. ZENBAIT GESTIO

Egindako jardun batzuk, bereziak direlako, erakunde honek burututako jardunen beste ataletan ezin izan ditugu sailkatu, eta horregatik sortu dugu honakoa.

2009 urtean hauteskundeak egon ziren Euskadin, Eusko Legebiltzarra osatzeko hautagaiak aukeratzeko. Halako hauteskunde prozesuetan ohikoa denez gero, hainbat pertsonaren erreklamazioak jaso ditugu. Pertsona horiek hauteskunde mahaietan egoteko aukeratu zituzten, eta lan hori betetzearekin ados ez daudela edo jarduna ezin dutela burutu salatu zuten.

Herritarrek hauteskunde mahaietan parte hartzeko duten betebeharraren esparrua Hauteskunde Araubideari buruzko 5/1985 Lege Organikotik dator. Lege horren arabera, hauteskunde mahaiko kideak jendaurreko zozketa bidez aukeratzen dira, eta kasu bakoitzeko hauteskunde atalean zentsatuta egon behar dira. Arau horren asmoa boto eskubidea duten herritar guztiak hauteskunde mahaietan ordezkatzeko edo ordezkatu egon ahal izatea da. Eredu horren bitartez, hauteskunde mahaia objektiboak izatea bilatzen da; eta modu publiko eta gardenean aukeratu. Betebehar horretatik salbuesteko, kargua onartzea eragozten duen bidezko arrazoia adierazi behar du herritarrek, agiri bidez; zonaldeko hauteskunde batzordearen irizpidearekin bat egin behar du, hura onartu edo baztertu dadin. Nolanahi ere, ebazpen horren aurka ezin da helegiterik jarri.

Betebehar hori ez egiteko alegatu dituzten arrazoen artean, herritar batek esan digu berak bere lanbidea erabili zuela; izan ere, prentsa saltoki bateko autonomia da, eta jardun nagusia igandeetan edukitzen du. Haren aburuz, bere lana egin behar izateak ez zion kargua betetzen uzten, eta zonako hauteskunde batzordeari eskatu zion betebeharretik salbuestea. Batzordeak ezezkoa eman zion, ordea.

Kasu zehatz horretan, langile autonomoekin aplikatzen den irizpidea zehazki ezagutzeko, zonako hauteskunde batzordearekin jarri ginen harremanetan. Zonako batzordearen idazkaritzak adierazi zigun jarraitzen duten irizpidea langileak ez salbuestea dela, nahiz eta autonomo izan eta hauteskunde egunean lan egin. Nolanahi ere, halako kasu berezietan –aurretik ondo dokumentatuta– zonako hauteskunde batzordean ordezkoko pertsona bat aukeratzeko onartzen zuten. Hauteskunde barruti berekoa izan behar da pertsona eta kargua hartzeko prest egon behar da.

Beste alde batetik, zozketa egiteko erabiltzen den moduarekin ados ez dauden lagunak azaldu dira ere; izan ere, azken hauteskunde prozesuetan behin baino gehiagotan hautatu dituzte jarraian. Pertsona jakin batek esan zuen sistema honen bidez errepikapenak egon daitezkeela, berari seitan egokitu zaiolako kargurako izendatzea. Horregatik, mahai bakoitzean izendatutako kideen izenak errotatzea proposatu zuen. Kide izandakoak zentsutik aterako lirarteke, zerrendako lagun guztiek mahaiko kargua bete arte. Ondoren, guztiek kargua betetakoan, berriro sartuko lirarteke izen guztiak zozketan.

Edonola ere, esparru juridikoak dio izendapena udaletxetan egiten den zozketa publiko bidez egingo dela; eta zozketa zonako hauteskunde batzordeak ikuskatzen duela. Zozketan sartzen dira hirurogeita bost urtetik beherakoak diren pertsona guztiak, zentsatuta badaude eta idazten eta irakurtzen baldin badakite. Zozketa publikoan sartzen diren izen guztiak hautesle direnen izenak dira, eta hauteskunde zentsuko zerrenden barruan ausazko edozein prozedura egon daiteke. Hala ere, zerrendak ez du ezartzen kideek jarraitasuna izango dutenik. Beraz, hauteskunde prozesu bakoitzean zozketa berria egin behar da hautesle guztien artean. Laburbilduz, hauteskunde mahaia izendatzeko egun dugun hauteskunde legeriarekin ezin dira hauteskunde zentsutik atera jada mahaiko kide izan direnak.



II. ATALA

LEHENTASUNEZKO TALDEAK



Alorren egituraketa beti gaikako banaketaren arabera egin izan da. Banaketa hori osatzeko, Ararteko erakundearen jarduerak sailkatu izan diren alorretan barreiatuta dauden eta ezau-garri bereziak dituzten zenbait talderen arazoan berariazko tratamendua egiten da.

Talde horienganako berariazko arretarako alor horiek, urteko txostenean haien arazoan berri bilatzeko lana errazteaz gainera, taldeok dituzten arazo eta beharrezan beren beregi erantzuteko jardueren esparruak sortu nahi izan dituzte.

Alde horretatik eta Ararteko erakundeak pertsona guztien eskubide guztiak bermatu behar dituela uste izanda, beharrezkotzat jo da beren eskubideak burutzean kalteren bat izan dezaketen talde batzuekin lehentasunez jardutea, ahultasun handiagoko balizko egoeran daude eta.

Talde horiekiko lehentasunezko esku-hartze horiei eman nahi zaien garrantziak justifikatzen du Urteko txostenean atal propio batean islatuta agertzea, haien eskubideen gaineko berme-lan garrantzitsu hori bistara dadin.

Atal honetan hamaika zatitan biltzen dira lehentasunezko arretako hurrengo taldeen inguruan burutu diren jarduerak:

- Berariazko arreta emakumeen berdintasunari eta osotasun fisikoari
- Berariazko arreta adinekoei
- Berariazko arreta adingabeei
- Berariazko arreta ezgaitasuna duten pertsonari
- Berariazko arreta etorkinei
- Berariazko arreta ijito herriari
- Berariazko arreta gizartean baztertuta edo pobrezian bizi diren pertsonari
- Berariazko arreta terrorismoaren eta jazarpen indarkeriaren biktimei
- Berariazko arreta lesbiana, gay, bisexual, transgenero eta transexualei
- Berariazko arreta espetxeratuei
- Berariazko arreta gaixo kronikoei

Emakumeei, adinekoei, adingabeei, ezgaitasunen bat duten pertsonei eta etorkinei eskainitako arretari buruzko arloak 1999az geroztik daude finkatuta eta, beraz, talde horiei dago-kienez egindako jarduerak ugariak eta askotarikoak dira.

Gainerako arloak 2006an sortu dira. Horregatik ez dira lehenagotik zeuden arloak bezain luzeak eta xehatuak.

II.1

**BERARIAZKO ARRETA EMAKUMEEN
BERDINTASUNARI ETA OSOTASUN FISIKOARI**

1. BERARIAZKO ARRETA EMAKUMEEN BERDINTASUNARI ETA OSOTASUN FISIKOARI

I. Arlo honetan 2009an garaturiko lanaren sarrera

Arartekoak emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde egiten du lan, kontuan hartuta gure gizarteko arlo askotan oraindik ere desberdintasun materiala dagoela, sexuaren ziozko berdintasun printzipioaren onarpen formala orokortuta egon arren. Gainera, emakume asko, zoritxarrez, pertsonen eskubideen zapalketarik handienaren biktimak dira oraindik gure gizartean: indarkeria sexistaren eraginezko zapalketa, emakumeen bizitzari eta osotasun fisikoari eta moralari eraso egiten diena.

Arartekoari legez eratzikitako eskumenen esparruan, gure funtzio nagusiak honako hauek dira: alde batetik, EAEko herri-administrazioak kontrolatzea, berdintasun eskubidean eta sexuaren ziozko bereizkeria ezan egon daitekeen edozein zapalketari dagokionez; eta, bestetik, emakumeentzat eta gizonentzat berdintasunezkoa den gizartea sustatzea. Funtzio horien barruan, gure lanean erabateko lehentasunezko garrantzia dauka, zalantzarik gabe, indarkeria sexista ezabatzeko borrorak eta ahaleginak. Oro har, arlo honetako lanaren eraginez, horixe da gure asmoa behintzat, erakunde publiko eta gizarte erakunde guztiek emakumeen erabateko hiritartasun aktiboaren eta gizarte protagonismoaren aldeko apustua egingo dute, emakumeak oraindik ere gizonen atzetik uzten dituzten kultura eta gizarte inertziei aurre egiteko.

Arlo hau zeharkakoa denez, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eragina duten gaiak esparru eta arlo askotan sortzen dira, eta, beraz, ezinbestekoa da gure jarduketaz guztietan generoko ikuspegia erabiltzea. Atal honetan azalduko ditugun jarduerak zeharkako ikuspegi horren ondoriozkoak dira, baita gai batzuetan emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan garaturiko ekintza espezifikoaren ondoriozkoak ere; gai horien artean, aipatzeak dira jarraipen lana dutenak eta hiritarren kexen bidez sortzen direnak.

Gure arloko lana hiru ardatzen inguruan egituratzen dugu, erakunde honen funtsezko helburuak adierazten dituzten ardatzen inguruan: indarkeria sexista ezabatzea, sexuaren ziozko edozein bereizkeria ezabatzea eta gizarte arlo guztietan benetako berdintasuna lortzea.

Hiru ardatz horiek kontuan hartuta, lehenengo eta behin, indarkeria sexistaren arloan egiten diren jarduerak azalduko ditugu. Gero, sexuaren ziozko bereizkeria arazo nagusiak adieraziko dira; horiek Administrazioak berak sortu ez baditu ere, behintzat bertan esku hartzeko gaitasuna dauka. Ondoren, erakunde honek emakumeen benetako berdintasuna gauzatze-ko orduan eragina duten beste alderdi batzuk aztertuko ditu. Azkenik, Eusko Legebiltzarren 4/2005 Legearen (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa) garapenaren oraingo egoera egiaztatze-ko egindako jarraipen lanak aipatuko dira.

II. Emakumeen aurkako indarkeria: desberdintasunaren paradigma

Arartekoak, Euskadiko beste erakunde publiko batzuekin batera, nabarmendu egin nahi du emakumeen eskubideen zapalketarik larriena ezabatzeke premia; zapalketa hori emakumeen aurkako indarkeria da, matxismoaren ideien adierazpen nazkagarria, emakumeen bereizkeriaren paradigma ikaragarria. Arartekoak indarkeria sexistaren biktimak izan diren emakumeei laguntzeko mekanismo publikoen eraginkortasuna zaintzen du. Arartekoaren funtzioa, horri dagokionez, EAEko administrazioek emakumeen aurkako indarkeriari ematen dioten erakunde-erantzuna egokia dela bermatzea da. Helburu horretan oinarrituz, 2003an txosten berezia egin zen, erakundeek emakumeen aurkako indarkeriari ematen dioten erantzunari buruz. Bertan, gomendio batzuk jaso ziren, eta horien oinarri teorikoa Euskadiko administrazio guztiek onartzen dute; hala ere, oraindik orokorrean eta erabat gauzatu barik dago. Bestalde, Generoko Indarkeriaren aurkako Babes Osoko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 lege Organikoko eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Euskadiko Legeko eduki batzuek (batez ere, III. Tituluko VII. kapitulua) arlo honetako eskakizun berrietarako oinarriak jarri dituzte, eta hori ere kontuan hartu behar da.

Emakumeen aurkako eraso sexistak oraindik ere etengabeak dira, eta hildako emakumeen zifrak harrিতa uzten du gure gizartea; horrenbestez, gure iritzian, txosten horretan jasotako gomendio batzuen jarraipen zehatzagoa egin behar da; horretarako, arlo honetan funtzioak dituzten Euskadiko administrazioei, gaiak Euskadin orain duen egoera argitzeko alderdi batzuei buruzko informazioa eskatuko diegu. Hala ere, lorturiko informazioak txiki utziko luke urteroko txosten hau, horren helburu nagusia arartekoak garaturiko jarduera jakinaraztea baita. Hori dela eta, epigrafe honen edukia, aurtun, arartekoak berak abiatutako jardueretara mugatzea erabaki dugu; dena den, datorren urtean, agian, erakundeek emakumeen aurkako indarkeriari emandako erantzunari buruzko txosten berezi horren jarraipenean lorturiko informaziorako alderdi nagusiak adieraziko ditugu.

A. Arartekoaren eta Eusko Jaurlaritzako Generoko Indarkeriaren Biktimen Arretarako Zuzendaritza berriaren arteko bilera

Aipatzekoa da, emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko erakundeen arteko lankidetzaren esparruan garrantzitsua baita, 2009ko irailean Arartekoak eta Generoko Indarkeriaren Biktimen Arretarako Zuzendaritzak izandako bilera; zuzendaritza berri hori oraintsu sortu da, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren barruan. Bilera horretan, Arartekoaren ordezkariak arartekoa bera, Iñigo Lamarca, eta erakunde horrek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan duen koordinatzailea egon ziren; Generoko Indarkeriaren Biktimen Arretarako Zuzendaritzaren ordezkaria, berriz, Mariola Serrano zuzendaria izan zen. Bileraren helburua, bestalde, bi erakundeek egindako lana eta jarduera nagusiak elkarri jakinaraztea izan zen.

Lehenengo eta behin, GIBako zuzendariak oraintsu sorturiko zuzendaritza horren lan proiektua azaldu zuen. Berak adierazitakoaren arabera, zuzendaritza horrek aurrerantzean

egingo duen lan guztian, generoko indarkeriaren kontzeptu zabala erabiliko da, bikoteki-deak, bikotekide ohiak edo antzekoren batek eragindako indarkeriaren kontzeptua gainditzen duena; kontzeptu berriak, halaber, etxeko esparrua gaindituko du, emakumeen aurkako indarkeria gauzatzeko espaziotzat. Abiapuntu horretatik, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari atxikitako zuzendaritza horren helburua erreferentea izatea da, Eusko Jaurlaritzako sailek generoko indarkeriaren biktimei buruz garaturiko politika guztia erabakitzeko eta koordinatzeko; era berean, honako arlo espezifiko hauetan ere jarduketak sustatuko ditu:

- **biktimen arreta:** arlo honetan, zuzendaritzak Jaurlaritzako leihatila bakarra izan nahi du; informazioa zentralizatu eta erreferentea izan nahi du, beste sail batzuetatik ere gaiak zuzenean tramitatzearen edo bideratzearen kalterik gabe. Zuzendaritzaren helburua ez da beste sail batzuen eskumenak ordeztzea, baina hiritarren eta beste erakunde batzuen erreferentea izan nahi du. Horretarako, aurrerantzean, generoko indarkeriaren biktimen arretarako telefonoa arautu eta kudeatuko du, eta bere gain hartuko ditu beharrezko informazio kanpainak eta biktimen babes ekonomikoari loturiko guztia (Berdintasun Ministerioaren konturako laguntzak, eta Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako 4/2005 Euskadiko Legean ezarritako laguntzen garapena). Era berean, generoko indarkeriaren biktima guztien babesari eta segurtasunari loturiko guztia ere Zuzendaritzaren eskumenekoa izango da (komisarietan tratatu txarrerako orain dauden polizia unitateak emakumeen aurkako beste indarkeria mota batzuetarako erabiltzea dago aurreikusita), baita indarkeriaren biktimei laguntza emateko helburua duten elkarteei zuzendutako laguntzen arauketa eta kudeaketa ere.
- **erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzak:** Eusko Jaurlaritzaren politika arlo honetan politika bakarra izan behar da, eta, hori lortzeko, zuzendaritza horrek Jaurlaritzak arlo honetan garatzen duen politika guztia ikuskatuko du; horretarako, honako hau egingo du: generoko indarkeriaren arloan Euskadiko behatokia sustatu, generoko indarkeriaren arloan Erakundeen arteko Erabakiaren Jarraipenaren Erakundeen arteko Batzordearen zuzendaritza hartu, gizarte eta barne ongizateko arloetan heziketa espezifikoak sustatu, udaltzaingoen eta Ertzaintzaren arteko lankidetzak sustatzen duten toki protokoloak bultzatu eta ikuskatu, eta Berdintasun Ministerioarekin eta Generoko Indarkeriarako Estatuko Ordezkaritzarekin lankidetzarako bideak sortu.
- **sentsibilizazioa, prebentzioa eta ikerketa:** arlo honetan koordinazio kanpainak sustatu nahi dira Emakunderekin edo Berdinsarekin; halaber, generoko indarkeria egintzen kondena publikoa egin, Eusko Jaurlaritzako jarduketa protokoloak sortu (emakumeak hiltzen dituztenean edo kasu oso larrietan), heriotzak daudenean herri akusazioa izan eta prebentzioa nahiz ikerketa sustatu nahi dira, Emakunderekin lankidetzan.

Azalpenaren ostean, Arartekoak emakumeen aurkako indarkeriaren arloan egiten duen lanaren alderdi batzuk komentatu genituen. Lehenengo eta behin, erakunde hau guztiz

kezkatzen duten kexa espedienteak aipatu genituen, eta Jaurlaritzak espedienteok ebazteko konpromisoa hartu zuen zuzendariak. Horretarako, indarkeriaren biktimak diren emakumeen zenbait alderdiri loturiko kexa espediente batzuen oraingo egoeraren kopia bidali genuen zuzendaritza horretara.

Ondoren, zuzendaritza horretara erakunde honetan jasotako generoko indarkeriari buruzko kexa espedienteen tramite guztien kopia bidaltzea erabaki genuen.

Halaber, kezkatu egiten gaituzten gai batzuk planteatu genizkion zuzendariari; esate baterako:

- indarkeriaren biktima diren emakumeei zuzendutako prestazio batzuen eta gizarteratzeko gutxienerako diru-sarreraren arteko bateragarritasuna argitu beharra;
- EAEko araudiak orain indarkeriaren biktima jakinentzat (Generoko Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko 1/2004 LOn ezarritako indarkeria kasuak) soilik ezartzen dituen prestazio batzuk emakumeen aurkako beste indarkeria kasu batzuetara ere hedatu beharra, batez ere, familia barruko indarkeria jasotzen denean, indarkeria hori ezkontideak, ezkontide ohiak edo antzekoren batek eragin ez arren;
- informazio argia, zehatza eta nahiko hedatua sortu beharra (adibidez, administrazio eta egoitza publikoetan eskuratzeko moduko gidak), emakumeek era guztietako laguntzei eta prestazioei buruzko informazioa emateko (gizartea, osasuna, psikologia, arlo juridikoa, polizia, ekonomia, laneratzea, hezkuntza edo heziketa, etab.), EAEko administrazioak laguntzak eta prestazioak eskaintzen baitizkiete generoko indarkeriaren biktimak diren emakumeei.

Azkenik, lehenengo bilera horren ostean, harreman estua edukitzea erabaki genuen, bakoitzaren lan arloetako informazio garrantzitsua elkarri jakinarazteko. Biler horretatik aurrera, bi erakundeen arteko komunikazio erraza sortu da; horrek, Arartekoaren iritiz, solaskidetzatza azkarra eta eraginkorra edukitzeko aukera ematen du, generoko indarkeriaren biktimak diren emakumeengan eragina duen edozein gaitan; horri esker, sarritan, errazago kudeatu eta ebatzi dira kexa espedienteak.

B. Generoko indarkeriaren arloko kexa nagusiak

Orokorrean, esan daiteke Arartekoak arlo honetan egindako esku-hartzeen helburua, batez ere, emakume batzuei informazioa ematea izan dela, administrazioek erasotzailearekiko autonomia egoera errazago lortzeko eskaintzen dituzten neurriei buruz.

- **Babeseko etxebizitza lortzea**

Babeseko etxebizitza lortzeko neurriei buruzko kexa batzuetan horixe gertatu da, hain zuzen ere. Testuinguru horretan, gogoratu behar da aurreko txostenetan aipatu genuen kasu bat; bertan, emakumearen erasotzailea neba izan zen, eta, horren ondorioz, 7 hilabeteko espetxe zigorroko epaiaren ostean, salatzailleak utzi egin behar izan zuen familiaren etxebizitza (gurasoen etxebizitza), gurasoek ez baitzuten nahi

bera bertan gelditzerik, neba salatu ondoren, gurasoak nebaren aldekoak baitziren. Horrela, erreklamaziogileak, kolokako lan egoerako emakume gazteak, ezin izan zuen gauzatu indarkeriaren biktimak diren emakumeentzat babeseko etxebizitza lehentasunez lortzeko eskubidea, erasotzailea ez baitzen ezkontidea edo bikotekidea; salbuetsita gelditu zen, hortaz, generoko indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako etxebizitza arloko ekintza positiboko neurriei buruzko 2006ko urriaren 4ko Aginduaren aplikazio eremutik.

Gure ustez, azaldutako kasuak agerian jartzen du arau horren aplikazio subjektiboaren eremua aldatu beharra; izan ere, eremu horren barruan, familia barruan gertaturiko erasoen biktimak diren emakumeak ere sartu behar dira, erasotzailea bikotekidea edo bikotekide ohia izan ez arren. Hain zuzen ere, elementu horrexek eragiten du etxebizitza baten beharra eta premia edukitzea, eta, beraz, etxebizitza lortzeko ekintza positiboko neurriak hartu beharra. Horixe izan zen lehengo Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Ekintza Sailak bidali zigun erantzuna, Jaurlaritza aldatu baino apur bat lehenago bidali ziguna; hau da, onartu egin zuen araua aldatzeko egin genion proposamena, beharrezkoa eta bidezkoa zelako.

Hala eta guztiz ere, Jaurlaritza aldatzearen ondorioz, 2009an, gauza bera planteatu genion oraingo Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailari; hain zuzen ere, agindu horretako 2. artikulua aldatzeko eskabidea egin genion, horren aplikazio subjektiboaren eremuan etxeko indarkeriaren biktimak diren emakume guztiak sartu ahal izateko, erasotzaileak bikotekideak edo bikotekide ohiak izan ez arren, baldin eta indarkeriaren helburua emakumearekiko bereizkeria egoera (sexuaren ziozkoa) mantentzea bada. Erantzuna oraintsu jaso dugu; bertan esaten digutenez, abiatuta dago sail horren eta Generoko Indarkeriaren Biktimen Arretarako Zuzendaritza berriaren arteko lankidetzaren esparrua, Lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretua aplikatuz (EAEko Administrazio sailak sortzeari, ezabatzeari eta aldatzeari eta haien funtzioak eta arloak zehazteari buruzko dekretua). Aditza eman digutenez, lankidetzaren finkatuko dira ekintza positiboko politiken (Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak garatuko dituen politikak) aplikazio subjektiboaren arloari buruzko irizpideak. Erantzun horrek, dirudenez, atzeratu egin nahi du guk planteaturiko arazoaren soluzioa; beraz, etxebizitzaren arloan, aztertzen ari gara generoko indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako ekintza positiboari buruzko araudia aldatzeko gomendio orokorra emateko aukera, lehen azaldutakoari dagokionez.

Halaber, generoko indarkeriaren biktima den emakume batek etxebizitza lortzeari buruz aurkezturiko bi kexa ere aipatu behar ditugu:

Lehenengo kasuan, erreklamaziogileak esku hartzeko eskabidea egin zigun, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren erantzuna lortzeko, sail horri behin eta berriro eskatu baitzion (interesdunaren Udalaren txostenek egiaztaturiko eskabidea) etxebizitza bat emateko, arrisku objektiboko generoko indarkeriaren biktima zela kontuan hartuta. Planteaturiko gaiaren larritasuna ikusita, administrazio

horri informazio eskabidea premiaz tramitatzea erabaki genuen; aditzera eman genion, aintzat hartuta pertsona horrek premia larria eta arrisku objektiboa zituela (aipaturiko udaleko gizarte zerbitzuek egindako balorazioaren arabera), gure ustez premiazkoa zela sail horrek gaiari buruzko erabakia berehala hartzea, eta erabaki hori interesdunari eta Udalari jakinaraztea; gainera, Sailari 10 egunean gaiari buruzko iritzia emateko eskabidea ere egin genion. Informazio eskabidea egin genuenetik ia hiru hilabete igaro ondoren, Sailaren erantzuna jaso genuen; bertan esaten zenez, kexaren sustatzailearen espedientea kudeatu ondoren, horrek etxebizitza baten zuzeneko esleipena izan zuen, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko sailburuak emandako Aginduaren bidez. Erakunde hau pozik gelditu zen, gaiari azkenean emandako soluzio materiala ikusita; hala ere, gure ustez egokia zen ebazpen bat aipatzea ([Arartekoaren 2009ko azaroaren 3ko ebazpena](#))¹; bertan, esan genuen ez geundela ados espedientea tramitatzeko erabilitako aldiarekin, aldi hori, gure ustez, zentzuzko aldia baino luzeagoa izan baitzen, premiaz tramitatu beharreko gai batean. Era berean, aditzera eman genuen, gure ustez komenigarria zela etorkizunean Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2006ko urriaren 4ko Aginduaren 4.2 eta 6. artikuluetan jasotako espediente guztiak (generoko indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako etxebizitzaren arloko ekintza positiboko neurriei buruzko agindua), edo 39/2008 Dekretuko 12.3 artikuluan jasotako guztiak (etxebizitzaren eta lurzoruaren arloko babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta finantza neurriei buruzko dekretua), generoko indarkeriaren biktimak diren emakumeengan eragina zutenean, interes publikoko zergatiak kontuan hartuta, premiaz tramitatzea, baldin eta emakume eskatzailea ondo egiaztaturiko arriskuko edo arrisku objektiboko egoeran badago (aipaturiko kasuan bezala). Ebazpen hori Herrizaingo Saileko Generoko Indarkeriaren Biktimen Arretarako Zuzendaritzara ere bidali dugu; erakunde honetan, sail horri generoko indarkeriaren biktimei lotuta tramitatzen diren gai guztiei buruzko informazioa ematea erabaki dugu.

Gero, Sailaren idazki bat jaso dugu, eta, bertan, espediente horren kudeaketan izandako atzerapena eragin duten zergatiak azaltzen dira; esate baterako, interesduna utzi beharreko etxebizitzaren jabea izatea (etxebizitza ez izatearen salbuespena), Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak etxebizitza eskaintza urria edukitzea, edo etxebizitza eskaria jatorrizko udalerria ez den udalerririk bakarrari buruzkoa izatea (udalerririk horretan, bestalde, hilabete batzuk geroago arte ez zen etxebizitzarik egon, eta hori hutsik dagoen etxebizitzaren alokairuko programara bideratu zen, Bizigune programara). Etxebizitza horixe esleitu zitzaion, azkenean, emakume horri, berak probintziako beste udalerririk batean zegoen beste etxebizitza eskaintza bat ukatu ondoren. Halaber, Sailaren idazkian aipatzekoa da interesdunaren jatorrizko udalerririk babes ofizialeko 22 etxebizitza edukitzea, sor zitezkeen premiazko beharrianetarako, eta, zentzu horretan, udalerririk horrek gaian dituen erantzukizunak aipatzen dira. Erakunde honek ondo ulertzen ditu Sailak azaldutako arazoak; hala ere, gure ustez,

¹ Arartekoaren ebazpena, 2009ko azaroaren 3koa. Horren bidez genero indarkeriaren biktima den emakume bat etxebizitzaz aldatzeko premiazko beharrik buruzko kexan esku-hartzea amaitzen da.

horiek guztiak generoko indarkeriako egoera baten testuinguruan aztertu behar dira, egoera horretan eraginpeko emakumearentzat ezinbestekoa baitzen etxebizitza uztea (titularra izan arren) eta erasotzailearena ez zen udalerrri batera joatea; beraz, ñabardurak egin behar zaizkio Sailak aipaturiko udal erantzukizunari. Gainera, arrisku bereziko edo arriskuko testuinguru horrexek justifikatzen du, azken batean, espediente hau kudeatzen zuen herri-administrazioarekiko arreta eskabideak (gure ebazpenean adierazitakoaren zentzuan) intentsitate bereziarekin jardun behar izatea.

Aipaturiko beste kasu batean (hori ere generoko indarkeriaren biktima den emakume baten etxebizitza eskabideari buruzkoa), Bizkaiko udal batek sustaturiko babes publikoko etxebizitza bat esleitu zaio erreklamaziogileari, generoko indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako kupo baten esparruan. Erreklamaziogilea etxebizitza baten erdi indibisoaren titularra zen, eta hori, ordura arte, bere bikote ohia eta erasotzailea izandako pertsonarekin partekatu zuen udalerrri berean; hortaz, ukatu egin zizkioten finantza laguntzak eta kontratuaren bisatua, Udalak esleituriko etxebizitza eskuratzeko. Ukatze hori BAO n argitaraturiko ediktu baten bidez jakinarazi zen.

Kexaren sustatzaileak planteaturikoaren arabera, ez zegoen ados etxebizitza erosteko kontraturako bisatua eta finantza laguntza ukatzearekin, ezta jakinarazpena ebazpena oso-osorik argitaratuta egitearekin ere. Izan ere, horren ondorioz, erreklamaziogilearen datu pribatuak (adibidez, oraingo bizilekuaren helbidea, eta laster beste etxebizitza bat esleitu zaiola, erasotzaileak horren kokalekua jakin behar ez bazuen ere) argitaratu egin ziren eta jendearen esku zeuden; horrela, edonork bilatu ahal zituen, interneten erreklamaziogilearen izenean oinarrituz egindako bilaketa arrunt baten bitartez. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak bisatua ukatzea 315/2002 Dekretuko (orain 39/2008 dekretua) 16.1 artikuluan soilik oinarritzen da (jabetzako etxebizitza ez edukitzeko baldintzari buruzko dekretua), eta ez da kontuan hartzen interesduna generoko indarkeriaren biktima denik.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailera eta Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Generoko Indarkeriaren Biktimen Arretarako Zuzendaritzara jo genuen. Jaurlaritzari gogora ekarri genion, martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuko 16.3 artikuluan (babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua arloko finantza neurriei buruzkoa), aukera ematen dela, manu horretan premia bereziko egoeretan dauden taldeetako kideei salbuespena emateko, Etxebizitzako sailburuaren Aginduaren bidez, baldin eta premia hori etxebizitzari lotuta badago eta halako taldeen eskubideen babesean eskumena duen erakundeak egiaztatzen badu. Zehatzago, dekretu horretako 12.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, sailburuaren agindu batek etxebizitza esleitzeko prozeduratik salbuetsi ahal ditu generoko indarkeriaren biktimak. Kasu honetan, emakumeak generoko indarkeria jasan du, ebazpen judizialen bidez egiaztatu denez. Emakume horren premia bereziko egoera, berriz, interesdunak aurkezturiko dokumentaziotik ondorioztatzeko moduko gertaeren eraginezkoa da; izan ere, agerian gelditu da erreklamaziogileak etxebizitza premia handia duela, joan egin behar izan baita erasotzailearekin partekatzen zuen bizilekutik, eta, gainera, ezagun batzuen etxebizitzan ari baitzen

bizitzen. Halaber, interesduna kolokako egoera ekonomikoan zegoen, eta gizarte larrialdiko laguntzak jasotzen zituen, lortu nahi zuen babes publikoko etxebizitzaren hipoteka mailegua ordaindu ahal izateko. Interesdunak egiaztatu egin zuen, era berean, ezin zuela erasotzailearen titulartasuneko ere bazen lehengo etxebizitzan bizi, eta ekintza zibil bat planteatu behar izan zuen, Lehen Auzialdiko Epaitegi batean, jabekidetasunaren zatiketa sustatzeko; horren ebazpenean, epaileak higiezi-na enkantean jartzea erabaki zuen, eta kexa hau planteatzeko unean hori oraindik betearazi gabe zegoen.

- **Norberaren datuak ediktu bidezko jakinarazpenean zabaltzea**

Interesdunak salaturiko bigarren gaiari dagokionez (haren datuak bisatua ukatzeko ebazpeneko ediktu jakinarazpenaren bidez zabaltzea eta etxebizitza erosteko finantza laguntzak ematea), Sailari galdetu genion ea zergatik ez zen aintzat hartu pertsona hori generoko indarkeriaren biktima zela, eta ea zergatik argitaratu zen aldizkarian ebazpen osoa, horren datu pribatuak baitzituen (esaterako, emakume horren oraingo helbidea eta balizko helbide berria), ezkutuan egon behar ziren datuak, emakumearen bikotekide ohiak berarengana hurbildu ezin izateko.

Generoko Biktimen Arretarako Zuzendaritzaren bidez, jakin dugu Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak finantza laguntzen eta babes publikoko etxebizitza salerosteko bisatuaren ukapena ezeztatzea ebatzi duela, 3972008 Dekretuko 12.3 artikuluan jasotako aurreikuspenean oinarrituz. Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak berak, bestalde, interesdunaren datuak ediktuaren bidez argitaratzea justifikatzen duen idazkia bidali digu; hain zuzen ere, esan digu sail horrek ez zekiela interesduna generoko indarkeriaren biktima zenik, ez baitziren Jaurlearitzak finkaturiko ohiko bideak jarraitu (Etxebizitza eta gizarte Gaietako sailburuaren 2006ko urriaren 4ko Aginduan arauturikoak –generoko indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako etxebizitzaren arloko ekintza positiboko neurriei buruzkoa–), erreklamaziogileak etxebizitza lortzeko. Esan behar dugu, Udalak kexaren sustatzaileari udal sustapeneko etxebizitza esleitu zionean (2006ko urtarrila), agindu hori ez zegoela indarrean; beraz, orduan ez zegoen indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako etxebizitza lortzeko bide berezi arauturik, eta horrek, gai honetan, hau ere justifikatzen du: etxebizitzaren esleipenak 39/2008 Dekretuko 12.3 artikuluan ezarritako sailburuaren Esleipen Aginduko salbuespena edukitzea.

- **Generoko indarkeriaren biktima izaera onartzea**

Atal honetan aipatu beharreko beste kexa batean, generoko indarkeriaren biktima izaera egiaztatzeko gaia planteatu ziguten. Erreklamaziogilea, hain zuzen ere, ez zegoen ados Euskadiko administrazioen ohiko jardunarekin; izan ere, tratu txarrak egiaztatzen dituen epaia eskatzen dute, emakumeak prestazioak edo laguntzak jaso ahal izateko, edo herri-administrazioetan tramiteak egin ahal izateko. Pertsona horren ustez, pertsonen intimitate eskubidea urratuak gelditzen da, ebazpen judiziala aurkezteko eskatzen den bakoitzean, ebazpen horretan norberaren gauzak eta alderdiak egoten baitira adierazita.

Administrazioak ez daude ados, biktima izaeraren egiaztatze objektiboari buruz, eta, horrela, emakumeek behin eta berriro kontatu behar izaten dituzte, zenbait administraziotan, jasan behar izan dituzten gertakari mingarriak eta barru-barruko gauzak. Batzuetan, horrek eraso egiten dio pertsonen esparru pribatuari eta duintasunari.

Horri dagokionez, EAEko administrazioetan esku hartu beharra planteatu digute, indarkeriaren biktimak diren emakumeek, etorkizunean, bizi izandako indarkeria egoerari buruzko gertaerak edozein enplegatu publikori azaldu eta jakinarazi behar ez izateko.

Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzako Generoko Indarkeriaren Biktimen Zuzendaritzara jotzea erabaki dugu, eta horren lankidetzat eskatu dugu; horrela, zuzendaritza horrek, generoko indarkeriaren arloko Erakundeen arteko Erabakiaren Jarraipenaren Erakundeen arteko Batzordearen zuzendaritza hartu duenez, EAEko herri-administrazioen arteko koordinazioa errazteko mekanismoen sorkuntza sustatuko du, generoko indarkeriaren biktimak egiaztatzeko eskakizunei dagokienez.

Hala ere, hasieran, guretzat garrantzitsua zen zuzendaritza horrek gaiari buruz zer balorazio egiten zuen jakitea, aintzat hartuta babes aginduaren inguruan dauden koordinazio mekanismoak; gainera, jakin nahi genuen, zuzendaritza horren ustez, mekanismo berriak sortzea ea zein neurritan den bideragarria, generoko indarkeriaren biktima izaera modu uniformearen egiaztatzeko, eta, alde horretatik, generoko indarkeriaren biktimen eta EAEko herri-administrazio guztien arteko harremanak hobetzeko. Txosten hau amaitzeko unean, oraindik ere erantzunaren zain gaude, baina gaian lan egiten jarraitzeko asmoa dugu, harik eta kexa honetan salatutako oraingo egoera aldatu arte.

- **Zaintza eta babespe arazoak**

Kexetan behin eta berriro agertzen diren beste gai batzuk, generoko indarkeriaren biktimak izan diren emakumeen seme-alaben zaintzari eta babespeari buruzkoak dira, eta horrek neurri judizialak aplikatzearen eremuan kokatzen gaitu. Oro har, halako kasuetan zaintza emakumeei ematen zaie, baina aitarentzat bisita araubidea mantentzen da, eta horrexek sortzen ditu arazorik handiena. Horrela, seme-alabak benetako arrisku egoeran zeudela sentitzen zuten emakumeek esku hartzeko eskabide asko egin dizkigute; izan ere, seme-alaben aita amaren erasotzailea izan zen, eta seme-alabak emakumeari kalte egiten jarraitzeko erabiltzen zituen. Kasu askotan, halako bisitaldietarako tutoretza araubide bat ezartzen da, eta, horren eraginez, bisitaldiak familiaren bilguneetan egin behar izaten dira. Guk, halako kasuetan, esku hartzeko aukera gutxi dugu, hori justiziaren arloa baita.

Generoko indarkeriaren gaian zuzen edo zeharka eragiten duten beste gai batzuk, txosten honetan, justiziaren arloari buruzko atalean aipatuko ditugu.

III. Sexuaren ziozko bereizkeriak ezabatzea: herri-administrazioen jarrera

Arartekoak bermatu egin behar du herri-administrazioek funtsezko eskubiderik ez dutela urratzen; eskubide horien artean, aipatzekoak dira berdintasun eskubidea eta sexuaren ziozko bereizkeria eza. Beraz, arlo honetan esparruan garatzen dugun jardueraren zati baten helburua herri-administrazioen jarrera zaintzea eta kontrolatzea da, sexuaren eraginezko bereizkeriarik ez egoteko.

Aurten sexuaren ziozko bereizkeriatzat (herri-administrazio bati leporatzeko moduko bereizkeria) planteatu diren kasuen artean bi kexa nabarmendu nahi ditugu. Biak, berriro ere, jai eta kultura arlokoak dira, eta agerian jartzen dute beharrezkoa dela udal administrazioek jarrera proaktiboak hartu behar dituztela, gizonen eta emakumeen berdintasunezko parte-hartzea sustatzeko, kultura adierazpen guztietan, eta, hain zuzen ere, tradizioetan oinarrituz, gure udallerrietako ikuskizun ludikoetan eta jaietan.

Horrela, lehenengo eta behin, Puentelarráko kasua aipatu behar dugu; Lantarón udalerriko herri horretan administrazio batza bat dago. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren defentsa erakundeak guri bidalitako salaketa batean esaten zenez, ezinbestekoa zen “Txoko Eder” txokoari ematen zitzaizkion laguntza publikoak ezabatzea, harik eta txoko horretan dagoen bereizkeria amaitu arte. Hain zuzen ere, auzotar batek salaturikoaren arabera, ez zioten txoko horretan sartzen uzten, txokoa Puentelarrá herriaren jabetzakoa izan arren. Idazki bana bidali genien Puentelarráko Administrazio Batzari eta Lantarongo Udalari; bertan esaten zenez, herri botereak direnez, euren jarduketa guztiek Eusko Legebiltzarrak otsailaren 18an emandako 4/2005 Legean (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa) araturiko eduki eta betebeharrak guztiak bete behar zituzten. Horrenbestez, administrazio batza horri eskubidea egin genion, txokoaren aldeko jarduketa publiko guztiei amaiera emateko, Lantarongo Udalari, halaber, batza horri babesa emateko eskatu genion, salaturiko bereizkeria bukatzeko hartzen zituen erabaki guztietan. Azkenik, Batzak erantzun zigun, esanez gure iritzia onartzen zituela eta erabaki bat hartu zuela, berdintasun printzipioaren urraketa (salaturiko urraketa) zuzentzeko.

Aipatu beharreko antzeko beste kasua Laudioko udalerrian urtero gertatzen dena da, hain zuzen ere, “San Roke Kofradia” izenekoak herriko jaietan antolatzen duen bazkari batean gertatzen dena, bazkari horretan gizonen baino ezin baitute parterik hartu. Kexa hori oraindik ere irekita dago, 2008an zio bereko beste espediente bat itxi genuen arren, [Arartekoaren 2008ko abenduaren 11ko Ebazpenaren](#)² bidez. Bertan, hauxe eskatu genuen: bazkari hori egiteko administrazio baimena emateko, berdintasunaren arloko indarreko araudian jasotako xedapenak bete behar izatea; hain zuzen ere, kultura jarduerari dagokienez. Halaber, Laudioko Udalari gogoratu egin genion baliabide guztiak erabili behar zituela, emakumeen

² Arartekoaren ebazpena, abenduaren 11koa, Laudioko jaietan “San Roke Kofradiako ermandade bazkarian emakumeek parte hartzeari buruzko esku-hartzeari amaiera ematen diona.

eta gizonen berdintasun printzipioa betearazteko; horretarako, jarduera horri zuzenean edo zeharka laguntzeko edozein laguntza publiko emateko, zorrotz bete behar da berdintasunaren arloko indarreko araudia. 2009an gai horri buruz aurkezturiko kexan planteatzen zaigunaren arabera, Laudioko Udalak oraindik ere zuzeneko edo zeharkako laguntza ematen dio San Roke Kofradiari bere jardueretarako. Hori dela eta, Udalak San Roke Kofradiaren jardueretarako ematen duen balizko laguntzei buruzko erantzun zehatza lortzen saiatu gara, Laudioko alkatearengana jota. Horrela, 2009an, Laudioko Udalarri berririo esan genion ez zio-la kofradia horri laguntza publiko gehiagorik eman behar, harik eta haren jarduketek gizonen eta emakumeen berdintasun printzipioa bete arte. Guri emandako erantzunean, Laudioko alkateak esan zigun Udalak zorrotz bete nahi zituela berdintasun printzipioaren baldintzak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean jasotakoak, eta San Roke Kofradiari bere egintzak lege horretara egokitzeko eskabidea egiteko asmoa zuela. Horretarako, esan zigun ez zela kofradia horrek antolaturiko egintzetara joango, eta Udalak ez zuela halako egintzetarako laguntzarik emango. Nolanahi ere, parrokia taldeak eta Laudioko Udalak batera sinaturiko jakinarazpen batean publikoki jakinarazitakoaren arabera, Laudioko Udalak 2010erako behin betiko soluzioa eskatzeko asmoa dauka, arazo hori ondo kudeatzeko, bestela herrian barneraturik gera daitekeelako, Euskadiko beste herri batzuetan gertatu den bezala.

Nolanahi ere, udal horri gogora ekarri diogu ezin dela inola ere inplikatu emakumeen bereizkeria eragiten duten egintzetan, 2008ko abenduaren 11n gai horri buruz eman genuen ebazpenean adierazitakoaren arabera. Erakunde honen asmoa Udalak printzipio hori betetzen duela zaintzea da, eta datorren urteko gertaera guztietan ere bete egiten duela.

Bi kasuetan, agerian gelditu dira jaietako egintzetan (gure herrietako gizartean eta kulturaren guztiz sustraituriko egintzak) sexuaren ziozko berdintasun printzipioa aplikatzea zaila dela; halako egintzetan, gizarte inertzien eraginez, botere publikoek, zuzen edo zeharka, ustez pribatuak diren (kultura ondare izateak, gure iritzian, arlo pribaturako atxikipen hori zalantzan jarri arren) egintza horiek sustatu edo, bestela, ez dute emakumeen bereizkeria ekiditeko neurri zorrotzgarik hartzen. Irungo eta Hondarribiko alardeen kasuetan ere, zorritzarrez, horixe gertatzen da; bertan, erakunde honek eta beste askok pronuntziamentu ugari egin arren, emakumeen bereizkeria egoerak zigorgabetasun osoz iraun dute hainbeste urtetan.

Beraz, berretsi egin behar dugu beharrezkoa dela halako kasu guztietan pribatutasunaren estalkia kentzea, botere publikoek berdintasunaren arloan dituzten betebeharrak agerian gelditzeko; halaber, gure ustez, ezinbestekoa da gizartea sentsibilizatzen jarraitzea, itxuraz kaltegabeak diren ospakizun "tradizional" horiek funtsezko printzipio demokratikoekin bateraezinak izateari dagokionez; izan ere, halakoen azpian emakumeen preterizio historiko bidegabea dago, gizartean garrantzitsuak diren ikuskizunetan emakumeen parte-hartzea ekidinez; halako ikuskizunek garrantzi handia dute gizartean, eta hori agerian gelditzen da pertsona batzuek horien oinarriak hain irmo defendatzen ikusita.

IV. Benetako berdintasuna: emakumeengan eragin handia duten beste alderdi batzuk, batez ere lanbidea, norberaren bizitza eta familiako bizitza bateratzea

Arartekoa emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde lan egiten ari da; berdintasun hori gizarte, ekonomia eta kultura testuinguru batean kokatu behar da, eta testuinguru horretan emakumeen preterizio historikoa egon da; horren ondorioz, giza harremanen sistematik egiturazko desberdintasuna dauka gizonentzat eta emakumeentzat. Horren eraginez, berdintasuna lortzeko lana garatzeko, aurretiazko desberdintasun egoera desegin beharra dago. Horretarako, Arartekoak arlo honetan egiten dituen jarduketak ez dira sexuaren ziozko balizko bereizkeriak kontrolatzea bakarrik; izan ere, jarduketa horien helburua hauxe ere bada: emakumeak gizarteko arlo guztietan erabat sartzea, emakumeen erabateko parte-hartzea eta protagonismoa bultzatzea (gizartean, politikan edo ekonomian garrantzitsuak diren erabaki hartzeetan), emakumeak erabaki eta lan eremu guztietan ordezkaritza egokia edukitzea, eta, oro har, emakumeen presentzia handitzea.

Atal honetan, gure esku-hartzea izan duten alderdien berri emango dugu; alderdiok, beti bereizkeria kasuak izan ez arren, eragin handia dute emakumeengan, lehen azaldutako ikuspegitik begiratuta; horrenbestez, botere publikoei berdintasuna erreala eta benetakoa izatea ekiditen duten oztopoak kentzearen aldeko jarrera eskatu behar zaie.

Beraz, ondoren, erakunde honetan aurkezturiko kezarik adierazgarrienak azalduko ditugu; batez ere, norberaren bizitza, familiako bizitza eta lanbidea bateratzeko alderdiei buruzkoak dira.

- **Emakumeek eta gizonen kide anitzeko organoetan ordezkaritza orekatua edukitzea**

Lehenengo eta behin, **emakumeek eta gizonen kide anitzeko organoetan ordezkaritza orekatuari** buruz aurkezturiko kexa bat azalduko dugu, labur-labur; kexa hori emakumeek Merkataritza Banaketako Behatokia osatzen duten organoetan duten ordezkaritza urriaren ondoriozkoa da (22 emakume eta 46 gizon). Kontuan hartuta Merkataritza Banaketako Behatokia sortu eta arautu duen martxoaren 27ko 56/2007 Dekretuak aplikagarri dituela Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 23. artikuluko xedapenak, uste dugu dekretu horrek klausularen bat jaso beharko zuela, bere artikuluetan, emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua sustatzeko. Hain zuzen ere, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari dekretu horretako 4.5 artikuluan halako klausula bat sartzeko iradokizuna egin genion, pertsona bat baino gehiago izendatu behar duten organoek edo erakundeek (adibidez, Merkataritza Banaketako Behatokia edo Kontsulta Foroa) honako atal hauen irakurkera konbinatua egitetik sortzen denaren antzeko irizpide bat erabiltzeko: Eusko Legebiltzarraren Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako 4/2005 Legeko 20. artikuluko 6. eta 8. atalak. Eusko Jaurlearitza-ko Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak aintzat hartu ditu gure gomendioak,

eta Merkataritza Banaketako Behatokiaren organoen osaketan, behatoki horretako batzorde betearazlean eta idazkaritza teknikoan eta eratzen diren lan batzordeetan edo taldeetan ere, emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua lortzeko behar diren neurri guztiak hartzeko konpromisoa hartu du.

- **Lanaldia murrizteko diru-laguntzen zenbatekoak desberdinak izatea**
Norberaren bititza, familiako bititza eta lanbidea bateratzeari dagokionez, urteroko azken txostenetan adierazi dugunez, arazoa sortzen da lanaldia murriztu edo seme-alabak zaintzeko eszedentzia eskatu nahi duten emakumeei eta gizonei emandako laguntzen zenbatekoan. Gaia sakon aztertu ondoren, eta gizonei emakumei baino zenbateko handiagoa ematen zaiela egiaztatutakoan, gure ustez emakumeen zuzeneko bereizkeria zegoen, eta, beraz, 2008an, gomendio bat ematea erabaki genuen ([Arartekoaren 2008ko uztailaren 9ko gomendioa](#))³, arlo horretako araudia aldatzeko (uztailaren 17ko 118/2007 Dekretua, lanbidea eta familiako bititza bateratzeko neurriak arautu dituen), eta, horrela, emakumei eta gizonei emandako laguntzen zenbatekoan dagoen desoreka hori ezabatzeko. Hala ere, eta administrazio eskudunak, oraintsu, dekretu hori gure gomendioan adierazitakoaren arabera aldatzeko asmoa duela jakinarazi digun arren, 2009an arau hori indarrean mantendu da, inolako aldaketarik gabe. Beraz, praktikan, oraindik ere laguntza handiagoak ematen zaizkie gizonei emakumei baino; horrek kexa asko eragin ditu eta, horietan, emakumeen aurkako bereizkeria salatu da.

Gaur egun, Lan eta Gizarte Gaietako Sailak 118/2007 Dekretua aldatzeko iragarritako prozedura hastearen zain gaude, eta sail horri berretsi egingo diogu ezinbestekoa dela arlo horretarako arau berriak laguntzetan dagoen desberdintasunari amaiera ematea; izan ere, laguntza hori, hasieran, gizonen seme-alaben zaintzan baterako erantzukizuna izatea sustatzeko ekintza positibotzat sortu zen, baina, praktikan, emakumeentzat bereizkeria egoera asko sortzen ditu, eta horiek, gure iritzian, ez dute lekurik Konstituzioan, horrek pertsonen arteko berdintasun printzipioa ezartzen baitu.

- **Lanaldiaren murriztapena gurasoen artean banatzea**
 Beste gai bat, berori ere bateratzeko laguntzei lotutakoa, emakume batek bere kexan planteatu ziguna izan zen; hain zuzen ere, oraingo araudiaren arabera, ezinezkoa da pertsona batentzat ezarritako lanaldi murriztapena (lanaldi osoaren 1/3) guraso diren bi ezkontideen artean banatzea (berak horixe nahi du), murriztapenaren karga eta seme-alaben zaintza bi gurasoen artean berdintasun handiagotzat banatzeko. Kexa hori aztertu ondoren, gure ustez, erreklamazioak egindako

³ Arartekoaren ebazpena, 2008ko uztailaren 9koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari gomendatzen zaio berrikus dezala seme-alabak zaintzeko eszedentzia edo lanaldi laburtua hartzen duten langileen artean zergatik ematen zaien laguntza handiagoa gizonei emakumei baino.

planteamendua bidezkoa da, ez horrenbeste *lege data* izeneko ikuspegitik (banaketarako planteaturiko formula –arauko 4.1 a) artikuluan ezarritako herena ez litzateke banaka zenbatuko, bi lanaldi murriztapenak batuta baizik– orain ez baitago aurreikusita), baina bai *lege ferenda* gisa aintzat har daitekeen jarraibidetzat, uztailaren 17ko 118/2007 Dekretuaren balizko aldaketa aintzat hartuz (lanbidea eta familiako bizitza bateratzeko neurriak arautu dituen dekretua). Izan ere, formula egokia izango litzateke seme-alaben zaintzan emakumeen eta gizonen baterako erantzukizuna sustatzeko (dekretu horretan berariaz lortu nahi den helburua). Planteamendu horri dagokionez, Sailak berariaz adierazi digu onartu egiten duela gure proposamena interesgarria dela, eta horren balorazio oso positiboa egiten duela; beraz, 118/2007 Dekretuaren berrikuspen orokorra egiten denean (iragarrita dago), aintzat hartuko duela esan digu.

- **Adingabeek bateratzeko laguntzak jasotzeko izan behar duten adina luzatzea**

Araudi horri buruzko beste kexa baten sustatzaileak aldaketa bat planteatu zuen lanbidea eta familiako bizitza bateratzeko laguntzei buruzko oraingo araudian (Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 23ko 118/2007 Dekretuan jasotakoa), halako laguntzak behar dituzten gurasoen ardurapeko adingabeen adina oraingo 6 urteetatik 12 urteetara luzatzeko. Erreklamaziogilea alargun geratu da oraintsu, eta 9 urteko semea dauka; berak dioenez, semeak arreta berezia behar du, eta, hori eskaintzeko, aitzak murriztu egin behar du bere lanaldia. Baina laguntzak jaso nahi ditu, 6 urtetik beherako seme-alabak ardurapean dituzten gurasoei soilik eskaintzen zaizkienak. Gainera, guraso bakarreko familiaren titulartzat duen zaurgarritasun egoera berezia ere aipatu du.

Planteamendu horri dagokionez, Eusko Jaurlaritzak aditzera eman du, alde batetik, laguntzak jaso ditzaketen gurasoen ardurapeko adingabeen adina luzatzeko orduan, beharrezkoa dela Langileen Estatutuaren araudiak ezartzen duen arauketa, adingabeen gehieneko adinari buruz ezartzen duena, gurasoek lanaldia murrizteko neurriak eskatzeari dagokionez; gehieneko adin hori 8 urtekoa da, emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa sortu zenetik. Eusko Jaurlaritzak, alderdi horretatik, berretsi egin du EAEko araudiak ezin duela adin horretatik gorako seme-alabaren bat zaintzeko laguntzarik jaso, bestela tratatu desberdintasuna sortuko bailitzateke Langileen Estatutuan ezarritakoa hobetzen ez duen hitzarmen edo kontratu baten bidezko arauketarik ez duten langileekiko, langileok ezin baitute lanaldi murriztapenik izan, euren ardurapeko seme-alabek 8 urteko adina gainditu ondoren. Hala ere, oraingo 6 urteko adina 8ra luzatzeko aukera dago, Langileen Estatutuan ezarritakoaren arabera, eta azken adin hori gehienekoa izango litzateke, azaldutako arrazoiak kontuan hartuta.

Ardurapeko adingabearen adin aldaketak, Eusko Jaurlaritzak *lege ferenda* planteaturikoak, ez dio ekarpenik egiten interesdunak kexan azaldutako arazoari (horren semea 8 urtetik gorakoa baita); hala eta guztiz ere, gure iritzian, aldaketa hori, gauzatuz gero, aurrerakuntza garrantzitsua izango litzateke lanbidea eta familiako bizitza bateratzeko oraingo arauketan.

- **Familiako bat adingabeen zaintzailatzat kontratatzeako laguntzak**

Azkenik, 118/2007 Dekretuari berari loturiko beste kexa bat aipatu behar dugu; bertan, arazo hau planteatu digute:

Kexaren sustatzaileak laguntza eskabidea tramitatzea erabaki zuen, alaba txikia zaintzeko pertsona bat kontratatzeako. Berak eta senarrak erabaki zuten pertsonarik egokiena eskatzailearen ahizpa zela, eta, beraz, diru-laguntza jasotzeko egiaztatu beharreko baldintzak betetzen hasi ziren. Hala eta guztiz ere, Eusko Jaur-laritzaren uztailaren 17ko 118/2007 Dekretuko 33. artikuluan (lanbidea eta familiako bizitza bateratzeko neurriak arautu dituen dekretua) jasotako baldintza guztietatik, haiek egindako kudeaketek betetzen ez zuten baldintza bakarra zegoen. Hain zuzen ere, 33. artikuluko horretako 3. atalean ezarritakoaren arabera, *“onuradunaren ezkontidea edo izatezko bikotekidea kontratatzeak ez du inoiz ere diru-laguntzarik jasoko, ezta horren aurrekoak, ondorengoak edo albokoak kontratatzeak, horiek lehenengo edo bigarren graduko odolkidetasuna, kideetasuna edo adopzioa badute”* (azpimarra geuk jarri dugu). 118/2007 Dekretuaren helburua lanbidea eta familiako bizitza bateratzea denez, erreklamaziogileak pentsatu zuen baldintza hori ez zela zentzuzkoa. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak gaituriko bulegoetara joan zenean (baldintza horri buruzko kontsulta egitera), berretsi egin zioten ez zuela betetzen eta ez zeukala diru-laguntza eskatzeko eskubiderik. Hortaz, geuri eskatu zigun esku hartzeko.

Gaia aztertu ondoren, iritzi batzuk eman genizkion orduko Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailari; aditzera eman genion honako hauen arteko lotura ulertezina zela: alde batetik, bigarren gradura arteko odolkidetasun, kideetasun edo adopzioko ondorengoak edo aurrekoak diren zaintzaileak arauaren aplikazio subjektiboaren eremutik kanpo uztea; bestetik, familiako erantzukizunen eta lanbidekoen arteko bateragarritasuna sustatzea, batez ere kontuan hartuta, kexa honetan, sustatzaileak ahizpa aukeratu zuela, berori baitzen alaba txikia zaintzeko eta arreta eskaintzeko bermerik handiena ematen zion pertsona; izan ere, horrek ama eta langile izatea modu orekatuagoan bateratzeko aukera ematen zion.

Emandako erantzunean, 118/2007 Dekretuko 33.3 artikuluan jasotako salbuespena justifikatzeko, Sailak esan zigun dekretu horretako 30. artikuluan ezarritakoaren translazioa zela, eta, bertan, Gizarte Segurantzako Etxeko Langileen Araubide Berezia hartuta duen langile baten kontrataziorako baino ez dela aurreikusten diru-laguntza; hain zuzen ere, seme-alaba adingabeak zaintzeko. Hortaz, Sailaren iritzian, 118/2007 Dekretuko 33.3 artikulua salbuespenak berretsi egiten du irailaren 25eko 2346/1969 Dekretuko 3. artikuluan ezarritakoa (etxeko zerbitzuaren gizarte segurantzako araubide berezia arautzen duen dekretua. Horrela, Sailaren ustez, 33. artikuluko 3. atalak laguntzatik kanpo uzten du etxeko zerbitzuaren gizarte segurantzako araubide berezitik kanpo zegoen egoera bat, eta, beraz, hori ezin da sartu 30. artikulua barruan (seme-alaba adingabeak zaintzeko langileen kontrataziorako diru-laguntza jaso dezakeen jarduketari buruzko artikulua).

Balorazio horiek ikusita, Lan eta Gizarte Gaietako Sail osatu berriari beste informazio eskabide bat bidaltzea erabaki genuen; hain zuzen ere, Administrazioak emandako erantzunak, gure ustez, merezi zituen ohar batzuk jakinarazi genizkion.

Kontuan hartuta kexan azaldutako gai nagusia, Eusko Jaurlaritzaren hasierako tesiaren arabera, irailaren 25eko 2346/1969 Dekretuko 3.1 a) artikulutik sorturikoa dela, esan beharra zegoen artikulua horrek Gizarte Segurantzaren 1966ko apirilaren 21eko Legeko 7.2 artikuluan ezarritakoa baino ez zuela esaten. Ondoren, abenduaren 29ko 7/1989 Errege Lege Dekretuak Gizarte Segurantzaren Legeko 7.2 artikulua aldatu zuen, bertako hamalagarren xedapen gehigarrian, ekainaren 29ko 5/1990 legeko hamaikagarren xedapen gehigarrian berretsitakoan (Gizarte Segurantzaren 1994ko ekainaren 20ko indarreko Lege orokorreko 7.2 atala osatu zuena), hauxe dago ezarrita: "*honako hauek ez dira inoren konturako langiletzat hartuko, baldin eta aurkakorik frogatzen ez bada (iuris tantum ustea): enpresaburuaren ezkontidea, ondorengoak, aurrekoak eta gainerako ahaideak, bigarren gradura arteko (berori ere barne) odolkidetasuna edo kидetasuna dutenak, ezta adopziokoak ere, enpresaburuaren lantokian edo lantokietan dabiltzanean, baldin eta haren etxean eta ardurapean bizi badira*".

Era berean, Langileen Estatutuak lan harremantzat hartzen du, hau da, lan harreman berezizat, familiaren etxeko zerbitzuaren harremana, 2.1.b) artikuluan ezarritzen denez; gainera, honako hauek berariaz salbuesten ditu LEko 1.3.e) artikulua arauturiko eremutik: "*familiako lanak, horiek egiten dituztenak soldatapekoak direla frogatu ezean. Familiakoak izango dira, ondore hauetarako, enpresaburuarekin bizi direnean, ezkontidea, ondorengoak, aurrekoak eta gainerako ahaide guztiak, bigarren gradura arteko (berori ere barne) odolkidetasuna edo kидetasuna dutenak, eta adopziokoak ere bai*".

Arauzko bi xedapen horietan ezarritakoaren konbinazio batek agerian jartzen duenez, 2346/1969 Dekretuko 3.1.a) artikulua arauketa (ahaideak etxeko langileen araubide bereziaren aplikaziotik kanpo uzteari buruzkoa) ez da *iuris et de iure* ustea, *iuris tantum* ustea baizik, eta aurkako frogara onartzen du. Indargabeturik dagoela jo behar da; izan ere, bestela, Langileen Estatutuari buruzko Legeak bere arlotzat arauturikoaren aurkakoa izango litzateke, eta, gainera, Gizarte Segurantzaren Legeko 7.2 artikulutik ere ateratzen da; artikulua hori Gizarte Segurantzako Sistema osoari aplikatu ahal zaio, lege horretako I. tituluan jasota baitago; titulu horrek Gizarte Segurantzaren Sistemako Arau Orokorrak jasotzen ditu. Konstituzio Auzitegiak maiatzaren 6an emandako 92/1991 epaian eta otsailaren 16an emandako 49/1994 epaian oinarritzen gara, eta horiek berretsi egiten zuten tesi hau.

Gure ustez, beraz, 2346/1969 Dekretuko 3.1 a) artikulua interpretatzean eta aplikatzean ezin da esan bigarren graduko ezein ahaide (kasu honetan, erreklamazioaren ahizpa) ezin dela egon etxeko zerbitzuaren gizarte segurantzako araubide berezian, eta aukera eman behar zaio benetan soldatapeko langilea dela frogatzeko. Horri dagokionez, Eusko Jaurlaritzak 2346/1969 Dekretuko 3.1 a) artikuluari buruz egiten

duen interpretazioan, kasu honetan, bigarren mailako ahaidetasuna baino ez da aintzat hartzen (*iuris et de iure* ustea), eta kanpoan uztea ez da beste ezein gauza gehigarritan oinarritzen; adibidez, erreklamaziogilearen ahizpa soldatapeko langilea ez izatea eta azken horrekin eta berorren ardurapean bizitzea. Interpretazio horrek *de iure* eta *de facto* eran salbuesten du *iuris tantum* ustea, arlo hori orain arautzen duen legezko eta arauzko dispositiboak, Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziak, bermatzen duena.

Aldiz, gehiegikerien edo iruzurren beldurrak justifikatu egin dezake familiako kide batzuk gizarte segurantzaren araubide berezitik kanpo uztea, eta hori indargabetu egin daiteke, baldintza batzuk betetzean edo biltzean gauzaturiko aurkako frogaren bidez, baldin eta baldintza horiek langilea soldatapeko langilea dela egiaztatzen badute. Baldintza horietariko batzuk, berriz, aurreko paragrafoetan aipaturiko erabaki judizialeetatik ondorioztatzen dira; adibidez, enplegatzailearekin ez bizitzea. Horixe da kexa aurkeztu duen pertsonaren ahizparen kasua; izan ere, aurkezturiko dokumentaziotik ondorioztatzen denez, ahizpak soldatapeko lana egiten du (kexaren sustatzaileak etxeko langileen gizarte segurantzako araubide bereziko alta aurkeztu du, eta, bertan, alabaren zaintzailea langile finkoa dela agertzen da; Gizarte Segurantzako kuotak ordaintzearen ziurtagiria eta lan-kontratua ere aurkeztu ditu), eta ez da enplegatzailearekin bizi (hori enplegatzailearen erroldatze ziurtagiri gaurkotuaren bidez egiaztatu ahal da, bertan haren etxean bizi diren pertsona guztien zerrenda ageri baita).

Gure iritziz, gainera, kontuan hartu beharrekoa zen, nahitaez, pertsona hori adingabe bat zaintzeko kontratatu zutela. Nabardura horren alderdi bereizgarriak, gure ustez, arreta berezia merezi du. Amaren eta aitaren kezka nagusia, haurra eduki ondoren, hori ahalik eta ondoen zaintzea eta arretarik handiena eskaintzea denez, ama berriro laneratzean derrigorrezkoa da gurasoak ez daudenean funtzio horiek beteko dituen pertsona bat aurkitzea. Egoera horretan, *bona fides* izenekoa eskatzeak oraindik ere garrantzi handiagoa hartzen du, ezinbestekoa baita kontraturiko pertsonak konfiantza ahalik eta handiena ematea. Beraz, langileak zenbat eta konfiantza handiagoa eman, hainbat eta handiagoa izango da gurasoek lanbidea eta familia bateratzearen kalitatea.

Emandako erantzunean, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Gaietako Sailak aditzera eman zigun ados zegoela erakunde honek emandako arrazoibideekin: lanbidea eta familiako bizitza bateratzeko neurriak arautzeri buruzko uztailaren 17ko 118/2007 Dekretuko 33.3 artikulua Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziaren arabera interpretatu behar da, baita Estatuan arlo honetan indarrean dagoen legezko eta arauzko dispositiboaren arabera ere; horrenbestez, Euskadiko 118/2007 Dekretuko 33. artikuluko hirugarren atalean jasotako laguntza salbuespena (ezkontidea, izatezko bikotekidea, aurrekoak, ondorengoak edo albokoak –onuradunaren lehenengo edo bigarren graduko odolkidetasuna, kидetasuna edo adopzioa– kontratatzeari buruzkoa) zuzenbidean *iuris tantum* ustetzat hartzen dena baino ezin da izan, eta, beraz, aurkako frogara onartzen du.

Kexa aurkeztu duen pertsonak salaturiko egoerarako zuzeneko ondorioa, bestalde, hau da: edozein bide erabiliz, ahizpa haren zerbitzuan kontrataturik zegoela (alabaren zaintzailatzat) frogatu ahal izango duela, eta, beraz, Euskadiko dekretu horretan aipaturiko laguntzak jaso ahal izango dituela. Horretarako, Jaurlaritzak eskabidea egin zigun, guk interesdunari Lan eta Gizarte Gaietako Sailean formalizaturiko eskabidea egin zezan eskatzeko, ahizpa alabaren zaintzailatzat benetan kontrataturik zuela egiaztatzeko, eta, horrela, aipaturiko arauan adierazitako laguntza jasotzeko. Halaber, sail horrek jakinarazi digunaren arabera, aurrerantzean interpretazio horixe egingo da arauzko manu eztabaidagarriari buruz. Horrek, gure ustez, guztiz aldatu du aruaren interpretazioa; izan ere, etorkizunean seme-alabak zaintzeko familiakoren bat kontratatuta ere, dekretu horretan ezarritako laguntzak jaso ahal izango dira.

- **Lanbidea eta familiako bizitza bateratzeko neurriak arautu dituen 118/2007 Dekretua ikuskatzea**

Lanbidea eta familiako bizitza bateratzeko neurriak arautu dituen uztailaren 17ko 118/2007 Dekretuaren aplikazioari buruzko beste kexa asko jaso dira; horiek, gure iritzian, agerian jartzen dute arau horren aplikazioan arazo eta akats tekniko asko sortzen direla. Horrela, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailari jakitera eman diogu premiazkoa dela arau hori gizarte eskarrietara egokitzea eta haren edukiak ekita-teari nahiz justiziarri estuago lotutako irizpideen arabera ikuskatzea. Laster, arau hori sakon ikuskatuko da, hori egiteko ardura duen sailak berariaz jakinarazi digunez. Erakunde honek, prozesuan, mantendu egingo ditu azken urteotan aipaturiko aruaren aplikazioan sortu diren alderdi anitzei eta ugariei buruz (hiritarren kexa asko eragin dituztenak) harturiko erabakiak eta emandako iritziak.

V. Berdintasunaren arloko legeriaren garapenak eta aplikazioak duten egoeraren jarraipen orokorra

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea promulgatu ondoren, erakunde honen ustez, komenigarria da, urtero, arau horren garapenak eta aplikazioak duten egoeraren jarraipena egitea; izan ere, uste dugu funtsezko tresna dela emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna benetan ezartzeko, gizartearen barruko arlo guztietan. Horretarako, honako alderdi hauek gaur egun duten egoera jakin nahi izan dugu:

- 1. Lege horren garapenaren egoera, generoaren araberako eraginaren ebaluazioari dagokionez, baita 2007ko otsailaren 13an helburu horrexekin onetsitako jarraibideen esparruan egindako eraginaren ebaluazio kopuruari eta motei dagokienez ere**

Horri buruz, Emakundek honako informazio hau eman digu:

Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko eta desberdintasunak ezabatzeko neurriak jasotzeko Jarraibideak onetsi dituen otsailaren 14ko 51/2007 Ebazpena argitaratu denetik 2009ko abenduaren 31ra arte, Emakundera generoaren araberako eraginari buruzko 253 txosten bidali dira, horiei buruzko txostena eskatzeko; txosten horiek beste horrenbeste arau proiektu eta administrazio egintzei buruzkoak izan dira. Horiek honela bananduta daude, urteak eta lerruna aintzat hartuta:

	Legeak	Dekretuak	Aginduak	Ebazpenak	Guztira
2007	6	25	12	1	44
2008	19	46	51	2	118
2009	3	49	35	4	91
GUZTIRA	28	120	98	7	253

2009an, generoaren araberako eraginari buruzko txostenen bolumena 2008koa baino txikiagoa izan da. Hori, hala eta guztiz ere, legealdi berria hastearen eraginezko arau sortze txikiagoaren ondoriozkoa izan daiteke. Nolanahi ere, Emakunde positiboki baloratzen du Jaurlaritzako sailak egiten ari diren ahalegina, jarraibideetan ezarritakoa betetzeko egiten ari direna; batez ere, kontuan hartuta halako neurriak berritzaileak direla eta, gainera, nolabaiteko espezializazio maila behar dutela; halaber, aintzat hartu behar da, orainsu, Eusko Jaurlaritzako sailetan berdintasun politikak sustatzeko eta koordinatzeko ardura duten administrazio unitateak sortu direla, eta horien helburu nagusietariko bat, hain zuzen ere, generoaren araberako eraginari buruzko txostenak egitean aholkua ematea dela.

Hain zuzen ere, jarraibideak eraginkortasunez eta ondo ezartzeko, esan behar da HAEEK, Emakunderekin lankidetzan, Administrazio Nagusiaren eta horren erakunde autonomoen Berdintasunean Trebatzeko 2008-2018ko Planaren esparruan, "Generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa" ikastaroa eman duela 2009an; 20 orduko ikastaroa izan da, arauak egiten parte hartzen duten teknikariei zuzendutakoa, eta Jaurlaritzako sail guztietan berdintasun unitateetan lan egiten duten teknikariei ere zuzenduta egon da. Ikastaroan 22 pertsonak hartu zuten parte.

2. Eusko Jaurlaritzak egitura organoetan eta lanpostuetan egindako egokitzapenaren oraingo egoera (4/2005 Legeko Hirugarren Xedapen Gehigarrian ezarritako egokitzapena)

Horri dagokionez, Emakundek jakinarazi digunaren arabera, 4/2005 Legeko Hirugarren Xedapen Gehigarriko laugarren paragrafoa betetzeko, Jaurlaritzan eragintzepean dauden sailek informazio gaurkotuagoa edukitzearen kalterik gabe, aditzera eman behar da euren egitura organikoaren dekretuetan 4/2005 Legean eta Eusko

Jaurlaritzak onetsitako berdintasunerako planean ezarritakoa betearaztea sustatzeko, koordinatzeko eta horretan laguntzeko organo eskudunaren egitura organikoa zehaztu duten sailak honako hauek direla:

- a. Lehendakaritza: urriaren 3ko 1071/2006 Dekretua (8.h art.), urtarrilaren 12ko 11/2010 Dekretuaren bidez indargabetuta (9.h art.).
- b. Herrizaingoa: abuztuaren 28ko 4711/2009 Dekretua (14.9 art.).
- c. Ekonomia eta Ogasuna: urriaren 20ko 5681/2009 Dekretua (4.3.c art.).
- d. Justizia eta Herri Administrazioa: abuztuaren 28ko 4721/2009 Dekretua (7.9 art.).
- e. Etxebizitza, Herri Lanak eta Garraioak: azaroaren 24ko 6071/2009 Dekretua (8.1. p art.).
- f. Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoa: irailaren 22ko 5141/2009 Dekretua (5.1. h art.).
- g. Lana eta Gizarte Gaiak: urriaren 6ko 5381/2009 Dekretua (6. h art.).
- h. Osasuna eta Kontsumoa: azaroaren 3ko 5791/2009 Dekretua (14.1. w art.).
- i. Ingurumena, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza: abenduaren 22ko 6291/2009 Dekretua (art. 4.1).
- j. Kultura: otsailaren 14ko 251/2006 Dekretua (5.2. i art.).

Bestalde, 4/2005 Legeko Hirugarren Xedapen Gehigarriko bigarren paragrafoa betetzeko, esan behar da, Emakundek bidalitako informazioaren arabera, Eusko Jaurlaritzako sailletako eta erakunde autonomoetako lanpostuen zerrendak eta onetsi dituen Dekretua aldatu duten 134/2008, 168/2008, 179/2008, 196/2008, 10/2009 eta 561/2009 dekretuak direla bide, honako sail hauetan "Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren Arloko Programen Teknikaria" lanpostua sortu dela: Herrizaingoa; Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa; Ekonomia eta Ogasuna; Justizia eta Herri Administrazioa; Etxebizitza, Herri Lanak eta Garraioak; Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoa; Enplegua eta Gizarte Gaiak; Osasuna eta Kontsumoa; Ingurumena, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza; eta Kultura. Gainera, lanpostu guztiak dagoeneko hornituta daude, Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa sailekoa izan ezik.

3. Legeko 27. artikuluan jasotako aurreikuspenaren garapenaren oraingo egoera; aurreikuspen hori publikitate kontrolatu eta kode etikoak bermatzen dituen organoari buruzkoa da (komunikabideek emitituriko edukiei buruzko kodeak). Begirak komunikabideetan emititzen diren publikitate edukiei buruzko kode etikoa egiteko prozesuaren egoera

Begira Publikitate Batzorde Ez Sexistari dagokionez, Emakundek adierazi digunaren arabera, oraindik amaitu gabe dago komunikabideetan emititzen diren publikitate edukiei buruzko kode etikoa lantzeko prozesua. Prozesu hori 2008an hasi zen, 4/2005 Legeko 27. artikulua betetzeko, Batzordeak 2007ko azaroaren 9an onetsitako lan planaren arabera. Arartekoaren ustez, garrantzitsua da kode etikoa lantzeko prozesu hori azkartzea, kode hori ezinbestekoa baita publikitatearen arloko

jarduketa eta iritzi parametrotzat, batez ere aintzat hartuta EAEko komunikabide publiko guztiek sistematikoki emititzen dutela publizitatea.

4. Legeko 15. artikuluan aipaturiko berdintasunerako planen edo programen promulgazioaren oraingo egoera, EAEko herri administrazioetan. 4/2005 Legeko 15.2 artikuluan aipaturiko EAEko Berdintasunerako Planaren garapen egoera (legealdiko agiri programatikoen eta urteroko programen bidez)

Emakundek jakinarazi digunez, EAEko herri administrazioak 4/2005 Legeko 15.4 artikuluan aipaturiko berdintasunerako planak eta programak promulgatzearen oraingo egoerari dagokionez, 2009an 19 udal plan, foru plan bat (Bizkaiko Foru Aldundia) eta bi plan mankomunatu (Busturialde eta Enkarterri) informatu dira; hor-taz, gaur egun, hiru foru aldundiek ez ezik 99 udalerrik ere emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana dute, eta udalerrri horietan Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria osoaren %85 bizi da.

Halaber, Eusko Jaurlaritzako sail guztiek, urtero, euren legealdiko agiri programa-tikoetan ezarritakoaren arabera, IV. Plana garatzeko programa agiriak onetsi dituzte, 4/2005 Legeko 15.2 artikuluan ezarritakoa betetzeko. Era berean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail arteko Batzordeak, urtero, sailek egindako ekintzen jarraipen txostena argitaratu du, programako agiri horiek betearazteko.

Gainera, 2009an Emakundek emakumeen eta gizonen berdintasunerako V. Plana egin du, eta Eusko Jaurlaritzak 2010eko martxorako onestea dago aurreikusita. Onetsi ondoren, Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzak bertan ezarritako jarraibideak zehaztuko ditu, urteroko eta legealdiko agiri programatikoen bitartez.

Emakundek balorazio positiboa egin du (Arartekoa bat dator horrekin), legeak arlo honetan ezarritakoa betetzean izan diren aurrerakuntzei buruz; hala ere, onartu egin behar da oraindik ere lan handia dagoela egiteko, udalerririk txikienek eta ekonomia nahiz kudeaketa gaitasunik txikiena dutenek berdintasunerako plana edukitzeko, bai banaka edo bai beste udalerrri batzuekin elkartuta. Horri dagokionez, Emakun-dek eta hiru foru aldundiek diru-laguntzak ematen dituzte udalerrri mailako diagnos-tikoak eta planak egiteko.

5. Jaurlaritzako Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzen-dariak ekainaren 2an emandako 6/2008 Ebazpenaren aplikazioaren oraingo egoera; ebazpen horren bidez, Gobernu Kontseiluak honako honi buruz har-turiko Erabakia argitaratzea erabaki da: "Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren eta horren sektore publikoaren kontratazioan gizarte na-hiz ingurumen irizpideak eta beste politika publiko batzuk jasotzea"

Emakundek jakinarazi digunaren arabera, une honetan, oraindik ikertzeko fa-sean dago, EAEko Administrazioaren eta horren sektore publikoa osatzen duten

erakundeen kontratazioan ebaluazioa (Emakundek egin beharrekoa) nola egingo den, emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulei eta generoko ikuspegia jasotzeari buruz; generoko ikuspegi hori Jaurlaritzako Idazkaritzako eta Legebiltzarreko Harremanetarako zuzendariaren ekainaren 2ko 6/2008 Ebazpenean ezarritako dago; horren bitartez, argitaratu egingo da Gobernu Kontseiluak honako honi buruz harturiko erabakia: "Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren eta horren sektore publikoaren kontratazioan gizarte nahiz ingurumen irizpideak eta beste politika publiko batzuk jasotzea".

Hala ere, adierazi digutenaren arabera, erabaki hori hartu baino lehen, Emakundek herri administrazioen kontratazioan berdintasun irizpideak jasotzearen jarraipenerako sistema bat zuen aurreikusita. Horrela, 4/2005 Legearen bitarteko ebaluazioaren emaitzek (erakunde horrek 2009an Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetzan egindako ebaluazioa) agerian jartzen dutenez, 2005arekiko konparazioa eginda, ikusten da erakunde publikoek berdintasun irizpideak jaso dituztela administrazio kontratazioan, honako lauki honetan ikusten denez:

Administrazioaren kontratazioan berdintasun irizpideak kontuan hartzea	2005 (K=55)	2008 (K=100)
BAI	6 (%10,9)	23 (%23)
EZ	49 (%89,1)	69 (%69)

Kontratazio horien erakunde sustatzaileen administrazio mailari dagokionez, 20 Administrazio Nagusikoak dira, 1 Foru Administrazioa eta 2 Tokiko Administrazioak.

6. 4/2005 Legearen garapenari buruzko beste alderdi batzuk

Azkenik, Emakundek esan digunez, 4/2005 Legeko 51.2 artikuluan ezarritakoa betetzeko, Emakundek osasun arloari eta arreta psikologikoko zerbitzuei buruzko txostena egin eta bidali du, 2009an, Eusko Jaurlaritzara; bertan, Euskadin emakumeen aurkako indarkeriaren arloan dauden programen eta baliabideen eraginkortasuna eta irismena ebaluatu dira.

II.2

BERARIAZKO ARRETA ADINEKOEI

2. BERARIAZKO ARRETA ADINEKOEI

Arartekoak **arreta berezia** ematen dio halako pertsonen egoerari, pertsona horiek, euren ezaugarrien eta beharrezanen ondorioz, gainerako pertsonak baino zaurgarriagoak izan daitezkeelako.

Talde oso heterogeneoa eta gero eta ugariagoa da. Izan ere, EAEko biztanleriaren zehaztasak hazkunde nabaria izan du azken urteotan. Gaur egun, Euskadiko biztanleriaren %20 baino gehiago 65 urtetik gorakoa da (1991n %12,4). Gainera, 80 urtetik gorako pertsona kopurua bikoiztu egin da 20 urtetan.

Adinekoak ekarpen garrantzitsua egiten dute gizarteko zenbait arlotan; esate baterako, ezagupenen eta esperientziaren transmisioan, prestakuntzan, sormenean, etab.; halaber, eginkizun garrantzitsua dute familiakoen zaintzan eta laguntzan (haurrak, ilobak, etxetik berandu irteten diren gazteak eta adin oso handiko pertsonak). Hori guztia aintzat hartu behar da adinekoen parte-hartzea sustatzen duten politiken garapenean; politika horiek, gainbeheratzen barik, aukeraz beteriko bizi etapatzen erakutsi behar dute zahartzarora; halako politikak, gainera, onartu egin behar dute adinekoek lagundu egin dutela gizartea aldatzen, eta gizartean esku hartzeko eta solaskide izateko gaitasuna eta protagonismoa eman behar dizkiete adinekoari, merezi dute eta.

Horrenbestez, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko Herritarren Partaidetzako Zuzendaritzak aurreko legegintzaldian sustaturiko **Adinekoek parte hartzeko plan integrala** sortzea bezalako ekimenak, gure ustez, guztiz komenigarriak dira. Plana egiteko prozesua, dirudienez, oso aurreratuta dago, eta 2010erako amaituta egon daitekeela uste dugu; urte horretan, gaiaren jarraipen egokia egingo dugu.

Osasun eta ongizate mailen hobekuntza, gaitasun ekonomiko egokia, prestakuntza eta ikaskuntza iraunkorrak, adinekoaren gizarte harremanen kalitatea edo IKTak eskuratzeko aukera, izatez ere, adinekoek gizartean benetan parte hartzea eragiten duten faktore nagusiak dira.

Beraz, adinekoen parte hartzea euskarritzen duen zutabe nagusienetarikoa bat **diru-sarrera duinak bermatzea** da, baita oinarritzko bizi baldintzak edukitzea ere; botere publikoen arreta helburu horretara bideratu behar da. Hala eta guztiz ere, adineko askok ez dute baliabide ekonomiko nahikorik bizitza duina eta kalitatezkoa garatzeko. Kotizaziopeko edo kotizazio gabeko pentsioetako diru-sarrerak ez dute bermatzen gutxienezko egokirik. Beraz, diru-sarrerak beste bide batzuk erabili osatu behar dira; esate baterako, diru-sarrerak bermatzeko eta gizarte ongizateko dispositiboak.

2009an egoera hori hobetzeko lagungarriak izan daitezkeen zenbait jarduketara egin dira. Honako hauek nabarmenduko ditugu:

- Pentsioduna diru-sarrerak bermatzen dituen errentaren titulartzat hartzea (pentsioak osatzeko modalitatean), etxean diru-sarrerak dituzten beste pertsona batzuk egon arren.

- Prestazio horren gehieneko zenbatekoa lanbidearteko gutxienezko soldataren %100era artekoa izan daiteke, eta %125era artekoa, bi pertsonako bizikidetasun unitateetarako.
- Azaroaren 13ko 3113/2009 PRE Aginduaren bitartez, errenten zenbaketatik salbuesten diren, kotizaziorik gabeko pentsioen ondoreetarako, abenduaren 14ko 39/2006 Legearen (Mendetasun Egoeran dauden Pertsonen Arreta eta Autonomia Pertsonala Sustatzeari buruzkoa) babesean emandako prestazio ekonomikoak eta espezieetan emandakoak.
- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan, hiru lurralde historikoetan, lege horretan jasotako prestazio ekonomikoak (familia zaintzeko prestazio ekonomikoak, langileriarri laguntzeko prestazioa eta zerbitzuari loturiko prestazioa) salbuetsitako errentatzat hartzen dira.
- Foru eremuan, araudi fiskalak mendetasun kontzeptua jaso du, kontzeptu hori, modu automatikoan, ezgaitasun ehuneko batzuei lotuta; horrela, mendetasun egoera onartua duen pertsonak ez du zertan joan berriro balorazio auzitegira. Gai hau zehatzago aztertuta dago kapitulu honetan ezgaituei buruz dagoen artikuluan.

Hala ere, oraindik ere kexak daude, aipatzen ari garen pentsioak nahiko ez izatean oinarritzen direnak.

2009an **Bizkaiko Lurralde Historikoko Adinekoen Behatokia** sortu da, Adinekoen Kontseiluak proposatuta, talde horren ekonomia, gizarte eta osasun egoera sakonago aztertzeko, kontrastaturiko datuak eta adierazleak erabiliz, gizarte arlo horretan garatu beharreko politika publikoak orientatzeko (urtarrilaren 13ko 1/2009 Foru Dekretua).

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari atxikita dago, eta, bertako kideen artean, sail horretako arduradunak ez ezik, honako hauetako kideak daude: Osasun Saila, Euskadiko Udalen Elkarte (EUDEL), eta Euskadiko Geriatria eta Gerontologia Elkarte. Elkarte horien jarduera adinekoen merkataritzako erakunde publikoen eta horiei zerbitzua ematen dioten irabazi asmorik gabeko erakundeen arloan garatzen da.

Kideen aginteak lau urteko iraupena izango du, eta, aurrekontu zuzkidura espezifikorik gabe sortu arren, Gizarte Ekintza Sailak beharreko baliabideak hornituko ditu behatoki horrek bere funtzioak betetzeko.

2009ko azaroaren 11n, Eusko Legebiltzarrak **Legekoa ez den 56/2009 Proposamena** onetsi du; horren bidez, Eusko Jaurlaritzari eskabidea egin dio, 2010ean **ikerketa bat egiteko, eta, horrela, EAEko adinekoen beharrianak eta eskariak zein diren jakiteko**. Ikerketa egiteko adierazle batzuk proposatu ditu; adibidez, osasuna, etxebizitzaren egokitzapena eta irisgarritasuna, diru-sarrerak, kontsumoa, ongizate materiala, parte-hartze politikoa edo norberaren bizi kalitateari buruzko iritzia. Ganberaren helburua lorturiko informazioak zeharkako politikak eta erakundeen arteko jarduketak eragitea da, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea garatzean.

Proposamen honen helburua adinekoek balizko mendetasun egoeraren aurreko fasean zer egoera duten jakitea da; egindako kalkuluaren arabera, horrek 18 urteko iraupena izan dezake, aintzat hartuta orain arte egindako azterketak adinekoen egoitzako eta egoitzatik kanpoko arretan oinarritu direla, batez ere.

Izan ere, joan den hamarkadan erakunde honek bi txosten berezi egin zituen, bata adinekoen egoitza barruko arretari (1994) eta bestea egoitzatik kanpoko arretari (1996) buruzkoa. 2005ean beste txosten bat egin zen: *EAEko adinekoei emandako arreta, etxez etxeko laguntza zerbitzua, eguneko zentroak eta egoitzak*.

Harrezkero, egindako gomendioak betetzearen jarraipena egin da, eta hori orain arteko txostenetan jasota dago.

Ondoren, aurten egindako jarduketarik garrantzitsuenak aurkeztuko ditugu:

A) Adinekoen eskubideak eta tratu txarraren prebentzioa

2009an argitaraturiko **ikerket**a hau arartekoak Matia Fundazioko pertsona batzuei beka ematearen ondoriozkoa da; fundazio horrek onarpen handiko ibilbidea dauka adinekoen arretaren arloan.

Lan honetan, adinekoen eskubideei buruzko tresna nagusiak daude jasota, baita arlo publikoan eta pribatuan ematen zaien tratuari buruzko datu asko ere.

Adinekoei (autonomoak eta mendeko pertsonak), narriadura kognitiboa duten adinekoen familiakoei eta langileei egindako inkesten bitartez, hauxe jakin ahal izan dugu adinekoei buruz: haien eskubideei eta arretarako baliabideei buruz zer dakiten, zerbitzuak zein neurritan lor ditzaketen, jasotzako tratuari zer irizten dioten, komunikabideetako tratamenduari buruz zer iritzi duten, adinaren ziozko bereizkeriarik duten ala ez, haien ustez tratu txarra zer den, etab.

Ikerketan ageri den ereduan (arreta eta esku-hartzea), adinekoen eskubideen errespetua eta segurtasunaren bermea funtsezkotzat hartzen dira bizi kalitate ona eskaintzeko. Gure iritziz, eredu hori gidari ona izan daiteke gizarte osorako eta egunero adinekoekin dabilzantzat.

Adineko batzuk jasaten duten tratu desagokia eta, batzuetan, tratu txarra ez da errealitate oso ezaguna, eta jarduketa anitzak behar ditu zenbait arlotan; esate baterako, gizarte sensibilizazioa, langileen prestakuntza, eraginpeko pertsonen eta horien zaintzaileen ahalduntzea, prebentzioa eta kontrola, kalitate irizpideen aplikazioa, zerbitzuen ebaluazioa, etab.

Adin oso handiko pertsonak eta mendeko pertsonak, gehienbat bi ezaugarri horiek biltzen direnean, babesgabezia handia dute gizartean.

Adinekoek eta horien familiakoek ez dakite euren eskubideak zein diren; gainera, baliabi-deak lortzeko eta eskubideak garatzeko oztopo handiak dituzte.

Adinekoentzat, euren inguru fisikoan eta afektiboan gelditzea, dirudienez, euren segurtasunaren giltzarrietariko bat da. Ikerketaren bidez, zaintzaile askoren oinazea, frustrazioa eta ezina ikusten ditugu, adinekoen zaintzan hartzen duten neurri gabeko zamaren eraginezkoa.

Ikerketak tratu jakin bat egokia edo desegokia den baloratzeko irizpideak eskaintzen dizkigu, baita tratu txarrak, tratu desegokiak, tratu arduragabeak edo arreta ezak detektatzeko tresnak ere. Era berean, arriskuko faktoreak identifikatzeko erremintak ere eskaintzen dizkigu.

Eragina edozein izanik ere, adineko bati tratu txarra ematea, errespetuz edo merezi duen errespetuz ez tratatzea, arreta batzuk barik uztea edo bere bizitza erabakitzen edo kudeatzen ez uztea, besteak beste, gertaera oso larriak dira, eta esku-hartze ausartak behar dituzte tratu desegokiaren detekzioaren, prebentzioaren, ikuskapenaren eta kontrolaren, zehapenaren eta kudeaketaren arloan.

Ikerketan, adinekoen eskubideak errespetatzeko zeharkako estrategia sortzea proposatzen da, inplikaturiko politiketan eta sistemetan haien segurtasuna bermatzeko (gizarte zerbitzuen sistema, osasun eta hezkuntza sistema, autonomiaren sustapena, mendetasunaren arreta, hiri antolamendua, mugikortasuna, lana, etab.).

2009ko apirilaren 20an, Arabako Batzar Nagusiek **Adinekoen Tratu Txarraren aurkako Plan Integrala** abiatzeko proposamena egin zuten. Mozio horren bidez, Aldundiari, Eusko Jaurlaritzarekin koordinatuta, Araban adinekoei emandako tratu txarren errealitatea (adinekoen bizitzaren arlo guztietan) baloratzeko ikerketa diagnostikoa egiteko eskatu zioten. Ikerketa hori oinarrizkoa izango da aipaturiko plana martxan jartzeko.

Halaber, Bizkaiko Foru Aldundiari (BFA) prebentzio protokoloak eta jarduketak gidak sortzeko eskabidea egin diote, halako kasuak detektatzeko eta esku hartu ahal izateko. BFAk adinekoei informazioa eman behar diela nabarmendu dute; gainera, biztanle guztiak sensibilizatzeko programak abiatu, adinekoen zaintzan eta arretan esku hartzen dutenen prestakuntza espezifikoan eta iraunkorrean aurrerapausoak eman, eta, azkenik, adinekoei eta horien zaintzaileei baliabide nahiko eta egokiak zuzkitu behar zaizkiela esan dute Batzar Nagusiek.

B) Adinekoen taldean dauden Mendetasun Egoerako Pertsonen Autonomia Pertsonala eta Arreta Sustatzeari buruzko 39/2006 Legearen eragina (MAAL)

Arau honen jasotzaile nagusia adinekoen taldea da. Izan ere, mendeko pertsona guztietatik, %70, gutxi gorabehera, 65 urtetik gorakoa da.

MAALren aplikazioari eta garapenari buruzko txosten berezia, segurutik, 2010ean argitaratuko du erakunde honek. Hori dela eta, informazioa eskatu diegu gizarte erakundeei, eta elkarte eta erakunde ofizialei; batzuek gogoetak eta iradokizunak jakinarazi dizkigute.

Adinekoen taldeari dagokionez, txosten hau amaitzeko unean, honako erakunde edo elkarte hauek emandako informazioa izan dugu:

- Bizkaiko Adineko Pertsonen Kontseilua.
- HARTU-EMANAK, Adinekoen ikaskuntza iraunkorrerako eta gizartean parte hartze-ko elkarte.
- Euskadiko Alzheimerdun Gaixoen Familiakoen Elkarten Federazioa (AEF-FAE) eta horren barruko elkarteak.
- Arabako Mendeko Adinekoen Familia Zaintzaileen Elkarte, "ASCUDEAN".

Foru aldundiek datu horiei buruz emandako informazio zabala eta MAAL garatzen duen araudiaren aplikazio praktikoa lehen aipaturiko ikerketan aztertuko dira.

1. Bizkaiko Adinekoen Kontseiluaren balorazioa

Kontseilua kide anitzeko aholkularitza eta kontsulta organoa da, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari atxikitakoa; Kontseiluak lege honen aplikazioari eta garapenari buruzko balorazioa jakinarazi digu, eta, gainera, Mendetasunaren Autonomiarako eta Arretarako Sistema (MAAS) hobetzeko proposamen batzuk egin dizkigu, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean ezarritako Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema garatzearen testuinguruan:

Ondoren, horren balorazioaren eduki nagusia aztertuko dugu:

- Legea zalantzarik gabeko aurrerakuntza da gizarte politiketan, prestazioen eta zerbitzuen lorpena onartzen eta arautzen baitu, eskubide subjektibotzat.
- Araudia ezartzeko lehenengo pausoak bermatzeko baliabidean nahikotasunari buruzko aurreiazko azterketarik ez dagoenez, arazoak sortu dira langileen erabilgarritasunean eta prestakuntzan, sartzeko prozedura zentzuzko epeetan betearaziko dela bermatzeko.
- Egituraren plangintza urria detektatu da, sistema iraunkorra izateko, baita finantziario defizita ere, bai hau abian jartzeko eta bai horren ondorengo iraunkortasunerako.
- Hausnarketa sakona behar da, Euskadiko Gizarte Zerbitzuen Sistemaren iraunkortasunari eta finantziarioari buruz.
- Hasierako jakinarazpen estrategiak itxaropen handiak sortu zituen herritarren artean, sistema abiatzeko behar ziren gutxienezko baliabideak, irizpideak, tresnak eta prozedurak ezarri baino lehen.
- Prestazioak eta zerbitzuak lortzeko atzepena aipagarria da.
- Mendetasuna eta prestazioen eta zerbitzuen lorpena (gehienak lege hau onetsi baino lehenagokoak) baloratzeko prozedurak oraindik ere gehiago burokratizatu du

haien esleipena; gainera, kolapsoa sortu du oinarrizko eta bigarren mailako gizarte zerbitzuetan (balorazio eta diagnostikorako taldeen asetasuna, itxarote zerrendak,...). Oinarrizko gizarte zerbitzuen asetasunak baldintzatu egin du mendetasuna baloratzeko eskabidearekin batera doazen gizarte txostenen sorkuntza.

- Legeak MAAS ezartzen joateko jartzen duen epea (2007-2014) luzeegia da; bertan, prestazioak eta zerbitzuak jasotzeko eskubidearen eraginkortasuna apurka-apurka garatuko da, pertsonaren mendetasun mailaren eta graduaren arabera.
- MAAS lortzeko unibertsaltasuna praktikan ez dago bermatuta, arretaren gutxieñezko babes eta trinkotasun maila zehaztuei dagokienez izan ezik; izan ere, zerbitzu sarea ez dago guztiz ezarrita (hori dela eta, zerbitzuari loturiko prestazio ekonomikoa dago jasota, zerbitzua eskuratu ezin dutenentzat).
- Autonomia erkidegoen, lurralde historikoen eta udalerrien arteko desoreka handiak daude, prestazio eta zerbitzu eskuragarrien, horiek lortzeko baldintzen, arretaren edukiaren eta intentsitatearen, prestazioen eta zerbitzuen bateragarritasunaren edo finantziarioa ordaindu behar duten pertsonen parte-hartzearen arloan.
- Zerbitzuen eta prestazioen katalogoan laguntza izaera nabaria detektatu da.
- Legean ez da argitzen autonomiaren prebentzioaren eta sustapenaren arloan sustatu nahi diren ekimenen izaera (15. eta 21. artikulua).
- Arreta maila komun oso oinarrizkoa bermatzen du, prestazioek eta zerbitzuek autonomia erkidego, lurralde historiko eta udalerrri batzuetan lehendik zuten garapenari dagokienez. Horrela, Bizkaian, legeak aurreikusitako zerbitzuak eta laguntzak lehendik ezarrita zeuden, gaueko zentroen eta prestazio ekonomikoen kasuan izan ezik. Legea apurka-apurka ezartzearen eraginezko konpromisoek, orain arte, ez dute eragin Bizkaiko Foru aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren planetan jasotako helburuak gorantz aldatzerik, zerbitzu eta laguntza horiei dagokienez. Gainera, Euskadiko Gizarte Zerbitzuen Sistemako prestazioen eta zerbitzuen katalogoan eta Gizarte Ekintza Sailak garaturiko programetan, 39/2006 Legean ezarri gabeko mendetasunaren arretarako eta autonomia sustatzeko zerbitzuak daude jasota; esate baterako, zain-tzaileei laguntzeko zerbitzuak sortzea edo gizarte zerbitzuen arloko parte-hartzea eta gizarteratzea sustatzea.
- Mendetasuna Baloratzeko Baremoa (MBB) ez da egokitzen adimen mailako ezgaitasuna duten pertsonen errealitatea, ezta burutik gaixo dauden pertsonen errealitatea; tresnaren helburua, izan ere, eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko gaitasun funtzionala baloratzea da.
- Legea gizarte zerbitzuen sisteman oinarritzen da, koordinazio soziosanitarioa indartu beharra aipatu arren.
- Arrisku bi ikusten dira:
 - a) mendetasunaren nahiz autonomia sustatzearen eta gizarte zerbitzuen sistemaren arteko identifikazioa beste sistema batzuek halako beharrianekin duten konpromisoa murrizteko lagungarria izatea (adibidez, osasun sistema).
 - b) Gizarte zerbitzuen sistemaren ahaleginak mendetasunaren arretan eta autonomiaren sustapenean oinarritzea, sistema horrentzat berezkoak diren eta adinekoengan eragina duten beste beharrian batzuen arreta albo batera utziz.
- Legearen hasierako proiektua adinekoengana bideraturik zegoen; beraz, azkenean ez ditu jaso beste talde batzuen beharrian guztiak, eta, gainera, pertsona

autonomoentzat ere ez da baliozkoa (defizita dago autonomia sustatzeko zerbitzuak, prestazioak eta neurriak zehazteko orduan). Horrenbestez, ezin da mendeko pertsonen autonomia eta arreta sustatzeko lege integraltzat hartu.

- Legeak hirugarren sektorearen parte-hartze historikoa onartzen du, baita horrek herri administrazioekin gizarte zerbitzuak ematean izandako lankidetzara ere; baina laguntza informalarik ez dio tratamendu bera ematen.
- Etxez etxeko laguntza zerbitzua (ELZ) lortzeko orain dauden baldintzak ikusita, zerbitzu hori eskatu ahal duten pertsona askok ez dira zerbitzua eskatzera ausartzen.
- EAEn geriatriako espezialitatetik ez dagoela salatzen dute.
- Tokiko erakunde batzuk legea ezartzeko egutegia zorrotz aplikatzen ari dira, eta, beraz, I. graduako 2. mailan baloraturiko pertsonak, 2011ra arte, ez dute etxez etxeko laguntza zerbitzua (ELZ) jasotzeko eskubiderik izango. Halaber, arretaren intentsitatea 727/2007 EDan ezarritako gutxienekoetara egokitzen hasi dira (hilean 70-90 ordu II.2 gradurako; 55-70 III.1 gradurako; 40-55 II.2 gradurako, eta 30-40 II.1 gradurako).
- Familiako zaintzarako prestazioak (FZP) onartu egiten ditu emakume askok egiten dituzten zaintzako lanak, eta, gainera, Gizarte Segurantzaren horien afiliazioa, alta eta kotizazioa ahalbidetzen du. Prestazio horren emakida, salbuespenezko izaera eduki arren, orokortzen ari da, zerbitzuen kaltetan. Izan ere, eguneko zentroetan plazen eskaria urritu egin da.

Kontseiluak, adierazitako alderdiak aztertu ondoren, hobekuntza proposamen batzuk egin dizkigu:

- Prestazioak eta zerbitzuak lortzeko epeak laburtzea, baita balorazioa egiteko eta Banakako Arreta Plana eskuratzeko batez besteko aldia ere; lortzeko prozedura laburtzea (eskabidea BFAra *on line* heltzea, Gipuzkoan bezala) eta erabiltzaileei eskainitako informazioa eta orientazioa hobetzea.
- 12/2008 Legea aplikatzearen arloan, honako hauen arteko koherentzia bermatzea: Zorroko Dekretuaren (besteak beste, zerbitzuen eta prestazio ekonomikoen edukia ezarriko duen dekretua, baita horien zenbatekoak eta eskuratzeko baldintzak ere, baterako ordainketa ere barne), Gizarte Zerbitzuen mapa, EAEko gizarte zerbitzuen plan estrategikoa eta memoria ekonomikoa.
- Atsedenaldirik gabeko zerbitzua, foru erantzukizuneko, zaintzaileei laguntzeko zerbitzuarekin (udal erantzukizuneko) konektatzea.
- Zerbitzuak eta prestazioak konbinatuta erabiltzeko aukera aintzat hartzea, esku-hartzea pertsonen eta horien laguntza informaleko sarearen beharrezkoetara eta gaitasunetara egokitu ahal izateko. Horrela, esate baterako, mendetasun handiko egoeran dauden pertsonen kasuan, beharrezkoa izango litzateke ELZren eta beste prestazio edo zerbitzu batzuen arteko erabilera konbinatua sustatzea, halako pertsonentzat hileko gehienekoa (90 ordu) ere ez baita nahikoa; halaber, familiako zaintzarako prestazio ekonomikoa bateratu egin behar da etxez etxeko, eguneko gaueko eta atsedenaldirik gabeko laguntza zerbitzuak lortzeko aukerarekin (Arabian eta Gipuzkoan aukera horiek aintzat hartuta daude, kasuan kasuko murriztapenen bitartez).

- Gaur egun, Bizkaian, ahalegina mendetasun egoeran dauden pertsonen eta horien familien arreta bermatzeko oinarritzen da. Baina hori bezain beharrezkoa da mendetasuna aurreikustea eta autonomia sustatzea, lehen mailako (arreta telematikoa, ELZ, familia zaintzaileei laguntzeko zerbitzua) eta bigarren mailako (suspertze goiztiarra, atsedendia) arretarako zerbitzuak sustatuz. Era berean, ezinbestekoa da zahartze aktiboa eta adinekoek parte hartzea (gizartean) sustatzeko programak bultzatzea eta sortzea, beste arreta zerbitzu batzuekin lankidetzan: hezkuntza (bitzitza osoan zeharkako ikaskuntza), kultura (aisialdia, aisialdi aktiboaren sustapena, etab.).
- ELZren epe ertainerako eta luzerako bideragarritasuna bermatzeko aukera ematen duten formulak bilatzea.
- Eguneko zentroak, zenbait kasutan, gutxiegi erabilia daude, eta, beraz, komenigarria da laguntzako baliabide horien okupazio handiagoa bermatzeko formulak aztertzea (ordutegi malguagoak, egun erdiko aukera edo asteburuetako egonaldiak, baliabidearen egokitzapena, mendetasun arina edo moderatua duten pertsonen arretarako, zentroyen eskaintzaren banaketa lurralde osoan, etab.); bestela, eskaini beharreko plazen bolumen orokorra berriro aztertu behar da.
- Gaueko zentroyen edo zerbitzuen ezaugarriak argitzea, eta horien benetako beharri-zana aztertzea, ia ez baitago eskaririk. Gaur egun, bi esperientzia ezagutzen ditugu: bata Gasteizen, EULENek kudeaturiko titulartasun publikoko zentro batean, eta bestea Donostian, Matia Fundazioko Julián Rezola zentro gerontologikoan. Lagungarriak izan daitezke txandaka lan egiten duten zaintzaileentzat, baita demenziak izan eta egunaren amaieran eta gauean asaldu arazoak (gauetz noraezean ibiltzea, suminkortasuna, erasokortasuna edo aurkaritza, zaintzaileari dagokionez) dituzten pertsonen zaintzaileentzat; horrela, zaintzaileek atsedena hartu eta egunez ere zaintzako lanekin jarraitu ahal izango dute.
- Bizkaiko Foru Aldundiak, Gipuzkoakoak eta Arabakoak ez bezala, oraindik ez du arautu zerbitzuari loturiko prestazio ekonomikoa. Dirudienez, komenigarria da hori egitea, 39/2006 Legearen eta Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen arteko koherentzia bermatuz.
- Kontroleko neurriak ezartzea, FZPren erabilera desegokiak ekiditeko eta zainduaren nahiz zaintzailearen borondateari erantzun egokia emateko (zaintzailea zaintzak emateko eta, zenbait kasutan, aldian behingo ebaluazioak egiteko pertsona egokia dela egiaztatzeak aukera ematen duten irizpideak finkatzea). FZP ez da ordeko prestazioa izan behar, asetasun zioengatik edo lortzeko epeak gehiegi luzatzeagatik beharrezko baliabidea esleitu ezin denean.
- Langileak eta zaintzaileak prestatzeko eta gaitzeko neurriak sustatzea, 39/2006 Legeko 36. artikuluan ezarritakoak.
- Osasun Sailarekin protokolo bat ezartzea, lehen mailako arretako medikuek gaintontzeoentzat txostenak egingo dituztela bermatzeko, txostenok mendetasun egoerak baloratzeko beharrezkoak direnean.
- Esku-hartzearen aldian behingo jarraipena bermatzea. Jarraipen eta kontrol sistematik ezartzea.
- Balorazioko (MBB) eta orientazioko (BAP) tresnak 12/2008 Legean ezarritakoekin konektatzea: gizarte fitxa eta arreta plan pertsonalizatua.

- Koordinazio soziosanitarioan aurrerapausoak ematen jarraitzea, baterako erantzunak hobetzeko: osasun sistemak eta gizarte zerbitzuen sistemak aurrerapausoak eman dituzte, mendetasun egoerarako erantzun egokiak artikulatzeko moduari buruzko hausnarketaren arloan, bi sistemen epe ertainerako eta luzerako iraunkortasuna bermatzeko. Premiazkoa da, horrenbestez, zenbait arazo ondo aztertzea; esate baterako, gaixotasun kronikoen arreta, mendetasun egoeren prebentzioa eta bizi baldintza osasuntsuen sustapena, erabiltzailearen inplikazioa edo lehen mailako arretaren eta ospitaleko arretaren arteko koordinazioaren hobekuntza.

2. Gizartean parte hartzeko elkaturiko adinekoak

Sarreran adinekoek gizartean egindako ekarpenari buruz azaldutakoari eta pertsona horiek gizartean parte-hartze aktiboa eduki behar izateari dagokionez, 2002an sorturiko HARTU-EMANAK elkarte (adinekoek ikaskuntza iraunkorrera izateko eta gizartean parte hartzeko sortu zen elkarte) lanean ari da adinekoek gizartean parte-hartze aktiboa izateko, ikaskuntza iraunkorreko proiektuak garatzeko eta kideek euren esperientziak jakinarazteko, bai gizarte osoari eta bai, hain zuzen ere, belaunaldi berriei.

2006an "Adinekoak eta Gizarte Zerbitzuak" izeneko lan taldea sortu zuen; bertan, besteak beste, MAALri loturiko alderdiak aztertzen dira.

Aipaturiko araudia ezartzeari buruz egiten duten balorazioa jakin dugu; balorazio hori labur-labur azalduko dugu, lehen aipatu dugun txostenean azterketa zehatzagoa egitearen kalterik gabe:

- Legearen alderdi hauek positiboak dira:
 - a) Autonomia sustatzeko eta mendetasunaren arretarako eskubidea onartzea, hiritarren eskubide subjektiboa baita.
 - b) Mendetasun mailak zehaztea.
 - c) Prestazioen eta zerbitzuen katalogoa ezartzea.
- Herritarrak ilusio eta itxaropen egoera batetik (MAALk eskaintzen zituen itxaropenak ikusita) erakundeekiko desilusiora, mesfidantzara eta kritikara igaro dira, lege horren aplikazioan berandutzeak eta akatsak egon direlako.
- Ez du irizpide objektiboekin zehazten banakako osasun txostenarekiko osagarria den gizarte inguruaren balorazioa.
- Haien ustez, adinekoen eta hirugarren sektoreko pertsonen elkartzeko mugimenduen ordezkaritzak presentzia izan beharko luke MAALko 40. artikuluan ezarritako Kontsulta Batzordean.
- MAALen erabateko ezarkuntzarako aldia laburtu egin beharko litzateke, oraingo 8 urtetik 6 urtera.
- Haien iritzian, oso positiboa da Eusko Legebiltzarrak Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea onestea.
- Euskadiko Gizarte Zerbitzuen Sistema unibertsala izateko epea (8 urte, indarrean sartzen denetik zenbatzen hasita), gehienez, 5 urtekoa izan beharko litzateke.

- Espazio soziosanitarioa ez dago ondo araututa, eta horren garapenaren etorkizuna zalantzazkoa da.
- Banakako arreta plana baloratzeko eta lantzeko prozedurak gehiegi luzatu dira.
- Udaletako oinarrizko gizarte zerbitzuak kolapsaturik daude.
- Etxez etxeko laguntza zerbitzua ahula da, adinekoek euren autonomia sustatzeko gehien eskatzen duten zerbitzuetariko bat izan arren.
- Baliabide ekonomikoen zuzkidura ez da nahikoa; finantziario publiko iraunkorra bermatu behar da.
- Herri administrazioen arteko oraingo eskumen banaketa ez da egokia, eta zaildu egiten ditu erakundeen arteko koordinazioa eta harmonizazioa; gainera, arriskuan jartzen ditu sistemaren eraginkortasuna eta baliabideen eraginkortasuna.

3. Alzheimerra duten adinekoak

Alzheimerra zahartzearekin zerikusia duen endekapenezko gaixotasun neurologikoa da. Izan ere, endekapenezko demenzia honen prebalentziaren zifrak 65-69 urteko biztanleen arteko %1etik 90 urteko %32-38ra eta 95 urteko edo gehiagoko %40-50era bitartekoak dira.

Gaur egun, Euskadin 20.000 pertsona inguruk dute gaixotasun hori, eta kantitate hori, segurutik, handitu egingo da hurrengo urteotan, bizi itxaropena handiagoa delako.

Egoera aurreratu batean, eragina dauka oroimenean, denbora eta espazio orientazioan, hizkuntzan, arazoibidean, iritzi kritikoan eta erabakiak hartzeko gaitasunean; gainera, mugimenduko aldaketak eta beste arazo batzuk sortzen ditu. Horrek guztiak mendetasun handiko egoera sortzen dio gaixoari.

Gaixotasun horrek eragina dauka gaixoarengan, horren familiarengan eta gizarte osoan. Gaixoaren narriadura prozesuak eragin emozional handia sortzen du familiako kideen artean; horiek, gainera, eskaini beharreko zaintzei loturiko zama fisiko eta psikologiko gogorra jasaten dute.

2009ko martxoaren 10ean honako honek onura publikoa dutela adierazi dute: **Euskadiko Alzheimer Gaixoen Familiakoen Elkarten Federazioa (AEF-FAE)**. Federazio horren barruan, Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko elkarteak sartzen dira. Elkarte horiek 20 urtetik gorako lana egin dute Alzheimerra duten pertsonen eta horien familien bizi kalitatea hobetzeko, honako honen bitartez: gizarte eta hezkuntza programak, laguntza taldeak, psikoes-timulazioko eta asteburuko zentroak, prestakuntza eta zabalkunde lanak, fisioterapia zerbitzuak, arreta psikologikoa eta boluntario programak.

2009an elkarte horiek guztiak gure erakundearekin lankidetzan ibili dira, lehen aipatu dugun txosten berezia egiteko, eta araudiak haien taldean duen eraginari buruzko balorazioa jakinarazi digute. Horren tratamendu zehatza txostenean egingo da. Dena den, ondoren, jakinarazi diguten balorazioaren eduki nagusia azalduko dugu:

- Oro har, bat datoz Bizkaiko Adinekoen Kontseiluak egindako balorazioarekin.
- Positiboa da legeak familiako zaintzaileen lana onartzea, familia barruko zaintzeta-rako prestazio ekonomikoa emanez; gainera, ona da horiek Gizarte Segurantzaren alta hartzeko aukera jasotzea. Hala eta guztiz ere, prestazioak berez ez du bermatzen mendeko pertsonari kalitatezko arreta eskaintzen zaionik, eta, gainera, lagungarria izan daiteke pertsona horrek gizartean duen isolamendua iraurarazteko.
- Hasierako kolapsoa eta onarpen prozeduran izandako gehiegizko atzerapenaren on-doriozko egoera gainditzen ari dira, apurka-apurka; baina oraindik ez da premiazko egoeretarako soluziorik aurkitu.
- Legearen jasotzaileek eta euren familiek ez dute lege horrek eskaintako presta-zioei buruzko informaziorik.
- Koordinazio soziosanitario urria dago.
- Balorazio prozesuan, komenigarria izango litzateke demenzia duen pertsonak ja-sotako informazioa horren zaintzaile nagusiak emandakoarekin erkatzea edo ñabar-durak egitea, baita Banakako Arreta Planean parte hartuko duela bermatzea ere; izan ere, Alzheimerra duten pertsona askok ez dakite gaixoa dutenik, ez dituzte identifikatzen arazoak ematen dizkieten jarduerak edo iraganera jotzen dute euren oraingo aukerak jakinarazteko. Zaintzaile nagusiarekiko harreman horrek (gaixoa ez dagoenean) protokoloan sartu beharko litzateke.
- Ezinbestekoa da zaintzaileek demenziaren arloko prestakuntza espezifikoa edukitzea. Guztiz komenigarria izango litzateke balorazio taldeetan neuropsikologo bat sartzea.
- Balorazio sistema muga fisikoetan oinarritzen da, eta hurrengo arloak bigarren mail-an uzten ditu, ezgaitasun handia eragiten duten faktoreak izan arren:
 - a) Arazo kognitiboak: aluzinazioak, eldarnioak, gezurrezko ezagutzea, aldaketak oroimenean, arretan eta orientazioan, etab..
 - b) Arazoak jokabidean: erasokortasuna, noraezean ibili, gauzak ezkutatu eta galdu.
 - c) Egoera emozionala: lehenengo etapetan, demenziak depresioa edota an-tsietatea sortzen dute, eta horrek eragina izan dezake jarduera batzuk egiteko orduan.
 - d) Funtzio betearazleak: ekintzetarako eta planifikaziorako zailtasunak.
 - e) Loaren arazoak.
- Mendetasun egoera ikuskatzeko prozedura luzea da, kontuan hartuta Alzheimer gaixotasunaren bilakaera aldatu egiten dela pertsona batetik bestera, eta, kasu ba-tzuetan, egoera goitik behera alda daitekeela, aldi oso laburrean.
- Gizarte inguruaren eta gizarte nahiz familia egoeraren azterketa funtsezkoa da, bai mendetasun egoera baloratzeko, bai BAP egiteko.
- Demenzia duten pertsonentzako baliabide espezifikoak behar dira; halaber, orain-go baliabideak egokitu egin behar dira, kalitate handiagoko arreta bermatzeko.
- Positiboa da prestazioek salbuespen fiskala edukitzea.
- Administrazioak erabiltzen duen hizkuntza ez da ulergarria jasotzailerik gehienentzat (65 urtetik gorakoak dira elkarteko zaintzaile nagusien ia %35). Hizkuntza erraztea eta presentziako informazioa eta orientazioa eskaintzea lagungarria izango litzateke zer esan nahi den hobeto ulertzeko.
- Etxez etxeko laguntzako langileen prestakuntza eta egiaztapena ezinbestekoa da.

- Komenigarria da larrialdiko etxez etxeko laguntza zerbitzuak martxan jartzea, pertsona horien etxeko zaintzan gertatzen diren egoera zailei erantzun azkarra eta eraginkorra emateko.
- Hauxe proposatzen dute: eguneko zentroaren antzeko atsedenaldira zerbitzuak sortzea, baina estaldurako ordu kopuru txikiagoa eskaintzen dutenak; eguneko zentro batzuetan arratsaldean hutsik gelditzen diren plaza batzuk aprobetxatzea; dementzia moderatua duten pertsonentzako plaza kopurua handitzea, adinekoentzako eguneko landa zentroetan, eta horiek asteburuetan irekitzea, pertsona ohiko ingururik hurbilenean gelditu ahal izateko.

4. Zaintzaileak

Adinekoa bere ohiko inguruan ahalik eta luzaroen gelditzea ona izateari buruzko adostasun handia dago. Gaur egun, hori zaintzaileek egiten duten lan goresgarriari esker lortzen da.

Mendeko pertsonaren familiako zaintzaileen %80 baino gehiago emakumeak dira, eta, batez beste, 52 urteko adina dute, gutxi gorabehera (%20 baino gehiago 60 urtetik gorakoa).

Ikerketa askok agerian jarri dutenez, zaintzaileen egoera emozionala guztiz eraginpean gelditzen da, eta antsietate eta depresio maila kezagarriak izaten dituzte. Gainera, jasaten duten gehiegizko zamaren ondorioz, osasun fisikoak txarrera egin eta euren bizi estiloa aldatu egiten da; horrela, gizarte isolamendu handiagoa izan dezakete.

Mendeko pertsonen arretarako edozein politikak, egokia eta eraginkorra izateko, zaintzaileei laguntza eta zaintza emateko sistema hobezina artikulatu beharko du. Horrenbestez, hauxe egin behar da:

- egonaldi laburreko, eguneko zentroko, etxez etxeko laguntzako eta atsedenaldira goitza baliabideen kantitatea eta kalitatea hobetu;
- arreta psikoterapeutikoko, prestakuntzako, hezkuntzari loturiko psikologiako eta elkarri laguntzeko taldeko programen garapena sustatu;
- zaintzako lanetan erantzukidetasuna sustatzen duten gizonen eta emakumeen arteko berdintasun politiketan sakondu.

Zaintzaileen egoera hobetzeko ezinbesteko beste elementu bat pertsona horiek eurengan eragina izan dezaketean erabakiak hartzean parte hartzea da. Zalantzarik gabe, parte-hartze hori gauzatzeko bideetarikoa bat elkartegintza da.

2009an **Arabako Mendeko Adinekoen Familia Zaintzaileen Elkarte** ("Ascudean") izenekoaren laguntza izan dugu, MAAL aplikatzeari buruzko ikerketa monografikoa egitearen arloan. Ondoren, elkarte horrek egindako balorazioaren eduki nagusia azalduko dugu:

- Araudi honen ezarkuntzak ez du hobetu mendeko pertsonen eta horien familien bizi kalitatea.

- Legea aplikatzeari esker, bertan ezarritako prestazioak eta zerbitzuak behar dituen talde ugari baten errealitatea azaleratu da.
- Prestazio ekonomikoek zerbitzuak ordeztuko arriskua dago (hain zuzen ere, zerbitzurik ez dagoelako).
- Egokiagoa izango litzateke adin tarteetarako eta ezgaitasun motetarako balorazio baremo espezifikoak ezartzea.
- Ez da egokia “iraunkorrek” ez diren gaixotasun larriak dituzten pertsonak baremotik kanpo gelditzea; adibidez, gaixotasun onkologikoak dituztenak.
- EAE osorako eredu komuna behar da, zerbitzuei eta horien erabilgarritasunari dago-kienez.
- Ez dago lege hau aplikatzeko finantza-baliabide nahikorik.
- Zerbitzuen esleipena asko atzeratzen da, Legea indarrean sartu baino lehenagoko egoerari dagokionez.
- Familiako zaintzetarako prestazio ekonomikoan sorturiko murriztapenen ondorioz, beste zerbitzu batzuk lortzeko aukeraren eraginez, familia askok ez dute halako zerbitzurik jaso nahi.
- Hirugarren sektoreak atzera egin du, eta irabazi asmoko enpresek, berriz, protagonismo handiagoa lortu dute.
- Pertsona batzuk, mendekotzat baloratu ondoren eta euren BAP onetsi baino lehen, hil egin dira, eta familiari ez zaio inolako prestaziorik ordaindu, legez atzeraeragina ezarrita egon arren.
- BAPak oraingo baliabideetarantz orientaturik daude, benetako beharrianerantz orientaturik egon beharrean.
- Gizarte zerbitzuen legea onetsi ondorengo panorama berriaren arabera, zenbait kasutan, mendeko pertsonak foru erantzukizuneko zerbitzuetatik jasoko dute laguntza (prestazio ekonomikoak, eguneko zentroak,...), eta horien zaintzaileek, berriz, udal erantzukizuneko zerbitzuetatik (zaintzaileei laguntzeko zerbitzua). Neurri horrek kalte egin ahal dio berez ere ahula den erakundearen arteko koordinazioari.
- Premiazko da datu sistema zentrala, esku hartzeko eredu komuna eta zerbitzu zorro bakarra sortzea, Euskal Autonomia Erkidegoan.
- FZPren zenbatekoa ez litzateke lanbidearteko gutxienezko soldata baino txikiagoa izan behar.
- Mendetasuna duenen Autonomia eta Arretarako Sistema (MAAS) gizarte segurantzako sisteman sartu beharko litzateke, berme gehiago eskaintzeko.
- Araban, hain zuzen ere, mendeko pertsona izatea onartuta edukitzeak ez dakarkio hobaririk une horretara arte Udalaren laguntza (autonomotzat) jaso duen pertsonari (pertsona horrek ELZko ordu kopuru handiagoa, ebazpenetan azkartasun handiagoa eta abar zeukan).

Horiek dira elkartearen ekarpenak.

Bestalde, MAASren **Lurralde Kontseiluak**, MAALren 8.2.f) eta 18.4 artikuluetan ezarritakoaren arabera, **Lanbidez zaintzaileak ez direnen prestakuntzaren eta informazioaren arloko egiaztapen irizpide komunei buruzko erabakia** onetsi zuen, 2009ko irailaren 22ko bileran. Erabaki horren bidez, lanbidez zaintzaileak ez direnen oinarrizko prestakuntza eta

laguntza horren gutxienezko baldintzak ezarri ziren. Kasuan kasuko herri administrazioek, bakoitzak bere eskumenen arloan, garatu eta, behar izanez gero, zabaldu edo hobetu egin beharko dituzte.

Prestakuntza programa, alde batetik, hasierako prestakuntza baten inguruan egituratuko dira; prestakuntza hori, batez ere, lehenengo urtean egingo da, familiako zaintzetarako prestazio ekonomikorako ebazpena ematen denetik zenbatzen hasita. Bestetik, prestakuntza espezifiko izango du, eta hori, berriz, zaintzailearen eta mendeko pertsonaren beharriaren arabera garatuko da. Halaber, zaintzaileei laguntzeko eta indartzeko prestakuntza ere egingo da.

Hasierako prestakuntzaren edukiek, besteak beste, honako alderdi hauek landuko dituzte:

- Zaintzailearen garapena.
- Mendeko pertsonaren zaintza eta autonomia sustatzeko gaitasunak eta trebetasunak.
- Oraingo baliabideak eta Laguntzako Gizarte Sareen sorkuntza.

Hasierako prestakuntzaren gutxieneko ordu kopurua 15ekoa izango da, prestakuntza berezikoa, berriz, 10ekoa, baldin eta, zaintzailearen prestakuntza, gaikuntza edo esperientzia aintzat hartuta, pertsona horrek halako prestakuntzarik behar ez duela ondorioztatzen ez bada.

Administrazio eskudunek, kontuan hartuta prestakuntzaren arloko indarreko legeria eta erabaki honetan ezarritako irizpideak, honako oinarri eta baldintza hauek landuko dituzte:

- prestakuntza ekintzak;
- ekintza horiek garatzen dituzten prestakuntza erakundeak (zentro eta erakunde publikoak; helburuen artean prestakuntza ikastaroak ematea duten erakunde pribatuak; edo hirugarren sektoreko erakunde pribatuak, mendeko pertsonen arretan espezializaturik daudenak).

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailak, eta Lan eta Gizarte Gaietako Sailak badakite gaitasun handiko langileak behar direla, mendeko pertsonari arreta egokia eskaini ahal izateko; horretarako, **Pertsonen Arreta Etxean izeneko prestakuntza ez arautuko ikastaroa** diseinatu dute, Lanbide Heziketako titulaziorik ez duten eta euren lan jarduera arlo horretan garatzen duten edo garatu ahal duten langileei zuzenduta. 2009ko urriaren 13ko Aginduaren bidez, baldintzak betetzen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuetan eta irabazi asmorik gabeko erakundeetan prestakuntza espezifiko hori ezartzeko dirulaguntzak lortzeko deialdia argitaratu da. Ikastaroa osatzen duten moduluak honako hauek dira:

- Etxez Etxeko Osasun Arreta eta Higienea (170 ordu).
- Etxez Etxeko Arreta eta Laguntza Psikosoziala (210 ordu).
- Etxez Etxeko Laguntza eta Elikadura Familiei (100 ordu).

C) Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Gizarte Gaietako Sailak MAAL eta Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen garapena bateratzeko hasitako eta aurreikusitako jarduketak

2009an, abiatutako jarduketari buruzko informazioa eskatu genion Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Gizarte Gaietako Sailari, Estatuko araudia Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen garapenarekin bateratzeko; halaber, etxeko etxeko laguntza zerbitzuari eta laguntza telematikoa buruzko informazioa ere eskatu genion (azken hori Eusko Jaurlaritzaren zuzeneko ekintzaren barruan sartzen da, lege honetako 40.3 artikuluan ezarritakoaren arabera), horrek eragin handia baitauka adinekoen bizitzan.

Orain arteko txostenetan gure kezka azaldu dugu, zenbait zerbitzuren kudeaketan lurralde eta udalerrri mailako desoreka handiak ikusi ditugulako; esate baterako, etxeko etxeko laguntzaren arloan. Txosten horietan esan genuen honako hau ezinbestekoa zela: finantziarioaren eta prezio publikoaren arloan irizpide bakarrak finkatzea; zerbitzuaren eskuragarritasunean, estalduran eta kalitatean berdintasuna bermatzea, eta lortu beharreko arreta mailak ezartzea.

Txosten hau amaitzeko unean, Sailak emandako informazioa hau da:

1. *Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa*

2009-2010 aldian Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa egingo da, 2011-2014 aldirako, eta plan horrek lau atal izango ditu:

- Egoeraren diagnostikoa; Euskadiko Gizarte Zerbitzuen Kontseiluaren iritzipean jarriko da, 2010eko urtarrilaren 22an.
- Gizarte Zerbitzuen Plana; 2010eko apirilera egitea dago aurreikusita.
- Gizarte Zerbitzuen Mapa; 2010eko maiatzerako egitea dago aurreikusita.
- Memoria Ekonomikoa; 2010eko ekainerako egitea dago aurreikusita.

Gizarte Zerbitzuen Maparen esparruan, beharrezko diagnostikoa eta nazioarteko nahiz nazioarteko araudiaren azterketan oinarrituz, eta literatura espezializatua eta inguruko beste herri batzuen egoera ere aztertuta, hau da ezarriko da:

- Zerbitzu eta prestazio bakoitzerako zonakatzeko egokia, arretaren hurbiltasun printzipioa bermatzen duen lurralde antolamendua ezarri; antolamendu horrek, aldi berean, zerbitzuak lurralde eta biztanleria oinarri nahikorik ematea ahalbidetu beharko du;
- Zerbitzuek eta prestazioek zona horietariko bakoitzean lortu behar dituzten gutxienezko estaldurak eta intentsitateak;
- Estaldura eta intentsitate horiek ezarritako zonen beharrezkoetara egokitze aurreratu ematen duten adierazle sintetikoak.

Hori guztia Euskadiko Gizarte Zerbitzuen Sistemako prestazioen eta zerbitzuen Katalogoan ezarritako zerbitzuei dagokienez, 12/2008 Legeko 22. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. Prestazioen eta Zerbitzuen Zorroa

Gizarte Zerbitzuen Sisteman parte hartzen duten erakundeekin eta gizarte eragileekin adosturiko fitxa eredu bat sortu da; eredu horrek 12/2008 Legeko 22. artikuluan azaldutako zerbitzu katalogoan adierazitako prestazio eta zerbitzu bakoitzeko elementurik aipagarrienak jasotzen ditu; horien artean, prestazio eta zerbitzu horiek eskuratzeko baldintzak eta bakoitzaren zehaztapena. Zorroa arautuko duen dekretua egiteko egutegiaren arabera, 2010eko lehenengo seihilekoan erakundeen arteko lana garatuko da, gizarte ekimena ere aintzat hartuz, zerbitzuen fitxak egiteko. Urte horretako bigarren seihilekoan, Zorroa arautzeko Dekretua idaztea dago aurreikusita.

Zorroko Dekretuko zati nuklearrean, zerbitzuen multzo osorako xedapen komuntzat, eskuratzeko prozedurari zerbitzurako eskubidea eteteko edo iraungitzeko prozedurari eta horren zergatiei loturiko alderdiak ezarriko dira, baita zerbitzuen arteko bateragarritasunei buruzko elementuak ere.

3. Erabiltzailearen diruzko ekarpena

Erabiltzailearen diruzko ekarpenari buruzko eztabaidarako agiri bat dago (baterako ordainketa), eta hori Euskadiko Gizarte Zerbitzuen Sisteman parte hartzen duten erakundeei eta gizarte eragileei aurkeztuko zaie, Euskadiko Gizarte Zerbitzuen Kontseiluaren esparruan, 2010eko urtarrilaren 22an. Bertan, baterako ordainketari buruzko irizpide komunen arauketan garrantzitsuak izan daitezkeen alderdiak aurkezten dira; alderdiok erabiltzailearen diruzko ekarpena arautzeko Dekretua sortzeko oinarria osatuko dute, eta dekretu hori 2010eko azken hiruhilekorako dago aurreikusita.

4. Eskumen antolaketa

Legearen garapenak erakundeei eskatzen dien eskumen berrantolaketaren esparruan, Gizarte Zerbitzuen Mahai Berezikiak 2009ko irailaren 28an egindako Bilkuran, Gizarte Zerbitzuen Sisteman parte hartzen duten erakundeei jakitera eman zitzairen Eusko Jaurlaritzak bidezko jarduketak hasiko dituela, familia bitartekotzako eta familia topaketako zuzeneko ekintzako zerbitzuen eskumena bereganatzeko, 2010eko ekitaldian; gainera, 2011ko ekitaldian laguntza telematikoaren zerbitzua kudeatzeko eskumena bereganatzen hasiko da.

EAEko lurraldeetan orain eskaintzen diren sistemen azterketak agerian jarri du prestaziotan, lortzeko baldintzetan edo prezio publikoetan desoreka handia dagoela, laguntza telematikoaren sistemaren barruan; beraz, azterketa zehatza egin behar da, 2011n EAE osorako zerbitzu homogeneoa eduki ahal izateko, Eusko Jaurlaritzaren titulartasuneko.

5. Erakundeen arteko lankidetzeta eta koordinazioa

Euskadiko Gizarte Zerbitzuen batasuna eta horren garapen koherentea eta harmonikoa bermatzeko, lehen adierazitakoak ez ezik, beste zenbait jarduketa ere egin dira:

- Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoa barruko administrazio tramitazioko fasean dago Eusko Jaurlaritzan, eta Euskadiko Gizarte Zerbitzuen Kontseiluaren manuzko txostena jaso zuen, 2009ko urriaren 30eko bilkuran.
- Erakundeen arteko koordinazioa Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoa benetan abiatu arte mantentzeko, 2009ko uztailaren 10ean Gizarte Zerbitzuen Mahai Berezia eratu zen; bertan, foru aldundietan, EUDEL-en eta Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Gizarte Gaietako Sailean Gizarte Zerbitzuen arloan eskumena duten sailek hartzen dute parte. Mahai hori beste bitan bildu da: 2009ko irailaren 28an eta 2009ko abenduaren 1ean.
- Gainera, Gizarte Zerbitzuen Sistemaren parte hartzen duten erakunde maila guztietako Gizarte Zerbitzuetako zuzendarien lau bilera egin dira, honako hau eztabaizatzeko eta erabakitzeko: eskumen antolaketaren elementuak, zerbitzuen zorroa, erabiltzailearen diruzko ekarpena, gizarte zerbitzuen plan estrategikoa, etab.
- Bestalde, 2010eko urtarrilaren 22an egingo den Euskadiko Gizarte Zerbitzuen Kontseiluari Goi Ikuskapena arautu duen dekretuaren zirriborroa aurkeztuko zaio, horrek manuzko txostena emateko.

Informazio hori aztertu ondoren, gure ustez bidezkoa da planteaturiko agendaren taula-kronograma erakustea:

2010	URT.	OTS.	MAR.	API.	MAI.	EKA.	UZT.	ABU.	IRA.	URR.	AZA.	ABE.
Diagnostikoa	■											
Gizarte zerbitzuen plana				■								
Gizarte zerbitzuen mapa					■							
Memoria ekonomikoa						■						
Zorroko dekretua												■
Erabiltzailearen diruzko ekarpena arautzen duen dekretua (baterako ordainketa)												■

Zalantzarik gabe,aldi erabakigarri batean gaude, gizarte zerbitzuen etorkizunari dagokionez. 2010ean eta hurrengo ekitaldietan, aurreikuspen horien jarraipen egokia egin eta horien egokitzapen maila baloratuko dugu. Helburu nagusiak betetzen dituzten ala ez aztertuko dugu: EAEko herri administrazioen arteko harmonizaziorako eta koordinaziorako baliozkoak izatea, Euskadiko Gizarte Zerbitzuen Sistemaren batasuna bermatzea, eta prestazioek eta zerbitzuek EAE osoan garapen koherentea eta harmonikoa edukitzea (zerbitzu eta prestazio horien horniduran maila homogeneoak).

D) Adinekoen arreta soziosanitaria

2008an erakunde honek txosten berezi hau argitaratu zuen: *Arreta soziosanitaria, kontzeptuzko esparruari eta nazioarteko eta autonomiako aurrerakuntzei egindako hurbilketa.*

Txosten horretan esaten denez, mendetasuna duten adinekoek talderik garrantzitsuena osatzen dute, arreta soziosanitarioaren jasotzaile nagusien artean, euren beharrian be-zeiak aintzat hartuta: halako arreta behar duten pertsonen %85 adinekoen taldekoak dira.

Zahartzean arazo edo zailtasun fisiko, psikologiko eta gizarte zailtasun gero eta konple-xuagoak sortzen dira, eta horiek, gehienetan, estu lotuta daude elkarri; beraz, aldebereko osasun eta gizarte laguntza koordinatua eta egonkorra behar da.

Erakunde honek arreta soziosanitarioari buruzko gomendioak zein mailatan betetzen diren jakiteko, Osasun eta Kontsumo Sailari informazioa eskatuko diogu, baliabide soziosanita-rioiei loturiko zenbait alderdiri buruz. Txosten hau amaitzeko unean, sail horrek esan digu ezin duela informazio hori aurreikusitako epean eman, baina ahal duenean emango duela.

Legebiltzarrean, sailburuak berak ere aditzera eman du arreta soziosanitarioari buruzko haus-narketa estrategikoa egiteko fasean dagoela, eta hori amaitzeko epea ez dagoela finkatuta. Berak adierazitakoaren arabera, hausnarketa lasaia eta sakona da, eta 2010ean sustatu nahi diren esperientzia soziosanitarioetan (tokiko erakustaldia izango dutenak) oinarrituko da.

Arretaz erreparatuko diogu oraindik jaso ez dugun informazioari eta aurreikuspenen gauza-penari.

Hala ere, **Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, Eusko Legebiltzarrak eskatuta, egindako balorazio ekonomiko eta finantzazkoari buruzko txostena (2005-2008)** daukagu; txos-ten hori 2009ko uztailaren 24an onetsi zen (2009ko azaroaren 20ko EHAA, 224. zenbakiko aldizkaria). Horren testu osoa ikusiko dugu, tresna interesgarria baita EAEko espazio sozio-sanitarioaren garapena aztertzeko.

Hiru lurralde historikoetan dauden **egoitza unitate soziosanitarioen** okupazioa, kostua eta finantziakzioa azaltzen ditu. Unitate bananduak dira, adinekoen egoitzen barruan, eta berariaz diseinaturik daude mendeko pertsonen beharrezko prestazio guztiak eskaintzeko, pertsona horiek gizarte eta osasun zaintzako beharrian handiak dituztenean, ospitalera-tzearen eta gizarte arretaren arteko trantsizio espazio batean, osasun arreta bereziarekin. Egoitzetan sarturiko pertsonak honako mota hauetarikoren baten barrukoak dira:

- bizitzaren amaieran zaintzak behar dituzte;
- prozesu larriren edo gaixotasunen bat osatzeko fasean daude;
- jokabide arazoak dituzte;
- gaixotasun infekziosoak edota kutsagarriak dituzte.

Egoitza unitate hauetan urtebetean egon daiteke gehienez. Txostenean esaten denez, uni-tate guztiak antzean finantzatu ditu Eusko Jaurlaritzak, martxan jarri zirenetik.

Ikerketak **adinekoen egoitzetan emandako osasun eta erizaintza laguntzaren** finan-tziakzioari buruzko datuak ematen ditu; halaber, egoitza horien kopurua, titulartasuna, ku-deaketa, plaza kopurua, kostua eta finantziakzioa ere adierazten ditu. Gainera, ondorioak

ematen ditu egoitzak bertan sartzeko itunei eta irizpideei, langileen lanaldiari, arreta hori jaso dezaketen erabiltzaileei eta halako beste alde batzuei buruz. Ikerketan esaten denez, Bizkaian **egoera begetatibo iraunkorrean dauden pertsonen unitate** bat dago, eta horren ezaugarriak azaltzen dira. Era berean, EAEko **adinekoentzako eguneko zentroetan eskainitako prestazio soziosanitarioak** ere aztertzen dira.

2009an, Eusko Legebiltzarreko Osasun eta Kontsumo Batzordeak, **Legekoa ez den 82/2009 Proposamenaren** bidez, hauxe eskatu dio Osasun eta Kontsumo Sailari: *“indar dezala foru-aldundiekiko lankidetzaren foru-sareetako egoitzetan dauden mendeko pertsonen osasun-arreta hobetzeko, lankidetzaren hori hiru lurralde historikoetara zabalduz ahalik eta modurik homogeneoenean, legegintzaldiaren amaieran homologazio osoa lortu arte”*.

E) Arartekoaren esku-hartzea, adinekoen egoitzetan sorturiko gatazken ondorioz

2009an kexako zenbait espediente tramitatu ditugu, adinekoen egoitzetako (titulartasun publikoa, baina kudeaketa pribatua, itunaren bidez) langileriaren grebei lotutakoak:

- Gasteizko Ariznavarra egoitza (espeditente hori 2008an hasi zen, eta iaizko txostenean aztertu genuen).
- Donostiako Aldakonea egoitza.
- Andoain, Ordizia eta Villabonako udal egoitzak (Gipuzkoa).
- Eibarko foru egoitza (Gipuzkoa).

Gizarte Ekintza arloan tramitaturiko kexei buruzko atalean (I. kapitulua), zehatzago azalduko ditugu espedienteak.

Aipaturiko kasu guztietan, grebarako eskubidea erabiltzen dutenek lan harremana dute enpresa pribatu batekin, eta enpresa horrek titulartasun publikoko egoitza zerbitzu baten kudeaketa dauka esleitura. Era berean, kasu guztietan, grebaren helburua langile horien lan errebindikazio batzuk betetzea izan da; batez ere, zuzeneko kudeaketa duten eta, beraz, lanaren aldetik erakunde publiko baten mendekoak diren zentro publikoetako langileekiko soldata homologazioa eskatu dute.

Andoain, Ordizia, Villabona eta Eibarko arazoak amaituta daude; beste bietan oraindik ez, sortu zirenetik aldi luzea igaro arren: Ariznavarran 2008ko otsailetik eta Aldakonean 2009ko otsailetik.

Egoera horiek oso kezagarriak dira, eragin negatiboa eta zuzeneko baitute zaurgarritasun handiko egoeran dauden pertsonengan: mendetasun handia duten adinekoak. Pertsona horiek beste batzuen laguntza behar dute eguneroko bizitzako jarduerarik oinarritzkoenak egiteko (jaiki eta oheratu, jan, garbitu, sendagaiak hartu, etab.). Horrenbestez, haien beharrezanetara egokituriko arreta integrala jasotzeko eskubidea dute; izan ere, horrexegatik sartu ziren egoitza batean.

Greba egitea, bestalde, Konstituzioan (28.2 artikulua) jasotako funtsezko eskubidea da, eta, hortaz, langile guztiek erabil dezakete, euren lan errebindikazioen defentsa legitimoa egiteko.

Horrenbestez, elkarren aurkako bi eskubide ditugu hemen, eta biak babestu behar dira: egoitzan dauden pertsonen osasuna eta arreta edukitzeko duten eskubidea, eta langileen greba eskubidea. Bi eskubide horien arteko oreka bilatu behar da, bietariko ezein ere ez urratzeko, edo funtsezko elementuren batean kalterik ez izateko. Horretarako, laneko administrazioak (Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Gaietako Saila) halako egoeretan errespetatu behar diren gutxienezko zerbitzuak ezartzen ditu.

Gure iritziz, foru erakundeek, egoitza zerbitzuen hitzarmenak edo itunak egiten dituztenean, lehendik dauden baldintzak ez ezik, zerbitzuotako langileen lan kalitatea sustatzeko gizar-te irizpideak eta klausulak ere ezarri beharko lituzkete, horrek eragin onuragarria izango bailuke egoiliarrek jasotzen duten arretan. Gainera, antolamendu juridikoak administrazio kontratazioaren arloan eskaintzen dituen tresnak ere erabili beharko lituzkete, zerbitzua baldintza egokietan ematen direla segurtatzeko.

Halako gatazketan, gizarte zerbitzuetako ikuskapen eta kontrol organoen jarduketa oso zorroza izan behar da, eta berehalako esku-hartzeak eragin behar ditu, balizko irregularitasunak daudenean.

Laneko agintaritzak, halaber, edozein unetan jakin behar du mendetasun handiko egoeran zenbat pertsona dauden eta ezarrita dauden gutxienezko zerbitzuek pertsona horien oinarritzko beharrezko erantzuna emateko gauza diren; zerbitzuok ezartzeko orduan alderdi horiek guztiak hartu beharko dira kontuan.

Gure ustez, halako egoeretan Foru Administrazioak erraztasunak eman behar ditu, ahal den neurrian behintzat, eskatzen duten egoiliarrek beste zentro egokiago batzuetara lekualdatzeko.

Halaber, gizartean ere eztabaida sortu behar da, arlo honetako eragile guztiek parte hartuta, honako hau aztertzeko: halako zerbitzuen helburua eta eginkizuna, gizartean egiten duten ekarpena, finantziazioa, kostua eta itzultze tasa, inbertsioaren gizarte alderdiak, etab. Horrela, adostasuna lortu behar da gure gizarteak nahi duen gizarte zerbitzuen ereduari buruz; era berean, zerbitzuok mantentzeko eta iraunarazteko zer konpromiso hartu nahi den ere argitu behar da.

Lehen esan dugunez, zaila da gorago adierazi diren bi eskubideen arteko oreka aurkitzea; txosten honetan gatazka horiek berariaz aipatzea eragin duten berezitasunak estu lotuta daude eraginpeko pertsonen egoerarekin, langileek greba bezalako muturreko formula erabiltzea eragin duten arazoak ahaztu barik.

Arartekoak 2004an Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoen arretari buruz (etxez etxeko laguntza zerbitzuak, eguneko zentroak eta egoitzak) egindako txosten bereziak jasotako

balorazioa gogoratu nahi dugu orain; txosten horretako VI. Kapituluari (Balorazioa eta Gomendioak), erakunde pribatuekiko itun gero eta handiagoaren esparruan sortzen ari diren baldintzak planteatu genituen.

Bertan esan genuenez, funtsezkoa da alderdi horiek sakon aztertzea, sistemak aurrerantzean ere erantzukizun publikoa izan behar duela ahaztu barik.

F) Beste jarduketa batzuk

2009ko ekainean, **bilera** bat egin genuen **AEREBIZ** elkartearekin, **Bizkaiko Egoitzen Enpresa Elkartearekin**. Elkarte horrek Bizkaiko merkataritzako egoitza pribatuak ordezkatzeko dituen (itunpekoak direnak eta ez direnak); optimizatu egin nahi dituen egoitza horien baliabideak eta kudeaketa, eta egoitzen interesak ere defendatzeko dituen, zerbitzuen kalitatearen ikuspegian oinarrituz.

Bizkaiko adinekoen egoitzen egoerari buruz egindako txostena jakinarazi eta zenbait alderdi planteatu zituzten:

- Haien ustez, komenigarria da Bizkaiko egoitza zerbitzu publikoa mantentzea eta garatzea, egoitzako plazak hornitzeko sistema misto baten bidez; hain zuzen ere, plaza publikoak eskaintza pribatuarekin osatuko dira, itunen bitartez.
- Egoitzen Foru Zerbitzuarekin plazak itundu nahi dituzten egoitza pribatu guztietarako deialdia egitea proposatzen dute, baita itun bat ezartzea ere, okupatu gabeko plazarengatik kontraprestaziorik gabe, interesa duten eta legez ezarrita dauden zentro guztiekin.
- Haien iritzian, zentro guztietan prezioa/plaza berbera izan beharko litzateke, eta erabiltzaile bakoitzak ordaindu beharreko zenbatekoa, berriz, erabiltzaile horren mendetasun mailaren eta, beraz, arretaren intentsitatearen arabera izan beharko litzateke.
- Zentroa aukeratzeko askatasuna eskaintzearen aldeko apustua egiten dute, erabiltzailea onuraduna denean.

Gure ustez, itunerako lehendik gaituta dauden mekanismoek nahitaez bete beharreko baldintza batzuk eskatzen dizkiete zentroeiei.

Elkarteak plazaren prezioei buruz planteatzen duen alderdiak ezin du ahaztu lan baldintza desberdinak daudela, eta horiek guztiak gainditu egin beharko direla parekatze egokia lortzeko; horrek, zalantzarik gabe, eragina izango du plazaren prezioan.

Aurten, txandako kontratuen bidez **txandaturiko adineko batzuek** (erabateko erretirotik oso hurbil daudenak) esan digute ez daudela ados haiek enpresaren **enplegua erregulatzeko espedienteetan** sartzearekin.

Gure iritziz, ezohiko gertakaria da, talderik zaugarrienak (langabeziarako eskubiderik ez duten langileak, erretiro partziala dutenak, etab.) halako espedienteetan ez sartzea izaten baita ohikoena.

Tokiko administrazioari jakinarazitako gogoetak lan arloari buruzko atalean zehaztuta daude (I. kapitulua).

2009an **adinekoen zaintzari buruzko bi ebazpen** eman ditugu. Lehenengoak, [2009ko uztailaren 23koak](#)⁴, familia barruko zaintzetarako prestazio ekonomikoa, mendetasuna baloratzeko eskabidea aurkeztu zen egunetik emateko gomendioa egin dio Gipuzkoako Foru Aldundiari.

Bigarrenak, [2009ko abuztuaren 10ekoak](#)⁵, zuzenbidean bizikidetzaren egiaztatzeko baliozkoak diren beste frogabide batzuk onartzeko gomendioa eman dio Arabako Foru Aldundiari; halaber, ama (Alzheimerre duen mendeko adineko pertsona) etxean zaintzen duen pertsonari diru-laguntza emateko ere eskatu dio.

Bi ebazpen horien edukia gizarte ekintzako arloan zehaztuta dago (I. kapitulua). Arlo honetan, Mendetasun Egoerako Pertsonen Autonomia Pertsonala eta Arreta Sustatzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen garapena ere aztertzen da, horren alderdi orokorretan.

⁴ Arartekoaren ebazpena, 2009ko uztailaren 23koa. Honen bidez Gipuzkoako Foru Aldundiari gomendatzen zaio, familia inguruneke zaintzetarako diruzko prestazioa eman dezan, mendetasun balorazioaren eskaera aurkeztu zen datatik hasita.

⁵ Arartekoaren ebazpena, 2009ko abuztuaren 10ekoa. Horren bidez, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politika eta Gizarte Zerbitzuetako Sailari gomendatzen zaio bizikidetasuna egiaztatzeko zuzenbidean baliozkoak diren beste frogabide batzuk onartzea eta, legezko izapideen ondoren, mendeko adineko senide bat bere etxebizitzan zaintzen duen pertsona honi laguntza ekonomikoa ematea.

II.3

BERARIAZKO ARRETA ADINGABEEI

3. BERARIAZKO ARRETA ADINGABEEI

Jarraibide nagusiak eta arloaren aurkibidea

Adingabeak eskubideak dituzten subjektuak dira, baina, horrez gain, dituzten ezaugarriak direla eta, egoera bereziki ahulean dagoen sektorea osatzen dute eta bermatu egin behar diren berariazko eskubideak dituzte. Horregatik hartzen du Arartekoak talde hau berariazko eta lehentasunezko arreta behar duen talde gisa.

Aurten ere (2009. urtean 20 urte bete dira Haurren eskubideen Hitzarmena onartu zenetik) hainbat jarraibidetan zehaztu da Ararteko erakundeak biztanleriaren sektore honen eskubideak babesteari eskaintzen dion lehentasunezko arreta. Nagusiki, honakoetan:

- I. Egoera bereziki ahulean edo egoera ahulagoan dauden adingabe talde batzuei buruzko problematika zehatzaren analisia eta jarraipena egin da.
- II. Kexak ebatzi dira.
- III. Bereziki larriak diren edo gizartean eragina duten egoeretan ofizios jardun da.
- IV. Biztanleriaren sektore honetan diharduten gizarte eragile, elkarte edo erakundeekin lankidetzan aritu gara.
- V. Beren eskubideen kultura zabaldu da.

Atal honetan, adingabeen eskubideak defendatzeari dagokionez 2009an burutu diren jarduera nagusiak labur-labur jasoko ditugu, goian aipatutako jardun ildoetako bakoitza bereizita.

Atal hau luzea denez, epigrafe asko eta aztertutako sektore ugari dituen gero, jarraian aurkibide modukoa egin dugu, adingabeei berariazko arreta emateari eskainitako kapitulu honetan informazioa errazago bilatu ahal izateko:

- I. Egoera bereziki ahulean dauden sektoreen problematikaren analisia eta jarraipena.
 - 1) Familiaren babesik gabeko haurrak eta nerabeak
 - 2) Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak
 - 3) Adingabe lege-hausleak
 - 4) Sasoikako langileen seme-alabak
 - 5) Hezkuntza-premia bereziak edo berariazkoak dituzten ikasleak
 - 6) Buru osasuneko arazoak dituzten haurrak edo nerabeak
 - 7) Eskolako tratu txarreko edo jazarpeneko egoerak
 - 8) Famili biltokiak
 - 9) Beste egoera ahul batzuk
- II. Adingabeei buruzko txosten berriak.
- III. Kexak.

- IV. Gertakari edo egoera bereziki larrien aurrean garatutako ofiziozko jarduerak.
- V. Gizarte eragileekiko lankidetzeta eta gizarte sentsibilizazioa.
- VI. Haurren eskubideen aldeko kultura zabaltzea.
- VII. Azken urteotan izan diren egoerarik problematikoenak edo kezkarrienak.

I. EGOERA BEREZIKI AHULEAN DAUDEN SEKTOREEN PROBLEMATIKAREN ANALISIA ETA JARRAIPENA

Adingabeen multzoaren barruan, orobat, beren eskubideak arrisku larrian dituzten sektoreak ere badaude. Ararteko erakundeak lehentasunezko arreta eskaintzen die egoera ahulean dauden edo premia bereziak dituzten haur eta nerabe talde horiei, funtsean, lan monografikoak eta ezohizko txostenak prestatuta eta horien inguruko jarraipena eginda. Horrela, aurrean, jarraipenak honako zazpi sektore hauetan jarri du arreta:

- 1) Babesik gabeko haurrak eta nerabeak (babes sistemak)
- 2) Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak
- 3) Adingabe lege-hausleak (epailearen neurriak bete behar dituztenak)
- 4) Sasoikako langileen seme-alabak (zenbait egoeratan eskolatu gabe geratzen dira)
- 5) Hezkuntza-premia bereziak edo zehatzak dituzten ikasleak (premia horiek ezgaitasunen baten ondorioa izan daitezke, baina baita jatorri, etnia edo egoera sozioekonomikoaren ondorioa ere)
- 6) Buru osasuneko arazoak dituzten haurrak eta nerabeak
- 7) Eskolako tratu txarreko edo jazarpenerako egoerak

Ikusi ahal izango den bezala, ezinezkoa izan da adierazitako sektore guztietan jarraipena maila berean egitea. Kasu batzuetan (adibidez, bakarrik dauden adingabe atzerritarrei dagokienez), zentroetara hainbat bisita egin dira, baita ofiziozko hainbat jarduerak ere; beste kasu batzuetan, ordea, administrazio eskudunei informazio eskaerak bidaltzera, bisita zehatzak egitera edo ofiziozko jarduerak garatzera mugatu behar izan dugu.

1) Familiaren babesik gabeko haurrak eta nerabeak

Ararteko erakundeak bere garaietan *Babesik gabe dauden haur eta nerabeen laguntza-zerbitzuari* buruzko txosten berezia egin zuen. Eta, txostenaren amaieran, 42 gomendio zehatz proposatu ziren aztertutako kontuetako askoren gainean (esparru juridikoa, eskumenen banaketa, profesionalak, programak, prozedurak, zerbitzuak kontrolatu eta ebaluatzea ...).

Bai txostenean bertan bai ondorengo jardueretan, hobetu daitezkeen alderdiak edo lehentasuneko zatit jotzen diren premiak nabarmentzerakoan, erakunde honek batik bat honako hauek azpimarratu ditu:

- araudi komuna behar da gure autonomia-erkidegoan, arretarik gabeko adingabeen funtsezko kontuak araupetzeko;
- ahalik eta erantzun desberdin gehien behar da (familia-harrera, larrialdietarako zentroak, eguneko zentroak...);
- erakundeen erantzunetan alde handiak ikusi dira lurralde historikoen artean;
- babesik gabeko egoerak antzemateko mekanismoak hobetu behar dira;
- oinarrizko gizarte zerbitzuen, hezitzaile adituen eta gure autonomia-erkidegoko beste zerbitzu batzuen arteko harremana eta koordinazioa sustatu behar da;
- irteera, jatorrizko esparruko gizarteratze edo autonomiako programak egin behar dira;
- haur eta nerabeek eta beren familiek parte hartzeko mekanismoak bultzatu behar dira;
- zerbitzuen ebaluazio kualitatiboa eta aldizkako kontrola egin behar dira.

Txostena aurkeztu zenetik (1997an), erakunde honek egoeraren jarraipena egin du, bereziki babesgabetasun egoerena, ekimen desberdinen bitartez: ofiziozko espedienteak sail eta erakunde desberdinen aurrean, aldizkako bilerak erakunde horietako arduradunekin, bisitak hiru lurraldeetako harrera-etxe edo zentroetara... Eusko Legebiltzarrarentzako ohizko txostenetan, urtero, jarduera horien emaitzak bildu dira. (Ikusi, adibidez, 2007ko txostena, II. kap., 3. azpiatala).

Bestalde, orain dela gutxi erakunde honek txosten berezi berria egin zuen, hori ere babes arlokoa, baina oraingoan *EAE n bakarrik dauden atzerritar adingabeen egoeran* arreta jarritz. Sektore horri arreta berezia jarri diogu beti eta horri buruzko berariazko espedienteak zuzendu ditugu hiru foru aldundietara. Gai hau aparte eta bereizita landu da, ez txostenaren atal honetan, baizik eta hurrengoan.

1.1) Udalen eremuan hurrei eskaintzen zaien arreta

Arartekoak urteotan egindako jarraipen-lanean, batez ere honelako gaietan jarri du arreta: adopzioa, familia-harrera, egoitzetako harrera, elkartzeko tokiak... Gai horien kudeaketa, funtsean, foru aldundiei dagokie. Azken bi urteotan, hala ere, arreta berezia eskaini nahi izan diegu haurrak udal edo herri mailan babesteari.

Ezarrিতako eskumen esparruarekin bat etorritz, haurrak babestearen inguruan udalak duen erantzukizuna arrisku egoeratan zentratzen da (ez babesik gabekoetan). Hala ere, bi kasuetan, egoera aurreikusteko, antzemateko, zerbitzu espezializatueta desbideratzeko, fami-
liei arreta emateko edo parte hartzen jarraitzeko udalak duen jarduera funtsezkoa da.

Zentzu horretan, aipatutako txosteneko 42 gomendioetatik gehienak zuzenean udalerrian aplikatzen dira edo lanean zuzenean eragina dute. Hona hemen adibide batzuk:

- Lurralde eta udal esparruko langileen prestakuntza eta koordinazioa. (6. Gom.)

- Babesik gabeko egoera argia denean, oinarrizko gizarte langileekin harremanetan jartzea. (11. Gom.)
- Erkidego esparruko programak garatzea. (13. Gom.), etab.

Gomendio horiek eta beste askok zuzeneko eragina dute, alde batetik, udal esparruan egiten den babes-lanean, eta, bestetik, udal esparruak beste esparru edo instantziekin duen harremanean, batez ere, foru aldundietako haurrentzako zerbitzu espezializatuekin duen harremanean. Gainera, aipatzekoa da Arartekoa haurrentzako zerbitzu espezializatuen jardueraren jarraipen sistematikoa egiten aritu dela urtez urte.

Horregatik, aurretik egindako jarraipenak osatzeko, iaz ofiziozko espedienteen bitartez toki erakunde askori idaztea interesgarria dela pentsatu genuen (gure erkidegoan 10.000 biztanle baino gehiago dituzten 40 herriei).

Espediente horien helburua hauxe zen: herri mailan haurrei arreta emateko baliabide, programa eta zerbitzuei dagokienez, baita beste zerbitzuekiko koordinazioari dagokionez ere, txosten horren bilakaera hobeto aztertzeko balio ziezaguketen oinarrizko zenbait datu eta informazio eskatzea.

Txostena bera oso zabala denez, eta gomendioak ugariak, informazio zehatza eskatu ordez, egokiagoa iruditu zitzaigun arreta adierazle gisa erabilgarriak izan daitezkeen datu kuantitatibo batzuetan eta alderdi jakinetan jartzea. Horrela, 40 udalei bidalitako informazio-eskaera (Gasteizkoari izan ezik, izan ere, hor ezaugarri ezberdinak ditu haurrei ematen zaien arretak), batik bat gai hauei zegokien:

- 1) Haurrak babesteaz arduratzen den udalaren mendeko **langileak**.
- 2) **Eskaintako programak edo zerbitzuak**.
- 3) **Artatutako biztanleak**.
- 4) **Arreta berezia exijitzen duten arrisku edo babesgabezia kasuak antzematea eta horietan esku hartzea** (adibidez, foru aldundietako zerbitzu espezializatueta bideratzea).
- 5) **Beste instantzia batzuekin koordinatzea**.
- 6) **Lanaren plangintza eta antolaketa**.

Sei gai horietako bakoitzari buruz, hainbat datu eta informazio eskatu genituen. Orobat, informazio hori ahalik eta zehatzena izan zedila eta, batez ere, egindako hobekuntzak eta artean konpondu gabe zeuden arazoak aipa zitezela eskatu genuen.

2008ko urteko txostenare idazketa bukatzeko unean, jasoak genituen 30 udalen erantzunak:

- Araban biztanle gehien dituzten bi udalena: Laudio eta Gasteiz.
- Gaiarekin zerikusia duten Bizkaiko udal gehienena: Amorebieta-Etxano, Arrigorriaga, Basauri, Bilbao, Erandio, Ermua, Galdakao, Gernika-Lumo (Busturialdeko Mankomunitatea), Getxo, Leioa, Mungia, Portugalete, Santurtzi, Sestao eta Valle de Trápaga-Trapagan.

- Gipuzkoako (19 udaletatik) 13 udalena: Azkoitia, Azpeitia, Bergara, Eibar, Elgoibar, Erreterria, Hernani, Irun, Lasarte-Oria, Pasaia, Tolosa, Zarautz y Zumarraga.

Gainera, erantzunetatik asko azken orduan jaso ziren (urtarrilaren amaieran eta otsailaren hasieran), eta horrek zaildu egin zigun informazio hori aztertu eta txostenaren testuan txertatzea, ordurako txostena ia itxita baitzegoen. Horregatik, kasu batzuetan, osatu gabeko taula batean hainbat datu sartu baino ez genuen egin (ikus 2008ko txostena, datuen taula, atal honetan bertan).

2009. urtean, beharrezko errekerimenduak egin eta gero, bidaltzeko zeuden erantzun gehienak jaso ditugu: Bermeo, Durango eta Sopelako Udalenak, Bizkaian; Arrasate, Beasain, Donostia, Hondarribi eta Oñatikoeanak, Gipuzkoan. Hortaz, oso informazio osoa daukagu (bi udalek bakarrik ez dute erantzun: Barakaldokoak eta Andoaingoak), 10.000 biztanletik gorako udalerriei dagokienez behintzat. Informazio horri esker, datu gehiago dauzkagu eta hobeto ikus daitezke joera, arazo eta proposamen nagusiak.

Arartekoaren ekimen honen helburua ez zen udalerrri bakoitzaren errealitatea zehatz eza-gutzea (horretarako, informazioaren tratamendua beste modu batekoa izan beharko bailitzateke), konparazioak ezartzea, joerak aurkitzea eta arazo komunak edo tokiko haurren babes-beharrianetarako erantzun hobea baldintzatzen duten elementuak identifikatzea baizik.

Horrela, iaz eskura zeuden datuekin aurreratu genuen informazioa osatzeko, hemen funtsean hiru elementu eskaintzen ditugu:

- 1) Datu-taula gaurkotua. Bertan, ahaleginak egin ditugu erantzun diguten 38 udalerriren datu kuantitatiboak eta informaziorik objektibagarrienak laburbiltzeko.
- 2) Beharrezko ohar batzuk, datu horien balioa zehazteko, horiek hobeto ulertzeko edo horietan antzemandako joera batzuk nabarmentzeko.
- 3) Informazio kualitatiboaren laburpena edo, hobeto esanda, adibide batzuk, batez ere arazoak eta proposamenak adierazten dituzten informazioena.

1) Datuen taula

	HAURTZARON SOILIK DIHARDUTEN LANGILEAK		PROGRAMA ETA ZERBITZUAK	LAGUNDUTAKO BIZTANLERIA	ARRISKUKO EDO BABESIK GABEKO EGOERAK			PLANIFIKAZIOA ETA ANTOLAMENDUA		
	BAI				KASU KOPURUA (ESPEDIENTEAK)			HAURTZARO-PLANA (BAI/EZ)	KONTSULTAKO TOKI-ORGANOA (BAI/EZ)	ADINGABEEK PARTE HARTZEKO BIDEA (BAI/EZ)
	Planti-llakoak	Kontratatuta	KOP. ⁽²⁾	KOP. OSOA ⁽³⁾	Esku hartutakoak	Aldundira deribatuta	Aldundiak onartuta			
Arabako L.H.										
Laudio	1	3	3	57	21	14	?	-	-	-
Vitoria-Gasteiz	21	56,5	6-17	-	333	(59+35) ⁽¹⁾	-	BAI	BAI	BAI
Bizkaiko L.H.										
Amorebieta-Etxano	-	2,5	5	112	9	2	2	-	-	-
Amigorrriaga	-	2	10	48	16	2	1	-	-	-
Barakaldo	-	5+	7	266						
Basauri	-	5	-	95	77	6	-	-	-	-
Bermeo	2+	90+	11	5.619	-	38	? ⁽⁴⁾	-	BAI	-
Bilbao	-	4	1	190	21	-	-	-	-	-
Durango	-	X	3	381	Daturik ez	Daturik ez		-	-	-
Erandio	1	4	1	373	93	3		-	-	-
Ermua	-	4,25	6	143		4	0	-	-	-
Galdakao	X	X	3+7							
Gernika-Lumo ⁽⁵⁾	-	8	7	-	32	4	-	-	-	-
Getxo	-	6		263	54	8	8	-	-	-
Leioa	-	2	5	120	84 fam.	4	-	-	-	-
Mungia	-	10	7	493	-	-	-	-	-	-
Portugalete	-									

	HAURTZAROAN SOILIK DIHARDUTEN LANGILEAK		PROGRAMA ETA ZERBITZUAK	LAGUNDUTAKO BIZTANLERIA	ARRISKUKO EDO BABESIK GABEKO EGOERAK			PLANIFIKAZIOA ETA ANTOLAMENDUA		
	BAI		KOP. ⁽²⁾	KOP. OSOA ⁽³⁾	KASU KOPURUA (ESPEDIENTEAK)			HAURTZARO-PLANA (BAI/EZ)	KONTSULTAKO TOKI-ORGANOA (BAI/EZ)	ADINGABEEK PARTE HARTZEKO BIDEA (BAI/EZ)
	Planti-llakoak	Kontratatuta			Esku hartutakoak	Aldundira deribatuta	Aldundiak onartuta			
Santurtzi		EISE		340	72	Daturik ez	-	-	-	
Sestao	-	7	5	297	83 esped.	3	-	-	-	
Sopelana	-	4	2	19	32	11	-	-	-	
Valle de Trápaga-Trapagaran	-	-	0	-	-	-	-	-	-	
Oharrak										
1)	Gasteizko Udaleko datuak 2007an irekitako espediente batekoak dira. Udal hori babesik ez duten adingabeentzako harrera-sarea duen bakarra da (10 etxe), gure autonomia-erikidegoan. 2007an hartutako adingabeak: 59 etxeetan eta 35 familietan.									
2)	Programak eta, zenbait kasutan, azpiprogramak.									
3)	Programa guztietako erabiltzaileak dira; hala ere, jakina, pertsona berak zenbait programa erabili ditzake urte berean.									
4)	Bilboko Udalak ez du daturik eman Bizkaiko Foru Aldundira egindako deribazioei buruz, baina bai Aldundiak Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei (87 kasu) egindako eskabideei buruz (balorazioa, esku-hartzea, jarraipena).									
5)	Gizarte-arriskua edo babesgabetasuna duten haurrak, nerabeak eta familia babesteko proiektua (2008ko urtarila-abendua)									

	HAURTZAROAN SOILIK DIHARDUTEN LANGILEAK		PROGRAMA ETA ZERBITZUAK		LAGUNDUTAKO BIZTANLERIA	ARRISKUKO EDO BABESIK GABEKO EGOERAK				PLANIFIKAZIOA ETA ANTOLAMENDUA		
	BAI		KOP.	KOP. OSOA		KASU KOPURUA (ESPEDIENTEAK)		HAURTZARO- PLANA (BAI/EZ)	KONTSULTAKO TOKI-ORGANOA (BAI/EZ)	ADINGABEEK PARTE HARTZEKO BIDEA (BAI/EZ)		
	Plantilakoak	Kontratatuak				Esku hartutakoak	Aldundira deribatuta				Aldundiak onartuta	
Gipuzkoako L.H.												
Andoain												
Airasate- Mondragón	1+0,5	-	1	72	45	4	3	-	-	-	-	-
Azkoitia	-	2	1	17	17	1		-	-	-	-	-
Azpeitia	1	2	1	40-50	40-50	1	1	-	-	-	-	-
Beasain	-	3	1	421	25 +9 fam	7		-	BAI	-	-	-
Bergara	-	2	4	40 familia	45	4?	4	-	-	-	-	-
Donostia- San Sebastián	9	115	8	2.966	194	-	-	-	-	-	-	-
Eibar	1	11(?)	3	190		3	3	-	-	-	-	-
Elgoibar	-	-	4	310	3+7+16			-	-	-	-	-
Errenteria	3,5	1+6	2	66	106	15		-	-	-	-	-
Hernani	-	-	3	204	56	1	?	-	-	-	-	?
Hondarribia	-	-	1	21	5	2		-	-	-	-	-
Irun	-	X	3	249	49	31	?	-	-	-	-	-
Lasarte-Oria	-	-	2	392	-	-	-	-	-	-	-	-
Oñate	-	-	4	16	29	?	?	-	-	-	-	-
Pasaia	-	4(?)	10+	451	101	5	1	BAI	BAI	-	-	-
Tolosa	-	2	2	230	45	3		? ⁽¹⁾	BAI	-	-	-
Zarauz	0,5+0,5	2*	3	200-270	37	12	?	-	-	-	-	-
Zumarraga	-	3,5	2	82	82	8	3	-	-	-	-	-
Oharrak												
1)	"Arriskuan dauden Adingabeekiko Gizarte eta Hezkuntza Jarduketarako Esparru Programa". Urteroko programazioa.											

2) Eskainitako datuak hobeto ulertzeko oharrak eta iruzkinak

Joan den urtean egin genuen bezala, hemen hainbat gauza gogora ekartzea komeni da:

- Goiko taulari egin behar zaion lehenengo oharra, orokorra eta ezinbestekoa, bertan jasotako zenbakizko datuen balioa erlatiboa dela da.
Esate baterako, "programa kopuruari" erreparatuko diogu: batzuek udalerrian garatzen diren programa handiak baino ez dituzte aipatu, eta beste zenbaitek, berriz, gehienbat ekintza bat izango litzatekeena hartu dute halako programatzat (adibidez, udalekuak antolatzea). "Lagundutako biztanleria" deritzonari buruzko datuetan, kasu batzuetan adingabeak zenbatu dira, eta beste zenbaitetan familiak. Taulan eskainitako zifrak, oro har, programa bakoitzean lagundutako adingabeen batuketa da (geuk egindako batuketa); baina, sarritan, adingabe berak zenbait programatan hartzen du parte. Hala eta guztiz ere, gure ustez, nolabaiteko hurbilketa eskaintzen dute eskainitako zerbitzuaren "bolumenera".
- Langileriarri buruzko datuei dagokionez, egoerarik ohikoena kasuan kasuko udalak hartzaroan soilik diharduen langilerik ez edukitzea da, eta zerbitzuak edo programak elkarrekin edo profesionalekin kontratatzea; gainera, horien koordinazioa edo ikuskapena biztanle guztientzat pentsaturiko gizarte-zerbitzuek egiten dute. Horixe da formularik hedatuena. Baina beste udalerrri batzuk, Gasteizeko Udalak kasu, Haur eta Familia Zerbitzu oso indartsua dute (2008an 21 pertsona: 3 burutza, 8 psikologo, 8 gizarte-langile, 2 gizarte-hezitzaile); Gasteizek egoitza-harrerako sarea ere badauka, arrisku handiko edo babesik gabeko egoeretarako (10 zentro eta 56 pertsona baino gehiago kontratatuta).
- Programei eta zerbitzuei dagokionez ere, alde handiak daude. Arazorik ez duen salbuespenezko kasuren bat kenduta, eskaintza oso mugatutik (adibidez: eguneko zentroa; haurren etxez etxeko laguntza zerbitzua; familiaren arloko gizarte eta hezkuntza laguntzako programa) eskaintza oso zabalera doaz, eta azken kasu horretan planaren, azpiprogramen, baliabide espezializatuen eta halakoen arabera egituraturiko programak daude.
Bestalde, programak, kasu bakoitzean, irizpide asko eta anitzak aplikatuz bereizten dira: biztanleria sektore jasotzailea (adingabeak; familiak; ijitoak, etorkinak...); esku hartzeko estrategia (banakako arreta, taldeko arreta); eskainitako zerbitzua (beharri-zanen balorazioa, neurketa, prebentzioa, terapia...), etab.
Errealitatean ohikoa izaten da programa jakin bat elkarte edo talde bati esleitzea, beste programa bat beste talde bati..., eta horrek zaildu egin ditzake jarduera globalak.
- Lagundutako biztanleriari dagokionez, taulan jasotako zenbakiek balio erlatiboa dutela esan dugu. Udalek emandako informazioa, hala eta guztiz ere, hemen eskaintzen ari garena baino fidagarriagoa da, ia beti erabiltzaileen datuak eskaintzen baititu (batzuetan familiak, beste zenbaitetan adingabeak), programaz

programa bananduta. Alabaina, datu horiek hobeto interpretatzeko, jarduera eta parte-hartze zehatzak argiago bereizi beharko lirateke denboran iraunkorrak diren esku-hartzeetatik (bereizte hau sarritan egiten da: esku-hartze trinkoa, aldi bate-rako esku-hartzea).

- Arrisku handiko edo babesik gabeko egoeren kasuan (hau da, babesik gabeko egoerarik larrienak), oro har, eskaintako datuak irekitako espediente kopuruari edo horietan inplikaturiko adingabe kopuruari buruzkoak dira. Taulan ikusten denez, datu hau ez dago edo ez zaigu eskaini beti.

Foru aldundietako zerbitzu espezializatuetara deribaturiko kasuei eta horiek eman-dako erantzunari dagokienez, gai hori alderdi kualitatiboan aztertuko dugu, izan ere, bertan gaiari buruzko informazio baliozkoagoa bildu dela iruditzen zaigu.

- Azkenik, haurtzaro planak, kontsulta organoak eta adingabeek parte hartzeko bideak egoteari dagokionez, ohikoena halakorik ez egotea edo, behintzat, formalizatuta ez egotea da. Udalerrri batzuetan aurrerapausoak ematen ari dira norabide horretan (esaterako, tokiko beharrezanaren ikerketa, plana egin ahal izateko); beste zenbaitetan, hori behar dela esaten da; kasu ia guztietan esan denez, parte hartzeko bide bakarra kexen eta iradokizunen bidezkoa da.

Irizpide nahiko hertsia aplikatuz, esan daiteke gaur egun Gasteizeko udalak soilik dituela hiru elementuak: Gasteizeko Haurtzarolari eta Nerabezarolari buruzko Ikerketa diagnostikoa; sailen arteko Batzordea eta parte hartzeko Foroak (Foro Teknikoa, Foro Politikoa, Haurtzaroren Foroa, Nerabezaroren Foroa, Familiaren Foroa, Elkarleen Foroa); Lagunkide Programa, Haurren eta Nerabeen partaidetzarako... Gasteizko Udalaren Haur eta Nerabeen Udal Plana (HNUP) berriki argitaratu da (2009ko abenduan) eta beste udalerrri batzuentzako gida edo eredu gisa balio dezake.

Halaber, Pasaian tokiko haurtzaroko Plana dago, Busturialdeko Mankomunitatean Proiektu bat, eta eraketa formala duten tokiko organoak ere badaude Bilbon, Portugaleten, Pasaian edo Tolosan. Azken udalerrri horretan, era berean, kontratazio mahaia daude, eta arriskuan dauden adingabeen gizarte eta hezkuntza jarduketako Esparru Programa ere bai.

3) Arazo, proposamen eta informazio kualitatiboagoak

Arartekoak egindako informazio eskabidearen arabera, halako ekarpenik gehienak lau alderditan oinarritu dira:

- a) Programak garatzeko dauden zailtasunak.
- b) Udal zerbitzuen esku-hartzea behar duten arazorik edo egoerarik ohikoena.
- c) Azken urteotan ikusitako joerak.
- d) Beste erakunde edo zerbitzu batzuekiko lankidetzeta eta koordinazioa hobetzeko zailtasunak.

a) Programak garatzeko dauden zailtasunak

lazko txostenean aurreratu genuenez, programak, oro har, nahiko antzekoak eta errepikakorrak dira; hala eta guztiz ere, bakoitzaren errealitatearen edo esperientziaren arabera, zenbaitetan batzuk beste batzuk baino gehiago nabarmentzen dira. Zenbait kasutan, arazoen edo zailtasunen zerrenda luzeagoa edo laburragoa eskaintzen da; beste batzuetan, nolabaiteko sailkapena egiten da. (Adibidez, Bilboko Udalaren zailtasunen sailkapena edo Getxoko Udalaren zailtasunen zerrenda kontsultatzeko, ikusi 2008ko txostena, atal hau bera).

Barruko arazoak (aurrekontu-arazoak, astirik edo langilerik eza, udal sailen arteko koordinazio urria...) edo beste erakunde edo zerbitzu batzuekiko arazoak (aurrerago aztertuko ditugunak) albo batera utzita, aipagarriak dira adingabeen familiari lotutako arazoak:

- esku-hartzea onartzen ez duten familiak;
- adingabeak programetara ez joatea, erreferentziako pertsona nagusien utzikeriaren eraginez;
- aitaren eta amaren arteko interferentziak, batez ere bananduta daudenean;
- Etorkinekiko komunikazio arazoak...

b) Esku-hartzea behar duten arazorik eta egoerarik ohikoena

Puntu honetan ere, arazo asko familia egoerari lotutakoak dira (buruko gaixotasuna eta drogen gehiegizko kontsumoak; familiek arrisku adierazleak ez identifikatzea...), eta eraginpekoak biztanle talde jakinekoak dira: nerabeak.

Adibidetzat, ikusi iazko txostenean Bizkaiko udalerrri bateko gizarte-zerbitzuetako arduradunek eskainitako arazoen zerrenda.

Batzuetan, arazoak aztertzea balizkoa da erantzuneko programak egituratzeko. Horrela, esate baterako, Santurtziko Gizarte Hezkuntzan Esku Hartzeko Taldeak (GHEHT) arlo bakoitzeko arazo nagusiak bereizten ditu (familia, pertsona, eskola, aisialdia eta astialdia), eta azterketa horrexek adierazten ditu esku-hartze arloak (familia...).

Beste arazo edo arazo-iturri nagusia desadostasunena da, edo funtzioak argi mugatuta ez egotearena, tokiko zerbitzuen eta foru aldundietako zerbitzu espezializatuen artean.

Gipuzkoaren kasuan, lurralde horretako zonako edo eskualdeko taldeei eta horiek lanean duten eraginari buruzko erreferentzia, kasurik gehienetan, positiboa da (solaskide eta erreferentzia bihurtu dira, tokiko zerbitzuentzat); baina, batzuek diotenez, horren eraginez foru aldundiaren erantzunak ez dira hain azkarrak.

c) Azken urteotan ikusitako joerak

Hemen gehien nabarmentzen direnak, zalantzarik gabe, lagundu beharreko gazteen eta, batez ere, familien profilen aldaketak dira, eta formulazioetan kointzidentzia handiak daude:

- Marihuana egunero hartzen duten 13-17 urteko gazte kopuruaren hazkunde nabaria; gurasoak ez dira gauza seme-alabei arauak eta mugak ezartzeko, eta azken horiek, gainera, eskola absentismo handia dute.
- Kultura kode desberdineko etorkin kopuruaren hazkundera.
- Guraso bakarreko familiak.
- Familia barruko indarkeriari eta emakumeen aurkako tratu txarrari lotutako arriskuak.
- Banantzeen judizializazio handiegia, adingabeak bitartean sartuta.
- Gurasoen (sarritan, bananduta) arteko harreman arazotsuak.
- Gurasoen ezintasuna, haurren eta nerabeen jokabidea kontrolatzeko.
- Adingabearen egunerokotasunean gurasoen presentzia eza edo presentzia urria.
- Familia berriro batzea, urteetan bananduta egon ondoren.
- "Enperadorearen sindromea" duten nerabeak.

Batzuek aldaketa adierazten dute lagundutako familien tipologian: arazo anitzeko familiak izatetik familia normalizatuagoak izatera igaro dira, baina horiek ere arazoak dituzte adingabeei arauak eta mugak ezartzeko orduan.

Horren ondorioz, aldaketak sortu dira beharizanetan eta esku hartzeko moduetan (zailtasun emozionalak, jarduera psikoterapeutikoak...); gainera, batez ere Gipuzkoan, lan kargak berregokitu egin dira: Aldundiak deribaturiko edo onarturiko kasu gero eta gutxiago; tokiko arloko esku-hartze gero eta handiagoa.

Oro har, arrisku egoerek eta eskariak gora egin dutela jotzen da.

d) Koordinazioa hobetzeko zailtasunak

Jasotako idazkietan arlo honi ematen zaion lekua aintzat hartuta, esan daiteke horrexek sortzen duela kezkarik handiena gizarte zerbitzuen artean.

Orokorrean, erantzunetan ikuskatu egiten da beste gizarte eragile batzuekiko lankidetzari: osasun zentroak, ikastetxeak, sistema judiziala eta, batik bat, haurtzaroan espezializaturiko zerbitzu guztiak, foru aldundiaren mende daudenak.

Iazko txostenean jada bildu genituen sistema judizialari, ikastetxeekiko lankidetzari edo osasun-zerbitzuekiko koordinazioari buruz adierazitako arazoak (eta proposamenak) (ikus 2008ko txostena, atal hau bera).

Beraz, hemen haurren zerbitzu espezializatuak bakarrik jorratuko ditugu, izan ere, gai hori bera –baina aldundien ikuspegitik– hurengo atalean aztertuko da. Horrek elkarren osagarri diren ikuspegiak izatea ahalbidetuko du.

10.000 biztanletik gorako udalerriek emandako erantzunen arabera, kritikarik edo zailtasunik gehienak, zalantzarik gabe, **haurtzaroko zerbitzu espezializatuaren arloan daude; zerbitzuok foru aldundien mendekoak** dira, Araban izan ezik.

Adierazitako arazoen zerrenda oso luzea da:

- Teknikariak sarritan aldatzea, harrera eta balorazio zerbitzuan;
- Saileko langileekin kontaktua edukitzeko zailtasunak;
- Kontsultako edo aholkularitzako lekurik ez edukitzea, udal zerbitzuetako profesiona-
lentzat;
- Adierazleen eskuliburu bateraturik ez edukitzea;
- Jarduketa protokolorik ez egotea;
- Alde bakarreko erabakiak hartzea;
- Kasuak batera ez baloratzea;
- Erantzunak azkar ez ematea (batzuetan, zazpi hilabete itxaron behar);
- Daturik ez egotea, Aldundiak kasuren bat onartzen duenetik...

Adierazitakoaren arabera, oro har, beharrezkoak dira protokoloak, arduradunen arteko akordioak (ez teknikarien artekoak), jarduketa esparruen mugaketa hobe...

Kasu batzuetan, izandako arazoetan konponbiderako formulak bilatu dira, adibidez, bate-
rako protokoloak (adibidez, Pasaian) edo eskualde mailako bitarteko zerbitzuen sorkuntza
(Gipuzkoa).

Beste batzuetan, antolamendu mailako aldaketak adierazi dira; esate baterako, balorazioko
batzorde teknikoaren sorkuntza, udal zerbitzuetako profesionalen partaidetzarekin (ararte-
koak orain dela urte asko egindako gomendioa); edo kanpoko balorazioen proposamena
(kanpoko izaera hori azpimarratuta), kasu bakoitzari dagokion eskumen maila ezartzeko.

Honako hau dago ekarpen ugariren azpian edo esplizituki adierazita: beren lanbide irizpidea
zalantzan jartzeak sortzen dien ondoeza (onartu gabeko deribazioak), edo beren balioa gu-
txiesten dela edo behar bezala aintzat hartzen ez dituztela sentitzea (erabakiak hartu baino
lehen, hartu bitartean eta hartu ondoren) eraginezko ondoeza.

Horren erakusgarri, hitzez hitz transkribatutako esaldi batzuk aipatuko ditugu:

- *“Echamos en falta mayor participación en la determinación final de la categoría de riesgo”*
- *“Cuando surge la duda de si el caso es grave o es moderado, los ayuntamientos no podemos decidir porque la Diputación es juez y parte”*
- *“Normalmente cuando se deriva un caso es después de dos o tres años de intervención (...). Siempre ponen en duda todo el trabajo realizado, vuelven a hacer un estudio que dura meses y se pierde un tiempo importante, para luego determinar (no siempre) lo que ya se había valorado desde los servicios sociales de base”*
- *“Está claro que tenemos diferentes criterios de evaluación de caso pues no aceptan derivaciones que consideramos en grave riesgo y que superan las posibilidades de intervención municipal. Este tipo de gestión de casos nos lleva a una desconfianza hacia la sección de menores de Diputación y hace que derivemos el menor número posible de casos...”*

Zerbitzu bakoitzarekiko koordinazioari buruzko iruzkinen ildo beretik, udalek balorazio eta proposamen zabalagoak ere egin dituzte, edo lanaren multzo osoan, harremanak izateko moduetan edo ikusitako bilakaeran eragina dutenak. Esate baterako:

Nolanahi ere, koordinazioa hobetu beharra (detekzio handiagoa eta erantzun hobea nahiz azkarragoa lortzeko) ia guztiek sentitu eta adierazi dute; gainera, lehen esan dugunez, alderdi horixe berretsi dute udalik gehienek; erantzunak (gogoan izan), kasurik gehienetan, oinarrizko gizarte langileek edo udalerriko gizarte zerbitzuetako arduradunek eurek landu dituzte.

1.2) Foru aldundiek haurrei emandako arreta

Orain arte udal mailan haurren babesari dagozkion informazioa eta balorazioak aipatu ditugu.

Goazen orain hiru foru aldundien datuak eta ikuspegia biltzera, horiexek baitira arrisku edo babesgabezia larriko egoerei aurre egiteko erakunde arduradunak.

Horretarako, urriaren bukaeran, Arartekoak ofiziozko espediente bat igorri zion aldundi bakoitzari, honako informazio hau eskatzeko:

Oinarrizko datu kuantitatiboek dagokienez:

- 1) 2008 eta 2009. urteetako espedienteei eta urte horietan artatutako biztanleei buruzko datuak:
 - Zenbat espediente zabaldu ziren urte bakoitzean.
 - Zenbat adingabe zeuden nahastuta espediente horietan.
- 2) Familiagandik banantzeko babes-neurriek buruzko datuak (2008-12-31n, 2009-12-31n edo datuak dauden azken egunean):
 - Familia-gunetik banantzeak.
 - Egoitza-harrerak.
 - Familia-harrerak.
 - Familia-harreraren antzeko egoerak.
- 3) Adopzioen gaineko datuak (2009. urtekoak; 2009ko daturik ez badago, 2008koak), Estatukoak eta nazioartekoak bereiziz:
 - 2009-01-01ean erantzunaren zain dauden eskabideak.
 - 2009an egin diren eskabide berriak.
 - 2009an gauzatutako adopzioak.
 - 2009-12-31n erantzunaren zain dauden eskabideak.
- 4) Egoitza zerbitzuen sareari buruzko datuak (2009-12-31n edo ahalik eta datarik eguneratuenean), zentro bakoitzaz datuok adieraziz:

- Zentroaren izena eta helbidea.
- Publikoa ala pribatua den (zein erakundek kudeatzen duen).
- Zenbat plaza dauden aurreikusita.
- Zenbat plaza dauden hartuta (adierazten den datan).
- Langileak (zenbat profesional dauden, arduraldi osotan kalkulatuta)
- Artaturiko taldearen ezaugarriak.

Izaera kualitatiboko beste informazio batzuei buruz, aurreko urteetako jarraipen-lanak kontuan hartuta, izandako bilakaera baloratzeko informaziorik egokienak, gure ustez, azken bi urteotan honako gai hauetan egin diren hobekuntzekin lotutakoak izan litezke:

- 1) Planak, egitarauak eta ebaluazioak.
- 2) Talde teknikoak, profesionalak eta koordinazioa.
- 3) Arrisku edo babesgabetasun egoerak antzematea.
- 4) Erabakiak hartzeko prozedurak.
- 5) Bizikidetasun arauak eta parte hartzeko eta kexak egiteko mekanismoak arautzea.
- 6) Zerbitzu eta egitarauak ebaluatu, ikuskatu eta kontrolatzea.
- 7) Zentroak 131/2008 Dekretuak ezarritako baldintzetara egokitzea. Dekretu horrek arautzen ditu gizartean babesik gabe dauden haur eta nerabeentzako egoitzak harrerako baliabideak.

Administrazio eskudunei helarazitako eskaeran, informazioa ahalik eta xehatuena izatea eskatu zen, eta baita orain dela gutxi sartutako hobekuntzetan edo oraindik konpondu gabe dauden arazoetan oinarriturikoa izatea ere.

Bestalde, foru aldundien eta udaletako zerbitzuen mendeko umeen zerbitzu espezializatuen arteko koordinazioa iaz azken horien aldetik balorazio nahiko kritikoa jaso zuen gaietako bat izan zela aintzat hartuta, interesgarria zen foru aldundiek horri buruz egiten zuten balorazioa. Horrela, iazko txostenean (ikus 2008ko txostena, 381-382 orr.), eta baita honetan ere aurreko orrialdeetan laburbilduta, jasotako udalen informazioa alderatzea lortu nahi zen.

Datozen orrialdeetan, foru aldundi bakoitzetik eskuratutako informazioa laburbiltzen saiatuko gara, lurraldez lurralde. Horretarako, 11 puntuak jarraituko ditugu eta egin nahi den jarraipena egiteko esanguratsuentzat jotako datuetara mugatuko gara.

1. ARABAKO LURRALDE HISTORIKOA

Arabako Foru Aldundiak emandako erantzunetik hurrengo datuak azpimarra ditzakegu (normalean, Vitoria-Gasteizko Udalarri dagozkion datuak biltzen ditu, izan ere, gogoratuko den moduan, berariazko arretarako sarea du).

1) *Espedienteei eta 2008 eta 2009 urteetan arreta emandako biztanleriari buruzko datuak*

	2008	2009
Jasotako jakinarazpen kopurua	120	154
Kasu bakoitzean ageri den adingabe kopurua	152	205

2) *Familia banantzeko babes neurriei buruzko datuak*

	2008	2009
Familia gunetiko banantzeak:		
Gain hartutako zaintzak	51	42
Gain hartutako tutoretzak	26	24
Egoitza harrerak		
Harrera eta Larrialdietarako Zentroak	118	92
Bizitokiak	98	114
Familia harrerak	129	131
Familia harreraren antzeko egoerak	5	5

3) *Adopzioei buruzko datuak*

Nazioartekoak

2009/01/01ean ebazpen zain zeuden egokitasun ziurtagirien eskaerak	7
Egokitasun ziurtagiria eduki, baina jatorriko herrialdeen aldetiko esleipen zain zeuden eskaerak	161
Egokitasun ziurtagiria eduki, eta jatorriko herrialdera bidaltzeko dokumentazioa prestatzen ari zirenen espedienteak	30
Egokitasun ziurtagiria eskuratzeko aurkeztutako eskaerak	30
Eratutako adopzioak	33
2009/12/31n ebazpen zain zeuden eskaerak	11

Estatukoak

2009/01/01ean ebazpen zain zeuden eskaerak	38
2009an aurkeztutako eskaera kopurua	13
Eratutako adopzioak	3
2009/12/31n ebazpen zain zeuden eskaerak	20

4) Egoitza zerbitzu-sareari buruzko datuak

Zentroa	Tipologia	Kudeaketa	Plaza Kop.	Okupatutako Plaza Kop.	Lantaldia
Geroa Etxea	Egoitza harrerako oinarrizko baliabidea	GOFEK zuzenean	8	8	10
Paula Montal Etxea	Egoitza harrerako oinarrizko baliabidea	Lankidetzta Hitzarmena GOFEren eta Nuevo Futuro Elkartearen artean	7	7	8
Hazibide Etxea	Egoitza harrerako oinarrizko baliabidea	Lankidetzta Hitzarmena GOFEren eta Nuevo Futuro Elkartearen artean	7	7	10
Sendoa Etxea	Egoitza harrerako oinarrizko baliabidea	Lankidetzta Hitzarmena GOFEren eta Nuevo Futuro Elkartearen artean	7	8	10 ¹
Santa Mariako Kantoia Etxea	Egoitza harrerako oinarrizko baliabidea	Vitoria-Gasteizko Udalaren eta Irse Elkartearen arteko kontratua	10	9	Udal kudeaketa
Pablo Uranga Etxea	Egoitza harrerako oinarrizko baliabidea	Vitoria-Gasteizko Udalaren eta Irse Elkartearen arteko kontratua	10	9	Udal kudeaketa
Osasun Iturri Etxea	Egoitza harrerako oinarrizko baliabidea	Vitoria-Gasteizko Udalaren eta Irse Elkartearen arteko kontratua	10	10	Udal kudeaketa
Txalaparta Etxea	Egoitza harrerako oinarrizko baliabidea	Vitoria-Gasteizko Udalaren eta Irse Elkartearen arteko kontratua	10	9	Udal kudeaketa
Sansoheta Gizarte eta Hezkuntza Etxea	Portaera arazoak dituzten nerabeak	GOFEren eta Izan Elkartearen arteko kontratua	16	3 ²	20
Orhy emanzipazio etxebizitza	Emanzipazio etxebizitza	Lankidetzta Hitzarmena GOFEren eta Koloro Guztiak Elkartearen artean	5	4	5
Bosco Etxea Harrera eta Larrialdietarako zentroa	Harrera eta larrialdietarako zentroa nerabeentzat	Lankidetzta hitzarmena GOFEren eta San Francisco de Sales Sozietatearen artean	10 (erreserba gisako beste 2 plaza gehiago)	10	17
"Hazaldi" Harrera eta Larrialdietarako Zentroa	Harrera eta Larrialdietarako zentroa Otik 18 urte bitarteko gazteentzat	Lankidetzta hitzarmena GOFEren eta Karitateko Alaben artean	22	23	20
Zandueta terapia zentroa (Nafarroa)	Hezkuntza eta terapia zentroa (mendetasunak)	Hitzartutako plazak GOFEren eta Dianova Elkartearen artean	5	5	

1 Koordinatzaileak, psikologoak eta gizarte langileak eraturako talde teknikoak. Paula Montal, Hazibide eta Sendoa etxeek partekatzen dutena.

2 Gainerako plazak bakarrik dauden adingabe atzeritarrek betetzen dituzte.

5) Planak, programak eta ebaluazioak

Sailak 2008 eta 2009 urteetan egindako programei eta ebaluazioei buruzko informazioa eman du, hain zuzen ere hurrengoei buruzkoa:

- Arabako Lurralde Historikoan Umeei zuzendutako gizarte zerbitzuen jarduera gida ezartzen jarraitzea, 2005ean onarturikoa. Haren helburua laneko sistemak eta prozedurak hobetzea da, eta baita zerbitzu ezberdinen artean jarduera koherentea eta koordinatua sustatzea ere.
- Egoitza harrerako sarean, EHEES (Egoitza Harreraren Ebaluazio eta Erregistro Sistema) ezartzen jarraitzea.
- Familia Esku-hartzeko Programa Espezializatua eta Esku-hartzeko Programa Ebaluatzea eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Familia Jarraipena egitea, "Umeak babestea aztertu eta hartan prestatzeko Darlington-i elkartearen" aldetik.
- Bosko Etxea Nerabeentzako Harrera eta Larrialdietarako Zentroaren eta Hazaldi Larrialdietako Harrera Zentroaren ebaluazioa, "Umeen Ongizatea Aztertu eta Sustatzeko Elkarte den NIERU Elkartearen" aldetik Oviedoko Unibertsitateko Familian eta Haurtzaroen Ikertzeko Taldearen laguntzarekin.
- "Umeak babestea aztertu eta hartan prestatzeko Darlington-i elkartearen" aldetik Familia Harrerako Programa Ebaluatzea. Haren helburuak hauek izan dira:
- Programak eta zerbitzuak Gizarte babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza harrerako baliabideak arautzen dituen uztailaren 8ko 131/2008 Dekretuaren eskakizunetara egokitzea.

6) Talde teknikoak, profesionalak eta koordinazioa

Adingabeen eta Familiaren Arloko Zuzendariordetza Teknikoak 22 profesional ditu, gehienak psikologoak, gizarte langileak eta hezitzaileak, eta hiru lantalde edo unitatetan antolatzen dira (Harrera eta Balorazio Unitatea, Egoitza Harrerako Unitatea eta Familia Harrera eta Adopzio Unitatea). Profesional bakoitzaren betekizunak eta unitate bakoitzaren laneko edukia Arabako Lurralde Historikoan Umeei zuzendutako gizarte zerbitzuen jarduera gidan definituta daude. Erabiltzen den laneko metodologia kasu koordinazioarena da, profesional bakoitzari kasu horretako esku-hartzearen lider eta koordinatzaile izateko ardura esleituz.

Halaber, adierazi egin da etxeetan eta harrera zentroetan talde teknikoak ezartzen ari direla. Horiek psikologoek eta gizarte langileek eratzen dituzte, arreta zuzeneko langileen esku-hartzea (hezitzaile eta hezkuntza laguntzaileena) babestu eta orientatzeko helburuarekin.

7) Arrisku eta babesgabetasuneko egoerak antzematea

Haurrek bizi ditzaketen arrisku edo babesgabetasuneko egoerak antzeman eta hartzea Udaleko Gizarte Zerbitzuen ardura da, zuzenean Adingabeen eta Familiaren Arloak zuzenean jasotzen dituen salbuespeneko kasu batzuk salbu (idatzizko komunikazioak Fiskaltzaren, Epaitegien eta Ospitaleen aldetik babesgabetasuneko egoera larriei buruz, zaintza eskaerak eta beste autonomia erkidego batzuen eskaerak).

2009 urtean zehar, Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek eta udalek landutako “Euskal Autonomia Erkidegoko haur eta nerabeen babes eta laguntzarako lurralde eta udal gizarte-zerbitzuetan arrisku eta babesik gabeko egoeren larritasuna ebaluatzeko tresna” aurkeztu eta aplikatu da. Ararteko erakundetik tresna horren eraginaren gaineko jarraipena egingo da, eta datozen txostenetan emango da horren berri.

8) Erabakiak hartzeko prozedurak

Sailaren erantzunak adierazi du erabakiak hartzeko prozesua jarraikakoa dela, eta hasieran egiten den kasuaren baloraziotik hasi (kasu koordinatzaileak landutakoa) eta Kasu Planaren proposamenera eta hartu beharreko babes neurriak onestera (Adingabeen Kontseiluari dagokion erabakia) iritsi arte hartzen duela. Babeseko legezko neurri bat hartzea behar duten kasuetan (zaintza edo tutoretza), Adingabeen eta Familiaren Arloak ebazpenaren kopia bat helarazten dio Adingabeen Fiskaltzari.

9) Bizikidetzaren arauak eta parte hartzeko eta kexa adierazteko mekanismoak arautzea

Programak eta zerbitzuak Gizarte babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza harrerako baliabideak arautzen dituen 131/2008 Dekretua indarrean jartzearekin batera, ordura arte egoitza harrerako baliabide guztietan zeuden Bizikidetzaren Gidak egokitu beharra ekarri du. Gauzak horrela, Bizikidetzaren gida horiek egokitzen ari dira, Dekretuak finkatutako alderdiak bertan jasota gera daitezkeen, besteak beste: haur eta nerabeen eta profesionalen eskubideak eta betebeharrak, bizikidetzaren arauak, larrialdiko sarreretarako prozedura arauak, adingabeen eta haien familien parte-hartzerako bideak, jarduera protokoloak, kexak eta iradokizunak adierazteko prozedurak, eta abar.

10) Zerbitzuen eta programen ebaluazioa, ikuskapena eta kontrola

Zerbitzuen ebaluazioa funtsezko bi tresna erabiliz egin da:

- Urteko Memoria; bertan, baliabidearen bilakaera kuantitatiboa eta kualitatiboa islatu dira.
- Jarraipena egiteko aldizkako bilerak Adingabeen eta Familiaren Arloaren eta baliabidea kudeatzen duen entitatearen artean (hiru hiletik behin harrera eta

larrialdietarako zentroen, egoitza harrerako oinarrizko programa duten etxeen eta emantzipazio etxebizitzien kasuan; hilean behin portaera arazoak dituzten adingabeen etxeen kasuan).

Adingabeen banakako programak ebaluazioaren xede dira ere: Hasierako balorazioaren ostean, hiru hilabete igarotzen direnean egiten da ebaluazio berria eta, ondoren, sei hiletik behin (4 urtetik beherakoen kasuan izan ezik; horien kasuan, lau hiletik behin egiten da ebaluazioa).

11) Zentroak Gizarte babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza harrerako baliabideak arautzen dituen 131/2008 Dekretuak finkatzen dituen baldintzetara egokitzea

Sailaren ustetan, egoitza harrerako baliabideak bat datoz Dekretuko eskakizunekin, atenditutako adingabe, profesional/adingabe ratio, eskakizun material eta profesionalen titulazioari dagokienez. Baliabideek eduki beharreko gutxieneko dokumentazioari dagokionez, orientabideak eman dira kudeaketako urteko planak lantzeko, eta Bizikidetza Gidan sartu beharreko protokoloak berriro definitzen eta osatzen ari dira.

12) Adingabeen eta Familiaren Arloaren eta Udal Zerbitzuen arteko koordinazioa

Adierazi den moduan, erakunde honek foru erakundeei helarazitako eskaeran, balorazioa eskatu zen foru aldundien mendeko umeen zerbitzuen eta udal zerbitzuen arteko koordinazioaren gainean, izan ere, azken horiek kritika gehienekin baloraturako gaietako bat izan zen. Edonola ere, Araba salbuespen izan zen. Udalek adierazitako arazoei erantzunez (ikusi 2008ko txostena, 381-382 orr.), Sailak hainbat ohar eta hobekuntza helarazi ditu. Horrela, adibidez:

- Harrera eta balorazio zerbitzuko teknikariak maiz aldatzeari dagokionez, adierazi egin da aldaketa horien eragina murriztu egin dela neurri handi batean unitatean geratu diren teknikarien denborarekin eta esku-hartzearekin, haiek orientatu eta prestatu dituztelako sarrera berriko langileak.
- Saileko langileekin harremanetan jartzeko zailtasunei dagokionez, uste da teknologia berrien erabilerak jasandako orokortzeak nabarmenki murriztu dituela arazo horiek.
- Udal zerbitzuetako profesionalentzat kontsulta edo aholkularitza esparrurik ez edukitzeari dagokionez, gogorazi egin da *on line* erako kontsulta sistema sortu dela Balorazio Baliabidearen aplikazioari buruz; edo Adingabeen eta Familiaren Arlotik erreferentziako teknikari bat jartzen dela udal zerbitzuen eskura, hark Arloko beste teknikariek batera aholkularitza eta koordinazio lanak egiten dituzan.

- Alde bakarretik erabakiak hartzeari eta kasuak elkarrekin ez baloratzeari dagokionez, adierazi egin da erabakiak hartzerakoan iritzi trukea, udal teknikariekin alde aurretik adostutako lan bat, eta abar egon ohi direla aurretik.

Edonola ere, arazo hauek beste lurraldeetako udalek planteatu zuten batez ere, arabarrek baino gehiago.

2. BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA

1) Espedienteei eta 2008 eta 2009 urteetan arreta emandako biztanleriari buruzko datuak

	2008	2009
Irekitako espediente kopurua	1.006	852
Kasu bakoitzean ageri den adingabe kopurua	1.006	852

(Bi adierazleetako datuek bat egiten dute, Bizkaiko Foru Aldundiak espediente bat irekitzen duelako atenditutako adingabe bakoitzeko).

2) Familia banantzeko babes neurriei buruzko datuak 2009ko abenduaren 31n

	2009
Familia gunetiko banantzeak:	
Gain hartutako zaintzak	283
Gain hartutako tutoretzak	305
Egoitza harrerak	668
Familia harrerak	380

(Egoitza harreraren kopuruak bakarrik dauden adingabe atzerritarrak ere biltzen ditu)

3) Adopzioei buruzko datuak

Estatukoak

Jasotako eskaera berriak	57
Eratutako adopzioak	23
09/01/01 ean ebazpen zain zeuden eskaerak	146
09/12/31n ebazpen zain zeuden eskaerak	200

Nazioartekoak

Jasotako eskaera berriak	111
Eratutako adopzioak	74
09/12/31n ebazpen zain zeuden eskaerak	9

(09/12/31n ebazpen zain dauden eskaeratzat, Aldundiak izapiderik hasi ez duten horiek hartzen ditu. Adopzioa eginda ez duten horiek hartzen badira, prozesuaren fase ezberdinetan dauden 576 espediente inguruko kopuruan kokatuko ginateke).

4) Egoitza zerbitzu-sareari buruzko datuak**Egoitza harrerako oinarrizko sarea**

Zentroa	Kudeaketa	Entitatea	Plazak	Taldearen ezaugarriak	Udalerrria
EL REFUGIO	Hitzarmena	Karitatearen Andra Maria	28	Talde txikiak. Mistoa Otik 12 urtera bitartekoekin.	BILBO
	Hitzarmena		16	Nerabe taldeak. 10 urtetik 18 urte bitarteko neskek.	
SANTA MARIA DE ARTAGAN EGOITZA- IKASTETXEA	Hitzarmena	Sta. María de Artagan	15	Neskak. 7 urtetik 18 urte arte.	BILBO
STELLA MARIS EGOITZA ZENTROA	Hitzarmena	Aingeru zaindariak	27	Mistoa 12 urte bitarte. 13 urtetik 18 urte bitarteko neskek.	BILBO
BASAURI ETXEA	Publikoa	GUFE	12	Mistoa. 2 urtetik 18 urte arte.	BASAURI
FUEROS ETXEA	Publikoa	GUFE	12	Mistoa. 2 urtetik 18 urte arte.	BARAKALDO
MUNGIA ETXEA	Publikoa	GUFE	12	Mistoa. 2 urtetik 18 urte arte.	MUNGIA
MURRIETA ETXEA	Publikoa	GUFE	12	Mistoa. 2 urtetik 18 urte arte.	BARAKALDO
PORTUGALETE ETXEA	Publikoa	GUFE	12	Mistoa. 2 urtetik 18 urte arte.	PORTUGALETE
SAN ADRIAN ETXEA	Publikoa	GUFE	12	Mistoa. 2 urtetik 18 urte arte.	BILBO
SANTURTZI ETXEA	Publikoa	GUFE	12	Mistoa. 2 urtetik 18 urte arte.	SANTURTZI
TXURDINAGA ETXEA	Publikoa	GUFE	12	Mistoa. 2 urtetik 18 urte arte.	BILBO
ZABALBURU ETXEA	Publikoa	GUFE	12	Mistoa. 2 urtetik 18 urte arte.	BILBO
ARGILEKU ETXEA	Hitzarmena / GUFE	Kaputxinoak	10+3	Neskak. 2 urtetik 18 urte bitarte (larrialdietarako 3 plaza).	BARAKALDO
LARRASOLO ETXEA	Hitzarmena / GUFE	Kaputxinoak	9	Mistoa. 2 urtetik 18 urte arte.	BARAKALDO
MAÑARIKUA ETXEA	Hitzarmena	Cáritas	12	Mistoa. 2 urtetik 18 urte arte.	BILBO

Zentroa	Kudeaketa	Entitatea	Plazak	Taldearen ezaugarriak	Udalerrria
ALBIA ETXEA	Hitzarmena	Urgatzi	12	Mistoa. 2 urtetik 18 urte arte.	BILBO
IPARRAGIRRE ETXEA	Hitzarmena	Urgatzi	12	Mistoa. 2 urtetik 18 urte arte.	BILBO
AREATZA ETXEA	Hitzarmena	Urgatzi	12	Mistoa. 2 urtetik 18 urte arte.	BILBO
AMIGÓ PORTUGALETE ETXEA	Hitzarmena	Amigó Fundazioa	12	Mistoa. 2 urtetik 18 urte arte.	PORTUGALETE
SARRIENA ETXEA	Hitzarmena	Bizgarri	12	Mistoa. 2 urtetik 18 urte arte.	LEIOA
SALTILLO ETXEA	Hitzarmena	Casa del Salvador	9	Mistoa. 2 urtetik 18 urte arte.	PORTUGALETE
DOLARETXE GLU	Publikoa	GUFE	20	Mutilak eta neskak. 0 eta 3 urte artekoak.	BILBO

Nerabeen harreran espezializatutako sarea

Zentroa	Kudeaketa	Entitatea	Plazak	Taldearen ezaugarriak	Udalerrria
OLABARRIETA ETXEA	Hitzarmena	Bizgarri	10	Nerabeak. Mistoa. 12 urtetik 18 urtera bitarte.	GALDAKAO
ZABALONDO ETXEA	Hitzarmena	Amigó Fundazioa	12 + 3	Nerabeak. Mistoa. 12 urtetik 18 urte arte. Larrialdia: 3	MUNGIA
ZANDUETA ZENTROA	Hitzarmena	Dianova	5	Kontsumo arazoak dituzten adingabeak	ZANDUETA (NAFARROA)
MUSKIZ ETXEA	Hitzarmena	Amigó Fundazioa	10	Nerabeak. Mistoa. 12 urtetik 18 urtera bitarte.	MUSKIZ
SODUPE ETXEA	Hitzarmena	Urgatzi	10	Nerabeak. Mistoa. 12 urtetik 18 urtera bitarte.	SODUPE

Ezintasun handiko adingabeak hartzean espezializatutako sarea

Zentroa	Kudeaketa	Entitatea	Plazak	Taldearen ezaugarriak	Udalerrria
URIBARRI ZENTROA	Publikoa	GUFE	10	Mistoa. 3 urtetik 18 urte arte. Ezinduak.	BILBO
MADARIAS ZENTROA	Hitzarmena	APNABI	9	Mistoa. 3 urtetik 18 urte arte. Ezinduak.	ERANDIO

5) Planak, programak eta ebaluazioak

Informazioa eman zen datan (2010/01/12), Aldundiak ez zituen Umeen Zerbitzuak garatutako programei buruzko datu guztiak, baina aurrerago bidaltzeko konpromisoa hartu zuen.

6) Talde teknikoak, profesionalak eta koordinazioa

Umeen Zerbitzua 75 profesionaleko taldeak eratzen du (atalburuak, psikologoak, gizarte langileak, hezitzaileak, administrazioko langileak), eta hiru ataletan egituratuta dago:

- Harrera, Balorazio eta Orientazio Atala.
- Famili Harrera eta Adopzioen Atala.
- Egoitza Harrerako Atala.

7) Arrisku eta babesgabetasuneko egoerak antzematea

Bizkaiko Lurralde Historikoko zerbitzu espezializatuaren Esku-hartze Gidaliburuan, babesik gabeko haurren kasuetan erabiltzekoa dena, esku-hartzeen prozesu teknikoak, harrera eta ikerketa nahiz hasierako ebaluazioa jasotzen dira III., IV. eta V. kapituluetan, horien bitartez arrisku eta babesgabetasun egoerak antzemate aldera.

2009 urtean zehar, Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek eta udalek landutako "Euskal Autonomia Erkidegoko haur eta nerabeen babes eta laguntzarako lurralde eta udal gizarte-zerbitzuetan arrisku eta babesik gabeko egoeren larritasuna ebaluatzeko tresna" (*Balora tresna*) aurkeztu eta aplikatu da. Tresna hori aurreko orrialdeetan aipatu izan da, eta haren aplikazioari buruzko inguruabarrak datozen txostenetan emango dira.

8) Erabakiak hartzeko prozedurak

Erabakiak hartzeko prozedurak Babesik gabeko haurren kasuetan esku hartzeko Gidaliburuan xedatutakoari heltzen dio. Jakinarazi da hartutako babes neurri guztiak Haurrak eta Nerabeak Babesteko Batzordean hartzen direla, hain zuzen ere 2005eko irailaren 12ko 173. BAOn argitaratutako abuztuaren 25eko 12525/2005 Foru Aginduak arautu bezala eztabaidarako eta erabakiak hartzeko laguntzarako kide anitzeko organoan.

9) Bizikidetzaren arauak eta parte hartzeko eta kexa adierazteko mekanismoak arautzea

Erakunde honek oraindik eskuratu ez duen txosten osagarri bati heltzen zaio.

10) Zerbitzuen eta programen ebaluazioa, ikuskapena eta kontrola

Puntu honetan ere aipatu egiten da oraindik eskuratu ez den txosten osagarri bat bidaliko zaigula.

11) Zentroak Gizarte babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza harrerako baldibideak arautzen dituen 131/2008 Dekretuak finkatzen dituen baldintzetara egokitzea

Sailak uste du zentroak Dekretuan ezarritako baldintzetara egokitzea mugatuta egon dela nabarmenki egungo inguruabarrengatik, bai aurrekontu alorrekoak, bai egoitza plazak behar izatekoak.

12) Zerbitzu espezializatuen eta udal zerbitzuen arteko koordinazioa

Udalek foru aldundien mendeko diren umeen zerbitzuen eta udal zerbitzuen arteko koordinazioari dagokionez adierazitako arazoak direla-eta (ikus 2008ko txostena, 381-382 orr.), Sailak hainbat ohar helarazi dizkigu. Horrela, adibidez:

- Teknikariek maiz jasaten dituzten aldaketei dagokienez, adierazi egin da gaur egun Umeen Zerbitzuari atxikitako teknikarietatik bost besterik ez direla bitarteko funtzionario, eta gainerako langileak langile finkoak direla.
- Saileko langileekin harremanetan jartzeko zailtasunei dagokienez, adierazi egin dute telefono guztiek erantzungailu automatikoa dutela harreman horiek errazteko, eta deiak kasuan kasuko ataletako administrazio langileek ere atenditzen dituztela.
- Gainerako gaiei dagokienez, adierazi egin dute 2008 urtean Sailak esku-hartzte gidaliburua egitea sustatu zuela Udal Gizarte Zerbitzuentzat eta haiek Umeen Zerbitzuarekiko duten koordinazioarentzat. Aitzitik, saiakera hori ez zuten udal eremutik onartu, hura egitea atzeratuz aurreko orrialdeetan aipatu den Balora Tresna amaitzen zenerako.

3. GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOA

Hemen islatutako datuak mezu elektroniko bitartez jaso ziren urtarrilaren 27an, espedienteari emandako erantzun formala eta gero.

1) Espedienteei eta 2008 eta 2009 urteetan arreta emandako biztanleriari buruzko datuak

Espediente kopuruak babes sisteman alta eman zaien familia unitateei heltzen die; ondoren datozen zutabeetan hiru egoera tipologia finkatu da. Adingabe arau-hausleen kategorian, Adingabeen Fiskaltzak bidalitako espedienteak sartzen dira 14 urtetik beherako arau-hausleentzat (5/2000 Lege Organikoaren babesean), eta baita adin horren gainetik egonagatik ere Fiskaltzak kasuan kasuko babes neurriak hartzea egokitzen jotako horien kasuak ere.

	Espedienteak	Bertakoak	Arau-hausleak	BDAA
2008	562	168	169	225
2009	415	172	124	119

Espedienteetan ageri diren adingabeei dagokienez:

	Adingabeak	Bertakoak	Arau-hausleak	BDAA
2008	661	267	169	225
2009	496	253	124	119

2) Familia banantzeko babes neurriei buruzko datuak

	Neurriak data honetan: 2009/01/01			Neurriak data honetan: 2009/12/31		
	Bertakoak	Atzeritarrak	Guztira	Bertakoak	Atzeritarrak	Guztira
Epailearen erabakia	4	0	4	6	0	6
Behin-behineko tutoretza	7	47	54	10	5	15
Tutoretza	267	162	429	310	110	420
Zaintza. Gurasoen eskaera	77	0	77	67	0	67
Behin-behineko zaintza	2	0	2	1	0	1
Norberaren eskaera	15	3	18	8	0	8
GUZTIRA	372	207	584	402	115	517

Zaintzaren burutzapena jarraian adieraziko den moduan banatzen da:

	2008/12/31	2009/12/31
Egoitza harreran dauden adingabeak	375	298
Familia harreran dauden adingabeak	193	239

3) Adopzioei buruzko datuak

	Estatuko adopzioa	Nazioarteko adopzioa
2009/01/01ean ebazpen zain zeuden eskaerak	18	41
Aurkeztutako eskaerak	76	82
Eratutako adopzioak	9	53
2009/12/31n ebazpen zain zeuden eskaerak	93	29

4) Egoitza zerbitzu-sareari buruzko datuak

Gipuzkoako Egoitza Harrerako Sarea honela banatzen da:

- Larrialdiko harrera programa.
- Oinarrizko programa orokorra.
- Emantzipazio programa.
- Programa espezializatuak.

Larrialdiko harrera programa

Zentroa	Herria	Kudeaketa	Plaza kop.	09/12/31n okupatutako plaza kop.	Lantaldea	Atenditutako taldea
Loistarain LHZ ¹	Donostia	Hitzarmena Karitatearen alabekin	15	16	33,50 ²	0 eta 12 urte arteko adingabeak, larrialdiko harrera egoeran badaude
Zikuñaga LHZ	Hernani	Kontratua Nuevo Futuroren Etxekin	10	6	19	Bertako nerabeak, 13 eta 17 urte artekoak badira eta larrialdiko harrera egoeran badaude
Uba LHZ	Donostia	Kontratua Dianova Elkartearekin	34 (3 modulutan)	9	68 ³	Larrialdiko harrera egoeran eta bakarrik dauden adingabe atzerritarrak

(Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentua. Guk egindakoa)

Oinarrizko programa orokorra

Zentroa	Herria	Kudeaketa	Plaza kop.	09/12/31n okupatutako plaza kop.	Lantaldea	Atenditutako taldea
Loistarain EZ ⁴	Donostia	Hitzarmena Karitatearen alabekin	15	11	33,50 ⁵	0 eta 12 urte arteko adingabeak, oinarritzko harrera programa orokorraren (OPO) barruan
Zarategi EZ	Donostia	Hitzarmena Karitatearen alabekin	24 (3 modulutan)	17	31,5	0 eta 12 urte arteko adingabeak, OPOren barruan
Heriz EZ	Donostia	Hitzarmena Karitatearen Amaren Batasun Latindarrekin.	8	7	10,5	0 eta 12 urte arteko adingabeak, OPOren barruan.

- 1 LHZ: Larrialdiko Harrera Zentroa.
- 2 Lantaldea baliabide honetarako eta entitate berdineko OPOrako (Oinarritzko Programa Orokorra).
- 3 Zentroa beteta dagoenean.
- 4 EZ: Egoitza Zentroa.
- 5 Lantaldea baliabide honetarako eta entitate berdineko OPOrako (Oinarritzko Programa Orokorra).

Zentroa	Herria	Kudeaketa	Plaza kop.	09/12/31n okupatutako plaza kop.	Lantaldea	Atentitutako taldea
Altamira EZ	Lezo	Hitzarmena Karitatearen Amaren Batasun Latindarrekin.	10	10	11,5	0 eta 12 urte arteko adingabeak, OPoren barruan
Mary Ward EZ	Donostia	Hitzarmena Mary Ward-ekin	8	8	10,5	0 eta 12 urte arteko adingabeak, OPoren barruan
Larratxo EZ	Donostia	Hitzarmena Larratxo Fundazioarekin	8	8	10,5	13 eta 17 urte arteko adingabeak, OPoren barruan
Errenteria EZ	Errenteria	Hitzarmena Larratxo Fundazioarekin	8	6	10,5	13 eta 17 urte arteko adingabeak, OPoren barruan
Ategorrieta EZ	Donostia	Hitzarmena Gipuzkoako Hezitzaile Espezializatuen Elkartearekin	8	5	10,5	13 eta 17 urte arteko adingabeak, OPoren barruan
Usandizaga EZ	Donostia	Hitzarmena Gipuzkoako Hezitzaile Espezializatuen Elkartearekin	8	7	10,5	13 eta 17 urte arteko adingabeak, OPoren barruan
Bera Bera EZ	Donostia	Hitzarmena Gipuzkoako Hezitzaile Espezializatuen Elkartearekin	8	4	10,5	13 eta 17 urte arteko adingabeak, OPoren barruan
Tolosa EZ	Tolosa	Hitzarmena Bide Berrirekin	8	6	10,5	13 eta 17 urte arteko adingabeak, OPoren barruan
Bergara EZ	Bergara	Hitzarmena Bide Berrirekin	8	7	10,5	13 eta 17 urte arteko adingabeak, OPoren barruan
Antiguo EZ ⁶	Donostia	Hitzarmena Bide Berrirekin	8	7	10,5	13 eta 17 urte arteko adingabeak, OPoren barruan
Hondarribia EZ	Hondarribia	Hitzarmena Nuevo Futuroren Etxekin	8	3	10,5	13 eta 17 urte arteko adingabeak, OPoren barruan
Frantzia EZ	Donostia	Hitzarmena Nuevo Futuroren Etxekin	8	8	10,5	13 eta 17 urte arteko adingabeak, OPoren barruan

⁶ Uztailean ireki zen, Donostiako Arrasate kaleko zentroan zeuden ekipo eta adingabeak lekuz aldatu ostean.

Zentroa	Herria	Kudeaketa	Plaza kop.	09/12/31n okupatutako plaza kop.	Lantaldea	Atentitutako taldea
Amara EZ ⁷	Donostia	Hitzarmena Nuevo Futuroren Etxeekin	8	0	10,5	13 eta 17 urte arteko adingabeak, OPoren barruan
Beasain EZ	Beasain	Hitzarmena Nuevo Futuroren Etxeekin	8	6	10,5	13 eta 17 urte arteko adingabeak, OPoren barruan
Zizurkil EZ	Zizurkil	Hitzarmena Nuevo Futuroren Etxeekin	8	7	10,5	13 eta 17 urte arteko adingabeak, OPoren barruan
Uralde EZ	Lezo	Kontratua Clece Gizarte Zerbitzuekin	10	10	10,5	12 eta 18 urte arteko BDAAK, OPoren barruan
Legorreta EZ	Legorreta	Kontratua Urgatzi Elkartearekin	10	9	15,8	12 eta 18 urte arteko BDAAK, OPoren barruan
Urretxu EZ	Urretxu	Kontratua Urgatzi Elkartearekin	10	8	15,8	12 eta 18 urte arteko BDAAK, OPoren barruan
Azpeitia EZ	Azpeitia	Kontratua Urgatzi Elkartearekin	10	5	15,8	12 eta 18 urte arteko BDAAK, OPoren barruan
Arrasate EZ	Arrasate	Kontratua Urgatzi Elkartearekin	8	5	12,1	12 eta 18 urte arteko BDAAK, OPoren barruan
Igeldo EZ	Donostia	Kontratua Urgatzi Elkartearekin	10	9	15,8	12 eta 18 urte arteko BDAAK, OPoren barruan

(Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentua. Guk egindakoa)

⁷ Udazkenean zehar, adingabeak beste zentro batzuetara eraman dira, baliabide hau 12 urtetik beherakoak harreraren hartzeko jarririko zelako. Zaharberrikuntzak egiten ari dira.

Zentro sarean hartutako adingabeez gain, beste bi adingabe ASPACEren Goienetxe zentroan daude eta beste bi, berriz, Uli Azpi Fundazioaren adingabeen unitatean.

Emantzipazio programa

Zentroa	Herria	Kudeaketa	Plaza kop.	09/12/31n okupatutako plaza kop.	Lantaldea	Atenditutako taldea
Arrasate emantzipazio etxebizitza	Arrasate	Hitzarmena Bide Berri Elkartarekin	6	5	7,75	16 eta 18 urte arteko BDAAK, emantzipazio programaren barruan
Ostalaritza ballabidea	–	Kontratua Bide Berri Elkartarekin eta Clece Gizarte Zerbitzuekin	27 (15 Bide Berri eta 12 Clecen)	4 (2 Bide Berri eta 2 Clecen)	21	16 eta 18 urte arteko BDAAK, emantzipazio programaren barruan

(Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentua. guk egindakoa)

Urtean zehar, ostalaritza ballabideetan atenditutako adingabe kopurua murriztuz joan da. 2010 urtearen hasieran ostalaritza ballabideak kentzea aurreikusi da.

Programa espezializatuak

Zentroa	Herria	Kudeaketa	Plaza kop.	09/12/31n okupatutako plaza kop.	Lantaldea	Atenditutako taldea
Urretxu neurri judizialak jarraitzeko zentroa	Urretxu	Hitzamena Bide Berri Elkartearekin	20 ¹	19	25	13 eta 18 urte arteko adingabeak, gazte justiziako zentroetan sartuta egon beharreko neurriak dituztenak
Irisasi Hezkuntza eta Terapia Zentroa	Usurbil	Kontratua Clece Gizarte Zerbitzuekin	12	12	34,39	13 eta 18 urte arteko adingabeak, portaera arazo larriak dituzten adingabeen arreta emateko programa espezializatuaren barruan
Iturriotz-Azpi Hezkuntza eta Terapia Zentroa ²	Aia	Hitzamena Dianova Elkartearekin	16	11	41,25	13 eta 18 urte arteko BDAAk, portaera arazo larriak dituzten nerabeei arreta emateko programa espezializatuaren barruan
Mendixka Egoitza Zentroa ³	Errenteria	Hitzamena Dianova Elkartearekin	10	4	16,75	13 eta 18 urte arteko BDAAk, portaera arazo larriak dituzten nerabeei arreta emateko programa espezializatuaren barruan
Zandueta Hezkuntza eta Terapia Zentroa ⁴	Zandueta (Nafarroa)	Hitzamena Dianova Elkartearekin	10	6	26,75	13 eta 18 urte arteko adingabeak, portaera arazo larriak dituzten nerabeei arreta emateko programa espezializatuaren barruan
Azpilikueta Egoitza Zentroa ⁵	Irun	Kontratua Dianova Elkartearekin	11	7	18,75	13 eta 18 urte arteko adingabeak, portaera arazo larriak dituzten nerabeei arreta emateko programa espezializatuaren barruan

¹ 2 modulutan zatituta: neurri judizialak jarraitzeko zentroa eta neurri judizialak betetzeko zentroa.

² Adingabeen zuzendutako orientazio terapeutikoko baliabidea; horietan, substantzia toxikoen kontsumoak zaildu egiten du sozialazioa eta heldutasunera iristea.

³ Bigarren faseko orientazio terapeutikoko baliabidea, Iturriotz-Azpi Hezkuntza eta Terapia Zentroaren ondotik. Uztailen irekitakoa, ekipoa eta adingabeak lekuz aldatu ostean Añorgako behin-behineko zentrotik.

⁴ Adingabeen zuzendutako orientazio terapeutikoko baliabidea; horietan, substantzia toxikoen kontsumoak zaildu egiten du sozialazioa eta heldutasunera iristea.

⁵ Bigarren faseko orientazio terapeutikoko baliabidea, Zandueta Hezkuntza eta Terapia Zentroaren ondotik.

Zentroa	Herria	Kudeaketa	Plaza kop.	09/12/31n okupaturako plaza kop.	Lantaldea	Atenditutako taldea
Oilur Zentro Espezializatua ⁶	Deba	Hitzarmena Gipuzkoa Babesten S.L. enpresarekin	24	5	33	13 eta 18 urte arteko BDAAk, portaera arazo larriak dituzten nerabeei arreta emateko programa espezializatuaren barruan
Aixola Zentro Espezializatua ⁷	Elgeta	Hitzarmena Gipuzkoa Babesten S.L. enpresarekin	10	5	-	13 eta 18 urte arteko BDAAk, portaera arazo larriak dituzten nerabeei arreta emateko programa espezializatuaren barruan

(Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentua. Guk egindakoa)

⁶ Jokabide zailtasun handiak dituzten adingabeei orientatuta, horrek beste baliabideak aprobetxatzea galarazten duenean. 2009ko otsailean irekitakoa eta 2010/01/04an itxitakoa obrak egiteko eta beste programa baterako jartzeko. Segurutasun zaintzaileak ditu.

⁷ Jokabide zailtasun handiak dituzten adingabeei orientatuta, horrek beste baliabideak aprobetxatzea galarazten duenean. 2009ko abenduan irekitakoa. Segurutasun zaintzaileak ditu.

Aipatutako baliabideez gain, hitzarmena eratu da Dianova Elkartearekin Kordobako Santa Elena zentroan 6 plaza erabiltzeko. Debako Oilur Zentro Espezializatuaren bigarren fase modura erabili da (8 plaza beteta). Beste zazpi lurraldetik kanpo daude harrera baliabideetan.

5) Planak, programak eta ebaluazioak

Sailaren erantzunak bere programa bakoitzean azken bi urteetan jazotako aldaketen gaineko errepasoa egiten du. Hain zuzen ere:

1. Adingabeen babesgabetasun egoerak baloratu eta orientatzeko zerbitzuan, aldaketa handienak Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek eta udalek lehen aipatu bezala landutako balorazio baliabidea finkatzearen ondotik datoz.
2. Familia eta gizarte eta hezkuntza esku-hartze zerbitzuan, areagotu egin dira Gizalan programako plazak eta tratu txar eta sexu abusuko kasuetan esku hartzeko programakoak.
3. Familia harrerako zerbitzuan:
 - Familia harrera profesionalizatuko programaren garapena.
 - Lankidetzak hitzarmena sinatzea Beroarekin, familia harreragileen elkartearekin, elkarte mugimendua eta aisialdi programak sustatzeko.
 - Oviedoko Unibertsitateari agindua, familia harreran kalitatea ebaluatu dezan.
4. Egoitza harrerako zerbitzuan:
 - Oviedoko Unibertsitateari bakarrik dauden adingabe atzerritarrekin garatutako esku-hartzea berriro ebaluatzea eskatzea.
 - Lankidetzak eskaera Oviedoko Unibertsitateari, egoitza harrerako esparru programa berriro definitzeko, hura inguruabar berrietara egokitze aldera (bakarrik dauden adingabe atzerritarrak areagotzea, programa espezializatuek protagonismo handiagoa edukitzea, eta abar).
 - EHEES finkatzea programa guztien zentro guztietan (larrialdiko zentroetan eta espezializatuetan, lehen erabiltzen ez baitzen).
 - Plazak eta zentroak areagotzea.
5. Adopzio zerbitzuan:
 - Lankidetzak hitzarmena sinatzea Ume Alaia Adopzioko Familien Elkartearekin (prestakuntza lanetarako, laguntzeko eta aholkularitza psikologikoa emateko).
 - Ahaidetasun biologikoko datuak eskuratzeko protokoloa finkatzea adopzio espedienteetan.
 - Foru aldundiek adingabeen adopzioaren arloan jarraitu beharreko jarduna arautzen duen ekainaren 17ko 114/2008 Dekretura administrazioaren aldetik egokitzea.

6) Talde teknikoak, profesionalak eta koordinazioa

Gipuzkoako Foru Aldundiko Haur, Nerabe eta Gazteen Zerbitzua hiru ataletan egituratzen da (sorrera berriko bat):

- Haurren Babesera Heltzeko Atala. Haren funtzioak babesgabetasun arriskuko balizko egoeren jakinarazpenak baloratu eta orientatzera, familia esku-hartzeko programetara eta babeseko legezko neurriak hartzera zuzentzen dira.
- Egoitzako Harrerako Atala.
- Famili Harrerako eta Adopzioko Atala.

Sailak azken bi urte hauetan jazotako aldaketak azpimarratu ditu, zehazki:

- Harrerako familiak prestatu eta hautatzeko eta familia harrerari babes teknikoak emateko kontratu berria.
- Familia harrerarentzako osagarria den zerbitzuaren ezarpena.
- Hitzarmena familia harrera profesionalizatuko programaren garapenerako.
- Egoitza harrerarentzako Laguntza Teknikoko Zerbitzuaren zabalkundea.
- Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak Harreran Hartzeko Programaren Koordinazio eta Jarraipen Taldearen kontratu berria.
- Hitzarmena lzeba programa garatzeko.
- Adopzioa eskatzen duten pertsonen balorazio psikosoziala egiteko laguntza teknikoko zerbitzurako kontratu berria.
- Adopzioa eskatzen duten pertsonak prestatzeko eta adopzioaren ostean aholkularitza emateko zerbitzurako kontratu berria.

7) Arrisku eta babesgabetasuneko egoerak antzematea

Arrisku eta babesgabetasun egoerak udaleko gizarte zerbitzuetatik antzematen dira, eta horiek dira haurren babes sisteman sartzeko atea lau kasutik hirutan. Arabako eta Bizkaiko aldundiek adierazten zuten moduan, euskal administrazio guztiek bateratutako balorazio tresna berria ezartzeko prozesuan ari dira.

Haur eta Nerabe Gaietarako Eskualdeko lau Taldeek 19 profesional dituzte eta lurralde osoa hartzen dute; udaleko gizarte zerbitzuen jardueren kalitatea bermatzen dute eta lotura gisa balio dute hauen eta foru zerbitzu espezializatuen artean.

8) Erabakiak hartzeko prozedurak

Kasu bakoitzean kudeaketako erabakiak hartzea jarraian adieraziko diren bost batzordeetatik bakoitzean egiten da, eta zerbitzuburuak berretsi egiten du horietako bakoitza. Proposamen orriak diputatuari aurkezten zaizkio, hark behin betiko ebatzi dezan eta, ondoren, foru agindua egin dezan. Bost lan batzordeak hauek dira:

- Balorazio eta Orientazio Batzordea.
- Familia Harrerako Batzordea.
- Adopzio Batzordea.
- Egoitza Harrerako Batzordea.
- Haur Babeseko Batzordea.

9) Bizikidetzaren arauak eta parte hartzeko eta kexa adierazteko mekanismoak arautzea

Gipuzkoako Foru Aldundiaren herritarrentzako laguntza eta arreta zerbitzuak arautzen dituen 26/2005 Foru Dekretuak finkatu egiten ditu bideak eta prozedurak foru administrazioari kontsultak, kexak, iradokizunak eta eskaerak aurkezteko. Egoitza harrerako zentro batzuetako familia eta erabiltzaileei eta udalei gogobetetasun galdeketak egin zaizkie, Haur eta Nerabe Gaietarako Eskualdeko Taldeen hartzaile diren partetik.

Sailaren erantzunaren arabera, urratsak egin dira bizikidetzaren arauari buruzko alderdian 131/2008 Dekretua aplikatze aldera. Gauzak horrela, zentro guztietan funtzionatzeko modu komunak ezarri dira, eta printzipioak, prozedurak, urraduren mailak eta neurri zuzentzaileak finkatu dira. Prozedura aldaketan ere lan egin da, adingabeei eta haien familiei entzundaldia emateko eskubidea bermatzeko.

10) Zerbitzuen eta programen ebaluazioa, ikuskapena eta kontrola

Kudeatutako zerbitzu guztiek egindako lana ebaluatzen dute. Gainera, zenbait zerbitzutan, Egoitza eta Familia Harrerako zerbitzuan bezala, kanpoko ebaluazioak ere egin dira.

Historikoki, zentroyen Ikuskapena Inbertsio, Ikuskapen eta Elkarlaneko Zerbitzuak egin ohi zuen, nahiz eta zailtasun handiekin, izan ere, jada ez zegoen erreferentzia formalik horietan emaitzak alderatzeko. Jada aipatutako 131/2008 Dekretuaren onespenez aukera eman du baliabideak ikuskatzeko protokolo bat lantzeko eta, ondoren, homologazio prozesuak garatzeko eta horiek erregistratzeko.

11) Zentroak Gizarte babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza harrerako baliabideak arautzen dituen 131/2008 Dekretuak finkatzen dituen baldintzetara egokitzea.

Zentroak 131/2008 Dekretura egokitzeko prozesua lan nekeza da, eta denbora beharko du. Egin diren urratsak hauek izan dira:

- Zentroak kudeatzeko kontratuen aldaketa. Sorrera berriko zentroak eskakizun berrietara egokituta daude.
- Zentroetan espazioak egokitzea, horrek eskatzen duen zaharberrikuntza eta hobekuntza obrekin.

- Esku-hartzea egokitzeko prozesuen eta prozeduren berrazterketa (zentro proiektuak, erregistroak eta protokoloak, eta abar). Prozesu hau martxan dago Egoitza Harrerako Taldearen mendeko diren laneko azpitalde batzuen sorreraren bitartez (entitateetako zuzendariez, zentroetako zuzendariez, Egoitza Harrerako Ataleko langile teknikoez, eta abarrez erata).
- Prozedurak eta prozesuak eguneratzea, eskubideei eta betebeharrei dagokienez.

12) Zerbitzu espezializatuen eta udal zerbitzuen arteko koordinazioa

Sailak jakinarazi du mekanismoak jarri direla koordinazioa errazteko, zehazki Haur eta Nerabe Gaietarako Eskualdeko Taldeak, eta horien balorazioa positibotzat jo da.

Udal zerbitzuek adierazitako arazoei dagokienez, bi arrazoiri egozten dizkie: Haur Zerbitzuko langileek gainean duten lan bolumen handia eta kasu bakoitzean esku nork hartu behar duen erabakitzerakoan ageri diren irizpide desadostasunak.

1.3) Haurren eta nerabeen babesa kexa batzuen ondotik

Aurten, haurrak babesteari buruz aldundiek garatutako zenbait jarduerari buruzko kexa batzuk izapidetu ditugu. Garrantzitsua da azpimarratzea hiru aldundiek alde zuzenetik finkatutako epean erantzun dietela helarazi zaizkien informazio eskaerei, eta hori oso positiboa da, erakunde honi agindu zaion lana burutzea ahalbidetzen diolako. Datozen orrialdeetan kexa horietako batzuk laburbilduko ditugu, adibide modura.

– Iradokizun bat landu dugu ([Arartekoaren ebazpena, 2009ko otsailaren 26koa](#))⁶.

Ebazpen horretan Arabako Foru Aldundiaren jarduna aztertu genuen, 5 hilabete eskaseko jaioberria babesgabetasun egoeran zegoela adierazteagatik Foru Aldundiak 2009ko urtarrilaren 7an ebazpen hori egin zuenean. Egoitza harreraren bitartez egin zen adingabearen zaintza. Haurra babesteko neurriek eta adingabearen garapen pertsonalari buruzko ikerketek familia jartzen dute haurren prestakuntza, garapen eta maitasun beharren betetzea lortzeko toki egokien bezala. Espediente horren berezitasuna zen egoitza harreraren neurria hartu zela jaioberri bat izan arren; izan ere, oso salbuespeneko kasuetan hartu beharreko neurri bat da.

Amaren aldetiko aitona-amonek familia harrerako eskabidea aurkeztu zuten, baina kexa aurkeztu zen datan oraindik ez zuten erantzunik jaso. Gurasoentzat bakarrik astero ordubetean finkatutako bisita araubidea aldatzeko eskaerarako ere ez zuten erantzunik jaso, ezta amaren aldetiko aitona-amonentzako bisita araubide zabalagorako eskabiderako ere.

⁶ Arartekoaren ebazpena, 2009ko otsailaren 26koa. Horren bidez Arabako Foru Aldundiari iradokitzen zaio adingabeko baten babesik gabeko egoeraren deklarazioa berrikustea eta premia ebatzi ditzan adingabekoaren gurasoek eta amaren aldeko aitona-amonek aurkeztu dituzten eskaerak.

Tutoretza gain hartzeko erabakia salaketa judicial baten xede izan zen. Hala eta guztiz ere, aurrerago azaltzen dugun moduan, Arartekoaren esku-hartzea garatzeko aukera zegoela uste izan genuen, babesgabetasuna aitortzeko jarraitutako prozedurarako.

Kexaren azterketa egiterakoan, egiaztatu genuen Foru Aldundiak larrialdiko prozedura aplikatu zuela, aplikatu beharreko araudian, alegia, Haurrak eta nerabeak zaintzeko otsailaren 18ko 3/2005 Legeko 59. artikuluan, aurreikusita dagoen bezala. Prozedura horrek eskumena ematen dio Aldundiari berehalako esku-hartzea garatzeko, "haurraren edo nerabearen osotasun fisiko edo psikikoa babesgabetasun larrian dagoenean".

Eskuratutako informazioaren arabera, Foru Aldundiak jaioberriaren babesgabetasun egoera aitortzeko erabakia hartzeko aintzat hartu zuen gauza bakarra Vitoria-Gasteizko Udaleko Hautzaro eta Senitarte Zerbitzuaren txostena izan zen, 2008ko abenduaren 22koa, eta baita haren eguneratzea ere, 2009ko urtarrilaren 2koa.

Txostenak hainbat muga ageri zituen babesgabetasun egoera berresteko beste txosten batzuk falta izateari, erabakia hartu baino lehen gurasoek esateko zutena entzuteari, erabakia hartzeko oinarri izan zen informazioa eskuratzeko moduari, baieztapen batzuk egiaztatzea falta izateari eta tratu desegokia zegoela zioen informazioa gezurtatzen zuen osasun txosten bat egoteari buruz.

Muga horiek zirela eta, Arabako Foru Aldundiari erabakia berraztertzeko prozedura hasteko iradoki genion, amaren aldetiko aitona-amonen harrera eskaera ebatzearekin eta haien nahiz gurasoen bisita araubidea berrikusteko eskaera ebatzearekin batera.

Espediente horretan gogorarazi genuen ez dela Arartekoaren egitekoa babesgabetasun egoera badagoen edo ez baloratzea, egiteko hori Foru Aldundiari dagokiolarako eta haren erabakia berraztertzeko egitekoa, berriz, Epaitegiei. Arartekoaren esku-hartzeak babesgabetasun egoera baten balorazioan jarraitu beharreko prozedurarekin eta aintzat hartu behar diren bermeekin du zerikusia.

Foru Aldundiak familia zabala egokitatzat jotzeko erabakia hartu zuen, eta, ondorioz, jaioberria aitona-amonengana joan zen familia harrerako egoeran.

Espediente horretan eta haurren babesaren gaian Foru Aldundien jardueri buruzko beste batzuetan planteatu egiten da Arartekoaren eskumena esku hartzeko. Arartekoaren erantzunak haiek gaian dituzten eskumenei eta espezialitateari heltzen die. Arartekoak, haurren babesaren gaian, ez du esku hartzen babesgabetasun egoera bat badagoen edo ez baloratzeari dagokionez. Arartekoak, haurren babesgabetasunaren gaian aurkezten diren kexetan, ezagutu eta egiaztatu egin behar du administrazio eskudunaren prozedura-jarduna zein izan den, hau da, ezagutu eta egiaztatu egin behar du nola hartu duen Administrazioak erabakia, bai atariko jardueri dagokienez, bai ondorengo jardueri, jarraitutako administrazio prozedurari, baliozkotasunez egindako txostenei, entzunaldiei eta beharrezko laguntzei dagokienez (30/1992 Legeko 53. artikulua: "*Herri-administrazioen egintzak, beren kabuz nahiz interesdunak eskaturik emandakoak, eskumena duen organoak gauzatuko ditu ezarritako*

prozedurari jarraituz. 2. Egintzen edukia ordenamendu juridikoan ezarritakoari lotuko zaio, zehatza izango da eta egintzon helburuei egokituia.”

“Eskumen tekniko” deitzen den horri eragiten dion erabakiaren alderdia ez da balorazioaren xede, izan ere, uste dugu Foru Aldundiko zerbitzu espezializatuek badituztela ezagutza eta ahalezia nahiko, aztertutako egoerako beharrei egokitutako balio iritzia emateko. Hala eta guztiz ere, uste dugu Ararteko erakundeak esku hartzeko aukera eduki behar duela, beharrezko txosten teknikoak egin direla egiaztatzeko edo txostenak edo balorazio tresna egokiak behar direla esateko edo izapideak eta bermeak betetzea eskatzeko, hau da, prozeduraren alderdiko gai orokorretarako. Azken batean, horrek guztiak Administrazioaren jardunera hobekuntza besterik ezin du ekarri.

– 2009 urtean izapidetu dugun beste kexa batek, foru aldundiek babesaren gaian garatzen duten jardunari buruzkoa, seme-alaben babesgabetasun aitorpenean jarraitutako prozedurari heltzen dio (164/2009 espediente). Gurasoek epaitegien bidetik errekurritu dute babesgabetasun egoera aitortzeko erabakia. Arartekoaren esku-hartzea, beraz, atariko esku-hartzeari eta gurasoek esateko dutena entzuna izateko eskubideari (haurrek eskubidea dute informazioa eman diezaieten eta beren iritzia emateko beren pertsona, familia edo gizarte inguruneari eragiten dion edozein gai buruz. Horretarako, diskrezio, intimitate, segurtasun, presiorik eza eta egoerara egokitzea bezalako beharrezko baldintzak errespetatu behar dira) eta aitarekin familia harrera eratzeko aukera baloratzeari buruz prozeduran igarritako gabezia batzuk jakinaraztea besterik ez zen izan.

Espediente honetan gure atenzioa erakarri zuen gaietako bat gizarte zerbitzuek esku-hartzea hasteko eduki zuten modua izan zen. Kexa adierazi zuen pertsonak planteatu zuen espediente horren jatorriak zerikusia zuela oinarritzko gizarte zerbitzuei egindako laguntza eskaera batekin, semeak eskola jazarpeneko kasu bat jasan zuelako. Espediente honek azpimarratzen duen funtsezko beste elementu bat haurtzaro zerbitzuaren eta jatorriko familiaren arteko komunikazio zailtasuna da. Zailtasun horiek galarazi egiten dute lan bateratua egitea eta lege ezarpenak betetzea familiako bizitzari berrekitera zuzendutako ekintzei dagokienez.

– Beste kexa espediente batean (961/2009), planteatutako gaien artean, babesgabetasun egoeran dauden adingabeentzako Murtziako Zentro batetik nerabe batek alde egin izanarena egon zen. Zentro horretara bidali zen nerabea bere tutorearen, alegia, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, erabaki baten ondotik. Espediente honek nerabeak tartean direnean ageri diren esku-hartze zailtasunak planteatzen ditu, haiek babeseko erakundeen irizpideekin bat ez datozenean.

- Harrera

122/2009 Espedientearen kasuan, kexaren xedea Foru Aldundiak aitaren aldetiko izebarekin familia harreraren zeuden adingabe batzuen aitari emandako tratu ezberdina zen, amari

emandako tratua aldean. Foru Aldundiak bere arrazoiak azaldu zituen, eta baita harrera espedientean aita kontuan gehiago izateko asmoa ere. Ondoren, aitak Aldundiari harrera etetea eskatu zion, eta onartu egin zitzaion. Kasuaren gaineko jarraipena mantendu zen, eta baita bisiten ikuskapena ere, gurasoak banantzearen ondotik hartu behar diren neurrien gaia judizialki ebazten den arte.

Beste espediente batek, 1054/2008, harrerako familia batekin garatutako esku-hartzeari heltzen dio, eta baita Gipuzkoako Lurralde Historikoaren adopzioaren aurretiko babes espediente batean harreran dagoen gaztearekin harremanetan jartzen den familia inguruneak bete behar duen paperari ere.

- Adopzioa

Arabako Foru Aldundiak adopzio prozesuetan nahiz adopzio osteko jarraipenetan duen funtzionamenduari buruzko keak ere jaso ditugu.

2) Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak

Babesik gabeko nerabeen artean, bakarrik dauden adingabe atzerritarrak berariazko ezauzgarri eta beharrianak dituen taldea dira. Horregatik, azken hamabi urteotan, Arartekoak lehentasunezko arreta eskaini die. Horretarako, ofiziozko jarduera anitz, zerbitzuetako profesionalekin eta arduradunekin egindako bilerak, harrera-zentroetara egindako aldi-zkako bisitak, etab. burutu dira. Horren guztiaren berri aurreko urteetako txostenetan eman da.

2005ean, zer-nolako bilakaera izan zuen ikusita, jarraipen-lanak areagotu egin ziren eta txosten berezi bat egin zen: *Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren egoera EAEn*. Geroago, urtero, bilakaeraren azterketa hori berariazko atal batean sartu dugu urteko txostenetan (ikus, adibidez, atal hau bera 2007 edo 2008. urteko txostenetan).

Tamalez, 2009. urtean ere bakarrik dauden adingabe atzerritarren gaia bereziki gatazkatsua izan da eta, ondorioz, Arartekoak maiz esku hartu behar izan du oso arlo anitzetan:

- bisita gehiago eta batzuetan behin baino gehiagotan egin ditu lurralde historikoe-tako hainbat harrera-zentrotara (2009an, bereziki Gipuzkoan eta Araban);
- egoera gatazkatsuen ondorioz ofiziozko jarduera gehiago buru ditu;
- bilerak egin ditu erakundeetako harrera-zerbitzuetako arduradun nagusiekin;
- etorkinei laguntzeko hainbat elkarterekin bilerak egin ditu eta informazioa trukatu du;
- prestakuntzako eta gizarte sentsibilizazioko jardunaldietan parte hartu du;
- tartean diren beste sail edo zerbitzu batzuetara bideratutako ofiziozko jarduerak garatu ditu ...

- kexa asko bideratu dira;
- hobetzeko ebazpen edo proposamenak egin dira;
- agerraldiak Batzar Nagusietan...

Jarduera-ildo horietako lauren emaitza laburtzen ahaleginduko gara hemen:

1. Hiru foru aldundiei datu orokorrak eskatzea (horiei esker, sektorearen bilakaeraren ikuspegi orokorra lor daiteke).
2. Azken urtean zentro batzuetara egindako ikustaldiak.
3. Beste gizarte-eragile batzuei dagokienez, Araban egin diren gestioak.
4. Zenbait gaitan ofizios egindako jarduketak.

Ondoren, atalez atal garatuko dugu.

1) Foru aldundiei datu orokorrak eskatzea (2009ko jarraipen espedienteak)

Aurreko urteetan bezala, eta, ohiko jardueri esker, dagoeneko informazio zabala daukagun arren, aurten ere informazio-eskaerak egin dizkiegu hiru foru aldundiei, babes-sistemen arduradun nagusiak baitira, oinarritzko datu batzuk gaurkotzeko, izan ere, datuok bilakaeraren adierazle gisa erabiltzen ditugu. Besteak beste, biztanleria sektore horretarako harrera zerbitzuetan aldaketak egiten direlako etengabe.

Datu eskaera 2009ko urriaren bukaeran egin zitzaizen Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Sailari, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuari, sektore honetako eskudunak eta arduradun gorenak izaki.

Azken urteko, hots, 2009ko, kopuruzko datuei dagokienez honakoen berri emateko eskatu genuen:

- 1) Sail bakoitzaren mendeko baliabideen sarean egindako aldaketak eta 2009ko abenduaren 31n zuten egoera:
 - Adingabeen esku jarritako baliabideen zerranda eta horiei buruzko oinarritzko datuak: ahalmena, kokapenak, ezaugarriak, instalazioen egoera, adingabe horien beharriaz erantzuteko egokitasun maila edo ahalmena, berariaz edo soil-soilik beraientzat ez diren beste baliabide batzuen erabilera...
- 2) Baliabideen kudeaketan eta antolaketan egindako aldaketak:
 - Horiek kudeatzeaz arduratzen diren elkarteak edo erakundeak, indarreko hitzarmenen ezaugarriak, ikuskapen mekanismoak, figura profesional berriak sartzea, kontratatutako segurtasun zerbitzuak...

3) Artatutako biztanleei buruzko datuak direla-eta:

- Urtean zehar hartutako adingabe "berrien" kopurua (2009an izandako sarrera berriak).
- Urtean zehar hartutako adingabeen kopurua guztira.
- 2009-12-31ra arte hartutako adingabeen kopurua.
- 2009-12-31n emantzipazio baliabideetan zeuden gazteen kopurua.
- Sailek eskura dauden baliabideen erantzuteko ahalmenari dagokionez artatutako biztanle kopuruaren inguruan egindako balorazioa.
- Artatutako adingabeen zenbait ezaugarritan (adina, jatorria, itxaropenak, beharri-zanak...) antzeman izan daitezkeen aldaketa esanguratsuak eta horiek zentroetan eta baliabideen izan dituzten ondorioak.

4) Adingabe horien administrazio egoerari eta erregularizazioari dagokienez:

- Agiriak izapidetzeaz arduratzen diren zerbitzuak.
- Urtean zehar hartutako tutoretza-kopurua.
- Urtean eskatutako bizileku baimenen kopurua.
- Urtean lortutako bizileku baimenen kopurua.
- Bizileku baimena lortzeko batez besteko denbora, gutxi gorabehera.
- Urtean eskatutako lan baimenen kopurua.
- Urtean lortutako lan baimenen kopurua.
- Lan baimena lortzeko batez besteko denbora, gutxi gorabehera.
- Sail bakoitzak adingabeak beren familiarekin berriro elkartzeko egin duen eskaera-kopurua eta urtean zehar bere laguntzarekin bideratu diren elkartzeen kopurua.
- Zentroan ez daudenean edo handik ihes egiten dutenean, zer irizpide erabiltzen diren tutoretzari dagokionez.

Datu eta alderdi horiek bazter utzita, txostenak nabarmendu zuen beharrezkoa zela beste administrazio eta sail batzuen laguntza ere. Hain zuzen ere, gure gomendioetako batzuk zehazki beste instantzia batzuei zuzenduta zeuden, esaterako, hezkuntza-administrazioa, osasun sistema, gazteentzako justizia-sistema, polizi zerbitzuak edo udal zerbitzuak (errol-da, gizarte zerbitzuak...). Eremu horietako batzuetan, txosten honetan bertan ikus daitekeenez, Arartekoa ere ofiziozko jarduerak bideratzen ari da erakunde arduradunen aurrean. Horregatik, informazio osagarri gisa, sail bakoitzari eskatu zitzaion jakinaraz ziezagula zer iruditzen zitzaion aipatu instantzien aldetik jasotzen zuen laguntza eta, bere ustez, zer arlo, arazo edo beharri-zentuetan lortu behar litzatekeen haien inplikazio handiagoa nahiz laguntza edo koordinazio handiagoa.

Gainera, lurralde bakoitzean antzemandako egoeraren arabera, galdetu zitzairen ea zer aurreiskupen zeuden baliabide edo zerbitzu berriak zabaltzeko, egungo mugak gainditzeko eta, bereziki, zentroak 131/2008 Dekretuan ezarritako baldintzetara egokitzeko. Dekretu horrek arautzen ditu gizarte-babesik gabeko haur eta nerabeak egoitzetan hartzeko baliabideak.

Jasotako erantzunak, 2010eko urtarrilean guztiak, ondorengo orrialdeetan laburbildu dira; horietan agertzen dira lurralde historiko bakoitzeko datu nagusiak, aldaketak eta balorazioak.

1.a. Arabako Lurralde Historikoa

Arabako Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen foru diputatuak gure informazio eskaerari eman dion erantzuna urtarrilaren 18an jaso da eta aipatutako puntuetako bakoitzari buruzko informazioa eskaintzen du. Jarraian, bertan bildutako datu nagusiak laburbilduko ditugu.

- 1) **Baliabideen sarean egindako aldaketei** eta 2009ko abenduaren 31n zuten egoerari dagokienez:

Sailaren erantzunak azpimarratu egiten du atenditu beharreko taldeak azken bi urteetan "hazkunde esponenziala" eduki duela erabiltzeko moduan dauden plaza aldean. Gauzak horrela, adibide modura, aipatu egiten da Bideberri Zentroak (2009ko ekainean inauguratua) gainezka egin zuela plaza kopuruari dagokionez inauguratu baino lehen eta guzti, eta horrek hasiera batean behin-behinekoak ziren beste instalazio batzuk mantendu beharra (Zabaltzen edo Estibaliz adibidez) edo beste batzuetan plazak zabaltzeko beharra (Sansohetan adibidez) ekarri zuela.

2009an, berariazko baliabideen sareak 105 plaza jarri ditu bakarrik dauden adingabe atzeritarrentzat. Horiek 6 zentrotan banatu dira:

- Bideberri, 32 plazarekin
- Zabaltzen, 30 plazarekin
- Estibalitzeko Monasterioko ostatua, 24 plazarekin
- 3 emantzipazio etxe, guztira 19 plazarekin

Hori Bideberri zentroa (bertan 32 plaza jarri zen) ireki arte erabilitako beste baliabide batzuk (Jesus Obreron eta Estibalitzen) aintzat hartu gabe.

Bakarrik dauden adingabe atzeritarrentzat berariaz jarri ez diren baliabideetan haien erabilitako plaza dagokienez (Bosko Etxea Harrera eta Larrialdietarako Zentroa, 5 etxe eta emantzipazio etxebizitza bat), 34 izan dira. Horiek berariazko baliabideetako 105 batuz gero 139 plazako kopurua osoa ematen dute.

Sailaren idazkiak Bideberri zentroaren eta haren aukeren deskripzioa egiten du (Ararteko erakundeko langileek zentro hura bisitatu zuten, aurrerago ere ikusiko den moduan), eta egoitzazkoak ez diren beste baliabide batzuk zabaltzeko ere heldu dio. Horretarako, lankidetzaren hitzarmena sinatuko litzateke Osabidezko Hezkuntzarako Partzuergoarekin edo beste pertsona hartuz indartuko litzateke Adingabeen Arloko Talde Teknikoa.

- 2) **Baliabideen kudeaketan eta antolaketan egindako aldaketei** dagokienez, honako elementu hauek azpimarra ditzakegu:

- Hitzarmenak berritu edo luzatu dira sektore horretan lanean zebiltzan elkarteekin: Salesko Frantzisko Deunaren Elkartea, Ixuri elkartea eta Kolore Guztiak kultura arteko elkartea.
- Programa teknikoki gainbegiratzeko lanak, funtsean, hitzarmenaren jarraipena egiteko eta zentroen eta kasuen jarraipena egiteko aldizkako bileren bidez garatzen dira. Gainera, hitzarmenetan aurreikusitako jarraipen orokorra ere egiten da.

3) **Artatutako biztanleei buruzko datuei** dagokienez, oinarrizkoenak honako hauek dira:

- Adingabe "berrien" kopurua (2009an sartutakoak): 122 (berriz sartu diren 17ak kontuan hartu gabe)
- Urtean zehar guztira hartutako adingabeen kopurua: 233
- Abenduaren 31ra arte hartutako adingabeen kopurua: 101
- Abenduaren 31ra arte emantzipatzeko baliabidetan zeuden adingabeen kopurua: 13

Era berean, hauxe jakin nahi genuela adierazi genuen: sailak berak nola baloratu zuen lagundutako biztanleen kopurua, eskura dauden baliabideen erantzun-ahalmenarekin lotuta.

Gai horri dagokionez, sailaren erantzunean nabarmendu dute izugarri ugarritu direla adin txikikoak eta ahalegin handia egin dela horiek zentroetan hartzeko. Horrela, hauxe dio hitzez hitz:

"La llegada durante todo el año 2009 ha sido constante y numerosa, ha experimentado en los últimos dos años un incremento por encima del 450% siendo el mismo aún más significativo y llamativo en los últimos doce meses. El esfuerzo realizado desde esta Institución al objeto de hacer frente a la atención con unas mínimas y exigibles condiciones de calidad y con la finalidad que resulta consustancial a dicha función, ha sido ímprobo. Por una parte, en cuanto a la creación de nuevos recursos o el aumento de plazas que pudieran absorber dicha demanda..."

Eta horren erakusgarri, baliabideen sarean egin diren aldaketa guztiak aipatu ditu (horiek laburtu ditugu aurreko puntuan).

Adingabeen ezaugarrietan ikusitako aldaketei dagokienez, aldaketak baino gehiago iaz adierazitako ezaugarri batzuk finkatu egin direla egiaztatu da:

- Ginea Konakryko Errepublikako pasaportearekin iristen den gazte kopuruaren eta Marokotik datozenen hazkundera;
- Sahara azpitiko herrialdeetako gazte ugari Estatu espainiarrera iristea pateran eta agiririk gabe...

Baina, batez ere, adinen gaia, erkidegoen arteko mugikortasuna, babes sistemarako ondorioak... dira planteatzen direnak. Gai horiek, aurrerago ere ikusiko den

moduan, hainbat kexa eta Arartekoaren aldetiko esku-hartze ekarri dituzte azken urte honetan. Horietako asko, gainera, amaitu gabe dago oraindik.

Ikuspegi horretatik, interesgarria iruditzen zaigu Arabako Foru Aldundiak bere erantzunean helarazi dizkigun hausnarketetako batzuk hemen hitzez hitz transkribatzea. Honela dio: *“Es llamativo que cuando llegan a este Territorio aporten documentación, pasaportes, expedidos en sus países de origen, pero en una fecha en la que ya se encontraban en territorio español. Asimismo, en muchos casos, tales chicos presentan una apariencia, y características físicas, unido al resultado de la prueba radiológica ósea que se practica, que resultan todos ellos indicativos de una edad superior a la reflejada en la documentación aportada, coincidente con la reseña efectuada en la mayoría de los casos a su llegada a Canarias, como mayores de edad indocumentados.*

Es llamativo igualmente que entre su salida de Canarias y su llegada a Álava, a pesar de transcurrir varios meses entre ambos momentos, no recurren a los servicios de protección de localidad alguna, a pesar de referir haber estado viviendo en otras C.C.A.A. Es a las pocas semanas de la obtención del pasaporte cuando acuden a esta entidad foral en busca de protección, indicando proceder de otras C.C.A.A., como se ha indicado más arriba.

En el caso de algunos chicos cuya minoría de edad es más apreciable física y psicológicamente, y que “huyen” de centro a centro entre territorios resulta difícil conseguir el cumplimiento de normas básicas de convivencia, desarrollar el principio de autoridad y de respeto hacia el rol del educador, y ejercer su guarda y protección.

Algunos de ellos tienen expediente de reforma en el Juzgado de menores. Es habitual que los chicos verbalicen de manera explícita el uso instrumental de los recursos y su intención de conseguir la tramitación de su documentación para vivir fuera del centro, existiendo en algunas ocasiones indicios de que cuentan con cobertura fuera de los mismos.

En términos generales los menores extranjeros no acompañados buscan su acogida en el sistema de protección de menores básicamente como medio para regularizar la situación documental, es decir, conseguir lo permisos de residencia y/o trabajo, imprescindibles para su integración socio-laboral. Entienden la tutela como un instrumento para regularizar la situación y desarrollar su proyecto migratorio y no tanto como medida de protección en el sentido propio de la condición legal de minoría de edad y desamparo.”

Gainontzeko alderdieta, haren esanean, ez da alde esanguratsurik antzematen aurreko urteen aldean: aurrez ez dago jakiterik adingabe ugari etorriko diren ala ez, ez dakite zenbat neskak edo mutilek erabakitzen duten Araban zentroren batean sartzea, eskaerak pixkanaka gora egiten du, ez dago prebentzioaren ikuspegitik lan

egiterik... Sail horren ustez, sektore horiek guztiek honako egoerak sortzen dituzte: *“situaciones en las que la planificación y dotación de los recursos están sometidos a factores ajenos a los servicios poniendo al límite la capacidad de respuesta, máxime cuando la acogida no sólo es un factor de voluntad si no de medios reales dentro de la multiplicidad de necesidades, de apoyo interinstitucional y de desarrollo práctico de conciencia social. El inmenso esfuerzo realizado en los dos últimos años por la Diputación Foral de Álava resulta insostenible, siendo necesario un planteamiento de planificación interautonómico para un adecuado equilibrio entre la atención a este colectivo de menores y la atención igualmente del resto de necesidades de protección infantojuveniles.”*

4) **Adingabe horien administrazio egoerari eta erregularizazioari** dagokienez, honakoa aipatu behar dugu:

Urtean zehar hartutako tutoretza-kopurua: 27

Eskatutako bizileku baimenen kopurua: 34

Lortutako bizileku baimenen kopurua: 27 (7 bideratzen ari dira)

Bizileku baimena lortzeko batez besteko denbora, gutxi gorabehera: 10 hilabete eta 24 egun

Eskatutako lan baimenen kopurua: 4

Lortutako lan baimenen kopurua: 4

Lan baimena lortzeko batez besteko denbora, gutxi gorabehera: 20 hilabete eta 17 egun

Sailak adingabeak beren familiarekin berriro elkartzeko egin duen eskaera-kopurua: ?

Sailaren laguntzarekin bideratu diren elkartzeen kopurua: 0

Agiriak izapidetzeaz arduratzen direnei dagokienez (hau lurralde bakoitzean aldatu egiten baita), Araban zentroek eurek egiten dute oraindik ere, eta, horretarako, Adingabekoen eta Familiaren Arloko eta Helduko lege aholkularien laguntza baliatzen dute.

Adingabea zentroan ez dagoenean edo handik ihes egiten duenean tutoretzari dagokionez erabiltzen diren irizpideak direla-eta (horixe da aurtengo beste arazoetako bat) honako hau adierazi du:

“En los casos en que se prevé que sea una ausencia definitiva, lo cual se suele conocer a través de las tutorías previamente realizadas con los chicos desde los centros, en primera instancia se denuncia su marcha ante la policía, pero si transcurre un período prudencial, aproximadamente quince días, sin que retorne al centro se cesa la tutela por su imposible cumplimiento, lo cual se comunica al Ministerio Fiscal y Subdelegación del Gobierno.

En los casos en que se producen entradas y salidas continuas en períodos muy breves de tiempo, en principio se mantiene la tutela.”

5) Sailak **erakunde arteko koordinazioaz eta lankidetzaz** eta beste instantzia batzuen inplikazio handiagoa behar luketen beharrez edo arazoez egiten duen balorazioa dela eta, sailaren erantzuna oro har positiboa izaten da, baina aurten bereziki kritikoa izan da. Horrela, honako hauek egozten dizkie beste erakunde batzuei:

- “•falta de realismo en cuanto a la naturaleza del problema y su afrontamiento;
- “simplificación” del mismo mediante la categorización del fenómeno dentro del colectivo de personas menores de edad;
- “reduccionismo” de las soluciones al ámbito de la tutela y el acogimiento residencial;
- escasa voluntad o excesiva lentitud para emprender un abordaje del problema de fondo: la inmigración ilegal;
- indeterminación de criterios comunes en cuanto a determinación de la edad, extensión de la tutela y distribución del colectivo en función de criterios de equilibrio poblacional;
- sobredimensión del papel de las instituciones de protección y de su función habida cuenta de la edad, perfil y necesidades del colectivo;
- falta de perspectiva en cuanto a la planificación de recursos para la mayoría de edad”

Eta zenbait gauza hobetu behar direla dio:

- “•emprender políticas preventivas de la inmigración ilegal e investigar los circuitos de asentamiento de estos chicos en evitación del posible abuso de redes de tráfico ilegales;
- desarrollar protocolos entre el estado español y los países de origen para facilitar la información sobre las condiciones familiares y el reagrupamiento familiar en los casos que lo requiera el interés superior del menor;
- establecer mecanismos fidedignos de control de la edad y de la documentación;
- apoyar a los servicios de protección en su programación i ordenación de recursos mediante el establecimiento de cupos de menores por C.C.A.A.;
- fomentar el desarrollo de programas de trabajo socio educativo en origen a través de los organismo de cooperación al desarrollo;
- establecer unos criterios de actuación con las personas menores de edad extranjeras acorde con la filosofía de las leyes de protección y con los derechos del resto de personas menores de edad necesitadas de protección que no pertenecen a este colectivo;
- impulsar el desarrollo de programas desde los ámbitos e instituciones competentes en materia educativa y de trabajo que posibiliten el cumplimiento real de los proyectos migratorios;
- desarrollar políticas municipales de apoyo a la emancipación e integración para la mayoría de edad y como puente a la misma;
- agilizar los procesos de los Juzgados de Menores para que las medidas tengan realmente un carácter preventivo y educativo, en evitación del desarrollo de comportamientos delictivos y alarma social.”

6) **Baliabide edo zerbitzu berriak zabaltzeko nahiz zentroaren egungo kokapenak dituen mugak gainditzeko egin diren aurreikuspenak.**

Gai horretan ere, sailaren erantzuna argia eta kritikoa da errealitatearekin. Hauxe adierazi du:

“Entendemos que el número de plazas existentes en Álava en la actualidad es suficiente en relación con factores sociodemográficos.

Debe de regularizarse la distribución de los menores extranjeros no acompañados sobre criterios de proporcionalidad entre Comunidades Autónomas.

El incumplimiento de este prerrequisito impide cualquier intento de planificación ordenada de los recursos y favorece el tránsito de menores indiscriminadamente entre centros y en definitiva una política de protección contradictoria, caótica e injusta.

Esta Institución no puede desarrollar más recursos específicos para menores extranjeros no acompañados sin producir una desatención de otros colectivos de menores, de sus programas y servicios.”

Azkenik, baliabideen “baldintzei” buruz, zera dio: *“El centro Bideberri y los pisos de Emancipación, servicios planificados con carácter de estabilidad, están configurados conforme a los criterios y requisitos del Decreto 131/2008, regulador de los centros de acogimiento residencial. El resto de servicios tienen carácter de provisionalidad en tanto se clarifican los pre-requisitos mencionados.”*

1.b. Bizkaiko Lurralde Historikoa

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak gure informazio eskaerari emandako erantzuna 2010eko urtarrilaren 19an iritsi zen. Azaldutako gai bakoitzari erantzun dio eta, erantsitako agiri gisa, Bizkaian dauden berariazko zentroen zerrenda bidali digu.

Arabaren kasuan egin dugun modu berean, hemen txosten honetan jarraipen eta arretaren xede izaten ari diren gaiekin zerikusi zuzenagoa duten datuak hautatu eta laburbilduko ditugu:

1) **Baliabideen sarean egindako aldaketei** eta 2009ko abenduaren 31n zuten egoerari dagokienez.

Aurreko urteetan ez bezala, azken urte honetan gutxi izan dira baliabide sarean sartutako aldaketak:

- Martxoan, erdi autonomoak izango diren beste bi atalek jardunari ekingo diote (Erandio eta Leioa). Bakoitzak 6 plaza eta aurrekoen eredu berdina edukiko ditu.

- El Vivero Egoitza Zentroko plaza kopurua murriztu egiten da (30etik 25era igaroz) eta El Garmokoa ere bai (24 plazatik 18ra igaroz).

Gainerako berariazko baliabideak mantendu egin dira, Babesteko Oinarrizko Sareko etxe bakoitzean plaza batzuk erabilgarri edukitzeko aukera bezala (bakarrik dagoen adingabe atzerritar batentzat edo birentzat).

Sailak baliabide guztien zerrenda xehatua eskaini du eranskin gisa, iazko txostenean jada eskaini genuenaren antzekoa (ikus 2008ko txostena, idatz-zati honetan bertan), baina goian adierazi diren aldaketak sartuta. Guztira, sarea honela laburbil daiteke:

- Berariazko 18 baliabide (6 zentro; 3 bizikidetzeta unitate; 9 unitate erdi autonomo).
- Guztira 325 plaza erabilgarriekin.
- Gehi Oinarrizko Sarean erabil daitezkeen plazak.

- 2) **Baliabideen kudeaketan eta antolamenduan sartutako aldaketei** dagokienez, Sailaren erantzunak aurreko urteetako informazioari heldu dio (orduan hitzarmenak, hezkuntza proiektuak eta dokumentu osagarriak helarazi zitzaizkigun), eta haren berri zabala eman izan dugu aurreko txostenetan.

Edonola ere, hiru gai azpimarratu dira:

- Lau zentrotan kontratatutako segurtasun zaintzaileak egotea (Zornotzan, Zabaloxen; El Garmon eta El Viveron).
- Kasu koordinatzaileen taldea zabaltzea (lau pertsona bitarte, haietako bi lanaldi partzialean).
- Bizgarriren babesa dokumentazio prozesuetarako eta lekualdaketetarako.

- 3) **Atenditutako biztanleriari buruzko datuei** dagokienez, azken urtea jarraian datozenetan laburbil dezakegu:


Adingabe "berrien" kopurua (sarrera berriak 2009an): 346

Urtean zehar guztira hartutako adingabeen kopurua: 702

Abenduaren 31n hartuta zeuden adingabeen kopurua: 359

2009ko abenduaren 31n emantzipazio baliabideetan zeuden gazteen kopurua: 73 (169, urtean zehar)

Azken urteko sarrerei buruz, honako grafiko honetan ikus daiteke horien bilakaera:



Aldi horretan ere sailari eskatu zitzaion balora zezala zenbat biztanle artatu zituzten eskura dauden baliabideen erantzun-ahalmena kontuan hartuta. Sailak honako balorazioa egin du:

“A pesar de que la atención a Menores Extranjeros no acompañados sobrepasa en Bizkaia el 50% de la atención a menores en situación de Acogimiento Residencial, durante el año 2009 ha decrecido en torno a un 20% el número de ingresos. Esto ha permitido estabilizar la red de atención y realizar una gestión del flujo de menores con una presión inferior a otros años.

Es de destacar también una ausencia casi completa de conflictividad tanto de los propios menores acogidos, como con el entorno (vecinos, etc).”

Eta azken urte honetan ikusitako joerei dagokienez, Hegoaldeko Sahararik datozen pertsonen kopurua nabarmendu du berriro ere (%12tik %29 izatera igaro dira) eta zalantzan jarri da haien adingabetasuna. Kontu hori, lehen adierazi dugunez, eztabaida eta arazo iturri izaten ari da beste lurraldeetan ere. Horren haritik, Bizkaiko Foru Aldundiak hauxe adierazi du hitzez hitz:

“Cabe señalar como significativo el caso de los jóvenes de origen subsahariano que al tener pasaporte que indicaba su minoría de edad, han estado acogidos en los centros de protección, hasta que la Fiscalía de menores en función de las pruebas forenses realizadas, ha decretado que el expediente debía de cerrarse al acreditarse su mayoría de edad. Durante el presente año han sido cerrados por esta casuística los expedientes de 31 jóvenes.”

4) **Adingabe horien administrazio egoerari eta erregularizazioari** dagokienez.

Hona hemen 2009ko datuak:

Urtean zehar hartutako tutoretza-kopurua: 187

Urtean eskatutako bizileku baimenen kopurua: 191

Urtean lortutako bizileku baimenen kopurua: 112 (gutxi gorabeherako datuak)
Bizileku baimena lortzeko batez besteko denbora, gutxi gorabehera.

Heldu zirenetik: 13,01 hilabete

Eskatzen denetik: 5,34 hilabete

Urtean eskatutako lan baimenen kopurua: 17

Urtean lortutako lan baimenen kopurua: 17

Lan baimena lortzeko batez besteko denbora, gutxi gorabehera: hilabete 1

Sailak adingabeak beren familiarekin berriro elkartzeko egin duen eskaera-kopurua: 190

Urtean zehar bere laguntzarekin bideratu diren elkartheen kopurua: 0

- 5) **Sailak beste instantzia batzuen laguntzari** eta inplikazio handiagoa edo koordinazio hobea behar luketen arazo edo beharrei buruz egiten duen **balorazioari** dagokionez.

Sailaren erantzunean, aurrekoetan bezalaxe, hainbat erakunderen zerrenda agertzen da, horiekin ohiko harremana izaten jarraitzen duelako: hezkuntza-sistema, osasun sistema, Fiskaltza, udalerrriak, Ertzaintza, Poliziaren Buruzagitza Nagusia, gazteen justizia, kotsuletxeak, Eusko Jaurlaritza eta EAeko beste foru aldundi batzuk, Gobernuaren Ordezkaritza, beste autonomia-erkidego batzuetako administrazioak, Lan eta Gizarte Galetarako Ministerioak, Arartekoa bera...

Haren esanean, erakunde horiekiko harremanak usu egokiak izan dira eta, gehienez, arazoak ados jarrita konpontzen saiatu dira.

Hala ere, bada aurten eztabaida politikoa piztu duen gai bat. Honela adierazi du sailak bere idazkian:

“Merece especial mención la Comisión Interautonómica de Directores de Infancia, convocada por el Ministerio de Sanidad y Política Social de Madrid, donde se trasladan las inquietudes de este Departamento referentes, entre otros, a aspectos puntuales que afectan a los menores extranjeros no acompañados, como puede ser la determinación de la edad, tratando de consensuar criterios comunes y muy especialmente nuestra preocupación por recibir un número de menores extranjeros no acompañados absolutamente desproporcionado en relación a otras Comunidades Autónomas. Habiendo trasladado reiteradamente nuestro interés por el establecimiento de cupos que permitan un reparto equitativo de todos los menores extranjero que llegan al Estado Español.”

- 6) **Baliabide edo zerbitzu berriak zabaldu edo erabiltzeko** nahiz egun daudenak hobetzeko egin diren aurreikuspenak eta horiek egiteko aurkitzen duen laguntza. Sailak puntu honetan gogorarazi du baliabide edo zerbitzu berriak irekitzeko baldintza izango dela atenditu beharreko beharrak, aurrekontu aukerak eta berariazko kokalekuetara iristeko aukera. Edonola ere, zera esanez amaitzen du: *“en la actualidad no existe previsión de apertura de nuevos recursos”*. Kasu honetan, Sailaren erantzunak ez du datu eguneraturik ematen emantzipazio programei buruz.

1.c. Gipuzkoako Lurralde Historikoa

2007. urtetik aurrera, Gipuzkoako Foru Aldundian 2007an egin zen berrantolaketarekin bat etorritik, haurrak babestearen arloko eskumenak Gizarte Politikako Departamentuan bateratu ziren. Departamentuaren erantzunak (posta elektronikoz aurreratu zizkigun datuak, 2010eko urtarrilaren 26an) guk azaldutako kontuetako bakoitzari buruzko informazioa eskaintzen du eta, zenbait datu ematean, zentroz zentro zehaztera iristen da.

Ondoren, jasotako informazioa laburbilduko dugu, lurralde bakoitzerako erabilitako eske-mari jarraiki.

- 1) **Harrera-baliabideen sarean egindako aldaketei** eta baliabideok 2009ko abenduaren 31n dauden egoerari dagokionez, baliabide bakoitzari buruzko informazio zehatza eman du (erakunde kudeatzailea, plaza kopurua, lagundutako taldea, kontserbazio egoera, etorkizuneko aurreikuspenak...). Jasotako datuen arabera, 2009ko bukaera aldera, bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako baliabide sareak Gipuzkoan honako elementu hauek ditu:
 1. Larrialdiko harrera programarako: Sorrera berriko zentro bat (Uba), hiru modularekin eta 34 plazarekin guztira. Dianovarekin eratutako kontratuaren bitartez kudeatzen da 2009ko otsailetik aurrera.
 2. Oinarrizko programa orokorrerako: berariazko 6 zentro Lezon, Legorretan, Urretxun, Azpeitian, Arrasaten eta Donostian. Guztira 58 plaza. Horiei beste 8 zentro gehitu behar zaizkie (BDAAentzat berariazkoak ez direnak baina horrelako adingabeak ere hartzen dituztenak).
 3. Emantzipazio programarako: emantzipazio etxebizitza bat (Arrasaten, 6 plaza-rekin). Ostatuei dagokienez, horietan atenditutako adingabe kopurua murriztuz joan da, eta azkenekoa otsailaren 12an emantzipatzea aurreikusi da, bide hau itxiz ondorioz.
 4. Portaera arazoak, neurri judizialak, drogen kontsumo gatazkatsuak... dituzten nerabeentzako programa espezializatuentzat: lurraldean bertan kokatzen diren 6 zentro, guztira 84 plazarekin, gehi Nafarroan, Bartzelonan, Murtzian, Kordoban eta Kantabrian kokatzen diren beste baliabide batzuk (9 plaza).

Komenigarria da gogoraraztea berriro ere baliabide sarean jazotzen diren aldaketak etengabeak direla. Edonola ere, 2008an hasitako oinarrizko 4 programaren inguruko egituratzea mantendu edo finkatu egin da, beharrezkoak izan diren egokitzapenak egitearen ondotik.

- 2) **Baliabideen kudeaketan eta antolamenduan sartutako aldaketei** dagokienez, Sailaren erantzunak hainbat orrialde hartzen ditu, 2009an kanpoko aholkularitzarekin garatutako "*adingabe atzerritarrentzako egoitza harrerako Sarearen berrantolamendu osoa*" azaltzeko:
 - Hura ekarri duten arrazoiak (babes egokia ematea, 131/2008 Dekretuko eskakizunetara egokitzea...).
 - 2008an egindako hausnarketa, azterketa eta ebaluazio prozesua.

- Abiaturuko egoeraren ezaugarriak (“sarrera kopuruan hazkunde geldiezina”, “adingabe batzuk eragindako gatazka egoera”, “Gizarte errefus irmoa...”).
- Finkatu ziren esku-hartze printzipioak.
- Sarearen egituratzea lau programatan, gorago ikusi ahal izan den moduan.
- Eta horiek benetan ezartzeko eman beharreko urratsak.

Sailaren erantzuna bereziki xehatua da azken puntu honetan eta, zalantzarik gabe, hau izango da hobekuntzen eraginkortasuna baloratzea eta denborak aurrera egin ahala jarraipena egitea ahalbidetuko diguna.

Guztira 24 hobekuntza edo jarduera ildo dira. Horiek oso-osorik hemen biltzea ezinezkoa da, baina oso jarduera zehaztatetik hasi (adibidez ezaugarri jakin batzuk edukiko dituen zentro berri bat irekitzea edo ostatuak ezabatzea) sare osoari eragingo dioten beste orokorrako batzuetara iritsi arte doaz (EHEES ezartzea zentro guztietan; hezitzaileentzako prestakuntza programa; bizikidetzako arau komunak ezartzea; harrera baliabideak ikuskatu, homologatu eta erregistratzeko protokoloa; aldi bereko itzulpen sistema finkatzea, eta abar).

Berrantolamendu prozesuak lorpenen kanpo ebaluazioa egitea aurreikusi du ere, horren bitartez posible izan dadin hobekuntza berriak sartzea.

Ondorioz, helburuetan anbizio handia ageri duen planteamendu berria da, eta haren emaitzen gainean egin beharko dugu jarraipena datozen urteetan.

3) **Lagundutako biztanleei** buruzko datuak direla-eta, datu orokor esanguratsuenak honako hauek dira:

- Urtean zehar hartutako adingabe “berrien” kopurua: 119 (berriz hartutako 33 barne direla)
- Urtean zehar guztira hartutako adingabeen kopurua: 340
- Abenduaren 31ra arte hartutako adingabeen kopurua: 116 (+6 adin nagusiko)
- Emantzipazio baliabideetan artatutako adingabeen kopurua: 117 (+121 laguntzeko programetan, baina ostaturik gabe)

Datu horiek aurreko urteetakoekin alderatzen baditugu (ikus 2008ko txostena), sarrera berriak gutxitu egin direla ikusten dugu. Gipuzkoako Foru Aldundiak honela azaldu du gutxitze hori:

“Urtean zehar gutxituz joan da artatutako gazteen kopurua, eta babes lana hobeto egin ahal izan da. Horri esker, bestalde, alde txikiagoa dago artatu beharreko gazte kopuruaren eta bizilekuetan dauden plaza kopuruaren artean, eta esan genezake orain orekatu samarra dagoela. Hala ere, oraindik badaude zailtasunak, zeren eta, gaia arautzen duen dekretua betetzeko, gero eta gutxiago izan behar baitute Lurraldetik kanpo erabiltzen ditugun plazak, guztiz desagertu arte.

Egoeraren aldaketa ondorengo hiru elementuek azaltzen dute, batez ere:

- Zentro berriak ireki dira. 2009an Uba, Igeldo, Mendixka, Oilur eta Aixola ireki dira.

- Sarrera fluxuak asko gutxitu dira.
- Bajak asko gehitu dira; izan ere, adin nagusitasunera iristeak 100 baja ekarri ditu baliabidea utzi dutenak 71 izan dira.”

Eta adingabeen ezaugarrietan ikusitako aldaketei buruz, hiru nabarmendu ditu:

“•Sahararen hegoaldeko gazteak, pasaporte egin berriak dituztenak eta itxuraz pasaportean ematen diren datuekin bat ez datozenak.

- Neskak gehitu dira. Orain 7 ditugu, inoiz baino gehiago.
- Aljeriar jatorrikoek ezohiko portaera izan dute. Urte hasieran ia aljeriar guztiak ezkutatu ziren aldi berean, beren herrira eramango zituztela zabaldu baitzen. Udazkenean tantaka-tantaka baina etengabe Aljeriako adingabeak iritsi dira.”

4) **Adingabe horien administrazio egoerari eta erregularizazioari** dagokienez, honakoa aipatu behar dugu:

- Oraindik ere behin-behineko tutoretzak nabarmentzen dira; horiek berretsi egiten dira ondoren, behin babesik gabeko egoera egiaztatuta. Hona hemen azken urteko datuak (2009koak): behin-behineko 24 tutoretza; berretsitako 63 tutoretza. Datuok iazkoak baino askoz baxuagoak dira (behin-behineko 120 tutoretza eta berretsitako 110 tutoretza).
- Bizileku baimenen eskaerei dagokienez: larrialdietarako baliabideek 81 eskaera egin dituztela. Horietatik, guztira 73 lortu dira. Erantzuteko batez besteko denbora 12 hilabetekoa izan da.
- Lan baimenetan: 5 eskatu dira; 6 lortu; batez besteko denbora: 24 hilabete.
- Familiak berriz elkarteari buruz: 25 eskaera; gauzatutako bakar bat ere ez.

Tutoretzen gainean aurten arazoak eta jarduerak egon direnez gero, interesgarria iruditu zaigu hitzez hitz transkribatzea Gipuzkoako Foru Aldundiak gure informazio-eskaerari eman dion erantzuna gai honi buruz:

“Zentroetatik alde edo ihes egiteak gertatzen direnerako Gipuzkoako Foru Aldundiak duen irizpidea orain berrikusten ari gara, abenduaren 7an Fiskaltzak bidalitako idatzi batean Estatuko Fiskaltza Nagusiak emandako irizpideak jakinarazi baitizkigu. Besteak beste, hau esaten du hitzez hitz:

‘Tutoretza ezin da amaitu Kode Zibilean jasota dauden arrazoiengatik besterik, beraz behin tutoretza bere gain hartu zuen erkidegoak tutore izaten jarraitu behar du, adingabea beste erkidego batean aurkitu arren’.

Fiskaltzak esan digunez, orientabide hori aurtengo azaroaren 5 eta 6an Leonen egin ziren adingabeen gaietan aditutako fiskalen jardunaldietan ateratako ondorioetako bat da. Pentsatzen dugu orientabide horiek haur babesaren esparruan eskumenak dituzten instituzio guztietara zabalduko dituztela eta, ondorioz, Estatu guztian modu

homogeneoan aplikatuko direla. Horrela, prozeduretan gaur egun dauden desberdintasunak eta horren ondoriozko zaintzaren banaketa asimetrikoa bukatuko dira.

Hala, bada, Fiskaltzaren orientabideei jarraituz, idatzi hori jaso zenez geroztik Gipuzkoako Foru Aldundiak ez du utziko babespean duen atzerritar adingabeen tutoretzarik, haiek zaintza baliabideetatik alde egiten dutenean."

- 5) **Beste administrazio eta departamentu batzuekiko lankidetzari** dagokionez, Gizarte Politikako Departamentuak balorazio orokor positiboa egiten du erantzunean. Balorazio hori, zenbait kasutan, horietako bakoitzaren inguruan egiten duen errepassoan zehazten du (Fiskaltza, gazteen justizia, Hezkuntza, Osasuna, Eudel, Ertzaintza, beste polizia batzuk, Gobernuaren Ordezkariordeztza...).

Gauzak horrela, adibidez, arazoak aipatu dira anbulatorio batzuk osasun azterketak egiteko emandako erantzunean, edo Gobernuaren Ordezkariordeztzak adingabe hauek laneko jarduera batera iristeko, egoitza edo lan baimena eskuratu bitartean, dagoen araudiaren gainean egindako interpretazio mugatzailean.

Idatz-zati honetan eskaini zaigun informazioaren zati garrantzitsu batek antza handia du iazko txostenean bildutako informazioarekin (ikus 2008ko txostena).

- 6) **Baliabide edo zerbitzu berriak zabaldu edo erabiltzeko** nahiz egun daudenak hobetzeko **egin diren aurreikuspenak**.

Sailaren erantzunak adierazi du Aixolako zentroa ireki eta Oilurren zaharberritze lanak egin ondoren ez dela berriazko zentro berririk irekitzea aurreikusi BDAAentzat 2010 urtean.

Bestalde, honako lan-ildoak aipatu ditu aurtengo:

"•Bakarrik dauden atzerritar adingabeen arreta berrebaluatzea eta, horren emaitzak ikusita, komeni diren moldaketak egitea.

- *Egoitza harrerako esparru programa eguneratzea.*
- *Emantzipazio programa berriro diseinatzea eta horrek ekartzen dituen aldaketak gauzatzea.*
- *Gure programa espezializatuaren eskaintza aztertzea: ikuspegi terapeutikoa birbideratzea, eta*
- *Aixola eta Oilur zentroen funtzionamenduaren fokalizazio intentsiboa.*
- *Atzerritar adingabeentzako zentro berezien koordinazioa eta jarraipena zorroztea, eta horretan diharduten lantalde guztiak koordinatzea."*

2. Bisitak zentroetara

2009 urtean zehar, bakarrik dauden adingabe atzerritarren zentroetara egindako bisitak Araba eta Gipuzkoako lurraldeetara mugatu dira. Azken lurralde horren kasuan, gainera, zentro

bakarrera mugatu da bisita: Deban kokatzen den Oilur Zentrora, hain zuzen. Hara hiru bisita egin dira martxo eta iraila artean, izan ere, beharrezkotzat jo dira bertan ikusitako egoera zela eta.

Urte honetan ofizioz bideratutako jarduera kopuru garrantzitsu batek bisita horietan du bere jatorria. Horien berri kapitulu honetako 4. idatz-zatian emango dugu.

Horrela, bada, hemen laburpena besterik ez dugu eskainiko. Laburpenak bisita bakoitzean antzemandako alderdi azpimarragarrienei edo kezkarrienei emango die arreta, ondorengo jardueretan edo emaitzetan sartu gabe (horiek aurreragoko orrialdeetan jaso dira).

• Bisita Vitoria-Gasteizko Bideberri Zentrora

Bideberri Zentroa urte honetan bertan jarri zen martxan, 2009an, alegia. Hasiera batean Gurutze Gorriaren instalazioetan jarritako harrera zentroaren ordezkotzara jarri zen. Gurutze Gorriaren instalazioak hainbatetan bisitatu zituen erakunde honek, eta haren gabezia eta mugak adierazi izan ditugu (ikus aurreko urteko txostenak).

Ararteko erakundeko langileen bisita joan den 2009ko azaroaren 13an egin zen, aldezturik horren berri eman izan gabe.

Bi moduluko zentro bat da (Bideberri I eta Bideberri II; bakoitza solairu batean), IXURI entitateak kudeatzen duena eta bi koordinatzaile dituena, bat solairu bakoitzeko.

Bisitan zehar, ohikoa denez, elkarrizketa eduki genuen bertako arduradunekin, instalazioak ikuskatu genituen (haiei argazki batzuk atereaz), espediente lagin bat berraztertu genuen (lau adingaberena),...

Adierazgarrien iruditu zaizkigun elementuak laburbilduko ditugu hemen, batez ere Bideberri I moduluari egindako bisitatik, hari eskaini baitzitzaion denbora gehien:

- Instalazioak berriak dira, zentro honek hilabete gutxi batzuk baizik ez baitaramatza funtzionamenduan. Modulu hauetan atenditzen diren adingabeak beste zentro batzuetatik ekarri ziren, hezitzaile taldea bezalaxe.
- Zentroa oso garbi dago, eta hezitzaileen bulegoak ongi antolatuta daude. Bi oho-lek ematen dute zentroko arau orokorren, zehapen sistemen, adingabe bakoitzaren ordutegiaren (haien argazkiekin, identifikazio azkarra egitea posible izan dadin) nahiz zentroan lan egiten duten langileen, jardueren eta arazo eta osasun kontrolen berri.
- Eranskin batean adingabe bakoitzaren espedienteak biltzen dituzten artxiboak daude, giltzapean. Espedienteak dokumentazioa gorabehera antolatuta daude, eta lau eremutan banatuta dago: Orokorra (sarrerako txostenak, ebaluazioak, pasaporteak...),

akademikoa, osasunekoa eta judiziala (edonola ere, azken atal honetako dokumenturik ez izatea aipatu zuten, adingabe bakar batek ere ez duelako espediente irekirik eduki eremu horretan).

- Adingabe bakoitzak hartu beharreko sendagaiak kutxa pertsonalizatuaren bitartez antolatuta daude, eta horiek eskuratzeko baimena eskatu behar diete hezitzaileei. Medikuntza orokorreko botika-kutxa ere badute.
- Alarma sistema, suteak detektatzekoa eta Mutuialiak proposatutako babes plan bat dituzte. Osasun Sailak, Mutuialiak... egindako berrikuspen eta ikuskapenak biltzen dituen artxibo bat badago.
- Neurri zuzentzaileak aplikatzeko erregistro bat dute. Bertan, zehapen gida bat eta dagozkien hezkuntza neurriak ageri dira. Dekretu arautzailea aplikatzen dute. Adierazi dutenaren arabera, adingabeei beraiei buruzko gaien berri ematen diete tutoretzetan. Funtzionamenduko arau orokorrak ere badituzte. Portaeren kontrolari dagokionez, hezitzaileen gelako oholean esekita dagoen orrian guztiek portaera ona dutela ageri da.
- Tutoretza gidaliburua, hezkuntza proiektu bat, artxibo historikoen eguneroko liburua... dituzte. Erradiografia guztiak gordeta dauden artxibo bat ere badute.
- Gaueko zaintzaileen aretoa ere bisitatu zen, hain zuzen ere atearen parean, aurrez aurre, kokatzen dena, hezitzaileen bulegoen eta areto komunerako sarreraren artean.
- Lantaldea 11 hezitzailez eratuta zegoen: 3 hezitzaile goizez, 4 arratsaldez eta 4 gauetz (gehi koordinatzailea). Zaintzailearen irudia ere badute, beraz, zenbait txandatan 5 ere badira. Nahiko gazteak diren hezitzaileak dira (26-30 urte artean), eta gizonetzkoak (4) nahiz emakumezkoak (7) dira.
- Zaintzaileak ez dira janzten segurtasuneko langileak bezala. Ixurik kontratatzen ditu. Defentsa pertsonaleko prestakuntza dute. Haiek beren lanari buruz duten iritzia ona da. Antolamenduaren barruan sartzen dira gainerako langileak bezala, beren lana beste esku-hartze bat besterik ez da, taldeko bileretan parte hartzen dute beren funtziorako garrantzitsuak diren alderdietan. Etxeko lanak edo garbiketakoak egiteko langilerik ez dago.
- Koordinatzaileak alde zuzeneko eskarmentua du hainbat zentrotan. Urte eta erdi darama Ixurientzat lanean. Hezitzaileen prestakuntzari dagokionez: gizarte lana, magisteritza, gizarte hezkuntza... Hezitzaile batentzako lanpostu hutsa dute. Ez da baxerik egon bisita egin zen datara arte.
- Prestakuntza, une honetara arte, babes pertsonalaren gaian egin dute, lanorduetatik kanpoko asteburu batean. Barruko egoerari dagokionez, beste zentro bateko

koordinatzaileak jarrerei eta dokumentazioa lantzeari buruzko prestakuntza eman zien. Prestakuntza unean uneko zerbait bezala hartzen da, plangintzarik gabe.

- Gazteek funtsean hitz egiten duten hizkuntza ingelesa da. Bisita egin zen egunean 16 zeuden harreran hartuta: Sahara azpiko herrialdeetako 15 eta marokoar bat. Guztiak daude egun osoko ordutegian eskolatuta.
- Normalean egiten duten ibilbidea Zabaltzen, Estibalitz eta Bideberri izaten da. Bideberri azkeneko zentroa da, eta hartara beste baliabideetatik igaro izan ondoren iristen dira.
- Sukaldea, ekipamendu ezin hobea duena, ez da ia erabiltzen, izan ere, menuak (musulmanentzat egokiturikoak) catering enpresa batek ekartzen ditu egunero. Hezitzaileek janaria zerbitzatzen dute. Adingabeen aldetik kezarik ez dutela diote, kontrakoa baizik, gogobetetasuna adierazten dute. Jangela eta sukaldea dituzte gela berezietan. Arropa-garbigailua; lehorgailua; ontzi-garbigailua; bitrozeramika-ekin, mikrouhinarekin, labearekin... ekipatutako sukaldea.
- Sukaldean eta gela ezberdinetan berraztertutako su itzalgailuak daude. Osasun Sailaren bisita eduki zuten, eta hark gabezia batzuk azpimarratu zituen, adibidez catering-erako ganbera beroa behar izatea. Inguruabar hori konponduta dago jada.
- Biltegiko produktuak bereizita daude: batetik, garbiketakoak, eta, bestetik, jatekoak direnak. Arropa han garbitzen dute, nahiz eta garbitegi zerbitzuak ere erabiltzen dituzten, futboleko jolasten dutelako eta arropa ugari zikintzen dutelako. Zentroko garbiketa lanak adingabeek egiten dituzte, txandaka.
- Eremu komunean armairu lanak betetzen dituzten armairutxoak daude, adingabeen argazkiekin pertsonalizatuta. Argazki batzuk deigarri suertatzen dira, heldu itxura dutelako. Horren inguruan adierazi zitzaigun pasaporteek pertsona horiek adingabeak direla egiaztatzen dutela, nahiz eta zenbait kasutan hezur identifikazioko probek 19 urteetan finkatu dituzten adinak.
- Komunak ere zabalak dira, eta, dutxak bezala, giltzapean mantentzen dira.
- Gelak oso zabalak dira dagoen ohe kopururako; bakoitzean ohatze bat dago gutxienez, eta beste bi ohe. Ohe kopuru ezberdineko gelak daude: bost oheko bi gela, lauko bat eta biko bat. Geletara sartzeko, zaintzaileak atea ireki behar ditu, izan ere, une oro itxita egoten dira, betiere, adingabe batek bere gelan sartzea eskatzen ez badu zerbait zehatza egiteko edo arropak aldatzeko edo beste arrazoiren batengatik guztiak sartzeko ordua ez bada. Arduradunak guztia antolatuta eta kontrolpean edukitzeko modu bezala mantentzen du irizpide hau.
- Bisitan zehar, lagin modura, lau espediente pertsonal berraztertu zen. Osatuta eta antolatuta zeuden. Aitzitik, deigarria suertatu zitzaigun lau kasuetatik bakar batean

ere ez zegoela haien tutoretzari buruzkorik. Haietako baten kasuan ere erroldatze ziurtagiririk ere ez zegoen, harreran hartuta hainbat hilabete bazeramatzan ere.

- Zentro (modulu) bakoitzak hezkuntza proiektu bat du. Denbora gutxi egiten dute Zentroan. Ohitura osasungarriak lantzen dituzte. Ez dute portaera arazorik. Ez dago plaza baino adingabe gehiago. Larrialdiko bi plaza dituzte...
- Hezkuntza protokoloa erakutsi eta entregatu ziguten. Gaur arte jarri duten zehapen larriena taldetik bi egunez bereiztearena izan da. Esaten dutenez, hezkuntza erantzunak malgutasunez tratatzen dituzte eta guztia agiritan jasotzen dute.
- Zentro horietarako dekretu arautzaileari buruz egiten duten balorazioaz galdetuta, adierazi dute hezkuntza erantzuna duten portaeren deskripzioa hobetzen duela baina beste batzuk ere falta direla, adibidez eskoletara ez joatea. Zentzu horretan, esaten dute egoera guztiak ez direla aintzat hartu, adibidez prestakuntzari buruzkoak, eta zehapenak ere ez direla bereizten arau-haustea Zentroan edo hartatik kanpo gertatu gorabehera.

Bideberri II-ri egindako bisita antzeko moduan gertatu zen: Elkarrizketa koordinatzailearekin, bisitak instalazioetara (kasu honetan lo egiteko 7 gela dituzte)...

Instalazioak osoak dira, Bideberri I moduluan bezala: Ekipatutako sukaldea, catering-eko janaria mantendu eta berotzeko ganbera, bitrozeramika, su itzalgailuak, bainugela irisgarria...

Orokorrean, egoera egokia da, eta lan egin eta antolatzeke moduari dagokionez, Bideberri I.lean zenaren antzekoa da, beraz, ez dugu hemen berriro errepikatuko.

Datu berritzaile modura, adingabeen epaitegietarako zitazioen berri eman ziguten, balizko agiri faltsutzeagatik.

Horrela, bada, ondorio orokorrago bezala, uste dugu zentro berri baten aurrean gaudela, eta, hasiera batean, harreran hartzen dituen adingabeei erantzun egokia eskaini ahal izateko behar diren baldintza guztiak biltzen ditu. Halaber, ongi antolatuta dagoela dirudi. Hala eta guztiz ere, gogorazi egin behar dugu zentrorako egindako bisitan ezin izan genuela adingabeekin elkarrizketarik eduki, ez zeudelako bertan. Ondorioz, beti beharrezkoa iruditzen zaigun alderaketa elementu bat ezin eduki izatea da.

Antzemandako elementu kezkarrienari dagokionez, adingabeen adina finkatzeko agirien edo osasun proben balioari buruzko desadostasunak eta Arabako Foru Aldundiak tutoretza bere gain ez hartzearen irizpidea daude. Gai horietan txosten honetako 4. idatz-zatian sakonduko da, Arartekoak garatutako jardueren laburpenarekin.

Ikusi ahalko den moduan, Arartekoak bisita eta gero bideratutako jardueretako batzuk Bideberri harreran hartutako adingabeen kexengatik izan dira hain zuzen. 35 adingabe izan

dira guztira azken hilabeteetan erakunde honengana jo dutenak zentroetako funtzionamenduarekiko kekekina. Horrek agerian uzten du, behinik behin, zentroko bizikidetzan hondamen nabarmena.

• **Bisita Vitoria-Gasteizko Carlos Abaitua emantzipazio etxebizitzara**

Ararteko erakundeko langileek baliabide horretara egindako bisita 2009ko azaroaren 13an egin zen. Carlos Abaitua emantzipazio etxebizitza Aldundiaren Gazte Aterpetxearen barruan kokatzen da. Data hartan bakarrik dauden 6 adingabe atzerritar bizi ziren han, eta baita hezitzaile bat edo bi ere. Proiektuan aipatu egiten da 16-18 urte arteko mutilei zuzendurikoa dela, bakarrik dauden adingabe atzerritarrak izanez gero. Eta normalean Bideberri I eta II-tik bideratzen dira hara, nahiz eta Estibalitzeko zentrotik iritsitako adingaberen bat egotea ere posible den.

Sartu bezain pronto, deigarria da toki falta. Izan ere, gazte aterpetxerako prestatutako instalazio bat da eta, ondorioz, denbora faktoreen arabera prestatutakoa da. Horrek, ordea, ez du zerikusirik bakarrik dauden eta han bizi diren adingabe atzerritarren errealtatearekin.

Are gehiago esatearren, bilera egiteko toki fisiko egokirik ez zegoenez (egongela-sukaldean dauden bi mahai bakarrak okupatuta zeuden), geletako batean eduki genuen bilera hori.

Gela bakoitzean hiru ohe dago: bi ohatze modura eta beste ohe osagarri bat.

Geletako batean hezetasun handia igarri daiteke leihoaren ondoan. Badirudi beste gelak ez duela hain hezetasun handiko arazorik. Etxebizitzaren arduradunak aipatu zuen hezetasunen eremuak margotu egingo dizkietela jakinarazi dietela.

Hezetasun arazo berdina igartzen da bainugela bisitatzerakoan (egokitua, bai, baina eskasa ere 6 pertsonaren bizikidetzarako).

Bisitaren helburuetako bat etxebizitzan harreran hartutako adingabeen tutoretza eskaeren aurrean edukitzen ari diren zailtasunak alderatu ahal izatea zen. Jakinarazi zaiguna gorabehera, lehen tutoretzak Aldundiak bere gain hartu eta ziurtatzen zituen harreratik aurrera. Baimenak 9 hilabeteetara itxaron gabe izapidetzen ziren. Egoitza baimena ematen zieten adinez nagusi izan arte. Berritzea eskatzen zuten eta aldeko txostenak eskuratzen zituzten. Horrela, egoitza baimena bi urterako berritzen zieten. Aitzitik, maiatz-ekainetik aurrera, Arabako Foru Aldundiak tutoretzak bere gain hartzeari utzi dio, baita harreran urtebete eta guzti daramaten adingabeen kasuan ere.

2009/10/20an hezitzaile guztiekin egindako bilera batean jakinarazi zitzaiena gorabehera, al-daketa hori aurkeztutako salaketengatik jazo zen, izan ere, pasaporteko adineko, poliziaren aipameneko eta osasun probetako datuak ez zetozen bat.

Bisitako denbora gehiena gai hori aztertzeko erabili zen, izan ere, aurrerago ikusiko den moduan, oso gatazkatsua izan da eta Arartekoaren aldetiko jarduera ezberdinak ekarri ditu.

• Bisitak Debako Oilur zentrorra

2009ko otsailaren 13an martxan jarri zen Oilur Zentroa, hain zuzen ere Debako udalerriko urrutiko eremu batean kokatzen dena. Zentroa Urgatzi elkarteak kudeatzen du eta bakarrik dauden adingabe atzerritarrei zuzendurikoa da, une horretara arte beste zentro batzuetan zeudenak eta portaera arazo bereziak dituztenak.

Ararteko erakundeko langileek Zentrorra egindako lehenengo bisita martxoaren 14an, larunbata, egin zen alde zurretik horren berri eman izan gabe. Ondoren, eta lehenengo bisita horretan antzemandako elementu kezagarriak nahiz jasotzen gindoazen informazio eta kezak aintzat hartuta, beste bi bisita egin ziren: maiatzaren 11n, bata, eta irailaren 25ean, bestea (azken hori Adingabeen Fiskaltzarekin batera eta Ertzaintza ere bertan zela).

Egindako hiru bisitetan ohiko prozedurak erabili genituen informazio iturri modura:

- Zentroaren arduradunarekin edo txandaren koordinatzailearekin elkarrizketa edukitzea.
- Instalazio guztiak ikustea, haien mantentze egoera, segurtasuna, Dekretuak zentro horietarako finkatutako baldintzetara egokitzen den edo ez egiaztatzeko.
- Agiri jakin batzuk berraztertzea (hezkuntza proiektuak, erregistro sistemak, bizikidetzara arauak, sarreren eta irteeren erregistroa, eta abar).
- Bertan zeuden langile batzuekin gutxienez elkarrizketak edukitzea (bai hezitzaileekin, bai zaintzaileekin).
- Zentroan atenditutako adingabeen lagin bati elkarrizketa, bisitaren unean han zeudenen artetik.
- Adingabeen eskubideei eragiten dieten oinarrizko alderdiak berrikustea: elikadura, hezkuntza, osasuna, agiriak, erroldatzea, eta abar.

Debako zentroaren kasuan, bisitez gain, beste informazio iturri osagarri batzuk ere eduki dira: Auzotarren kezak, hezitzaile ohiekin elkarrizketak, bilera Fiskaltzarekin, Gipuzkoako SOS-Arrazakeriatik eskuratutako kezak eta haiekin bilerak...

Ohikoena kasu hauetan, eta urteroko txostenari begira, hemen bisita bakoitzaren edukiaren laburpena sartzeari litzateke. Kasu honetan, ordea, ez zaigu iruditzen hori onena denik. Ino-lako zalantzarik gabe, salbuespeneko jardura bat da: inoiz ez dugu hiru bisita egin zentro berdinerara hain denbora tarte laburrean; inoiz ez da bisita bateratua programatu Fiskaltzarekin; Arartekoak zentro baten inguruan garatutako bisitek eta esku-hartzeek ez dute Batzar Nagusietara joan beharra ekarri; eta oso gutxitan eragin dira horrenbeste kexa eta ofiziozko jardura.

Kexa eta jarduera horiei buruz informazio xehatua ematen da hurrengo orrietan (4. idatz-zatian). Informazio horri esker, elementu kezkarriak edo Gipuzkoako Foru Aldundian Gizarte Politikako Departamentuari egindako bisiten ondotik planteatutako gai kritikoak edo hobetu daitezkeenak ez ezik, Ararteko erakundeak oinarritzko gaietako bakoitzean duen jarrera ezagutzeko aukera ere izan da, eta baita kasu bakoitzean Aldundiko arduradunek defendatu duten irizpidea, jarrera eta irizpideak ere. Horiek guztiek ez dute beti bat egin.

Arrazoi horiengatik eta behar ez diren bikoizketak saihesteko, uste dugu onena kasu honetan bisita bakoitzaren laburpen xehatua ez eskaintzea dela –ohikoa izaten den moduan–, eta, aldiz, elementu kezkarrienetako batzuk edo Ararteko erakundearen aldetik jarduerak ekarri zituztenak azpimarratzea bakarrik.

1) 2009ko martxoaren 14ko bisita

Sorrera berriko zentro batera egindako lehenengo bisita zenez (beraz, lehen bisitatu ez zena), luzea eta osatua izan zen:

- Elkarrizketa zentroaren langile arduradunekin (arreta berezia jarritz hurrengoak bezalako alderdietan: zentroko dokumentazioa, adingabeen dokumentazioa, sendagaiak, elikadura, langileen antolamendua eta eskarmentua, adingabeen bajak, adingabe batzuk Fiskaltzari aurkeztutako salaketak, zentroko jarduerak...).
- Zentroko instalazio guztien ikuskapena.
- Elkarrizketa pertsonalak harreraren hartutako 4 adingaberekin.
- Elkarrizketa pertsonalak bertan zeuden bi hezitzaileekin, biak jatorri magrebtarrekoak.

Kezka gehien sorrarazi zuten elementuen artean hurrengoak aipa ditzakegu:

- Baliabide falta (ez zuten ordenagailurik eduki gure bisita baino egun bat lehenagora arte, ez dago telefono linearik...) eta nahastea dokumentazio guztian.
- Langileen prestakuntza eta eskarmentu eskasa.
- Bakarkako tutoretzak falta izatea.
- Zentroaren funtzionamendurako oinarritzaileak diren dokumentuak falta izatea erabat (adibidez hezkuntza proiektua, bizikidetzaren arauak, erregistro liburuak...). Koaderno bat besterik ez zen erabiltzen, arazo liburu modura, baina eska daitezkeen gutxieneko irizpideak bete gabe.
- Zentrotik alde egiten dutenen kasuak (otsailean hasi ziren 19etatik, 12 geratzen ziren hilabete igarota).
- Zentroko jarduera falta eta hartatik irteteko zailtasunak (izan ere, adingabe bakar bat ere ezin zen hezkuntza zentro batera joan, aurretik eskolatuta bazegoen ere).
- Adingabe bat bera ere ez dago errolatuta.
- Adingabeek hartu beharreko sendagaien berri ez da idatziz inon jaso.
- Adingabeek salaketak jarri dituzte Fiskaltzaren aurrean, eta Ertzaintzak esku hartu behar izan du zentroan.

- Zentroaren hondamena eta mantentze-lanen aldetiko arazoak: beirak, aukiak, armairuak, ate eta leiho apurtuak, erradiadore bat askatuta, itoginak, funtzionatzen ez duen lehorgailua, erabiltzen ez den bainugela...
- Gai hauetako asko kexaren arrazoi dira elkarrizketatutako adingabeen aldetik, baina, batez ere, bi gai nabarmentzen dira gainerakoek arteak: eskoletara joateko zentrotik ezin ateratzea (normalean LHZren batera), eta hezitzaileekiko harreman txarra edo gatazkak.
- Elkarrizketatu diren hezitzaileek ere irudi negatiboa eman zuten zentroko giroari buruz.
- Salaketak edo poliziaren aldetiko esku-hartzeak ekarri dituzten gatazkei dagokienez, bertsio oso ezberdinak topatu ditugu.

2) 2009ko maiatzaren 11ko bisita

Funtsean, zuzendariarekin edukitako elkarrizketa luze bat, instalazioei bisita, lau adingabeekin elkarrizketa pertsonalak eta hezitzaile batekin elkarrizketa izan zen.

Bigarren bisita bat zenez, eta egindako lehenengotik hain hurbil kokatzen zenez, kezka sortzen zuten gaiak eman zitzaizkien arreta, hain zuzen ere goian aipatu direnak. Helburua sartu ahal izandako hobekuntzak egiaztatzea zen.

Orokorrean, bisita hau laburbiltzeko, esan daiteke bere garaian antzemandako arazo nagusiek berean jarraitzen zutela: jarduera falta; adingabeek alde egitea; hezkuntza proiekturik ez edukitzea; elementu askoren triskantza edo hondamena (zentroaren egoera aurreko bisitan baino okerragoa da oraindik); poliziaren esku-hartzea behar izan duten gatazkak; tutoretza falta...

Gainera, arazo berriak edo aurrekoan antzeman ez ziren arazoak ikusi ziren: droga kontsumo gatazkatuak; langileengan etengabeko aldaketak eta bajak; adingabeen eta hezitzaileen artean salaketak eta salaketa horien aurkako salaketa berriak; bi neska harreran hartzea baldintza ez oso egokietan; beste hiri batzuetara joango diren adingabeei txartelak erostea...

Aldaketako aukera batzuk bai planteatzen direla: baratza bat martxan jartzeko aukera; esparrua hesitzeko proiektua; adingabeak erroldatzeko borondatea...

Eta gure aurreko bisitan planteatutako gai batzuetan hobekuntzak igarri ziren, adibidez sendagaien gaineko kontrola, arazoen liburua edo familiekin telefono bidez harremanetan jartzeko aukerak.

3) 2009ko irailaren 25eko bisita

Kasu hartan, Ararteko erakundeko langileek eta Gipuzkoako adingabeen Fiskaltzak elkarrekin egindako (bisitaren zati batean behinik behin) bisita bat izan zen. Funtsean zera egina zen:

- Elkarrizketa bat zuzendariarekin.
- Ikuskapen bisita bat instalazioetara.
- Elkarrizketa zentroan harreran hartutako bi neskatorekin (egun horretan bertan Arartekoko langileek beste neska bat elkarrizketatu zuten, hain zuzen ere etxeko indarkeriaren biktima babestua zena. Hura ere Debako Zentroan harreran hartuta egon zen bere garaian, eta elkarrizketaren unean handik alde eginda zebilen).
- Entzunak izatea eta beraien kekek guri helaraztea eskatzen zuten harrerako zortzi mutikorekin elkarrizketak.

Elkarrizketak amaitzean, erakunde honetako langileak zuzendariarekin bildu ziren berriro ere, funtsean hiru gairi buruz jasotako arazoak edo kekek planteatzeko: adingabeei egitekoak jartzea, janaria eta osasun arreta.

Bisitaren akta-laburpenak elkarrizketatutako adingabe bakoitzaren "salaketak" edo ahozko kekek biltzen ditu. Behin akta hori landuta, adingabeen Fiskaltzari helarazi zitzaion eta bere jardueretarako elementu modura erabili.

Hemen, bakar-bakarrik, agiri horretan jasotako azken ondorioak bilduko ditugu (pertsonei buruzko erreferentziak ezabatuz edo ezkutatuz).

Aurreko bisitetan hezkuntza jarduera faltari eta denbora libreari buruz bi sexuei arreta egokia emateko edo instalazioak desegokiak izateari dagokionez igarritako gabeziez gain, bisitan elementu kezagarri berriak igarri ditugu:

- Neska-mutilek ez dute catering-eko janaririk jaten, esnea, napolitanak, zerealak eta fruta besterik ez dute hartzen. Haietako batzuei kaltea igartzen zaie itxura fisikoan eta, Y.A. eta B.C.ren osasun egoerari dagokionez, bazirudien berehalako osasun errekonozimendu bat behar zutela.
- Ez dute burusirik, arropa egokirik edota zapatarik. Jantzkiak, elikadurarekin eta ostatuarekin batera, oinarrizko beharrak dira.
- Arropa-garbigailua eta -lehorgailua ez dabilta, beraz, eskuz garbitzen dute garbitu beharrekoa.
- Ez dago ur berorik, ezta berogailurik ere (Jakinarazi zaigu arrazoa mutikoez hoditeria leherraraztea dela).
- Gelek ez dute armairurik, ezta aterik ere. Bainugelek ere ez dute aterik, gortinak bakarrik.
- Ez dago behar besteko lastairarik; ondorioz, bi adingabek egongelako sofatan egi-ten dute lo.
- Baliabide ekonomikoen alorreko arazoak planteatu dituzte.
- Hezkuntza esku-hartzearen alorrean hobekuntzarik ez egotea deigarria da segurtasunaren alorrean antzemandako aurrerapenekin (beharrezkoak): Hesi berria, esparrua kanpoaldetik zaintzeko kamera sistema eta suteak antzemateko sistema berria daude.
- Gure ebazpenean jada salatu genuen jarduera faltak berean jarraitzen duela [ebazpen hori txosten honetako 4. idatz-zatian aipatuko dugu]. Gainera, azpimarratu

egiten genuen beharrezkoa zela jarduera horiek Zentroarentzako hezkuntza proiektu batean sartzea eta adingabe bakoitzaren ibilbideari bakarkako jarraipena egitea. Bisitak, ordea, kezka arrazoi berri bat sortu digu alderdi horri dagokionez. Izan ere, elkarrizketatu diren langileek eurek dioten moduan, alde egiteetan eta giro gatazkatsuan igarri daitekeen lasaitasun handiagoaren arrazoa adingabeek portaera ona beste zentro batzuetara bidaltzearekin erlazionatzea dela. Horrek hurrengoaren gainean ohartarazten gaitu: jarduera faltak, baldintza materialak edo beste toki batzuetan hasitako prestakuntza jarraitzeko baldintzak, zuzendu beharreko akats bat bezala baino, baliabide papera betetzen ari den inguruabartzat hartzen ari dela. Horrek, portaeren ikuspegi soiletik, Deba zigorrerako baliabide soil bezala ikustea ekarriko du, praktikan gaizki portatzeagatik joaten den eta handik ongi portatzeagatik irteten den toki bat bezala, aparteko hezkuntza proiekturik gabe.

Bisita hauen ondotik garatutako jarduera nagusiak (ofiziozko jarduerak, kexak, bilerak erakundeetako arduradunekin, Arartekoa Batzar Nagusietara joatea, Arartekoaren ebazpenak...) datozen orrialdeetan laburbilduko dira, kapitulu honetako 4. idatz-zatian.

3. Araban beste gizarte agente batzuekiko garatutako kudeaketak

2009 urtean zehar, batez ere azken hiruhilekoan, Ararteko erakundeak hainbat kezka eta urduritasun adibide jaso zituen gizarte agente ezberdinen aldetik eta bakarrik zeuden adingabe atzerriar batzuk Arabako Lurralde Historikoan bizi zuten egoerarengatik.

Errealitatea hobeki ezagutzeko, zentroetara egindako bisitez gain (aurreko idatz-zatian jada laburbildutakoak) edo Arabako Foru Aldundiaren aurrean ofizioz egindako jarduez edo datuak eskatzeko jarduez gain (1. idatz-zatitik 4.era bitarte laburbilduta), hurrengo jarduerak ere garatu ziren modu osagarrian:

- Bisita Vitoria-Gasteizko udal Aterpetxera.
- Arabako Lurralde Historikoko "bakarrik dauden adingabe atzerriarren mahaiko" bilera batzuetan parte hartzea.
- Elkarrizketak egungo baliabideetako nahiz aurreko ekipoetako hezitzaile eta arduradunekin.
- Atzerriko pertsonak babesteko edo haien gizarteratzea errazten duten elkarteetako arduradunekin elkarrizketak.
- Bakarrik dauden adingabe atzerriarrak eskolatzen dituzten ikastetxe batzuetako langileekin bilerak.
- Kexak aurkeztera edo laguntza eskatzera Ararteko erakundera jo zuten bakarrik dauden adingabe atzerriarrekin elkarrizketak (gehienak erakunde honek izapidetutako 34 kexa ingururekin uztartuta).

Harreman horien guztien emaitza modura, hainbat gai kezkarri sortu zen. Horiek, xehetasunetan galdu nahi gabe eta adierazgarrienak azpimarratzen saiatuz, hurrengoetan laburbil

daitezke (bakarrik dauden adingabe atzerritarren egoerari dagokionez, hori baita une honetan kezkatzen gaituena):

- Arabako Foru Aldundiak tutoretzak bere gain hartzeko arazoak.
- Emantzipazio baliabideak edo aukerak eskasak izatea 18 urtera iristean.
- Babesik gabe dauden adingabeak, kalean eta arazoa suposatzen duen droga kontsumoarekin eta bestelako osasun arazoekin.
- Adingabeak zentroz aldatzeko jarraitzen diren irizpideei buruzko galderak, edo beste toki batzuetara joatearen arrazoiei buruzkoak.
- Adingabeak egoki atenditzeko aurreikusi ez ziren eta baldintza egokiak ez dituzten udal harrerako baliabideetan ikustea.
- Arabako Foru Aldundiaren partetik erantzuna falta izatea (edo erantzuna emateko atzeratzea) zentroek dokumentazioari eta adingabeen tutoretzak izapidetzeari buruz egindako eskaeren aurrean (kasu askotan gutxi barru 18 urte beteko dituzten adingabeei dagokienez).
- Ixuri Elkartearen kudeaketa gaitasunari buruzko zalantzak, harrera zentroen ardura aurrera modu egokian ateratzeko.
- Adingabeei jarri ahal izan zaizkien zehapenak, eta horiek haien eskubideen urratzaille izatea agian (adibidez janariari edo eskolatzeari dagokionez).
- "Norberaren bajarako" dokumentuak sinatzerakoan borondatea egoteari buruzko zalantza.
- Adingabe jakin batzuk, jatorri magrebtarrekoak batez ere, baliabide zehatz batzuetara iristea burutik kentzea edo iriste hori oztopatzea.
- Harreman arazoak bakarrik dauden adingabe atzerritarrak eskolatzen dituzten LHZko hezitzaileen eta harrera zentroetako hezitzaile edo arduradunen artean (garraio ordutegiei buruz, adibidez, edo bertaratzeko irizpideei, zigorrei, eskola orduetatik kanpoko jardueretan parte hartzeari, eta abarrei buruz).
- Prestakuntzarik gabeko zentroen arteko lekualdaketak edo adingabeen iritzia aintzat hartu gabe egitea.
- Emantzipazio etxebizitzetako batzuk ezabatzeko aukera eta bertan harreran hartutako pertsonen biziko luketen egoera.
- Laneratzea lortzeko zailtasunak, dokumentazioan atzerapenak egoteagatik...

Arazo horietako askok kexak eta Ararteko erakundeak garatutako ofiziozko jarduerak ekarri dituzte; horietako asko, gainera, martxan dago oraindik (ikusi hurrengo idatz-zatia kapitulu honetan bertan). Beste batzuk egiaztatu beharreko elementu gisa balioko dute zentroetara etorkizunean egiten diren bisitetan.

Gainera, zenbait elkarrizketatan neurri bateko kezka adierazi da, herrialde ezberdinetatik etorritako oso neska gazteen haur prostituzioko aukerengatik. Gai horrek poliziaren ikerketa eskatuko luke, behinik behin.

Adingabe horiei arreta ematean esku hartzen duten eta konpromisoa duten elkarte eta gizarte agente ezberdinen artean koordinaziorako edo lankidetzarako bideak edukitzeko beharra edo eskaera ere ikusi dira.

4. BDAAen egoerari buruzko ofiziozko jarduera eta kexa nagusiak

Bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako arretak aintzat hartu beharreko funtsezko bi elementu ditu:

- Nazioarteko testuetan eta barne araudian eskubideak onarturik dituzten **adingabeak** dira. Araudia gisa hurrengoak aipa ditzakegu: Haurraren Eskubideen Konbentzioa, Adingabearen Babes Juridikorako Lege Organikoa, Haurtzaroa eta Nerabezaroa Atenditu eta Babesteko euskal legea eta hura garatzeko araudia.
- Adingabe **atzerritarrak** dira. Horrek migrazio proiektuekin, proiektu pertsonal eta familiakoekin, eta Estatu nahiz Europa mailako migrazio politikekin uztartzen ditu.

Bakarrik dauden adingabe atzerritarrei buruzko 2009ko datuek agerian uzten dute foru aldundiek atenditutako adingabe kopurua ez dela igo aurreko urteetan egin zuen moduan, Arabaren kasuan izan ezik. Datu hori elementu garrantzitsu bat da, izan ere, faktoreak anitzak izan daitezke, besteak beste babeseko euskal erakundeen aldetik eman den arreta bera. 2009an erakunde honek jasotako kexen eta egindako jardueren azterketak funtsezko alderdi batzuk eman ditzake Euskal Autonomia Erkidegoan foru aldundiek 2009 urtean garatutako politikei buruz. Aurreko idatz-zatietan emandako ikuspegiarentzat osagarria den beste bat litzateke.

Aurten ere, adingabe atzerritarren egoera Ararteko erakundearen aldetiko hainbat jardueraren xede izan da. Bideratu ditugun esku-hartzeek zerikusia zuten, batez ere, hurrengo arazoekin:

1. Adina finkatzeko proben zehaztasun falta eta babes sisteman horrek dituen ondorioak.
2. Adingabeen eskubideen urradura, adibidez hezkuntzarako eskubidea, babestuak izateko eskubidea eta entzunak izateko eskubidea.
3. Adingabeen babeserako zentroen kokalekuari gizarateak emandako errefusa.
4. Autonomia erkidegoen artean adingabe atzerritarren lekualdatzeak kontrolatzeko zailtasunak.
5. Tutoretzak gain hartzeko betebeharra eta egoitza baimena eskatzekoa urratzea.
6. Egoitza harrerari jarritako mugak.

Honi erantsi egin beharko litzaioke Herriaren Defendatzaileak edukitako esku-hartzea, Gipuzkoako Gobernuaren Ordezkariordeztari eragiten zion kexa bat zela eta (Espedienteak: 1509/2009): Ordezkariordeztza horrek salbuespeneko inguruabarrak agertzeagatiko aldi baterako egoitza baimena ukatu zion mutiko bati. Egoitza baimen baten titular izan zen, babes erakunde baten tutoretzapeko babesgabetasun egoeran egoteagatik. Baimen hori adin nagusitasunera iritsi baino egun bat lehenago iraungitzen zen. Berritzeak salbuespeneko inguruabarrengatik egoitza baimen batek jarraitu beharreko izapideak jarraitu zituen. Gipuzkoako Gobernuaren Ordezkariordeztzak egoitza baimena ukatu zuen Foru Aldundiaren txostena oinarri hartuta. Hartan, adierazi egiten zen ez zitziola gizarteratze baliabiderik

esleitu, haren ibilbidea kaltegarria izan zelako. Beste era batera esatearren, Gobernuaren Ordezkariordezkak 2393/2004 EDko 92.5 artikulua aplikatu zuen. Bertan, aurreikusi egiten da adin nagusitasunera iritsi diren eta egoitza baimenik ez duten adingabeei horrelako baimenak emateko aukera, betiere, babes ematen duen erakundearen partetik aldeko txostena egonez gero (hala eta guztiz ere, adingabeak egoitza baimena eduki zuen, jada adierazi dugun moduan, beraz, ezin zitzaion aipatutako 92.5 artikulua hori aplikatu).

Gobernuaren Ordezkariordezkak, bestalde, Herriaren Defendatzailearen doktrina aplikatzen ari zela zioen, hau da, salbuespeneko inguruabarrengatik egoitza baimena ukatzeak Herriaren Defendatzailearen irizpidea jarraitzen zuela.

Herriaren Defendatzailearen irizpidea, Gobernu Ordezkaritza eta Ordezkariordezkak ezberdinei zuzendurikoa, ezberdina zen. Interesgarria izateagatik, jarraian laburbilduko dugu:

Herriaren Defendatzaileak uste du Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta betebeharrei eta haien gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoko 35.4 artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz ematen diren egoitza baimenek jarraitu egin behar dutela nahitaez atzerritarrei buruz indarrean dagoen legedia, izan ere, ez dago araubide orokorretik kanpo uzteko inolako manurik.

Artikulu hori II. kapituluan dago, "Atzerritarren egoerak"; II. Tituluaren barruan, "Atzerritarren egoeren araubide juridikoa". Gainera, aipatutako legeko 3. artikuluekin bat etorriz, Haurraren Eskubideen Nazioarteko Konbentzioa eta Adingabearen babes juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoa aplikatu behar dira. Erregelamenduan berariazko araudirik ere ez da arautu, haien egonaldi egoera aintzat hartu ere ez da nahi izan, ezta haien egoitzaren erregularitasuna adingabeak Herri Administrazio baten tutoretzapean egindako denborari uztartu ere. Beste era batera esatearren, ez dago horri buruzko araudi aurreikuspenik.

*"A la vista de todo lo anterior, en cumplimiento del principio **ubi lex non distinguit nec nos distinguere debemus**, la residencia de los menores extranjeros no acompañados tutelados por una Administración Pública ha de ser considerada como una residencia no lucrativa de las previstas en el citado artículo **31.2**".*

Herriaren Defendatzaileak planteatzen du egoitza baimen hauek eduki behar duten araubidea Atzerritarrek Espainian eta atzerriko pertsonak Espainian dituzten eskubide eta betebeharrei buruzko 4/2000 Lege Organikoa garatzeko 2393/2004 Errege Dekretuko 36.2 artikuluan aurreikusitakoa dela. Aldi baterako hasierako egoitza baimenak urtebeteko iraualdia edukiko du.

Halaber, hasierako lehenengo egoitza baimen hori amaituta adingabeak erakunde publiko baten tutoretzapean jarraitzen badu, baimen hori bi urtez berritu beharko da, aipatutako errege dekretu horretako 37.4 artikulua aurreikusten duen moduan.

Adingabea adin nagusitasunera iritsiz gero, planteatu egiten da, Administrazioak egoki iriziz gero, egoitza baimena iraungi daitekeela 4/2000 Lege Organikoko Erregelamenduko

75.2.c) artikulua aplikatuz. Kasu honetan salbuespen gisa aipatzen da gizarteratzearen irizpidea baloratzearena, izan ere, ez du zentzurik babes erakundeek egindako esfortzuek ez ekartzea gero egoitzan jarraitutasunik. Ondorioz, inguruabar bereziengatik egoitza baimenaren araubidera aldatzerik badago (4/2000 Lege Organikoko 31.3 artikulua).

Gipuzkoako Gobernuaren Ordezkariordeztzak egoitza baimena berritzeari uko egin zion, salbuespeneko inguruabarrengatik egoitza baimena zela uste izateagatik eta adingabearen portaerari buruz Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako txosten ezkorra aintzat hartzeagatik. Adingabea adin nagusitasunera iritsi zenean iraungitzen zitzaion egoitza baimen baten titularraren zena.

Herriaren Defendatzaileak Gipuzkoako Gobernuaren Ordezkariordeztzari helarazi zion, funtsean, honakoa:

Tutoretzapeko adingabe bati ematen zaion lehenengo egoitza baimenak, indarraldiaren hasierako data modura, aintzat hartu behar du adingabea adingabeak babesteko zerbitzuen esku jarri zen eguna.

Hura iraungitzeko data ezin izan daiteke adingabea adin nagusitasunera iristen den data, baizik eta 2393/2004 EDan aurreikusi dena (hasierako urtebeteko baimena; bi berritze, bi urtekoa bakoitza; eta, azkenik, egoitza iraunkorreko baimen bat).

Araudiak baimen hori 4/2000 Lege Organikoko Erregelamenduko 75.2.c) artikulua aplikatuz iraungitzea aurreikusten badu ere, horrek ez du zentzurik interesduna gure gizartean erabat integratuta eta laneko merkatuan jarduten ari den kasuetan. Ez du zentzurik adingabe horiek 18 urte betetzerakoan eta, kasu askotan, Espainian hainbat urte egin izan ondoren, agirien aldetiko irregulartasun egoeran geratzea nahi izatea.

* * *

Jarraian, lehen bakarrik dauden adingabe atzerritarrei eragiten dieten inguruabar modura aipatu ditugun zailtasunak aztertuko ditugu. Horiek erakunde honen aldetiko jardueren xede izan dira:

1. Adina finkatzeko proben zehaztasun falta eta babes sisteman horrek dituen ondorioak.

Pertsona bat adinez nagusitzat edo adingabetzat hartzeak eragin garrantzitsuak ditu. Adinez nagusi bada, Espainian atzerritarrek dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Organikoak helduentzat aurreikusten duen araudia aplikatzen zaio. Bertan, irregulartasun egoeran dauden pertsonen kasuan, zehapen espediente bat izapidetzea aurreikusten da. Pertsona adingabea bada, adingabeak babesteko araudia

eta aurreko araudian zentzu horretan ezarritako aurreikuspenak aplikatzen dira. Babes erakundearentzat ere eraginak ditu, izan ere, haurrak eta nerabeak babesteko betebeharrak du 18 urtetik beherakoak badira.

Adina zehazteko arazoa agiririk gabeko adingabeen kasuan ageri da, eta baita haiek dituzten agirietan faltsutasun arrastoak igartzen diren kasuetan ere.

Arartekoak hainbat esku-hartze bideratu ditu, adina zehazteko zailtasunak eta dokumentuek finkatutako adinaren eta adingabe atzerritarren hezur adinaren artean aldea agertzearen ondorioak gaitzat edukiz (11/2007, 47/2009, 6/2008, 12/2009 espedienteak). Esku-hartzeek hiru lurralde historikoei eragin diete. Planteatu diren arazoak hauek dira:

- a) Adina zehazteko froga orokorrak egitea adingabe guztiei, haiek Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta betebeharrak eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Organikoa garatzen duen 2393/2004 EDko 111. artikuluan aurreikusitako Adingabeen Erregistroan erregistratuak izan diren edo ez, edo beste autonomia erkidego batzuetan peritu probak egin diren edo ez, edo beste adin bat adierazten duen dokumentazioa duten edo ez alde batera utzita.
- b) Pasaporteetan adierazitako jaiotze dataren egiazkotasuna zalantzan jartzen duten froga fisikoak.
- c) Pasaporteetan ageri den adina aintzat ez hartzea.
- d) Bakarrik dauden adingabe atzerritarrei egiten zaizkien probetan fidagarritasuna eta arintasuna falta izatea. Lurralde Historikoa edo Autonomia Erkidegoa gorabehera, probak egiteko modua ezberdina izatea.
- e) Adingabeei balizko iruzur delituak eta dokumentuak faltsutzeari buruzkoak egozteak. (Nerabe atzerritarrei zehapen eginbideak irekitzeak zaildu egiten du haien gizarteratze prozesua, beraz, eginbide horiek irekitzea kezka arrazoi bat da erakunde honentzat).
- f) Adingabeei ez jakinaraztea zeintzuk diren probak egitearen edo ez egitearen eta haien emaitzen ondorioak.

Ezer baino lehen, garrantzitsua da Fiskaltzaren eskumena gogoraraztea Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta betebeharrak eta gizarteratzeari buruzko Legearekin bat etorriz esku hartzeko eta nerabe bat adinez nagusi den edo ez finkatzeko. Halaber, garrantzitsua da azpimarratzea Fiskaltzak irizpide ezberdinak aplikatzen ari direla Estatuko lurralde ezberdinetan, eta baita Euskal Autonomia Erkidegoaren barruko hiru lurraldeetan ere. Bestalde, foru aldundiek hasiera batean Fiskaltzaren irizpideari jarraitzen diote, nahiz eta salbuespenak ere izan diren, adibidez Arabako Foru Aldundiaren kasuan, haiek ez daudelako ados Arabako Fiskaltzaren irizpidearekin.

Gipuzkoako Lurralde Historikoa

Gure esku dugun informazioaren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika Departamentuko Haur eta Gazteen Zuzendaritza Nagusiaren 2008ko otsailaren 19ko jarraibidea aplikatzen dute. Jarraibide honek finkatu egiten du adingabe atzerritarren adina finkatzeko hurrengo irizpideak jarraituko direla:

“1.- Adingabeak jatorrizko pasaporte baldin badu, agiri horretan agertzen den jaiotza dataren arabera zehaztuko da bere adina.

2.- Adingabeak pasaporterik ez badu, baina bai jaiotzaren akta edo bere jatorrizko agintariak egindako antzeko nortasun dokumentu publikoa, agiri horietan ezarritako jaiotza dataren arabera zehaztuko da adina; betiere dagokion agiria legezkoa bada edo oharra badu.

3.- Adingabe atzerritarrak aurreko bi ataletan aipatutako agiriren bat ez duenean, dagokion Fiskaltza Dekretuak egin zaizkion osasun azterketetan oinarrituta finkatutako adina hartuko da kontuan.

4.- Gizarte Politika Sailak Fiskaltza Dekretuan finkatutako adinari jarraiki hartu badu atzerritar bat bere tutoretzapean, une horretan ez zeuzkalako Instrukzio honetako lehendabiziko bi ataletan adierazitako agiriak, eta ondoren adingabeak bere adin nagusitasuna edo beste adin bat duela adierazten duen agiria aurkezten badu –edo berekin badu–, ondokoa egingo da: adin nagusikoa bada, onartutako tutoretza neurria eten egingo da foru agindu baten bidez, eta oraindik adingabea bada, aldatu egingo dira jaiotze datan agertzen diren datuak.

5.- Gizarte Politika Saileko Idazkaritza Teknikoak tutoretzapean hartutako adingabearen pasaportearen kopia konpultsatua egingo du, baita bere nortasuna egiaztatzen duten gaine-rako agiriarena ere, Instrukzio honen bigarren atalean aurreikusitako moduan.

6.- Konpultsatutako kopia edo kopiak babeserako administrazio espedienteari erantsiko zaizkio. Horrez gain, kontuan hartu behar da espainiar lurraldean dauden atzerritarrek Espainian sartzeko erabili duten dokumentazioa indarrean mantentzeko eskubidea eta betebeharrak dutela; hots, beren jatorrizko edo etorri diren herrialdeko agintari eskudunek emandakoa eta beren nortasuna egiaztatzen duena. Horixe finkatzen du Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoko Araudia onartzen duen abenduaren 30eko 2393/2004 EDko 100. artikulua eta Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Euskal Legeko 11.3 artikulua.”

Gipuzkoako Foru Aldundiak, iazko txostenean jakinarazi genuen moduan, erakunde honi erantzun dio ados zegoela herri administrazioek neurri egokiak hartu behar izateari buruz adina zehazteko osasun probak profesional independenteek egin ditzaten, betiere, eskarmentu eta ezagutza egokiak badituzte eta proba fisikoak, gizartekoak eta psikologikoak konbinatzeko teknologia modernoa erabiliz gero: *“Gure ustez ere, Fiskaltzaren Dekretua*

informe zehatzagotan oinarritu dadin, Arartekok aditzera emandako giza baliabidekin eta baliabide materialekin zehaztuko beharko litzateke Gipuzkoara agiririk gabe (edo faltsutasun aztarnak dituzten agiriekin) iristen diren pertsona atzerritarren adina.”

Hala eta guztiz ere, aurten izapidetutako kexa batean (espedientea: 1178/2009) aipatu egiten da faltsutasun arrastorik ez duen dokumentazioa duen adingabe bati (dokumentazioan finkatutako jaiotza data 1993-12-31 da) Gipuzkoako Foru Aldundiaren tutoretza bertan behera utzi zaiola, Kordoban adin proba bat egin diotelako eta horrek Fiskaltzari jaiotza data 1991-11-13an finkatzeko dekretua egiteko balio izan diolako, eta, beraz, adinez nagusi izango litzatekeelako. Espediente hori izapidetzen ari da une honetan.

Arabako Lurralde Historikoa

lazko txostenean arazo honekin zerikusia zuten bi espediente aipatu genituen. Bata, adingabe atzerritar bati buruzkoa zen, 1299/2008 espedientea. Haren pasaportea egiazkoa ote zen zalantzan jarri zen, eta horrek egoitza baimena eskuratzea galarazten zuen. Espediente hau ebatzi egin zen eta mutikoak gizarteratze prozesuarekin jarraitzerik eduki du, izan ere, gaur egun egoitza baimena dauka. Beste espediente batean, 6/2008 delakoa, Foru Aldundiak ez zigun erantzunik eman. Espediente horretan Arabako Foru Aldundiaren jarduerari buruzko informazioa eskatu genuen, Arabako Gobernuaren Ordezkariordeztaren esku adingabeen pasaporteak jartzeari dagokionez hark baliozkotasuna egiazta zezan. Halaber, informazioa eskatu genuen Foru Aldundiak garatutako jarduera ezberdinen gainean, hala dagokionean Arabako Gobernuaren Ordezkariordeztan egoitza baimenaren eskaera aurkezten den arte. Arabako Foru Aldundiak ez digu erantzunik eman gaur arte informazio eskaera horrentzat, eta hori erantzuna hainbatetan eskatu izan badiogu ere guri laguntzeko duen betebeharra gogoraraziz.

Aurten, arrazoi hori dela eta, ofiziozko jarduera berria hasi dugu, 47/2009 espedientean, erakundeko langileek azaroan Araban adingabeak atenditzeko dauden hainbat baliabidetara egindako bisitaren ondotik. Bisita horiek txosten honen lehenagoko idatz-zatietan islatuta ageri dira.

Eskuratutako informazioa gorabehera, Arabako Foru Aldundia, 2009ko maiatza edo ekainetik aurrera ez da babeseko baliabideetan atenditzen dituen nerabeen tutoretzak bere gain hartzeko izapideak egiten ari. Gazte horiek zitazio judicialak jasotzen ari zirela zioen informazioa ere bagenuen, horietan agiriak faltsutu izanaren delitua egotziz. Gertaera horiek ikusita, Foru Aldundiari Arartekoak gaiari buruz mantentzen duen jarrerari buruzko oharrak helarazi genizkion, eta, halaber, hurrengo gaiei buruzko informazioa eskatu genion:

- “a) Foru Aldundiak adingabea dela dioen eta agiririk ez duen pertsona bat aurkitzen duenean daukan jarduteko protokoloa zein den, eta pertsona horrek agiriak badauzka, aldundiak zein izapide egiten dituen pertsona aurkitzen duenetik tutoretza bere gain hartzen duen arte, babesik gabeko egoeran badago.

- b) Foru Aldundiak adingabeek dituzten eskubide hauek bete behar ditu: entzunak izateko eskubidea eta babeserako eskubidea. Adingabeari bere interesei eragiten dien informazioa helarazten duen entzunaldi izapidearen kopia eta abokatua izateko duen eskubidearen kopia, halakorik balego.
- c) Foru Aldundiak auzibidean salatu dituen nerabeen datuak, egoitza baliabidean sartzeko data eta Arabako Foru Aldundiaren babes baliabidean igarotako denbora.
- d) 2009ko azaroaren 13an Foru Aldundiak hartutako adingabe atzerritarren datuak eta, halakorik balego, tutoretza hartu zeneko data eta egoitza baimena eskatu zeneko data. Babesik gabeko egoeran ez daudela erabaki bada, tutoretza hartzeko izapiderik ez egin izanaren arrazoiak eta egoitza baimena eskaera ez izapidetzearen arrazoiak.
- e) Espedienteak hizpide dituen gertakariei eragiten dien beste edozein datu interesgarri.”

Arabako Foru Aldundiari bidalitako informazio eskaerari erantzuna eman diezaiola eskatu diogu, behin informazio eskaerari erantzuteko dagoen epea igaro dela ikusi dugunean. Aitzitik, gaur arte ez dugu erantzunik jaso.

Bestalde, babeseko baliabideetan atenditutako 35 adingabek baino gehiagok kexa bana adierazi dute tutoretza gain ez hartzeagatik eta Arabako Foru Aldundiaren aldetik egoitza baimenaren eskaera ez aurkezteagatik.

Foru Aldundiak eduki berdina erantsi du espediente bakoitzari emandako erantzunean. Pasaportean adierazitako adinari eta hezur probari dagokienez, desadostasuna dagoela erantzun du. Halaber, Tenerifen adingabeei poliziak egindako idazkian pasaportekoa baino lehenagoko jaiotza data bat ageri dela esan zaigu, beraz, adingabearen adinean desadostasuna ikusita, Atzerritartasuneko Brigadari informazio osagarria eskatu zaiola. Beste kasu batzuetan, salaketa jarri da zuzenean Vitoria-Gasteizko Instrukzioko guardiako Epaitegian adin desadostasun horrengatik.

Espediente horiek izapidetzen ari dira une honetan.

Bizkaiko Lurralde Historikoa

Gazte atzerritarrei eragiten dieten hainbat jardueraren berri eduki dugunean, ofiziozko esku-hartzea egin dugu (12/2009) espedienteak, adibidez hurrengoak: babes baliabideetatik gazte atzerritarrak irtetea adina zehazteko auzitegiko sendagileek probak egin ondoren, zehapen eginbideak bideratzea eta Fiskaltzaren jarduna, adin nagusitasuna dekretatzeko eta herrialdetik kanporatzea proposatzeko. Bere jatorriko herrialdeko dokumentazio ofiziala zeramaten gazteak ziren, hau da, pasaportea zeramatenak, bertan beraien jaiotza data adieraziz. Babes baliabideetan onartuak izan baino lehen ez zen adina zehazteko jarduerarik

egon. Denbora asko igarota adin nagusitasuna zehatzeak alarma egoera ekarri zuen, polizia babeseko zentroetara joan zelako pasaporteak kentzeko eta zehapen eginbideak hasi zirelako. Jarduera horiek gazteak egoitzazko baliabideetan sartu eta hilabete ugari igaro ondoren garatu ziren, hain zuzen ere jada prestakuntza zentroetara joaten ari zirenean eta dokumentazio prozesuan eta gizarteratzekoan jada sartuta zeudenean.

Helarazitako informazioa aztertu ondoren, Aldundiari hobetu beharreko hurrengo alderdiak jakinarazi genizkion:

- Gazte batzuk 11 hilabeterainoko epea zeramaten harrerapean. Beste batzuk gutxiago zeramaten. Epe horiek luzeegiak dira, adina zehaztu gabe egoteko.
- Fiskaltzaren dekretua egun berean eman zen, kasu guztietan: 2009ko otsailaren 25a. Dekretuan adierazi zuten Atzerriko Gaietarako fiskal ordezkariak pertsonaren aurkako salaketa jarri duela, nortasun agirian datu bat, ustez, faltsutzeagatik. Beraz, salaketarekin bat, eta auzitegiko sendagilearekin bat, espedienteak artxibatuko dira, pertsonak adinez nagusiak direlako. Poliziaren aipamenak, berriz, Bilboko 6 zk.ko Instrukzio Epaitegian aurretik egindako eginbideak –643/09– ditu hizpide; izan ere, diru-laguntza iruzurra egon zen, proba oseometrikoak adinez nagusia zela adierazi zuelako. Beraz, ustezko delituko datuak ez datoz bat; beraz, bidalitako informazioaren arabera, ez dakigu gazte horiei azkenean egotzi zieten kargua.
- Entzunaldiko tramitean, adingabeei ematen zitzaizen informazioan ez zegoen jasota proba medikoen ondorioak zein izan zitezkeen, ezta probak egiteari uko egiteko aukeraren berri, eta ukoaren ondorioak (*1/2009 Kontsulta, Estatuko Fiskaltza Orokorrekoa, "Bakarrik dauden atzerriko adin gabeen adina zehazteko espedientei buruzko hainbat alderdi*). Entzunaldi eginbidea aldatu da, eta proba medikuen emaitzek dakartzaten ondorioen berri ematen hasi dira, **baina, bidalitako informazioaren arabera, probak egiteari uko egiteko aukera, eta uko egiteak dakartzan ondorioen berri ez da ematen.**
- Bidalitako erantzunean, babes baliabideen sartu zenean, gaztearen identitatea jasotzearen izapidea eta adingabeen erregistroan begiratu izana ez da jaso (Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunen eta beren gizarteratzeari buruzko 2000ko urtarrilaren 11ko Lege Organikoaren 111 artikulua), **ezta jasotako emaitzak ere.** Era berean, ez dago agiria faltsua dela frogatzeko erreferentziarik.
- Jaso diren datu bakarrak 2009ko otsailean Zornotzako hezkuntza zentroko (Landalan) zuzendariak interesdunei emandako informazioari buruzkoa, eta martxoan, Bizgarri Elkarteak emandakoa. Informazio horiek adinez nagusi zirela erabaki zenean eta tutoretza etengo zela jakinarazi zitetenean.
- Adituek egindako proben emaitzak berdinak dira kasu guztietan, norberaren datuak izan ezik; horregatik, Arartekoaren iritzia helarazi genuen: "Erakunde honen aburuz, adina egiaztatzeko probak berme batzuk errespetatuta egin behar dira, besteak

beste, ahal bezain azkartasun eta zehaztasunez eginez. Halaber, gazteek proba egitearen ganean eta horren ondorioen ganean informazio egokia jaso behar dute, gazteek duten esatekoari entzun behar zaio eta laguntza juridikoa jasotzeko bidea eman behar zaie. Probak egiteko eskumena Eusko Jaurlaritzak dauka, beraz, go-goeta hauek behin baino gehiagotan helarazi zaizkio Justizia Sailari (11/2007/31O eta 60/2009/31O espedienteak).“

Halaber, erakundeak gai horren ganean duen iritziari buruzko ondorioak bidali genizkion, eta baita esku-hartzearen mugei buruzkoak ere, hainbat erakunde izateagatik eragindakoak (Fiskaltza eta Eusko Jaurlaritza, –Auzitegiko Medikuntzako Erakunde–).

“1.- Jarrera ezberdinak daude adina zehazteko zailtasunen aurrean eta agirietako adinaren eta medikuak zehaztutakoaren arteko ezberdintasunaren aurrean. Adin nagusitasuna egun berean dekretatu izanak adierazten du Fiskaltzak jarrera eta erabaki bat izan duela auzi honetan, Fiskaltzak baitauka adina zehazteko eskumena. Ildo horretan, foru aldundiak Fiskaltzaren jarraibideak errespetatu ditu, egoki den bezala.

Nabarmendu behar da ez dagoela adina erabateko zehaztasunez finka dezakeen metodo zientifikorik. Mediku pediatrek ere kontuz ibili behar dela diote, eta adierazten dute oso zaila dela benetako adina zein den zehaztea, bereziki, 15-18 urte bitartekoen kasuan: “Adinaren zehaztapena ez da zientzia zehatza eta errore marjina 5 urtera artekoa izan daiteke” Guidelines for Paediatricians, 1999ko azaroan Royal Collage of Paediatrics and Child Health status-ek argitaratu zuen.

Erakunde honek lehengo jarrera bera dauka herritarren defentsoriek egindako adierazpenaren aurrean, baita, egoki den kasuetan, probak azkartasunez egitearen aurrean ere. Eusko Jaurlaritzaren eskumena da probak nahikoa bermerekin eta azkar egitea. Eta, adierazi dugunez, gai hau hizpide izan genuen 11/2007/31O eta 60/2009/31O espedienteetan.

2.- Pertsonen eskubideak eta bermeak errespetatzeko beharrak, adin nagusitasuna zehazteko prozeduran kontu handiagoarekin ibiltzeko eskatu beharra ekarri digu. Ildo beretik, gazteak entzunaldiaren eginbidean informazio guztia edukitzeaz gain, laguntza juridiko independentea eduki beharko luke, epaitegiko bidera jo ahal izateko. Eusko Jaurlaritzaren ardura da ere defentsa baliatzea ahalbidetzea. Horregatik, administrazio horretara jo dugu, eta laguntza mota hori ematea komeniko litzatekeela adierazi diogu 1398/2008/31 eta 60/2009/300 espedienteetan.

3.- Komenigarria litzateke, gazteen adina erregistroan egiaztatzea, eta adina zehazteko probak adinez txiki ez direlako susmoa dagoenean bakarrik egitea. Proba horiek ahal bezain azkarren egitea ere egokia litzateke. Garrantzitsua da jardun protokoloetan adieraztea zer kasutan egingo diren probak.

4.- Gazteak atxilotuta sortu zen alarma egoera ez bat ere komenigarria taldearentzat. Babes sistemak eta prestakuntza baliabideetara joandako gazteek egindako esfortzuek ez dute espero zen emaitza izan gizarteratzean. Gazteek prestakuntza baliabideak utzi behar

izan zituzten. Baliabide publikoak erabiltzeagatik egindako arau-hausteak edo agiriak faltsutzeak eragindako polizia eta zigor eginbideek zailtasunak ekarriko dizkiete gizarteratzeko garaian.”

Azken esku-hartzea: jarduteko protokolo komuna behar izatea

Azkenik, erakunde honek espediente bat hasi du ofizioz, 60/2009 zenbakia daramana hain zuzen. Hura izapidetzeko arrazoia bakarrik dauden adingabe atzerritarrak larrialdian hartzeko jarduera protokolo komuna lantzeko proposamena izan zen, Egoitza harrerako baliabideak arautzeko uztailaren 8ko 131/2008 Dekretuko Seigarren Xedapen Gehigarria betetzeko. Aipatutako espediente horretan ohar batzuk aipatzen dira bakarrik dauden adingabe atzerritarrei beren babes eskubidea baliatzea errazteko beharrari buruz, eta baita adina zehazteko zailtasunei eta agiritan ageri den adinaren eta bakarrik dauden adingabe atzerritarren hezur adinaren arteko aldearen ondorioei buruz ere. Zentzu horretan, arazoan esku hartzen duten erakunde guztien artean adostutako protokoloak daude, baina uste dugu protokolo horiek hobetzerik ere badagoela. Gainera, urtarrilaren 11ko 4/2000 Legeko 35. artikulua orain dela gutxiko aldarazpenak planteatu egiten du ere adostutako protokoloetan egokitzapenak egiteko beharra. Espediente hori izapidetzen ari da une honetan.

Adina zehazteko zailtasunari dagokionez, aintzat hartu beharreko hurrengo elementuak aipatzen ditugu:

Bakarrik dauden adingabeei dagokienez herri administrazioen erantzukizunei buruz herriaren defentsa-erakundeen adierazpenak, 2006ko urrikoak, zera zioen gai horri heldzerakoan: *“Las pruebas médicas previas de determinación de la edad sólo deberán ser realizadas en casos de duda y deberían efectuarse con el asesoramiento de expertos independientes y tecnología moderna que incluya una combinación de pruebas físicas, sociales y psicológicas. Siempre deberá tomarse como edad de referencia la menor que resulte de las pruebas médicas realizadas”*.

Adina erabateko zehaztasunarekin finkatzeko gai den metodo zientifikorik ez dago. Oso zaila da benetako adinera zehaztasunez hurbiltzea, batez ere adina 15 eta 18 urte artean kokatzen bada: *“Adina finkatzearena zientzia lausoa da, eta akats marjina 5 urtekoa eta guzti izan daiteke”*; Guidelines for Paediatricians, **Royal Collage of Paediatrics and Child Health Status delakoak** 1999ko azaroan argitaratutakoa.

Estatuko Fiskaltza Nagusiak, 2/2001 Instrukzioan, zera zioen jada: *“Dado que las pruebas médicas no suelen ofrecer nunca una edad exacta, sino que siempre fijan una horquilla más o menos amplia entre cuyos extremos se puede cifrar que se sitúa con un escasísimo margen de error la verdadera edad del sujeto, habrá que presumir, a falta de otros datos y a efectos de determinar si éste es mayor o menor, que su edad es la establecida como límite inferior a dicha horquilla”*.

Zentzu horretan, **ACNUR – Nazio Batuen Erakundeko Errefuxiatuen Laguntzarako Goi Komisariotzak** dioen moduan: *“Bakarrik dauden adingabe atzerritarrei, beren jatorria edozein dela ere, egiten zaizkien adina zehazteko probak ez dira beharrezkoak, ez baitituzte kontuan hartzen ez arraza, etnia, elikadura eta ingurumenarekin erlazionatutako alderdiak ez alderdi psikologikoak eta kulturalak, horiek zuzeneko eragina izan arren haurren garapenean eta hazkunderan. Faktore horiek bazter uzteak eta azterketa horietan errore marjinarik ez egiaztatzeak ondorio larriak izan ditzake adingabearentzat. Ezinbestekotzat jotzen bada adina zehazteko probak egitea, horiek esperientzia eta prestakuntza egokia duten eta haurren aurrekari etniko/kulturalekin ohituta dauden profesionalak egin behar izango dituzte. Datu fidagarri eta ezeztazetik gabe, **zalantzaren onura** eman behar zaio bere burua **adingabetzat** aurkezten duenari.”*

Save the Children erakundeak praktika onetarako gomendioak egin ditu, eta orientazio modura aipatzen ditugu: *“Adina zehazterakoan, faktore fisikoak psikologikoak, kulturalak eta garapenekoak hartu behar dira kontuan. Beharrezkoa bada adina zehazteko proba egitea, azterketa hori adingabeen jatorri etniko edo kulturalaren inguruko esperientzia eta eza-gutza egokiak dituzten profesional independenteek egingo dute. Azterketak inoiz ez dira derrigorrezkoak edo ezegokiak izango ikuspegi kulturaletik begiratuta. Kontuz jokatu behar da genero faktoreak errespetatuko direla bermatzeko. Zalantzarik izanez gero, 18 urte baino gutxiago dituen adingabea behin-behinean halakotzat tratatzeari emango zaio lehentasuna. Garrantzitsua da aipatzea adinaren zehaztapena ez dela zientzia zehatza eta errore marjina nabarmena dela. Adina zehazterakoan, bakarrik dauden adingabeen zalantzaren onura eman behar zaie.”*

Nazio Batuen Erakundeko Haurren Eskubideen Batzordeak (General Comment n°6 (2005)), bakarrik dauden eta jatorriko herrialdeetatik kanpo bereizita dauden haurren tratamenduari buruz) ere gomendioak egiten ditu adina zehazteko prozedurak garatzeko moduaren gainean. Itxura fisikoa nahiz heldutasun psikologikoa dira aintzat hartu beharreko alderdiak. Adin zehaztapena gazteen osotasunari arriskua ekartzea saihestuz eta duintasunarekiko errespetua gordez egin behar da. Gainera, haren legezko ordezkaria bertan izan behar da, eta adingabeari emaitzak edukiko dituen ondorioei nahiz horren aurka jarri ahalko dituen errekurtsoei buruzko informazioa eman behar zaio. Proba egiteko adingabearen baimena ere behar dela esaten da. Edonola ere, zalantzarik egonez gero, adingabetzat jo beharko litzateke.

Erakundearen jarrera gai honi dagokionez hau da:

Adingabe atzerritarren adina pasaportearen edo behar bezala legeztatutako agiri publiko baten bitartez frogatzen da, adina benetan frogatzea ahalbidetzen badu. Dokumentazioak eta erakutsitako informazioak faltsutasun arrastoak ageri baditu, edo agiririk ez badago, Fisikaltzak adina zehazteko probak egitea baimendu ahalko du. Horren arrazoia da pasaportea pertsonaren adina egiaztatzeako balio duen agiri ofiziala dela, beraz, pasaportea faltsua dela pentsatzera eramaten duten aztarnak badaude, kasuan kasuko eginbideak eskatu behar

dira haren baliozkotasuna zalantzan jartzeko berme guztiak beteko dituen legezko prozedura baten barruan.

Adingabearen adinak ez du zalantzarik sortu behar adingabea dela ondorioztatzen bada itxura fisikoaren ondotik, edo adina dakarren eta benetakoa den edo zalantzan jartzen ez den dokumentazioa badarama, jada adierazi dugun moduan. Adina zehazteko probak beharrezkoak direnean bakarrik egin beharko lirateke.

Adingabe hauek berehalako arreta eskuratu behar dute, adingabea juridikoki babesteko legediak finkatzen duenarekin bat etorriz. Horrela, arrazoitutako zalantzak daudenean, inguruabar hori Fiskaltzari jakinarazi behar zaio berehala, hark adina zehazteko modua finka dezan.

Adina erabateko zehaztasunez finkatzeko gai den metodo zientifikorik ez dago, beraz, gazteei onartutako eskubide eta berme guztiak betetzeko, adina *"aditu independenteen aholkularitzarekin eta proba fisiko, sozial eta psikologikoak barne hartzen dituen teknologia modernoarekin"* zehaztu beharko litzateke. (Herriaren Defentsa-erakundearen adierazpena, herri administrazioek bakarrik dauden adingabeei dagokienez dituzten erantzukizunei buruzkoa, 2006ko urria: *"Las pruebas médicas previas de determinación de la edad sólo deberán ser realizadas en casos de duda y deberían efectuarse con el asesoramiento de expertos independientes y tecnología moderna que incluya una combinación de pruebas físicas, sociales y psicológicas. Siempre deberá tomarse como edad de referencia la menor que resulte de las pruebas médicas realizadas"*).

Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta betebeharreri eta haien gizartertzeari buruzko Lege Organikoko 4. artikulua zera finkatzen du: *"Los extranjeros que se encuentren en territorio español tienen el derecho y el deber de conservar la documentación que acredite su identidad, expedida por las autoridades competentes del país de origen o de procedencia, así como la que acredite su situación en España"*. Pasaporte egiazkoa izatearen presuntzioa kontrakoa adierazten duen froga batekin suntsitu behar da (Santanderreko Lehen Auzialdiko Epaitegiaren Epaia, 2004ko maiatzaren 6koa, eta Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salako 7. Atalaren Epaia, 424/2006). Estatuko Fiskaltza Nagusiak 2009ko azaroaren 10ean egindako 1/2009 Kontsultan, bakarrik dauden adingabe atzerritarren adina zehazteko espedientei buruzko zenbait alderdiri buruzkoa, Fiskaltzak adina zehazteko duen jarduteko moduari heltzen zaio, adinari buruz arrazoizko zalantzek berean jarraitzen dutenean. Bertan, besteak beste, adierazi egiten da adina zehazteko dekretua *"ez dela sistematikoki aldatu behar"*, balizko adingabeak beste lurralde batean amaitzen badu ere. Dekretu berria *"behar bezain arrazoituta egon behar da, eta bertan xehetasunez azaldu behar dira berrikuspena justifikatzeko edukitako arrazoi zehatzak"*.

Adingabeak probak egiteari ezezkua ematen badio, ezin da betebeharreri hortaz ezarri, *"adingabearen osotasun fisiko eta moralerako eskubidea tartean ageri delako"* (1/2009 Kontsulta, Estatuko Fiskaltza Nagusia).

Adina zehazteko probak ahalik eta lasterren eta berme batzuk betez egin behar dira, hain zuzen ere ahalik eta zehaztasun handienari buruz, probari eta haren eraginei buruzko informazio egokia gazteei eman izanari buruz eta haiek esateko dutena entzuteari eta laguntza juridikoa eskuratzeko aukera edukitzeari buruz esan direnak betez.

2. Adingabeen eskubideen urradura, adibidez hezkuntzarako eskubidea, babestuak izateko eskubidea eta entzunak izateko eskubidea.

Aurten, adingabeen eskubideen urradura salatzen zuen hainbat espediente izapidetu dugu.

Gipuzkoako Lurralde Historikoa

Deban Oilur Adingabeen Zentroa ireki izanak Arartekoaren ebazpena ekarri du: [Arartekoaren ebazpena, 2009ko irailaren 14koa](#)⁷. Bertan, elkarte batek Gipuzkoako Foru Aldundiaren tutoretzapeko adingabe atzeritarrak zentro horretara bideratu izateagatik aurkeztutako erreklamazioa ebatzi zen. Kasu hartan, Zentrorako bideratutako adingabeek jasotako arreta aztertu genuen. Halaber, adingabeei eragiten dieten hainbat kexa izapidetu ditugu ere. Kasu haietan, hezkuntzarako eskubidea, entzunak izateko eskubidea eta defentsarako urratzen ari zirela salatu zen.

Gipuzkoan adingabe atzeritarren arretak ageri zituen zailtasun eta gabeziak azpimarratu izan ditu Arartekoak aurreko beste txosten batzuetan. Tolosan harrera Zentroa itxi eta Deban Oilur Zentroa ireki izana ez da egon hainbat eztabaidatik salbu. Deban adingabe atzeritarren arretan igarri diren gabezia nagusiak hauek izan ziren: jardueren aurreikuspen falta, erreferentziako tutoreak aurreikusi ez izana, bakarkako hezkuntza programa bat ez edukitzea eta Zentroaren kudeaketan oinarrizko tresnak falta izatea.

Eskarmentu nahikorik eta kualifikazio egokirik gabeko langileak kontratatu izana funtsezko alderdi izan da programaren garapenean. Kexa bat izapidetu dugu, 1300/2009 espedientea, Zentroko hezitzaile ohi batena. Bertan, hezitzaileek adingabeei emandako tratua txarrak aipatzen dira. Beste bi hezitzailek jakinarazi digute beraien borondatez joan zirela lanpostutik, izan ere, Zentroa kudeatzen zen baldintzetan inolako hezkuntza lanik garatzea ezinezkoa zela uste zuten.

1300/2009 Kexan, Oilurren txandako arduradun modura lan egin zuen hezitzaile ohi batek (bi aste 2009 urteko irailean) jakinarazi zigun bere borondatez joan zela Debako Oilur Zentrotik. Aipatu zituen gaien artean, hezkuntza langileen prestakuntza faltarena zegoen, batez

⁷ Arartekoaren ebazpena, 2009ko irailaren 14koa. Horren bidez, elkarte batek Gipuzkoako Foru Aldundiak tutoretzapean dituen adingabe atzeritarrak Debako Oilur Zentrorako bidaltzearen inguruan aurkeztutako erreklamazioa amaitutzat ematen da.

ere jatorri magrebtarreko "laguntzaileen" kasuan. Halaber, arazo zehatz batean jardun zen moduari heldu zion, eta hori hezkuntza irizpideekin bat ez zetorrela adierazi.

Arartekoak informazioa eskatu zuen arrazoi horri buruz eta kontratatutako langileekin zerikusia zuten hainbat alderdiri buruz: kopurua, prestakuntza akademikoa eta laneko eskarmen-tua, altak, bajak eta bertan behera uzteak. Foru Aldundiak informazio eskaerari erantzun zion gertatutakoari buruzko txosten bat bidaliz. Bertan, ikerketa espediente bat ireki zela jakinarazten zen eta baita behin hori amaituta lehen aipatutako "laguntzaileetako" baten zerbitzuak ez erabiltzea erabaki zela ere. Zentroa martxan jarri zenetik kontratatu zuten lan-gile kopuruari, haien prestakuntzari eta zerbitzuak ematen zituen langile kopuruari buruzko informazioa emanez ere erantzun zen. Arartekoak positibotzat jo zuen ikerketa espediente bat ireki izana gertatutakoagatik. Arartekoak langileen kontratazioaren inguruan deigarriak suertatu zitzaizkigun elementu batzuk jakinarazi zizkion Foru Aldundiari:

"1.- Oilur Zentroan zerbitzuak eman dituen hezitzaile kopurua oso handia da. 2009ko otsailetik urrira arte hezitzaileak 70 izan dira. Bidalitako informazioari jarraiki, langileak honako hauek ziren: txandako 3 arduradun eta 13 hezitzaile laguntzaile –zerbitzuak hiru txandatan ematen zituzten–, hau da, aztertu den aldian 54 pertsonak lana utzi dute.

2.- Kontratitutako langileetatik 36k ez zuten hezkuntzarekin zerikusia zuen prestakuntza egiaztatu."

Halaber, Gipuzkoako Foru Aldundiari hurrengo iritziaren berri eman diogu:

"Beste une batzuetan adierazi dugun moduan, adingabeei arreta emateko beharrezkoa da prestakuntza eta lanbide esperientzia duten langileak edukitzea, horrek guztiak adingabe atzerritarren arretaren konplexutasunari aurre egin behar baitie. Horren ildotik, Oilur Zentroaren ibilbide berriko langileen kontratazioak langileen oreka hoberako bidea eman-go duelakoan eta langileek gizarte babesik gabeko egoeran dauden haurren eta nerabeen egoitza harreraren baliabideak arautzen dituen uztailaren 8ko 131/2008 Dekretuan xedatu-tako betekizunak eta betebeharrak beteko dituztelakoan".

Arartekoaren ebazpenak, 2009ko irailaren 14koa, Zentroaren irekiera aztertzen du 2009ko otsailetik irailera, eta baita portaera arazoak dituzten gazteentzako programa espezializatuak martxan jartzea ere. Ebazpenak Gipuzkoako Foru Aldundiaren jardunaren azterketa egiten du Oilur Zentroan, Deba udalerriko Endoia auzoan, dauden eta babesgabetasun egoera bizi duten adingabe atzerritarrei emandako arretari dagokionez.

Zentroa 2009ko otsailean jarri zen martxan. Foru Aldundiak tutoretzapeko adingabe atzerritar jakin batzuk bidali zituen hara. Erakunde honetako langileek bi bista egin zituzten Zentroa, 2009ko martxoaren 14an eta 2009ko maiatzaren 11n hain zuzen. Bisitetan, instalazioak ezagutu ziren eta elkarrizketak eduki ziren zuzendariarekin, hezitzaileen txandako arduradunarekin eta hainbat hezitzaileekin. Hainbat adingaberi ere egin zitzaizkien elkarrizketak (ikusita bisita hauen laburpena, aurreko orrialdeetan).

Eskuratutako informazioak zentroaren funtzionamendua, une horretan bertan zeuden adingabeak, proiektuaren arduradunek langileei emandako jarraibideak, norberaren borondatez baja hartzeko agiria, etorkizunean funtzionamenduari buruz zeuden aurreikuspenak, langileen bajak, dagoen dokumentazioa, eskura zeuden baliabideak, zein instalazio dituen, eta abar biltzen du.

Erakundea baloratzerakoan aintzat hartu zen beste elementu bat Foru Aldundiaren erantzun falta izan zen, eskolatzeari, haien administrazio egoerari edo erroldatzearen gaiari dagokionez egindako informazio eskaerarako. Urgatzirekin eratutako hitzarmenaren kopia ere ez ziguten eman, ezta hezkuntza proiektuarena ere.

Kontua zen jakitea ea Gipuzkoako Foru Aldundiak adingabe hauek hezkuntza eskuratzea, administrazio egoera legearen barrura sartzea edo erroldan izena ematea ahalbidetu zuen edo ez. Halaber, Oilur Zentroan garatuko ziren jardueren eta programen edukia ezagutu nahi zen, eta baita Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Urgatzi Elkartearen artean hartutako konpromisoen berri eduki ere.

Arartekoak hainbat ohar helarazi zion Foru Aldundiari, esku-hartzea eta oharrak adingabeak Oilur Zentrora eraman izanaren eta Zentroaren funtzionamenduaren esparruan kokatuz. Aitzitik, Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako erantzunean tratu orokorra erabili da eta Debako Oilur Zentroa Gipuzkoako Lurralde Historikoko babes sisteman kokatu du, zehazki Aldundiak bakarrik dauden adingabe atzerritarren alorrean jarraitzen duen politikan.

Bestalde, Arartekoaren oharrak entzunak izateko eta hezkuntzarako eskubideak urratzeari buruzkoak ziren, batez ere. Entzunak izateko eskubidea urratu egin zen, ez zelako inon jaso adingabeak entzun izan zirenik Oilur Zentrora eraman zirenean, ezta haiek atenditu eta entzuteko erreferentziako tutorerik esleitu zitzaienen ere. Adingabeen portaerari buruz helarazitako txostenek ez dute haien iritzirik biltzen, ezta haiek gertaerak nola kontatzen dituzten ere.

Hezkuntzarako eskubideari dagokionez, gure bisitetan prestakuntza jarduerak eta jarduera aurreikuspen oro falta zirela antzeman genuen. "Nerabearoa bezalako aroan jarduerarik ez izatea eta landa eremu batean isolatzea ez zirudien Debako zentrora bidalitako adingabeen premia zehaztutara egokitzen zen eta horien garapen pertsonala eta gizarteratzea lagunduko duen jarrera aldaketa susta zezakeen neurria zenik".

Zentzu horretan, Konstituzio Auzitegiaren epaiak aipatzen ditugu, Atzerritarrek Espainian ditzuten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa eraldatzeko abenduaren 22ko 8/2000 Lege Organikoko manu ezberdinen aurka adierazitako errekurtsioen kasuan (2007ko azaroaren 7ko eta 2007ko abenduaren 19ko epaiak). Konstituzio Auzitegiak guztioi onartzen digu –jatorria edozein dela ere– hezkuntzarako eskubidea eta adierazi du hezkuntzarako sarbidea ezin zaiela mugatu adingabe atzerritarrei, bizileku baimena ez eduki arren. Hezkuntzarako sarbideari ezarri ahal zaizkion muga bakarrak merezimendu eta gaitasun baldintzetan oinarritutakoak dira. Adingabeek hezkuntzarako eskubidea baliatzerakoan jasandako mugaketa ez zen izan hezkuntzaren alorrean

eskudun den administrazioaren erabakiaren ondorio edo merezimendu eta gaitasun irizpi-deengatik matrikulatzeko ezintasunagatik, izan ere, adingabe horietako asko matrikulatuta zeuden 2008-2009 ikasturtean. Aldiz, Gipuzkoako Foru Aldundiak, adingabeen arduradun den partetik, hartutako erabaki baten ondorio izan zen. Adingabeak ez zituzten prestakuntza zentroetatik kanporatu beren hezkuntza ibilbidearekin zerikusia zuten arrazoiengatik, baizik eta, besterik gabe, 2008-2009 ikasturterako matrikulatu ziren Lanbide Hastapeneko Zentroetara joateari utzi zioten.

Ebazpenean, halaber, Gipuzkoako Foru Aldundiak indarrean zegoen araudia betetzen zuen edo ez aztertu zen, hain zuzen ere honakoa: 3/2005 Legea, adingabeen betebeharreri eta hezkuntzako neurri zuzentzaileei dagokienez (80. eta 81. artikulua), eta 131/2008 Dekretua, bizikidetzaren ereduari (95. artikulua), hezkuntzako neurri zuzentzaileen xede izan ahalko diren portaera eta urradurei (96. artikulua), eta ezarri beharreko prozedura eta neurri zuzentzaileei (97. artikulua eta hurrengoak) dagokienez. Portaera arazoak zituzten adingabeak 131/2008 Dekretuko araudiari jarraiki programa espezializatu batera bidaltzeko erabakia ere aztertu zen. Hori guztia ikusita, zera ondorioztatu genuen:

“Ordea, Debako Oilur zentroan garatzen den programak ez zuen prestakuntza, hezkuntza, asialdi jarduerarik eta jarduera terauperetikorik aurreikusitako. Hartutako neurri bakarra langileak kontratatzea eta adingabeekin egoteko txandak ezartzea izan da. Kontratatutako diren langileen profila, langileen bajak eta langileek beren lanarekin amaitzea, adingabeentzat erreferentziatzeko tutorerik ez egotea... ez datoz bat ezaugarri horietako programa bat abian jarri baino lehen eduki behar diren aurreikuspenekin. Programok talde irmoa, esperientzia duen zuzendaritza, instalazioak –egokiak– behar dituzte, araudian ezartzen denari jarraiki. Hortaz, ez da *“izaera trinko eta integraleko esku-hartzea, funtsean, eremu pertsonala oinarri duen gizarte-hezkuntzako orientazioa edota orientazio terapeutikoa duena”* dioena betetzen [4.2.2 b) artikulua].”

Ebazpenean aztertu genuen beste funtsezko alderdi bat alde egin zuten adingabeei tutoretza bertan behera uzteko erabakia izan zen. Adingabeei ez zitzaion irteerarik baimentzen. Adingabeek alde egiten zutenean, tutoretza bertan behera uzteko prozedurari ekiten zitzaion.

Erakunde honen ustetan, baliabidetik alde egitea ez da tutoretza bertan behera uzteko arrazoiak. Gainera, Debara bidalitako adingabeek Oilur Zentrotik alde egitearen eta programa hau martxan zein baldintzatan jarri zen artean lotura zegoela baloratu genuen. Zentzu horretan, zera planteatu genuen:

“Erakunde honentzat oso larria da Gipuzkoako Foru Aldundiaren tutoretzapean arrazoizko denbora zeramatzen adingabeak babesik gabeko egoeran egotea eta, Debara bidali ondoren, kalean bizitzea. Baita egin dituzten delituengatik eman den gizarte alarma ere. Garrantzitsua da gogoratzea tutoretza eteteko foru agindua eman izanak ezin duela saihestu Gipuzkoan babesik gabeko egoeran dauden adingabeen inguruko betebeharrak. Araudiak bakarrik dauden eta erreferentziatzeko heldurik ez duten adingabeen tutoretza bere gain hartzerak behar izaten dio foru aldundiari.”

Azkenik, Debako Oilur Zentrora neska adingabe batzuk bidaltzeko erabakia aztertu genuen. Erakunde honen ustetan: “bi sexuetakoa nerabeei arreta emateak neurri espezifikoak –hala nola, emakumezko langileak hezkuntza langileen artean– eta egoitzara joan ginenean ikusi ez genituen pribatutasun esparruak eskatzen ditu”.

“Erakunde honen aburuz, egoitzetan dauden bizikidetasun arazoentzako konponbidea bideratzeko ezin da adingabea Debako Oilur zentroa bezalako toki batera bidali bakarrik, beren eskubide eta beharrak aintzat hartu gabe. Garrantzitsua da gogoratzea, adingabeei eragiten dien edozein jardun beren interes nagusiaren alde egin behar dela, 3/2005 Legeko 4. art.”

“Azken batean, erakunde honen ustez, Gipuzkoako Foru Aldundiak Debako Oilur zentroaren funtzionamenduko lehen hilabeteetan izandako esku-hartzea ez da zuzena izan, indarrean dagoen araudiaren arabera zentro horretan egoitza eman zaien adingabeei onartu zaizkien eskubideen babesari dagokionez. Aurreko paragrafoetan egin dugun analisia ikusirik, iruditzen zaigu, orain arte hartu diren erabakiak okerrak izan direla Oilur zentrora bidali diren haurrekin jarduteko. Aldundiaren arabera, aldatu beharreko jarrera okerra zuten haiek. Jarrera arazoak dituzten bertako adingabeekin esku-hartzeko araudiak eta programak eskaintzen dituzten lanabesek eta jardun motek esku-hartze eraginkorrak bateratzen dituzte hezkuntzarako eta entzun diezaieten duten eskubideari dagokionez. Horrekin bat, helburua ez da “nerabeen nahiak betetzea”, beren garapenean lagundu eta gizarteratu eta lan munduan egoki txertatzeko izan ditzaketan arazoak bideratzea baizik, hala baitio indarrean dagoen araudiak. Arartekoaren 2009ko irailaren 14ko ebazpena hainbat ondorioekin amaitu zen.

Foru Aldundiak ondorio horiei buruzko iritzia helarazi zigun, xehetasun osoz bere iritzi eta jarrera azaltzen dituen idazki batean. Jarraian, hurrengo ondorioei dagokienez emandako erantzunaren laburpena egingo dugu:

- ***Portaera arazo larriak dituzten adingabeei tratu egokia ematea xede duen baliabide bat irekitzearen balorazio positiboa***

Foru Aldundiak topatutako zailtasunak aipatu zituen, adingabe disruptibo horiekin bere ardura den babes ekintza baliatzerakoan. Horretarako, beharrezkoa zen berriazko baliabidea martxan jartzea, mugak non zeuden ulertzen, beren portaeren ondorioak ezagutzen, beste pertsonen eskubideak errespetatzen ikasten (adingabe egoiliarak, atenditzen dituzten profesionalak, herritarrak orokorrean), beren betebeharrekin betetzen eta gizartean bizitzen ikasten lagunduko ziena.

Egindako berrantolamenduaren oinarritzko printzipioetako bat bezala, esku-hartzeak bakartzeko beharra izan zen. Aurreko egoerak egoera larria sortzen zuen Sarearen multzoan; bertan, adingabe disruptiboek beren dinamikak ezartzen zizkieten gainerako adingabeei, tentsio handiak eragiten zituzten eguneroko bizitzan, gatazkak sortzen zituzten maiz hezkuntza taldeen aurka eta, labur adieraztearren, harreran hartutako gainerako adingabeak behar bezala babestea galarazten zuten. Ondorioz, adierazi egin

dute aldaketa bat egon dela eta aldaketa horrek Harrera Sarearen multzo osoari auke-
ra ematen diola baldintza egokiak jartzeko hezkuntza arretea ona garatu ahal izateko.
*“Une honetan, eta ahalegin handia egin eta gero, argi eta garbi esan dezakegu gure
tutoretzapeko adin txikikoak babesteko orduan oztopo ziren egiturazko arazoan zati
handi bat konponduta dagoela. Eta abaguneaz baliatu nahi digu kontzeptu bat oso argi
uzteko, alegia: denak dira gure adin txikikoak, bertakoak eta laguntzailerik gabekoak;
eta guztiak babestu nahi ditugu, eta guztien eskubideak bermatu nahi ditugu.”*

*“Gipuzkoako Foru Aldundiari kritika egin ahal izango zaio gazte talde horren inguruan
egindako zenbait jarduketa dela-eta; baina, ezin zaio leporatu, inondik inora ere, arre-
tarik eman ez zaiela, babestuta egon ez direla, dokumentazioa bideratu ez zaiela,
abokatuaren defentsa ukatu zaiela, gainontzeko eskubideak errespetatu ez zaizkiela,
edo arretea ematean bereizkeria egin zaiela, bertakoekin alderatuta, hori bidegabekeria
litzateke eta.”*

- **Prestakuntzarako eskubideari dagokionez**

Gai honi dagokionez, berriro beren iritzia adierazi dute: *“jokabide-arazo larriak dituz-
ten adin txikikoekin esku hartzeko beharrezkoak dira, lehenengo fasean behintzat,
'isolamendu-ingurunea eta barnera zuzendutako dinamika'.”*

131/2008 Dekretuko 43.1 artikulua aipatzen dute, zentroa herriguneetatik urrun, ingu-
ru bakartuan kokatzeari buruzkoa eta zentrotik kanpoko baliabideak ahalik eta gehien
murrizteari buruzkoa.

*“Terapeutikoak diren esku-hartze guztiek, hau da, jokaera desegokiak zuzentzeko eta
jokabide berriak zein gainontzekoekin hartu-emanak izateko modu berriak sortzeko
helburuz egiten direnek, haustura-fase batean oinarrituta egon behar dute. Lehenen-
go neurria ingurunearekiko harremanak ahal den gehien mugatzea izaten da, baliabide
guztietan aldi baterako baja ematea barne, baita hezkuntza-baliabideetan ere. Erabaki
hori hartzeko arrazoia da beharrezkotzat jotzen dugula adin txikikoak bere ohiko dina-
mikekin etetea, izan dituen harreman desegokiak baztertzeko; hala, mugatu egiten
zaio substantzia toxikoak kontsumitzeko aukera ematen dioten inguruneetara joa-
tea, eta, adin txikikoa eguneroko ohiturak bereganatzea oinarritzat hartuta, jokaera-
ren nahiz jarreraren dinamika berria ezartzen saiatzen gara. Horregatik, gure ustez,
beharrezkoa da, hasiera batean, adin txikikoekin egiten den esku-hartzea zentroan
bertan eta ingurunerik gertuenean burutzea; hori dela-eta, uko egin behar izan diogu
adin txikiko horiek aldi baterako eskolaratzeari, eta baita komunitateko beste baliabide
batzuetara joaten uztean ere. Gogorazi behar dugu 131/2008 Dekretuan, nolabait,
jasota dagoela zentro horietara bidaltzen diren adin txikikoak isolatzeko beharra, 7.2.
artikuluaren” (baliabide mota hautatzeko irizpideak), 43.1. artikuluan (baliabidearen koka-
pena). 74.1.b) eta c) artikuluetan (aisialdiko jarduerak), eta 77.2. artikuluan (komuni-
tatearen babesa), –besteak beste, salbuespen garrantzitsuak ezartzen baitira zentro
horien funtzionamenduari dagokionez, gainerako programak burutzen dituzten zen-
troekin alderatuta.”*

Jarduerak egiteari dagokionez, aitortzen dute lehenengo hilabeteetan ez zegoela taldeko jarduerak egitea beste programarik eta jarduera horiek laguntzen zuten zentroko eguneroko bizitzan. Baina maiatzaz geroztik jarduera eta prestakuntza programa bat zegoela planteatu dute. Horren ordutegia adierazi dute (aurreikusitako klaseak eta tailerrak zertan zetzan zehaztu gabe, 11:30etik 13:30era eta 15:00etatik 17:00etara). Igeltserotza-margotze eta sukaldaritza tailerrak aipatzen dituzte eta beste bi egitekotan direla esaten dute (informatika eta baratz), baina ez dute zehazten zer diren. Aisiako jarduerari dagokienez, inguruan ibilaldiak egin dituztela diote, hondartzara joan, kirola... Azkenik, ordutegia aldatu egin daitekeela aipatzen dute, eguraldiaren, asteko egunaren, ramadanaren... arabera.

Haien iritziz, *“jarduera-programa bat dago zentroan, eta programa horren bidez ez da, inolaz ere, hezkuntzarako eskubidea urratzen; aitzitik, programaren bidez eskubide hori erabiltzeko erarik egokiena da, zentroan hartuta dauden adin txikiko bakoitzaren beharrak kontuan izanda. Helburua neska-mutilei laguntzea da, hasierako zailtasun horiek gaindi ditzaten, eta, gero, inguruneko baliabide guztiak ahalik eta hoberen baliatzen.”*

- **Entzuna izateko eskubideari dagokionez**

Adingabea egoitzaz aldatzeari buruz bere iritzirik ez egotearen inguruan diote, haur edo nerabe baten babesa bermatzeko programarik eta baliabiderik egokiarekin lotutako erabaki guztiak langile teknikoek hartzen dituztela, erreferentziazko zentroetako tutoreek eta arduradunek emandako txostenak oinarri hartuta eta laguntza teknikoko zerbitzuak balidatuta. Zentro bat edo bestea, programa bat edo bestea ematerakoan, adingabearen beharren azterketa teknikoan eta Sareak une horretan eskaintzen dituen aukeretan oinarritzen dira, 131/2008 Dekretuko 5. eta 7. artikuluetan ezarritako irizpideen arabera. Erabaki teknikoa denez, ñabardura hau egiten dute: *“Hartutako erabakiak adin txikikoari jakinaraztea eta adin txikikoaren iritzia entzutea jatorrizko zentroko tutoreek bete behar duten lanaren barruan dauden ekintzak dira. Informazioa, jakinaraztea eta iritzia entzutea bermatuta daude kasu guztietan. Hala ere, adin txikikoaren iritzia zehaztu behar den elementua da, adin txikikoak jokabide larriak dituztenei zuzendutako programa espezializatua duten zentroetara bideratu behar direnean; izan ere, logikoa denez, erabaki horren aurka agertzen dira, oro har, beren arazoak onartzen dituzten gazte batzuk alde batera utzita.”*

Puntu honetan prozedura berri bat jakinarazten dute: *“ hezkuntzan jardunbide egokia hobetzeko eta jardunbide hori irmotasun handiagoz bermatzeko, uztailean prozedura bat abian jarri dela egoitza-harreraren sare osoan, adin txikikoei hartutako erabakiari eta erabakiaren oinarri diren arrazoiei buruzko informazioa behar bezala ematen zaizkela bermatzearen, eta adin txikikoek erabakiaren inguruan duten iritzia jasotzearen. Prozedura hori ezarri da 13112008 Dekretuaren arabera desegokiak diren jokabideei dagokienez nahiz hezkuntza-neurri zuzentzaileei eta neurri horiek ezartzeko ildoak dagokienez (96., 97. eta 98. artikulua, hurrenez hurren). Zehaztu egin dira printzipioak,*

prozedurak, hausteen mailakatzea eta hausteen aurrean proposatzen diren neurri zuzentzaileak, eta hori guztia Dekretuaren V. Kapituluaren oinarrituta, zentroetan ezarri behar diren "bizikidetzarako arauak ezartzen baititu. Arau horiek zehaztu dira aipatutako dekretuaren II. Tituluaren jasotako eskubideei eta betebeharrei jarraituz."

"Gure helburua adin txikikoei ulertaraztea da zein desegoki diren beren jarrerak, eta jarrera horiek zer ondorio ekartzen dituzten; baina, aldi berean, beren iritzia aditzera emateko espazio bat bermatzen zaie. Prozedura hori adin txikikoei jokabide desegokiak dituztenean ezartzen da, eta edozein neurri zuzentzaile erabakitzeko orduan, eta baita baliabide-aldaketetan ere."

- **Ez dira bete 131/2008 Dekretuko aurreikuspenak**

Adierazten dute Dekretu hau oso ongi hartu zela Gipuzkoako Foru Aldundian, inguru hain delikatuak jarduteko beharrezko jarraibideak eta irizpideak argitzen zituelako eta beraiek ados zeuden planteamendutik argitzen zituelako, gainera. Hala ere, oso arau zorrotza dela diote, eta erabat ezartzeko denbora behar dela, eta, horregatik, "Arartekoak atera duen ondorioa presazko ondorioa izan dela, gutxienez, ez baita oraindik urtebete igaro Dekretua argitaratu zenetik (2008ko abuztuaren 8ko EHAA), eta ez dugu denbora materialik izan Dekretuak hainbesteko zehaztasun eta hedaduraz zehaztu eta arautzen dituen elementu guztiak osorik ezarri ahal izateko: materialak, teknikoak, funtzionalak eta giza baliabideak."

Zentzu honetan Dekretuan bertan esaten dena aipatzen dute; izan ere, Lehenengo eta Hirugarren Xedapen Iragankorretan 4 urteko epea ezarri da argitaratu zenean irekita zeuden baliabideak egokitzeko.

Bukatzeko, hauxe adierazi du "Nolanahi den ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak asmo irmoa du Dekretua erakundearen egoitza-harreraren sarea osatzen duten baliabide guztietan oso-osorik ezartzeko, eta urrats handiak egiten ari da horretarako."

- **Zentroan ezin da neskari hartu**

Ez datoz bat Arartekoaren txostenean jasotako azterketarekin: "Berrito adierazi nahi dugu Arartekoa, mutilekin gertatu den bezala, oker dagoela ikuspegi hori hartuta, zentrorra eramatea zigortzat hartzen baitu, eta, berez, programa jakin bati esleitzea da, indarrean dagoen araudiak barnean hartzen duena (13112008 Dekretuaren 4.2.2.2.b) artikulua), eta horretarako ezarrita dauden hautespen-irizpideak betez burutu dena (13112008 Dekretuaren 5. artikulua), adin txikikoei beren migrazio proiektuaren arrakasta eragozten duten jokabide desegokiak aldatzea ahalbidetzeko. Neska guztiak lekualdatu ziren zentrorra beren beharren eta gaitasunen gaineko azterketa egin eta gero, eta bertara eramatea egokiena zela ulertzen genuelako."

Aipatzen dute indarrean dagoen araudian ez dela bi sexuei harrera egiteko mugarik jasotzen, 131/2008 Dekretuko 103.2.i artikuluan aurreikusitakoa izan ezik, egoitzazko baliabideetako langileak antolatzeari dagokionez eta Oilur zentroan langile batzuk emakumeak zirela. *“Nabarmendu behar dugu, era berean, adin txikiko hiru neskek zentro honetan hartuta egon zirenean, haien babesa, pribatutasuna eta segurtasuna bermatzeko beharrezkoak ziren prozedurak ezarri zirela (bereizitako eta isolatutako gelak, figura bikoitzak esku-hartze guztietan ...)”*

Dena dela, jakinarazi dute data horietan ez zegoela Zentrorako neskarik izendatuta.

- **Jokaera arazoek berme egokiekiko hezkuntzazko neurriak behar dituzte**

Ondorio honekin ados daude eta lan hezitzailea egiteko eta adingabeen erresistentzietan aurre egiteko izan dituzten zailtasunak aipatu dituzte. Aurrerapenak ere izan dira: pres-takuntza eta jarduera programa ezarri da, adingabe guztiei tutoreak izendatu zaizkie, agiriaren prozesuek behar bezala funtzionatzen dute...

Aurrerapena adierazten duten bi elementu aipatzen dituzte: 5 adingabe beste zentroetara bideratu dira eta zentroak harrera egindako adingabeko taldea ia erabat egonkorra da.

“5 adin txikikok beren jokaerak argi eta garbi aldatu dituzte, eskura jarritako baliabideak behar bezala erabiltzea eragozten zieten zailtasunak gainditzeko orduan aurrerapenak egin dituzte, eta beste programa batzuetara bideratuak izan dira.” Zentzu honetan, zentro honetan behin eta berriro diote ez dela ez itzultzeko zentroa, bidearen amaiera. Uztailaz geroztik zentroan artatutako adingabe taldea ia erabat egonkorra dela ere esaten dute. Haien esanean, *“Horrek aditzera ematen digu gatazkak eta tentsioak nabarmen gutxiagotu direla. Ez dago ia ihesik, eta gatazkak oso mugatuak dira”* eta *“Taldea egonkortuta dago, eta zentroan lasaitasun- eta sosegu-mailara iritsi da, eta, hala, errazagoa da hezkuntzaren esparruan esku hartzea eta hezkuntza-programa garatzea, eta, halaber, zentroaren helburuak eta norberaren planak erdiesteko orduan beharrezkoak diren dinamikak sor daitezke.”*

- **Gaian eskumena duten erakunde guztien jarduera bateratua eta koordinatua**

Txostenaren azken ondorioekin ados daudela esan dute eta lerro horretan jardun di-rela gehitu ere bai.

Horren frogara dira duela urte batzuetatik Foru Aldundiak duen Menas Protokoloa eta talde hau artatzen zerikusia duten erakunde eta organismo guztiekin aldiro izaten di-tuzten hainbat bilera.

Oilurreko adingabeek izandako gorabeherei dagokienez, 3 elementu aipatzen dituzte:

- “o Arazoari irtenbidea emateko esku hartu duten eragileen arteko koordinazioak nahiko ondo funtzionatu du. Ertzaintza, Donostiako Udaltzaingo, Eudel, inguruko udalekin eta abarrekin koordinazioan aritzeko mekanismoak ezarri dira. Koordinazioaren helburua da informazioa eta analisiak partekatzea, zalantzak, gaizki-uler-tuak, arazoak ... konpontzea, herritarren parte-hartzea, kezkak, kexak, ekarpenak ... bideratzea, eta harrera-programan dauden adin txikikoek komunitateko baliabi-deak azkarrago erabiltzea.*
- o Laguntzailerik gabeko adin txikiko atzerritarrek sortutako gatazkak ez dira Oilur zentroa irekitzearen ondorio. Gorago adierazi dugun bezala, gatazka handiak zeu-den zentroa ireki baino lehen ere. Gatazka-egoera hori, gainera, sareko zentro askotan zegoen. Baina, gaur egun esan dezakegu egoera, orokorrean, hobetu egin dela, eta herrietan eta komunitatean gizarteratzeko prozesu positiboak burutzen ari direla.*
- o Delituzko ekintzak edo gizartean larritasuna sortzen duten ekintzak nabarmenki murriztu dira. Hasierako fasean, delituzko ekintzen kopuruak gizarte-ikuspen handia izan zuen, eta larritasuna eta kezkak sortu zituen; baina, une honetan esan dezakegu delituzko ekintzak eta ekintza horien garrantzia pixkanaka murriztu di-rela. Gatazka egoerak murriztu egin dira era nabarmenean, eta gai honetan parte hartzen duten eragile guztiek egiazta dezaketen datua da, Ertzaintzan, Donostian, Adif-Renfen eta abarren eman dizkiguten informazioen arabera.”*

- **Tutoretza uzteak**

Elementu hau dela eta, Foru Aldundiak azaldu du bakarrik dauden adingabe atzerritar-rak Autonomia Erkidego batetik bestera eta zentro batetik bestera ibilita egoten direla migrazio prozesuan, beraien interesetara ongien egokituko den baliabideen bila.

Puntu honetan 2008an egindako ebaluazioa aipatzen da. Ebaluazioa hori Oviedoko Unibertsitateak egin zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak hala esanda, eta Gipuzkoan har-rera egindako bakarrik zeuden adingabeko atzerritar taldeari buruzkoa izan zen. Adin-gabe hauen ibilbideak aztertu ondoren, aurrez batez beste 2,25 hiritan artatu zituztela ikusi zen; oso gutxi ziren zuzenean iritsitakoak eta baziren hona iritsi aurretik sei hiritan egondakoak ere. Polizia Nazionalaren adingabeko atzerritarren erregistroa ere aipatzen dute, adingabeak Autonomia Erkidego batetik bestera etengabe ibiltzen direla ikusten baita. Kasu askotan babestuko dituzten legezko neurririk gabe edo desagertu direlako tutoretzak utzita.

Ez daude ados Arartekoarekin adingabea desagertuz gero tutoretza etetea araudian ez dagoela aurreikusita dionean: *“Adin txikikoak desagertzeak esan nahi du, unean uneko ihesa ez dela bermatzeko beharrezkoa den zentzuzko denbora igaro eta gero, Gipuzkoatik beste lurralde batera joan direla, eta, beraz, beren tutoretzaz arduratzeko arrazoirik ere ez dagoela dagoeneko. Hortaz, hartutako neurriaren arrazoi izan ziren*

baldintzak desagertu egin dira, eta hori tutoretza eteteko arrazoia da, otsailaren 18ko 312005 Legearen 62. artikuluan

Horri dagokionez, hauxe diote: *“Adierazi behar dugu Gipuzkoak, Arartekoaren irizpidea muturrera eramanda, ez lukeela laguntzailerik gabeko adin txikikorik babestu behar, guzti-guztiak igaro direlako, ziur aski, beste autonomi erkidego batzuetatik, eta erkidego horiek adin txikikoaren tutoretza beren gain hartu eta gero ez zuketelako inoiz eten egin behar izango.”*

Eta zera gaineratzen dute: *“Gipuzkoak bere tutoretzapean dituen adin txikikoen kopurua autonomi erkidegoek babesa gauzatzeko eta araudian zehazten diren erantzukizunak beren gain hartzeko dituzten modu desberdinen ondorioa da, baita ere.”*

Dena dela, aurreko ataletan esan dugun bezala, irizpide hau aldatu egin da Fiskaltza-
ren instantziaz.

Harrera egindako adingabeen zifrari dagokionez, ebazpenean bildutako datuei buruzko
ñabardura hau egin dute:

“Oilur zentroa ireki zenetik, 67 adin txikiko bideratu dira bertara, 53 baja izapidetu dira, eta, une honetan, zentroan, 14 adin txikiko daude harreran.

*Alta gehienak zentroa ireki zenetik maiatza arte egin ziren (...). Ekainaren 1etik iraila-
ren 30era arte, egokitzen jo dugu 6 adin txikiko lekuz aldatzea, eta zentrori bideratu
den azkena joan den abuztuaren 27an sartu zen.*

*Hauek dira izapidetutako bajak: 4 adin nagusiko, 15 zentro-aldaketa, familiarekin berrel-
kartze 1, eta 33 baja zentroa uzteagatik.*

*Zentro-aldaketak hauek izan dira: 5 adin txikiko, beste programa eta zentro batzuetara
lekualdatu baitira helburuak bete dituztelako; bi neska, beste zentro batzuetara lekual-
datu direlako; eta neurri judizialen segimendua egiteko programari esleitutako 8 adin
txikiko, erreformatarioan bete beharreko neurri bat bete behar dutelako.*

*Otsailean, zentroa ireki zen hilabeteetan, bertara lekualdatu ziren 16 adin txikikoen ar-
tean, 8k jarraitzen dute babes-sisteman, eta bajak hauek dira: adin-nagusitasun 1, eta
7 baja zentroa uzteagatik.”* (Jakina denez, datu hauek garai hartarako balio zuten, baina
denborarekin aldatu egin dira).

- ***Foru Aldundiaren arretatik eta kontroletik kanpo adingabeak egoteak antola-
mendu juridikoan xedatutakoa hausten du***

Honekin ados dagoela adierazi dute eta adingabeak artatua izaterik nahi ez duenean,
babesteko egoten diren mugak aipatzen dituzte. Etengabeko ihesaldien eta babes-
teko sisteman egon nahi ezaren atzean dagoena hori da.

Zentzu honetan diote haurrak babesteko zentroak irekiak direla, beraz, ihes egitea nekez galarazi dezakete adingabeak hala nahi izanez gero. Segurtasun indarrek aurkitu eta zentrori ekarri ondoren, berriro ere ihes egiten zuten eta horrela gertatzen zen behin eta berriro. Orain ia ez du inork ihes egiten eta, gainera, segurtasun indarrek ia ez dute sistematik kanpo dagoen adingaberik aurkitzen. Era berean, ez dakite kalean eta babesteko sistematik kanpo bizi den adingaberik dagoen ala ez. Adierazi dute beraien erantzukizuna beraien harrera egindako adingabeak babestea dela. *“Polizia-erakundeek aurkitu behar dituzte ezkutaturik edo bazterturik bizi direnak, horrelakorik balego, eta dagokien babes-baliabidera eraman behar dituzte.”* Puntu honetan agintariek eta herritarrek, oro har, duten betebeharra gogorarazi dute. Bereziki beraien lanbideagatik edo funtzioagatik balizko babesgabetasuna hautemanenez gero adingabeei beharrezko arreta emateko betebeharra dute eta Foru Aldundiari jakinarazi behar diote. Ez daude ados erakunde eta pertsona batzuen parte hartzearekin, adingabeen jarrera batzuen erantzule egin dituzte.

Azkenik, Arartekoaren langileek Oilurrera egindako azken ikustaldia aipatzea ere garrantzitsua da. Hirugarren ikustaldia 2009ko irailaren 25ean egin zen, 2009ko irailaren 14ko Arartekoaren ebazpenaren ondoren, eta Gipuzkoako Fiskaltzarekin batera joan zen. Ikustaldian ebazpenean aztertutako gabeziak ikusi ziren berriro. Era berean, instalazioak narriatuta eta zikinak zeudela ikusi zen, adingabeek behar adina manta ez zutela eta arropa eta oinetako egokirik ere ez, ateak falta zirela eta behar adina ohe ez zegoela. Beste elementuetako bat sendagilearen arreta gabezia zen, bi adingabe gaixo zeudela ematen baitzuen. Ikustaldian egiaztatu genuenez, adingabeek ez zuten heziketa-programa pertsonalizaturik eta inongo eskoletara joan gabe jarraitzen zuten. Zentroan ez zuten gizartean eta lan munduan errazago sartzeko inolako jarduerarik egiten. Jarduerarik gabe, etorkizunari buruz inolako itxaropenik gabe, adingabeekiko heziketa-lan oro zaildu egiten da eta harremana bera ere bai.

Sailaren inguruan jarritako hesi batean eta zaintza elektronikoko sistemetan egindako inbertsio ekonomikoa ere ikusi genuen, hautemandako gabeziekin erabateko kontrastean, behar adina manta eta ohe ez izatearekin, esaterako.

Azkenik, Deba Zentroa irekitzeak eragindako egoera islatzen duen beste elementuetako bat Oilurreko neska-mutilak bideratzearekin lotuta erakunde honek 12 kexa-espeditente izapidetu izana da.

- 1300/2009 espeditentea, hezitzaile batek sustatua, bere funtzioetatik dimititu egin zuen adingabeek jasotzen zuten tratua zela eta, aipatu dugun bezala.
- 1011/2009 eta 1238/2009 espeditenteak, inguruko auzotarrek agindutakoak, segurtasun gabeziarekin beldurtuta.
- 981, 1178, 979, 980, 917, 614, 1115 eta 916 eta 1509/2009/31 espeditenteak, Debara bideratutako mutil eta neskei eragiten dieten egoerei buruzkoak. Ez daude ados bideratu dituztelako, matrikulatutako ikastetxera ezin dira joan eta egoitza-baimenaren eskaria izapidetzerik edo berritzerik ez dute.

Kasu batzuetan, 916 kasuan esaterako, arazoa konpondu da adingabea UBako presazko harrera-zentroan sartu baita. Baina espedientea tramitatzen ari dira oraindik, adingabeak ezin izan baitu egoitza-baimena berri, tutoretza baieztatu gabe zegoelako.

1178/2009 kasuan, tutoretza eten egin da, fiskaltzaren dekretuaren arabera adinez nagusia baita, gai honi buruzko 1. atalean aipatu bezala.

917/2009, 980/2009, 981/2009 eta 1115/2009 kasuetan, adingabeen egoera ezagutu zain gaude, Oilur zentroa itxi eta beste zentro batzuetara bideratu direlako.

979/2009 espedienteari dagokionez, adingabea Arabako Lurralde Historikora joan zen eta gizarte eragileen kudeaketan eta jardueren ondorioz eta erakunde honek parte hartu ondoren, Arabako babes-sistemako zentro batean sartu zen.

Arartekoa 2009ko azaroaren 26an izan zen Gipuzkoako Batzar Nagusietan, hartutako Ebazpenaren eta ordura arte erakundeak egindako jardueren berri emateko.

Azkenik, eta lehen aipatu bezala, Debako Oilur zentroa itxi egin da eta aldatetaren bat erakusten duten zenbait neurri hartu dira. Erakunde honek positiboki baloratzen ditu abian jarritako neurriak, Gipuzkoako Foru Aldundiak Arartekoaren esanak kontuan izan dituela ikusten baita.

Gipuzkoako Lurralde Historikoa

1398/2008 espedientea izapidetu dugu, bakarrik dauden adingabe atzerritarrek defentsa-eskubidea erabiltzeko duten zailtasunei buruzkoa.

Kexan bakarrik zegoen adingabeko atzerritar batek aholkularitza juridikoa lortzeko izandako arazoak ageri dira. Gipuzkoan bakarrik dauden adingabeko atzerritarren jarduera-protokoloa erabilia, Gipuzkoako Abokatuen Elkargoko Ofiziozko Txanda erabiltzeko arazoak izan zituen, nahiz eta aipaturiko Protokoloak adingabeei aholkularitza edo informazio juridiko independentea eskatzeko eskubidea aitortu edo bere eskubideak defendatzeko ofiziozko abokatu bat izendatzeko eskubidea aitortu. Adierazi zuenez, txandako abokatuak ez zuen artatu nahi izan, adingabe bati buruzko gaia zen arren, ez zen atzerritar-prozedura bati buruzkoa.

Arartekoak Justizia Sailera igorri zituen defentsarako eskubidearen eta doako laguntza juridikoa izateko eskubidearen garrantziari buruzko iritzi batzuk. Eskubide hauek tutoretza judizial eraginkorrerako eskubidearen zati dira, eta hori pertsona orori dagokion funtsezko eskubideetako bat da. Auzitegi Konstituzionalak 2008ko abenduaren 22an emandako bi epai ere aipatu genituen (3321-2007 eta 3319-2007 babes-errekurtsoak). Auzitegi Konstituzionalak aitortu egiten du adingabeek entzunak izateko eta organo judizialak aztertzeke duten eskubidea, beraien esfera pertsonalari dagozkien neurrietan. Beraien iritzia emateko baldintzetan dauden adingabeek, erasandako prozedura judizial edo administratibo

guztietan entzunak izateko eskubidea dute, dela zuzenean dela ordezkari baten bidez edo organo egoki baten bidez.

Gai hau gehiago eta zehatzago garatuko da, haurtzaro zaurgarriari buruzko hurrengo txosten batean.

3. Adingabeak babesteko zentroyen kokapenari gizarteak egindako arbuioa

Aurten zenbait espediente izapidetu ditugu jendeak egindako kexeekin, beldur baitira edo arbiuatu egiten baitute baliabideak eta harrerako pisuak beraien etxeetatik gertu jartzea. Espediente hauek Gipuzkoan baino ez dira izan aurten.

1018/2009 espedienteetan bi etxebizitzako etxe batean bizi zen lagun batena zen, Foru Aldundiarekin erdibana zuen eraikinaren jabetza. Foru Aldundiak babesik gabeko adingabeak artatzeko jarri zuen etxebizitza. Foru Aldundiak adierazi du heziketa-taldea pertsona horrekin hitz egitera joan zela eta zalantzak konpontzen saiatu zirela, zailtasunetatik ikasi eta beharrezko neurriak hartzen ere saiatu zirela, inguruko elkarbizitza denentzat egokia izateko.

1011/2009 eta 1238/2009 espedienteetan, Debako herritar batzuek beraien beldurra planteatzen zuten Foru Aldundiak Debako Oilur zentroa kudeatu behar zuela eta. Auzotarrek errespetatu egin zituzten adingabeen eskubideak, beraien zalantzak eta beldurrak planteatu zirenean.

Gipuzkoako Foru Aldundiak esan du auzotarren arbuioa dela eta, parte hartzeko bideak ezar daitezten ahaleginak egiten ari direla *"Kasu guztietan egoera osoan baloratzeko, pronostikoa argitzeko eta dagozkion neurri zuzentzaileak hartzeko lanean aritu gara"*.

4. Adingabe atzeritarrak Autonomia Erkidego batetik bestera igarotzea kontrolatzeko zailtasuna

Adingabeak autonomia erkidego batetik bestera igarotzearekin kezkatuta dago erakunde hau. Hori dela eta, espediente bat irekita daukagu Herri Defendatzailearekin eta aurreko txostenetan ere aipatu izan dugu. Autonomia erkidegoen eta foru aldundien artean koordintatzeko mekanismoak abian jartzeko beharra da espediente horren xedea. Arazo hau foru aldundien edo autonomia erkidegoen parte hartzetik harantzago dago. Urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren erreformak ez dio arazo honi erantzunik eman, beraz, aipaturiko espedienteak irekita jarraituko du. Hori dela eta, erakunde honen iritziaren berri eman digu Herri Defendatzaileari *"lurraldeen artean komunikazio handiagoa dago orain herrialde bakoitzean tutoretzatutako bakarrik dauden adingabeko atzeritarrak identifikatzeko, hori egiterik dagoen kasuetan. Baina ez dago akordiorik erantzukizunak hartu behar dituenari buruz, ezta zentroak kudeatzeko eredu bati buruz ere; horri guztiari lurralde batetik bestera aberriratzeko prozesuak hasteari eta burutzeari buruz dauden aldeak gehituz gero, gorabehera handiak sortzen dira"*.

Aurten izapidetu dugun espediente batean (1275/2009) adingabe bat Bizkaiko Lurralde Historikotik Bartzelonara eramateaz aritu gara. Bide judizialera jo zutenez, gure parte hartzea eten egin genuen (Arartekoaren erakundea sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/85 Legeko 13. artikulua). Dena dela, Bizkaiko Foru Aldundiari adierazi genion adingabeak lurralde batetik bestera eramatea, kezkatzeko elementua zela. "Gure ustez, koordinazioa eta irizpide argia bateratuak dituzten politikak behar dira, horrelako egoerak saihesteko. Horrela, erakunde honen ustez, babeserako erakunde guztiek babesteko duten betebeharrak nahitaez antzerako baldintzekin betetzea beharrezkoa da. Alde horretatik, egiaztatu da babesteko betebeharrari buruzko ulermen desberdina dagoela, eta horrek ez du bakarrik dauden adingabe atzerritarren arreta laguntzen. Autonomia Erkidegoetan adingabeak identifikatzeko, tutoretza gain hartzeko, adina zehazteko, bizilekua izateko baimena eskatzeko edo emantzipazio programetarako jardun desberdinek ez diote onurarik ekartzen adingabeak erkidegoen artean lekualdatzeko kontrolari."

Hori dela eta, ofiziozko jarduera bat hasi dugu (60/2009 OF) hiru foru aldundiei eta Eusko Jaurlaritzari zuzenduta. Egoitza harrerako baliabideak arautzen dituen uztailaren 8ko 131/2008 Dekretuan aurreikusitakoa bete egin behar da. Araudi honen Zazpigarren Xedapen Gehigarrian jarduteko protokolo komuna egitea aurreikusten du, baimendu gabeko absentsia kasuetan: *"Eusko Jaurlaritzak, Barne Sailaren bitartez, eta Foru Aldundiek, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Lurralde Zerbitzu Espezializatuen bitartez, eta Udalek, Udal Gizarte Zerbitzuen bitartez, jardun-protokolo komun bat ezarriko dute, Dekretu hau indarrean jartzen denetik zenbatzen hasita urtebeteko epean, adingabeak hartuta dauden egoitza-harrerako baliabideetako adingabeen baimenik gabeko absentsien kasuetarako, betiere 84. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz"*

Protokolo hau egitea ere oso beharrezkoa da, babesteko hiru erakunde baitaude eta adingabeen ihesek eta lekualdatzeek ondorioak baitituzte.

Aurrez ere aipatu dugu ofiziozko espediente hau, defentsako eskubidea errespetatzeko garrantziari buruz aritu garenean edo adingabe hauen adina zehazteko zailtasunen ondorioez aritu garenean. Espedientearen xedea da jarduera protokoloak egitea adingabeen eskubideak errespetatzeko behar adinako bermeekin, 131/2008 Dekretuko Seigarren eta Zazpigarren Xedapen Gehigarriak beteta: *"Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek, beren Sail eskudunen bitartez, inoren kargura ez dauden adingabe atzerritarren premiazko harrerarako jardun-protokolo komun bat adostuko dute esku hartzen duten gainerako erakundeekin, fiskaltzekin eta segurtasun-indarrekin bereziki. Protokolo hori Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde osoan esku hartzeko baldintzak, pertsona horien eskubideen errespetua bermatuko duten baldintzak, aplikatzeko izango da"*

Urtarrilaren 11ko 4/2000 Legeko 35. artikulua adostutako protokoloak doitzeko beharra ere planteatzen zuela ulertzen genuen eta erakunde honen iritiz egokia litzateke protokolo horiek berriro egitea eta adingabeen eskubideak eta bermeak kontuan izatea abokatu independenteen laguntzari buruz, adingabea izatearen gaineko zalantzak daudenean adina zehazteari buruz eta kasu hauek ere gizarte zerbitzuen esku jartzeari buruz.

5. Tutoretza hartzeko betebeharra ez bete eta egoitzazko baimena eskatzekoa ere ez

Arabako Lurralde Historikoa

Arabako adingabeko atzerritarrak babesteko sistemak dituen bi baliabidetara (Bideberri zentrorra eta Carlos Abaituako pisura) ikustaldia egin zuten erakunde honetakoek 2009/11/13an. Jakin genuenez, Arabako Foru Aldundiak tutoretza utzi egin du eta egoitzazko baliabideetan harrera egindako adingabe atzerritarren egoitza-baimena eskatzeari ere utzi egin dio. Horren ondorioz, ofiziozko espedienteak hasi genuen, baina ez dugu erantzunik jaso. Arabako Foru Aldundiari errekerimendua igorri diogu erantzuteko betebeharra duela gogorarazi, baina txostena itxi den honetan erantzunik jaso gabe gaude.

Orain arteko informazioaren arabera, Arabako Foru Aldundia 2009ko maiatzetik edo ekainetik ez da ari babesteko baliabideetan artatzen dituen nerabeen tutoretza izapidetzen.

Gazte hauek zitazio judizialak jasotzen hasi dira, agiriak faltsutzeko delitua egotzita. Dirudieenez pasaporteko data, proba medikoko adina eta poliziaren aipameneko adina desberdinak dira. Hortik ondorioztatzen denez, adina zehazteko arazoa dago. Horri aurre egiteko modua da kontua eta defentsarako bermeak eta eskubidea betetzen ari ote diren, baita bakarrik dauden adingabe atzerritarrak babesteko legezko betebeharra betetzen ari ote den ere. Espediente hau tramitatzen ari da.

Era berean, 2010 hasieran ofiziozko beste espediente bat hasi dugu, egoitzazko baliabideetan artatutako atzerritar adingabeen hezkuntzazko arretari buruz. 2010eko urtarrilaren 5ean, astearte, 29 atzerritar adingabe etorri ziren erakunde honetara eta defentsarik gabeko egoeran zeudela esan zuten Zentroko hezkuntzazko irizpideen eta jasotzen zituzten zigorren aurrean. Beraien iritziz, giroa aldatu egin da azken hilabeteetan eta Zentroa uztera sustatzen dituztela ematen du. Ondoren jakin genuen 29 adingabe hauek kalean zeudela astearte hartatik. Arartekoak 8/2010 ofiziozko jardura hasi zuen gertakariari buruzko informazioa eta lankidetzaz eskatzeko, gertatutakoei buruz behar adinako informazioa igor zezaten premiaz; horrez gain, Zentroko hezkuntzazko irizpideetan egondako aldaketak, arau-hausteei buruzko informazioa eta azken 6 hilabeteetan gazteei ezarritako neurri zuzentzaileak ere jakinarazi behar zituzten. Aurreko gertakarietan parte hartutako gazteei ezarritako zigorrei buruzko informazio zehatza ere bai, horien artean 13 orduz biltegi batean giltzaperatuta edukitzea edo prestakuntza zentroetara joaten ez uztea edo aurreko gertakarietan eragina duten gainerako guztiak.

Txosten hau itxi dugunean, ez dugu jaso gai horiei buruz Arabako Foru Aldundiaren erantzunik.

Adingabeko hauetako asko erakundera joan ziren tutoretzarik ez zeukatelako eta egoitzazko baimena eskatzen ez zirelako kexa jartzera. Foru Aldundiak erantzun du eta aipatu du adin desberdinak ageri direla poliziaren orrietan, adina zehazteko probetan eta pasaportean ageri den adinean. Gai honi buruzko 1. atalean aipatu ditugu espediente hauek, 35 baino gehiago dira.

Tramitatzen ari garen beste espediente bat Arabako Foru Aldundiak bakarrik dauden adingabe atzerritarrei emandako arreta gabeziagatik da, udal aterpetxean daude, Arabako Foru Aldundiaren egoitzetan onartu ez dituztelako. Informazio honen ondorioz, ofiziozko beste espediente bat ireki da, 45/2009 zenbakiduna.

Udal aterpetxera azaroaren 10ean, asteartea, egin genuen ikustaldian jakin genuen baliabide hau ari zela adingabe hauek artatzen zenbait hilabetez, horrek zekartzan zailtasunekin, beste behar batzuk betetzeko baliabidea baita berez. Era berean, Zabaltzenek berriro ere adingabe horiek artatzeari uko egin ziola jakin genuen, bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako baliabidea izan arren. Adingabeak babesteko eskumena Arabako Foru Aldundiari dagokiola dioten kontsiderazioak igorri ditugu, adingabe horiek erakunde honek artatu behar baititu. Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei eta Horien Integrazioari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoko 35. artikulua, nahiz lehengo idazketan nahiz aldatu ondoren babesteko betebeharra ezartzen du. Idazketa berriko 3. atalean berariaz aurreikusten da: *“En los supuestos en que los Cuerpos y Fuerzas de Seguridad del Estado localicen a un extranjero indocumentado cuya minoría de edad no pueda ser establecida con seguridad, se le dará, por los servicios competentes de protección de menores, la atención inmediata que precise, de acuerdo con lo establecido en la legislación de protección jurídica del menor, poniéndose el hecho en conocimiento inmediato del Ministerio Fiscal, que dispondrá de la determinación de su edad, para lo que colaborarán las instituciones sanitarias oportunas, que, con carácter prioritario, realizarán las pruebas oportunas.”*

Hau da, gazte hauen adina zehatz ezartzerik ez badago, babesteko zerbitzuek artatu beharko dituzte, legez ezarritako bideekin adina zehaztu arte.

Gipuzkoako Lurralde Historikoa

Gipuzkoan ez zirudien tutoretza hartzeko gabeziagatik arazorik zegoenik, behin behineko tutoretzak zuen atzerapena izan ezik, gero denborarekin egiaztatzen baitzen. Beste kontu bat da tutoretza uztea, medikuen proba bat eta adinez nagusi zirela zehazten zuen fiskaltzaren dekretua oinarri hartuta. Zenbait epairen ondoren irizpideak berraztertu egin ziren eta prozedura argitu zuen jarraibide bat egon zen, aurreko puntuetan aipatu duguna.

Aurten, aipatu bezala, Gipuzkoako Foru Aldundiak tutoretza eteteak tramitatu ditu ihesengatik eta babeserako baliabidetik irteteagatik, zehatz esateko, Oilur Zentrotik irteteagatik. Horren ondorioz, erakunde honek parte hartu zuen eta fiskaltzak erakunde honekin bat egin du. Hau da, gazte batek ihes egitean ez da legez tutoretza uzten.

Tutoretza uztea gai korapilatsu bihurtu da berriro 2009 amaieran. Kasu honetan, berriro ere, adina zehazteko zailtasunak daudelako, agirietako adina eta hezurren probetakoa bat ez datozelako eta adina zehazteko probak zehatzak ez direlako, aipaturiko ondorioak egon dira.

Bizkaiko Lurralde Historikoa

Bizkaian tutoretzak utzi direnetan fiskaltzako dekretuak beteaz utzi dira, babesteko sistemako baliabideetan zeuden atzerritar adingabeak adinez nagusiak direla zehaztu baitute, epigrafe honetako 1. puntuan adina zehazteko atalean aipatu bezala.

6. Egoitzazko harreraren mugak

Euskal herritarren kexa batzuk tramitatu ditugu, bakarrik dauden atzerritar adingabeen familiako harrera eskatzen zutenenak. Horietako bi Debara bideratutako adingabeei buruzkoak dira; interesen gatazka eta iritzi desberdinak ikusten ziren adingabearen tutoretza duen Administrazioaren eta babesik gabeko adingabearen artean.

Egoitzazko harreraz gain adingabe atzerritarrak artatzeko beste modu batzuek hausnartzea ordenamendu juridikoan babesa duen aukera da. Zentzu honetan, Bizkaian hasi da hausnarketa hau jatorri kultural bereko familia atzerritarrekiko; positiboa dela uste dugu, atzerritar adingabeak artatzeko formula eta modelo berriak irekitzen baititu. Haurrak babesteko figura desberdinei buruzko hausnarketa hastea garrantzitsua iruditzen zaigu, egoitzazko harrera besterik aurreikusten ez den modeloak gaunditzea.

* * *

Adingabeentzako zaurgarritasun bereziko egoeren gainean Arartekoak egingo duen ezohiko txostenean, hemen adierazitako gai hauetako batzuk berriro hartuko ditugu.

3) Adingabe lege-hausleak

Arartekoak 1998an Adin txikiko lege-hausleak Txosten Berezia argitaratu ondoren, erakunde honek jarraipena egin du zentroetara aldiro joanda, urtero datuak eskatuta eta sektoreko arduradunekin, taldeekin eta profesionalekin bilerak eginda. Horien guztien berri aurreko urteetako txostenetan eman da.

2009an egindako jarraipenei dagokienez, Justizia eta Herri Administrazio Sailari ofizioz eskatutako datuak daude. Ondorengo orrietan datoz emaitzak.

Egokiagoa iruditu zaigu une hauetan 2009ko datuak jasotzea, eta beste gai batzuk geroagorako uztea, erakunde honek adingabeei buruzko txosten berezia egitekoa baitu.

1. Azken urteetan burututako neurrien eboluzioa

Adingabe lege-hausleei buruzko Arartekoaren txostenarekin bultzatu nahi zen oinarrizko jarduera lerroetako bat zen 5/2000 Lege Organikoaren ahalmen guztiak garatzea aurreikusitako neurri guztiei zegokienean eta, bereziki, askatasuna hainbeste mugatzen ez zuten haiei zegokienean. Neurriak egiaz ezartzeko funtsezko faktoreetako bat eskura dagoen bi-tarteko eta baliabide kopurua izaten da, eta horiek burutzea euskal Administrazioaren eskumena da.

Aurreko txostenetan neurri judizialak burutzeari buruzko datuak eman ditugu, dagozkien balorazioak eginda. Zentzu honetan 2000ko eta 2006ko txostenak azpimarratu beharra dago, Gazte Justiziaren Zerbitzuak Memoria zehatza egin baitzuen aztertzeko.

Burututako neurrien eboluzioaren datu globalek horiek zenbat ezarri diren gehiago edo gutxiago jakiteko aukera ematen digute, baita joera orokorren berri izateko ere. Datu global hauek taula honetan daude:

Neurri judizialak	2006	2007	2008	2009
Erkidegoaren mesederako prestazioak	469	444	298	313
Zaintzapeko askatasuna - kautelazkoa	18	29	32	30
Zaintzapeko askatasuna - irmoa	189	187	285	310
Tratamendu anbulatorioa	16	10	8	21
Gizarte-heziketako ekintzak	73	141	158	185
Barneratzea - kautelazkoa	30	34	38	67
Barneratzea - irmoa	156	136	93	115
Asteburuetako egonaldia	147	129	102	150
Heziketa taldearekin elkarbizitza	3	6	6	5
Heziketa taldearekin elkarbizitza - kautelazkoa	0	4	4	3
Eguneko zentrora joan	6	27	19	34
GUZTIRA	1.107	1.147	1.043	1.233
Bariazioa	+53	+40	-104	+190
% hazkundera	%5,00	%3,60	%-9,1	%18,2
Behin betikoak	1.059	1.080	969	1.133
Kautelazkoak	48	67	74	100

(Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Saila.)

2005etik nolabaiteko egonkortasuna zegoen neurri judizialen hazkundera, 2000tik 2004ra hazkunde izugarria izan ondoren. 2008an desegin zen goranzko joera hau, eta 2007an baino %9,1 neurri gutxiago hartu ziren. 2009an joera nabarmen aldatu da eta %18 baino neurri gehiago hartu dira.

Kautelazko neurrien eboluzioan kasu kopuruak gora egin du eta neurrien iraupenak ere bai:

- Agian daturik esanguratsuena barneratzeko kautelazko neurriaren hazkunde nabarmena da: 2008an 38 izan ziren eta 2009an 67. Non jaion ziren badakigun kasuei dagokienez, %58 atzerrian jaiotakoak dira (gehienak Marokon). EAEn jaiotakoak herena baino gutxiago dira.
- Azpimarratu beharra dago barneratzeko kautelazko neurrien denbora ere luzatu egin dela. 5/2000 Lege Organikoaren azkeneko aldaketak hiru hilabetetik seira zabaldu zuen kautelazko barneratzeen hasierako iraupena. 2009an ezarritako kautelazko neurri ugari luzatu egin dira sei hilabete horien ondoren, eta askatasuna kentzen duten neurri hauen behin-behinekotasuna luzatu egin da.
- Kautelazko zaintzapeko askatasun kopurua egonkor dago (32, 2008an eta 30, 2009an).
- Kautelazko heziketa taldeekin elkarbizitzeko neurriak 3 izan dira. Hona hemen sailaren beraren iritzia: *“hori ez dugu egokitzat jotzen, neurri horrek duen izaera eta lege-arautegia kontuan izanik; izan ere, kautelazko neurriak ahalbidetzen ez dituen lana, atsedena eta arreta eskatzen baititu.”*

2009an neurri irmoetan ere aldaketa esanguratsuak egon dira. Inguru zabaleko neurri irmoei dagokienez, azpimarratu beharra dago:

- Erkidegoaren onurarako prestazio kopuruak 2008an beherakada handia izan zuen arren, egonkortu egin da, baina aurreko zifretatik oso urrun dago, orduan urtean 400 kasu erraz gainditzen baitziren (2006an eta 2007an).
- Zaintzapeko askatasun neurria goraka doa, aurten 310 kasu egon dira eta oso atzean geratu dira 2007ko 187 kasu.
- Gizarte-heziketako ekintzak egitea gora doa, iazko zifrak %17an gainditu dira.

Esan beharra dago, iazko txostenean adierazten zen datua finkatu egin dela: *“Ingurune irekiko neurrietan askatasuna kentzen ez duten neurrietatik eskuartze handiagokoetarantz izandako joera-aldaketa sendotu egin da (zaintzapeko askatasuna eta gizarte eta hezkuntza arloko zereginak). Hori gehienbat gizartearen mesederako prestazioen kalterako izan da. Joera-aldaketak zerikusi handia du 5/2000 Lege Organikoaren azken aldaketarekin, aldaketa hori egin zenetik zaintzapeko askatasuna eta gizarte eta hezkuntza arloko zereginak ezarri baitaitezke zigor-larritasun gutxiko gertakarietan (faltak).”*

Barneratzeko neurri irmoei dagokienez, esan beharra dago izugarri hazi dela (2008an baino %24 gehiago) eta iraupena ere nabarmen hazi dela. Honen ondorioz, gazte justiziaren sareko hezkuntza zentroetako okupazio tasa oso altua da, kasu batzuetan ia %100ekoa. Asteburuetako egonaldiak ere hazkunde nabarmena izan dute (2008an baino %47 gehiago).

Deigarria da familia barneko eta bikotearen aurkako indarkeriarekin lotutako delituak zenbat hazi diren, ia %30. Atzerrian jaiotakoak dira gazte justizia sisteman artatutako adingabeen %30,7 (%54,5 zentroetan eta %26,2 inguru irekian neurriak betetz).

2. Zentroen sarean eta barneratzeko baliabideetan eta inguru irekiko zerbitzuetan 2009an egindako aldaketak

2.1. Heziketa zentroen sarea

Sailaren oinarriko egitura, heziketa zentroi dagokiena, egonkor mantendu da. 2009an Aramaio Mendixola zentroan berritzen ari diren bitartean Muskizko Itxaslur zentroa ireki da (2. maila) asteburuetan egoteko neurriek gora egin dutenez horiek artatzeko. Zentro hau neurri horiek betetzeko erabiliko da soilik. Itxaslurren 6 lagunentzako tokia dago eta ostiral arratsaldetik igande goizera egoten da irekita.

Ibaiondo zentroan (1. maila) plaza kopurua hazi egin da eta orain 39 ditu (lehen 34), barneratze neurriak asko hazi direnez (kautelazkoak eta irmoak) denak artatu ahal izateko.

Urte amaieran neskontzako plaza kopurua hazteko higiezin berri bat egokitzeko behar diren kudeaketak egin dira. 2010 hasieran baliabide hau prest egotea espero da, neskontzako 8 plaza berri izango ditu eta Gasteiz inguruan egongo da.

Sailak barneratze-neurriak betetzeko dituen baliabideak taula honetan laburtu dira:

HEZIKETA ZENTROA	MAILA	LEKUA	PLAZAK	KUDEAKETA	LANGILEAK (2008-12-31n)
IBAIONDO	I	Zumarraga	39 (mutilak) 5 talde	Justizia eta Herri Administrazio Sailak, zuzenean	64 + 12 irakasle + zerbitzuak (sukaldea, garbiketa, zaintza)
MIGUEL ÁNGEL REMÍREZ (CEMAR)	II	Ortuella	7 (mutilak)	Berritzu hezkuntza-elkarteak, zeharka	15
MENDIXOLA	II	Aramaio	Berritzatze lanengatik itxita. 2011rako berriz irekitzeko asmoa dute		
URIBARRI	II	Arazua-Ubarrundia	14 (barneratzea) 4 (eguneko zentroa)	Berritzu hezkuntza-elkarteak, zeharka	28
ITXASLUR	II	Muskiz	6 (asteburuko egonaldiak)		
ANDOIU	II	Andoiu	7 (neskak)	Gaztaroan Ekin elkarteak, zeharka	16
BILBOKO AUTONOMIA EGOITZA	III	Bilbao	6 (mutilak eta neskak)	Berritzu hezkuntza-elkarteak, zeharka	8

HEZIKETA ZENTROA	MAI-LA	LEKUA	PLAZAK	KUDEAKETA	LANGILEAK (2008-12-31n)
GASTEIZKO AUTONOMIA EGOITZA	III	Vitoria-Gasteiz	4 (mutilak eta neskek)	Gaztaroan Ekin elkarteak, zeharka	6
SAN SEBASTIÁN EGOITZA	III	Donostia-San Sebastián	4 (mutilak)	Berriztu hezkuntza-elkarteak, zeharka	6
SAN SEBASTIÁN-2 EGOITZA	III	Donostia-San Sebastián	6 (mutilak eta neskek)		8

Horrela, bada, barneratze-neurria burutzeko abenduaren 31n 87 plaza zeuden, asteburuetan zentroan egoteko 6 plazak (urriaz geroztik) kontuan izan gabe. Honela banatuta daude mailaka:

- 39 plaza I. mailan (5 heziketa taldeko zentroa).
- 28 plaza II. mailan (hiru zentro). Beste 6 plaza asteburuetan egoteko, urriaz geroztik.
- 20 plaza III. mailan (egoitzazko lau unitate, horietako bat familian izandako mehatxuengatik, indarkeriengatik... ezarritako neurriak dituzten pertsonak artatzeko).

Saileko datuen arabera, aurreko urteetan bezala ez da barneratzeko neurriak Autonomia Erkidegotik kanpo betetzeko inor bideratu, gazte justiziaren euskal sarean plazarik ez zegoelako. Bideratu dira, ordea, adingabeen epaitegiak EAEtik irtetea komenigarria dela zehaztutako kasuetan edo adingabea beste autonomia erkidego batean bizi denetan.

Batez besteko okupazio tasak gora egin du 2009an eta %95 baino handiagoa izan da. Okupazio tasa hori %100 izango litzateke, non dauden ez jakin eta plaza gordeta duten adingabeak kontuan izanez gero.

2.2. Inguru irekiko zerbitzuen sarea

2009an hiru hezitzaile-taldeak mantendu dira, inguru irekiko neurriak burutzeko: Talde 1 Bizkaian (14 profesional), talde 1 Gipuzkoan (8 profesional) eta beste 1 Araban (4 profesional).

Eguneko zentroen sarea indartu da:

- *Zabalik* Bizkaian: 20 plaza. 8 profesionalek artatuta.
- *Ireki* Gipuzkoan: 12 plaza. 4 profesionalek artatuta.
- *Uribarri* Araban: 4 plaza. 2 profesionalek artatuta (bat lanaldi erdian).

laz bezala, profesional bakoitzeko 15 adingabeko ratioa mantentzea lortu da, eta ez da lanean gainkargarik egon. Salbuespen bakarra Gipuzkoa izan da, eskaria hazi zenez, profesional bat gehiago sartu behar izan baita taldean.

2.3. Irabaz asmorik gabeko erakunde pribatuekin erlazioa

Sailaren informazioren arabera, Ogasun Sailak hala adierazita, 2007an erakundeekin kontratu formula erabiltzetik lankidetzeta-hitza armenera igaro zen eta ekarpen ekonomikoak hazi egin ziren, sektoreko hitzarmen kolektiboetan ezarritako mailak betetzeko. 2008an 163/2008 Dekretua onartu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko arau-hausle adingabeei gizarte- eta hezkuntza-arreta eskaintzeko erakunde laguntzaileak baimendu, homologatu, ikuskatu eta erregistratzeari buruzkoa.

3. Zerbitzuen arauko erregulazioa

Arartekoaren erakundetik hainbatetan azpimarratu dugu bi arau garatzeko eta ezartzeko beharra, biak 2005ean onartu eta indarrean sartutakoak: 5/2000 Lege Organikoaren erregelamendua eta 2005eko otsailean Eusko Legebiltzarrak onartutako Haur eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko Legea.

Sailak jakinarazi du Haur eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko 3/2005 Legea beteaz 80/2009 Dekretua onartu eta argitaratu dela, apirilaren 21ekoa, askatasunaz gabetzeko neurriak betearazten dituzten EAEko ikastetxeei buruzkoa.

Dekretu horrek askatasuna kentzen duten neurri desberdinak betearazteko zentro horiek bete beharreko baldintza materialak, funtzionalak eta pertsonalari dagozkionak arautzen ditu. Berariaz aipatzen ditu adingabeen eta horiek artatzen dituzten profesionalen eskubi-deak eta betebeharrak, eta barne-erregimenean araudi bat ezartzeko beharra ere aipatzen du, zentroaren eta bere hezkuntza proiektuaren berezitasunetara egokituta.

4. Babesteko sistemekin erlazioa

Sailari egindako eskarian, berriro genion honakoei buruzko informazioa eman behar zela:

- Babes sistematik datorren adingabeko proportzioa (jarrera arazo larriekiko nerabeak eta, bereziki, bakarrik dauden adingabe atzerritarrak, beraien arazoei buruz jarraipena egiten denak).
- Koordinazio-mekanismoak, jarduera-irizpide komunak, informazioa trukatzeko sistemak, parte hartzearen jarraipena... babes-sistematik datozen adingabeen kasuan.

Bere erantzunean Justizia Sailak berriro azpimarratu du hautemandako eboluzioa eta foru aldundien mendeko babes-sistematik datozen adingabeen proportzio handia, gazte justizia sisteman. Zentzu honetan, 2009ko datu hauek eman ditu:

- Barneratze kasuen %51,9.
- Inguru irekiko neurrien %23,9.
- Neurriren bat betetzen duten pertsona guztien %27,6.

Bi sistemen arteko erlazioa adierazten dute datuek berriro ere, bereziki barneratzeko neurrien kasuan. Egoera bereziki azpimarragarria da bakarrik dauden adingabe atzeritarren kasuan, eta bereziki nabarmentzen da Gipuzkoako egoera, lurralde horretan baitute egoitza gazte justiziako zentroetan artatutako adingabe atzeritarren %57k.

Bost talde dira bi sistemetan gehien parte hartzen dutenak:

- Bakarrik dauden adingabe atzeritarrak (gehienak Marokokoak).
- Latinoamerikan eta Errumanian jaiotako adingabeak, familiako erreferentzia urriekin eta berdinen taldearen mendekotasun handiarekin.
- Familiar jotzen duten adingabeak.
- Burujabetzeko aukera errealik gabeko 18 urtez gorakoak.
- Babesteko zentro batean bizi diren adingabeak.

Sailak adierazi du familia barruko indarkeria kasuak etengabe gehitzen ari direla, eta neska erasotzaileak %25-33 dira.

Bi sistemen arteko koordinazioari dagokionez, zertxobait hobetu beharra dagoela adierazi du Sailak. Bere iritziz kasu askotan jarrera arazoak dituzten gazte atzeritarrek eta tutoretzapekoek edo zaintzapekoek ez dute askotan beraien beharrentzako erantzun zuzenik aurkitzen, beraz, zigor-sistema da erantzuna ematen duena.

Sailaren iritziz arreta berezia behar dute buruko gaixotasunak eta jarrera arazoak dituzten neskek. Sailak igorritako informazioaren arabera *“erantzun faltaren edo erantzun desegokiaren eraginez, adingabeen epaitegien esku-hartzeak ugaritu dira. Zigor arloko justiziaren gehiegizko eskuartzea adingabeei laguntzeko sistema osoaren disfuntzioztat eta azken ratioaren printzipioaren hausturatzat baloratu beharra dago”*.

5. Zentroetan bertan eskaintako hezkuntza eta osasun arloko arreta eta hezkuntzako eta osasungintzako zerbitzuekin lankidetz

Hezkuntza arreta desberdina da, zentroen mailaren arabera: III. mailako zentroetan ohiko sareko eskoletara joaten dira beti; II. mailakoetan egoera mistoak egoten dira kasuen arabera, batzuk ohiko sareko eskoletara joaten dira eta besteak zentroan bertan eskolatzen dira; eta Ibaiondo zentroan (I. maila) gelako 6 irakasle eta tailerreko 7 daude, 2009an postu hauek erabat estalita egon ziren eta Hezkuntza Sailaren mende daude.

Osasun-arretari dagokionez, zentro batzuen eta besteen artean aldeak daude. Orokorrean ez dago larrialdietako eta ohiko arretan arazo esanguratsurik, nahiz osasun zentroetan nahiz barneratze zentroetan artatzen dira (Ibaiondon egunero bi orduz arreta medikua eta erizaintzakoa dituzte, Osakidetza langileekin).

Aparte aipatu beharrekoak dira buruko gaixoak eta toxikomanoak, aurreko urteekin alderatuz gero ez baitago hobekuntzarik.

Justizia eta Osasun Sailen arteko hitzarmena dela eta, larrialdietan barneratzeko beharrak estalita daude, 3-4 aste baino gutxiagoko egonaldia bada.

Sailaren iritziz denbora gehiago egon behar izanez gero, Osakidetzan ez dago erantzunik, ez baitago nerabeen egonaldi ertainetarako baliabide sarerik. Behar honi irteeraren bat emateko, Sailak berariazko talde sortu zuen Ibaiondo zentroan, barneratze terapeutikoak artatzeko. Gaia oso garrantzitsua denez, jarraipena egingo zaio zentrori egingo diren ondorengo ikustaldietan.

Buruko gaixotasun-zentroetako arreta herritarrei ematen zaie berdina da. Kasu batzuetan terapeuta pribatuak kontratatu behar izan dira, sistema publikoaren estaldura ez zelako nahikoa. Familia sistema osoan hartzen duen parte hartzea beharrezkoa denean, erantzun publikorik ez dagoela ere aipatu da.

Toxikomanoen arretaren balorazioa ere kritikoa da, aurreko txostenean aipatutakoaren antzekoa; hau da, arreta ez da behar adinakoa eta Saitetik osatu behar izaten dute, sare pribatuko zerbitzuetara joanda.

6. Eskariari egoki erantzuteko edo 2008-2012 aldirako onartutako Plana ezarriaz sisteman sartutako hobekuntzak

Sailaren ustez dauden zerbitzuak eta programak nahikoa izan dira eskaria asetzeko, nahiz eta barneratze neurriak betetzeko zentroak erabat beteta egon urtearen amaieran. Hobekuntza hauek sartu dira:

- Ibaiondoko heziketa zentroan 5 plaza gehiago daude.
- Gipuzkoan inguru irekiko taldean pertsona 1 gehiago dago orain.
- Uribarriko heziketa zentroan ogia eta gozoak egiteko tailer berria eraiki da.
- Zentro berri bat jarri da abian, asteburua pasa beharra daukatentzat (Itsaslur).
- Higiezin bat egokitu, Andoiu heziketa zentroa hazteko. Gasteizko Autonomiako egoitza itxiko da. Orain 11 ordez 15 artatu ahal izango dira.
- Mendixola heziketa zentroa behin-behineko itxi da, zaharberritzeko.

Azkenik adierazi da *“Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak, Justizia Ministerioak eta Hezkuntza, Gizarte Politika eta Kirol Ministerioak lankidetzaren hitzarmena sinatu eta 2009.*

urtera arte luzatu dute, Auzitegi Nazionaleko Adingabeen Epaitegi Zentralak adingabeei terrorismo-delituengatik ezarritako neurriak Euskal Autonomia Erkidegoan bete ahal izateko. Erakunde honek urteak daramatza gai hau azpimarratzen.

IVAC-KREIrekin sinatutako lankidetzahitzarmena ere hobekuntza da; horren bidez azterketak, ikerketak eta ebaluazioak egingo dira parte hartzeen kalitatea hobetzeko, horien artean honakoa nabarmentzen da: *"Hezkuntza parte hartzearen ebaluazioa eta berrerortzearen azterketa EAEko adingabeen justizian"*.

4) Sasoiko langileen seme-alabak

1995az geroztik Arartekoaren erakundeak Arabako sasoiko langileen egoera jarraitu du, besteak beste, nekazaritzako lanetara familia osoarekin etortzen diren sasoiko langileen seme-alaben eskolatzeko baldintzak jarraitu ditu.

2002an gai honi buruzko txosten berezia egin zen (*Sasoiko langileen egoera Arabako mahats eta patata bilketan*) eta Eusko Legebiltzarrean aurkeztu eta eztabaidatu ondoren, zenbait ekimen hasi ziren: sasoiko langileei buruzko ez legezko proposizioa, Eusko Legebiltzarrak 2002ko abenduaren 12an onartua; sasoiko langileei buruzko mozioa, Arabako Batzar Nagusiek 2003ko urtarrilaren 20an onartua.

Ordutik aurrera Arartekoaren jarraipenak bereizi egin ditu sasoi bakoitzean egindako jarduera zehatzak eta epe ertainerako planak edo jarduerak (ikus, adibidez, atal hau 2007ko Txostenean). Hemen azkeneko ikasturteko eskolatzeko arituko gara oso labur. Azkeneko informazioa eskatu genuenean Hezkuntza Sailak emandako erantzunetik datu hauek azpimarratu ditzakegu:

- Ikasle hauek kanpaina garaian Arabako Errioxako zentro hauetan eskolatu dira:
 - Víctor Tapia LHI, Guardia: Irailaren 29tik urriaren 20ra, gehienez 3-10 urte arteko 13 ikasle.
 - Eltziego LHI: gehienez 24 ikasle, irailaren 22tik urriaren 20ra (20 LHn eta 4 Haur H.-n).
 - Ramiro de Maeztu LHI (Oion): Irailaren 28tik urriaren 9ra; gehieneko ikasle kopurua: 8 ikasle, batzuk Kripan eta Viñaspretik etortzen ziren.
 - Bastida LHI: lau ikasle, horietatik bik zentroan jarraitu ditu mahats-bilketa amaitu ondoren.
 - HLHI Assa Ikastola, Lapuebla de Labarca: 17 ikasle (12 LHn eta 5 HHn).
- Programarako zeuden babeseko irakasleei dagokienez, 9 zeuden (aurreko kanpaina bezala). Irakasle bat Oion eta Labastidan; bi Lantziegon, Eltziegon eta Guadian, irakasle bat kontratatu Assan.

Arabako Hezkuntza Ordezkaritzak egindako txostenak eskolatzeko datuez gain balorazio nahiko zehatza dakar, zentroz zentro eta gai desberdinei buruz:

- Espazioen erabilera eta eskola-antolakuntza;
- Ikasleekin egindako prestakuntza jarduerak;
- Programarekin zerikusia izan duen irakasle bakoitzak egindako balorazioa, nahiz alderdi positibo nahiz negatiboena,...

Hobetzeko proposamen batzuk ere baditu. Labur bada ere, elementu horietako batzuk jarriko ditugu hemen. Adibidez:

- Zentro askotan lokal arazoa dago eta gela bezala liburutegia edo beste espazioren bat erabili behar izaten da.
- Orokorrean ez dira soilik alderdi akademikoak programatzen, baita balio zibikoen prestakuntza (pertsonak eta gauzak errespetatzea edo tolerantzia) eta garbitasun pertsonaleko ohiturak ere.
- Eskolako garraioa eta jangela erabiltzen dituzte oro har.
- Zentroko ohiko antolakuntzan integrazteko mailak asko aldatzen dira: Haur hezkuntzakoak erabat integratzen dira normalean, etapa horretako ohiko geletan; Lehen Hezkuntzan ikasle hauekin berariazko talde bat osatzen da gehienetan, talde egonkorretatik banatuta, baina jarduera batzuk partekatzen dituzte, hasi jolastordutik eta jangelatik eta arlo batzuen zatiak elkarrekin lantzerarte.
- Irakasleek oro har lanaren balorazio positiboa egiten dute, zailtasunak ahaztu gabe, eta alderdi positibo hauek adierazten dituzte, besteak beste: irakasle taldearen arteko kooperazioa, gizarte zerbitzuekin koordinazioa, ikasleen prestutasuna, lana aberasgarria izatea sasoiko ikasleentzat eta ikasle egonkorrentzat...
- Alderdi negatibo edo hobetu daitezkeen batzuk ere adierazten dituzte, esaterako, komunikazioa indartzeko irakasleen berariazko prestakuntza hobetu, familiak hobeto ezagutu edo erlazio handiagoa izan, plazak azkarrago eman beharra sortutakoan...

Azkenik, gogoan izan behar dugu adingabeko horietako askorekin heziketako beste jarduera batzuk ere egiten direla, nahiz eta eskolakoak ez izan (aisiako jarduerak, garbitasun pertsonaleko edo elikadurako ohiturak garatu, osasun beharrei buruzko orientazioa...). Jarduera horiek Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Sailak bultzatutako gizarte-hezkuntzako programei esker egiten dira.

5) Hezkuntza-premia bereziak edo berariazkoak dituzten ikasleak

Gai honetan egindako jarraipena, funtsean, *EAEko hezkuntza premia bereziei emandako erantzuna* deritzon txosten berezitik abiatu da; txosten hori Legebiltzarrean aurkeztu eta eztabaidatu zen, 2001ean.

Une horretatik aurrera, jarduketa asko egin ditugu, bai Hezkuntza Saileko arduradunekiko bilkurak, bai ofiziozko espedienteak.

Ordutik 2007ra arte lorturiko emaitza, bestalde, aurreko urteetako txostenetan adierazi da (esate baterako, atal hau 2007ko txostenean).

Batzuetan, jarraipen orokorra egin nahi izan da; beste zenbaitetan, berriz, gomendio batzuetara mugatu gara, horien garrantzia edo hobetzeko premia kontuan hartuta.

Azken urteetan berriazko espedienteak aukeratu ditugu ordea.

Argiago eta hobeto jarraitu ahal izateko, aurten berriro ere sei bloke bereizi ditugu, eta bakoitzak berriazko espedientea du:

- 1) Ezgaitasunen bati loturiko hezkuntza-premia bereziei erantzutea.
- 2) Etorkinen populazio jakin batzuen berriazko premiei erantzutea.
- 3) Ijitoen populazio jakin batzuen berriazko premiei erantzutea.
- 4) Gizartean gutxiagotutako populazio jakin batzuen berriazko premiei erantzutea.
- 5) Traba arkitektonikoak kentzea.
- 6) Eguneko zentroak edo terapia- eta hezkuntza-unitateak.

Espediente berri horiek 2009-2010 ikasturtea hasi ondoren jarri ziren abian, datu berriak eskura izan eta aztertze behar adina denbora zegoenean. Prestakuntza eskariak Hezkuntza Sailari zuzendu zitzaizkion (eta terapia- eta hezkuntza-unitateen kasuan, baita Osasun Sailari ere) 2009ko urriaren amaiera aldera.

- 1) **Ezintasunen batekin lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei** dagokienez, sail horri datu eguneratuak eskatzen dizkiogu, 2009-2010 ikasturteari dagozkion (eskolatze-data lurraldeka, sareak, etapak...) egoki deritzon termino edo banakatze mailan, beti ere aurreko urteetako datuekin alderatzeko aukera eduki ahal izateko.

Era berean, erreferentzia-txostenaren 10. gomendioarekin lotuta (ezgaitasuna duten irakasleak lanean hasteari buruzkoa) eta gure aurreko Ezgaitasuna duten pertsonen lan-integrazioa EAEn txostenaren gomendioekin (lanpostuen erreserben kupoa %10era iritsi arte igotzea, kontratazio mota guztietara bere aplikazioa zabaltzea, beren banaketa talde eta lan-kategoria ezberdinetan lortzea, lan-publikoak eskuratzea ahalbidetzen duten neurri positiboak finkatzea), ondorengoari buruzko informazio gaurkotua eskatzen dizugu:

- Zein neurri hartu diren goian aipaturiko lau proposamenak benetan aplika daitezten.
- Ea baden sail horrek kontraturiko langile ezinduei buruzko daturik, eta, hala bazen, zein datu ziren horiek.

Hezkuntza Sailaren erantzuna 2010eko urtarrilaren 26an jaso da. Ikasleei buruzko datuak ditu, ondoren laburtu ditugunak, baina ez die ezinduei buruzko galderei erantzun.

Horrela, ezgaitasunari, supergaitasunari eta hezkuntza laguntzari lotutako hezkuntza premia bereziei dagokienez, honako taula hau eskaintzen da (2009/2010 ikasturteari dagokio):

HONAKOAK DITUZTEN IKASLEAK	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	E.A.E.	%
Ikusteko urritasuna	60	69	150	279	2,42
Entzuteko urritasuna	80	111	175	366	3,18
Adimen urritasuna	676	824	1.137	2.637	22,88
Mugitzeko urritasuna	95	195	281	571	4,95
Autismoa / GNO / TEA	78	218	527	823	7,14
Hainbat urritasun	63	70	116	249	2,16
Emozio arazo larriak	248	918	840	2.006	17,40
Aparteko talentu intelektuala	19	28	56	103	0,89
HPB ez iraunkorrak	814	1.466	2.213	4.493	38,98
Ikasleak, guztira	2.133	3.899	5.495	11.527	100
Lurraldeko %-a	18,50	33,82	47,67	100	

Beraz, oro har, 719 ikasleko igoera gertatu da, aurreko ikasturtearen aldean. Horiek honela banatuta daude, lurraldearen eta sareen arabera:

	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		GUZTIRA
	Pub.	Prib.	Pub.	Prib.	Pub.	Prib.	
Haur eta Lehen Hezkuntzak	923	426	2.160	1.210	1.454	1.007	7.180
DBH	324	250	899	577	584	517	3.151
Derrigorrezko irakaskuntzaren ondokoa	29	12	23	19	144	51	278
Ikasgela egonkorak	130	39	245	362	0	142	918
GUZTIRA	1.406	727	3.327	2.168	2.182	1.717	11.527
GUZTIRA	2.133		5.495		3.899		11.527

Datu horiek ez dute aldaketa handirik adierazten, aurreko urteari dagokionez; ikasle horiek sareen arabera duten banaketaren arloan, berriz azken ikasturte honetan %60 sare publikoan egon dira eta %40 sare pribatuan.

- 2) **Ikasle etorkinen berariazko premiak** direla eta, aurreko urteetako datuak kon-tuan hartuta (esaterako, 17.827 eskolatu 2007an), bilakaera garrantzitsua izan denez

eta, txostenaren ondoren, dagoeneko hezkuntza arloko neurriak eta konpromisoak biltzen dituzten bi inmigrazio-plan garatu direnez gero, neurri horien gaineko informazioa eskatu dugu, alor honetan egiten ari diren esku-hartze guztien ikuspegi zehatza izate aldera. Zehazki, honako informazioa eskatu dugu:

- a) Ikasleen banaketaren datu gaurkotuak lurralde historikoen, sareen eta abarren arabera.
- b) Gure hizkuntzetako baten ezagutzaren eta jatorriaren inguruko datu gaurkotuak.
- c) Datu gaurkotuak ikasle horien eskolako emaitzen inguruan: Lehen Hezkuntza gainditu dutenen tasak; errepikatze tasak; eskola graduatua lortu dutenen tasak; 16 urte bete baino lehen edo DBH amaitu baino lehen ikasketak uzten dituztenen tasa.
- d) Hizkuntz errefortzurako programen inguruko datuak.
- e) Kultura artekotasunaren koordinatzaile lanpostua izaten hasi diren zentroak (zentro kopurua, zentro mota, banaketa irizpena...).
- f) 2008-2009 ikasturtean hiru lurralde historikoetako eskolaratze batzordeei aurkeztutako eskaera kopurua eta eskolaratzeko proposamenak, hau da, eskolatuak izan diren zentroak.

Bestalde, kulturen arteko dimentsioa, bereziki, Inmigrazioaren II Euskal Planean jasotzen den konpromisoa da Horrez gain, ezohizko txostenaren gure gomendioetako bat honako hau zen: "Hezkuntza behar berezien aniztasunaren eta arretaren erantzun gisa, profesionalen berariazko hautapena eta prestakuntza". Horren ildotik, honako informazioa eskatzen dugu:

- a) Irakaslegoak garatu dituen prestakuntza ekintza eta parte hartu dituen ekintza motak eta kopurua.
- b) Aniztasuna ikasketen zati izan dadin egindako ekintzak: beste kulturak ezagutzea, ama hizkuntzak irakastea, erlijioak ezagutzea...

Txosten honetako testua itxi aurretik ez da datu-eskari honen erantzunik jaso. Dena dela, haurtzaro zaugarriari buruzko hurrengo txosten berezirako izango ditugulakoan gaude.

3) Ijitoen biztanleriaren hezkuntza-premia bereziei emandako erantzuna

Hau izan da hirugarren espedientearen gaia (37/2009/090) eta gure informazio-eskaera erantzun da, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariaren 2010eko urtarrilaren 28ko eskutitz bidez, posta elektronikoz jaso otsailaren 10ean.

Gure informazio-eskabidea, kasu honetan, honako alderdi hauetan oinarritzen zen:

- a) Ikasle ijitoen banaketari buruz eskura dauden datuak, lurraldeka eta sareka.
- b) Datu gaurkotuak ikasle horien eskolako emaitzen inguruan: Lehen Hezkuntza gainditu dutenen tasak, errepikatze tasak, eskola-graduatu lortu dutenen tasak,

16 urte bete baino lehen edo DBH amaitu baino lehen ikasketak uzten dituztenen tasa.

- c) Biztanle talde honen berariazko premiei emandako erantzuna hobetzeko programa edo laguntzak bideratzea eta eskola-emaizten hobekuntzan izaten ari den eragina.
- d) Ikasle ijitoen eskolatzea hobetzeko programaren egoera.
- e) Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako Euskal II. Planean xedatutako jarduerak martxan jartzeko aurreikuspenak: ea hori gauzatzeko urratsik egin den, zein baliabide jarriko diren horretarako eta plana betetzeko zein epe aurreikusi diren.

Hezkuntza Saileko erantzunak eskatutako datuei buruz behar adina informazio ematen du; 1. eta 2. puntuak dira salbuespen bakarrak, ikasle ijitoen berariazko datuak lortzeko eta zabaltzeko arazoak edo legezko zailtasunak adierazi baititu.

Bereziki ugaria da ikasle ijito gehieneko zentroetako babesari edo programei buruzko informazioa (Lagun egiteko PROA; Errefortzuko PROA; erakunde laguntzaileei laguntzak...).

Urteko txosten honen testua ixteko epeak gainean genituenez eta haurtzaroari buruzko txosten berezi bat laster egingo dugunez eta han gai honetaz arituko garenez, nahiago izan dugu jasotako erantzuna hemen aipatu arren azterketa eta aprobetxamendua gerorako uztea.

4) **Gizarte bazterkeria duten biztanleen premia bereziei emandako erantzuna**

Jarraipeneko laugarren atal honi dagokionez, bereziki konplikatu da eta 2009ko azaroaren 2an Arartekoak ofiziozko espediente berri bat zuzendu zion Hezkuntza Sailari (38/2009/090 Esp.), lau gomendiotan oinarrituta:

1. Bazterturiko ikasleak txikitatik hezteari lehentasuna ematea (hezkuntza behar bereziei buruzko txosteneko 1. gomendioa).
2. Baliabideak esleitzeari dagokionez, diskriminazio positiboa egitea bereziki bazterturik dauden ikasleei neurri handiagoan laguntzen dieten ikastetxeen alde (Txosten horretako 2. gomendioa).
3. Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen banaketa orekatua bermatzeko eta eskola-ghettoak saihesteko neurriak hartzea (3. gomendioa).
4. LHIKen arauketa eta arauturiko nahiz arautu gabeko irakaskuntzaren arteko artikulazioa (5. gomendioa).

Bakoitzari buruzko informazio zehatza eskatu zen.

Hezkuntza Sailaren erantzuna posta elektronikoz jaso da oraingoz. 2010eko otsailaren 10ean jaso genuen, Txosten honen edizioa ixten ari zela.

Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariaren idatzi luze bat da, 2010eko urtarrilaren 29koa, eta bigarren gomendioa ardatz duena: "Baliabideak esleitzeari dagokionez,

diskriminazio positiboa egitea bereziki bazterturik dauden ikasleei neurri handiagoan laguntzen dieten ikastetxeen alde". Zentzu honetan datu ugari eskaintzen du horretarako erabilitako bide edo proiektu bakoitzari buruz:

- a) Hezkuntzako berariazko parte hartzeen proiektuak (azken bi deialdietan ezarritako baremoarekin, zentro edo proiektu bakoitzaren ebaluazioarekin, baliabideak esleituta...)
- b) Parte hartzeko proiektu globalak (ikasteko erkidegoak).
- c) Eskolan lagun egiteko programa (PROA) ezartzeko proiektua.
- d) Curriculum aniztasun proiektua.
- e) Eskolatzeko programa osagarriak.

Proiektu edo programa hauetako bakoitzaren informazio esanguratsua eman da:

- Bakoitzarekin zer nahi den edo zer behar erantzun nahi diren.
- Deialdietan erabilitako baremoak zein izan diren.
- Proiektuak ebaluatzeko zer sistema erabiltzen diren.
- Baliabideak nola izendatu diren.
- Zenbat proiektu babestu diren eta nola banatu diren lurraldeetan edo sareetan...

Aurreko atalean bezala, txosten hau ixtera gindoazenez eta haurtzaroari buruzko berariazko bat laster izango denez, jasotako txostena aipatu besterik ez dugu egin hemen eta zehatzago aztertuko dugu aipaturiko txosten berezian.

5) Arkitektura oztopoak ezabatzea

Arartekoak gai honetan egindako jarduera gehienak eskura duen informazioa aldira eguneratzeko izan dira, bereziki gure erkidegoko zentro guztietako irisgarritasunaren egiazko "egoera mapa" egiteari dagokionean (hau da, gure 18. gomendioa ezartzeari dagokionean, Sailak beregain hartu baitzuen formalki beteko zuela) eta zentro guztietan erabateko irisgarritasuna lortzeko aurreikuspenei dagokienean.

Gai honi buruz berariazko bi gomendio egin ziren "*EAEko hezkuntza-premia bereziei emandako erantzuna*" txosten berezian.

- 18. gomendioa: "*Ikastetxeetan arkitektura-oztopoak ezabatzea*"
- 19. gomendioa: "*Teknologia berriak ustiatzea*"

2001ean argitaratu zen eta harrez gero urtero azpimarratu dugu horren beharra eta zenbat betetzen den jakiten saiatu gara: oztopoak kentzeko zenbatekoen eta proiektuen eboluzioaren berri izan, zentroen "egoera mapa" ezagutu, zentro guztietan erabateko irisgarritasuna lortzeko sailak zer epe planteatzen zuen jakin...

Besteak beste gai hauek aztertzeko egin zen 2006ko otsailaren 1ean bilera monografiko bat eta saileko arduradunek mapa urte hartan amaitzeko nahia adierazi

zuten. Horregatik, ondoren informazioa eskatu dugun bakoitzean, honakoak eskatu ditugu:

- 1) Azkeneko aurrekontu ekitaldietan, aurrekontuetan zein kopuru izendatu eta erabili ziren arkitektura-oztopoak kentzeko, eta, egindako obren ondorioz, zenbat ikastetxetan kendu ziren oztopoak.
- 2) Ea egiaz "egoera maparik" bazegoen, gure erkidegoko ikastetxe guztietako irisgarritasuna benetan islatzen zuenik. Hala bazen, zeintzuk ziren maparen oinarritzko datuak: oztopoak zituzten edo ez zituzten ikastetxeen kopurua eta proportzioak, etapaka, lurraldeka, eta abar.
- 3) Sail horrek zein aurreikuspen egin zituen ikastetxe guztietan erabateko irisgarritasuna lortzeko.

Zentzu honetan, sailak orain arte emandako erantzunetan bi zerrenda egoten ziren: batean zentroak eta horiei aurrekontuen ekitaldi bakoitzean izendatutako partidak eta bestean "ondorengo urteetarako" aurreikusitako zentroak eta partidak.

Aurrekari horiek kontuan izanda, 2009an jarraipena egiteko espediente berriak zuzendu dizkiogu sailari, eta informazio zehatza eskatu diogu honakoak jakiteko:

- Ea orain egiaz badagoen "egoeraren mapa"; gure erkidegoko ikastetxe guztietako irisgarritasuna islatzen duena, eta, horrela bada, zeintzuk diren mapa horren oinarritzko datuak.
- Sail horrek orain zer aurreikuspen egin dituen ikastetxe guztietan erabateko irisgarritasuna lortu ahal izateko.
- Abian dauden plan edo proiektuei buruzko beste edozein informazio, lehen aipatu ditugun gomendioak zenbateraino bete diren hobeto baloratu ahal izateko.

Jarduera hauen ondorioz, azken urtean Hezkuntza Sailaren bi erantzun jaso dira:

- Lehenengoa 2009ko maiatzaren 7an jaso zen, eta orduan Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuorde zenak igorri zuen.
- Bigarrena 2010eko urtarrilaren 12an jaso da, Saileko baliabide materialen egungo zuzendaritzak eginda.

Bi txostenak oso zehatzak dira eta zentro bakoitzean egindako edo egitea aurreikusitako obren datuak ditu, besteak beste, baina edukia aipatu besterik ezin dezakegu egin hemen.

Lehenengo erantzuna "Ikastetxe publikoen azpiegiturak hobetzeko ezohiko plana 2008-2012" delakoan oinarritzen da. Plan hori 2008an onartu zen Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru aldundiek sinatu zuten erakunde arteko akordioan "Ekonomia bizkortzeko eta enplegurako inbertsio publikoa suspertzea helburu duenean". Plan honek Zentroetan 350 inbertsio-lan egitea aurreikusten zuen (mota guztietako lanak, ez soilik oztopoak kentzekoak) eta 700 milioi euroko zenbatekoa zuen. Jasotako dokumentua Planaren bigarren bertsioa da, 2009ko lehenengo hiruhilekoan eguneratua.

Aurreikuspen ekonomikoei eta beharretara egokitzeko zentro bakoitzean egin beharreko lanek dagokienez, hasieran planifikatutako aldiko (2008-2012) datuak ez ezik 2015ra bitartekoak jaso ditu, beharrezko lan guztiak aurreikusitako epean egitea ezinezkoa dela uste baita.

Ongi dakigun bezala, egun horietan (2009ko maiatza) aldaketa egon zen gobernuan. Beraz, Arartekoak 2009ko azaroaren 2an Hezkuntza Sailari zuzendutako ofiziozko espediente berriaren helburua saileko arduradun berrien datuak eta aurreikuspenak biltzea zen.

Baliabide materialen zuzendaritzak egindako dossier zabala atxikitako 6 agiritan zehazten da funtsean:

- I. Eranskina, material berezia hornitzeari buruzkoa mugikortasun mugatuko ikasleek edo beste erasan batzuk dituztenek erabiltzeko, eskoletan beraien jarduerak egiteko berariazko materiala behar dutelako (gurpildun aulkiak, aulki horiei egokitutako mahaia eta erretiluak, ohatilak, ariketa fisikoetarako materiala, material didaktiko berezia, eskorgak, komunerako aulki eraigarriak, arbel interaktiboak, etab.). 2008 (409.478,59 €) eta 2009 (369.106,4 €) urteei dagokiena.
- II. eranskina:
 - dauden zentroak irisgarritasunaren araudira egokitzeko lan handiagoak; erai-kinetara sartzeko arrapalak, ate handiagoak jarri, igogailuak, komunak aldatu mugikortasun mugatuko erabiltzaileentzat, etab. (2008 eta 2009 urteak);
 - ikastetxe berriak eta dauden eraikinak hazi, irisgarritasun araudia proiektuetan dutela (2008 eta 2009 urteak).
- III. Eranskina, ikastetxe kontzertatuetan arkitektura oztopoak kentzeko obretarako diru laguntzena. (2008an emandako laguntzak. 2009ko eskariak – ebazteko prozesuan).
- IV., V. eta VI. Eranskinak: 2002-2009 urteetako Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Irisgarritasun mapa, zentro eta urte bakoitzeko lanen aurreikuspenekin.

Jasotako erantzunaren zehaztasuna eta bizkortasuna eskertu beharra daukagu. Beraz, Lurralde Historiko bakoitzeko irisgarritasun mapak eskura ditugulako orain, hainbeste aldiz eskatu ondoren. Tresna hau denborarekin aztertuko dugu eta seguru asko ondorengo jarraipenetan erabili ahal izango dugu.

6) Eguneko zentroak edo terapia- eta hezkuntza-unitateak

Gai hau hurrengo atalean aztertu da (6. atala), burutik gaixo dauden haurrei buruzkoan.

6) Burutik gaixo dauden haurrak edo nerabeak

Haurren eta nerabeen buruko osasuna eta hezkuntzazko arreta terapeutikoa txosten berezietan tratatu ditu erakunde honek: *Buruko gaitzaren trataera ospitaletik kanpo* eta *EAEko hezkuntza-premia bereziei emandako erantzuna*. Baita horietan egindako gomen-dio orokorren jarraipen-markoan eta elkarteek eta zerbitzuek adierazitako kexetan edo kezketan ere.

Arartekoaren ondorengo txostenetan buruko gaixotasun larriekiko haur eta nerabeen arreta beharrak egoki artatzen dituzten berariazko zerbitzuen gabezia adierazi da.

2009ko azaroan ofizios eskatu zitzaizkien datuak Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailari (aurrerantzean Osasun Saila) eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari (aurrerantzean Hezkuntza Saila) eta datu eta balorazi hauek eskatu zitzaizkien:

1. Bizkaiko Ortuellako hezkuntza-arretarako eta arreta terapeutikorako zentroari dagokionez:
 - Plazen kopurua edo arreta jaso duten adingabeen kopurua gehitu ote den.
 - Zentroan sartzeko betekizunei dagokienez, araudirik ba ote dagoen.
 - Gaur egun zentrorra sartzeko itxaron zerrendarik ba ote dagoen, eta, hala bada, zenbat adingaberi eragiten dien eta horiek zein adin eta patologia dituzten.
 - Plazak gehitzeko aurreikusitako profesionalen plazak bete ote diren eta zein datatan bete diren.
2. Araba eta Gipuzkoako terapia- eta hezkuntza-zentroeiei dagokienez, 2008-2009 eta 2009-2010 ikasturteetarako datuak: kokapena, plazen kopurua, artatutako profilak, langileak...
3. Basurto, Donostia eta Santiago ospitaleetako ospitaleratze-unitateei buruz: azken urte honetan zein aldaketa edo hobekuntza egin diren oheen kopuruari, profesionaleri eta abarri dagokienez eta 2008. urtean eskainitako arretari buruzko datuak (barneratzeak, altak, larrialdiak, batez besteko egonaldia...).
4. Espezializatutako unitate ambulatorioei eta erkidegokoei buruz: azken urte honetan zein aldaketa edo hobekuntza egin diren zentroen kopuruari, profesionaleri eta abarri dagokienez eta 2008. urtean eskainitako arretari buruzko datuak (pazienteen kopurua, lehen kontsultak, elkarren segidako kontsultak...).
5. Osasun sailak zer balorazio egin duen honako gai hauetaz: zer mailatako arreta eskaintzen ari zaion euskal osasun-sistema haur eta gazteen buruko osasunari, orain dauden baliabideak zenbateraino egokitzen zaizkien sektoreko beharrei, edo, bere ustez, zeintzuk diren hobekuntza-premiarik handiena duten egoerak edo arazoak.

6. Hezkuntza Sailak planteatutako neurriak, toxikoak kontsumitzen dituzten ikasleen hezkuntza beharrei erantzuteko.

Ondorengo orrietan dago gure ustezko informaziorik esanguratsuena, puntuz puntu.

1. Hezkuntzako zentro terapeutikoa (HTZ), Ortuella (Bizkaia)

2008an lankidetzeta-hitzarmena sinatu zuten Hezkuntza eta Osasun Sailek (Osakidetzak) buruko gaixotasunekin lotutako hezkuntza-behar berezietako haur eta nerabeak artatzeko. Hitzarmen horren xedea hiru lurralde historikoetan hezkuntzako zentro terapeutikoak irekitzea zen (Etxez-etxeko eta ospitaleko arretaren eta terapia- eta hezkuntza-arretako lurralde zentroyen mende).

Proiektuak nahi du buruko gaixotasun larriekiko adingabeek terapia- eta hezkuntza-arreta jasotzea, derrigorrezko hezkuntza jasotzeko adina baldin badute eta denbora jakin batean berariazko parte hartzea behar badute (ez da Egonaldi Luzeko Unitate bezala hartzen). Sarzko baldintza hauek bete behar dira:

- 6-16 urte artekoa izatea.
- EAEko ikastetxe batean matrikulatuta egotea.
- Buruko patologia larria, haurren eta gazteen psikiatria unitatean artatua.
- Hezkuntzan, familian eta gizartean egokitzeko zailtasun handiak.
- Buruko atzerapenik diagnostikatuta ez izatea.
- Gurasoen edo legezko ordezkarien berariazko baimena.
- Balorazio batzordearen akordioa.

Bi Saitetako datuen arabera, Ortuellako HTZn 2008-2009 ikasturtean 16 ikasle artatu ziren bi taldetan banatuta; bata, Lehen Hezkuntzako eta bestea, Bigarreneko. 2009-2010 ikasturtean 20 ikasle daude (bi taldetan banatuta).

Hezkuntza Sailak adierazi du baloratzeko 4 eskari daudela eta zifra hori 6koa da, Osasun Saileko datuetan.

Osasun Sailak uste du kasuen erdietan edo gehiagotan familiako desegituraketak edota patologiak egoten direla, parte hartze globalagoak eta denbora gehiagokoak behar dituztenak. Hitzarmenean ezarritako iraupena (urtebete) ez da nahikoa kasu hauetarako, baina epeak luzatzea baliabidearen zain daudenen txanda gehiegi luzatzea litzateke.

2. Araba eta Gipuzkoako hezkuntza- eta terapia-zentroak (HTZ)

Hezkuntza Sailak jakinarazi du 2008-2009 ikasturtean bigarren hezkuntzako 10 ikasle artatu zirela Gasteizko HTZn eta beste 10, 2009-2010 ikasturtean. Lehen Hezkuntzako talde bat abian jartzekotan dira. Ez dago baloratzeko eskaerarik.

Osasun Sailak adierazi du Gasteizko HTZn 3 profesional daudela (psikiatra bat lanaldi erdian eta psikologo kliniko bat eta erizaintzan diplomatutako bat lanaldi osoan). Sailaren ustez artatutakoen eboluzioa positiboa izan da (hobekuntza nabarmena 10etik 9tan).

Lasarteko (Gipuzkoa) HTZri dagokionez, Hezkuntza Sailak adierazi du Lehen eta Bigarren Hezkuntzako 7 ikasle artatu zirela 2008-2009 ikasturtean eta 8 ikasle 2009-2010ean. Kasu honetan ere beste talde bat jartzea aztertzen ari dira eta 2 eskari aztertzen ere ari dira.

Osasun Sailaren mendeko langile hauek daude zerbitzu honetan: haur eta gazteen psikiatra bat lanaldi erdian, erizaintzan diplomatutako bat eta psikologo kliniko bat.

3. Ospitalizazio unitateak

Haur eta gazteen ospitalizazio laburreko unitateak Basurtu, Donostia eta Santiago ospitaleetako psikiatria zerbitzuen barruan daude. 2008an Santiago ospitalean 40 sartzeko egon ziren eta Donostian 101. Basurtuko ospitalean 2008an 82 alta egon ziren. Batez beste 12 egun egin dituzte Santiagoan, 19 Donostian eta 15,94 Basurtun.

Osasun Sailak adierazi du Santiago ospitaleko ospitalizazio unitatean hobekuntza hauek egon direla:

- 4 ohe izatetik 6 izatera pasa dira.
- Jangela terapeutikoa garatu da.
- Langileak trebatu dira elikadurako nahaste selektiboan.
- ENSen tratamendua indartu.
- Nerabeetan aditua den maistra bat sartu da (Hezkuntza Sailaren mende).
- Erizainak soilik psikiatriako langile izatera pasa dira.

4. Unitate anbulatorio eta erkidegoko unitate espezializatuak

Buruko osasun sarera lehen mailako arretatik sartzeko da pediatrian eta helduetan. Unitate anbulatorio eta erkidegoko unitate espezializatuak haur eta gazteen buruko osasun taldeak dituzte. Gainera, buruko osasun zentroetan bada berariazkoa ez den arreta ere, batez ere Gipuzkoan.

Sailaren arabera, Araban 10.243 parte hartze izan dira (8.955 kontsulta eta 1.288 bestelako parte hartze) 1.311 gaixotan; Gipuzkoan 21.478 kontsulta 2.376 gaixotan eta Bizkaian 48.425 kontsulta (2.239 lehenengo kontsultak) 6.153 gaixotan (2.528 berriak).

Sailaren informazioaren arabera, hobekuntza batzuk izan dira, hala nola, Amarako buruko osasun zentroa ireki da (Grosekoa zatituta), psikosiaren arreta goiztiarrerako programa bat jarri da eta langile gehiago kontratatu da Gipuzkoan. Bizkaian kudeaketak hasi dira inguruko bi baliabide Barakaldon kokatzeko, kasuen harreraren kudeaketan aldaketak egon dira

eta itxarote-zerrendak hobetu egin dira ondorioz, "Adin txikikoak" programa Bizkaiko Foru Aldundiko babeserako zerbitzuetatik bideratutako gaixoentzat eta langileak hartu eta de-dikazioa areagotu.

5. Eskaintako arretaren balorazioa

Osasun Sailaren iritziz haur eta gazteen buruko osasun sarean eskaintzen den arreta kalitatezkoa da. Datu bat aipatzen dute alderatzeko, 100.000 biztanleko osasungintzako profesional-tasa (psikiatrak eta psikologo klinikoak) Estatutako altuena da. Hautemandako beharrei erantzuteko beste administrazio eta departamentuekin koordinatzeko egindako ahalegina ere azpimarratu du (HTZen kasuan Hezkuntza Sailarekin eta Adin Txikikoak Programaren kasuan, Bizkaiko Foru Aldundiarekin). Era berean, lehenengo kontsultak artatzeko igarotzen den denboran eta anbulatorio eta ospitaleetako irisgarritasunean eta erosotasunean egondako hobekuntzetan egindako ahalegina ere azpimarratu behar da.

Hobekuntza hauez gain, Sailak datozen urteetan garatu beharreko arlo batzuk adierazi ditu haurren eta gazteen arretaren alorrean. Arlo horiek Euskadiko Buruko Osasunaren kontseilu aholkulariak egindako agiri estrategikoan bilduta daude eta agiri hori txosten hone-tako beste atal batean aztertu da (ikusi gaixotasun kronikoa dutenen arloa).

Profesionalek osasun sistemaren erantzuna ez dela nahikoa uste dutela eta, Sailak gogor-razi du osasun arloko baliabideak mundu guztiaren esku daudela eta horietara sartzeko eta berdin tratatzeko printzipioak arriskuan egon daitezkeen egoerak ebazteko konpromisoa duela. Aldiz, beste administrazio eta sailekin (foru aldundiak, Justizia, Hezkuntza...) izan beharreko koordinazioan zailtasun handiagoak daude eskumenen alorrak mugatzerakoan eta administrazioen baterako erantzukizunerako deia egin du, arazoei irtenbide egokiagoa emateko.

6. Toxikoak kontsumitzen dituzten adingabeen hezkuntza behar bereziak

Hezkuntza Sailari eskatu zaio toxikoak kontsumitzen dituzten ikasleen heziketa beharrei erantzuteko Osasun Sailarekin elkarlanean abian jarritako baliabideen edo neurrien berri emateko.

Sailak jakinarazi du hezkuntza mailan droga-mendekotasunen parte hartzea osasuna sus-tatzeko batzorde batetik antolatzen dela eta hor hartzen dutela parte Hezkuntza Sailak (Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaritza), Osasun Sailak (Osasun publikoaren zuzendaritzak) eta Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak (Droga-mendekotasun zuzendaritza).

Eskoletan droga-mendekotasunen parte hartzea honela egituratuta dago:

- Prebentzio unibertsaleko jarduerak. Gelan garatzen dira eta lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleentzat izaten dira.

- Arrisku handieneko egoeran dauden ikasleentzako prebentzioko jarduerak.
- Prebentzio selektiboko jarduerak bigarren hezkuntzako zentroetarako eta Lanbide Hastapenetarako Ikastegietarako, gehienetan arriskuak murrizteko jarduerak izaten dira.

Sailaren ustez ez da prebentziorako jarduera intentsiboagorik behar eskolan, gomendagarrienak arrisku faktoreak hautematera bideratutako parte hartzeak dira eta horiek taldean (gelan) edo banaka (tutoretzak edo zentroko orientatzailearekin/psikologoarekin saioak) aztertzea.

Gai hau Arartekoaren txosten berezi batean zehatz aztertu da. Txostena amaituta dago eta nerabeek drogak kontsumitzeari buruz erakundeek jarritako arretaz da.

Txosten monografiko hori eta hemen laburtutako jarraipena Arartekoaren erakundearen kezka bati erantzuteko dira, buruko gaixotasunak dituzten adingabeen errealitateaz eta drogen kontsumo arazotsuaz duen kezkarri erantzuteko. Gai hauen jarraipen berezia egin beharko da datozen urteetan.

Gainera, Hezkuntza eta Osasun Sailek gure espedientei erantzunez emandako datu asko Arartekoaren hurrengo txosten batean aztertuko dira, haurtzaroarentzako egoera bereziki zaurgarri buruzkoa izango da txostena.

* * *

Bestalde, adierazi nahi dugu Arartekoaren erakundeak Basurtuko ospitaleko haur eta gazteen psikiatria unitatean izan zirela abenduaren 11n eta 21ean eta bertako arduradun medikoak eskainitako lankidetzari aipatu nahi dugu. Ikustaldi hartatik azpimarratu beharra dago kasu bakoitzari buruzko datuak sistematizatzeko ahalegina, eguneroko egoerei buruzko informazioa biltzeko erabiltzen diren txantiloak eta euspen kasuetan erabilitako jardura protokoloa.

Ikustaldi horretan lortutako informazioa goian aipaturiko datorren txostenean erabiliko da.

7) Eskola jazarpena

Azken urteotan arartekoak, kasu askotan, esku hartu behar izan du eskola jazarpeneko egoeretan. Egiaz, aurreko bi urteetako txostenetan gai hau azpimarratu genuen, kezkarik handiena sorrarazten ziguten hiru gaien artekoa baitzen. Horren ondorioz, arartekoak ekimen ugariak eta anitzak garatu ditu, eta horiek guztiak atal honetan laburbilduko ditugu; hain zuzen ere, azken urtean egindakoak nabarmenduko dira. Baina, lehenengo eta behin, horiek testuinguruan txertatzea komeni da.

2006. urtean zehar bizikidetzari buruzko azterlan bat egin zen Bigarren Hezkuntzako zentroetan; 2006ko abenduan argitaratu zen *Bizikidetzari eta gatazkak ikastetxeetan* ezohizko

txostenaren funtsezko oinarria izan zen. Horrela, nolabait, bi urte lehenago herritarrek parte hartzeko II. foroarekin eta gure erkidegoko Bigarren Hezkuntzako 80 zentrotako ikerketarekin hasitako prozesua amaitu zen. Txosten horretan zehatz-mehatz aztertutako gatazketako bat –bakarra ez den arren– eskolako jazarpena edo berdinen arteko tratatu txarra zen.

Baina, azterlana bera alde batera utzita, azken urteetan, asko izan dira erakunde honetan jazarpen egoeren edo bestelako tratatu txar moten inguruan jaso ditugun deiak, kontsultak, bisitak eta kexak, formalak zein informalak. Gehienak beren seme-alabei eragiten dieten gertakariak estututako gurasoen aldetik heldu zaizkigu. Gertakari horien aurrean, beren ustez, ez zen ezer egiten ari, edo oker jarduten ari ziren, ez behar bezala. Beste batzuetan, arazoak konpontzen ez zirela ikusita, gurasoek beren seme-alaba ikastetxez aldatzea erabakitzen zuten eta, hala ere, hori lortzeko zailtasunak topatzen zituzten. Eta beste zenbaitetan, erasotzaile izan diren ikasleen gurasoen kexak jaso ditugu, erasotzeagatik haiei jarri zaien zigorra gehiegizkoa dela iritzita.

Askotan adierazi izan dugun bezala, problematika konplexua da, zalantzarik gabe, eta ez da batere erraza jarrera orekatuei eta, aldi berean, eraginkorrei eustea.

Kasu horietan guztietan, erantzun pertsonalizatua eta arazoarekiko proportzionala ematen saiatu gara beti, kasuak erakunde egokienetara bideratu nahian: oso kasu larriren batean, baita sistema judizialera ere; baina, gehien-gehienetan, hezkuntza-sistemara bertara eta baliabideetara (ikastetxea; ikuskaritza; laguntza-zerbitzuak; berariazko Bizikidetzeta programa, etab.), horrelako arazoei erantzun egokienak eman diezazkieketenak eta eman behar dizkietenak horiek direlakoan.

Baina kasu bakoitzean beharrezkoak diren esku-hartze zehatzetatik aparte, aipaturiko txostenean eginiko gomendioak aplikatzeak hautemandako arazo asko konpontzeko eta eraginkortasun handiagoz esku hartzeko balio duela eta, beraz, hurrengo urteetan gai horren jarraipen iraunkorra egin behar dela uste dugula.

Arartekoak arlo honetan egin dituen jarduketan artean, honako hauek nabarmendu ditzakegu:

- 1) **Herritarren partaidetzarako hainbat foro antolatu ditu, ikastetxeen bizikidetzari eta gatazkei buruz.** Horietako azkenarekin, liburuxka monografiko bat argitaratu du, eta gure erkidegoko ikastetxe eta hezkuntza zentro guztietara bidali du.
- 2) **Ikerketa** bati esker, sakonago aztertu ahal izan ditu tratatu txarren edo bizikidetzako arazoen azpian dauden eta arazo horiek baldintzatzen dituzten funtsezko alderdietako batzuk: **balioak**. Bi urtez lanean jardun ostean, 2009an, bai Lehen Hezkuntzako eta bai Bigarren Hezkuntzako eskola umeei balioak transmititzeari buruzko azterlan espezifikoa bat amaitu eta argitaratu zen, eta hori ere helarazi zaio hezkuntza sistema osoari. Gainera, lan horren inguruko eztabaida ere izan zen Legebiltzarrean. (Urteko txosten honetan bertan, azterlanaren laburpena eta ondorioak bildu ditugu).

- 3) Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako eskola umeentzako **material interaktibo** sorta bat argitaratu da, eta ikastetxeei bidali zaie. Material horretan, **ziberbullying** izendatu ohi diren eskolako jazarpen modu berri batzuk aztertzen dira; halaber, teknologia berrien erabilera desegokiak azaltzen dira, arriskua saihesteko eta halakoen aurrean nor bere burua defendatzeko ahalmena handitzeko. Batez ere, gure erkidegoko ikastetxeetan banaturiko *Ziberbullying* eta *Leihoak* izeneko CD eta gida didaktikoei buruz ari gara.
- 4) Herritarren partaidetzarako foro bat egin da, maiz beren sexu orientazioagatik jazarriak izan ohi diren nerabeen arazoei buruz berriaz hitz egiteko. 2008an antolatutako nerabe eta gazte lesbiana, gay, transexual eta bisexualei buruzko foro horretako ondorioak 2009. urtean argitaratu eta zabaldu dira.
- 5) Arlo honen inguruan **hitzaldiak eta bilerak** egin dira hezkuntza eragileekin, batzuetan Arartekoaren beraren ekimenez (esate baterako, azterlanean parte hartu zuten 80 ikastetxeetako zuzendaritza taldeei deituta), eta beste batzuetan beste batzuen ekimenari erantzunez (esate baterako, laguntza zerbitzuak, udalak, unibertsitateak edo elkargo profesionalak, eta are ikastetxeak ere). Ildo horretan, aipatzekoa da hainbat artikulu argitaratu direla gai honen inguruan aldizkari pedagogikoetan, eta Arartekoko Adingabeen Arloko arduradunak lan horiek aurkeztu dizkiela Hezkuntza Ikuskaritzako kide guztiei, 2009ko Trebakuntza Jardunaldietan.
- 6) Hezkuntza Sailari bidalitako hainbat espediente izapidetu dira, ofizioz, *Ikastetxeetako bizikidetzak eta gatazkak* izeneko txosteneko **gomendioak betetzen** diren edo ez ikusteko.

Ekimen horietako batzuen berri ematen da txosten honetako beste atal batzuetan. Bestalde, bai 2007ko txostenean eta bai 2008koan, atal honetan bertan, goian adierazitako ekimenetako zenbaiten laburpen luze samar bat egin genuen. Hala, bada, hemen, zer pauso eman ditugun eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari zer informazio eskatu diogun besterik ez dugu adieraziko.

Hezkuntza zentroetako bizikidetzak eta gatazkak txostenaren jarraipentzat, 2007an lehenengo jarduketa bat hasi genuen ofizioz, Hezkuntza Sailari zuzenduta; horrek 2008ko urtarrileko azken egunetan eman zuen erantzuna, eta, lehen esan dugunez, erantzun hori urte hartako ohiko txostenean jaso genuen.

Ondoren, 2008ko apirilaren 8an, Arartekoak beste idazki bat bidali zion Hezkuntza sailburuari, eta, haren bidez, besteak beste, berriaz eskatu zizkion azken ikasturteetan aplikatutako jazarpen egoerarako protokoloaren datuak (are, ahal izanez gero, 2007-2008 ikasturtekoak ere).

Azkenik, beste hainbatetan eskatu ostean eta beste espediente bat egin ostean, 2009ko otsailaren 9an jaso genuen erantzuna, aurreko urteko txostena ia amaituta zegoenean. Dena dela, txosten hartan daturik oinarritzkoenak jaso genituen, hurrengo txostenetan ostera heldu eta xehekiago aztertzeke asmoz.

Sailaren erantzunean 2006-2007 eta 2007-2008 ikasturteetako datuak ageri ziren, baina soilik kasu hauenak: "*casos denunciados que, a juicio del inspector o inspectora, previa*

valoración compartida con el director o directora del centro, se pueden considerar como maltrato entre iguales, entendiéndose por tales los que cumplen las características principales que se citan en la "Guía de actuación en los centros educativos ante el maltrato entre iguales," que son el desequilibrio de poder, la intencionalidad, la repetición en el tiempo y la situación de indefensión en la que se encuentra la víctima".

Protokoloaren aplikazioaren inguruan jaso genituen datuak arlo hauen arabera zeuden banatuta: lurraldea, sarea, sexua, hezkuntza maila... Beraz, nolabaiteko analisia egiteko modua ematen zuten, bai eta zenbait joera hautematekoa ere: kasurik gehienak zein maila edo etapatan gertatzen diren, zenbaterainokoak diren "zuzeneko eraso fisikoak," zein neurri ari diren aplikatzen... Joera eta elementu horiek nabarmendu genituen jadanik iazko ohiko txostenean, atal honetan bertan.

Dena dela, iruditzen zitzaigun datuak ez zirela aski balioespen egoki bat egiteko. Batez ere, arrazoi hauengatik:

- Lehen ere adierazi dugun bezala, zenbakietan soilik "salatutako kasuak eta ikuskatzailearen iritziz berdinen arteko tratu txar gisa har daitezkeenak" jaso zirelako, gidan ezarritako irizpideekin bat.

Hala, ikasturte bakoitzeko datu orokorrak 72 (2006-2007 ikasturtea) eta 62 (2007-2008 ikasturtea) kasu ziren. Baina datu horiek balioesteko beste datu orokorrago batzuk, behintzat, falta zitzaizkigun; hala nola zenbat salaketa edo espediente izan ziren, zenbat kasutan aplikatu zen protokoloa, eta kasuak aztertu ostean horietako zenbatean erabaki zen ez zegoela jazarpen egoerarik, eta, hala erabaki bazen, zer arrazoi hartu ziren kontuan edo zer beste neurri hartu ziren.

- Izan ere, oso litekeena da datuetan bertan ikusten diren aldeak (ikasturte baten eta bestearen artean, lurraldeen artean, sareen artean...) ez izatea soilik benetan gertatu diren jazarpen egoeren ondorio, baizik eta beste faktore batzuen ondorio izatea, hala nola aldeak daudelako protokoloa aplikatzeko irizpideetan eta are ikuskaritzan salaketa jartzeko edo ez jartzeko ohituran.
- Izan ere, emandako datuak ezin ziren konparatu edo osatu jazarpen egoeretan esku hartzen duten beste iturri edo instantzia batzuekin, hala nola adingabeen fiskaltzekin edota Arartekoarekin berarekin. Esate baterako, ez zegoen modurik jakiteko fiskaltzetan jarritako salaketatik edo Arartekoan aurkeztutako kexetatik zein zeuden jasota eta zein ez Sailak emandako datuetan, ez eta balioespenetan bat etortzerik edo desberdintasunik bazegoen ere.

Horregatik, 2009. urtean, beste jarraipen espediente bat bidali diogu Hezkuntza Sailari, eta berriro ere datuak eskatu dizkiogu, behintzat goian adierazitako mugetakoren bat gainditzeko.

Informazio eskaera horretan, hiru atal zehaztu ditugu:

- 1) Aurrez jasotako datuei dagokienez –2006-2007 eta 2007-2008 ikasturteei dagozkienak–, informazio osagarria eskatu dugu (hala nola jazarpenik hauteman ez den zenbat espediente ireki diren), eta ikusitako eboluzioaren edo datuen baliozkotasunaren inguruan Sailak berak egindako balioespenak.
- 2) Jadantik amaitu den 2008-2009 ikasturteko datuei dagokienez, horiek egoki balioesteko informazioa: datuak lurralde, sare eta etapen arabera banatzea; zenbat espediente ireki diren; jazarpena izan dela ebatzi den zenbat espediente ireki diren; nagusiki zer neurri edota zehapen ezarri diren halako kasuetan; Sailak berak nola balioesten duen ikusitako eboluzioa; auzibidean zenbat salaketa jarri diren...
- 3) Nolanahi ere, protokoloaren aplikazioari buruzko datuak ikastetxeetako bizikidetza eta gatazkei buruzko adierazle kuantitatibo posible bat baizik ez dira. Beraz, adierazi genuen, datuak alde batera utzita, 2006ko gure ezohiko txostenean egindako 28 gomendioen inguruko informazioa aztertuko genuela, bete ote ziren ikusteko (ikus *Ikastetxeetako bizikidetza eta gatazkek* txostena, 6. kapitulua. Arartekoaren gomendioak, 201-213. orriak).

Sailaren erantzuna azkar jaso genuen, 2009ko azaroaren 26an. Ikuskaritza Nagusiak egindako txosten bat zen, eta, batez ere, 1) eta 2) paragrafoetan eskatutako datuak agertzen ziren, eta horien baliozkotasunari edo fidagarritasunari buruzko zenbait ohar egiten ziren; 3. paragrafoari dagokionez, Ikuskaritzak zuzenean esku hartu duen gomendioak baizik ez ziren agertzen (hala nola ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzko dekretuaren inguruko gomendioak).

Informazio hori guztia hobeto aztertu eta aprobetxatuko dugu Arartekoak laster egingo duen ezohiko txosten batean. Hemen, laburpen gisa, datu orokor hauek baizik ez ditugu emango:

- 2006-2007 ikasturtea: 72 kasutan jo zen berdinen arteko tratu txarrak izan zirela (10 Araban, 29 Bizkaian, 33 Gipuzkoan), guztira irekitako 106 salaketa edo espedienteen artean.
- 2007-2008 ikasturtea: 62 kasutan jo zen tratu txarrak izan zirela (20 Araban, 29 Bizkaian eta 13 Gipuzkoan), guztira irekitako 114 salaketa edo espedienteen artean.
- 2008-2009 ikasturtea: 40 kasutan jo zen tratu txarrak izan zirela (8 Araban, 19 Bizkaian eta 13 Gipuzkoan), guztira irekitako 77 salaketa edo espedienteen artean.

Datu orokorrek, lehen begiratu batean ikus daitezkeen bezala, eboluzio positiboa agertzen dute. Baina, jadantik esan dugun bezala, Arartekoak hurrengo ezohiko txosten batean aztertuko ditu.

Atal hau bukatzeko, gogorarazi nahi genuke azken urtean kexa gehiago jaso ditugula Arartekoan berdinen arteko tratu txar izan daitezkeen egoeren inguruan, eta horietako batzuk

hain zirela larriak non beharrezkoa izan baita biktimei polizia babesa ematea. Horrez gain, ikusi dugu gero eta maizago erabiltzen direla teknologia berriak jazartzeko bide gisa (ziber-bullyinga).

8) Famili biltokiak

2007ari buruzko ohiko txostenean, arreta berezia jarri zitzaion famili biltokien egoerari, aurreko urteetan kudeaketari buruz planteaturiko kexei eta arazoei erantzun sistematikoagoa emateko; kexa horiek, berriz, zerbitzuarekin edo funtzionamendu-irizpide batzuekin pozik ez zeuden elkarteek eta norbanakoek aurkeztu zituzten.

Beraz, administrazio eskudunengana jo genuen (Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Portugaleteko Udala eta Gasteizeko Udala), baita Gipuzkoako lurraldean Iruneko nahiz Donostiako biltokiak kudeatzen zituzten elkarteengana ere.

Txosten horretan adierazitakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak dekretu zirriborroa egin zuen, zerbitzu horiek arautzeko eta, besteak beste, horien baldintza funtzionalak nahiz materialak ezartzeko. Zerbitzu batzuek zalantza planteatu duten arren (Eusko Jaurlaritzak zuzeneko kudeaketako biltokiak sortzeari buruzko zalantza), txostenean berretsi egiten da oraingo egoera (sistemaren zehaztugabetasunaren eraginezkoa) gainditzen duen arauketa ezarri beharra.

Hurrengo urtean, 2008an, Euskal Autonomia Erkidegoan deribazio judizialaren bidezko familia elkarguneak arautzen dituen uztailaren 1eko 124/2008 Dekretua argitaratu zen. Dekretu horretan, deribazio judizialaren bidezko biltokiak bete behar dituzten baldintza funtzionalak, materialak eta pertsonalari dagozkionak arautzen dira. Dekretu horrekin bat, deribazio judizialaren bidezko biltokiak sortzeko eta kudeatzeko eskumena orduko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari zegokion. Lehendik zeudenek Administrazioaren baimena lortu behar zuten dekretua indarrean sartu eta bi urte igaro baino lehen, eta horretarako dekretuan agertzen ziren baldintza guztiak bete behar zituzten.

Araudi hori ikusita, iaz Arartekoak berriro jo zuen famili biltokien administrazio titularretara, batez ere honako kontu hauen berri izateko:

- Zer neurri hartu edo aurreikusi zituzten lehendik zeuden famili biltokiak 124/2008 Dekretura egokitzeko, administrazio baimena lortzeko asmoz.
- Zentroaren ahalmenari, kudeatzeko sistemari, profesionali, artatutako kasu kopuruari, segurtasun baimenari eta abarrei buruzko informazio eguneratua (2007. urteko datuekin konparatu ahal izateko).

Era berean, antzeko informazio eskabide bat bidali zitzaion Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari, jakiteko zer neurri hartu zituen lehendik zeuden biltokiak egokitzeko eta zer famili biltoki gehiago sortzeko asmoa zuen.

lazko ohiko txostenean (ikus 2008ko txosteneko atal hau bera), Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Gasteizko Udalak eta Portugaleteko Udalak emandako informazioa laburtu genuen. Hala, ikuspegi zabal samar bat eman genuen biltokien egoeraren eta etorkizuneko asmoen inguruan.

Azken urte honetan, 2009an, ez diogu beharrezko iritzi jarraipena egiteari. Dekretua aplikatzeko epea eta sail eskudunean izandako aldaketak kontuan hartuta, hobeto iruditu zaigu gerorako uztea. Nolanahi ere, jadanik izan dira aldaketa esanguratsu batzuk duela gutxira arte Kidezak kudeatu dituen Gipuzkoako biltokien egoeran inguruan.

9) Beste ahultasun egoera batzuk

Aurreko azpiataletan laburbildu ditugu adingabe taldeen edo, orain arte, berariazko arretaren xede eta, ia kasu guztietan, hainbat ezohizko txostenetako azterketaren eta gomendioen xede izan diren egoeren inguruan eginiko jarraipen jarduera nagusiak.

Sektore hauez gain, azken urteetan, eta oso ekimen desberdinen bidez, Arartekoak arreta berezia eskaini die beste egoera batzuei edo bereziki ahulak diren taldeei. Azken urte honi dagokionez, hiru nabarmenduko ditugu:

- **Telebista saioei, Interneti eta jolas interaktiboetara, adingabeen eskubideei** dagokienez, Arartekoak bere proposamenak eta ekarpenak aurkeztu zituen beste defentsa-erakunde batzuekin batera, Defendatzailleen Koordinazioaren XX. Jardunaldiari begira, eginiko lan mintegian; ondorioen agiri bat adostu eta onartu zen bertan. Geroago INTECOk sustaturiko lan batean ere parte hartu zuen, eta Ararteko erakundeak lan horri bere ekarpenak egin zizkion.

Jarduera-lerro zehatzago batean, berariaz hezkuntza arloari zuzendutakoan (ikasleak, familiak, irakasleak, hezitzaileak), Arartekoak material didaktiko batzuk argitaratu ditu, adingabeei teknologia berriak modu seguruagoan erabiltzen laguntzeko. Horrela, bi CD elkarreragile eta horien gida didaktikoak editatu eta EAeko ikastetxeetan eta zerbitzuetan banatu dira; horietariko batean, Ciberbullying deritzona aztertzen da, eta bestean, berriz, Interneten eta teknologia berrien erabilera seguruagoa. Pantallas Amigas ekimenak diseinaturiko material horiek oso harrera ona izan dute hezkuntza erkidegoan, gero eta kezka handiagoa baitute ziberbullyingaz eta halako fenomeno gero eta usuagoez. Hain zuzen ere, zenbait ikastetxek horren inguruko ekimenak antolatu dituzte (hala nola gurasoentzako hitzaldiak, non Arartekoko langileek parte hartu duten, eta familien arteko materialen maileguak).

Material horiek interesgarri suertatu dira beste erakunde batzuentzat ere, hala nola Gaztela-Mantxako Erkidegoko Defentsa Erakundearentzat, zeinak material horietako zenbait argitaratzea –gaztelaniazko bertsioan– eta erkidegoko ikastetxeetan banatzea erabaki baitu, eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarentzat berarentzat, Arartekoari proposatu baitio sar dezala laster Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztietan abian jarri asmo duen 2.0 programaren barruan.

Gai horren inguruan, Arartekoak hainbat ekimenetan parte hartu du, hala nola Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioak adingabeek IKTak modu seguru eta arduratsuan erabiltzeko autonomia erkidegoetako herriaren eta adingabeen defentsa erakundeekin batera sustatu dituen ekimenetan. Mahai horretan, Komunikazio Teknologien Institutu Nazionalako (Inteco) ordezkari batek ere hartu du parte.

- **Gehiengoena ez den sexu orientazioa duten nerabeen** eskubideen gaia, oro har, gutxi landu edo baloratu da gure artean, gai horri dagokionez, arartekoak bi ekimen desberdin eta osagarri garatu ditu. Alde batetik, herritarren hausnarketaren eta partaidetzaren V. Fororako deialdia eta horren gauzapena egin zuen. Foroa honako honi buruzkoa zen: "Nerabe eta gazte lesbianak, homosexualak, transexualak eta bisexualak: zailtasunak eta ukapenak euren garapen pertsonalean, harremanetan eta sozializazioan." Horrek aukera eman zuen kezka, esperientziak eta proposamenak trukatzeko, profesional desberdinen artean. V. Foro horretako hitzaldiak eta emaitzak 2009. urtean argitaratu dira, hedatzeko.

Bestalde, balioen transmisioari buruz egindako ikerketan (adin desberdineko 1.200 ikasleren jarrerak, jardunak eta aurreiritziak aztertu dituen ikerketa) aztertutik bost gai nagusienetarikoa bat sexu-orientazioarekiko jarrerena izan da. Adingabeei balioak transmititzearen inguruko ezohiko txosten hori ere –horren edukiaren berri eman dugu txosten honetan bertan, beste orrialde batzuetan– banatu da ikastetxeetan eta hezkuntza zerbitzuetan.

- **Droga kontsumo arazotsuei** edo nerabeen eta drogen arteko harremanari dagokionez, Arartekoa, Eusko Jaurlaritzak berak onartu duenaren ildotik, ezohiko txosten bat lantzen aritu da bi urtean. Txosten hori amaituta dago dagoeneko; argitaratze prozesuan dago, eta laster aurkeztuko du.

II. ADINGABEEI BURUZKO TXOSTEN BERRIAK

Labur-labur bada ere, Arartekoak adingabeen arloan sustaturiko lau azterlan berri aipatu nahi genituzke hemen. Horietako bat argitaratuta dago jadanik, eta besteak argitaratzeko fasean daude edo egiten ari dira.

1) Adingabeei balioak transmititzeari buruzko ezohiko txostena

Txosten hori 2009ko irailaren 29an aurkeztu zen, eta, gerora, horren inguruko eztabaida izan da, eta hedatu ere egin da.

Horren laburpena txosten honetan bertan ikus daiteke, beste orrialde batzuetan (ikus 2009ko txostena, IV. kapitulua, 1.2 atala), eta, beraz, hemen ez dugu errepikatuko.

2) Euskal erakundeek nerabeen droga kontsumoari dagokionez duten eginkizunari buruzko ezohiko txostena

Lerro hauek idazten ari ginela, drogei eta nerabeei buruzko txostena amaituta zegoen, eta argitaratze prozesuan zegoen.

Nerabeen kontsumoari eta praktika arriskutsuei buruzko datu eguneratuak ematen baditu ere, gehienbat erakundeek (tokian tokikoak, autonomikoak...) sustaturiko erantzunak aztertzen ditu, batez ere prebentziokoak. Hiru arlo hartzen ditu batez ere (eskola, familia eta komunitatea), eta, alde kualitatiboari dagokionez, eragileen balorazioa eta ikuspegia biltzen ditu (osasun profesionalak, polizia agenteak, hezitzaileak...), bai eta adingabeen beren iritziak eta proposamenak ere, horren inguruko kapitulu espezifiko batean.

Laster argitaratuko da.

3) Haurrentzat oso zaugarriak diren egoerei buruzko ezohiko txostena

Erakunde honen asmoa da ezohiko txosten bat egitea, ia laburpen moduan, oso zaugarriak diren egoeren inguruan, urteak baitaramatza modu sistematikoan egoera horien inguruan lanean: babesik gabeko adingabeak, adingabe etorkinak, adingabe arau-hausleak, hezkuntza behar bereziak dituzten adingabeak, buruko gaixotasunen bat dutenak eta abar.

Horren bidez, ikuspegi orokorrago bat eman nahi du oso ahula den biztanleriaren sektore baten beharrezan buruz; izan ere, maiz, hainbat arazo eta esku-hartze metatzen dira eta elkarri gainjartzen zaizkio.

4) Bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako arreta instituzionalari buruzko azterlana

Kasu honetan, gaia aztertzeko beka bat da. Beka hori esleitu zen, eta laster amaitzea eta argitaratzea espero dugu.

Aurreko orrietan egiaztatu ahal izan denez, bakarrik dauden adingabe atzerritarren egoerari eskaintzen dio Arartekoak denborarik gehien, eta horrexek kezkatzen ere du beste ezerk baino gehiago. Horren ondorioz, informazioa oso ugaria da eta eguneratua dago.

Dena dela, beka horren bidez eginiko lanak informazio gehigarria ematen du; izan ere, denbora asko behar dela-eta gutxitan erabiltzen den metodo bat erabiltzen da halako lanetan: espedienteak sistematikoki berrikustea.

Segur aski ez du berrikuntza handirik ekarriko txosten honetako aurreko orrialdeetan jadanik adierazitako azaroen inguruan, baina baliagarria izango da horietako batzuk indartzeko, kuantifikatzeko edota ñabartzeko.

III. KEXAK

Askotan adierazi dugun bezala, erakunde honetan ez dira 18 urtetik beherako adingabeek aurkeztutako kexa asko jaso. Eta hainbat arrazoiengatik izan daiteke hori: beren eskubideen jakitun ez izatea, adingabeek besteak beste beren defentsarako mekanismo gisa erakunde hau dutenik ez jakitea, erakundeetara jotzeko trebetasunik, ohiturarik edo konfiantzarik eza, familiarekiko edo beste pertsona eta erakunde batzuekiko duten mendetasuna, etab. Kexa gehienak hurbileko familiartekoren batek aurkeztu ohi ditu; batzuetan, egoera ezagutzen duen profesionalen batek eta, beste batzuetan, sektore ahulekin lan egiten duten edo be-raiei zuzendutako zerbitzu jakin batzuk kudeatzen dituzten elkarteek.

Adingabeek kexa gutxi aurkezten badituzte ere, askoz ere gehiago dira zuzenean adingabeei eragiten dieten kasuak. Hala, esate baterako, hezkuntza arloari dagozkion ia kexa gehienak, unibertsitateko hezkuntzako goi mailari dagozkionak izan ezik, zuzenean lotuta daude gure erkidegoan adingabeei ematen zaien arretarekin (ikus hezkuntzari buruzko atala, txosten honetako 1. kapitulua). Eta gauza bera esan genezake berariaz adingabeentzat diren beste zerbitzu batzuen inguruan ere (babesarekin loturikoak, judizialak, osasun arlokoak...). Logikoki, adingabeei buruzko kexarik eta esku-hartzerik gehienak aipaturiko sektore horiekin lotuta egon ohi dira. Esparru ia tradizional horiekin batera, azken urteetan beste batzuk ere nabarmendu behar dira, horietako zenbait jadanik aurreko ataletan azaldutakoak, hala nola berdinen arteko eskola jazarpena edo tratatu txarrak, eta beste batzuk berriagoak, nola baitira laneko bizitza eta familia bateratzeko neurriak.

Dena dela, azken urte honetan kexa ugari aurkeztu dituzte adingabeek berek; hain zuzen ere, ia denak (35etik gora) zuzenean aurkeztu dituzte herritarrei laguntzeko Gasteizko bulegoan, eta bakarrik dauden eta Araban harrera egin zaien adingabe atzeritarrek aurkeztu dituzte. Orobat, kexa dezente aurkeztu dituzte bakarrik dauden eta Gipuzkoan harrera egin zaien adingabe atzeritarrek.

Beste zenbaitetan, atal honetan bertan, urtean zehar adingabeen eskubideen inguruan jasotako kexen zerrenda bat eman dugu, nahiko zerrenda osoa (ikus, esate baterako, 2007ko txostena, Adingabeak atala, Kexak). Han bildutako arazoetako asko kexatzeko edo Arartekoak jarduteko motibo izan dira azken urte honetan ere, maiz errepikatzen baitira kexaren arrazioak.

Beraz, zerrenda ez dugu berriro ere hemen aipatuko, baina bai gogoratuko ditugu, adibide gisa, hezkuntzaren arloan eta babesaren arloan kexatzeko motibo izan diren arrazoi nagusiak –bi arlo horien ingurukoak izan baitira aurrean jaso ditugun kexa gehienak–. Kexaren motiboak aipatu besterik ez dugu egingo.

• Hezkuntzaren arloan kexatzeko motibo izan diren gaiak:

- Eskolatzeko baldintzei dagokienez: Haur Hezkuntzako lehen etapan lekua lortzeko irizpideen inguruko kexak; etapa horretako onarpen prozesua kudeatzearen ingurukoak; haur eskola batetik bestera aldatzearen ingurukoak; beste etapa batzuetako

ikastetxeen arteko lekualdatzeen edo aldaketen ingurukoak; eskolatzeko baldintzak adinari egokitzearen ingurukoak...

- Bekei eta ikasteko laguntzei dagokienez: deialdien gaineko ebazpenak motel ematea; ebazpenekin ados ez egotea.
- Hezkuntza behar berezien inguruan: PROA konpentsazio programaren inguruko kekek; tratu desberdina emateagatik kekek edo beharrezko egoera jakin batzuei ez kasu egiteagatik jarritakoak...
- Ikastetxeetako instalazioei dagokienez: irisgarritasun arazoak edo arkitektura oztopoak kentzea.
- Ikastetxeetako bizikidetzaren eta gatazken inguruan: eskola jazarpenarekin loturiko kekek, eskuarki biktimen familiek aurkezturikoak.
- Eskolako garraioari dagokionez: beste urte batzuetan bezala, ikasleek eskolako garraioa erabiltzeko eskubidea baduten edo ez erabakitzeko irizpideen ingurukoak izan dira kekarik gehienak (zein mailatan dabilzan, zein ikastetxetara joaten diren, zenbateko distantzia dagoen eta abar).
- Eskola jangelei dagokienez: kudeaketari buruzko kekek.
- Irakaskuntzei dagokienez: ikasketen eta ordutegiaren bateragarritasuna, euskararekin loturiko salbuespenak...

Ikusten denez, keka horietako batzuk jadanik Arartekoaren analisietan, ezohiko txostenean, gomendioetan eta jarraipenetan agertu diren gaien ingurukoak dira: hezkuntza behar bereziak; irisgarritasuna; eskola bizikidetzak... (Aurten izandako kekei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikus txosten honetako Hezkuntza Arloa).

• **Babesaren arloan**, azken urte honetan batez ere arrazoi hauen inguruko kekek izan dira:

- Bakarrik dauden adingabe atzerritarren egoera, azken hilabeteetan batez ere Arabakoa, eta lehenago Gipuzkoakoa (Debako Oilur zentroaren inguruan).
- Nazioarteko adopzio prozesuak.
- Gurasoek babes espedienteetarako sarbidea izatea edo informazio eskabideen gaineko erantzunik ez izatea.
- Tutoretza eskaerak eta baldintzak.
- Familia harrera etetea...

Kexa horietako batzuei buruzko informazioa eta gazte justiziaren arloko beste batzuei buruzkoa ematen da txosten honetako beste orrialde batzuetan.

IV. OFIZIOZKO JARDUERAK GARRANTZI HANDIKO GERTAERA EDO EGOERETAN

Adingabeen eskubideak urratzen dituzten kasurik larrienak ez dira iristen erakunde honetara, besteak beste delituak direnean lehenago salatzen edo ikertzen dituztelako agintaritzak judizialek. Alabaina, zenbaitetan, ia beti ofizioz, Arartekoak esku hartu izan du oso larriak diren kasuetan, dituzten ondorioengatik edo duten gizarte garrantziagatik.

Zalantzarik gabe, azken urte honetan esku hartu dugun gizarte garrantzi handieneko egoerak bakarrik zeuden adingabe atzerritarrekin loturikoak izan dira.

Aurreko urteetan ere Arartekoak maiz esku hartu behar izan du biztanleriaren sektore honetan, baina, segur aski, inoiz ez azken urtean bezainbeste.

Behin eta berriz esku hartu behar izan dugu, eta hainbat arlotan: adingabeak erkidegoz aldatu direlako; bizilagunek gaitzespena edo kexa adierazi dutelako baliabideak sortzekoak zirenean; zenbait zentroren baldintzak txarrak direlako; adingabeen eskubideak urratu direlako (hezkuntzarako, defentsarako, entzunak izateko eskubidea); adina erabakitzeko prozesuak; tutoretza ezartzeko edo eteteko irizpideak; eta abar. Jardun horietako gehienei buruz informazio xehea eman dugu kapitulu honetako beste atal batean (ikus "Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak" atala). Beraz, ez dugu hemen errepikatu nahi; soil-soilik kasuistika-ren gaintik gogoeta orokor bat egin nahi dugu, eta gure kezka adierazi.

Biztanleria sektore oso urrakor horri dagokionez (ez da ahaztu behar babesik gabeko eta hurbileko familia laguntzarik gabeko nerabeak direla), guztiz kezagarria da gizartean horiei buruz sortzen ari den irudia; hain zuzen ere, arazoak sortzen dituen taldetzat (ia delitugiletzat) hartzen dira gizartean.

Gizartean irudi hori eratzea estu lotuta dago, erakunde honen iritiz, komunikabideetan ematen diren albisteei eta egiten diren iruzkinei; hain zuzen ere, horiek, ia beti, egoera arazotsuei buruzkoak dira: halako egoerak gertatu bai, baina salbuespenezkoak dira. Eta hori, halako arazoak zergatik sortzen diren aztertzen hasi gabe, beti ez baitira adingabeei berei egoztekoak; aitzitik, batzuetan ematen zaien arreta motari egotzi behar zaizkio (edo arretarik ez emateari).

Egiaz, arazo jakin batzuk ezagutarazteak gizarte-kontzientzia handiagoa lortzen lagundu dezake, baina, konponbidea topatzen lagundu ordez konponbidea oztopa dezakeen alarma edo iritzi egoera ere sor dezake. Azken urteetan arazoak dituzten edo problematikotzat hartutako nerabeentzako baliabide berriak sortzearen aurka auzoan izandako erreakzio batzuk esaten ari garenaren adibide kezagarria dira. Ildo horretan, berriz ere Arartekoak gogora ekarri eta nabarmendu nahi ditu bere garaian "Erakundeen gidaritza bereziki ahulak diren kolektiboentzako zerbitzuen sorreran" hizpide zuen gomendio orokorrean planteatu zituen gai eta proposamenak, era honetako egoeretan erabat aplikagarriak eta baliagarriak iruditzen zaizkiolako (ikusi 2001eko txostena, 461. orrialdea eta ondorengoak).

Gainera, uste dugu arlo honetan erakundeetako arduradunok ahalegindu egin behar dugula gizarteari adingabe horien errealitatea ikusarazten; izan ere, arazoak ezkutatu gabe, elementu on ugari dituzte: ikasteko motibazio handia daukate, lanerako prest daude, jatorriko familiarekiko erantzukizun handia daukate, gizarteratzeko eta lanean hasteko orduan arrakasta handia lortzen dute horretarako beharrezko bideak ezarri direnean, emantzipatzeko aukera eman denean... Ez da posible egoera arazotsu batzuk –beti gutxienak, bestalde– nabarmentzearen edo fokalizatzearen ondorioz gure laguntza eta elkartasuna beharrezko dituen errealitate askoz ere zabalago eta hobe bat ezkutatzea.

V. GIZARTE ERAGILEEKIKO LANKIDETZA ETA GIZARTE SENTSIBILIZAZIOA

Arartekoak elkarrekin duen harremanari dagokion azpiatalean adierazi bezala, Arartekoak, bere jarduteko ildoan artean, hemen hizpide dugun gaiari dagokionez, haurren edo nerabeen esparruan lan egiten duten gizarte agente desberdinekin lankidetzan jardutearen aldeko aukera argia egiten du. Bai haien eskubideen zabalkundearen edo defentsan, bai askotan bereziki egoera problematikoetan dauden adingabe taldeentzako baliabide jakin batzuen kudeaketan.

Aurten, hainbat jardueraren bidez aritu gara elkarlanean; horien artean, garrantzitsuenak direla iritzita, honako hauek nabarmendu ditzakegu: udan EHUko ikastaroen barruan egin genuen jardunaldia, haurren babesari buruzkoa, eta arriskuan diren edo beharizan bereziak dituzten adingabeak artatzen lanean diharduten elkarte edo erakundeekin izandako harremanak. Besteak beste, hauek dira elkarte edo erakunde horiek: Urgatzi, Gao Lacho Drom, Kale dor Kayiko, Landalan, Berriztu, EDEX, Dianova, Ixuri, Dislebi, Gaztaroan Ekin, salestarrak, kaputxino hirugarrendarrak, Enseñantes con Gitanos, Gurutze Gorria, Nuevo Futuro, harrerako familien elkarteak, AVAIM, Anesvad, DRARI...

Haurren eskubideak babesteko lan egiten duten erakundeekin ere lan egin da, erakundeetan edo nazioartean, hala nola Unicefekin eta Save the Children-ekin, bai eta haurren eskubideak hobetzeko programak garatzeko lan egiten duten erakundeekin ere, hala nola EDEX fundazioarekin, Pantallas Amigas-ekin, Zerbikasekin eta Paidos korporazioarekin.

Eta arlo zehatzago eta hezkuntzari lotuago bati dagokionez, ikastetxeekin, ikastetxeetako guraso elkarrekin, zuzendaritza taldeekin, unibertsitateko ikasle eta irakasleekin nahiz sektore jakin batzuetako hezitzaile taldeekin izandako harremanak edo trukeak aipatu behar ditugu. Zenbait kasutan, ikastetxeetara bertara joanda, eta, beste batzuetan, Arartekoa bisitatu duten eskola taldeei kasu eginda.

Elkarrekin eta erakundeekin izandako elkarlan horren esparruan, nabarmentzekoa da, halaber, Arartekoak edo erakundeko langileek adingabeen hainbat arazoren inguruan elkarte eta erakundeek antolatutako foroetan eta topaketetan izan duten esku-hartzea (Plataforma de Organizaciones de Infancia, CCOO-Irakaskuntza, Leizaiola fundazioa, Unicef, Save the Children...), bai gure erkidegoan eta bai gure erkidegotik kanpo. Esku-hartze horietako batzuk aipatu ditugu txosten honetako V. kapituluan.

VI. HAURREN ESKUBIDEEN ALDEKO KULTURA ZABALTZEA

Jarduteko ildo honetan kokatu dira haurren berriazko eskubideak zabaltzera, giza eskubideei buruzko material didaktikoak hezitzaileen esku jartzera, adingabeei erakundea ezagutaraztera, beren eskubideei eragiten dieten arazo batzuk eztabaidatzera eta abarretara bideratutako Arartekoaren hainbat ekimen.

Hala, 2009. urtean, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren 20. urteurrena izan den urtean, besteak beste ekimen hauek aipa ditzakegu:

- Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan erabilera pertsonaleko karpetak, kartelak eta egutegiak banatzea, haurren eskubide espezifikoak eta, zehazkiago, Hitzarmena zabaltzeko derrigorrezko hezkuntzan dabilzan ikasle guztien artean (Europako Kontseiluarekin elkarlanean argitaratutako materialak).
- Ararteko erakundearen web orrian elementu berriak sartzea, bereziki adingabeen inguruko gaiei dagokienez.
- Gasteizko Udalarekiko lankidetzeta-programaren barruan, Arartekoaren egoitza bisitatzera etorritako Gasteizko ikastetxeetako ikasle taldeei Ararteko erakundea aurkeztea eta arreta eskaintzea.
- Zuzenean esku hartu dugu erakundea eskolako taldeei, unibertsitarioei eta etorkizuneko hezitzaileei aurkezteko gure presentzia eskatu duten ikastetxeetan, eskuarki giza eskubideei buruzko lan sistematikoaren inguruan.
- IV. Gure Eskubideak eskolako lanen lehiaketaren ebazpena eman du. Lehiaketa horretan, gure erkidegoko Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe guztiek parte har dezakete.

Giza eskubideen inguruan modu sistematikoan lan egiteko material didaktikoei dagokienez, hainbat beka deialdi espezifikoren emaitza gisa, aurreko ikasturteetan hainbat baliabide bidali ziren ikastetxe guztietara: materialen karpeta bat Bigarren Hezkuntzarako, haurren eskubideei buruzko beste karpeta bat Lehen Hezkuntzako ikastetxeetarako, giza eskubideak modu ludikoagoan lantzeko kartak, gidak eta baliabideak biltzen zituen kutxa bat Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetarako, eta beste zerbitzu hezitzaile batzuk, emakumeen eskubideei buruzko CD interaktibo bat, neska-mutilek berek eginiko materialak...

Giza eskubideen gainean sistematikoki lan egiteko material didaktikoei dagokienez, berriazko beka batzuen deialdiren emaitza gisa, aurreko ikasturteetan zenbait material bidali ziren ikastetxe guztietara: Bigarren Hezkuntzarako materialak biltzen dituen karpeta bat, haurren eskubideei buruzko beste bat Lehen Hezkuntza ikastetxeetarako, giza eskubideak modu ludikoagoan lantzeko karta-sortak, gidak eta baliabideak jasotzen dituen kaxa bat Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetarako eta beste hezkuntza-zerbitzu batzuetarako eta emakumearen eskubideei buruzko CD interaktiboa, neska-mutilek berek prestaturiko materialak...

Beste arlo batean ere bidali dira materialak ikastetxeetara, teknologia berriak egoki erabiltzearekin loturikoak. Kasu horretan, EDEX fundazioko Pantallas Amigas ekimenak hezkuntza munduarentzat (ikasleak, irakasleak eta familiak) egindako materialak izan dira. Material horietan, konbinatu egin dira CD euskarria duten programa interaktiboak (adingabeentzat pentsatuak) eta paperezko gida didaktikoak (adindunentzat), teknologia berriak egoki eta arrisku txikiagoarekin erabil daitezzen sustatzeko.

Jarduera horiek, beti nabarmendu izan dugun bezala, askoz ere ikuspegi zabalago batean kokatu behar dira: Ararteko erakundeak adingabeak giza eskubideen errespetuan eta tolerantzia eta errespetu balioetan oinarritutako kulturaren gizarteratzeko duen kezka eta konpromisoa. Beharrezkoa da edozein gizarte demokratikotan, eta are gehiago geurean, hainbat

urtez indarkeriaren eta hilketaren erabilera sistematikoa bizi izan baitugu. Horren aurrean, erakunde honek, une oro, giza bizitzaren balio gorena defendatzeko eta hezkuntza-sisteman bizikidetzarako balioei sistematikoki heltzeko proposamenak azaltzeko ahalegina egin du. Giza eskubideei buruzko ikasleentzako eskolako erabilerako materialak prestatzea eta zabaltzea horretarako ekarpen bat da, hain zuzen.

Arartekoak azken urte honetan argitaratu duen adingabeei balioak transmititzeari buruzko txostenak agerian utzi du beharrezkoa dela atsedetik gabe eta modu sistematikoan jarraitzea lanean giza eskubideen gaineko hezkuntzaren arloan.

VII. AZKEN URTEKO EGOERA ARAZOTSUENAK EDO KEZKAGARRIENAK

Arartekoak adingabeen arloan egindako jarduketei buruzko atala amaitzeko, hemen, laburpen gisa, nabarmenduko dugu zein izan diren arazo edo egoera zailenak eta arreta handiagoa behar izan dutenak.

Azken hiru urteetan, guk egindako jarduketan arabera (bisitak, kexak, kontsultak, eskuhartzeak...), hiru hauek izan dira egoerarik kezkarrienak:

- Bakarrik dauden adingabe atzeritarren problematika.
- Eskola jazarpenarekin loturiko egoerak.
- Haurren eta gurasoen buru gaixotasuna artatzea (edo, zehazkiago, osasun sistemak ez behar bezain ondo erantzutea buru narriadura, droga mendetasun eta portaera arazo larriko egoerei, batez ere nerabeen artean).

Halaber, azken urtean gai horiexek aipa genitzake berriro, baina, zalantzarik gabe, batez ere honako hau nabarmendu da: bakarrik dauden adingabe atzeritarren problematika.

Aurreko orrietan nabarmendu dugu zer problematika daukan bereziki ahula den biztanleriaren sektore horrek, eta Arartekoaren kezka, balioespenak eta proposamenak azaldu ditugu.

Uste dugu datorren urtean ere arlo horri lehentasunezko arreta eman behar diola erakundeak. Baina uste dugu, halaber, hemen aipaturiko arazoak eta gabeziak soil-soilik inplikaturako erakunde guztien konpromisoarekin (tokian tokikoak, lurraldekoak, erkidegokoak, estatukoak) eta gizarte osoaren elkartasunarekin gainditu ahalko direla.

II.4

**BERARIAZKO ARRETA
EZGAITASUNA DUTEN PERTSONEI**

4. BERARIAZKO ARRETA EZGAITASUNA DUTEN PERTSONEI

Pertsona ezgaituen Eskubideei buruzko Konbentzioa 2008ko maiatzaren 3an sartu zen indarrean estatuan.

Konbentzio horrek nabarmen aldatu du ezgaitasunaren inguruko tratamendua. Ikuspegi juridikotik, esan dezakegu gainditu egin dela ezgaitasuna tratatzeko modua, hasi errehabilitazio eredutik eta gizarte eta aniztasun ereduetaraino. Bi eredu horiek elkartzea da Konbentzioaren filosofia.

Gizarte ereduaren premisak honako hau hartzen du ezgaitasunaren jatorriaren kausatzat: gizarteak ezgaitasunen bat duten pertsonentzako zerbitzuen prestazioari dagokionez eta gizartearen antolaketan berdintasun baldintzetan parte hartzeko behar dituzten behar espezifikoak egokitzeari dagokionez ezartzen dituen mugak. Horregatik, irtenbideak ez dira soilik banaka hartu behar; gizartea hartu behar du kontuan, sortzen diren diskriminazio egoerak gainditzeko saiatzeko.

Bestalde, aniztasunaren alderdiak bizitza independentearen mugimenduen printzipioak hartzen ditu. Alde horretatik, esan dezakegu ezgaitasuna gizakiari datxekion egitate bat eta gizakiaren aniztasunaren adierazpen bat gehiago dela mugimendu horrentzat. Ezgaitasunen bat duten pertsonak eskubide eta aukera berberak dituzten gizaki desberdin gisa hartzeko eskatzen dute, eta, haien iritziz, ezgaitasunaren izaera unibertsalaren ondorioz gizarteak behar den ahalegina egin behar du egoera horretara iristeko.

Aldi berean, Konbentzioak giza eskubideen esparruan kokatzen du ezgaitasuna. Horren erakusgarri da oinarritzat hartzen dituen printzipio gidariak:

- a. Norberari datxekion duintasuna, banakoaren autonomia (nork bere erabakiak hartzeko askatasuna barne) eta pertsonen independentzia errespetatzea;
- b. Diskriminaziorik ez egitea;
- c. Gizartean erabat eta benetan parte hartzea eta sartzea;
- d. Desberdintasuna errespetatzea eta ezgaitasunen bat duten pertsonak gizakiaren aniztasunaren eta izaeraren parte gisa onartzea;
- e. Aukera berdintasuna;
- f. Irisgarritasuna;
- g. Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna;
- h. Ezgaitasunen bat duten haurren gaitasunen garapena eta haur horiek beren nortasuna babesteko duten eskubidea errespetatzea.

Konbentzioarekin bat egin duten estatuek konpromisoa hartu dute Konbentzioan onartzen diren eskubideak betearazteko beharrezko politika, legeak eta administrazio neurriak hartzeko eta aplikatzeko eta ezgaitasunen bat duten pertsonen kontrako diskriminazioa dakarten legeak, araudiak, ohiturak eta praktikak indargabetzeko. (4. artikulua).

Horregatik, nazioarteko itun hori gure ordenamendu juridikoan formalki sartu denez, Arartekoak hori betetzen dela ikuskatzeko egin behar du lan, bai botere publikoen jarduna kontrolatuta baita beharrezkotzat jotzen dituen proposamenak eginda ere, ituna gure barne zuzenbidean benetan ezartzeko beharrezko aldaketak eragiteko.

Nahiz eta gure gizartean asko aurreratu den ezgaitasunen bat duten pertsonen laguntzeko neurriak dagokienez, asko dago oraindik egiteko. Eta hori hala dela egiaztatzeko, banakakoek aurkeztutako kekek nola izapidetu diren azter daiteke, bai eta erakunde honek ondoren azalduko ditugun botere publikoen jardun esparruei dagokienez zer jardun proposatu dituen ere.

Gizarte Ekintza

Esan dezakegu asko ari garela aurreratzen EAeko gizarte politiketan, baina adierazi behar dugu, halaber, zenbaitetan gaindiezinak direla ezgaitasunen bat duten pertsonen laguntzak eta prestazioak lortzeko aurkitzen dituzten oztopoak. Hori arrazoi hauengatik gerta daiteke: arauetan jasotzen ez diren egoerak sortzen direlako; baliabiderik ez dagoelako ezgaitasunen bat duten pertsonen laguntza neurri gisa behar dituzten behar espezifikoak egoeri erantzuteko zaila bermatzeko; edo lehendik dauden baliabideak ez direlako egokitzeko.

Lehenik eta behin, adierazi nahi dugu, Pertsona ezgaituen Eskubideei buruzko Konbentzioko 19. artikulua xedatzen duenaren arabera, ezgaitasunen bat duten pertsonen eskubidea izango dutela modu independentean bizitzeko eta erkidegoan sartuta egoteko, non eta norekin bizi nahi duten hautatzeko eta hainbat laguntza lortzeko, hala nola etxez etxeko laguntza, egoitza laguntza eta erkidegoko beste laguntza zerbitzu batzuk lortzeko, bai eta erkidegoan errazago bizitzeko eta sartzeko eta gizartetik ez aldentzeko edo bereizteko behar duten laguntza pertsonala izateko ere.

Gure barne-zuzenbidean, laguntzaile pertsonala izateko diru laguntza 39/2006 Legeko 19. artikuluan dago araututa. Horren arabera, laguntzailearen helburua honako hau da: *“Onuradunari hezkuntza eta lan-arloan parte hartzen lagunduko litzaioke, eta, era berean, bizitza autonomoagoa izaten ere bai, eguneroko bizitzan aurrera eramane beharrezko ekintzetan.”*

Arauaren helburua, hau da, ezgaitasunen bat duten pertsonen oinarriko beharrei erantzuteko behar beste laguntza emanda modu independentean bizitzeko aukera bermatzea, bere hartan utzi da Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu duen garapen araudian (gaur egun, 25/2009 Foru Dekretuko 15. artikulua).

Alabaina, Arabako eta Bizkaiko foru aldundiek, prestazio horren inguruko araudian definizioa bere hartan utzi badute ere, prestazioa lortzeko ezinbestean eskatzen dute *“hezkuntzaren edota lanaren esparruan jardutea”* (Arabako 11/2008 Foru Dekretuko 5.1.d artikulua, eta Bizkaian 99/2007 Foru Dekretuko 5.1.c artikulua). Beraz, bi lurralde horietan baztertu egin da legean aipaturiko hirugarren helburua, hau da, erraztasunak ematea *“bizitza autonomoagoa izaten ere bai, eguneroko bizitzan aurrera eramane beharrezko ekintzetan”*. Horrek

modua emango luke hainbat egoera kontuan hartzeko. Azken hori, gure iritziz, legearen interpretazio murriztailea da.

Bestalde, adierazi behar dugu hainbat kexa izan direla, ezgaitasunen bat duten pertsonak hezkuntza bereziko zentroetan edo lanerako ikastegietan jasotzen duten arretak ondorio desberdinak dituela eta. Alde horretatik, egiaztatu ahal izan dugu bere etxean bizi den adingabeko pertsona ezgaitu batek diru laguntza bat jasotzen zuela familia inguruneke zaintzarako. Gainera, hezkuntza bereziko ikastetxe batera joaten zen (hezkuntza sarearen mendeko ikastetxe batera). Adin nagusitasunera iritsi zenean, ikastetxe berera joaten jarraitu zuen, baina beste unitate batera, lanerako ikastegi bihurtua baitzuten (gizarte zerbitzuaren sarearen mendekoa zen ikastegia).

Hala, prestazio bat kobratu eta gizarte baliabide bat erabiltzen zuen, eta horrek hainbat ondorio eragiten zituen. Batetik, Bizkaian aztertutako kasu batean, prestazioak bateraezinak zirela eta, iraungi egin zen prestazio ekonomikoa. Bestetik, Gipuzkoako beste kasu batean, egiaztatu genuen prestazioari eutsi zitzaiola, baina %50 murriztuta. Bi erantzunek badute babesa araudian, baina ulertezinak dira pertsona kaltetuentzat.

Orobat, erakunde honek aztergai izan ditu Araban prestazio hori arautzen duen urriaren 23ko 70/2007 Foru Dekretuko 9.2 artikulua aplikatzeak dituen ondorioak: *“Laguntzen titularrak eta mendekotasun egoeran dauden beste batzuk etxe berean bizi badira, horietako bakoitzari %25 murriztuko zaio prestazioa.”*

Arabako hainbat familiaren kexak jaso genituen. Familia horiek bi seme-alaba mendeko zeuzkaten etxean, adingabekoak edo gazteak, eta familia inguruneke zaintzarako prestazioa jasotzen zuten. Beren kexan adierazi zuten Aldundiak prestazio bakoitzari aplikatzen zion %25eko murrizketa horretan ez zirela kontuan hartzen hainbat alderdi esanguratsu, hala nola: zaintzaile kopurua (askotan ez da nahikoa izaten bakarrarekin); mendeko pertsonen adina (laguntzaren beharra nabarmen aldatzen da bizitzaren etapa bakoitzean; hala, lehenengo etapetan, etengabeko laguntza behar da); laguntzak pertsonalizatua izan behar duela; adingabe horiek sortzen dituzten gastuak, horiek ere banakakoak (aulki bereziak, fisioterapia saioak, estimulazioa, logopedia eta abar); familia horiek behar dituzten ibilgailu bereziak; dedikazio etengabea behar dutela eta askotan lan-bizitza ere utzi behar izaten dutela; eta abar. Gainera, prestazio bakoitzean egindako kenkari hori hileko 250 eurotik gorakoa ere izan daiteke mendekotasun handiko bi seme-alaba dituzten familietan, eta zenbateko hori aintzat hartzeko modukoa da gastu bereziak dituzten familietan. Gainera, egiaztatu ahal izan genuen ez dagoela halako murrizketarik beste bi lurralde historikoetan.

Horregatik, pentsatu genuen bazegoela behar beste arrazoi neurri horrek dakartzan ondorioen gainean gogoeta egiteko. Hori horrela, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politikaren Sailera jo genuen, eta arau hori aldatzeko aukera azter zezala eskatu genion. Txosten hau amaitzean, erantzunaren zain geunden oraindik.

Arlo honetan, beste kexa bat ere izapidetu dugu. Izan ere, pertsona bat ez zegoen ados Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Departamentuak abenduaren 18ko 246/2007 Foru

Dekretuko 9. artikulua aplikatuz eman zion arreta goiztiarrerako laguntzarekin. Kasu horretan, Foru Aldundiak aski iritzi zion neskatoak estimulazio goiztiarreko programa fisioterapiarik gabe jasotzeari. Gurasoek, ordea, uste zuten agindua egokia izateko fisioterapia modulu espezifiko bat ere sartu behar zela. Balioespen eta orientazio lantaldea arduratu zen gurasoen eskaeraz, eta beste balioespen bat egin zuen; balioespen horretan, baieztatu zuen agindutako hori zela egokia.

Esku hartu behar izan dugun beste kasuetako batean, ikusi dugu aldeak daudela ezgaitasunen bat duten pertsonak joaten diren zentroak ikastetxetzat edo gizarte baliabidetzat jotzearen artean, lana eta familia bateratzeko laguntzak lortzeari begira.

Alaba zaintzeko lanaldia murriztu zuen ama baten kasua suertatu zitzaigun. Alabak ezgaitasun handi bat zuen, eta mendeko gisa kalifikatua zegoen. Lana eta familia bateratzeko neurriak arautzen dituen uztailaren 17ko 118/2008 Dekretuan xede horretarako (eszedentzia edo lanaldi murrizketa) jasotzen den diru laguntza lortu nahi zuen. Alabaina, ukatu egin zitzaion eskaera, alaba, 18 urtetik gorakoa bera, eguneko zentro espezializatu batera joaten zelako.

Dekretu horretako III. kapituluak arautzen ditu mendeko senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartu duten edo lanaldia murriztu duten langileentzako laguntzak. Dekretu horretako 16.2 artikulua honako hau dio: *“Mendetasun egoeran dagoenak hori zaintzeko eskatu delarik eszedentzia edo lanaldi murrizketa ez du modu iraunkorrean sartuta egon beharko egoitza zentro batean eta ez du gizarte zerbitzuetako eguneko zentro batek artatuko”* (azpimarra gurea da). Kasu honetan, adierazi dugun bezala, alaba gizarte zerbitzuen sareko eguneko zentro batera joaten zen.

Alabaina, eszedentzia edo lanaldi murrizketa 18 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko eskatzen bada (dekretu horretako II. kapituluak), ez dago adierazitakoa bezalako baldintzarik –adingabea zentroren batera joatea– diru laguntza lortzeko. Areago, suposatzen da zentro batera joaten dela, eta zentro hori hauetakoren bat izan daitekeela: haur eskola, irakaskuntza arrunteko ikastetxea edo hezkuntza bereziko ikastetxea.

Pertsona bat, adina edozein duela ere, zentro batera joaten denean –hezkuntza sarearen edo gizarte zerbitzuen mendekoa–, antzeko ordu kopuru batez jasotzen du laguntza: 6 eta 8 ordu bitartean jarraian, astelehenetik ostiralera (batzuetan –ez beti–, eguneko zentroak eman dezake arreta asteburuetan eta jaiegunetan ere, baina ez zen hori kasua). Beraz, familiak, bi kasuetan, denbora askoan eman behar izaten dio arreta mendeko pertsonari. Horri, gainera, zentroko oporrak erantsi behar zaizkio.

Premisa horiek kontuan hartuta, gerta liteke bi pertsonak eszedentzia hartzea edo lanaldia murriztea beren seme-alabak zaintzeko, bi kasuetan seme-alabak zentroren batera joatea, eta batek laguntza ekonomikoa jasotzea eta besteak ez. Arrazoiak, soil-soilik, seme edo alaba horren adina izango da: adingabea bada, ikastetxe batera joango da, eta laguntza jasoko du; adinduna bada, gizarte baliabideren bat erabiliko du, eta ez du diru laguntzarik jasoko.

Hori ikusita, ez genuen behar beste motibo aurkitzen 118/2007 Dekretuak adierazitako egoera horiek desberdin tratatzeko. Ez du ematen bereizketa hori koherentea denik xedapenaren helburuarekin ere; izan ere, laguntza horren bidez honako hau lortu nahi da: *“emakumea lan arloan sartzeko erraztasunak ematea, eta emakumearen lanbide karrera garatzea, emakumeek eta gizonek familia eremuan duten erantzunkidetasuna sustatzea, eta bereziki, seme-alabak zaintzeari eta hezteari dagokionez, baita familia arloko eta lan arloko erantzukizunak bateragarri izateko erraztasunak ematea ere”*. Horregatik, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailera jo genuen, egoera azaltzeko. Sailak, emandako erantzunean, adierazi zigun aztertuko zuela kontu hori.

Azkenik, gizarte arloari dagokionez, ikus txosten honetako I. kapituluko Gizarte Ekintza atalean azaldutakoa. Bertan, luze aztertzen da erakunde honetan izapidetu genuen kexa bat, etxez etxeko laguntza zerbitzuaren prezio publikoa kalkulatzeko moduarekin, hau da, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean arautu den ordainketa partekatuarekin ados ez zegoen pertsona batek jarritakoa. Kasu konkretu hori ama batek aurkeztu zuen. Hark adierazi zuenez, haren semearen ezgaitasuna III. graduako 2. mailarekin balioetsi zuten, eta etxez etxeko laguntza zerbitzua eskatu zuen. Barakaldoko Udalak, prezio publikoa ezartzeko orduan, etxebizitzan bizi ziren pertsona guztien diru-sarrerak hartu zituen kontuan, hau da, gurasoen diru-sarrerak.

Barakaldoko Udalak aintzat hartu zituen erakunde honek egindako oharrak, eta azkenean zerbitzuaren onuradunaren diru-sarrerak hartu zituen kontuan, eta ez gainerako bizikidetzan unitatekoenak, familia unitateari lotutako zerbitzua arautzen duen Araudiko 9. A artikulua ezarritakoa eta Gizarte Zerbitzuei buruzko Lege berriak xedatutakoa aplikatuz, harik eta *“en tanto se realiza de nuevo el trámite administrativo correspondiente para elevar a la aprobación del órgano competente la nueva regulación del precio público”*.

Azkenik, Udaltzara horrek hemen azaltzea interesgarri irizten diogun ohar bat egin zuen: *“Señalar que, dado que buena parte de la nueva Ley de Servicios Sociales está pendiente de desarrollo, y ante la posibilidad de diferencias de interpretación de unas entidades a otras, lo que puede conducir a desigualdades, bueno sería establecer foros donde señalar criterios comunes, que posibiliten efectivamente la igualdad de trato en todo el territorio, y la claridad y veracidad de la información que se trasmite al ciudadano”*.

Erakunde honek ildo horretan lan egiten jarraitzeko asmoa du, gizarte arloan izapidetu diren kexei buruzko azalpenean agerian geratu den bezala.

Azkenik, labur-labur, egoki iritzi **diogu autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko 39/2006 Legeak ezgaitasunen bat duten pertsonengan izan duen eragina** aipatzeari. 2009an, txosten berezi bat egiten hasi gara lege honen aplikazioaren inguruan, eta ziur asko 2010ean argitaratuko da txosten hori.

Azterlanaren helburuetako bat da jakitea nolako eragina izaten ari den araudi hori ezgaitasunen bat duten pertsonengan.

Foru erakundeek eta beste erakunde ofizial batzuek eman duten informazio zabalaz gain –horri buruzko txostenean aztertuko dugu hori–, beren balioespenak eta hobetzeko proposamenak helarazi dizkigute ezgaitasun fisiko, intelektual eta zentzumenezkoren bat duten pertsonak nahiz burutik gaixo daudenak ordezkatzan dituzten gizarte erakundeek ere.

Orain arte, erakunde hauen iritzia jaso dugu:

Fekoor gutxitasun fisikoa duten pertsonen Bizkaiko federazio koordinatzailea, Eginaren Eginenez Arabako gutxitasun fisikoa duten pertsonen elkarte, Elkartu Gipuzkoako gutxitasun fisikoa duten pertsonen federazio koordinatzailea, Elkartean Euskal Autonomia Erkidegoko gutxitasun fisikoa duten pertsonen federazio koordinatzailea, Fedeafes Euskadiko eri psikiko eta senideen elkarten federakuntza (Avifes, Agifes, Asafes eta Asasam), Aspace-Bizkaia elbarritasun zerebralaren Bizkaiko elkarte, Aspace-Gipuzkoa elbarritasun zerebralaren elkarte, Aspace-Araba elbarritasun zerebralaren eta antzeko gaitzen elkarte, Featece Euskal Autonomia Erkidegoko hartutako kalte zerebralaren elkarten federazioa (Atece Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba), Gorabide adimen ezgaitasuna duten pertsonen aldeko Bizkaiko elkarte, Atzegi Gipuzkoako adimen urritasuna duten aldeko erakunde, Apdema adimen ezgaitasuna duten pertsonen aldeko Arabako elkarte, Fevas adimen ezgaitasuna duten pertsonen aldeko elkarten euskal federazioa, Once Euskadi itsuen eta gorren aldeko Euskal Autonomia Erkidegoko elkarte, Euskal Autonomia Erkidegoko Down Sindromearen Fundazioa, Bidegain elkarte, Fevapas Euskal Herriko gorren lagun eta gurasoen elkarten federakunde, Itxaropena ikusmen urritasun larria duten haurren eta gurasoen eta pertsona erasandakoen Arabako elkarte.

Burutik gaixo dauden eta hartutako kalte zerebrala duten pertsonen dagokienez, kapitulu honetan bertan azertu ditugu, gaixotasun kronikoa duten pertsonen arretari buruzko atalean, talde horien ordezkari egiten diren gizarte erakundeen ekarpenak.

Ezgaitasunen bat duten pertsonen gainerako elkarteei dagokienez, azterlan monografiko batean horien ekarpen guztiak xehekiago aztertu baditugu ere, kontu esanguratsuenetako batzuk aurreratuko ditugu hemen:

Onartzen dute aurrerapen handia dela autonomia pertsonala sustatzeko eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeko eskubidea herritarren eskubide subjektibo gisa hartzea.

- Oso ongi iruditzen zaie zaintza erantzukizun publikotzat jotzea.
- Lege berriarekin, aitortu egiten da familia inguruneko zaintzaileak egiten ari diren lana (dagokion prestazio ekonomikoaren bidez, Gizarte Segurantzako altaren eta kotizazioaren bidez).
- Aurrerapen handia da autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko Legeak jasotzen duen laguntza pertsonala kontratatzeko prestazio ekonomikoa, baina ez da izaten ari nahi bezainbesteko irismena. Kezkagarria iruditzen zaie Araban eta Bizkaian laguntza pertsonalerako prestazioaren aplikazio esparrua hezkuntzarako eta lanerako sarbidea erraztu nahi den kasuetara mugatzea; haien ikuspegitik, eguneroko bizitzako oinarrizko jarduera

guztietara hedatu beharko litzateke, bai eta kultura, aisialdi eta astialdiko jardueretara ere.

- Haien iritziz, pertsona laguntzaile horrek izan behar lituzkeen funtzioen barruan sartu beharko litzateke adimen urritasuna duten pertsonen, oztopo kognitiboak eta komunikaziokoak gaindituz, informazioa eskuratzeko bidea erraztea.
- Ez dira gogobete autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko Legea indarrean sartzearekin sortu diren espektatibak. Hasierako informazio lanaren falta ere sumatzen dute.
- Ez dute sentitzen lege horrek guztiz babesten dituenik. Uste dute hasiera hasieratik pertsona nagusientzat egin dutela.
- Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko Legea nabarmen asistentziala dela sumatzen dute, ustez lortu asmoz zen autonomia sustapenaren kaltetan, eta autonomia sustatzea oso garrantzitsua da ezgaitasunen bat duten pertsonentzat.
- Araudiak ez du hobetu adimen urritasuna duten pertsonen bizi kalitatea.
- Koordinazio eskasa ikusten dute inplikaturako administrazioen artean.
- Gizarte eta osasun arloetan garapen motela sumatzen dute.
- Legea pixkanaka ezartzeko epeak luzeegiak dira.
- Hiru foru aldundiek araudia desberdin garatu izanak agerian utzi du praktikan badi-rela gainditu beharreko hainbat lurralde desoreka: laguntza eskuratzeko eskakizunetan, mendetasun egoera onartzeko prozeduran, bateragarritasunen araubidean, administrazioaren isiltasunaren ondorioetan eta bestelakoetan.
- Diru laguntzen zenbatekoa ez da nahikoa.
- Herritarrentzat oso konplexuak dira mendetasun egoera onartzeko prozedurak, arreta emateko banakako programak egiteko modua eta prestazioak eta zerbitzuak esleitzeko modua, eta, praktikan, gehiegizko atzerapenak eta kolapsoak sortzen dituzte oinarritzko gizarte zerbitzuetan.
- Mendetasun egoera onartzeko ebazpenetan, beti adierazi beharko litzateke balio-espena zein puntuaziotan oinarritu den (helegiteren bat aurkeztea bidezkoa den edo ez lehenbailehen erabakitzeke, eta, hala badagokio, helegitea aurkezteko, txosten hori berriro eskatzeko sortzen diren alferreko atzerapenak saihestuta).
- Bizkaian zerbitzuen eta prestazioen artean ezarri den bateraezintasuna kritikatzeko dute; bien erabilera konbinatua sustatzen dute, mendeko pertsonari arreta osoa emateko.
- Mendetasuna balioesteko baremoak (MBB) ez ditu behar bezain ondo jasotzen pertsona ezgaituek autonomia pertsonalerako dituzten zailtasunak:
 - a) Nahiz eta adimen urritasuna duten pertsonen kasuan emandako puntuazioak berriro banatzen diren item bakoitzean, eta nahiz eta balioespenean erabakiak hartzen diren, ez da agertzen pertsona horiek beren bizitza osoan zehar zer laguntza beharko dituzten; beharrezkoa litzateke beste hainbat alderdi ere kontuan hartzea, hala nola: jarduera instrumentalak garatzeko gaitasuna, arlo publikoan moldatzeko gaitasuna, komunikaziorako, kogniziorako eta informazioa lortzeko zailtasunak, harremanak izateko eta parte hartzeko zailtasunak, mendetasun emozionala, engainuarekiko ahultasuna eta abar.

Uste dute komeni dela balioespen hori egiteko kontuan hartzen den testuingurua handitzea (etxekoa soilik kontuan hartzea oso murrizta da).

- b) Nahiz eta ezgaitasun fisiko edo zentzumenekoren bat duten pertsonak etxeko lanak egin ditzaketen, ingurune hori haien behar konkretuei egokitua dagoelako, mendetasun egoera ugari gerta litezke hirigunean –ez baita beti irisgarria edo ezaguna–, eta horiek ez dira balioesten.
 - c) Zentzumen ezgaitasunak, zehazki itsutasunak, mendetasun handia sor lezake oinarrizkoak ez diren baina eragin handia duten eguneroko bizitzako jarduera askotan (fakturak irakurtzea, gauzaren bat aurkitzea, ezagutzen ez diren lekuetan nora ezean ibiltzea...).
- Uste dute baloratzailerik prestakuntza handiagoa izan beharko luketela ezgaitasunaren arloan, batez ere arlo honetako gaur egungo erreferente teorikoari dagokionez: bizi kalitatea, laguntzen teoria eta pertsonari begirako plangintza.
 - Irizpide desberdinak ikusten dituzte balioesteko orduan (oso antzekoak diren egoeretan oso balioespen desberdinak jasotzen dituzte).
 - Beharrezkoa irizten diote balioespenean adimen urritasuna duten pertsonak emandako informazioa haien zaintzaile nagusiekin egiaztatzeari edo zehazteari.
 - Ezgaitasunen bat duten pertsonentzat baliabide gutxi izateak edo baliabiderik ez izateak eta dauden baliabideak haien behar espezifikoetara egokituta ez egoteak eragozti egiten dute legeak sustatzen duen eskubidea benetan erabiltzea; hala nola: etxebizitza eredu alternatiboak; gaitze zentroak; gizarte, kultura eta aisia jardueretarako zentroak; ezgaitasun fisiko handietarako zerbitzuak; adingabeentzako aldi baterako egonaldietarako egoitzak; itsuentzako eta gorrentzako zerbitzu espezifikoak (pertsona horientzako bitartekaria eta gidari interpretea txertatzea). Gainera, ezinbestekoa da baliabideak autonomia pertsonala adin goiztiarretatik sustatzera bideratzea.
 - Bizkaiko bateraezintasunen araubideak nahiz Gipuzkoako eta Arabako prestazioetan familia inguruneke zaintzan izandako murrizketek hainbat familia zerbitzu horiek erabiltzetik gibelarazi ditu, eta horrek ez du laguntzen autonomia sustatzen (izan ere, zentro horietan sustatzen dira gizarte partaidetza, elkarren arteko harremanak eta abar).
 - Bizkaian zerbitzuari lotutako prestazioa arautzeko eskatzen dute, arautu ez duen lurralde bakarra baita.
 - Familia zaintzaileei laguntza psikologikoa emateko eta prestakuntza emateko zerbitzuak garatzeko beharra nabarmentzen dute, bai eta laguntzeko banakako programak eta familiari arnasa emateko programak handitzea ere.

Hezkuntza

Hezkuntza eta trebakuntza aukera bereberekin ematea da sistemaren funtsezko beste zuta-beetako bat ezgaitasunen bat duten pertsonak bete-betean eta modu aktiboan garatu eta gizarteratu ahal izan daitezen.

Dena dela, gure autonomia erkidegoko hezkuntza errealitatea urrun dago oraindik helburu hori lortzetik; izan ere, aurrerago azalduko dugun bezala, oztopo ugari gainditu behar dira oraindik hezkuntza erabat irisgarri egiteko.

Hala, adieraz dezakegu aurreko urteetan bezala kexak jasotzen jarraitzen dugula, ikastetxeak ondo egokituta ez daudelako. Aurten izapideturikoen artean, aipatzekoa da seme-alabak Bilboko Mugika Solokoetxe LHIn dauzkaten familia batzuek sustaturiko kexa. Egindako gestioei esker, egiaztatu ahal izan dugu aurreratu egingo dituztela –2010eko aurrekontu ekitaldirako– eraikin historiko hori berritzeko lanak, **arkitektura oztopoak** kentzeko eta indarreko araudiari egokitzeko, Eusko Jaurlaritzak 2011-12ko ikasturterako onartu duen Ikastetxe Publikoen Azpiegiturak Hobetzeko Ezohiko Planaren (2008-2012) barruan.

Bestalde, hezkuntza behar bereziei buruzko atalean, ama batek sustatutako kexa jaso nahi izan dugu. Haren seme adingabeak Down sindromea du, eta itunpeko ikastetxe batean eskolatuta dago. Interesdunak bere kexan adierazi zuen bere semeari tratu desberdina ematen ziotela, ez baitzuen espezialisten laguntzarik (laguntzailerik); arrazoitzen zuen espezialisten presentzia ezinbestekoa zela adingabeak opor garaian ikastetxe horrek ematen zuen haurtzaindegi zerbitzua erabiltzeko. Alde horretatik, iradoki zuen udal administrazioak erantzun ziezaiokeela bere semearen egoerari, gizarte ekintzaren arlotik.

Alabaina, erakunde honek esku hartu ondotik izan zen erreakzioa kontuan hartuta, bat gatoz alkateak adierazitakoarekin, hau da, egokiena zela ikastetxeak berak aztertzea haurtzaindegi zerbitzu osagarri hori zein baldintzatan eskaintzen ari zen. Alabaina, erakunde honek esku hartu ondotik izan zen erreakzioa kontuan hartuta, bat gatoz alkateak adierazitakoarekin, hau da, egokiena zela ikastetxeak berak aztertzea haurtzaindegi zerbitzu osagarri hori zein baldintzatan eskaintzen ari zen.

2009. urtean, artritis erreumatoideak jotako gazte baten familiaren eskariz aurkeztutako kexa bat ere izapidetu dugu. Kexan ematen ziren datuen arabera, gazte horrek etxez etxeko laguntzari esker egin zuen derrigorrezko hezkuntza, eta horregatik lortu zuen derrigorrezko bigarren hezkuntzako graduatu titulua.

luz, 2008-2009ko ikasturtean, gazteak erabaki zuen administrazio kudeaketako erdi mailako zikloa bere kabuz egiten hastea (adierazi zuenez, etxez etxeko laguntza ematen zion irakasleak ere gomendatu zion hori egitea), baina ez zuen bere hezkuntza behar bereziei aurre egiteko laguntzarik horretarako. Horregatik, ez zuen lortu espero zuen etekina edo emaitza.

Horiek horrela, 2009-2010eko ikasturtean gazteak bere prestakuntzari berriro heltzeko asmoa zuen, hezkuntza sistemaren barruan izan ditzakeen laguntza espezifikoekin (garraioa barne) inguruko zalantza guztiak uxatuta.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko arduradunek emandako informazioaren arabera, gazte hau berriro hasi da administrazio kudeaketako ikasketak egiten, espezialista batzuen laguntzarekin. Hori dela eta, ziur gaude egoki eskolatu dela.

Azkenik, adierazi behar dugu keinuen hizkuntza erabiltzen duen erabateko gor batek erakunde honetara jo zuela. Hark adierazi zigun elektromekanikako erdi mailako ziklo batean matrikulatu zela eta onartu zutela ikasle gisa. Ikastetxeak beharrezko neurriak eskatu zituen

haren gorrerari egokitutako komunikazioa izateko. Hain zuzen ere, keinuen hizkuntzako espainierazko interprete bat eskatu zuen. Alabaina, ikasturtea bazihoan aurrera eta oraindik ezarri gabe zegoen eskatutako balia bidea. Txosten hau amaitzean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari eskatutako informazioaren zain geunden oraindik.

Funtzio Publikoa

FUkaezina da lan publikoa berdintasun baldintzetan lortzeko eskubideak garrantzi berezia duela ezgaitasunen bat duten pertsoneri buruz ari garenean. Horregatik, gaur egungo ordenamendu juridikoak baditu hainbat araudi eta xedapen berriak pertsona horiei lan publikoa eskuratzeko erraztasunak emateko.

Hala, gaur egun ez da arazorik izaten lanpostuak gordetzeko kupoa errespetatu behar delako, nolabaiteko lehentasuna ematen zaielako destinoa hautatzeko orduan edo lanpostua eta ingurunea lan hori egingo duen pertsonaren beharretara egokitu behar direlako.

Bada, azken alderdi hori kexa bat jartzeko motibo izan da. Hain zuzen ere, Arabako Gizarte Ongizateko Foru Erakundearen aldi baterako lan bat betetzeko izangai zen pertsona batek aurkeztu du kexa. Hori aztertzean, berriro ere agerian geratu da oraindik pertsona ezgaituek zailtasun handiak dituztela lana lortzeko, lan hori aldi baterako bada, eta, areago, aztertu dugun kasu honetan gertatu bezala, lan eskaintza ordezkapen labur bat egiteko bada.

Kontua da lanpostuak egokitzearen inguruan legeak jasotzen dituen xedapen guztiak (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua eta abenduaren 3ko 2271/2004 Errege Dekretua, ezinduek enplegu publikoan sartzea eta haiek lanpostuak betetzea arautzen duena) lanpostua behin betiko edo titulartasun baldintzetan betetzeari buruz ari direla.

Ez da ahaztu behar, ordea, lanpostuak aldi baterako bete behar direnean ez dela erraza lanpostu horiek egokitzeko lan teknikoa egitea, arkitektura oztupoak oro har kentzeaz harago; izan ere, ez da adierazten zer behar konkretu izan ditzaketen lanpostu horiek beteko dituzten pertsonak. Gainera, behar horiek alda daitezke denboran zehar lanpostu hori behin-behinean bete dezaketen pertsonen ezgaitasunaren arabera.

Ogasuna

Ezgaitasunaren eta mendetasunaren zerga tratamenduek elkarrengandik hurbil egon behar dute. 39/2006 Legeak kontzeptu berri bat sartu zuen gure ordenamendu juridikoan: "mendetasuna". Hain zuzen, honela definitzen du 2. artikuluan: "Adin, gaixotasun edo ezgaitasunen bat dela eta, pertsona batzuek modu iraunkorrean bizi duten egoera, baina autonomia fisiko, mental, intelektual edo sentsorialaren gabezia edo galerarekin zerikusia duena, eta horren ondorioz beste pertsona baten edo batzuen arreta behar baldin badute, edo laguntza handia eguneroko bizitzako oinarrizko ekintzak aurrera eramanez ahal izateko;

edo adimen ezgaitasuna edo gaixotasun mentala dutenen kasuan, autonomia pertsonala izateko beste laguntza mota batzuk behar dituztenen egoera”

Kontzeptu berri hori gizarte babesaren esparruan sortu zen; alabaina, ez da zerga esparruari lotuta geratu behar, eta, beraz, zerga ordenamenduan sartu beharko litzateke, “ezgaitasun” kontzeptu klasikoarekin batera. Alde horretatik, ez dugu ahaztu behar ezgaitasuna dela mendetasunaren kausa nagusietako bat; bestea, berriz, zahardadea da.

Arazo hori atzeman genuen autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko 39/2006 Legearen arabera mendekotzat jotako Arabako biztanleen pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ordainketan. Pertsona horiek, ezgaitasunen bat duten pertsonentzako zerga onurak aplikatzea nahi bazuten, beren ezgaitasuna onartzeko eskatu behar zioten zegokion foru aldundiko organoari; alabaina, balioespen epaitegi baten mende jartzeak nahasmen eta eragozpen handiak sortzen dizkie pertsona ezgaituei eta haien senitartekoei.

Zubi batzuen falta sumatzen genuen “mendetasun” eta “ezgaitasun” kategorien artean mendeko pertsoneri ezgaitasun egoeretarako aurreikusita dauden zerga onurak arrazoizko baldintzetan lortzeko modua emateko.

Gipuzkoan, PFEZa arautzen duen 10/2006 Foru Arauak berak hasiera-hasieratik kenkari espezifikoa bat sartu zuen bere artikulatuan pertsona nagusien mendekotasunerako. Kenkari hori ezgaitasunagatiko kenkariaren parekoa da, baina mendekotasuna egiaztatzen duten agiri espezifikoak eskatzen ditu.

Bizkaiko Foru Arauan, bestalde, ez da ezer aipatzen horren inguruan; horren ordez, Ogasuneko zuzendari nagusiaren jarraibideak ezartzen dira, baina Gipuzkoan ez bezalako irispidea dute. 39/2006 Legeak sortutako egoera abiapuntutzat hartuta eta zergaren araudiko 8. artikulua lege babesarekin, Bizkaiak modua ematen die bere zergadunei, adina edozein dutela ere, ezgaitasunagatiko kenkariaren onura izateko, legez mendekotzat jo badira, 504/2004 Errege Dekretuko baremoarekin bat, alde batera utzita 1971/1999 Errege Dekretuak barematu dituen edo ez.

Alabaina, ez genekien Araban azaldutako neurri horien antzekorik hartu zutela. 2010eko aurrekontua gauzatzeari buruzko abenduaren 17ko 14/2009 Foru Arauak arazo hori konpondu du, 2009ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin; zehazki, 84. artikulua ezgaitasunagatiko edo mendetasunagatiko kenkaria arautzen du.

Eztabaidaezina da ezgaitasunak murriztu egiten duela ez bakarrik ezgaitasun hori duenaren ahalmen ekonomikoa, baizik baita haren inguruko pertsonena ere: aurreko ahaideena, ezkontidearena eta ondorengoena. Premisa horrek, ahalmen ekonomikoa gure zerga sistemaren oinarri izan behar duela kontuan hartuta (Espainiako Konstituzioko 31.1 artikulua), bide ematen du tokiko zergen esparruan pertsona ezgaituei ez bakarrik tratamendu berezia eman ahal izateko baizik eta tratamendu berezia eman behar izateko.

Gaur arte, tratamendu espezifikoki hori, ezgaitasunen bat duten pertsonentzako zerga onuren aplikazio gisa ulertuta, oso mugatua izaten ari da, eta horren aplikazioaren inguruan ez da desadostasunik falta.

Aurrekoaren adibide bat trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergan aurkitzen dugu. Tokiko erakunde batzuk oso uzkur agertu dira 2004. urtetik zerga hau arautzen duten foru arauak jasotako onurak aplikatzeko, eta, beren zerga ordenantzen bidez, foru arauetan jasotakoak baino eskakizun zorrotzagoak sartu dituzte. Zenbait tokiko erakunde onura horiek taxutzearekin ados ez egotearen ondorioz, berriki hiru lurralde historikoetan zerga horren erreforma bat onartu dute, eta horrek zergaren salbuespenaren irispideari eragin dio.

Foru araudi berriarekin bat, zergatik salbuetsita egongo dira mugitzeko eragozpenak dituzten pertsonentzako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Ibilgailuen Araudi Orokorrak II. eranskineko A letran adierazitakoak, baldin eta ezindu baten izenean matrikulatuta badaude, eta ezindu baten izenean matrikulatutako 14 zerga zalditik beherako ibilgailuak, ezinduak erabiltzeko baizik ez direnak.

Alabaina, kontuan hartuko da ezgaitasun maila; izan ere, ezgaitasun maila %33koa edo handiagoa eta %65ekoa baino txikiagoa duten pertsonen kasuan, salbuespenaren onura izateko, horrez gainera onuradunak mugikortasun mugatuko egoeran egon beharko du. Halako baldintzarik ez dago, ordea, ezgaitasun maila %65ekoa edo handiagoa duten pertsonen kasuan.

Mugikortasun mugatua dutela ulertuko da abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuak, ezgaitasun maila aitortu, ezarri eta kalifikatzeko prozedurari buruzkoak, III. Eranskinen jasotzen duen baremoaren A, B edo C letretako egoeretan sartuta daudenean edo baremo horren D, E, F, G edo H letretan 7 puntu edo gehiago lortzen dituztenean.

Herrizaingoa

Arlo honetan maiz aurkezten dituzte kexak ezgaitasun txartelaren titular diren mugikortasun mugatuko pertsonen kasuan. Hain zuzen, salatzen dute zailtasun ugari aurkitzen dituztela ibilgailua aparkatzeko orduan, bai haien gordetako aparkalekuak aski ez direlako, eta bai zenbait erabiltzailek aparkaleku horiek eta are aparkatzeko txartelak bidegabeki erabiltzen dituztelako.

Bestalde, erakunde honetako ordezkari batzuek bisitatutako udal komisarietako zenbait bulego orokorren irisgarritasuna aipatu behar dugu; hain zuzen ere, *“Kalabozaok. Ertzaintza-
ren eta udalen atxiloketa egoitzak”* ezohiko txostenean egin genituen gomendioak zenbateraino betetzen ari diren ikusteko esku hartzeen esparruan bisitatu ditugu komisariak.

Zehazki, beste hainbat egoitzaren artean, Galdakaoko Udaltzaingoa bisitatu genuen. Ikusi genuen eraikina berriki birmoldatu dutela, polizia zerbitzua emateko.

Eman ziguten informazioaren arabera, soilik bisita egin baino astebete lehenago aldatu zen Udaltzaingoa aurreko kokalekutik eraikin eraberritura. Beraz, zenbait gune, ziegen esparrua barne, ez zeuden oraindik erabiltzeko moduan.

Berriki birmoldatua badago ere, bai eraikineko sarbide orokorra, bai ziegetara daraman sarbide independentea eta azken gune horren eta deklarazio gelaren arteko zatia, eta bai eta polizia erabilera eskusiborako diren beste gune batzuetarako sarbidea ere, ezin iritsizkoak dira pertsona ezgaituentzat, eskailerak baitaude eta ez baita beste formularik jarri oztopo horiek gainditzeko.

Hirigintza eta herrilanak

Erakunde honek irisgarritasuna sustatzeko egin dituen esku-hartzeei dagokienez, nabarmentzekoak dira merkataritza lokaletan edo merkataritza lokal eraberrituetan jarduera berriren bat ezartzen denean arkitektura oztopoak kentzeko araudia betetzen ote den ikusteko egiten den udal kontrolaren inguruko kexak. Erakunde hau udalei jakinarazten ari zaie beharrezkoa dela irisgarritasunari buruzko araudia betetzetik salbuesteko espedienteak izapidetzea lokalak edo saltoki publikoak eraberritzean, hiri guneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazio sistemen irisgarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuak V. eranskinean ondorio horretarako adierazitako eran. Modu horretan, gisa horretako esku-hartzeetan legezkotasun kontrolaren funtzioa benetan betetzen dela bermatzen da.

Bestalde, nabarmendu beharrekoak dira mugikortasun mugatuko pertsonen erakunde honetan aurkeztu dituzten salaketak. Hain zuzen, kexu dira zailtasunak izan ohi dituztelako eraikin edo espazio publikoetara sartzeko, arkitektura oztopoak daudelako edo hirigunea bidegabeki erabiltzearen ondorioz (gaizki aparkatutako ibilgailuak, lokaletako terraza erregularizatu gabeak...) eragozpenak izaten dituztelako. Ekitaldi honetan, hainbat kexa jaso ditugu udal bulegoak, osasun zentroak eta ikastetxeak irisgarriak ez direla eta.

Beste kasu batzuetan, arazoa egiturazkoa da, eta horrek eragotzi egiten die auzo jakin batzuetara joateko behar bezala mugitzen, **hiriko irisgarritasuna** bermatzen duten elementuak falta direlako.

Horri dagokionez, adierazi behar dugu 2004. urtetik Arartekoa administrazio publikoei eta, batez ere, udalei azterketa sakon bat egiteko eskatzen ari zaiela, hiriguneetako irisgarritasun arazoak konpontzeko irtenbide teknikoak ezar ditzaten. Behin eta berriro esan izan dugu lehentasuna eman behar zaiola instalazioak herritar guztiak berdintasun baldintzetan erabili ahal izateari, ezgaitasunen bat duten pertsonen aukera berdintasunaren eta bereizkeriarik ezaren printzipioak betetzeko.

Azken urteetan kexa ugari jaso ditugu erakunde honetan gure orografia zailaren ondorioz EAEn gero eta garrantzi handiagoa hartzen joan den kontu bat salatuzko, alegia, gure herrietan eskailera mekanikoak, arrapala eta tapiz mugikorak jartzeko, hirigunean dauden oztopoak gainditzeko.

Ekitaldi honetan, halako esku-hartzeak nabarmen ugaritu dira, tokiko erakundeek martxan jarri dituzten proiektu ugarien ondorioz. Proiektu horiek E Planarekin finantzatu dituzte, tokiko inbertsioetarako estatu funtsaren bidez, besteak beste mugikortasun mugatuko pertsonentzat arkitektura oztopoak kentzeko esku-hartzeak biltzen baititu.

Horren ondorioz, arlo honekin loturiko kexak nabarmen ugaritzeaz gain, erakunde honek proposatzea beharrezkotzat jo dituen ofiziozko esku-hartzeen ingurukoak ere areagotu da.

Ofizios izapidetutako kexei dagokienez, adierazi behar dugu udalek onartu dituztela erakunde honek egindako oharrak, hau da, lehentasuna eman behar zaiela igogailuei, arrapala eta eskailera mekanikoen aurretik; izan ere, lehenek oztopoak ezabatzen dituzte, eta bigarrenek, berriz, mugitzea errazten dute, baina ez dituzte konpontzen irisgarritasun arazo guzti-guztiak. Alde horretatik, aurten horren inguruko aholku orokor bat sartu dugu.

Nolanahi ere, mugikortasun mugatuko pertsona batek aurkeztutako kexa aipatu nahi dugu. Hain zuzen ere, Barakaldoko Udalak Gurutzeta auzoko Inmaculada kalean jarri asmo zituen eskailera mekanikoen proiektuaren inguruko kexa bat zen.

Erakunde honek informazioa eskatzeko idazki bat bidali zion Barakaldoko Udalari, eta hark adierazi zigun alde hartan instalatu asmo zituzten eskailera mekanikoekin batera arrapala finko batzuk ere jarri behar zituztela. Halaber, adierazi zigun arrapala horiek beteko zutela indarrean den irisgarritasunari buruzko araudia, eta mugikortasun mugatuko pertsonak erabili ahalko zituztela.

Nolanahi ere, geroago, informazio berria jaso genuen, eta egitekoa zen proiektu horren gaineko beste balioespen bat egin ahal izan genuen. Hain zuzen, Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Bizkaiko Federazio Koordinatzailea (aurrerantzean, Fekoor) erakunde honekin harremanetan jarri zen, aipaturiko gai hori aztertzen ari ginela jakin zuenean. Haien ustez, Barakaldoko Udalak ez zigun horren gaineko behar beste informazio eman. Elkartearekin izan genuen bileran, jakinarazi ziguten hasieran ez zutela aurreikusitako arrapala finkoak jartzerik, eta ez zegoela ziurtatua horien egiturak irisgarritasun araudia beteko zuenik. Hori horrela, egiaztatu genuen gure informazio eskaerari erantzuteko bidalitako idazkian Udalak jakinarazi zigula mugikortasun mugatuko pertsonak bide irisgarri bat izan zezaten eraiki behar zituzten arrapala finko horiek *beteko zutela* irisgarritasunari buruzko araudia. Alabaina, Udalak Fekoor-i bidalitako txostenean adierazi zion *beteko zutela (edo behintzat saiatuko zirela)* aipatutako legeria hori betetzen.

Bestalde, jakinarazi ziguten inguru horretan jarri nahi zituzten hiru igogailu bertikalak ezin zirela jarri teknikoki. Hori guztia kontuan hartuta, erakunde honetako hainbat kide Barakaldoko Inmaculada auzora joan ginen, jasotako informazioa egiaztatzeko asmoz.

Han geundela, ikusi genuen obrak hiru mailatan egiten ari zirela. Lehenengo mailan, egiaztatu genuen dagoeneko bazeudela ohiko eskaileretarako hiru tarte, eta eskailera mekanikorako beste tarte bat erantsi zitzaizkion, gorantz joateko. Tarte horretan ez genuen inolako

eragozpen teknikorik ikusi mugikortasun bertikaleko arazoak bi norabideetan konponduko dituen igogailu bat jartzeko.

Bigarren mailan, egiaztatu genuen lau eskailera tarte zeudela eta beste eskailera bat jarri zela, lehendik zeuden bi eskailera tarteen artean, hori ere soilik gorantz joateko. Kasu horretan ere ez genuen inolako arazorik ikusi igogailua jartzeko.

Hirugarren mailan, ikusi genuen hiru eskailera zeudela eta horiei eskailera mekaniko bat gehitu zitzaizela, gorantz joateko. Halaber, egiaztatu genuen posible zela tarte horretan igogailua jartzea.

Diseinatutako arrapala finkoei dagokienez, bisita egin genuenean, exekuzio fasean zeuden, baina ikusi genuen lehenengo bi mailetan jarritako arrapalek nekez bete zezaketela irisgarritasunari buruzko araudian xedatutakoa eta nekez erabili ahal izango zituztela mugikortasun mugatuko pertsonak modu autonomoan, oso pikoak zirelako.

Hori guztia ikusita, ondorioztatu genuen hiri ingurune horretan mugikortasun mugatuko pertsonak askoz ere bide luzeagoa egin behar zutela ohiko eskailera erabil zitzaketenean egin behar zutena baino, eta, gainera, ibilbide horretan errepidea erabili behar zutela, oso aldapatsua gainera, eta janda ez zeuden espaloi batzuetatik igaro behar zutela.

Barakaldoko Udalak inguru horretako irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetzeko obrak egitea erabaki zuen, horretarako hiru eskailera mekaniko jarrita, gorako linean soilik (aldapa igotzeko ohiko zortzi eskailera zeuden lekuan); alabaina, eskailera horiek inola ere ezingo lituzkete erabili mugitzeko benetan laguntza teknikoak behar dituzten pertsonak. Halaber, mugikortasun mugatuko pertsonak egin beharreko bidearen zati bat ordezkatzeko aurreikusitako arrapala finkoak ere ezingo lituzkete modu autonomoan erabili, horien pendiza kon-tuan hartuta.

Hori ikusita, Barakaldoko Udalarik gogorarazi genion arrapala eta eskailera mekanikoen ez zutela hiri ingurune hura irisgarri egingo, eta irisgarritasun unibertsala bermatzeko elementu gisa hartutako neurrietako batek ez zuela betetzen irisgarritasuna sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legeak lortu nahi duen helburua; izan ere, ez zuen bermatzen gune fisiko horretan pertsonak erabat libre ibili ahal izatea.

Legeko 1. artikulua zalantzagabea da alde horretatik; izan ere, botere publikoak behartu egiten ditu pertsonen bizi kalitatea hobetzeko laguntza teknikoen erabilera sustatzera, helburu honekin: *“Hiri-ingurunearen, gune publikoen, eraikinen, garraiobideen eta komunikabideen irisgarritasuna bermatzea, pertsona guztiek eta, batez ere, mugikortasun murriztua, zailtasunak komunikazioan edo muga psikiko zein sentsoriala, aldi baterako zein betirako, dituztenek era autonomoan erabil eta goza ditzaten.”*

Aztergai genuen kasuan, egiaztatu genuen hiru igogailu jar zitezkeela alde hartako irisgarritasun arazoak konpontzeko, herritar guztiei erabiltzeko modua emango zien irtenbide tekniko gisa. Horrekin, irisgarritasun unibertsalaren eta denontzako diseinuaren printzipioak

beteko lirateke, administrazio publikoek arlo honetan egiten duten jardunaren gidari izan behar duten printzipioak, alegia.

Ondorio horietarako, aukera berdintasunari, bereizkeriarik ezari eta ezinduen irisgarritasun unibertsalari buruzko abenduaren 2ko 51/2003 Legeak 2. artikuluan xedatzen ditu legea funtساتzen duten printzipioak, eta honela ulertzen ditu kontzeptuok:

- c) Irisgarritasun unibertsala: inguruneek, prozesuek, ondasunek, produktuek eta zerbitzuek zein objektuek, tresnek, bitartekoek eta gailuek bete beharreko baldintza da, pertsona orok ulertu eta erabiltzeko modukoak izan daitezen, segurtasun eta erosotasun baldintzetan eta ahalik eta autonomia eta naturaltasun handienaz betiere. Horrek denontzako diseinuaren estrategia eskatzen du, egin beharreko arazoizko doikuntzak alde batera utzita.
- d) Denontzako diseinua: inguruneak, prozesuak, ondasunak, produktuak, zerbitzuak, objektuak, tresnak, gailuak edo bitartekoak, ahal den guztietan, pertsona orok ahalik eta esparrurik zabalenean hasiera-hasieratik erabili ahal izateko asmatzea edo diseinatzea da.

Horregatik, uste dugu indarreko araudian agertzen diren aurreikuspenak betetzeko, Barakaldoko Udalak lehentasuna eman behar ziola igogailuak jartzeari, eta ez eskailera mekanikoak jartzeari; izan ere, neurri horrekin, alde hartan bizi diren edo ibili behar duten mugikortasun mugatuko pertsonen bizi kalitatea hobetzen lagunduko zatekeen eta diskriminatuak ez izateko duten eskubidea beteko zatekeen.

Bestalde, aipatu behar dugu behin-behineko arazoak sortzen direla hirigunea eraldatzen duten urbanizazio obrak egitean, baldin eta neurri egokirik hartzen ez bada mugikortasun mugatuko pertsonak behar bezala ibil daitezten. Lanak urbanizazioa hobetzeko badira ere, hainbat nahasmendu sortzen dute herritarren ohiko bizimoduan eta zirkulazioan. Kasu horietan, komeni da gogoratzea udalek –administrazioek urbanizazio lanak baimentzen edo sustatzen dituztenean– neurri egokiak hartu behar dituztela obren eraginaz ohartarazteko eta pertsonen ahalik eta eragozpen gutxiena sortzeko, ibilbide alternatiboak, irisgarriak eta seguruak ezarrita oinezkoak pasatzeko.

Bestalde, aurreko urteetan bezala, nabarmendu nahi dugu bereziki ezgaitasunen bat duten pertsonen izaten dituztela zailtasunak **garraio publikoa** erabiltzeko.

Gaur egun oraindik ezin mintza gaitzke garraioaren irisgarritasun unibertsalaz. Asko aurreratu bada ere, garraio publikoa modu autonomoan eta etengabeko berdintasun baldintzetan erabili ahal izatea da ezgaitasunen bat duten pertsonen aldarrikapen nagusietako bat, eta Euskal Autonomia Erkidegoko garraio publikoaren zerbitzua kudeatzen duten enpresen erronka handiena.

Hiri barruko zerbitzuak eman behar dituzten ibilgailuak egokitzea garestiagoa eta zailagoa da, eta, horren ondorioz, errepide bidezko garraio linea horietan agertzen eta nabarmentzen

da garbien zein diren mugikortasun mugatuko pertsonak gainditu behar dituzten traba nagusiak.

Pertsona ezgaituen erakunde bat kexu agertu zitzaigun, Araiako eskualdea Bilborekin eta Galdakaoko ospitalearekin lotzen duten garraio publikoko lineak ez daudelako benetan egokituta ezgaitasunen bat duten pertsonak garraiatzeko.

Bizkaibus zerbitzuko arduradunek adierazi zuten lanegunetan eta larunbatetan bai A3341 lineak (Bilbo-Sodupe-Arrespalditza) eta bai A3920 lineak (Urduña-Galdakaoko ospitalea) dauzkaten zerbitzu egokitu guztiak eskaintzen dituztela. A3342 linean (Bilbo-Sodupe-Artziniega), egun horietan, zerbitzuen erdiak baino gehiago ibilgailu egokituekin ematen dira. Halaber, jaiegunetan, adierazi zigutenez, zerbitzu guztiak ematen dira ibilgailu egokituekin, A3920 linean izan ezik, ohiko ibilbidea aldatzen baitu eta ez baita iristen Galdakaoko ospitaleraino.

Nabarmendu behar dugu zerbitzu horiek beren helburua betetzeko ez dituztela soilik ezgaitasunen bat duten pertsonak garraiatzeko unitate egokituak izan behar, baizik eta, horretaz gain, beharrezkoa dela egokitzapena benetan erabiltzeko moduan egotea, eta horretarako berariaz egin behar direla mantentze lanak.

Beste batzuetan, agerian geratu da Irisgarritasunaren Legeak eta lege hori garatzen duen dekretuak garraioaren arlorako eskaintzen diguten araudi esparrua gainditu dela. Ildo horretatik, pertsona ezgaituen elkarte batek adierazi zigun kezkatuta zegoela enpresa esleipendun batek Gasteiz eta Donostia AP-1 errepide bidez lotzen dituen linean martxan jarri zuen neurriarekin; izan ere, ibilgailu horietan mugikortasun mugatuko pertsonak ezin ziren autobus barruan ibili beren lagungarri teknikoekin, hau da, beren gurpil aulkiarekin. Enpresak exijitzen zuen gurpil elektrikoak ibilgailuaren maletategian joan behar zuela, eta pertsonak eserita bidaiatu behar zuela, autobuseko eserlekuetan.

Gure iritziz, horrek mugatu egiten du ezgaitasunen bat duten pertsonen ibiltzeko gaitasuna eta murriztu egiten du autobus barruan izan dezaketen autonomia. Halaber, neurri hori ezartzeko, ezgaitasunen bat duten pertsonak mugitzeko ahalmen handia izan behar dute lekuz aldatzeko eta modu unibertsalagoan eman beharko litzatekeen garraio publikoko zerbitzua erabiltzeko.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak adierazi zigun konpromisoa hartzen zuela bere eskumenekoak diren hiri barruko garraio zerbitzuetan irisgarritasun unibertsala areago bermatzeko. Horri dagokionez, jakinarazi zigun enpresa operadorearengana jo zuela, emandako erantzunarekin ados ez zegoela adierazteko; izan ere, uste zuen erabilera autonomoa lehenetsi behar zela. Dena dela, adierazi ere zuen 126/2001 Dekretuak 4.4.2 artikuluan jasotzen zuenez ibilgailuek gurpil aulki bat izan behar zutela.

Onartu behar dugu ezgaitasunen bat duten pertsonak modu autonomoagoan ibiltzen direla ibilgailu barruan beren gurpil aulkian mugitu eta koka badaitezke, autobus barruan esertzeko

beste gupil aulki behar erabili behar badute baino. Beraz, gure ustez, legeriak irisgarritasunaren arloan hainbat urteko bidea egin ostean, komeni da irisgarritasunaren arloko araudiak jasotzen dituen zenbait aurreikuspen birplantatzea.

Bestalde, adierazi behar dugu garraio publikoko tarifetako hobarien inguruko kezak ere izan direla erakunde honetan. Hala, Bilboko bizilagun batek adierazi zigun ez zegoela ados, ezin zuelako tarifa horien onurarik izan, %35eko ezgaitasuna bazuen ere.

Bilboko Udalak, garraio publikoko tarifetan hobariak emanda, gizarte politika egin nahi du, eta, horregatik, eskatzaileen errenta eta ondarea hartzen ditu kontuan. Hala, hobaria duen gizarte txartel bat sortu du. Horien onura hainbat pertsonak izan dezakete, horien artean ezgaitasunen bat duten pertsonak, adina edozein dutela ere, betiere ordenantzak ezartzen dituen ekonomia eta ondare arloko baldintzak betetzen badituzte.

Halaber, mugikortasun mugatua duen Gorlizko bizilagun batek helarazi zigun kexa aipatu behar dugu. Pertsona hori egunero joaten zen Gasteizko bere lantokira, langileek berek antolatutako erabilera bereziko garraio linea batean. Bere kexan, adierazi zigun ez zegoela ados, zerbitzua ematen zuten enpresek ez zeukatelako 55 leku edo gehiagoko ibilgailu egokiturik.

Enpresa pribatuak ibilgailu egokituak erosten joan dira, zerbitzu bereziak eman ahal izateko, baina, oraingoz, dauzkaten autobusak ez dira hain handiak.

Gure iritziz, irisgarritasuna sustatzeko legetik eta lege hori garraioaren arloan garatzen duen dekretutik ez da ondorioztatzen ibilgailu egokituak erosteko betebeharra dagoenik, autobusaren helmuga edozein dela ere. Alabaina, hori ez da eragozpena autokar enpresa pribatuak pixkanaka-pixkanaka ibilgailu egokituaren flota gero eta osatuago batez hornitzeko, batez ere administrazioek diru-laguntzak ematen badituzte autobus horiek erosteko.

Azkenik, adierazi behar dugu ezohiko txosten bat egitea aurreikusi dugula 2010. urterako, Euskal Autonomia Erkidegoko garraioa mugikortasun mugatuko pertsonentzat irisgarria den aztertzeko.

Garraio sistema publikoak zein pribatuak berdintasun baldintzetan eta modu autonomoan erabiltzea funtsezko oinarrietako bat da mugikortasun mugatuko pertsonak gizarteratu daitezen eta gizartean parte har dezaten lortzeko.

Horregatik, hiru lurralde historikoetako garraio bideen irisgarritasun egoerari buruzko diagnostiko bat eduki nahi dugu, Irisgarritasunari buruzko 2004-2012ko Plan Nazionalak aurreikusten dituen lekualdatzeei loturiko hiru arazo multzoak kontuan hartuta.

Hala, analisiaren lehenengo atala kanpoko irisgarritasunaren ingurukoa izango da, hau da, kalearen eta garraio ekipamenduaren (estazioa, geltokia, terminala, geralekua) arteko bidea irisgarria eta ibiltzeko modukoa al den. Azterlanaren bigarren atalean, barneko irisgarritasuna

aztertuko da, hau da, ekipamendu barruko joan-etorria eta garraiobidearen sarbidea. Azkenik, ibilgailuaren barruko garraio baldintzak aztertuko dira.

Azterlan horren bidez, egoeraren benetako diagnostikoa egin ahal izango dugu, eta esan ahal izango dugu nahikoak ote diren garraiobideen irisgarritasun unibertsala bermatzeko lege, teknologia eta ekonomia aldetik egiten ari den ahalegina. Badakigu arlo horretan neurri garrantzitsuak hartzen ari direla, baina eguneroko errealitate gordinera hurbiltzen garenean, atal honetan azaldu ditugun egoeretan egiaztatu ahal izan dugun bezala, ikusten dugu asko dagoela oraindik egiteko, modu autonomoan mugitzeko oztopoak gainditzeko eta erabateko irisgarritasunaren erronka lortzeko.

Osasuna

Arlo honi dagokionez, gorrek, entzuteko ezgaitasuna dutenek eta gor-itsuek osasun arloko informazioa eta komunikazioa lortzeko aurkitzen dituzten oztopoak aipatu behar ditugu. Hain zuzen ere, oztopo horiek sortzen dira, edo ez daukatelako keinu hizkuntzako interpretirik, edo ez daukatelako beharrezko laguntza baliabiderik ahozko hizkuntzaren bidez komunikatzeko.

Urriaren 23ko 27/2007 Legeak espainierazko keinu hizkuntzak aintzatesten ditu, eta arautu egiten ditu gorren, entzuteko ezgaitasuna dutenen eta gor-itsuen ahozko komunikaziorako laguntza bitartekoak, ingurunearekin komunikatzeko dauden oztopoak gainditzeko ezinbesteko tresna gisa, harremanak izateko modua hautatzeko askatasun printzipioa oinarri dela, talde bakoitzaren aniztasuna eta baldintza espezifikoak kontuan hartuta.

10. artikuluan, osasun arloari buruz ari delarik, xedatzen du administrazio publiko eskudunek sustatu egin behar dutela espainierazko keinu hizkuntzako edota autonomia erkidegoetako keinu hizkuntzetako interprete zerbitzua ematea hala behar duten erabiltzaileentzat, baldin eta aurrez hala eskatzen badute, gorrak, entzuteko ezgaitasuna duten pertsonak eta gor-itsuak artatzen dituzten osasun zentroetan.

Horri dagokionez, espedienteak izapidetzean eta gorren hainbat elkartek ondorio horietarako egin dituzten aldarrikapenen bidez egiaztatu dugu gaur egun zailtasun handiak daudela keinu hizkuntzako interprete zerbitzua lortzeko, bai osasun zentroetan eta bai ospitaleetan.

Osasun administrazioak aurtengo irailean emandako azken informazioarekin bat, adierazi behar dugu berriro ere lantalde bat jarri dugula martxan, helburu nagusi batekin: jarduteko aholkuak ezartzea, osasun sareko zentroetan gorrei, entzuteko ezgaitasuna dutenei eta gor-itsuei modu homogeen erantzun ahal izateko. Espero dugu lantaldeak luze gabe egitea proposamen konkretu bat.

Bestalde, adierazi behar dugu ugariak izan direla entzuteko ezgaitasuna duten pertsonen kokleako inplanteen inguruan aurkeztutako kekek.

Kokleako inplantearen teknologiak irauli egin du entzuteko erabateko ezgaitasun neurosentsorialaren mundua. Ebakuntza baten bidez barneko belarrian ipintzen den gailu bat da, gorreria neurosentsorial larria edo erabatekoa duten pazienteei laguntzeko diseinatu; izan ere, paziente horiek ez dute onura handirik edo batere lortzen ohiko audifonoekin. Horren bidez, pazienteek ingurumeneko soinuak detektatu ahalko dituzte, gehienek ezpainak irakurri beharrik izan gabe ulertu ahalko dute hizkuntza, eta zenbaitek telefonoa ere erabili ahalko dute. Bi parte nagusi ditu: barrukoa, kokleako inplantea izenekoa, eta kanpokoa, hizkuntzaren prozesadore bat.

Erakunde honetara jo duten pertsonak adierazi dute osasun administrazioak ez duela irizpide homogeneousik gailu hori lortzeko eta ondoren jarraipena egiteko prestazioari dagokionez; halaber, adierazi dute aukerarik ez dagoela kokleako inplanteko parteren bat berritu behar izanez gero hori finantzatzeko.

Osasun administrazioarekin izan ditugun komunikazioetan, adierazi diogu osasun administrazioak prestazioak lortzeko eta emateko baldintzak ezarri behar dituela, Osasun Sistema Nazionaleko zerbitzu erkideen zerrenda eta horren eguneratze prozesua ezartzen dituen irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretuak xedatzen duenez, eta prestazio horiek pazienteen osasun beharrianak bermatuz eman behar direla, arreta espezializatuko medikuaren errezeta eskatuta.

Arrazoi horregatik, uste dugu prestazio hau emateko prozesuan badirela protokolo batean sartu beharreko hainbat inguruabar edo fase.

Osasun administrazioak 2009ko lehenengo hiruhilekoan eman zigun informazioarekin bat, egiaztatu ahal izan genuen prestazioa emateko gidalerro homogeneouso batzuk landu eta zehazteko lan egiten ari zirela.

2009ko abenduan, Osakidetzak jakinarazi zigun protokolo hori formalizatzeko lanean ari zela. Nolanahi ere, jakinarazi zigun gure autonomia erkidegoko erreferentzia zentroa Donostia ospitalea izatea erabaki zutela, eta horretarako beharrezkoa zela medikuz hornitzea.

Horren inguruan sortu den beste arazoetako bat da prestazioaren barruan ez dela sartzeko kokleako aldeko inplantea, hau da, bigarren inplantea. Horri dagokionez, jakinarazi digute bigarren inplantea egiteko indikazio terapeutikoa ebaluazio fasean dagoela, medikuen artean eztabaida sortu baita horren inguruan, nahiz eta zenbait osasun zerbitzu autonomikok jadanik sartu duten osasun prestazio gisa.

Etxebizitza

Gure autonomia esparruaren barruan, Irisgarritasuna Sustatzeko 20/1997 Legeak gure erkidegoko pertsona guztiei ingurune fisikorako eta komunikaziorako sarbidea bermatzeko hartu behar diren neurriak jasotzen ditu, eta, bereziki, hainbat arrazoi direla medio egoera ahulagoan dauden pertsonak gizarteratzen laguntzeko ekintza neurri positiboak jasotzen

ditu; izan ere, horrek desberdintasun baldintzetan kokatzen ditu gizartean, eta neurri horiek funtsezkoak dira herritar guztiek oinarrizko eskubideez gozatzeko.

Alde horretatik, Legeko 9. artikulua behartu egiten du mugikortasun mugatuko pertsonentzako etxebizitzak gordetzera bai babes ofizialeko etxebizitzaren promozioetan eta bai libre izendatutako etxebizitzetan. Gainera, arau horrek xedatzen du sustatzaileek esleipendunaren ezaugarrietara egokitu behar dituztela gordetako etxebizitzak.

2009. urtean, 2008an hasitako kexa espedienteak ebatzi dira. Horietako gehienetan adierazten da eraikuntza gabeziak daudela ezgaitasunen bat duten pertsonentzat gordetako etxebizitzetan, hain zuzen ere ez daudelako egokituta haien beharrezanetara. Kasu horietan, Arartekoak erantzun berehalako eta eraginkor bat eskatu zien etxebizitzak sustatzen dituzten administrazioei; izan ere, etxebizitzak egokituta ez egoteak galarazi egiten du mugikortasun mugatuko pertsona esleipendunak berehala okupatzea eta modu autonomoan erabiltzea.

Dena dela, iaz ez bezala, 2009an adieraz dezakegu herritar gutxiak aurkeztu dituztela eraikuntza gabezien inguruko kexak. Aldiz, ugaritu egin dira ezgaitasunen bat duten pertsonen egokitu gabeko etxebizitza libre baten truke egokitutako etxebizitza babestu bat eskuratzeko aukeren inguruan egindako kontsultak.

Halaber, errenta erregimeneko etxebizitzaren esleipenean ezgaitasun psikikoa duten pertsonentzako kupoa aplikatzearen inguruko kontsultak jaso ditugu. Hain zuzen, ezgaitasun mota hori babes bereziko gizarte egoera gisa ezarri zen Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2008ko otsailaren 16ko aginduan, babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedurari buruzkoan.

Alde horretatik, bereziki aipagarria iruditzen zaigu herritar batek ezgaitasun psikikoa zuen anaia baten izenean aurkeztutako kexa. Izan ere, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak zehapen bat jarri zion, ez zuelako bete babes ofizialeko bere etxebizitza bizileku ohiko eta iraunkor gisa erabiltzeko betebeharra.

Erreklamatzailerak bere kexan azaldu zuen bidegabekoa iruditzen zitzaizela zehapena jartzeko orduan ez kontuan hartzea bere anaiaren inguruabar pertsonala. Izan ere, zalantzarik gabe, horrek baldintzatu zuen etxebizitza babestua bizileku ohiko eta iraunkor gisa ez erabiltzea.

Kexaren sustatzaileari gomendatu genion jar zezala helegite bat zehapen ebazpen horren aurka. Aldi berean, Arartekoak lankidetzara eskaera bat igorri genion administrazioari. Idazki haren bidez, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari eskatu genion xeheki azter zitzala erreklamatzailerak aurkeztutako alegazioak eta horiekin batera aurkeztutako epaia. Izan ere, epai horretan agerian gelditzen zen erreklamatzaileraren anaiak ezgaitasun psikiko bat zuela eta bere eguneroko bizitzan beharrezkoa zuela norbaitek gainbegiratzea, orientatzea eta laguntzea.

Erreklamazio horretako oinarriak geure eginda, administrazioari jakinarazi genion gure ustez erreklamatzaillearen anaiaren egoera pertsonala behar bezala hartu behar zela kontuan zehapen egintza berrikustean, eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak etxebizitza bizileku ohiko eta iraunkor gisa ez zuela erabili ebazteko zantzuak (ur kontsumoaren indize txikia) jabearen ezgaitasun intelektualaren arabera erabileraren ondorio zirela; izan ere, logikoki, denbora behar izan zuen egoera berrira moldatzeko, eta horretarako arrebaren laguntza behar izan zuen; horren emaitza gisa, etxebizitza modu mugatuan baina justifikatuan erabili zuen, kontuan hartuta ezgaitasun psikikoa duela eta haren helburua bizitzaren eremu guztietan erabat integratuta normal bizitzea dela.

Halaber, sail horri gogorarazi genion Espainiako Konstituzioko 49. artikuluan xedatutako aginduaren arabera botere publiko guztien betebeharra dela pertsona ezgaituei behar duten babes ematea Konstituzioko eskubideak eta askatasunak gainerako herritarren baldintza berberetan gozatzeko, eta, horretarako, kendu egin behar dituztela erdi mailako ereduari erantzuten dion pertsonaren patroian oinarritutako gizarte egituratu honetan bertan agertzen diren oztopo eta baldintza murriztaile guztiak.

Azkenik, poz hartu genuen Etxebizitza, Herrilan eta Garraio Sailak erreklamatzailleak aurkeztutako administrazio helegitea baietsi zuelako eta baliorik gabe utzi zuelako haren anaiari bidegabeki jarri zioten zehapena.

Gizarte politikek erraztu egin behar dute ezgaitasunen bat duten pertsonen autonomia areagotzen, eta ez horiek konpentsazio gisa hartuta, baizik eta parekatzea lortzeko lan eginez. Ezgaitasunen bat duten pertsonen beharrezko baliabideak eta bitartekoak izan behar dituzte beren bizi eredia banaka sortzeko edo ezartzeko.

II.5

BERARIAZKO ARRETA ETORKINEI

5. BERARIAZKO ARRETA ETORKINEI

Atal honetan, Arartekoak etorkinen eskubideak defendatu eta horien gizarteratzea sustatze aldera, 2009. urtean, egindako jarduerak laburtu ditugu. Pertsona horiek gizarte eta lan zaugarritasun egoeran daudela eta eskubideak baliatzeko mugak dituztela, batez ere, arauz kanpoko administrazio egoeran daudenean, egiaztatu da. Hala, gizarte zaugarritasun egoeran daude, babesteko gizarte sarerik gabeko eta bizilekua eskuratzeko zailtasun handiak dituen gizartean bizitzeak dakartzan zailtasunei aurre egin behar baitiete. Horrez gain, lan zaugarritasun egoeran daude, pertsona batzuek ez baitute lan egiteko administrazio baimenik. Hortaz, ezkutuko ekonomiaren sektoretan edo etxetan (etxe zerbitzua eta familiako zaintza) egiten dute lan eta, administrazio baimena dutenean, etorkinek lortzen duten enplegua prekariora da eta lan baldintzak ez dira kasuan kasuko erkidegokoek berberak.

Inmigrazioaren arloko politikak gertutasuneko kontu publikoen kudeaketatik urrun dauden esparruetan (Europar Batasuna, Espainiako Gobernuak) erabakitzen dira. Hala da, hain zuzen, tokiko esparrua. Etorकिनen arauzko sarreraren edo lan egiteko administrazio baimena eskuratzearen edo, hala badagokio, berritzearen inguruko mugak ez dira oztopo, besteak beste, etxebizitza, osasun, hezkuntza eta kultura premiak dituzten etorkinak Euskal Autonomia Erkidegoan bizitzen jarrai dezaten. Lurraldeko administrazioek aipatu beharrei erantzuna ematen diete pertsona horien egotea barne hartzen ez duten Europako eta Espainiako araudia aplikatzeak dakarren kontraesanarekin. Ildo horretan, ordea, aipatu araudian jasota dago ezin dutela lan egin arauz kanpoko administrazio egoeran daudelako.

Egoera horri une honetan lan merkatuko (dela arauzkoa dela ezkutukoa) aukerak jaitsi direla gehitu behar zaio. Etorकिनen langabezia igotzeak gizarte zerbitzuen laguntza eskaerak ugaritzea ekarri du eta atal honetan aztertuko ditugun konpromiso garrantzitsuak hartu dira.

5.1. ARAUZKO BERRITASUNAK ETA POLITIKA PUBLIKOAK

Jarraian, 2009. urtean, Europar Batasunak, Espainiak eta Euskal Autonomia Erkidegoak erabilitako araudiak eta politika publikoak bildu ditugu.

5.1.1. Arauzko berritasunak

Aurten, atzerritarren eskubideei eragiten dieten bi lege onartu dira: atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta euren gizarteratzeri buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa aldatzen duen (2/2009 Legea) abenduaren 11ko 2/2009 Lege Organikoa eta asilo eskubidea eta babes subsidiariorako eskubidea arautzen dituen urriaren 30eko 12/2009 Legea. Aipatu legeak garatuko dituzten araudietan aldaketan irismena eta atzerritarren eskubideengan dituzten ondorioak zehaztuko dira. Hori dela eta, arauzko garapen horrek garrantzi handia dauka. Halaber, kalean CDak eta DVDak saltzen dituzten pertsonen eragingo dien Zigor Kodearen aldaketa izapidetze bidean dago. Aipatu pertsonak, gehienetan, arauzko kanpoko administrazio egoeran dauden atzerritarrak dira.

- Asilo eskubidea

Errefuxiatuen estatutuaren aintzatespenak tartean duen babesak 151 pertsona baino ez zituen barne hartu, 2008. urtean Asilo eta Babes Bulegoak emandako datuen arabera, erregistratu ziren eskaerak 4.517 izan zirela kontuan hartuta. Datu horiek eta Europako beste herrialde batzuetakoak eta Espainian bizi diren atzerritarren kopurua desberdinak dira. Egia hauxe da: Espainian asiloaren figura hutsala izan da. Lege berriak egoera berriak planteatzen ditu. Beraz, eskubide humanitarioaren babesaren figura garrantzitsu horren bilakaera ikusi beharko da.

- Atzerritarren eskubideak

Epigrafe honetan, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta euren gizarteratzeri buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa aldatzen duen abenduaren 11ko 2/2009 Lege Organiko berriaren alderdi batzuk gailendu ditugu, eta aipatu alderdien interesagatik edo Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioei eragiten dietelako azpimarratu nahi ditugu:

- Sarrera, itzulketa ukatzearen edo kanporatzeko aginduaren aurka errekurtsua aurkeztu nahi duten atzerritarrek abokatuari edo izendatu zaien ofiziozko abokatuari ahalmena eman behar diote eta, horretarako, beharrezkoa izango da errekurtsua jartzeko nahia berariaz jasotzea.
- Araudi berriaren ezarpenek genero indarkeriaren biktima izan diren emakume atzerritarren egoera hobetzen dute, bizilekuaren behin-behineko baimenaren ematea salbuespenezko inguruabarrengatik bizileku baimena behin betiko ematen edo ukatzen den arte xedatzen denean. Horrez gain, babesaren arloan ezarritako eskubideak eta segurtasun neurriak ematea xedatzen da, administrazio egoera edozein dela ere.
- Beste aurrerapen batek emakumeen salerosketaren biktimak ditu hizpide. Aipatu biktimek 30 eguneko hausnarketa aldia edukiko dute agintariekin elkarlanean arituko diren erabakitzeko. Onartu eta salaketa eginez gero, bizileku baimena lortuko dutela dago xedatuta.
- Bakarrik dauden adingabe atzerritarrei dagokienez, herri-administrazioei eragiten dieten berritasun batzuk daude: gizarte erakundeek adingabeen tutoretza gain hartzeko ezarpena eta tutoretzak autonomia erkidegoen artean eskualdatzeko aukera. Horrez gain, autonomia erkidegoek jatorrizko herrialdeekin akordioak planteatzakete, adingabeen irteera saihesteko. Bestalde, lege berriak babesteko erakundeen eskumena argi eta garbi xedatzen du, adingabetasuna segurtasunarekin ezarri ezin zaion agiririk gabeko atzerritar bat aurkitzen denean.
- Autonomia erkidegoei emandako funtzio berriei dagokienez:

- Nazionalitate espainiarra emateko espedientean, gizarteratzea egiaztatzen duten txostenak egitea.
 - Baimena berritzeko eskaeretan edo epe luzerako egoitza eskaeretan, adingabeen eskolatzea egiaztatzen duten txostenak egitea.
 - Autonomia erkidego batzuk laneko hasierako baimena ematerakoan eskumen exekutiboa gain hartuko dutela ezarri da.
 - Bizilekua baimentzeko prozeduretan edo aipatu bizilekua berritzerakoan ordena publikoaren eraginari buruz Ertzaintzaren txostenak prestatzea.
 - Etorkinak gizarteratzeko ahalegina egiaztatzen duten txostenak egitea, aldi baterako bizileku baimena berritzerakoan beste baldintza batzuen falta betetzeko osagai gisa. Euskal Autonomia Erkidegoko txosten positibo honek legean jasotako preskakuntza ekintzen bertaratzearen egiaztatpena barne hartu behar du.
- Azkenik, arau-hausteen tipifikazio berriari dagokionez, zigortu ahal izango diren jokabide edo jarrera berriak gehitu dira, hala nola, erroldan izena ematea baimentzea etxebizitza pertsonaren benetako bizilekua ez denean edo udal erroldan alta emateko nahitaezko datuen deklarazioan egia ez esaterakoan.

Laburbilduz, **araudi berriak aldaketa garrantzitsuak proposatu ditu, hain zuzen, atzerritarrak dokumentatzeko prozesuetan eta bakarrik dauden adingabe atzerritarrei arreta ematerakoan beste herri-administrazio batzuen parte hartzeari dagokionez. Horiek guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioaren zerbitzu publikoentzako ahalmen berriak ekarriko dituzte nahitaez.** Halaber, atzerritarren zenbait eskubideri ere eragiten die. Aipatu atzerritarren arauketa gehiago dator bat genero indarkeriaren biktima diren emakumeen edo pertsonen salerosketa delituaren biktima diren emakumeen babesari buruz onartutako Konstituzio Auzitegiaren doktrinarekin edo onartutako konpromisoekin. Bestalde, arau-hauste berriak erantsi dira, barneratze aldia 60 egunetara luzatu da, gurasoen familia berriz elkartzeko mugatu da; **hori inmigrazioaren arloko politika murriztailearen adierazle da, hain zuzen, lan merkatuan sartzen ez diren erkidegoz kanpoko atzerritarrak ezartzerakoan.**

- Zigor Kodearen aldaketa

Zigor Kodearen aldaketan aurreikusitako aldaketa bat izango dugu, arauz kanpoko administrazio egoeran dauden atzerritar askok burutzen duten jarduera bati eragiten baitio. Aipatu jarduera CDen eta DVDen salmenta da. Diputatuen Kongresuak Zigor Kodea aldatzeko proiektua onartu du. Bertan, espetxe zigorra murriztea eta isun edo gizartearen mesederako lanak ezartzea aurreikusi da, ikus-entzunezko materialaren salmenta –*top manta* izenarekin ezagutzen da– txikizkakoa denean eta irabazi ekonomikoa txikia denean. “Errudunaren ezaugarriak” ere kontuan hartuko dira.

Aldi berean, Bizkaiko Probintzi Auzitegiko Magistratuen Batzordeak zigorraren hiru sekzioen irizpidea batu du. Probintzia Auzitegiko osoko bileraren akordioaren arabera, maila txikian egiten den kopien salmenta ez da funts nahikoa jabetza intelektualaren kontrako delituaren zigortzat jotzeko; Zigor Zuzenbidea egoera larriagoentzat gorde behar dela aipatu da; eta ezarritako zigor penala neurrigabekoa da, salbuespenezko kasuetan izan ezik (Zigor Kodeari jarraiki, bi urteko espetxe aldia bide publikoan CDak eta DVDak erakusgai jartzeagatik edo txikizkako salmenta egiteagatik). Auzitegiek erabili dituzten beste arrazonomendu batzuk honako hauek dira: urratutako ondasun juridikorik eza, kontsumitzailearentzat ez baitago nahasketarako arriskurik esku hartutako produktuen eta jatorrizko produktuen artean; beste baliabide juridiko batzuen erabilera, hala nola, zigortzeko administrazio eskubidea edo auzibidea, egileak edo jabeak kalte ekonomikoak jaso ditzaten, alegia, esku hartzeko gutxieneko printzipioa (270. artikuluari jarraiki, jokabide edo jarrera larrienak hartu beharko lirarteke aintzat), subsidiarotasun printzipioa (jabetza intelektualaren urratze batzuei zuzenbide zibiletik eta administrazio zuzenbidetik heltzea), proportzionaltasun printzipioa (ezarritako zigorra neurritz kanpokoa da lortu nahi den jarrerarentzat) eta kaltegarritasun printzipioa (alderdi penalean ezin dira beste jokabide batzuk zigortu. Aipatu alderdian larritasunagatik kalte arriskua edo benetan babestutako ondasun juridikoa kaltetzen dutenak bakarrik zigortu ahal izango dira).

Delitu hori egiteagatik zigortzen dituzten atzerritarrek bizileku eta lan baimena eskuratzeko zailtasun asko dituzte. Baimen horren ematea zigor aurrekariak ez edukitzea egiaztatzearen mendekoa da. Beraz, aldaketak aipatu pertsonen gizarteratze prozesuari eragiten jarrai dezake. Dokumentatzeko prozesuari eragiten dioten jardueri buruzko epigrafean, delitu hori egiteagatik zigortu den pertsona baten kexa bat izan dugu hizpide. Hortaz, bizileku baimena eskuratzeko zailtasunak ditu.

5.1.2. Politika publikoak

- Europar Batasuna

Europar Batasuneko justizia eta barne programa berriak, "Stockholm programak", inmigrazioarako asilo politika bateratua abian jartzeko aurrerapenak planteatu ditu. Ildo horretan, garrantzitsua iruditu zaigu aipatu programa aipatzea. Izan ere, Europar Batasuneko inmigrazioaren arloko politikak atzerritarren egoerari modu esanguratsuan eragiten dio.

1999ko Tampereko Europako Kontseiluak lehendabiziko politika-eremua abiarazi zuen segurtasun eta barne arloan, eta asilo eta inmigrazio politika komunaren eta mugetako kontrolak bateratzeko oinarriak jarri zituen. Tampere programari hona La Hayako programa jarraitu zitzaion, eta orain Stockholm programari dagokio. Hala, lehentasunak honako hauek dira: mugak hobeto kudeatzea eta lan merkatuaren beharrak asetzea, Europar Batasunean etorkinen eskubideak bateratzea eta inmigrazioaren jarraibideei eta merkatuko joerei buruz ikuskapen hobea lortzea. Horretarako, mugen barruan lankidetzaren indartzeko, migrazio fluxuak kudeatzerakoan beste herrialde batzuekin elkarlanean aritzeko eta arauz kanpoko egoeran dauden etorkinen atxiloketa eta kanporatze politika mantentzeko orain arte jarraitu

diren politikekin jarraitzea aurreikusi da. Halaber, borondatezko itzuleraren pizgarriak planteatu ditu. Beraz, programak Frontexen (mugaz gaindiko Europako agentzia) mugaz gaidiko kontrolari eta mugaz zaintzeko sistemari lehentasuna ematen jarraitzen du.

- Euskal Autonomia Erkidegoa

Euskal Autonomia Erkidegoan, plan autonomikoak (Inmigrazioari buruzko II. Euskal Plana) eta atzerritarren gizarteratzea, laneratzea eta parte hartzea xede duten neurriak planteatu dituzten udal planak egin dira (Donostia, Gasteiz, Eibar, Barakaldo, Irun, etab.).

Arabako sasoiko langileen egoera aintzat hartzen duen inmigrazio mahaiaren egitekoak jarraitzen du. Herri-administrazioek eta Landa Garapenerako 2007-2009 Programaren esparruko gizarte erakundeek osatu dute aipatu mahaiak. 2008. urtearen amaieran, diagnosa eta Arabako Errioxara lan egitera edo geratzera etortzen diren pertsonen trabak ezabatzeko esku hartu beharreko esparruetan proposamenak amaitu ziren.

5.2. ZAILTASUNAK ERKIDEGOZ KANPOKO ATZERRITARREN BIZILEKU ETA LAN BAI-MENA LORTZEKO PROZESUAN

2008. urtearen amaieran, Eusko Jaurlaritzako arreta juridiko sozialeko zerbitzu publikoko hiru bulegoak, Heldu programa, bisitatu genituen. Helburua atzerritarrek dokumentatzerakoan izaten dituzten zailtasunen berri edukitzea zen. 2008ko urteko txostenean bisita horietan bildutako informazioa aipatu genuen.

Herriaren Defendatzaileari aipatu informazio bidali diogu. Defendatzaile hori Espainian atzerritarren dokumentatzearen arloan eskumena duten herri-administrazioen jarduna egiaztatzeaz eta aipatu taldearen eskubideak defendatzeko legeko aldaketak eta nahi-taezko jarduerak bultzatzeaz arduratzen den erakundea da.

Horren harira, Herriaren Defendatzaileak planteatutako alderdi batzuen inguruan hauxe erantzun digu:

- Nigeriako autoritateek emandako zigor aurrekarien egiaztatzea lortzeko Nigeriako herritarrek dituzten zailtasunak eta, ondorioz, 2393/2004 Araudiko 45. artikuluan xedatutako erregularizazio bideari heltzeko ezintasuna.

Nigeriako herritarrek ezin dute jatorrizko herrialdeko, alegia, Nigeriako, zigor aurrekarien egiaztatzea lortu Espainian daudenean, aipatu ziurtagiria eskatzeko beharrezkoa baita Nigerian egotea. Lagosan dagoen Espainiako Kotsulatuak esan zuen praktikak ez duela bide-rik ematen aipatu praktika postaz egiteko, ezta enbaxaden edo kotsulatuen bitartez ere. Kotsulatuaren ustez, zigor aurrekarien egiaztigiriaren edukari legezkotasun osoa ematen

dion egintza interesduna bertan egotearekin, identifikatzearekin eta hatz markak hartzearekin perfektionatzen da. Hori dela eta, interesduna une horretan aurrean egon behar da.

Herriaren Defendatzaileak Inmigrazio Zuzendaritza Nagusira jo zuen eta Nigeriako herritarren egoera agerian jarri zuen. Izan ere, pertsonok abenduaren 30eko 2393/2004 Errege Dekretuan jasotako salbuespenezko egoeraren batean egon arren, ezin diete beren egoera normalizatzeko aipatu inguruabarrei heldu, hain zuzen, Nigeriako autoritateek emandako zigor aurrekarien ziurtagiria aurkeztu ezin dutelako; hori guztia, bizileku baimena lortzeko. Inmigrazio Zuzendaritza Nagusiaren iritziz, Abujan dagoen Espainiako Enbaxada eta Lagoson dagoen Espainiako Kontsulatua zuzen ari ziren jokatzeko, zigor aurrekarien egiaztagiriak legezatzeko interesdunak aipatu egiaztagiria eskatu zuela jasota egotea eskatu zutenean. Gauza bera gertatu zen gobernuko autoritatearekin, Nigeriako herritarrek eskatutako bizileku baimenen eskaerak ukatu zituztenean –eskaera horien harira, ez zen Nigeriako autoritateek emandako zigor aurrekarien egiaztagiria eman– edo aurkeztutako egiaztagiriak Nigeriako legeek ezarritako formaltasunei jarraiki izapidetu ez zirenean. Herriaren Defendatzaileak Inmigrazio Zuzendaritza Nagusiari egoera konpontzeko irtenbideren bat bilatzeko eskatu zion. Azkenik, *“tras una reunión de representantes de los Ministerios de Administraciones Públicas, de Asuntos Exteriores y de Cooperación, de Interior, de Justicia y Trabajo e Inmigración, se propuso a las autoridades nigerianas la conveniencia de desplazar a su Embajada en Madrid a funcionarios y equipos de su Registro Central Criminal para identificar y tomar huellas dactilares a los ciudadanos nigerianos que reunieran las condiciones para obtener autorización por arraigo remitiéndolas después al citado Registro para que éste les expida el correspondiente certificado de antecedentes penales. Este certificado debe ser legalizado por el Ministerio de Asuntos Exteriores nigeriano, el Consulado General de España en Lagos y por el propio Ministerio de Asuntos Exteriores y de Cooperación.”*

Ondorioz, Nigeriako polizi zerbitzuak 2008. eta 2009. urteetan Espainiara etorri dira Nigeriako herritarrei izapide hori egiten laguntzeko.

- Arauz kanpoko egonaldia eta gero kanporatzeko ebazpena –bete gabe– duten pertsonen finkatutako bizileku baimen eskaeren aurrean, Gobernuaren Ordezkarior-detza eta Ordezkaritza batzuen artean antzemandako praktika desberdintasuna

Herriaren Defendatzaileak Inmigrazio eta Emigrazioko estatu idazkariak eta Inmigrazioko zuzendari nagusiak kontu horri buruz egin duten jardueraren berri eman digu. Ildo horretan, beraz, Gobernuko Ordezkaritzei eta Ordezkariordeizei eta Atzeritarren Bulegoko buruei edo, hala ezean, Lan eta Inmigrazio arloko edo bulegoko buruei indarrean dagoen araudia- ren edukia eta irizpidea helarazi zaizkie.

Ondorioz, *“se recordó que conforme a lo establecido en la disposición adicional cuarta de la Ley Orgánica 4/2000, sobre derechos y libertades de los extranjeros en España y su integración social, cuando un extranjero solicite una autorización de residencia temporal por*

circunstancias excepcionales, basada en motivos de arraigo, si constase un procedimiento administrativo sancionador contra el solicitante en el que pudiera proponerse la sanción de expulsión, o bien cuando se haya decretada en contra del mismo una orden de expulsión judicial o administrativa, la autoridad competente deberá inadmitir a trámite la citada solicitud. No obstante, para los supuestos en los que haya ido impuesta dicha sanción de expulsión, motivada únicamente en la permanencia ilegal del interesado, se recordó la posibilidad y el criterio favorable de la Secretaría de Estado de Inmigración y Emigración en relación con la revocación de dicha orden de expulsión administrativa, por los delegados de Gobierno o los Subdelegados de Gobierno, tras un minucioso estudio caso por caso, de acuerdo con lo dispuesto en el art. 105 de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, según el cual las Administraciones Públicas podrán revocar en cualquier momento sus actos de gravamen o desfavorables, siempre que tal revocación no constituya dispensa o exención no permitida por las leyes, o sea contraria al principio de igualdad, al interés público o al ordenamiento jurídico.

En el caso de que se decidiera la revocación de la sanción de expulsión, deberá sustituirse por una sanción de multa pecuniaria, puesto que la revocación sin más supondría dejar impune una infracción administrativa, vulnerando uno de los límites de la potestad revocatoria, como es el ordenamiento jurídico, siendo exigible además que la revocación sea acordada por el mismo órgano que la impuso, el órgano competente (art. 12.1 de la Ley 20/10992).

En tal sentido cabe señalar, como sustento del criterio adoptado por esta Secretaría de Estado, que la reciente jurisprudencia del Tribunal Supremo, mantiene, por interpretación de los artículos 53.a), 55.1.b), 55.3 y 57.1, de la citada Ley Orgánica 4/2000, que la sanción principal a imponer, en los supuestos de estancia ilegal de extranjeros en España, es la de multa, sin perjuicio de aplicar la de expulsión, en su lugar, cuando existe una motivación específica y distinta o complementaria a la de simple permanencia irregular del extranjero.”

Azkenik, Herriaren Defendatzaileak mahaigaineratu diren gainontzeko alderdien banakako analisia egiteko beharra aipatu du. Alderdi horiek, besteak beste, honako hauek dira: zigor aurrekariak ofizioz baliogabetzea, lan baldintzak berritzeko mantendu ziren irizpideen ondotik sortutako irregulartasun egoerak edo familia berriz elkartzeko espedienteetan kaudimen ekonomikoa egiaztatzeko irizpide desberdinak.

Aipatu espedientea izapide bidean dago. Dokumentatze prozesuan atzerritarrei eragiten dieten zailtasunak eta arazoak helaraztean eta dokumentatzeko prozesuan zailtasunak gainditzeko bidea ematen duten lankidetzak bideak ezartzean datza.

Halaber, Bilboko HELDU bulegora bisita egin ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazio bati eragiten dion alderdi bati buruzko ofiziozko jarduera bat hasi genuen eta Bilboko **gizarte finkatzeari buruzko txostenak egiteko atzerapena** izan genuen hizpide. Esku artean genuen informazioari jakinarazi, Bilboko Udalak 6 eta 8 hilabete arteko tartea behar izaten zuen estatuko administrazio orokorrean gizarte finkatzeagatik bizilekuaren

baimen eskaera izapidetzeko beharrezkoa den gizarte txostena egiteko. Udalak honako honen berri eman digu (esp. zk.: 8/2009): *julio de 2008 el Área de Igualdad, Cooperación y Ciudadanía del Ayuntamiento de Bilbao había puesto en marcha el SEMI SOCIAL, Servicio Gestionado por CEAR–EUSKADI, con la finalidad de agilizar los trámites correspondientes a las solicitudes de los Informes de Inserción Social a efectos de arraigo y reducir el tiempo transcurrido desde que las personas solicitantes entregan la solicitud hasta la emisión del citado Informe.*

Informazioarekin bat, txostenen eskaera aurkeztu zen eta, ondorioz, atzerapen garrantzitsua egon zen. Hala, gizarteratzeko eta etxebizitza eskuratzeko txostena egiteko denbora murriztu zen. Erantzunean zerbitzuaren funtzionamenduari buruzko informazio zehatza eman zitzaigun eta, bertan, zerbitzuaren atzerapenak saihesteko ahalegin garrantzitsua egin dutela gailendu da. Hortaz, gure esku-hartzea eten dugu.

Dokumentazio prozesuari eragin izana hizpide duten jaso ditugun kexen artean bizileku iraunkorreko baimena ukatu zaion pertsona batena daukagu. Kasu horietan, kexa Herriaren Defendatzaileari bidaltzen diogu, estatuko administrazio orokorraren jarduera kontrolatzeko eskumena duen erakundea baita. Pertsonak auzibidera jo zuenez, Herriaren Defendatzaileak ezin du esku hartu. Hala ere, kexak hizpide duen gaia adibide gisa aipatzea esanguratsua iruditzen zaigu, prozedura bermatzeko alderdiei eragiten baitie. Hala, eskaera honako arrazoi honengatik ukatu zen: polizi txostena ez zen aldekoa. Izan ere, Italian sartzeko debeku agindua zuen eta, ondorioz, eskaera ezin zen izapidetzeko onartu eta lan eta bizileku baimena ukatu ziren, urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoko laugarren xedapen gehigarriko 5. puntuari eta aipatu legea garatzen duen araudiko 53.1. j) eta 73.3. artikuluei (garatzen duen araudia onartzen duen 2393/2004 Errege Dekretua) jarraiki.

Italian sartzea debekatu zuen ebazpena identifikatzen ez dela da arazoa. Hori dela eta, ez da aipatu ebazpenaren edukia ezagutzen eta ez dakigu jakinarazi ote zen. Europar Batasuneko estatuetan emandako ebazpen horiek –bertan, atzeritarrek ez dute etxebizitarik–defentsarik ezarako bidea eman dezakete, pertsonok aurkitzea zaila baita eta, oro har, ez baitzaizkie zuzenean ebazpenak jakinarazten eta ez baitute ebazpenon edukia eta irismena ezagutzen. Hizkuntza ez ezagutzea beste zailtasun bat da. Ondorioak oso garrantzitsuak dira eta, hizpide dugun kasuan, lan kontratua iraungitzeko eta bizileku iraunkorreko baimena ukatzeko bidea eman zuten, bizileku eta lan baimenaren titularra izateko baldintzak betetzen zituela 5 urtetan egiaztatu ondoren.

Beste kexa batek, sarrera debekua zegoela aintzat hartu ondoren, bizileku eta lan iraunkorreko baimen eskaera ukatu zitzaion pertsona baten egoera zuen hizpide. Arrazoa hauxe izan zen: Alemanian asiloa eskatu zuen eta eskaera ukatu zioten. Kasu honetan, gainera, neskatala espainiar baten aita zen. Arabako Gobernu Ordezkariordeztzak onartu zuen gomendioa egin zuen Herriaren Defendatzaileak. Aipatu ebazpenaren bidez, agiri arazoa konpondu zen.

Estatu kideetako inmigrazio eta atzerritartasun legerian sartu da Schengengo altxorri buruzko Europako araudia. Hala ere, estatu kideetan indarrean dauden bizileku eta lan

arloko legeriak estatu kideetako araudiak dira eta estatu batean edo bestean desberdinak dira. Hori dela eta, beti ez dira bat etortzen eta horren adibide da sistema informatikoak sarrera debekatzea asiloa ukatzeagatik edo bizilekua ukatzeagatik, beste estatu batean bizileku baimena emateko baldintzak betetzen dituenean. Aipatu oharraren ondorengo eza-gutzak bizileku baimen eskaera edo berritzea ukatzea ekarriko luke, pertsona horrek, bizi den estatuko araudiari jarraiki, bizileku baimena edukitzeko baldintzak betetzen dituenean eta askotan sistema informatikoan oharra egiteko erabakiaren arrazoa edo zioa ezagutzen ez duenean.

Atzerritarra arauz kanpoko egoeran lan egiten ari denean, bat-batean jazotako irregular-tasunaren administrazio egoerak lan harremana deuseztatzea dakar eta, horren harira, pertsonak ez dauka langabezi prestaziorako eskubidea. Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Lan Arloko Salak interpretazio desberdinak egin ditu aurreko legearen 36.3. artikulua inguruan, hain zuzen, 08/06/3 Epaian. Bertan, 06/02/13 (2734/06 zk.ko gomendioa) eta 08/03/11 (187/08 zk.ko gomendioa) Epaietan izandako irizpidea aldatzen da. Bilboko Lan Arloko 4. zk.ko Epaitegiak 2009ko maiatzaren 18ko epaian, 260/2009 autoetan, salaren interpretazioa bildu du, alegia, lan baimena ez edukitzea ez da oztopo bizileku baimena edukiz gero jaso ahal izango zituen prestazioak lortzeko. *" Si, por el contrario, el extranjero tampoco cuenta con la autorización de residencia, el hecho de trabajar sin la autorización de Lana, pese a ser una falta grave, no será obstáculo para que pueda obtener 'las prestaciones que pudieran corresponderle'. ero tales prestaciones, de acuerdo con el Art. 14.3 LOEX, ya no serían las que reconoce en sus números 1 y 2 solo a los extranjeros 'residentes', sino los 'servicios y prestaciones sociales básicas'; entendiendo por tales, tanto los servicios sociales a los que alude el Art.53 LGSS, como aquellas prestaciones sociales que las leyes declaren o consideren básicas a estos efectos, entre las que cabe citar la prestación de asistencia sanitaria de urgencia que el Art. 12 de la propia LOEx reconoce a todos los extranjeros sin distinción, y también las prestaciones que nuestra sentencia de 26-5-2004 (rec. 351/2003) calificó de "asistencia social externa a la S. Social que no está comprendida en la reserva competencial del Estado (artículo 149.1.17 de la Constitución), sino en el artículo 148 de la norma suprema, como competencia, que puede ser exclusiva, de las Comunidades Autónomas (STC 239/2002)".*

Irizpide hori 2/2009 Legeak egindako 36.5. artikulua idazketa berrian ere jaso da. Hala, *" La carencia de la autorización de residencia y Lana, sin perjuicio de las responsabilidades del empresario a que dé lugar, incluidas las de Seguridad Social, no invalidará el contrato de Lana respecto a los derechos del trabajador extranjero, ni será obstáculo para la obtención de las prestaciones derivadas de supuestos contemplados por los convenios internacionales de protección a los trabajadores u otras que pudieran corresponderle, siempre que sean compatibles con su situación. En todo caso el trabajador que carezca de autorización de residencia y Lana no podrá obtener prestaciones por desempleo."*

Lan egin duen atzerritarrak ez dauka langabezi prestaziorako eskubiderik bere egoera arauz kanpoko bihurtzen bada. Beraz, langileen eskubideetan izango dituen ondorioak oso garrantzitsuak dira. Halaxe gertatu zen aipatu dugun kasuan. Italian sartzea debekatu

zitzaionez, Espainian lan eta bizileku baimena ukatu zaizkio eta lan kontratua iraungi zaio, langabezi prestaziorako eskubiderik gabe. Pertsona horrek Euskal Autonomia Erkidegoan bizitzen jarraitzen du eta sarrerak bermatzeko errenta eskatu du. Bizkaiko Foru Aldundiak laguntza eman dio baliabide ekonomikoak ez edukitzegatik, ez baitu langabezi prestaziorik jasotzen eta ezin baitu lan egin arauz kanpoko administrazio egoeran egoteagatik. Ildo horretan, garrantzitsua iruditu zaigu espediente honen inguruabarrak zehatz-mehatz azaltzea. Izan ere, gizarte politikei, bereziki, bazterkeriaren aurka borroka egiten duten baliabideen prestazio ekonomikoari eragiten dieten politika kontraesankorren adibide dira.

Azkenik, Europako Justizia Auzitegiko epaia, 2009ko urriaren 22koa, aipatuko dugu. Bertan, Murtziako Justizia Auzitegi Nagusiak planteatutako epaitu aurreko erabakiaren bi eskaera ebazten dira. Mahaigaineratu zen epaitu aurreko kontua honako hau zen: “Europako Erkidegoa Eratzeko Itunari eta, batez ere, 62.1. eta 2 a) artikuluei jarraiki, baita mugetan pertsonak joan-etorrian ibil daitezen arauen erkidegoko kodea ezartzen duen (Schengen Muga Kodea) 2006ko martxoaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 62/2006 Araudiarekin, bereziki, 5., 11. eta 13. artikuluekin bat:

Aurreko arauak arauketa baten aurkakoak direla ulertu behar al da? arauketa, adibidez, arautzea interpretatzen duen arauketa nazionala edo jurisprudenziala, Europar Batasuneko lurraldean sartzeko eta egoteko gaitzen duen titulurik ez duen “beste herrialde bateko” norbait kanporatu ordez isuna ezartzeko bidea ematen duena?

Europako Justizia Auzitegiak honako hau adierazi du: “*Los artículos 6 ter y 23 del convenio de aplicación del Acuerdo de Schengen, de 14 de junio de 1985, entre los Gobiernos de los Estado de la Unión Económica, Bneux, de la República Federal de Alemania y de la República Francesa, relativo a la supresión gradual de los controles en las fronteras comunes, firmados el 19 de junio de 1990 en Schengen, en su versión modificada por el Reglamento (CE) N° 2133/2004 del Consejo, de 14 de diciembre de 2004, sobre la obligación, para las autoridades competentes de los Estados miembros, de proceder al sellado sistemático de los documentos de viaje de los nacionales de terceros países en el momento de cruzar las fronteras exteriores de los Estados miembros, y por el que se modifica a tal efecto las disposiciones del Convenio de aplicación de Acuerdo Schengen y el Manual Común, así como el art. 11 del Reglamento (CE) N° 562/2006 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 15 de marzo de 2006, por el que se establece un código comunitario de normas para el cruce de personas por las fronteras código Shengen)* deben interpretarse en el sentido de que, **cuando un nacional de un tercer país se encuentra en situación de irregular en el territorio de un Estado miembro porque no cumple o ha dejado de cumplir los requisitos relativos a la duración de la estancia aplicables en dicho Estado miembro no está obligado a adoptar contra él una resolución de expulsión**”. (Letra lodiz nabarmendutakoa gurea da).

Epai honetan, atzerritarrek bildu behar dituzten bizileku baldintzak arautzeko eta baldintzak betetzen ez badira ondorioak arautzeko estatu kide bakoitzak duen eskumena onartzen da.

Azkenik, atzerritarrek dituzten zailtasunen beste adibide bat, 719/2009 espedientea. Kasu horrek ere egoera arautzea zuen hizpide. 2001. urtetik Euskal Autonomia Erkidegoan bizi den pertsona da eta CDak saltzeagatik prozedura penal batean zigorra ezarri diote. Horren ondorioz, zigor aurrekariak ditu. Bestalde, ez dauka loturarik jatorrizko herrialderekin eta horrek jatorrizko herrialdean zigor aurrekariaren egiaztatzea eskatzea zailtzen du. Pertsona hori Gasteizen bizi da eta gizarte laguntzen onuraduna da. Ordea, laneratzeko egiten ari den ahaleginak eta gizarte zerbitzuen baliabideak ez du aldeko emaitzarik eman, ez baitiote bertan finkatua egoteagatik bizitzeko eta lan egiteko baimena eman.

5.3. TALDEARI ERAGITEN DIOTEN ALDERDIRIK GARRANTZITSUENEN ANALISIA

- Udal erroldan izena emateko zailtasunak

Udal erroldan izena ematea atzerritarrek duten eskubidea da, arauz kanpoko administrazio egoera edozein dela ere. Joan den urtean, Abanto Zierbena udalerrian atzerritarrek erroldan izena emateko zituzten zailtasunei buruzko kexa bat aipatu genuen. Arazo horiek konpondu ziren eta une honetan atzerritarrak udal erroldan izena ematen ari dira. Ararteko erakundeak ez daki bizilekua duten eta pasaportearen indarrean duten irregulartasun egoeran dauden atzerritarrei Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriarren baten erroldan izena ematea ukatu zaienik. Atzerritarrek bizi diren udalerriko erroldan izen-ematea izapidetzeko dituzten zailtasunak bizilekua eskuratzeko zailtasunarekin eta, batzuetan, indarrean dagoen pasaportearen ez lortzearekin dute zerikusia.

2009. urtean aztertutako zailtasunak eta arazoak honako hauek dira:

- Bizilekua ez egiaztatzea

Joan den urtean 301/2008 espedientea aipatu genuen. Espediente horrek honako hau zuen hizpide: Gasteizko Udalak ez zien erantzunik eman atzerritarren erroldatzeko eskaerei –eskaera horietan jasotako helbidea: Arabako SOS Arrazakeria egoitza– eta aipatu udalak ez zuen bideratu eskaeran helbidea egiaztatu ezin zuten baina hirian bizi ziren pertsonen erroldatzea.

Gasteizko Udalak esan zigun jarduteko protokolo bat egiten hasi zirela, gizarte zaurgarritasun egoeran dauden pertsonen erroldatzearekin zerikusia duten kasuistikaren konplexutasuna handitzen ari zela aintzat hartuta. Gasteizko Udalak gizarte bazterkeria egoeran gertatzeko arriskuan dauden pertsonak erroldatzeko prozedura arautzen duen protokoloaren izapide egoeraren berri eman digu eta, horren harira, izapide horren zirriborroa bidali digu. Bertan, egoitza baliabideren baten eta herri-administrazioaren baten tutoretzapean dauden eta pasaporterik edo identifikatzeko beste biderik ez duten bakarrik dauden adingabeen izena erroldan emateko irizpideak jaso dira, baita egoitza baliabideetan dauden adinekoenak eta etxerik gabeko pertsonenak ere.

Erakunde honek egokitzen jo du Gasteizko Udala egiten ari den ahalegina, hain zuzen, zaurgarritasun egoeran dauden pertsonen udal erroldan izena emateko eskatzen dutenean, aurre egin behar dieten egoerei erantzuna emateko burutzen ari den koordinazioari eta informazioari dagokienez.

- Pasaportetik ez edukitzea

Illo horretan, identifikazio agiri balioduna eta indarrean dagoena (pasaportea) aurkezteko zailtasuna hizpide duten kexak ere jaso ditugu, Toki Araubidearen Oinarriari buruzko Legearen 16.2. artikulua, azaroaren 20ko 14/2003 Lege Organikoa emandako idazketan, ezarritakoari jarraiki. Atzerritarrek bizi diren udalerriko udal erroldan izena emateko eskubidea daukate, arauz kanpoko egoeran eta arauzko egoeran dauden alde batera utzita. Hori dela eta, zaurgarritasun handiko egoerak dira. Izan ere, pasaportea jatorrizko herrialdeek herritarrei ematen dieten agiria da eta, oro har, aipatu agiria lor daiteke.

Kasu batean –esp. zk.: 63/2009–, pertsonak ezin zuen estaturen bateko pasaportea aurkeztu, ez jaiotzakoa ezta bizi izandako herrialdeakoa ere, ezein herrialdek ez zuelako herritarizat jo. Erreklamazio gilearen herrigabe estatutua eskatzeko prozedura hasteko esan genion eta horren ondotik egiaztagiri bat egin zen. Aipatu egiaztagiria behin-behinekoa izan arren, Bilboko Udalaren ustez nahikoa zen kexagileari erroldan alta emateko.

Beste kasu batean, Marokon pasaporte eta identifikazio agiria galdu zituen Marokoko emakume bat izan genuen hizpide (esp. zk.: 575/2009). Pasaportea izapidetze aldera, jatorrizko herrialdean eskatu behar den jaiotza ziurtagiria behar da. Eskatzaileak adierazi zuenari jarraiki, ez zuen aipatu egiaztagiria lortzen lagunduko zion lagunik. Hori dela eta, kontsultatuak eskaera egin ziezaien eskatu zuen, hala, pasaportea izapidetzeko. Aipatu emakumea Espainian arauz kanpoko egoeran eta pasaportetik gabe dago. Hortaz, ezin ditu oinarrizko zerbitzuak eta prestazioak baliatu. Gizarteratzeko prozesuak hasteko oinarrizko baliabideak eskuratzeko bidea ematen du erroldan izena emateak. Beraz, izena emanda ez edukitzeak muturreko zaurgarritasun egoeran kokatzen ditu. Emakume honek pasaportea galtzearen ondotik egindako salaketaren kopia aurkeztu zuen. Gasteizko Udalak honako hau erantzun zion erroldan izena emateari buruz:

“Al respecto, el artículo 16.2 de la Ley 7/85 de 2 de Abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, exige como documento obligatorio para la inscripción en el Padrón Municipal de los extranjeros no comunitarios, el número de identificación de extranjero que conste en documento en vigor expedido por las autoridades españolas, o, en su defecto, el número del pasaporte en vigor expedido por las autoridades del país de procedencia. En parecidos términos se pronuncia la Resolución de 4 de julio de la Presidenta del Instituto Nacional de Estadística y del Director General de Cooperación Territorial, por la que se dictan instrucciones técnicas a los ayuntamientos sobre actualización del Padrón Municipal.

La documentación que aportó (...), en ningún caso puede ser considerada identificativa. En este sentido, existen numerosas consultas resueltas por el Consejo de Empadronamiento

que precisan que puede considerarse como documento identificativo en vigor aquel en el que aparezca una fotografía del titular, nombre, apellidos, fecha y lugar de nacimiento y nacionalidad, así como el número de identificación de extranjero, y caso de no tener asignado dicho número, el del pasaporte.

En base a los anteriores argumentos, mediante escrito registrado el 4 de mayo de 2009, la Jefa de la Unidad de Padrón, afecta al Departamento de Tecnologías de la Información del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, informó a la solicitante de que para proceder a su inscripción en el padrón municipal, debe aportar documento identificativo en vigor, además de documento que justifique su residencia en el domicilio indicado para el empadronamiento. En el momento en el que se aporte dicha documentación, se tramitará la solicitud”.

- Asentamenduak utzaraztea

Aurten, Bilboko Zorrozaurre auzoko pabiloi batzuetan okupazio titulurik gabe bizitzen ari ziren atzeritarren asentamendua dela-eta esku hartu dugu.

2009. urtean, erakunde honek *gizarte bazterkeria larria edo pobrezia duten pertsonen egoerari* buruzko txosten berezia lantzerakoan eskuratu duen informazioaren arabera, eta komunikabideek adierazten duten moduan, Bilboko arreta sozialerako eskaera areagotu egin da. Bereziki, krisialdiaren larritasunak eta lanpostu faltak premia biziko ondasunen beharra areagotu du, hala nola, janaria eta bizilekua.

Bilboko Udalari bidali dizkiogun gogoeten artean honako hau dago: kezkatuta gaude krisi ekonomikoaren eta pertsona askok bizirauteko dituzten zailtasunen ondorioz behar bezalako etxebizitzarik ez duten pertsonen asentamendu horien aurrean jarduten ari den moduagatik, asentamendu berriak egin baitaitezke. Horrez gain, baloratu beharreko beste elementu bat aipatu genuen, hain zuzen, gure erkidegoko eta kanpoko beste udalerrri bartzuen esku-hartze sozialak irismen desberdina duela.

“Finkapen horiek mugatzeko konponbidea lan baldintzak hobetzea eta etxebizitza eskuratzeko aukera izatea da. Lan baldintzak hobetzea eta etxebizitza eskuratzeko aukera gehiago izatea ez da udalaren eskumenekoa –gizarte larrialdiak artatzeko aurrekontu ekonomikoak mugatuak dira–. **Hala ere, finkapen horiek egoteari ematen zaion erantzunak berme gutxiago edo gehiago izan ditzake”.**

Ildo horretan, erreferentzia gisa hartu behar den esparrua gizarte estatuaren eta zuzenbizko demokraziaren printzipioena dela gogora ekarri genuen, gure gizartea antolatzeko modua baita. Horrek, ordena publikoko neurriez gain, gizarte esparruko beste neurri batzuk abiatzea ekarriko du.

“Jarduteko protokoloa eta udaltzainen esku-hartzea arautzen duen aurretiko planifikazioa egiteak eta larrialdietarako gizarte zerbitzuetara bidaltzeak, erakunde honen

ustez, udalaren jarduerak dituen bermeak gehiago errespetatzea ahalbidetuko lukete. Bizilekurik ez izategatik eta elikadura zein janzteko aukera egokia ez izategatik bereziki ahula den egoera duten pertsonak dira eta, horregatik, joanaraztea bidezko moduan aurreikusi behar da. Kokatuta dauden lekua beren bizilekua da, bertan beren objektuak eta agiriak uzten dituzte. Hori dela eta, ezin zaizkie horiek hala moduz kendu, esaterako txabola bat suntsitzen denean gertatzen den moduan. Azken batean, udalaren esku-hartzeak pertsonen eskubideen eremuan eragina du eta, horregatik, garrantzitsua da jarduerak aurreikustea, esku-hartzea legezko berme guztiekin burutu dadin.”

- Gizarte prestazioak eta zerbitzu publikoak eskuratzeko zailtasunak

Ikasle atzerritar batek sarrerak bermatzeko errenta jasotzea

Atzerritarrak esan zuen ez zegoela ados sarrerak bermatzeko errentaren prestazio eskaera ez ziotelako onartu, hain zuzen, ikaslearen bizileku txartelaren titularra izategatik. Ikasle atzerritar bati bizileku baimena emateak “ikasketen kostua, egonaldi gastuak eta ikasketak amaitu ondoren jatorrizko herrialdera itzultzera ordaintzeko bitarteko ekonomikoak” justifikatzeko betebeharra dakar tartean. Hori horrela, uste dugu erabakia zuzena izen zela.

Gizarte behar larrietarako laguntzak izapidetzeko, bizileku txartelean benetan bizi zen helbidea jasotzeko eskatzea

Bilboko Udaleko gizarte zerbitzuek, gizarte behar larrietarako laguntzak izapidetze aldera, pertsona bati bizileku txarteleko helbidea aldatzeko eskatu zion. Aldaketa hori beste administrazio bati dagokio, Barne Ministerioari eta hilabete batzuk iraun ditzakeen izapidea da. Horrez gain, betekizun hori ez dago gizarte behar larrietarako laguntzak arautzen dituen araudian ezarrita, beraz, helbidea aldatzeko eskakizunak beste tratu bat, desberdina, zekarren. Bilboko Udalak eskaera izapidetu ziola erantzun zigun eta, ondorioz, espedientea itxi genuen.

Prestazio ekonomikoak ukatzea, erroldan aurretik izena emandako denbora igaro dela ez egiaztatzeagatik

Aurten, Gasteizko Udalak udal erroldan ofizioz baja eman diela bazekiten atzerritarrei eragiten dieten kexa batzuk jaso ditugu, hain zuzen ere, prestazio ekonomikoetarako eskubidea edukitzeko ez zutelako araudiak ezarritako epea egiaztatzen. Udalak ofiziozko baja espedienteak hasteko betebeharra dauka pertsonak adierazitako helbidean bizitzen ez direnean. Hala, ezin dugu alde batera utzi ofiziozko baja emateko prozedurak administrazio prozeduraren bermeak bete behar dituela eta Arartekoak, GIZARTE EKINTZA ATALEAN adierazi dugun moduan, udalak jakinarazpen erregimenaren eta aurretiko entzunaldiaren inguruan prozeduraren bermeak bete ote dituen aztertu du. Jasotako kexa batzuetan pertsona etxebizitzaz aldatu da eta, horren harira, helbide aldaketa jakinarazteko betebeharra

ekarri genuen gogora. Beste kexa batzuen artean, pertsona gizarte zerbitzuekin harremanetan egon zen. Hori dela eta, helbide aldaketaren berri eman ez arren, ez zuen eraginik izan gizarte zerbitzuekin izandako harremanean, hirian benetan bizi zen etxebizitza ezaguna baitzen. Udalerriko erroldan baja emateak oso ondorio garrantzitsuak ditu zaurgarritasun egoeran dauden pertsonentzat, hala nola, bizileku baimenik ez duten atzerritarrentzat. Hortaz, betebeharren berri, baita eskubideena ere, izatea beharrezkoa da.

Enplegarritasuna hobetzeko prestakuntza ikastaroetarako sarbidea

Bizileku baimena zuen baina lan egiteko baimenik ez zuen atzerritar baten kexa jaso genuen. Aipatu kexak Lanbide prestakuntza ikastaroetarako sarbidearen zailtasunak zituen hizpide. Kexa aztertu ondoren, antzeman genuen arrazoiek edo zioek ez zutela zerikusirik lan egiteko baimena ez edukitzearekin. Ildo horretan, gizarteratzea da Lanbideren funtzioetako bat. Beraz, bizileku baimena duten eta laneko baimena ez duten atzerritarrak lana sustatzeko ekintzetan –enplegarritasun, prestakuntza edo lan bilaketa aktiboko ekintzak– aintzat hartu beharreko taldea da, Inmigrazioari buruzko II. Euskal Planean xedatutakoarekin bat.

Plan hori 2007. urtean onartu zen eta etorkinei eragiten dieten erakundeen konpromisoak jasotzen ditu, **beren administrazio egoera aipatu gabe**. Alegia, legez kanpoko egoeran dauden pertsonengana ere jotzen dute. Hortaz, ezin da desberdintasunik egon administrazio egoera arauzkoa denean. Esku artean dugun kasuan halaxe da, pertsonak prestakuntza ikastaroetarako sarbidea baitzuen.

Jatorrizko herrialdean baliabide ekonomikoak ez izatea egiaztatzea

Bizkaiko Foru Aldundiak pertsona bati jatorrizko herrialdean baliabide ekonomikoak ez zituela egiaztatzeko eskatu zion (esp. zk.: 808/2009). Lekukoen (herrikideak) zinpeko aitorenak aurkeztu ondoren, aipatu espedientea bideratu da. Aipatu aitorenetan, ondasunak ez dituela adierazi da eta, Pakistango kontsularen ziurtapenaren bidez, interesdunak jatorrizko herrialdean ondasunak ez dituela egiaztatu da. Kexak hizpide duen gaiari dagokionez, alegia, Bizkaiko Foru Aldundiak jatorrizko herrialdean baliabide ekonomikoak ez dituela egiaztatzeko betekizunari dagokionez, Eusko Jaurlaritzari kontsulta bat egin diogu, atzerritarrak sarrerak bermatzeko errenten onuradun izan daitezen bildu behar dituzten betekizunei buruz aldundi horrek egiten duen interpretazioari buruzkoa (esp. zk.: 1143/2009).

Pasaportearen ez edukitzeagatik erroldatuta ez zegoen atzerritar bati osasun gastuen kostua eskatzea

Erroldan izena emateko zailtasunak hizpide izan ditugunean lehen aipatu dugun 575/2009 espedientean, kexagilea haurdun zegoen eta osasun laguntza behar zuen. Erroldatuta ez zegoenez ez zuen banakako osasun txartelik eta, beraz, zerbitzu medikoek esan zioten gastu

medikoak ordaindu behar zituela. Horregatik, Osasun Sailera jo genuen eta, horren harira, hauxe erantzun zigun: *“Como bien dice el artículo 12 de la Ley 4/2000, “los extranjeros que se encuentren en España inscritos en el padrón del municipio en el que residan habitualmente tienen derecho a la asistencia sanitaria en las mismas condiciones que los españoles.” Ello quiere decir que como todo ciudadano español, para conseguir la TIS ha de estar empadronado el solicitante y, o bien solicitar su TIS en base a su afiliación a la Seguridad Social, o bien como sujeto con derecho a la universalización de la atención sanitaria acreditando el mismo su situación económica.*

En el caso de (...) al no hallarse empadronada solo se le puede facilitar el Documento Provisional de Asistencia Sanitaria, que en la Comunidad Autónoma Vasca además de cumplir con lo establecido en la Ley 4/2000 anteriormente citada, le da acceso a adquirir productos farmacéuticos en las condiciones de subvención establecidas para los afiliados activos del régimen general de la Seguridad Social.

Como en el mismo Documento Provisional de Asistencia Sanitaria de (...) se refleja, y de acuerdo con la Ley 4/2000 antes referida, (...) tiene derecho a la asistencia sanitaria durante el embarazo, parto y posparto y en ningún caso se le facturarán los costes de este periodo.

La situación de registro y empadronamiento de los niños conviene que sea regulada por la asistencia social, en nuestra opinión, con la mayor celeridad, y al margen si fuera necesaria de la situación de la madre. En todo caso y tal como lo establece la Ley del Menor, tendrán derecho a la asistencia sanitaria y el mismo se les podrá acreditar con la TIS.

Estas actuaciones y los procedimientos e identificación de situaciones de inmigrantes para aportarles documentos (TIS o Documento Provisional de Asistencia Sanitaria) han sido analizados y decididos de acuerdo con la Ley 4/2000 y el Plan de Inmigración de la Comunidad Autónoma Vasca.”

Osasun txartela izapidetzen ari den bitartean arreta medikoa jasotzera anbulatorio batetara jotzen duten atzerritarrei osasun laguntzaren behin-behineko agiria ematen zaie. Agiri horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren pertsonen arreta medikoa eta historia medikoa eskura dezakete.

Arauzko bizilekuaren aurretiko epea egiaztatzea eskatzea

Beste espediente batean, 1147/2009 zenbakikoan, familia inguruneko zainketarako prestazio ekonomikoa ukatu zen, prestazioa eskatzen duten pertsonen nazionalitate espainiarra ez duten kasuetarako xedatuta dauden betekizunak betetzen ez direla ulertzeagatik. Hain zuzen, 2. mailako III. mendetasun gradua onartu zaien bi seme-alaba zaintzen dituen ama bat da. Bigarren haurrak nazionalitate espainiarra dauka eta bost urte baino gutxiago ditu.

Ukatzeko arrazoiak honako hauek dira: aurkeztutako eskaerek ez dituzte betetzen autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeko 5. artikulua eta azaroaren 20ko 133/2007 Gipuzkoako Foru Dekretuko 5. artikulua. Alabaren kasuan, berriz, ez duelako egiaztatu estatuan legez bost urte bizitzen daramatzala eta semearen kasuan, aldiz, amak ez duelako bete legez bost urteko bizilekua egiaztatzen betekizuna. Azken hori bete egin behar du bost urte baino gutxiago dituelako. Aipatu espedientearen izapide bidean dago. Hala ere, foru aldundiari aurretik esan diogu, erakunde honen ustez, egin duen interpretazioa oso murriztailea dela. Izan ere, nazionalitate espainiarra duen haurra da eta, beraz, berdintasunezko tratua egon behar da.

- Familia batze aldera, behar bezalako etxebizitza eskuratzeko txostena ukatzea

Jasotako kexarekin bat, Galdakaoko Udalak ez zion familia batzea xede zuen behar bezalako etxebizitza eskuratzeko txostena eman pertsona bati. Hala, aipatu udalak notariora bidali zuen txosten hori egitera, kontuan hartuta egiteak kostu ekonomikoa ekarriko zuela. Espediente hori bideratu zen, nahiz eta espedientean ez zen argi geratu herritarra behar bezalako informazioa jasotzen ari ote zen, alegia, kasuan kasuko txostena udal bulegoetan eska ote zezaketen. Hori dela eta, udalari une oro udal bulegoetan egin daitezkeen izapideei eta eskubideei buruzko informazio egokia bermatzeko garrantzia helarazi zitzaion. Ildo horretan, araudiak xedatzen du udalak egin behar duela aipatu txostena [atzeritarrek Espainian dituzten eskubideei eta askatasunei eta euren gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren araudia onartzen duen abenduaren 30eko 2393/2004 Errege Dekretuko 42.2. e) artikulua].

Doako laguntza juridikoa ukatzea

Hiru alaba zituen guraso bakarreko familia bati doako laguntza juridikoa ukatu zitzaiola hizpide zuen espediente bat (1598/2008) bideratu genuen. Amak, bizileku baimenaren titularrak, doako justiziaren onura eskatu zuen alaben bizileku baimena ukatzearen ondotik errekurtsio judiziala jartzeko. Alabak zaintzeko baliabide ekonomiko nahikoak ez zituela zuen oinarri ukatzeak. Pertsona horrek gizarte laguntzak jasotzen zituen eta, jasotzen zituen sarrerak zenbatzerakoan, kontuan izan zituzten gizarte zerbitzuek urte hartan eman zizkioten gizarte behar larrietarako laguntzak. Beraz, doako justiziaren onura eman ziezaioten ezarrita zegoen zenbatekoa gainditu zuen. Hori dela eta, paradoxa bat planteatu zen, alegia, ez zeukan ondasun nahikoa alabak harekin herrialdean bizi zitezen baina doako justiziarako eskubidea zuen. Eztabaidagaia hauxe da: pertsona batek jasotzen dituen sarrera guztiak bere osotasunean aintzat hartu behar ote diren, gizarte behar larrietarako laguntzak ote diren alde batera utzita. Hala izan zen esku artean genuen kasua. Eusko Jaurlaritza doako justiziarako eskubidea lortzeko prozeduraren arauketa berria ari da prestatzen. JUSTIZIA ATALEAN (txosten honetako I. kapitulua), erakunde honen ustez araudi berria egiterakoan aintzat hartu beharko liritekeen irizpideak aipatu ditugu, hala nola, sarreraren jatorriari buruzkoak. Hori dela eta, aipatu atalean esandakoari lotzen gaitzaizkio.

- Nazionalitatearen betekizuna oposizio-lehiaketa bateko oinarrietan

Transportes Urbanos de Vitoria, S.A. enpresak, 2004ko abenduan, gidari-hartzaile kategoriako langile izateko iragarritako hautapen prozesuko oinarri arautzaileek, Espainian legezko egoitza duten batasunaz kanpoko atzerritarren parte-hartzea eragozten zutela salatu zen kexan. Kexa horren ondotik ebazpen bat eman zen ([Arartekoaren ebazpena, 2009ko martxoaren 25ekoa](#))⁸. Bertan, alde batetik, enpresa erakunde publikoetan enplegurako sarbidea eta, bestetik, aukeraketatik sortzen den zerbitzuen zerranda lan erregimenarekin bat datorrenean onartzeko betekizuna aztertu ziren; amaitzeko, ordenamendu juridikoak herri-administrazioen zerbitzura lan egiten duten langile izateko eskubidea onartzen die Espainian arauzko bizileku baimena duten batasunaz kanpoko atzerritarrei, espainiarren eta Europar Batasuneko estatu kideetako gainontzeko herritarren baldintza berberetan.

- Kexak eragin dituzten beste zio batzuk

Zenbait pertsonak Arartekora jotzen dute herrialde txiroetan bizi diren beren lagunek Espainian bisita egin diezaieten dituzten zailtasunak aipatzeko, hain zuzen, bisatuak sistematikoki ukatzen direlako. Ildo horretan, bisita egin nahi dieten familiartekoak hizpide dituzten atzerritarrek ere jo dute erakunde honetara. Arartekoak ezin du esku hartu Espainiako Enbaxaden eta Konsulatuen jardueretan. Hori dela eta, aplikatzen den araudiaren berri ematen diegu eta Herriaren Defendatzailerara bideratzen ditugu, erakunde eskuduna baita.

5.4. GOMENDIO OROKORRAK

Joan den urtean Inmigrazioari buruzko II. Euskal Planaren betetzeari eragiten dion kexa-espeditente baten berri eman genuen. Planak xedatu zuen Inmigrazio Zuzendaritzak (Erakundearen Antolamendurako Atalaren 1. Jarrabidea) burutuko zuela honako zeregin hau: *Herri-administrazioei, EAEko hizkuntza ofizialak ezagutzen ez dituzten etorkinekin dituzten harremanetan, zerbitzua emango dien interpreteen sarearen sorrera sustatzea.*

Administrazioko zenbait esparruk etorkinei lagun diezaieten, gomendio orokor bat egin dugu **hizkuntz erabilgarritasuna** emango duen egitura diseinatzeko beharrari buruz; "Etorkinei beren eskubideez baliatzean laguntzeko, administrazioaren arduraren zerbitzu publikoen hizkuntz erabilgarritasunaren bermeari dagokionez" (txosten honetako III. kapitulua). Gure autonomia erkidegoan ez da kalitatezko interpretazioa emateko nahikoa ahalegin egin. Beraz, zerbitzuak bildu behar dituen egokitasuna eta baldintzak aipatu dira, bereziki, interpretazioaren gizarte ikuspegia gehitzeari dagokionez.

⁸ Arartekoaren ebazpena, 2009ko martxoaren 25ekoa. Horren bidez, zenbait gidari-hartzaile lanpostu betetzeko, Transportes Urbanos de Vitoria, S.A. (TUvisa) enpresak deitu duen oposizio lehiaketaren oinarriek ezarritako nazionalitatearen betekizunari buruzko kexa batean Arartekoaren esku-hartzea amaitzen da.

Aurten, **beste gomendio orokor baten** jarraipena egin dugu, 2008ko txostena: “Hilerrietako zerbitzu publikoak erlijio sinismen ezberdinetara egokitzea. Aipamen berezia komunitate musulmanari.” Bertan, hauxe gomendatu genuen: “Azaldutako gogoetak ikusirik, uste dugu administrazio publikoek, araudian eragina duten beren berezko eskumen esparruetan, sustapenean, plangintzan edota hilerrien zerbitzu publikoaren prestazioan, irekita egon behar dutela eta musulman taldearen gero eta eskaera handiagoari erantzun behar diotela, eta dagozkion neurriak hartu behar dituztela lurperatzeak musulman errituaren arabera egiteko.” [Arartekoaren ebazpena, 2009ko abenduaren 28koa](#)⁹. Bertan, aipatu gomendio orokorraren inguruan zenbait administrazioen erantzunak eta balorazioak bildu dira. Erakunde honen ondorioa, oraindik ere, honakoa da: erritu musulmanaren arabera lurperatzeak egiteko nahitaezko erabakiak hartzerakoan, herri-administrazio eskudunen artean, bai horien artean baita komunitate musulmanarekin ere, bat etortzeko garrantzia.

5.5. TALDE HORRI ERAGITEN DIOTEN ETA TXOSTEN HONETAKO BESTE KAPITULU BATZUETAN JASOTZEN DIREN BESTE JARDUERA BATZUK

Bakarrik dauden adingabe atzerritarren egoera oso kezagarria da eta makina bat eskuhartze eragin ditu. Arartekoak aurten egin dituen esku-hartzeak kapitulu honetako ADINGA-BEAK berariazko atalean daude jasota.

Zenbait eremutan aztertu diren kexak aurkeztu dizkigute atzerritarrek. Informazio gehiago edukitzeko aipatu eremuei lotzen gatzaizkio (I. kapitulua), garrantziagatik HERRIZAINGO ATALEAN izapidetutakoak gailendu ditugun arren. Atal horretan jasotzen diren kexa askok, polizi jarduerekin zerikusia dutenak, atzerritarrei eragiten diete eta polizi jarduera inguruabar horrekin lotzen dute. Poliziaren tratu desegokia salatzen duten kexak dira. Batzuetan, kexagileak agenteenganako desobedientziagatik edo mehatxuengatik salatu dira. Arartekoak urteko txostenetan inguruabar hori agerian jarri du, alegia, jarduera horiek argitzeko garrantzia, batez ere, artxibatze judiziala dagoen kasuetan. Hala gertatu da Herrizaingo Ataleko jarduerak aipatzerakoan hizpide izan dugun kexa-espeditente batean.

5.6. BEREIZKERIA, GIZARTE SENTSIBILIZAZIOA ETA BIZIKIDETASUNA

Bereizkeriaren aurkako borrokari dagokionez, bereizkeria egoerak saihesteko kontrol mekanismoak ezartzeko beharra gailentzen jarraitzeak lehentasuna dauka. Bereizkeriak pertsonen gizarte eta ekonomia aurrerapena zailtzen du. 2009. urtean pairatu dugun krisi ekonomikoak lan merkatutik atzerritar asko bota ditu. Lanik ez dagoela kontuan hartuta, atzerritarrek gizarte laguntzak eskatu dituzte eta etorkin asko premiazko egoeretan gizarte laguntzak ematen dituzten beste leku batzuetara joan dira. Ildo horretan, gogoratu behar da

⁹ Arartekoaren ebazpena, 2009ko abenduaren 28koa, “Hilerrietako zerbitzu publikoak erlijio sinismen ezberdinetara egokitzea. Batez ere musulman komunitateari.” gomendio orokorrari egindako jarraipenari buruzkoa.

oso litekeena dela atzerritarrek enplegurik ez lortzea, ez baitute familia baten edo lagunaren eta ezagunen sarerik. Lan merkatuko bereizkeria elementu garrantzitsua da, gizarte bazterkeria prozesuak eragiten baititu. Horren harira, aurten Frantzia esperientzia interesgarri bat iragarri da. Aipatu esperientziak honako honetan datza: enplegu eskatzaileen curriculumean ez da pertsonaren izena, adina, sexua, helbidea eta argazkia jasoko. Horri curriculum anonimoa deitzen zaio.

2009ko abenduaren 1ean indarrean jarri zen Lisboako Itunak nazioarteko zuzenbidearen printzipioen, inpartzialtasun, neutraltasun eta bereizkeriarik ezaren printzipioen errespetua nabarmendu du. Aipatzen dituen alderdien artean Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna aintzat hartzea dago, juridikoki loteslea baita. Lisboako Ituneko 6. artikulua gutunari Europar Batasuneko Itunaren eta Europar Batasuneko Funtzionamendu Itunaren balio juridiko berbera ematen dio. Gutunak berdintasuna xedatzen du legearen (20. artikulua), bereizkeriarik ezaren (21. artikulua), kultur, erlijio eta hizkuntz aniztasunaren (22. artikulua) aurrean.

Bereizkeriaren aurkako borroka Europar Batasunaren eskumena da. Ildo horretan, bereizkeriaren aurka borroka egiteko eta tratu berdintasunean aurrera egiteko arauak proposatu eta programak sustatu dituen erakunderik aktiboena izan da. Bereizkeriaren aurkako borrokaren esparru juridikoak xede hori duten programa publikoak eta herri-administrazio guztien konpromisoa behar ditu. Egun oraindik lan asko dago egiteke, orain arte onartutako araudia-
ren aplikazioa eta errespetua oso-osorik eta modu eraginkorrean bermatzeko.

Bereizkeriaren aurkako borrokari eragiten dioten alderdi garrantzitsuen artean bereizkeriazko jokabideen zilegitasun ezari buruzko aurrerapenak eta pertzepzio falta ebaluatzea dago. Zigorrik ez egotea, penalak edo administratiboak, pertzepziorik ezaren adierazle da. Hala, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta euren gizarteratzeari buruzko urtarilaren 11ko 4/2000 Legeko 54 c) artikulua aplikatu ondoren, ia ez daude zigorrak; legea aldatu ondoren idazketa berbera dauka. Bereizkeriazkoak izan daitezkeen jokabideak egiaztatzeko zailtasuna bereizkeriaren aurkako borrokan traba bat da. Froga zamaren inbertsioaren ezarpena ere ez da aplikatu; zerga, administrazio eta gizarte motako neurriei buruzko abenduaren 30eko 62/2003 Legearen 32. artikulua: *“En aquellos procesos del orden jurisdiccional civil y del orden jurisdiccional contencioso-administrativo en que de las alegaciones de la parte actora se deduzca la existencia de indicios fundados de discriminación por razón del origen racial o étnico de las personas, corresponderá al demandado la aportación de una justificación objetiva y razonable, suficientemente probada, de las medidas adoptadas y de su proporcionalidad”*.

Aipatu jokabideek ia-ia ez dute ondoriorik, nahiz eta bereizkeria zegoela onartzen duten zenbait ebazpen aipatu genituen: 2009ko urriaren 14ko epaia, 2/2008 zk.ko sumarioa, 68/2008 zk.ko erroilu sala, bertan, salak ideologia bereizkeriaren larrigarria antzeman du; eta Nazio Batuen Oinarrizko Eskubideen Batzordearen irizpena. Irizpen hori 2009ko uztailaren 27ko eskubide zibilen eta politikoen nazioarteko itunaren protokolo fakultatiboaren 5. artikuluko 4. paragrafoaren arabera egin zen.

Batzordeak egilea arrazagatik bereizi ote zen erabaki behar du, kontuan hartuta poliziak egindako nortasun kontrola pairatu behar izan zuela. Irizpena honako honekin amaitu zen: *"la persona fue individualizada para dicho control de identidad únicamente por razón de sus características raciales y que éstas constituyeron el elemento determinante para sospechar de ella una conducta ilegal"*. Horrez gain, batzordeak jurisprudentzia ekarri du gogora. Alegia, tratamendu desberdin oro ez da bereizkeriaren adierazle, desberdintzeko irizpideak arrazoizkoak eta objektiboak badira eta lortu nahi den xedea itunari jarraiki zilegi bada. Kasu honetan, batzordeak arrazoizkotasun eta objektibotasun irizpideak betetzen ez direla dioen irizpena eman du. Gainera, egileari ez zaio ordainik eman, adibidez, konpontzeko desenkusak aurkeztu edo ematea. Hori oinarri hartuta, batzordeak 26. artikulua, ituneko 3. paragrafoko 2. artikuluekin batera irakurri zena, bete ez zela agerian jarri zuen. Eskubide zibilen eta politikoen nazioarteko itunaren 2. artikuluko 3. paragrafoaren a) atalean xedatutakoarekin bat *"el Estado parte tiene la obligación de proporcionar a la autora un recurso efectivo, incluido un pedido de disculpas públicos. El Estado parte tiene también la obligación de tomar todas las medidas necesarias para evitar que sus funcionarios incurran en actos como los del presente caso"*.

Aurten bereizkeriazko tratuari buruz jaso ditugun kexek ostalaritza establezimenduetan atzerritarrak ez onartzea, Gipuzkoan aldiriko trenetan beste bidaiari batzuen aurrean RENFEko txartel-zulatailearen jarduerak, Metro Bilbaoko segurtasun zerbitzuak emandako jarduera pribatuak dituzte hizpide. Beste kasu batean, berriz, pertsona batek Errekaldeberriko Barrutiko Udal Bulegoan jaso zuen tratua.

Bizikidetasuna

Euskal herritarrek inmigrazioaren inguruan duten jarrerari dagokionez, garrantzitsua da aipatzea **Inmigrazioaren Euskal Behatokiak, IKUSPEGI**k, bizikidetasunari, emandako esleipenari eta inmigrazioaren arloko politikari buruz egindako 2009ko barometroa. Bertan, kultur aniztasunaren tratamendua eta ekonomian duen eragina aztertu dira, hau da, atzerritarrekin bizitzea, enpatia maila eta atzerritarrei emandako integrazioa; hori guztia jatorri nazionalen eta Euskal Autonomia Erkidegoarentzat egokitzat jotzen den inmigrazioaren arloko politikaren arabera.

Ondorioen artean euskal herritarrek etorkinei buruz duten iritziari edo jarrerari buruzkoak nabarmendu ditugu. Barometroarekin bat, iritzi edo jarrera hori gogortu egin da eta, hala, etorkinekin kritikoagoa eta murriztaileagoa da. Baita ongizate estatuaren mantentzean atzerriko etorkinen etorrerak dakartzan susmoei buruzkoa ere.

Bi ondorioak azpimarratu ditugu, hain zuzen, erakunde hau urteko txostenetan egiaztatzen eta agerian jartzen ari diren alderdiak direlako. Hala egin dugu 2008ko urteko txostenean talde horri eragiten zion atalean.

Arartekoak herritarren kexak jasotzen ditu. Horien bidez, aipatu herritarrek jakinarazten dute ez daudela ados atzerritarrak prestazio eta zerbitzu publikoen onuradun izan daitezela.

Halaber, ez daude ados adingabe atzerritarrak edo etxerik gabeko pertsonentzat egoitza baliabideak irekitzearekin. Aipatu kexetan Arartekoak oinarrizko eskubideak aintzat hartuta erantzuten du eta idazkietan migrazioaren zioak, herri-administrazioek zaurgarritasun egoeran daudenak artatzeko duten erantzukizuna aipatzen ditu. Halaber, errealitatearekin bat ez datozen estereotipoak aipatze ditu, adibidez, atzerritarra izateagatik pribilegioak edukitzea edo delitu gehienegile izatea. Ildo horretan, polizi kidegoek inmigratioari buruz emandako informazio tratamendua hizpide duen gomendio orokorra, 2004ko txostena, aipatzea garrantzitsua da¹⁰. Izan ere, komunikabideek herritarrei ematen dieten informazioa herri-administrazioen eta beste erakunde batzuen deklarazioetatik eta informaziotik eta eragile publikoetatik dator. Hala, garrantzitsua da deklarazioak eta informazioaren transmisioa erantzukizun edo ardura publikoarekin egin daitezela eta beste motako interesak tartean egon gabe bidera daitezela, hain zuzen, talde baten irudiari, pertsonen eskubideei eta gizarte kohesioari eta bizikidetasunari eragiteagatik. Ildo horretan, 2009. urtean, eztabaida publikoetan inmigratioaren gizarte gertaera neurri handiagoan erabili da eta erakunde hau kontu hori dela-eta kezkatuta dago.

Etorkinei buruzko gizarte estereotipoak ez datoz bat beren gizarte eta ekonomia ekarpenarekin. Horregatik, herri-administrazio guztien erronka nagusia migrazio fluxuen behar bezalako kudeaketa giza eskubideekiko eta gizarte kohesioarekiko errespetuarekin bateragarri egitea da.

5.7. ANIZTASUNARI EMANDAKO ARRETA

Aurten, Estrasburgoko Auzitegiak (Italiaren kontrako Lautsi kasua), 2009ko azaroaren 3ko epaian, eskola publikoan gurutzefika egotea erlijio askatasunarekin bateraezina dela deklaratu du. Epai horrek Valladolideko Epaitegi bateko epai batek (errekurtoa jartzeke dago) jada planteatu zuen eztabaida berriz ireki du. Bertan, eskola publikoko geletan eta gune komunetan gurutzefika egotea Espainiako Konstituzioko 14. eta 16.1. artikuluekin bateraezina zela adierazi zen. Giza Eskubideen Europako Auzitegiak honako hau uste du (57): *“que la exposición obligatoria de un símbolo de una confesión concreta en el ejercicio de la función pública respecto a situaciones específicas sujetas al control gubernamental, en particular en las aulas, restringe el derecho de los padres a educar a sus hijos según sus convicciones y el derecho de los niños escolarizado a creer o no creer. El Tribunal considera que esta medida vulnera estos derechos toda vez que las restricciones son incompatibles con el deber del estado de respetar la neutralidad en el ejercicio de la función pública, en particular en el ámbito de la educación”*.

Gune publikoetan, hala nola, eskolan, epaitegi edo osasun zentro batean erlijio sinboloak erabiltzea beste erlijio batzuk dauden gizarte batean eta laikotzat, neutraltzat eta akonfesionaltzat jotzen den estatu batean eztabaidagaia da. Zuzenbidezko estatuaren eta oinarrizko

¹⁰ *“Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen mende dauden polizi kidegoak jokabide kodez hornitu behar dira, inmigratioari buruz ematen duten informazio tratamenduari dagokionez”*.

eskubideen eta askatasunen garapenak helburuen artean honako hauek ditu: bizikidetasuna, tolerantzia eta zenbait kredorekiko errespetua bideratzea. Hori dela eta, hurrengo urteetan gai hori arautu beharko da.

Beste elementu garrantzitsu bat da erlijio sinboloei buruzko gaia, besteak beste, beloaren erabilera edo minareteak dituzten meskitak eraikitzea. Islamaren konplexutasunak eta aniztasunak pertsonen eskubideak aintzat hartzen dituzten eta sinismen desberdinekin pertsonen bizikidetasuna ahalbidetzen duten analisi serioak eskatzen ditu. Kredo erlijioso desberdinak dauden gizarte batean, erlijio askatasunerako eskubideak berebiziko garrantzia dauka eta botere publikoek gizartean horien edukia eta irismena helaraz dezatela garrantzitsua da. Pertsonak erlijio berbera ez dutenean edo, oro har, beren burua ateotzat jotzen ez dutenean, hau da, zenbait erlijio sinismen dituztenean, eskubide horrek zentzu gehiago dauka eta edukia eman behar zaio.

5.8. GIZARTE ERAKUNDEEKIN ELKARLANEAN ARITZEA

Aurten, atzeritarren eskubideak babesteaz arduratzen diren **gizarte erakundeekin** harremanetan egon gara. Esparru horretan, atzeritarrek dituzten zailtasunak eta herri-administrazioei egiten dizkieten eskaerak gizartean ezagutaraztea helburu duten jardunaldietan eta topaketetan parte hartu da. Gure aldetik, erakundearen beraren, arlo horretan garatzen dituen esku-hartzeen eta bere eginkizunen berri eman nahi da. Ildo horretatik, garrantzitsua iruditzen zaigu adieraztea edozein pertsonak, bere herritartasuna edozein izanda ere, jo dezakeela Arartekora Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioaren baten aldetik okerreko jarduera egon dela edo edozein motatako bereizkeria jasan duela antzematen baldin badu.

Gizarte erakundeek helarazi dizkiguten kexei dagokienez, kapitulu honetan, ESPETXEAN DAUDEN PERTSONAK atalean, esparru horretan lan egiten duten elkarteekin izandako bilerak aipatu ditugu. Bilera horietan, zailtasun batzuk aipatu dira, hala nola: Basauriko espetxean presoek pasaporteak kentzea, hirugarren gradukotzat jotzen dituztenean, edo bizileku txartela edukitzeko bidea ematen duten hatz-markak hartzeko polizia nazionala leku batetik bestera ez joatea, bizileku baimenaren ebazpen baieilea dagoenean, edo Basauriko espetxean dauden pertsonen ez zaiela udal erroldan izena ematen.

Horrez gain, gizarte erakundeekin izandako loturek eraginik edo ondoriorik izan ez dezatela presoak espetxe batetik bestera lekualdatzeko erabakietan. Beraz, egindako lanak ez dauka jarraitutasunik. Ildo horretan, planteatzen den beste arazo bat atzeritarrek espetxean zigorra betetzen daudenean bakarrik lan egin dezaketela da. Horregatik, honako inkoherezia aipatu da: espetxean dauden bitartean lan egin dezakete. Ordea, espetxetik irteerakoan, araz kanpoko egoera dela-eta lan egiteko administrazio baimenik ez edukitzearen ondotik, ez dute lan egiteko baimenik eta ezin dute finkatua egoteagatik bizileku baimena eskatu, ez behintzat zigor aurrekariak baliogabetu arte eta, ondorioz, gizarteratzeko prozesua asko zailtzen da. Aipatutako hori zigor sistemaren helburuetako bat da.

Azkenik, homologatutako gidabaimenik gabe gidatzearen ziozko arau-hausteari dagokionez, adierazi dute poliziak batzuetan zigor eginbideak eskatzen dituela eta beste batzuetan arau-haustea administrazio arau-hauste gisa izapidetzen duela, kontuan hartuta atzerritarren agiri egoerarentzako ondorioak oso desberdinak direla, zigor aurrekariak edukitzea edo ez edukitzea garrantzitsua baita.

5.9. ONDORIOAK

Jarraian, alderdi garrantzitsuenen laburpena egin dugu:

1. Lurralde administrazioek, Eusko Jaurlaritzak, aldundiek eta udalek lurraldean bizi diren atzerritarren premiei erantzuna eman behar diete, aipatu pertsonen gizarteratzea ahalbidetzeko. Europako eta Espainiako inmigrazioaren arloko politikak aplikatuta, pertsona horiek arauz kanpoko administrazio egoeran daude. Hortaz, ez dute lan egiteko administrazio baimenik. Ikuspegi desberdintasun hori, alegia, pertsonen arreta emateak eta inmigrazioaren arloko politikak aplikatzeak Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioei paradoxa eta zailtasun asko eragiten dizkie.
2. Azken urteotan, inmigrazioaren planak egin dira eta aipatu planak autonomia erkidegoaren esparruan eta tokiko esparruan gauzatu dira. Horren harira, osotasunean oraindik abian jarri ez diren neurriak eta jarduerak burutzeko konpromisoak, hala nola, interpretazio eta itzulpengintza zerbitzuak, bildu dira.
3. Herrizaingo Atalean, Arartekoari aurkezten zaizkion eta polizi jarduerekin zerikusia duten kexa asko atzerritarrek poliziengatik jaso duten tratuari lotuta daude.
4. Atzerritarrek erroldan izena emateko zailtasunak dituzte, batez ere, bizilekua eskuratzeko zailtasunagatik. Kasu batzuetan, pasaporte indarrean ez edukitzeagatik.
5. Bereizkeriaren aurka borrokatzeko baliabide eraginkorrak ez edukitzea atzerritarren aurrerabidea eta gizarteratzea zailtzen duen elementu bat da.
6. Aurten, bizilekurik ez izatea arazo nagusia duten atzerritar heldu eta gazteen eskaera ugari da udalerrira batzuetan, zehazki, etxebizitzarik gabeko pertsonentzako baliabideen eskaera.
7. Asentamenduen utzaraztea ordenamendu juridikoan ezarritako bermeak betetzeko eta ordena publikoko neurriez gain gizarte izaerako neurriak aplikatuz burutu dadila garrantzitsua da.
8. Administrazioaren gizarte politiken garapenak antzeko garapenak behar ditu baliabideen berdintasunerako aukera emango duten beste lurralde batzuetan.

9. Aniztasunari emandako arretak estatu demokratikoaren, sozialaren eta zuzenbidezko estatuaren garapena eta oinarritzko eskubideen eta askatasunen sakontzea aintzat hartuko dituzten eztabaida serioak behar ditu.
10. Garrantzitsua da herri-administrazio batzuk bat etor daitezen, bai zenbait administrazioaren artean baita komunitate musulmanarekin ere, eta lurperatzeak erritu musulmanaren arabera egiteko nahitaezko erabakiak har daitezen.

II.6

**BERARIAZKO ARRETA
IJITO HERRIARI**

6. BERARIAZKO ARRETA IJITO HERRIARI

Gutxiengo kulturelek zailtasunak dituzte gizartean aintzatespena lortzeko eta aurrera egiteko. Urteko txostenaren atal honek zailtasun batzuk eta Arartekoak ildo horretan egin dituen jarduerak bildu ditu. Arartekoa eskubideen defentsa erakundea da eta modu espezifikoan hartzen ditu aintzat gizarte egoera ahulean dauden pertsonak eta taldeak. Halaxe da hain zuzen ijito herriaren kasua.

6.1. Intereseko araudia eta politika publikoak

Europar Batasuna

Mendeak dira ijito herria Euskal Autonomia Erkidegoko eta Europako gizartearen zati diren gutxiengo kultura denetik. Bizikidetasun horrekin batera azken urteotan aitortu diren makina bat desadostasun jazo dira. Ijitoen mundu mailako kongresua Londresen 1971. urtean egin zela aipatzea garrantzitsua da. Orduetik, esan da egokia dela politika publikoek kultura nortasuna babes dezatela eta gizarteratzeko aukera ematen duten baldintza ekonomikoak, gizarte eta lan baldintzak susta ditzatela. Ijitoen baldintzak hobetzea eta horien kultura nortasuna aitortzea xede duten txostenak eta proposamen politikoak egin dira, ijito herriarentzako ahalegin askok oraindik jarduera xenofoboak saihestea helburu duten arren. Duela gutxiko adibide batzuk, hala nola, Ostrovany ijitoen komunitatea Eslovakiako hiriko gainontzeko biztanleetatik isolatzeko horma eraikitzeak edo Italian romani biztanleriaren hartz-markak biltzeko egindako jarduerak ijitoen artean joan-etorri berriak eta beldurra eragin ditu. Gertaera horien bidez egiaztatu da ez direla ari **Europako Parlamentuko ebazpenak betetzen, hain zuzen, romaniei buruzko Europako estrategia bati buruzko 2008ko urtarrilaren 31koa eta Italian romaniek jatorri etnikoaren oinarriaren gainean duten eroldari buruzko 2008ko uztailaren 10ekoa.**

Horrez gain, joan den urtean adierazi genuen moduan, garrantzitsua da gogoratzea **Europar Batasunaren 2008/913/JAI Esparru Erabakia, arrazakeria eta xenofobia modu eta espresio jakin batzuen kontrako borrokari buruzkoa.** Aipatu erabakiak zigor zuzenbidetaren esparruan neurriak ezartzen ditu eta estatu kideek neurri horiek ordenamendu juridikoetan sartu behar dituzte. Hala, jarrera edo jokabide arrazisten eta xenofoboaren edo eragile arrazista eta xenofoboa duten jokabideen zigorra bermatzeko. Legeria hori estatu kideetan 2010eko azaroa baino lehen aplikatu behar da.

2009ko urriaren 20ko Memorandumean, Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Agenteak **Europar Batasuneko estatu kideetako romani etnia eta nomada komunitateen ostatu baldintzei buruzko konparazio txostena** aurkeztu zuen. Txostenak Europako ijitoei eragiten dizkieten emaitzak jarri ditu agerian eta aipatu emaitzak Euskal Autonomia Erkidegoko ijitoen egoerei aplikatzen zaizkie. Hala, honako hauek gailendu dira: bereizkeria debekatzen duten arauen ezagutza urria eta bereizkeria pairatzeagatik salaketa eskasia, desberdintasunak etxebizitzan eta askoren bizileku segregazioa, baita ondorioak

hezkuntzarako, enplegurako, osasunerako edo gizarte zerbitzuetarako sarbidean, nahitaez etxebizitza utzi behar izatearen gaineko kontrolaren garrantzia eta etxebizitzarekin zerikusia duten ekimenek eta politikek duten eragina kontrolatzeko eta ebaluatzeko mekanismorik eza ere.

Azkenik, 2000/43 Zuzentarauaren bidez sortu zen **tratu berdintasuna sustatzeaz arduratzen den organismoa** –Espainiako ordenamendu juridikoan 62/2003 Legearen bidez sartu zen– hasiera batean Immigrazio Zuzendaritza Nagusiari atxikita zegoen eta, 2008. urtean aldatu eta Berdintasun Ministerioaren Bereizkeriaren aurkako Zuzendaritza Nagusiari atxiki zitzaion. Denbora igaro den arren, berdintasuna sustatu eta zuzentzarauko ezarpenak betetze aldera lan handia dago egiteke.

Europako Kontseilua

Aurten, uste dugu garrantzitsua dela **Gutxiengo Nazionalak Babesteko Esparru Hitzarmena** aipatzea (1998ko urtarrilaren 23ko BOE). **Juridikoki izaera loteslea** duen lehenengo baliabidea da, zenbait estaturi eragiten dio eta gutxiengo nazionala babestea du xede. Jaso-ta dituen xedapenek izaera programatikoa dute eta ezin zaizkie zuzenean indibiduoari aplikatu. Izan ere, estatuei behartzen die eta alderdiek beteko dituztela dioen konpromisoaren xedeak definitzen dituzte. Hitzarmenaren oinarriko elementuen artean honako hau dago: gutxiengo nazionalaren kidesunari aplikatzen zaizkion berdintasun eta bereizkeriarik ezaren printzipioen aintzatespena, baita erabateko berdintasun eraginkorraren bilaketa ere. Hori guztia, esparru guztietan eta gutxiengo nazionalaren kide diren pertsonen eta gehien-goia osatzen duten pertsonen artean. Ildo horretan, gainera, neurri positiboak aplikatzea ekar dezake berekin. Aipatu neurriak proportzionaltasun printzipioarekin bat etorri beharko dira eta ez dira bereizkeria egintzatzat joko.

Hala, garrantzitsua da gogoratzea ekintza positiboan legitimazioa abian jarritako politika publiko batzuen oinarrian dagoela eta ekintzok zalantzan jarri direla, baita sustatu behar diren beste batzuen oinarria ere. Pertsonen eta taldeen askatasuna eta berdintasuna eraginkorra izan dadin trabak kentzean datza, Espainiako Konstituzioak ere manu hori ezartzen du (Espainiako Konstituzioko 9.3. artikulua). (2008ko txostenean, Europako Kontseiluko azken ebazpena, CM/RESCMN(2008), 2008ko apirilaren 2koa, aipatu genuen, Espainiak hitzarmena betetzeari zegokionez).

Atal honetan, **Estrasburgoko Auzitegiaren** 2009ko abenduaren 8ko epai esanguratsua (49151/07) aipatu nahi dugu. Bertan, ijito errituaren bidez ezkondata dauden espainiarren eskubidea, hain zuzen, alarguntza pentsioa jasotzekoa, onartzen da. Ezkontza 1971. urtean izan zen, ijitoen errito bidez eta ez zen Erregistro Zibilean formalizatu. Hori dela eta, Gizarte Segurantzako Administrazioak alarguntza pentsioa ukatu zion. 2000. urtetik Espainiako erakunde judizial batzuetan arrazoia azaldu ondoren, Europako Auzitegiak bere aldeko epaia eman du. Epaian, auzitegiak gutxiengo nazionalak babesteko Europako hitzarmenaren sinadurak dakartzan betebeharrak aipatu ditu. Aipatu hitzarmenak gutxiengoaren berariazko beharrak eta segurtasuna, nortasuna eta bizimodua babesteko betebeharra onartzen ditu,

ez bakarrik gutxiengoan eskubideak bermatzeko, baita komunitate osoarentzat balio bat den aniztasun kulturala babesteko ere. Giza Eskubideen eta Oinarrizko Askatasunen Europako Hitzarmenaren 14. artikulua eta 1. zk.ko protokoloko 1. artikulua urratu direla esan du auzitegiak.

Epaiaren bidez adierazi da justifikatuta ez dagoen tratu desberdintasuna egon dela: ez da tratua berdintasun printzipioa bete, Espainian alarguntza prestazioa eskatu duten pertsonen eta, legez ezkondua ez egon arren, asmo ona egiaztatzen duten pertsonak direnean prestazioa eman zitzaizkien pertsonen dagokienez. Kasu honetan, ez zeuden asmo ona egotearen inguruko zalantzak. Ordea, beste kasu batzuetan ez bezala, prestazioa ukatu egin zen. Estrasburgoko Auzitegiaren doktrinaren arabera, bereizkeria dago egoera beraren aurrean pertsonen tratu desberdina ematen zaienean eta tratu desberdina emateko arrazoizko justifikazio objektiborik ez dagoenean. Alegia, tratu desberdintasuna helburu justifikatu batekin bat ez datorrenean edo proportzionaltasunarekin harremanik ez duenean. Auzitegiak emazteak pentsioa jasotzeko duen eskubidea berresten du eta uste du Espainiak arrazagatik bereizi egin duela. Hortaz, Espainiako administrazioak atzerapenei dagokien zenbatekoa eta kalte moralengatik kalte-ordainak ordaindu behar dizkio.

Euskal Autonomia Erkidegoa

Euskal Autonomia Erkidegoan aurten abian jarritako neurrien artean 2009ko otsailaren 24ko Eusko Jaurlaritzako Kontseiluan onartu zen **Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Gizarte Partaidetzarako II. Plana** dago. Aipatu planak Euskal Autonomia Erkidegoan ijito gehienek, gainontzeko euskal biztanleekin alderatuz gero, duten desberdintasun egoera onartzen du. Beraz, desberdintasun hori gainditzeko eta bizitza publikoaren zenbait guntan ijitoen parte hartzea sustatzeko aukera ematen duten neurriak planteatzen ditu. Ildo horretan, ijitoen kulturaren eta historiaren ezagutzaren bidez bizikidetasun hobea eta ijitoen nortasunaren aintzatespena ahalbidetzea da beste helburu bat.

Aurten jaso ditugun kexak eta Arartekoak burututako esku-hartzeak zenbait administrazioi eta beste eragile batzuk sustatuko dituztela dioten neurri horien betetzearen garrantziaren isla dira.

Hala, aurten Eusko Jaurlaritzak Busturialdea mankomunitatearekin eta Gernikako Udalarekin antolatu zuen **“Gizarte esku-hartzea Europako Ekialdetik etorritako ijitoekin”** jardunaldia egin da.

Jardunaldi hori Europako Ekialdetik etorri diren ijito kopurua handitu izanaren eta aipatu pertsonekin harremanak dituzten zerbitzu publikoetako profesionalek ezaugarri kulturalak eta gizarte ezaugarriak ezagutzeko garrantziaren adierazle da. Egoera horren ondotik, hausnarketa bat egin behar da etorkin eta ijitotzat jotzeko jazotzen diren elementuen konplexutasuna kontuan hartuta. Horrez gain, Europako herriren bateko nazionalitatea daukate eta, beraz, bizileku-askatasunerako eskubidea dute.

6.2. Taldeari eragiten dioten alderdirik garrantzitsuenen analisisa

Urte honetan zehar, ijitoek eta horien izenean zenbait elkartek sustatu dituzten **kexek** honako alderdi hauek izan dituzte hizpide:

6.2.1. Udal erroldan izena emateko zailtasunak

Noiz edo noiz antzeman dugu udalen erantzuna ukoa dela, hain zuzen, udalerrian bizi diren ijitoen familiak erroldan sartzeko eskatzen dutenean. Aipatu ukoak tartean aurkako edo ukatzeko jarrera dauka pertsona horiek udalerrira etortzen direnean.

Udalek ukoa justifikatzeko alegatzen dituzten arrazioen artean honako hauek daude: etxebizitza okupatzeko titulurik eza, bizigarritasun baldintzarik eza edo errentamendu kontratuan baimenduta daudenak baino pertsona gehiago elkarrekin biziitzea.

Aurten, erroldan izena emateko eskaerak ukatu direnez, Arartekoak ildo horretan esku hartu du. Arartekoak ofiziozko jarduera bat hasi zuen Trapagarango udal erroldan izena emateko eskaera bat polizi kausak edukitzeagatik ukatu zela zioen informazio periodistiko bati zego-kionez ([Arartekoaren ebazpena, 2009ko martxoaren 30ekoa](#))¹¹.

Ijito familia bati errentamendu erregimenean etxebizitza bat esleitzeko erabakiak auzokoen arbuioa eta, familia etxebizitzan bizi ez zedin, erroldan izena emateko ukoa eragin zituen.

Arartekoa, lehenik eta behin, tartean zeuden administrazioen artean gatazkari konponbi-dea bilatzen saiatu zen eta, horretarako, bilera deialdi batzuk egon ziren. Familia Sestaotik etorri zen eta urteak ziren udal horrek familiei berriro bizileku ematea zekarren gizarte eta hirigintza biziberritzeko prozesua abiarazi zuenetik. Prozesu hori Arartekoak atal honetako hondatutako guneetan egindako jarduerak aipatzerakoan izango dugu hizpide. Halaber, Arartekoa La Arboledako auzotarren ordezkariekin bildu zen. Bileran, erakundeari auzoan zegoen gizarte kezkaren eta bizikidetasuna eta herritarren segurtasuna hondatzeko zegoen beldurraren berri eman zitzaion. Arartekoek berriro bizilekua emateko prozesua eta Trapagarango Udalaren jarduna aztertu zituen. Etxebizitzaren esleipena babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuari jarraiki burutu zen. Eusko Jaurlaritzak araudian jasota dagoen salbuespen prozedura baliatuta esleitu zion etxebizitza familia bati. Familia hori Sestaon bizi zen baina ez zuen etxebizitzarik aipatu udalerrian bizi ziren etxebizitzaren hirigintzako auri deklarazioa egin ondoren. Sestao Berri arduratu zen familiaz.

¹¹ Arartekoaren ebazpena, 2009ko martxoaren 30ekoa. Horren bidez, Trapagarango Udalarri gomendatzen zaio eman dezala udal erroldan inskribatuta egotearen ziurtagiria, familia bateko kide guztiak udalerriko biztanle gisa onar ditzala, familiak errentan hartuta duen etxebizitza okupatzeko jarduerak kudeatzen parte har dezala eta gizarte bizikidetasun normalizatua susta dezala.

Berriki aipatu dugun Sestao Berri sozietate bat da eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailak eta Sestaoko Udalak osatzen dute, Sestaoko Iparraldeko Industrialdeko Hirigintzako Antolamenduaren Plan Orokorren behin-behineko aldaketak eragindako hirigintzako esparruetan sortu diren bizileku emateak kudea daitezen.

Kasuan aztertu ziren alderdi garrantzitsuen artean honako hauek gailendu ziren: erakundeen fideltasuneko printzipioa, erakundeen erantzukizun politikoa, datuak babesteko eskubidea, udal erroldan izena emateko legezko erregimena eta pertsona bat auzo edo udal-erri jakin bateko auzotarra izan dadin aukeratzeko eskubidea edo ahalmena egotea. Ildo horretan, auzotarrek entzun diezaieten eta auzokideen arteko bizikidetasuna hobetzeko neurri egokiak proposatuz parte hartzeko eskubideak dituzte. Ordea, familia bat auzoan bizi dadin ezin dute galarazi. Bizilekua libreki aukeratzeko eskubidearen muga bakarrak jabetza pribaturako eskubidearen –Espainiako Konstituzioko 33. artikulua– eta, Karta Magnaren 47. artikuluko interes orokorrari jarraiki, lurzoruaren erabileraren ondoriozkoak dira. Azkenik, adierazi zen auzotarrek bizikidetasuna hondatzearen inguruan duten kezka eta beldurrari erantzuna eman behar zaiela baina ordenamendu juridikoa urratu gabe. Pertsonak askatasunerako eta segurtasunerako eta, ondorioz, beharrezkoa izanez gero, herritarren babeserako eskubidea dute. Ordea, babes hori Segurtasun Indar eta Kidegoen bidez bakarrik bidera daiteke. Aipatu indarra eta kidegoa arduratzen dira eskubideen eta askatasunen baliatze askea babesteaz eta herritarren segurtasuna bermatzeaz (Espainiako Konstituzioko 104. artikulua).

Espediente hori zenbait gomendiorekin amaitu zen. Arartekoak ebazpena bidali zuen eta horri udal taldeetako zinegotzi bakoitzarentzat gutun bat erantsi zitzaion. Bertan, aipatu zinegotziei parte hartzea edo konpromisoa eskatu zitzaion legea betetzerakoan, familiaren eskubiderik eta printzipio demokratikorik oinarritzkoenak errespetatzerakoan, baita erantzukizun publikoa bideratzerakoan ere. Udalak erantzunez esan zuen familia udal erroldan inskribatu zuela eta gizarte zerbitzuak prestazio ekonomikoak izapidetzen ari zirela. Gure idazkian, Arartekoaren ebazpena oso-osorik betetze aldera, burutzen ari zen jardueren inguruan informa gintzala eskatu genion eta, horrez gain, bizikidetasuna hobetzeko beharrezko jarduerak egitean zetzan gomendioa bete ote zuen ez genekiela aipatu genuen. Azkenik, auzotarren ukoaren ondotik, ordenamendu juridikoak babesten dituen ondasun juridikoei eragiten dieten gertaera oso larriak jazo dira. Barakaldoko Instrukzioko 3. zk.ko Epaitegiak zigor eginbideak ireki ditu eta, auzibidean dagoenez, Arartekoak, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 13. artikuluan ezarritakoaren arabera, esku-hartzea eten zuen.

Azkenik, gertatutakoaren transzendentziak Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Gizarte Partaidetzarako Gizarte Kontseiluaren zati diren elkarteak Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordean ager zitezen bidea eman zuen, La Arboledan bizi zen ijito familiarrekin gertatutakoa azaltzeko.

Arartekoak, 2008an, udal erroldan izena ematea ukatu zitzaion ijito familiei eragiten zien bi gomendio egin zituen. Bertan, Ortuellako eta Hernaniko Udalen erabakiak aztertu ziren,

hain zuzen, udalerrian bizitzen ari ziren familiei udal errondan izena ematea ukatu zitzaielako ([2008ko uztailaren 4ko ebazpena](#)¹² eta [2008ko abenduaren 19ko ebazpena](#)¹³). Ortuellako Udalak ez zion erantzunik eman bidali genion errekerimenduari. Bertan, esan genion, gure ustez, erantzunik ez ematea Arartekoaren gomendioa ez onartzearen adierazle zela. Hernaniko Udalari dagokionez, ixteko datan idatzizko erantzunik jaso ez dugun arren, Arartekoaren gomendioa beteko dutela adierazi digute. Familiaren eskaera batzuen ondoren, erroldan izen-ematea onartu da, hori guztia gizarte zerbitzuen esku-hartzearekin eta lonjak bizigarritasun baldintzak bete ditzan beharrezko jarduerak egingo dituela dioen konpromisoa hartu ondoren.

Egoera horiek ijitoek erroldan izena emateko eskubidea balia dezaten dituzten traben adierazle dira argi eta garbi.

Aurten, Santa Juliana auzoan ijito famili bat erroldan inskribatzeko ukoa hizpide duen kexa-espeditente bat izapidetu dugu. Hondatutako guneetako jardueri buruzko atalean adierazi dugun moduan, auzoak errehabilitazio prozesuari ekin dio. Oraingo honetan, udalak erroldan izena ematea onartu du. Espeditente honen garapenak Santa Juliana auzoko goi zatiaren hirigintzako egoerarekin eta gizarte degradazio egoerarekin dauka zerikusia. Aipatu egoerak erakunde honetan makina bat kexa izapidetzeko bidea eman du eta, ildo horretan, joan den urtean ofiziozko jarduera bat hasi genuen. Aurrerago hitz egingo dugu jarduera horri buruz.

Gure idazkian, erroldan izena ematea udalerrian benetan bizitzeari lotuta dagoela hizpide duten gogoeta guztien berri eman genion udalari.

“Udal erroldan izena ematea araupetzen duen araudiak ez du baldintzatzen erroldan izena ematea higiezina betetzeko legezko titulu bat lortzean edo hirigintzako plangintzako arauak betetzean.”

“Erroldak udalerrian bizi diren biztanleen kopuru erreala jaso behar duela. Errolda administrazio erregistroa da eta haren funtzioa udalerrian bizi diren pertsona guztien bizilekua eta inguruabarrak jasotzea da bakarrik. ‘Administrazio informazioaren’ erregistroa da, helburu gisa, administrazio publikoei beren funtzioak modu eraginkorrean garatzea errazteko informazioa ematea duena.”

“Udala behartuta dago udalerrian bizi diren pertsonen erroldan izena ematera. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen (TAOL) 17.2 artikulua araberatzen: *‘Udalek erroldak eguneratuta izateko behar den guztia egin behar dute, bertan jasotako datuak errealtatearekin bat etor daitezen’*”

¹² Arartekoaren ebazpena, 2008ko uztailaren 04koa. Horren bidez, Ortuellako Udalari gomendatzen zaio pertsona bati erroldan izena eman diezaiola.

¹³ Arartekoaren ebazpena, 2008ko abenduaren 19koa. Horren bidez, Hernaniko Udalari gomendatzen zaio beharrezko izapideak egin aurretik, udal erroldan izena ematearen ziurtagiria egin dezala.

Horrez gain, erroldan izena emateak duen garrantziari eta izena ematea ukatzen duen ebazpenaren edukari buruzko gogoetak agerian jarri genituen: “administrazioak eskatzen du erroldan izena emateko egiaztagiria eskubideez baliatzeko, hala nola, osasun zerbitzueta-rako, etxebizitzaren zerbitzu publikorako, zerbitzu eta gizarte prestazioetarako sarbidea. Gainera, erroldan izena ematea joan-etorri askerako eskubideari, auzotarren partaidetzarako eskubideari eta politikan parte hartzeko eskubideari lotuta dago. Erroldan izena ematea ukatzeak eskubide subjektiboei eta legezko interesei eragiten die. Erabaki hori administrazio ebazpena da, hori dela eta, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 89. artikulua aplikatzen da. 3. atalean hauxe ezartzen da: *‘Ebazpenean erabakitakoaren berri eman behar da, eta, 54. artikuluan aipatutako kasuetan, erabaki hori arrazoitu egin behar da. Horrez gain, ebazpenetan jaso behar dira zein errekurtsu aurkez daitezkeen ebazpenaren aurka, zein administrazio-organori edo organo judiziali aurkeztu behar zaizkion, eta zein epetan. Nolanahi ere, interesdunek egoki irizitako beste errekurtsoren bat aurkez dezakete’.*”

6.2.2. Etxebizitza beharra

Etxebizitza eskuratzeko zailtasunarekin zerikusia duten arazoek, batez ere, ijitoei eragiten diete. Une honetan, etxebizitza bat eskuratzeko ohiko zailtasunei auzotarren ukoa eta jabe batzuek etxebizitzak errentamenduan emateko duten ezezko jarrera gehitu behar zaizkie.

Horren ondorioz, aurtun izapidetu ditugun zenbait espedientek ijitoek etxebizitza bat eskuratzeko dituzten zailtasunak agerian jarri dituzte.

Hala, 799/2008 espedientean, lau seme-alaba adingabearekin eta haurtxo batekin kamioi batean bizi zen famili baten babesik gabeko egoera planteatu zen. Kasu honetan, egoera horri alaba zaharrenak ezgaitasun bat zuela eta ebakuntza batzuk egin zizkiotela gehitu behar zaio, kontuan hartuta egoera horretan jasan behar izan zituela aipatu ebakuntzak. Esku hartu zuten udal, foru eta hezkuntza administrazioen txostenen arabera, aipatu familiaren arazoa, funtsean, bizileku arazoa zen. Hezkuntza administrazioak adingabeen hezkuntza bermatzeko familiaren ahaleginak zituen hizpide. Azkenik, Eusko Jaurlaritzak errentamendu erregimenean etxebizitza bat esleitu zuen eta esku hartu zuten eragileen ustez jardun hori egokia izan zen, hain zuzen, bost seme-alaba zituen familia bat zelako eta, hori aintzat hartuta, familia guztia gizarteratzeko eta familiako kide jakin batzuk laneratzeko eta kide guztiek osasunerako eta hezkuntzarako sarbidea eskuratzeko, lan prebentiboa egiteko bidea ematen zuelako.

Lehen aipatu dugun ebazpenak, hau da, [2008ko abenduaren 19ko ebazpenak](#)¹⁴ etxebizitza eskuratzeko zailtasun hori hizpide zuen eta, ondorioz, lokalak erosi eta egokitzea, etxebizitza gisa erabiltze aldera, egoera batzuetan irtenbide edo aukera bakarra da.

¹⁴ Arartekoaren ebazpena, 2008ko abenduaren 19koa. Horren bidez, Hernaniko Udalarri gomendatzen zaio beharrezko izapideak egin aurretik, udal erroldan izena ematearen ziurtagiria egin dezala.

6.2.3. Hondatutako gunetako jarduerak

- Sestaoko Chavarri, Urbinaga, Rivas-Simondrogas eta Los Baños auzoak

Joan den urtean, [2006ko azaroaren 6ko ebazpenaren](#)¹⁵ jarraipena aipatu genuen. Aipatu jarraipenak honako honetan zetzan: erakunde honek, Sestaoko udalerriko gizarte eta hirigintza berrikuntzarako prozesua aztertze aldera, egin zuen txosteneko gomendioen jarraipena egitea. Txostenean eragile nagusiekin izan genituen bilerak aipatu genituen: Aldeberri eta Txabarrigarbi auzotarren elkarteak, Iniciativa Gitana Elkarte, beste gizarte talde batzuetako ordezkariak, hala nola, Cáritas eta Secretariado Gitano Fundazioa, Sestao Berri SA Sozietatea, Planaren zuzendaritza eta Sestaoko Udalarekin.

Aurten ebazpenaren jarraipenarekin segituko dugu. Eremuaren gizarte eta hirigintza berrikuntzarako prozesua ez da amaitu. Beraz, aipatu berrikuntzaren gomendioen betetzeari buruzko informazioa eskatu dugu, zehazki, honako alderdi hauei buruz:

- a) Erakunde arteko lankidetzak. Administrazio desberdinen artean adostasuna eta lankidetzak ote dagoen jakitea.
- b) Plan zuzentzailearen betetzean egindako jarduerak. Batez ere, arlo soziourbanistikoan eta soziokomunitarioan burutu diren proiektuak. Ebaluazio txostenak.
- c) Bizilekuak emateko jarraitzen ari diren irizpideak. Sestaon eta Sestaotik kanpo emandako aldi baterako bizilekuari edo behin betiko bizilekuari buruzko informazioa. Berrito bizilekua emateko egin diren prozedurak eta informazioa, eta baita egingo direnak ere. Berrito emandako bizilekuetan eragindako ijitoen familiak eta egun dute kokalekua. Berrito bizilekua emateko akordioek gizarte prestazioetan eta eroldaren izen-ematean duten eragina.
- d) Sestao Berri sozietatearen eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen arteko koordinazioa.
- e) Udal etxebizitzaren inguruan egindako kudeaketa eta garapen komunitarioko jarduerak.
- f) Aurri deklarazio prozedurak hasteagatik eragindako etxebizitzaren okupatzaileekin egindako jarduerak, Vega Nueva kaleko 6 eta 9koak eta Rivas kaleko 66 eta 68koak.
- g) Kohesio sozialera daramaten jarduerak, sentsibilizazio ekintzak, informazioa eta herritarren partaidetza.

¹⁵ Arartekoaren ebazpena, 2006ko azaroaren 6koa. Horren bidez, Sestaoko Udalarri, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Udal Harremanetako eta Hirigintzako Departamentuari jakinarazi zaizkie Sestao birgaitzeko prozesuari buruzko ondorioak eta gomendioak.

- h) Gizarte agenteekin egindako lankidetzak jarduerak, zehazki Cáritasekin, Secretariado Gitano Fundazioarekin, Iniciativa Gitana Elkartearekin eta Txabarri Garbi eta Alde berri auzotarren elkartearekin.
- i) Sestao Berriko egoera eta etorkizuneko aurreikuspena; alegia, agindutako lanak mantenduko ote diren eta sozietate horri laguntza ematen jarraitzea edo funtzioak zabaltzea aurreikusita ote dagoen.
- j) Aipatutako ebazpenaren edukiarekin zerikusia duen beste edozein gai."

Era berean, udalari gogorarazi genion: "erakunde hau ez zetorrela bat bizilekuen emateetan erabilitako zio eta irizpideekin, hau da, familiak duten premia ekonomikoko egoera larriaren arabera identifikatzeko, etnia batekoa izatea aipatzeko gertaerarekin eta Sestaon bizilekua emateko 15 urteko egiazko bizilekua egiaztatze eskakizunarekin.

Sestaoko Udalak 2007ko urrian plan zuzentzailearen eguneratzea egin zuen. Bertan, familia batzuei bizilekua Sestaotik kanpo emateko proposamena mantendu zuen, 'baliabide gutxi edo gizarte arazoak dituzten pertsonen kontzentrazioa txikiagotzeko', irizpide batzuk oinarri hartuta. Irizpideok, adibidez, oinarritzko errentaren jasotzailea, ijitoa izatea edo familia gatazkatsukoa izatea dira. Planaren eguneratzean, helburu estrategiko hori mantendu da. Hori dela eta, planak honako hau aurreikusi du: *%80an oinarritzko errenta jasotzen duten pertsonen lekualdatzea -93 lekualdatzeke daude-; horietako %50 gutxienez ijito familiak izan daitezela eta %10, berriz, inguruan arazo garrantzitsuak eragiten dituzten familiak.*

Gizarte arazoak dituzten herritar kontzentrazioa dagoen guneetan, adibidez, Sestaon, jardun publikoa zaila da. Ordea, zuzenbide estatu sozial eta demokratiko bateko eskakizunak oinarri hartuta, pertsonen eta taldeen berdintasun eta askatasunerako oztupoak kentzeko hartuko diren neurriak eraginkorrak izan behar dira. Ildo horretan, 298/2006/23 espedientean adierazi dizugun moduan, uste dugu bizilekuen ematea bideratu behar duen irizpidea legeko okupatzailearena izan behar dela eta egiazko bizilekuaren denborazko egiaztapena ez da 15 urtekoa izan behar. Arartekoak aipatu ebazpeneko 3. gomendioan hauxe adierazi zuen: 'Zonalde horietan agertzen den gizarte arazoa ezin da alde batera utzi, are gehiago lurzoruari emango zaion erabilera hirirako azpiegitura berriak egitea edota etxebizitza normalak eraikitzea izango bada gehienak higiezin merkatuan saltzeko'.

15 urteko erroldatzea egiaztatze baldintzari dagokionez, gehienez ere hiru urtekoa eskatzeko proposatu genuen, babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedurekin analogia izateagatik. Prozedurok Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2004ko abuztuaren 21eko Aginduan daude araututa.

Labur esanda, aurreikusitako irizpideak berrikustea proposatzen genuen, Simondrogas inguruan bizi ziren legeko pertsona okupatzaile guztiei bizilekua emango zaiela bermatzeko (4. gomendioa).

Erakunde honen ustez, egoera ahulean dauden pertsonak gizarteratzeko aukera desberdinak bilatu behar dira. Gainera, gida-planean ezarritako neurriak martxan jartzeko atzerape-nak eta urbanizazio eremuaren urbanizazio plana atzeratzeak, auri deklarazioarekin batera, pertsona ahulenak kaltetzen ditu nagusiki.”

- Abanto Zierbena udalerriko Santa Juliana auzoa

Esku-hartze publikoa behar duen hondatutako beste gune bat –askotan adierazi dugun mo-duan– Abanto Zierbena udalerriko Santa Juliana auzoa da. Auzo horretan hainbat eraikin zeuden, gehienak txabolak, udal baimenik gabe eraikiak eta urbanizazio zerbitzu egokirik gabekoak. Auzoaren egoerak azken urteotan zenbait kexa izapidetzeko bidea eman du, hain zuzen, hirigintzako zailtasunengatik eta erroldan izena ematea ukatu izanagatik. Joan den urtean hirigintza, gizarte eta parte hartze publikoko alderdiak aintzat hartu behar zituen erabateko esku-hartzearen beharra hizpide zuen jarduera bat (esp. zk.: 1618/2008) hasi genuen eta, txosten hau ixterakoan, irekita jarraitzen du (aurten egindako jarduerak Hirigintza Arloan, txosten honetako I. kapituluan, kontsulta daitezke).

Laburbilduz, auzoaren egoera ez da aldatu joan den urtearekin alderatuz gero: Hiri Antolamendurako Plan Orokorra berraztertuz eta auzoko lurzorua birkalifikatuz auzoa berrantolatatzeko izapideak bideratzen ari dira, gero urbaniza dadin eta etxebizitza berriak eraiki daitezzen. Aipatu etxebizitzetan eraitsi beharreko eraikinak direla-eta pertsoneri berriro bizilekua emango zaie. Ildo horretan, elementu positibo gisa garrantzitsua da aipatzea auzoan bizi zen familia bat erroldan inskribatzeari ekin zaiola. 2008ko urteko txostenean, auzoan bizi ziren ijitoek, udal erroldan izena eman zezaten, zailtasunak zituztela adierazi genuen. Arartekoak oso positibotzat jo du aldaketa hori.

6.3. ONDORIOAK

1. Datuak sexuaren eta etniarekin arabera bereizi ahal izatea garrantzitsua da, hezkuntza, lan, etxebizitza, osasun eta partaidetza politikoko zerbitzuetarako sarbide maila ezagutze aldera; hori guztia datuak babesteko araudiari jarraiki. Datuak bereizita ez edukitzeak egoeraren berri izatea zailtzen du eta kasuan kasuko gizarte politiken eragina ebaluatzea eragozten du, baita diseinua ere.
2. Europako Ekialdetik etortzen diren ijito berrien egoerak erronka berriak planteatu dizkio herri-administrazioei eta gizarteari. Erronka horiek hausnartu egin behar dira eta arduradunek esku hartu behar dute, onartu edo gain hartutako Europako konpromisoei jarraiki.
3. Ijito gehienek behar bezalako bizilekua eskuratu ahal izateko dituzten zailtasunak bizitza duina edukitzeari eragiteaz gain, lan, hezkuntza eta gizarte zerbitzuetarako sarbidea mugatzen du.

4. Ijitoek bereizkeria pairatzen dute etxebizitza pribatu bat eskuratzekoan eta erroldan izena emateko eskubideak baliatzeko zailtasunak dituzte.
5. Bizilekua emateko hartutako nazioarteko konpromisoak betez onartu diren politika publikoek, batzuetan, gizarte erantzuna dute. Herri-administrazioek legezketasuna erreserbarik gabe bete behar dute, auzotarren ukoak edo polizi aurrekariak edukitzeak familia batek etxebizitza eskuratzeari galaraz ez dezaten.
6. Ijitoek beren eskubideak berdintasunez baliatzeko dituzten zailtasunei buruz biztanleei informazioa ematea eta sentsibilizatzea beharrezkoa da.

II.7

**BERARIAZKO ARRETA
GIZARTEAN BAZTERTUTA EDO
POBREZIAN BIZI DIREN PERTSONEI**

7. BERARIAZKO ARRETA GIZARTEAN BAZTERTUTA EDO POBREZIAN BIZI DIREN PERTSONEI

Erakunde honen lehentasunezko arretetariko bat da gizarte bazterkeriako prozesuetan dauden pertsonen egoera. Atal honetan Arartekoak 2009an aurrera eramán eta pertsona hauek ukitzen dituzten jarduketak jasotzen dira. Era berean, beste helburuetariko bat da ohartaraztea zeintzuk diren gure erkidegoko pertsona askok dituzten zailtasunak euren eskubideak egikaritzeko eta oinarrizko premiei aurre egiteko, adibidez etxebizitzaren nahiz jatekoaren premiei. Gaur egungo krisialdiak larriki eragin die sektorerik ahulenei, eta horregatik oso garrantzitsuak dira gizarte bazterkeriaren kontra borrokatzeko politika publikoak. Sektorerik ahulenen artean egoera irregularrean dauden atzerritarrak ditugu (kapitulu honen 5. puntura jo beharra daukagu, ETORKINen arretari buruzkora, hain zuzen). Atal honetan arautegia eta zenbait politika publiko aztertuko dugu, eta Arartekoak kolektibo honi begira aurrera eramandako jarduketak erakutsiko dira. Era berean, aparteko bi txostenei jarraipena egiteko jarduketak jasotzen ditugu, hau da, etxerik gabeko pertsonen eragiten diena eta gizartean esku hartzeko hirugarren sektorearen lanaren baldintzei buruzkoa (garrantzi handikoa kolektibo horren lanean). Azkenik, aipatu behar dugu *babesik gabeko helduen gaia* izenekoa eta gai eta kezka garrantzitsuenak islatzen dituzten ondorioekin bukatuko dugu.

7.1. 2009an zehar abian jarritako arautegi eta politika publikoak

a) Arautegia

2009an Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea dela-eta zalantzak sortu dira, ez baita legea arau bidez garatzeko neurririk. Gauzak horrela, interpretazio desberdinak sortu dira foru aldundietan eta Vitoria-Gasteizko Udalean arautegia betearazteko orduan eta, zehatzago, sarreren bermearen errentaren pertsona onuradunen baldintzak baloratzeko orduan. Arau bidezko garapenak garrantzi handia dauka, sarreren bermearen errentaren eta etxebizitza osagarriaren onuradunek bete beharreko baldintzak ezartzen dituelako. Lehenengo kapituluan, GIZARTE EKINTZAren atalean, gizarte politikari eragiten dien arautegia aipatu dugu, eta, beraz, atal horretara jo beharra daukagu. Atal honetan gizarte bazterkerian dauden eta horretarako arriskua duten pertsonak kontratatzeko diru-laguntzen deialdi bat besterik ez dugu aipatuko (haien lana galdu eta langabeziagatik ordainketa prestazioa jasotzen ez dutenak edo sarreren bermearen errenta hartzen ez dutenak); hona eman deialdi hori: Agindua, 2009ko azaroaren 25ekoa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan langabezian dauden eta/edo diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten pertsonen kontratazioa sustatzeko ezohiko laguntzak iragartzen dituena. Pertsona horiek kontratatzen laguntzeko deialdia da udalei, enpresei eta irabazi-asmorik gabeko erakundeei zuzendutako diru-laguntzen bidez. Lan horiek ezin dira planteatu lehenagoko lanen ordezkapen modura, baizik eta gizarte erabilerako jarduera berrien sustapen gisa.

b) Politika publikoak

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak Arreta Soziosanitariorako 2005-2008 Planaren ekonomi eta finantza balioespena onetsi du (2009ko azaroaren 20ko EHAA, 224. aldizkaria), foru aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak ezarritako jarduketei eragiten diena. Plangintza hori ondoko pertsonen zuzentzen zitzaizkien: osasun arazo larriak eta muga funtzionalak zituztenez edota aldiz berean osasun nahiz gizarte arreta behar zuten eta bazterketa arriskuan zeuden pertsonen. Sarri askotan gizarte bazterkeria larriar dauden pertsonen kolektiboari osasun metaleko arazoek edo bestelako gaixotasun somatiko eta kronikoek edo baliaezintasunek eragiten diete; horren ondorioz, pertsona horiek gizarte arretako premiak ez ezik osasun arretako beharrezkoak ere izaten dituzte.

Esparru soziosanitarioaren garapenak ahalbidetu behar du bere premiei arreta hobea ematea. Pertsona horiei zuzendutako arretaren mugetariko bat da arretaren zailtasuna, betiere bazterkeria prozesurik jasan ez duten pertsonen zuzendutako zentroetan. Kolektibo horrek egoitza unitateetako plazak erabiltzea ala ez aztertu beharreko elementu garrantzitsu bat da.

Kolektibo horri zuzendutako esparru soziosanitarioa garatzeko garrantziak beharrezko egiten du Arartekoak arreta soziosanitarioaren inguruan egindako aparteko txosteneko ondorioak berrestea. Txostenean zenbait posibilitate planteatzen genituen, hala nola gizarte zerbitzuen mapa bat egitea arlo hori garatzeko edo finantzazio malguko formulak ezartzea programa berriak martxan jartzeko bizkortasun handiagoa izateko. Koordinazio azpiegituren sorreran aurrerapausoak eman dira, baina ez da neurri berean aurreratu lan koordinatua, diziplina askotarikoa eta izaera soziosanitarioko programak eta zerbitzuak bultzatzeko proiektuak eta ekimenak abian jartzeko orduan; beraz, horien premia azpimarratu behar da. Kapitulu honetako ADINEKOei buruzko atalean zehaztu dugun bezala, Osasun eta Kontsumo Sailari informazioa eskatu diogu arreta soziosanitarioari buruzko txostenaren gomendioen betetze mailari dagokionez. Txosten hau bukatzeko orduan, sail horrek jakinarazi digu ezin digula informazio hori helarazi aurreikusitako epean, baina emango digula prest izan eta berehala.

Guk egindako gomendioen artean honakoa ere bazegoen: ahaleginak biltzea iraupen luzeko premia konplexuak dituzten kolektiboetan. Horixe da gizarte bazterkeria larriar dauden eta osasun nahiz gizarte baliabideak eskuratzeko muga gogorrek dituzten pertsonen kasua, batez ere askotariko problematikak izanez gero, esate baterako patologia duala.

Aurten Bilbori eragiten dioten bi programa soziosanitario berri nabarmentzen ditugu. Horietariko bat da udal aterpetxean gaixondoko unitate soziosanitario bat martxan jartzea; hori aurrerago aipatuko dugu, gizarte bazterkeria larriar dauden pertsonen egoerari buruzko aparteko txostenenaren jarraipenari buruzko 7.3. puntuan, hain zuzen ere. Beste elementu bat da Bizitegi elkartearen Onartu programaren Txurdiragako kokapen berria dela-eta sortutako problematika; horri men egiten diogu izapidetutako kexei buruzko atalean. Baliabide horiek behar-beharrezkoak dira; hortaz, datorren urtean aurrerapen handiagoa eta programa

berriak egotea espero dugu, betiere Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Sailaren hausnarketa estrategikoaren emaitza gisa.

Azkenik, aurten EAEko osasun metaleko 2009ko estrategia onetsi du Osasun Sailburuaren 2007ko urriaren 4ko Agindu bidez sortutako Euskadiko Osasun Mentaleko Aholku Kontseiluak. Estrategia honek aurrera eraman beharreko ekintzak proposatzen ditu osasun mentala artatzeko komunitate antolakuntzako ereduari jarraituz (beti ere Europako erreferente gisa). Bigarren ildo estrategikoa nabarmendu behar dugu, osasun mentalaren prebentzioari dagokiona, zehatzago esateko, gizarte bazterketarako arrisku handiko komunitate arloetan esku hartzeko ekintzak; laugarren ildo estrategikoak Osasuneko Nazio Sistemako zerbitzuen barruan sartutako prestazioak eraginkortasunez garatzeko eta ezartzeko xedea du, esate baterako nortasun desorekari, drogamenpekotasunen arretari edo diagnostiko dualari buruzko programak edo osasun eremutik kanpo geratzen diren esparruen koordinazioa, hala nola esparru soziosanitarioa edo espetxeak. Era berean, garrantzizkotzat jotzen dugu bosgarren ildo estrategikoa nabarmentzea, hau da, arreta soziosanitariorako arretari buruzko plan estrategikoaren garapena aurreikusten duen erakundeen arteko koordinazioa eta pazientearen arreten jarraipenean bilbatutako erakundeen arteko batzordeen jardunbidea eta koordinazioa; izan ere, horiek guztiak oinarri-oinarrizkoak dira kolektibo honetako premiak artatzeko lanean.

7.2. Pertsona hauei eragiten dieten kezkek edo zailtasunak jasotzen dituzten zenbait kexa, 2009an izapidetutakoak

- Etxerik gabeko pertsonen zuzendutako gizarte baliabideen kontrako arbuioa

Aurten kexa bat izapidetu dugu Bizitegi elkarteak kudeatutako Eskakizun Txikiko Eguneko Zentroaren lekualdaketa dela-eta sortutako zailtasunen inguruan.

Bilboko Udala ez da bat etorri elkarte horrek aukeratutako kokapenean programa hori mar-txan jartzearekin. Erabaki horrek eta zenbait adierazpen publikok oihartzun handia izan dute komunikabideetan.

2009ko azaroaren 26an, udalaren osoko bilkurak erakunde adierazpen bat irakurri zuen, *Bizitegi elkarteak Txurdinaga auzoan sustatutako Eskakizun Txikiko Eguneko Zentroaren irekiera (Onartu) desegokitza*z joz. Adierazpen horretan gizarte ekipamenduen beharrezana onartzen zen, baina ez zettorren bat kokapen horrekin, adin txikikoen ikastetxeetatik hurbil zegoelako eta ingurunearen ezaugarriak kontuan hartzen ez zirelako. Bertan planteatzen zen kokapena "gizarte zerbitzuen mapa"ren diseinu orokorraren barruan sartu behar zela, hau da, erakundeen planifikazioaren barruan. Aldi berean, adierazpenak zehazten zuen, instalazio mota horien helburua herritarrei gizarte zerbitzuak zuzenean eskaintzea bazen, "hori guztia Bilboko Udalarekin adostu beharra dagoela, eraikinari ematen zaizkion erabilerak onartzeko orduan".

Azkenik, zehazten zuen beharrezkoa zela herritarrei gizarte zerbitzuak eskaintzen zizkieten kolektiboekin elkarrizketak bideratzea, protokolo bat eta ezarpen nahiz jardunbide arauak jartzeari begira, betiere Bilbon etorkizunean egon zitezkeen gizarte ekipamendu berrien instalazioa arautzeko asmoz.

Arartekoak aurreko gertakarietara buruzko argibideak eskatu zituen eta alde zuzeneko gogoeta batzuk helarazi zituen. Gogoeta horiek Arartekoaren ondoko aparteko txostenean jasotako gomendio eta ondorioak aipatzen zituzten: *Etixerik gabe eta bazterketa larrian dauden pertsonen oinarritzako premiei eman beharreko erantzuna*. Txosten horretan artapen sistematik Bizkaian zituen mugak aztertzen genituen, esate baterako eskakizun txikiko eguneko zentroetako plazarik eza. Zentro horiek erreferentzia eremua dira pertsona horientzat. Izan ere, aldaketa prozesuak hasteko eta gizarteratzeko prozesuetarako aukera ematen dute. Pertsona horiek artatzeko plaza gehiagoren premia gizarte larrialdietarako arreta sistemak duen hutsunetariko bat da. Aparteko txosten horrek antzeman zuen 2005ean okupazio indizea handiagoa zela eskaintzen ziren plaza egokien indizea, eta eskakizun txikiko eguneko zentroetan plazak handitzeko beharrezkoa aipatzen zuen, egoera larrian zeuden pertsonen estalduraren bat emateko.

Gure idazkian gogora ekartzen genuen zeintzuk ziren herri administrazioei bidalitako gomendioak, betiere premia guztiei erantzuteko gaitasuna zuten baliabideen beharri buruz: 13. *Gaixotasun mentala eta patologia duala artatzea*; 14. *Drogamenpekotasun eta desintoxikazioaren esparruan arriskuak murrizteko programak*; 15. *Susperraldiari eragiteko baliabideak*; 16. *Etixerik gabeko pertsonen profil guztiak artatzeko baliabide berrien premia*; 17. *Artapen osoa ahalbidetzen duten baliabideak eta gizarte zerbitzuetara hurbiltzen ez diren etixerik gabeko pertsonekin kontaktatzeko bitartekoak*; 18. *Bazterkeria larriko egoerak prebenitzen dituzten baliabideak*; 19. *Ezgarritasunen bat duten pertsonen beharrezko zehatzak artatzeko baliabideak*; 20. *Gizarteratze prozesu baten askotariko egoerak artatzeko baliabideen beharra*.

Halaber, 6. gomendioa ere gogoratzen genuen: sektorea planifikatzeko premia: *"Gizarteak arbuiaututako baliabideak sortzeko eta defendatzeko lidergo politikoa"*. Gomendio horretan baliabide berriak zabaltzeko problematika aztertzen zen horien kokapenak gizartearen arbuioa eragiten zuenean; izan ere, horrek eragin du kontuan hartu beharreko elementua izatea edo elementu erabakigarria izatea, betiere baliabide berri bat zabaltzeko erabakia-ri begira. Hori dela eta, oso garrantzitsua iruditu zitzaigun planifikazio publikoa, betiere auzokide ordezkartzaren aurrean defenditu ahal izateko baliabide zehatz bat ingurune jakin batean kokatzeko premia, betiere antzeko beste batzuk beste inguru batzuetan kokatzen diren modu berean (edo planifikazioaren arabera kokatuko direnak).

Azken batean, plangintza "solidarioa" egiten saiatu beharko lirateke horrelako dispositiboak jartzeko. Hain zuzen ere, dimentsio txikiko baliabideak sortzea sustatuko lukete, eta baliabide horiek hiri osoan eta EAEko udalerrri guztietan banatuta egongo lirateke. Horretarako, kontuan hartu behar da horrelako dispositiboak hartzeko komunitateak duen gaitasuna, eta guztiak zona jakin batzuetan metatzea saihestuko da.

Aipatutako izaera orokorreko gomendioan, Ararteko erakundearen iritzia izan zen administrazio eskudunek jarrera aktiboa eta buruzagitzakoa hartu behar dutela kasu guztietan, honako helburuak eskuratzeko:

- Gizartearen sentsibilizazioa sustatu behar da, biztanle zehatz batzuek baztertuak izateko arriskua dutenean eta horientzat zerbitzuak sortu nahi direnean. Zerbitzu horiek beharrezkoak eta onak dira, eta gizartea horretaz jabetu behar da. Horretarako, nahitaezkoa da, gutxienez, informazio sistematiko eta argia eskaintzea, bazterkeriaren aurkako politika eta apustuei buruz, bai eta bazterkeria horren aurkako gizarte erantzunari buruz ere.
- Laguntza-beharrizanak zehatz-mehatz aztertu behar dira eta, horren ondorioz, erantzunak eta horien lurralde-banaketa planifikatu behar dira. Ahal den neurrian, saihestu behar da gehiegizko kontzentrazioak izatea, horrek ghettoak sortzeko arriskua baitakar.
- Gizarteari parte hartzeko mekanismoak eskaini behar zaizkie, eta mekanismo horiek izan eta zabal daitezten erraztu behar da. Halako mekanismoen bitartez, argibideak eta proposamenak trukatu ahal izango dira, eta, horrekin batera, proiektuaren fase guztietan, presentzia aktiboa izango dute, bai antolatutako gizarte agenteek (elkartee...), bai eta zuzenean ukitutako auzotarrek ere.
- Ukitutako administrazio edo sail desberdinen artean (tokikoak, lurraldekoak nahiz erkidegokoak), koordinazioa izan behar da, eta administrazio edo sail horiek jarrera bateratuak izan behar dituzte.
- Zerbitzuaren jardunbidea zuzena izan dadin, beharrezkoak diren bermeak eskaini behar dira. Konparazio baterako, egitaraueri edo profesionali laguntza, kontrola, ebaluazioa eta jarraipena bermatu behar zaizkie, batik bat, balia bidearen kudeaketa beste erakunde baten esku uzten denean edo baliabide hori gizarte ekimenetik sortzen denean. Bermeak eskaini behar zaizkie, gainera, dela zerbitzuaren erabilitzaileei, dela toki horretako auzotarrei.
- Ahal den neurrian, istiluak saihestu behar dira; eta, istiluak sortzekotan, lan egin behar da, horiek azkar konpon daitezten.
- Egitarauen gaineko jarraipena egin behar da; jarraipen horri esker, beharrezkoak diren aldaketak egingo dira eta, modu berean, eginera onak zabalduko dira.

Udal korporazioak Bizitegi elkartearen Onartu programa martxan jarri behar zela-eta egingako adierazpen politikoa onartzen zen ez zela erakundearen lidergorik egon; esan nahi baita, aurretiaz ez zen bete Arartekoak baliabide mota hauen planifikazioan lidergoa izateko emandako gomendioa; horren ondorioz, ondorengo hau adierazi genuen: "Logikoa izango litzateke errealitate hori onartzeak buruzagitza gauzatzeko balio izatea, eta ez eskakizun txikiko eguneko zentroa –Onartu– irekitzearen aurkako jarrera justifikatzeko. Erakunde buruzagitza faltak edo etorkizuneko gizarte zerbitzuen maparen aurreikuspenak ezin du galarazi beharrezkoa den gizarte babeserako zerbitzua martxan jartzea".

Ildo horri jarraituz, honako hauxe ondorioztatu genuen: "udalak herritarrek parte hartzeko bideak jarri behar ditu. Alde batetik, auzotarrek gaiari buruz pentsatzen dutena entzuteko helburuarekin, eta bestetik, lege esparruan, tartean dauden pertsona guztien interesak

bateratzea ahalbidetzen duten funtzionamendu bermeak ezartzeko. Herri administrazioak une oro aintzat hartu behar dituen bi alderdi daude: Alde batetik, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 7. artikulua ezartzen duen jardueran. i) atalean hauxe ezartzen da: *“Botere publikoek gizartearen ekimena eta parte-hartzea sustatuko dute gizarte zerbitzuen alorrean, irabazi asmorik gabe, eta bereziki, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari.”* Gizarteko beharrak asetzen dituzten zerbitzuak abian jartzeko garaian, gizarte ekimenak askotan ordezkatu du ekimen publikoa. Bestalde, erakundeek alor honetan gauzatu behar duten buruzagitza ez da soilik gizarte baliabideak planeatu eta sortzeari buruzkoa. Izan ere, aurretik aipatu moduan, gizarteko erantzuna duten baliabideak babesteari buruzkoa ere bada.”

Bilboko Udalari ere honakoa bidali genion: “Hirigintzako araudia zuzentzen duena “hirigintzako lizentziei eta horiek izapidetzeari buruzko Ordenantza” Bilboko Udalbatzak 1996ko azaroaren 27ko bilkuran onetsia (1997-03-14ko BAO). Lokalean jartzea pentsatzen den jardueran ez da kaltegarria, eta horregatik, ez dago kalifikatutako jarduerak duten araudi eta izapideari lotua.

Tokiko Korporazioetako Zerbitzuei buruzko Araudiak hauxe aipatzen du: *“Tokiko korporazioei beren administratuen jardueran esku hartzeko eskumena emango zaie. Eskumen hori gauzatuko da funtsatzen duten arrazoen arabera eta, hain zuzen ere, eskumena zehazten duten helburuetarako”* (4. art.). Esku-hartze hori arautua dago eta ez da hautazkoa. Horregatik, emandako obra lizentzia baten eraginkortasuna ezin da gero alde bakarretik indargabe utzi. Lizentzia bat ematea eskubideak aitortzen dituen egitatea da eta, hortaz, lizentzia baliogabetu daiteke, soilik legean aipatutako kausei jarraiki eta legez ezarritako prozeduraren bidez.” Bilboko Udalak 2009ko irailaren 4ko datarekin obra lizentzia eman zuen lokala egokitze eta Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Udal Zerga ordaindu zen.

Udalak gure idazkiari erantzun zion erabakia Bizitegi elkarteak hartu zuela berak bakarrik eta ondorioz ulertzen zuela erabaki mota horiek udalaren adostasunarekin ere hartu behar zirela. Era berean, adierazten zuen sarri erakutsi duela lidergoa bere eskumeneko lurraldean gizarte zerbitzuak ezartzeko orduan; izan be, erabakiak hartu ditu, etorkizuneko ekipamenduetatik hurbilen zeuden auzokideekin eztabaidatu ditu eta haien alde egin du gogor kritikatuak izan direnean. Halaber, honako erantsi zuen: *“Aunque otros ayuntamientos no hayan hecho absolutamente nada para atender a las personas sin hogar, nosotros seguiremos actuando con rigor, solidaridad, tal y como lo hemos venido haciendo hasta la fecha.”*

Udalaren ustean, lekualdaketa ez zen egokia ondorengo arrazoiak zirela eta:

“- Liderazgo institucional: El Ayuntamiento dispone de una potente oferta para las personas sin hogar. Oferta que es liderada mayoritariamente por el propio Ayuntamiento, y en varios casos en colaboración con diversas asociaciones, entre ellas la propia Bizitegi.

- Apoyo a la iniciativa privada.- Son varias las Asociaciones que por iniciativa propia, y en algunos casos con el apoyo del ayuntamiento, han puesto en marcha recursos

orientados a las personas sin hogar en Bilbao. Incluidos centros de días para estas personas.

- *Compromiso del Ayuntamiento de Bilbao y de sus vecinos.-El hecho de que otros Ayuntamientos del Territorio Histórico de Bizkaia, no asuman sus obligaciones para con las personas sin techo, obliga al Ayuntamiento de Bilbao a realizar un importante esfuerzo para cubrir la demanda del conjunto de Bizkaia. Esfuerzo que el Ayuntamiento de Bilbao realiza con responsabilidad, compromiso y solidaridad incuestionables*
- *Momento clave sobre el desarrollo y futuro de los servicios sociales.- En el marco del desarrollo de la Ley 12/2008 de Servicios Sociales, se están debatiendo actualmente aspectos claves para definir el futuro de los recursos sociales, tales como el Mapa de Recursos y la Cartera de Prestaciones y Servicios. Es decir que tendremos que decidir entre todos, qué tipo de equipamientos son los más adecuados para cada caso, dónde se ubican, cuando se ponen en marcha, etc. Dicho de otra forma, estamos en un momento clave de definición del Sistema Vasco de Servicios Sociales. Como Área de Acción Social estamos participando activamente en esas reflexiones, y en el caso concreto que nos ocupa, tenemos nuestras dudas de que el futuro de los equipamientos de día para personas sin techo, sea el actual modelo de algunos centros, en los que a estas personas se les acoge durante el día, y se les deja en la calle al anochecer. Quizás haya que pensar en centros integrales, donde se les atiende durante el día y la noche.Las características de estos modelos, su ubicación adecuada, las actividades a realizar en los mismos, son algunos aspectos que se están debatiendo en la actualidad.*
- *Camas para personas sin hogar convalecientes.- Respecto a la ampliación de 5 plazas para personas sin hogar convalecientes en el pretendido nuevo centro de Txurdinaga, le informo que tras las conclusiones del estudio realizado por la UPV, por encargo de la Diputación Foral de Bizkaia, este Ayuntamiento ha actuado una vez más con responsabilidad y rapidez, y se han implementado algunas de las recomendaciones que se nos hacían, entre ellas, la puesta a disposición de las personas sin hogar convalecientes de 8 camas atendidas no solamente durante el horario diurno, sino las 24 horas del día.*
- *Opinión contraria de todos los grupos políticos del Ayuntamiento de Bilbao.- La opinión contraria al traslado de este centro, tanto de todos los grupos políticos del Ayuntamiento, como de muchos vecinos de la zona de Txurdinaga, nos conduce a pensar que, por una parte debiera mantenerse este equipamiento en su actual ubicación –con alguna mejora si fuera preciso–, y por otra a afirmar que el entorno social en el que se ubicaría en Txurdinaga, no es el más adecuado para una eficaz acción de ayuda a estas personas sin hogar.*
- *Ubicación inadecuada.- Las características de la zona, y sobre todo las distancias y medios de transporte a los albergues no son los más adecuados. Los albergues*

municipales para personas sin hogar, que serían los lugares a los que prioritariamente acudirían a pernoctar, están muy alejados y mal comunicados con la zona de Txurdinaga donde se pretende trasladar el centro."

Azkenik, udalak honakoa ondorioztatzen du:

"Nosotros respetaremos la legislación vigente, como no puede ser de otra forma, pero seguimos opinando que más allá de lo que la Ley establezca, estas decisiones deben tomarse en colaboración con la Administración, de forma consensuada, razonada, solidaria, y siempre con el objetivo de prestar el servicio más adecuado a las personas que más nos necesitan, en este caso las personas sin hogar.

El mantener una decisión –aunque la ley te lo permita–, contra viento y marea, sin el apoyo de ningún grupo político y sin la implicación del entorno social, en nada beneficia a los futuros usuarios del recurso, ni tampoco al conjunto de las políticas sociales que entre todos debemos legitimar."

Arartekoak Txurdinagako auzokideen elkarteko ordezkariekin bilera bat egin zuen. Elkar-
teak zentroaren irekiera arbuizatzeko zeuzkan arrazoi eta argudioak azaldu zizkion. Honako
arrazoi hauek eman zituzten: auzokideei proiektuaren berri emateko modua, lokalaren be-
netako edukieraren inguruko susmoak, artatu beharreko pertsonen kopuru potentziala,
zentroaren kokapena ingurunea kontuan hartuta, etxerik gabeko pertsonen zuzendutako
beste baliabide batzuen urruntasuna, pertsonen gaua inguruetan pasatzeko beldurra eta
baliabideak pertsona horien premiak asebetetzeko baliabidearen egokitasunari buruzko
gai teknikoak.

Beste elementu garrantzitsu bat gizarte erakundeen esku-hartzea izan da (pobrezia-
ren kon-
trako sarea, ekonomia alternatibo eta solidarioaren sarea, Gizatea, Gizardatz...); izan ere,
erakunde horiek aldeko jarrera azaldu dute, hau da, Bizitegi elkarteak Txurdinagako kokapen
berrian zerbitzua handitzearen alde agertu dira.

Horren ondoren, komunikabideei helarazitako informazioaren arabera, udalaren eta Bizitegi
elkartearen arteko akordio bat lortu da, etxerik gabeko pertsonen beharriari erantzun
egokia eman ahal izateko. Gainera, komunikabideek jarduketa protokolo bat aipatu zuten
gizarte zerbitzuak instalatzeko, betiere kokapen baten edo beste baten egokitasuna irizpide
objektiboen arabera neur dadin.

Erakunde honek modu positiboan baloratzen du akordioa. Arartekoak Bilboko Udalera jo du
berriro ere eta argibideak eskatu dizkio Bilbon etxerik gabe dauden pertsonen premiei aurre
egiteko egin beharreko jarduketei buruz, bai eta Bizitegi elkarteak Txurdinagan alokatutako
lokalaren erabilerari buruz nahiz gizarte zerbitzuak instalatzeko jarduketa protokoloari buruz
ere. Erakunde honek espedientea zabalik dauka, martxan jarritako jarduketan jarraipena
egiteko asmoz.

- Erroldan inskribatzeko zailtasunak

laz Gasteizko Udalari zuzendutako ebazpen batzuk aipatu genituen, onartuak izan zirenak. Horietariko batek etxerik gabeko pertsona bati eragiten dio, ([Arartekoaren ebazpena, 2008ko irailaren 15ekoa](#)¹⁶), eta beste batek gizarte bazterketarako arriskuan dagoen pertsona bati ([Arartekoaren ebazpena, hori ere 2008ko irailaren 15ekoa](#)¹⁷).

Udalak erantzun zigun protokolo bat prestatzen ari direla: *“ un protocolo que recoja la diferente problemática planteada tanto en el empadronamiento de personas sin hogar, como de aquellas otras que se encuentran en situación de vulnerabilidad social por distintas razones, de manera que se unifiquen los criterios utilizados al resolver los procedimientos en cuestión. El protocolo incluirá la mejora de la información facilitada a los ciudadanos a través de los distintos canales por los que el ciudadano puede relacionarse con este Ayuntamiento. A tal efecto, se han mantenido reuniones con el Departamento de Intervención Social en las que se han comenzado a trabajar los criterios de actuación. En cualquier caso, es necesario hacer constar que la elaboración de dicho protocolo es un proceso que incluye la toma de contacto y la aprobación de normas comunes de actuación, no solo con distintos Departamentos Municipales, sino también con otras Administraciones que puedan resultar implicadas, tales como la Diputación Foral de Álava o el Gobierno Vasco. Proceso que entraña serias dificultades que tendrán que ser superadas en el desarrollo de los trabajos.”*

Protokoloa tramitatzeko egoerari buruzko argibideak eskatu ditugu. Udalak erantzun digu dokumentua izapidetzen ari direla eta zirriborroaren kopia bat bidali digu, etxerik gabeko pertsonen erroldatzeari eragiten dion prozedura jasotzen duena. Arartekoak zirriborro horren inguruan egin duen balorazioa positiboa da. Aurkeztutako zirriborroak udalen atalen eta erakunde inplikatuaren artean aurrera eramandako lankidetzaren lana islatzen du, bai eta egoera bereziei erantzuna emateko zeregina ere, hala nola etxerik gabeko pertsonekin gertatzen den bezala. Halaber, Toki Araubideko Oinarriari buruzko Legea aplikatuz erroldaren inguruan emandako jarraibideak betetzen ditu; horren arabera, udaleko erroldan udalerrian benetan bizi diren biztanleen kopuruaren errealitatea islatu beharra dago.

¹⁶ Arartekoaren ebazpena, 2008ko irailaren 15ekoa. Horren bidez, Gasteizko Udalari iradokitzen zaio erroldatzeko baldintzei eta eskubideari buruzko informazioa hobetu dezan; eskaera idatziz aurkeztu dezan; eta erroldan izena emateko etxerik gabeko pertsonen izena ematea mantentzeko zailtasunak kontuan hartzen dituen jarduera protokoloa landu dezan.

¹⁷ Arartekoaren ebazpena, 2008ko irailaren 15ekoa. Horren bidez, Gasteizko Udalari iradokitzen zaio erroldatzeko baldintzei eta eskubideari buruzko informazioa hobetu dezan; eskaera idatziz aurkeztu dezan; eta gizarte bazterkeria jasateko arriskuan dauden pertsonen, erroldan izena emateko edo mantentzeko zailtasunak kontuan hartzen dituen jarduera protokoloa landu dezan.

- Etixerik gabeko pertsonak artatzeko zerbitzuen premia

Pasa den urtean **dutxen udal zerbitzua** martxan jartzeko beste ebazpen bat aipatu genuen, 419/2006 espedientea. [Arartekoak 2008ko abuztuaren 28ko ebazpena](#)¹⁸ egin zuen eta ebazpen horretan Donostiako Udalari iradoki zion dutxa publikoen udal zerbitzua abian jartzeko, betiere pertsona guztiei zuzenduta eta kostu txiki batekin. Udalak ez du iradokizuna onartu eta, beraz, dutxa bat behar duten etxerik gabeko pertsonen egoera ez da batera aldatu Donostian. Dutxa zerbitzu bat behar izango balute, Cáritas erakundeak ematen duen zerbitzura jo dezakete edo Kontxako hondartzako kabinetara (neguan) eta Zurriolakoetara (udan).

- Sarrerren bermerako errentaren onuraduna izateko beharkizunak betetzeko zailtasuna

Pertsona horiek zailtasun asko dituzte alojamendu egokia eskuratu ahal izateko. Arrazoiak askotarikoak dira: alde batetik, alokairuen prezio handia eta etxebizitzena eta, beste aldetik, etxebizitzaren jabetzak abalak eta bestelako bermeak eskatzea maizterrak aukeratzeko orduan konfiantza izateko.

Horri gehitu behar zaio jatorri kultural batzuetako pertsonenganako konfiantzarik eza. Horren guztiaren ondorioz, pertsona askok ez dute alojamendu egokirik aurkitzeko aukerarik eta, gainera, arazoa da, pertsona horiek sarrerren bermerako errenta eskatu nahi badute, ez dutela betetzen alojamendu independentea eskura izateko baldintza.

Aurten izapidetu dugun 931/2009 espedientearen kexak lanpostua zeukan eta familia osatu zuen pertsona bati eragiten zion, hau da, bizitza "normalizatua" zeukan pertsona bati. Alabaina, bere dibortzioaren ondorio gisa alojamendu berria bilatu behar izan zuen eta, lanik ez zuenez eta alokairuen prezioa oso handia zenez, gela bat alokatu zuen eta sarrerren bermerako errentaren prestazioa eskatu zuen.

Foru Aldundiak eskatu zion azpialokairuaren edo ostatu-apopilotzaren kontratu bat aurkezteko, betiere prestazioaren izapideak aurrera segi dezan. Etxebizitzaren jabeak ez zuen agiri horietariko bakar bat ere izenpetu nahi izan eta maizterrari eskatu zion etxebizitza uzteko, beste pertsona batzuei alokatu nahi zielako. Hori egin ezean, bere segurtasunaren kontrako kalteekin mehatxatu zuen; ondorioz, maizterrak beharrezko salaketa jarri behar izan zuen epaitegian.

Foru Aldundiak bere erantzunean zehazten du agiri hori aurkezteko eskaera egin ziola, bizi-kidetzaren independentea unitate ekonomiko bat osatzeko premiaren baldintza betetzen zela egiaztatu ahal izateko, betiere Gizarteratzeko Gutxieneko Sarrera arautzen duen apirilaren

¹⁸ Arartekoaren ebazpena, 2008ko abuztuaren 28koa. Horren bidez, Donostiako Udalari iradokitzen zaio dutxa publikoen edo "bainu etxeen" udal zerbitzua ezar dezala, guztiei irekia, udalerriko leku egonkor batean kokatuta eta, gutxienez, merke.

20ko 198/1999 Dekretuak ezarritakoarekin bat etorriz; izan ere, horixe da aplikatu beharreko arategia Sarreren Bermerako eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea arau bidez garatzeko dekretu bat onesten ez den bitartean.

Jarraian Bizkaiko Foru Aldundiaren erantzuna azaltzen da, espediente honetako problematikaren berri emateko interesgarria delakoan.

“Ildo horretatik, 198/1999 Dekretuak, 4. eta 5. artikuluan, bizikidetzako unitate ekonomiko independentea zein pertsona edo pertsona talde diren zehazten da. Lehenengo artikulua etxebizitzan bizi diren pertsonen edo pertsona taldeen ezaugarriak kontuan hartuta bizikidetzako unitate mota zehazteko irizpideak jasotzen ditu. Baina, bizikidetzako unitate ekonomiko independentea definitzeko funtsezko alderdi bat unitatea bizikidetzako independentearen forma bat delako ideia da. Hala bada, kontuan hartu behar da, oro har independentetzat hartzeko, 4. artikuluan irizpideetan oinarrituta mugatu litezkeen bizikidetzako unitateak independentetzat hartu daitekeen esparru fisiko batean (etxebizitza edo ostatua) izan behar dira, eta 5. artikuluan zehazten du zein esparru fisiko jo daitekeen halakotzat.

(...) jaunaren kasuan, gela baten alokairu-kontratua aurkeztu zuen, eta mota hori ez dago sartuta 5. artikuluan independentetzat hartzeko esparru fisikoen artean jasotako kasuen artean.

Beraz, aipatu araudia zorrotz aplikatuta, (...) jaunak ez luke beteko prestazioa aitortzeko baldintzetako bat. Geroago diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko dekretu berriak 198/1999 Dekretuak oraingoz jasotzen ez duen beste forma hau onartuko balu, (...) jaunak aipatu prestazioaren jabe izan liteke, betiere eskutatuko gainontzeko baldintzak beteko balitu eta dagokion oinarrizko gizarte zerbitzuan beste eskaera bat aurkezten badu.”

Gai eztabaidagarri hau Eusko Jaurlaritzari helarazi diogu; gauzak horrela, Eusko Jaurlaritzari kontsulta bat egin diogu Sarreren Bermerako Errentari eragiten dioten alderdi batzuen inguruan, besteak beste Sarreren Bermerako eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea arau bidez garatzeko izandako atzerapenaren inguruan. Hortaz, erakunde honek gomendio orokorrean agerian jarritako arazoa ekarri dugu gogora: *“oinarrizko errentaren prestazioa arautzen duen apirilaren 20ko 198/1999 dekretuaren bizikidetzako unitate ekonomiko berrikusteko premiaren inguruan”* (Eusko Legebiltzarrari 2006an egindako txostena). Txosten horretan honakoa azaldu genuen: zenbait pertsonak alojamendu independentea egiaztatzeko zituzten zailtasunak, etxe berean gela bat partekatzen zutenean.

Denbora luzea igaro den arren, gizarte bazterketako arriskuan edo gizarte bazterketa larrian dauden pertsonen kexak jasotzen segitzen dugu; izan ere, ez dituzte betetzen prestazioaren onuradunak izateko baldintzak, ezin baitute alojamendu independente bat eskuratu. Etxebizitzaren prezioak ez du ahalbidetzen etxebizitza bat alokatzea eta sarritan gela bat alokatu behar izaten dute. Merkatuaren egoerak ekarri pertsona askok etxebizitza bat partekatzeko premia, nahiz eta haien lotura bakarra alokairu gastuen banaketa izan. Horrek Bizkaian ez du uzten sarreren bermerako prestazioaren onuraduna izaten, arestian azaldu dugun bezala.

Halaber, Eusko Jaurlaritzari jakinarazi genion jardun desberdinak antzeman ditugula lurralde historikoaren edo udalerrriaren arabera. Hori berori gertatzen da Vitoria-Gasteizen; izan ere, udal horrek Sarreren Bermerako Errentaren tramitazioa onartzen du gela bat alokatzen duten pertsonen kasuan, betiere zenbait baldintza betetzen badira.

- Udal erroldan baja ofizioz emateko prozeduraren ondorioa, gizarte laguntzen eskaerari dagokionez

Prestazio ekonomikoen eske gizarte zerbitzuetara jo eta une horretan udal erroldan ez zeudela alta hartuta jakin duten zenbait pertsonaren kexak jaso ditugu. Gizarte zerbitzuen erabiltzaileak ziran pertsonari dagokionez, zirkunstantzia horrek ez die eragin prestazioari eusteko unean. Edozein kasutan ere, lehenengo laguntza eskaera izanez gero, laguntzei uko egin zaie, udal erroldan urtebetez izena emanda egoteko beharkizuna ez zela betetzen adierazita. Espediente horietan aztertu dugu ea udalak erroldan inskripzio desegokia dela eta baja emateko arautzen duten arautegia bete duen ala ez.

Ofizioz egindako bajaren prozedurak txosten juridikoak eta etxebizitza egiaztatzeko prozedura egitea eskatzen du. Udalak behar bezala egiaztatu behar du pertsona hori ez dela etxebizitza horretan bizi eta jasotako informazioa herritarrari jakinarazi behar dio.

Jakinarazpenen araudia prozedura administratiboei buruzko legeak ezartzen duena da. Azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 59.2 artikulua ezartzen du jakinarazpena interesdunaren etxebizitzan egiten denean, hartzailea etxean ez badago eta bere ordezkari inork ezingo badu jakinarazpena hartu, gertaera hori espedientean jasoko da, baita jakinarazpena egiten saiatu zeneko eguna eta ordua ere. Saiakera hori behin bakarrik errepikatuko da, hurrengo hiru egunen barruan eta beste ordu batean.

Auzitegi Gorenaren 2004ko urriaren 28ko epaiak lege doktrina hau ezartzen du: *"Que, a efecto de dar cumplimiento al artículo 59.2 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, reformada por la Ley 4/1999, de 13 de enero, la expresión en una hora distinta, determina la validez de cualquier notificación que guarde una diferencia de al menos sesenta minutos a la hora en que se practicó el primer intento de notificación."*

Halaber, helbide aldaketa bat jakinaraztera bertaratu eta udal erroldan baja emanda jakin duten pertsonak ere izan dira; horrenbestez, hori egiaztatu eta gero, Vitoria-Gasteizko Udalak alta eman die udal erroldan, inskribatuta ez zeudelako.

Inskribatuta ez egoteagatiko alta hartzen da pertsonak azaltzen duenean ez dagoela beste udalerrri bateko errolda batean inskribatuta edo ez dakienean erroldatuta dagoen ala ez, bai eta udalak dakienean pertsona horiek udalerrian bizi direla eta ez daudela erroldan izena emanda. Aztertu genituen kasuetan udalak erroldan baja eman zuen, pertsona horiek bizi ez zirelako erroldaren inskripzioan zehaztutako helbidean. Udalak ez du ikertu behar zein den arrazoi horregatik baja prozedura abiarazi zaion pertsonaren bizilekua; hori dela eta,

ondorioztatu behar dugu inskribatuta ez egoteagatik alta emateko jarduna zuzena dela. Ez egoteagatik altak ez dauka atzeraeraginik eta, hortaz, gizarte zerbitzuetarako eskubidea izateko tartearen zenbaketa altaren egunean hasten da. Horregatik, garrantzi handikoa da gizarte bazterkeriako arriskuan dauden pertsonen dagokienez, horiei jakinaraztea helbide aldaketaren berri emateko betebeharra, betiere ofizioz emandako baja baten eraginak saihesteko.

- Behar adinako diru sarreraren premia bizitza duina izateko

Pertsona askok jotzen dute Arartekora, bizitza duina aurrera eramateko ezintasuna adieraziz, sarreraren urritasuna dela-eta lanaren behin-behinekotasunagatik edota lan faltagatik. Arazo horrek biztanleriari sektore askori eragiten dio; izan ere, adin edo genero arazoak, muga funtzionalen bat, osasun mentaleko arazoren bat edota jatorriagatik diskriminazioa tarteko, bizirauteko moduko lan prekarioak baino ezin dituzte aurkitu. Pertsona horiek sarreara ekonomiko urriak dituzte, eta, beraz, ez dagokie laguntza ekonomikorik jasotzea, baina oso baldintza prekarioetan bizi dira.

7.3. Aparteko txosten honen gomendioen betetze mailari buruzko jarraipena: “Etxerik gabe eta bazterketa larrian dauden pertsonen oinarriko premiei eman beharreko erantzuna”

Aurten aparteko txostenaren gomendioen betetze mailaren jarraipen bat egin dugu eta zenbait gizarte baliabide bisitatu ditugu, bai udal baliabideak bai gizarte erakundeetakoak. Bisitetan instalazioak ikuskatu dira eta elkarrizketak izan dira baliabideetako arduradunekin eta langileekin. Eskuratutako informazioa eta beste urte batzuetakoa oinarri egokia izango da gomendioen jarraipenari buruzko txosten bat egiteko.

Alabaina, alde zuzenetik aipatu beharra dago hiru aterpetxeen instalazioen baldintzak oso egokiak izan direla, gelak, altzariak eta zerbitzuak kontuan hartuz gero.

Jarraian, udal aterpetxeei egindako bisiten laburpen bat egin dugu, bai eta gizarte larrialdietarako arreta zerbitzuaren kezka nagusien ingurukoa ere:

- EAE n hiru udal aterpetxe baino ez daude

Hiru hiriburuek baino ez dute etxerik gabeko pertsonak artatzeko udal aterpetxerik. Aterpetxe horietan zenbait programa dituzte egonaldi motaren arabera. Funtzionamendua antzekoa da gela okupatzeko ezintasunari dagokionez, afaritik gosarira bitartean izan ezik. Hala eta guztiz ere, salbuespenak daude, osasun arazoak dituzten pertsonen kasuan eta adin txikikoak dituzten familien kasuan bezala.

- Kolektiboaren premiak artatzeko programa berriak

Bilboko Udalak gaixondoko programa bat jarri du martxan 10 plazarekin; horretarako, Bartsutuko ospitalearekin koordinatzen da eta, zenbait kasutan, Gurutzetakoarekin. Osasun langileak ere ospitale horretakoak dira.

Ondoko hausnarketa azaltzen da: ea zeinek duen premia soziosanitario horri aurre egiteko eskumena eta, kolektiboaren ezaugarriak direla eta, non artatu behar diren askotariko patologiak dituzten eta gizarte bazterketa larrian duen pertsonak, edo gizarte baliabideetan edo osasun baliabideetan.

Donostiako Udalak protokolo bat izenpetu du Osakidetzarekin, A gripearen eragina aurrezaintzeko.

Bilbon nahiz Donostian eguneko zentro gehiagoren premia dago, asteburuetan ere zentro-tara bertaratzeko aukera egon dadin.

- Baliabideak erabiltzaileen profiletara egokitzea

Gehienak gizonezkoak dira eta atzerritarren kopurua handia da. Talde horretan alojamendu faltaren arazo nagusia duten pertsona ugari daude. Halaber, askotariko patologiek ukitutako pertsonak ditugu. Salbuespen gisa, era guztietako arretak behar dituzten emakumezkoak eta familiak ere ageri dira. Lan bila dabiltzan pertsonak ere badaude (kasu horietan egonaldia laburra da) edo baliabideren bat eskuratzeko edo programaren batean sartzeko zain daudenak ere, edo euren egoera administratiboa konpondu nahian dihardutenak (kasu horietan egonaldia luzatu ohi da). Atzerritarrei eman beharreko arretak berekin ekarri du jardunbidearen arautegia hainbat hizkuntzatarata itzulia izatea (Bilbon) eta telefono bidezko aldi bereko itzulpeneko aukera egotea.

Beste profil batzuk atzerritar gazteei eta errumaniar ijitoei buruzkoak dira. Atzerritar gazteek euren egoeraren araberrako baliabide zehatzak behar dituzte, bai eta hezkuntza arreta ere. Kasu batzuetan, esate baterako Vitoria-Gasteizen, gazte horiek euren adina egiaztatze dokumentazioa dute (egoera horrek Arartekoaren bestelako jarduketak ekarri ditu, kapitulu honen ADIN TXIKIKOen atalean aipatzen direnak).

Errumaniar ijitoei dagokienez, kolektibo hau infraetxebizitzetan bizi da eta ez dauka kokatzeko joerarik.

Askotariko egoerak dira, intentsitate desberdinetako esku-hartzeak behar dituztenak; hori dela, batzuetan baliabideak ez zaizkie pertsonen premiei egokitzen.

- Arreta ereduak

Udalek gizarte larrialdietako eskumena dute eta gero eta joera handiagoa dute etxerik gabeko beharizanen arreta integrala estaltzeko. Foru aldundiek, beste alde batetik, gizarte

bazterketa larrian dauden pertsonen arretaren eskumena daukate. Gauzak horrela, behar-beharrezkoa da erakunde horien arteko lankidetzeta eta koordinazioa, bai eta diagnostikoak partekatzea ere, gizarteratzeko prozesu pertsonaletan etenaldirik izan ez dadin. Udaletako eta aldundietako langileen arteko lankidetzeta ohikoa da, administrazio bakoitzari eragiten dioten baliabideen eskaerak izapidetzeko zereginari dagokionez. Edozein kasutan ere, atzerapenak izaten dira baliabideen adjudikazioan, ez da diagnostikorik partekatzen, ez da esku hartzeko irizpide bateraturik ezartzen... Horrek guztiak esku-hartzearen jarraipena zailtzen du. Udalek gizarte larrialdien zerbitzuetan pertsona baten arretari begira egiten dituen ahalginekin (adibidez, Bilbon eta Donostian) gerta daiteke horiek jarraipenik ez edukitzea, partekaturiko irizpiderik ez dagoelako baldintza batzuk betetzeko premiari dagokionez edota aldundien eskumena den baliabide bat emateko atzerapena egon daitekeelako.

Gizarterako prozesuei begira askotariko baliabideak jarri behar dira abian, pertsonen arretan jarraipena izateko.

- Osasun arreta eta koordinazio soziosanitarioa

Gizarte bazterketa larrian dauden pertsonen kolektiboari askotariko patologiek eragiten diote eta osasun arreta behar izaten dute. Pertsona hauen premien artapen osoak berekin ekartzen du osasun arreta eskatzea, besteak beste, oso garrantzitsua den bat: osasun mentala.

Gizarte larrialdietarako zerbitzuek zailtasunak dituzte osasun zerbitzuekin duten erlazioan, hainbat gaiari dagokionez betiere, esate baterako: ospitalean egin beharreko denbora, ospitalean egin beharreko denbora tarteak, ospitaleko larrialdi unitateetan eta ez gelan egin beharreko egonaldia, gizarte langilearekin bitartekaritza ez egotea, hartu beharreko medikazioari buruzko txosten zehatz-zehatzen premia... Era berean, gaixondoan dauden pertsonen arreta non eman behar den hausnartu da, hau da, ea baliabide normalizatuetan egon behar duten edo kolektibo honi zuzendutakoetan.

Proposatzen diren neurrien artean ondokoak daude: kalean esku hartzeko taldeetan osasun langileak izatea eta osasun langile gehiago izatea eta hurbilago egotea aterpetxeetan eta kolektibo hau artatzen duten aterpetxeetako gainerako baliabideetan ere.

- Finantzazioaren hobekuntza

Gai honen inguruan bi arazo mota azaltzen dira nagusiki: kolektibo honi ematen zaion artapen osoa da gizarteratzeko prozesuek emaitza gehiago izateko bermea duena; hori dela eta, udalek gero eta joera handiagoa dute bestelako premiak kontuan hartzen dituzten programa gehiago sartzeko, hala nola osasun edo prestakuntza egitasmoak, nahiz eta horrek arretaren kostu ekonomikoa handitu. Ildo horri jarraituz, beste administrazioekiko lankidetzeta eta finantzazioa, hala nola Osasun Sailarekikoa edo aldundiekikoa, behar-beharrezkotzat jotzen da. Beste zailtasuna da, gehienbat, hiru hiriburuetakoa udalek dituztela programa

horiek; ondorioz, beste udalerrri batzuetako pertsonak hiru hiriburuetara lekualdatzeko arriskua dago. Dei efektuaren beldurra eragina izan du programa berrien edo plazen gehikuntzaren gaineko erabakietan; horrenbestez, beste udalerrri batzuetan behar-beharrezkoa da etxerik gabeko pertsonen kolektiboa artatzeko programak garatzea.

- Beste gizarte prestazio batzuk lortzeko baldintzak betetzeko zailtasuna, hala nola erroldan inskribatzea edo alojamendu independente bat izatea

Hiru hiriburuetan ahalegin handiak egin dira etxerik gabek pertsonak udal erroldan inskriba daitezen. Helbide bat zehazteko zailtasunari konponbidea bilatu zaio, inskripzioa zenbait tokitan ahalbidetzean, esate baterako aterpetxeetan. Pertsona identifikatzeko premiari dagokionez, desberdintasunak daude; kasu batzuetan dokumentazio jakin bat eskatu da eta beste batzuetan malgutasun handiagoa izan da identifikazioaren egiaztapena baloratzeko orduan.

Arazoa da beste udal batzuek ez dituztela erroldan inskribatzen etxerik gabeko pertsonak (gai honen inguruan erakunde honek ofiziozko jarduketa bat irekita dauka eta bertan udalen jardunak aztertuko dira). Era berean, arazotsua da inskripzioari eustea, baldin eta gizarteratzeko prozesuan aurrera egiten bada eta etxerik gabeko pertsonak autonomia lortzen badu; izan ere, sarreren bermerako errentaren prestazioaren titularra izateko baldintzen artean alojamendu independentea eduki behar da. Hortaz, udal erroldaren inskripzioa zailtasunetarikoa bat da eta horri erantsi behar zaio etxebizitza eskuratzeko zailtasuna.

- Etxebizitza eskuratzea

Formularen bat abian jarri behar izango litzateke gizarte zerbitzuen erabilzaileei babes ofizialeko alokairu araubidean etxebizitza bat eskuratzeko aukera errazteko zozketa sistema ofizialetan, bereziki salbuespen prozedurarengatik etxebizitza adjudikatze aukera ezabatu dela kontuan hartuta.

- Oinarrizko premiak asbetetzea: jatekoa, dutxak, hotza

Vitoria-Gasteizen eta Bilbon jatekoaren eskaria zentralizatu da (baita alojamenduarena ere) eta Bilboren kasuan jantziarena ere. Donostian jantokien kudeaketa Cáritas erakundearen esku dago, bai eta jantziarena ere (parrokiako jantzitegiak). Bilboko Udalak Cáritas ordezkatu zuen jantokietara sartzea ahalbidetzen zuten txartelen banaketan, eta 2008ko urtearen amaieran bazkari nahiz afarien kopurua handitu zen.

Hiru udalerrietan neguko tenperatura txikiei aurre egiteko azpiegitura dago (Mazarredoko aterpetxea, Neguko Aterpea eta Hotzaldia) edota plaza kopurua handitzen da (Vitoria-Gasteiz) edo salak zabaltzen dira. Vitoria-Gasteizen eta Donostian plazak gehituz joan dira, baina ez da gauza bera gertatu Bilbon.

Bilbon eta Vitoria-Gasteizen dutxa zerbitzua daukate; Donostian, ostera, aurreikusitako zerbitzuak hondartzetarako erabiltzen diren berberak dira.

- Jokabide arazoei begirako arreta

Hiru udalerrietan erabiltzaileen jokabide arazoei aurre egiteko premia planteatu da. Vitoria-Gasteizen kasuan, jarduketa protokoloen garapen garrantzitsua izan da, erabiltzaileen jokabideei nahiz haien eraginei eta pertsonen zigorren jakinarazpenei dagozkienak, esate baterako Gizarte Esku Hartze Atalak erabakia hartzeko moduari eragiten diotenak. Donostiako udal aterpetxeaz denaz bezainbatean, jardunbide arauen berri ematen da, bai eta zigorrak sorrarazten dituzten jokabideen berri ere. Azken kasu honetan, informazioaren jakinarazpen pertsonalizatua jasotzen da bai jardunbidearen gainean bai aterpetxeko elkarbizitza arauen gainean.

- Kaleko taldea

Hiru udalerriek kaleko taldeak dituzte. Haien zeregina abandonu egoeran dauden pertsonengana hurbiltzea da, horrek pentsarazten duelako kalean bizi direla, gizarte baliabideetatik aparte. Pertsona horiek atzerritarrak izan daitezkeela eta beharbada osasun arreta behar dutela aintzakotzat hartuta, kaleko taldeak premia horietara ari dira egokitzen, osasun langileen esku-hartzeari dagokionez izan ezik.

- Bizitza arriskuko egoerak

Hiru udalerriek hausnarketa bat egin dute arazo honen gainean; izan ere, auzia da jakitea noiz, nork eta nola hartu behar duten une jakin batean kalean dagoen pertsona batek adierazitako borondatearen kontrako erabakia, are gehiago pertsona hori bere bizitza arriskuan jartzen badabil. Donostiako Udalak jarduketa protokolo bat egin du egoera mota hauei aurre egiteko. Udaltzaingoa eta Osakidetza koordinatuko dira, pertsona bilatzeko eta ospitalera eramateko, behin sendagilearen diagnostikoa egon eta gero.

Gizarte erakundeek kudeatutako baliabideetara egindako bisitak erakundeen ikuskapena izan ziren eta arduradunekin izandako elkarriketa. Jarraian, bada, eurek jakinarazi zizkiguten kezka eta arduna nagusiak bildu ditugu:

a) Gizarte erakunde batek antolatutako baliabide bati egin zaion bisita: Gipuzkoako Cáritas, 2009/11/27

Donostiako erdigunean dago kokatuta eta ez da auzokideen arteko elkarbizitza arazorik sortu. Bertan behin-behineko zerbitzua ematen da, baina Andre Mariaren basilikara lekualdatzea aurreikusita dago, hau da, lehenago kokatuta zegoen tokira berriro ere eramatea.

Eguneko eta gaueko zentrokoa da, eskakizun txikikoa. Jantoki, arropa garbiketa, dutxa, erizaintza, ile-apaindegi eta podologi zerbitzuak ematen ditu. Cáritas erakundearen beste baliabide batzuekin koordinatzen da: Aterpe, Hotzaldi eta Eutsirekin, hain zuzen ere. Hotzaldi izenekoa etxerik gabeko pertsoneri arreta emateko programa bat da hozten duen garaian; Eutsi kalteak gutxitzeko programa bat da eta horren barruan eskatzen den kontraprestazio bakarria medikuarenera joatea besterik ez da. Baliabide horren giltzarria “premietara egokitzea” da. Egitasmoa Katedralean eskaintzen da.

Zerbitzuaren erabiltzaileak bereizi egiten dira jasotzen duten zerbitzuaren arabera. Eguneko zentroa etxerik gabeko pertsoneri zuzenduta dago, bai bertokoei bai atzerrikoei (dutxa zerbitzua, gosariak, askariak, ogitartekoak...). Jantoki zerbitzua Gipuzkoako udalerriren batean erroldaturiko bertoko pertsoneri eskaintzen zaie.

- Arreta eredua: laguntza eta boluntarioritza

Betetzen diren zereginik garrantzitsuenetariko bat da laguntza pertsonalizatua da, bai profesionalak bai boluntarioek aurrera eramandakoa. Eskainitako zerbitzu guztietan boluntarioak daude (165 boluntario aktibo daude guztira). Potentzial hori zaintzen da, proiektuaren zatia direlako eta haien parte-hartzea oso baliotsua delako.

Boluntarioak baliabidera hurbiltzen dira euren esperientzia positiboaren berri ematen dieten beste boluntario batzuekin egon eta gero; esperientzia horretan etxerik gabeko pertsonen bizitza duintzeak dakarren konpentsazio garrantzia nabarmendu ohi da. Parte hartzen duten pertsonen profila askotarikoa da: gehienbat pertsona helduak dira, baina gazteak ere badaude.

- Erabiltzailearen parte-hartzea

Zentroak proiektu pilotu bati ekin dio, arretaren jasotzaileekin batera jarduteko. Izan ere, parte-hartzaile hauek jatekoa zerbitzatzeko eta prestatzeko lanean laguntzen dute, eta horretarako zerrenda batean eman behar dute izena. Proiektuaren inguruan egin duten balarazioa positiboa izan da orain arte.

- Gaueko zentroa (Sala)

Sala horrek 16 plaza ditu. Heren bat plaza finkoak dira. Bertan bizitzak asko zigortu dituen eta une latzak pasatzen ari diren pertsonak artatzen dira. Ematen diren zerbitzuak ondorengoak dira: higiena, oinak garbitzea, opilak, edari beroak, elkarrizketa, telebista...

Barruan ez dute segurtasuneko langilerik eta adierazi dute ez dutela gatazkarik edo liskarrik izaten. Zentroan goizez segurtasuneko pertsona bat dago sarreran, b adina ez da liskarrik izaten ez goizean ez gauean. Salara sartzeko modua eguneko zentrora jotzea da. Berriro ere

azpimarratzen dute boluntarioen garrantzia erabiltzaileekin dituzten harremanetan; izan ere, haien iritziz, boluntarioen presentziak eta hurbiltasunak tentsio guztiak moteltzen ditu. Era berean, nabarmentzen dute laguntza pertsonalizatua oso garrantzitsua dela gizarteratzeko banakako prozesuetan.

- Gizarteratzeko prozesuak

Emaitzei dagokienez, kolektibo honek ez dauka gizarteratzeko prozesuak hastea ahalbidetzen duen sarrerik; horren ondorioz, bakardadeak berak ere gehiago gaizkitzen ditu. Baliabide hauek euskarriak ematen dituzte, bai eta gizatasuna eta duintasuna ere; hori guztia oso positibotzat jotzen da.

- Profil berriak

Arreta egin zaien pertsonen artean emakumezkoen eta gazteen kopurua nabarmentzen da. Gazteei dagokienez, adin nagusitasunera iritsi diren pertsonak dira; hortaz, foru aldundiaren zaintza amaitu da. Etxerik ez duten gurasoen seme-alabak dira eta, helduak izatera ailegatzaren direnean, etxerik gabeko pertsonak izatera pasatzen dira; horrek makina bat zalantza sorrazten du.

“Baztertu berriak” izenekoan artean hazkundera dagoela nabaritzen da; “baztertu berriak” behin-behineko lanekin bizirauten duten pertsonak dira, baina oraingoaren moduko krisialdian lana galdu ohi dute. Ezkontza banaketa izan duten pertsonak ere badira. Bi kasuetan pertsona horiek beheramenduarekin bizi dute espazio horietara bertaratzeko premia.

Profil berri hauek toxikomaniak edo alkoholarekin arazoak dituzten eta etxerik ez duten pertsonen ohiko profilei gehitzen zaizkie.

Etxerik gabeko pertsonentzako osagai garrantzitsu modura aipatzen dute sustraitzeko aukera ahalbidetzea, horren falta arazo larria delako pertsona horientzat.

- Finantzazioa

Zerbitzuaren finantzazioaz denaz bezainbatean, azaldu dute %60 euren fondoetatik datoirela eta %40 administrazio publikotik, Gipuzkoako Foru Aldunditik, hain zuzen ere.

- Arreta soziosanitaria

Gaixotasun mentala duten pertsonen dagokienez, zentroan aipatu dute ez dagoela osasun eta gizarte arloen arteko koordinaziorik. Ez dago osasun langilerik kalean. Plaza bakarrak Gurutze Gorriko Ospitalean daude. Deigarria da arazo metal zorrotza duten pertsonen

kopuruaren hazkundera, zenbateko hori nabarmen handitu delako. Bertan langile laguntzaile klinikoak dituzte eta podologo bat, baina azpimarratu nahi dute baliabide mota hauetan osagai klinikoak daukan garrantzia. Horretarako, kontuan hartu beharreko elementu gisa planteatzen dute osasun langileek kalera irten behar dutela, herritar hauen beharrezan antzematera eta haien errealitatea ezagutzera.

b) Gizarte erakunde batek kudeatutako baliabide bati egin zaion bisita: Arabako Hiesaren kontrako Batzordea, 2009/11/13

- Erakundearen arteko koordinazioa

Udalerrien eta foru aldundiaren artean koordinatzeko zailtasunak aipatu dituzte; koordinazio hori ez da erraza, ezta arina ere.

- Etixerik gabeko pertsonentzako baliabideek bete beharreko baldintzen erregulazio falta

Kezka gisa azaltzen dute eskakizun txikiko baliabideek bete beharreko baldintzak eta bete-kizunak ezagutzeko zailtasuna (m² gela bakoitzeko, ohe kopurua, kontsignak, armairuak...). Definizio falta dago eta ez dago garbi etorkizuneko gizarte zerbitzuen maparen barruan emango den edo zerbitzuen sailean.

- Profil desberdinen arretak berekin dakartzan zailtasunak

Zentroan era guztietako arazoak dituztenei laguntzen diete, adibidez genero indarkeria jasanez emakumezkoen, pertsona nagusiei edo adinekoei, mugikortasun arazoak dituzten pertsonen. Aterpeak irisgarritasuna bermatzen duen bainugela bat dauka, baina ez dago prestatuta mendekotasun maila handia duten pertsonak artatzeko. Ildo honi jarraituz, nabarmendu nahi dute balorazioak egitera joan direla etxerik gabeko pertsonentzako baliabideetan artatzen dituzten pertsonen mendekotasunaren egoerari buruz.

- Arreta soziosanitaria

Baliabidean planteatzen duten beste zailtasun bat da ez direla osasun langileak, baina medikazioa eman beharra daukatela. Kasu horietan txosten medikoak eskatzeko aurreneurria hartzen dute.

Halaber, arazoak dituzte Vitoria-Gasteizera lekualdatu diren eta beste autonomia erkidego batean arreta sanitarioa jaso duten pertsona ibiltarien arreta medikoarekin.

Ez daukate larrialdiko laguntza medikoa behar duten etxerik gabeko pertsonak artatzeko jarduketarako protokolorik; hori dela eta, arreta mota hori une horretan lanean ari diren pertsonen

ezaugarrien araberakoa da. Ildo horri jarraituz, koordinazio arazoak aipatu dituzte osasun arloak "ezagutzen" dituen pertsonen dagokionez. Kasu horietan alta ematen diete "gizarte arazo bat" diagnostikatuta, beste batzuetan arreta medikoa behar izan duten antzeko egoeretan tratamendua bestelakoa izan bada ere. Etxerik gabeko pertsonak ez dira arretatik pasatzen ospitaleko larrialdietan; ez dute solairuan arreta emateko eta atsedendaldia hartzeko aukerarik.

Laburbilduz, etxerik gabeko pertsonen zuzendutako baliabideetako gizarte langileak ez daukete larrialdietako osasun laguntza behar duten pertsonak artatzeko prestatuta; halaber, osasun arloan ez zaio erantzunik ematen planteatutako premia honi eta kasua gizarte baliabide batera bidaltzen da, zenbait kasutan, gainera, presaz. Gaixotasun mentalak dituzten pertsonak dira, familiarik gabekoak, nortasun arazoak dituztenak; horrenbestez, osasun langileen aldetik, "gainerako gaixoak ezegonkortzen dituztela" aipatu ohi da.

Gai horri dagokionez, beren zerbitzuak osasun arloan ematen dituzten gizarte langileen zeregina definitzeko garrantzia planteatzen dute, bai eta adierazi ere, hausnarketa bat egin behar dela osasun esparruan kategoria honi begirako plaza gehiago sortzeko premiaren inguruan. Haien ustetan, Txagorritxuko ospitalean lan egiten duten bi gizarte langile bakkarrak egoteak ez du ahalbidetzen Vitoria-Gasteizen gizarte bazterketa larriko egoeran dauden pertsonen premia soziosanitarioei aurre egitea. Era berean, nabarmentzen dute arazo medikoak dituzten pertsonen laguntzeko betetzen duten zeregin sozialak ez duela behar adinako aintzatespenik.

- Osasun mentaleko arazoaren arreta

Ikuspegi komunitarioa eta baliabide gehiago bultzatzeko premia, pertsona horiek dituzten arazoei aurre egin ahal izateko.

Halaber, faltan nabaritzen da "komunitarioa" osasun mentalari dagokionez eta baliabiderik eza igartzen da.

c) Gizarte erakunde batek kudeatutako baliabide bati egin zaion bisita: Izangai (Bilbo) (2009/11/16)

- Oinarrizko premiak asebetetzea

Jantokiak

Pertsonen oinarrizko premiak ez direla asebetetzen planteatzen dute, eta jantokiak gainezka daudela. Lehenago Cáritas izan zen jantokiaren txartelak kudeatzen zituen erakundea eta orduan bi ematen ziren (bazkaltzeko eta afaltzeko). Gaur egun zenbait kasutan bi txartel

ematen zaizkie edo bat baino ez, bazkaltzeko edo afaltzeko. (Zerbitzu hau gaur egun Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzuan zentralizatuta dago; zerbitzu hori Mazarredo kaleko 22. zenbakian dago eta Bilboko Udalak kontratutako Aurrerantz gizarte ekimeneko sozietate kooperatiboak kudeatzen du). Egoera horren aurrean, Hernani kaleko erlijiosoek (Jesusen Mirabeak) ogitartekoak banantzen hasi ziren, baina eskariak gainezka egin zuen eta alde batera utzi behar izan zuten jarduera hori.

Planteatzen duten beste elementu bat da kulturen eta sinismenen dibertsitateari arretarik ez jartzea eta laguntzen dieten profesionalek behar besteko sentsibilitate eta prestakuntzarik ez izatea arlo horretan.

Alojamendua

Bilboko Udaleko datuak argitara eman ditu alojamendurik gabeko pertsoneri buruzko datu batzuk, baina datu horiek ez datoz bat haiek dituztenekin. Irailean udalak zehaztu zuen Bilbon 91 pertsona inguruk (ohikoak) ez zutela alojamendurik, baina, haiek eskuragarri dituzten datu eta informazioen arabera, ondoriozta daiteke kopuru hori askoz ere handiagoa dela. Alojamentu eskaerak handiagoak izan dira 2009an aurreko urtekoekin erkatuz gero. 240 pertsonaren eskabideak erregistratu dira eta 185 pertsonak kalean lo egiten zutela dakite (datu horiek ez dira oinarritzen azterlan batean, baizik eta zerbitzuaren data batzuetan emandako arretan). Haien iritziz, eskaria ez da estaltzen eta alojamentuak gainezka daude. Dei efektuaren beldurrak (hau da, Bilbokoak ez diren pertsonak udaleko gizarte larrialdietarako zerbitzuetara bertaratzea) eragina izan du plaza gehiago martxan jartzeko erabakietan.

Nabarmendu nahi izan dute, 2009an zenbait hotzaldi gogor izan arren, ez dela 50 plaza gehiago ezarri neguko alojamenturako azpiegituran; horiek, antza denez, hotzaldi eta larrialdietan jarri behar dira abian eta hori guztia horrela agertzen da orain dela urte dezente ezarritako prozeduretan. Era berean, plaza horiek zabaltzeko irizpideak ere eztabaidagai dira, babes zibilaren alertei eta Bilboko Udalaren gizarte ekintzako arloaren aldi bakarreko erabakia lotuta daudelako. Ez dira kontuan hartzen bestelako irizpideak, hala nola ahultasuna, tenperatura, aroaren aldaketa... baizik eta babes zibileko datuak (errepide itxierak, etab.). Beste alde batetik, urrian eta azaroan baliabide hori itxita dago, baina urte horretan izotzaldi handiak izan dira. Pasa den urteko egun batzuetan tenperaturak oso baxuak izanagatik ere, baina ez zen handitu aurreikusitako plazan kopurua.

Neguko azpiegitura sare hau Bizitegi elkarteak kudeatzen du. Sare hori neguan Bilbon bizi diren etxerik gabeko pertsoneri alojamentua emateko aurreikusita dago eta data finkoetan zabaltzen da, alde batera utzita negua aurreratuko den ala ez edo tenperatura txikiak izango diren ala ez. Gizarte erakundeek hiru hilabeteko antzintasuna duten eta identifikatuta dauden erabiltzaileak bidaltzen dituzte alojamentuetara, eta zehaztu dute pertsona ugari geratzen direla kanpoan. Bilboko Udalak adierazi du ez dela zabaltzen plaza libreak egoten direlako. Izangai erakundea ez dator bat balorazio horrekin.

- Erabiltzaileen profilak

Artatzen dituzten pertsonarik gehienak atzerriko gizona dira, baina emakume batzuk ere badira. Artatzen duten kolektiboa bazterketa prozesuetan sartzeko hur-hurreko fase batean dago; hori dela eta, laneratzeko eta gizarteratzeko dituzten programetan hartzen dute parte. Arazoa izaten da, erantzunik egon ezean, bazterketa prozesu larriagoetan amai dezaketela.

- Arreta sanitarioa eta soziosanitarioa

Etixerik gabeko pertsonak osasun laguntza dute behin-behineko osasun txartelen titularrak direlako; hala ere, alderdi batzuetan ez dute estaldurarik, esate baterako hortzetako infekzioetan, hau da, aho arretan. Behin-behineko txartelik ez badute eta larrialdietara badoaz, faktura bat jasotzen dute osasun kostuarekin.

Gaixondoko unitate berria Elejabarriko aterpetxean eskaintzen den zerbitzu berria dela adierazten dute. Behar bezalako harrera egin ez zitzaien eta kanporatua izan zen pertsona baten kasua azaldu dute, nahiz eta arreta medikoa beharrezko zeukan. (Udal aterpetxeko arduradunak erakunde honi jakinarazi zion zeintzuk izan ziren udalak modu horretara jokatzeko izan zituen arrazoiak. Gaztearen eta aterpetxeko arduradunaren bertsioak ez zetozen bat).

- Kanporatzeak

Aurten toki batzuetan udaltzaingoak zenbait pertsona kanporatu dituela aipatzen dute. Lutxanan (Barakaldo), Boluetan (Bilbo), Sondikan eta Supersur-eko lanetan ere bai... Udaltzaingoak pertsonak identifikatzen ditu eta txabola gisa erabiltzen diren egiturak lurrera botatzen ditu.

Pertsona horiek atzeritarra dira gehienbat, eta udaltzaingoaren nahiz polizia nazionalaren arteko lankidetzak handitu da, atzeritarren dokumentazioa kontrolatzeko duten eskumena dela eta. Zenbait adibide jarri dituzte, esate baterako Zorrotzaurren izandako esku-hartzea (gai hori beren beregi jorratuko dugu ATZERRITARrei buruzko kapituluan izapidetutako kexen puntuan), San Frantzisko auzoan egindako sarekada batzuk eta Lutxanan (Barakaldo) izandako esku-hartze bat etxe okupatu batean. Udaltzaingoa polizia nazionalarekin batera bertaratu zen toki horretara, eta atzeritar horiek kanporatzeko espedienteak zabaldu ziren.

Lutxanan (Barakaldo) kanporatze hori jasan zuen pertsona batekin elkarrizketatu ginen. Esan zigunaren arabera, abandonatutako etxebizitza batean bizi zen, eta udaltzaingoa hara joan zen zenbaitetan, horietariko batzuetan goizaldean, eta etxebizitzaren okupatzaile guztiei eskatu zien identifikatzeko. Behin polizia etxebizitzara sartu zen sarraila apurtuz eta etxebizitzaren okupatzaileak polizia nazionalaren bulegoetara eraman zituzten; bertan kanporatze prozesu bati ekin zitzaien. Beste pertsona batek jakinarazi zigun Mirafloreseko zubiaren

azpian lo egiten duela. Esan zigunaren arabera, bertan txabola batzuk biltzen dira, udaltzaingoa lantzean-lantzean bertarutzen da, identifikatzen dituzte, txabola lurrera botatzen dute eta alde egiten dute.

- Bidaltzen erakundearen balorazioa (egoitza baliabideen eskaria zentralizatzeko zerbitzua, Bizkaiko Foru Aldundiak kudeatua)

Zerbitzu honek berekin dakar balorazio bikoitza egin beharra; izan ere, Bidaltzen erakundeak (aldundiarekin lankidetzan jarduten duen elkarte) kudeatutako balorazio unitateak egindakoaz gainera, gizarte erakundeek ere beren balorazioa egiten dute pertsona gizarteratzeko prozesuaren inguruan. Prozedura motela da eta atzeratu ohi da lehenengoz aldundiak parte hartzen duelako eta gero Bidaltzen zerbitzuak; hortaz, 6 edo 8 hilabete iraun dezake. Hainbeste denbora itxaroten denez gero, gizarteratzeko prozesu pertsonalak eteten dira edo pertsonak hondatze fase larrietan sartzen dira.

Arintasuna behar duten profilak daudenez gero, sistema hau ez dela erabilgarria uste dute; gainera, itxaron zerrenda oso zabala da.

- Eskumen banaketa

Esku-hartzean ez dagoela jarraipenik azaldu dute; hori dela eta, gorabehera batzuek ez dute gizarteratzeko prozesua errazten eta baliabideen optimizazio falta sortzen da; gorabehera horiek honakoak izan daitezke; gizarte larrialdietarako arreta, leihatila bakarreko funtzionamenduan izaten diren atzerapenak (Bidaltzen) edo zaintzapean zeuden gazteen arretak ez jarraitzea. Adibide modura aipatzen dute Bizkaian zaintzapean egondako gazteei zuzentzen zaien “Mundutik Mundura” emantzipazio programa; horren bitartez eta denbora tarteko irizpideen arabera, erabiltzaileek intentsitate desberdinetako egoitza zerbitzua eskuratzen dute bi urte eta erdira irits daitekeen epean zehar. Zerbitzuan dituzten pisuetan alojamentua, jatekoa, jantziak, prestakuntza... ematen dira eta hezkuntza nahiz psikologia arloko taldeak daude.

Beste alde batetik, “Hemen” programa daukagu; bertara “Mundutik” egitasmora sartzeko beharkizunak betetzen ez dituzten pertsonak joaten dira edo, beharkizunak beteta ere, plazarik gabe daudenak. “Hemen” programa ez da egoitzakoa, laguntza ematekoa baizik eta gazteek larrialdietako baliabideak, aterpeak, diruz lagundutako gela alokatuak... eskuratzeko dituzte. Sistemak neurritz kanpoko babesa eragiten du emantzipatuen talde batean eta inbutu bat da egoitza baliabideetan sartzeko; gainera, azken baliabide horiek intentsitate ertainekoak izan litezke eta iraupen laburragokoak (urtebete guztientzat, adibidez). Gauzak horrela, beste gazte talde batzuek zailtasun handiagoak izaten dituzte aurre egiteko eta horrek lehenengo mailako eta bigarren mailako emantzipatuak sortzen laguntzen du, azken batean sistema bidegabe bat eratuz, baldin eta ondasunen banaketa zuzenari eta banaketa justiziarri buruzko printzipioa kontuan hartzen bada.

- Izaungatik gizarte zerbitzuen jardunbidearen gainean egindako balorazioa

Bilboko oinarrizko gizarte zerbitzuak gainezka daude eta hitzorduak 2 edo 3 hilabete igarota zehazten dira. Egoera horrek tratua, entzunaldirako eskubidea, arreta pertsonalizatua eta gizarteratzeko prozesuetarako laguntza zailtzen ditu, nahiz eta hori gizarte langileen lehengo misioa izan; horren ondorioz, bada, zerbitzuak nahiko mugatuta daude eta gizarte laguntzei eta sarreren bermerako errentei (lehengo oinarrizko errenta) buruzko espedienteak kudeatu eta izapidetu besterik ez dute egiten.

Kezka bat azaldu dute jatorrizko herrialdearen ondasun ziurtagiri bat eskatzen delako; horrek atzerapenak sorrarazi ditu laguntza espedientearen inguruko ebazpenean. Baldintza hori eskatzeak berekin ekarri du erakunde honek gaian esku hartzea (hori guztia sakonago aztertu da kapitulu honetan, ETORKINEI buruzko atalean, hain zuzen ere). Diru-laguntzak eskuratzea zailtzen diharduen beste betekizun berri bat da banan gizarteratzeko diru-laguntzei begira martxan jarritako prestakuntza ikastaroen aprobetxamenduari buruzko ziurtagiria. Gizarteratzeko laguntza berezi hori gizarteratzeko banakako plan bati lotuta dago; horrexegatik azaldu dute gizarteratzeko banakako plangintza bat pertsona jakin batzuen, hau da, etorkinen profilerako prestakuntza ekintzei lotzeak bananako plan horren eduki eta esanahia galbideratzen duela; izan ere, plangintzek pertsonalizatuak eta osoak izan behar dute, pertsona bakoitzaren premietara egokituak eta esku hartzeko arlo guztiak jasoz eta ez bakarrik prestakuntzaren arloa. Kolektibo horri ikastaro baten aprobetxamendua egiaztatzeko oztopoa jartzea gizarteratze plan guztietan jaso beharreko pertsonalizazioari buruzko printzipioaren kontra egitea da.

Beste alde batetik, bananako plangintzaren indarra plangintza horri lagunduko dion profesionalaren eta eskatzailearen arteko itun eta akordioan dago. Oinarrizko gizarte zerbitzuek elkarriketa batean epaitzen dute txosten batean irakurtzen dutena eta horrek zalantzan jartzen du prozesuei benetan laguntzen dieten pertsonen lana; gainera, erabiltzaileei zuzendutako ekintza batzuen edo beste batzuen egokitasuna baloratzen dute, eta ekintzok beti ez dute prestakuntza arlokoak izan behar. Sakonean ikastaroetan plaza topatzen ahalegintzen diren baina, beteta daudela eta, plazarik aurkitzen ez duten pertsonenganako dinamika errudungarri bat dago, nahiz eta pertsona horiek guztiz motibatuta egon eta oso aktiboak izan prozesuaren eta plangintzaren beste esparru guztietan; hala ere, azken hori ez da aintzakotzat hartzen. Horrela, gizarteratzeko bananako laguntzak izapidetzean gelditzen dira (ez dira tramitatzen edo gizarte laguntzaileak berari ez dagozkion eskumenak betetzen ditu) edo Bizkaiko Foru Aldundiak ukatzen ditu arrazoi mota horiek tarteko (adibidez, "ez dago garbi eskatzailea lotuta dagoen erakundearen txostenean zein den gizarteratzeko plangintza"). Kasu horretan, berraztertze errekurtsioa aurkezteko aukera dago, erabiltzailea konforme ez badago, baina, ohi bezala, erabiltzaileak ez daki zer gertatu den eta babesik gabe geratzen da. Argi dago benetako motibazioa dela guztientzako baliabide falta, baina figura hori erabiliz erantzukizuna kolektiboaren gain eta harekin lan egiten duten erakundearen gain jartzen dute, atzeritar gazteak diskriminatzen lagunduz.

- Erroldan inskribatzea

Modu positiboan baloratzen da udal erroldan inskribatzeko dagoen protokoloa. Arazoa sortzen da pertsonen erakundeekin egindako esku-hartzea amaitzen denean eta autonomoak direnean; izan ere, etxebizitza bat eskubide guztiekin eskuratzeko zailtasun handiak dituzte: errolda, azpialokairuak, alokairu partekatuek, errentamendu orokorrak. Kolektiboaren gizar-te estigma gogorra da.

- Hirugarren sektorearentzako diru-laguntzen arautegi berria

Haien esanetan, Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Gizarte Gaietarako Sailak gizarte erakundeek parte hartzeko emandako epeak ez zuen erraztu arautegiari ekarpenak aurkezteko bidea, nahiz eta, aurreratu zuten bezala, arautegi hori 2010ean ezartzekoa izan. Era berean, azaldu zuten erakunde batzuek ezin izango zituztela bete diru-laguntzen onuradunak izateko baldintzak.

- Programa berriak

Gaixondoko unitateei dagozkionak aipatu dituzte, bai T4 erakundeak kudeatutakoa (HIESA duten pertsonen zuzendua), bai eta udal aterpetxeko gaixondorako unitatea ere.

- Bestelakoak

Arazo baten berri eman dute; izan ere, Ertzaintzak zerbitzuaren erabiltzaileei buruzko argibideak eskatu dizkie. Ildo horri jarraituz, gizarte esku-hartzearen kode etiko bat ezartzeko premia zehaztu dute, sekretu profesionala arautzeko.

7.4. “Lan baldintzak esku-hartze sozialaren hirugarren sektorean” aparteko txostenaren jarraipena

2009an gizarte erakundearen keak jaso ditugu, diru-laguntzen kudeaketa sistemak dakartzan zailtasunari men egiten diotenak. Esan dutenaren arabera, urtero-urtero deialdi batera aurkezteko sistemak eta deialdia egiteko eta ebazteko nahiz ordainketa urte hasita egiteko jardunak segurtasun eza eta behin-behinekotasuna eragiten dute hirugarren sektorean. Testu inguru honetan “Lan baldintzak esku-hartze sozialaren hirugarren sektorean” aparteko txostenaren jarraipena egin dugu, batik bat administrazioak diru-laguntzen sistema kudeatzeko bideak dakartzan zailtasun eta baldintzei dagokienez, hau da, sektorearen finantzazioari dagokienez.

Gainera, Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Gizarte Gaietarako Sailak diru-laguntzak berrantolatzeke proposamen bat egiten ziharduen eta gizarte erakunde batzuek gai horri buruzko kezka helarazi dizkigute.

Horrenbestez, sail horri eskatu genion diru-laguntzen berrantolaketarako proposamenari buruzko informazio nahiko eta zehatza helarazteko, bai eta proposamen horri eragiten dion aparteko txosten horren gomendioak betetzearen gaineko gomendioei buruzkoa ere; zehatzago ondokoen gaineko informazioa: 1.a, zerbitzuen multzoa eta administrazio bakoitzak gai sozialetan duen erantzukizuna argitzea; 2.a, finantzazioari buruzko prozedurak eta sistema arintzea eta hobetzea; 3.a, erakundeek kudeatutako programa eta zerbitzuen egonkortasuna edo jarraipena aldezte; 4.a, lurraldeen edota azpisektoreen arteko gaur egungo aldeak murriztea; eta, 5.a, finantzazio formuletan kontzeptu berriak txertatzea, zerbitzuaren kalitatea hobetzeko asmoz.

Sailaren erantzunean jakinarazi ziguten 2009ko irailaren 7ko data duen agiri bat egin dutela, "Lan eta Gizarte Gaietarako Sailak esku-hartze sozialaren eremuan diru-laguntzak berrantolatzeko egindako proposamena," hain zuzen ere; era berean, adierazi ziguten sektorearen erakundeek egindako ekarpen ugari jaso, berrikusi eta neurri batean txertatu zituztela. Horren ondoren, Eusko Jaurlaritzak abenduaren 29ko 649/2009 Dekretua onetsi du eta horren bitartez hirugarren sektorearen jarduerak sustatzeko diru-laguntzak arautzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren esparruan; halaber, dekretu horretan ezarritako diru-laguntzen deialdirako agindu bat onetsi du 2010. urteari begira.

Aldi berean, erantsi dute Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Gizarte Gaietarako Sailak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen multzoa arautzeko dekretu bat onetsiko duela eta hori baliagarria izango dela administrazio bakoitzaren erantzukizuna argitzeko. Halaber, itunaren araubidea arautuko duen dekretua egiten dihardu, gizarte ekimenak aurrera eramandako erantzukizun publikoko zerbitzuak finantzatzeko egonkortasuna aldeztarren. *"Egia esan, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 5/2008 Legearen garapen eta aplikaziorako aurreikusitako multzoaren zati bat besterik ez dira bi testuak (Legeak, besteak beste, plan estrategikoa, gizarte-zerbitzuen mapa goi-ikuskaritzaren erregulazioa edo erabiltzailearen parte-hartze ekonomikoaren erregulazioa biltzen ditu), eta multzo horrek (...) lurraldeen eta azpisektoreen arteko diferentziak murrizteko lagungarria izan behar du."*

Azkenik, adierazi dute gizarte ekimeneko erantzukizuneko jarduerak sustatzeko diru-laguntzen berrantolaketak eta erantzukizun publikoko zerbitzuen erregulazioak joko zelaia argitu nahi dutela esku-hartze sozialaren eremuan gizarte ekimeneko erakundeek begira, haien kudeaketa zailtasunak murrizteko. Gauzak horrela, diru-laguntzen deialdirako agindu bakarra egongo da; aitzitik, aurreko ekitaldietan urteko zenbait hilabetetan ia hogeita agindu desberdin inguru onesten ziren. Agindu bakar horren helburua da, besteak beste, eskaera eta justifikazio prozedurak arintzea eta hobetzea, bai eta finantzazio formuletan kontzeptu berriak txertatzea kalitate irizpideei jarraituz betiere.

Azkenik, aipatu dute elkarrizketa zibileko mahai bat osatu dutela gizarte ekintzako hirugarren sektoreko sare eta federazioekin eta bertan eztabaidatu eta birplanteatu dela diru-laguntzaren berrantolaketa.

Haien ustetan, diru-laguntzak berrantolatzeko proposamenak eta, oro har, gizarte ekintzako hirugarren sektorea bultzatzeko estrategiak (betiere esku-hartze sozialaren gaineko politika

publikoaren markoan) erantzun egokia ematen die Arartekoak egindako txostenaren azterketari eta gomendioei (horrek langileen prestakuntza ere aipatzen du, bai eta jardun egoien ebaluazioa eta zabalkundea edo boluntariotzaren sustapena).

Arautegi berria ikusirik eta gizarte erakunde batzuek helarazitako kezkek eta ardurak aintzakotzat harturik, Arartekoak aparteko txostenaren jarraipena jarraituko du 2010ean, gomendioen betetze maila baloratu ahal izateko.

7.5. Gizarte babesgabetasun larriko egoerak: pertsona helduen babes eza; Kode Zibilaren 239.3. artikulua irismena

Arazo hau eztabaidagaia izan zen Arartekoak urtero parte hartu ohi duen Euskal Herriko Unibertsitateko udako ikastaroetan (2008an "Osasun Mentala eta pertsonen eskubideak") eta iaz ere aipatu genuen. Aurten ere Kode Zibilaren 239.3. artikulua eduki eta irismena azpimarratu behar dugu berriro, kolektibo horri eragiten diolako bazterketa prozesua oso aurreratuta dagoen kasuetan. Kanean eta alkoholaren edo beste toxikomania batzuen mendekotasunaren arriskupean bizi diren pertsona helduak dira, arreta falta materiala eta afektiboa dutenak. Pertsona horiek, askotariko arazoak tarteko, ez dute baliabide publikorik erabili nahi, ezta neguan ere, eta horrek berekin dakar bizitza arriskua jartzea. Ez dira ezgaitasun judizialeko kasuak, baizik eta pertsona autonomoak edo autonomoak izanikoak, baina babesgabetasunaren larritasunak euren osasun mentalari eragiten dio. Gerta daiteke inork ez ekitea ezgaitasun prozesuari edo, prozesua hasita ere, ez baloratzea pertsona ezgaitzat hartzeko behar adinako gaitasuna duenik, beharbada pertsona horrek ezgaitasuneko tartea besterik ez dituelako, ezgaitasun judizialik sortu gabe. Zahartzaroko demenztzia duten edo autonomia fisiko, zentzumenezko edo psikikorik ez duten pertsonen kasuak; esan nahi baita, mendekotasun handia duten pertsonak dira, seniderik gabekoak, eta uneren batean laguntzarik gabe aurkitzen dira; era berean, atzerritarrak ere izan daitezke, komunikazio eta erlazio arazoak dituztenak. Hartara, 7.3. puntuan, etxerik gabeko pertsonen buruzko aparteko txostenaren jarraipenean, udalek beren kezka azaldu digute bizitza arriskuan jartzeko egoerak gertatzen direlako; hori dela eta, Donostiako Udalak abian jarritako protokoloa ekarri genuen gogora, izan ere, horren arabera Osakidetza eta udaltzaingoak batera jardun beharko zuten bizitza arriskuan duen eta presazko esku-hartzea behar duen pertsona bat antzemanaz gero.

Aurreko urtean, zehaztu genuen bezala, helduen babesgabetasun larriak erronka berriak dakarzkie herri-administrazioei. Gaiaren garrantziak haren egokitasunari, mugaketari, irismenari, prozedurari... buruzko eztabaida sakona eta holako egoerei ematen zaizkien erantzunen –hala nola, ezgaitzeko prozesu judizialak- azterketa eskatzen ditu.

7.6. Ondorioak

Jarraian atalean aztertutako gaien buruzko laburpen baten berri ematen dugu:

1. Herri administrazioen arteko funtzio eta eskumenen banaketak irizpide arrazionaleri erantzuten die eta behar-beharrezkotzat jotzen da arreta eraginkorra izan dadin. Hala eta guztiz ere, gizarte bazterketa larriak dauden pertsonak artatzeko laguntzak jarraitua eta osoa izan behar du eta pertsona horien premiei erantzun behar die, emaitzak lortu ahal izateko eta gizarteratze prozesu batean aurrera egiteko. Paradigma aldaketa bat behar da, gizarteratzeko prozesuak ahalbidetzeko. Horrenbestez, administrazioaren **koordinazioan eta lankidetzan** eta esparruen arteko jarduketan **zeharkotasunean** aurrera egitea ezinbestekoa da, ez bakarrik arriskuko egoerak prebenitzeko, baizik eta gizarte bazterketa larriko arazoei erantzunetan ere aurrera egiteko.
2. **Etxebizitza eskuratzeko zailtasunak** ez du uzten alojamendu independentea egiaztatzen eta, zenbait kasutan, udal erroldan izena ematen; hori dela eta, gizarte bazterketa larriak dauden pertsonak egon arren, ezin dute prestazio ekonomikorik lortu, esate baterako sarreren bermerako errenta. Gauza bera gertatzen zaie udalak eskatutako bizigarrtasun baldintzak betetzen ez dituzten etxebizitzetan bizi direnei. Esan nahi baita, zerbitzuak eta prestazioak eskuratzeko baldintzek galaraz dezakete gizarte bazterketa larriak dauden pertsonak bazterketa horren kontra borrokan egiteko tresnak lortzea. Hori, azken batean, kontraesan bat da.
3. Lehentasunezkoa da **esparru soziosanitarioaren garapenean** aurrera egitea, pertsona horien premiei erantzuteko, beharizan horiek ez baitira gizarte arlokoak bakar-bakarrik. Arretarako talde mistoak behar dira, osasun arretarako gizarte baliabideak eta bi eremuen arteko lankidetzak handiagoak. Gizarte eta osasun arloak oso lotuta daude, batik bat osasun mentaleko arazoak edo toxikomaniak dituzten pertsonen kasuan. Gauzak horrela, beharrezko programa eta egitasmoak garatu behar dira, etxerik gabeko pertsonen gaixondoetan atsedean hartzea eta kalitatezko arreta medikoa izatea ahalbidetzeko.
4. **Dei efektuaren beldur izateak** ezin du berekin ekarri pertsonen oinarrizko premiak artatu gabe uztea. Funtsezkoa da lurralde eta udalerririk guztiek antzeko gizarte estaldura izatea eta gizarte politikak antzeko babes mailarekin edo maila berdintsuarekin garatzea, betiere arretan desberdintasunak saihesteko eta pertsonen inola sustrairik ez duten tokietara joatea galarazteko.
5. Behar-beharrezkoa da hausnartzea zein jarduketa mota behar den **bizitza arriskua** dagoenean.
6. **Profil berriak** daude (atzeritar gazteak, atzeritarren kokalekuak txaboletan edo infraetxebizitzetan, seme-alabak dituzten familiak, osasun mentaleko arazoak dituzten emakumezkoak...) eta horrek berekin dakar bazterketa zorrotza eta hausnarketa sakona egitea, esku-hartzea eraginkorra izan dadin.
7. Etxerik gabeko pertsonentzako arretak gabeziak ditu. Garrantzi handikoa da administrazioek etxerik gabeko pertsonen premiei aurre egiteko eta **auzokideen arbuioa** saihesteko programak eta baliabideak abian jartzea eta zeregin horren **lindergoa** hartzea.

II.8

**BERARIAZKO ARRETA
TERRORISMOAREN ETA JAZARPEN
INDARKERIAREN BIKTIMEI**

8. BERARIAZKO ARRETA TERRORISMOAREN ETA JAZARPEN INDARKERIAREN BIKTIMEI

Euskadin terrorismoaren biktimei erakundeek emandako arreta izeneko txostena amaitzea izan da erakunde honek terrorismoaren eta jazarpen indarkeriaren biktimei berariazko arreta emateko burutu duen jarduera nagusia. Aipatu txostena Eusko Legebiltzarreko presidenteari uztailaren 13an eman zitzaion eta legebiltzar horretako Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordearen aurrean irailaren 15ean aurkeztu zen. Txosten hori egiteko lan asko egin behar izan dugu eta, hala, bi urte baino gehiago eman ditugu behar bezala gauzatzeko, kontuan hartuta proiektuaren irismena eta asmo handia eta bideratzeko bitarteko pertsonalen muga.

Urteko txostenaren IV. kapituluak, txosten bereziaren aipamen zehatzagoa egin da. Horrez gain, txostena oso-osorik ikusi edo eskuratu nahi duenak testua Ararteko erakundearen web orrialdean (www.ararteko.net) topa dezake.

Terrorismoaren biktimei emandako arretari buruzko txostenaren nobedaderik handienetako bat IX. kapituluak da. Kapitulu horrek Euskadin mehatxu edota derrigortze terroristen biktimei egindakoa –gertakari horri “jazarpen indarkeria” deitzen zaio– du hizpide. Egoera horren ondoren behar bezalako tratamendu eman behar da. Izan ere, ezin dugu gertakari arruntzat jo pertsona askoren bizitza arriskuan egotea talde jakin batzuetako kide izateagatik. Epaileak, fiskalak, polizia kidego batzuk –Ertzaintza, Guardia Zibila, Polizia Nazionalea, Udaltzaingoa–, militarrek, demokrazia erakundeak ordezkatzeko dituzten karguak, kazetariak, irakasleak, espetxeetako funtzionarioak, enpresaburuak, etab. mehatxu terroristak pairatzen dituzten taldeak dira eta talde horietako kideek heriotza mehatxuak jasotzen dituzte etengabe.

Biktimazio oso larrien aurrean gaude. Mehatxaturiko pertsonen giza eskubideen urradura hiru alderdiri zabaltzen zaio gutxienez:

1. Aldez aurretik zehaztuta, kronifikatuta dagoen biktimazio baten higadura. Egunetik egunera, urtetik urtera, pertsona horiek mugaturik dute beren askatasuna dimentsio ezberdinetan, eta bizitza eskubidea, osotasun fisikorakoa, ongizaterakoa, bizitza familiarra izatekoa, intimitatea izatekoa... urratuak dituzte. Bizitzera behartuta dauden inguruabarrek isolamendua biziagotzen diete.
2. Inoiz itzuli ahalko ez zaizkien bizitzako denbora eremuak berreskuratzea ezinezkoa izatea. Inoiz ez dira aske izango biktimazioa jasan zuten adinean, inoiz ez dute berreskuratuko beren senideei kendutako askatasuna, batez ere bikote eta seme-alabei kendutakoa. Bihar ETaren terrorismoa amaituko balitz ere, une horiek ezingo dira berriro askatasunez bizi, besterik gabe igaro egin direlako jada. Mehatxatutako pertsona batzuk beste batzuk baino hobeto egokituko zaizkio inguruabar horri terrorismoa amaitzen denean, baina erakundeek eta gizarteak zorra izango dute oraindik mehatxatutako pertsonekin: orduan jabetze horren eraginak ahalik eta gehien txikituko beharko dira, beren bizitzetan urte luzeetan eta Zuzenbideko Estatuko aniztasunaren ordezkari izateagatik bakarrik jasandako askatasun galera eta isolamendua sartu ahal izan ditzaten.

3. Biktimazioaren ondorioa, neurri handiagoan edo txikiagoan, bizitzaren alderdi guztietan eta, batez ere, familiako bizitzan.

Eskubideen urradura eta mugaketa beste batzuk baino hobeki daramaten pertsona batzuk daude. Batzuk askatasun pertsonal handia agertzen dute etsita dagoen gizartearen eta, zenbaitetan, koldarra den gizartearen aurrean. Are gehiago esanda, horrek bizitza kontzientzia gehiagorekin bizitzea ekarri die, egunerokoa baloratuz biktimazioaren aurrean.

Mehatxu eta hertsapen terroristen biktimek eztabaidaturiko hiru aldarrikapenak oinarritzkoak dira biktimazioa gutxitzeko eta haien eta beren familien ongizatea berreskuratzeko:

1. babesaren kalitatea;
2. errekonozimendua arreta publikoko neurrien bitartez alor ezberdinetan; eta
3. prebentzioa, gizarte kontzientziazioaren eta erakundeen babesaren bitartez.

Elkarrizketatu guztiek, batez ere bizkartzaina daramaten pertsonak, jabetzen dira beren segurtasun neurriek eragiten duten kostu ekonomikoaz, eta eraginkorrak eta gizakoiak izatea nahi dute. Jokabide kodeak edo praktika onekoak jarri behar dira babestuaren eta bizkartzainaren arteko harremanetan lankidetzari, gehiegikeriak saihesteari, formei, errespetuzko tratuari –matxista ez izatea–, bizitza pribatua eta familiarenean sartzeari (adibidez, etengabe langileak aldatzea saihestuz), konfidentzialtasunari eta prestakuntzari dagokienez. Alderdi horiek nahitaez behar dute erakundeen aldetiko eta babesa bermatzen eta koordinatzen duten agentzien aldetiko esku-hartzea.

Funtsezkoa da biktimazioaren eragina txikitzen duen solidaritatezko sare informala, eta lehengoraten laguntzen du erakundeen eta gizartearen aldetik babesa falta izatearen sentsazio orokor zabalagoaren aurrean. Erakundeek erreakzioa agertu behar dute. Gainera, sare informalak gero eta ahulagoak dituen eta geroz eta konplexuagoak diren gizartearen aurrean –aldi berean etengabeko biktimazioaren ondorioak ere jasan ditzake–, beharrezkoa da errekonozimendurako eta solidaritate publikorako mekanismoak martxan jartzea. Edonola ere, terrorismoaren biktimei arreta emateari buruzko txostenetik ondorioztatzen denez, harrigarria da baliabide pertsonalak, familiarenak eta lagun inguruneak zein eraginkorrak diren biktimazioa arintzeko. Ikerketa longitudinal zabalago batek aukera emango luke higitzen nola joan daitezkeen eta, beraz, biktimazioa nola areagotzen den egiaztatzeko. Bestalde, ziurrenik, pertsona batzuk, zoritxarrez, ez dituzte baliabide pertsonal eta afektibo horiek izango biktimazioari arrakasta osoz aurre egiteko.

Mehatxatutako pertsonen eta haien senide zuzenei laguntza psikologikoa eskuratzea erraztu behar zaie eskatzen badute; halaber, etxebizitzari eta lanari buruzko errekonozimendu eta solidaritate neurri publikoak hartu beharko lirateke.

Euskal erakundeek neurriak hartu behar dituzte alderdi guztietan mehatxu eta hertsapen terroristak jasaten dituzten biktimei askatasuna, bizitza, segurtasuna, ongizate fisikoa eta psikologikoa, duintasuna, bizitza pribatua eta eskubide politikoak babesteko. Horretarako,

pertsona bakoitzaren faktoreak baloratu behar dira adinari, generoari, lanbideari, bizitza familiarrari, osasunari, lehengo biktimazioei, mehatxuen iraupenari, eta abarri dagokienez. Neurri horien joera mehatxupean dagoen pertsonaren bizitza ahalik eta gehien normalizatzekoa izan behar da, betiere, etsaia garbitzea xedetzat duen proiektu politiko zehatzean jatorria duen giza eskubideen hain urradura larriaren egoera natural bihurtu gabe.

Terrorismoaren biktimei arreta emateari buruzko azterlan horretan, lehen hurbilketa egiten da jorratu beharreko alderdiekiko, mehatxatutako pertsonen gizarte bazterkeria eta erakundeena saihesteko. Jarduteko helburuak zehaztu egin behar dira, beharrezko baliabideen zuzkidurarekin batera. Denbora bat igarota, beharrezkoa izango da jardun horrekin mehatxatutako pertsonen bizitza benetan hobetu den ebaluatzea, hau da, esku-hartzea jarraipen aske luzearekin planifikatu behar da.

Terrorismoaren biktima modura mehatxatutako pertsonak funtsezko papera izan dezakete hezkuntza planetan. Haien lekukotzak beharrezkoak eta erabilgarriak dira, errealitatea ezagutzen duten baliabide, kontzientziazio, sentsibilizazio eta indarkeriazko portaeren prebentzio modura, baina baita balio positiboak bultzatu dituzten baliabide modura ere: Zuzenbideko Estatuaren, askatasunaren eta demokraziaren aldeko borrokan gizakiak bere burua gainditzeko erakutsitako gaitasuna. Etorkizunean egiten den ahozko agiritegiak mehatxatutako eta hertsatutako pertsonen testigantzak bildu beharko ditu, betiere, berriro biktimazioa ez jasateko bermeeekin eta zorroztasun zientifikoarekin eginda.

Mehatxatuta dauden pertsonen oso zaila egiten zaie gizartearen eta erakundearen aldetiko bazterkeria barneratzea. Ulertzen dute bizitzak aurrera egiten duela haientzat nahiz gainerakoentzat, baina errealitate zail bati egokitzeak ez du esan nahi etsi egiten dutenik. Etsitzeak esan nahi du ez dela ikusi nahi besteen sufrimendua, arrazoi zehatz batzuegatik sortutakoa. Baina jarrera horrek ez du galaraziko sufrimendu horrek bizirik irautea. Erakundeak eratzen dituzten pertsonen eta herritar guztiek bidegabeko egoera honen ikusle izatearen edo, bakoitzak gure gaitasunen eta erantzukizunen barruan, egoera aldatzeko ingurubarrak sortzearen artean aukera dezakegu, aderez eta iraunkortasunez.

Azterlan honek lagundu egin nahi du gauzak ikusten ditugun moduan, bidegabe ezartzen dizkiguten moduan onartzeko joera naturala apurtzen. Giza eskubideen urradura egoera eratzen duten elementu batzuk berraztertzea bultzatu nahi du. Egoera horren konplexutasunaren barruan, uste dugu elementu batzuk aldaketa orokor positiboak ekar ditzaketela mehatxatutako pertsonen eta gizarte osoaren bizitzetara.

Mehatxaturiko pertsonen arazoaren jatorria aztertuko duten konpromiso zehatzak behar dituzte testuinguru soziopolitiko zehatz batean. Mehatxaturiko pertsonen, halaber, egia politikoa irudikatzen dute: mehatxatu egiten dituzte euskal gizartearen aniztasunaren sinboloa izategatik. Espero dugu transkripzio hauen irakurketaren ondotik berdin ez geratzea eta axolagabekeria zirrikituak irekitzen lagundu izana, pentsamendu kritikoa bultzatzearekin batera.

* * *

Bestalde, atsegin handiz hartu genuen joan den urtean Terrorismoaren Biktimei Aintzatespena eta Erreparazioa Egiteko ekainaren 19ko 4/2008 Legea onartu izana. Luze zain egon ondoren, lege hori bidegabeko egoerak konpontzeko oinarria da. Egoera horretan, terrorismoaren biktimak daude.

Jakin badakigu, lege horrek kalte-ordainak jasotzeko zenbait neurri jasotzen dituela eta neurri horiek *“ahal den neurrian, biktima kaltea eragin baino lehenagoko egoerara itzul dadin ahalegintzen dira”*. Hala, osasun fisiko eta psikologikoaren, hezkuntzaren, prestakuntzaren, etxebizitzaren edo lanaren esparruan biktimen eskubideak arautzen ditu.

Araua aurrerapen handia izan bada ere, arauzko garapena eta botere publikoen jarduerak behar ditu, bertan jasotako eskubide asko balia daitezten. Ildo horretan, terrorismoaren biktimen kexa bana jaso dugu eta, bertan, adierazi da 4/2009 Legean jasotako eskubideak arauz garatu ez direnez, aipatu eskubideak ezin izango zirela baliatu.

Euskadin terrorismoaren biktimei erakundeek emandako arreta izeneko txostenean horren inguruko gomendio bat erantsi da eta honako hau dio:

“Eremu horretan jardun zehatz hauek planteatzen dira:

- *Konponketari buruzko hainbat betebeharrak publikok 4/2008 Legearen araudia garatzean jarri beharko lukete arreta. Lege horren arabera, araudiaren garapen posibleek Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoak diren sei alderdi barne hartuko lituzkete.*
 - A. *Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluaren eraketa eta funtzioak (6.5 art.).*
 - B. *Prestazioen garapena kalte materialak arintzeko nahiz osasun psikologikoari, irakaskuntzari, laneko trebakuntzari, etxebizitzari eta lanari uztartutako berariazko neurriak (zioen azalpeneko 70. eta 72. paragrafoak).*
 - C. *Ekintza terroristekin lotutako jazarpena, mehatxua edo hertsapena jasaten duten pertsona fisiko edo juridikoek diru-laguntza eskuratu ahal izango dute beren etxebizitzetan, establezimenduetan eta ibilgailuetan segurtasun-sistema egokiak instalatzeak dakartzan gastuak ordaintzeko, erregelamendu bidez ezartzen den moduan (17. art.).*
 - D. *Prestazioak koordinatzeko organo eskumenduna izendatzea (25. art. eta 4. xedapen iragankorra). Organo horrek berehala jarduteko protokoloa diseinatu behar du, etorkizunean jazotzen diren atentatuentzako (3. xedapen gehigarria).*
 - E. *Eusko Jaurlaritzak beharrezko aldarazpenak aurkeztuko dizkio Euskal Funtzio Publikoari buruzko ekainaren 6ko 6/1989 Legeari, bertan jasotako arauetatik eratorzen direnak horiek (3. azken xedapena).*
 - F. *Erregelamendu bidez aurreikusiko da aparteko epea irekitzea, sei hilabetekoa izango dena, kalte materialak erreparatzeko laguntzak jasotzerik izan ez dutenek, eskabidea formalizatu gabe urtebete igaro zelako, ekintza terrorista gertatu zen unean terrorismoaren biktimei laguntzeko indarrean zegoen programan sartzeko eskatu ahal izateko (3. xedapen iragankorra).*

Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak dekretu proiektu baten berri eman digula aipatu behar da. Aipatu proiektuaren bidez terrorismoaren biktimei erabateko laguntza emateko sistema –Terrorismoaren Biktimei Aintzatespena eta Erreparazioa Egiteko ekainaren 19ko 4/2008 Legean xedatutakoa– garatzen da. Txosten hori idazterakoan izapide bidean dagoen dekretu zirriborro horrek, besteak beste, honako alderdi hauek jorratu eta garatu ditu: kalte materialen (etxebizitzetan eragindako kalteak adibidez) ordaina emateko jarduerak; behi-behineko bizilekuek eta lekualdatzeek eragindako gastuak; ibilgailuetan eragindako kalteak; alderdi politikoen egoitzetan, sindikatuetan eta gizarte elkarteetan eragindako kalteak. Kalte materialengatiko ordaina eskatzeko prozedura eta ordain daitekeen balioa zehazteko prozedura ezartzen ditu. Halaber, kalte materialak prebenitzeko jarduerak, hala nola, segurtasun sistemak jartzea, barne hartu ditu. Alderdi asko jorratu ditu, besteak beste, laguntza juridikoa; osasun eta psikologia arreta, ikasteko laguntzak, enplegurako orientazioa eta prestakuntza; funtzio publikorako, etxebizitzarako eta ezohiko laguntzen emakidetarako sarbidea.

Behin dekretu hori onartuta, biktimei aitortutako eskubideak baliatu ahal izango direlakoan gaude.

* * *

Azkenik, aipatu behar da ikerketa aplikatuko beken azken deialdia (2009ko martxoaren 30eko Ebazpena) 2009ko abenduaren 10ean ebatzi zela, "EAEn terrorismoaren biktimen memoriarako eta aintzatespenerako eskubidea" titulupean ikerketa lana esleituta.

II.9

**BERARIAZKO ARRETA
LESBIANA, GAY, BISEXUAL,
TRANSGENERO ETA TRANSEXUALEI**

9. BERARIAZKO ARRETA LESBIANA, GAY, BISEXUAL, TRANSGENERO ETA TRANSEXUALEI

1. Arlo honetako lanari buruzko sarrera

Arlo honetan Arartekoak berdintasunaren alde eta lesbianen, gayen, bisexualen eta transexualen diskriminazioaren kontra egiten du lan:

- Horretarako EAEko administrazio publikoak kontrolatzen ditu, orientazio sexuala edo genero identitatea dela eta, berdintasunetarako eta diskriminatua ez izateko eskubidearen urraketei dagokienez.
- Orientazio sexuala edo genero identitatea dela eta, preterizio edo diskriminazio bide guztiak erazteko kultura bat sustatzen du gure gizartean.
- Euskadiko lesbiana, gay, bisexual eta transgenero edo transexualen egoerari eta errealitateari buruzko ezagutza zabaltzen du gizartean eta erakunde publikoen nahiz euskal gizartearen laguntza sustatzen du pertsona horiek eskubideei dagokienez.

2009an gure ahaleginak bildu ditugu pertsona transexualen eskubideak bultzatzeko eta sustatzeko jardueretan; izan ere, kolektibo horrek orain arte ez du erakundeen arreta eta laguntza zehatzik jaso. Jarraian jarduera horien berri emango dugu, bai eta erakundean jasotako kexa nagusien berri ere; azken horien barruan gay eta lesbianek euren bizitzen esparru desberdinetan dituzten arazoei ere dagozkie.

2. Arartekoak pertsona transexualei begira egindako jarduerak 2009an

a. Euskadiko pertsona transexualen eta transgeneroen egoerari buruzko aparteko txostena

Arartekoak ofizios bultzatutako jarduerari dagokienez eta transgenero edo transexualen eskubideetan errespetuzko kultura bat sustatzeko asmoz, 2009an honako izenburua daukan aparteko txosten hau amaitu dugu: "Transgenero eta transexualen egoera Euskadin".

Txosten horretan pertsona horiek Euskadin gaur egun bizi duten egoerari buruzko azterketa bat egin genuen; bestalde esan beharra dago txosten horren edukia zehatzago aztertzen dela aparteko txostenei buruzko urteroko txosten honen kapituluari. Gauzak horrela, txostenen euren errealitate pertsonal eta sozialera gerturatu saiatu ginen, bai eta transgenero edo transexuala izateak dakartzan garapen zailtasunetara ere, betiere bizitzaren arlo guztietan, hau da, familian, sexuan, lanean, ekonomian eta gizartean.

Horrela bada, txostenen euren egoera objektiboaren deskripzio bat islatu nahi izan dugu eta, era berean, ikuspuntu bat ematen ahalegindu gara pertsona horien subjektibotasunetik,

maila pertsonal eta sozialean garatzeko gainditu behar dituzten zailtasun gehigarriak bizitzeko modutik, hain zuzen ere.

Halaber, kolektibo honen premien aurrean, erakundeen eta legearen egungo erantzuna aztertu eta horren berri ematen da; horretarako, pertsona horiei laguntzeko zuzendutako baliabide publikoen funtzionamendua aztertzen saiatu gara, batik bat gizarte eta osasun arloko baliabideak. Aldi berean, herritarrek euren egoerari buruz duten iritzia haztatu nahi izan dugu; iritzi hori, oro har, ezagutza falta edo irudi estereotipatua dela esan dezakegu.

Azkenik, gure txostena amaitzeko, hainbat gomendio eman ditugu; horien bitartez argitu nahi dugu zeintzuk diren EAEko erakunde publikoek egitura ditzaketen neurri zehatzak pertsona horiei laguntzeko eta gaur egunean dituzten bizi baldintzak hobetzeko. Gomendio horiek, aurrerantzean Arartekoaren lanaren erreferentzi parametroak izango dira, betiere arreta publikoaren exigentziei eta gai honetan eragiten duten baliabide publikoen nahiz legezko tresnen jarraipenari dagokienez.

b. Sexu aldaketarako osasun prestazioa eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza ekonomikoak

Beste alde batetik, ekitaldi honetan zehar zenbait kexa jaso ditugu, kolektibo honi eragiten dioten arazoekin eta premiekin zerikusia dutenak. Gauzak horrela, nabarmendu nahi dugu, bere garrantzi eta esanahiagatik, 2009ko azkenaldian erakunde honi aurkeztutako bi kexa. Biek planteamendu desberdinak dituzte; hala ere, edukia dela eta, hertsiki lotuta daudela esan beharra dago:

Lehenengoan salatzen da Osakidetza ez duela oraindik ere eskaintzen berrezarpen sexualerako interbentzio kirurgikorik, nahiz eta Osasun eta Kontsumo Sailak zenbait alditan publikoki azaldu hori egingo zuela. Bigarren kexan azaltzen ziguten ez zetozeela bat Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Gizarte Gaietarako Sailak EAetik kanpo egindako interbentzio kirurgikoetarako diru-laguntzak kentzeko har lezakeen erabakiarekin; diru-laguntza horiek urte honetara arte aurreko Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailak ematen zituen.

Aurreko gaiari dagokionez, azaroaren 6an EAEko osasun administrazioaren erantzuna jaso dugu; bertan aipatzen digute Osakidetzaren gaur egungo zuzendaritzak, Osasun eta Kontsumo Sailarekin koordinatuta, erabaki duela osasun sistema publikoak zuzenean hartzea bere gain genero disforiaren kasuen osasun prestazio osoa; horren barruan, bada, genitalen kirurgia ere sartzen da, aipatutako kasuen beharrezko osagarri bezala. Ildo honi jarraituz, adierazi ziguten, Osasun sailburuak Eusko Legebiltzarraren 2009ko urriaren 23ko osoko bilkuran aipatu zuen bezala, lanean ari zirela Gurutzetako Ospitaleak berme guztiekin bere gain har zitzan Osakidetzan egin beharreko sexu berrezarpeneko interbentzio kirurgikoak, nahiz eta zailtasun edo konplexutan handiko kasuetan gomendagarria izan erreferentziatzeko beste zentro batzuetara lekualdatzea, baina betiere Osakidetza eta Osasun Sailaren kontura.

Berriki zenbait komunikabideren bitartez jakin ahal izan dugu mota honetako lehendabiziko interbentzio kirurgikoak egin dela Gurutzetako Ospitalean; beraz, horrek agerian jartzen du jakinarazi zigun iragarpena dagoeneko bete dela.

Nolanahi ere den, gorago aipatu dugun bigarren erreklamazioa ikusita (EAEko osasun arreta publikoak orain arte bere gain hartu ez dituen interbentzio kirurgikoen gastuak estaltzeko diru-laguntzen balizko desagerpenari buruzkoa), horri buruzko informazioa eta argibideak eskatu behar dizkiegu bai Lan eta Gizarte Gaietarako Sailari bai Osakidetzari ere¹⁹.

Kexa hau dela eta, gure ustetan, prestazio hori hartzeko eredu berrira jotzeko trantsizioaren egituraketari buruzko gaia sortzen denez gero, bi erakunde publiko horiei informazioa eta argibideak eskatu genizkien jakiteko ea trantsizio tresnaren bat aurreikusita zeukaten mota honetako kirurgia Osakidetzatik kanpo eginda zeukaten pertsoneri (adibidez kexa hau jarri dutenei) interbentzioak sorrarazitako gastuak estaltzeko. Txosten hau amaitzeko orduan, Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Gizarte Gaietarako Sailaren azkeneko informazioa jaso dugu eta horretan adierazi digute sail hori prest dagoela EAEko osasun sistema publikotik at egindako interbentzio kirurgikoek sorrarazten dituzten gastuak bere gain hartzeko, baina oraindik ere aztertzen ari direla ukitutako pertsonentzako diru-laguntzak egituratzeko modua. Horretarako, jakinarazi digute egoera horretan dauden pertsonekin harremanetan daudela. Informazioa diru-laguntzei buruzko kexa jarri duten hiru pertsoneri helarazi diegu eta zain gaude, harik eta laguntza ekonomiko hori emateko baldintza eta betekizunak zehatzago ezarri arte, erakundeek gai honetan izan duten jarduna behar bezala baloratzeko eta, oro har, gaiaren amaiera egokiro aztertzeko.

c. Aldagelak egokitzea kiroldegietan

Pertsona transexualei dagokienez, bada aipatzea merezi duen azken gai bat. Izan ere, transexualen elkarte batek kexa bat aurkeztu zuen, Donostiako Udaleko kirol instalazio batzuetako aldageletan intimitate faltaren arazoa salatzen. Elkarte horrek planteatu zigun haientzat traumatikoa eta iraingarria zela beste pertsona batzuekin aldagelak eta dutxak partekatzea oraindik ere haien berrezarpen sexu-erako prozesua amaitu gabe zegoenean; horren ondorioz, banakakoentzako kabina edo dutxa batean aldatu eta dutxatu behar izaten ziren. Transexualek, sexuari buruzko erregistro aipamena zuzenduta ere (martxoaren 15eko 3/2007 Legearekin bat etorriz), anatomikoki jatorrizko sexu biologikoaren ezaugarri batzuk izan ditzakete, baldin eta berrezarpen-erako kirurgia oraindik ere egin ez badute. Hala eta guztiz ere, Donostiako kirol instalazio guztietan ez dira banakakoentzako kabina eta dutxak izaten edo, banakakoentzako azpiegitura horiek egonagatik ere, kirol zentro batzuetan ez daude pertsona guztien esku, horietara sartu nahi den bakoitzean baimen edo giltza bat behar izaten delako.

¹⁹ Kanpoko zentroetara joateagatik gastuetarako diru-laguntzak Osasun eta Kontsumo Sailaren bitartez bideratu ohi dira; hala eta guztiz ere, kasu honetan informazio eskaera Osakidetzari egin genion salbuespen gisa, erakunde hori zelako espediente osoaren jakitun zegoena.

Hori dela eta, gaiari buruzko argibideak eta informazioa eskatu genion Donostiako Udalarari eta pertsona horien intimitatea eta, askotariko arrazoiak direla eta, bestelako pertsonen intimitatea ere gordetzeko premia azaldu genion; izan ere, aipatu bezala, intimitatea gordetzeko arrazoi asko egon daitezke, hala nola arrazoi erlijiosoak edo moralak edo gorabehera objektiboak, kasurako pertsonen kanpoko itxurari eragiten dioten gaixotasunak edo istripuak, edo era guztietako arrazoi pertsonalak.

Erantzunean, Donostiako Udaleko Kirol Patronatuak baieztatu zigun guk aurreratutako datuak zuzenak zirela, eta zehaztu zigun instalaziorik modernoenetan bazeudela banakoentzako kabinak eta dutxak, baina gainerakoetan ez. Irtenbide gisa proposatu ziguten aldagela orokorren esparrutik kanpo zeuden aldagela eta dutxa indibidualak erabiltzea. Alabaina, aldagela eta dutxa berezi horietara sartzeko (aldagela orokorren esparrutik kanpo), baimena eskatu beharra zegoen. Hori, gure ustetan, beste oztopo bat zen pertsona transexualentzat, instalazioko langileen aurrean genero nortasunari buruzko adierazpena egin behar zutelako.

Bigarren erantzunean, Donostiako Udaleko Kirol Patronatuak ñabardura batzuk egin zituen eta adierazi zigun ez zela guztiz zuzena aldagela orokorren esparrutik kanpo zeuden banakakoentzako aldageletara eta dutxetara sartzeko baimena behar zenik. Nolanahi ere den, kirol instalazio horien erreforma ez programatzeko jarrerari eusten zion, udaleko kirol zentro guztietan dutxak eta aldagela indibidualak aldagela orokorren esparruaren barruan jartzeko.

Arrazoi hori dela eta, azkenean ebazpen bat ematea erabaki genuen ([2009ko abuztuaren 19ko ebazpena](#))²⁰, eta Donostiako Udalarari gomendatu genion kirol ekipamenduetan eskuhartze bat programatzeko, arrazoizko denbora tarte batean, udalerriko kirol instalazio guztiek banakakoentzako aldagela eta dutxak izan ditzaten beren aldagela orokorren barruan.

Gure iritziz, azaldutako gai honek ez du agerian jartzen bakar-bakarrik transexualitatearekin zerikusia duen arazo bat, baizik eta pertsona guztien esparru pribatu sakonari eragiten dio eta, azkenekoz, gizaki guztiok gure intimitatearen eta duintasunaren mugak definitzeko daukagun askatasunari, betiere gure gorputza erakusteko aukerari dagokionez. Hori guztia, zalantzarik gabe, uztartzen da pertsonen duintasun eta intimitaterako eskubideen aitortzarekin, Konstituzioaren 10. eta 18. artikuluek ematen dutena, hurrenez hurren. Beste alde batetik, oinarrizko arautegi berberaren 9.2. artikulua adierazten du botere publikoek pertsona guztien berdintasun egiazko eta eraginkorra lortzeko baldintzak sustatu behar dituztela, eta hori berori gertatzen da gorago aipatutako eskubideekin. Horregatik, gure irudiko, garrantzi handikoa da kirol zentro mota hauek kudeatzen dituzten erakunde publikoak sentsibilizatzea herritar guztiek askatasunez aukera dezaten euren gorputza beste pertsona batzuen aurrean erakutsi nahi duten ala ez, betiere hori egiteko inolako arrazoirik eman gabe.

²⁰ Arartekoaren ebazpena, 2009ko abuztuaren 19koa. Horren bidez, Donostiako Udalarari gomendatzen zaio kirol ekipamenduetan esku har dezala, zentzuzko denbora tartean, udalerriko kirol instalazio guztiek banakako dutxak eta aldagelak izan ditzaten.

3. Bereziki gay eta lesbianen familia berriei eragiten dieten administrazio jarduren disfuntzioak

Nabarmendu nahi dugu oraindik ere gutxi direla gay eta lesbianen egoerari eragiten dieten gaien inguruko kekek. Gainera, oro har, jasotako kekek ez dute jarrera diskriminatzailearik salatzen administrazioen aldetik; soil-soilik azaltzen dituzte zerbitzuren baten prestazioan hobetzeko modukoak diren jarduketak, edo nahi dute guk argitzea lesbianek eta gayek osatutako familien eskubideei eta legezko egoerari buruzko zalantzak argitzea.

Jarraian, zerbitzu administratiboan egokitzapen txarrari buruzko alderdi batzuk jorratuko ditugu, betiere gay eta lesbianek familiak eratzean sortzen den egoera berriari dagokionez; egokitzapen txar horrek praktikan ezkondata dauden edo izatezko bikotean bizi diren emakumezko lesbianen amatasunaren egikaritzapenari eragiten dio.

Gai honi dagokionez, 2008ko abenduan bilera bat izan genuen "Aldarte" gay eta lesbianen arreta zentroarekin; bilera horretan adierazi ziguten jardun administratiboan disfuntzio ugari antzeman zituztela indarreko legezkoatasun berria aplikatzean; legeria berriak ahalbidetzen du adin txikikoak adoptatzea eta gay eta lesbianen aitatasun edo amatasuna aitortzea, baldin eta ezkondata badaude edo izatezko bikotea osatzen badute.

a. Eskumen estatalen arazoak

Kolektibo honek salatutako jardun administratibo asko Arartekoaren eskumen esparrutik kanpo daude haien kontrolari dagokionez; izan ere, administrazio horien kontrola Espainiako Herri Defendatzailearen eskumena da. Zehatzago, erregistro zibilen funtzionamendu irregularra salatzen dute, batik bat ondorengo kasu hauetan:

- **Erregistro zibil askoko langileek ez ezagutzea zein den aplikatu beharreko legeria ezkondatako bi emakumezko lesbianen seme-alabatasuna inskribatu behar izanez gero.** Ezarpen hori pertsonen sexuari dagokion aipamenaren erregistro zuzenketa arautzen duen martxoaren 15eko 3/2007 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian azaltzen da eta horren bitartez 3. atal bat gehitzen zaio lagunduriko giza erreproduktzioaren teknikei buruzko maiatzaren 16ko 14/2006 Legearen 7. artikuluari²¹. Horrek berekin dakar emakumezko horiei ematen zaien zerbitzu eta informazioa okerra edo nahasia izatea, eta, ondorioz, aurrera eraman beharreko izapideak korapilatzen dira. Gauzak horrela, emakumezkoek osatutako bikote ezkondu batzuen kasua aipatzen dute; izan ere, inoiz adierazi diete ezin zutela inskripzioa

²¹ 14/2006 Legearen 7. artikularen 3. atal hori modu honetara geratu da idatzita: "Cuando una mujer estuviere casada, y no separada legalmente o de hecho, con otra mujer, esta última podrá manifestar ante el Encargado del Registro Civil del domicilio conyugal, que consiente en que, cuando nazca el hijo de su cónyuge, se determine a su favor la filiación respecto del nacido."

egin seme-alabatasuna haien alde zehaztuz, eta inoiz ere esan diete halakoetan adopzioarako prozesu judizialari ekin behar ziotela. Zenbait kasutan emakumezkoak eurak izan dira erregistro zibileko langileei jakinarazi behar izan dietenak zein den lagundutako giza erreprodukzioari buruzko 14/2006 Legearen 7. artikuluan jasotako ezarpena. Beste zenbaitetan izapideak nabarmen luzatu dira (batez ere udalerrri txiki edo ertainetako erregistro zibiletan); izan ere, langileen prestakuntza eta ezagutza falta dela eta, kontsultak egin behar izaten dituzte esperientzia handiagoko eta funtzionamendu jarraibide egokiagoko beste erregistro zibil batzuetan (esate baterako Bilbokoan) edo ama biei eskatzen diete erregistrora bertaratzeko –nahiz eta manuzkoa izan ez–; gauzak horrela, izapideak nabarmen luza daitezke harik eta seme-alabatasuna inskribatzea lortu arte.

- **Famili liburuak legeriaren aldaketa hauetara egokituta ez egotea.** Erregistro zibil batzuetan ezkontzari eta seme-alabatasunari buruzko legeria berrira egokitutako famili liburuak ari dira ematen; hala ere, beste erregistro batzuetan bikote heterosexualek prestatutako famili liburua erabiltzen jarraitzen dute eta horietan seme-alabatasuna aita eta ama terminoetan baino ez da azaltzen.
- **Estatistikako Nazio Institutuaren inkesta (INE),** erregistro zibilean bete beharrekoa, aita eta amak eraturako famili eredu baten arabera eginda dago.
- **Ezkondutako bikoteen seme-alabatasunaren erregimena** arautzen duten legezko arauak, **gaur egungo formulazioan, aitatasunaren presuntzioaren existentzia ezartzen dute (ezkontzako seme-alabatasuna) bikote heterosexualen kasuan, baina ez bi emakumezkoek osatutako ezkontzetan.** Gauzak horrela, emakumezko lesbiana ezkontuta egonagatik ere, lagunduriko erreprodukzioarako teknikak erabili ez badituzte edo, hori egin arren, prozesuaren hasieratik ezkontza bitartez lotuta egon ez badira, ezin dute bien aldeko seme-alabatasuna ezarri eta adopzioa jo behar dute ama biologikoa ez denaren filiazioa lortzeko. Azken arazo hau –erregulazio diskriminatzailea izan daitekeena– soil-soilik konpon daiteke lege mailako arau estatalak aldaraziz.

Aurreratu dugun bezala, eskumenak direla eta, gai hauek guztiak Espainiako Herri Defendatzaileak kontuan hartu eta ebaluatu behar ditu. Horrela bada, gure asmoa da gai horiek guztiak organo horretara bidaltzea, esku hartzeko aukera balora dezan, betiere azaldutako arazo guztiak konpontze aldera.

b. EAEko administrazioei eragiten dieten arazoak

“Aldarte” kolektiboak Arartekoari salatutako beste jardun batzuk ere dira; horiek erakunde honen esku-hartze esparruaren barrukoak dira eta, ondorioz, horien inguruan esku hartuko dugu 2010eko ekitaldian. Jarraian kolektibo honek salatu eta EAEko administrazioei eragiten dieten arazoak aipatzen ditugu:

- **Seme edo alaba bat jaiotzen denean, osasun sistemako ospitaleetan erregistro zibilean inskribatzeko ematen duten agiri eredua ama eta aita besterik ez ditu aipatzen**, eta ez dago bikote homosexualentzako bestelako eredu alternatiborik.
- **Hezkuntzan erabiltzen diren formularioek (bekak, laguntzak, inskripzioak, matrikulazioak...) familia heterosexualeen errealitatea besterik ez dute jasotzen** (aita eta ama eta semea eta alaba); horrek familia homosexualen normalizazio soziala zailtzen du eta prozeduretan egin behar dituzten izapide administratiboak korapilatzen ditu, prozedurok ohikoak eta arruntak izanagatik ere.
- **Eusko Jaurlaritzaren Justizia Sailaren web gunean**, "justizia.net" izenekoan, "Erregistro Zibila" atalaren barruko "Inskripzioak" deritzon arloan, gurasoen heterosexualitatea iradokitzen da, uneoro aita eta ama hitz egiten delako; gainera, ez da inskripzio baldintzarik ezartzen gurasoak bi emakumezko izanez gero, eta ez da zehazten kasu horretan inskripzioa egiteko eraman beharreko dokumentazioa ere.

Horrek guztiak berekin dakar gai honek EAEn ukitutako administrazioek euren dokumentazio eta informazioa birformatzea, eta euren langileen prestakuntza eta egokitzapena sustatzea, familia homosexualen errealitate juridiko berrira moldatzeko. Gorago aipatu dugun bezala, 2010eko hurrengo ekitaldian zehar beharrezko izapideei ekingo diegu, administrazioei arazo hauen berri emateko eta, horren bitartez, salatutako egoerak zuzentzeko.

4. Bestelako gaiak: homofobiagatiko kexa lanean

Azkenik, bestelako gaiak ditugu, arlo honen markoan planteatutakoak, baina sarri askotan gure eskumenetik kanpo geratzen direnak, bai partikularren arteko liskarrak direlako, bai gure esku-hartzea saihesten duen ekintza judizial bati ekin zaiolako, betiere Arartekoaren erakundea sortu eta eratzen duen 3/1985 Legearen 13. artikulua dela bide.

Azken kasu horien adibidea da gay gazte batek formulatutako kexa baten ondorioz sortu zena; kexa horretan homofobia kasu bat salatzen zuen. Gazteak Barakaldoko Udalari lotutako zerbitzu enpresa batean egiten zuen lan eta kaleratua izan zen, behin jendaurrean homosexualitatearekin zerikusia zuen kultur sustapeneko ekintza batean gay modura agertu eta gero. Gainera, seinale argiak zeuden bere homosexualitatearen adierazpen publikoaren eta kaleratzearen arteko kausaltasun erlazioan. Hala eta guztiz ere, kaleratua izan eta berehala, pertsona horrek enpresaren kontrako ekintza judizial bati ekin zion.

Bere kexa aztertuta, gure ustetan, sexu orientazioagatiko kaleratze diskriminatzailea zela pentsatzeko arrazoiak zeuden. Gaian esku hartzeko gure eskumena mugatzerakoan, pertsona horrek Barakaldoko Udalari lotutako enpresa batean lan egiten zuen eta horrek kontrola ahalbidetzen zuen gure erakundearen aldetik; hala eta guztiz ere, prozedura judiziala hasita zegoenez gero, gure esku-hartzea ezinezkoa zen, legeak beren beregi mugatzen duelako gure jarduketa gaitasuna, baldin eta gaia organo judizialen menpe jarri bada.


Nolanahi ere den, planteatzen zigun gaia larria zenez, erakunde honek jarraipena egitea merezi zuen. Hori dela eta, interesdunari eskatu genion, behin prozedura judiziala bideratu eta gaia erabakiko zuen epaia izan eta gero, epaiaren berri eman ziezagula, udal enpresara jo ahal izateko eta ildo honetako gertakizun gehiagorik ez errepikatzea eskatzeko. Une honetan informazio horren zain gaude.

Espero dugu, diskriminazioa dela eta, kaleratzea baliogabetzat jotzea, baina hala ez balitz, epaia ezagutzen dugun unean eta judizialki kaleratzea bidegabetzat besterik ez bada hartzen, enpresari langilearen berronarpenera eskatu ahal izango diogu, horixe baita Arartekoak EAEko administrazio publikoei exijitzen diena kaleratze bidegabeak izaten direnean (eta honako hau antzeko erakunde bat da), nahiz eta legeak kasu hauetan kalte-ordain bat besterik ezarri ez.



II.10

BERARIAZKO ARRETA ESPETXERATUEI



ararteko

10. BERARIAZKO ARRETA ESPETXERATUEI

Zigorrek betearazten dituzten administrazioen instantziak gure eskumenetik at dauden arren, espetxean dauden pertsonen egoerak beti arduratu du Arartekoa. Espetxeratuak zaurgarri izatea ez dator bakarrik askatasun ezaren ondorioz duten deslokalizaziotik, azken horrek osasuneko, hezkuntzako, gizarte ongizateko eta lan sustapeneko zerbitzu sare normalizatuetera sartzeko dakartzan arazoengatik ere bai. Eta zerbitzueterako sarbide ezak pertsona horiek delituak egitera eramaten zituzten arazoak larriagotzen ditu. Hori guztiagatik, espetxeratuak erakunde honen lehentasun dira.

Gobernuz kanpoko erakundeentzako laguntza

Erakunde honentzat funtsezkoa da espetxeratuak laguntzeko eta birgizarteratzeko gizarte ekimeneko erakundeekin elkarlanean aritzea. Urtero bezala, erakunde horien informazioa eta iritzia biltzeko bilerak izan ditugu EAEko hiru lurraldeetan. Beren adierazpenak funtsezko informazio dira gure espetxeen berri izateko. Jasotzen dugun informazioa jasotzen ditugun kexekin eta ebazpen bat emate aldera espetxe administrazioarekin dugun jardunetik ateratzen ditugun ondorioekin alderatzen dugu.

Aurtengo alderdi nabarmenen artean, honakoak aipatuko ditugu: pertsona batek askatasunean bizitza egiteko dituen aukerak zehazten dituzten faktoreak aztertzea oinarriko puntua da indibidualizazio zientifikoaren printzipioan. Izan ere, indibidualizazio horren inguruan moldatzen du espetxe legeriak birgizarteratze kontzeptua. Hala ere, erakunde sozialek halako erabakiak hartzea ezinezkoa den kasuen berri ematen jarraitzen dute, izan ere, azterketak sei hilabeteko kontatukoak baino direlako izan.

Hori azaltzerakoan, erakundeek adierazte digute tratamendu taldeek eta espetxeetako gizarte lan taldeek gehiegizko lana dutela. Beste alde batetik, gizarte zibiletik diharduten erakundeek behin eta berriz salatzen dute funtzionario askok betetzen dituzten lan txanda luzeak; izan ere, langileek berek aukeratzen dute txanda luzeak egitea, egun libreak pila tzeko. Jardun hori ez da indarrean dagoen araudiaren kontrakoa. Hala ere, espetxe giroan berezkoa da tentsioa egotea, eta bistakoa da langile batek ezin dituela 16 orduko lanaldiak egin haren interes eta ekimen mailak kaltetu gabe. Maila horiek kaltetzeak inhibizioa eta lana burokratikoki eta estereotipoei jarraiki betetzea dakar, eta horrek guztiak kartzelak bezere mugatuta duen birgizarteratze funtzioa betetzean eragin negatiboak dauzka.

Espetxeko Doako Laguntza Juridikoaren txandari dagokionez, kexak eragiten ditu zerbitzua antolatzeko moduak. Izan ere, batzuetan, gizonak hartzen dituzte lehenengo, eta, gizonek bukatzen dutenean bakarrik, emakumeak ondoren. Ondorioz, Langraizen emakumeek duten denbora murriztu da, eta ondorioz emakumeek zerbitzu hori gutxiago –askoz gutxiago– erabiltzen dute. Zerbitzuaren baldintzei dagokionez, bereziki onak dira Langraizen eta oso bestelakoak Basaurin. Bertako abokatuek asebetetasun gabezia azaldu dute, eta honela labur daiteke: alde batetik, baliabide materialen urritasuna dago. Ondorioz, oihuka hitz

egin behar den lokutorioetan jardun behar dira. Toki horietan ezinezkoa da ordenagailua erabiltzea, eta hain zuzen horrek arintzen die lana, datu baseetara sartzeko edo galdera sortak betetzeko. Areago, ezin da dietario bat utzi, desagertzen delako. Bestalde, arratsaldetan –zerbitzua ematen denean–, erregimen bulegotik aurkezten dizkieten kasuen informazioa biltzea ezinezkoa egiten zaie; izan ere, bulegoa goizean bakarrik dagoela martxan adierazten diete.

Espetxeetako gizarte zerbitzuen berrantolaketak ekarri du baldintzapeko askatasuna duten pertsonen zentroan bertan egin behar izatea aldiroko kontrolak. Lehen, aldiro, Gasteizen egiten zituzten. Langraizera joan behar horrek eragin negatiboa dauka baldintzapekoen prestakuntzan eta lan jardunean, garraio oso eskasa dagoelako. Garraio publikoa erabiliz gero lau eta bost ordu bitartean galdu behar dituzte tramite hori behar duten bakoitzean.

Gasteiz eta Langraizeko espetxearen arteko garraio publikoaren arazoak espediente bat eragin du honez gero Herriaren Defendatzailean, eta hainbat kudeaketa ere egin ditu erakunde honek Arabako Foru Aldundian. Oraindik ez dugu lortu autobusak espetxeko aparkalekuan gelditzea; uste baitugu hori dela guztiok nahi duguna. Autobusak kilometro bateko distantzian gelditzen dira, eta, batzuetan, eguraldi baldintza kaxkarretan egin behar dute bidea internoek zein horien senideek (adinekoak edo osasun egoera ahula dutenak).

Beste alde batetik, pertsonen espetxetik ateratzen dituzten arazoaren artean, bi aipatu nahi ditugu. batetik, birgizarteratzen laguntzeko laguntza txikia ematen diete, ziur gehienek izango duten baliabide gabeziak berdintzeko. Baina laguntza ez da eskura egoten libratzen dituzten egunean. Aitzitik EInera joan behar dira lehenengo, eta bi hilabete itxaron ondoren. Bi hilabete horietan, pertsonak bere kabuz egin behar dio aurre bizi duen egoera prekarioari. Disfuntzio horrek laguntzaren berezko izaera kinkan jarri ez dezan, gizarte ekintzako erakundeek dirua aurreratzeko eskatu diote erkidegoko administrazioari, espetxetik ateratzerako orduan prest egon dadin. Espetxetik ateratzeko unean behar baita laguntza hori. Bestalde, lekualdaketen politikaren ondorioz, baldintzapeko askatasuneko faserik gabe libratzen duten pertsona bat-batean bere bizitokitik urrun dagoen hirian suertatzen da, eta ez dauka bertan familia edo gizarte erreferentziarik, gobernuz kanpoko erakunderen bat ez bada. Horregatik, GKE horiek eskatzen dute pertsona baten espetxe ibilbideari eragiten dioten azken berrikuspenetan pertsonaren bizitokia den hirira lekualdatzea sartzeko, toki hartan badituelako familiako edo gizarteko erreferentziak.

Era berean, beharrezkoa da tratamendu taldeen eta presoen birgizarteratzeko ibilbideak lantzen dituzten erakundearen arteko komunikazioa egotea, aipatutako talde horiek zuzendaritza zentroari proposatzen dizkieten erregimen edo diziplina erabakien menda daudelako presoak. Oro har, kexak eragiten ditu atzerriko pertsona batek hirugarren sektoreko enprekin izan dezakeen lotura behar bezala aintzat ez hartzea, pertsona horrek hiri batean izan dezakeen sustraitzea baloratzeko edo beste espetxe batera eramatea edo ez erabakitzeak. Erakundeak kexu dira ere zentroen eta zaintzako epaitegiaren artean dagoen komunikazioa motelegia delako askotan prozesu burokratikoetan; eta, horrek, behar barik luzatzen ditu espedienteak. Espediente batzuetan ikusi ahal izan dugunez, kexa errekurso bat espetxetik

epaitegira heltzeko bi hilabete igaro ziren, eta, beste atzerapen batzuen artean, baldintzapeko askatasunak izapidetzean atzerapenak egon ziren, legezko oztoporik ez egon arren.

Krisialdi ekonomikoaren zailtasunen ondorioz, botere publikoek birgizarteratzeko bideratzen dituzten baliabide ekonomikoak dezente murriztu dira. Esparru honetan diharduten erakundeen aburuz, murrizketaren ondorioz gizarteak ezingo ditu neurri berean xurgatu helburu horietarako beharrezko diren lan ugariak; izan ere, boluntarioen programen eskutik egiten ziren askotan eta finantzazio publikoa jasotzen zuten. Mota guztietako proiektuez ari gara: gauza errazak, atzerrikoak diren eta kalean bizi diren pertsoneri telefono txartelak banatzea, beren familiekin harremana izan dezaten adibidez; edo gizarte sustrairik edo gaixotasun larriak dituzten pertsoneri laguntza pisuak ematea. Pisuak kudeatzen dituzten erakundeek adierazi digutenez, pisu horien kopurua erdiraino murriztuko da.

Basauriko espetxean arazoak daude hirugarren graduan dauden atzerriko pertsoneri pasaporte kentzen dietelako. Horrek eragin handia dauka, lana bilatzeko lanetan funtsezko dokumentua delako. Eskuan hartzeko aukera bakarra agiriaren fotokopia konpultsatua da, baina, ondore horietarako, kasu batzuetan baliagarritzat ez jotzea izan daiteke. Ondorioz, balizko enplegataileek etiketa okerrak jartzen dizkiete atzeritar horiei.

Basauriko espetxean bertan, badaezpadako espetxealdian dauden atzerriko pertsonekin arazo bat errepikatzen da: bizileku txartela berritzeko aukera ematen dien ebazpena eduki arren, ezin dute lortu; horretarako hatz markak hartzen dituen polizia ez delako zentroraino joaten. Era berean, polizia ez da zentrorra joaten NANak egitera.

Gestio zuzenak

Aipatu genituen eskumen mugen ondorioz, gai honetan jasotzen ditugun kexen gainean ditugun jardun aukerak Herriaren Defendatzaileari bidaltzea baino ez dira. Era berean, gestio zuzenak egiten ditugu espetxeetan, arrazoi humanitarioak direla eta, eta horiengatik eskerrak eman nahi ditugu. Era berean, espetxeetako zaintza epaitegiak eraman dizkiogun kasuak aztertzeko izan duen eskuragarritasuna eta interesa nabarmendu nahi ditugu.

Gestio horiek lekualdaketa eta zigorren gainekoak izan dira, baita birgizarteratzeko prozesuei edo familia eta presoaren arteko kontaktua mantentzeko buruzkoak ere. Familia eta preso harremanetan egoteko bisitaldiak, edo espetxe barruko zona komunetara sartzeko aukera egon dira. Zona komunen aukera bikote bereko bi kideak espetxean zeudenean aplikatu da. Hala gertatu zen, adibidez, beste preso batekin haur bat izango zuen emakume batekin. Haurtxoa eduki eta zaintzea bien erabakia zela egiaztatu ondoren, eta biek zuten harreman egonkorren baitan onartu ondoren, zentro berera eraman zituzten biak. Zentro hartan amentzako unitatea dago, eta amak haurrarekin egoteko aukera dauka, haurrak hiru urte bete arte.

Halaber, Langraizeko tratamendu batzordearen ustez zailtasunak sortzen ari zen hirugarren graduan sailkatuta dagoen preso baten berri izan genuen: erizain aritzen da espetxetik

kanpora eta espetxe barruko mantenu lanetan ez du parte hartu nahi. Lan horren eduki soziala dela eta, muga horiek pertsona zaurgarrien eskubideak kaltetzen ari ziren. Antza, egoera horren aurrean protesta egiteko moduak hainbat diziplina espediente eragin zituen, baita moduluz lekualdatzea ere. Era berean, espetxeetako zaintza epaitegiak emandako sei eguneko baimena ezeztatu zioten. Azkenean, epaitegiaren esku-hartzeak gatazka konpondu zuen.

Hainbat kexa jaso genituen familien komunikazioetara joaten diren pertsonen egiten zaizkien miaketa eta araketa irizpideak aldatu dituztelako. Adierazi zutenez, urrira arte, salbuespenak salbuespen, arku edo erraketa bidezko detekzio sistemak erabiltzen zituztela, eta halakoak erabiltzeari ez diotela inoiz uko egin. Egun hartatik aurrera, ordea, barruko agindu batek dio segurtasun arrazoiengatik, eta oro har, delitu jakin batzuen (terrorismoa tarteko) pena duten espetxeratuei bisita egitera joaten den edozein pertsonak "eskuz egindako araketa" izango duela. Erreklamazioegileen ustez hori beren duintasunaren aurkako eraso jasangaitza da. Araketarik gabe ez dago bisita egitera sartzerik. Bisitan doazen familien artean adingabeak egon direnean, adingabeok ez dute "araketarik" izan, helduek debekatu dutelako. Jokarrera horren ondorioak honelakoak izan dira: erreklamazioegileek diotenez, Topaseko espetxean adingabea neska bati aitarekin komunikatzen utzi zioten, baina bakarrik. Amak kanpoan itxaron behar izan zuen, araketari uko egin ziolako. Puerto de Santa Maria 3n, egoera bera suertatu zen; orduan, funtzionarioak esan zion adingabeari ez zuela aita ikusiko amak, ez zuelako araketarik izan nahi.

Bistakoa ematen du araketak pertsonen intimitatean gehiago eragiten duela detekzio mekanikokoek baino. Uste dugu araketa erabiltzen hastearen arrazoia bisitarien espetxeratuei debekatutako gauzak helarazi izanaren kasuak aurkitu izana dela; eta ulertzen dugu halakoetan neurriak hatu izana. Baina kezkatuta gaude. Izan ere, gure ustez bisitarien beren eskubide guztiak dituzte, intimitatea eta osotasun morala barne, eta ezi, dira eskubide horiek kaltetu espetxeen segurtasuna mantentzeko helburuz. Bestela jardun behar da, eta kasu bakoitzak dituen beharrak banaka bideratu behar dira. Gai horrek ebazpen judizial ugari eragin ditu. Herriaren Defendatzailearen gomendioak ere eragin ditu, 1998an gaiari buruz mintzatu baitzen. Ebazpenetatik ondorioztatzen da, orain arte sistema elektrikoek preso batek jasotzen dituen bisitarien lotutako eskakizun guztiak bateratzen zituztela. Hala ere, ebazpenen arabera, banakako arrazoi egiaztatuak egon behar dira kasu batean bisitariak segurtasuna aztoratuko duten objekturik ez daramala egiaztatzeko sistema horiek nahikoa ez direla ondorioztatzeko. Eta horregatik guztiagatik, aipatu ditugun eskubideetan gehiago eragiten duten metodoak erabiltzea ezinbesteko bihurtzen da, ebazpenen arabera. Bestela, eta gure aburuz, Espetxeetako Erregelamenduak ezarritako segurtasun arrazoi generikoak apelatzea gutxi litzateke, bisitaldia erreklamazioegileei eskatu zieten araketan baten berdina denaren mende jartzeko.

Adierazitako arrazoiengatik eta kasu ugari eragiten zion irizpidea zelako, kexa Herritarren Defendatzailearen bitartez bideratzeaz gain, espetxeetako administrazioaren aurrean gestio zuzena egitea egokia zela erabaki genuen, horrela ikuspegia helarazteko.

EAEko administrazioen jardunak

Espetxetako eskumenak Eusko Jaurlaritzari transferitu gabe jarraitzen dute, jada transferituta egotea nahiko genukeen arren. Hala ere, behi eta berriz eskatzen diegu EAEko administrazioei, legearen barruan ahal den guztia egin dezaten, kudeatzen dituzten zerbitzuen sare normalizatua espetxeetara helarazteko. Justizia eta Herri Administrazioaren Sailak interesa azaldu digu, eta horretarako bere eskumen diren zerbitzuak guztiz indartu ditu, hasteko. Abiapuntu Hezkuntza eta Osasuna hartu ditu. Ikuspegi hori oso positibotzat jotzen dugu, eta erakunde honetatik jarraipen integrala egingo diogu; Izan ere, EAEko administrazio guztiek espetxeetako errealitatean duten parte-hartzea sakontzeko aukera paregabea da. Bestalde, urtean zehar gai honen gainean burutu ditugun jardunei dagokionez, honakoak nabarmendu nahi ditugu:

Duela urtebete aurkeztu genuen errekurtsio bat: espetxean dauden eta gaixotasun larriak edo sendaezinak dituzten pertsonak kartzelatik atera ezin daude, kanpoan ez dutelako laguntzarik. Eusko Jaurlaritzara eta Arabako Foru Aldundira jo dugu, egoera horren aurrean jardun kontzentratua bultzatzen jarraitzeko asmoz. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak zein Herri Administrazioakoak joan den urtean egindako erakundeen arteko bultzadaz eta koordinazioaz mintzatu zitzaizkigun, eta lehengo errekurtsioaren analisisian eta diseinuan bere konpromisoa berretsi zuten. Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politika eta Gizarte Zerbitzuen Sailak, ordea, ez zion erantzun irailean bidali genion lankidetzara eskaerari. Horregatik, errekerimendu bat bidali genion gero, baina txosten hau ixteko unean erantzunik gabe jarraitzen dugu.

Bestalde, espetxe barruko terapia komunitateak gure aurreko txostenean aipamen berezia merezi zuela pentsatu nuen. Langraiz Okako espetxeko zuzendaritzak adierazi zigunez, aipatu sarea zentro horretan martxan jartzeko asmoa zegoen, bitartekoak instalatzeko kokapena gordeta baitzuten jada. Bertako zuzendaritzak adierazi zigunez, Eusko Jaurlaritzako Droga Gaietarako Zuzendaritzarekin bat egindako nahi handiko egitasmoa zen, eta espetxeetako agintarien oniritzia zeukan.

Joan den urteko hasieran, Droga Gaietarako aurreko zuzendariak baieztatu zigun hala zela: bere zuzendaritza Langraizeko Tratamendu Batzordearekin elkarlanean ari zela; eta proiektuak, administrazio zentralaren onarpena eta hark utzitako instalazioak izateaz gain, erkidegoko administrazioaren laguntza zuela proiektua abiatzeko. Hori autonomia erkidegoak 2009rako dituen aurrekontuetako zuzkidura batean ikusgai geratu zen. Era berean, adierazi zigun, hainbat alderdi definitzeko zeudela, aurrekontuaren jarraipenari zegokionez zein, komunitatearen kudeaketan, espetxeko tratamendu profesionalek eta presen terapia burutuko zuen elkartekoek izango zuten elkarlanari zegokionez. Egiaztatu genuenez, elkarre horrek gai guztien gainean zuen iritzia azaldu zuen, eta, gobernua aldatu zenean, haren erantzunaren zain zegoen. Une hartaz geroztik ez dute gaiari buruz ezer jaso.

Berririk ezean, erakunde honek proiektuaren egoerari buruz galdetu zuen joan den urteko bukaeran; eta, tamalez, proiektuak geldirik zirauen. EJKo Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak ez zuen inolako jardunik aurreikusit. Hura ikusita, sailera jo genuen. Han adierazi genien

oso larria iruditzen zitzaigula ekimen batek kale egitea erakundeen laguntzarik ez zuelako. Gainera, ekimenak birgizarteratzeko esparruan toki garrantzitsua zuen, erakundeen arteko eta gizarte zibilaren lankidetzaren bidean urrats asko emanda zituen eta, gainera, EAEko 2009ko Aurrekontu Orokorretan sartuta zegoen, 121.283 euroekin, zerbitzua martxan jartzeko. Ez dugu uste, beraz, desagertzea ulergarria denik; ez bada horretarako arrazoia justifikatzeko modukoa dela.

Komunitatearentzat egiten diren lanetan eragiteak lehentasuna dauka, halako lanak betetzea kolapsatuta dagoelako. Argi dago, espetxeetako gizarte zerbitzuak eskasak direla bertako jarduna kudeatzeko. Gainera, lanpostu jakin batzuen eskaera endemikoa gero eta handiagoa dago, politika kriminalean ez delako behar adina aurreikuspenik. Hiru urte joan dira jada erakunde honek arazo horiek salatu zituenetik. Horretarako ikerketa beka bat baliatu genuen. Igaro den denbora gauzek ez dute hobera egin, nahi zeta kexa gehiago jaso diren.

Gure jarduna honakoek osatu dute: zerbitzu horiek ematea erratzeko esku-hartze zehatzak eta behin eta berriz adieraztea gaiaren erantzukizuna EAEko administrazio guztiek dutela. Justiziako Sailburuordetzak adierazi digu gaiarekin sentsibilizatuta dagoela, eta horri heltzeko talka plan bat diseinatu duela. Sailburuordetzaren helburua erakundeen eta gizarte zibilaren inplikaziorik handiena lortzea da.

Azkenik, espetxeetako arreta psikiatrikoa aipatu nahi dugu. Urteak dira presoek eskubideen alde lan egiten duten taldeek ardura nagusitzat hartu zutela. Gai horrekin txosten berezi bat egingo dugu 2010ean.

Espetxeetako biztanleriari buruzko azterlan askok agerian utzi dute preso bizi diren pertsonen buruko osasuna nabarmenki narritatzen dela. Buruko gaitzak dituzten, droga mendetanarekin zailtasunak edota buruko ezintasunak dituzten pertsonak ugaritzen dira. Era berean, osasun arreta ematen dien sistemak gabeziak dituela hauteman da. Hala ere, eskura dauden bitartekoak oso eskasak dira. Egozgarritasun gradua dela eta, arreta berezia behar duten pertsonentzat bi espetxe berezi baino ez daude estatu osoan: Sevilla eta Alacant. Horri erantsi behar zaizkio, segurtasun neurriak betetzeko, osasun sareko ospitaleetan prest dauden plazak. Hala ere, beste beharrian asko asebate gabe daude, bereziki erdibideko baliabideak, horren larriak ez diren gaixotasunak dituzten pertsonak artatzeko. Horien artean honakoak daude: espetxe barruko arreta berezia, arreta sozio-sanitarioko kanpo zerbitzuak...

Egia esate aldera, gaiak ikerlan sakon bat eta tartean diren erakundeen konpromiso handiagoa behar du. Guri dagokionez, eta espetxeetako gaitan eskumenik ez dugun arren, bistakoa da osasun eta gizarte ongizateko EAEko administrazioak erantzukizuna duela, baita tokiko erakundeek ere.

Gure txostenak arazo honi irtenbidea emateko ekimen ofizialak bultzatzeari emango dio lehentasuna, eta horretarako datu zehatz batzuk ezagutzea izango da funtsezkoa:

1. Preso dauden pertsonen egoera ezagutu, beren buruko osasunari dagokionez: buruko gaitza diagnostikatuta duten espetxeratuak kopurua; droga mendetasun arazoak; ezintasunak dituzten pertsonak; gaixo dauden pertsonen diagnosia; pertsonak delitua egin zuenean, gaixotasunak izan zuen eragina, eta, zigorra edo segurtasun neurria ezartzerakoan, gaixotasuna aintzat hartu den.
2. Espetxe bakoitzaren barruan dauden arreta sozio-sanitarioko baliabideak, direla Osakidetzaren mende dauden psikiatria baliabideak, direla erakunde partikularren arreta baliabideak.
3. Espetxetik ateratzen direnean –baimenak, behin betiko lizentziak, Espetxeetako Erregelamenduko 104. art.– osasun arreta eta gizarte arreta emango dizkieten elkarlanerako hitzarmenak edo koordinazio mekanismoak.
4. Buruko osasunean eragiten dien zailtasunak dituzten pertsona espetxeratuak eskaerak eta beharriak.
5. Estatuan edo EBeko beste espetxe batzuetan martxan dauden arreta sozio-sanitarioko beste eredu batzuk.

Analisisa ikusita, tartean diren administrazioentzako gomendioak egin nahi dizkiegu; bereziki Osasuna, Justizia eta Gizarte Ongizate sailentzat. Sail horiei eskatu behar zaie beharrezko baliabideak sortzea, independenteak edo foru aldundiekin eta toki erakundeekin koordinatuta. Era berean, sare sozialaren parte-hartzea hartu behar da kontutan.



II.11

BERARIAZKO ARRETA GAIXO KRONIKOEI

11. BERARIAZKO ARRETA GAIXO KRONIKOEI

Gaixo kronikoek berariazko premiak izaten dituzte, eta horiek euskal herri-administrazioek artatu behar dituzte ezinbestean. Iraupen luzeko gaixotasunak direnez eta, oro har, motel egiten dutenez aurrera, sendagarriak direnak ez bezalako tratamendu edo zaintzetan oinarritutako arreta behar izaten dute batez ere, pertsona horien bizi kalitatea bermatzen duen arreta soziosanitarioan oinarritutakoak gehienbat, autonomia eta zaintza sustatuz, narriadura prebenituz eta tratuen eta aukeren berdintasuna eskainiz.

Osasunaren Mundu Erakundeak hainbat alditan azpimarratu du pertsona horiekin esku hartzeko eta prebentzio lana egiteko premiazko beharrezana.

2009an, Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo sailburuak Eusko Legebiltzarraren egoitzan adierazi du legegintzaldi berrian zehar Euskal Osasun Sistemaren eredu berri bat bultzatuko duela, gaixo kronikoen arreta osoan oinarrituta. Talde horri arreta hobea emanez gero ospitaleratzeak %75 arte saihestuko lituzkeela uste du eta, azken batean, %13 murriztuko luke laguntzen presioa. Bere iritziz, horrek gaixoen jarraipen hobea egitea eta bakoitzaren profileria egokitutako esku hartzea egitea bultzatzera behartuko du, gaixotasuna zaintzeko orduan pertsonari protagonismo handiagoa emanez eta profesionalak harekin duten lankidetzaren indartuz²².

Hala, gaur egun, sail horretara, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzura, Berrikuntza + Ikerketa + Osasuna / B+I+O eusko fundaziora, Donostia Ospitalera, Osatekera, Arabako Foru Aldundira eta Osasun eta Politika Sozialeko Ministeriora atxikita dauden hogeita hamazortzi pertsonako taldea gaixo kronikoen arretarako estrategia taldean ari da lanean²³.

Datorren urtean ekimen horien eraginaren jarraipena egin beharko da.

A) Gaixo kronikoen arreta soziosanitarioa

2008an argitaratu genuen *Arreta soziosanitarioa: esparru kontzeptuala eta nazioarteko eta autonomietako aurrerapausoak*. Hurbilketa izeneko txosten berezian adierazi genuen bezala, gaixo kronikoak edo buruko gaixotasun larria eta kronikoa duten pertsonak erantzun bateratua eta pertsonalizatua eskatzen duten premia konplexuak dituzte eta osasun eta gizarte arreta behar dituzte aldi berean, koordinatuak eta egonkorrak direnak.

Estatuko Osasun Sistemaren kohesioari eta kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legearen 14. artikulurekin bat etorriz, arreta soziosanitarioa *“comprende el conjunto de cuidados destinados a aquellos enfermos, generalmente crónicos, que por sus especiales*

²² Iturria: Eusko Legebiltzarra.

²³ Iturria: Eusko Legebiltzarra.

características pueden beneficiarse de las actuación simultánea y sinérgica de los servicios sanitarios y sociales para aumentar su autonomía, paliar sus limitaciones o sufrimientos y facilitar su inserción social". Autonomia Erkidego bakoitzak bere esparru geografikoan emango den arreta maila zehazten du.

EAEri dagokionez, 2003an Eusko Jaurlaritzaren, hiru foru aldundien eta EUDEL Euskadiko Udalen Elkartearen arteko lankidetzeta Hitzarmena izenpetu zen arreta soziosanitarioa garatzeko eta Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseilua eratu zen EAEko osasun eta gizarte sistemak koordinatzeko organo goren bezala.

Kontseilu horren lanaren emaitza 2005ean Euskal Autonomia Erkidegoko arreta soziosanitarioa garatzeko plan estrategikoa (2005-2008) onetsi izana izan zen.

Plan horretan, mota horretako arretarako, osasun eta gizarte sistema mantentzea –bestelako sare bat sortu gabe– eta sistemen artean koordinatzeko prozedurak antolatzea erabaki zen; helburu nagusia osasun arazo larriak, murrizketa funtzionalak eta gizarte bazterkeria egoera edo egoera horretan egoteko arriskua dela eta, aldi bereko osasun eta gizarte arreta koordinatua eta egonkorra behar duten pertsoneri arreta hori ematea da.

Plana eta honek izan duen eragina lehenago aipatutako txosten berezian aztertu ziren (III. kapitulua, 2. eta 3. atalak). Txosten horretan planak proposatzen zituen oinarritzko helburu instrumentalen betetze mailari buruzko balorazio txarrak jaso ziren jadanik.

2009ko uztailaren 24an **Eusko Legebiltzarrak eskatuta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egindako balorazio ekonomiko eta finantzarioaren txostena 2005-2008** behin betiko onetsi zen (2009ko azaroaren 20ko EHAA, 224. zenbakiko buletina). Txostenaren testu osoak esandakora jotzen dugu gure erkidegoko espazio soziosanitarioaren garapena aztertzeko intereseko bitartekoa delako.

Jarraian txosten horretan gehitutako eta gaixo kronikoen arretarekin estu lotuta dauden alderdi batzuk azpimarratu ditugu:

- Arreta Soziosanitarioarako Plan Estrategikoa nabarmen moteldu da plana onetsi zenetik gizarte esparruan beste arau batzuek azaldu direlako. Beraz, beste bultzada bat behar du, zerbitzu zorroa zehaztea, Eusko Jaurlaritzaren finantzaketa homologatzea eta onetsitako araudi berria onestea berekin dakartzana.
- Hiru lurralde historikoetan arreta soziosanitarioaren sistema ezberdin garatu da. Zerbitzu soziosanitarioen ematea eta finantzazioa arautzeko Eusko Jaurlaritzaren, Osakidetzaren eta Foru Aldundien arteko lankidetzeta hitzarmenetan alde oso esanguratsuak daude.
- **Burutik gaixo dauden pertsonen taldean** jarduteko modu ezberdinak antzeman dira. Lurralde historiko bakoitzera egokituta egon daitezkeen arren, ez die irizpide unitate bati erantzuten.
- Egoitza unitate soziosanitarioen jardueretan bakarrik antzeman daiteke homogeneotasuna.

- Buruko gaixotasun kronikoa eta larria duten eta batez ere arreta psikiatrikoa behar duten (tutoretzapeko apartamentuak eta eguneko zentroak) pertsonen arretarako unitate psikosozialei dagokienez:
 - a) Gipuzkoan oraindik indarrean da 2002ko Gipuzkoako Foru Aldundiaren (GFA), Eusko Jaurlaritzaren eta Osakidetzaren arteko hitzarmena "Gipuzkoako burutik gaixo daudenen pertsonentzako eguneko zentro psikosozialetan errehabilitazioko laguntza psikiatrikoko zerbitzuak ematea bermatzeko". Zerbitzu horiek Aldundiak kudeatu, babestu edo hitzartutakoak dira. Hitzarmen horren arabera, Eusko Jaurlaritzak Foru Aldundiari 8 eguneko zentzoren kostuen zati bat finantzatzen dio, baita arreta psikiatrikoa eta erizaintzako ere. Eguneko zentroetako bi zeharka kudeatzen dira eta beste seiak hitzartutakoak dira. Azken urteetan erabiltzaileen batez besteko kopurua egonkor mantendu da (2005-2007 artean 94 inguru). Zortzi zentroetatik zazpi burutik gaixo daudenei daude zuzenduta; zortzigarren zentroak errehabilitazio fasean dauden eta buruko gaitzen bat edo HIESA duten toxikomanoentzako arreta psikosoziala eskaintzen du.
 - b) Bizkaian ez dago Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko hitzarmenik eguneko zentroetan ematen den osasun arretaren gastua finantzatzeko. Hala ere, bi instituzioek laguntza hori ematen duten hiru erakunderekin hitzarmenak edo kontratuak izenpetu dituzte (Argia Fundazioa, Bizitegi elkarte eta AVIFES). Hitzarmen horietan Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak antzeko zenbatekoekin finantzatzen dituzte hitzartutako plazak. Unitate batzuek bi instituzioetako baten finantzazioa baino ez dute jasotzen. Hitzarmen horiek eguneko zentroetara zein tutoretzapeko apartamentuetara daude bideratuta. Zentro mota bakoitzeko dauden erabiltzaileen batez besteko kopurua honako hau da:

	Erabiltzaileak		
	Foru Aldundia		Eusko Jaurlaritzak
	Eguneko Zentroak	Etxebizitzak	
2005	196	65	317
2006	298	100	341
2007	343	114	387

- c) Arabako Foru Aldundiak (AFA) hiru erakunderekin ditu hitzarmenak (Bidegurutzea Elkarte, Hogar Alavés Elkarte eta Beti-gizartean Fundazioa). Hitzarmen horien bidez egoitza txiki bi, tutoretzapeko 5 apartamentu eta etxebizitza komunitario bat finantzatzen ditu, guztira 82 plaza dira, eta horrez gain, 7 plaza dituen egoitza txiki propio bat dauka. Egoitza txikietako batek bakarrik du erizaintza zerbitzua, batek ere ez du hartzen Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren finantziatorik eta Osakidetzako buruko osasunaren zentroetatik eskaintzen da arreta psikiatrikoa. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen bidez finantzatzen da.
- **GIBa duten pertsonen** arreta nagusiki hiru lurraldeetako hiesaren aurkako herri-tarren elkarten bidez ematen da, eta horretarako tutoretzapeko apartamentuak

dauzkate. Gainera, BFAk GUFek kudeatzen duen Bietxeak zentroa du eta Gipuzkoan Cáritasek egoitza bat du (Villa Betania). Foru Aldundiek apartamentu eta egoitza horiek finantzatzeko hitzarmenak dituzte; arreta medikoa, ordea, Osakidetzaren kargura da.

GIBa duten pertsonen taldeari dagokionez oso interesgarria iruditzen zaigu pasa den 2009ko abenduaren 16ko Arabako hiesaren aurkako batzordeak taldearen gaur egungo egoera zein den azaltzeko eta esku hartzeko orduan kontuan izan behar diren lehentasunak aipatzeko Eusko Legebiltzarraren Gizarte Politika, Lan eta Berdintasun Batzordearen aurrean egin zuen agerraldira azaltzea. Infekzioen kopurua gora egiten ari dela aipatu zuten, eta harreman heterosexualetan sexu bidez transmititzen dela gehienbat. GIBa prebenitzea eta goiz diagnostikatzea esku hartze nagusienak dira.

2009an Arreta Soziosanitarioaren Euskal Kontseiluak ez du bilerarik egin²⁴. Hurrengo lau urtekorako plana ere ez da onetsi.

Euskal epaitegiak egindako gogoetarekin bat gatoz, espazio soziosanitarioaren garapenari bultzada berria emateko beharrari buruz egindako gogoetarekin alegia. Bultzada hori lehenago aipatutako 2003ko Hitzarmena izenpetu zuten administrazio guztien laguntzaz eman beharko da.

Ditugun datuetatik ondoriozta daiteke Osasun eta Kontsumo Saila sektore bakoitzean beharrezkoak diren zerbitzuen tipologiari buruz gogoeta egin eta berriz pentsatzen ari dela arreta soziosanitarioaren arloan kasuan kasuko zerbitzu propioei edo partekatutakoei eusteko. Sailburuak berak Legebiltzarraren egoitzan honako hau adierazi du: "hausnarketa estrategikorako prozesu honek 2010ean indartu beharreko tokiko esperientzia soziosanitarioetan izango du oinarria²⁵.

Hortaz, komenigarria izango da aurreikuspen horien gauzatzearen jarraipena egitea, izan ere, oraindik ez dira behar bestekoak zerbitzu zorro bakarrean egindako aurrerapenak, plangintza bateratua, informazio sistema komuna edo sarbide bateraturako mekanismoak.

B) Burutik gaixo daudenak

Arartekoak talde honen arduraren berezia hartzen du, gaitzak ahultasun handiko egoera, gizarte estigma eta arretarik eza eragiten dituelako.

Osasun sailburuaren 2007ko urriaren 4ko Aginduak buruko osasunaren arloan aholkularitza teknikorako kontsulta organo bezala Osasun mentaleko Euskal Kontseilu aholkularia sortu

²⁴ Iturria: 2009ko azaroaren 13ko 35. zenbakiko Eusko Legebiltzarraren buletina, 6419 orrialdea.

²⁵ Iturria: Eusko Legebiltzarra.

zuen eta 2008ko martxoaren 4tik dabil lanean. 2009an **EAEko buruko osasunaren estrategiari buruzko proposamena (Buruko Osasunaren Estrategia 2009)** egin zuen, arlo honetan interes handikoa dena.

Agiria Estatuko Osasun Sistemaren Buruko Osasuneko Estrategiari buruzko agirian oinarritzen da (azken agiri honek, era berean, Buruko Osasunari buruzko Helsinkiko Adierazpe-nean-OME du oinarria) ekintzak eta helburuak gure erkidegoaren errealitatera egokituz.

Agiria antolaketarako eredu komunitario batean oinarritzen da eta estrategiak ondorengo printzipioak ditu oinarri:

- autonomia (zerbitzuak pertsonen independentzia eta laguntzarik behar ez izatea errespetatzeko eta sustatzeko duen gaitasuna);
- jarraipena (laguntza sareak tratamendua, errehabilitazioa, zaintza eta babesa bizitzan zehar etengabe eta sarea osatzen duten zerbitzu guztietan modu koherentean emateko duen gaitasuna);
- burutik gaixo daudenei eta beren familiakoei behar duten lekuan eta unean laguntza emateko erraztasuna;
- arreta osoa (buruko nahasteen prebentzioan, tratamenduan eta errehabilitazioan esku hartzen duten faktore guztiei erantzuna emanez);
- segurtasuna osasun eta gizarte balibideak banatzeko orduan;
- osasuna zentzu hertsian berreskuratzea (nahastearen alderdi klinikoak) eta baita hazkuntza pertsonala bermatzeko gaitasunak ere; osasun instituzioen erantzukizuna gaixoen, familien eta komunitatearen aurrean; kalitatea.

Buruko Osasunaren Estrategia-2009 agiriari zazpi ildo estrategiko proposatu ditu. Horietako bakoitzak berriazko helburuak ditu eta helburu horietara hainbat ekintza proposamen dau-de lotuta. Jarraian ildoak eta helburuak labur azaltzen dituen koadro bat aurkeztuko dugu:

1. Buruko osasunaren sustapena	Adin talde bakoitzean esku hartzeak azaltzea, burutzea eta ebaluatzea: haurrak, nerabeak, helduak eta adinekoak
	Euskal administrazioen instituzio erantzuleei instituzioen jardueren eta buruko osasunaren arteko loturaren inguruan informatzera eta aholkatzera bideraturiko esku hartzeak azaltzea, burutzea eta ebaluatzea
	Hedabideetan sustatzeko esku hartzeak
2. Buruko gaixotasuna prebenitzea	Gizartean baztertuta geratzeko arriskua duten guneeetan esku hartze komunitarioak burutzea eta ebaluatzea, buruko nahasteen eta mendetasunen erabakitzaileak direnetan jarduteko
	Droga-mendetasunetan esku hartzeko plana burutzea eta ebaluatzea mendetasuna sortze duten sustantzien erabilera eta neurrigabekeria murrizteko
	Arriskuan dauden taldeetan buru-hiltzeen eta depresioen kopuruak murrizteko berriazko ekintzak burutzea eta ebaluatzea
	Gaixo kroniko eta elbarrituak zaindu eta artatzen dituzten familiei babesa emateko lehen mailako arretan esku hartzek garatzea, haien eginkizuna burutzeak sor ditzakeen buruko osasun arazoak prebenitzeko

2. Buruko gaixotasuna prebenitzea	Laneko estresa eta lanari loturiko buruko nahasteak prebenitzera bideraturiko lan osasuneko batzordeei eta prebentzio zerbitzuei babesa emateko ekintzak burutzea eta ebaluatzea
3. Estigma ezabatzea	Neke profesionala prebenitzeko profesionali zuzenduriko esku hartzeak burutzea eta ebaluatzea
4. Buruko nahasteen arreta	<p>Euskal instituzioek bultzatutako plan eta programetan buruko nahastea (BN) dutenen gizarteratzearen sustapena eta estigmatizazioaren murrizketa barne hartzea</p> <p>Estatuko Osasun Sistemaren zerbitzu zorroan barne hartzen diren prestazioak eraginkortasunez garatzea eta ezartzea, bai lehen mailako arretaren eremuan zein arreta espezializatuarenean</p> <p>Lehen mailako arretan buruko osasunean espezializatutako arretari babesa ematea, buruko nahasteak goiz antzemateko eta tratatzeko</p> <p>Urgentzia psikiatrikoetan eta krisi egoeretan arreta emateko jarraibideak, tartean dauden sektoreen laguntzarekin</p> <p>Buruko nahasteak dituzten eta eskuragarri diren praktika onenekin bat etorritik psikoterapia tratamendua jasotzen duten gaixoen portzentajea handitzea</p> <p>Buruko nahaste larriak (BNL) dituzten eta errehabilitazio programa batean dauden gaixoen portzentajea handitzea</p> <p>Familian esku hartzeko berariazko programa jasotzen duten BN larridun gaixoen familien portzentajea handitzea, krisiari aurre egiteko eta larriagotzeak prebenitzeko gaitasuna hobetze aldera</p> <p>BNL duten gaixoei beren osasun orokorraren zaintza egokia ematea</p> <p>Adimen urritasuna eta BN duten pertsonen arreta espezializaturako ezaugarriak behatzea</p> <p>Buruko osasunaren arloan haurren eta nerabeen premiei erantzuteko berariazko programak egokitzea</p> <p>Lurralde bakoitzeko osasun egituraren tratamendu terapeutikorako edo errehabilitaziorako behar besteko gailu edo programa guztiak eskuratzeko aukera ezartzea, laguntzaren jarraitutasuna zerbitzuen sare bateratu baten bidez ziurtatuz. Sare horretan lehen mailako arretarekin koordinatutako ospitale nagusiak egongo dira</p> <p>Buruko nahasteak dituzten eta tratamenduan daudenentzako tratamenduaren banan-banakako plana ezartzea</p> <p>Uzteak saihesteko eta atxikidura errazteko antolaketa sistema bat jartzea erkidegoko esparruan eta buruko nahaste larri eta luzeekin loturiko buruko osasun taldeetan. Sistemak etxetik etxeko arreta, laguntza prozesuaren sektore anitzen koordinazioa eta kudeaketa hartu beharko ditu barne</p> <p>Tratamendu farmakologikoen kalitatea, eraginkortasuna eta segurtasuna handitzeko eta aldagarritasuna murrizteko estrategiak garatzea, medikamentuaren arrazoizko erabileraren irizpideak jarraituz</p> <p>Gaixoaren borondatearen kontrako edozein esku hartzeren alderdi etikoei eta legalei buruzko praktika onen gida orokor bat egitea</p>

4. Buruko nahasteen arreta	Borondatearen aurka lekuz aldatu eta ospitaleratzen denerako protokolo bat zehaztea
	Euste fisikorako prozedura, ospitalera eramandako gaixoen borondatearen aurkako tratamendua eta askatasuna murrizten duen edozein neurri protokoloen bidez arautzea
5. Instituzioen arteko eta instituzio barruko koordinazioa	Instituzioen arteko eta instituzio barneko lankidetzarako eta koordinaziorako pertsonen arreta osoa bermatzen duten mekanismo eraginkorrak garatzea eta ezartzea
	Mendetasun Egoeran dauden Pertsonen Autonomia Pertsonala eta Laguntza sustatzen duen Legearen eginkizuna eta inplikazioa mugatzea buruko gaixotasuna duten mendeko pertsonen kasuetan
	Lurralde bakoitzeko osasun egituraren laguntza koordinatzeko mekanismo eraginkorrak ezartzea BNL dituztenen arretan inplikaturako askotariko osasun eta gizarte gailuen artean
	BN duten pertsoneri eta beren familiei zuzenduriko informazio estrategia bat garatzea eskubideei eta betebeharreri eta erabil ditzaketen baliabideei eta zerbitzuei buruzkoa, baita iradokizunak eta erreklamazioak egiteko administrazio prozedurei buruzkoa ere
	BN duten pertsonen eta beren familiakoek buruko osasunaren esparru guztietan parte hartzeko bideak ezartzea, zerbitzuen plangintza eta ebaluazioa barne hartuz
	Buruko osasunarekin loturiko elkarte zientifikoek eta profesionalak zerbitzuen plangintzan eta ebaluazioan parte hartzeko bideak eta mekanismoak ezartzea
6. Profesionalen trebakuntza	Lehen mailako arretako eta buruko osasuneko profesional guztientzat eta arreta espezializatuan BN duten pertsonen arretarekin lotura duten profesionalentzat trebakuntza jarraiturako plan bat jartzea arreta biopsikosozialaren ereduaren alorrean
7. Buruko osasunaren inguruko ikerketa	Buruko osasunaren arloan lehentasuna duten diziplinen arteko ikerketa ildoak sustatuko dira ikerketa proiektuen deialdietan barne hartuz
	Buruko osasunaren arloan bikainak diren taldeen edo ikerketa zentron ziurtatutako sareak sortzea bultzatuko duten neurriak jarriko dira abian

Proposatutako ekintza guztiak helburuak lortzeko garrantzitsuak izan arren, bereziki interesgarriak iruditu zaizkigun batzuk nabarmenduko ditugu:

- Herritarren zahartze aktiboaren politikak babestea eta sustatzea.
- Praktika onen gida bat egitea bizitzako etapa bakoitzean buruko osasunerako erabakigarriak diren elementuetarako eta gizabiderako.
- Ebidentzian oinarrituriko programak garatzea, trebetasunak sustatu, informazioa eman eta adimen emozionalean eta haurren eta gazteen funtzionamendu psikosozialean arreta jartzen dutenak.
- Ingurune baztertuetan babesgabetasun egoeran dauden adingabeak babesteko esperimentuak orokortzea.

- Buruko osasunaren eta hezkuntzaren artean koordinatzeko ildoak ezartzea, sintoma depresiboak goiz antzematea eta ondoezetatik edo nerabegaroko bilakaeraren aldaketetatik bereiztea errazteko.
- Erresilientzia handitzen duten faktore babesleak ikertzea, horiek eta hedatzea eta lehen mailako ohiko praktika klinikoan barne hartzea.
- Orientazioan, sufrimendu psikologikoa murriztean eta zaintzaileen ongizatean (esate baterako, telefono zenbaki bat ematea berehalako kontsulta egiteko) arrakasta izan duten praktika onak antzematea eta dokumentatzea.
- Laneko arrisku psikosozialen ebaluazioa ezartzea sustatzea.
- Giza baliabideen politikan laneko jarduerari loturiko estresa murriztu dezaketen jarduerak barne hartzea (errotazioa erraztea, lanegun jarraitua, berariazko ordutegiak, lanbidea eta familiako bizitza bateratzeko neurriak, zama identifikatutako estres mailen arabera banatzea...).
- Errehabilitazio programak (diagnostikoa/tratamendua) iktus edo traumatismo kraneozentefalikoen ondorioz narriadura neuropsikologikoa duten pertsonentzat.
- Buruko osasunaren arlotik lehen mailako arretarako zaintzen jarraitutasuna bermatzea altaren txostena eginez.
- Lehen mailako pediatriaren eta haurren eta gazteen buruko osasunaren artean informazio garrantzitsua eskualdatzen dela ziurtatzea, diagnostikoa hobetzeko eta gehiegizko diagnostikoaren arriskua saihesteko.
- Tartean dauden eragile guztiak (osasun zerbitzuak, gizarte zerbitzuak, sistema judiciala, hezkuntza sistema, sistema poliziala eta abar) barne hartzen dituen koordinazio plan bat zehaztea eta hedatzea krisietan esku hartzeko.
- Buruko osasunaren zentroen egitura (geografikoa eta baliabideena) egokitzea krisietan esku hartzeko eredia esparru komunitarioan ezartzeko.
- Laguntzeko gailuen bidez familiei babes bezala balia dezaketen elkarte ehunari buruzko informazio sistematikoa ematea.
- Adimen urritasunari loturiko jokabide nahaste larria duten pertsonen tratamendurako premiak kontuan hartzeko egitura eta kanal egokienak zeintzuk diren argitzen duen lan taldea trebatzea, osasun zerbitzuaren eta baliabide soziosanitarioen arteko koordinazioa barne hartuz.
- Tratamendurako banan-banakako planaren erabilera larriak ez diren buruko nahasteen kasuetara zabaltzea.
- Borondatearen aurkako tratamendu ambulatorioaren gida bat garatzea.
- Gizarte arretaren banan-banakako planaren eta osasun tratamenduaren planaren artean gerta daitekeen talka gainditzeko neurriak ezartzea:
 - a) Buruko osasunaren arazoengatik inguruko egungo baremoaren berrikuspena proposatzea.
 - b) Izaera psikiatrikoa duten kasuen balorazioarako batzordeetan irizpide profesional espezializatua eman dezakeen buruko osasunaren erreferente bat barne hartzea.
 - c) Balorazio prozeduraren barruan informazioa biltzeko proposatzen den buruko osasunaren txostenaren formatua aldatzea (gaur egun oso mugatuta dago).
- Ospitaleetako eta ospitaleez kanpoko buruko osasunaren erakundearen plan estrategikoa egiteko orduan familiakoak eta elkarteak barne hartzea.

Jarraian, Buruko Osasunaren Estrategia-2009 agirian jasotako ondorio batzuk aipatuko ditugu:

- Ospitale nagusietako laguntza unitateen garapenak, buruko osasunaren zentroyen kokapen komunitarioak, bitarteko egiturek eta gaixo gehienentzako buruko osasunarekiko lotura puntu bezala lehen mailako arretarekiko loturak, buruko osasunari arreta emateko eredu komunitario bat finkatzen lagundu dute modu esanguratsuan. Eredu komunitario horrek, hala ere, ez ditu aldatu zerbitzuak emateko zenbait modu tradizional (egonaldi luzeak ospitale psikiatrikoetan).
- Buruko osasuna osasun sistema nagusian barne hartzea, zerbitzu guztiak bateratzea eta lurraldeko sektorizazioa funtzionamendu koordinatua ahalbidetzen duten oinarriko elementuak dira.
- Sarean funtzionatzeak, historia kliniko integratuak, diziplina anitzeko taldeak, antolatze berariazko hainbat eredu (laguntza prozesuen bidezko kudeaketa barne) eta laguntzeko eginkizunetan erabiltzaileen eta beren familiakoek duten inplikazioak koordinazioari mesede egiten diete.
- Ohiko tratamenduak jasaten dituzten buruko patologia larriek osasun publikoa bereziki larritu behar dute, bilakaera txarra, bizi kalitate txarra eta osasun eta gizarte baliabideen kontsumo altua duten gaixoen taldea barne hartzen dutelako.
- Diagnostikoetan, tratamenduan, errehabilitazioa eta zaintzetan asko aurreratu den arren, gaixoen eta beren familien eta baliabide eskuragarrien (batez ere gizarte babeserako, errehabilitaziorako eta gizarteratzeko eta laneratzeko baliabideak) artean oraindik ere tarte dago.
- Arretaren ezaugarri batzuek emaitza onuragarriak lortzen laguntzen dute:
 - a) Goiz antzematea eta esku hartzea.
 - b) Tratamendu farmakologiko eta/edo psikoterapeutiko egokiak ematea
 - c) Bilakaeran eragina duten alderdi psikologiko eta sozialetan jardutea.
 - d) Arretaren jarraipena mantentzea.
 - e) Funtzionamendu proaktiboa eta asertziozkoa ezartzea beharrezkoa bilatzeko, eskariari arreta ematea bakarrik ez baita nahikoa.
 - f) Arreta 24 orduz eskuratu ahal izatea (arreta komunitarioa barne).
 - g) Babeserako esku hartze psiko-hezitzailea eta, hala denean, familientzako esku hartze terapeutikoa.
 - h) Beharrezko oheak erabilgarri egotea.
 - i) Errehabilitaziorako prestazioak ematea.
 - j) Zaintza komunitarioak ematea.
 - k) Bizitza normalizaturako babesa ematea.
- Ikuspegi tradizionala, arreta buruko nahasteetan jarritz, pertsonaren (autoestimua eta estresari aurre egiteko trebezia indartzea) eta herritarren (kapital soziala handitzea, gizabideko jokabideak sustatzea, segurtasuna hobetzea eta ikastetxeetan eta lantokietan estresa murriztea) buruko osasuna sustatzeko ikuspegiaren bidez gainditu behar da.

Diseinaturiko estrategiak hurrengo lau-urtekorako EAEko Buruko Osasunerako eta Laguntza Psikiatrikorako hurrengo Plan Estrategikoa iradoki behar du.

Osasun Mentaleko Kontseilu Aholkulariko kide batek Euskadiko Eri Psikikoen Senide Elkar-teen Federazioa (**FEDEFES**) ordezkatzan du. Azken urteetan federazio horrekin harremana izan dugu.

Arartekoa Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonen Autonomia Pertsonala eta Laguntza Sustatzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legea aplikatzeari buruz egiten ari den azterketa monografikoa dela eta, **burutik gaixo daudenen artean lege berriak izan dituen eraginen eta ondorioei buruz duten iritzia** (baita federazioa osatzen duten elkarteena ere: AVIFES, ASAFES, AGIFES eta ASASAM) **bildu dugu. Gai horien edukia aipatutako azterlanean sakontasun handiagoz landuko den arren, interesgarria da alderdi garrantzitsuenak azpimarratzea:**

- Aipatutako federazioak eta elkarteek legea ontzat jotzen dute honako arrazoi hauek direla eta:
 - Mendetasun egoeran dauden pertsonen arreta eta autonomia pertsonala sustatzeko eskubidea herritarren eskubide subjektibo bezala aitortzen duelako lehen aldiz;
 - Buruko gaixotasuna mendetasunaren kontzeptuan barne hartzen duelako lehenengo aldiz (lege hori indarrean sartu baino lehen elbarritasuna arautzen duen elbarritasun maila onartzeko, aitortzeko eta kalifikatzeko prozedurari buruzko 1971/1999 Errege Dekretuan ezarritako baremoaren bidez hirugarren pertsona baten laguntza jasotzen premia baloratuko da; ia-ia burutik gaixo zeuden pertsona batek ere ez zituen 15 puntu lortu, hirugarren pertsona baten laguntzaren beharrezan duen pertsonatzat hartzeko puntuazioa alegia).
 - Burutik gaixo dauden pertsonen kasuetarako mendetasuna definitzeko orduan autonomia pertsonalerako babesaren beharrezan barne hartzen duelako.
- Zenbait gabezia eta zailtasun antzeman dituzte, eta horiek hobetzeko honako proposamen hauek egin dituzte:
 - Gaur egungo baremoa berrikustea, ez dituelako adierazten buruko gaixotasunaren zailtasunak;
 - Baremoa aplikatzean balorazio eskuliburuak (agiri horretan burutik gaixo dauden pertsonen kasuan jarduerak eta egitekoak nola baloratu behar diren interpretatzen da) ezarritako jarraibideak jarraitzea, zorrotzasunez ez direla jarraitzen ohar-tarazi baitute.
 - Prestazioen eta zerbitzuen arteko bateragarritasuna ezartzea (hala, adibidez, Bizkaian familia ingurunean zaintzeko prestazio ekonomikoa (FIZPE) eta eguneko zentroen laguntza bateragarri egitea beharrezkoa dela uste dute, pertsonarentzako eta bere zaintzaile nagusiarentzako zaintzak direlako);
 - Lege hori ezartzera bideraturiko baliabide ekonomikoa handitzea, eskasak direla uste dutelako (langileentzat eta zerbitzuetan); ostatu eta egoitza baliabideentzako, eguneko zentroentzako eta buruko osasunean espezializatutako eta heziketan eta gizarte trebetasunetan esku hartzeko helburua duen etxez etxeko arreta zerbitzuentzako baliabideak ia ez baitaude;

- Hasierako eskaeraren eta zerbitzua edo prestazioa eman artean dagoen denbora gutxitzea;
- Benetako eskaera adieraztea eskatutako baliabidea oraindik ez badago ere. Hainbat kasutan, burutik gaixo dauden pertsonentzako baliabiderik ez dagoenez (adibidez, aldi baterako egoitza baliabideak), profesionalak familiari baliabidea ez eskatzera bideratzen du, eta horrek benetan egindako eskaera jasota ez geratzea eragiten du;
- Prozedura sinplifikatzea, korapilatsua delako, burokrazia ugari egitea eskatzen duelako eta interesdunarentzat ulertzea zaila delako (hizkera ez da oso argia);
- Balorazioak egiten dituzten profesionalak buruko osasunean trebatzea;
- Balorazio fasean familiak kontuan izatea haiek direlako ohiko inguruneko zailtasunak ezagutzen dituztenak; komenigarria litzateke mekanismoak ezartzea burutik gaixo dagoen pertsonaren mugak, pertsona hori bertan dagoenean, adierazteko zailtasunak dituzten familiekin ere informazioa alderatzeko eta zehazteko;
- Mendetasun egoeran dagoen pertsonarekin elkarrizketa pertsonala izatea banakako arreta plana egotean (kasu batzuetan elkarrizketa familiarekin edo zain-tzaile nagusiarekin izaten da); elkarrizketan oso garrantzitsua da prestazioak eta zerbitzuak eskuratzeko duen eskubidearen berri ematea.
- Banakako Arreta Plana (BAP) egiteko beharizanaren inguruan argi jakinaraztea legeak jasotzen dituen eskubideak baliatzeko; kasu batzuetan, Gipuzkoan, elkar-teenk antzeman dute ebazpenaren entregarekin batera ez dutela BAP egiteko eskatzeko behar den informazioa ematen eta hori dela eta, ez dute mendetasun egoeran den pertsonari egoki dakizkion prestazioak edo baliabideak eskatzeko behar den informaziorik ematen;
- Mendetasun egoeraren aitorenaren ebazpenarekin batera atal bakoitzean jasotako puntuazioa agertzen duen balorazioaren txosten tekniko ematea (baliabide bat aurkez daitekeen edo ez ahalik azkarren zehazteko eta, hala denean, baliabide prestatzea errazteko, txostenaren eskari berri baten ondoriozko behar ez diren atzerapenak saihestuz);
- Gizarte eta osasun esparruko profesionalen arteko koordinazioa bultzatzea baliabideen egokitasunari buruz batzuetan izaten dituzten irizpide ezberdinak gainditzeko;
- Legeak xedatutako zerbitzuak sortzea, batez ere, egoitza zerbitzuak (iraunkorrak zein aldi baterakoak);
- Etxez etxeko Arreta Zerbitzua (EAZ) modu bateratuan arautzea –intentsitatea, kostua, bateragarritasuna, eta abar- gaixoa bizi den udallerriaren araberrako ezberdintasunik egon ez dadin;
- Mendetasun egoera baloratzeko prozeduraren fase ezberdinetan burutik gaixo dauden pertsona batzuek beren gaixotasunaz jabetzeko eta onartzeko zailtasunak dituztela kontuan hartzea, baita hori batzuetan haien eskubideak erabiltzeko eragozpena izaten dela;
- Familien babes indartzea -burutik gaixo daudenen sostengu nagusia dena- osasun esparruarekin koordinatutako gizarte baliabideen sare on bat sortuz.

FEDEAFES osatzen duten elkarteek eta federazioak berak lege berriari eta honek dituen ondorioei buruzko informazio kanpainak garatu dituzte, burutik gaixo daudenei, familiakoei eta profesionaleri zuzendutakoak. Horrek, autonomiaren eta mendetasunaren arloan behar duten arretari eta alderdi horiei buruzko lan taldea sortzeari lotuta, araudiaren, bere ondorioen eta hobekuntzaren ezagutza sakontzen lagundu du eta laguntzen du burutik gaixo daudenen taldeari dagokionez.

2009an **Arabako Buruko Osasuneko Sarearen Gizarte Laneko Bulegoko (Osakidetza)** arduradunekin elkartu ginen eta Arabako Buruko Osasuneko Sarean artatu diren burutik gaixo daudenetan **39/2006 Legeak izan duen aplikazioari buruzko** interes handiko informazioa eman zigun. Lehenago aipatutako azterketaren argitalpena dela eta informazio hori sakontasunez landuko da; hala ere, garrantzi berezia duten gai batzuk aurreratzea komeni da:

- Legea indarrean jartzeak burutik gaixo dauden pertsonen Arabako Gizarte Ongizateko Foru Erakundeak (GOFE) ematen dituen gizarte zerbitzuak eskuratzeko modua aldatu du.
- Legea aplikatzeak egiturak berrantolatzea dakar eta horrek iraupen luzeko geldialdia dakar berekin. Hori dela eta, GOFErekin hitzartuta dauden eta burutik gaixo dauden pertsonen ostatu askoren leku libreak ezin dira bete.
- Erabilitako baloratzeko tresnak ez ditu behar bezala biltzen burutik gaixo dauden pertsonen bizitza autonomoaren mugak eta zailtasunak. Erabilitako baremoak zailtasun funtzionalak hartzen ditu aintzat nagusiki. Pertsona horien mugak, ordea, aurrea hartzearekin eta motibazioarekin daude lotuta sarriagotan. Egitekoak burutzeari dagokionez adimen urritasunerako eta buruko gaixotasunerako baremoak jasotzen dituen egokitzapenak ez dira eraginkorrak kanpoko babesaren edo hirugarrenetikiko mendetasunaren beharra baloratzeko.
- Taldearen portzentaje handi bat I. mendetasun mailakoa dela baloratu da eta horrek 2011. urtera arte egoitza baliabide publikoak edo hitzartutakoak eskuratzeko eragozten die. Oso arazo larria da, talde horretako zati handi batek berehalako ostatu beharrezana duelako.
- Baliabideak eskuratzeko orduan mendetasun mailaren arabera lehentasunak eta zerbitzuen eskaintza mugatuak egoitzaz kanpoko baliabideak eskuratzeko zailagozten dute, esate baterako, okupazio tailerrak, eguneko arreta, eta abar.
- 60 urte baino gehiago izan eta burutik gaixo daudenen egoera kezagarria da. Adin horretara iritsita, buruko osasuneko berariazko baliabideek ez diete estaldura gehiagorik ematen, baina hirugarren adinekoek egoitza arreta publikorako dute irisgarritasuna ezinezko bihurtzen da honako arrazoi hauek direla eta:
 - a) Plazak mendetasun funtzional handia dutenek hartzen dituzte;
 - b) Gutxitan hartzen dira mendetasun handia duten pertsonatzat, izan ere, funtzionala baino narriadura kognitibo eta soziofamiliar handiagoa dute;
 - c) Ohiko ondasunen gabeziak, pentsio baxuek edo familiaren babes ekonomikorik ezak ez die egoitza baliabide pribatuak eskuratzeko uzten.
- Lege berriak zenbait baliabide eskuratzeko eskubidea aitortzen die baina buruko gaixotasuna dela eta mendetasuna dutenentzako ez dago baliabiderik. Horren ondorioz honako hauek sortzeko premia dago:

- a) Egoitza soziosanitarioak hirugarren adinekoentzat eta gaur egungo baliabideetan hartzen ez direnen adinentzat;
- b) Okupazio zentroak;
- c) Eguneko eta gaueko zentroak;
- d) Babes sozio-hezitzailea etxean;
- e) Babeserako laguntza, baita egoitzetan daudenentzat ere.
- Burutik gaixo daudenak zaintzen dituzten familiakoei bitarteko baliabideekin eta etxez etxeko laguntzarekin babesa eman behar zaie.
- Buruko osasunerako egoitzetako zerbitzuen eskaintza hirugarren adinekoentzako egoitzetan dagoen eskaintzarekin (okupazio jarduerak, errehabilitaziorako jarduerak, osasun zaintzak eta abar) alderatu behar da.
- Araban baliabide guztiek Gasteizen dute erdigunea. Horren ondorioz, erabiltzaileak beren landa inguruneetatik atera behar dira, Aiara haranean izan ezik, bertan ASASAMek kudeatutako baliabideak daudelako (Aiarako Eri Psikiko eta Senideen Elkarteak): Okupazio zentroa eta egoitza arreta. Arabako gainerako koadrilak ere burutik gaixo daudenentzako baliabideez hornitu behar dira.
- Zerbitzuari loturiko prestazio ekonomikoa ezin daiteke aplikatu orain arte buruko osasunean erabilitako ostatu pribatuak desagertuz doazelako eta geratzen diren bakanak behar den homologazioa ez dutelako.

Instituzioek pertsona horiek ostatu izateko dituzten premiazko beharriaz erantzunik ez ematea kezagarria da; horri lotuta, gizarte zerbitzuaren sistemak behar bezala artatu ez zuen beharrian bereziko kasu bat horren adibide da, eta Arartekoaren ebazpen bat egiteko arrazoia izan zen ([2009ko uztailaren 23ko Arartekoaren ebazpena](#))²⁶. Kasu hori etxebizitza alorrari loturiko atalean zehazten da (I. kapituluak). Zalantzarik gabe, bizikidetzarako baliabide komunitarioak egotea eta pertsona horien etxebizitza beharriaz betetzea oinarriko elementuak dira komunitatean errehabilitazio psikosozial integrala izan dezaten.

2010ean **espetxeetako arreta psikiatrikoari** buruzko txosten berezia egingo da; instituzio hau jadanik horretan ari da lanean. Txostenaren helburuak eta eduki nagusia kapitulu honetako espetxeratuen taldeari buruzko atalean jasotzen dira.

C) Buruko osasunari eta pertsonen eskubideei buruzko jardunaldiak

2009an Arartekoak Bilbon buruko gaixotasun larriari buruzko jardunaldi batzuetan hartu zuen parte. Zamudioko Ospitaleak antolatutakoak izan ziren eta **burutik gaixo dauden gizarteratzean gizarateak duen eginkizunari** buruzko txostena izan zuten hizpide.

²⁶ Arartekoaren ebazpena, 2009ko uztailaren 23koa. Horren bidez, erakundearen esku-hartzea amaitzen da premia bereziko egoeran etxebizitza eskaerari erantzunik ez ematearekin zerikusia duen kexa batean, Donostiako Udalak Arartekoaren erakundearekin elkarlanean aritzeko erabateko lankidetzarik eza adieraziz.

Jardunaldi horiek errehabilitazio psikosozialaren eta eskizofrenia bezalako buruko gaixotasun larriak eta kronikoak dituzten pertsonen laguntza arloan izan zuten oinarria eta haien helburua gaitz hori duten herritarren beharrezan laguntzan batzen diren eta osasun esparrutik zabaltzen diren laguntza esparruak eta profesionalak elkartzeko lekua izatea zen.

D) Osakidetzako Buruko Osasunerako Sarearen egoera

Aurreragoko txostenetan euskal herri administrazioek buruko gaixotasunaren ospitaleko eta ospitalez kanpoko arretaren arloan bultzatutako jardueren berri eman dugu, baita instituzio honek egindako gomendioen betetze-maila ere (1992ko eta 2000ko txosten bereziak).

2008ko txostenean buruko osasunaren sarea berrantolatzeari lotuta hartutako neurri batzuk aipatu genituen. Taldearen arretarako garrantzi handiko hainbat baliabideren egoera ere aztertu genuen. Jarraian Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak emandako informazioa azalduko dugu. Informazioa 2009an egindako jarduera nagusiei buruzkoa da, neurri eta baliabide horien bilakaerari buruzkoa:

1- 2009an burutik gaixo dauden pertsonen desinstituzionalizazioaren inguruan egindako jarduerak

2005ean Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluak onetsitako gaixo psikiatrikoak birkokatze planaren barruan, 2009an Bizkaiko Lurralde Historikoan gutxi gorabehera 30 gaixoren alta eman da (15 Zaldibarko Ospitalean eta 15 Bermeoko Ospitalean) eta hirugarren adinekoen egoitza esparruaren egitura normalizatuetara aldatu dira.

2010. urterako babestutako etxebizitzetan (edo antzeko egituretan) 20 plaza gehiago jartzea pentsatu da. Plaza horiek Osasun Sailaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko finantziazio erregimenaren arabera emango dira.

Arabian eta Gipuzkoan oraindik ez da hartu birkokatze planak gomendatzen duen kanpotatzeari buruzko erabakirik.

Adierazi beharra dago gaixo psikiatrikoen birkokapenari espazio soziosanitarioaren garapenean lehentasunez eta modu bateratuan heldu behar zaion oinarriko elementua dela. Arabian eta Gipuzkoan ez dago halako aukerarik (nahiz eta 2008ko txostenean Gipuzkoan pausu batzuk egin izana aipatu genuen), hortaz, egokia izango litzateke kasuak kasuko foru aldundiek eta Osasun Sailak erabaki egokiak lortzeko ahaleginak handitzea.

2- 2009an ezarri berri diren baliabideak Osakidetzaren Buruko Osasuneko Sarean

2009an Galdakaoko ospitaleko psikiatria zerbitzuaren barruan ZUBIA programa berrirako espazio bat gaitu dute. Programa horrek, zerbitzuaren eragimena handitzeari lotuta, eguneko

ospitaleko zerbitzu anbulatorio bezala funtzionatzen du (alta eman ondoren pertsonak kasuan kasuko tratamendua jarraitzen du).

Lehenagoko egiturak (Bermeoko buruko osasun zentroa, Zamudioko egonaldi ertaineko unitatea, Basurtuko Ospitaleko psikiatria zerbitzuko bigarren solairua eta abar) zaharbertzeari loturiko aldaketak egin direla ere jakinarazi digute, baita egoeraren araberako arrazoiak direla eta egin diren kokapen aldaketak ere (toxikomaniak tratatzeko Gasteizko zentroa). Gaur egun egiturak zaharbertzen ari diren hainbat gailu daude (Donostia Ospitaleko psikiatria zerbitzu guztiaren zaharbertzea, Gasteizko errehabilitazio zerbitzu komunitarioa, eta abar).

Horrez gain, adierazi digute, Osasun Mentaleko Sareak etengabe osatu eta hobetzen dituela bere baliabide eta prozedurak, laguntzan sortzen ari diren arloei aurre eginez (lehenengo gertaera psikotikoak, nortasun nahasteak, elikadura arazoak, psikoontologia eta abar). Horiek, Osakidetzaren iritziz, laguntzaren eremuan berrikuntzaren benetako ardatza dira.

3- Ospitaleaz kanpoko egoitza egiturak

Mota horretako egiturak espazio soziosanitarioaren parte dira, baina ez dira bereziki Osakidetzaren osasun mentaleko sarearena.

Gehienak, esan bezala, askotariko erregimenak dituzten zenbait elkartek kudeatzen dituzte eta zenbait instituziok finantzatzen dituzte (Foru Aldundia, Osasun Saila, Osakidetza eta abar) edo askotariko erregimenetan dauden hainbat elkartek kudeatzen dituzte.

EAE n 612 plaza daude ospitaleetako egoitza aukeretan. Horietatik 280 tutoretzapeko apartamentuetan daude, 37 ikuskatutako etxebizitzetan, 135 babestutako pentsio eta ostatuetan eta 160 egoitza txikietan eta etxeetan.

2009ko ekitaldian ez da egoitza txiki berririk zabaldu.

Egoitza txiki berriak sortzea ospitale psikiatrikoetako egonaldi luzeko gaixoen pixkanakako desinstituzionalizazioa gertatzeko baldintzetako bat dela jabetu da Osakidetza. Hala ere, ohartarazi du egitura horiek ez direla osasun laguntzaren araberakoak bakarrik, arreta soziosanitarioaren esparruan kokatzen direla; hortaz, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseilua-ren gai zerrendan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailarena bezalako plan estrategiko jakinetan daude.

Erantsi du 2010erako erabakiak, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Osasun Sailaren Bizkaiko Lurralde Zuzendaritzaren artekoa bezalako, ospitaleaz kanpoko egoitza egituren sarea zehazki garatzen dituztenak direla.

4- Krisietan esku hartzeko eta etxez etxeko arretarako larrialdietarako zerbitzu mugikorak eta arreta jarraitua

2008ko txostenean aurreratu genuen bezala, Arabako, Bermeoko, Zamudioko eta Zaldibarko ospitaleek beren programa-kontratuetan asertzioaren tratamendu komunitarioaren programak ezartzea izenpetu zuten.

Jakinarazi digute aipatutako erakundeez gain ez dagoela programa horiek ezartzeko kontraturik izenpetu duen beste erakunderik. Hala ere, Bizkaian eta Araban buruko nahaste larriaren arreta intentsiboari modu horretara erantzuten zaiola uste dute.

Gipuzkoan ospitale psikiatriko publikorik ez egoteak halako baliabide moten gabezia eragiten du.

5- Zaintzarako bitarteko formulak

Ekimen bezala eguneko ospitaleen egiturak sortzea nabarmentzen da. Esate baterako, bilakaera laburreko buruko nahaste larrien arloan jadanik aipatu dugun ZUBIA programa, baita Bilbon Bermeoko Ospitalearen eguneko zentroa irekitzeko aurreikuspena. 50 plaza izango ditu eta bilakaera luzeko buruko nahaste larrien arlokoa izango da.

6- Egoitza zerbitzuak, segurtasun neurriak betetzeko

2008ko txostenean Osakidetzako Zuzendaritza Nagusian aurkeztutako segurtasun neurriak betetzeko unitatea sortzeko proiektua aipatu genuen. 2009an baieztatu digute ez dela egon gailu horren kokapen fisikoaren aurrerapen garrantzitsurik, baina Justizia Sailaren Zigor Beteazpenaren Zuzendaritzaren eta Osakidetzako osasun mentaleko buruzagitzaren artean protokolo bat sinatu dute EAeko ospitaleetan segurtasun neurriak betetzeko baldintzak ziurtatzeko eta hobetzeko.

Osakidetzako arduradunek jakinarazi digute, berez, gure autonomia erkidegoan adostutako zentro psikiatrikoetan dauden segurtasun neurri guztiak betetzen direla euskal autonomia erkidegoko ospitaleetan.

7- Medikuen eta erizaintzako baliabideak

Jakinarazi digute gaur egun gutxi gorabehera 290 mediku psikiatra, 120 mediku psikologo kliniko eta erizaintzako 350 diplomatu daudela, azken lan eskaintza publikoa amaitzen denean egongo diren datu zehatzak kontuan hartu gabe.

8- Bizkaiko sektorizazio proiektuaren egoera

2009ko ekitaldian Bizkaiko hiru ospitale psikiatrikoak (Bermeoko, Zamudioko eta Zaldibarko ospitaleak) eta ospitaleaz kanpoko buruko osasunaren antolaketa barne hartuko dituen zerbitzuen erakunde berria sortzeko erabakia hartu zuten. Ekimen hori bultzatzen dutenen iritziz, erakunde berriak honako hauek bezalako abantailak izango ditu:

- Irizpide berean oinarria duten koordinatutako benetako fluxuak ezartzea;
- Sare koordinatu baten barruan laguntza hutsune guztiei erantzun ahal izatea;
- Laguntzeko ildo teoriko bakarra ezartzea;
- Prozesurako eta bezerorako orientazioa;
- Egungo sistemako egituren eraginkortasun eza murriztea;
- Zuzendaritza mailan elkarriketa bakarra.

Erakundea, esan digutenaren arabera, 2010eko lehenengo hiruhilekoan eratuko da eta ondoren garatzen jarraituko du.

Ekimen horrek izango duen eraginaren jarraipena egin beharko dela uste dugu.

Sektorizazio proiektua zaintzen jarraipena ziurtatzera bideraturiko zenbait berrikuntza abian jartzearen apustuarekin batu da. Hala, 2009an Eusko Legebiltzarrean Osasun eta Kontsumo Sailak honako hau esan zuen: Bizkaiak, duen biztanle kopuruagatik, sakabanatzeagatik, gailuen kopuruaren eta kokapenagatik, eta abar, beste bi lurraldeek baino konplexutasun handiagoa du arreta psikiatrikoa eta buruko osasuna antolatzeko orduan." Hala, "sarearen koordinazioa handitzera bideraturiko zenbait berrikuntza egiteko, bide terapeutikoak ordenatzeko eta prozesu kronikoei jarraipena emateko" helburua azaldu zuen. Galdakaoko Ospitaleko psikiatria zerbitzua eta eskualdeko buruko osasuneko zentroak barrualdeko eskualdean buruko osasunaren laguntza prozesu bakar batean koordinatzeko plan pilotuaren plangintza fasea amaitu zela eta garatuko den plana aurki hasiko dela erantsi zuen²⁷.

9- Estigma ezabatzeari lotuta 2009an garatutako edo abian jarritako esku hartzeak

Eremu honetako egitate esanguratsuenak eri psikiko eta senide elkarteek (FEDEAFES) sustatutako ekitaldi guztietan parte hartzetik ondorioztatutakoak izan dira: buruko osasunaren eguneko ekitaldietan azaltzea, Bizkaiko Foru Aldundiaren lankidetzaren estigmari buruzko topaketa batean edo FEDEAFESen (Espainiako Eri Psikiko eta Senide Elkarten Federazioa) Kongresuan izandako partaidetza.

Hala ere, horiek guztiak lankidetzako ekintzak direla onartu dute, ez dira izan Osakidetzak kudeaketan eta proposamenean izan duen gidaritza. Buruko osasunaren esparruan hobetzeko arlo garrantzitsua dela aitortu dute.

²⁷ Iturria: Eusko Legebiltzarra.

Buruko Osasuneko Euskal Kontseilu Aholkulariak burutik gaixo dauden pertsonen irudia hobetzeari lotuta ezarritako proposamenei dagokienez (estilo gidak hedatzea, horiek hedabideetan zabaltzeko ekintza jakinak, gaiaren tratamendu egokia sustatzea, eta abar.), proposamen horiek guztiak 2010eko ekitaldirako egin gabe geratu direla jakinarazi digute.

10- 2009an egindako esku hartzeko zenbait protokolo eta praktika onen gidak

Zerbitzuen artean eta zerbitzuetan garatzen diren jardueren barietate zabala koordinatzea eta antolatzea ahalbidetzen duten esku hartzeko protokoloen aukera anitzen artean, Osakidetza eskizofreniaren prozesu bereziaren barruko jarduerari buruz egiten hasi diren protokoloa nabarmendu du duen garrantzi handiagatik. Protokoloak programa-kontratuan prozesuan onartu behar diren kalitate ezaugarriak jasotzen ditu.

2009an egindako praktika onen gidak honako hauek izan dira:

- Lehen mailako arretan antsietate arazoak dituzten gaixoak tratatzeko praktika klinikoaren gida.
- Eskizofreniari eta nahaste psikotiko hasiberriari buruzko praktika klinikoaren gida.
- Elikadura arazoei buruzko praktika klinikoaren gida.
- Helduetan depresio larria tratatzeko praktika klinikoaren gida.

11- Nortasun nahasteen arloan jarduteko plana.

Plan hori berrikusteko azterketa amaitu da. "Nortasun nahasteen ikuspegia Euskal Autonomia Erkidegoko buruko osasunaren sarean" ebaluazio txostena OSTEBAk argitaratu du.

Txostenak aipatzen dituen jarduera ildoek dagokienez, esan digutenaren arabera, Basurtuko Ospitaleko psiquiatria zerbitzuak aurkeztutako proiektuaren arabera laguntzarako unitate pilotua (ospitaleaz kanpoko zentro komunitarioa) sortzeko ekimena etenda gelditu da. Jakinarazi digute etorkizunean berriz ere baloratuko dutela haren beharra.

Aurreragoko txostenetan behin eta berriz esan izan dugu mota horretako egiturak abian jartzearen egokia dela, beraz komenigarria litzateke proiektua berriz hartzea edo egokitzea, hala denean.

12- Teknika diagnostiko eta terapeutiko berriak

Bizkaiari trebakuntzari dagokionez, nortasun nahasteen arloan oinarritzen den psikoterapiako trebakuntza eta hau sarean ezartzea jarduerarik garrantzitsuenetakoa izan dela adierazi digute.

Osakidetza buruko nahaste larrien kasuen kudeaketari loturikoak bezalako gailuen garapena, ekipo eta mobilizazio berriak erantsiz (Zamudioko Ospitaleko asertzioaren

tratamendu komunitarioaren programa), ekarpen terapeutiko berritzat ere har daitekeela iradoki du, hori, dauden elementuen garapena izan arren.

Euskal Osasun Zerbitzuak onartu du esparru honetan ere ez dela aurrerapen esanguratsurik egin kalitateari dagokionez, baliabideekin gertatzen zen modu berean, baina izandako garapena eta erabilitako teknketan (farmakologikoak, diagnostikoak, psikoterapeutikoak eta errehabilitaziorako teknikak) egindako hobekuntzak sarean etengabe ematen den jarduerara da.

13- Batez besteko atzerapenak psikiatriako lehenengo kontsultetan

Gai honen inguruan helburu batzuk ezarri dira lehenengo kontsultan hilabete baino gutxiagoko atzerapena izan duten gaixoen portzentajea, helduak zein haurrak edo gazteak, %60 baino gehiago izateko.

Jakinarazi digutenez emaitzek helburu hori gainditu dute. Lehenengo kontsultan hilabete baino lehenago artaturikoak helduen %88,5 izan dira eta lehenengo kontsultan hilabete baino lehenago artaturiko haurren edo gazteen %78 izan dira. Eskizofrenia diagnostikoaren kasuan, %84k ospitalean alta jaso ondorengo zazpi egunen barruan jaso dute arreta.

14- Profesionalen trebakuntza

Osakidetzaren trebakuntza jarraiturako plana (trebakuntzarako elementurik interesgarrienak jasotzen ditu eta horietan lotura duten taldeetara zabaltzen du) eta zerbitzuen erakunde bakoitzak duen plana aipatu dute. Bigarren plana langileen trebakuntzarako elementurik egokienak garatzeaz arduratzen den irakaskuntzako batzordearen araberakoa da, erakundearen ezaugarriak eta beharrianak kontuan izanik.

15- Haurren edo gazteen buruko osasuna

Gai honen inguruan kapitulu honetako adingabeei buruzko atala mintzo da.

16- Errehabilitaziorako eta gizarteratzeko baliabideak eta jarduerak

Errehabilitazioa buruko nahaste larriaren eta kronikoaren kudeaketan dago batez ere barne hartuta. Osakidetzak esan digunez laguntza prozesuen kudeaketaren bidez jadanik abian jarritako neurriak nabarmen sakontzen eta garatzen ari dira. Horrek emaitzen adierazleak hobetzea dakar (alta kopurua, berriz ospitalean sartu behar izatea, komunitatean sartzea eta abar), baita errehabilitazio eredia buruko nahaste larriak dituzten pertsonen talde guztiari zabaltzea ere.

E) Hartutako kalte zerebrala duten pertsonak

2009ko urriaren 5ean Arartekoa Hartutako Kalte Zerebralen Euskadiko Federazioko (FEATECE) arduradunekin elkartu zen. Federazio horrek ATECE Araba, ATECE Bizkaia eta ATECE Gipuzkoa hartzen ditu barne. Hartutako kalte zerebrala duten pertsonen (HKZ) eta beren familien bizi kalitatea hobetzeko 15 urtez lanean ari diren erakundeak dira. Lan hori taldearen arretak dituen gabeziak arintzeko programen bidez egiten da. Aldarrikatzen eta prebenitzen ere jarduten dute.

Gaur egun honako hau da eskatzen dutena:

- Gaixoa ospitalean sartzen den unetik jarduteko protokoloak ematea berariazko profesionalen taldea koordinatzeko: ZIUn egiten den mobilizazio lanetik hasita familien arreta psikologikoraino (zirrara emozional handia eragiten duten egoerak direlako): trafiko istripuak, lan istripuak, eta abar).
- EAEn Kalte Zerebralen Unitate bat sortzea ospitaleko altaren ondorengo errehabilitaziorako. Gaur egun hainbat familiak ezin dituzte zerbitzu pribatuak baliatu gastu handia eragiten dietelako.
- Araban eguneko zentro bat sortzea hartutako kalte zerebrala duten pertsonentzat.

Hain zuzen ere, Bizkaiko Foru Aldundiak IFASek –Bekoetxe- kudeatutako eguneko zentro bat du 45 pertsonarentzako lekua duena. Gipuzkoako Foru Aldundiak ere Aita Menni Ospitaleak kudeatutako beste bat du, 25 plazarekin. Bi zentroek neuropsikologo baten zerbitzuak eskaintzen dituzte²⁸. Gizarte erakundeen plangintzekin bat etorritik, aipatutako ekimenak Arabara ere zabaltzea beharko liratekeela uste dugu.

- Logopedian eta Fisioterapian aldi akutuen ondorengo esku hartzeak handitzea gaur egun ematen diren saioak ez baitira nahikoak.

39/2006 Legea ezartzeari buruzko azterlan monografikoa dela eta, elkarre horiek araudiak taldean izan duen eraginari buruz egindako balorazioak zeintzuk diren jakin ahal izan dugu. Alderdi batzuk nabarmenduko ditugu jarraian. Horren azterketa zehatzagoa azterlanaren hurrengo argitalpenerako utziko dugu:

- Kalte zerebrala duten pertsonaren balorazioa inguruan egitea egokitzat jo da.
- Hartutako kalte zerebrala duena haurra izanez gero, eskolatze eta trebakuntza prozesuan ez dago behar besteko baliabiderik.
- Balorazio egiten duten profesionalak HKZn trebakuntza urria dutela antzeman da, eta talde horietan gaian trebakuntza duten neuropsikologoek eta gizarte langileek hartu beharko luketela parte uste dute.
- Prestazio ekonomikoek atzera ezin daitezkeen sortzeko baliabiderik eza, kasu askotan, osatzeko arriskua antzeman dute.
- Araudia indarrean sartzeak taldean sortu zuen itxaropena ez da bete zerbitzuak falta direlako, prestazio ekonomikoak ez datozelako bat balioezintasun handiko gainerako

²⁸ Eusko Legebiltzarrak eskatuta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egindako balorazio ekonomiko eta finantzarioraren balorazio txostena, 2005-2008 (2009ko azaroaren 20ko EHAA, 224. zenbakiko buletina).

pentsioekin, edo balorazioan ez direlako aintzat hartu jokabidezko ondorioak edo ondorio kognitiboak.

- Beren ustez, erabilitako bitartekoa ez da narriadura kognitiboa baloratzeko nahikoa (HKZren ondorio nagusia) eta honako hauek bezalakoak diren eta elbarritasun handia eragiten duten disfuntzioak ez dira baloratzen edo ez dira zehazki baloratzen:
 - a) Komunikazioa (ahozkoa eta idatzizkoa);
 - b) Betearazteko funtzioa (kontrola, plangintza, antolaketa);
 - c) Memoria;
 - d) Espazioaren eta denboraren orientazioa;
 - e) Nahaste obsesiboak;
 - f) Urritasunaren kontzientzia asaldura;
 - g) Asaldura emozionalak.
- Bitartekoak eguneroko bizitzako oinarrizko jardueren ikuskapena ez du behar beste baloratzen.
- Jokabideen asalduren tipologiari ez zaio begiratzen (pasibotasuna, suminkortasuna, agresibitatea, desinhibitzea, oldarkortasuna, obsesioa) eta ondorioz, ez da kontuan hartzen zein mailatako asaldurak diren.
- Talde honetan gaixotasunaz jabetzen ez diren pertsonak daude, hortaz, komenigarria litzateke ohiko laguntzaileak ematen dion informazioa kontuan izateko bideak ematea.
- Azkenik, administrazioaren eta arlo horretan lan egiten duten elkarteen arteko koordinazio zuzena eskatzen dute, baita elkarreek prozesu osoan parte hartze handiagoa izatea ere.

Osasun arloari eskainitako atalean (I. kapitulua) Arartekoak gaixotasun neurologikoen errehabilitazioaren arloan dauden arazoetan duen esku hartzea zehaztasun handiagoz aipatzen da.

Gure jarduera, nagusiki, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak ezarritako doktrina kontuan izateko beharraren ingurukoa da. Doktrina horren helburua beren susperze neuropsikikora bideraturiko errehabilitazio tratamendua behar duten gaixoei tratamendu hori eskuratu ahal izatea da edo, hala izan ezean, arreta pribatu batean sortutako gastuak itzultzea.

F) Alzheimerra duten gaixoak

2009an Euskal Autonomia Erkidegoko Alzheimerra duten gaixoen senideen elkarteen federazioaren, AEF-FAEren eta probintzietako hiru elkarteen lankidetzak izan dugu: AFAGI, AFA Bizkaia eta AFADe. Lankidetzak hori 39/2006 Legea aplikatzeak talde honetan izaten ari den eraginari buruzko gogoetak ezagutzeko izan da. Interes handieneko ekarpenak eta balorazioak izan dira eta adinekoen arretari buruzko atalean (II. kapitulua) azaltzen dira, izan ere, taldeari bereziki kalte egiten dion eta oraindik kronikotzat hartzen den arazoa da.



III. ATALA

GOMENDIO OROKORRAK



1. ETORKINEI BEREN ESKUBIDEEZ BALIATZEAN LAGUNTZEKO, ADMINISTRAZIOAREN ARDURA ZERBITZU PUBLIKOEN HIZKUNTZA ERABILGARRITASUNAREN BERMEARI DAGOKIONEZ

1. Zerbitzu publikoetan kalitatezko interpretazioaren garrantzia

Zerbitzu publikoak erabiltzerakoan berdintasuna posible egiteko beharrak kultura anitzeko testuinguruan erronka bat adierazten du eta horrek, arin eta eraginkortasunez, administrazioarekin etorkinen elkarrekintzarako bidea ematen duen hizkuntza aniztasuneko interpretazioa antolatzea dakar. Esan daiteke hizkuntzen hizkuntza erabilgarritasun egokiak, integratzen saiatu nahi duen gizarte batean, hizkuntza ofizialak ez dakizkien etorkinei beren eskubideez behar bezala baliatzea baldintzatzen diela.

Hala ere, gure botere publikoek zerbitzuetako erabiltzaileek aurkezten dituzten itzulpen eta interpretazio beharrak aztertzen dituzten ekimenei oraindik nolabaiteko boluntarismoa eta inprobisazioa falta zaie, jasotzen ditugun kexekin eta hedabideetan aldian-aldian ematen diren albisteekin bat etorritik. Gure erreklamaziogileen arabera, horrek arriskuan jarriko litzuke inpartzialtasuna, konfidentzialtasuna, hizkuntzekiko fideltasuna eta kulturarekiko sentsibilitatea, etorkinek autonomia erkidegoan beren eskubideen guztizko baliatzea bermatua izan dezaten, gure erkidegoko hizkuntza ofizialei buruzko ezagutza alde batera utzita.

Ildo horretan gabezia batzuk ezagutarazi dira -gabezia horiek administrazioaren esku-hartze irmoaren beharra jarriko lukete agerian-, honako hauek, adibidez:

- *zerbitzu publikoetako hornitzaile askok ez dakite zein garrantzitsua den interpretazio sistema egokia izatea.*
- *administrazioak ez daki eta ez du kontuan hartzen zer nolako garrantzia duen kultura anitzeko ikuspuntuak. Administrazioak ematen dituen zerbitzuak ikuspuntu horrekin hornitu beharko lirateke.*
- *hizkuntza-kultura kontuari arreta eman behar zaionean, administrazioaren utzikeriak honakoa sustatu du: atzerritar batzuek ez dutela ez eskubiderik ez autonomiarik erabat aske komunikatzeko. Beraz, komunikatu beharreko mezuaren edukia eta beren adierazpen askatasuna urrituko duten pertsonen mende egon behar dute.*

- *hizkuntza-kultura kontuetan, zerbitzu publikoetako langileen prestakuntzari dago-kionez, zerrendan herrialde garatu askoren atzean gaude.*

2. Nazioarteko esperientziak eta gomendioak

Gure inguruan dauden beste herrialde batzuk, besteak beste, Australiak, Kanadak, Suediak eta Erresuma Batuak, erronka berari guk baino lehenago egin diote aurre. Dena den, erronka hori Europar Batasunean egun hizpide den gaia da. Europako Batzordeak *“Eleaniztasunarentzat estrategia esparru berria”* Komunikazioko III.6. puntuan (COM (2005) 596 final), zerbitzu publikoen hizkuntza erabilgarritasuna zuzen-zuzenean etorkinek giza eskubideez baliatzeko dituzten benetako aukerekin lotzen du:

“Interpreteak, gizarte eleaniztetzan, erakundeen funtzionamenduarekin elkarlanean aritzen dira. Etorkinen elkarteetara joaten dira epaitegietan, ospitaleetan, polizia eta immigrazio zerbitzuetan. Interpreteak behar bezala prestatuta daudenean, giza eskubideak eta demokratikoak babesten laguntzen dute.”

Filosofia hori abiapuntu hartuta, eleaniztasunaren arloan Europar Batasuneko (EB) komisario den Leonard Orbanek *“Eleaniztasunari eta interpreteen prestakuntzari buruzko gogoe-taren Froa”* sustatu du. Foro horrek Europar Batasuneko esparruan, arlo horretan ospe eta esperientzia gehien duten adituak biltzen ditu. Bertako ondorioak eta gomendioak guztiz eguneratuak daude. Izan ere, 2009ko martxoan argitaratu dira eta, bertan, interpreteen egiaztapenaren kontrol publikoaren beharra, prestakuntza, jarduna, kode etiko eta profesionalari eta sistemaren kalitatezko ebaluazioari jarraiki, azpimarratzeaz gain, EBko adituek nabarmendu dute zerbitzu publikoetako interpretazio sistemaren diseinua egun dagoen demanda eta aurreikus daitekeen demanda kontuan hartuta kalkulatu behar dela. Kalkulua zehatza izan behar da (2009/03/05- *Reflection Forum on Multilingualism and Interpreter Training: Final Report*).

Hori guztia gure testuinguru espezifikora egokitzeke, Euskal Herriko Unibertsitatea aspalditik lanean ari da esperientzia eta gogoeta horiek hurbiltze aldera. Horietatik irakaspenak ateratzen dira eta, gure ustez, euskal botere publikoek ezin dituzte alde batera utzi. Izan ere, aipatutako ikerketen kalitatea eta gizarte erabilera sailaren jardunak bermatzen du eta horren Immigrazio Zuzendaritzaren bidez egungo arazoak hizpide dituzten eta irtenbideak ematen dituzten ikasketak eta ikastaroak sustatu zituen eta diruz lagundu. Horien artean 2007ko irailean EHUren XXVI. udako ikastaroan egindakoa nabarmentzen da, *“Zerbitzu publikoetan itzulpengintza eta interpretazioaren garrantzia eta garapenari”* buruzkoa, baita 2008ko irailean, EHUren XXVII. udako ikastaroetan *“Esparru juridikoan eta osasun esparruan itzulpengintza eta interpretazioari”* buruz egindakoa ere.

Gure ustez, inkoherentea izango litzateke ikerkuntza ahalegin hori guztia sustatu duten botere publikoek, praktikan, alegia, beren egitekoetan, aipatutakoaren emaitzak diseinu eta garapen zerbitzuan ez jartzea.

3. Prestakuntza, kode etikoa eta zerbitzuaren kalitatearen ebaluazioa

Hartu-eman eta gogoeta zeregin horretan gehien aipatzen den ideietako bat honako da: zerbitzu publikoen esparruan itzulpen eta interpretazio eginkizunean dimentsio soziala sarzeko beharra eskatzen duena.

Gorago esan dugunaren arabera, aipatutako Europar Batasuneko Foroak ildo horretan gomendatzen dituen ideia nagusiak oinarri hartuta, uste dugu beharrezkoa dela, lehenik eta behin, administrazioak interpretazio zerbitzuaren kalitatea bermatzea eta horrek zerbitzua osatzen duten pertsonen prestakuntza egiaztatzeko sistema dakarrela. Ez da ahaztu behar, aditu horien ustez, interprete bat herritarrei administrazioarekin dituzten harremanetan zerbitzua eskaintzeko gai izango dela, hizkuntza gaitasuna izatearekin batera, kultura artekotasunean behar bezalako prestakuntza duenean.

Bestalde, interpretazioaren ikuspegi sozialak dakarren prestakuntza beharrak ez ditu bakarrik hizpide interprete gisa lan egiten duten pertsonak. Ezinbestekoa da horiekin batera lan egingo duten zerbitzu publikoetako langileek kultura anitzeko ikuspuntua barneratzea beren zeregina egiterakoan. Beraz, administrazioaren egitekoa horretarako bitarteko egokiak erraztea da. Aipatutako Eleaniztasunari eta Interpreteen Prestakuntzari buruzko Foroaren gomendioetan jasotzen direnen artean batzuk aipatzearren, kultura jatorri eta inguru desberdineko erabiltzaileekin tratuan ibilitako kide atzerritarrekin lantokietan, lantegietan eta mahai-inguruetan egindako kultura aniztasunari buruzko ikastaroak aipatuko ditugu, baita interpreteekin lan egiten ikasteko ikastaroek ere, hizkuntza laguntza zerbitzuaren erabilera zuzena eta egokia egite aldera. Herri-administrazioaren Euskal Institutuak immigrazioaren eta kultura artekotasunaren arloan prestakuntza ikastaroak eskaintzen ditu; ikastarook oso zeregin garrantzitsua jokatu dezakete.

Zeregin horrek goi mailako hezkuntzaren esparruan izan behar du bere korrelatua, administrazio jardunaren sektoreekin zerikusia duten diplomatura eta lizentziaturetan kultura aniztasuna irakasgaiak sartuz. Beste herrialde batzuetan ohiko praktika da eta, horietan, bere garrantzia ikasketa planean islatzen da.

Aipatutako ikerkuntzetatik eta esperientzietatik ondorioztatzen den jarduteko bigarren oinarri gisa honako beharra aipatu dugu: hori burutzeaz arduratuko diren profesionalak kode etikoa barneratzekoa. Bertan, itzulpengintza-interpretazioaren profesionalak kontuan hartu behar dituen parametro etiko eta profesionalak ezartzen dira. Mota horretako tresnak, besteak beste, Kanadan eta Australian garatu dira eta burutzen duten sare lanarentzat oinarritzko erreferentziaren adierazle dira. Helburua horiek Espainiako Estatuko unibertsitate batzuetan egokitzea da (Salamanca, Alacant, Granada, Alcalá de Henares, Vigo, Madrilgo Unibertsitate Autonomoa, etab.). Euskal Herriko Unibertsitatea unibertsitate horiekin elkarlanean ari da hizkuntzen eta kulturen arteko komunikazioaren etengabeko behatoki baten bidez. Horien arabera, itzultzaile-interpreteen lanak honako alderdiak hartu beharko lituzke aintzat:

- 1.- **Konfideltzialtasuna:** Interpretreak ez du zabalduko entzundako edota helarazitako informazioa, tartean dauden alderdi guztiek berariazko baimena azaltzen ez badute edo legeak hala eskatzen ez badu.
- 2.- **Pertsonetikiko errespetua:** Interpretreak pertsona guztiei errespetuz tratatuko die eta ez du alderdirik bereziko sexu, arraza, adin, kolore, genero, orientazio sexual, erlijio, nazionalitate, ideologia politiko, egoera sozio-ekonomikoa edo kultura sinismenengatik.
- 3.- **Inpartzialtasuna:** Interpretreak ez du ezein alderdiren aldeko zaletasunik edo joerarik azalduko. Horrez gain, ez du iritzirik emango komunikazioan esku hartzen dutenen inguruan eta bere adierazpenetan ez ditu zalantzarako bidea emango duten keinuak egingo.
- 4.- **Fideltasuna:** Interpretreak mezua zehatz-mehatz itzuliko du, bai hizkuntza eta kultura edukia, baita hizlariaren jarrera ere. Erregistroa, hizkuntza maila, etab. ahalik eta modu leialenean islatzen saiatuko da.
- 5.- **Interesen gatazka:** Interpretreak gertatzen den edo gerta daitekeen interes gatazka ororen berri emango die alderdiei. Kasua objektibotasun osoz tratatuko du. Inoiz ezingo du aurretiazko joera, aurreiritzi edo partzialtasun irudirik eman.
- 6.- **Eskumena:** Interpretreak bere burua horretarako prestatuta dituen lanak bakarrik onartuko ditu (zehazki, lana burutzeko aukeratua, ebaluatua eta prestatua izan den hizkuntzetan). Behar bezala prestatuta ez dagoela edo gai ez dela uste badu, egitekoa ukatu egingo du.
- 7.- **Kulturarekiko sentsibilitatea:** Interpretreak kultura desberdintasunak antzeman behar dituzte eta horiek komunikazioan duten eragina aditzera eman behar dute. Kulturari buruzko ikastaroak egin ditzatela gomendatzen da.
- 8.- **Profesionaltasuna:** Interpretreak beren eskumen profesionala mantentzen saiatu beharko dira, gaitasunak hobetzeko programetan, prestakuntza programetan, ikerkuntzan eta birziklapen ikastaroetan parte hartuz.

Zerbitzu publikoetako hornitzaileei dagokienez, interprete baten esku-hartzea behar denean, interpretearen beharra duen pertsonaren nortasuna, jatorria, kultura, erlijioa, hizkuntza edo dialekto espezifikoaren inguruan ahalik eta datu gehien bildu beharko dituzte, interprete egokia bilatu ahal izateko.

Azkenik, eta kontuan hartu beharreko oinarri gisa, alferrikakoa izango litzateke itzulpen zerbitzu eraginkorra eta kalitatekoa ematea, zerbitzu hori esleitu ondoren, administrazioak ez balituzke sortzen diren arazoaren eta horien emaitzen jarraipena kontrolatzeko eta burutzeko mekanismo espezifikoak emango.

Hortaz, administrazioari dagokio horiek abian jartzeko modu jakin bat zehaztea. Erakunde horren egitekoa, hala ere, arlo horretan politika koherentea mantentzeko beharra agerian uztea da: diagnosi egokia eta tresna eraginkorrak izateko, sailak finantzaturako eta gure unibertsitate publikoak burututako ikerkuntzetara jotzeko beharra aipatu dugun moduan, horien emaitzen ebaluazioa eta jarraipena hizpide izateagatik, gure ustez, beharrezkoa izango da sistema diseinuan komunikazio eta lankidetzaren bitartekoak sartzea EHUk arlo horretan garatzen duen egitekoarekin.

4. Immigrazioari buruzko Euskal Planean aurreikusitako interprete sareak

Immigrazioari buruzko II. Euskal Planean ezarritako ildo espezifikoaren artean hizkuntzen erabilgarritasuna errazteko estruktura sortzeko beharra dago, etorkinaren administrazio esparruetara irits daitezela.

Zehazki, Erakunde Antolamenduaren Arloko 1. zuzendaritza islatzen den 10. zk.ko neurrian, aipaturako planak Immigrazio Zuzendaritzari egokitzen dio *herri-administrazioei, EAEko hizkuntza ofizialak ezagutzen ez dituzten etorkinekin dituzten harremanetan, zerbitzua emango dien interprete sarearen sorrera sustatzea*. Hori guztia Berme Juridikoen Arloko 4. zuzendaritzaarekin batera. Bertan, 1. eta 2. neurrietan Justizia eta Herrizaingoa Administrazio arloko itzulpenlari eta interpretazio zerbitzuez mintzo da.

Horren jarraipenarentzat burututako jardueren esparruan, Arartekoak euskal botere publikoek aipaturako beharra emateko dituzten bitartekoaren berri izateko interesa azaldu du. Lehengo Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak eta Osasun Sailak esan digute helburu hori gauzatzeko Gobernuaren jarduketaren eremu guztientzat egitura komuna sortzea erabaki zela, sail bakoitzean hori antolatzeak ekar litezkeen kostuak aintzat hartuta. 2007ko urtarrilaren 30ean, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak idatzi zizun eta adierazi zizun aipaturako egitura komuna interprete sarearekin zehaztuko zela eta sustatu eta antolatzea Immigrazio Zuzendaritzari zegoziola.

Idazki berean, Immigrazio Zuzendaritzak esan zizun sare hori ezartzeko lehenengo urratsak eman zituela eta zerbitzu hori eskaintzeko modurik egokiena eta bideragarriena zein zen jakiteko azterlana egitea agindu zuela. Bere ustez, zerbitzua 2008rako abian izango zen. Ordea, aurreikuspen hori ez da bete.

Planteaturako keak eta dauden arazoak kontuan hartuta, Arartekoak, 2008ko azaroaren 7ko idazkian, sail horren lankidetzaren eskatu zuen urtarrilaren 30eko idazkian aipatu zuen interprete sareari buruzko informazioa lortzeko eta galdera batzuk planteatu zituen:

- zerbitzua kudeatu eta emateko erabiliko den kontratazio modua
- zerbitzuko langile izateko akreditazio sistema
- eskatu diren zerbitzuetarako profesionalak esleituz, eskuragarri dauden profesionalen kopurua optimizatzeko modua mugikortasuna, gehien eskatzen diren hizkuntzen arabera kopurua, etab.

- kontratatutako itzultzaile eta interpreteek duten hizkuntz eta kultura artekotasun prestakuntza. Esparru horretan unibertsitateak duen eginkizuna.
- zerbitzu publikoetako profesionalen prestakuntza ematea, interpreteen bidez beren erabiltzaileekin komunikatzeko.

Gure laguntza eskaerak ez zuen erantzunik izan. Hori dela eta, beharrezkoa izan zen errekerimendua bidaltzea. Horren ostean, gizarte zerbitzuen esparruan behar horiek nola estaliko ziren aipatzen zuen txostena jaso genuen. Ordea, ez zitzaigun ezer esan administrazio jardunaren gainontzeko esparruen inguruan, alegia, itzulpengintza sistemen eraginkortasunak eta kalitateak etorkinei beren eskubideez baliatzea baldintzatzen dietenaren inguruan.

Sailak adierazi zigun, burutu zuen balorazioaren ostean, zerbitzu hori eskaintzeko modurik egokiena eta bideragarriena honakoa zela: sailaren eta Euskal Udalerrien Elkartearen (EUDEL) arteko lankidetzeta hitzarmena. Horren bidez, unean bertan eta telefono bidez itzulpengintza eta interpretazio zerbitzua abian jartzea eta garatzea finantzatzen da. Beraz, itzultzaile-interpretea ez dago fisikoki.. Zerbitzu hori, gainera, etorkin kopuru altua duten udaleko gizarte zerbitzuentzat da bakarrik.

Prestakuntza eta zerbitzuen kalitatea egiaztatzeari eta kontrolatzeari buruzko gure galderei erantzunez, sailak azaldu zigun esleitutako enpresa arduratuko zela itzultzaile-interpreteen taldea osatzeko beharrezko egiaztapenez, baita libre dauden profesional kopurua eta horien kalitatea optimizatzeaz.

Garatutako proiektua, beraz, gure esku-hartzeak aipatzen zuen administrazio ekintzaren alderdi batetara mugatzen da: udal esparruan kudeatutako gizarte zerbitzuen sarearekin zerkusia duenera. Horrekin etorkinek aurkezten dituzten beharren osoko plangintza ukatzen da eta horrek administrazioarekin duen harremana nolabait gizarte zerbitzuetara mugatzen da. Beraz, aurreko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak une hartan bere gain hartu zuen konpromisoa ez betetzea dakar, bai Immigrazioari buruzko Euskal Planean bai 2007ko urtarilaren 30ean erakunde honi bidaliko idazkian.

Alderdi kuantitatiboan ikusten direnak bezain garrantzitsuak edo are garrantzitsuagoak dira erakunde honentzat erantzunetik ondorioztatzen diren gabezia kualitatiboak.

Gabezia horiek ez dute hizpide itzulpengintza eta interpretazio zerbitzua antolatzeko modua; lehen aipatutako erantzunaren arabera, unean bertan eta telefonoz bidez izango litzatekeena. Hasiera batean, praktikan bere funtzionamendua ikusita sartzeko beharrezkoa izango diren aldaketak salbu, ez dago arrazoirik pentsatzeko interpretazio mota horrek, beti mugatutako bitarteko ekonomikoak optimizatzeako diseinatutakoak, eskainitako zerbitzuan nahitaez murrizketa bat ekarriko duela.

Kalitate hori, gure ustez, lehen aipatu ditugun inplikazioak dituzten hiru faktoreren menpekoa izango da: langileen aukeraketa zuzena, beren egitekoa irizpide etiko eta profesional batzuetara egokitzea, baita emaitzak kontrolatzeko eta ebaluatzeako sistema egokia ere.

Bestalde, sailaren proiektuak esleitutako enpresaren eskuetan uzten badu eskatu beharreko gutxieneko irizpide profesionalak ezartzea, itzulpengintza eta interpretazio zerbitzuaren kalitatearen oinarriko hiru adierazle horiek kontrolatzeko mekanismo egokiak ez lituzke izango.

Aipatutako hitzarmena jada aurtengo otsailean sinatu bada, oraindik ez da zerbitzua esleituko duen lehiaketa publikoa deitu. EUDELen konpromisoaren inguruan ez dugu zalantzarik, alegia, euskal udalei, administrazioko esparru guztiei dagokien moduan, honako zeregin honetan laguntza ematea: herritarrak beren eskubideez balia daitezten oztopoak kentzea. Horrek, gure iritziz, arlo guztietan zuzentarau zehatzak ezartzera behartzen dio. Beraz, zuzentarau horiek sartu behar ditu eta horrela gomendatuko diogu, lehiaketa publiko horren baldintzei eta dagokion kontratuaren oinarriei dagokienez -hala ere, egiteko garrantzitsu hori esleitutako enpresari eskuordetu gabe-. Horren funtzionamendua, gainera, horiekin zertan bat etorri behar ez duten errentagarritasun ekonomikoaren urratsek zuzendu dezakete.

Horregatik guztiagatik, erakunde honek beharrezko irizten du honako gomendioak egitea.

GOMENDIOAK

- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailari; Immigrazioari buruzko II. Euskal Planeko 1. zuzentarauak jasotzen dituen egitekoak eta horren inguruan Immigrazio Zuzendaritzak hartutako konpromisoak betez, herri-administrazioei beren zerbitzuak eskainiko dizkion interprete sarearen sorrera sustatzeko beharrezko neurriak izan ditzala, EAEko hizkuntza ofizialak ezagutzen ez dituzten etorkin erabiltzaileekin dituzten harremanetan. Aipatutako sareak interpretazio sozialaren irizpideak hartu beharko lituzke barne, ebazpen honetan jasotakoaren arabera, diseinua, burutzapena eta jarraipena eta kalitatearen kontrolari dagokionez.
- Euskal Udalen Elkarteari (EUDEL); Eusko Jaurlaritzako Immigrazio Zuzendaritzarekin sinatutako lankidetzak hitzarmenak esleitzen dizkion egitekoez arduratzean, irizpide horiek aplika diezazkiola tokiko administrazioaren esparruan gizarte ongizaterako zerbitzuei, alegia, etorkinei hizkuntza erabilgarritasuna errazteko jarriko den interpretazio sistemaren ezarpenari eta jarraipenari.
- Herrizaingo eta Justizia eta Herri Administrazio Sailei; aipatutako Immigrazioari buruzko II. Euskal Planaren 4. zuzentaruak betez, hartuko dituzten neurriei irizpide horiek gehi diezazkietela.

2. ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIBIDEKO APELAZIOEN ARRISKUAK: ERABILTZAI-LEENTZAKO INFORMAZIOA HOBETZEKO ETA ADMINISTRAZIOAK KOSTU GISA ERREKLAMATZEN DITUEN PROFESIONALEN ORDAINSARIAK NEURTZEKO BEHARRA

1. Sarrera

Ohar egin nahi dugu gero eta ugariagoa bihurtzen ari den arazo baten gainean; zehazki, justiziako administrazioaren erabilztaileek erakunde honetan aurkeztutako erreklamazio jakin batzuetan. Pertsona horiek, administrazioarekiko auzibidean jarri zuten erreklamazioa atzera bota zutela ikusita, Justizia Auzitegi Nagusira jo dute. Gero, auzitegiak ezezko epaia eman eta bigarren instantziako kostuak erreklamazio gileen gain ezarri ditu. Kexu dira, alde batetik, administrazioaren defentsa juridikoaren ordainsari gisa jasanarazten dieten zenbatekoagatik. Kopuru horiek neurrigabeak direla uste dute, kexagileek berek erreklamatu duten kopuruaren arabera bakarrik kalkulatu dituztelako; bestetik, beren abokatuak kexu dira, haien aburuz, ez dietelako azaldu apelatuz gero, eta ezezko epaia jasoz gero, etor dakizkien ondorioak.

Ezin dugu baloratu halako kasuetan abokatuaren lana nolakoa izan den; haren lanak kode deontologikoarekiko duen egokitasuna lanbide elkargoen eskumena delako, soilik. Eta epaile batek bakarrik zehatz dezake zer nolako erantzukizun zibila izan dezakeen abokatuak halako kasuetan –konponbide arbitralak kanpo–. Era berean, kostuak auzitegiaren aurrean aurkaratzen badira, eta, auzitegiek zuzenbidearekin bat datorrela badiote –3/85 Legeko 13. artikuluaarekin bat–, guk ezin dugu eskurik hartu. Beraz, gure esku-hartzea ebazpenik ez dagoen kasuetan bakarrik bidera daiteke; baita zerga erreklamaterakoan akatsak egon badira ere. Horrek ez luke zorraren kopuru nagusia murriztuko, baina betearazpen bidean sortzen diren errekareruak eta berandutza interesak indargabetuko lituzke.

Hala ere, larrituta gaude disfuntzio beraren bi ildo ezberdintzat jotzen ditugun hauekin: batetik, lehenengo instantzian erreklamazioa atzera bota dioten pertsonen kopuruak gora egitea. Pertsona horiek duten egoera medikoa edo soziala larria izanda, administrazioa egin nahi dute horren erantzule, eta, zuzenbidearekin bat, erreklamazioa zentzuzkoa dena baino gehiago eskatzen diote. Ondorioz, apelatu egiten dute, baina bide hori antzua da, dela erreklamazioaren funtsagatik dela zenbatekoagatik. Bestalde, errekurtsioa atzera botatzeak, irabazi duen aldearen abokatuaren ordainsariak ordaintzea dakarrelako. Ordainsari hori zehazteko, administrazioak alde galtzaileak erreklamazioen zuzenbidearekin bat datorrela hartzeko joera dauka, kexagileari lezio eredu garria emate aldera. Halako kasuetan egiten diren erreklamazioen kasu batzuetan zenbatekoak izugarriak izan daitezke, kontzeptu horrengatik eska daitezkeen kopuruak baloratzeko jurisprudentziak ezartzen dituen neurketa irizpiderik ez dagoelako; eta erreklamazio gilea horiei aurre ezin egin egon daiteke. Horrek nabarmenki okertzen du aurretik bizi zuen prekariotasun egoera.

Erakunde honetara heldu zaizkigun kasuen artean, kezka berezia dugu informazio egokia jaso ez dutenekin, abokatuak ez zuelako azaldu errekurtsioa atzera botatzeak kostuak bere

gain ezartzeak dakarrela. Informazio falta horrek bi kalte mota eragiten ditu: aurretik ezer ez zietenez azaldu, apelazioaren arriskua baloratzeko funtsezko judizio elementu baten falta izan zuten. Areago, epai irmoa eman ondoren ezer jakin gabe jarraitzen zutenean, ondorioz, zorraren berri jaso zutenerako hura aurkaratzeko berandu zen, eta lehenago ordaindu ez izanak interesak eragin zituen. Gainera, batzuetan, berandutzeak dezente handitzen du zenbateko nagusiaren kopurua.

Horregatik, administrazioari egindako erreklamazioa zuzenbidearekin bat datorren erabakitzea eta bide judizialean aurkaratu diren kostuak ezartzea epaitegiei dagokiela alde batera utzita; gure ustez, tartean diren eragile juridikoek alde aurretik arrazionaltasun irizpideak sartzen badituzte, lehenago joera biek elkarri elikatzea saihestuko lukete. Horrek justiziak zerbitzu hobea ematea eta erabiltzaileen onura ekarriko litzuke.

2. Apelazioaren bideragarritasunari eta arriskuei buruzko informazioa hobetzea

Aipatu dugun lehenengo joerak epaitegietan egiten diren erantzukizun zibilaren erreklamazioen ugaritzea ekarri du, kopuru aldetik zein zenbateko aldetik. Eta zenbatekoak, duela gutxi arte, AEBetako kultura juridikoetakoak ematen zuten -baliteke neurri batean horren eragina izatea-. Gainera, bizi dugun krisi ekonomikoak egoera larritzen du. Izan ere, administrazio publikoak ez ezik, enpresetako profesionalek eta goi kargudunek erreklamazio gehiago jasotzen ari dira, kudeaketa akatsengatik. Erreklamazioak beren bezeroek, enpresak berak, akziodunek, hartzekodun sozialek edo langileek egiten dituzte. Ondorioz, Espainiako aseguruaren sektoreak mota horretako polizen % 30eko igoera izan du azken urtean, hala adierazi baitzuten hedabideetan urrian.

Ondare erantzukizuneko erreklamazioak administrazioaren aurka egiten direnean, hemen aipatu ditugun arrazoiez gain, nahi berriak agertzen hasi dira herritarrak, sustapeneko administrazio jardunak eskaini behar dizkien zerbitzu, aukera eta prestazioei dagokienez. Era berean, *indemnitatearen kultura* gero eta zabalduago dago; zehazki, medikuen jardun oke-rragatik gertatzen da gehien, nahiz eta hori ez den arrazoi bakarra.

Testuinguru horretan, gero eta ugariagoak dira muturreko egoeran dauden pertsonen kasuak (paralisia, baliaezintasuna, seme-alaba baten heriotza) non, horren eragilea administrazioaren jarduera edo gabezia bat delakoan, konfiantza guztia jartzen baitute profesional batengan, baldin eta harengandik kalte-ordainak lortzeko itxaropenak sortarazten badizkie, modu oso errealistan ez bada ere. Errealismo falta hori asmoaren funts faltagatik edo arrazoi horregatik eskatutako kopuruak eragin dezake. Izan ere, askotan, neurri gabeko kopuruak eskatzen dituzte. Errealismo falta egon liteke, halaber, abokatuak egoera zentzuzkoa dena baino urrunago joatea gomendatzen dionean bezeroari. Halakoetan, abokatuak ez diete bezeroei esaten apelazioaren erantzuna ezezkoa izanez gero zer arrisku dakarren. Aztertu ditugun hainbat kasu agerian utzi dute, ezezko epaia behin betiko bihurtu ondoren, abokatuak ez ziola ezer esan bezeroari. Eta jakinarazi bazion ere, era traketsen esan zion. Ondorioz, kexagileak ez zekien kostuak ordaintzera zigortu zutela, eta, areago, ez zekien

abokatuak ez ziola horren berri eman garaiz. Gerora, abokatuarengan jarritako konfiantzak kale egin ziela ikusitakoan, egoera latzean egoteaz gain, erreklamazio ekonomiko handia zutela jakin zuten. Erreklamazio hori hain zen handia epaitegietan aurkaratzeko modukoa zela, baina ordaintzeko eskatu zieten unean ezinezkoa zen halakorik egitea, ezta kopurua ordaintzea ere.

Argi dago deskribatu dugun abokatuen jarrera ez dela gehiengoarena. Guk dakigunez, gehienek lanak arduraz burutzen dituzte. Bestalde, jardun okerrekin diziplinako erantzunak eragiten dituzte abokatuen taldean, kode deontologikoaren aurkakoak direlako. *De facto*, hainbat espediente ireki dituzte azken urteetan, erreklamazio mota honetan espezializatuta dauden zenbait bulegori atxikitako abokatu batzuen aurka.

Hala ere, azkenaldian gomendio hau eragin duen kasua bezalako egoerak ugartu direnez, uste dugu abokatuen elkargoek esfortzu gehigarria egitea zentzuzkoa litzatekeela; kasu hauetan apelaziora jotzeari dagokionez. Apelazioak bideragarriak diren profesionaltasunez aztertzeaz gain –abokatuen gehiengoak jarduten da zuzen–, bezeroak kostuak ordaintzeko zigorra bere gain hartu ahal izatearen jakitun dela ziurtatu beharko lukete, eta horrela adierazi beharko lukete egoki den enkargu orrian.

3. Kostu gisa jasanarazi daitezkeen ordainsarien zenbatekoa

Aipatu dugun bigarren ildoan erreklamazio mota honen ugartzearen aurrean administrazioak izan duen erreakzioari buruzkoa da. Eta erreakzio hori bigarren instantziako defentsa eta ordezkartza lanetan egondako gastuen kostuak kalkulatzeko moduan nabari da. Gure ustez, erreakzio hori bi arrazoik eragin dute:

- alde batetik, kontzeptu honengatik kargatzen diren zenbatekoak kontzeptua bezain neurrigabeak izan daitezke, kexagileak eskatutako kalte ordainaren portzentaje gisa soilik kalkulatu direnean. Adibidez, guk aztertu dugun apelazio kasu bateko abokatu eta prokuratzaile ordainsariaren kasua aipa genezake. Kasu hartan, defentsaren abokatuak ez zen gastu bat izan administrazioarentzat, defentsak bere kargu hartu baitzituen. Hala ere, Osakidetza 31.290,50 euro eskatu zizkion neska gazte bati. Neskari kirurgia egin zioten, istripu baten ondorioz, eta 1.200.000 euroko kalte ordaina eskatu zuen, albo-ondorio gisa paralisia geratu zitzaionalako.
- bestalde, kostuak erreklamatzeko sistematikoki bihurtu da, erreklamazioak eta beren kalte ordainaren zenbatekoa ugartu diren unetik bertatik. Ez zen, ordea, halakorik gertatzen lehen.

Zentzuzkoa da, gure ustez, administrazioak bere abokatuen ordainsariak erreklamatzeari uko ez egitea, eta gehiegizko auziak saihestu nahi izatea. Izan ere, legearen helburua auziak gehiegikeria saihestea da, eta horretarako kostuak erreklamaziogileari kargatzen dizkio. Bestalde, ezin da arbuia justiziako administrazioaren erabiltzaileari dagokion erantzukizuna, bere abokatuari ematen diren ebazpenen eduki osoaren informazioa eman diezaion eskatzeari dagokionez. Eta hirugarren baten egoera juridikoa ezin da aztoratu, abokatuaren eta erreklamaziogilearen artean komunikaziorik ez dagoelako.

Horren guztiaren kaltetan izan gabe, eta ebazpen honen lehen puntuari jasotako kalteak eta arriskuak murrizte aldera, erreklamazio horietan arrazionaltasun elementuak sartzeak onurak ekar litzakeela uste dugu. Elementuen erreferentzia, kostuen aurkaratze prozeduretan, ordainsarien zer zenbateko jasana daitezkeen zehazteko jurisprudentziak jarraitzen dituen irizpideak izan behar dira. Honako hauek dira:

- Alde batetik, erreklamaturako kostuen arrazoizkotasuna kostuak ordaintzeko betebeharra ezartzen duen arauaren bi helburuek jartzen dute: gehiegizko auziak saihestea, eta azkenean auzitegiek onartutako defentsa eskubidearen gastuak ordaintzea.

“Debe señalarse que la condena en costas genera un crédito privilegiado del que es titular la parte contraria beneficiaria de la misma, que encuentra su razonabilidad en prevenir los resultados distorsionadores del entero sistema judicial que se derivan de una excesiva litigiosidad, así como en restituir a la parte contraria los gastos que, en menoscabo de la satisfacción de sus pretensiones, le ha ocasionado la defensa de sus derechos e intereses legítimos frente a quienes promuevan acciones o recursos legalmente merecedores del pago de las costas.” (Auto T.S. Sala III, 28-12-2000)

- Bestalde, lanbide elkargoak emandako jarraibideak -auziaren zenbatekoaren arabera portzentajea erabilita kalkulatu da abokatuaren ordainsaria- neurtu beharreko balioetako bat dira, abokatuaren minutak egokitze aldera. Era berean, bestelako elementuak hartu behar dira aintzat, eta Auzitegi Gorenak izendatuta, honakoak dira, oro har:

“Las normas establecidas por los Colegios de Abogados respecto de los honorarios de sus colegiados tienen un mero carácter de reglas de régimen interior orientadoras para éstos, en modo alguno vinculantes para los órganos jurisdiccionales ante los que se cuestione la determinación cuantitativa de los honorarios a percibir por los Abogados por su intervención en un determinado proceso, al no estar los mismos retribuidos por arancel alguno y corresponder a aquéllos su determinación en caso de discrepancia conforme al artículo 246.3 de la L.E.C. de 7 de enero de 2000...” (Auto T.S. Sala de lo Contencioso-Administrativo, Sección 5ª, 3-10-2006, Recurso nº 8303/1997)

“Pero, si bien es cierto que la determinación de la corrección de las minutas de los Letrados, en caso de condena en costas, ha de acomodarse ciertamente a las normas orientadoras sobre la materia, sin embargo, también lo es que no pueden ajustarse a ellas de un modo tan absoluto que ponga en entredicho otros factores que han de ser igualmente ponderados: el carácter meramente indicativo de las citadas normas colegiales, las circunstancias concurrentes en el proceso en el que se hayan devengado, el trabajo y esfuerzo profesional realizado, la mayor o menor complejidad del asunto, el interés y la cuantía económica del mismo, el tiempo de trabajo que requirió su estudio, así como de los escritos

e informes efectuados, los resultados obtenidos y el alcance y efectos de éstos en el orden real práctico, entre otros” (Auto T.S. Sala de lo Contencioso-Administrativo, Sección 5ª, 3-10-2006, Tasación de Costas nº 5896/1998)

Horri buruzko epaia eman zuen EAEko Auzitegi Nagusiak ere. Bertako administrazioarekiko auzien gelak irizpide berak erabiltzen ditu kostuen aurkaratzeari buruzko ebazpenetan (2008ko abenduaren 15eko 3. ataleko autoa, Ap. L98 574/04)

Ezin dugu ahaztu, kostuen erreklamazioa egiteko administrazioaren eginbide bat behar dela; eta, beraz, legepean egon behar duela. Horrek bi helbururako balio du: kostuak ordaindu behar dituen aldeari erreklamazio pribatua egiteko, eta, alde horrek bere kabuz ordaintzen ez badu, tasazioa egiteko –tasazioa idazkari judiziala egiten du, kostuak erreklamatzeko dituenak hala eskatzen badu, Prozedura Zibilaren Legeko 242.2. artikularekin bat–. Tasazioarekin bat, kobratu nahi diren gastuen egiaztagiri diren minutak eta fakturak aurkeztu beharko dira.

Legeak ezartzen duenez, erreklamazioa ukatu diotenari apelazioko kostuak ordaintzeko zigorra ezarriko zaio –epaitegiak kontraktorik esan ezean–. Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren legeko 139.2. artikulua hori bera dioen arren, ez dio kostuak elkargoko baremoak zentzu hertsian aplikatuta ezarri behar direnik, profesionalen ordainsariei dagokionez. Batzuetan, administrazioak kontrakoa ulertzen duela ematen du, baina artikulua horien edukia orientatzeko da, eta ez nahitaez aplikatu beharrekoa; eta, are gehiago, honakoa bezalako prozeduretan ibiltzen diren kopuruak bezalakoak badira.

Epaitegian aurkaratzeko aukeraren kaltetan izan gabe, gure ustez, administrazioa ezin da epaitegiek erabaki bat hartzearen zain egon, gero, irizpideak ezartzeko. Hasieratik, abokatuen ordainsari gisa erreklamatzeko diren kostu judizialak kalkulatzeko aipatu behar dituzten irizpideak.

4. Araua neurtzeko irizpide gisa erabiltzearen bukaera

Elkargoek markatutako *petitumaren* arabera portzentajeen arabera lanbide ordainsariak kalkulatzeko, berdin da abokatuak ordainsariak ez jasotzea, defendatu duen administrazioaren funtzionarioa delako. Izan ere, halako kasuetan, profesional libre bati zegozkionak hartuko baitira kontutan. Hala ere, irizpide horren arabera gutxi gorabeherako kopurua topatutakoan, ikusi dugunez, jurisprudentziak ezartzen du bere arrazoizkotasuna aipatu dugun gainerako irizpideen arabera baloratu behar dela, kasuan kasu.

Kontu honen puntu nabarmena ez da irizpideak aplikatzearen emaitza auziaren kopuruak bakarrik aintzat hartuta lortuko litzatekeen kopuruaren ezberdina dela, hori ez baita kasu guztietan nahitaez gertatu. Kopurua irizpideak egoki eta osorik aplikatzearen ondorioz izatea da, hain zuzen; kostu gisa erreklamatzeko den kopurua edozein dela ere.

Ikusi dugunez, lehenengo irizpidea da Legeak duen helburua kostuak ordaintzeko kondera arautzen duenean. Beraz, defendatzen dugun neurketak zenbatekoaren beharrezkoa ekarriko balu ere, ez luke zentzurik edukiko administrazioak defendatu behar duen interes publikoa kalteturik suertatzen dela ulertzea, zeren interes hori ezin baita bereiztu abokatuaren ordainsaria errekurtsuaren alde galtzaileari ordainaraztea ahalbideratzen duen arauaren funtsetik. Aipatu dugun jurisprudentzian bikoitza da:

- a) Alde batetik, kalte-ordainak. Ordainak ezberdinak izango dira, defentsa administrazioaren berezko zerbitzu juridikoen eskutik izatearen edo kanpoko profesionalak kontratatzearen arabera. Lehenengo kasuan, defentsan aritu den profesionalak jasoko duen kopurua langile publiko gisa jasotzen duen soldata bera izango da. Beraz, gastu hori ez litzateke bere kargu ez hartzeko administrazioak jasanarazitakoa, administrazioak irabaz dezakeen kopurua baizik; prozesuak diru kutxa publikoetan eragin duen kostua alde batera utzita. Ondorioz, halako kasuetan erabakitzeko –hurbilpen bidez bada ere–, kostu gisa eskatutako kopurua zentzuzkoa bada, ezin dugu arbuia berez inoiz egon ez den gastu bat estaltzeko dela.
- b) Bestalde, auzi gehiegikeria prebenitzea: bistakoa den helburua. Horri dagokionez, argi utzi nahi dugu ez dugula zalantzan jarri administrazioak kostuak ordaintzeko zigorra duen aldeari erreklamatzeko. Gure nahia, aldiz, kostuak kalkulatzeko erabiltzen diren irizpideak epaitegietan kostu gisa erreklamatu diren kopuruak neurri-gabeak edo justifikazio gabeak diren baloratzeko erabiltzen diren berak izatea da. Jurisprudentziak irizpideok aplikatzeak ez dakar auzi gehiegikeriak prebenitzeko efektua lausotzea, ordenamendua arautzen duten justizia eta proportzionaltasun parametroekin egokitzea baizik. Beraz, ezin daiteke ulertu administrazioa interes publikoaren aurka ari dela; baldin eta –erreklamazio kopuruaren arabera kostuak gutxi gorabehera kalkulatu ondoren– administrazioak kopurua bere ekimen propioz parametroetara doitzen badu, guk defendatu bezala.

5. Abokatuak bigarren instantzian burututako jarduna

Egokitzapen hori baloratzeko aintzat hartzen diren jurisprudentziako gainerako irizpideak, minuta berak ordainduko duen lan profesionalak izandako zailtasunaren edo garrantziaren arabera da, ikusi dugunez. Gure gomendioak irizpide duen esparruan, erreferentziako bi puntuaren arteko kontrastearen arabera izango da aipatutakoa: alde batetik, administrazioaren abokatuak apelazio errekurtsuari aurre egiteko burututako jarduna, eta, bestetik, errekurtsua atzera bota eta kostuak nori kargatuko dizkion ebazpenaren erabaki arrazoia.

Irizpide horiei jarraiki, auziko kopuruaren arabera bakarrik kalkulatu diren ordainsariak murriztea zentzuzkoa litzateke; apelazioaren emaitza salak berak azaldu dituen ez onartze arrazoiengatik bada, alde irabazlearen abokatuaren lanagatik baino. Edo apelazioa, hasieratik, aurkatzeko bideragarritasun gutxikoa izan bada. Hala gertatu da aztertu dugun hainbat errekurtsotan. Errekurtsu horiek lehen instantzian egin ziren adituen probak berriro baloratzeko zuten helburu. Atzera botatzeko oinarria gai honetan legeak epaitegiari ematen dizkion aukeren urritasuna zen. Aukera horiek honakoak dira: instantziako epaitzagileak interpretazioko

logikako akatsak egin izana edo esperientziaren arauak jarraitu ez izana. Kasua hori ez denez, nahikoa da muga hori aipatzea salak lehen instantzian onartutako egintzen zerrenda ontzat emateko; eta horrek errekurtsioa atzera botatzea dakar.

Faktore honi dagokionez, arreta deitu nahi izateak ez du esan nahi EAEko herri-administrazioen zerbitzu juridikoez egiten duten lana gutxiesten dugula, administrazio horien lanak gure errespetu osoa merezi baitu. *De facto*, hori beren beregi alboratzen duen kasuetan ere, Auzitegi Gorenak bortizki murriztu ditu honako kasuetan: minutak kalkulatzeko orientabide gisa erabiltzen diren elkargoko portzentaje tauletan jasotako *petitum* oso altua aplikatu badira. Hala dio administrazioarekiko auzien salak 2006-10-3an egin zuen autoak (kostuak tasatzea 5896/1998 zk.). Alde irabazlearen abokatuak egin zuen lana goraiatu arren, egindako kostuen tasazioa zuzentzen du. Horrela, hasieran abokatuak pasatu zuen 48.650,30 €ko kopurua 6.000 €koa bihurtu zen bukaeran. Kopurua eskuratzeko, zituen bi bezeroei elkargoko baremoak aplikatu zizkien. Zentzu bereko argudioak eman zituen salak, egun horretan bertan eman zuen beste auto batean: kostuen tasatzea 3186/2001 zk. Auto horretan, 21.420 euroko minuta kopuru berera murriztu zuen.

6. Jurisprudentiako irizpideak eta administrazio ona

Azken batean, alde galtzaileari jasanarazi dakioken ordainsaria kalkulatzeko jurisprudentiak tasatutako kostuak justiziako irizpideekin egokitzea da asmoa. Irizpideak legean jasota daude, alor honetan gehiegikeria dagoen kasuetarako.

Arartekoak pertsonen eskubideak defendatzeko eginkizuna dauka, administrazio onaren parametroak irizpide. Horregatik parametro horiek sustatu behar ditugu gure eskumeneko administrazioetan, epaitegi batek halakorik ezartzearen zain egon gabe. Izan ere, neurketa irizpide horiek justiziako administrazioaren erabiltzaileen eskubideen eduki materiala uneoro konfiguratzeko laguntzen dute, egonkortuta dagoen jurisprudenzia ildoan osatzen dutelako. Aipatu ditugun eskubide horien arabera egokitu behar dute botere publikoek beren jarduna.

GOMENDIO OROKORRA

Azaldutako gogoetak ikusita, Legelarien Euskal Kontseiluari zuzendu nahi diogu gomendio hau. Horrela, hiru lurralde historikoetako elkargoen bidez, abokatuei helaraz diezaie administrazioaren ondare erantzukizuneko salaketak ugaritu direla. Egoera hala, beharrezkoa da bezeroek jakitea lehenengo instantziak atzera bota duen epaietan apelatuz gero gainera etor dakizkien arriskuak zein diren, bereziki kostuak jasanaraztearena. Jakinarazpen hori enkarguaren orrian jaso beharko da.

Era berean, EAEko administrazioei zuzendu nahi diegu gomendioa. Administrazioak berak bere defentsarako izan duen profesionalaren ordainsari gisa erreklamaturako kostuak jurisprudentiak kostuok zuzenbidearekin bat datozela baloratzeko ezartzen dituen irizpideak modu neurtuan aplikatzearen emaitza izatea, ebazpen honetan adierazitakoaren arabera.

3. IGOGAILUAK INSTALATZEARI LEHENTASUNA EMAN BEHAR ZAIE, ARRAPAL ETA ESKAILERA MEKANIKOEI BAINO

1. Aurrekariak

2004az geroztik, Arartekoak herri-administrazioei, eta, bereziki, udalei erreklamatu die sakon azter dezatela hiri inguruetan irisgarritasun arazoak bideratzeko konponbide teknikoek ematen dituzten aukera ezberdinak. Horri dagokionez, herritar guztiek berdintasun egoeran erabil ditzaketen instalazioei lehentasuna ematea hobesten dugu; horrela aukera berdintasunaren eta bereizkeriaren aurkako printzipioa gauzatuko dira, ezgaitasunak dituzten pertsonen kasuan.

Aipatu beharra dugu, EAEko orografia malkartsuaren ondorioz, gero eta kexa gehiago jasotzen dugula Arartekoan gai honen inguruan; eskailera mekanikoak, arrapalak eta tapiz birakariak instalatzen dira gure udalerrietan, hiri ingurunean dauden oztopoak gainditzeko.

Ekitaldi honetan, halako esku-hartzeak dezente ugaitu dira, tokiko erakundeek abiatu dituzten proiektu asko eta askoren ondorioz. Halako proiektuak tokiko inbertsiorako estatuko funtsarekin finantzatu dira, eta hori E Planaren barruan dago. Plan horrek, besteak beste, mugikortasun urritua duten pertsonentzat oztopo diren traba arkitektonikoak kentzea du helburu.

Horrek, arlo honetan jaso ditugun kexak ugaitzeaz gain, erakunde honek ofizios hasi dituen esku-hartzeak ugaitu ditu.

Aurreko ekitaldietan bezala, Arartekoaren erakundeak premisa bat hartu ohi du abiapuntu: eskailera mekanikoek ez dituzte mugikortasun urritua duten pertsonak dituzten irisgarritasun arazoak konpontzen. Izan ere, gurpildun aulkia duten pertsonak, adinekoak eta haurren karrotxoak daramatzatenak halakoak erabiltzetik kanpo geratzen dira. Arrapala mekanikoak ere oztopo handiak dira mugikortasun urria duten pertsonentzat, eta, kasu gehienetan, ezin baitituzte beren kabuz erabili.

Gai honi buruz, sektoreko enpresek beren iritzia eman dute. Adibidez, "Schindeler" enpresa eskailera eta arrapala mekanikoak fabrikatu, instalatu eta mantentze lanetan garrantzitsuenetakoa da mundu mailan, eta honakoa adierazi du konponbide teknikoetz:

"Transporte para discapacitados, transporte de cochecitos de niño. Ni las escaleras mecánicas ni las rampas móviles son adecuadas para el transporte de sillas de ruedas y de cochecitos de niño. Se recomienda colocar en las zonas de acceso a las escaleras mecánicas y rampas móviles una indicación mencionando dónde se encuentran los ascensores más próximos."

Horrek honako gogoetara eramán gaitu: enpresa horren aburuz, eskailera eta arrapala mekanikoak ez dira egokiak mugikortasun urritua duten pertsonentzat. Frantzia, adibidez, halako instalazioetarako sarreretan gurpildun aulkia duen irudia ixa marka batekin marratuta

egoten da. Hau da, horren bidez adierazten da, gurpildun aulkia duten pertsonen instalazioa ez erabiltzea.

EAEko udalerrri askok eremu desberdinen arteko lotura arazoak igogailu edo jasotze plataformak jarrita konpondu dituzte, eta horrek pertsona guztiak erabiltzea ahalbidetzen du. Gainera, mugikortasun bertikalen arazoak bi noranzkoetan konpontzen ditu, goranzkoan eta beheranzkoan. Adibidez gisa Deba eta Plentziako igogailuak aipa ditzakegu, baita Mutriku, Donostia, Pasai, Santurtzi eta bestelakoak ere.

Gainera, igogailuek haiek dauden tokitik igarotzen diren mugikortasun urritua duten pertsonen bizi baldintzak hobetzeaz gain, bestelako abantailak dituzte; eta aipatu ditugun beste elementuek ez. Adibidez: herritar guztiak erabil ditzakete, baita gehien behar dutenek ere: mugikortasun urritua duten pertsonak; mugikortasun bertikala bi noranzkotan ahalbidetzen dute; arrapala edo eskailera mekanikoak baino merkeagoak dira; instalazioa eta mantentzea askoz merkeagoak dira; funtzionamendu hobea bermatu daiteke, eta, teknikoki, elementu seguruagoak dira.

2. Testuingurua

Ekitaldi honetan aztertu ditugun kasu gehienetan, hasieran ezin izan dugu nahikoa informazioirik lortu tokiko erakundeek arrapala edo eskailera lehenetsi izanari buruz.

Hiri ingurune, espazio publiko, eraikuntza eta informazio eta komunikazio sistemetakoa irisgarritasun baldintzei buruzko Arau Teknikoak onartzen dituen 68/2000 Dekretuko, apirilaren 11koa, .V eranskineko 3. artikulua bi salbuespen jasotzen ditu irisgarritasun baldintzen aplikazioetarako:

- Lehenengoa: orografiaren, egituraren edo formaren ezaugarriek irizpideok aplikatzea ezinezkoa egiten dutenean.
- Bigarrena: eskura dagoen aurrekontua aintzat hartuta, egokitzapenak neurrigabeko gastua eragiten badu.

Ezarrizko salbuespen kasu bietako batean bagaude, dokumentu bidez justifikatu behar dira salbuespena egitearen arrazoiak. Horretarako udal zerbitzuek txosten bat prestatu behar dute, proposatuko den neurriaren egokitasuna zehazten duen proiektua onartu aurretik. Halaber, bertan zehazten da txostena Irisgarritasunaren EAEko Kontseiluari helarazi behar zaiola.

Planteatutako kasuetako ezeinetan ez zen jarraitu prozedura hori; horregatik ez genituen eskura beharrezko elementu guztiak, hartutako erabakiak zuzenbidearekin bat zetorren on-dorioztatzeko. Horregatik, erakunde hau, ezgaitasun fisikoa duten pertsonen elkarteekin –FEKOOR, Bizkaia eta ELKARTU, Gipuzkoa–, adierazitako tokietara joan behar izan zen. Bertan, eta ahal zen neurrian, proposatu ziren neurriak baloratu genituen.

Egin genituen bisitaldi guztietan egiaztatu ahal izan genuen bideragarria zela obrak egingo ziren tokietan igogailuak jartzea. Udalek, aldiz, eskailerak edo arrapalak jartzea erabaki zuten. Halakoek malda handiak zituzten eta noranzko bakarrekoak ziren. Gainera, mugikortasun urriko pertsonentzat aurreikusitako ibilbideak oso luzeak ziren, malda nabarmenak zituzten eta, batzuetan, errepide zatiak erabili behar zituzten. Gainera, beheratu gabeko espaloiak ere saihestu behar zituzten.

Erakunde honek egindako oharren harira, hasierako proiektuak aldatzeari egoki iritzi dioten udalekin egin dugu topo. Beste batzuk ez dute halakorik egin nahi izan, eta beste batzuen aburuz neurrigabea zen obrak gelditzea.

3. Esparru juridikoa

Mugikortasun urritua duten pertsonen eskubideen konbentzioa 2008ko maiatzaren 3an sartu zen indarrean estatuan.

Konbentzioa onartu duten estatuek konpromisoa hartu dute konbentzioan aitortzen diren eskubideak benetako bihurtzeko beharrezko diren politikak, legeak eta administrazio neurriak aplikatzeko. Era berean, ezgaitasunak dituzten pertsonak bereizkeriaren esku jartzen dituzten legeak, araudiak, ohiturak eta jardunak indargabetuko dituzte. (4. artikulua).

Irisgarritasunaren arloan horrek esan nahi du estatuek oztopoak identifikatu eta kendu behar dituztela, ezgaitasunak dituzten pertsonak ingurune fisiko horietara, garraibideetara, instalazioetara eta zerbitzu publikoetara heldu ahal izateko, baita informazio eta komunikazio teknologietara ere. Horren ildotik, hala dio Konbentzioko 9.1 artikulua:

“Gaigabetasunen bat duten pertsonen askatasunez bizi eta bizitzaren arlo guztietan parte hartu ahal izan dezaten, Estatu Parte-hartzaileek neurri egokiak hartuko dituzte gaigabetasunen bat duten pertsonentzat, gainontzekoen baldintza berdinetan irisgarritasuna bermatzeko, inguru fisikora, garraiora, informazioa eta komunikazioa, informazio eta komunikazio teknologia eta sistemak barne, eta publikoarentzat zabalik dauden beste zerbitzu eta instalazioetara, bai hirietan, bai herrietan. Irisgarritasun neurri hauek, euren artean iristeko oztopo eta eragozpenen identifikazioa eta ezabapena daudelarik, beste batzuen artean, jarraiko kasuei ezarriko zaizkie:

a) Eraikuntza, bide publiko, garraioa eta beste barruko eta kanpoko instalazioetan. Adibidez: eskolan, etxe-bizitzan, osasun eraikinetan eta lan tokietan,”

Era berean, adierazi behar dugu Espainiako konstituzioko 9.2 artikulua honela dioela: *botere publikoen egitekoa da bideak jartzea norbanakoen nahiz taldeen askatasuna eta berdintasuna bene-benetakoak izan daitezen.* Konstituzioko agindu horretan, berdintasuna lege aurreko tradiziozko berdintasunetik harago doa. Egun, konstituzioko 14. artikuluan ere jasotzen da, esparru zabalagoan –*bizi baldintzetan*– eragina izateko asmoz. Printzipio horri

eskerrak, hasieratik desberdintasun egoeran dauden talde sozialek botere publikoek benetako berdintasuna sustatzeko hartutako neurrien onurak jaso ditzakete.

Horregatik, ezgaitasunen bat duten pertsonak berdintasuna lor dezaten, ulertu behar da hiri inguruneke irisgarritasuna erraztuko duten neurriak izan behar direla helburu, besteak beste.

Ezin dugu ahaztu konstituzioko 49. artikulua dioena: *“Botere publikoek aurreneurri-, tratamendu- eta gizarteratze-politika egingo dute elbarri fisikoentzat, zentzumen-elbarrientzat eta elbarri psikikoentzat; horiej, euren behar duten arreta berezia emango zaie, eta bereziki babestuko dira, titulu honek herritar guztiei ematen dizkien eskubideak egikaritu ahal izateko.”*

49. artikuluko agindu hori *gizarte eta ekonomi politikaren printzipio gidariak* izenpean jasota dagoen arren, ez dago hor programatuta: politikako erretorikaren esparruan mugatuta. Konstituzio doktrinak eta jurisprudenziak egiaztatu dutenez, printzipio horiek arau balioa dute, eta berariazko agindua ezartzen diete botere publikoei, helburuak benetan gauza dezaten. Horrekin pertsona guztien benetako berdintasuna eskuratzea da helburua.

Gure erkidegoaren baitan, irisgarritasuna sustatzeko 20/1997 Legeak gure erkidegoko pertsona guztiek ingurune fisikorako eta komunikaziorako irisgarritasuna bermatzeko neurriak jasotzen ditu; eta, bereziki, hainbat arazoirengatik mugaren bat duten pertsonen integrazioa hobetzeko ekintza positiboak biltzen ditu. Muga horiek dituzten pertsonak gizarte desberdintasunean daude, eta gizarte baldintza horiek oinarritzko gisa definitzen diren eskubideez gozatzeko funtsezkoak dira.

1. artikulua botere publikoak behartzen ditu pertsonen bizi kalitatea hobetuko duten laguntza teknikoak susta ditzaten. Horren bidez *“hiri-ingurunearen, gune publikoen, eraikinen, garraio bideen eta komunikabideen irisgarritasuna bermatzea, pertsona guztiek eta, batez ere, mugikortasun murriztua, zailtasunak komunikazioan edo muga psikiko zein sentsoriala, aldi baterako zein betirako, dituztenek era autonomoan erabil eta goza ditzaten.”*

Ondorio horietarako, aipatu behar dugu ezgaitasunen bat duten pertsonen aukera berdintasunari, diskriminaziorik ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzko abenduaren 2ko 51/2003 Legearen 2. artikulua legearen oinarri diren printzipioak zehazten dituela eta honela dioela:

“c) Accesibilidad universal: la condición que deben cumplir los entornos, procesos, bienes, productos y servicios, así como los objetos o instrumentos, herramientas y dispositivos, para ser comprensibles, utilizables y practicables por todas las personas en condiciones de seguridad y comodidad y de la forma más autónoma y natural posible. Presupone la estrategia de «diseño para todos» y se entiende sin perjuicio de los ajustes razonables que deban adoptarse.

d) Diseño para todos: la actividad por la que se concibe o proyecta, desde el origen, y siempre que ello sea posible, entornos, procesos, bienes, productos, servicios,

objetos, instrumentos, dispositivos o herramientas, de tal forma que puedan ser utilizados por todas las personas, en la mayor extensión posible.”

3. Ondorioa

Beraz, esan dezakegu irisgarritasunaren helburuak honakoak dakartzala: guztiontzako diseinua erabili gauza berrietan, eta, bestetik, zaharrak edo oztopoak dituztenak ahal den gehien egokitu.

Horregatik, ingurune irisgarria funtsezkoa da eskubide berdintasunean oinarritutako gizartea lortzeko, herritarrei autonomia ematen baitie eta bizitza sozial eta ekonomiko erabat aktiboa garatzeko beharrezko bitartekoak ematen baitizkie. Era berean, ingurune irisgarria oinarritzkoa da bereizkeriarik ezean oinarritutako gizarte inklusiboa eraikitzeko.

Horregatik, hiri ingurune irisgarria ahal den guztietan bermatzeko, igogailuak instalatu behar dira, konponbide tekniko gisa. Herritar guztiek erabil ditzakete, eta horrekin irisgarritasun unibertsalaren eta guztiontzako diseinuaren printzipioak betetzen dira. Azken bi alderdi horiek izan behar dira nagusi arlo honetan administrazioek egiten dituzten jardunetan.

Irisgarritasunean aurrera egiteko bitarteko gisa arrapalak edo eskailerak mekanikoak bakarrik jartzeak ez du irisgarritasun unibertsalaren printzipioa betetzen, eta ez du irisgarritasuna sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legeak duen helburua lortzen: mugikortasun urritua duten pertsonak ingurune fisiko horretan guztiz eta libreki mugitu ahal izatea.

4. Gomendioa

Hemen azaldu duguna ikusita, Arartekoaren ustez, pertsona guztiak ingurune fisikora berdintasun egoeran irits daitezten, botere publikoek jardunak sustatu behar dituzte, irisgarritasun arloan indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen betekizunak gauzatzeko.

Hori dela eta, bereziki udalek egin behar dute esfortzua, hiri ingurunetan igogailuak instalatzeko. Horrela mugikortasun urritua duten pertsonen bizi baldintzak hobetzen lagunduko dute, eta bereizkeriarik ez jasateko duten eskubidea gauzatzeko dute.



IV. ATALA

TXOSTEN BEREZIAK



1. 2009. URTEAN AURKEZTUTAKO TXOSTEN BEREZIAK

1.1. **EUSKADIN TERRORISMOAREN BIKTIMEI ERAKUNDEEK EMANDAKO ARRETARI BURUZKO TXOSTEN BEREZIA**

Uztailaren 13an eman zitzaion Eusko Legebiltzarreko lehendakariari *Euskadin terrorismoaren biktimei erakundeek emandako arreta* izenburuko txosten berezia. Geroago, 2009ko irailaren 15ean, Legebiltzarreko Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordearen aurrean aurkeztu zen.

Txosten bereziaren gaia:

Txostenean jorratutako gaia Euskadin sortu den eta sortzen ari den biktimazio terrorista da, eta erakundeek biktimei ematen dieten arreta. "Terrorismoaren biktimak" kontzeptua, euskal botere publikoen politika eta jarduera publikoei begira, Euskadin jardun duten talde terrorista guztien biktimei dagokie. Horren haritik, ez da alferrikakoa txostenean esplizituki eta argi aipatuta agertzen diren taldeak berriz identifikatzea. Horrela, talde terroristatzat jotzen dira, indarreko legeriaren arabera, honako hauek: ETA-m, ETA-pm, GAL, Comandos Autónomos Anticapitalistas eta Batallón Vasco-Español; talde horiei beste taldexka eta pertsona batzuk erantsi behar zaizkie, hainbat eraiketa burutu dituztenak eta jarduera terroristaren kategorian sartzen direnak. Horregatik, txosten honen atalak terrorismoaren biktima guztiei aplikatu dakizkiekeela ulertu behar da, IX. atala izan ezik. Atal hori, "*Mehatxu edota hertsapen terroristen biktimak Euskadin: biktimazio esperientziak eta erakundeen eta gizartearen erantzunaren gaineko balorazioa*" izenburu duena, "jazarpenezko indarkeria" pairatzen duten pertsonen buruzkoa da. Indarkeria hori ETAK erabiltzen du, gaur egun jarduten duen talde terrorista bakarra baita.

Horrez gain, zehaztutako bereziak alde batera utzita, terrorismoaren biktimen aipamenak zentzu zabalean egiten dira txostenean, zuzeneko eta zeharkako biktimizazioak eta jazo baino lehenagokoak hartuz, hau da, ETAK mehatxaturiko taldeetakoak izateagatik mehatxu lausoa bizi dutenak. Horrekin batera, herritar guztiek bizi duten biktimizazio soziala jorratzen da, nahiz eta, batez ere, talde profesional eta politiko jakin batzuegan duen eragina.

Txostenean azaltzen denez, terrorismoak milatik gora hildako eragin ditu –haien familia, lagun eta gertuko egoera islatzen da txostenean–, 16.000tik gora zauritu, milaka pertsonak Euskaditik alde egin behar izan dute erbestera, mehatxu terrorista edo bigarren biktimazioa saihesteko, eta, kalkuluaren arabera, une honetan 42.000 pertsona inguru pairatzen ari dira ETaren mehatxuak, estortsioak edo hertsapenak.

Burutu diren jarduerak eta politika publikoak:

Gaur egun badira terrorismoaren biktimentzako jarduera eta politika publikoak. Euskal herri-administrazioei dagokienez, politika horietako gehienek oinarrian Eusko Legebiltzarraren 2003ko ekainaren 25eko Legez Besteko Proposamen zabal eta oparoa dago, terrorismoaren biktimen egoera arintzeko neurriei buruzkoa. Legez besteko proposamen hori bozketan parte hartu zuten talde guztiek aho batez onetsi zuten.

Eusko Legebiltzarraren legez besteko proposamen hori, jakina, jarduera publikoak aztertzeko erabili dugun oinarrietako bat izan da. Euskal botere legegileak berak lan goresgarri eta emankorra egin du legebiltzarraren erabaki hori garatzeko. Horretarako, terrorismoaren biktimekin zerikusia zuten ekimen asko hasi ditu: Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaearen Batzordeak terrorismoaren biktimen egoeraz eta beharrez egindako azterketari buruz emandako irizpena, Eusko Legebiltzarraren osoko bilkurak 2005eko otsailaren 17 eta 18an onetsitakoa, horren barruan berariaz sortutako batzorde txostengileak lan nekeza eta zehatza egin eta gero; eta Eusko Legebiltzarrak onetsitako ebazpenak, 2007ko urriaren 26an terrorismoaren biktimez hartu ziren erabakiak betetzearen gainean.

Jarduera-multzo horren ondorio gisa, nabarmendu beharra daukagu lege erabakigarri bat onetsi zela, ia aho batez: hain zuzen, 4/2008 Legearen, Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egitekoa. Biktimak eskubideen subjektu bihurtzea da lege horren baliorik handiena. Era berean, biktimek aldarrikatutako hirukoa –egia, memoria eta justizia– 4/2008 Legeak aintzat hartutako eskubide-multzoa bilakatu da.

Nazioarteko araudian aintzat hartzen dira terrorismoaren biktimei aitorpena egiteko gutxienezko printzipio batzuk, elkarrekin lotuta daudenak. Horiek txostenean bildu ditugu eta, neurri handi batean, Estatuko eta erkidegoko araudietan sartuta daude.

Arartekoaren txosten honetan aztertu da, hain zuzen, erakundeek betetzen ote duten legebiltzar akordio horien eta EUDEL-en adierazpenen edukia, baita 4/2008 Legearen beraren edukia ere.

Txostenean azpimarratu denez, erakundeek terrorismoaren biktimei udal eremuan emandako erantzuna funtsezkoa da terrorismoari gizartean eta politikan legitimitasuna kentzeko. Horrela, agerikoa da euskal udal batzuk, ez asko baina bai eraginkorrak, biktimekin konprometitu daudela. Aldiz, euskal udalderri askotan ez da biktimen aldeko neurririk hartu, nahiz eta horietako batzuetan hildakoak eragin dituzten atentatuak gertatu diren.

EAEen demokrazia eta askatasuna defendatzeko hartu diren udal erabakiei buruz, zera esan dezakegu: EAEko 87 udalek –erakunde honek eskatutako informazioa bete dutenen %45ek– demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko udal erabakia hartu dute, betiere EUDELeK 2002ko maiatzaren 2an onetsitako adierazpen zibikoarekin bat etorriz.

Demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko tokiko foro bat bultzatzeko neurriak ez du oihartzun handirik izan Euskal Autonomia Erkidegoan. Erakunde honek eskatutako informazioa bete zuten 188 udaletatik 23k baino ez dute abian jarri ekimen hori.

Biktimen eskubideak:

Txostenaren V. atalean aztertu dira terrorismoaren biktimen eskubideak: **parte hartzeko, duintasuna izateko, ordain morala jasotzeko, justizia, egia eta memoria izateko** eskubideak. Biktimek hainbeste aldiz eskatu dituzten printzipio horiek eskubide gisa onartu dira ekainaren 19ko 4/2008 Legean.

Funtsezkoa eta ezinbestekoa den lege horretako aurreikuspenak islatzeko helburua izan arren, txostenean geure sistematika propioa erabili dugu; horrela, atal honetan bereizi egin ditugu parte hartzeko eskubidea, duintasuna izatekoa, ordain morala jasotzekoa, justiziarako eskubidea, egjarakoa eta memoriarakoa. Eskubide horiek ez dira eskubide itxiak, elkarrekin lotura dutenak baizik.

Parte hartzeko eskubidea, adibidez, biktimen eskubide bakoitzean islatzen den zeharkako eskubidea da.

Oso garrantzitsua da biktimek, Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseilua sortuz, beren elkarleen bidez duten partaidetza legean islatzea.

Hurrengo kapituluan honako hauek jorratu ditugu: biktimen **ordain pertsonala eta materiala** osasun, etxebizitza, enplegu, irakaskuntza eta trebakuntzaren esparruetan.

Era berean, erraz egiazta daiteke ekintza terroristak osasuna, etxebizitza, lana edo hezkuntza bezalako arloetan ondorioak dituela. Biktimarentzat funtsezkoa da laguntza psikologikoa lortzeko eskubidea eta berari kasu egingo dion profesionala aukeratzeko eskubidea izatea.

Txostenean grafikoki ageri den beste kontu bat hauxe da: ekintza terroristaren batek eragindako pertsonak lana lortzeko edo lehendik zeukatena mantentzeko zailtasunak dituztela.

4/2008 Legeak aintzat hartzen ditu, halaber, ekintza terroristek etxebizitzetan, merkataritza eta industria establezimenduetan edo alderdi politiko eta sindikatuen egoitzetan sortutako kalte materialen kalte-ordaina. Babes publikoko etxebizitzak esleitzerakoan, bada terrorismoaren biktimak lehenesteko xedapen bat.

Ordain moralerako neurriak mota ezberdinetako jardueren bitartez adierazten dira: jarduera batzuk sinbolikoak dira, eta beste batzuk, berriz, biktimen lekukotza bilatzen dute, edo haienganako errekonozimendua edo enpatia. Errealitatean, nekez bereizten dira ordain moralerako eskubidea eraginkor bihurtzeko neurriak eta duintasun, egia nahiz memoria eskubideei buruzko neurriak. Azken horiek, aldi berean, ordaina jasotzeko eskubidearekin lotuta daude, terrorismoari legitimotasuna kenduz berriro halakorik ez gertatzeko bermeak ematearen ikuspegitik.

Bestalde, ez da ahaztu behar 4/2008 Legean **egia** ezagutzeko eta **memoria** izateko eskubideak ez direla soilik biktimen eskubide gisa agertzen, baizik eta gizarte osoaren eskubide gisa.

Gai-multzo hau VII. atalarekin bukatzen da. Kapitulu horren gaia **bizikidetzaren bakean eta askatasunean garatzeko eskubidea** da: gizarteak eta balio demokratikoei, baita biktimei ere, terrorismoari legitimazioa kentzeko duten interesa, hedabideen bitartez eta indarkeria terrorista prebenitzeko hezkuntzaren bitartez.

Hedabideak eta hezkuntzako instantziak funtsezko eragileak dira terrorismoari legitimotasuna kentzeko, eta txostenean atal bat eskaini zaie gai horiei. Atal horren barruan, honako gai hau lantzen duen beste txosten berezi bateko zati bat transkribatu dugu: Euskadin adingabeek zer balio dituzten giza eskubideen arloko gai esanguratsu batzuei buruz, eta balio horiek zein bidetatik bereganatzen dituzten. DBHko euskal ikasle batzuei galderasorta luzea egin ondoren, informazio oparoa atera da: hain zuzen ere, hamar nerabetatik zazpi ETaren ekintza terroristaren kontra agertzen dira, baina %15ek ez du ekintza terrorista hori gaitzesten, edo justifikatu egiten du, eta beste %14ri ez zaie axola edo ez dute iritzirik ematen.

Txostenean **biktimei hitza ematen zaie**; horrela, biktima asko batzen dituzten **elkarteen eta erakundearen bitartez**, beraien eskakizun eta iritzien bitartez, pixkanaka azaleratuz doaz politika publikoek ase beharko lituzketen beharrak. Nabarmendu beharra dago biktimentzako politikak ezin direla laguntzeko politika soilizat bakarrik hartu. Biktimek egia, memoria eta justiziarako eskubideak aitortzea nahi dute, jendaurrean gainera, ez bakarka.

Jazarpenezko indarkeria:

Eskubide-urratzerik larrienetako bat Euskadin mehatxu edota hertsapenen biktimei egiten zaiena da, alegia, **jazarpenezko indarkeria** deritzana.

Milaka pertsonak jasaten dute:

- askatasunerako eskubidearen urratzea eta beren biziaren eta osotasun fisiko eta moralaren kontrako mehatxua;
- jazo baino lehenagoko biktimizazioak berekin dakarren higadura;

- beren bizitzako denbora berreskuratzeko ezintasuna, jazarpeneko indarkeriaren mende daudelako;
- beren bizitzako alderdi guztietan eragina izatea, nagusiki beren familia-bizitzan.

Hertsapen eta mehatxu terroristen mende bizi diren pertsonen kalitateko babesa eskatzen dute, baita ere arreta publikoko neurrien bidez aitortza egitea eta gizartearen kontzientziatuz eta erakundearen laguntzaz egoera hori prebenitzea.

Ondorioak eta gomendioak:

Azkenik, ondorioak eta gomendioak biltzen dituen atala dugu. Atal hori sistematizatzeko asmoz, 4/2008 Legean bertan jasotako biktimen eskubideak aukeratu ditugu. Eskubide horietako bakoitzean, burutu litezkeen ekintza zehatz batzuk adierazten dira.

Txostenean, mahai gainean jarri nahi izan ditugu antzemandako beharrek, biktimen elkarrekin iritziekin edo azterlan honetan zehar egin diren diagnostikoekin zerikusia duten hainbat proposamen.

Txostenean bildutako neurri horiek denak hiru ekintza-lerrotan labur litezke:

- a) Terrorismoaren biktimen duintasun, memoria, egia eta justiziarako eskubideak betetzen lagunduko duten neurriak.
- b) Biktimek erreparazio integrala jasotzeko eskubidea betetzen lagunduko duten neurriak. Horretarako, ezinbestekoa da 4/2008 Legea arau bidez garatzea, oraindik egiteko baitago.
- c) Terrorismoaren deslegitimazio etiko, sozial eta politikoa lortzeko neurriak.

1.2. ADINGABEKOEI BALIOAK TRANSMITITZEARI BURUZKO TXOSTEN BEREZIA

Irailaren 28an eman zitzaion Eusko Legebiltzarreko lehendakariari *Adingabekoei balioak transmititzea* izenburuko txosten berezia. Geroago, 2009ko azaroaren 25ean, Legebiltzarreko Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaren Batzordearen aurrean aurkeztu zen.

Txosten bereziaren gaia:

Txosten hau egiteko ia 2 urte behar izan dira. Bertan zera aztertzen da: gure erkidegoko adingabeek oinarriko balio batzuk zenbateraino bereganatzen dituzten, eta gizarte-eragileek zenbaterainoko indarra edo eragina duten balio horiek helaraztean edo eraikitzean.

Ararteko erakundearen aburuz, balioen gaia funtsezkoa da. Egiaz, lehenagoko beste txosten batzuetan ere aztertu izan dugu gai hori, zehazki hezkuntza-sistemako bizikidetzeta eta gatazkak aztertu genituen txostenean (2006. urtearen bukaeran argitaratua), eta, berrikiago, terrorismoaren biktimei buruzko txostenean. Oraingo honetan, azterketa sistematikoagoa da, eta bereziki **balio nagusi** batzuk hartu dira kontuan: sexuaren, jatorriaren, etniaren, ezgaitasunaren edo sexu-joeraren arabera desberdintasuna onartzea; indarkeria terrorista gaitzestea edo onartzea; ingurumena errespetatu eta zaintzea... Balio horiek funtsezkoak dira gero eta askotarikoagoa den gizarte batentzat, gizarte horretan denen eskubideak gehiago errespetatu daitezkeen eta bizikidetzeta baketsua izan dadin.

Sozializazio-eragile edo balioak helarazteko eragileei dagokienez, eragile klasikoak aztertu dira (familia-ingurunea, eskola-ingurunea, berdinen taldea, eta abar), baina gero eta indar handiagoa hartzen ari diren beste batzuk ere bai, hala nola hedabideak edo teknologia berriak, gure adingabeek sarri erabiltzen baitituzte eta beraien artean gero eta zabaldutako baitaude.

Asmo handiko txostena da, bai helburuen aldetik bai metodologiaren aldetik. Are gehiago, esan genezake txosten batean bateratutako hainbat txosten ditugula hemen, kontuan hartu diren gaiak, aztertu diren adinak nahiz informazio-iturriak askotarikoak izaki. Horrela, txostenean **hiru adin-talde** bildu eta sistematikoki aztertu dira. Adin-talde horiek bat datoz hezkuntzako hiru ziklo edo etaparekin: 8-10 urte (Lehen Hezkuntzako 2. zikloa); 10-12 urte (Lehen Hezkuntzako 3. zikloa); 12-16 urte (DBH). Horretarako, propio taxuturiko galdera-sortak erabili dira **1.829 ikaslez osatutako lagin** zabal batekin. Horrez gain, eztabaida-talde batzuen bidez, nerabeen beren, haien aita-amen, irakasleen eta hezkuntzako beste profesional batzuen iritzia eta proposamenak jaso dira. Txostenetan bertan, bereiz aztertzen da adin bakoitzerako lortu den informazioa, zein bere kapituluan.

Galdera-sorten bitartez eskuratu diren datuak aztertzeko, **hainbat aldagai** baliatu dira: sexua; adina; jatorria; hezkuntza-sarea; lurralde historikoa; hizkuntza-eredua.

Orobat, informazio hau biltzen da:

- Zer balio- eta kontrabalio-eskala duten.
- Zer gizarte-eragileri ematen dioten balio handiagoa edo balio gutxiago.
- Zer praktika dituzten, esate baterako, teknologia berrien erabileran.
- Nola erabiltzen duten aisialdia.
- Zenbaterainoko tolerantzia- edo intolerantzia agertzen duten desberdintasun jakin batzuen aurrean.
- Zenbateraino dauden konprometituta ingurumenarekin.
- Zer jarrera duten ETArek eta indarkeria erabiltzearen aurrean, baita tortura eta tratatu txarren edo presoek eskubideen aurrean ere...

Arlo horietako bakoitza, berez, txosten bat osatzeko lain litzateke. Horrenbestez, ez da erraza garrantzitsuenak edo kezkarrienak zeintzuk iruditzen zaizkigun adieraztea. Ikuspegi orokor batetik, gutxienez ondorengo zortzi hauek nabarmendu daitezke:

1) Desberdintasuna ez onartzea

Pertsona guztiak errespetatzea eta desberdintasuna onartzea hartu nahi izan dira, zailtzarrik gabe, txosten honen ardatz nagusi gisa. Desberdintasunek zein jatorri duten, aldatu egiten dira tolerantzia eta intolerantzia mailak, txostenean ikusten denez. Halaber, adingabeen sexuak ere aldaketak eragiten ditu: neskek, oro har, errespetu eta tolerantzia handiagoak erakusten dituzte. Jarrera horien bilakaera arretaz aztertu beharko litzateke. Gai horri dagokionez, kezkarriena zera da: bide egokian zenbait urrats egin diren arren, intolerantziaren seinale garrantzitsuak ikusten direla oraindik ere, sexismo, arrazismo, xenofobia edo homofobia moduan. Beraz, oraindik asko dago egiteko desberdina onartua izan dadin, eta hori ezinbestekoa da gero eta pluralagoa den gizarte batean.

2) Eskubideak gutxi errespetatzen dituzten jarrera edo jokabide batzuen hedadura

Txostenean aipatzen da, esate baterako, zigor fisikoa gizartean onartuta dagoela edo zigor fisikoaren erabilera zabalduta dagoela (belarrondokoa, portaerak zuzentzeko erabil daitezkeen tresna gisa); edo indarkeria onartu eta erabiltzen dela gatatzeko konpontzeko bide gisa, bai berdinen arteko bizikidetzan, bai gizarteko edo politikako arazoetan ere.

3) Adinean aurrera egin ahala gertatzen diren eboluzio negatibo batzuk

Espero izatekoa litzateke adinean aurrera egin ahala, funtsezko balioak gehiago finkatzea, arduraren handiagoa, errespetu handiagoa izatea, e.a. Txostenak agerian uzten du ez dela beti hala gertatzen, ezta oso arlo zehatzetan ere, hala nola familia-inguruneke zeregin berezietan edo irakurketan (zenbat eta nagusiago izan, orduan eta liburu gutxiago irakurtzen dituzte).

4) Hezteko eginkizuna betetzen ez duten familiak egotea

Txosten honek argi erakusten du, erakutsi ere, familiak nolako garrantzia duen balioen transmisioan. Ez dago pareko garrantzirik duen beste gizarte-eragilerik. Horregatik,

hain zuzen, kezkarria da ikustea familia frankok ez dutela betetzen hezteko duten eginkizuna, hainbat arrazoi direla medio (astirik ez; gaitasunik ez; eredu txarra; kontrabaliok bereganatu eta transmititzea; eta abar).

5) **Teknologia berriak eta hedabideak gehiegi edo era kaltegarrian erabiltzea**

Ziurrenik, arlo horri buruzko beste txosten batzuk egin beharko dira aurrerago, bereziki aztertzeko. Beste arrazoi batzuen artean, azkar eta etengabe aldatzen ari delako. Dena dela, nahiz eta txosten honetan alderdi hori ia zeharka aztertu den, dagoeneko datu ugari ditugu esku artean gazteek IKTak (zehazki, telebista, bideo-jokoak, Internet, sakelako telefonoa) zuzen edo gehiegi erabiltzeari buruz, eta erabilera horietako batzuk haien garapenerako kaltegarriak dira, argi eta garbi: denbora luzeegian erabiltzea; gurasoen kontrolrik gabe edo ia kontrolrik gabe; praktika arriskutsuak (datu pertsonalak ematea, ezezagunekin hitzorduak jartzea, sarean jazartzea edo jazarria izatea, eta abar); bideo-joko sexista edo indarkeriazkoak kontsumitzea (mutilen artean, batik bat); edo telebista aurrean ordu gehiegi ematea (gainera, arrazoi horregatik eztabaidak sortzen dira).

6) **Arlo honetan eskolak duen betekizun mugatua**

Datu guztiek agerian uzten dute eskolak balioen transmisioan duen betekizuna mugatua dela; horrek ez du esan nahi, ordea, garrantzirik ez duenik. Hori, berez, ez litzateke datu kezkarri bat, egiaztapen bat baizik. Kezkarria, benetan, zera da: hori horrela izanik, hezteko eginkizun osoa eskolari bizkarreratzen jarraitzen dugula, eta ez diogula arretarik eskaintzen hori bezain garrantzitsuak edo garrantzitsuagoak diren beste eragile batzuei, hala nola familiari edo teknologia berriei eta hedabideei. Koherentziagatik baino ez bada ere: batak besteak egindako eraikitze-lana ez eraistegatik.

7) **Kontrabaliok jakin batzuek duten hedadura eta garrantzia**

Hemen kontuan hartu diren balio-eskalen artean, balio materialistak nagusitzen dira batez ere, haietako asko kontsumoari eta modei lotuak.

Jakina, gizarteko giroan dauden balioak eta kontrabaliok dira, ez adingabeenak bakarrik, ez eta haiek sortuak ere, baina horrek ez du kezka gutxitzen.

8) **Nerabe batzuek ETaren aurrean dituzten jarrerak**

Gai hau terrorismoaren biktimei erakundeek emandako arretaz Arartekoak egin zuen txostenean aurreratu eta berariaz aztertu zen.

Gure gizartean ETaren indarkeria terroristak 40 urtez iraun du, alajaina! Eta oraindik ere jarrai dezake. Horregatik, oso kezkarria da ikustea gure erkidegoan oraindik badagoela nerabe-multzo bat hura, neurri handiago edo txikiagoan, aldeztu duena, edo, bederen, gaitzesten ez duena. Hori hala izanik ere, zorionez, gehienek arbuia egiten dute.

Halaber, oso kezagarria da ikustea, nerabeen beren erantzunen arabera, ETAren aldeko jarrera horiek familia-ingurunean transmititzen direla, eta beste ingurune batzuetan indartzen (lagun-taldean; eskola ingurunean), inhibizioen eta isiltasunen bidez eta, areago, haren egokitasunari eta baliagarritasunari buruzko mezu esplizituen bidez.

Orobat, kezka sortu digu honako hau egiaztatzeak: badira, gutxi izanda ere, giza eskubideekiko errespeturik erakusten ez duten jarrerak, indarkeria terroristarekin lotutako beste gai batzuei dagokienez: esaterako, tortura eta tratu txarrak eta presoek esku-bideak.

Elementu positiboak:

Alabaina, txosten honetan **elementu positibo asko** nabarmendu genitzake. Adibidez:

- Adingabeak oso pozik agertzen dira, oro har, familiarekin, irakasleekin, lagunekin, eta abarrekin.
- Terrorismoaren biktimei babes handia eskaintzen diete.
- Ingurumenaren aldeko kontzientzia nahikoa zabaldua dago, teoriaren aldetik, bederen.
- Elkartasuna agertzen dute ahultasun-egoera jakin batzuen aurrean (esaterako, ezgaitasunen aurrean).
- Eta, oro har, hemen aztertu diren alderdi edo balioei dagokienez, askok pertsonen eskubideekiko errespetuzko jarrerak erakusten dituzte edo, desberdintasunaren aurrean, jarrera irekia eta onartzearen aldekoa dute. Ia beti, horiek gehientsuenak izaten dira, intoleranteen aldean.

Gomendioak:

Txosten honetan **gomendio batzuk** egiten dira bukaeran. Kasu honetan, zehazki, 20 gomendio.

Beharbada, aztertu diren arlo bakoitzerako gomendio bereziak egin zitezkeen: sexuen arteko berdintasunari buruz; etorkinei dagokienez, jatorrizko desberdintasunak onartzeaz; ijitoak onartzeaz; sexu-joera desberdinak onartzeaz; ezgaitasunen bat duten pertsonak onartzeaz; ingurumena zaintzeaz; indarkeria gaitzesteaz, pertsona guztien giza eskubideak errespetatzeaz. Hobe iruditu zaigu, ordea, beste eskema bat erabiltzea; horrela, gomendioak zeini egiten zaizkion aintzat harturik ordenatu dira:

- Gizarte osoari eta gizarteko erakundeei dagozkien gomendioak (1.gotik 3.era bitarteko gomendioak).
- Familiaren gaineko gomendioak (4.etik 7.era bitartekoak)
- Hedabideentzako gomendioak (8.etik 10.era artekoak).

- Teknologia berriei buruzko gomendioak (11 eta 12.ak).
- Hezkuntza-sistemarentzako gomendioak (13.etik 19.era bitartekoak).
- Eta balioen bilakaera aztertu beharri buruzko gomendio bat (20. gomendia).

Era horretan, argiago nabarmentzen da zer ardura duen gizarte osoak, gizarteko erakunde bakoitzak eta belaunaldi berrietan balioak transmititzen eta eraikitzen parte-hartze zuzenena duten gizarte-eragileetako bakoitzak. Izan ere, eragile guztiek koherentziaz eta etengabe norabide berean jardunez soilik lor daiteke haurrek beraien balioetat hartzea bizitza sozialerako oinarritzotzat jotzen diren balioak. Osterantzean, nork bere bideari jarraitzen badio, beste batzuek behin eta berriz zalantzan jarriko dute eta suntsitu egingo dute eragile batzuek egindako eraikitze-lana. Are gehiago kontuan hartzen bada balioen transmisioan jarraibidea ematea dela, ziur aski, eskura dauden tresnetatik garrantzitsuen eta eraginkorrena.

- Horrexegatik adierazi dugu lehen hiru gomendioetan **balioen arloan gizarte-erantzukizuna sustatu behar dela**, eredu txarrak edo kontrabalioak ekidin behar direla eta gizarte-sentsibilizazio handiagoa erdietsi behar dela, erakundeen buruzagitzaren bitartez.
- Halaber, horrexegatik egin dira txosten honetan **lau gomendio familien gainean**. Gomendio horien bitartez, helburuok lortu nahi dira: familiarekin igarotzen den denbora hezkuntzarekin bateragarri egitea eta hezkuntzarako aprobetxatzea; gurasoen heziketa erraztea, esaterako, haiei teknologia berrien erabilera kaltegarrietatik babesteko tresnak emanaz edo haiekin hainbat trebetasun landuz, errefortzu positiboaren erabilera, kasu; seme-alabek etxeko eginkizunetan ardura bere gain har dezaten erraztea, pixkanaka (adinean aurrera egin ahala) eta berdintasunez (sexu biekkin).
- Badira **hedabideentzat hiru gomendio** ere, **bereziki telebistentzat**, telebista asko ikusten baita adin txikietan. Haurrentzako ordutegietan programazioa bereziki zaindu dadin eskatzen da (hau da, babes handieneko ordutegian, hori jada araututa baitago, sarritan betetzen bada ere), telebistako produktuen kalitatea eta horien bidez helarazten diren balioak sustatzea. Gainera, hedabideetan parte hartzeko, horiek kontrolatzeko eta horien bilakaera aztertzeko organoak direla eta –Eusko Legebiltzarrari dagokio gai hori–, egungo araudia berriz azter dadin proposatu dugu, haurren eskubideak babestean berme handiagoa lortzeko, kontu hori ez baita aintzat hartzen orain indarrean dagoen araudian.
- Orobat, **bi gomendio berezi egin dira teknologia berrien inguruan**. Lehenengoaren bidez, hobeto jakin nahi da adingabeek teknologia berriak nola erabiltzen dituzten, eta etengabe eta azkar aldatuz doan gai horren ezaguera gaurkotua eduki nahi da; bigarren gomendian, adingabeen eskubideak babestearren, baliabide horiei buruzko hainbat gauza arautu beharra dagoela adierazten da. Azken gai hori oso eztabaidatua izan da azken urteotan Europako erakundeetan eta haurrak babesteko erakundeetan.

- **Gomendio gehienak hezkuntza-sistemarentzat dira.** Batzuetan, gomendio berriak dira; beste batzuetan, berriz, Arartekoaren aurreko txostenetan egin ziren gomendioak, baina orain, datu berrien argitan, gehiago zehaztu nahi direnak:
 - ikastetxe guztietan barneratzea eta dibertsitatea erraztu behar dira, desberdintasuna baloratzen ikasteko eta harekin bizitzeko biderik onena baita; beraz, ghettoak sortzea eragotzi behar da, hori egiaz gertatzen baita zenbait ikastetxetan;
 - familien eta irakasleen arteko lankidetzak hobetu behar dira;
 - gurasoen eskolak bultzatu behar dira, edo balioetan oinarritutako heziketa lantzea ahalbidetuko duten beste hezkuntza-bide batzuk;
 - irakasleen turoretza-lana indartu behar da;
 - ikuspegi horretatik begiratuta, berriz aztertu behar da herritarrentzako hezkuntza ezartzea;
 - adingabeek berek eskolako dinamikan dituzten partaidetza eta erantzukizuna hobetu behar dira, hori beraien eskubidea eta betebeharra baita, aldi berean;
 - lankidetzak bidezko metodologiaren alde egin behar dira. Metodologia horietan gauzatzen dira hemen aztertutako balioetako asko: desberdintasunak onartzea, gatazkak modu praktikoan konpontzea...

- Bukatzeko, txostenean azken gomendio bat egin dugu: **aldizka azterketa bat egin beharra dagoela haurren eta nerabeen balioen eboluzioari buruz** (haurrek eta nerabeek osatutako biztanleria, normala denez, aldatu egiten da urte batetik bestera). Horrela, aurrerapenak edo atzerapenak egiaztatu ahal izango dira, eta, orduan, indartzeko nahiz zuzentzeko neurri egokienak hartu.

1.3. TRANSGENEROEN ETA TRANSEXUALEN EGOERA EUSKADIN IZENBURUKO TXOSTEN BEREZIA

Urriaren 26an eman zitzaion Eusko Legebiltzarreko lehendakariari *Transgeneroen eta transexualen egoera Euskadin* izenburuko txosten berezia. Geroago, 2009ko abenduaren 22an, Legebiltzarreko Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaearen Batzordearen aurrean aurkeztu zen.

Txosten bereziaren gaia:

Transexualak eta transgeneroak oso egoera ahulean eta arrisku larrian egoten dira beren oinarritzko eskubideak gauzatzeko orduan, batik bat berdintasunerako eta bereizkeriarik ez jasateko eskubideari eta osasunerako eskubideari dagokionez.

Txosten honen helburu nagusia izan da pertsona horien egoera ezagutzea, zer baliabide dituzten eta gure gizarteak beren arazo bereziari zer erantzun ematen dion jakitea; hori guztia, berdintasuna sustatu eta beren eskubideak baliatzeko aurkitzen dituzten oztopoak kentzeko asmoz.

Txostenean egiaztatu denez, bide luzea egin da 1979an transexualitatea zigortzea atzean utzi zenetik:

- martxoaren 15eko 3/2007 Legea, pertsonen sexuari buruz erregistroan egiten den aipamenaren zuzenketa arautzen duena, oso gertaera garrantzitsua da, dudarik gabe, pertsona horien eskubideak onartzeko;
- baita ere transexualen behar terapeutikoak aztertzeko asmoz Eusko Legebiltzarrean 2007an aurkeztu zen lantaldearen txostena: hori abiapuntu hartuta, Eusko Jaurlaritzari eskatu zitzaion prestazioen katalogoa eguneratu zezala eta Euskadi osorako erreferentziako unitate zentralizatu bat sor zezala, diagnostikoak eta orientazio terapeutikoa egiteko;
- genero identitatearen nahasteak artatzeko erreferentziako zentroak edo unitateak sortu eta horiei dagozkien protokoloak onartzea ere aurrerapen handia izan da, pertsona horien behar terapeutikoez arduratzeari dagokionez;
- sexua berresleitzeko ebakuntzen edo kirurgia plastikoen gastuak ordaintzeko ematen ziren diru-laguntzak, behin-behineko konponbide gisa, pertsona horientzako tratamendu klinikoari osasun publikoaren eremuan modu egokian eta osoki heltzen ez zitzaion bitartean;
- Osasun eta Kontsumo Sailak hasi berri duen bidea, kirurgia tratamendua EAEko osasun sistema publikoaren prestazioen katalogoan sartzeari buruz.

Hala eta guztiz ere, ondorioztatu dugu oraindik bide luzea egin beharra dagoela pertsona horien funtsezko eskubideak benetan eta modu eraginkorrean erabiltzeko.

Txosten honetan transgeneroen eta transexualen beren testigantza ugari bildu dira. Horiei esker, beraien errealitatera, beraien bizipenetara hurbil gaitzeko. Beraz, badakigu noiz

hasten diren sentitzen sexu biologikoa eta beren baitan berea sentitzen dutena ez datozela bat; badakigu nola bizitzen duten esperientzia ia beti mingarri hori haurtzaroan, nerabezaroan, gaztaroan eta helduaroan; badakigu gizartean zer erantzun aurkitzen duten hori guztia adierazi baino lehen eta geroago; badakigu gertatzen zaienaz ohartzeko direla; badakigu nola erreakzionatzen duten familiek, lagunek eta laneko inguruak...

Pertsona horien beharrei eta gizarteak nahiz herri-administrazioek eskaintzen duten erantzunari ere heldu diegu. Antzeman dugunez, beraien behar nagusia begirunezko tratu berdina jasotzea da, bereizkeriarik gabea, eta modu egokian gizartratzea. Behar horiek aseko badira, bereziki garrantzitsua da erregistroko datuak beren egiazko identitateara egokitzea eta osasun arloan erantzun ona ematea.

Azterketa egin ondoren, transexualitatea eta transgeneroa gizartearentzat ezezagunak direla egiaztatu dugu. Transgeneroak eta transexualak askotan estereotipo negatiboekin berdintzen dituzte, eta batik bat ikuskizunen munduarekin edo marjinazioarekin lotzen dituzte. Hala ere, errealitateak erakusten digu hori ez dela horrela. Era askotako lan-eremutan burutzen dute beren jarduera lanean dabiltzanek, eta horien guztien prestakuntza edota zertzelada sozial eta pertsonalak ere askotarikoak dira.

Pertsona arruntak dira, bakoitzak bere berezitasunak dituela, beste edonor bezala. Sentitzen duten sexuan garatzeko hautua ez da fribolitatea edo apetaldia. Aitzitik, genero identitateak eta giza duintasunak eragiten du.

Ezaugarri komun bat dute: beren genero-identitatea gizarteak markatutako arauetatik kanpo bizi dute, hau da, onartuta dagoen gizon-emakume dualtasunetik kanpo; dualtasun horri jarraiki, pertsona bat "gizon" kategorian edo "emakume" kategorian sartzen dute jaiotzaz duen sexu biologikoaren arabera. Genero-identitatea bizitzeko modu horrek alde batera uzten du kategoria bakoitzerako espero diren rolak betetzeko exijentzia.

Zertzelada berezi horrekin batera, sufrimendu izugarria sentitzen dute, eta sufrimendu hori larriagotu egiten dute gizartearen onespenei ezak eta arbuioak. Transgeneroen kasuan, beren anbiguotasuna are gutxiago ulertzen du gizarteak, eta gaitzespen handiagoa sortzen du. Transgeneroen eta transexualen sufrimendua familietaraino iristen da.

Azken batean, zertzelada berezi horren ondorioz, pertsona horiek gizartearen eta osasun-sistemaren berariazko erantzuna eskatzen dute.

Adinak, laneko egoerak eta egoera sozio-ekonomikoak, jatorriz bertakoa edo atzerritarra izateak, familiak haiek onartu ala ez onartzeak eta abarrek bereziki eragiten dute pertsona horiek gizartratzean. Egiaz, transgenero eta transexualen taldearen barruan, honako hauek dira ahulenak: umeak eta nerabeak, adinekoak, transgeneroak, emakume transexualak, jatorrizko herrialdean legez izena aldatu ez duten etorkinak, egoera ekonomiko eta sozial prekariora bizi duten pertsonak, erregistroan sexua eta izena aldatu ez dituzten eta genero indarkeria sufritzen duten emakume transexualak, buru-nahasteak dituzten pertsonak,

prostituzioan aritzen diren emakumeak edo espetxeetan dauden pertsonak eta beren sexu nortasunagatik jazarriak direlako errefuxiatuak daudenak.

Transexualen eta transgeneroen eskubideak bermatzeko orduan oztopoak edo eragozpenak diren elementu batzuk identifikatu dira, baita eskubide horiek bermatzen laguntzen duten beste batzuk ere. Lehendabizikoan artean, honako hauek azpimarratuko ditugu:

- pertsona horiek psikologikoki eta pertsonalki jasaten duten higadura, sufrimendua-ren, minaren eta bakardadearen ondorioz
- autohormonazioa
- kopuruz gutxi izatea
- gizarteak onartuta dauka bi sexu eta, beraz, bi genero daudela
- transexualitatea eta transgeneroa gehiegi patologizatzea edo medikalizatzea
- bizitza errealean testa egin behar izatea
- erregistro zibilean sexuaren aipamena eta izena aldatu ahal izateko bi urte itxaron behar izatea
- tratamenduari ekiteko adinez nagusi izan behar izatea
- transexualitateaz eta transgeneroaz jakintza eta ikerkuntza murrizak izatea
- alor ezberdinetako langile askok (hezkuntzan, osasunean, gizarte hezkuntzan, eta abar) ez dute ia interesik eta batzuetan berdin zaie arreta egokia ematea
- arreta baliabideen ikus ezintasuna eta deskoordinazioa
- arreta-protokolo estandarizatu eta konpartiturik ez egotea
- adimen gaixotasuna duten pertsonak baztertzea transexualak eta transgeneroak identifikatzeko irizpideetatik
- pertsona hauen irudi okerra, sentsazionalismoari orientatua, komunikabideetako askok eskaintzen dutena

Lagungarri diren faktore gisa, hauexek aipatuko ditugu:

- talde horrek antolatzeke eta errebindikatzeko gero eta ahalmen handiagoa du
- egoerari aurre egiteko baliabideak eta informazioa bilatzeko garatu duten gaitasuna
- gizarte eta osasun arretako baliabideetara gero eta gehiago hurbiltzen ari dira
- diziplinarik sozialenen ekarpenak, transexualitatea eta transgeneroa, borondatearen, aniztasunaren eta erabakitzeke eskubidearen ikuspegitik interpretatzen baitituzte
- Gurutzetako Ospitalean Genero Nortasuneko Trastornoak Diagnostikatzeko eta Tratatzeko Unitate berria eta dagokion osasun arretako protokoloa
- herritar batzuek pertsona hauen errealtatea ezagutu eta haietaz dauden estereotipoak gainditu nahi dituzte
- Administrazio publiko batzuek gero eta interes handiagoa daukate pertsona horien beharizanak ezagutzeko eta arreta emateko

Ezagutu ditugu pertsona horien errealtatea, beharrak eta eskaerak, baita gizarteak eta euskal herri-administrazioek emandako erantzuna ere. Hori egin eta gero, Ararteko erakundeak, aurreko txostenetan bezalaxe, zenbait proposamen egin ditu, guztira 27 gomendio,

honako arlo hauetan: gizartea sentsibilizatzea, herritarrei informazioa ematea, hezkuntza-aren eta lanaren eremuetan bazterketari eta bereizkeriari aurrea hartzea, administrazioaren azpiegiturak eta arreta-zerbitzuak egokitzea, gizarte- eta osasun-arreta, transexualek eta transgeneroek gizartean parte hartzea, edo esparru juridikoa egokitzea, haiei babes handiagoa emateko asmoz:

1. **Transgenero eta transexualitateari buruzko informazioa emango duten** ekimenak abiatzea, transgenero eta transexualen arazoan gainean gizarteak duen ezagutza zabaltzea eta egun dauden estereotipoak eta aurreiritziak gainditzea.
2. Gaia lantzen den esparru ezberdinetan, transexualitatea sexu biologikoaren eta genero identitatearen arteko disoziazioa den **egoera pertsonal** gisa hartzearen alde egitea, gutxiespena edo estigmatizazioa eragiten duten konnotazioak alde batean utzita.
3. **Jardunbide egokiei buruzko eskuliburu**en sorrera sustatzea eta horiek betetzea. Hedabideetara bideratuko dira horiek, transgenero eta transexualitateari buruzko informazioa trataera egokia eman dezaten eta estereotipo negatiboak indartzen dituzten kasu edo albisteetan sakontzea saihesten dezaten. Hedabideetan, transgenero eta transexualitateari buruz dagoen informazioaren izaera plurala eta bazterkeriarik gabea bultzatu.
4. Pertsona transgenero eta transexualei arreta emateko dauden **baliabideen berri emateko ekintzak** sustatzea. Bereziki hainbat erakunde publikok eta transexualei eta LGTBI talde osoari arreta emateko elkarteek finantzatzen dituzten arreta zuzeneko zerbitzu publikoen berri hedatu behar da.
5. Eskola giroan transgenero edo transexualek jasaten duten **bortizkeriazko edo gizarte bazterkeriazko edozein formari aurrea hartzeko neurri bereziak** garatzea.
6. Bazterkeria, bereizkeria edo edozein motatako indarkeria (erasoak, jazarpenak, zigorrak) pairatzen duten **ikasle transgenero eta transexualei laguntza eta babes egokia ematea**.
7. Egoki diren mekanismoak bideratu, konfidentzialtasunez eta aurretik ziurtatuta, ikasle transexual eta transgeneroei beren **sexu psikosozialari dagokion ize-inez** dei diezaieten irakasleek, ikasleek eta zentroko langileek. Era beran, izen hori agertu behar da zentroko ohar tauletan eta agiri administratiboetan.
8. Beharrezko neurriak bideratu euskal administrazio publikoen jardunean aintzat har dadin **pertsonen beren sexu identitatearen arabera tratua jasotzeko duten eskubidea**. Aurretik transexualak direla ziurtatu beharko dute. Ildo horretatik, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren pertsona guztiak eskubide hori baliatu ahal izango dute, jatorriz nongoan diren edo beren legezko egoera edo administrazioa zein den aintzat hartu gabe.
9. Beharrezko neurriak hartu euskal herri-administrazioetako langileek, eta bereziki herritarrekin zuzenean harremana dutenek (epaitegietan, polizia-etxeetan, osasun zentroetan, arreta zuzeneko zerbitzuetan, etab.) transexualitateari eta transgeneroari buruzko **prestakuntza egokia** izan dezaten, pertsona horiek errespetuz tratatzeko helburuarekin.

10. **Prestakuntza** eman transgenero eta transexualitate esparruan, pertsona horiei arreta ematen aritu daitezkeen profesionalei: medikuntzakoak, gizarte heziketakoak, psikologiakoak, zuzenbidekoak, sexologiakoak, gizarte langintzakoak, etab. Prestakuntza horren baitan jaso pertsona horiei arreta emateko dauden baliabideen ezagutza.
11. Kirol instalazio publikoetan, ikastetxeetan, adineko pertsonen egoitzetan, ezintasuna duten pertsonen egoitzetan, igerilekuetan, komunetan eta dutxa publikoetan **ekipazioa egokitzea**, zentzuzko denbora tartean, aldagela eta dutxa indibidualak egon daitezzen. Horren bidez pertsonen intimitatea eta duintasuna gordeko baitira.
12. Pertsona horientzako zerbitzu eta baliabideen artean dagoen **koordinazioa** hobetzea, baita horien eta gizarte zerbitzuen artean dagoena.
13. **Aholkularitza juridiko** egokia ematea transgenero eta transexualak zuzenean hartzen dituzten eta erakunde publikoek finantzatzen dituzten zerbitzu publikoetan.
14. Pertsona horiek **lanean txertatzea erraztea**, lanerako sarbidea berdintasun egoera bizi dutela bermatuta. Laneko bereizkeria kontrolatzeko lanabes aktiboen eraketa eta erabilera sakontzea. Sindikatuak eta enpresa erakundeak sentsibilizatu eta informazioa ematea, pertsona horien laneko bereizkeria saihesteko.
15. Bereziki zaurgarriak diren taldeek (prostituitzen diren emakume transexualak, espetxeetan dauden transexualak, egoera irregularra duten transexual etorkinak, etab.) herritar guztiek sarbide duten **egungo gizarte estaldurak** bermatuta izan ahal izateko, egun dauden oztopoak kentzea.
16. Egun dauden gizarte- eta osasun-baliabideek modu egokian funtziona dezaten zaintzea, arreta-baliabide horiek transexual eta transgeneroen **familiei laguntza neurriak** eskainiko dizkietela ziurtatzeko.
17. Zenbait neurri hartzea **sexua berresleitzeko tratamendu osoari buruzko osasun prestazioa** EAEko osasun sistema publikoak finantzatzeko gainontzeko prestazioak bezalaxe egin dadin, Osasun eta Kontsumo Sailak pertsona horien behar terapeutikoei erantzun osoa emateko aurreikusi dituen jarduerak gauzatu bitartean.
18. Beharrezko neurriak sustatzea Gurutzeta Ospitaleko Genero Identitatearen Nahasmenaren Diagnostiko eta Tratamendu Unitatea eta, beharrezkoa bada, **dagokion kirurgia egiteko esleituko den beste unitatea egokiro koordinaturik egon daitezzen**.
19. Modu eraginkorragoz ezagutzera ematea Gurutzeta Ospitaleko **Genero Identitatearen Nahasmenaren Diagnostiko eta Tratamendu Unitatea**, behintzat transgenero eta transexualak gertuagotik tratatzen diren arreta esparruetan.
20. Transexualitatearekin eta transgeneroarekin lotuta erregistratzen diren aurre-rapen zientifiko eta teknologikoen arabera **mediku jardunaren eguneratzea bultzatzea**.
21. Beharrezko osasun bermerik **gabe autohormonatzea edo protesiak jartzeak** dakartzan arriskuen berri ondo ematea.
22. **Erregistroan sexuaren aipamena aldatzea** adosteko bi urtez medikua-ren tratamendua jasotzen egon behar izana nahitaezkoa izateari buruzko

hausnarketan sakontzea, eta hala badagokio, egungo legezko esparrua alda dadin proposatzea.

23. Beharrezko neurriak hartzea, transexual edo transgenero izateagatik pertsonak jasan dezaketen **bereizkeria**, jazarpena edo erasoek, biktimaren sexu edo sexu orientazioagatik sortzen direneko **zigor neurri** bera izan dezaten.
24. Beraien sexuaren zuzenketa erregistroan guztiz burutu ez duten emakume transexualak emakume gisa hartzearen gainean hausnartzen hastea. Horretarako, transexual direla ziurtatu beharko dute aurretik. Emakumetzat onartuta, genero **indarkeriaren aurrean babesa jasoko dute eta indarkeria horren biktimei dagozkien gizarte baliabideetarako sarbidea** izango dute.
25. Transexualitatearen eta transgeneroaren gaineko ikerketa zientifikoak eta azterlanak sustatzea, alderdi ezberdinetan. Gai honi buruzko ikerketa **proiektuak** sustatu eta **finantzatu**, unibertsitate eta goi mailako ikerketaren esparruan.
26. Unibertsitate esparruan, transgenero eta transexualitatearen gaineko **prestatuntza berezia sustatu**, baita goi mailako hezkuntzan ere.
27. Transgenero eta transexualen eta beren talde edo ordezkariak elkarrekin partaidetza bultzatu, haiengan eragin zuzena edo zeharra izan dezaketen **euskal herri-administrazioen eztabaidetan, hausnarketetan eta erabakietan**.

2. 2009. URTEAN EGITEN ARI DIREN TXOSTEN BEREZIAK

2009. urtean hainbat txosten berezi egin dira:

- Nerabeei eta drogei buruzko txostena.
- Oinarrizko gizarte zerbitzuei buruzko txostena.
- Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen aplikazioari buruzko txostena.
- Haur ahulei buruzko txostena

Aipatu txostenak 2010. urtean argitaratuko dira.

1) Euskal erakundeek nerabeen droga kontsumoaren inguruan duten zereginari buruzko txostena

Txosten honek hauxe du hizpide: erakundeek nerabeek drogekin dituzten arazoei emandako erantzuna. Eusko Jaurlaritzak eskatu zuen aipatu txostena eta amaitua dago, argitaratzeko zain. Bertan, ikerketa iturri batzuetatik ateratako makina bat datu aztertu dira, baita Euskal Autonomia Erkidegoetako erakundeek prebentzioaren arloan burutu dituzten jarduerak ere. Horrez gain, jarduteko proposamen batzuk eta arloari buruzko gomendio batzuk egin dira.

2) Oinarrizko gizarte zerbitzuen egoerari buruzko txostena

Arartekoak duela 10 urte egin zuen txostena berraztertzea eta eguneratzea berekin ekarri duen txosten hau azken berrikuspenaren fasean dago, hainbat erakundek bildu dituzten agirien analisiaren lan sakona oinarri hartuta; baita landa lanarena eta hiru lurralde historikoetako ordezkariak zerbitzuekin egindako elkarrizketena ere.

3) Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen aplikazioari buruzko txostena

Txosten berezi honen bidez autonomia pertsonala sustatzeari eta Euskadin mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen garapen eta aplikazio argazki zehatzerako eta euskal administrazioek abian jarritako neurrietarako eta eraginkortasunerako bidea ematen da, hain zuzen, Arartekoaren baliabideen bitartez.

Erakunde honek bi arrazoirengatik erabaki du txosten hau egitea:

- araudi horrek adinekoak eta ezgaitasunen bat duten pertsonak zaintzeko esparruan izan duen eragin handia,

- eta autonomia pertsonalaren eta mendetasunaren esparruan lan egiten duten gizarte eragileek emandako kexek eta informazioak eragindako kezka, aipatu araudia ezartzerakoan sortutako arazo batzuei eta gure erkidegoaren barruan lurralde desoreka batzuk egoteari buruz; egokia izango da aipatu desorekak berrikusi eta gainditzea.

Lege honen aplikazioak eragin dien zenbait talde aktiboki ari da parte hartzen, balorazioak eta esperientziak helaraziz.

4) Haur ahulei buruzko txostena

2010. urtean adingabeei buruzko txosten berria egin nahi da, bereziki zaugarriak diren egoerak bizi dituzten haurren eta nerabeen talde edo sektore jakin batzuk oinarri hartuta.

ararteko

V. ATALA

GIZA ESKUBIDEAK
ERRESPETATZEKO ETA GIZARTE
ZIBILAREKIN NAHIZ ESKUBIDEAK
BERMATZEKO ERAKUNDEEKIN
HARREMANAK IZATEKO KULTURA
SORTZEN LAGUNTZEN DUTEN
BESTE JARDUERA BATZUK



1. GIZA ESKUBIDEAK ERRESPETATZEKO ETA GIZARTE ZIBILAREKIN HARREMANAK IZATEKO KULTURA SORTZEN LAGUNTZEKO JARDUERAK

1.1. TALDEEKIN, ELKARTEEKIN ETA GIZARTE-ERAGILEEKIN LANKIDETZAN JARDUTEKO HARREMANAK

Azken urteetan, hainbat ikerketa eta txosten monografikoren ondorioz izan du Arartekoak harremana elkarteekin, hein handi batean, batez ere azken ezohiko txostenen inguruan.

Hala, 2008. urtean, "Gizarte ekintza sektoreko lan baldintzak" izeneko gure txostenaren harira, galdesorta bat bidali genien 900 entitateri (gehienak erakundeak eta fundazioak), eta erakunde horien erantzunetatik 293ko lagina aztertu eta ustiatu genuen; gainera, erakunde horietako 55 ordezkariak parte hartu zuten lurraldez lurralde antolatu ziren eztabaida taldeetan. Entitate horiekin izandako harremanaren berri eranskin batean jaso zen, ezohiko txostenean bertan.

Txosten horrek, nolabait, elkarteekin urteetan izandako lankidetzaren harremani erantzuten die; izan ere, askotan adierazi izan zaio erakunde honi elkarteek egoera eskasean eta segurtasun ekonomikorik gabe lan egin behar izaten dutela zenbaitetan. Hain zuzen, kasu askotan, elkarteekin harremana izateak balio du funtzionamendu aldetik zer arazo dituzten jakiteko ere: zer zailtasun dituzten beren lana egiteko, elkarren artean koordinazio mekanismoak edo lankidetzaren egonkor bat ezartzeko, erakundeekin elkartzeko guneak izateko, erakundeen plan, programa edo arauetan parte hartzeko edo beren ekarpenak helarazteko...

Txosten nahikotxotan aipatu ditugu kontu horiek, eta proposamenak egin edo ekimen batzuk nabarmendu ditugu: diru laguntzen urteko esparrua gainditzea; erakundeen eta elkarrekin arteko foro bateratuak ezartzea, hala nola etorkinak gizarteratzeko foroa, sasoikako lanaren inguruko erakundeen arteko mahaia, ijito herriak parte hartzeko kontseilua; lankidetzaren hitzarmenetan alde bakoitzak dituen erantzukizunak argitzea... Gizarte ekintzaren sektoreko lan baldintzei buruzko txostenaren bidez, arazo horiek sakon aztertu nahi ziren, eta irtenbideak proposatu.

2009. urtean, aztertutako arazoetan zuzenago inplikaturik dauden elkarteekin lankidetzan aritu garenez gero, errazagoa izan da ezohiko txostenak egitea; batzuk urte berean argitaratu dira, eta beste batzuk laster argitaratuko dira.

Horien artean honako hauek aipa ditzakegu:

- “Euskadin terrorismoaren biktimei erakundeek emandako arreta” txostena (horren laburpena urteko txosten honetan bertan eman dugu).
- “Transgenero eta transexualen egoera Euskadin” txostena (hori ere 2009. urtean argitaratu zen, eta txosten honetan jaso dugu laburpena).
- Mendetasun egoeran dauden pertsonen ematen zaien arretari buruzko txostena. Txosten horretan, modu aktiboan hartu dute parte gaixotasun edo ezgaitasunen bat duten pertsonen elkarte eta senitarteko askok (txostena 2010ean argitaratuko da).

Baina alde batera utzita zenbait txostenen inguruan egindako ezohiko jardun horiek, eta batez ere aipaturikoen artean lehenengoa, Arartekoak 2009. urtean ere gizarte eragileekiko harremana zaintzen jarraitu du bere ohiko jardunean. Batez ere, egoera txarrean dauden pertsonen laguntzeko edo askotariko gizarte arazoak konpontzeko lanean aritzen diren elkarte, erakunde eta taldeekin: giza eskubideen aldeko taldeak, atzeritarrei, presoiei edo baztertuta daudenei laguntzekoak, etxerik gabekoei laguntzekoak eta abar.

Aurreko txostenetan behin eta berriro esan izan den bezala, erakunde bermatzaileentzat, hala nola Arartekoarentzat, benetako gizarte antena gisa jardun dezakete erakunde eta talde antolatuek: bestela oharkabean pasa litezkeen arazoak eta egoerak hauteman eta ezaugarazteko sentsore gisa.

Urte hauetako esperientziak erakutsi digu, izan ere, erakunde eta talde ugari giltzarriak izan daitezkeela gure gizarteko sektore baztertuen edo oso ahulen eta Arartekoaren eta halako erakundeen arteko bitartekari lanetan; hala, beren eskubideen eta gatazkak konpontzeko bideen jakitunago egin ditzakete, beren aldarrikapenak adierazteko laguntza eman, administrazioei herritarrentzako zerbitzu arretatsua eman dezaten eskatu, eta, modu horretan, erakundeetan konfiantza handiagoa izateko eta gizarte kohesio handiagoa lortzeko modua egin.

Gure erkidegoan elkarte, talde eta erakunde ugari daude, eta hori gizarte biziaren adierazgarri da, baina, aldi berean, erronka ezinezkoa da horiekin guztiekin lankidetzan harreman egonkor samarrak izan nahi dituenarentzat. Horregatik, gure kasuan, gure mugak kontuan hartuta, elkarlanean aritzeko nahi hori zenbait bide osagarriren bidez zehaztu da urtean zehar:

- harreman motaren bati eutsiz lehendik ere harremana bazuen talde askorekin, ahal izan den guztietan;
- ondo erantzunez arazoak eta proposamenak helarazteko edo Arartekoarekin bilera bat egiteko interesa erakutsi duten elkarte eta taldeei.

- bere kabuz harremana sortuz sektore ahulenekin lan egiten duten edo une horretan sektore jakin baten arazoak lantzen ari ziren taldeekin;
- koordinazio plataformak edo antzeko interesak edo jardun esparruak (kartzelak, gizarteratzea, immigrazioa) dituzten elkarten arteko federazioak aprobetxatuz;
- haiek antolatutako jardueretan parte hartuz eta Arartekoak sustatutako beste jarduera batzuetan parte hartzera gonbidatuz.

Hala, 2009. urtean, Arartekoak lankidetzaren harremanak izan ditu, estuagoak edo ez hain estuak, honako elkarte, erakunde eta gizarte talde hauekin:

- ADSIS-Bestalde
- AEF (Alzheimerren Euskadiko Federazioa)
- Agiantza
- Aiarako Pertsona Ezindu Fisikoen Elkarte (APEFE)
- Aldarte – Gay, lesbiana eta transexualen arretoa zentroa
- Amalur elkarte
- Amarena
- APDEMA (Adimen Ezintasuna duten Pertsonen Aldeko Arabako Elkarte)
- APNABI (Autismoa eta Beste Haur Psikosi batzuk dituztenen Gurasoen Elkarte)
- ARAZOAK (Arabako Autismo eta Beste Garapen Nahaste Orokor batzuen Elkarte)
- Arrats
- ASCUDEAN (Arabako Nagusien Senide Zaindarien Elkarte)
- Askabide
- Askagintza
- Al Indimay eta El Miloud Mokhari elkarte
- Aiarako Eri Psikiko eta Senideen Elkarte (ASASAM)
- Bidegain elkarte
- Gipuzkoako Hiesaren Kontrako Batzordea
- Presoei Laguntzeko Elkarte (ADAP)
- Bularreko Minbiziaren Elkarte (Bizkaikoa eta Arabakoa)
- Ariznabarra Egoitzako Erabiltzaileen Senideen Elkarte
- Hegaldi emakumeen elkarte
- Afroamerikar Egoiliarren Elkarte
- Gao Lacho Drom ijitoen elkarte
- Ikerketa eta Drogen Abusuaren Prebentziorako Gipuzkoako Elkarte (AGIPAD)
- Lesbitoria – Gaysteiz elkarte
- Loiolaetxea elkarte
- Dimetilfumaratoak Jotakoen Elkarte Nazionalak
- Ohianka elkarte
- Euskadiko Itsugarren Elkarte
- Animalien Aldeko Elkarte (APROVA)
- Osasun Mentalaren Elkarte
- Zimentarri elkarte – Aukera zentroa
- Kontsumitzaileen elkarteak

- Beste herrialde batzuetako giza eskubideen aldeko elkarteak
- Ikastetxeetako ikasleen gurasoen elkarteak
- Torturaren aurkako elkarteak edo taldeak
- Hirigintza planek, ingurumen arazoez nahiz zerbitzuen sareko gabeziak erasandako bizilagunen elkarteak eta erkidegoak: Alde Berri eta Txabarri Garbi (Sestao), Praileaitzen Lagunak (Deba), Uribenogalesko Bizilagunen Elkarte, Lamiako, Mutriku Natur taldea (ingurumenaren aldeko Mutrikuko plataforma), Uliako Bizilagunen Elkarte, Obrek Erasandako Merkataria, Urumea Ibai auzoa elkarte, Lezama Bizirik...
- Ikastetxe publikoetako ikasleen guraso elkarteak eta federazioak
- ASPACE – Araba (Elbarritasun Zerebralaren eta Antzeko Gaitzen Elkarte)
- ASPACE – Bizkaia (Elbarritasun Zerebralaren Bizkaiko Elkarte)
- ATEA (Animaliekiko Tratu Etikoaren Aldeko Elkarte)
- ATECE – Araba (hartutako kalte zerebralaren elkarte)
- ATECE – Bizkaia (hartutako kalte zerebralaren elkarte)
- ATECE – Gipuzkoa (hartutako kalte zerebralaren elkarte)
- ATZEGI (Gipuzkoako adimen urritasuna duten pertsonen aldeko erakundea)
- AVAFAS (Fibromalgia eta Neke Kronikoaren Euskal Elkarte)
- AVAIM (Tratu Txarrak jasotako Haurren Laguntzarako Euskal Elkarte)
- Behatokia
- Berdindu
- Beroa (Gipuzkoako harrera familien elkarte)
- Berriztu
- Bidasoaldeko Emakumeak
- Bidesari – Kartzeletako Pastoralerako Elkarte
- Biko Arloak (sexologia elkarte)
- Bilbo-Etxezabal
- Bizgarri
- Bizitegi
- Lurralde bakoitzeko Caritas
- CEAR (Errefuxiatuei Laguntzeko Batzordea)
- Ignacio Ellakuria gizarte gunea - Ellakuria fundazioa
- Gure erkidegoko ikastetxeak
- COGAM (homosexualei eta transexualei informazioa eta arreta emateko programa)
- Basurde Ehiztarien Elkarte
- Bachue, Euskal Herrian errefuxiatutako kolonbiarren elkarte
- Terrorismoaren Biktimen Euskadiko Taldea (COVITE)
- Lurralde bakoitzeko abokatuen elkargoak
- Arabako Hiesaren Aurkako Batzordea
- Bizkaiko Hiesaren Aurkako Batzordea
- Karitateko Jesusen Zerbitzarien Kongregazioa
- Gipuzkoako Adineko Pertsonen Kontseilua
- Bizkaiko Lurralde Historikoko Adineko Pertsonen Kontseilua
- Ikastetxeetako eskola kontseiluak
- Gipuzkoako eta Arabako Gurutze Gorria
- DEE

- Dianova
- Sindikatu, talde eta elkarte profesionalak
- DISLEBI
- DRARI
- Eginaren Eginez (Arabako gutxitasun fisikoa duten pertsonen elkarte)
- Egunabar (burutik gaixo dauden pertsonen elkarte)
- EHGAM
- Ekimen
- Elkarbanatuz
- Elkartean (Euskal Autonomia Erkidegoko urritu fisikoen konfederazio koordinatzailea)
- Elkartu (Gipuzkoako gutxitasun fisikoa duten pertsonen federazio koordinatzailea)
- Emaiza (sexologia zentroa)
- Enseñantes con Gitanos
- Ijitoen Kontseiluko ijitoen erakundeak
- Ikastetxeetako zuzendaritza taldeak
- Errespetuz (transexualak gizarteratzeko eta babesteko elkarte)
- Etxerat
- Euskal Gorrak
- Hainbat lekutako atxilotuen edo preso senideak
- FEATECE (Hartutako Kalte Zerebralaren Elkarte Euskadiko Federazioa)
- FEDEFES (Euskadiko Eri Psikiko eta Senide Elkarte Federakuntza) eta federazio horretan dauden elkarteak (AVIFES, AGIFES, ASASAM, ASAFES).
- SARTU federazioa
- Euskal Herriko Alargunen Federazioa
- FEKOOR (Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Bizkaiko Federazio Koordinatzailea)
- FELGTB (Lesbiana, Gay, Transexual eta Bisexualen Estatuko Federazioa)
- FEVAAS (Aurretik Erretiratuen eta Pentsiodunen Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarte)
- FEVAPAS (Euskal Herriko Gorren Lagun eta Gurasoen Elkarte Federakundea)
- FEVAS (Adimen Urritasuna duten Pertsonen Aldeko Elkarte Euskal Federazioa)
- EDE fundazioa
- EDEX fundazioa
- Etorkintza fundazioa
- Fernando Buesa fundazioa
- Hurkoa fundazioa
- Izan – Proiektua Helburu fundazioa
- Matia fundazioa
- Miguel Angel Blanco fundazioa
- Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa fundazioa
- Zorroaga Patronatua fundazioa
- Peñascal fundazioa
- Ijitoen Idazkaritza Nagusia fundazioa
- Euskal Autonomia Erkidegoko Down Syndromearen Fundazioa
- Atzegi tutoretza fundazioa
- Beroa tutoretza fundazioa

- Arabako buru-gaixoen tutoretza fundazioa (Usoa)
- Gorabide tutoretza fundazioa (Futubide)
- Hurkoa tutoretza fundazioa
- Drogarik gabe Bizi fundazioa
- Gautena
- Gaztaroan Ekin
- Gazteleku
- Gehitu
- Gernika Gogoratuz
- Gesto por la Paz
- GGEBE (Gizabanakoen eta Gizarte Eskubideen Babeserako Elkarte)
- Gizabidea
- Gizakia
- Gizardatz (Bizkaiko gizarte ekimeneko eta esku hartzeko entitateen elkarte)
- Gizarterako
- Goiztiri
- Gorabide (adimen ezintasuna duten pertsonen aldeko Bizkaiko elkarte)
- Ikastetxe, fakultate eta eskoletako ikasle taldeak
- Arazoak dituzten ikastetxeetako guraso taldeak
- Lankidetzta programen bidez edo beren arazoa ezagutarazteko gure herria bisitatzten duten beste herrialde batzuetako pertsonen taldeak.
- Gurasoak
- Harresiak Apurtuz (etorkinei laguntzeko GKEen koordinatzailea, erakunde hauek osatua: CEAR, Caritas, CITE, Gurutze Gorria, Hegoa, Munduko Medikuek, Zu eta Lur, Etorkinekin Bat, Goiztiri, Ignacio Ellakuria fundazioa, munduko hainbat eta hainbat herrialde eta eskualdetako erakundeak...)
- Hartu-emanak (etengabe ikasteko eta gizartean parte hartzeko adinekoen elkarte)
- Hazkunde
- Hirukide (kide ugariko familien elkarte)
- Hizkuntz Eskubideen Behatokia
- Hontza (drogen mendekoei laguntzeko zentroa)
- Ihotz Ledo
- INGEMA (Matia institutu gerontologikoa)
- Iniciativa Gitana
- Hiru lurraldeetako gizarteratze institutuak (IRSE)
- IRESGI
- Irudi Biziak
- Itxaropena (nahaste larriak dituzten haurren eta gurasoen eta pertsona kaltetuen Arabako elkarte)
- Ixuri
- Izangai
- Jaizkibel konpainia
- Kale dor Kayiko (ijitoen elkarte)
- Kidetzta
- Kima Berdea

- Lagun Artean
- Landalan
- Lantegi Batuak
- Lur Gizen
- Munduko Medikuak
- Mugarik Gabe
- Nuevo Futuro
- Gazteentzako Justiziaren Nazioarteko Behatokia
- ONCE Euskadi
- Ortzadar
- Pantallas Amigas
- Parkea Bizirik plataforma
- Kartzeletako Pastoral
- Presoei laguntzeko taldeen plataforma
- Haurren Erakundeen Plataforma (POI)
- Txingudiko errauste plantaren aurkako mediku plataforma
- SARGI plataforma
- Txingudi Bizirik plataforma
- Posada de los Abrazos
- Hainbat tokitako oinarrizko gizarte zerbitzuetako profesionalak
- Gizakia Helburu - IZAN
- Salhaketa, hiru lurraldeetako
- Sasoia
- Save the Children
- Hezkuntza zerbitzuak (berritzeguneak, hezkuntza bereziko zerbitzuak, udal zerbitzuak...)
- San Vicente de Paul elkarte
- SOS Arrazakeria, hiru lurraldeetako
- T-4 (hiesaren aurkako elkarte)
- TAT (Torturaren Aurkako Taldea)
- Hirugarrendar Kaputxinoak
- Transexualidad Euskadi
- Abokatuen elkargoen kartzeletako laguntzarako txandak (TAP)
- UNICEF - Europako Ordezkaritza (Inocenti institutua)
- UNICEF - Euskal Autonomia Erkidegoa
- Urgatzi
- Zerbikas
- Zubietxe
- Zubiko

Kasu askotan (elkarteen eskaerei erantzutea, talde batekin harremanak hastea edo koordinazio foroetara joatea), aipaturiko talde horiekin zuzeneko harremana izan da, eta topaketa edo bileraren bat egin da edo haiek kudeatzen duten zentro edo zerbitzuren bat bisitatu da. Beste kasu batzuetan, esaterako aurreko urteetan hasitako harremanei eutsi zaien edo kexa konkretu bat kudeatu den kasuetan, ez dira beti bilerak antolatuta; zenbaitetan nahikoa

izan da informazioa trukatzea, hala ahoz nola idatziz, edo ekitaldiren batean parte hartzea, edo materiala edo dokumentuak bidaltzea.

Hala, bada, batera zein bestera, bide batzuk nahiz beste batzuk erabilita, nahiz eta lehen adierazitako mugak izan diren, behintzat bilerak egin dira edo informazioa, materiala eta lankidetzak formulak trukatu dira ondoko jardun esparru hauetan:

- mendetasun egoerei ematen zaien erantzuna;
- transexual eta transgenderoen eskubideen defentsa;
- produktu kutsatuek erasandakoen eskubideen defentsa;
- errefuxiatuen eskubideen defentsa;
- erretiratuen eta pentsiodunen eskubideak;
- terrorismoaren biktimenzako arreta edo haien eskubideen defentsa;
- giza eskubideen defentsa eta gure erkidegoko kartzelatan dauden pertsonen arreta emateko programen garapena;
- ezgaitasunen bat duten pertsonentzako gizarte erantzuna;
- atzerritar jatorria duten etorkinen gizarteratzea;
- ijitoen beharrezko espezifikoen planteamendua eta erantzuna;
- burutik gaixo dauden pertsonentzako eta haien familientzako laguntza eta arreta;
- burutik gaixo daudenen tutoretza;
- ezgaitasunen bat duten eta familiaren laguntzarik ez duten pertsonen tutoretza;
- presoak kartzelatik atera edo beren herrira hurbil daitezkeen lortzea;
- hezkuntza behar berezien erantzuna;
- hezkuntzarako eskubidearen defentsa;
- hizkuntza eskubideen eta euskararen erabileraren defentsa;
- drogazaletasun arazoak dituztenentzako arreta;
- gutxiengo etnikoen edo talde baztertuen gizarteratzea;
- oso atzeratuta dauden aldean gizarte kohesioa eta birgaitzea;
- bakezaletasuna eta gatazka elkarrizketa formulen bidez konpontzea;
- emakumeen eskubideen defentsa;
- tratatu txarren prebentzioa eta tortura egoeren salaketa;
- familiaren laguntzarik ez duten pertsona baztertuentzako gizarte eta osasun arreta;
- talde profesionalen defentsa;
- espazio publikoen irisgarritasuna;
- gaixorik dauden pertsonentzako arreta edo defentsa;
- Gizarte bazterketa larriko egoeren prebentzioa eta etxerik gabeko pertsonentzako arreta;
- ingurumenaren defentsa;
- biktimen memoria eta oroitzapena;
- arrazismoaren eta bereizkeriaren prebentzioa eta salaketa.
- hirugarren adineko pertsonen gizarte bizitzan parte hartzea;
- haurren eskubideak;
- Proiektu edo jarduketek erasandako auzo elkarten eskubideak;
- babesik ez duten adingabeen harrera;
- justiziarekin arazoak dituzten nerabe eta gazteentzako arreta.

Kasu dezentetan, Arartekoak berak aurreko urteetan egindako lan monografikoaren baten harira sortu da elkarteekiko lankidetzak, edo hala hasi zen garai batean.

Hala, esate baterako, bakarrik dauden adingabe atzerritarrei buruzko txostena egiteak eta ondoren horren jarraipena egiteak berekin ekarri du etengabe harremanetan egotea harrera baliabideak kudeatzen dituzten edo adingabe atzerritarrek gizarteratzeko lan egiten duten erakundeekin (Gurutze Gorria, Nuevo Futuro, Hirugarrendan Kaputxinoak, Landalan, sales-tarrak, Harresiak Apurtuz koordinakundea, Ugartzi, Goiztiri, Ixuri...).

Aurreko urteetan bezala, gisa honetako lankidetzari (informazioa lortzeko edo guk berariaz jorratutako auziren baten jarraipena egiteko) hainbat esparrutan eutsi zaio urtean zehar: buruko gaixotasunerako komunitate arreta (AVIFES, ASAFES, ASASAM, AGIFES, FEDE-AFES); kartzelan dauden pertsonentzako laguntza (ADSIS-Bestalde, Etorkintza, Izangai, Gizakia Helburu, Bilbo-Etxezabal, Kartzeletako Pastoral, Hegaldi...).

Beste kasu batzuetan, elkarteekiko harremanari eutsi zaio foro espezifikoetan batera parte hartu dugulako edo elkarteek antolatutako ekitaldietan parte hartu dugulako, edo kexa jakin batzuk izapidetu direlako nahiz arazoren bat konpontzeko jardun delako, edo dokumentuak eta materialak trukatu ditugulako.

Adibide gisa, laburki adieraz ditzakegu Arartekoak 2009. urtean lankidetzak esparru honetan egin dituen jarduerarik esanguratsuenetako batzuk. Hala nola:

- Lehenago ere adierazi dugun bezala, hainbat zerbitzutara egindako bisitak edo horietan lan egiten duten profesionalekin izandako elkarrizketa eta bilerak baliagarri gertatu zaizkigu erakundeen eta administrazioen arteko zenbait hitzarmen edo harreman bideren ezaugarriak aztertzeko, horiek lan baldintzetan edo ematen diren zerbitzuen iraupenean nola eragiten duten aztertzeko, laguntzen atzerapenak edo bermerik ezak zer ondorio dituen aztertzeko... Horri esker, hobeto jarraitu ahalko da Gizarte Ekintzaren Hirugarren Sektoreko lan baldintzei buruzko ezohiko txostena.
- Udako ikastaroetan, EHUrekin elkarlanean, azken urte honetan Arartekoak jardunaldi bat sustatu du arrisku edo babesgabetasun larrian diren adingabeentzako arretaren inguruan. Hain zuzen ere, mahai-inguru bat antolatu du, eta adingabeentzako harrera baliabideak kudeatzen dituzten erakundeetako ordezkariak gonbidatu ditu parte hartzera.
- Hirigintza planekin edo jarduketekin nahiz ingurumen eraginarekin lotuta jaso ditugun kexetako asko plataformetan antolatutako pertsonen taldeek, bizilagunen elkarteek, jabeen erkidegoek nahiz talde ekologistek sustatu dituzte (horietako batzuen berri eman dugu txosten honetan, hirigintza eta ingurumen arloei buruzko ataletan).
- Terrorismoaren biktimen elkarte eta fundazioekin nahiz biktimekin berekin zein haien senitartekoekin harremana izatea beti izan da lehentasunezkoa erakunde honentzat, eta elkartasuna eta laguntza helarazten saiatu da, haien antolatutako ekitaldietan parte hartuz, haien ondoan gaudela erakuste aldera. Harreman horri esker

egin ahal izan dugu terrorismoaren biktimei buruzko txostena, 2009an argitaratua, eta hori pauso bat gehiago izan da lankidetzaren dinamika horretan.

- Bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako harrera zentroetara egindako bisita periodikoei eta zentro horiek kudeatzen dituzten elkarteekiko harremanei esker, errazago egin ahal izan dugu adingabe horien egoeraren jarraipena, eta horri buruz luze jardun dugu txosten honetan bertan (adingabeen txostena).
- Egindako bisitetako askok (esate baterako, baztertuta dauden pertsonentzako zerbitzuetara, erreforma zentroetara, harrera zentroetara eta abarretara egindakoek) modua eman digute baliabideak kudeatzen dituzten elkarteekin zuzeneko harremana izateko, haien egoeraren ezagutza eguneratua izateko eta gure gomendioen jarraipena egiteko; gainera, bisita horiek baliagarriak zaizkigu jarduketaren gehiago sustatzeko...
- Presoei laguntzeko elkarte askorekin ere izan dugu aldizkako harremana, eta, horri esker, datuak trukatu eta nolabaiteko jarraipena egin ahal izan dugu; halaber, ofiziozko jarduketara edo asmo oneko kudeaketa batzuk jarri ahal izan ditugu abian.
- Zenbait babes elkarteek aurkeztu dituzten salaketen ondorioz –atzerritarrak atxilotzeari edo egozteko aginduari buruzkoak, jasotako polizia tratuari buruzkoak, errol-datzeko zailtasunari buruzkoak, zenbait deialditako edo lan eskaintza publikotako baldintza baztertzailerei buruzkoak nahiz komunikabideetan albisteak emateko moduari buruzkoak–, hainbat jarduketara egin ahal izan ditugu: agintaritzaren eskudunetara bitartekaritzaren eta kudeaketa lanaren egitea, kexak izapidetzea, ofiziozko jardutea edo gomendio espezifikoak egitea.
- Talde bakezaleekin, gatazketan bitartekariarena eginez aritzen diren elkarteekin eta ikastetxeekin izandako harremanaren ondorioz, erakunde honek bere garaian bakean oinarrituriko hezkuntzaren inguruko proposamen orokor bat aurkeztu zion Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari, giza eskubideetan oinarrituriko hezkuntzari buruzko ikasmaterialek berariaz egiteko eta zabaltzeko hainbat lankidetzaren beka antolatu zituen proposamen hori garatzeko ekarpen eta bultzada gisa, erakusketa ibiltari bat antolatu zuen Haurren Legearen inguruan, urtero giza eskubideei buruzko eskola lanaren lehiaketa bat antolatzen du, eta azken urte honetan txosten bat argitaratu du balioak adingabeen transmititzearen inguruan.

Erakunde honen iritziz, administrazio eta zerbitzu publikoen eta gizarte zibil antolatuen arteko lankidetzaren sustatzea eta babestzea egin behar da, dauden baliabideak hobeto aprobetxatzeko. Alabaina, gizarte eragilearen parte-hartze aktiboak ez du berekin ekarri behar erakundeek herritarrei zerbitzu emateko duten erantzukizuna ezereztea edo erakundeek kasu askotan dagokien lidergoa beren gain hartzeari uztea. Horri dagokionez, jadanik 2001. urtean gomendio orokor bat egin zen erakundeek talde ahulentzako zerbitzuak sortzearen inguruan duten lidergoari buruz; izan ere, askotan elkarteek kudeatzen dituzte zerbitzu horiek.

Azken urteetako esperientziak eta administrazioek berek herrietan zentro edo baliabide berriak irekitzeko dituzten zailtasunek –hori ere azken urtean– agerian utzi dute berriro ere zein garrantzitsua eta beharrezkoa den gomendio horretan egindako proposamenak kon-tuan hartzea.

Bestalde, hainbat zerbitzutara egindako bisitetan nahiz gizarte ekintzaren hirugarren sektoreko lan baldintzei buruzko gure txostena argitaratu ostean egin ditugun bileretan edo jaso ditugun kexetan, berriro ere ikusi dugu oraindik badirela konpondu gabeko zenbait arazo, hala nola berandu ematen direla laguntzen zenbait deialdiren ebazpenak; horrek egoera estu eta zailtan jartzen ditu hala elkarteak nola martxan diren programak, eta oso modu txarrean eragiten die ez bakarrik elkarteei berei, baizik eta, batez ere, haien lanaren xede diren herritarrei eta taldeei. Kasu askotan, urte amaieran, konpondu gabe zeuden oraindik giltzarriak diren laguntzen zenbait deialdi.

Alde horretatik, Arartekoak, ofiziozko hainbat espedienteren bidez, datu objektiboak bildu ditu elkarte askori nabarmen eragiten dieten deialdien inguruan, eta 2005. urteko txostenean jadanik egin zuen gomendio orokor bat gizarte esparruan lan egiten duten elkarteei erakundeen laguntza emateko bideak eta prozedura hobetzeko beharraren inguruan. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak datorren urterako iragarri du sinplifikatu egingo dituela deialdiak. Hala, bada, espero dugu horrek balio izatea adierazitako arazoetako asko konpontzeko.

Erakunde honek berriro ere nabarmendu nahi du gizarte eremuan lan egiten duten elkarteek askotan egiten dituztela oso egoera txarrean dauden pertsonen laguntzeko programak, eta bestela existitzen ez diren edo aski ez diren baliabideak eta zerbitzuak kudeatzen dituztela, eta, modu horretan, estali egiten dituztela erakundeek erantzukizun argia duten arreta esparruak eta bete egiten dituztela administrazioek berek dituzten gabeziak. Arrazoizkoa dirudi, beraz, beharrezko laguntza guztia eta beren programak gauzatzeko berme handiagoa lortzeak.

1.2. ARARTEKOAK EMATEN DITUEN IKERKETA BEKAK

2009. urtean, aurrera jarraitu da Arartekoak aurreko urtean esleitutako beketako ikerketa lanekin. Bi bekak etorkinen eskubideekin loturiko alderdien ingurukoak izan dira.

Lan horietako lehenak –ia bukatua dago eta berrikuspen fasean dago– azken urteetan hiru lurralde historikoetako bakoitzean hartu diren adingabe atzerritarren lagin handi baten egoera aztertu du. Adingabe horiek denak bakarrik zeuden. Lan horren informazioa osagarria izango da eta, nolabait, eguneratu egingo ditu bai Arartekoak berak 2005. urtean argitaratutako *Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren egoera Euskal Autonomia Erkidegoan* ezohiko txostenean aztertutako informazioa eta bai ondoko jarraipenetan aztertutakoa, urteko txostenetan laburturik, honako honetan barne. Espero dugu lan hau berrikusten amaitzea eta 2010. urtean argitaratu ahal izatea.

Bigarren lanak atzerritarrek gure erkidegoko gizarte zerbitzuak eta prestazioak eskuratzeko zer aukera dituzten aztertzen du. Azterlan hori asmo handikoa da planteamenduari dagokionez, eta zailtasun asko samar izaten ari dira beharrezko informazio guztia lortzeko, askotan han-hemen banatuta egon ohi baita. Dena dela, lan horretan aurreratzen joan da, eta espero dugu lana 2010. urtean amaitzea. Lana amaitutakoan, ez ditu soilik EAEn bizi diren etorkinen gizarte errealitateari buruzko datuak emango, baizik eta, horrez gain, baliagarria izango da pertsona horiek gizarte eskubideak gainerako herritarren baldintza berberetan zenbateraino gozaten dituzten “neurtzen” lagunduko duten zenbait tresna izateko.

2009. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoko terrorismoaren biktimak gogoratuak eta aintzatsiak izateko duten eskubideari buruzko ikerketa beka baten deialdia egin zen. Beka hori abenduan ebatzi eta esleitu zen, eta lana 2010. urtean egingo da.

Era berean, 2009an bi ikerketa-lan argiratu dira “Juan San Martín” Giza Eskubideen Bilduman; lan horiek aurreko urteetan emandako 2 beken emaitza dira:

- o F.J. Leturia, N. Etxaniz. *Adinekoen eskubideak eta tratu desegokiaren prebentzioa.*
- o I. Orbegozo, A.I. Pérez, L. Pego. *Gizabanakoari eskubideak etetea terrorismo kasuetan: arreta berezia atxiloaldi inkomunikatuari.*

1.3. EHU-REN UDAKO IKASTAROETAN ANTOLATUTAKO “HAURRAK BABESTEKO SISTEMAK ETA HORIEN ERRONKAK” JARDUNALDIA

Urtero, Arartekoak giza eskubideen inguruko jardunaldi batzuk antolatzen ditu EHUren udako ikastaroetan, horien inguruan aztertzeko eta eztabaidatzeko. Hala, uztailaren 24an, Donostiako Miramar jauregian jardunaldi bat antolatu zuen, *Haurrak babesteko sistemak eta horien erronkak* izenekoa.

Arartekoak antolatutako ikastaro horretan, haurren babesaren inguruan jardun zen, zentzurik zabalenean, hau da, ez zen mugatu zorrozki babes sistemara, baizik eta hainbat ikuspegi egin zen haurren babesari buruzko azterketa eta gogoeta, batez ere ikuspegi juridikotik, soziologikotik eta hezitzailetik; hitzaldi batzuk orokorrak edo akademikoagoak izan ziren, eta beste batzuek jardun esparru jakin batzuk jorratu zituzten, sektorean egindako zuzeneko lanaren esperientziari lotuagoak: komunitate arloko esku-hartzea, familia harrera edo egoitza harrera.

Ikastaro horretan, Espainiako herriaren defendatzaile Enrique Mugicak hartu zuen parte, eta hark bere solasaldian portaera arazoak dituzten eta gizartean zailtasunak dituzten adingabeen babesari buruz jardun zuen. Halaber, erakunde horretako aholkulari Elena Arcek hartu zuen parte, eta hark babesaren esparru juridikoaz eta bakarrik dauden adingabe atzerriarrei buruz jardun zuen.

Orobat, EHUko irakasle Luis Mari Nayak Haurren Eskubideen Hitzarmenari buruz hitz egin zuen, 2009an 20. urteurrena bete baitzuen, eta hitzarmen horren aurrerapen eta erronkei buruz ere aritu zen.

Ikastaroa amaitzeko, mahai-inguru bat izan zen. Bertan, hainbat elkartetako ordezkariak haurren eta nerabeen babesaren inguruko hainbat alderdi garrantzitsu jorratu zituzten. Mahai-inguru horretan, parte-hartzaile hauek izan ziren: Cristina Ojanguren, Agintzari gizarte ekimeneko sozietate kooperatiboko ordezkaria –tokian tokiko prebentzio eta babes lanari buruz jardun zuen–; Pablo Amezaga, Elkartea Landalan gizarteratzeko eta laneratzeko elkarteko ordezkaria –bakarrik dauden adingabe atzerriarrek hartzeko zentzoei buruz aritu zen–; Unai Celestino, Dianova elkarteko ordezkaria –droga kontsumoarekin loturiko arazoak dituzten gazteak hartzeko zentzoei buruz mintzatu zen–; eta Oscar Ramiro eta Patricia Pereiro, Besarka elkarteko ordezkariak –familia harrerari buruz hitz egin zuten–.

1.4. ARGITALPENAK

2009. urtea oso emankorra izan da giza eskubideei buruzko argitalpenei dagokienez. Argitalpen horien jatorria Arartekoak antolatutako jardunaldi, ikastaro eta foroetan aurkeztutako eta eztabaidatutako txostenak dira. Hain zuzen, honako hauek argitaratu dira:

- Francisco de Vitoria giza eskubideei buruzko bildumaren barruan:
 - o "Gizarte eskubideak gaur egun". Leioan 2008ko otsailaren 25ean egindako jardunaldia.
 - o "Nerabe eta gazte lesbiana, gay, transexual eta bisexualak: Trabak eta gaitzespenak beren garapen pertsonalean, harremanetan eta sozializazioan". Hausnartzeko eta Parte Hartzeko V. Foroa, Bilbo, irailaren 19a.

- Giza Eskubideei buruzko Jardunaldiak bildumaren barruan:
 - o "Familia berriak eta berdintasun printzipioa: eztabaida irekia". EHUren XXIV. Udako Ikastaroak, Donostia, 2005eko uztaila.
 - o "Arartekoa: XXI. menderako ombudsmana". EHUren XXV. Udako Ikastaroak, Donostia, 2006ko uztaila.
 - o "Herritarrek ingurumenean edo gizartean eragiten duten azpiegituri buruzko erabakietan parte hartzea. Hausnartzeko eta Parte Hartzeko IV. Foroa. Herritarren parte-hartzea: fikzioa edo errealitatea? EHUren XXVI. Udako Ikastaroak, Donostia, 2007ko uztaila.
 - o "Osasun mentala eta pertsonen eskubideak". EHUren XXVII. Udako Ikastaroak, Donostia, 2008ko uztaila.

1.5. GIZA ESKUBIDEEN ARLOAN SENTSIBILIZATZEKO JARDUERAK

Arartekoak 2009. urtean giza eskubideen inguruan egin zituen sentsibilizazio jarduera ugarien artean, honako hauek aipa ditzakegu batez ere:

- Gure Eskubideak eskola lanen IV. lehiaketa

Gure Eskubideak eskola lanen IV. lehiaketara hainbat lan aurkeztu ziren. EAEko Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeentzat antolatzen da lehiaketa hori, eta hautapen batzordeak, aurkeztutako materialak eta programak aztertu ostean, deialdian jasotako bi sariak ikastetxe hauei ematea proposatu zuen:

- Lehen Hezkuntzako saria: Urretxuko Gainzuri ikastetxeari eman zion. Ikastetxe horrek lan programa sistematiko bat aurkeztu zuen, ikasturte osoan eta maila guztietan (2 eta 12 urte bitartean), giza eskubideen inguruan.
- Bigarren Hezkuntzako saria: Leioako Artaza-Romo BHLri eman zion. Ikastetxe horrek ingelesez aurkeztu zituen lana eta materialak, Ikasketa Eleaniztunen Proiektuaren barruan emandako Gizartea, Kultura eta Erljioa irakasgaiari.

Batzordeak ikastetxe guztiek beren eskura dituzten baliabideen (tutoretza saioak, Internet...) erabilera eta praktika onaren adibidetzat hartu zituen saritutako proiektu horiek. Lehiaketa honetan parte hartu duten ikastetxe guztiek jaso dute parte-hartze ziurtagiria, eta sariak arartekoak banatu zituen, abenduaren 15ean.

- Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren 20. urteurrena

Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren (HEH) 20. urteurrenaren harira, Europako Kontseiluak, *Europa haurrentzat eta haurrekin eraikitzea* programaren barruan, material batzuk landu ditu, haurren eta nerabeen eskubideak ezagutarazteko, hizkuntza ulerterraz batean eta talde horientzat atsegina den formatu batean. Arartekoak bere 20. urteurrenarekin bat etorri, bat egin zuen 2009ko azaroaren 19an aurkeztutako kanpaina horrekin, eta material horiek argitaratu zituen, ikastetxeetan sentsibilizazio eta trebakuntza jardueretan erabiltzeko. Material horiek karpeta, kartel eta egutegieki osatzen dute, eta autonomia erki-degoko ikastetxe guztietan banatu dira.

Nik eskubidea dut karpeta irudiduna haurrentzat egokitutako hizkuntza batean idatzita dago, eta hor agertzen den eskubide multzoaren bidez, neska-mutikoei erakundeekin zer harreman duten ezagutu ahalko dute, bai eta gobernuz kanpoko erakundeekin beren eskubideen babesari dagokionez zer eginkizun duten ere. Halaber, esplikatzen du zein aukera dituzten haurrek, baldin eta eskubideak errespetatzen ez badizkiete, eta bi erakunderen berri ere ematen du: Europako Kontseilua eta Arartekoa; izan ere, bi erakunde horietan arreta berezia ematen zaie haurrei eta nerabeei.

Kartelak haurren eskubideak jasotzen ditu, oinarritzko 11 puntutan laburtuta. Kanpainaren osagarri, poltsikoko egutegi batzuk argitaratu dira.

Karpetak Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako goi ziklorako pentsatuta daude; oroimenezko kartelak, ikastetxeetan eta gainerako ikasgeletan jartzeko; eta egutegiak, berriz, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasle guztien artean banatzeko. Hori guztia, ikasgeletan haurren eta nerabeen eskubideei loturiko gaiak lantzeko.

Orain arte, Arartekoak Giza Eskubideen Nazioarteko Egunaren harira (abenduaren 10ean) argitaratu izan ditu halako kartelak eta egutegiak, baina oraingoan, erakundearen 20. urteurrenak eta Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren 20. urteurrenak bat egin dutela baliatu du sentsibilizazio kanpaina osoago bat eta haurren eta nerabeen eskubideei lotuago bat egiteko.

Alde horretatik, karpetan bertan azaltzen den bezala, *"Arartekoak lehentasunezko arreta eskaintzen die Haurrei eta Nerabeei, izan ere, biztanle talde horrek ia-ia ez du hitzik, baina gure autonomia erkidegoan 300.000 pertsonak baino gehiagok osatzen dute. Pertsona horiek berariazko eskubideak dituzte: hain zuzen ere, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean (NBEk onartua) eta Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko Legean (Eusko Legebiltzarrak onartua) ezarritakoak. Horregatik, 18 urtetik beherako pertsonen dagokienez, Arartekoaren jardura-lerroetako bat beraien eskubideak ezagutaraztea da, eta Haurren nahiz Nerabeen artean giza eskubide guztien aldeko kultura zabaltzea."*

2. GIZA ESKUBIDEAK BABESTEKO ERAKUNDEEKIN BIDERATUTAKO JARDUERAK

2.1. HERRIAREN DEFENTSA-ERAKUNDEEN XXIV. KOORDINAZIO JARDUNALDIAK

Herriaren Defentsa Erakundeen Koordinazio Jardunaldiek herriaren defendatzailea eta ordezkari autonomikoak biltzen dituzte, eta erakunde horien funtzionamenduari eta xedeei loturik dauden interes komuneko gaietara buruz eta Espainiako Estatuko defentsa erakunde guztiek dituzten gizarte gai eta arazo orokorrei buruz eztabaida eta gogoeta egiteko foroak dira.

Herriaren Defentsa Erakundeen XXIV. Koordinazio Jardunaldiak Sevillan izan ziren, 2009ko urriaren 19, 20 eta 21ean, Andaluziako herriaren defendatzaileak antolatuta. Jardunaldi horietan, informazio eta komunikazio teknologien (IKT) balioa aztertu zen; izan ere, herritarren eskubideak baliatzeko tresna bihurtu dira, eta gaur egun ezinbestekoak dira gizarte eta ekonomia munduan sartzeko. Alde horretatik, ondorioztatu zen teknologia horiek eskuratzeko eta erabiltzeko muga orok larriki baldintzatzen duela eskubideak benetan gozatzea eta gizartearen erabat parte hartzea.

Jardunaldi horietara arartekoa eta arartekoaren ondokoa joan ziren, bai eta Arartekoko beste ordezkari batzuk ere, eta, besteak beste, gai hauen inguruko bilera eta mahai-inguruetan hartu zuten parte: herritarrek IKTak eskuratzeko eta erabiltzeko dituzten eskubideak, teknologia berriek dakartzaten erabiltzaileak eta erronkak, eta herritarrak eta administrazio elektronikoa. Saio horietan, ondorio garrantzitsuak atera ziren aztergai zen gai nagusiari buruz.

Aurrez, lau lantegi eta ikastegi antolatu ziren, jardunaldien xedearekin loturikoak, eta horietan modu aktiboan hartu zuen parte Arartekoko ordezkariak. Horien emaitza lan dokumentu banatan bildu da. Testu horietan, parte hartu zuten erakunde guztiek tailer bakoitzeko edukien inguruan egindako ekarpenak bildu dira:

- I. tailerra: *Derechos de la ciudadanía relativos al acceso y utilización de las TIC*. Katalunian egina.
- II. tailerra: *Las TIC como instrumentos de garantía y efectividad de los derechos sociales*. Gaztela-Mantxan egina.
- III. tailerra: *Ciudadanía y Administración Electrónica*. Galizian egina.
- IV. tailerra: *La aplicación de las TIC a las instituciones de los Defensores del Pueblo*. Asturiasen egina.

Jardunaldi horiekin batera, Adingabeei eta Teknologia Berriei buruzko Herritarren Eskubideen Foroa antolatu zen. Bertan, hainbat haurrek hitz egin zuten, horietako batzuek bi-dekonferentzia bidez, hainbat autonomia erkidegotatik.

HERRIAREN DEFENTSA ERAKUNDEEN XXIV. KOORDINAZIO JARDUNALDIETAKO ONDORIOAK Andaluzia, 2009ko urria

XXI. mendeak agerian jarri du informazio eta komunikazio teknologikoen (KIT) balioa. Teknologia horiek hedatzeko eta eragiteko duten ahalmenaren ondorioz, *informazioaren eta eza-gutzaren gizartea* terminoa sortu da, gure sistema ekonomiko eta kulturalan informazioa sortzeak, banatzeak eta erabiltzeak duen garrantziari erreferentzia egiteko.

Aldi berean, IKTak funtsezko tresna bihurtu dira herritarrek beren eskubideak baliatzeko, bai eta bide bat ere, botere publikoek baliatu beharrekoa, teknologia horiek benetan eraginkorrak direla bermatzeko jarduna nabarmen hobetzeko.

Teknologia horien garrantzia eta erabilera orokortua dela eta, herritarren eskubideen xede bihurtu dira, eta gero eta leku gehiago hartzen dute jendeak botere publikoei egiten dieten eskarietan.

IKTak eskuratu eta erabat gozatu ahal izateak zehaztuko du gizartean eboluzioa, hainbat alderditan, eta horrexek baldintzatuko du jendeak antolakuntza administratibo eta politikoe-kin izango duen harremana. Oinarrizko zerbitzuak eskuratzeko tresna denez gero, ezinbestekoa izango da elkarreragin publikoan erabiltzea.

Horren jakitun, herriaren defentsa erakundeek eta gizarte eragileek elkarrekin egin dute gogoeta informazio eta komunikazio teknologiek herritarren eskubideetan duten eraginaren inguruan, ikuspegi honekin: teknologiak berdintasun baldintzetan eskuratu ahal izatea, e-administrazioa zenbateraino garatuko den herritarrekiko harremanetan, eta administrazio publikoek zer prestazio eskainiko dituzten IKTen bidez, gizarte eskubideak benetan baliatzeko bidean aurrera egiteko.

Aldi berean, sektore publikoaren parte gisa, herriaren defentsa erakundeek teknologia berriak beren jardun esparruan nola aplikatu aztertu dute, herritarrei zerbitzu publiko hobea emateko eta, aldi berean, beren barne funtzionamendua eraginkorrago bihurtzeko.

Parte hartu zuten erakundeek ekarpenak egin ondoren eta lan saioetan izandako eztabaiden ondoren, ondorio hauek atera dira:

I. Herritarrek IKTak eskuratu eta erabiltzeko dituzten eskubideak

1. **Teknologia berriak eskuratu eta erabiltzea**, gure iritzi, **beraz da eskubide bat**, eta, beraz, botere publikoek modu eraginkorrean aintzatetsi eta bermatu behar dute –eta halaxe jasota dago hainbat autonomia estatututan–; izan ere, **ezinbesteko bidea da herritarrek beren eskubideak baliatzeko** eta bizitza sozial, ekonomiko eta kulturalan txertatzeko. Teknologia berriak eskuratzeko eta erabiltzeko muga orok larriki baldintzatzen du herritarrek beren eskubideez gozatzea eta gizartean erabat parte

- hartzea; horrexegatik kezkatzen gaitu hainbeste jadanik zenbait talderentzat informazioaren eta ezagutzaren gizartearekin berdintasun baldintzetan bat egiteko eragozpen nabarmena den arrakala digitalak.
2. Botere publikoek, nolana ere, teknologia berriak herritar guztiek gozatu ahal izatea zaindu behar dute, eta gizarte sektorearen arabera sarbidea desberdina izateagatik **arrakala digital gehiago** sortzea saihestu behar dute. Zehazki, pertsonen komunikabideetarako eta elkarrekintzarako sarbide gisa LTDa ezartzeko prozesuak erakutsiko du zenbaterainoko konpromisoa hartu den eta zenbateraino erantzun zaien benetan berdintasun balioei, etxeko erabilerako teknologia hori modu unibertsal eta orokorrean erabiltzeari dagokionez.
 3. Teknologia berrien dinamismo eta eskakizun funtzionalekin, **aratu egin behar dira oinarritzko baldintzak**, herritar guztiek IKTak berdintasun baldintzetan eskuratuko dituztela bermatzeko; beraz, beharrezkoa da “telekomunikabideen zerbitzu unibertsal” definizioa eguneratzea. Agintaritzak nazionalak Europako arauan agertzen diren baino eskubide gehiago berma ditzakete. Alde horretatik, herriaren defentsa erakundeek ezinbestekotzat jotzen dute banda zabala mundu guztiarentzat prezio eskuragarri batean jartzea ezinbesteko baldintza gisa hartzea, IKTen erabiltzaileen beharrezko funtzionalei erantzuteko.
 4. Autonomia estatutuak erreformatzeko berriki egin den prozesuak agerian uzten du **autonomia erkidegoek oso eginkizun garrantzitsua izango dutela** herritarrek informazioaren eta ezagutzaren gizartearekin loturik dauzkaten eskubideak babesteko eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak babesteko. Horrekin bat eginez, estatu eskumenak alde batera utzita, neurri legezko eta teknikoak hartu behar dira, defentsa erakundeek, autonomia erkidegoen esparruan, IKTen erabiltzaileen eskubideak beren lurraldean aldeztu ahal izan ditzaten.
 5. Zerbitzu operadoreek esku hartzea ezinbestekoa da informazioaren gizartearen barruan sarbidea izateko eta elkarri eragiteko. Alabaina, lehia askearen printzipioa betetzearekin eta kontratu akordioak errespetatzearekin batera, botere publikoek ezin dute ahaztu izatez operadore horiek nagusitasun egoeran daudela erabiltzaileekiko harremanetan. Horregatik, IKTen ondorioz hartutako garrantzi horrekin batera, botere publikoek erantzun egin behar dute, operadoreek eskaintzen dituzten zerbitzuak egokiak ote diren ebaluatzeko **auditoretza eta ikuskapen mekanismo publiko eraginkorren bidez**. Era berean, funtsezkoa izango da kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak ikuskatu eta begiratzeko funtzioa indartzea zerbitzu horiek ematen dituzten erakundeetan; horretarako, gatazketan bitartekari izateko eta gatazkak konpontzeko neurri arinak ezarri beharko dira, eta, aldi berean, zehapen araubide eraginkor bat ezarri beharko da, operadoreek ez ditzaten egin behin eta berriro beren zerbitzuen erabiltzaileen eskubideak urratzen dituzten praktika jakin batzuk.
 6. Botere publikoek **zibersegurtasuna bermatu beharko dute**, eta pertsonen pribatasunerako eta intimitaterako eskubideen alde egin; orobat, beharrezko neurriak ezarri beharko dituzte, **delitu gisa tipifikatutako sareko jokabideak zigortzeko**.

7. Botere publikoek **zerbitzu publikoen prestazio eredu baten buru** izan behar dute, **IKTen bidez**, eta, horrez gain, sustatu egin behar dute gizarte zibilak informazioarekin eta ezagutzarekin bat egin dezan, agertoki global itzulezin batean.

II. IKTak gizarte eskubideen berme eta eraginkortasun tresna gisa

1. IKTek eginkizun garrantzitsua dute arlo honetan, lortzen ari diren garapena eta horien aplikazio praktikoak gizarte eskubideak errazago baliatzeko benetan duen ahalmena dela eta, eta tresna erabakigarria dira Ongizatearen Estatua hedatzeko. Teknologia berriek modu erabakigarrian laguntzen dute gizarte eskubideak eraginkorragoak izan daitezen; halaber, zuzenean hobetzen dute gure gizarteko pertsona ahulenen bizi-kalitatea, eta, aldi berean, gizartean gehiago eta berdintsuago parte hartzeko modua ematen diete.
2. IKTak **hezkuntza arloan** aplikatzeari dagokionez:
 - **Administrazioak izan behar du aldaketaren benetako eragilea** hezkuntza eredu berria eguneratzeko orduan; horretarako, trebatze eta alfabetatze digitalaren arloko ekintzak egin behar ditu, erabiltzaile potentzialek lortutako garapenen erabilgarritasuna ezagut dezaten eta ezagutzak parteka ditzaten; halaber, parte hartzeko modua eman behar die, bai kritikak egiteko eta bai proposamenak egiteko, parte-hartzearen bidetik edukiak hobeto egokitze aldera. Hezkuntza administrazioek **informazio eta komunikazio teknologien arloko organo arduradunak sortzea** sustatu behar dute. Organo horiek erreferentzia gisa balio behar dute, aldaketa teknologikoaren buru izan behar dute, eta horietara jotzeko modua eman behar dute arlo honetako baliabideak proposatu, gomendatu eta eskatzeko. Organo horien funtzioetako batak izan behar du sistema bat ezartzea IKTak arlo honetan ezartzeko prozesuan zenbat aurreratu den eta zer emaitza lortu diren etengabe ebaluatu eta aztertzeko.
 - Beharrezkoa da **irakasleei teknologia berriak erabiltzen erakustea, prestakuntzaren printzipioa oinarritzat hartuta, eta modu iraunkorrean trebatzea**, aurrerapen berriak ezagut ditzaten eta irakaskuntzan ezartzeko prozesuaren buru izan daitezen. Ezartzen diren trebakuntza sistemak lortutako ezagutzak balioesteko metodoekin osatu behar dira karrera administratiboan eta promozio profesionalen irakasle bakoitzaren merezimenduak puntuatzeko orduan.
 - Funtsezkoa da **IKTen eduki hezitzaileen produkzioa sustatzea**, lehen hezkuntzarako, bigarren hezkuntzarako eta lanbide heziketarako, bien curriculumetan eta ikasleen ezagutza probetan sakonki sartuta.
 - Hezkuntza komunitateen artean informazioa trukatzeko web gune eta zerbitzu digitalletako edukiek **baliagarri izan behar dute ikasle, irakasle eta gurasoentzat**, komunitate oso horrek beharrezko duen alfabetatze digitalaren pizgarri gisa, eta horien guztien arteko informazio trukeak arina, ohikoa eta jarraitua izan behar du.

3. IKTak **osasun sisteman aplikatzeari** dagokionez:

- **Osasun agintaritzen** konpromisoa eta lidergoa, batez ere finantza eta antolaketa kontuei dagokienez, funtsezkoa da osasun elektronikoaren hedapenak arrakasta izan dezan. Arlo horretan sumatzen den aurrerapena burutu egin behar da, harik eta **autonomia erkidego guztietan hein berean ezartzea** lortu arte, batez ere eremu bereiziei arreta jarrita.
- E-osasunaren prestazioak ondo zabaltzeko, erabiltzaileei **komunikazio eta informazio egokia** emateko politika bat behar da; horretarako, ondo zehaztu eta azal dutako e-prestazioen eta zerbitzuen katalogo bat ezarri behar da, web gune bakar batean bildu behar dira osasun laguntzaren esparruko politikak eta ekintzak, eta komunikazio esparru erraz eta ulergarri bat eskaini behar da.
- Beharrezkotzat jotzen da **historia kliniko digitala** areago ezartzea, bai eta **medikuntza eta espezialitate kontsulten telezita eta telemedikuntza** ere. Baliabide horiek **oso modu heterogeneoan** ari dira sartzen lurralde batean eta bestean, eta espero izatekoa da telekomunikabideen sareak hedatu ahala azkarrago ezarriko direla etorkizunean. Halaber, komenigarri irizten diogu sendagaien preskripzio informatizatuetatik **errezeta elektronikoaren sistemetara eta preskripzio automatizatura** igarotzeari.
- Beharrezkoa da **osasun sistemak elkarren artean are eraginkorrago bihurtzea** maila guztietan, pazienteen segurtasuna eta mugikortasuna sustatzeko, bai eta osasun eta gizarte zerbitzuen artean ere, bi arlo horiek bereziki bat egiten baitute herritarrek osasun aldetik artatzeko orduan.
- Uste dugu aurrerapen teknologikoen bidez **erabiltzaileek** beren osasun egoerarekin eta beren ajearekin loturiko informazioa ezagutzeko **gehiago parte hartzea** lortu behar dela, bai eta osasun sistemarekin elkartzeko eta inplikatzeko duten ahalmena handitzea ere.

4. **Gizarte zerbitzuen arloari** dagokionez:

- IKTak tresna ezin garrantzitsuagoak bihurtu dira laguntza tekniko osagarriak behar dituzten ezgaitu edo mendekoentzat, gainerako herritarren baldintza berberetan bizitzeko eta erabat parte hartzeko. **Aditzera eman den bezala teknologia berriak denentzat irisgarri izan daitezten**, ezinbestekoa da beharrezko eta arrazoizko doikuntzak izan ditzaten, talde horrentzat eskuragarri izango direla bermatzeko **(“denontzako diseinua”)**, batez ere oinarrizko zerbitzu publikoekin loturiko teknologiei dagokienez. Ikuspegi horretatik, administrazio publikoek beharrezko neurriak ezarri beharko dituzte, IKTek, besterik gabeko integrazioaz harago, denon beharrei aurre egingo dien gizarte bat diseinatzeko orduan **gizarteratzeari** bide emango dioten tresna gisa jardun dezaten.

- IKTak tresna baliagarriak dira ez bakarrik talde horien oinarrizko arazotzat jotzen direnak konpontzeko, baizik baita kulturaren, artearen, kirolaren edo aisialdiaren esparruan **gizarteratuko direla bermatzeko tresna gisa ere**. Azken batean, aukera berdintasuna bermatu behar da, ezgaituek edo mendekoek beren eskubide eta askatasun guztiak balia ditzaten teknologia berri hauen esparruan, halako moldez non erabat parte hartu ahal izango duten gizartearen jarduera orokorretan.
- Kontuan hartuta teknologia berriak oso garrantzitsuak izan daitezkeela herritar guztiek gizarte eskubideak benetan lor ditzaten bermatzeko, **IKTak gizarte zerbitzuen sistemako prestazio eta zerbitzuen katalogoetan txerta daitezten sustatuko dute botere publikoek**, herritar guztien eta, batez ere, ezgaitasun edo mendetasunen bat dutelako ahulagoak diren herritarren e-irisgarritasuna eta e-gizarteratzea errazteko.
- **IKTek aukera ezin hobea ematen dute eskaintzen diren gizarte prestazioak zenbateraino eraginkorrak diren eta zer disfuntzionaltasun izan ditzaketen ebaluatzeko eta horiek kudeatzeko modua sistematizatzeko**. Izan ere, zalan-tzarik gabe gizarte politika publikoen programek izan duten gabeziarik handienetako bat da zail gertatu zaiela informazio-kudeaketa eredu integratu bat lortzea, une oro programak eraginkorrak diren eta okerrik edo hutsunerik baduten jakiteko eta eba-luatzeko.

III. Herritarrak eta administrazio elektronikoa

1. Sektore publikoetan administrazio elektronikoa ezartzeak aukera ematen du herritarrei **zerbitzu publiko hobea eskaintzeko**; hala, areagotu egiten da sistemaren garrantasuna, eta garapen demokratikoaren eredu berri batean kokatzen gaitu. Horregatik, beharrezkoa da jarraipena egitea, herritarrak zerbitzu publikoetara bide elektronikoz sartzeari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legeko aurreikuspenak eta antzeko hel-buruekin onartzen diren arau autonomikoak zorrotz betetzen diren ikusteko.
2. Gizarte zibilak **administrazio onaren eredua finkatzeko bidean** aurrera egin dadila eskatzen du; hori lortzeko, IKTak txertatu beharko dira, e-administrazioaren eta he-rritarren arteko harremanak kalitatez eta eraginkortasunez bermatzeko tresna gisa. Bereziki, ezinbestekoa da aurrera egitea elkarrekiko lankidetzeta eta elkarlan ekintzak egiten dituzten administrazioen arteko eraginkortasunaren bidean ("leihatila baka-rra", sareko lana eta halako nozioak). Halaber, 11/2007 Legean faltan sumatzen da informazio publikoaren izapideei loturik parte-hartze elektronikorako eskubidea ez sartu izana.
3. Parte-hartze demokratikoari dagokionez, teknologia berriek **prozesu demokratikoa berraktiba** dezakete, informatzeko, komunikatzeko eta mobilizatzeko dituzten ahal-menei esker, baina beharrezkoa da botere publikoek jarraipena egitea, irisgarritasun,

egiazkotasun eta gardentasun printzipioak errespetatzen ote diren ikusteko; izan ere, printzipio horiek nagusi izan behar dute erabaki publikoak sortzeko bide berri horiek erabiltzeko orduan.

Kasu guztietan, **sufragioak bere oinarrizko ezaugarri juridikoak gorde behar ditu**; izan ere, horrela baizik ez da lortuko bide horiek parte-hartze demokratikorako eraginkor izaten jarrai dezaten.

4. Ezinbestekoa da **autonomia erkidegoek eta tokiko administrazioek al bait azkarren sustatzea eta bermatzea** herritarrek zerbitzu publikoetara bide elektronikoz sartzeari buruzko ekainaren 22ko **11/2007 Legean** onartutako eskubideak erabili ahal izatea herritarrek, beren eskumeneko prozedura eta jarduketa guztiei dagokienez.
5. Estatuko Administrazioak, autonomia erkidegoek eta lurraldeetako aldundiek **udalekiko lankidetzak tekniko eta ekonomikoak sustatu** behar dute, udalak ere e-administrazioaren ereduarekin bat egin dezaten; izan ere, erakunde horien berezitasuna kontuan hartuta, eginkizun funtsezkoa izan dezakete, herritarrekin harreman zuzena dutenez gero.

IV. IKTak herriaren defentsa erakundeei aplikatzea

1. **IKTei esker, herritarrek erakunde publikoetara gertura daitezke**, eta, hala, gainditu egin daitezke orain arte distantzia eta denbora aldetik izan dituzten oztopoak, hori erabakigarria baita zerbitzu publikoak modu arin eta eraginkorrean eskuratzeko.
2. **Herriaren defentsa erakundeek parte hartzen dute 11/2007 Legeak IKTak arlo publikoan erabiltzeko ezartzen dituen printzipioetan**, eta beren gain hartzen dute herritarrek ematen diren zerbitzuetara bide elektronikoz sartzeko modua izatea, bai eta administrazio publikoekin dituzten harremanetarako komunikabide elektronikokoak ezartzea ere. Horretarako, oso komenigarritzat jotzen da, kasuaren arabera, lurralde administrazioetan ezarritako plataforma eta softwareak erabiltzeko aukera planteatzea.
3. **Defentsa bulegoek administrazio elektronikoaren oinarrizko zerbitzuak finkatu eta eman behar dituzte**, eta, testuinguru horretan, beren gain hartu behar dituzte dokumentuak aurkezteko eta izapidetzeko zerbitzuak, kexa eta kontsulta espedienteak izapidetzekoak, espedienteak kontsultatzekoak eta erakunde publiko garen aldetik aplikatzekoak zaizkigun gainerakoak (kontratazio administratiboa, langileria arloa...).
4. Zerbitzu horiek modu eraginkorrean ezartzeko, funtsezkoa da prozesu honetan **informazioa eta esperientziak trukatzeko ekintzak sustatzea** eta arlo honetan **koordinazio neurriak sustatzea**.

5. Hori horrela, defentsa erakundeek adierazi dute konpromiso irmoa dutela **datuak babesteko araudiak arlo horretan ezartzen dituen eskubideak zaintzeko**. Horretarako, erakunde horiek herritarren eskubideak sustatu eta bermatuko dituzte arlo honetan, beren eskumenen esparruan; hori lortze aldera, beharrezko neurriak hartuko dituzte, eta horien zerbitzura aritzen diren langile guztien trebakuntza eta sentsibilizazioa bultzatuko dute.

2.2. OMBUDSMANAREN NAZIOARTEKO INSTITUTUAREN (ONI) IX. MUNDUKO KONFERENTZIA ETA SUEDIako OMBUDSMAN PARLAMENTARIOEN BIGARRAREN MENDEURRENAREN OSPAKIZUNA

Ekainaren 9an, 10ean eta 11n, Ombudsmanaren Nazioarteko Institutuaren (ONI) IX. Munduko Konferentzia izan zen, Stockholmen. Halaber, ekainaren 12an, Suediako ombudsman parlamentarioen bigarren mendeurrena ospatu zen, Suediako hiriburuan. Arartekoaren ordezkaritza batek, arartekoa eta arartekoaren ondokoa buru zirela, bi ekitaldietan parte hartu zuen.

Ombudsmanaren Nazioarteko Institutuaren (ONI) IX. Munduko Konferentzia –irabazi asmorik gabeko erakundea, mundu osoko sektore publikoko herriaren defentsa bulego independenteak kide dituen– Stockholmen izan zen, ekainaren 9an eta 11n.

Konferentzia ekainaren 9an hasi zen, osoko bilkura batekin, “Ombudsmanaren lanari eragiten dioten munduko gaur egungo joerak” izenburupean, eta Willian P. Angrick Iowako (AEB) herriaren defendatzailea eta ONIko lehendakaria izan zen bilkura hartako burua. Osoko bilkura hartan, Kofi Annan NBEko idazkari nagusi izandakoak eman zuen lehenengo hitzaldia, “Estatua eta gizabanakoa” izenekoak. Ondoren, Navanethem Pillayk hartu zuen hitza, NBEko giza eskubideen goi komisarioak, eta “Giza eskubideak babesteko eta sustatzeko gaur egungo erronkak” izenburuko txostena aurkeztu zuen.

Ondoren, hitzaldi hauek izan ziren: “Asilo politikorako eskubidea bermatzeko konpondu beharreko arazoak,” George Okoth-Obbo Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisariotzako (UNHCR) Nazioarteko Babes Zerbitzuen Saileko zuzendariak emana, eta “Pribatizazioa – Nazioarteko joera al da agintaritza publikoa deuseztatzea?,” Henrik Jordhl Uppsalako Unibertsitateko irakasle eta Suediako Ekonomia Industrialak Ikertzeko Institutuko ikertzaileak emana.

Ekainaren 10ean, hainbat lantegi antolatu ziren. Horiertako lehenean, “Ombudsmana, giza eskubideen defendatzaile gisa” izenekoan, hizlari hauek aritu ziren: Riita-Leena Paunio Finlandiako herriaren defendatzailea, Victor Ayeni katedraduna eta Thomas Hammarberg Europako Kontseiluko giza eskubideen komisarioa. Bigarren lantegian, “Ombudsmana, sektore publikotik harago” izenekoan, hizlari hauek izan ziren: Anna Bossman Ghanako herriaren defendatzailea eta Rafael Ribo Kataluniako *sindic de greugesas*. Hirugarren lantegian, “Bizileku baimenik gabe – Asilo eskatzaileen eta legez kanpoko etorkinen babesa” izenekoan, hizlari hauek izan ziren: Yorgos Kaminis Greziako herriaren defendatzailea eta Catherine de Bruecker Belgikako herriaren defendatzailea.

Ondoren, osoko bilkura bat egin zen, “Ombudsmanaren lan metodoen garapena eta tresnak” izenekoak, Tom Frawley Ipar Irlandako herriaren defendatzaile eta ONIko lehendakariordea buru zela. Osoki bilkura horretan, lehenik eta behin Dean Gottehrer mintzatu zen, AEBetako Ombudsmanaren Elkarteko lehendakari izandakoa, eta “Ombudsmanaren erakundea eraginkorra izateko funtsezko elementuak” izeneko txostena aurkeztu zuen.

Horren ostean, Andre Marin Ontarioko (Kanada) herriaren defendatzaileak hartu zuen hitza, eta "Ikerketa talde bereziak" izeneko txostena aurkeztu zuen. Ondoren, hitzaldi hauek izan ziren: "Nola iritsi herritarrengana", Peter Kostelka Austriako herriaren defendatzaileak aurkeztua, eta "Ikuskapenak, administrazio txarrari aurre egiteko metodo proaktibo gisa", Kerstin Andre Suediako herriaren defendatzaileak aurkeztua.

Ekainaren 11n, lantegi sorta bat antolatu zen. Lantegietan lehenengoan, "Ahulenen babesa" izenekoan, Arne Fliflet Norvegiako herriaren defendatzailea mintzatu zen, espetxeei buruzko txosten baten inguruan; Cecilia Nordenfelt Suediako herriaren defendatzaileak tutoretzapeko pertsoneri buruzko txosten bati buruz jardun zuen; eta Bruce Barbour Hegoaldeko Gales Berriko (Australia) herriaren defendatzaileak adingabeei buruzko txosten bat aurkeztu zuen. Bigarren lantegian, "Ombudsman ahalguztidunak? Hainbat mandatu bateratzea" izenekoan, txostengile hauek mintzatu ziren: Linda Reif, Albertako (Kanada) Unibertsitateko irakaslea, eta Sekara Mafisa, Lesotoko herriaren defendatzailea. Hirugarren tailerrean, "Nola aplikatzen duten legea berau betearazten duten agintaritzek – Poliziaren gainbegiratzea" izenekoan, hizlari hauek aritu ziren: Dame Nuala O'Loan, Ipar Irlandako polizia herriaren defendatzaile izandakoa, eta Sozar Subari, Georgiako herriaren defendatzailea.

Ondoren, eskualdeetako kapituluen gaineko bilerak egin ostean, ONIko Batzar Nagusia izan zen. Batzar horretan, Zuzendaritzak ONIren administrazio egitura berriaren inguruan eginiko proposamenak aurkeztu eta onartu zituzten. Horren arabera, ONIko administrazioa Idazkaritza Nagusi berriaren barruan sartu da, eta Idazkaritza Nagusi hori Austriako Ombudsman erakundeak koordinatuko du. Horregatik, ONIren egoitza Albertako Unibertsitatetik (Edmonton, Kanada) Vienara aldatu da (Austria).

Ekainaren 12an, Suediako ombudsman parlamentarioak sortu zireneko 200. urteurrena gogoratzeko ekitaldiak antolatu ziren, Stockholmen. 1809an, konstituzio berria onartu zuten Suedian, eta bertan ezarri zen Parlamentuak ombudsman bat, Ganberaren ordezkari bat, hautatuko zuela, "epaileek eta funtzionarioek legea betetzen zutela begiratzeko". Mende batean baino gehiagoan, Suediako herriaren defendatzaile parlamentario horixe izan zen gisa honetako erakunde bakarra munduan. Gaur egun, herriaren defendatzaileek Zuzenbidearen Estatuaren printzipioak eta giza eskubideak betetzen direla zaintzen dute, 120 herrialdean baino gehiagoan.

Suediako ombudsman parlamentarioen bigarren mendeurrena gogoratzeko ekitaldia osoko bilkura batean egin zen, "Sustraietara itzultzea: Ombudsman erakundearen suediar jatorrian arakutzen" izenburuarekin. Bilkurako buru Mats Melin izan zen, Suediako herriaren defendatzaile nagusia. Osoko bilkura horretan, lehen-lehenik Hans-Gunnar Axbergerrek hitz egin zuen, Suediako herriaren defendatzaileak, eta "Jatorrizko errezeta – Suediaren 200 urteko esperientzia" izeneko txostena aurkeztu zuen. Ondoren, Hans Gammeltoltf Hansenek hitz egin zuen, Danimarkako herriaren defendatzaileak, eta "Errezeta doituz – Danimarkan Ombudsmanaren bulego bat sortzea" izeneko txostena aurkeztu zuen.

Ondoren, txosten hauek aurkeztu zituzten: “Ombudsmanaren ideia Europan zabaltzea”; Gabrielle Kucksko-Stadlmayer Vienako (Austria) Unibertsitateko irakasleak aurkeztua; “Ombudsmana mundu anglosaxoira iritsi da”; Sir Brian Elwood Zeelanda Berriko herriaren defendatzaile izandakoak aurkeztua; “Bitartekaritza, Ombudsmanaren tresna berria”; Jean-Paul Delavoye Frantziako arartekoak aurkeztua; “Ombudsmanen aniztasuna Asian”; Alice Tai Hong Kongeko herriaren defendatzaile izandakoak aurkeztua; “Diwan al Madhalim, ombudsman gisa – Kexak izapidetzeko tradizio islamikoa”; Wali al Madhalim Moulay Mhamed Iraqi Marokoko herriaren defendatzaileak aurkeztua; “Trantsizio garai batean erakunde berri bat ezartzea – Bi kontinenteren esperientziak”; Lawrence Mushwana Hegoafrikako babesle publikoak eta Ukrainako herriaren defendatzaileak aurkeztua.

Ekitaldia P. Nikiforos Diamandouros Europako herriaren defendatzailearen hitzaldiarekin amaitu zen, “Esparru nazionaletik atereaz – Errezeta nazioez haraindi ezartzea” izeneko txostenarekin.

2.3. OMBUSMANAREN IBEROAMERIKAKO FEDERAZIOAREN (OIF) XIV. BILTZARRA ETA URTEKO BATZARRA

Urriaren 28an eta 29an, Ombudsmanaren Iberoamerikako Federazioaren (OIF) XIV. Urteko Biltzarra eta XIV. Ohiko Batzar Nagusia izan ziren, Madrilen, Amerikako Giza Eskubideak Sustatzeko eta Babesteko Erakunde Sarearen VIII. Ohiko Batzar Nagusiarekin batera. Arartekoaren ordezkaritza batek, arartekoa eta arartekoaren ondokoa buru zirela, XIV. Urteko Biltzarrean eta OIFen XIV. Ohiko Batzar Nagusian parte hartu zuen.

OIFen helburu behinena da eztabaida foro bat izatea, elkarlanean aritzeko, esperientziak trukatzeko eta Ombudsmanaren erakundea bere jurisdikzioko eskualdeetan sustatu, hedatu eta indartzeko. Gaur egun, herrialde hauek osatzen dute OIF: Andorra, Argentina, Bolivia, Kolonbia, Costa Rica, Ekuador, El Salvador, Espainia, Guatemala, Honduras, Mexiko, Nikaragua, Panama, Paraguai, Peru, Portugal, Puerto Rico eta Venezuela.

Urriaren 28an, OIFen XIV. Urteko Biltzarra egin zen, eta bilkura entzutetsu hartako burua Asturiasko printzea izan zen. Biltzar hartan, Gregorio Peces-Barba Zuzenbidearen Filosofiako katedradunak "Giza eskubideen unibertsaltasuna eta elkarrekiko mendetasuna gaur egungo munduan: errealitatea edo fikzioa" izeneko hitzaldia eman zuen. Era berean, Sergio Garcia Ramirez epaileak, Giza Eskubideen Amerikarteko Batzordeko lehendakari izandakoak, "Giza eskubideak bermatzeko Amerikarteko sistema: jatorria, egoera eta ikuspegia, krisi horizonte batean. Ombudsmanekiko harremanak" izeneko hitzaldia eman zuen.

Urriaren 29an, OIFen XIV. Ohiko Batzar Nagusia izan zen. Bertan, Beatriz Merino Peruko herriaren defendatzailea hautatu zuten OIFeko lehendakari, bi urterako, ordura arteko lehendakariak, Nikaraguako giza eskubideen prokuradore Omar Cabezasek, eginiko lanarekin jarrai zezan. Halaber, Asturiasko Printzerriko prokuradore nagusi Maria Antonia Fernandez Felgueroso hautatu zuten, aho batez, OIFen herri autonomikoen defendatzaileak ordezkatzeko.

Batzar hartan erabaki ere zen Cartagena de Indias (Kolonbia) hirian antolatzea OIFen hurrengo biltzarra eta urteko batzarra. Bestalde, Iberoamerikako Giza Eskubideei buruzko OIFen Behatokiak lortutako emaitzak ezagutarazi ziren, bai eta Espainiako herriaren defendatzaileak eta demokrazia balioak aldezteko eta sustatzeko Valsain fundazioak izenpeturiko lankidetzaren emaitzak ere.

Aldi berean, OIFen XIV. Urteko Biltzarrean, Emakumeen Defentsa Erakundearen Sarearen urteko bilkura izan zen. Bilkura horretan, sarearen urteko txostena eztabaidatu zuten, 2010. urteko lan planaren zirriborroa egiten hasi ziren, eta Koordinazio Batzordea hautatu zuten. Sareak egindako jardueren artean, mintegi bat antolatu zen, emakumeak eta neskatilak sexu eta lan esplotaziorako salerosteak hartzen dituen alderdiak aztertzeko. Mintegi horretan, hizlari hauek hartu zuten parte: Dolores Galovart, Pobo Gallegoko babesleordea; Rosario Utreras, Ekuadorko Herriaren Defentsa Erakundeko banako eta generoko giza eskubideen komisario nazionala; eta Diego Blazquez, Espainiako berdintasun Ministerioko bulegoko aholkularia. Mintegiaren ondorio gisa, adierazpen bat egin zen emakumeak eta

neskatilak sexu eta lan esplotaziorako saleroskea gaitzesteko. Adierazpen hori OIFen XIV. Ohiko Batzar Nagusian irakurri zen. Halaber, batzar horretan, OIFen Emakumeen Defentsa Erakundearen Sareak 2009. urtean egindako jardueri buruzko txostena irakurri zen.

Hona hemen, hitzez hitz, OIFen Emakumeen Defentsa Erakundearen Sareak egindako **Emakumeak eta neskatilak sexu eta lan esplotaziorako saleroskea gaitzesteko adierazpena** testuaren transkripzioa:

“OIFeko Emakumeen Defentsa Erakundearen Sareak, 2009ko urriaren 28an eta 29an Madrilan (Espainia) egindako OIF Ombudsmanaren Iberoamerikako Federazioaren XIV. Biltzarrean eta Urteko Batzarrean, honako hau

ADIERAZI DU:

I. Pertsonak saleroskea gizakia esplotatzeko modurik okerrenetako bat dela, eta, beraz, giza eskubideak larriki urratzen dituela.

II. Iberoamerikako herrialde guztiek egin behar diotela aurre, gehiago edo gutxiago, pertsonen salerosketaren delitu gero eta usuagoari. Hain zuzen ere, delitu gisa dago tipifikatuta, nahiz eta biktima ados egonda egin, eta honako honetan datza: mehatxua, indarkeria, gezurra edo beste edozein iruzurbide erabiliz pertsonak sexu eta lan esplotaziorako atzitu, lekuz aldatu, abegi egin, hartu edo entregatzea sustatzea, eragitea, erraztea, horretan parte hartzea edo laguntzea, delitua egin duen pertsonak korritu ekonomikoak izan zein ez izan.

III. Emakumeen salerosketaren delituaren barruan indarkeria fisikoa, psikologikoa eta sexuala sartzen dela, eta biktimgan ezabatzen zailak diren arrastoak uzten dituela, eta horrek beren buruaz beste ere eginarazten diela. Munduko genero indarkeriarik zaharrena dela.

IV. Halaber, Iberoamerikako herrialde guztietan batik bat emakumeak direla sexu eta lan esplotaziorako salerosketaren biktimak; neskatilak, nerabeak, gazteak eta adinekoak.

V. Giza eskubideak babesteko eta exijitzeko erakundeok, OIFen barrukook, mandatu konstituzionala dugula gure herrialdeetan babes berezia behar duten taldeen giza eskubideak barruan eta kanpoan babesteko eta sustatzeko, eta batez ere emakumeen eta neskatilen giza eskubideak babesteko eta sustatzeko, horiek baitira adierazpen honetako subjektu giltzarri.

ERABAKI DU:

1º. Herriaren defentsa erakundeek, prokuradoretzek eta hornitegiek, dugun mandatuarekin bat eginez, ikerketak sustatzea gure herrialdeetan, emakumeak eta

neskatilak sexu eta lan esplotaziorako salerostearen delitua zenbaterainokoa den ikusteko, eta biktimari justiziarako bidea eman dakion eta kaltea konpon dakion sustatzea.

2°. Migrazio nazionalaren politikak gainbegiratzea, salerosketaren biktima diren emakumeak eta neskatilak ez daitezen soil-soilik dokumentu aldetik egoera irregularran dauden etorkin gisa hartuak izan;

3°. Salerosketaren biktima diren emakumeei eta hurrei laguntzeko zerbitzuen eta baliabideen berri emateko gidak egitea Iberoamerikako herrialde guztietan, bai nazio mailan eta bai nazioartean, beren eskubideak ezagutu eta baliatuko dituztela bermatzeko.

4°. Ombudsmanaren Iberoamerikako Federazioaren Biltzarrari eskatzea bere egin dezala Emakumeen Defentsa Erakundearen Sarearen adierazpen hau, eta txerta dezala OIFeko XIV. Biltzarraren azken adierazpenean, behar duen indar politikoa izan dezan eta gure herrialdeetan betearazteko modua izan dezagun.

OIFeko Emakumeen Defentsa Erakundearen Sareko kideek Madrilen (Espainia) sinatu dute adierazpen hau, Ombudsmanaren Iberoamerikako Federazioaren XIV. Biltzarraren eta urteko batzarraren harira bildu direlarik, bi mila eta bederatzigarren urteko urriaren hogeita zortzian.”

3. ARARTEKO ERAKUNDEAREN BESTE JARDUERA BATZUK

3.1. ARARTEKOAREN 20. URTEURRENAREN HARIRA ANTOLATUTAKO EKITALDIAK

2009. urtean, Arartekoak 20 urte bete zituen, 1989ko martxoaren 8an hasi baitzen Juan San Martin lehen arartekoa herrialde askotan jadanik bazeuden *ombudsman* edo *herriaren defentsa erakunde* izeneko erakundeen antzeko bat abian jartzen. 2009. urtean, hainbat jarduera antolatu ziren urteurren hori gogoratzeko:

• “Politika publikoen erronkak demokrazia aurreratu batean” jardunaldia

Erakundea abian jarri zeneko 20. urteurrenaren harira, Arartekoak “Politika publikoen erronkak demokrazia aurreratu batean” izeneko jardunaldiak antolatu zituen maiatzaren 19an eta 22an, Bilboko Euskalduna jauregian. Jardunaldi horietan, hogeita hamar bat espezialistak demokrazia hobetzeko eta herritarren eskubideen defentsa bermatzeko bideak aztertu zituzten. Hitzaldi ziklo horren helburu nagusia zen eztabaida eta hausnarketa sustatzea gaur egungo politika publikoek gizarte aldakor honetan dituzten erronken inguruan.

Maiatzaren 19an, jardunaldiak inauguratzeko ekitaldia izan zen, eta bertan izan zen Bilboko alkatea, Iñaki Azkuna. Lehenengo saio horretan, Javier de Lucas Valentziako Unibertsitateko Zuzenbidearen Filosofiako katedradun eta Errefuxiatuei Laguntzeko Espainiako Batzordeko lehendakariak hitz egin zuen, eta “Politika publikoak, immigrazioa, asiloa” izeneko txostena aurkeztu zuen. Ondoren, Maria Jesus Aranda Iberoamerikako Idazkari-tza Nagusiko (Segib) berdintasun arloko aholkulari eta Nafarroako herriaren defendatzaile izandakoak “Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna: erdi ibilitako bidea” izeneko hitzaldia eman zuen.

Horren ostean, hitzaldi hauek izan ziren: “Arrazoi publikoaren ikuspegi berriak osasunaren herritarrengan”, Carlos Ponte Asturiasko Ospitale Orokorreko mediku eta Osasun Publikoa Defendatzeko Elkarteen Federazioko lehendakariak emana; eta “Bioetika: zertaz ari garen eta arlo horren egoera zein den”, Koldo Martinez Nafarroako Ospitaleko mediku intentsibista eta Bioetika Oinarrizko eta Klinikoaren Elkarteko lehendakariordeak emana.

Ondoren, hezkuntzarako eskubidearen inguruko politika publikoak aztertu ziren. Lehenik eta behin, Xavier Bonalek hartu zuen hitza, Kataluniako Sindic de Greugeseko haurren eskubideen defentsarako ondokoak, eta “Hezkuntzarako eskubidea: ikuspegi orokor eta gaur egungoa” izeneko txostena aurkeztu zuen. Halaber, mahai-inguru bat antolatu zen, eta bertan gure hezkuntza sistemak dituen erronketako zenbait aztertu ziren. Mahai-inguru horretan, honako hauek hartu zuten parte: Rafa Mendiak, hainbat garaitan Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko hezkuntza bereziko programaren arduradun izandakoak –hezkuntza inklusiboaz hitz egin zuen–; Neli Zaitegik, azken urteetan Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko zentroen bizikidetza programaren arduradun denak –bizikidetza jardun zen–; eta Felix Etxeberriak, EHUko Pedagogia irakasleak –balioen eta teknologia berriez hitz egin zuen–.

Maiatzaren 20an, Miguel Angel Verdugo Psikologia Fakultateko Ezgaitasunaren Psikologiako katedradun eta Salamancako Unibertsitateko Komunitatean Integratzeko Unibertsitate Institutuko (Inico) zuzendariak “Mendetasun egoeran diren pertsonen autonomia pertsonala eta bizi-kalitatea hobetzeko estrategiak” izeneko hitzaldia eman zuen. Horren ostean, Federico Mayor Zaragoza Bake Kulturarako Fundazioko lehendakariak eta Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundeko zuzendari nagusi izandakoak (Unesco) “Giza eskubideak babesteko nazioarteko sistemak” izeneko hitzaldia eman zuen.

Ondoren, hitzaldi hauek eman zituzten: “Haurren eta nerabeen inguruko politika publikoak, Jose Chamizo Andaluziako herriaren defendatzaile eta adingabeen defendatzaileak emana; eta “Gobernantzaren eta herritar berrien ikuspegia duen administrazio on baterako eskubidea”; Joan Prats Gobernagarritasunaren Nazioarteko Erakundeko zuzendari eta Kataluniako Oberta Unibertsitateko katedradunak emana.

Gero, mahai-inguru bat izan zen, eta bertan biztanleen sektore jakin batzuen inguruko politika publikoak aztertu ziren. Mahai-inguru horretan, honako hauek parte hartu zuten: Francisco Javier Leturiak, Arabako Gizarte Ongizateko Foru Erakundeko zuzendariorde teknikoak –adinekoen egoera aztertu zuen–; Ana Asunak, Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Bizkaiko Federazio Koordinatzaileko (Fekoor) ordezkariak –ezgaitasunen bat duten pertsonen egoera aztertu zuen–; Itziar Ceballosek, Eri Psikikoen eta Senideen Bizkaiko Elkarteko (Avifes) ordezkariak –burutik gaixo dauden pertsonen egoera aztertu zuen–; Heraclio Varonak, Bidesari kartzetako pastorerako elkarteko ordezkariak –espetxeetan eta gizartean baztertuta geratzeko arriskuan diren pertsonen egoera aztertu zuen–; eta Carmen Jimenezek, Iniciativa Gitanako ordezkariak –ijitoen egoera aztertu zuen–. Maiatzaren 21ean, Vicenç Navarro Bartzelonako Pompeu Fabra unibertsitateko Politika eta Gizarte Zientzietako katedradun eta Espainiako Gizarte Behatokiko zuzendariaren hitzaldiarekin hasi zen; hain zuzen ere, “Gizarte Estatuaren iraunkortasunaren erronkak” izeneko txostena aurkeztu zuen. Horren ostean, M. Victoria Cinto Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko magistratu eta lehendakariak “Justizia modernoa eskubideen berme gisa” izeneko hitzaldia eman zuen.

Ondoren, hitzaldi hauek eman zituzten: “Eskubideen defentsa instituzioen eta erakundeen eginkizuna”, Manuel Lezertua Europako Kontseiluko Unitateko buru eta Giza Eskubideen Europako Komisariotzako zuzendari izandakoak emana; “Presoen osotasun fisiko eta moralaren babesa”, Mauro Palma Europako Kontseiluko Torturaren Prebentziorako Batzordeko lehendakariak emana; “Berdintasunaren dimentsio berriak: homosexualen eta transexualen berdintasuna eta bereizkeriak eza”, Beatriz Gimeno idazleak eta Lesbiana, Gay, Transexual eta Bisexualen Estatuko Federazioko (FELGTB) lehendakari izandakoak emana; “Pertsonen eskubideak eta IKTa (informazio eta komunikazio teknologiak), Jordi Barrat Alacanteko Unibertsitateko Konstituzio Zuzenbideko irakasleak eta Boto Elektronikoaren Behatokiko (OVE) sortzaileak emana.

Jardunaldietako azken saioa maiatzaren 22an izan zen, eta Gerardo Pisarello Bartzelonako Unibertsitate Zentraleko Konstituzio Zuzenbideko irakasleak emandako “Bizitza duina izateko eskubidea bermatzeko politika publiko eraginkorrak” izeneko hitzaldiarekin hasi zen. Horren ostean, Jordi Argelaguet Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Zientzia Politikako

irakasle titularrak “Bi hizkuntza ofizial (edo gehiago) dituzten autonomia erkidegoetako hizkuntza eskubideak” izeneko hitzaldia eman zuen.

Ondoren, hitzaldi hauek eman zituzten: “Bizitza pertsonalarekin eta familiakoarekin bateragarria den lan duin bat izateko eskubidea;” Henar Merino Gizarte arloko magistratuak eta Gaztela-Mantxako herriaren defendatzaile izandakoak emana; eta “Giza Eskubideen Europako Biltzarra: erakundeen, araudiaren eta prebentzioaren esparruak;” Jose Antonio Pastor Ridruejo Madrilgo Konplutentse Unibertsitateko Nazioarteko Eskubideko katedradun emerituak eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiko epaile izandakoak emana.

Jardunaldiak Eusko Legebiltzarreko lehendakari Arantza Quirogak itxi zituen.

• Ekitaldi instituzionala Gasteizko Artium museoan

Ekainaren 17an, Arartekoaren 20. urteurrena gogoratzeko ekitaldi instituzional bat izan zen Gasteizko Artium museoan. Ekitaldi horretan, Eusko Jaurlaritzako lehendakari Patxi Lopezek eta Eusko Legebiltzarreko lehendakari Arantza Quirogak hitz egin zuten, eta bertan izan ziren Arartekoarekin harreman estua duten arlo bateko eta besteko erakunde publikoetako eta elkarteetako hainbat eta hainbat ordezkari ere.

Ekitaldi horretan, “Arartekoa, 20 urte zuretzat lanean” izeneko bideo labur bat eman zen lehenik. Bertan, Euskadiko gizarte eta elkarte munduko zenbait ordezkari Arartekoaren lanari eta ibilbideari buruz hitz egin zuten. Bideo horren ostean, jendaurreko aintzatespena egin zitzaizen lehen 20 urte hauetan erakundeko arduradun goren izan diren pertsoneri: Juan San Martin (1989-1995), Xavier Markiegi (1995-2000) eta Mertxe Agundez (jarduneko funtzionarioa 2004ko ekainera arte). Egindako lana eskertzeko, horietako bakoitzari, Juan San Martinen kasuan haren alargun M. Paz Ibeasi, Judas Arrieta artistaren obra original bat eman zitzaion. Aintzatespena ere egin zioten Juan San Martinen ondokoari, Jesus M. Arteagari (Mertxe Agundez izan zen Xabier Markiegirena), bai eta 20 urte horietan Arartekoan lan egin duten eta gaur egun lanean diharduten pertsona guzti-guztiei ere.

Ekitaldiko zatirik ludikoenean, honako saio hauek nabarmendu ziren: Kukai dantza taldearen *Hnuy Illa* lanaren zati bat, Iñaki Salvadorren musikaz lagundua; Eva Mena artistak zuzenean egindako grafitia; eta bertaratutako pertsona gehienen argazkiak biltzen zituen murala, non sinatzeko edo nahi izan zuten mezua islatzeko aukera izan baitzuten han bildutakoek. Ospakizuna Guararey kubatar musika taldeak eta Robin Cooper Trio jazz taldeak girotu zuten.

3.2. ARARTEKOAREN INFORMAZIO GUNEAK BULEGO PUBLIKOETAN

2009. urtean, areagotu egin zen Arartekoa euskal herritarren artean ezagutarazteko lana, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren pertsona guztiek jakin dezaten zein den erakunde honek ematen duen zerbitzu publikoa eta zertarako gerta dakiekeen baliagarri.

Horregatik, informazio kanpaina bat jarri zen abian. Kanpaina horretan, Arartekoaren informazio gune batzuk ipini ziren, harri-kartoiz eginiko eskultura baten antzeko euskarri batean; gune horretan, erakundeari buruzko informazio interesgarria ematen zuten eskuorriak jarri ziren, bai eta urteko aldizkariaren ale batzuk ere. Arartekoaren informazio gune horiek EAEko udaletxeetan ipini ziren, ondo ikusten diren eta jendea ibiltzen den lekuetan.

Etorkizunean, informazio kanpaina horrekin jarraitzeko asmoa dugu, Arartekoari buruzko informazio guneak hiru foru aldundietako eta Eusko Jaurlaritzako herritarrei arreta emateko bulegoetan ere jarrita.

3.3. URTEKO JARDUEREN ZERRENDA

Arartekoak, legez emanak zaizkion funtzioak betetzearekin zuzenean loturiko jarduketez gain, urtean zehar beste hainbat jarduketa egiten ditu, hala nola gizarte erakundeek antolatzen dituzten ekitaldietan parte hartzen du, erakundearen xedeekin hertsiki loturik dauden ekitaldi instituzionaletara joaten da, hitzaldiak ematen ditu giza eskubideekin loturiko gaietarako foroetan eta abar.

Jarraian, Iñigo Lamarca arartekoak egindako jarduera esanguratsuenen zerrenda eman dugu, urteko txosten honetan jasota gera daitezten:

- o Urtarrilak 14: Espainian adingabeei ematen zaien babesari buruzko mahai-inguru batean parte hartu zuen, Espainiako eta Marokoko Adingabeen Babesari buruzko Jardunaldietan, Sevillan. Jardunaldi hori Tres Culturas fundazioak antolatu zuen, Pablo de Olavide unibertsitatearekin elkarlanean.
- o Urtarrilak 28: arartekoaren ondokoarekin batera, "Bakarrik dauden adingabe atzerri-tarren babes juridiko eta soziala Euskadin" mintegian parte hartu zuen, Gasteizen. Save the Children erakundeak antolatu zuen mintegi hori.
- o Otsailak 19: arartekoaren ondokoarekin batera, Fernando Buesaren oroimenezko "2009 Pausoak arrastoetan" ekitaldian izan zen, Gasteizen.
- o Martxoak 23: Marokora bisita egin zuen, herriaren defendatzaileen ordezkari baten kide gisa, babesik gabe dauden adingabeen errealitatea bertatik bertara eza-gutzeko eta adingabe horiei arreta emateko zer baliabide instituzional eta sozial dauzkaten ikusteko.
- o Martxoak 27: arartekoaren ondokoarekin eta idazkari nagusiarekin batera, Katalu-niako Sindic de Greugesari buruzko Legearen 25. urteurrena gogoratzeko antolatu zuten ekitaldian izan zen, Bartzelonan.
- o Martxoak 31: Espainiako Erregea Giza Eskubideen Sarien banaketan izan zen, Alcala de Henaresen. Sari hori Espainiako herriaren defendatzaileak eta Alcala de Henaresko Unibertsitateak ematen dute, eta aurten Emakumeen Eskubideak Aldezteko Latinoamerikako eta Karibeko Batzordeari (CLADEM) eman diote.
- o Apirilak 2: Terrorismoaren Biktimei eta Memoriari buruzko I. Topaketan izan zen. Bakeaz erakundeak, Fernando Buesa fundazioak eta Deustuko Unibertsitateko Etika ikasgelak antolatu zuten, Bilbon.
- o Apirilak 29: *La sociedad del control* liburua aurkezteko ekitaldian izan zen, Madrilan.

- o Maiatzak 6: Bigarren “Giza eskubideak eta ezgaitasuna: komunitate bizitza independente baten alde” jardunaldia inauguratzeko ekitaldian izan zen, Bilbon. Fekoor erakundeak (gutxitasun fisikoa duten pertsonen Bizkaiko federazio koordinatzailea) antolatu zuen ekitaldi hori.
- o Maiatzak 7: Lehendakariaren kargu hartzeko zeremonian izan zen, Gernikako juntetxean.
- o Maiatzak 8: Bilakaera Kronikoa duen Buru-gaixotasun Larrirako Laguntza eta Errehabilitazio Psikosoziolari buruzko XI. Jardunaldietan esku hartu zuen, Bilbon. Hain zuzen ere, buru gaixotasun larria duten pertsonak gizarteratzeko gizarateak zer egin-kizun duen azaltzeko hitzaldi bat eman zuen. Zamudioko Ospitaleak antolatu zituen jardunaldiak.
- o Maiatzak 8: Bachue elkartearekin bilera egin zuen, Gasteizen. Elkarre hori Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren Kolonbiako gizon-emakume errefuxiatuek osatzen dute.
- o Ekainak 14: Terrorismoaren eta indarkeriaren biktima izan diren Ertzaintzako kideak omentzeko euskal erakundeek egiten duten ekitaldian izan zen. Omenaldia Eusko Jaurilaritzak antolatu zuen, Euskal Herriko Polizia Ikastegian, Arkauten.
- o Ekainak 30: arartekoaren ondokoarekin batera, Irungo alarde mistoaren desfilean izan zen, emakumeek eta gizonek jai ekitaldi horretan berdintasun baldintzetan parte hartzeko duten eskubidea babesteko.
- o Uztailak 2: Paul Bilbao Hizkuntza Eskubideen Behatokiko zuzendariarekin bilera egin zuen, Gasteizen.
- o Uztailak 10: “Hezkuntza eta adingabeak arriskuan” udako ikastaroan parte hartu zuen, EHUren XXVIII. Udako Ikastaroetan, Donostian. Hain zuzen ere, Etxeberria EHUko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko katedradunaren “Eskolako indarkeria zineman” izeneko hitzaldia aurkeztu zuen.
- o Uztailak 15: “Portaera nahasteak eta gizarte arazo larriak dituzten adingabeen eskubideen babesa” udako ikastaroan parte hartu zuen, Madrilan. Ikastaro hori Espainiako herriaren defendatzaileak antolatu zuen, Konplutentse Unibertsitatearekin elkarlanean.
- o Irailak 8: arartekoaren ondokoarekin batera, Hondarribiko alarde mistoaren desfilean izan zen, emakumeek eta gizonek jai ekitaldi horretan berdintasun baldintzetan parte hartzeko duten eskubidea babesteko.
- o Irailak 8: Konkordiaren Asturiasko Printzea sarirako Marcos Anaren hautagaitza babesteko ekitaldian izan zen, Gasteizen.

- o Irailak 14: Eusko Legebiltzarreko lehendakari Arantza Quirogak Forum Europa Tribuna Euskadin eman zuen hitzaldian izan zen, Bilbon.
- o Irailak 22: Herriaren defentsa erakundeek gizarte boluntarioritza eta elkartegintza babesteko duten eginkizunari buruzko mahai-inguru batean parte hartu zuen, Forja XXI fundazioak antolatutako gizarte boluntarioritza buruzko jardunaldian, Sevillan. "Herriaren defentsa erakundeak, gizarte solidarioaren partaide" izeneko hitzaldia eman zuen.
- o Irailak 24: Cultura de Paz fundazioak antolatutako Hezkuntzari, Giza Eskubideei eta Herritarrei buruzko Udako Eskolan parte hartu zuen, Santiagon. "Balio demokratikoetan oinarritutako haurren eta nerabeen hezkuntza" izeneko hitzaldia eman zuen.
- o Irailak 25: EHUko ikasturte akademikoa irekitzeko ekitaldian izan zen, Donostian.
- o Urriak 16: Gizartean baztertuta geratzeko arriskuan dauden haurrei buruzko mahai-inguru batean parte hartu zuen, "Haurrak eta aniztasuna: orainaldia eta etorkizuna" izeneko Gizarte Pediatriaren XIX. Espainiako Kongresuan, Sevillan.
- o Urriak 25: Gernikako Autonomia Estatutua onartu zeneko 30. urteurrena gogoratze-ko ekitaldian izan zen, Gasteizen.
- o Azaroak 5: Orientazio homosexuala edo nortasun transexuala izateagatik jazartitako pertsonen asilo eskubideari buruzko jardunaldiak ixteko ekitaldian parte hartu zuen, Donostian. Jardunaldi hori Gehituk antolatu zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko lesbiana, gay, transexual eta bisexualen elkarteak.
- o Azaroak 6: Hezitzaileak Giza Eskubideetan Trebatzeko V. Mintegian parte hartu zuen, Donostian. "Nola sentitzen dira eta zer erreklamatzeko dute adinekoek?" izeneko hitzaldia eman zuen, eta "Gure inguruko adinekoen gizarte irudia" izeneko mahai-inguruan parte hartu zuen.
- o Azaroak 11: Hitzaldi bat eman zuen Petronorreko lehendakari Josu Jon Imazek aurkeztutako Forum Europa Tribuna Euskadin, Bilbon.
- o Azaroak 17: bilera bat egin zuen Ted Piccone Brookings Institution erakundeko Atzerri Politikaren Programako zuzendariordearekin, Bilbon.
- o Azaroak 18: Felix Etxeberria EHUko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko katedradunak koordinatutako *Educación y menores en riesgo* izeneko liburua aurkezteko ekitaldian parte hartu zuen, Donostian.
- o Azaroak 20: Lurgorri ikasle elkarteak antolatutako "Ikasketak eta lana, nola egin dezaket?" jardunaldian parte hartu zuen, "Arartekoa, ikasleen zerbitzura" izeneko hitzaldia emanda, Bilbon.

- o Azaroak 21: Amnesty Internationalek IV. Emakumeen Aurkako Indarkeria Gehiagorik Ez Jardunaldian parte hartu zuen, Donostian.
- o Azaroak 24: Zornotza Hitz indarkeria sexistari buruzko eztabaida foroan parte hartu zuen, Zornotzan.
- o Azaroak 26: *Filés: Democracia Económica en el siglo de las redes* izeneko liburua aurkezteko ekitaldian izan zen, Madrilen.
- o Azaroak 29: Eusko Jaurlaritzak antolatutako III. Terrorismoaren eta Indarkeriaren Biktimekiko Elkartasun Ekitaldi Instituzionalean izan zen, Gasteizen.
- o Azaroak 30: "Donostia... barrutik" erakusketaren inaugurazio ekitaldian izan zen, Donostian. Erakusketa hori Gizarteratze eta Biktimenganako Zerbitzuaren Euskal Institutuak antolatu zuen, Martuteneko presoek espetxeko tailerretan egindako obrek.
- o Abenduak 1: Donostiako Udalak eta Acasgi, Ehgam, Gehitu eta Harri Beltza taldeek Hiesaren Aurkako Munduko Egunaren harira hiesaren biktimak gogoratzeko antolatu zuten elkarretaratzean parte hartu zuen, Donostian.
- o Abenduak 3: II. Protagonistas Gipuzkoa 2009 sariak banatzeko ekitaldian izan zen, Donostian. Sari hori Arartekoari eman zioten, Punto Radio Gipuzkoako *Protagonistas* saioarengatik.
- o Abenduak 3: Mintzodromo izeneko ekimenean parte hartu zuen, Donostian. Ekimen hori Euskararen Donostia Patronatuak eta Donostia 2016. urtean Europako kultur hiriburu izateko Hautagaitza Bulegoak antolatu zuten, Euskararen Nazioarteko Egunaren harira, kalean euskararen erabilera sustatzeko.
- o Abenduak 9: Animaliak Defendatu eta Babesteko Elkarreak (ADPA) antolatutako Animalien Babesari buruzko II. Euskal Jardunaldietan parte hartu zuen, Bilbon.
- o Abenduak 10: Sabadellgo Udaleko Sindic de Greugesera bisita ofiziala egin zuen, Giza Eskubideen Nazioarteko Egunaren harira, eta "Gutxiengoen berdintasun desberdina" izeneko hitzaldia eman zuen, Sabadellen.
- o Abenduak 15: 2009ko Eusko Ikaskuntza-Euskadiko Kutxaren Humanitate, Kultura, Arte eta Gizarte Zientzia Saria banatzeko ekitaldian izan zen, Donostian. Eusko Ikaskuntzak Javier Elzo soziologoari eman zion sari hori. Abenduak 16: Gipuzkoako Urrezko Domina banatzeko ekitaldian izan zen, Donostian. Domina hori 60ko hamarkadan Gipuzkoan ikastolak martxan jarri zituzten andereñoi banatu zien Gipuzkoako Foru Aldundiak.

- o Abenduak 17: Bizkaiko Guraso Bananduen Elkarteak (Abipase) antolatutako Banantze eta Dibortziate Prozesuetan Adingabeak Babesteko III. Jardunaldien inaugurazioan parte hartu zuen, Bilbon, eta "Familia harremanen baketzea" izenburuko hitzaldia eman zuen.
- o Abenduak 22: 2009ko Manuel de Irujo saria banatzeko ekitaldian izan zen, Leioako Artaza jauregian. Sari hori Inmaculada de Miguel juristari eman zion Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Sailak.

Ondoren, Julia Hernandez arartekoaren ondokoak parte hartu edo protagonista izan den ekitaldirik garrantzitsuenak azaltzen dira:

- o Urtarrilak 21: Euskal Herriko Notario Elkargo Txit Prestua eratzeko ekitaldian izan zen, Bilbon.
- o Urtarrilak 28: III. Ramon Rubial sariak banatzeko ekitaldian izan zen, Gasteizen.
- o Otsailak 7: *Hitza* eskultura inauguratzeko ekitaldian izan zen, Basaurin. Eskultura hori Miguel Angel Antolin eskultoreak egin zuen, terrorismoaren biktimen omenez.
- o Otsailak 9: 2008ko Berdintasunaren Aldeko Emakunde saria banatzeko ekitaldian izan zen, Bilbon. Bizkaiko Emakumeen Biltzarrari eman zioten saria.
- o Otsailak 12: Comillasko Unibertsitate Pontifizioak bakarrik dauden adingabe atzerriarren gainean antolatutako topaketan parte hartu zuen, Madrilan.
- o Otsailak 26 eta 27: Hernandez Pacheco BHIko Haurren eta Berdintasunaren Aldeko Jardunaldietan parte hartu zuen, hitzaldi bat emanda, Caceresen.
- o Martxoak 6: Jose Cholbik Valentziako Erkidegoko sindic de greuges-aren kargua hartzeko ekitaldian izan zen, Valentzian.
- o Apirilak 1: Gipuzkoako Batzar Nagusiek terrorismoaren eta indarkeriaren biktimen omenez urtero antolatzen duten ekitaldian izan zen, Donostian.
- o Apirilak 28: Anesvad fundazioarekin bilera egin zuen, Gasteizen.
- o Apirilak 30: "Geldi dezagun pobrezia" kanpainan parte hartu zuen, Gasteizen.
- o Maiatzak 5: Lehendakariaren inbestidura saioan izan zen, Gasteizen.
- o Maiatzak 8: Gipuzkoako Esklerosi Anizkoitzaren Elkarteak antolatutako ongintza afarian izan zen, Donostian.

- o Maiatzak 29: “Indarkeria filio-parentalean esku hartzea” jardunaldiak inauguratzeko ekitaldian parte hartu zuen, Bilbon.
- o Ekainak 22: Valedor do Poboren 25. urteurrena gogoratzeko ekitaldian izan zen, Santiagon.
- o Ekainak 25: Fernando Buesa fundazioak argitaratutako liburuaren aurkezpen ekitaldian izan zen, Gasteizen.
- o Uztailak 16: Francisco de Vitoria domina emateko ekitaldian izan zen, Gasteizen. Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisariotzari (ACNUR) eman zioten domina.
- o Uztailak 18: “Euskal gazteriaren erronkak” izeneko gazteriari buruzko VI. Jardunaldietan parte hartu zuen, Gasteizen.
- o Uztailak 23: “Indarkeria kolektiboak osasunean duen eragina” izeneko VIII. Fernando Buesa Mintegian izan zen. EHUko XXVIII. Udako Ikastaroen barruan antolatu zen mintegi hori, Donostian.
- o Irailak 2: “Krisi ekonomikoa, generoa eta ordainsaria” ikastaroan izan zen, Donostian. EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Defentsa Erakundeak antolatu zuen ikastaro hori, EHUko XXVIII. Udako Ikastaroetan.
- o Azaroak 19: El Sitio elkarteak antolatutako “Laikotasuna eta herritarrak” izeneko hitzaldian izan zen, Bilbon.
- o Azaroak 20: Euskal Autonomia Erkidegoko Gizonak, Berdintasuna eta Indarkeria plataforma aurkezteko ekitaldian izan zen, Gasteizen.
- o Azaroak 24: Etxeko Indarkeriaren Aurkako eta Adingabeen Aldeko Elkarteak (Acovidem) antolatutako “Argiz betetako lorategi bat genero indarkeriaren aurka” hitzaldian izan zen, Donostian.
- o Azaroak 26: AIZAn elkarteak antolatutako Berdintasunari eta Genero Indarkeriari buruzko VII. Jardunaldietan parte hartu zuen, Gasteizen.
- o Azaroak 27: Elikadura nahasteetako emozioei eta emozioen erregulazioari buruzko jardunaldietan izan zen, Bilbon. ACABE elkarteak antolatu zituen jardunaldiak.
- o Abenduak 2: Haurren eta Nerabeen Tokiko Politikei buruzko Kongresu Nazionalean izan zen, Gasteizen.
- o Abenduak 3: Fekoor Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Bizkaiko Federazio Koordinatzaileak erakundearen 30. urteurrena eta Ezgaitasunaren Nazioarteko Eguna gogoratzeko antolatu zituen jardunaldietan izan zen, Bilbon.

- o Abenduak 4: Gizarte Larrialdiei buruzko Jardunaldietan hitzaldi bat eman zuen, Donostian.
- o Abenduak 4: Hiesaren Aurkako Borrokaren Munduko Eguna gogoratzeko ekitaldian izan zen, Gasteizen.
- o Abenduak 10: Fekoor Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Bizkaiko Federazio Koordinatzaileko Berdintasunaren Aldeko Emakumeen Batzordeak antolatutako Emakumea eta Ezgaitasuna VI. Foroan esku hartu zuen, Bilbon. "Ezgaituen Eskubideen buruzko Hitzarmena. Legerian eta genero politiketan izango duen eraginari buruzko ikuspegia" izeneko hitzaldia eman zuen.
- o Abenduak 10: Euskal Autonomia Erkidegoan bakarrik dauden adingabe atzerritarren egoerari buruzko mahai-inguru batean parte hartu zuen, Ermuan, "Horiek ere gure adingabeak dira" izeneko hitzaldia emanda.
- o Abenduak 16: Palestinako Giza Eskubideetarako Zentroko zuzendari Raji Souranirekin bildu zen, Gasteizen.
- o Abenduak 17: Harresiak Apurtuz elkarteak antolatutako Atzerritarren Lege berriari buruzko hitzaldi batean parte hartu zuen, Gasteizen.



VI. ATALA

ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERA KOPURUTAN



1. OHAR ETA DATU OROKORRAK

Estatistikaren gaineko atal honetan barrena, Arartekoak burutzen duen jardueraren ikuspegi orokorra ematen ahaleginduko gara, kopurutan. Beraz, honako datuok zehatz-mehatz bildu ditugu: eragindako euskal administrazio publiko bakoitzari zenbat kexa dagozkion, lurralde-ka nola banatzen diren eta prozedurako zein fasetan dauden. Gainera, analisi soziologikoari esker, pertsonak erreklamazioa egiteko zer bide erabiltzen duten, zein hizkuntza erabiltzen duten, zer adin duten eta nondik datozen, etab. jakin ahal izango dugu. Halaber, arreta zuzena eskaintzen duten hiru bulegoen jarduera ere xehatuko dugu. Ararteko erakundearen jarduerara kopuru bidez egiten den hurbilketa hori estatistikako kapitulu honetan kontsulta daiteke, baina, ondoren, zenbait alderdi nabarmenduko ditugu, laburpen gisa.

2009. urtean 4.221 kontsulta izan dira, telefonoz deitu dutenen nahiz gure hiru bulegoetakoren batera etorri diren pertsonenak. Guztira 2.844 bisita izan dira. Jasotako bisita guztietatik 729 kexa bihurtu dira, hau da, %25,63. Hortaz, agerian jarri da arreta zuzeneko bulegoetan aurrez lan garrantzitsua egiten dela, izan ere, bulego horietan ez da onartzen arrazoi batengatik edo besteagatik Arartekoak ikertzerik izango ez duen erreklamazioirik. Gainera, Internet kexak egiteko biderik erabiliena bezala sendotu da. Kexagileetatik %39,91k beren kexa Interneteko galde-sortaren bidez egitea aukeratu dute.

2009an zehar, herritarrek guztira 1.917 erreklamazio egin dizkiote Arartekoari eta ofiziozko 75 espediente bideratzen hasi gara. Gaiei begira, eduki ekonomikoa duten gizarte-prestazioei buruzko kexak, haur eta nerabeak artatzearekin lotutakoak eta trafikorearen gainekoak dira nagusi.

2009. urtean erabat izapidetu diren kexei dagokienez, 478 kasutan okerreko jarduerak antzeman dira, hau da, aztertu diren kexetatik %32,34tan. Okerreko jardueraren bat antzeman den kexetan, eragindako administrazioak kasu guztietatik %86,4tan zuzendu du kexa sortarazi zuen jarduera.

Erakunde honen jarduera baloratzeari dagokionez, borondatez betetzekoak eta anonimoak diren inkesten emaitzek agertzen duten bezala, Arartekoaren esku-hartzea oso ona edo nahikoa ona iruditu zaie galdera-sorta erantzun dutenetatik %78,5i. Euren arazoa konpondu ez den edo aurkako emaitza jaso duten pertsonak ere balorazio positiboa egin dute

(%60k). Erakunde honetara jo duten pertsona gehienek adierazi dutenez (%89,24k), beste pertsona batzuei ere Arartekora jotzeko gomendatuko liekete administrazioarekin arazoren bat izanez gero.

Ararteko erakundearen esku-hartzearen eraginkortasun-maila	
	%
Konpondutako jarduera okerra	86,4
Konpondu gabeko jarduera okerra	13,6

(Ikusi 2. diagrama eranskinean)

- Jasotako kexak

2009an guztira 1.917 kexa jaso dira. Horietatik 1.440 bideratzeko onartu dira, Ararteko erakundeak aztertu eta ikertzeko.

Jasotako kexen kopuruaren bilakaera (1989 -2009)	
Urtea	Kop.
1989	585
1990	1.159 ¹
1991	766
1992	781
1993	827
1994	747
1995	1.164
1996	1.674
1997	1.991
1998	2.660 ²
1999	1.283 ³
2000	1.231
2001	1.513 ⁴
2002	1.253
2003	1.377
2004	1.531
2005	1.459
2006	1.678
2007	1.558
2008	1.696
2009	1.917

¹ 545ek kexa berdinaren multzo bat osatzen dute.

² 1.143k kexa berdinaren 2 multzo osatzen dituzte.

³ 62k kexa berdinaren multzo bat osatzen dute.

⁴ 264k kexa berdinaren 2 multzo osatzen dituzte.

(Ikusi 3. diagrama eranskinean)

- Onartu gabeko kexak

Ararteko erakundea sortu eta arautzeko 3/1985 Legearen 21. artikuluan adierazten dira zein zertzelada gertatu behar duten herritarren kexak ez onartzeko. Horrela, hainbat arrazoirengatik onartu ez diren kexak bereizi behar dira: norbanakoen arteko gatazka zelako, ordurako auzitegian azalduta zegoen arazoren bati buruzkoa zelako (epai irmoa jasoa zuen edo epai-learen ebazpenaren zain zegoen), edo erakunde honen eskumen eremutik kanpo geratzen zelako.

Nolanahi ere, kexei ahalik eta babes juridikorik handiena eskaintzeko irizpidea mantentzen da; horrela, ahalegina egiten da prozedurazko arauak herritarrek egindako kexa onartzearen alde interpretatzeko. Onartu ez diren kexei dagokienez, erakundeak beti ere ahalegina egiten du kexagileari gomendioak emateko, azaldutako arazoak konpontzeko egokienak izan daitezkeen bideei buruz.

Onartu gabeko kexak eta egoerak	
Eskumen eremutik kanpo	113
Jarduera okerrik ez, argi eta garbi	65
Partikularren arteko auzia	62
Ez dago aurretiazko erreklamazio administratiborik	53
Epai bidean	40
Forma akatsa	36
Legezko epeen zain egon beharra	10
Izenik gabe aurkeztu da	7
Estatuko Herriaren Defendatzailearekiko bikoiztasuna	5
Interes legitimorik eza	4
Asmo txarra	2
Bestelakoak	1
Guztira	398

(Ikusi 4. diagrama eranskinean)

- Estatuko Herriaren Defendatzaileari edo beste defendatzaile batzuei bidalitako kexak

Badira Estatuko Administrazioaren jardueraren aurkako kexak, Ararteko erakundeak zuzenean izapidetzen ez dituenak, administrazio hori ez dagoelako erakunde honen kontrolpean. Erreklamazio horiek Herriaren Defendatzaileari bidaltzen zaizkie. Gainera, kexa batzuk beste autonomia erkidego batzuetako parlamentuetako ordezkariari igortzen zaizkie, horien eskumen-eremupean dauden administrazio publikoei dagozkielako.

Estatuko Herriaren Defendatzaileari bidalitako kexak	58
Beste defendatzaile batzuei bidalitako kexak	8

- Zenbait gestio eragin dituzten kexak

Badira kexa batzuk, onartu arren, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko baten jarduera jakin baten aurka zehazki zuzendu ez direnak. Horiek, estatistikarako bereizita zenbatzen dira. Kexa horietan, zenbait gestio egin behar izan ditugu azaldutako arazoa konpontzeko.

Zenbait gestio eragin dituzten kexak

13

- Arlo eta administrazio bakoitzari zuzendutako kexa-kopurua ondo interpretatzeko era

Hasiera batean, pentsa genezake administrazio jakin baten jarduerak eragindako edo arlo jakin batean kokaturiko kexa-kopurua handia izatea estu lotuta dagoela herritarrek administrazio horren funtzionamenduaren gainean duten iritzi txarrarekin, akatsak, gehiegikeriak, edo legea betetzen ez duten jarduerak egoteari dagokionez.

Hala eta guztiz ere, beharrezkoa da kexa-kopuruaren interpretazioari buruz azaldutakoari ñabardura garrantzitsuak egitea, bestela ondorio okerrak atera baitaitezke (ondorio akastunak eta bidegabeak, kasuan kasuko administrazioari dagokionez).

Horrela, *a priori* administrazio jakin baten jarduerak eragindako kexa-kopurua esanguratsua izan arren, esanguratsuagoa da kexa askok (eta hauxe da garrantzitsua), kexagilea erakunde honetara ekartzeko moduko arrazoiak edukitzea (administrazio baten jokabidea txarra izateari lotutako arrazoiak). Halaber, erakunde honen iritziz, kexa-kopuruaren datua bera baino garrantzitsuagoa da kasuan kasuko administrazioaren jokabidea, bai ezarritako epean jakinarazpena egiteko betebeharrari eta bai erreklamazioa ikertu edo aztertu ostean emandako ebazpenei dagokienez. Hau da, funtsezkoa da administrazioak gomendioak edo iradokizunak onartzen dituen ala ez egiaztatzea, horren jokabideari irregularra irizten zaionean.

2. ESTADISTIKA ALORREZ ALOR

Kexak zein arlori dagozkion kontuan hartzen badugu, ez da aldaketa handirik izan iazkoaren aldean, baina zertxobait ugaritu dira Gizarte Ekintzari dagozkionak.

Zuzenean bideraturiko kexen banaketa, jarduera-alorren arabera		
	Jasotako kexak	%
Gizarte Ekintza	226	15,69
Herri Lanak eta Zerbitzuak	181	12,57
Funtzio Publikoa	159	11,04
Justizia	146	10,14
Etxebizitza	123	8,54
Herrizaingoa	116	8,66
Ogasuna	85	5,90
Osasuna	84	5,83
Hirigintza eta Lurralde Antolamendua	84	5,83
Ingurumena	82	5,70
Hezkuntza	76	5,28
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa	25	1,74
Kultura eta Elebitasuna	20	1,39
Bereizkeria	13	0,90
Lana eta Gizarte Segurantzza	11	0,76
Animalien Babesa	9	0,63
Guztira	1.440	100

(Ikusi 5. diagrama eranskinean)

- Kexen sailkapena azpiarloka

Jasotako kexak gaika aztertuz gero, gaikako arlo bakoitzean egon diren aldaketetan azpiarlo bakoitzak duen eragina ikus dezakegu (Ararteko erakundeak gaikako arlo horietan sistemaztatzen du bere lana).

Jasotako kexen banaketa, jardueraren azpialorren arabera	
Gizarte Ekintza	226
Diruzko gizarte prestazioak	73
Haur eta nerabeei eskainitako laguntza	72
Mendetasuna	27
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura	22
Adinekoei eskainitako laguntza	13
Familiari eskainitako laguntza	8
Babes bereziko taldeei eskainitako laguntza	4
Ezgaitasunen bat duten pertsoneri eskainitako laguntza	3
Emakumei eskainitako laguntza	2
Eskubideak eta askatasunak	1
Beste batzuk	1

Jasotako kexen banaketa, jardueraren azpialorren arabera	
Herri Lanak eta Zerbitzuak	181
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura	50
Kontratazio araubidea, ondarea eta adm. erantzukizuna	40
Tokiko zerbitzu publikoak	33
Garraioak	25
Azpiegiturak	15
Obrak egitea	8
Eskubideak eta askatasunak	4
Irisgarritasuna	3
Beste batzuk	3
Funtzio Publikoa	159
Ordezkapenak	69
Aukeraketa	34
Beste eskubide eta betebeharrak batzuk	11
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura	10
Lanpostuak betetzea	8
Ordainsariak	7
Beste batzuk	6
Eskubideak eta askatasunak	5
Administrazio egoerak	3
Lizentziak eta baimenak	2
Diziplina araubidea	2
Ezin bateratuzkoak	1
Lanpostuen balorazioa	1
Justizia	146
Beste batzuk	72
Justizia administrazioaren funtzionamendua	41
Espetxe gaietako jarduerak	19
Doako laguntza juridikoa	11
Abokatu eta prokuradore elkargoak	3
Etxebizitza	123
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura	38
Etxebizitza babestuetan eraikuntza-akatsek eragindako kalteak	23
Etxebizitza babestuak esleitzeko prozedura	22
Etxebizitza babestua alokatzea	21
Etxebizitzaren beharra egiaztatzea	8
Beste batzuk	6
Etxebizitza erosteko eta birgaitzeko laguntzak	3
Irisgarritasuna	1
Kontratazio araubidea, ondarea eta adm. erantzukizuna	1

Jasotako kexen banaketa, jardueraren azpialorren arabera	
Herrizaingoa	116
Trafikoa	87
Eskubideak eta askatasunak	13
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura	7
Herritarren segurtasuna	6
Beste batzuk	3
Ogasuna	85
Foru zergak, PFEZ	20
Udal zergak	20
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura	16
Udal tasak	9
Beste batzuk	6
Foru zergak, BEZ	4
EAEko prezio publikoak	3
Udalaren prezio publikoak	3
EAEko tasak	3
Prezio publikoak, aldundienak	1
Osasuna	84
Erabiltzaileen eskubideak	45
Osasun laguntza	19
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura	13
Kontratazio araubidea, ondarea eta adm. erantzukizuna	2
Buruko osasuna	2
Osasun publikoa	2
Beste batzuk	1
Hirigintza eta Lurralde Antolamendua	84
Hirigintzako diziplina eta aurria	40
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura	18
Irisingarritasuna	9
Kontratazio araubidea, ondarea eta adm. erantzukizuna	6
Hirigintzako kudeaketa	5
Hirigintzako antolamendua	5
Beste batzuk	1
Ingurumena	82
Sailkatutako jarduerak etxebizitzetarako lurzoruan	48
Ingurumenari eragiten dioten beste jarduera batzuk	23
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura	6
Sailkatutako jarduerak industri lurzoruan	4
Hondakinak eta Isurkiak	1

Jasotako kexen banaketa, jardueraren azpialorren arabera	
Hezkuntza	76
Eskubideak eta betebeharrak	13
Bekak eta beste laguntza batzuk	8
Eskola garraioa	7
Ikasleen onarpena	6
Jantokia	6
Haur hezkuntza	6
Hezkuntza premia bereziak	6
Unibertsitateko irakaskuntza	5
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura	4
Beste batzuk	4
Hizkuntzen irakaskuntza	3
Ikastetxeak - Antolaketa	2
Hezkuntza planifikazioa/programazioa	2
Batxilergoa	1
Ikastetxeak - instalazioak	1
Pertsona helduen hezkuntza	1
Kontratazio araubidea, ondarea eta adm. erantzukizuna	1
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa	25
Industria	7
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	5
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura	5
Merkataritza	3
Beste batzuk	3
Kontsumoa	2
Kultura eta Elebitasuna	20
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura	7
Elebitasuna	4
Beste batzuk	4
Kultur ondarea	3
Kirola	1
Kontratazio araubidea, ondarea eta adm. erantzukizuna	1
Bereizkeria	13
Generoa	12
Beste batzuk (adina, ideologia, erlijioa...)	1
Lana eta Gizarte Segurantza	11
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura	7
Lana	2
Eskubideak eta askatasunak	1
Beste batzuk	1
Animalien Babesa	9
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura	4
Animaliak edukitzea	3
Gune zoologikoak	1
Beste batzuk	1

3. ESTADISTIKA ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERA

Administrazio bakoitzaren kontra jarritako kexen proportzioari buruzko datuak ikusita, Eusko Jaurlaritzaren izan da 2009an kexa gehien eragin dituen administrazioa (%38,64), eta behe-
ra egin dute tokiko administrazioen jardueren gaineko kexek.

Espedienteetan inplikaturako administrazioak ikertzeak ez du esan nahi jarduera okerrik egin dutenik, haren jardueraren bat kexa-gai izan dela baizik.

Zuzenean bideratutako kexen banaketa, eragindako administrazioen arabera		
	Kop.	%
Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritza)	512	38,64
Toki administrazioa	485	36,60
Foru administrazioa	261	19,70
Justizia	27	2,04
Erakunde publikoak	22	1,66
Estatuko administrazioa	17	1,28
Erakunde pribatuak	1	0,08
Guztira	1.325	100

(Ikusi 6. diagrama eranskiean)

A) Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren (Eusko Jaurlaritzaren) aurka aurkeztutako kexak

- Banaketa arloka

Eusko Jaurlaritzak eskumen zabalak dituen arloetan (Etxebizitza eta Osasuna) egon da kexa-kopururik handiena.

Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren aurka (Eusko Jaurlaritzaren) aurkeztutako kexen banaketa, alorren arabera		
	Kop.	%
Etxebizitza	117	22,85
Osasuna	86	16,80
Funtzio Publikoa	66	12,89
Herrizaingoa	66	12,89
Hezkuntza	61	11,91
Gizarte Ekintza	31	6,05
Herri Lanak eta Zerbitzuak	18	3,52
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa	15	2,93
Lana eta Gizarte Segurantza	11	2,15
Kultura eta Elebitasuna	9	1,76
Justizia	9	1,76
Ogasuna	8	1,56
Ingurumena	7	1,37
Bereizkeria	5	0,98
Hirigintza eta Lurralde Antolamendua	2	0,39
Animalien Babesa	1	0,19
Guztira	512	100

(Ikusi 7. diagrama eranskinean)

- Sailen araberako banaketa

Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren aurka (Eusko Jaurlaritza) aurkeztutako kexen banaketa, sailen arabera¹		
	Kop.	%
Etxebizitza, Herri Lanak eta Garraioak	109	21,29
Osasuna eta Kontsumoa	86	16,80
Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa	85	16,60
Herrizaingoa	69	13,48
Enplegua eta Gizarte Gaiak	34	6,64
Osasuna	32	6,25
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	29	5,66
Justizia eta Herri Administrazioa	13	2,54
Justizia, Lana eta Gizarte Segurantza	11	2,15
Ingurumena, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza	11	2,15
Kultura	10	1,95
Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoa	9	1,76
Industria, Merkataritza eta Turismoa	5	0,98
Ekonomia eta Ogasuna	5	0,98
Ogasuna eta Herri Administrazioa	2	0,39
Lehendakaritza	1	0,19
Garraioak eta Herri Lanak	1	0,19
Guztira	512	100

(Ikusi 8. diagrama eranskinean)

¹ Sail batzuk bikoiztuta daudela dirudi, EAEko administrazio orokorrak sailen egitura egokitzearen ondorioz. Egokitze hori maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuaren bidez egin zen (EHAA, 86. zk., maiatzaren 9koa).

B) Foru administrazioen aurka egindako kekek**- Banaketa lurraldeka**

Foru aldundien kontra egindako kexen artean, aipagarria da Arabako Foru Aldundiaren aurkako kekek gora egin dutela, kexa guztietatik ia %40 baitira, gehienbat bakarrik dauden adingabe atzerritarrek (MENAS) kekek egin dituztelako, aldundiak beraien tutoretza onartu duela egiaztatzen duen agiririk ez daukatelako.

Foru administrazioen aurka aurkeztutako kexen banaketa, lurraldeen arabera		
	Kop.	%
Arabako Foru Aldundia	104	39,85
Bizkaiko Foru Aldundia	90	34,48
Gipuzkoako Foru Aldundia	67	25,67
Guztira	261	100

(Ikusi 6. diagrama eranskinen)

- Banaketa arloka

Ohikoa denez, Gizarte Ekintza da foru administrazioen aurka jasotzen diren kexetatik gehien eragiten dituen arloa. Portzentaje horrek gora egin du 2009an, batez ere bakarrik dauden adingabe atzerritarrek (MENAS) Arabako Foru Aldundiaren kontra egindako kexengatik.

Foru aldundien aurka aurkeztutako kexen banaketa, alorren arabera					
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira	%
Gizarte Ekintza	75	44	40	159	60,92
Ogasuna	5	19	12	36	13,79
Herri Lanak eta Zerbitzuak	7	12	5	24	9,20
Funtzio Publikoa	8	4	5	17	6,51
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa	3	4	–	7	2,69
Hirigintza eta Lurralde Antolamendua	3	1	1	5	1,91
Osasuna	1	1	1	3	1,15
Animalien Babesa	–	1	2	3	1,15
Ingurumena	–	2	1	3	1,15
Kultura eta Elebitasuna	1	2	–	3	1,15
Bereizkeria	1	–	–	1	0,38
Guztira	104	90	67	261	100

(Ikusi 9. diagrama eranskinen)

C) Toki Administrazioen aurka egindako kekek**- Banaketa lurraldeka**

Kexa gehienak Bizkaiko udalen aurkakoak izan dira, baina kontuan hartu behar da horixe dela lurralderik jendetsuena.

Toki administrazioen aurka aurkeztutako kexen banaketa		
	Kop.	%
Bizkaiko udalak	248	51,13
Gipuzkoako udalak	135	27,84
Arabako udalak	82	16,91
Bizkaiko mankomunitateak partzuergoak eta parkeak	12	2,47
Arabako administrazio batzarrak	5	1,03
Gipuzkoako mankomunitateak Partzuergoak eta parkeak	3	0,62
Guztira	485	100

Autonomia Erkidegoko udalen eta administrazio batzarren aurka aurkeztutako kekek			
Arabako udalak	Kop.	Arabako administrazio batzarrak	Kop.
Vitoria-Gasteiz	56	Asteguieta	1
Llodio	5	Bujanda	1
Zigoitia	4	Menagarai	1
Alegria-Dulantzi	3	Salinillas de Buradón / Buradon Gatzaga	1
Labastida	2	Urarte	1
Arraia-Maeztu	1	Guztira	5
Artziniega	1		
Asparrena	1		
Bernedo	1		
Kripan	1		
Lantarón	1		
Legutiano	1		
Navaridas	1		
Peñacerrada-Urizaharra	1		
Salvatierra/Agurain	1		
Samaniego	1		
Zuia	1		
Guztira	82		

Bizkaiko udalak	Kop.	Bizkaiko udalak	Kop.
Bilbao	57	Lezama	2
Barakaldo	20	Loiu	2
Portugalete	14	Sopelana	2
Bermeo	12	Ugao-Miraballes	2
Getxo	11	Zeanuri	2
Santurtzi	10	Zeberio	2
Sestao	10	Alonsotegi	1
Durango	9	Arratzu	1
Basauri	6	Barrika	1
Erandio	6	Derio	1
Muskiz	5	Dima	1
Valle de Trápaga-Trapagaran	4	Elantxobe	1
Leioa	3	Ermua	1
Zamudio	4	Etxebarri	1
Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena	3	Fruiz	1
Berango	3	Gamiz-Fika	1
Galdakao	3	Gernika-Lumo	1
Galdames	3	Gorliz	1
Gordexola	3	Igorre	1
Güeñes	3	Karrantza Harana - Valle de Carranza	1
Lekeitio	3	Laukiz	1
Lemoiz	3	Mallabia	1
Orozko	3	Maruri-Jatabe	1
Plentzia	3	Mundaka	1
Zalla	3	Mungia	1
Zierbena	3	Ondarroa	1
Amorebieta-Etxano	2	Sukarrieta	1
Arrieta	2	Trucios-Turtzioz	1
Balmaseda	2	Urduliz	1
		Guztira	248

Gipuzkoako udalak	Kop.	Gipuzkoako udalak	Kop.
Donostia-San Sebastián	49	Ordizia	2
Irun	8	Orio	2
Errenteria	7	Aia	1
Mutriku	7	Alegia	1
Arrasate/Mondragón	6	Anoeta	1
Pasaia	5	Antzuola	1
Usurbil	4	Astigarraga	1
Beasain	3	Azpeitia	1
Deba	3	Bergara	1
Elgoibar	3	Bidegoian	1
Hondarribia	3	Elgeta	1
Zarautz	3	Eskoriatza	1
Abaltzisketa	2	Ibarra	1
Azkoitia	2	Lazkao	1
Eibar	2	Legazpi	1
Hernani	2	Tolosa	1
Irura	2	Zizurkil	1
Lasarte-Oria	2	Zumaia	1
Oiartzun	2	Guztira	135

- Banaketa arloka

Ohi bezala, toki administrazioen jarduerak eragindako kexak berdintsu banatzen dira udalek eskumen garrantzitsuak dituzten arlo guztien artean. Horietan, Herri Lanen eta Zerbitzuen arloa nabarmentzen da.

Udalen aurka aurkeztutako kexen banaketa, alorren arabera					
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira	%
Herri Lanak eta Zerbitzuak	35	69	32	136	28,94
Ingurumena	4	45	28	77	16,38
Hirigintza eta Lurralde Antolamendua	13	39	23	75	15,96
Herrizaingoa	5	35	11	51	10,85
Gizarte Ekintza	17	17	7	41	8,72
Ogasuna	3	19	11	33	7,02
Funtzio Publikoa	4	4	6	14	2,98
Etxebizitza	2	7	4	13	2,77
Kultura eta Elebitasuna	1	2	5	8	1,70
Animalien Babesa	–	2	4	6	1,28
Hezkuntza	1	2	2	5	1,06
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa	1	3	1	5	1,06
Bereizkeria	1	1	1	3	0,64
Osasuna	–	2	–	2	0,43
Justizia	–	1	–	1	0,21
Guztira	87	248	135	470	100

(Ikusi 10. diagrama eranskinean)

Toki administrazioaren menpeko beste erakunde batzuen aurka aurkeztutako kexak	
	Guztira
Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoa	8
Mebisa - Metro de Bilbao	4
San Marcoseko Mankomunitatea	2
Gipuzkoako Urak SA	1
Guztira	15

D) Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuen aurka aurkeztutako kexak

Udal, aldundi edo Eusko Jaurlaritzaren aurkako kexa horiez gain, beste administrazio batzuen aurkako zenbait erreklamazio ere jaso dira: hain zuzen, erakunde eta organismo publikoen, elkargoen eta abarren aurkakoak. Estatuko administrazioaren aurkako kexak ere atal honetan jasotzen dira. Arartekoak modu informalean ikertu ditu kexa horiek, nahiz eta Estatuko administrazioaren jarduera gure erakundearen kontrol eremutik kanpo egon.

Euskal Herriko Unibertsitatearen aurka aurkeztutako kexak	
	Guztira
Hezkuntza	5
Funtzio Publikoa	5
Ogasuna	3
Guztira	13

E) Euskal Autonomia Erkidegoko justizia-administrazioaren zerbitzu administratiboaren aurka aurkeztutako kexak

Ararteko erakundea arautzen duen 3/1985 Legearen 9.2 artikulua dioenez, justizia-administrazioaren funtzionamenduaren ondoriozko kexak kasu bakoitzean ikertzeko edo ebazteko eskumena duen organora bideratuko dira.

Lehenago aurkeztu diren Eusko Legebiltzarrarentzako txostenetan azaldutakoaren arabera, halako kasuetan erakundeak Fiskaltzari, EAEko Auzitegi Nagusiko lehendakariari edo, bestela, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari bidali ohi dizkio kexak, beraiek iker ditzaten kontu horiek eta gure erakundeari egindako gestioen berri eman diezaioten.

2009an ez da kexarik bideratu EAEko justizia administrazioaren zerbitzu administratiboaren kontra.

4. LURRALDE ESTADISTIKA (KEXEN BANAKETA LURRALDEEN ARABERA)

Kexen lurralde banaketaren bilakaera, jatorriaren arabera			
	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba
1989	288	188	97
1990	828 (284) ¹	195	125
1991	293	244	158
1992	332	241	201
1993	376	250	182
1994	349	234	160
1995	528	281	328
1996	746	448	446
1997	915	663	371
1998	1.471 (764) ²	905 (471) ³	244
1999	649	372 (311) ⁴	237
2000	645	295	256
2001 ⁵	651	375	444
2002	643	294	268
2003	646	318	322
2004	730	457	271
2005	712	412	275
2006	834	398	367
2007	738	380	361
2008	868	394	341
2009	910	503	377

¹ Gai berari buruzko 545 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.

² Gai berari buruzko 708 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.

³ Gai berari buruzko 435 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.

⁴ Gai berari buruzko 62 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.

⁵ Bi kexa multzo bideratu dira, guztira 264 kexagilerenak, hiru lurraldeetakoak.

(Ikusi 11. diagrama eranskinean)

- Kexen lurralde banaketa 10.000 biztanleko

Lurralde historikoen banaketaren arabera, kexen jatorriaren konparaziozko azterketa egiteko, lurralde bakoitzetik jasotako erreklamazio kopuru absolutua lurralde horretako biztanleriari lotuko diogu. Hurrengo koadroan lurralde bakoitzetik 10.000 biztanleko multzo bakoitzeko jaso diren kexei buruzko datuak bildu ditugu.

Kexen lurralde banaketa 10.000 biztanleko			
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
1989	4,3	3,3	3
1990	4,5	7,87 (2,7) ¹	2,9
1991	5,8	3,6	2,5
1992	7,4	3,5	2,8
1993	6,7	3,7	3,3
1994	5,9	3,5	3
1995	11,59	4,54	4,11
1996	15,92	6,55	6,66
1997	13,24	8,03	9,77
1998	8,37	12,95 (6,73) ²	13,30 (6,93) ³
1999	8,37	5,74	5,56 (4,64) ⁴
2000	8,97	5,77	4,42
2001 ⁵	15,56	5,7	5,53
2002	9,37	5,73	4,37
2003	11,24	5,75	4,71
2004	9,46	6,50	6,77
2005	9,6	6,34	6,11
2006	12,81	7,42	5,9
2007	11,82	6,46	5,46
2008	11,15	7,64	5,74
2009	12,32	8	7,32

¹ Gai berari buruzko 545 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.

² Gai berari buruzko 708 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.

³ Gai berari buruzko 435 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.

⁴ Gai berari buruzko 62 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.

⁵ Bi kexa multzo bideratu dira, guztira 264 kexagilerenak, hiru lurraldeetakoak.

(Ikusi 12. diagrama eranskinean)

- Kexen banaketa lurralde bakoitzean

Kexagileak lurralde historikoko hiriburuan bizi diren ala beste udalerri batzuetan bizi diren, herritarren jokabidea ez dela berdina erakusten du kexen banaketak. Egiaz, Bizkaian eta Gipuzkoan, handiagoa da hiriburutik kanpo bizi diren kexagileen kopurua; Araban, ordea, kexetatik %78,78 Gasteizen bizi direnek egin dituzte.

Kexen banaketa, hiriburuko biztanleek edo lurraldeko gainerako udalerrietako biztanleek aurkeztu dituzten kontuan hartuta		
Araba	Kop.	%
Vitoria-Gasteiz	297	78,78
Beste udalerri batzuk	80	21,22
Guztira	377	100
Bizkaia	Kop.	%
Bilbao	296	32,53
Beste udalerri batzuk	614	67,47
Guztira	910	100
Gipuzkoa	Kop.	%
Donostia-San Sebastián	206	40,95
Beste udalerri batzuk	297	59,05
Guztira	503	100

- Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo datozen kexak

Urtean zehar, beste autonomia erkidego batzuetatik, beste estatu batzuetatik etorritako kexak jaso ditugu, baita Internet bidez izenik gabe egindakoak ere.

Beste autonomia erkidego batzuetatik etorritako kexak	Kop.
Madrilgo A.E.	15
Nafarroako F.K.	13
Kantabriako A.E.	7
Kataluniako A.E.	6
Andaluziako A.E.	5
Errioxako A.E.	5
Gaztela eta Leongo A.E.	3
Aragoiko A.E.	2
Kanarietako A.E.	2
Gaztela-Mantxako A.E.	2
Valentziako K.	2
Extremadurako A.E.	1
Galiziako A.E.	1
Murtziako eskualdea	1
Guztira	65
Beste estatu batzuetatik etorritakoak	Kop.
Frantzia	3
Erresuma Batua	3
Australia	1
Kolonbia	1
Peru	1
Venezuela	1
Guztira	10
Izenik gabe aurkeztu dira (Internet)	52

5. PROZEDURARI BURUZKO ESTADISTIKA (KEXEN EGOERA)

Jarraian, Arartekoari aurkeztutako erreklamazioen izapidetzea zein egoeratan dagoen aztertuko dugu. 2009. urtean 1.478 espedienteren izapidetze prozesua amaitu da. Horietatik 687 urtean zehar egindako kexei buruzkoak izan dira, eta gainerakoak, 791, aurreko urteetan egindako kexak ziren, azaldu ziren urtean bertan osorik ezin izapidetu izan zirenak.

Arartekoak eman dituen ebazpenen arabera, 2009an amaitutako 478 erreklamaziotan, eragindako administrazioaren jarduera okerren bat zegoen, hau da, kasuetatik %32,34tan; beraz, kopuruak zertxobait gora egin du iazkoaren aldean (%28,43). Ez da, ordea, okerreko jarduerarik antzeman aztertutako espedienteetatik %42,02tan.

	Guztira	Jarduera okerra	%	Jarduera okerrik ez	%	Beste batzuk	%
2009an amaitutako kexak	1.748	478	32,34	621	42,02	379	25,64

(Ikusi 1. diagrama eranskinean)

- 2009an aurkeztutako kexak: ebatzita daudenak eta izapidetzen ari direnak

2009. urtean aurkeztutako kexei dagokienez, Arartekoak 629 ebazpen eman ditu, eta 342 kasutan ez du jarduera okerrik antzeman.

Izapidetzen ari diren zenbait espedientetan, kexa aztertzen hasi ondoren hainbat inguruabar agertu dira (beste defendatzaile batzuekiko bikoiztasuna, epailearen ebazpenaren zain dauden auziak, epai irmoa dutenak, epai bideari ekin diotenak eta abar). Espediente horiek *eratorritako ez-onarpena* izenpean jaso dira ondoko koadroetan.

Kexa-espedienteen egoera, jarduera-alorren arabera						
	Izapidetzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Beste batzuk	Eratorritako ez-onarpena
Gizarte Ekintza	168	47	15	22	10	16
Herri Lanak eta Zerbitzuak	73	108	38	55	15	6
Etxebizitza	23	96	23	40	33	11
Herrizaingoa	46	58	19	36	3	13
Funtzio Publikoa	37	50	12	37	1	10
Osasuna	26	60	11	37	12	5
Ingurumena	70	16	8	8	–	1
Hirigintza eta Lurralde Antolamendua	25	56	23	21	12	1
Ogasuna	27	44	6	23	15	11
Hezkuntza	18	45	6	38	1	3
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa	14	12	3	5	4	1
Kultura eta Elebitasuna	6	14	1	13	–	–
Bereizkeria	4	6	3	1	2	–
Lana eta Gizarte Segurantza	4	6	1	4	1	1
Justizia	4	6	2	2	2	–
Animalien Babesa	5	5	4	–	1	–
Guztira	550	629	175	342	112	79

- Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren (Eusko Jaurlaritza) aurkako kexen egoera

Eusko Jaurlaritzaren aurkako kexen egoeraren azterketa, jarduera-alorren arabera						
	Izapidetzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Beste batzuk	Erorritako ez-onarpena
Etxebizitza	22	86	22	34	30	9
Osasuna	26	55	10	34	11	5
Funtzio Publikoa	20	39	10	28	1	7
Herrizaingoa	28	29	7	19	3	9
Hezkuntza	18	40	6	33	1	3
Gizarte Ekintza	18	12	4	7	1	1
Herri Lanak eta Zerbitzuak	11	7	–	7	–	–
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa	8	7	–	4	3	–
Lana eta Gizarte Segurantza	4	6	1	4	1	1
Kultura eta Elebitasuna	3	6	1	5	–	–
Justizia	3	6	2	2	2	–
Ogasuna	2	5	–	1	4	1
Ingurumena	6	1	–	1	–	–
Bereizkeria	2	3	2	–	1	–
Hirigintza eta Lurralde Antolamendua	–	2	–	1	1	–
Animalien Babesa	1	–	–	–	–	–
Guztira	172	304	65	180	59	36

Eusko Jaurlaritzaren aurkako kexen egoera, bertako sailen arabera²						
	Izapi- detzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Beste batzuk	Erorritako ez-onarpena
Etxebizitza, Herri Lanak eta Garraioak	31	72	17	31	24	6
Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa	27	54	11	42	1	4
Osasuna eta Kontsumoa	35	47	11	31	5	4
Herrizaingoa	31	30	7	20	3	8
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	3	21	5	10	6	5
Enplegua eta Gizarte Gaiak	21	12	2	5	5	1
Osasuna	1	26	3	17	6	5
Justizia eta Herri Administrazioa	4	8	2	6	–	1
Justizia, Lana eta Gizarte Segurantza	–	11	3	5	3	–
Ingurumena, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza	6	5	2	2	1	–
Kultura	3	7	1	6	–	–
Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoa	6	3	–	2	1	–
Ekonomia eta Ogasuna	–	3	1	1	1	2
Industria, Merkataritza eta Turismoa	2	3	–	1	2	–
Ogasuna eta Herri Administrazioa	1	1	–	–	1	–
Lehendakaritza	1	–	–	–	–	–
Garraioak eta Herri Lanak	–	1	–	1	–	–
Guztira	172	304	65	180	59	36

² Sail batzuk bikoiztuta daudela dirudi, EAEko administrazio orokorrak sailen egitura egokitzearen ondorioz. Egokitze hori maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuaren bidez egin zen (EHAA, 86. zk., maiatzaren 9koa).

- Foru administrazioen aurkako kexen egoera

Foru aldundien aurkako kexen egoera, lurralde historikoen arabera						
	Izapi-detzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Beste batzuk	Eratortitako ez-onarpena
Arabako Foru Aldundia	71	23	9	10	4	10
Bizkaiko Foru Aldundia	44	38	13	20	5	8
Gipuzkoako Foru Aldundia	48	17	4	6	7	2
Guztira	163	78	26	36	16	20

Foru aldundien aurkako kexen egoera, jarduera-alorren arabera						
	Izapi-detzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Beste batzuk	Eratortitako ez-onarpena
Gizarte Ekintza	123	23	8	9	6	13
Ogasuna	12	21	3	11	7	3
Herri Lanak eta Zerbitzuak	9	14	5	6	3	1
Funtzio Publikoa	10	4	2	2	–	3
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa	3	4	3	1	–	–
Hirigintza eta Lurralde Antolamendua	1	4	2	2	–	–
Osasuna	–	3	–	3	–	–
Animalien Babesa	–	3	3	–	–	–
Ingurumena	3	–	–	–	–	–
Kultura eta Elebitasuna	1	2	–	2	–	–
Bereizkeria	1	–	–	–	–	–
Guztira	163	78	26	36	16	20

- Toki administrazioen aurkako kexen egoera

Arabako udalen aurkako kexen egoera						
	Izapi- detzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Beste batzuk	Eratortitako ez-onarpena
Vitoria-Gasteiz	30	24	4	18	2	2
Llodio	2	3	1	2	–	–
Zigoitia	1	3	2	1	–	–
Alegria-Dulantzi	2	1	–	1	–	–
Labastida	–	2	1	1	–	–
Arraia-Maeztu	–	1	–	–	1	–
Artziniega	–	–	–	–	–	1
Asparrena	–	1	–	1	–	–
Bernedo	–	1	1	–	–	–
Kripan	1	–	–	–	–	–
Lantarón	–	1	1	–	–	–
Legutiano	–	1	–	1	–	–
Navaridas	1	–	–	–	–	–
Peñacerrada-Urizaharra	1	–	–	–	–	–
Salvatierra/Agurain	1	–	–	–	–	–
Samaniego	1	–	–	–	–	–
Zuia	–	1	–	1	–	–
Guztira	40	39	10	26	3	3

Arabako administrazio batzarren aurkako kexen egoera						
	Izapi- detzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Beste batzuk	Eratortitako ez-onarpena
Astegieta	1	–	–	–	–	–
Bujanda	–	1	–	1	–	–
Menagarai	–	1	–	–	1	–
Puentelarra	–	–	–	–	–	–
Salinillas de Buradón / Buradon Gatzaga	–	–	–	–	–	1
Urdete	1	–	–	–	–	–
Guztira	2	2	–	1	1	1

Gipuzkoako udalen aurkako kexen egoera

	Izapi- detzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Beste batzuk	Eratortako ez-onarpena
Donostia-San Sebastián	21	27	5	17	5	1
Irun	4	4	–	3	1	–
Errenteria	4	2	1	1	–	1
Mutriku	5	2	1	–	1	–
Arrasate/Mondragón	2	4	1	2	1	–
Pasaia	4	1	–	–	1	–
Usurbil	3	1	–	1	–	–
Beasain	–	3	–	2	1	–
Deba	2	1	1	–	–	–
Elgoibar	2	1	1	–	–	–
Hondarribia	1	1	–	–	1	1
Zarautz	2	1	–	1	–	–
Abaltzisketa	2	–	–	–	–	–
Azkoitia	1	1	–	–	1	–
Eibar	–	2	–	2	–	–
Hernani	1	1	–	1	–	–
Irura	1	1	1	–	–	–
Lasarte-Oria	–	2	–	2	–	–
Oiartzun	1	1	–	1	–	–
Ordizia	1	1	1	–	–	–
Orio	–	1	1	–	–	1
Aia	1	–	–	–	–	–
Alegia	1	–	–	–	–	–
Anoeta	1	–	–	–	–	–
Antzuola	–	1	1	–	–	–
Astigarraga	1	–	–	–	–	–
Azpeitia	–	1	1	–	–	–
Bergara	–	1	–	–	1	–
Bidegoian	1	–	–	–	–	–
Elgeta	1	–	–	–	–	–
Eskoriatza	–	–	–	–	–	1
Ibarra	–	1	–	–	1	–
Lazkao	–	1	–	–	1	–
Legazpi	1	–	–	–	–	–
Tolosa	–	1	–	1	–	–
Zizurkil	1	–	–	–	–	–
Zumaia	1	–	–	–	–	–
Guztira	66	64	15	34	15	5

Bizkaiko udalen aurkako kexen egoera						
	Izapi- detzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Beste batzuk	Eratortitako ez-onarpena
Bilbao	15	36	12	20	4	6
Barakaldo	8	10	5	2	3	2
Portugalete	4	10	5	4	1	–
Bermeo	8	4	3	1	–	–
Getxo	5	6	2	3	1	–
Santurtzi	5	5	3	2	–	–
Sestao	7	3	–	2	1	–
Durango	6	3	2	1	–	–
Basauri	3	3	3	–	–	–
Erandio	3	3	2	1	–	–
Muskiz	2	3	–	3	–	–
Valle de Trápaga-Trapagaran	2	2	1	1	–	–
Leioa	1	1	–	–	1	1
Zamudio	2	2	1	–	1	–
Abanto y Ciervana-Abanto Zierbena	1	1	1	–	–	1
Berango	1	2	1	1	–	–
Galdakao	1	2	2	–	–	–
Galdames	–	3	1	1	1	–
Gordexola	–	3	2	1	–	–
Güeñes	1	2	–	2	–	–
Lekeitio	–	3	–	2	1	–
Lemoiz	–	3	2	1	–	–
Orozko	2	1	1	–	–	–
Plentzia	1	2	1	1	–	–
Zalla	1	2	1	1	–	–
Zierbena	1	1	1	–	–	1
Amorebieta-Etxano	1	1	–	1	–	–
Arrieta	1	1	–	–	1	–
Balmaseda	2	–	–	–	–	–
Lezama	2	–	–	–	–	–
Loiu	1	1	–	1	–	–
Sopelana	2	–	–	–	–	–
Ugao-Miraballes	1	–	–	–	–	1
Zeanuri	1	–	–	–	–	1
Zeberio	2	–	–	–	–	–
Alonsotegi	–	1	1	–	–	–
Arratzu	–	1	–	–	1	–

Bizkaiko udalen aurkako kexen egoera

	Izapi- detzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Beste batzuk	Eratortitako ez-onarpena
Barrika	–	1	–	–	1	–
Karrantza Harana - Valle de Carranza	–	1	1	–	–	–
Derio	1	–	–	–	–	–
Dima	–	1	–	1	–	–
Elantxobe	1	–	–	–	–	–
Ermua	–	1	–	1	–	–
Etxebarri	–	1	1	–	–	–
Fruiz	–	1	–	1	–	–
Gamiz-Fika	–	1	–	1	–	–
Gernika-Lumo	1	–	–	–	–	–
Gorliz	–	1	–	1	–	–
Igorre	1	–	–	–	–	–
Laukiz	–	1	–	1	–	–
Mallabia	–	1	–	1	–	–
Maruri-Jatabe	1	–	–	–	–	–
Mundaka	–	1	–	1	–	–
Mungia	–	1	1	–	–	–
Ondarroa	1	–	–	–	–	–
Sukarrieta	1	–	–	–	–	–
Trucios-Turtzioz	1	–	–	–	–	–
Urduliz	–	1	1	–	–	–
Guztira	101	134	57	60	17	13

Udalen aurkako kexen egoera, jarduera-alorren arabera

	Izapi- detzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Beste batzuk	Eratortitako ez-onarpena
Herri Lanak eta Zerbitzuak	49	82	31	39	12	5
Ingurumena	61	15	8	7	–	1
Hirigintza eta Lurralde Antolamendua	24	50	21	18	11	1
Herrizaingoa	18	29	12	17	–	4
Gizarte Ekintza	27	12	3	6	3	2
Ogasuna	11	16	3	9	4	6
Funtzio Publikoa	7	7	–	7	–	–
Etxebizitza	1	10	1	6	3	2
Kultura eta Elebitasuna	2	6	–	6	–	–
Animalien Babesa	4	2	1	–	1	–
Hezkuntza	–	5	–	5	–	–
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa	3	1	–	–	1	1
Bereizkeria	1	2	1	1	–	–
Osasuna	–	2	1	–	1	–
Justizia	1	–	–	–	–	–
Guztira	209	239	82	121	36	22

**Toki administrazioko beste erakunde batzuen aurkako kexen egoera,
eragindako erakunde publikoaren arabera**

	Izapi- detzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Beste batzuk	Eratortitako ez-onarpena
Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoa	3	5	–	5	–	–
Mebisa - Metro de Bilbao	3	2	1	–	–	–
San Marcoseko Mankomunitatea	–	1	1	–	1	–
Gipuzkoako Urak SA	–	–	–	–	–	1
Guztira	6	8	2	5	1	1

**Toki administrazioko beste erakunde batzuen aurkako kexen egoera,
jarduera-alorren arabera**

	Izapi- detzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Beste batzuk	Eratortitako ez-onarpena
Herri Lanak eta Zerbitzuak	4	5	2	3	–	–
Ogasuna	2	2	–	2	–	1
Bereizkeria	–	1	–	–	1	–
Guztira	6	8	2	5	1	1

- Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuen aurka aurkeztutako kexen egoera

Euskal Herriko Unibertsitatearen aurkako kexen egoera

	Izapi- detzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Beste batzuk	Eratortitako ez-onarpena
Hezkuntza	3	–	–	–	–	2
Funtzio Publikoa	4	1	–	1	–	–
Ogasuna	-	3	–	3	–	–
Guztira	7	4	–	4	–	2

6. ESTADISTIKA SOZIOLOGIKOA (SEXUA, HIZKUNTZA, ERREKLAMATZEKO ERA)

- Kexagileen ezaugarriak

2009. urtean egindako kexen azterketa soziologikoak ez du funtsezko aldaketarik izan iazkoaren aldean.

Jasotako kexen banaketa, kexagileen ezaugarrien arabera		
Kexagileen ezaugarriak	Kopurua	%
Gizonezkoak	969	50,55
Emakumezkoak	826	43,09
Taldeak	118	6,15
Identifikatu gabeko pertsonak	4	0,21
Guztira	1.917	100

(Ikusi 13. diagrama eranskinean)

- Kexa idazteko erabilitako hizkuntza

Gaztelania da kexak idazteko orduan gehien erabiltzen den hizkuntza.

Ararteko erakundeak erreklamazioak herritarrak aukeratutako hizkuntzan izapidetzen ditu, irizpide modura. Arartekoa kexa eragindako administrazioekin harremanetan jartzean, eta ofiziozko espedienteren bat abiatzen duenean, komunikazioa EAEko bi hizkuntza ofizialetan egiten da.

Kexen banaketa, erabilitako hizkuntzaren arabera		
Hizkuntza	Kopurua	%
Gaztelania	1.804	94,10
Euskara	92	4,80
Ele biak	17	0,89
Katalana	3	0,16
Frantsesa	1	0,05
Guztira	1.917	100

(Ikusi 14. diagrama eranskinean)

- Kexak aurkezteko era

Kexak egiteko erari dagokionez, datuek egiaztatu digute Internetek goranzko joera duela kexak egiteko bide gisa (%39,91).

Kexen banaketa, aurkezteko eraren arabera		
Jasotzeko era	Kopurua	%
Internetez	765	39,91
Bulegoetara bertaratuta	736	38,39
Postaz	369	19,25
Faxeaz	47	2,45
Guztira	1.917	100

(Ikusi 15. diagrama eranskinean)

7. ARRETA ZUZENeko BULEGOEN JARDUERA (BISITAK ETA TELEFONO BIDEZKO KONTSULTAK)

1996tik, Ararteko erakundeak arreta zuzeneko bulegoak dauzka Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetan. Horri esker, administrazioen batekin arazoak dituzten herritarrei hobeto lagun diezaiekegu. Bulegoetan hartutako eskarmentuak erakusten du, gainera, bertan jasotzen diren bisitez gain, telefono bidezko kontsulta ugari ere egiten direla, erakundeko langileek erantzuten dituztenak.

Horregatik, bisitez gain, telefonozko kontsultak ere zenbatzen ditugu, ziur baikaude horien bitartez informatzeko lan interesgarria egiten dela pertsonen administrazioekin dituzten harremanetan zein eskubide dituzten adierazten. Horrela, 2009. urtean guztira 4.221 kontsultari erantzun diegu. Horietatik 1.377 telefono bidezko kontsultak izan dira, eta 2.844, berriz, hiru bulegoetakoren batera etorri diren pertsonenak.

Telefono bidezko kontsulta eta bisiten kopurua arreta zuzeneko bulegoetan				
Herria	Telefono bidezko kontsultak	Bisitak	Guztira	%
Bilbao	570	1.023	1.593	37,74
Donostia-San Sebastián	448	811	1.259	29,83
Vitoria-Gasteiz	359	1.010	1.369	32,43
Guztira	1.377	2.844	4.221	100

(Ikusi 16. diagrama eranskinean)

- Arreta zuzeneko bulegoetara etorri eta kexa aurkeztu dutenenak

Arreta zuzeneko hiru bulegoetan jasotako bisitetatik 729 kexa bihurtu dira, hau da, bisita guztietatik.

Kexa bilakatutako bisitak		
	Kopurua	%
Bilbao	269	36,90
Donostia-San Sebastián	231	31,69
Vitoria-Gasteiz	229	31,41
Guztira	729	100

(Ikusi 19. diagrama eranskinean)

Gainerako bisitei dagokienez, kasu batzuetan erakunde honen jarduera-eremutik kanpoko gaien loturikoak izan dira; horrenbestez, ezin izan dira kexatzat bideratu; beste zenbait kasutan, agiri gehiago ekarri behar zituzten, edo aurretiazko gestioak egin behar ziren, administrazio organo eskudunetan; eta azkenik, beste kasu batzuetan, planteaturiko arazoak,

edo kexa egiteko funtsik gabekoak ziren edo bisita kexa-espeditente baten izapidetzeari lotuta egon da, edo herritarrak bere arazo zehatzetan jarraitu beharreko izapideei buruzko informazioa lortu nahi izan du.

- Arreta zuzeneko bulegoetara bertaratutako pertsonen ezaugarriak

Arreta zuzeneko bulegoetara etorritako bisitarien ezaugarriak					
	Bilbao	Donostia-San Sebastian	Vitoria- Gasteiz	Guztira	%
Gizonezkoak	569	365	541	1.455	51,16
Emakumezkoak	371	360	414	1.145	40,26
Bikoteak	81	69	28	178	6,26
Taldeak	12	27	27	66	2,32
Guztira	1.023	811	1.010	2.844	100

(Ikusi 17. diagrama eranskinean)

- Arreta zuzeneko bulegoetara etortzen diren pertsonen adina

Adin multzoen arabera datuak aztertuz, Gasteizen 25 urtetik beherako bisitak dezente ugaritu direla ikusi dugu. Ugaritze hori arrazoi honengatik gertatu da, batik bat: Arabako aldundiak tutoretza onartu duela egiaztatzeko agiririk ez duten adingabeek kexak egin dituztelako, eragindako administrazioen atalean azaldu dugunez.

Arreta zuzeneko bulegoetara etorritako bisitarien banaketa, adin multzoka					
Adina	Bilbao	Donostia-San Sebastian	Vitoria-Gasteiz	Guztira	%
25 arte	12	11	80	103	3,62
26-35	105	57	193	355	12,48
36-45	248	184	319	751	26,41
46-55	296	292	196	784	27,57
56-65	222	145	106	473	16,63
66 edo gehiago	140	122	116	378	13,29
Guztira	1.023	811	1.010	2.844	100

(Ikusi 18. diagrama eranskinean)

8. OFIZIOZKO JARDUERAK

Herritarren kexak aztertu eta ikertzeaz gain, Ararteko erakundeak, bere ekimenez, hainbat gai ikertzeari ekiten dio: batzuetan, euskal administrazio publikoren batean jarduera irregularrik egoteko arriskua ikusi dugulako; beste batzuetan, zerbitzu berriak emateko edo laguntzeko aukera ikusi dugulako. Ararteko erakundea sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 17.1 artikulua ofizioz jarduteko aukera aurreikusten du. Horren bidez, Arartekoak esku hartzeko aukera du, administrazioaren irregulartasunen edo akatsen baten ondorioz kalteturiko herritarren erreklamazioen zain egon barik.

2009an ofiziozko 75 espediente bideratzen hasi gara (389 aurreko urtean). Beherakada garrantzitsu hori arrazoi honengatik gertatu da: 2008an jarduera ugari hasi genituen, irisgarritasunari buruzko lau urteko programaren eta *Etixerik gabe eta bazterkeria larrian dauden pertsonen premiei emandako erantzuna* izenburuko txosten bereziaren bilakaera aztertzeke.

Ofiziozko jardueren banaketa, alorren arabera		
	Ofizioz egindako espedienteak	%
Gizarte Ekintza	38	50,67
Herrizaingoa	11	14,67
Hezkuntza	6	8,00
Osasuna	5	6,67
Justizia	4	5,33
Herri Lanak eta Zerbitzuak	3	4,00
Hirigintza eta Lurralde Antolamendua	3	2,67
Funtzio Publikoa	2	1,33
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa	1	1,33
Etxebizitza	1	1,33
Ogasuna	1	1,00
Guztira	75	100

(Ikusi 20. diagrama eranskinen)

Ofiziozko jardueren banaketa, eragindako administrazioen arabera		
	Kopurua	%
Eusko Jaurlaritza	42	49,41
Foru administrazioa	27	31,77
Toki administrazioa	16	18,82
Guztira	85	100

(Ikusi 21. diagrama eranskinen)

9. ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAREN BALORAZIOA (ERABILTZAILEEI EGINDAKO INKESTAREN EMAITZAK)

Duela zenbait urte, herritarrengana hurbiltzeko bidea hasi genuen, esku hartzeko eskatu diguten pertsonen iritzia jakiteko. Erakundearen jardunbidean ahulguneak zeintzuk diren jakitea eta eskaintzen dugun zerbitzua hobetzen saiatzea ditugu helburu.

Horregatik, kexa-espediente baten izapideak amaitzen ditugunean, kexagileari galdera-sorta bat bidaltzen diogu, nahi izanez gero eta izena ipini barik, galdera batzuei erantzuteko eskatuz, emandako zerbitzuaren gainean egiten duen balorazioa jakiteko.

Emaitzak baloratzeko orduan garrantzitsua da honako hau kontuan hartzea: 2009an guztiz izapidetu diren kexetatik, soilik %32,34tan iritzi diogu eragindako administrazioak oker jokatutua duela.

Hona hemen bete diren galdera-sortetako datuak laburbilduta: kexaren bat egin duten herritarren eta kexa horren tramitazioa bukatu den kasuetan, kexagileetatik %87,1ek hauxe adierazi dute: *“Arartekoak emandako informazioa ona edo oso ona izan da,”* eta *“erabat edo nahiko ados gaude Arartekoak kexari buruz emandako ebazpenarekin edo proposamenarekin”* (%62,36k).

Arartekoaren esku-hartzea oro har nola baloratuko luketen galdetzean (erakutsi duen interesa, laguntzeko prestasuna, egindako gestioak eta abar), kexagileetatik %78,5ek esku-hartzea *“oso ona edo nahiko ona”* iruditu zaiela adierazi dute eta %89,24k *“beti edo batzuetan administrazioarekin arazoak dituen norbaiti Arartekoarengana jotzeko aholkatuko lioketela”* baieztatu dute.

Inkestetatik lortzen diren datuez gain (jarraian biltzen dira), kexagileek beren iritziak eta iradokizunak ere helaraz diezazkigukete galdera-sortako ataletako baten bidez. Aurreko urteetan bezalaxe, zenbaiten iritziak, Arartekoak ahalmen handiagoa izan beharko luke eta bere ebazpenek betearazteko indarra izan beharko lukete. Gainera, batzuen ustez, ofizioz exijitu beharko lituzke sor litezkeen administrazio-erantzukizunak, eta zuzen jokatu ez duten administrazioei zigorrak jartzeko ahalmena izan beharko luke.

- Inkestaren emaitzak (ikusi 22 eta 27 bitarteko diagramak eranskinean)

. Nolakoa iruditu zaizu Arartekoak bidalitako informazioa?	
. Oso ona	38,71
. Ona	48,39
. Txarra	5,38
. Oso txarra	3,23
. Erantzunik ez	4,30

. Nolakoa iruditu zaizu kexa aurkeztu zenuenetik tramitazioa bukatu arteko denbora?	
. Oso luzea	18,28
. Luzea	30,11
. Laburra	44,09
. Oso laburra	2,15
. Erantzunik ez	5,38

. Zenbateraino zaude ados Arartekoak zure kexari buruz erabaki edo proposatu duenarekin?	
. Guztiz ados nago	26,88
. Nahiko ados nago	35,48
. Ez nago oso ados	17,20
. Ez nago batere ados	15,05
. Erantzunik ez	5,38

. Zure ustez, kexa sorrarazi zuen arazoa:	
. Oso ondo konpondu da	23,66
. Nahiko ondo konpondu da	19,35
. Nahiko gaizki konpondu da	2,15
. Ez da konpondu	51,61
. Erantzunik ez	3,23

. Oro har zer iruditu zaizu Arartekoaren lana? (Hau da, azaldu duen interesa, laguntzeko prest egotea, egindako gestioak...)	
. Oso egokia	56,99
. Nahiko egokia	21,51
. Ez oso egokia	11,38
. Oso desegokia	4,30
. Erantzunik ez	5,38

. Administrazioarekin arazoak dituen pertsonaren bati Arartekora joateko gomendatuko al zenioke?	
. Bai, beti	74,19
. Bai, kasu batzuetan	15,05
. Ez, inoiz ez	9,68
. Erantzunik ez	1,08

Galdetutakoen erantzunak beren kexa eragin zuen arazoa konpontzearen ala ez konpontzearen arabera desberdinak izan zitezkeen. Ez da, baina, horrelakorik gertatu, kexagileek beren arazoa ez dela konpondu edo txarto konpondu dela dioten galdera-sortetako datuek erakusten dutenagatik.

- Euren arazoa “ez da konpondu” edo “nahiko gaizki konpondu da” erantzun duten kexagileek Ararteko erakundeak izandako esku-hartzeari buruz egin duten balorazioa (ikusi 28. eta 29. diagramak eranskinean)

. Oro har zer iruditu zaizu Arartekoaren lana? (Hau da, azaldu duen interesa, laguntzeko prest egotea, egindako gestioak...)

. Oso egokia	38
. Nahiko egokia	22
. Ez oso egokia	22
. Oso desegokia	8
. Erantzunik ez	10

. Administrazioarekin arazoak dituen pertsonaren bati Arartekora joateko gomendatuko al zenioke?

. Bai, beti	52
. Bai, kasu batzuetan	28
. Ez, inoiz ez	18
. Erantzunik ez	2

ararteko

VII. ATALA

ADMINISTRAZIOAREN SAIL
BATZUEK ARGIBIDEAK EPE
BARRUAN EZ EMATEARI EUSTEA



1. SARRERA ETA OHARRAK

Lege antolamenduak Ararteko erakundearen modukoei esleitzen dizkien kontrol eginkizunak betetzeko ezinbestekoa da erakunde horien jarduera esparruetan sartzen diren herri administrazioen laguntza. Izan ere, administrazio horiek izapidetzen ari diren espedienteen ebazpen oinarritua lortzeko behar den informazio guztia eman behar dute eta, gainera, ezarritako epeetan egin behar dute hori, ikerketa eta kontroleko lanek gutxienezko eragingarritasuna izan dezaten nahi bada behintzat.

Errealitate horretaz jabetuta, Ararteko erakundea sortu eta araupetzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –23. artikuluan– bere kontrolpean jarritako herri administrazioen bete-behar hori espresuki aipatzen du, administrazio horiei eskatzen zaizkien datu, dokumentu, txosten eta argitasun guztiak lehentasunez eta premiaz aurkeztu behar dutela dioenean. Era berean, 26. artikuluan ohartarazten du informazioak, espedienteak edota bestelako datuak bidaltzeko eskatzen zaienean, erakundeak eskatutakoari erantzun dakion epe bat ezarri beharko duela. Betebehar hori sendotzeko, lege berberak dio, 24.2 artikuluan, herri Administrazioaren zerbitzura ari den edozein organismo, funtzionario, zuzendari edo pertsonak Arartekoaren ikerketa lanaren aurrean jarrera ezkorra edo oztopatzaila erakusten tematzekotan, txosten berezia egin ahal izango da, urteko txostenean dagokion atalean aipatzeaz gain.

Izan ere, kapitulu hau urteko txosten honetan sartu badugu, Legebiltzarrak eta, hedapeenez, iritzi publikoak oro har Arartekoari zintzoki lagundu ez dioten, Arartekoaren esku hartzea eragotzi edo atzeratu duten eta herritarrek jarritako kexak behar den epearen barruan ebatzi ahal izatea eragin duten kargudunak edo funtzionarioak nortzuk izan diren jakin dezaten izan da.

2008. urtean erabili genuen sistema berari jarraiki, ondoren aipatzen diren datuetan Arartekoak tartean diren instituzioei dagokienez garatu dituen kudeaketa-lanak jasotzen dira; horrela, helarazi zaien informazio eskaeraren inguruko erantzunik eman ez denean edo hori berandu heldu denean nahiz gomendioak betetzeari eta legezketasuna gogorarazteari dagokienez isilik geratu direnean, erakunde eskubide-bermatzaille honi laguntzeko bete-beharra egoki bete behar dutela ohartarazi eta gogorarazi die.

Aipatu beharrekoa da, errekerimendu horiek egitean, Arartekoak ez duela automatikoki jarduten. Laguntzeko betebeharra gogorarazteko eginkizuna zuhurtziaz egiten da, administrazio kudeaketan eragina duten aldagaiak kontuan hartuta eta kexa aurkeztu duten pertsonen erantzun eraginkorra eta azkarra emateko helburuarekin. Nahitaezko arreta eskatzen duten inguruabarren artean, honakoak azpimarra daitezke: informazio eskaeraren xede den arazoaren izaera materiala; eskaeraren hartzaile den organoak duen burokrazi eta administrazio egituraren konplexutasuna; bideratu beharreko prozeduren behin-behineko metaketa; kontrolpean dauden erakundeen eraketari aplikatzen zaizkion denbora-aldagaiak, hauteskundeen ondorioz edota arduradun eta funtzionarioak txandatu eta/edo ordeztearen ondorioz; etab.

Baina, guztia gorabehera, kasu batzuetan ardura-falta antzematen da eta horrek erakunde honen kontrol lanarekiko eta, beraz, kexagileen eskubideekiko errespetu falta adierazten du. Horrelako kasuetan egin behar izaten du erakunde honek ohartarazpena, ez laguntzeak berekin ekar ditzakeen ondorio penalez ohartarazteko (Kode Penalaren 502.2 art.).

2009. urtean zehar hiru ohartarazpen egin zaizkio Beasaingo alkateari. Azkenean eman dигute eskatutako informazioa, baina salatu beharra daukagu laguntza falta horrek egiaz oztopatu duela erakunde honek egoki esku hartzea.

* * *

Jarraian, uste dugu hainbat kontu ere argitu behar ditugula, jarraian sartuko diren zerrendetan bildutako datuak hobeto ulertu ahal izateko:

- * Lehenengo zerrendan, gure kontrolaren mende jarri diren eta izapideetan gutxienez informazio eskari bat eta, izatekotan, agindei bat egin behar izan zaien erakunde edo organismo desberdinetan izapidetutako espedienteak guztira jaso dira. Zerrenda honetan gomendioak betetzeaz eskatutako informazioak eta luzatutako agindeiak ere sartuta daude. Hona hemen zutabe bakoitzean zer informazio islatzen den:

- (1) zenbat espedientetan egin den 2009. urtean informazio eskariren bat.
- (2) 2009an informazioa eskatu deneko espedienteetatik zenbatetan egin den agindeia.
- (3) agindeia egin zaien espedienteen portzentajea, 2009an informazio eskaririk egin zaieneko guztirako espedienteen aldean.
- (4) 2009an agindeirik zenbat espedienteri egin zaion, aurreko urteetan egindako informazio eskariei buruzkoak izanik.

- * Bigarren zerrendan xehetasunez islatzen dira, banan-banan, bideratzeko azaldu dizkiguten jarduerak burutu dituzten organo edo erakundeei agindeia helarazi behar izan zaieneko espedienteak, bai ohiko informazioei dagokionez bai gomendioak betetzeari dagokionez.
 - Zenbakiaren ondoan izartxoak duten espedienteak aurreko urteetan izapidetzen hasitako eta 2009an, izapidetzen jarraitzen zutenez, agindeiak egin behar izan zaizkienak dira.
 - Azkeneko zutabearen islatzen den datua, informazioa oraindik jaso gabe dagoen ala jasota dagoen dioena, muga data 2009ko abenduaren 31 zelarik sartu da. Ezer adierazten ez bada, gaiak eragindako beste administrazio batzuen laguntzari esker konpondutako espedienteak dira, edota bat-batean geldiarazitako espedienteak, arrazoi ezberdinengatik (kexari uko egiteagatik, epaileak esku hartu duelako, e.a.)
 - Era berean, komeni da nabarmentzea behin baino gehiagotan aipatzen diren espedienteak informazio-eskaera bat baino gehiago eragin dutenak direla. Egindako eskaera bakoitzeko zenbat agindei egin behar izan diren erakusteko agerrarazten dira horrela.
- * Hirugarren zerrendan, ohartarazpena egitera behartu gaituzten espediente guztiak jaso dira, zehatz-mehatz.

2. ARARTEKOAK 2009. URTEAN EGINDAKO INFORMAZIO ESKAEREI ETA AGINDEIEI ADMINISTRAZIOEK EMANDAKO ERANTZUNA

A) Eusko Jaurlaritza¹

	(1)	(2)	(3)	(4)
Sailak, elkarteak eta erakunde publikoak	2009ko eskaera duten espedienteak	Agindeia duten espedienteak	%	Agindeiak aurreko urteetako eskaerei
Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura	1	-	-	-
Kultura	2	-	-	-
EITB	2	2	100	-
HABE	2	-	-	-
Ekonomia eta Ogasuna	3	-	-	-
Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa	65	13	20	9
Unigial	2	-	-	-
Enplegua eta Gizarte Gaiak	34	6	17,65	-
Ogasuna eta Herri Administrazioa	3	1	33,33	-
Industria, Merkataritza eta Turismoa	3	1	33,33	-
Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoa	5	1	20	-
Herrizaingoa	57	7	12,28	2
Justizia eta Herri Administrazioa	13	-	-	-
IVAP	2	-	-	-
Justizia, Lana eta Gizarte Segurantza	12	1	8,33	-
Osalan	1	-	-	-
Ingurumena, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza	7	1	14,25	-
Uraren Euskal Agentzia	11	1	9,09	-
Ingurumena eta Lurralde Antolamendua	-	-	-	-
Uraren Euskal Agentzia	1	-	-	-
Osasuna	11	-	-	-
Osakidetza	15	-	-	2
Osasuna eta Kontsumoa	13	5	38,46	-
Osakidetza	43	10	23,26	-
Garraioak eta Herri Lanak	-	-	-	1
Euskal Trenbide Sarea	1	1	100	-
Eusko Trenbideak	1	1	100	-

¹ Sail batzuk bikoiztuta daudela dirudi, EAEko administrazio orokorrak sailen egitura egokitzearen ondorioz. Egokitze hori maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuaren bidez egin zen (EHAA, 86. zk., maiatzaren 9koa).

	(1)	(2)	(3)	(4)
	2009ko eskaera duten espedienteak	Agindeia duten espedienteak	%	Agindeiak aurreko urteetako eskaerei
Sailak, elkarteak eta erakunde publikoak				
Lehendakariordetza	-	-	-	1
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	44	13	29,55	6
Etxebizitza, Herri Lanak eta Garraioak	52	22	42,30	-
Euskal Trenbide Sarea	1	-	-	-
Eusko Trenbideak	1	-	-	-

B) Foru aldundiak

	(1)	(2)	(3)	(4)
	2009ko eskaera duten espedienteak	Agindeia duten espedienteak	%	Agindeiak aurreko urteetako eskaerei
Arabako Foru Aldundia				
Toki Administrazioa eta Lurralde Oreka	1	-	-	-
Nekazaritza	1	-	-	-
Diputatu Nagusia	1	-	-	-
Ogasuna, Finantza eta Aurrekontuak	5	-	-	-
Ingurumena	1	-	-	-
Herrilanak eta Garraioak	6	2	33,33	-
Gizarte Politika eta Gizarte Zerbitzuak	64	7	10,94	5

	(1)	(2)	(3)	(4)
	2009ko eskaera duten espedienteak	Agindeia duten espedienteak	%	Agindeiak aurreko urteetako eskaerei
Bizkaiko Foru Aldundia				
Gizarte Ekintza	31	2	6,45	3
Nekazaritza	3	1	33,33	-
Kultura	3	-	-	-
Diputatu Nagusia	1	-	-	-
Ogasuna eta Finantzak	6	1	16,67	-
Berrikuntza eta Ekonomi Sustapena	2	-	-	-
Herri Lanak	9	1	11,11	-
Udal Harremanak eta Herri Administrazioa	3	1	33,33	-
Garraioak eta Hirigintza	3	2	66,67	-

	(1)	(2)	(3)	(4)
	2009ko eskaera duten espedienteak	Agindeia duten espedienteak	%	Agindeiak aurreko urteetako eskaerei
Gipuzkoako Foru Aldundia				
Kultura eta Euskara	1	-	-	-
Landa Ingurunearen Garapena	2	-	-	-
Diputatu Nagusia	2	-	-	-
Ogasuna eta Finantzak	4	-	-	-
Bide Azpiegiturak	2	-	-	-
Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa	4	2	50	-
Gizarte Politika	30	2	6,67	4
Lehendakaritza eta Foru Administrazioa	2	-	-	-

C) Udalak

- Arabako Lurralde Historikoa

	(1)	(2)	(3)	(4)
Arabako udalak	2009ko eskaera duten espedienteak	Agindeia duten espedienteak	%	Agindeiak aurreko urteetako eskaerei
Alegría-Dulantzi	4	1	25	-
Amurrio	1	-	-	-
Artziniega	-	-	-	1
Asparrena	1	-	-	1
Ayala / Aiara	1	1	100	-
Campezo / Kanpezu	-	-	-	1
Iruña Oka / Iruña de Oca	1	1	100	-
Kripan	1	-	-	-
Labastida	2	1	50	-
Lantarón	1	-	-	-
Legutiano	1	-	-	-
Llodio	7	1	14,29	2
Navaridas	1	-	-	1
Peñacerrada – Urizaharra	1	-	-	-
Samaniego	1	-	-	-
Vitoria-Gasteiz	55	15	27,27	9
Zigoitia	2	-	-	-
Zuia	1	1	100	-

	(1)	(2)	(3)	(4)
	2009ko eskaera duten espedienteak	Agindeia duten espedienteak	%	Agindeiak aurreko urteetako eskaerei
Arabako administrazio batzarrak				
Astegieta	1	-	-	-
Bujanda	1	1	100	-
Menagarai	1	-	-	-
Puentelarrá	2	-	-	-
Salinillas de Buradón / Buradon Gatzaga	1	1	100	-
Urarte	1	-	-	-

- Bizkaiko Lurralde Historikoa

	(1)	(2)	(3)	(4)
	2009ko eskaera duten espedienteak	Agindeia duten espedienteak	%	Agindeiak aurreko urteetako eskaerei
Bizkaiko udalak				
Abadiño	1	1	100	1
Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena	4	3	75	-
Alonsotegi	1	-	-	2
Arrieta	1	-	-	-
Arrigorriaga	1	-	-	-
Aulesti	1	1	100	-
Balmaseda	2	-	-	-
Barakaldo	13	4	30,77	5
Basauri	2	-	-	2
Bedia	1	1	100	-
Berango	2	1	50	-
Bermeo	10	1	10	1
Berriz	-	-	-	1
Bilbao	57	-	-	-
Derio	1	-	-	-

	(1)	(2)	(3)	(4)
Bizkaiko udalak	2009ko eskaera duten espedienteak	Agindeia duten espedienteak	%	Agindeiak aurreko urteetako eskaerei
Dima	1	1	100	-
Durango	9	3	33,33	1
Elantxobe	1	1	100	-
Elorrio	1	1	100	-
Erandio	9	3	33,33	1
Ermua	1	-	-	1
Etxebarri	1	1	100	-
Galdakao	3	2	66,67	1
Galdames	2	-	-	-
Gernika-Lumo	2	-	-	-
Getxo	8	1	12,50	2
Gordexola	1	1	100	1
Gorliz	1	-	-	-
Güeñes	4	1	25	-
Igorre	3	-	-	-
Ispaster	-	-	-	1
Karrantza Harana - Valle de Carranza	1	1	100	-
Larrabetzu	-	-	-	1
Laukiz	1	-	-	-
Leioa	1	-	-	1
Lekitio	2	-	-	-
Lemoiz	1	1	100	-
Lezama	3	3	100	-
Loiu	2	-	-	-
Mallabia	1	-	-	-
Maruri-Jatabe	1	-	-	-
Meñaka	1	1	100	-
Mungia	1	1	100	1
Muskiz	4	3	75	-
Ondarroa	1	-	-	2
Orduña	2	1	50	-
Orozko	5	3	60	-
Plentzia	2	1	50	-

	(1)	(2)	(3)	(4)
Bizkaiko udalak	2009ko eskaera duten espedienteak	Agindeia duten espedienteak	%	Agindeiak aurreko urteetako eskaerei
Portugalete	13	3	23,08	1
Santurtzi	11	2	18,18	2
Sestao	11	-	-	1
Sondika	-	-	-	1
Sopelana	4	2	50	1
Sukarrieta	1	-	-	-
Trucios-Turtzioz	1	-	-	-
Urduliz	1	1	100	-
Valle de Trápaga-Trapagaran	4	1	25	-
Zaldibar	-	-	-	1
Zalla	3	-	-	-
Zamudio	4	2	50	-
Zeberio	2	2	100	-
Zierbena	2	-	-	-

- Gipuzkoako Lurralde Historikoa

	(1)	(2)	(3)	(4)
	2009ko eskaera duten espedienteak	Agindeia duten espedienteak	%	Agindeiak aurreko urteetako eskaerei
Gipuzkoako udalak				
Aia	1	-	-	-
Alegia	1	-	-	-
Antzuola	1	-	-	-
Arrasate / Mondragón	3	-	-	1
Astigarraga	1	-	-	1
Azkoitia	1	-	-	1
Azpeitia	1	1	100	2
Beasain	4	1	25	3
Bergara	5	4	80	1
Bidegoian	1	-	-	-
Deba	2	-	-	-
Donostia-San Sebastián	36	5	13,89	6
Elgeta	1	1	100	-
Elgoibar	2	2	100	-
Errenteria	10	1	10	2
Gabiria	-	-	-	1
Hernani	3	1	33,33	-
Hondarribia	1	-	-	2
Ibarra	-	-	-	1
Irun	4	1	25	2
Irura	1	1	100	-
Lasarte-Oria	2	1	50	1
Legazpi	1	-	-	-
Lezo	1	-	-	-
Lizartza	1	1	100	-
Mutriku	6	2	33,33	1
Oiartzun	1	-	-	-
Oñati	-	-	-	1
Ordizia	2	2	100	-
Orio	1	1	100	-
Pasaia	3	1	33,33	-

	(1)	(2)	(3)	(4)
Gipuzkoako udalak	2009ko eskaera duten espedienteak	Agindeia duten espedienteak	%	Agindeiak aurreko urteetako eskaerei
Tolosa	3	-	-	2
Usurbil	4	2	50	-
Zarautz	5	1	20	-
Zizurkil	1	1	100	-
Zumaia	1	-	-	-
Zumarraga	-	-	-	1

D) Beste erakunde publiko batzuk

	(1)	(2)	(3)	(4)
	2009ko eskaera duten espedienteak	Agindeia duten espedienteak	%	Agindeiak aurreko urteetako eskaerei
Bideak Bizkaiko Bideak SA	1	-	-	-
Bidegi	1	-	-	-
Gipuzkoako Abokatuen Elkargoa	2	-	-	-
Bizkaiko Abokatuen Elkargoa	2	-	-	-
Añanako Koadrila	1	-	-	-
Haurreskolak	5	-	-	-
Mebisa –Bilboko Metroa	2	-	-	-
San Marcoseko Mankomunitatea	1	-	-	-
Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea	-	-	-	1
Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusia	2	-	-	-
Euskal Herriko Unibertsitatea	7	4	57,14	-

3. ARARTEKOAK 2009. URTEAN INFORMAZIOA LORTZEKO EGIN DITUEN AGINDEIEN ZERRENDA

A) Eusko Jaurlaritzat²

Sailak, elkarteak eta erakunde publikoak	Erreferentzia (esp. zenb.)	Azalpena (Kexa eragin duen gaia)	Agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
EITB	1152/2006/30	Emakumeen saskibaloi talde bati informazio tratamendurik eta komunikabideen arretarik ez ematea	2009/09/30	JG
	1211/2008/17	Irisgarritasuna sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legea ez betetzea	2009/12/10	JG
Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa	1101/2007/20*	Babespe partekatua. Ikastetxea aldatzea	2009/01/15	J
	8/2008/200F*	Dietak sarreratzat jotzea, bekak emate aldera	2009/01/15	J
	273/2008/090F*	EAEko hezkuntza-premia bereziei emandako erantzunari buruzko txostenaren jarraipena egitea	2009/01/14	J
	274/2008/090F*	Ikastetxeetako bizikidetasunari eta arazoei buruzko txostenaren jarraipena egitea	2009/01/14	J
	281/2008/090F*	EAEko hezkuntza-premia bereziei emandako erantzunari buruzko txostenaren jarraipena egitea	2009/01/14	J
	336/2008/370F*	Haurrentzako eta nerabeentzako hezkuntza eta terapia zentroak	2009/01/12	J
	1193/2008/33*	Hezkuntzarako 2008ko LEP, espezialitatea sukaldea eta pastelak	2009/01/21	J
	1278/2008/25*	Prestakuntza programetarako eta ikertzaileen hobekuntzarako bekak ukatzea	2009/01/09	J
	1687/2008/20*	Hizkuntz ereduak	2009/01/28	J
	1431/2008/20	Eskola-garraioa.	2009/03/03	J
	1432/2008/20	Euskararen salbuespena – batxilergoa	2009/03/03	J
	114/2009/20	Hezkuntza bereziko arazoak dituen neskatila	2009/10/13	J
	150/2009/38	Irakasleen ordezkapenak	2009/03/25	J
	199/2009/20	Euskara salbuesteko eskaera egitea	2009/04/23	JG
	230/2009/20	Irakaskuntza publikoan erlijio irakasleekin arazoak	2009/04/23	J
	231/2009/20	Hezkuntza ebaluatzeko prozesuan informaziorik ez ematea	2009/10/06	JG
	549/2009/25	Helduen irakaskuntzako ordutegiak	2009/07/31	J
	590/2009/25	Ondare erantzukizuna, ikastetxe batean betaurrekoak puskatu izanagatik	2009/06/24	J
	900/2009/20	Eskola-garraio egokitua	2009/11/10	JG
	746/2009/25	Sestaoko Musika Eskolan ikasleek dituzten betebeharrak	2009/09/02	J
1039/2009/25	Berrikuntza proiektua. Jazo daitekeen bereizkeria	2009/12/02	JG	
1380/2009/25	Muskizgo etxe baten hartutako adingabe bat ez eskolatzea	2009/12/14	J	

² Sail batzuk bikoiztuta daudela dirudi, EAEko administrazio orokorrak sailen egitura egokitzearen ondorioz. Egokitze hori maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuaren bidez egin zen (EHAA, 86. zk., maiatzaren 9koa).

Sailak, elkarteak eta erakunde publikoak	Erreferentzia (esp. zenb.)	Azalpena (Kexa eragin duen gaia)	Agindeia data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Enplegua eta Gizarte Gaiak	606/2008/01	Aniznavarra egoitzaren egoera	2009/09/16	J
	18/2009/010F	Greba adinekoen egoitza batean	2009/09/16	J
	19/2009/010F	Greba adinekoen egoitza batean	2009/09/16	J
	20/2009/010F	Greba adinekoen egoitza batean	2009/09/16	J
	775/2009/01	Egoitzaren funtzionamendu baldintzak	2009/09/16	J
Ogasuna eta Herri Administrazioa	1529/2008/20	Enplegu Publikoaren Oinarrizko Estatutua: norberaren gauzatarako baimenak	2009/04/23	JG
Industria, Merkataritza eta Turismoa	76/2009/22	Gasaren ikuskapen teknikoaren gehiegizko kobrantza salatzea	2009/04/07	JG
Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoa	471/2009/22	Naturgasen ikuskapenarekin ados ez egotea	2009/07/31	J
Herrizaingoa	217/2008/18*	Ertzain batek ez du bete tabakoaren kontrako legea	2009/02/04	J
	1163/2008/19*	Ustezko xenofobia delitu baten aurrean poliziaren inhibizioa	2009/01/19	J
	1602/2008/19	Trafikoko zigorra	2009/12/09	JG
	1667/2008/19	Espedientea urrutitik ikusteko aukerarik ez edukitzea	2009/12/09	J
	1/2009/360F	Emakumeen kontrako indarkeria hipzide duten datuei buruzko informazio eskaera egitea	2009/01/28	J
	507/2009/19	Trafikoaren arloko zigor prozedura	2009/12/09	JG
	673/2009/19	Poliziak gazte atzeritar bati emandako tratu bidegabekoa	2009/09/24	J
	810/2009/19	Ertzaintzaren agente baten tratu bidegabekoa	2009/09/24	J
	1072/2009/19	Trafikoko zigorra	2009/12/11	J
Justizia, Lana eta Gizarte Segurantzza	2/2009/360F	Emakumeen kontrako indarkeria hipzide duten datuei buruzko informazio eskaera egitea	2009/01/28	J
Ingurumena, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza	39/2008/17	Harrobi baten funtzionamenduan antzemandako ustezko irregulartasunak	2009/12/10	JG
Uraren Euskal Agentzia	1405/2009/29	Ibaiaren ibilguko lurren legez kanpoko betetzea	2009/12/03	JG
Osasuna eta Kontsumoa	335/2008/180F	Gaixo neurologikoen errehabilitazioa	2009/11/20	J
	97/2009/18	Prozesu kostuen jakinarazpen akastuna	2009/11/10	J
	763/2009/18	Gastuen itzulketa ukatzea	2009/09/14	JG
	970/2009/18	Hirugarren adinekoentzako hitzartutako egoitza batean zerbitzu eskasa	2009/10/14	J
	992/2009/18	Gastuak itzultzeko eskaera egitea	2009/09/14	J

Sailak, elkarkeak eta erakunde publikoak	Erreferentzia (esp. zenb.)	Azalpena (Kexa eragin duen gaia)	Agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Osakidetza	374/2008/370F*	Buruko gaixotasunaren arreta komunitarioari buruzko txostenaren jarraipena egitea	2009/01/12	J
	375/2008/370F*	Mendetasunaren Legeari buruzko informazioa eskatzea	2009/01/12	J
	9/2009/180F	Gor-mutuek osasun zentroetara duten irisgarritasuna	2009/07/09	J
	182/2009/18	Gaixoei Txagorritxu Ospitalean telebistak erabiltzea	2009/07/09	J
	337/2009/18	Gaixoak kontsulta pribatuetara bidaltzeko praktika irregularrak	2009/12/11	J
	514/2009/18	Jasotako arreta medikoarekin ados ez egotea	2009/11/03	J
	707/2009/33	Lanpostu bat emateko hizkuntz profila	2009/11/30	J
	1105/2009/18	Osasun-garraio eskasa	2009/09/30	J
	1120/2009/20	Hautapropa baten garapenarekin ados ez egotea	2009/12/04	J
	1257/2009/33	Administrazioaren isiltasuna	2009/11/30	J
	1327/2009/33	Posta bidez txosten medikoak bidaltzerakoan konfidentzialtasunik ez egotea	2009/12/11	JG
	1333/2009/18	Administrazioaren isiltasuna	2009/12/11	J
Garraioak eta Herri Lanak	1511/2008/29*	Trenaren lineak zabaltea	2009/03/13	JG
Euskal Trenbide Sarea	1650/2008/17	Metro Bilbao obrak	2009/03/17	J
Eusko Trenbideak	1629/2008/22	Administrazioaren isiltasuna	2009/03/02	JG
Lehendakariordetza	1137/2008/18*	ONA txartela erabili ahal izateko betekizun informatikoak	2009/01/16	J
Etxebizitza eta Gizarte Gaik	325/2008/320F*	Kalitatezko irizpideekin bat, itzultzaile eta interprete sarea sortzea	2009/01/08	J
	376/2008/310F*	Ijito familia batek jasandako auzotarren ukoa eta udal erroldan izena ematea ukatzea	2009/01/30	J
	886/2008/34*	BOE baten beharra	2009/01/21	J
	1422/2008/34	Babestutako etxebizitzaren alokairuren arabera, errentak esleitzeko sistema	2009/01/21	J
	1447/2008/34*	Kalteak babestutako etxebizitzan	2009/01/21	J
	1551/2008/34*	BOE trukatzekak	2009/02/11	J
	1497/2008/34	Eraikuntza akatsak BOE batean	2009/09/10	J
	1522/2008/34	Atzerapena babes ofizialeko etxeak ematerakoan	2009/03/12	J
	1552/2008/34	Arazoak gizarte alokairuko etxebizitzekin	2009/03/26	J
	1575/2008/34	Etxebideko zerrendetan sartzeko gehiegizko atzerapena	2009/03/12	J
	1619/2008/34	Babestutako etxebizitza batentzat eskaera erregistroa izapidetzerakoan egondako akatsa	2009/03/12	J
	1641/2008/34	Arazoak Alokabideko etxebizitza batean	2009/03/12	J
	1652/2008/34	Etxebizitza egokituaren beharra	2009/03/26	J

Sailak, elkarteak eta erakunde publikoak	Erreferentzia (esp. zenb.)	Azalpena (Kexa eragin duen gaia)	Agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Etxebizitza eta Gizarte Gaia	28/2009/34	Etxebizitza baten jabetza titulua egitea	2009/04/21	J
	29/2009/34	Bizigune programaren barruan errentamendu kontratua amaitzea	2009/04/21	J
	75/2009/34	Alokabidek berogailuaren instalazioko akatsei buruzko jaketideen komunitate batzarra egitea ukatzea	2009/03/26	J
	112/2009/34	Babestutako alokairua duen etxebizitza eskuratzea	2009/04/21	J
	142/2009/34	Babes ofizialeko etxebizitzetako galdaren zaratak	2009/04/21	J
	179/2009/34	Babes ofizialeko etxebizitzaren arloko zigor prozedura	2009/09/10	J
Etxebizitza, Herri Lanak eta Garraioak	1266/2007/30	Tratu txarrak senide baten aldetik jasan dituen emakume batek gizarte etxebizitza bat eskatzea	2009/09/30	J
	1113/2008/34	Akatsak babes ofizialeko etxebizitzetan	2009/12/01	J
	1552/2008/34	Arazoak gizarte alokairuko etxebizitzekin	2009/09/10	J
	268/2009/34	Konponketa-lanak Bizigunek kudeatutako etxebizitzan	2009/11/10	J
	371/2009/34	Babes ofizialeko etxebizitza eskuratzeko zerrendetatik baztertzeari	2009/09/10	J
	533/2009/34	BOE emateko atzerapenak	2009/09/10	J
	653/2009/34	Babestutako etxebizitzak alokatzea	2009/09/10	J
	681/2009/34	Eskaera baztertua agiri originalak-Bizigune	2009/09/10	J
	721/2009/34	BOEetan antzemandako eraikuntzako akatsak	2009/09/10	J
	732/2009/34	Etxebiden baja ematea.	2009/09/10	J
	748/2009/34	Fidantza itzultzerakoan izandako atzerapena. Bizigune	2009/09/10	J
	755/2009/34	Esleitutako babes ofizialeko etxebizitzak ematerakoan izandako atzerapena	2009/09/10	J
	779/2009/34	Babestutako etxebizitza bat alokatzea	2009/09/10	J
	846/2009/34	Esleitutako etxebizitza ukatzea	2009/09/10	J
	912/2009/34	Alokairuko etxebizitza bat ez berritzea	2009/09/10	J
	919/2009/30	Datu ekonomikoak, babestutako etxebizitza bat esleitze aldera	2009/09/30	J
	958/2009/23	Sagardotegi baten egoera AHTren obrak direla eta	2009/12/01	J
	1001/2009/30	Alokairuko babestutako etxebizitza bat hornitzea	2009/10/20	J
	1021/2009/30	Esleipen zuzeneko BOE	2009/09/30	J
	1023/2009/30	Babestutako etxebizitzaren alokairu hornidurak	2009/10/20	J
	1227/2009/29	Desjabetzea Donostiako hegoaldeko saihesbidearen trazadura proiektua dela eta	2009/12/03	JG
1415/2009/34	Administrazioaren isiltasuna	2009/12/01	J	

B) Foru aldundiak

- Arabako Foru Aldundia

Saila	Erreferentzia (esp. zenb.)	Azalpena (Kexa eragin duen gaia)	Agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Herrilanak eta Garraioak	1030/2009/29	Etebizitzari atxikitako gehigarria eraikitzeko baimen eskaera egitea	2009/09/29	J
	1111/2009/22	Gasteiz-Agurain garraio linea	2009/09/29	J
Gizarte Politika eta Gizarte Zerbitzuak	278/2008/090F*	EAEn bakarrik dauden adingabe atzerritarren egoera	2009/01/14	J
	328/2008/370F*	Biltokiak	2009/01/12	JG
	337/2008/370F*	Etezez etxeko laguntza zerbitzuak	2009/01/12	J
	338/2008/310F*	Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak Galiziara bidaltzea	2009/01/12	J
	363/2008/310F*	Etterik gabe eta bazterkeria larrian dauden pertsonen premiei emandako erantzunari buruzko txostenaren jarraipena egitea	2009/01/14	J
	204/2009/33	Lanaldia murriztea seme-alabak zaintzeko	2009/10/01	JG
	241/2009/33	Gizarte Ongizaterako Foru Erakunderako LEP	2009/04/21	J
	972/2009/32	Estatuko adopzioa	2009/10/21	JG
	983/2009/32	Nazioarteko adopzioa	2009/10/21	JG
	1065/2009/31	Eduki ekonomikoa duten gizarte prestazioak	2009/09/24	J
	1367/2009/41	Prestazio ekonomikoak etetea	2009/11/25	J
	1631/2008/33	Lanpostuak ez egokitzea	2009/03/13	J

- Bizkaiko Foru Aldundia

Saila	Erreferentzia (esp. zenb.)	Azalpena (Kexa eragin duen gaia)	Agindeia data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Gizarte Ekintza	329/2008/370F*	Biltokiak	2009/01/12	J
	340/2008/370F*	Etkez etxeko laguntza zerbitzuak	2009/01/12	J
	361/2008/370F*	Tutoretza erakundeen jarraipena	2009/01/12	J
	1598/2008/01	Mendetasunagatiko prestazioak	2009/12/22	JG
	164/2009/31	Administrazioaren isiltasuna	2009/04/06	J
Nekazaritza	44/2009/29	Ehiza taldeak	2009/03/26	J
Ogasuna eta Finantzak	934/2008/16	Dirubilketa prozedura, enbargo eginbidearekin	2009/04/01	J
	934/2008/16	Dirubilketa prozedura, enbargo eginbidearekin	2009/12/10	JG
Herri Lanak	1216/2008/17	Zarataren mapa estrategikoen kontra	2009/07/22	J
Udal Harremanak eta Herri Administrazioa	428/2009/33	Hautaprobetan ezagutza informatikoak egiaztatzea	2009/05/07	J
Garraioak eta Hirigintza	73/2009/22	Bizkaibus enpresako gidariren batek emandako tratu bidegabea	2009/08/25	J
	238/2009/28	Ardiari ukuiluratzeko jarduera	2009/05/04	J

- Gipuzkoako Foru Aldundia

Saila	Erreferentzia (esp. zenb.)	Azalpena (Kexa eragin duen gaia)	Agindeia data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa	19/2009/29	Ondare erantzukizuna	2009/03/26	J
	1047/2009/22	Gabeziak Lurraldebusek emandako zerbitzuan	2009/11/05	J
Gizarte Politika	330/2008/370F*	Biltokiak	2009/01/12	J
	341/2008/340F*	Etkez etxeko laguntza zerbitzuak	2009/01/12	J
	362/2008/370F*	Tutoretza erakundeen jarraipena	2009/01/12	J
	365/2008/310F*	Etxerik gabe eta bazterkeria larrian dauden pertsonen premiei emandako erantzunari buruzko txostenaren jarraipena egitea	2009/01/14	J
	374/2009/31	Elgeta, Deba, Lastur eta Zarauzko zentroak kudeatzea	2009/04/30	J
	1356/2009/41	Oinarrizko errenta etetea	2009/11/20	J

C) Udalak

- Arabako Lurralde Historikoa

Udala	Erreferentzia (esp. zenb.)	Azalpena (Kexa eragin duen gaia)	Agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Alegria - Dulantzi	945/2009/29	Hirigintzako legezketasunari buruzko kontsulta egitea	2009/09/29	J
Artziniega	1456/2008/29*	Hirigintza legezketasuna ez betetzea	2009/02/17	J
Asparrena	352/2008/370F*	Etxez etxeko laguntza zerbitzuak	2009/01/12	JG
Ayala/Aiara	475/2008/17	Kale batean egindako obrak ez du betetzen irisgarritasuna sustatzeko legea	2009/05/26	J
Campezo/Kanpezu	1332/2008/22*	Hondakin-urak arazteko zerbitzua	2009/09/20	J
Iruña Oka / Iruña de Oca	1661/2008/23	Udalak ez ditu eskailera batzuk konpondu	2009/07/06	J
Labastida	156/2009/29	Uren gordailu desegokia	2009/07/07	J
Llodio	347/2008/370F*	Etxez etxeko laguntza zerbitzuak	2009/01/12	J
	394/2008/28*	Hiri lurlean sailkatutako jarduerak	2009/03/04	JG
	1543/2008/17	Enpresaren ingurumen eragozpenak	2009/07/07	J
Navaridas	351/2008/370F*	Etxez etxeko laguntza zerbitzuak	2009/01/12	JG
Vitoria-Gasteiz	269/2008/310F*	Aldundiak tutoretzapean dituen pasaportetik gabeko adingabe atzerritarrei erroldan izena emateko zailtasunak	2009/11/12	J
	332/2008/370F*	Biltokiak	2009/01/12	J
	342/2008/370F*	Etxez etxeko laguntza zerbitzuak	2009/01/12	J
	366/2008/310F*	Etxerik gabe eta bazterkeria larrian dauden pertsonen oinarritzko premiei buruzko txosten bereziaren jarraipena egitea	2009/01/14	J
	380/2008/290F*	Hilerri musulmanei buruzko gomendio orokorraren jarraipena egitea	2009/05/14	J
	528/2008/23*	Zerbitzugunea jartzeko hitzarmena ustez ez betetzea	2009/02/11	J
	785/2008/28*	Ordenantzak aplikatzea	2009/04/02	J
	1075/2008/17*	Ezgaitasunen bat duten pertsonak kirol instalazioetarako duten sarbidea	2009/03/12	J
	1475/2008/29*	Titulartasun pribatuko karrerapeak erabilera publikorako berritzea	2009/01/19	J
	66/2008/19	Zigorra jakinarazi arte zigortzeko prozeduraren izapidearen berri ez edukitzea	2009/12/10	JG
	1086/2008/19	Garbigune batean izandako lapurretak	2009/04/02	J
	1588/2008/34	Etxebideko zerrendak erabiltzea	2009/03/26	J
	3/2009/220F	Ezgaitasunen bat duten pertsonen garraio zerbitzuei buruz informatzeko sistema	2009/08/25	JG
138/2009/17	TUVISAren kotxetegiaren autobusek eragindako zaratak	2009/05/29	JG	

Udala	Erreferentzia (esp. zenb.)	Azalpena (Kexa eragin duen gaia)	Agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Vitoria-Gasteiz	340/2009/29	Aparkalekuko obrak esleitzerakoan izandako irregularitasunak	2009/05/14	J
	948/2009/25	Haur eskola batean onartzea	2009/09/07	J
	964/2009/33	TUVISArako LEP	2009/10/01	J
	1065/2009/31	Eduki ekonomikoa duten gizarte prestazioak	2009/09/22	J
	1067/2009/31	Erroldan baja ematea	2009/12/09	J
	1112/2009/25	Ondare erantzukizuna	2009/11/23	J
	1184/2009/41	Gizarte laguntzak ukatzea	2009/11/10	J
	1206/2009/41	Sarrerak bermatzeko errenta ukatzea.	2009/11/10	J
	1267/2009/29	ELAri Hirugarren Adinekoen Kontseilu Sektorialean parte har zezan ukatzea	2009/12/03	JG
	1367/2009/41	Prestazio ekonomikoak etetea	2009/11/25	JG
Zuia	760/2009/29	Ordaindu gabeko fakturak	2009/08/12	J

Administrazio batzarrak

Batzarra	Erreferentzia (esp. zenb.)	Azalpena (Kexa eragin duen gaia)	Agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Bujanda	876/2009/29	Administrazioaren isiltasuna	2009/09/07	J
Salinillas de Buradón / Buradon Gatzaga	589/2009/29	Lurzati bat mugatzeko espedientea	2009/08/12	J

- Bizkaiko Lurralde Historikoa

Udala	Erreferentzia (esp. zenb.)	Azalpena (Kexa eragin duen gaia)	Agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Abadiño	83/2007/17*	Jarduera sailkatuak lurzoru urbanizaezinean	2009/05/29	JG
	1580/2008/18	Hizkuntz eskubideak	2009/05/12	J
Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena	1675/2008/23	Etxebizitza bateko sarrera asfaltatzeko eskaera egitea	2009/04/15	J
	1690/2008/29	Oztopo naturala A-8ko zarata	2009/03/13	J
	926/2009/31	Erroldatzea ukatzea	2009/09/22	JG
Alonsotegi	286/2008/23*	Desjabetze espedientea Kadaguako korridorearen obren ondotik	2009/02/11	J
	1505/2008/24*	Babes ofizialeko etxebizitzaren arloko jarduerak	2009/02/04	J
Aulesti	559/2008/23	Zuhaitz mozketak	2009/04/15	J
Barakaldo	288/2008/090F*	Babesik gabeko egoeran dauden haurrei eta nerabeei emandako laguntzari buruzko txostenaren jarraipena egitea	2009/01/14	JG
	371/2008/220F*	Taxi egokiturik ez egotea	2009/08/25	J
	567/2008/28*	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2009/03/04	JG
	1029/2008/28*	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2009/03/04	J
	1092/2008/25*	Ondare erantzukizuna	2009/01/09	J
	136/2009/23	Eraiki gabeko orube baten egoera txarra salatzea	2009/04/15	J
	291/2009/34	Babes ofizialeko etxebizitzaren prezioa	2009/05/08	J
	291/2009/34	Babes ofizialeko etxebizitzaren prezioa	2009/12/01	JG
	742/2009/29	Hirugarren adinekoen elkarte bati diru-laguntza ukatzea	2009/11/24	J
	1660/2008/23	Siebe auzora sartzeko arazoa	2009/02/11	J
	1660/2008/23	Siebe auzora sartzeko arazoa	2009/07/06	JG
Basauri	148/2007/19*	Trafikoko arau-hauste baten tipifikazio okerra	2009/01/13	J
	771/2008/28	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2009/03/04	J
Bedia	1323/2008/22	Uren Partzuergoaren eskumenak	2009/08/25	JG
Berango	1106/2009/29	Administrazioaren isiltasuna	2009/11/20	J
Bermeo	262/2008/090F*	Babesik gabeko egoeran dauden haurrei eta nerabeei laguntza emateari buruzko txostenaren jarraipena egitea	2009/01/15	J
	67/2009/28	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2009/05/04	J
Berriz	353/2008/370F*	Etxez etxeko laguntza zerbitzuak	2009/01/12	J
Dima	873/2009/29	Harri-lubeta batean egindako obra	2009/09/07	J
Durango	308/2008/090F*	Babesik gabeko haur eta nerabeentzako laguntza zerbitzuei buruzko txostenaren jarraipena	2009/01/15	JG
	1683/2008/28	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2009/08/12	J
	193/2009/28	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2009/08/13	JG
	356/2009/16	Hirigintzako lizentzia bat emateagatik zenbateko jakin bat eskatzea	2009/11/05	J
Elantxobe	690/2009/29	Hirigintzako lizentzien izapidea etetea	2009/09/29	J

Udala	Erreferentzia (esp. zenb.)	Azalpena (Kexa eragin duen gaia)	Agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Elorrio	136/2008/28	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2009/08/12	J
Erandio	300/2008/090F*	Babesik gabeko haur eta nerabeentzako laguntza zerbitzuei buruzko txostenaren jarraipena	2009/01/15	J
	223/2008/28	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2009/12/03	JG
	96/2009/17	Telefonia mugikorreko antenaren funtzionamendua	2009/07/22	J
	413/2009/23	Bide publikoaren egoeraren akatsak	2009/07/06	J
Ermua	297/2008/090F*	Babesik gabeko haur eta nerabeentzako laguntza zerbitzuei buruzko txostenaren jarraipena	2009/01/15	J
Etxebarri	787/2009/29	Lonja etxebizitza bihurtzeko baimena eskatzea	2009/08/12	J
Galdakao	1208/2008/23*	Ondare erantzukizuna	2009/02/11	J
	121/2009/29	Behar bezalako etxebizitza eskuratzeko egiaztatze txostena egitea ukatzea	2009/05/14	J
	407/2009/25	Ondare erantzukizuneko espediente bat ez izapidetzea	2009/07/28	J
Getxo	1028/2008/28*	Telefonia mugikorreko antena jartzeko kontra egotea	2009/03/04	J
	1203/2008/19*	Trafikoko zigorren ziozko enbargoa	2009/02/04	J
	54/2009/28	Zalantzak jarduera sailkatuek lizentzia lor dezaten	2009/04/29	J
Gordexola	1404/2008/29*	Bide baten titulartasunaren inguruko gatazka	2009/01/19	J
	941/2009/29	Udaleko informazio batzordeen funtzionamendu desegokia	2009/09/07	J
Güeñes	1671/2008/29	Ostalaritzako jarduera baten titulartasunari buruzko datuak eskuratzeko	2009/05/14	J
Ispaster	668/2007/29*	Baserrira sartzeko bidea aldatzea	2009/01/19	J
Karrantza Harana - Valle de Carranza	25/2009/29	Mugak eskatzea, eremua egiaztatzea eta plano aldatzea	2009/03/26	JG
Larrabetzu	1066/2008/17*	Bide publikoaren irisgarritasuna	2009/03/12	J
Leioa	346/2008/370F*	Etxez etxeko laguntza zerbitzuak	2009/01/12	JG
Lemoiz	1034/2009/22	Baserrira sartzeko zailtasunak	2009/11/05	J
Lezama	16/2009/29	Erakundeen eta elkarten erregistrarako sarbidea	2009/03/13	J
	1405/2009/29	Ibaiaren ibilguan lurren legez kanpoko betetzea. Gaizki egindako obrak	2009/12/03	JG
	1541/2008/17	Aretxalde auzora sartzeko arazoak	2009/05/29	J
Meñaka	1130/2008/29	Hiri eraikuntza baten egoera aurrerua eta osasungaitza	2009/05/14	J
Mungia	287/2008/090F*	Babesik gabeko haur eta nerabeentzako laguntza zerbitzuei buruzko txostenaren jarraipena	2009/01/14	J
	60/2009/28	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2009/04/21	J

Udala	Erreferentzia (esp. zenb.)	Azalpena (Kexa eragin duen gaia)	Agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Muskiz	59/2009/17	Findegi bateko irregulartasunak	2009/11/17	J
	177/2009/23	Ibilgailuei bide bateko sarbidea mugatzea	2009/07/06	J
	1566/2008/23	Lizentziarik gabe egindako berritze obrak	2009/04/15	J
Ondarroa	395/2007/28*	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2009/03/04	J
	965/2008/23	Lur erauzketa	2009/02/11	J
Orduña	1273/2006/17	Gauetako zarata	2009/05/29	J
Orozko	1539/2008/29	Hirigintzako jarduerak salatzea	2009/05/14	J
	238/2009/28	Ardiak ukuiluratzeko jarduera	2009/05/04	J
	741/2009/23	Mindak udal uren gordailuara isurtzea.	2009/09/10	J
Plentzia	146/2009/29	Udal kontuetan herritarren partaidetza arautzea	2009/09/29	J
Portugalete	502/2007/28*	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2009/03/09	J
	1616/2008/28	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2009/03/26	J
	58/2009/29	Erroldatzeko zailtasunak	2009/03/26	J
	530/2009/29	Erroldatzeko eskaera egitea	2009/07/06	J
Santurtzi	301/2008/090F*	Babesik gabeko haur eta nerabeentzako laguntza zerbitzuei buruzko txostenaren jarraipena	2009/01/15	J
	1477/2008/34*	Babes ofizialeko etxebizitzetan antzemandako akatsak	2009/01/21	J
	897/2008/22	Auzoko kaleak egoera txarrean egotea	2009/02/23	J
	133/2009/22	Saneamendu sarearen egoera eskasa	2009/08/25	J
Sestao	373/2008/220F*	Taxi egokiturik ez egotea	2009/08/25	JG
Sondika	279/2007/28*	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2009/03/04	JG
Sopelana	307/2008/090F*	Babesik gabeko haur eta nerabeentzako laguntza zerbitzuei buruzko txostenaren jarraipena	2009/01/15	J
	1553/2008/28	Kutsadura akustikoa	2008/02/17	J
	726/2009/28	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2009/12/03	JG
Urduliz	1264/2009/25	Administrazioaren isiltasuna	2009/11/23	J
Valle de Trápaga-Trapagaran	265/2009/29	Lurzatiak banantzeko eskaera egitea eta argi zutoina kentzea	2009/05/14	J
Zaldibar	833/2008/17*	Zaborteziaren aurka egotea	2009/05/22	J
Zamudio	1625/2008/28	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2008/08/12	J
	1385/2009/29	Eskola batera sartzeko errepidearen egoera	2009/12/02	JG
Zeberio	1276/2009/23	Asfaltatu gabe dagoen eskorga bidea	2009/11/30	JG
	1303/2009/29	Ur hornikuntza	2009/12/03	JG

- Gipuzkoako Lurralde Historikoa

Udala	Erreferentzia (esp. zenb.)	Azalpena (Kexa eragin duen gaia)	Agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Arrasate / Mondragón	298/2008/190F*	Babesik gabeko haur eta nerabeentzako laguntza zerbitzuei buruzko txostenaren jarraipena	2009/01/15	J
Astigarraga	1510/2008/34*	BOE eskuratzeko betekizunak. Erroldatzea	2009/02/04	J
Azkoitia	292/2008/190F*	Babesik gabeko haur eta nerabeentzako laguntza zerbitzuei buruzko txostenaren jarraipena	2009/01/15	J
Azpeitia	290/2008/090F*	Babesik gabeko haur eta nerabeentzako laguntza zerbitzuei buruzko txostenaren jarraipena	2009/01/14	J
	368/2008/28*	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2009/03/09	JG
	856/2009/23	Higiezin baten egoera	2009/09/10	J
Beasain	284/2008/090F*	Babesik gabeko haur eta nerabeentzako laguntza zerbitzuei buruzko txostenaren jarraipena	2009/01/14	J
	1306/2008/28*	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2009/02/06	J
	1379/2008/28*	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2009/02/06	J
	1452/2008/28	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2009/04/02	J
Bergara	283/2008/090F*	Babesik gabeko haur eta nerabeentzako laguntza zerbitzuei buruzko txostenaren jarraipena	2009/01/14	J
	1040/2008/29	Auzo bateko eraikuntza ilegalak	2009/07/06	J
	1046/2008/29	Eraikuntza ilegalen ondotik bideratutako salaketa	2009/07/06	J
	1047/2008/29	Eraikuntza ilegalen ondotik bideratutako salaketa	2009/07/06	J
	1048/2008/29	Eraikuntza ilegalen ondotik bideratutako salaketa	2009/07/06	J
Donostia-San Sebastián	271/2008/190F*	Udalzaingoaren ustezko jarduera desegokia	2009/01/13	JG
	312/2008/090F*	Babesik gabeko haur eta nerabeentzako laguntza zerbitzuei buruzko txostenaren jarraipena	2009/01/15	J
	343/2008/370F*	Etxez etxeko laguntza zerbitzuak	2009/01/12	J
	368/2008/310F*	Etxerik gabe eta bazterkeria larrian dauden pertsonen premiei emandako erantzunei buruzko txostenaren jarraipena egitea	2009/01/14	J
	378/2008/290F*	Hilerri musulmani buruzko gomendio orokorraren jarraipena egitea	2009/03/26	J
	915/2008/23*	Obren lizentzia eteteko eskaera egitea	2009/02/11	J
	1268/2008/19	Óinezkoen pasabidean aparkatzen duten udal autobusak	2009/04/02	J
	1645/2008/28	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2009/03/17	J
	101/2009/34	Babestutako etxebizitza eskuratzea	2009/05/08	J
	330/2009/29	Administrazioaren isiltasuna	2009/05/14	J
	1232/2009/29	Igogailua	2009/12/09	J
	Elgeta	175/2009/22	Zaborren tasaren gehiegizko kobrantza	2009/08/13
Elgoibar	83/2009/29	Baserrietarako bideak	2009/03/26	J
	573/2009/28	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2009/08/13	JG

Udala	Erreferentzia (esp. zenb.)	Azalpena (Kexa eragin duen gaia)	Agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Errenteria	295/2008/090F*	Babesik gabeko haur eta nerabeentzako laguntza zerbitzuei buruzko txostenaren jarraipena	2009/01/15	J
	52/2008/28*	Zabor bilketak eragindako zaratak	2009/04/01	JG
	40/2009/23	Arriskutsuak izan daitezkeen zakurrak edukitzeko lizentzia	2009/04/15	J
Gabiria	354/2008/370F*	Etkez etxeko laguntza zerbitzuak	2009/01/12	J
Hernani	768/2008/19	Trafikoko zigor prozeduraren izapide estandarizatua	2009/09/21	J
Hondarribia	930/2006/28*	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2009/03/04	J
	317/2008/090F*	Babesik gabeko haur eta nerabeentzako laguntza zerbitzuei buruzko txostenaren jarraipena	2009/01/15	J
Ibarra	1362/2008/28*	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2009/03/04	JG
Irun	349/2008/370F*	Etkez etxeko laguntza zerbitzuak	2009/01/12	J
	1328/2008/19*	Trafikoaren antolamendua. Alhondiga auzoa-Belaskonea-Irun	2009/02/04	J
	4/2009/220F	Hiribusetako egokitzapen baliabideen mantentze-lanak	2009/08/25	JG
Irura	159/2009/23	Bordetako erabilera debekatuak	2009/04/15	J
Lasarte-Oria	311/2008/090F*	Babesik gabeko haur eta nerabeentzako laguntza zerbitzuei buruzko txostenaren jarraipena	2009/01/15	J
	652/2009/20	Adingabe ezgaituentzako eskolaz kanpoko jarduerak	2009/07/02	J
Lizartza	1670/2008/18	Etxebizitza batetara sartzeko bidean zuhaitzak mozteak eragin dituen kalteak	2009/03/03	JG
Mutriku	355/2008/370F*	Etkez etxeko laguntza zerbitzuak	2009/01/12	J
	84/2009/28	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2009/08/13	JG
	901/2009/29	Etxebizitzari atxikitako lur gehigarria sartzeko horma eraistea	2009/09/29	J
Oñati	289/2008/090F*	Babesik gabeko haur eta nerabeentzako laguntza zerbitzuei buruzko txostenaren jarraipena	2009/01/14	J
Ordizia	1587/2008/28	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2009/02/17	JG
	623/2009/29	Udalak emandako garajeak eskuratzea	2009/07/06	J
Orio	955/2009/29	Merkataritzako lokalari egoitza erabilera emateko eskaera egitea	2009/09/29	J
Pasaia	87/2009/23	Obren lizentzia	2009/04/15	J
Tolosa	310/2008/090F*	Babesik gabeko haur eta nerabeentzako laguntza zerbitzuei buruzko txostenaren jarraipena	2009/01/14	J
	350/2008/370F*	Etkez etxeko laguntza zerbitzuak	2009/01/12	J
Usurbil	194/2009/28	Festetako oholta	2009/08/13	J
	1043/2009/23	Hirigintzako kudeaketa	2009/10/30	JG
Zarautz	1656/2008/18	Igeriketa ikastaroaren egiaztatzea gaztelaniaz eskatzea	2009/05/12	J
Zizurkil	1197/2009/22	Zaborren tasa	2009/11/30	JG
Zumarraga	319/2008/090F*	Babesik gabeko haur eta nerabeentzako laguntza zerbitzuei buruzko txostenaren jarraipena	2009/01/15	J

D) Beste erakunde publiko batzuk

	Erreferentzia (esp. zenb.)	Azalpena (Kexa eragin duen gaia)	Agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea	348/2008/370F*	Etkez etxeko laguntza zerbitzuak	2009/01/12	J
Euskal Herriko Unibertsitatea	1684/2008/33	Langileen antzinatasuna eta egonkortasuna onartzea	2009/03/30	J
	113/2009/20	Uniqualen txosten batekin ados ez egotea	2009/05/07	J
	927/2009/20	Laneko jazarpena	2009/11/05	JG
	1403/2009/25	Kazetaritzako bigarren ziklora sartzea ukatzea	2009/12/14	JG

4. ARARTEKOAK 2009. URTEAN EGINDAKO OHARTARAZPENEN ZERRENDA

Udalak

- Gipuzkoako Lurralde Historikoa

Udala	Ardura	Titularra	Erreferentzia (esp. zenb.)	Azalpena (Kexa eragin duen gaia)	Ohartarazpenaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Beasain	Alkatea	Patxi Plazaola jauna	1306/2008/28*	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2009/11/12	J
			1379/2008/28*	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2009/11/12	J
			1452/2008/28	Hiri lurrean sailkatutako jarduerak	2009/11/12	J

ararteko

VIII. ATALA

ARARTEKOAREN GOMENDIOAK
ETA IRADOKIZUNAK
ZENBATERAINO BETE DIREN



Ararteko erakundea sortzen eta arautzen duen 3/1985 Legeak –otsailaren 27koak– 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, Arartekoari dagokio: *“Dagokien ihardutze-sailei, herrilariari edo hoi lanariburuei aholkuak ematea edo legezko egitekoak gogoraraztea, legez kontrako edo bidegabekeriako egintzak zuzentzen edo Arduralaritza-zerbitzuak hobetzea lortzen saiatzeko”* (sic).

Horregatik, kexak aztertzean administrazioaren jokaera ez dela zuzena izan ondorioztatzen dugunean, gomendio edo iradokizun bat bidaltzen diogu kexak eragindako administrazioari, bere jokaera alda dezan eskatzeko.

Gomendioak ordenamendu juridikoa urratu dela, legez kontra jokatu dela edo hutsegite larria izan dela ikusten denean egiten dira eta, horien bidez, delako jarduera berrikusteko eskatzen zaio kasuan kasuko administrazioari. Formula honen pean egiten dira, orobat, legeak bete behar dela gogorarazteko oharrak.

Iradokizunak, aldiz, honelako kasuetan egiten dira: eragindako administrazioak legeei jarraiki jardunda ere, eskubideak babestearren edo administrazio egokia bermatzearren, beste era bateko jarduera behar denean. Katetoria honetan barneratzen dira, orobat, administrazio bakar bati zuzenduta dauden eta kexa-espeditente jakin batekin zerikusia duten arau aldatetako proposamenak ere.

Baina beti ez da beharrezkoa izaten gomendioa edo iradokizuna egitea. Askotan, administrazioak bere jokaera jakin bati buruzko informazioa eskatzeko idazkia jaso eta bere jokaera legezketasunarekin bat ez zetorrela egiaztatu ondoren, bere jokaera ez dela zuzena izan aitortzen du, luzamendutan ibili gabe, eta herritarrari urratutako eskubidea berrezartzen dio. Arazoak konpontzeko modu honek ez du gomendio edo iradokizun bat beren-beregi egitea eskatzen eta berari esker, irregulartasunak antzeman dituzten 357 administrazio jokaera gomendio edo iradokizunik egin gabe konpondu dira.

Nolanahi ere, egindako gomendio eta iradokizunak betetzeari dagokionez, azpimarratu beharra dago 2009. urtean egindako 23etatik eta 2008ko txosteneko datuen arabera erabakitzeke zeuden beste 8etatik, 8 onartu egin direla; 12 ez direla onartu, 10 erantzunaren edo

azken erabakiaren zain daudela. Orobat, zehaztu behar da egindako gomendioetako bat, azkenean, bertan behera utzi dela.

Emaitza horiek aintzat hartzean, ezin dugu ahaztu erakunde honek egindako gomendio edo iradokizunak ez direla lotesleak eta, ondorioz, limurtzea edo pertsuasioa besterik ez dugula laguntza eskatu diguten herritarren egoera juridikoak konpontzen saiatzeko.

Horregatik, aipatu nahi dugu erakunde honek garrantzi handia ematen diola administrazio publikoetara bidaltzen dituen erabakiak behar bezala arrazoitzeko beharrari, batez ere erabaki bat edo esku hartzeko irizpide batzuk aldatzeko eskatzen denean. Beti esan izan dugu behartzeko gaitasunik ez izateak ahalegin dialektiko handiagoak egitera behartzen gaituela, gure analisietan sakontzera, desadostasun juridikoak egiaztatzea eta gure argudioak errepikatzea, gure gomendioak eta gogorarazteko oharrak betetzeko orduan bidegabeko aitzakiak jartzen direla ikusten dugunean. Hau da, esku hartzeko dauzkagun aukera guztiak agortzen saiatzen gara, gure asmo bakarra egiaztatu ditugun legez kontrako egoera horiek berrezartzea eta legez kontrako edo bidegabeko praktikak aldatzea dela.

Beti onartu dugu Ararteko erakundeak administrazio jokaera bat aldatzea gomendatu edo iradokitzen duenean, administrazioak ez duela zertan onartu gomendioaren eta/edo iradokizunaren interpretazio juridiko hori, eta ados ez egoteko arrazoiak zeintzuk diren argudia dezakeela.

Batzuetan, eragindako administrazioak ez du adierazten gomendioa edo iradokizuna onartzen duen ala ez. Kasuok bestelako balorazioa merezi dute, eta halakoetan, erantzunik ezak gomendioa edo iradokizuna ez betetzeko asmoa estaltzen duela susmatzen da, eta, hortaz, administrazioari adierazten zaio erantzunik ez emateko jarrerari eusten badio, ez onartutzat joko dela gomendioa edo iradokizuna, eta zertzelada hori jakinaraziko dela Legebiltzarrari egiten zaion urteko txostenean.

Espedienteak bukatzeko beste modu desegoki bat zera da: eragindako administrazioak gomendioa ez onartzea eta bere ezezkoa oinarritzeko argudio nahikorik ez ematea.

Uste dugu jokaera horiek –ez erantzutea edo arrazoitu gabeko ezezkoa ematea– urratu egiten dutela Eusko Legebiltzarreko erakunde ordezkari gisa eman dizkiguten eginkizunak onartzea. Era berean, gure iritziz, jokaera horiek begirunerik eza erakusten dute Zuzenbideko Estatuak arazoak konpontzeko eman duen tresnetako bat erabiliz beren eskubideak aitor diezazkieten eta legeria bete dadin erakunde honetara babes eske etorri diren herritarrekiko. Ildo horretan, gogorazi behar da onartu gabeko gomendio edo iradokizun bakoitzak, erakunde honen bermatze lanerako oztopoa izateaz gain, batez ere legea ez betetzen edo herritarren eskubideak urratzen jarraitzea dakarrela berekin, herritarrei legez dituzten eskubideak berrezartzea galaraziz.

Ohi bezala, atal honetan aipatuko dugu zein egoeratan dauden 2009an egin ditugun gomendio eta iradokizunak, baita 2008ko abenduaren 31n azken erantzunaren zain zeudenak

ere. Aipamen hori lau kategoriatan banakatutako gomendioen azaleko deskribapena baino ez da izango. Lau kategoriak honako hauek dira: 1) Administrazioak onartu dituenak; 2) Administrazioak onartu ez dituenak, 3) txosten hau egiten amaitutakoan, administrazioaren behin betiko erabakiaren zain daudenak eta 4) bertan behera utzi direnak.

2007. urteaz geroztik egindako gomendioek eta iradokizunek lotura zuzena dute ebazpenaren testuarekin, erreferentzi zenbakian sakatuta. Gainontzeko guztiak gure web gunean kontsulta daitezke.

1. ONARTUTAKO GOMENDIOAK ETA IRADOKIZUNAK

A) EUSKO JAURLARITZA¹

Kultura Saila

- [Arartekoaren ebazpena, 2008ko abenduaren 18koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio Praileaitzeko historiaurreko santutegiaren mugaketan aldaketa sustatzeko aukera azter dezala. Aldaketa horrek barne hartu beharko luke haitzuloaren inguruko mendi-mazela osoa.
40/2008/23 espedientea (31/2008 Gomendioa)

Justizia eta Herri Administrazio Saila

- [Arartekoaren ebazpena, 2009ko abenduaren 1ekoa](#). Horren bidez iradokitzen zaio epaiketa laburretarako zitazioei buruzko irizpideak batera ditzala, defentsa eskubidea eraginkorra izango dela bermatzeko.
34/2009/320 espedientea (2/2009 Iradokizuna)

B) FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO FORU ALDUNDIA

Gizarte Politika eta Gizarte Zerbitzuetako Saila

- [Arartekoaren ebazpena, 2009ko otsailaren 26koa](#). Horren bidez iradokitzen zaio adingabeko baten babesik gabeko egoeraren deklarazioa berrikustea eta premiaz ebatzi ditzan adingabekoaren gurasoek eta amaren aldeko aitona-amonek aurkeztu dituzten eskaerak.
169/2009/31 espedientea (1/2009 Iradokizuna)
- [Arartekoaren ebazpena, 2009ko apirilaren 20koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio bere espedientetik ken dezala genero indarkeriaren biktimak diren emakumeei laguntzeko zerbitzuaren txosten bat, honek sortutako kalteak zuzen ditzala baita aurrerantzean txostenak egiteko irizpideak ere. Txosten horrek delitua delitu horretatik absolbitutako pertsona bati egozten zion.
1175/2008/32 espedientea (6/2009 Gomendioa)

¹ Sail batzuk bikoiztuta daudela dirudi, EAEko administrazio orokorrak sailen egitura egokitzearen ondorioz. Egoitze hori maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuaren bidez egin zen (EHAA, 86. zk., maiatzaren 9koa).

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea

- [Arartekoaren ebazpena, 2008ko abenduaren 11koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio sektore publikoan zerbitzuak emateagatiko borondatezko eszedentzia eskatzen duten karrerako langile funtzionarioei egoera hori onartzea, destino berrirako atxikipenak izaera iraunkorra ez badauka ere.
375/2008/33 espedientea (29/2008 Gomendioa)

C) TOKIKO ADMINISTRAZIOA

BIZKAIKO UDALAK

Bermeoko Udala

- [Arartekoaren ebazpena, 2009ko ekainaren 11koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio baliogabe dezala hirigintza araudia urratzeagatik ezarritako zigor bat.
170/2009/23 espedientea (8/2009 Gomendioa)

D) ERAGINDAKO BESTE ERAKUNDE BATZUK

Gipuzkoako Abokatu Elkargoa

- [Arartekoaren ebazpena, 2008ko abenduaren 9koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio diziplinazko erantzukizunaren arloko kexen kudeaketarako zenbait irizpide aplikatu deza- la, haren doako laguntza juridikoaren onuradun batek bere abokatuari jarritako salaketa gaizki izapidetzeagatik, aurkeztutako kexa baten harira.
910/2007/32 espedientea (28/2008 Gomendioa)
- [Arartekoaren ebazpena, 2009ko uztailaren 17koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio deontologia arau-hausteak salatzen dituzten pertsonen jardueretako agirien berri ematea eta arau-hauste horiek artxibatzearen arrazoiak beti ematea, bai diziplina espedientea, bai informazio eginbideak amaitutzat jotzen direnean.
586/2009/32 espedientea (12/2009 Gomendioa)

2. ONARTU EZ DIREN GOMENDIOAK ETA IRADOKUZUNAK

A) EUSKO JAURLARITZA²

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila

- [Arartekoaren ebazpena, 2008ko uztailaren 9koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio berrikeria dezala seme-alabak zaintzeko eszedentzia edo lanaldi laburtua hartzen duten langileen artean zergatik ematen zaien laguntza handiagoa gizonari emakumei baino.
598/2007/30 espedientea (15/2008 Gomendia)

Justizia eta Herri Administrazio Saila

- [Arartekoaren ebazpena, 2009ko ekainaren 18koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio ibilgailuen eta antzerako ondasun higigarrien gordailu judizialek eratorritako Justizia Administrazioaren gastuei aurre egiteko bitartekoak jar ditzala.
1331/2008/32 espedientea (9/2009 Gomendia)

Osasun Saila

- [Arartekoaren ebazpena, 2008ko abenduaren 16koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio berrikeria azter dezala gurgildun aulki elektrikoa finantzatzeko eskaria.
867/2008/18 espedientea (30/2008 Gomendia)

Osasun eta Kontsumo Saila

Osakidetza

- [Arartekoaren ebazpena, 2009ko ekainaren 29koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio, prozesuko kostu gisa, kexagileari eskatutako zenbatekoaren kalkulua berriro egitea, ondorio horietarako jurisprudenziak xedatzen dituen haztapen irizpideak ezarriz.
1491/2008/32 espedientea (10/2009 Gomendia)

² Sail batzuk bikoiztuta daudela dirudi, EAEko administrazio orokorrak sailen egitura egokitzearen ondorioz. Egokitze hori maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuaren bidez egin zen (EHAA, 86. zk., maiatzaren 9koa).

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

- [Arartekoaren ebazpena, 2008ko urriaren 27koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroko izapidetze eta jakinarazpenak 30/1992 Legeari egokitzea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.
836/2007/34 espedientea (26/2008 Gomendioa)

B) FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO FORU ALDUNDIA

Gizarte Politika eta Gizarte Zerbitzuetako Saila

- [Arartekoaren ebazpena, 2009ko abuztuaren 10ekoa](#). Horren bidez gomendatzen zaio bizikidetasuna egiaztatzeko zuzenbidean baliozkoak diren beste frogabide batzuk onartzea eta, legezko izapideen ondoren, mendeko adineko senide bat bere etxebizitzan zaintzen duen pertsona honi laguntza ekonomikoa ematea.
527/2008/31 espedientea (14/2009 Gomendioa)

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Ogasun eta Finantza Departamentua

- [Arartekoaren ebazpena, 2008ko apirilaren 14koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio ezintasun iraunkor osoagatiko prestazioengatik ordaindu behar den PFEZ aldatzea susta dezala.
414/2007/16 espedientea (6/2008 Gomendioa)

C) TOKIKO ADMINISTRAZIOA

BIZKAIKO UDALAK

Lemoizko Udala

- [Arartekoaren ebazpena, 2009ko abuztuaren 21ekoa](#). Horren bidez gomendatzen zaio zuhaitz baten erorketak ibilgailu batean eragindako kalteengatik egindako erreklamazioa gaitzetsi izana berrius dezala.
588/2007/23 espedientea (16/2009 Gomendioa)

Sestaoko Udala

- [Arartekoaren ebazpena, 2009ko uztailaren 13koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio espresuki ebatz ditzala herri horretako garaje komunitate batek aurkeztu dituen erreklamazioak.
813/2007/22 espedientea (11/2009 Gomendia)

Sondikako Udala

- [Arartekoaren ebazpena, 2009ko martxoaren 25koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio udalerriko auzokide batzuek salatu dituzten jarduera eztabaidagarriak legeztatzeko espedientearekin jarrai dezala.
222/2006/23 espedientea (3/2009 Gomendia)

GIPUZKOAKO UDALAK**Aretxabaletako Udala**

- [Arartekoaren ebazpena, 2009ko otsailaren 11koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio ofiziosz baliogabetu ditzala auzokide bati 2007. urteaz geroztik zabor-tasa gisa bidali dizkion likidazioak, hari ez baitio beraren etxebizitzan zabor-bilketa zerbitzurik egiten.
1468/2008/22 espedientea (1/2009 Gomendia)

Belauntzako Udala

- [Arartekoaren ebazpena, 2009ko maiatzaren 20koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio berariaz erantzun diezaiela egindako eskaerei.
1365/2006/23 espedientea (7/2009 Gomendia)

D) ERAGINDAKO BESTE ERAKUNDE BATZUK**EHU/UPV**

- [Arartekoaren ebazpena, 2009ko apirilaren 2koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio IT Txartela sistemarekin bat ematen den Microsoft Excel XP aurreratua moduluaren egiaztagiria onar dezala.
927/2008/33 espedientea (5/2009 Gomendia)

3. ERABAKI GABE DAUDEN GOMENDIOAK ETA IRADOKIZUNAK

A) EUSKO JAURLARITZA³

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila

- [Arartekoaren ebazpena, 2009ko abenduaren 4koa](#). Horren bidez iradokitzen zaio bere titulartasunekoak diren portuetan amarratzeak esleitzeko irizpideak alda ditzala.
129/2009/23 espedientea (3/2009 Iradokizuna)

B) FORU ADMINISTRAZIOA

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Nekazaritza Saila

- [Arartekoaren ebazpena, 2009ko azaroaren 27koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio ehiza-erregimen arrunteko lurzoruetan basurdea ehizatze koادرila bizkaitarren eta ez bizkaitarren arteko bereizketa ezabatzeko.
44/2009/29 espedientea (18/2009 Gomendioa)

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Gizarte Politikako Departamentua

- [Arartekoaren ebazpena, 2009ko uztailaren 23koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio familia barruan zaintzeko diruzko prestazioa eman dezala, mendetasun balorazioaren eskaera aurkeztu zen datatik hasita.
668/2008/31 espedientea (13/2009 Gomendioa)

³ Sail batzuk bikoiztuta daudela dirudi, EAEko administrazio orokorrak sailen egitura egokitzearen ondorioz. Egoitze hori maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuaren bidez egin zen (EHAA, 86. zk., maiatzaren 9koa).

C) TOKIKO ADMINISTRAZIOA**ARABAKO UDALAK****Iruña Okako Udala**

- [Arartekoaren ebazpena 2009ko otsailaren 17koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio ibilgailua teknikoki egokitu ez duten pertsoneri Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergan ezgaitasunagatiko salbuespena ezeztatzeko eman dituen ebazpenak baliogabetzea.
1361/2007/16 espedientea (2/2009 Gomendioa)

BIZKAIKO UDALAK**Lezamako Udala**

- [Arartekoaren ebazpena, 2009ko abenduaren 10ekoa](#). Horren bidez gomendatzen zaio esanbidezko ebazpena ematea, elkarte bat udal Elkartearen Erregistroan inskribatzeari buruzkoa.
16/2009/29 espedientea (19/2009 Gomendioa)

Zamudioko Udala

- [Arartekoaren ebazpena, abenduaren 15ekoa](#). Horren bidez gomendatzen zaio udalerriko ostalaritza establezimenduari indarrean dagoen araudiak ezarritakoa bete dezala eskatzeko.
1325/2008/28 espedientea (20/2009 Gomendioa)

GIPUZKOAKO UDALAK**Bergarako Udala**

- [Arartekoaren ebazpena, 2009ko azaroaren 25ekoa](#). Horren bidez gomendatzen zaio urbanizagarria ez den lurrean txabola eraikitzeari dagokion espedientea behar bezala tramitatzeko eta txakurtegi erabilerak behin betiko eragozteko.
1049/2008/29 espedientea (17/2009 Gomendioa)

Donostiako Udala

- [Arartekoaren ebazpena, 2009ko abuztuaren 19koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio kirol ekipamenduetan esku har dezala, zentzuzko denbora tartean, udalerriko kirol instalazio guztiek banakako dutxak eta aldagelak izan ditzaten.
433/2008/22 espedientea (15/2009 Gomendia)

Hernaniko Udala

- [Arartekoaren ebazpena, 2008ko abenduaren 19koa](#). Horren bidez gomendatzen zaio beharrezko izapideak egin aurretik, udal erroldan izena ematearen ziurtagiria egin dezala.
1535/2007/31 espedientea (32/2008 Gomendia)

4. BERTAN BEHERA UTZITAKO GOMENDIOAK ETA IRADOKIZUNAK

BIZKAIKO UDALAK

Trapagarango Udala

- [Arartekoaren ebazpena, 2009ko martxoaren 30ekoa](#). Horren bidez gomendatzen zaio eman dezala udal erroldan inskribatuta egotearen ziurtagiria, familia bateko kide guztiak udalerriko biztanle gisa onar ditzala, familiak errentan hartuta duen etxebizitza okupatzeko jarduerak kudeatzen parte har dezala eta gizarte bizikidetasun normalizatua susta dezala.

376/2008/310 espedientea (4/2009 Gomendioa)

ararteko

IX. ATALA

**ONDORIOAK.
ESKUBIDEAK ETA ASKATASUNAK**



Ararteko erakundea sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 1/1895 Legearen 32.2 artikulua honako hau erabakitzen du: *“Legebiltzarrari aurkezteko txostenari, Euskal Autonomia Erkidegoan, eskubideen babesen balorazio bat erantsi behar zaio”*.

Arartekoak bere jardueran hartutako ezagueraren bidez egiten du balorazio hori, eta bere jarduteko eremuan barneratzen diren euskal erakunde publikoek (hots, Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, lurralde historikoetako Administrazioak eta Toki Administrazioak) hiritarren eskubideak zein heinetan errespetatzen dituzten islatzen saiatzen da.

Horrek esan nahi du, ondorio hauetarako, ez direla kontuan hartuko 2009. urtean zehar Arartekoak bere jardueran jakin barik urratu diren eskubideak, ezta Arartekoaren lan esparrutik kanpo daudenak ere, Estatuaren Administrazioaren ekintzak direlako. Ezta ere, bistakoak diren arren, partikularrek edo talde antolatuek urratzen dituzten funtsezko eskubideak.

Aipatzeko da, halaber, Arartekoak esku hartzerik ez badauka ere, ETAk giza eskubideak larriki urratzen dituela ikusita, bereziki, bizitzeko, osotasun fisikorako eta askatasunerako eskubideak, berriro ere elkartasuna adierazi nahi diela terrorismoaren biktimei eta erabat gaitzesten dituela eskubide oinarritzkoenak urratzen dituzten jardunbide horiek.

Atal honetan egiten den balorazioak, hortaz, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen jarduerak eta jarduera horietan izan litekeen eskubide-urratzea izango ditu hizpide.

Atala Konstituzioaren testuaren lehenengo goiburuan bildutako eskubideen azterketan oinarrituz egituratzen da, Euskal Herriko Autonomia Estatutuko 9. artikuluan ezarritakoarekin lotuta, horien defentsa esleitzen baitzaio Ararteko erakundea araupetzen duen Legearen 1.1. artikuluan.

Atal honetan egindako balorazioaz gain, txosten honen I. kapituluko alorretako bakoitzean administrazioaren jardueraren esparru desberdinak eta herritarren eskubideekin duten lotura xehatuta aztertzen dira.

Txosten honen II. kapituluaren ere, lehentasunezko taldeei dagozkien alorretan, zenbait balorazio egiten dira talderik ahulenen eskubideen egoeraz.

Aurkeztutako kezarik gehienak gizarte eskubide deritzanen ondorioz jarri dira, baita Espainiako Konstituzioaren 103.2 artikulua urratze posibleen ondorioz ere –artikulu horretan administrazio publikoeraginkortasunaren printzipioari adituz eta legearen eta zuzenbidearen erabat mende, interes orokorreko objektibotasunez zerbitzatuz jokatzeko ezartzen zaie–.

Beste kasu batzuetan ere adierazi dugu herritarrek administrazio ona izateko eskubidea dutela, eta, hori, gai publikoetan parte hartzeko oinarrizko eskubidearekin lotuta dagoela; hori guztia administrazio publikoaren jardunbidea arautzen duen legerian jasota dago. Herritarrek 2009an aurkeztu zituzten kexetako askok oro har administrazio ona izateko eskubidea izendatu duguna osatzen duten alderdien ingurukoak izan dira. Administrazio publikoek sarriagotan entzun behar lituzkete herritarrek, hobetu egin behar lituzkete informazio bideak, eta, batez ere, parte hartzeko benetako bide eraginkorrak ahalbideratu behar lituzkete.

Badira oinarrizko eskubide eta askatasun publiko deritzen eskubideetakoren bat ustez bete ez dela dioten kexak ere.

Ararteko erakundeak uste du Euskal Autonomia Erkidegoan eskubideak babesteko egoera baloratzeko funtsezko erreferentzia dela Konstituzioaren 10. artikulua. Agindu hori I. titulua atartea da. Bertan jasota arautzen da gizon-emakumeen oinarrizko eskubide eta betebeharren sistema. Artikulu horrek hauxe dio lehenengo atalean: *“Ordena politikoaren eta gizarte bakearen oinarri dira gizabanakoaren duintasuna, hari datxezkion eskubide bortxaezinak, nortasunaren garapen askea, eta legeei eta gainerako eskubideei zor zaien begirunea”*. Hortaz, gizabanakoaren duintasuna da oinarrizko zutabea, hau da, gizabanakoaren autodeterminazio eta askatasunarekiko errespetua, eta norberaren bizitza egiteko eta garatzeko eskubidea, norberaren ezaugarrien eta borondatearen arabera, elkarrenganako errespetu osoz. Eta horren gainean eusten dira oinarrizko eskubide guztiak. Gainera, eskubideen sistema osoan islatu beharko dira lehenengo artikuluan jasotako ordenamendu juridiko-konstituzionalaren balio nagusiak, hau da, askatasuna, justizia, berdintasuna eta pluraltasun politikoa. Ararteko erakundearen jardura guztien helburua pertsonen duintasuna eta balio demokratikoak errotik zaintzea da.

1. BERDINTASUN PRINTZIOA

Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua

“Legearen aurrean berdina dira espainiarrak, eta jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, iritzia edo beste edozein egoera edo gorabehera pertsonal edo sozialarekin lotutako bereizkeria ezin da nagusi izan.”

Espainiako Konstituzioaren 9.2. artikulua

“Botere publikoei baldintzak bultzatzea dagozkie askatasun eta pertsona baten eta denena batera osotzen dutenena benetako eta eragileak izan daitezen; baita galarazi edo osotasuna zailtzen dituzten oztopoak eragitea hiritargoen parte hartzea erraztea bai politika mailan, bai ekonomia, kultura eta gizarte mailan ere.”

Ararteko erakundeak beti uste izan du berdintasunaren eta gizakiaren duintasuna errespetatzearen balioen alde egiteko, arreta berezia eman behar zaiola eskubideak urratzeko arriskurik handiena duten pertsonen egoerari: atzerritarrak, adinekoak, adingabeak, ezgaitasun fisiko edo psikikoren bat duten pertsonak, gaixo kronikoak, gizarte bazterkeriako egoera larrian dauden pertsonak...

Euskal herritar askok bete beharreko helburua izaten jarraitzen du egiazko berdintasunak, eta helburu hori lortu nahi bada, kendu egin behar dira pertsona eta talde guztien benetako berdintasun eraginkorra galarazten duten oztopoak.

Kexa askok, zuzenean edo zeharka, berdintasun printzipioaren balizko urratzearekin dute zerikusia.

Erakunde honek bere esku-hartzeetan ahaleginak egin ditu Konstituzioaren testuan mugatutako zioetako edozeinengatik baztertzailak diren botere publikoen jarduerak gerta ez daitezen.

Zehaztu behar dugu sarritan berdintasun printzipioa urratzea beste eskubideetako edozeinek lotu behar dela eta, horregatik, kasu horiez egiten den azterketan, batzuetan, printzipio hori ere hizpide izaten da.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez, gogorarazi behar da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legean mamitzen dela Konstituzioak botere publikoei benetakoa eta eraginkorra den berdintasun bat lortzeko ematen dien agindua.

Genero arrazoiak direla eta egiten den bereizkeriarik larriena, indarkeria sexistaren fenomeno kezagarria da eta emakumeen duintasun, askatasun eta osotasun fisikoaren aurkako eraso onartezina da.

Erakunde honek beti adierazi du botere publikoek tratatu txarrak jasandako emakumeen beharrei erantzutean, diziplina ezberdinak uztartu behar dituela, besteak beste, jarduera

judizialak, laguntza juridikoa, gizarte eta abegi zerbitzuen funtzionamendua eta etxebizitza bat izateko aukera lotuz.

Ildo horretan, nabarmendu behar da Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza sortu berriak genero indarkeriaren kontzeptua zabaltzeko asmo duela, bikoteki-dearengandik, bikotekide ohiarengandik edo antzeko harreman bateko kidearengandik datorren indarkeria gaindituta, bai eta etxearen esparrua gaindituta ere emakumeen aurkako indarkeria egiten den gune gisa. Definizio horren bidez, nebak berak eraso zion emakume batek jakinarazi zuen egoera eta antzekoak saihestu ahalko dira; hain zuzen, horrek etxetik alde egitera behartu zuen, baina, ordea, tratu txarrak nozitzen dituzten emakumeentzako etxebizitza batean sartzea ukatu zioten, legez ezarritako kasu batean ez zegoela ulertu zuten eta.

Arauen babesa bikotekidea edo bikotekidea izandakoa ez beste norbaiten tratu txarrak –baina etxe ingurunean, hala ere– nozitzen dituzten emakumeengana zabaldua, aipatutako kasuaren moduko kasu bidegabeak gertatzea saihestuko litzateke; izan ere, tratu txarrak egoteak sortzen du etxebizitza baten larrialdiko eta berariazko beharra.

Sexuagatiko bereizkeriaren beste adierazpen bat emakumeak jai ospakizun jakin batzuetatik kanpo uztea izan daiteke, horretarako ekimen pribatutik antolatutako emanaldiak izateari eta errotutako tradizioak izateari helduz. Ezin da pribatutasunaren estalkiarekin estali benetan udalerrri bateko ospakizun nagusia den hori. Aurten aipagarria da, berriz ere, emakumeek Laudioko San Roke kofradiako bazkari batean izandako bereizkeria; bazkari hori Arabako herri horretako jaietan egiten da (gai hori 2008an ere aipatu genuen).

Laudioko alkateak aditzera eman du berdintasun printzipioak eskatzen duena betetzeko asmoa duela, eta adierazi du ez dela joango haren ekitaldi batera ere, eta, era berean, udalak ez duela laguntza materialik emango haietarako.

Larrazubi administrazio batzarrean (Lantaron udalerrria, Araba) debekaturik zegoen emakumeak sar zitezen jabetza publikoko txoko batean. Batzarrak Arartekoaren gomendioa onartu zuen, salatu zen berdintasun printzipioaren urraketa hori zuzentzeko.

Osakidetzaren hautaprobetan haurdun zeuden izangaiantzako eta bularreko umeentzako neurriak hartu ziren, alegia, bularra emateko kabina bat atondu zen, eta azterketa egiten zen lekutik hurbil talde medikoa eta ospitale estaldura prest eduki zituzten, gerta zitekeen edozer gorabeheratarako.

Neurri horiek oso era positiboan balioesten dira, baina, hala ere, ez da kontuan hartzen probara joateko ezintasuna, proba hori eta erditzea –edo aurreko edo ondorengo unek– batera gertatzen direnean. Halakoetarako, gomendatu da azterketa deialdi bakar batean egiteko ezarritako baldintzak aldatu ahal izatea era horretako arrazoiak daudenean, behar bezala justifikatuta eta babes juridikoaren beharrean egonik.

Atzerritarrak eta gutxiengo kulturalak eskubideetan urradura gehien jaso ditzaketen taldeak dira, batez ere administrazio-egoera irregularran daudenean.

Atzerritarren eskubideei doazkien bi lege onartu dira 2009. urtean: 2/2009 Lege organikoa, abenduaren 11koa, Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei buruzko 4/2000 Legea aldatzekoa, batetik, eta 12/2009 Lege Organikoa, urriaren 30ekoa, asilo eskubidea arautzen duena. Arau horiek eta beraiek garatzeko arautegiek eragin handia izango dute atzerritarren eskubideetan; zehazki, aldaketak dakartzate EAEko administrazio publikoaren zereginetara, atzerritarren dokumentazio prozesuen aldetik zein bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako laguntzaren aldetik.

Nabarmendu behar da zer zailtasun aurkitu ohi dituzten Europar Batasunetik kanpoko pertsona batzuek egoitza eta lan baimenak eskuratzeko garaian.

Era positiboan aipatu behar da 2009. urtean Ararteko erakundeak ez duela berririk izan EAEko inongo udalerritan egoera irregularrean zegoen atzerritar bati ere erroldan inskribatzea ukatu zaionik.

Kexak aurkeztu dira jatorrizko herrialdean baliabide ekonomikorik ez izatea frogatzeko eskatu delako atzerritarrak Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren onuradun izan ahal izateko. Eskasia handiko egoeran dauden pertsonak prestazioa lor dezaten zail dezake eskakizun horrek.

Bazterkeriaren aurkako borrokari dagokionez, bazterkeriazko egoerak ez gertatzeko kontrol mekanismoak ezarri behar dira.

Bestalde, gomendio orokor bat egin da zerbitzu publikoak hizkuntzaren aldetik erabilgarriak izateko beharraz, etorkinek beren eskubideak osoki erabili ahal izan ditzaten.

Horrez gain, hilerrietako zerbitzu publikoak erlijio sinesmen guztiei egokitzeko gomendioa egin da, bereziki musulmanei dagokienez.

Azkenik, aditzera eman behar da kexa batzuk poliziak atzerritarrekin aurrera eramandako esku-hartzeei buruzkoak direla, esku-hartzeak diren direlako pertsonak atzerritarrak izatea gertatzen direla baitiote.

Ijito herriko pertsonak oso estigmatizatutako taldea izan da tradizionalki, eta gizarte zerbitzu eta aukeretara gutxiago iritsi dira.

Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako EAEko II. Plana onartu zen 2009ko otsailaren 24an.

Neurri horiek positiboak izan arren gizarte talde horrek gizarte bazterketa nozitzeko arrisku handiena duten taldeetako bat da. Horri dagokionez, gogorazi behar da ijito familia

batzuek zer zailtasun izan dituzten EAEko udalerrri batzuetan erroldatzeko, herri horietan egiaz bizi arren. Etsaitasuneko eta arbuioko jarrera onartezina da hori.

Ijitoek, halaber, etxebizitza izateko zailtasunari loturiko arazoak dituzte, auzokideak aurka agertzen direlako edo jabe batzuek etxebizitarik alokatu nahi ez dietelako.

Bestalde, jendea jakinaren gainean jarri behar da, eta sentiberatu, ijitoek beren eskubideak berdintasunean erabiltzeko dituzten zailtasunei buruz.

Bestalde, **ezgaitasunen bat duten pertsonak** zailtasun larriak izaten dituzte gainerako biztanleekiko benetako berdintasuna lortzeko laneratzeari nahiz eguneroko bizitzari dago-kienez. Izan ere, askotan ezinezkoa izaten da garraio bideetara iristea edo hiri- eta arkitek-tura-oztopoak gainditzea.

Azken urteotan legerian aurrerapauso erraldoiak egin diren arren, homofobiak eta hetero-sexismo baztertzailak, estigmatizazio eta bereizkeriaz gain, gizarte bazterkeria izugarria ere ekarri dute **pertsona homosexual, gay eta lesbianen aurka, bai eta identitate tran-sexual eta transgenerikoen aurka ere**.

Osakidetzari buruzko keak egin dira 2009. urtean, sexu berresleipeneko ebakuntza kirur-gikoa oraindik ez eskaintzeagatik eta EAETik kanpo eginiko ebakuntza kirurgikoetarako la-guntzak kentzeko aukeragatik.

Egiaztatu da, alabaina, sexua berresleitzeko ebakuntza kirurgiko bat egin dela dagoeneko Gurutzetako Ospitalean.

Beste alde batetik, kiroldegi publikoek aldageletan banakako duxtak eta aldalekuak izan ditzatela gomendatu da, transexualek aurre egin behar izaten dioten egoera saihesteko.

Administrazio jardunen arloan, osasunean, hezkuntzan, justizian, agiri eta inprimaki ere-duetan gurasoak heterosexualak direlako ustea islatzen da, homosexualen bikoteentzako eredurik aukeran izan gabe.

Homofobia egoerak ere salatu dira, hala nola homosexuala zela jendaurrean zabaldu eta berehala lanetik bota zuten gazte batena.

Bizkaiko herri bateko erregistro zibilean ezkontzea erabaki zuten bi emakumek aurkitu zuten, ustekabez, ezkontzaren inskripzioa egin zuen langileak ezkongaietako bat gizontzat jaso zuela. Errakuntza horren zuzenketa orri bazterreko ohar huts bat izan zen, haietako baten sexuaren inguruan, "gizona" ageri den tokian "emakumea" agertu behar zuela azalduta, alegia. Sexu bereko pertsonen arteko ezkontza berritasun bat da, gure gizarte ingurunean normaltasunez ikusia izatetik oraindik urrun dagoena.

2. OINARRIZKO ESKUBIDEAK ETA ASKATASUN PUBLIKOAK

2.1. BIZITZEKO ETA OSOTASUN FISIKO ETA MORALERAKO ESKUBIDEA

Espainiako Konstituzioaren 15. artikulua

“Guztiak dute bizitzeko eta osotasun fisikorako eskubidea, sekula ere torturarik eta zigor edo tratu krudel edo iraingarririk jaso gabe. Indarrik gabe geratzen da heriotza-zigorra, gerra garaian lege penal militarrek erabaki dezaketena alde batera utzita.”

Bizitzeko eta osotasun fisikorako eskubidearen babesa Ararteko erakundearen lehentasunezko arduratako bat da.

Erakunde honek beti salatu izan du Euskadin indarkeria zital eta ankerraz jardun duten edo oraindik diharduten talde terrorista guztiek eskubide horiek urratzen dituztela.

Zoritxarrez, 2009. urtean ETAk Eduardo Antonio Puelles García, Carlos Sáez de Tejada García eta Diego Salva Lezaun hil ditu.

Benetako elkartasuna adierazi behar zaie haien familiartekoei eta lagunei, eta erabateko gaitzespena halako ekintza terroristei.

Gainera, herritar asko bizia edo osotasun fisikoa galtzeko mehatxu terroristapean bizi dira, eta beren askatasuna mugatuta dute. Herritar asko estortsio ekonomikoaren mende dauke oraindik ere eta beren askatasun eta ondasunen kontrako ekintza terroristak jasaten dituzte.

Botere publikoek jazarpen indarkeria deitutakoa jasaten duten pertsonen erantzun egokia eman behar diete. Ildo horretan, ezagutza eta elkartasuneko neurri publikoez gain, beharrezkoa denean, laguntza psikologikoa edo jasaten duten jazarpen egoeraren ondorioz etxebizitzari edo lanari loturik dituzten arazoetarako laguntza eman behar zaie.

Emakumeen kontrako indarkeriak bizitzeko eskubidearen eta osotasun pertsonalerako eskubidearen aurkako urradura larrienetako bat izaten jarraitzen du eta erakunde bermatzaile hau ezin gera daiteke axolagabekeria.

Genero indarkeria erabat kentzea pertsona guztien arteko egiazko berdintasuna lortzen denean bakarrik posible izango den arren, botere publikoek tratu txarrak jasaten dituzten emakumeen erantzun egokia eman behar diete.

2009an bi emakume hil dituzte EAEn, bata bere bikotekideak, Gernikan, eta bestea bere bikotekide ohiak, Irunen. Matxismo adierazpen onartezin horrek, genero indarkeriaren biktimak diren emakumeen zoritxarreko heriotzak ez ezik (matxismoaren adierazpenik larriena), emakumeenganako indarkeriazko erasoak ere eragin ditu.

Arartekoa kezkatzen duen beste gai bat da polizia instalazioetan ustez emandako tortura eta tratu txarrei loturiko salaketena. 2004ko abenduaren 21ean agertutako adierazpenean, Arartekoak arlo horretan modu eraginkorragoan jokatzeko hartu beharreko neurriak azaldu zituen. Beste proposamen batzuen artean, azpimarratu genuen poliziaren jarduna etengabe ikuskatzeko prebentzio-lan sakona egin behar dela. Helburua polizi kidegoek torturarik edo tratu txarrik ez ematea da eta, horrelakorik jazotzen den kasuan, bidegabeko jarduera horiek ezagutu eta zigortzea posible izatea.

Jakina denez, tortura ekiditeko neurrien artean, Ararteko erakundeak haxe gomendatu zion Herrizaingo Sailari 1999an: ziegen eremuko korridoreetan kamerak jarri eta haien bidez egindako grabaketetan oinarritutako kontrol-sistema ipin zezala, atxilotuen eskubideak bermatzeko neurri gisa.

2006. urtean Herrizaingo Sailak Krimen Gaietarako Ertzaintzaren Dibisioaren menpeko atxiloteta-zentroetan bideo-grabaketen sistema ezarri zuenetik, eta deklarazioak hartzen diren lekuetan ere jarri zuenetik, erakunde honek ertzain-etxeetara hainbat ikustaldi egin ditu horien funtzionamendua ikuskatzeko.

Ertzain-etxeetara egindako bisitaldi horietako batzuetan, bideo grabazio sistemak instalatuta daudela ikusi dugu. Hala ere, aditzera eman behar da oraindik ez direla bete erakunde honek eskubideak bermatzeko asmoz proposatu zituen neurrietako batzuk, grabazioei dagokienez.

Bi ertzain etxeek bideograbazio sistema dute, antzeko ezaugarriak dituzten Ertzaintzaren beste atxiloteta zentro batzuetan jarri duten modelo bera, funtsean.

Zehaztasun batzuk egin ziren 2006ko urteko txostenean, grabazioen arduradun bat egoteko eskakizunaz, grabatutakoa sistematikoki berrikusteaz, grabatutakoa gordetzeko epeaz, eta grabazioen erregistro bat sortzeaz, eta txosten horretara jo behar dugu berriro.

Galdakaoko Udaltzaingoaren instalazioetara eginiko bisita batean, bideograbazio sistema bat instalatu zutela ikusi zen. Aurreko beste urte batzuetan egiaztatu zen neurri hori bera hartu zutela beste udalerrri batzuetan, hala nola Erreterian edo Donostian.

Pozik gaude halako prebentzio-neurriak udaletan ere ezarri direlako, baina Ertzaintzari proposatu dizkiogun berme-neurriak hartu beharko dituztela uste dugu. Funtsean, neurriok dira:

- Grabazioen arduradunak pertsona independenteak izatea, atxilotetak eta atxiloturiko pertsonen zaintza egiten duten unitateetatik.
- Grabaturiko materialaren kontserbazioa bermatzea, gutxienez balizko administrazio edo zigortzeko erantzukizunen preskripzioaren gehieneko mugaraino.
- Egindako grabazioak egiaztatzen dituen erregistroa edukitzea.

2.2. ASKATASUNERAKO ETA SEGURTASUNERAKO ESKUBIDEA. ATXILOTUEN ESKUBIDEAK

Espainiako Konstituzioaren 17. artikulua

“1. Pertsona guztiek dute askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea. Inori ezin zaio askatasuna kendu, artikulua honetan eta legeak aurreikusitako kasuetan ezartzen denari jarraituz ez bada.

2. Atxiloketa prebentiboak ezin du ekintzak argitzeko behar den denbora baino gehiago iraun, eta edozelan ere, sekula ez du iraungo 72 ordu baino gehiago; epe hori igarotakoan, atxilotua agintaritzaren eskuetan uzteko askatuko da

3. Atxilotu guztiei jakinarazi behar zaizkie, berehala eta modu ulerkorrean, beren eskubideak eta beren atxiloketaren arrazoiak, eta ezin dira aitortzera behartuak izan. Atxilotuari abokatuaren laguntza bermatu behar zaio dilijentzia polizial eta judizialak, legeak ezartzen duen bezala.

4. ‘Habeas corpus’ prozedura arautuko du legeak, legez kontra atxilotutako pertsona guztiak epailearen eskuetan berehala uzteko.”

Azken urteotan, hainbat kexatan salatu da poliziak tratu desegokia eman duela edo indarra neurritz gain erabili duela poliziaren bulegoetatik kanpo burututako jarduera batzuetan. Kexa horietan, salatzaileek aditzera eman zuten, oro har, laguntza medikoa jaso behar izan zutela nozitu zituzten lesioen ondorioz. Nahiz eta kasu guztietan salatutako gertaerak zigor arloko jurisdikziora eraman ziren eta, horrenbestez, erakundeak iritzirik eman ezin izan duen, esku hartu da, ordea, indarra erabiltzeko gomendioak nola bete izan diren egiaztatzearen.

Horrelako kasuak tratatzean, Arartekoak behin eta berriz azpimarratu du indarra erabili behar den polizia-jardueretan, zertzelada hori dagokion erregistroan jaso behar dela. Horri esker, posible izango da esku-hartzea indarreko araudiarekin bat datorrela eta erabilitako indarraren neurria kontrolatzea. Atxiloketetan indarraren erabilera azken baliabide gisa hartu behar da eta egokitzapen eta proportzionaltasun printzipioa errespetatuz. Arartekoak berriro azpimarratu behar du polizia jarduerak *Bilboko San Frantzisko zonan atzerritarrekiko burututako jarduera polizialei buruzko txostena* delakoan jasotako gomendioei egokitu behar zaizkiela.

Era berean, errepikatzen den egoera bat salatu izan da, alegia, zigor arloko jurisdikzioak hasieratik faltatzen diren lege urraketa penalak direla kausa atxilotzea, baldin agenteek halako faltatzen ikusi izan balituzte, atxiloketarik eragingo ez zuten kasuetan.

Informazio eta Azterketa Unitateak eginiko atxiloketei dagokienez, jakin denez, bost atxiloketa egin ditu, –epaileen bilaketa-aginduengatik eginikoak albo batera utzita–, eta bost atxiloketa horiek inkomunikatuak izan dira. Gainera, horietako bi luzatu egin dira.

Atxiloketa inkomunikatuaren gainean azterlan bat argitaratu da berrikitan, Arartekoaren ikerketa beka baten emaitza dena, eta atxiloketa mota horri buruz erakunde honek berriro aditzera eman behar du bere iritzia, 2004ko abenduaren 21eko adierazpenean, esate baterako, azaldua: “Arartekoak bere egin du legea aldatzeko eskaera hori [*Amnistia Internazionalena*], atxilotuaren eskubideen murrizketak kentzeko –gaur egungo AKLren 527. artikulua ezarriak– eta, era berean, atxiloketa-aldia luzatzeko aukera kentzeko –AKLren 520. bis artikuluan terrorismo-delituak leporatzen zaizkien pertsonentzako ezarria–. Dena den, arau horiek indarrean jarraitzen duten bitartean, erakunde honek zera gogorarazi behar die legea ezartzen duten agintari eta funtzionarioei: bi irudiok –isolatzea eta atxiloketa-aldia luzatzea–, atxiloketaren erregimen orokorrean aitortutako eskubideak murrizten dituzten salbuespenak direnez, kasu bakoitzean egiaztatutako zertzeladengatik behar-beharrezkoak direnean bakarrik daudela justifikatuta. Orain, ordea, salbuespenezko neurriok sistematikoki ezartzen dira terrorismoarekin zerikusia duten ia atxiloketa guztietan eta, larriagoa dena, legeak kasu guztietan ezartzen duen kontrol judiziala ‘*formal eta administratiboa da gehienbat, ez da aztertzen gaiaren mamia, ezta haren justifikazioa ere*’ –NBEko Errelatorearen hitzetan–. Eta egoera horixe da onartezina. Azken batean, legealdaketa burutzen ez den bitartean, legeria giza eskubideak babesten dituzten erakunde gomendioetara egokitu dadin, agerian jarri behar da legea ezartzeko orduan hainbat hobekuntza egin daitezkeela berehala, soil-soilik legearen xedea betez, izan ere, legeak salbuespenezko neurritzat jotzen ditu eta, beraz, kasu zehatz bakoitzean justifikatu beharrezkotzat, atxiloketa-aldiko eskubide-murrizteak”.

Baieztapen horiek egun-egungoak dira oraindik ere, eta, horrenbestez, Arartekoak berriro egin behar du inkomunikazio erregimena kentzeko edo, bestela, ez aplikatzeko eskaera. Hain zuzen ere, eskaera bera bere egin zuen Eusko Legebiltzarrak ez-legezko proposamen banatan 2006 abenduan eta 2007ko urtarrilean.

Beste gai bati helduta, esan behar dugu atxilotuen liburuak (bakarra da EAE osorako) ez duela ahalbidetzen kontsulta bakar batean jakitea zer atxilotu kopuru dagoen zentro bakoitzean. Hori zuzendu egin beharko litzateke.

Bukatzeko, aditzera eman behar da eskubideez informatzeko aktek, atxilotzeko unean, egitateen berri eman behar dutela, Prozedura Kriminalaren Legeko 520. artikuluari jarraituz, hori ez baita beti hala betetzen.

2.3. INTIMITATERAKO ESKUBIDEA ETA NORBERAREN DATUAK BABESTEKO ESKUBIDEA

Espainiako Konstituzioaren 18.1 artikulua

“Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta nor bere irudia izateko eskubidea bermatzen da.”

Espainiako Konstituzioaren 18.4 art.

“Legeak informatikaren erabilera mugatuko du herritarren ohorea eta norberaren eta familiaren intimitatea eta beren eskubideez erabat baliatzeko aukera bermatzeko.”

Intimitaterako eskubidea ustez urratzearen aurkako keak egin dira.

Udaltzaingo baten polizia etxera eginiko bisita batean, ikusi zen osasun zerbitzuak hartzen zituen gunea erabat irekia zela eta guztiz begien bistan zegoela ziegen korridoretik. Espazio horren egungo antolaketak ez du intimitatea bermatzen, eta, horrenbestez, atzera ere eskubide hori babesteko beharra gogorarazi behar dugu, aldi berean atxilotuen zaintza egiteko moduan.

Intimitaterako eskubidearen inguruan azpimarratu nahi dugun ikuspegi berria sortu da. Hala, epaileen adierazpen batzuetan, norberaren etxean kanpotiko zaratak sortzen dituen eragozpenek intimitaterako eta etxearen bortxaezintasunerako eskubidea, besteak beste, urratzen dituztela baieztatu izan da.

Herritarrek gero eta ozenago eskatzen dute administrazioek erabiltzen dituzten **datu pertsonalen babeserako eta intimitaterako** eskubidea bermatu dadila. Zentzuzkoa da datuak isilpean eduki daitezela eskatzea, asko eta asko direlako datu pertsonalak dituzten fitxategiak. Berdin da tresna informatikoekin lantzen diren datuak edo babes bereziko datuen multzoan sailkatutakoak izan nahiz ez.

Administrazio publikoek, berezko informazio sistemarekiko konfidentziasuna bermatzeko neurri zuzenak ezarri behar izateaz gain, datuak tratatzeko zerbitzuak hirugarren batzuek emateko aukera hausnartu egin behar dute.

Aurten 2005. urtean ere agertu zen arazo bat sortu da berriro ere, alegia, aldizkari ofizial batean argitaratuta, zirkulazio isun baten ediktu bidezko jakinarazpeneko datu pertsonalek Interneten irautea jakinarazpen horrek bere helburua bete eta gero ere.

Azkenik, EAEko administrazioen ohiko praktika bat nabarmendu behar da; hain zuzen ere, tratu txarrak daudela egiaztatzen duen epaia aurkezteko eskatzen dute, emakumeek prestazio eta laguntza publikoen onuradun izan ahal izateko. Eskakizun horrek pertsonen intimitaterako eskubidea kalte dezake, ebazpen judizial horietan zeharo pertsonalak diren gorabeherak jaso ohi direlako.

2.4. FUNTZIO PUBLIKOAN SARTZEKO BERDINTASUNAREN PRINTZIOA

Espainiako Konstituzioaren 23.2 artikulua

“Halaber, funtzio eta kargu publikoak berdintasunez lortzeko eskubidea dute, legeak ezarritako baldintzen arabera.”

Erakunde hau euskal administrazio publikoek berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioei zor dioten errespetua bermatzen saiatzen da. Horiek, Konstituzioaren agindu espre-sagatik, enplegu publikora iristean agertu behar dira.

Hala, bada, Bizkaiko herri txiki bateko enplegu publikoko langile bihurtzeko eskakizun bat zen udalerrian jaioa izatea, eta esperientzia balioztatzerakoan, deialdia egiten zuen uda-lean bertan emandako zerbitzuak baino ez ziren kontuan hartzen. Horrez gaina, ez zitzaion arauzko publikitate eman deialdiari. Agerikoa da enplegu publikoa lortzeko Konstituzioak ezartzen dituen publikitate eta berdintasun printzipioak hautsi zirela.

Zenbait deialditan, arazoak sortu dira informatikazko ezaguerak frogatzeko agiriak, Europar Batasuneko hizkuntzen ezaguera frogatzekoak edo euskararen ezagutzaren tratamendua zirela eta.

Halaber, kexak aurkeztu dira postu jakin batzuk lortzeko adin muga jakin bat betekizun gisa ezarri izanagatik. Horri buruz, Konstituzio Auzitegiak esan du gehieneko adin muga bat ezartzeak ez duela hausten berdintasun printzipioa, baldin muga hori dena delako lanpos-tuaren ezaugarriei badagokie.

2.5. BABES JUDIZIAL ERAGINKORRERAKO ESKUBIDEA. ERRUGABETASUN USTEAREN PRINTZIOA

Espainiako Konstituzioaren 24. artikulua

“1. Pertsona guztiak dute epaileen eta auzitegien babes eraginkorra jasotzeko es-kubidea, beren zilegizko eskubideak eta interesak erabiltzeko, babesik eza sekula ere gertatu barik.”

“2. Legeak aurretik ezarritako ohiko epailea izateko eskubidea dute pertsona guztiak, baita legelariaren babesa eta laguntza izateko, euren kontrako akusazioa jakiteko, atze-rapen bidegaberik gabeko eta berme guztiak dituen prozesu publiko bat izateko, babe-serako egokiak diren frogak erabiltzeko, norik bere buruaren kontra ez aitortzeko, erru-duntasunik ez aitortzeko eta errugabetasun-presuntzioa erabiltzeko eskubidea ere.”

Senidetasuna edo sekretu profesionala dela aitortzeko beharra ez dagoenean eraba-kitzeko arauak jarriko ditu legeak.”

Kexatzeko arrazoi nagusiak izan dira prozesu judizialak gehiegi luzatzea, justizia adminis-trazioko langileek emandako tratua, edo funtzionamenduan gertaturiko errakuntzak edo arduragabekeriak.

Jurisdikzio zibilaren arloan, beste urte batean berriro, erreklamazio gehienak ezkontzak haustearen ondoriozko arazoek gainera ziren. Erreklamazio horietako batzuetan kexa zen auzitegiek erreakzionatzen berandutzen zutela gurasoetako batek –egitezko bidez– seme-alabei beste gurasoarekin komunikazioa izatea eragozten zirenean. Kasuetako batzuetan, epaia ez da betearazten harik eta hilabete batzuk igarotzen diren arte.

Zigor arloko jurisdikzioan, erreklamazioetako batzuen arrazoia errakuntza materialak dira, batez ere atzerapenak eta identifikazioko errakuntzak instrukzioan zehar. Hainbat eginbide egite aldera, auzitegiatar joateko egiten diren zitazioen prozedura hobetu egin behar da.

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari dagokionez, kexa batzuk jaso dira zenbait pertsonen, epaileak erreklamazio bat ez onartu eta gero, justizia auzitegi nagusiaren aurrean apelazioa egin, eta –han ere erreklamazioa gaitzesten zuen epaia jaso ondoren– bigarren epaiketaren kostuak ezarri zizkiotelako, oso kostu handiak izanda horiek. Kexa horien ondorioz, gomendio orokor bat egin da, esku hartzen duten eragile juridiko guztiek, alde aurretik, arrazionaltasun irizpideak ezartzeko proposaturik.

Doako justiziar dagokionez, onura hori gauzatzeko ardua duten instantzien eta onura hori eskatzen duen pertsonaren arteko komunikazio prozesua hobetu behar da.

Nabarmendu beharreko beste alderdi bat da interprete sare bat ezarri behar dela EAEko hizkuntza ofizialetan ez dakiten etorkinentzat, administrazio publikoetan, oro har, baina bereziki justizia administrazioaren eremuan, itzulpen eta interpretazio zerbitzuak berme juridiko osoz aurrera eraman daitezten.

Zirkulazioko zehapen araubideari dagokionez, kezkarria da formula orokorrak edo salaketa orrian aurretik inprimatutako formulak erabiltzea, defentsarako eskubidearekin horrek duen loturagatik. Jardunbide hori bereziki desegokia da salaketa horietan ageri diren araubiteei buruz bestelako frogarik ezin bil daitekeenean, salatzaileren eta salatuaren aurrez aurreko bertsioak izan ezik; izan ere, salaturiko egitatei legez erantzen zaien egiazkotasun ustea dela medio, froga ukaezin bihurtzen da salaketa hori.

Era berean, atzera ere azpimarratu behar da ediktu bidezko jakinarazpena aparteko irtenbidea dela, eta hartaz baliatzeko ezinbestekoa dela administrazioak jakinarazpen pertsonalak bermatzeko bideak agortu izana.

Azkenik, **babestutako etxebizitzak eskuratzeko prozedurari** dagokionez, azken urteotan nabarmentzen ari gara BOE eskatzaileei babesgabatasun arazoak sortzen zaizkiela, Etxebizitza eta Gizarteko Gaietako Sailak herritarrekin dituen harremanetan erabiltzen dituen jakinarazpen eta komunikazio moduengatik.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren jarduteko modu hori zela-eta, gomendio orokorra egin genuen 2008an; bertan, berretsi genuen Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkidegoari buruzko 30/1992 Legea egokitu behar dela Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroaren ebazpenen izapidetzea eta jakinarazpena. Gure iritziz,

aldatu egin behar da Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroko inskripzioen baxako eta aldaketako ebazpenak egiteko prozedura, eta, bertan, interesatuaren entzunaldi izapidetzea eta ebazpenen jakinarazpen pertsonala jaso behar dira; jakinarazpenok, berriz, horiek jaso izana egiaztatzeko aukera ematen duen edozein bide erabiliz egingo dira. Horretarako, erregistroko oharrei buruzko ebazpenak iragarki taulan jakinarazten direnean (Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroa arautu duen 2008ko apirilaren 16ko Aginduko 5.2 artikuluan ezarritako jakinarazpena), jakinarazpen pertsonala ere egin beharko da, eta espedientean egiaztatuta gelditu beharko da beti hori. Tamalez, lehengo Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak ez zuen gomendio hori onartu.

Gai berari buruzko kexa espedienteak egin dira 2009. urtean, baina oraingo Etxebizitza Herri Lan eta Garraio Sailak ere ez du asmorik agertu Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroko eskaeren baxak izapidetzeko prozedura berraztertzeko. Hori dela eta, berretsi egin behar dugu ebazpen horiek azaldutako irizpideei egokitzeko eskaera.

2.6. ASKATASUNIK EZ DUTEN PERTSONEN ESKUBIDEAK

Espainiako Konstituzioaren 25.2 artikulua

“Askatasuna kentzen dituzten penak eta segurtasun neurriak berreziketa eta birgizarteratzea lortzeko izango dira eta ezin izango dira nahitaezko lanak izan. Presondegiko pena duen kondenatuak Kapitulu honetako oinarrizko eskubideak izango ditu, kondenak apropos ezarritakoak, penaren zentzuak edota presondegietako legeak mugatzen ez badituzte behintzat. Edozein modutan, ordaindutako lana izateko eta gizarte-segurantzaren onura guztiak izateko eskubidea izango du, baita kulturaz gozatzeko eta nortasuna guztiz garatzeko eskubidea ere.”

Konstituzio aginduak ezartzen duenez, askatasunaz gabetzeko zigorren helburua berriro gizarteratzea da. Horregatik, presoak errehabilitatzea izan behar du ahalegin guztien helburua.

Espetxetik ateratzen direnek laguntza ekonomiko bat jasotzeko eskubidea dute, baina kontratzeko INEMera jo behar dute, eta bi hilabete inguru itxaron. Bi hilabete horietan, dena delako pertsonak bere kabuz konpondu behar ditu bere beharrak. Komeniko litzateke autonomia erkidegoko administrazioak diru hori aurreratzea espetxetik ateratzen den egunean bertan, orduan baita beharrezkoena.

EAEko administrazio publikoek ahal den guztia egin behar dute, legearen esparruaren barruan, kudeatzeko zerbitzuen sare normalizatua zabaltzearen espetxean diren pertsonengana. Hala, bada, premiazkoa da gaixotasun larriak edo sendaezinak dituzten askatasunik gabekoei laguntzeko zerbitzu bat behingoaz abian jartzea, espetxetik kanpo laguntzarik ez izateak espetxetik ateratzea eragozten dienen kasuetarako.

Horrez gain, aipatu behar da ez dela gauzatu Langraiz Okako espetxeari lotutako espetxe barruko komunitate terapeutiko bat sortzeko proiektua.

Kezka nagusietako bat espetxeetako laguntza psikiatrikoa da. Espetxeratuen artean, kopuru handi samar batek erasanda du buru osasuna, droga mendekotasunari loturiko zailtasunak ditu, edo buru ezgaitasunak. Hala eta guztiz ere, pertsona horiei laguntza espezializatua emateko dauden baliabideak urriak dira oraindik ere.

Azkenik, komunitatearen onurarako lanak gauzatzearen inguruan atzeman diren gabeziak nabarmendu behar ditugu, kolapsatuta daude eta. Neurri horren aplikazioa zabaltzearekin batera baliabideak ez dira neurri berean gehitu, gizarte edukiari euts diezaion. Administrazio publikoak horretaz arduratzea ezinbestekoa da, neurri hori eraginkorra izan dadin.

2.7. HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA

Espainiako Konstituzioaren 27. artikulua

"1. Pertsona guztiek dute hezkuntzarako eskubidea. Irakaskuntzaren askatasuna onartzen da.

2. Gizakiaren nortasuna guztiz garatzea izango da hezkuntzaren xedea, bizikidetzako printzipio demokratikoen eta oinarrizko eskubide eta askatasunen arabera.

3. Aginte publikoek gurasoen eskubidea bermatzen dute, seme-alabek euren uste erlijioso eta moralekin bat datorren heziketa jaso dezaten.

4. Oinarrizko hezkuntza derrigorrezkoa eta doakoa da.

5. Aginte publikoek herritar guztien hezkuntza eskubidea bermatuko dute irakaskuntzaren programazio orokorraren bitartez, interesa duten sektore guztien parte-hartzeaz eta ikastegiak sortuz.

6. Ikastegiak sortzeko askatasuna onartzen zaie pertsona fisiko eta juridikoei, printzipio konstituzionalen errespetuaren arabera.

7. Irakasleek, gurasoek, eta behar denean ikasleek ere parte hartuko dute Administrazioak diru publikoaz finantzaturako ikastegiaren kontrol eta kudeaketan, legeak esaten duenaren arabera.

8. Aginte publikoek hezkuntza-sistema ikuskatu eta homologatuko dute legeak betetzen direla bermatzeko.

9. Aginte publikoek legeak ezartzen dituen baldintzak betetzeko laguntza emango diete ikastegiei.

10. Unibertsitateen autonomia onartzen da, legeak ezarritakoaren arabera."

Hezkuntzarako eskubidea prestazio eskubide moduan konfiguratu da eta, horregatik, agian egokiago zatekeen hura gizarte eskubideen artean jorratzea. Aitzitik, hura kokatzen den konstituzio testuingurua eta aukeraturako metodoa ikusita, atal honetan aztertzen da.

lazko txostenean adierazi genuenez, martxoaren 4ko 35/2008 Dekretua argitaratu izanari esker (horrek arautzen du haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako itunpeko ikastetxe publikoetan eta ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzeko prozedura) eta 2008ko apirilaren 24koa Haurreskolak Partzuergoko Zuzendaritza Batzordearen 12/04-2008 Akordioari esker (horren bidez, Haurreskolak Partzuergoan haurrak onartzeko araudia eta irizpideak onesten dira) esan dezakegu ikasleak onartzeko prozesua irizpide komunak arabera gauzatzen ari dela. Beraz, gure gomendioa bete dela nabarmendu behar dugu.

Neurri horren egokitasuna dela eta, 2009-2010 ikasturterako ikasleak onartzerakoan –bai ikastetxe publikoetan, bai itunpeko ikastetxe pribatuetan, bai Haurreskolak partzuergoko eskoletan– irizpide komunak erabili dira.

Adingabe adoptatuak eskolaratzeak dakartzan arazoei dagokienez, egiazko adina eta heldutasuna direla medio, hezkuntzako administrazioa neurri egokiak hartzen ari da egoera horiei erantzuna emateko.

Bekak eta laguntzak emateari buruz egin diren kexek agerian uzten dute, kasu zenbaitetan, ebazpena emateko dagoen atzerapena eta, batez ere, emandako laguntzak ordaintzeko berandutzea.

Beste alde batetik, PROA programa dagoela nabarmendu behar da. Laguntza eta errefortzuko programa hori institutuetan aurrera eramaten da, DBHko ikasleen artean kopuru handi samar batek hezkuntzako desabantaila –inguruneari loturik– eta ikasteko zailtasun orokorrak dituenen. Finantza zailtasunak konpondu behar dira, programa hori eraginkorra izan dadin.

Zoritarrez, ikastetxeetan oraindik ere badira ikasleen arteko *bullying* edo jazarpen kasuak. Arazoa oso konplexua da eta, sistema judizialera desbidera daitezkeen oso kasu larriak kenduta, hezkuntza-sistemak berak eman behar dio erantzun egokia.

3. HERRITARREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

3.1. ZERGA-SISTEMA BIDEZKOA. BERDINTASUN, PROGRESIBOTASUN ETA LEGEZKOTASUN PRINTZIOIAK

Espainiako Konstituzioaren 31. artikulua

“1. Herritar guztiek lagunduko dute gastu publikoei eusten, nor bere ahalmen ekonomikoarekin bat, zergen sistema bidezko baten bitartez, berdintasun eta progresibotasun printzipioetan oinarrituta, eta sistema horrek inola ere ez du edukiko konfiskatzeko gaitasunik.

2. Gastu publikoak baliabide publikoen esleipen zuzena egingo du, eta bere programazioan eta gauzatzean eraginkortasun eta ekonomia printzipioei eutsiko die.

3. Prestazio pertsonal edo ondare-prestazio publikoak legearekin bat bakarrik ezarri ahal izango dira.”

Hiru lurralde historikoetan PFEZ arautzen duten foru arau berriek garrantziko berritasunak gehitu dituzte aurreko arauen aldean; hala ere, arauon aplikazioak arazo gutxi sortu ditu, sortu dituzten kexen kopurua aintzat hartzen badugu.

Aurkeztu diren arazoetako bat 2008. urtean ere nabarmendu zen, alegia, Bizkaian zein Gipuzkoan zerga berriek ezintasun orokor osoko pentsioei ematen dieten tratamendua; hain zuzen, ezintasun iraunkor oso eta kualifikatuaren kasuan, 55 urtetik gorakoentzat baino ez daude salbuetsita.

Erakunde honen aburuz, arau horrek legearen aurreko berdintasun printzipioa urra dezake, ez baita oinarritzen pentsioaren hartzailearen ezgaitasunean edo haren ahalmen ekonomikoan, baizik eta adinean edo Gizarte Segurantzako araubide jakin batekoa izatean.

Bizkaiko Foru Aldundiak ez du adierazpen espresik egin horren inguruan, eta Euskadiko Zerga Kideketarako Sailaren erabaki baten zain dago.

Bestalde, PFEZ Gipuzkoan arautzen duen foru araua Arartekoaren gomendioarekin bat aldatu dute, baina ez da atzeraeraginezko ondorioekin onartu; hartara, horren eragina 2010ean aurkeztu beharreko 2009. urteko PFEZ aitopenean hasiko da.

Beste alde batetik, familiaren zergapetzeak kexak sortzen ditu oraindik ere. Horrela, foru ogasunek ez dute onartzen ondorengoen ziozko kenkaria seme-alabak berekin dituen gurasoari osorik aplikatzeko eskubidea, nahiz eta froga dezakeen bikotekide ohiak ez duela ekarpenik egiten, banantzeko hitzarmen arau-emailean xedatutako baldintzetan, seme-alaba horien mantenerako.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren (OHZ) alorrean, herritar batzuek kexak aurkeztu dituzte haien etxebizitzetara ematen zaien katastro balioztapenarekin ados ez daudelako.

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari dagokionez, arazoak sortzen ditu oraindik ezgaitasunaren ziozko kenkaria aplikatzeak. Tokiko erakunde batzuei kostatu egiten zaie onartzea %33ko edo gehiagoko ezgaitasuna duten pertsonak zerga horretatik salbuestea, eta zerga arautzeko egiten dituzten ordenantzetan arauan jasorik ez dauden betekizunak ezartzen dituzte, foru arauaren erreserba printzipioa urratuta.

Prezio publikoen gaineko kexetan, udal zerbitzuen erabiltzaileek zalantzan jartzen dituzte bilketa prozedura, alden eta bajen kudeaketa, eta ordaindutako prezioa hasieran eskatutako jarduera ez den beste bat egiteko esleia dadin ez onartzea.

EHUn, unibertsitate prezio publikoen aldetik, ezgaitasunen bat duen kide bat gutxienez duten familientzat dagoen salbuespenaren aplikazioak kexa batzuk sortu ditu. EHUK behar ez bezala jokatu izana ezagutu zuen, eta betekizunak betetzen zituenei atzeraeraginezko izaeraz onartu zien salbuespena aplikatzeko eskubidea; horretarako erabat ohiz kanpokoak zen epe bat ezarri zuen, eta neurri horri publizitate egokia egin zitzaion. Horregatik, ezin eztabaida daiteke epez kanpo aurkezturiko eskaerak atzera bota izana.

3.2. JABETZA PRIBATURAKO ESKUBIDEA

Espainiako Konstituzioaren 33. artikulua

"1. Jabetza pribaturako eta jaraunsletzarako eskubidea onartzen da.

2. Eskubide hauen funtzio sozialak bere edukia mugatuko du, legeekin bat.

3. Inori ezingo zaio ondasun eta eskubiderik kendu baliagarritasun publiko edo gizartearen interesarengatik ez bada, beharrezko kalte-ordainketaren bitartez eta legeek ezarritakoaren arabera."

Jabetza pribaturako eskubidearen edukia, bestalde, eskubide horri Konstituzioan ematen zaion funtzioak mugatzen du. Lur jabe batek eraikitzeko duen muga eta lurzorua udalerriko hirigintzako plangintzaren arabera erabiltzeko betebeharra, beraz, gure herrien eta hirien zentzuzko garapenerako gizarte interesak justifikatzen ditu.

Jabetza eskubideak erabilera, gozamen eta ustiapen ahalmenak barne hartzen ditu, lurrari buruzko legediarekin eta hirigintza antolamenduarekin bat. Hiri lurra eraldatu eta hartan eraikitzeko ahalmena botere publikoen eskumena da, eta ez jabetza eskubidearen berezko ahalmen bat. Horregatik, lur jabeen eskubide eta betebeharrak kasuan kasuko hirigintza legediaren arabera gauzatzen dira.

Jabe batzuek zalantzan jartzen dituzte udalen jarduera legitimoak, lanak egiteko edo erabilera aldaketak egiteko baimenak ukatzen dituztenean udal plangintzaren aurkakoak direlako.

Ondare erantzukizunaren irudiak esan nahi du herritarrek ondarean jasandako kalteengatik kalte-ordainak jasotzeko eskubidea dutela horiek zerbitzu publikoen funtzionamenduaren ondorio izan badira, eta horrek oraindik kexa ugari sorrarazten du.

Eragindako kalteak ordaintzearen izaera objektiboak eragiten du beharrezkoa ez izatea errua edo axolagabekeria egotea zerbitzu publikoen jardun edo jardun ezean. Izan ere, nahikoa zen kausalitate erlazioa frogatzea zerbitzu publikoen funtzionamendu normalarekin edo normala ez denarekin eta eragindako lesioarekin.

Administrazio publikoak, oro har, ez dira eragindako kalteen erantzukizuna onartzearen aldeko izaten, eta, askotan, gogorarazi egin behar zaie beren betebeharrak duen izaera objektiboa. Sarritan, herritarrek arrazoi honengatik jartzen dituzte kexak: kalte-ordaina jasotzeko eskabidea egin zenetik arrazoizko epea igaro arren, interesdunak ez duelako administrazioaren erantzunik jaso.

4. GIZARTE ESKUBIDEAK (GIZARTE ETA EKONOMI POLITIKAREN PRINTZPIO GIDARIAK)

4.1. FAMILIAREN BABESA. ADINGABEEN ESKUBIDEEN BABESA

Espainiako Konstituzioaren 39.1. eta 4. artikulua

“1. Aginte publikoek familiaren babes sozial, ekonomiko eta juridikoa bermatuko dute.”

“4. Umeek nazioarteko euren eskubideak zaintzeko hitzarmenetan ezarritako babes izango dute.”

Familiei laguntzeko esku-hartzeak aplikatzean, zenbaitetan, kexak sortzen dira, hala nola **lanbidea eta familiako bizitza bateratzeko** neurrietan lanetik egozteak duen eraginari dagozkionak. Onuradunek laguntza itzultzera beharturik aurkitzen dira kaleratzearen ondorioz, lan harremanean murrizketa edo utzialdia eskatu zuten langileak diren aldetik haien borondatearekin eta interesekin bat ez datorren erabaki baten ondorioz, alegia. Arau berrian (118/2007 Dekretua, uztailaren 17koa) xedatu da, hala ere, diru laguntzak hiru hiletik hiru hilera onartu eta ordainduko direla, eta halako egoerak ez dira, horrenbestez, etorkizunean gertatuko.

Arau horretan bereizi egiten da, diru laguntza emateko, zainduko den semea edo alaba ikastetxe batera edo gizarte baliabide batera joaten den kasua.

Mendetasun egoeran dauden edo adin nagusikoak diren pertsonen kasuan, laguntza ezin jaso daiteke pertsona horiek egoitza batean badago edo gizarte zerbitzuetako eguneko zentro batean zaintzen badute. Aitzitik, mendetasun egoeran dagoen pertsona adingabea bada eta ikastetxe batera joaten bada, laguntza jaso egiten da. Bi kasuetan mendetasun egoeran

dagoen pertsona ordu kopuru handi batez zaintzen da, baina pertsonaren adinaren arabera, familia batek laguntza jasoko du, eta bestea ez. Desberdintasun hori ez dator bat 118/2007 Dekretuaren xedearekin, eta, hortaz, Eusko Jaurlaritzari gorabehera hori aztertzeke gomen-datu zaio, berdintasun printzipioaren urraketa bada ere.

Familiaren babesik gabeko haur eta nerabeei dagokienez, hauek izan dira kexen arrazoi ugariak:

- Bakarrik dauden adingabe atzerritarren egoera, bereziki Araban azken hilabeteotan, eta lehenago Gipuzkoan (Debako Oilur zentroa zela eta).
- Nazioarteko adopzio prozesuak.
- Aitak edo amak babes espedienteak eskuratzeko aukera, edo informazio eskaerei ez erantzutea.
- Tutoretzaren eskaerak eta baldintzak.
- Familia harreraren etetea.

Babesik gabeko nerabeen artean, **bakarrik dauden adingabe atzerritarrek** Arartekoari ugaritan eskatu diote esku hartzeko, eta hainbat gai zirela eta: bakarrik dauden adingabe atzerritarrak autonomia erkidego batetik bestera lekualdatzea; auzokideak adingabeei laguntzeko gizarte baliabide berriak sortzearen aurka agertzea; zentro horietako batean baldintzak desegokiak izatea edo adingabeen eskubide batzuk urratzea (hezkuntzarako eskubidea, defentsarako eskubidea, entzunak izateko eskubidea); adina zehazteko prozesuak; tutoretza onartzeko edo eteteko irizpideak.

Kezkagarria da, bereziki ahula den sektore bat izanda, adingabe horiei buruz gizartean oso irudi negatiboa sortu izana. Horrek arbuio sentimenduak asko orokortzea eragin dezake.

Bestalde, oso ongi balioesten da Gipuzkoako Foru Aldundiak **jokabide arazo larriak dituzten adingabeei** tratamendu egokia emateko baliabide bat irekitzea. Horiexek dira adingabe disruptiboak, mugak ulertzen, beren jokabideen ondorioak ezagutzen, besteen eskubiak errespetatzen, betebeharrak betetzen eta gizartean bizitzen ikasi behar dutenak.

Adingabe lege-hausleei dagokienez, nabarmendu behar da 2009. urtean halako adingabeei zuzenduriko neurri judizialak asko gehitu direla. Nabarmen ugaritu dira barneratzeko zuhurtziazko neurriak, eta kasuen %58an adingabe atzerritarrak dira, marokorrek gehienak. Era berean, azpimarratu behar da barneratzeko zuhurtziazko neurrien iraunaldia luzatu egin dela. Bestalde, berdin jarraitu dute zuhurtziazko zaintzapeko askatasunen kopuruak.

Ingurune irekiko neurrietan (halakoetan ez da askatasunaz gabetzen) aldaketa ikusi da, esku-hartze handiagoko neurriak hartzeko joera egon da eta: zaintzapeko askatasuna eta gizarte eta hezkuntzako lanak.

Adingabe lege-hausleentzako ikastetxeen sarearen egiturak bere horretan jarraitzen du.

Kezkagarria da babes eta erreforma sistemen arteko lotura. Bi sistemetan maiztasun handiagoz parte hartzen duten taldeak hauek dira:

- Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak (Marokokoak gehienak).
- Familia erreferentzia eskaseko eta berdinen taldearekiko mendekotasun handiko Latinoamerikan eta Errumanian jaiotako adingabeak.
- Familia esparruan erasotzen duten adingabeak.
- Emantzipatzeko aukera errealik ez duten 18 urtetik beherakoak.
- Babes zentro batean bizi diren adingabeak.

Nabarmendu behar da familia barruko indarkeria etengabe areagotzen ari dela, eta horretan neska erasotzaileak gehitu direla.

Hezkuntza-premia bereziak edo berariazkoak dituzten talde batzuk eskolatzeari buruz, aipatzekoa da ezintasuna eta hezkuntza-laguntzaren premia bereziak dituzten ikasleek kopuruak gora egin duela (%60 sare publikoan eskolatuta daude).

Ikasle etorkinen berariazko premiei dagokienez, gehikuntza handia gertatu da, eta haien taldea gero eta handiagoa da eskolan (2007. urtean 17.827 etorkin daude eskolatuta).

Hauren eta gazteen buru osasunaren arreta, izatez ere, adingabeen osasunerako eskubidearen arretaren barruko premia nagusienetakoa da. Buruko osasuneko arazoak dituen gazte taldea, zalantzarik gabe, gero eta handiagoa da oraingo gizartean.

Osasun Sailak uste du haur eta gazteentzako osasun sarean ematen den laguntza kalitataduna dela, eta osasun profesionalen tasa handiena duela (psikiatrak eta psikologo klinikoak).

Administrazioen arteko koordinazioa areagotu behar da talde horren beharrei erantzuna emateko.

Toxikoak kontsumitzen dituzten adingabeen berariazko premien aldetik, prebentzio jarduerak egiten dira ikasgeletan ikasle guztientzat, bai eta arrisku handiagoan daudenentzat ere.

Beste alde batetik, beti eragin izan dute kezka **berdinen arteko eskola jazarpenaren** kasuek. Hala, bada, 2008-2009 ikasturtean tratatu txarren 40 kasu gertatu dira, guztira egin diren edo ireki diren 77 salaketa edo espedienteen artean. Lehenagoko urteen aldean, joera

positiboa ikusten da, eta adierazgarria da 2006-2007 ikasturtearekin konparatuta gertatu den murrizketa, ia %45ekoa.

Hala eta guztiz ere, etengabeko ardura behar duen fenomeno da, oso larria delako, kasuren batean poliziak esku hartu behar izateraino.

Era berean, atzeman da teknologia berriak gero eta gehiago erabiltzen direla jazarpenarako, "ciberbullying" deitutakoa egiteko, alegia.

Azkenik, aditzera eman behar dira, laburtuta, azken hiru urteko egoera kezkarrienak edo arazotsuenak:

- Bakarrik dauden adingabe atzerritarren inguruko arazoak.
- Eskola jazarpeneko egoerak.
- Haur eta gazteen buru gaixotasunen zaintza (edo, zehatzago, adimen narriadura, droga-mendetasuna eta jokabide arazo larriak gertatzen ziren egoeretan osasun sistemak emandako erantzun murrizta, nerabeen artean batik bat).

4.2. OSASUNERAKO ESKUBIDEA

Espainiako Konstituzioaren 43. artikulua

"1. Osasuna babestua izateko eskubidea onartzen da.

2. Aginte publikoen eskuetan dago osasun publikoa antolatu eta babestea, neurri prebentibo eta prestazio eta zerbitzu beharrezkoen bitartez. Legeak ezarriko ditu guztion eskubide eta betebeharrak, honi dagokionez

3. Aginte publikoek osasun-hezkuntza, hezkuntza fisikoa eta kirola bultzatuko dituzte. Aisiaren erabilpen egokia ere erraztuko dute."

Aurrerapen handiak egin dira 2009. urtean informazio pertsonalizatuaren arloan, erabiltzaileei laguntza emateko prozesuan aurrez ikusten den itxaronaldiari dagokionez. Hala eta guztiz ere, osasun zerbitzuen arteko koordinazio falta gertatu da zenbaitetan. Hala, bada, errepikatu egiten dira ebakuntza kirurgiko baten zain dauden gaixoen kexak, ebakuntza aurretik egin beharrezko probak egin arren, proba horiek iraungi direlako oraindik ebakuntza egiteko eguna zehaztu gabe dagoela.

Halaber, kexak aurkeztu dira historia klinikoa eskuratzeko moduaren inguruan, ez dutelako uste posta arruntez bidaltzeak aski berme duenik.

Pertsona batzuek kexatzen dira Osakidetzak medikua aldatu dielako, haien iritzia kontuan izan gabe.

Oraindik jasotzen dira kexak zentro pribatuetan jasotako arta medikoen gastuak itzultzea ukatzen delako.

Herritarrek osasun sistema publikoa erabiltzeko esparrua zerbitzuen kartan dago zehazturik; hor, prestazioen oinarriko edukia ezartzen da. Zenbaitetan, baina, berdin tratatu beharko liratekeen egoera batzuei desberdin erantzuten zaie. Esate baterako, ez dago irizpide homogeneorik entzumen urritua duten pertsoneri kokleako inplanteak jartzearen gainean. Antzutasunaren aurkako tratamenduari dagokionez, tratamendu hori izateko eskakizunak bat ez datozela ikusi da.

Zerbitzuen kartaren edukia zehaztearen eta prestazioak gauzatzeko moduaren esparru horretan bertan koka daitezke, orobat, transexualen behar terapeutikoak eta sexua esleitzeko kirurgia.

Kexetan agertu ohi den beste arrazoi bat da sortzetiko malformazioak nozitzen dituzten pertsonen ortodontziako tratamendua lortzearen ingurukoa da.

Gaixotasun kronikoak dituzten pertsoneri dagokienez, gaixotasun neurologikoak dituzten pertsonentzako errehabilitazio tratamendua agertzen da, askotan epai judizial baten bidez eskatuta. Osakidetzak dio sistema publikoak ezin ordain dezakeela gaur egun ematen den errehabilitazio tratamendua baino espezializatuago eta trinkoagorik.

Bestalde, askotariko egoerak gertatzen dira **buru osasuneko** arazo larri eta kronifikatuak dituzten pertsonen inguruan. Nabarmendu behar da EAEko Osasun Mentaleko Estrategia Proposamena, 2009. urtean hurrengo urteetarako Osasun Mentalari buruzko Euskadiko Aholku Batzordeak egina.

Osasun zerbitzuen funtzionamenduaren aldetik, erabiltzaile batzuk kexatzen dira osasun garraioa berandu iristen delako eta, ondorioz, errehabilitazio saioetara berandu joaten direlako, eta are saio horiek galtzen dituztelako.

Azkenik, **osasun publikoaren** arloan kexak aurkezten dira oraindik ere gune publikoetan tabakoa kontsumitzearen eta legeak ezarritako murriztapenak ez betetzearen inguruan.

4.3. INGURUMEN EGOKIA IZATEKO ESKUBIDEA

Espainiako Konstituzioaren 45. artikulua

"1. Herritar guztiek dute pertsonaren garapenerako ingurumen egokia izateko eskubidea, baita hura zaintzeko betebeharra ere.

2. Aginte publikoek baliabide naturalen zentzuzko erabilpena zainduko dute bizimodua babestu eta hobetzeko, guztien elkartasun ezinbestekoan oinarriturik.

3. Aurreko atalean ezarritakoa urratzen dutenentzako, zigor penalak ezarriko dira legeak esaten duenaren arabera, edo behar denean zigor administratiboak ere bai, eta eragindako kaltea ordaindu beharko dute."

Ingurumenaren arloan jasotako kexen kopuru garrantzitsu batek zerikusia du udal baimenen araubidearen pean dauden **jarduera sailkatuen** zarata, usain eta keen ondorioz herritarrek jasaten dituzten eragozpenekin.

Normalean, ostalaritza establezimenduek (taberna, pub, jatetxe, txoko edo elkarte gastronomikoek) sortutako zaraten ondorioz sortzen diren eragozpenak izaten dira kexagai, lokal horiek behar bezalako hots-isolamendurik ez dutelako edo musika-ekipoak neurritz gain erabiltzen direlako.

Ugaritu egin dira aspaldiko edo jatorri tradizionalako ostalaritza establezimenduei buruzko kexak. Establezimendu horiek urteak daramatzate jardunean eta bere garaian baimendu zirenak ez bezalako jarduerak bihurtzen dira.

Era berean, hedatzen ari da gazteek merkataritzarako lonjak elkargune gisa erabiltzea; horietan musika-ekipoak, telebistak eta beste hainbat gailu jartzen dituzte, lokal horiek funtzionamendu horretarako prestatuta egon gabe. Horren ondorioz, pertsona askok kexak egin dituzte, sortutako zaratek eragindako eragozpenengatik. Lokal horiek jarduera sailkatuen araubidearen pean daude eta, hortaz, administrazioaren lizentzia behar dute jarduteko.

Batzuetan, eragozpenen iturria da eremu jakin batean ostalaritzako establezimenduak kontzentratuegiak egotea. Gainera, kontzentrazio horiek giro zarata handia sortzen dute, edariak establezimenduetatik kanpo hartzen baitira, zamalanak egiten baitira, eta pertsonak lokal batetik bestera joaten baitira, batez ere gauez.

Kexak egin dituzte, orobat, gure herrietako aisiaguneetan dauden ogitarteko-dendak eta okindegiak zirela eta.

Horietako kasu askotan, utzikeria edo geldotasun handiegia gertatzen ari da, halako jarduek sortzen dituzten egoerak arintzeko, eta hori udalek egin behar dute, manuzko jarduera edo irekitzeko lizentziak administrazio horiek baimentzen baitituzte.

Udalek, kasu guztietan ere, bermatu egin behar dute baimendutako jarduerak instalazio lizentzian ezarritako murriztapenetara eta neurri zuzentzailetara egokitzen direla.

Kezkagarria da, orobat, oso kutsatzaileak diren **industriako jarduerak** sortutako eraso eta nahasteek ingurumenerako eta osasunerako eskubidean duten eragina. Kasu askotan, administrazio eskudunek ia ez dute kontrolik egiten instalazio horien gainean. Gaur egun, Kontaminazioa Prebenitzeko eta Kontrolatzeko 16/2002 Legeak eragina du arras kontaminatzaileak diren enpresarik eta jarduerarik gehienetan.

Ildo horretan, esan dezakegu, arau hori indarrean sartu zenez geroztik, Ingurumen Baimen Integratua (IBI) bihurtu dela industria instalazioen gaineko kontrol teknika nagusi ingurumen zuzenbidean. Horregatik, funtsezkoak izango dira EAEko ingurumen organoak aurrera eramango dituen kontrol jarduerak.

Elkarte ekologista zenbaiten keak sortu dituen beste ingurumen eragin bat izan da EAEko **Energia Eolikoaren Lurralde Arloko Planak** Arabako Lurralde Historikoan izango dituen ondorioena; izan ere, elkarte horien aburuz, ekologiaren eta paisaiaren aldetik kalitate eta kalteberatasun bereziak dituen alde bati eragingo dio plan horrek. Eusko Jaurlaritzan gai horren inguruan eskumenak dituzten sailak lanean ari dira erakundeetan zein gizartean ahalik eta adostasunik handiena lortzeko, gaur egun izapidetan dauden parke eolikoek ingurumenaren gainean izango duten eragina balioztatzeko prozeduren inguruan.

Azkenik, esan behar da nabarmendu egin direla bide publikoan gauez lanak egiteagatik aurkezturiko erreklamazioak. Kasu askotan, bide nagusi batzuk egunez ibilgailuen zirkulaziorako ixtea saihestu nahi izaten da. Hala eta guztiz ere, hotsen aldetik izaten den eraginak ahalik eta gehiena arindu eta minimizatzeko behar diren neurriak hartu beharko dira.

Azaldu dizkigutenbeste ingurumen eragin batzuk **telefonía mugikorreko antenen instalazioak** izan dira, bai hiriko zonetan eta bai zona urbanizaezinetan egiten direnak. Halako antenarik gehienak, izan ere, udal baimenik gabe instalatu dira. Udal agintariek halako azpiegiturak baimenik gabe instalatzearen aurka jardun behar dute, eta, ingurumen baimenaz baliatuta telefonía mugikorreko antena horiek instalatzeak ekar ditzakeen eraginak kontrolatu behar dituzte.

4.4. ETXEBIZITZA DUINA IZATEKO ESKUBIDEA

Espainiako Konstituzioaren 47. artikulua

“Espainiar guztiek dute etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea.

Aginte publikoek beharrezko baldintzak sustatu eta behar diren arauak ezarriko dituzte eskubide hori gauzatzeko, lurraren erabilpena interes orokorrarekin bat arautuz, espelazioa galarazteko.

Gizarteak erakunde publikoen hirigintza-jarduerak sortutako gainbalioetan parte hartuko du.”

Euskal herritar ugariaren arazorik garrantzitsuenetako bat etxebizitza duina eskuratzeko zailtasun objektiboa egotea da. Botere publikoak etxebizitza babestuen sorrera bultzatzen aritu dira, merkatu librean etxebizitza erostea ezinezko dutenei etxebizitza eskuratzeko posible egiteko beste neurri batzuekin batera. Neurriak bereziki zuzendu zaizkie etxebizitza-premia larria duten sektore horiei.

Azpiratu beharreko berritasun batzuk gertatu dira 2009. urtean arauen aldetik.

Estatu mailan, azaroaren 23ko 19/2009 Legea onartu da (Alokairua Sustatzeko eta Alokairu Prozedura Arintzeko Neurrien nahiz Eraikinen Energia Eraginkortasunaren legea), eta EAEn, martxoaren 10eko 61/2009 Dekretua, Etxebizitza Hutsaren Programa sustatzen eta bultzatzen duen dekretua aldatzekoa.

Bestalde, tokian tokiko mailan, EAEko udal askok udal etxebizitza tasatuak arautzeko toki ordenantzak eman dituzte, eta horrek ekarri du etxebizitza babestuen kalifikazio orokorra duten etxebizitzaren parke publikoa gehitzea.

Etxebizitza premia frogatzeari dagokionez, etxebizitza babestuen esleipendun batzuek etxebizitzaz aldatzeko beharra agertzen zuten, bizikidetzako unitateko kide kopurua handitu delako. Kexa horiek agerian uzten dute araudietan zein arautze eskasa duten “babes ofizialeko etxebizitzaren parkearen barruko ibilbideak” izenekoek. Ararteko erakundeak EAEko administrazio publikoei *Gazteentzako etxebizitza politika publikoak EAEn txosten berezian gomendatu zien har zitzatela “beharrezko neurriak (...) etxebizitza babestuen parkea kudeatzean familia-unitatearen egitura aldatzeko aintzat har” zedin.*

Babes ofizialeko etxebizitzetan, arazoak daude oraindik ere **eraikuntzan jatorria duten kalte edo gabeziak** direla eta. Funtsezkoa da eskumena duten administrazioak azkar eta eraginkortasunez erantzun diezaieten eraikuntzako akatsak konpontzeko eskaerari, etxebizitza babestuen edo alokairuko programa publikoen barruko etxebizitzaren kasuetan. Izan ere, etxebizitza duina eta egokia izateko eskubidea lotura estu-estua du etxebizitza horiek gutxienezko bizigarritasun eta kalitate baldintza batzuk betetzearekin.

Jaso diren kexetako asko babes publikoko etxebizitzak esleitzeko prozesuetatik baztertzeari buruzkoak dira, edo aurretik onartuta zeuden etxebizitza esleipenak lege ezarritako

eskakizunen bat ez betetzeagatik ezeztatu izanari buruzkoak. Halakoetan, administrazioak zuzen jokatu ohi du, eta erabat oinarritzen da etxebizitza babestuen esleitzeko prozedurak arautzen dituen araudian.

Kezkagarria da etxebizitza lortzeari dagokionez laguntza berezia behar duten talde batzuek duten egoera, hala nola ezgaitasun fisikoa edo psikikoa dutenek edo indarkeria sexistaren biktime diren emakumeek.

Genero indarkeriaren biktime diren emakumeei dagokienez, administrazio publikoek borondate argia agertzen dute eragindako herritar horiek dituzten arazoei irtenbidea emateko. Nolanahi ere, tratatu txarrak nozitzen dituzten emakumeentzako neurriak, interes publikoko arrazoiengatik, larrialdi gisa izapidetu beharko lirateke, dena delako emakume eskatzailea arrisku objektiboko egoeran dagoenean, betiere.

4.5. EZGAITASUN FISIKOA, SENTIMENEZKOA EDO PSIKIKOA DUTENEN ESKUBIDEAK

Espainiako Konstituzioaren 49. artikulua

“Aginte publikoek minusbaliatu fisiko, sentimenezko eta psikikoentzako prebentzio, tratamendu, birgaitze eta gizarteratze politika egingo dute. Behar duten zainketa espezializatua eskainiko die, eta laguntza berezia emango die, izenburu honetan hiritar guztientzat ezarri diren eskubideak erabili ahal izan ditzaten.”

Ezgaitasunen bat duten pertsonen eguneroko bizitzan zailtasun handiak izaten jarraitzen dute hori berdintasunezko baldintzetan garatu ahal izateko, arazoak baituzte hirian ibiltzeko, erabilera publikoko eraikinetara sartzeko, garraioa erabiltzeko edo lanpostua eskuratzeko.

Ezgaitasuna duten pertsonen eskubidea dute zuzkidura publikoak eta taldeko ekipamenduak berdintasun baldintzetan erabiltzeko. Eskubide horren alderdiatariko bat, izatez ere, taldeko ekipamenduetarako eta zuzkidura publikoetarako irisgarritasun unibertsala lortzea da, arkitektura oztipoak kenduta.

Espainiako Estatuan ezgaitasuna tratatzeko moduan aldaketa handia ekarri du Ezgaitasuna duten Pertsonen Eskubideen Konbentzioa 2008ko maiatzaren 3an indarrean sartu izanak. Ezgaitasunak tratatzerakoan, hitzarmenak errehabilitazio eredu gairatzen, eta gizarteari eta dibertsitateari loturiko eredu bat ezartzen du.

Botere publikoek beren kasa bizi ahal izatea bermatu behar die ezgaitasunen bat duten pertsonen, oinarritzeko premiak betetzeko nahikoak diren laguntzekin.

Bestalde, sektore horretan lan egiten duten elkarteek azaldu dute laguntza pertsonala kontratatzeko Mendekotasun Legeak jasotzen duen prestazio ekonomikoa aurrerapen handia dela, baina, ordea, ez dela nahi zen eragina izaten ari. Kezkagarria iruditzen zaie Araban eta Bizkaian laguntza pertsonalerako prestazioaren aplikazio eremua mugatuta egotea

hezkuntza eta lana izatea errazteko helburua duten kasuetara. Elkarteen ikuspuntutik, oro har eguneroko bizitzako oinarrizko jardueretara ere zabaldu beharko litzateke neurri hori, bai eta kulturako, aisialdiko eta astialdiko jardueretara ere.

Nabarmendu behar da Eusko Legebiltzarrak 2011-2012 ikasturterako Ikastetxe Publikoen Azpiegiturak Hobetzeko Ezohiko Plana (2008-2012) onartu duela, ikastetxeetan arkitektura oztopoak kentzeko xedearekin. Kasuren batean 2010eko ekitaldira aurreratu da erakin historikoren baten eraberritzea, hala nola Bilboko Mugika Solokoetxe LHI delakoarena.

Ezgaitasunen bat duten pertsonen enplegu publikoan lana lortzeko aukerei dagokienez, esan daiteke, oro har, administrazio publikoek errespetatu egiten dutela erreserba kupoa. Hala eta guztiz ere, beharrezkoa da lanpostua eta haren ingurune fisikoa egoki dakizkien lanpostu hori beteko duen pertsona ezgaitasundunaren beharrei.

Gainera, postuak aldi baterako betetzeari dagokionez, lanpostua egokitzeko lan teknikoak –arkitektura oztopoak oro har kentzeaz gain– zaildu egiten da erreferentziarik egoten ez delako postua betetzera etor daitekeen pertsonaren behar zehatzen gainean.

Pertsonak eremu publikoetara iristeari buruz azken urteotan azaldu den arazoetariko bat, irisgarritasuna sustatzeko planak abiatzearen eraginezkoa, onetsitako udal obretan eskailera mekanikoak instalatzeko aukera baino ez egotea da, hiriko oztopoak ezabatzeke edo gainditzeko. Arrapala eta eskailera mekanikoek ez dute pertsona guztien irisgarritasun arazoa konpontzen (adinekoak, haurrak dituzten pertsonak, ezgaitasun fisikoa dutenak); horiek, berez, ezin dituzte halako instalazioak erabili.

Horregatik, gure iritziz, araudian ezarritakoa betetzeko, lehentasuna eman behar zaio egokituriko igogailuen instalazioari, eta bigarren mailan utzi behar da arrapala nahiz eskailera mekanikoen edo tapiz gurpildunen soluzioa.

Garraio publikoa autonomiaz eta berdintasun baldintzetan erabiltzea ezgaitasuna duten pertsonen eskakizun nagusienetarikoa da oraindik ere, eta Euskal Autonomia Erkidegoan garraio publikoko zerbitzuak kudeatzen dituzten enpresen erronka nagusia ere bada, une honetan garraioaren irisgarritasun unibertsala ez dago bermatuta, arlo horretan aurrerakuntza handiak egon diren arren.

Hiri arteko zerbitzuak ematekoak diren ibilgailuetan egokitzapena egiteak dakartzan kostu nahiz zailtasun handiagoak direla eta, linea horietan, hain zuzen, geratzen dira agerian garbiago mugimen murriztuko pertsonak aurre egin behar dieten oztopoak.

Bestalde, gorrek, entzumen-urrituek edo gor-itsuek zailtasun asko izaten dituzte informazioa eta komunikazioa izateko osasun arloan. Osasun arloko administrazioa pertsona horiei erantzun bateratua emateko modua aztertzen ari da.

Etxebizitzaren arloan, ezgaitasunen bat duten pertsonen kontsultak gehitu dira, egokitu gabeko etxebizitza libre baten truke, egokitutako etxebizitza babestu bat lortzeko aukeraren inguruan.

Zergen arloan, pertsona ezinduak oraindik ere kexu dira udal batzuek trabak jartzen dituztelako trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren zenbatekoan salbuespena aplikatzeko.

4.6. ADINEKOEN ESKUBIDEAK

Espainiako Konstituzioaren 50. artikulua

“Aginte publikoek, pentsio egoki eta aldizka eguneratuen bitartez, adineko pertsonen nahikotasun ekonomikoa bermatuko dute. Eta familiaren betebeharrak alde batera utzita, euren ongizatea sustatuko dute gizarte zerbitzu sistema baten bitartez, osasun, etxebizitza, kultura eta aisialdiko arazo espezifikoak konpontzeko.”

Adinekoek geroz eta talde ugariagoa eratzen dute –400.000 pertsona pasatxo–, euskal biztanleriaren %20 inguru. Gainera, azken 20 urteotan bikoiztu egin da 80 urtetik gorako pertsonen kopurua. Oso talde heterogeneoa da eta gero eta ugariagoa. Horregatik guztia-gatik, botere publikoek erantzun egin behar diete demografian igarritako errealitate horri eta arreta bereziki behar duen talde horren beharrei.

Neurri batzuk era positiboan balioesten dira, hala nola Adinekoen buruzko Plan Integrala taxutu izana, Bizkaiko Lurralde Historikoan Adinekoen Behatokia sortu izana, edo Eusko Legebiltzarrak 2009ko azaroaren 11ko ez-legezko proposamen bat onartu izana, Eusko Jaur-laritzari galdegiteko 2010. urtean zehar azterlan bat egin dezala, EAEko adinekoen beharrak eta eskaerak ezagutze aldera.

Adineko batzuek batzuetan nozitzen duten **tratu desegokia** eta, batzuetan, tratu txarra gutxi ezagutzen den errealitate bat da, eta askotariko jarduerak egin behar dira horren inguruan, sentsibilizazio arloaren aldetik, profesionalen prestakuntzaren aldetik, kaltetutako adinekoek berek nahiz haien zaintzaileek kontzientzia hartzearen aldetik, edo halako gertaeren prebentzioaren aldetik.

Adinekoek eta haien familiek, neurri handi batean, ez dakite zein diren beraien eskubideak. Horregatik, oso era positiboan balioesten da Arabako Biltzar Nagusiek 2009ko apirilaren 20an eginiko proposamena, adinekoen tratu txarren aurkako plan integral bat abian jartzeko, Arabako Foru Aldundiari eskatuta, halaber, prebentzio protokoloak eta jarduera ildoak osa zezala, halako kasuak detektatu eta haietan esku hartze aldera.

Ezin ukatuzkoa da 39/2006 Legea (Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendetasun Egoeran dauden Pertsonak Zaintzeari buruzkoa –Mendekotasun Legea–) adinekoen taldean izan duen eragina; izan ere, 65 urtetik gorakoak dira mendetasun egoeran dauden pertsonen %70. Ararteko erakundea 2009. urtean txosten berezia egiten aritu da lege horren aplikazio eta garapenari buruz, eta 2010ean aurkeztuko da.

Horrez gain, ezinbestekoa da neurriak hartzea Mendetasun Legearen aurreikuspenak eta abenduaren 5eko EAEko 12/2008 Legearen (Gizarte Zerbitzuei buruzkoa) aplikazioa

bateratzearren. Ildo horretan nabarmendu da Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa eta Prestazio eta Zerbitzu Zorroa abian jarri izana.

Azpiratu nahi dugu 65 urtetik gorako hamar pertsonatik bakar batek duela egun erakundeen aldetiko nolabaiteko arretaren bat. Hori dela-eta, babeserako sare informala, adinekoaren senideak normalean –kasu gehienetan emakumeak–, kontuan hartu behar litzateke garatzen diren gizarte politiketan.

Horri dagokionez, Mendetasunari buruzko 2006ko abenduaren 14ko Legeak eta hori garatu duen dekretuak prestazio ekonomikoa aurreikusi dute familia inguruan egindako zaintzarako; horrela, onartu egiten da mendetasuna duen pertsonarekin (gehienbat, adineko pertsonekin) bizi diren familiako askok egiten duten ahalegin handia.

Beste alde batetik, berriz ere heldu behar diogu adinekoentzako laguntza soziosanitarioaren gaiari.

Mendetasuna duten adinekoek osatzen dute laguntza soziosanitarioa behar duen talde nagusia, halako laguntza behar duten pertsonetan, %85 adinekoak baitira. Osasunaren eta gizartearen aldetiko laguntza koordinatua, aldiberekoa eta egonkorra da beharrezkoa.

Azkenik, nabarmendu behar da 2009. urtean lan gatazkak gertatu direla adinekoentzako egoitza zenbaitetan, eta horrek eragina izan duela pertsona horientzako laguntzan. Andoingo, Ordiziako eta Villabonako udal egoitzetako gatazkak nahiz Eibarko foru egoitzakoa bukatu egin dira. Aitzitik, bere horretan jarraitzen dute –denbora luzez, gainera– Ariznabarrakoak Gasteizen eta Aldakoneakoak Donostian.

Babestu beharreko bi eskubide ditugu aurrean: adineko egoiliarren osasunerako eta laguntza jasotzeko eskubidea, batetik, eta langileen grebarako eskubidea, bestetik. Oreka lortu behar da bi eskubide horien erabileran, baina ezin da ahaztu gatazka horiek zuzenean eta negatiboki eragiten dietela ahultasun handiko egoeran dauden pertsona batzuei: adinekoiei, hain zuzen, eta bereziki mendetasun handia duten adineko pertsoniei.

5. LABURBILKETA

Atal honek Euskal Autonomia Erkidegoan eskubideen babesaren egoeraren balorazioa jasotzen du. Balorazio hori Arartekoa arautzen duen legeak exijitzen du eta Konstituzioan onartutako eskubideak aztertuz egituratzen da. Hala ere, ondorioen atal bat izanik, ez ditu agortu nahi, jakina, Arartekoaren jardueran gertatzen diren kontu guztiak.

Hori dela-eta, balorazio osatuagoak gainerako atalen gaineko jarraipena egitea ere eskatuko du, eta, batez ere, I. atalaren gainekoa. Izan ere, eremu bakoitzaren azterketan eremu material bakoitzeko benetako balorazioak biltzen dira eta kasu guztietan ez dira atal honetan laburbildu.

Halaber, txosten honen II. atala aztertuz, eskubide-urraketa jasateko aukera gehiago dituzten talde batzuei eragiten dieten gaiak azter daitezke.

Bestalde, IV. atalean eskubide batzuk aztertu ahal izango ditugu, 2009an egindako txosten monografikoen bitartez edo lantzen ari direnen bitartez.

Edonola ere, espero dugu atal honetan eta txostenaren gainerakoetan bildutako diagnostikoa lagungarri izatea botere publikoentzat herritarren eskubideen defentsan neurri zehatzetan sakontzeko.




ERANSKINA

GRAFIKOAK




1. DIAGRAMA

ARARTEKOAK ZENBATETAN IKUSI DUEN JARDUERA OKERRA ADMINISTRAZIOAREN JOKAERAN 2009an BURUTUTAKO KEXETAN


**2. DIAGRAMA**

ARARTEKO ERAKUNDEAREN ESKU-HARTZEA ZENBAITERAINO IZAN DEN ERAGINKORRA



3. DIAGRAMA


ARARTEKOAK JASOTAKO KEXA KOPURUAREN BILAKAERA (2000-2009)



¹264k kexa berdin 2 multzo osatzen dituzte.


4. DIAGRAMA

2009an JASOTAKO KEXEN EGOERA ONARPEN PROZESUAREN ONDOREN




5. DIAGRAMA

ZUZENEAN BIDERATURIKO KEXEN BANAKETA, JARDUERA ALORREN ARABERA




6. DIAGRAMA

ZUZENEAN BIDERATUTAKO KEXEN BANAKETA, ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERA




7. DIAGRAMA

EUSKO JAURLARITZAREN AURKA AURKEZTUTAKO KEXEN BANAKETA, ALORREN ARABERA



8. DIAGRAMA


EUSKO JAURLARITZAREN AURKA AURKEZTUTAKO KEXEN BANAKETA, SAILEN ARABERA¹



¹ Sail batzuk bikoiztuta daudela dirudi, EAEko administrazio orokorrak sailen egitura egokitzearen ondorioz. Egokitze hori maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuaren bidez egin zen (EHAA, 86. zk., maiatzaren 9koa).


9. DIAGRAMA

FORU ALDUNDIEN AURKA AURKEZTUTAKO KEXEN BANAKETA, ALORREN ARABERA




10. DIAGRAMA

UDALEN AURKA AURKEZTUTAKO KEXEN BANAKETA, ALORREN ARABERA



11. DIAGRAMA

LURRALDE BAKOITZETIK JASOTAKO KEXEN BILAKAERA (2000-2009)




BIZKAIA	645	651	643	646	730	712	834	738	868	910
GIPUZKOA	295	375	294	318	457	412	398	380	394	503
ARABA	256	444	268	322	271	275	367	361	341	377

¹ Bi kexa-multzo bideratu dira, guztira 264 kexagilerenak, hiru lurraldeetakoak.

12. DIAGRAMA

LURRALDE BAKOITZETIK JASOTAKO KEXEN BILAKAERA 10.000 BIZTANLEKO (2000-2009)




BIZKAIA	5,77	5,7	5,73	5,75	6,5	6,34	7,42	6,46	7,64	8
GIPUZKOA	4,42	5,53	4,37	4,71	6,77	6,11	5,9	5,46	5,74	7,32
ARABA	8,97	15,56	9,37	11,24	9,46	9,6	12,81	11,82	11,15	12,32


¹ Bi kexa-multzo bideratu dira, guztira 264 kexagilerenak, hiru lurraldeetakoak.

13. DIAGRAMA


JASOTAKO KEXEN BANAKETA, KEXAGILEEN EZAUGARRIEN ARABERA

**14. DIAGRAMA**

JASOTAKO KEXEN BANAKETA, ERABILITAKO HIZKUNTZAREN ARABERA


**15. DIAGRAMA**

JASOTAKO KEXEN BANAKETA, AURKEZTEKO ERAREN ARABERA




**2009an ARRETA ZUZENENKO BULEGOETAN JASOTAKO BISITAK
(KOPURUA ETA EZAUGARRIAK)**

16. DIAGRAMA




17. DIAGRAMA




18. DIAGRAMA

BANAKETA ADIN TALDEEN ARABERA



19. DIAGRAMA


KEXA BILAKATUTAKO BISITAK



OFIZIOZKO JARDUERAK (2009)


20. DIAGRAMA

BANAKETA ALORREZ ALOR



21. DIAGRAMA



ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERAKO BANAKETA



KEXAGILEEK ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAZ EGIN DUTEN BALORAZIOA (inkestaren emaitzak)



22. DIAGRAMA

Nolakoa iruditu zaizu Arartekoak bidalitako informazioa?



23. DIAGRAMA


Nolakoa iruditu zaizu kexa aurkeztu zenuenetik tramitazioa bukatu arteko denbora?



KEXAGILEEK ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAZ EGIN DUTEN BALORAZIOA (inkestaren emaitzak)


24. DIAGRAMA

Zenbateraino zaude ados Arartekoak zure kexari buruz erabaki edo proposatu duenarekin?



25. DIAGRAMA


Zure ustez, kexa sorrarazi zuen arazoa:



KEXAGILEEK ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAZ EGIN DUTEN BALORAZIOA (inkestaren emaitzak)


26. DIAGRAMA

Oro har zer iruditu zaizu Arartekoaren lana? (Hau da, azaldu duen interesa, laguntzeko prest egotea, egindako gestioak...)



27. DIAGRAMA


Administrazioarekin arazoak dituen pertsonaren bati Arartekora joateko gomendatuko al zenioke?



EUREN ARAZOA "ez da konpondu" EDO "nahiko gaizki konpondu da" ERANTZUN DUTEN KEXAGILEEK ARARTEKO ERAKUNDEAK IZANDAKO ESKU-HARTZEARI BURUZ EGIN DUTEN BALORAZIOA



28. DIAGRAMA

Oro har zer iruditu zaizu Arartekoaren lana? (Hau da, azaldu duen interesa, laguntzeko prest egotea, egindako gestioak...)



29. DIAGRAMA

Administrazioarekin arazoak dituen pertsonaren bati Arartekora joateko gomendatuko al zenioke?



ararteko

GAIEN AURKIBIDEA



A**Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak**

Doako justizia, 148, 731

Abokatu-laguntza

Espetxeak, 533

Adinekoak, 259, 769

EEE, 195

Gizarte zerbitzuak

Egoitzak, 43, 277

Legeria, 273

Mendeko pertsonak, 34, 167, 280, 733, 735

Tratu txarrak, 261

Zerbitzu soziosanitarioak, 275

Adingabe atzerritarrak, 322

Eskolatzea, 387

Adingabe baztertuak, 406

Eskolatzea, 387

Adingabe ijitoak

Eskolatzea, 387

Adingabe lege-hausleak, 378

Atxiloketa-zentroak, 118

Adingabeak, 283, 284, 322, 378, 623, 730, 755, 759

Adingabe atzerritarrak, 406

Eskolatzea, 387

Adingabe baztertuak, 406

Eskolatzea, 387

Adingabe ijitoak

Eskolatzea, 387

Adingabe lege-hausleak, 378

Atxiloketa-zentroak, 118

Adopzioa

Eskolatzea, 69

Babesik gabeko adingabeak, 284, 730

Adingabe atzerritarrak, 322

Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak, 459, 622

Balioetan oinarritutako hezkuntza, 73, 406, 594

Biltokiak, 404

Burutik gaixo dauden adingabeak, 395

Droga-mendetasuna, 406, 606

Egoitzak, 283, 284, 322, 378, 623, 730, 755, 759

Emakumeen kontrako indarkeria, 243

Eskolako indarkeria (bullying-a), 73, 399

- Ezgaitasunen bat duten adingabeak
 - Eskolatzea, 387, 424
- Gizarte sareak, 405
- Gizarte taldeak, 411
- Gizarte zerbitzuak, 47, 283, 284, 322, 378, 623, 730, 755, 759
- Hezkuntza, 69
- Hezkuntza-premia bereziak, 75, 387
 - Curriculuma norbanakoari egokitzea, 387
- Hezkuntzarako eskubidea, 283, 284, 322, 378, 623, 730, 755, 759
- Internet, 405
- Kirola, 64
- Norberaren datuak, 405
- Osasun prestazioak
 - Gurpil aulkiak, 732
- Osasunerako eskubidea, 732
- Partekatutako zaintza, 142
- Sasoikako langileen seme-alaba adingabeak, 386
- Administrazio egoerak**
 - Borondatezko eszedentzia, 731
- Administrazio egokia**
 - Osasun zerbitzuak, 181
- Administrazio erregistroak**
 - Babes ofizialeko etxebizitzak, 217
 - Elkarteak, 171, 736
- Administrazio errekurtsua jartzeko eskubidea**
 - Administrazioaren erantzukizuna, 140, 168, 574, 732, 733, 734
 - Ebatzi beharra, 56, 735
 - Hirigintza, 208, 734, 736
- Administrazioa kontrolatzea**
 - Atmosferako kutsadura, 153
 - Kutsadura akustikoa, 153
 - Polizia, 112
 - Tratu txarrak, 116
- Administrazioaren erantzukizuna, 168**
 - Administrazio errekurtsua jartzeko eskubidea, 140, 168, 574, 732, 733, 734
 - Animaliek sortutako kalteak, 56
 - Ebatzi beharra, 168, 733, 734
 - Oinarrizko zerbitzu publikoak, 58
 - Zerbitzu publikoak, 168, 733, 734
- Administrazioaren isiltasuna**
 - Administrazioaren erantzukizuna, 168, 733, 734
- Adopzioa**
 - Adingabeak, 142
 - Eskolatzea, 69
- Alokairuak**
 - Babes ofizialeko etxebizitzak, 223, 555
 - Legeria, 213
- Amentzako eta haurrentzako laguntza, 189**
- Animaliak babestea, 177**
 - Legeria, 177
 - Udal zerbitzu publikoak, 177
 - Zerbitzu publikoak
 - Gune zoologikoak, 177

Arbitrajea

Kontsumoa, 57

Arrazoitu beharra

Administrazioaren erantzukizuna, 168, 733, 734

Asentamenduak

Etorkinak, 453

Atmosferako kutsadura

Administrazioa kontrolatzea, 153

Ikuskatzea, 153

Keak eta usainak, 153

Atxiloketa-zentroak

Adingabe lege-hausleak, 118

Bideo grabaketak, 118

Polizia, 118

Atxilotuak, 749

Atxiloketa-zentroak, 118

Polizia, 112

Tortura, 147

Tratu txarrak, 147

B**Babes bereziko taldeak**

Adinekoak, 259

EEE, 195

Gizarte zerbitzuak, 273

Mendeko pertsonak, 34, 167, 280, 733, 735

Tratu txarrak, 261

Adingabeak, 623

Adingabe atzerritarrak, 387, 406

Adingabe baztertuak, 387, 406

Adingabe ijitoak, 387

Adingabe lege-hausleak, 118

Adopzioa, 69, 142

Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak, 459, 622

Balioetan oinarritutako hezkuntza, 73, 406, 594

Biltokiak, 404

Burutik gaixo dauden adingabeak, 395

Droga-mendetasuna, 406, 606

Egoitzak, 283, 284, 322, 378, 623, 730, 755, 759

Emakumeen kontrako indarkeria, 243

Eskolako indarkeria (bullying-a), 73, 399

Ezgaitasunen bat duten adingabeak, 387, 424

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 47, 419

Gizarte taldeak, 411

Gizarte zerbitzuak, 47, 283, 284, 322, 378, 419, 623, 730, 755, 759

Harrera, 142

Hezkuntza, 69

Hezkuntza-premia bereziak, 75, 387

Hezkuntzarako eskubidea, 283, 284, 322, 378, 623, 730, 755, 759

Kirola, 64

Osasun prestazioak, 732

Osasunerako eskubidea, 732

Partekatutako zaintza, 142

- Atxilotuak, 749
 - Atxiloketa-zentroak, 118
 - Polizia, 112
 - Tortura, 147
 - Tratu txarrak, 147
- Baztertuak, 483, 606
 - Burutik gaixo daudenak, 510
 - Errolda, 34, 45, 167, 280, 451, 454, 491, 492, 733, 735
 - Gizarte eskubideak, 485
 - Gizarte taldeak, 508
 - Gizarteratzeko diru-sarrerak, 27
 - Hiria biziberritzea, 202
 - Legeria, 34, 45, 167, 280, 483, 492, 733, 735
 - Prestazio ekonomikoak, 34, 45, 167, 280, 492, 733, 735
 - Udal zerbitzu publikoak, 472, 737, 738
 - Zerbitzu soziosanitarioak, 497
- Burutik gaixo daudenak, 543
 - Babes ofizialeko etxebizitzak, 223, 555
 - Baztertuak, 510
 - Espetxeratuak, 538
 - Gizarte taldeak, 543
 - Mendeko pertsonak, 543
 - Osasun zerbitzuak, 187
 - Osasuna, 543
 - Zerbitzu soziosanitarioak, 543
- Emakumeak
 - Babes ofizialeko etxebizitzak, 223, 238
 - Berdintasunerako eskubidea, 65
 - Emakumeen eta gizonen berdintasuna, 235, 252, 743
 - Emakumeen kontrako indarkeria, 236, 743, 747
 - Langabidea eta familiako bizitza bateratzea, 419, 732
 - Norberaren datuak, 242
 - Sexuagatiko bereizkeria, 244
- Espetxeratuak, 533, 749, 754
 - Araketak eta gorputz miaketak, 536
 - Berrito gizarteratzeko eskubidea, 534
 - Burutik gaixo daudenak, 538
 - Diziplina-araubidea, 535
 - Espetxe-zigorraren ordeko neurriak, 538
 - Espetxeak, 533
 - Espetxeko sistema, 537
 - Gaixotasun terminala duten pertsonak, 537, 747
 - Gizarte taldeak, 533
 - Lekualdatzeak, 535
 - Osasun laguntza, 537, 747
- Etorkinak, 441, 622, 745
 - Asentamenduak, 453
 - Bizileku-askatasunerako eskubidea, 445
 - Errolda, 34, 45, 167, 280, 451, 454, 733, 735
 - Gizarte taldeak, 463
 - Hizkuntz irisgarritasuna, 135, 458, 567
 - Lana, 445

- Prestazio ekonomikoak, 454
- Tratu txarrak, 113
- Zerbitzu publikoak, 454
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 417, 426, 746
 - Adingabeak, 424
 - Aparkalekuak, 428
 - Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 436
 - Etxez etxeko laguntza, 421
 - Euskal Herriko Unibertsitatea, 102
 - Funtzio publikoa, 426
 - Garraioak, 429
 - Gizarte taldeak, 421
 - Gizarte zerbitzuak, 418, 419
 - Herri lanak, 429, 581
 - Hirigintza, 205, 429, 581
 - Ikastetxeak, 72
 - Irisgarritasuna, 417, 746
 - Mendeko pertsonak, 418, 606
 - Osasun zerbitzuak, 435
 - PFEZ, 95, 426, 733
 - Prestazio ekonomikoak, 46
 - TMIZ, 100, 428, 736
 - Unibertsitateko hezkuntza, 79
- Familia
 - PFEZ, 97
- Gaixo kronikoak, 543
 - Burutik gaixo daudenak, 543
 - Osasun zerbitzuak, 186
- Gazteak
 - Hezkuntza, 69
- Ijitoak, 469, 745
 - Berriro bizilekua ematea, 476
 - Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 472, 476, 738
 - Legeria, 469
 - Udal zerbitzu publikoak, 472, 737, 738
- LGBT pertsonak, 523, 600, 611, 746
 - Familia, 527
 - Gizarte taldeak, 527, 611
 - Udal zerbitzu publikoak, 525, 737
 - Zerbitzu publikoak, 527
- Mendeko pertsonak
 - Adinekoak, 34, 167, 280, 733, 735
 - Etxez etxeko laguntza, 48, 421
 - Gizarte taldeak, 421, 611
 - Legeria, 29, 262, 418, 606
 - Prestazio ekonomikoak, 29, 47, 418, 606
- Musulmanak
 - Hilerrri musulmana, 171, 459
- Parte hartzeko eskubidea
 - Adinekoak, 262
- Sortzetiko malformazioak dituzten pertsonak
 - Osasun zerbitzuak, 185

- Terrorismoaren biktimak, 515, 589, 747
 - Gizarte taldeak, 611
 - Memoria historikoa, 622
- Transexualak
 - Osasun zerbitzuak, 184
- Ugalkortasun arazoak dituzten pertsonak
 - Osasun zerbitzuak, 185
- Zentzumen urritasuna duten pertsonak
 - Osasun zerbitzuak, 184, 190

Babes ofizialeko etxebizitzak, 218

- Administrazio erregistroak, 217
- Akatsak, 219
- Alokairuak
 - Burutik gaixo daudenak, 223, 555
 - Emakumeak, 223, 238
- Balio katastrala, 98
- Betekizunak, 218
- Esleipena, 222
- Etxebizitza tasatuak, 220
- Legeria, 213

Babesik gabeko adingabeak, 284, 730**Bakarrik dauden adingabe atzeritarrak, 459, 622****Baldintza beretan sartzeko eskubidea, 752**

- Funtzio publikoa, 83, 734
 - Lan-baldintzak, 91
 - Lanpostuak betetzea, 88
 - Merezimenduak, 83, 734
 - Ordainsariak, 90
 - Ordezkapenak, 89

Balio Erantsiaren gaineko Zerga, 98**Balio katastrala**

- Babes ofizialeko etxebizitzak, 98

Balioetan oinarritutako hezkuntza

- Hezkuntzarako eskubidea, 73

Banantzea eta dibortzioa

- Biltokiak, 404
- Partekatutako zaintza, 142
- Prozedura zibila, 142

Baztertuak, 483, 606

- Burutik gaixo daudenak, 510
- Etorkinak
 - Asentamenduak, 453
- Gizarte taldeak, 508
- Gizarte zerbitzuak, 485
- Gizarteratzeko diru-sarrerak
 - Legeria, 27
- Hiria biziberritzea
 - Berriro bizilekua ematea, 202
- Legeria, 483
- Prestazio ekonomikoak, 34, 41, 45, 167, 280, 492, 733, 735
 - Diru-sarrerak bermatzeko errenta, 37, 38
 - Itzulketak, 38
 - Ziurtagiriak, 38

Udal zerbitzu publikoak
 Errolda, 472, 737, 738
 Zerbitzu soziosanitarioak, 497

Bekak

Hezkuntzarako eskubidea, 79

Berdintasunerako eskubidea, 743

Emakumeen eta gizonen berdintasuna
 Babes ofizialeko etxebizitzak, 223, 238
 Kultur adierazpenak, 65
 Norberaren datuak, 242
 Etorkinak, 441, 622, 745
 Funtzio publikoa, 458

Familia

PFEZ, 97

Ijitoak, 469, 745

Bereizkeriarik ez jasateko eskubidea, 743

Erljiogatikoko bereizkeria, 171, 459
 Gizarte egoeratikoko bereizkeria, 34, 167, 280, 469, 491, 492, 733, 735, 745
 Baztertuak, 483, 606
 Identitate sexualagatikoko bereizkeria
 LGBT pertsonak, 523, 600, 611, 746
 Jatorriagatikoko bereizkeria, 34, 167, 280, 733, 735
 Etorkinak, 441, 458, 622, 745
 Kulturagatikoko bereizkeria
 Ijito herria, 469, 745
 Sexuagatikoko bereizkeria
 Emakumeak, 244
 Emakumeen eta gizonen berdintasuna, 235, 743

Berriro bizilekua ematea

Hiria biziberritzea, 202, 476

Berriro gizarteratzeko eskubidea

Espetxeratuak, 534, 754
 Espetxe-zigorren ordezkoko neurriak, 538
 Espetxeak, 533
 Espetxeko sistema, 537
 Gaixotasun terminala duten pertsonak, 537, 747
 Gizarte taldeak, 533

Bidegabeko atzerapenak

Justizia, 144

Bideo grabaketak

Atxiloketa-zentroak, 118

Biltokiak, 404**Bizileku-askatasunerako eskubidea**

Baztertuak
 Udal zerbitzu publikoak, 472, 737, 738
 Etorkinak, 445
 Ijitoak
 Udal zerbitzu publikoak, 472, 737, 738

Bizitzeko eskubidea, 747

Emakumeak, 236, 743, 747
 Terrorismoaren biktimak, 515, 589, 611, 747
 Memoria historikoa, 622

Burutik gaixo dauden adingabeak, 395**Burutik gaixo daudenak, 543**

Babes ofizialeko etxebizitzak

Alokairuak, 223, 555

Baztertuak, 510

Espetxeratuak, 538

Gizarte taldeak, 543

Mendeko pertsonak, 543

Osasuna, 543

Osasun laguntza, 187

C**Curriculum norbanakoari egokitzea**

Hezkuntza-premia bereziak, 387

D**Diru-sarrerak bermatzeko errenta**

Baztertuak, 37, 38, 41

Diru zigorrak

Babes ofizialeko etxebizitzak, 221

Trafikoa eta bide segurtasuna, 108

Jakinarazpenak, 108

Doako justizia

Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak, 148, 731

Droga-mendetasuna

Tabakismoa, 190

E**Ebatzi beharra, 56, 735**

Administrazioaren erantzukizuna, 168, 733, 734

Egoitzak

Adinekoak, 43, 277

Adingabeak, 283, 284, 322, 378, 623, 730, 755, 759

Ehiza

Betekizunak, 56, 735

Legeria, 56

Ekintza publikoa

Hirigintza, 208, 734, 736

Elebitasuna

Euskara eta administrazioa, 62

Euskara eta Europako Parlamentua, 62

Euskara eta funtzio publikoa, 63

Euskara eta justizia, 61, 135

Elkargo ofizialak

Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak, 731

Elkarteak

Administrazio erregistroak, 171, 736

Emakumeak

Babes ofizialeko etxebizitzak

Alokairuak, 223, 238

Emakumeen eta gizonen berdintasuna, 235, 252, 743
 Emakumeen kontrako indarkeria, 236, 743, 747
 Adingabeak, 243
 Emakumeen kontrako indarkeriaren biktimak, 242
 Lanbidea eta familiako bizitza bateratzea
 Laguntzak, 419, 732
 Norberaren datuak
 Jakinarazpenak, 242
 Sexuagatiko bereizkeria, 244

Emakumeen eta gizonen berdintasuna, 235, 252, 743

Babes ofizialeko etxebizitzak
 Alokairuak, 223, 238
 Biltokiak, 404
 Emakumeen kontrako indarkeria, 236, 743, 747
 Adingabeak, 243
 Babes ofizialeko etxebizitzak, 223, 238
 Emakumeen kontrako indarkeriaren biktimak, 242
 Norberaren datuak, 242
 Kultur adierazpenak, 65
 Laguntzak
 Lanbidea eta familiako bizitza bateratzea, 419, 732
 Lanbidea eta familiako bizitza bateratzea, 246, 759
 Laguntzak, 50
 Legeria, 252
 Norberaren datuak
 Jakinarazpenak, 242
 Partekatutako zaintza
 Adingabeak, 142
 Sexuagatiko bereizkeria, 235, 244, 743

Emakumeen kontrako indarkeria

Adingabeak, 243
 Babes ofizialeko etxebizitzak, 223, 238
 Emakumeen eta gizonen berdintasuna, 236, 743, 747
 Emakumeen kontrako indarkeriaren biktimak, 242
 Norberaren datuak, 242

Emakumeen kontrako indarkeriaren biktimak, 242

Energia eolikoa, 158

Enplegua erregulatzeko espedienteak

Adinekoak, 195

Epaiketa azkarrak

Jakinarazpenak, 144

Erantzukizun zibila

Oinarrizko zerbitzu publikoak, 58

Erljiioagatiko bereizkeria

Musulmanak
 Hilerri musulmana, 171, 459

Erregistro zibila

Tratu egokia, 131, 574

Errolda

Baztertuak, 34, 45, 167, 280, 451, 454, 491, 492, 733, 735
 Etorkinak, 34, 45, 167, 280, 451, 454, 733, 735
 Udal zerbitzu publikoak, 472, 737, 738
 Ikasleak onartzea, 69

Eskatzaileen erregistroa

Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 733

Eskola-garraioa

Hezkuntzarako eskubidea, 77

Eskola-jantokiak

Hezkuntzarako eskubidea, 78

Eskolako indarkeria (bullying-a)

Hezkuntzarako eskubidea, 73, 399

Eskolatzea

Adingabe atzerritarrak, 387

Adingabe baztertuak, 387

Adingabe ijitoak, 387

Adopzioa, 69

Ezgaitasunen bat duten adingabeak, 387, 424

Ikasleak onartzea

Haur hezkuntza, 69

Ikastetxeak, 69

Espetxeak

Abokatu-laguntza, 533

Espetxeratuak, 533, 749

Funtzio publikoa, 533

Garraioak, 534

Gizarte zerbitzuak, 534

Osasun laguntza

Espetxeratuak, 537

Espetxeko sistema, 537**Espetxeratuak, 754**

Araketak eta gorputz miaketak, 536

Berriro gizarteratzeko eskubidea, 534

Burutik gaixo daudenak, 538

Diziplina-araubidea, 535

Espetxe-zigorraren ordezkio neurriak, 538

Espetxeak, 533, 534, 749

Abokatu-laguntza, 533

Funtzio publikoa, 533

Garraioak, 534

Osasun laguntza, 537

Espetxeko sistema, 537

Gaixotasun terminala duten pertsonak, 537, 747

Gizarte taldeak, 533

Lekualdatzeak, 535

Etorkinak, 441, 622, 745

Asentamenduak, 453

Bizileku-askatasunerako eskubidea

Baimenak, 445

Funtzio publikoa

Sarbidea, 458

Gizarte taldeak, 463

Hizkuntz irisgarritasuna, 135, 458, 567

Lana

Baimenak, 445

Prestazio ekonomikoak, 454

Tratu txarrak

Polizia, 113

Zerbitzu publikoak, 454

Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 213, 766

Alokairuak

Legeria, 213

Babes ofizialeko etxebizitzak

Administrazio erregistroak, 217

Akatsak, 219

Alokairuak, 223, 238, 555

Balio katastrala, 98

Betekizunak, 218

Diru zigorrak, 221

Esleipena, 222

Etxebizitza tasatuak, 220

Legeria, 213

Berriro bizilekua ematea, 202

Eskatzaileen erregistroa, 733

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 436

Hiria biziberritzea, 202

Hirigintzako antolamendua, 204

Ijitoak, 472, 476, 738

Ingurumen egokia izateko eskubidea, 202

Etxebizitza tasatuak

Prezioak, 220

Etxebizitzak

Udalaren lursailak, 170

Etxebizitzaren beharra egiaztatzea, 218

Etxez etxeko laguntza

Mendeko pertsonak, 48, 421

Europako Parlamentua

Euskara eta Europako Parlamentua, 62

Euskal Herriko Unibertsitatea

Prezio publikoak, 102

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 102

Euskara eta administrazioa, 62

Elebitasuna, 62

Euskara eta Europako Parlamentua

Elebitasuna, 62

Euskara eta funtzio publikoa

Elebitasuna, 63

Euskara eta irakaskuntza

Hizkuntzen irakaskuntza, 74

Euskara eta justizia

Elebitasuna, 61, 135

Eusko Legebiltzarra

Hauteskundeak, 227

Ezgaitasunen bat duten adingabeak

Eskolatzea, 387, 424

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 417, 746, 767

Adingabeak

Gizarte zerbitzuak, 419

Aparkalekuak, 428
 Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 436
 Etxez etxeko laguntza, 421
 Euskal Herriko Unibertsitatea
 Prezio publikoak, 102
 Ezgaitasunen bat duten adingabeak, 424
 Ezintasunagatiko pentsioak
 PFEZ, 426
 Ezintasunagatiko prestazioak
 PFEZ, 95, 733
 Funtzio publikoa, 426
 Garraioak, 429
 Gizarte taldeak, 421
 Gizarte zerbitzuak, 47, 418
 Herri lanak, 429
 Igogailuak, 581
 Hirigintza, 205, 429, 581
 Ikastetxeak, 72
 Irisgarritasuna, 417, 746
 Mendeko pertsonak
 Prestazio ekonomikoak, 418, 606
 Osasun laguntza, 435
 Prestazio ekonomikoak, 46
 TMIZ
 Salbuespenak, 100, 428, 736
 Unibertsitateko hezkuntza, 79

Ezintasunagatiko pentsioak

PFEZ, 426

Ezintasunagatiko prestazioak

PFEZ, 95

F**Familia, 759**

LGBT pertsonak, 527
 PFEZ
 Mantenu-pentsioak, 97

Foru zergak

BEZa, 98
 Matrikulazio zerga
 Laguntzak, 98
 PFEZ
 Baterako aitorpena, 97
 Ezintasunagatiko pentsioak, 426
 Ezintasunagatiko prestazioak, 95, 733

Funtzio publikoa

Administrazio egoerak
 Borondatezko eszedentzia, 731
 Espetxeak, 533
 Euskara eta funtzio publikoa, 63
 Lan-baldintzak, 91
 Lanpostuak betetzea, 88

Ordainsariak, 90
 Ordezkapenak, 89
 Sarbidea, 83, 734
 Betekizunak, 458
 Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 426
 Merezimenduak, 83, 734

G**Gai publikoetan parte hartzeko eskubidea**

Huteskundeak, 227

Gaixo kronikoak, 543

Burutik gaixo daudenak, 543
 Gizarte taldeak, 543
 Osasun laguntza, 186

Garajeak

Herri lanak, 173, 734

Garraio kolektiboa

Hiri barruko mugikortasuna, 171

Garraioak

Espetxeak, 534
 Irisgarritasuna, 429

Gastuak itzultzea, 182**Gazteak**

Hezkuntza, 69

Giza eskubideak, 625

Adinekoak, 769
 Adingabeak, 283, 284, 322, 378, 623, 730, 755, 759
 Baztertuak
 Errolda, 34, 45, 167, 280, 451, 454, 491, 492, 733, 735
 Berdintasunerako eskubidea, 743
 Bereizkeriarik ez jasateko eskubidea
 Gizarte egoeragatiko bereizkeria, 483, 606
 Identitate sexualagatiko bereizkeria, 523, 600, 611, 746
 Jatorriagatiko bereizkeria, 441, 622, 745
 Bizitzeko eskubidea, 747
 Emakumeak, 236, 743, 747
 Emakumeen eta gizonen berdintasuna, 235, 743
 Espetxeratuak, 533, 749, 754
 Etorkinak
 Berdintasunerako eskubidea, 458
 Bizileku-askatasunerako eskubidea, 445
 Errolda, 34, 45, 167, 280, 451, 454, 733, 735
 Lana, 445
 Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 213, 733, 766
 Baztertuak, 202
 Ingurumen egokia izateko eskubidea, 202
 Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 417, 746, 767
 Irisgarritasun unibertsala, 205, 429, 581
 Gaixo kronikoak, 543
 Burutik gaixo daudenak, 543
 Hezkuntzarako eskubidea, 755

Hizkuntz eskubideak

- Euskara eta administrazioa, 62
- Euskara eta Europako Parlamentua, 62
- Euskara eta funtzio publikoa, 63
- Euskara eta justizia, 61, 135

Ijitoak, 469, 745

IKT, 628

Ingurumen egokia izateko eskubidea, 153, 764

Intimitaterako eskubidea, 751

Kontaminazioak eragindako pertsonak, 153

LGBT pertsonak, 523, 600, 611, 746

Migratzeko eskubidea, 441, 622, 745

Osasunerako eskubidea, 762, 764

Osotasun fisiko eta moralerako eskubidea, 747

Adinekoak, 261

Atxilotuak, 112, 147

Emakumeak, 236, 743, 747

Terrorismoaren biktimak, 622

Tortura, 108

Tratu txarrak, 147

Terrorismoaren biktimak, 515, 589, 611, 747

Memoria historikoa, 622

Tutoretza judiziala izateko eskubidea, 752

Gizarte egoeragatiko bereizkeria

Baztertuak, 483, 606

Errolda, 34, 167, 280, 451, 454, 491, 492, 733, 735

Legeria, 483

Gizarte ekintza, 27, 606

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 418

Gizarte taldeak, 611

Prozedura administratiboa, 41

Gizarte eskubideak

Adinekoak, 259, 769

EEE, 195

Egoitzak, 277

Zerbitzu soziosanitarioak, 275

Adingabeak, 283, 284, 322, 378, 623, 730, 755, 759

Adopzioa, 142

Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak, 459, 622

Balioetan oinarritutako hezkuntza, 406, 594

Droga-mendetasuna, 406, 606

Harrera, 142

Kirola, 64

Baztertuak, 483, 606

Errolda, 34, 45, 167, 280, 451, 454, 491, 492, 733, 735

Gizarte zerbitzuak, 485

Gizarteratzeko diru-sarrerak, 27

Hiria biziberritzea, 202

Legeria, 483

Prestazio ekonomikoak, 34, 45, 167, 280, 492, 733, 735

Udal zerbitzu publikoak, 472, 737, 738

Espetxeratuak, 533, 749

- Etorkinak, 441, 622, 745
 - Errolda, 34, 45, 167, 280, 451, 454, 733, 735
- Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 213, 766
 - Alokairuak, 213, 223, 555
 - Babes ofizialeko etxebizitzak, 98, 213, 221
 - Eskatzaileen erregistroa, 733
 - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 436
 - Hirigintzako antolamendua, 204
 - Ijitoak, 472, 476, 738
 - Ingurumen egokia izateko eskubidea, 202
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 417, 418, 746, 767
 - Euskal Herriko Unibertsitatea, 102
 - Irisgarritasun unibertsala, 205, 429, 581
 - Irisgarritasuna, 417, 746
 - PFEZ, 95, 426, 733
 - Prestazio ekonomikoak, 46
 - TMIZ, 100, 428, 736
- Familia, 759
 - PFEZ, 97
- Gaixo kronikoak, 543
 - Burutik gaixo daudenak, 543
- Gizarte zerbitzuak, 606
 - Ijitoak, 469, 745
 - Udal zerbitzu publikoak, 472, 737, 738
- Ingurumen egokia izateko eskubidea, 153, 764
 - Atmosferako kutsadura, 153
 - Energia eolikoa, 158
 - Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 202
 - Industriako kutsadura, 156
 - Ingurumen-inpaktua ebaluatzea, 208
 - Kutsadura akustikoa, 153, 154, 736
 - Telefonia mugikorreko antenak, 158
- Kultura ondarea, 65, 730
- Lanbidea eta familiako bizitza bateratzea, 246, 759
 - Laguntzak, 50
- LGBT pertsonak, 523, 600, 611, 746
- Mendeko pertsonak
 - Gizarte taldeak, 611
 - Legeria, 262
 - Prestazio ekonomikoak, 29, 47, 418, 606
- Osasun zerbitzuak
 - Burutik gaixo daudenak, 187
 - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 435
 - Gaixo kronikoak, 186
 - Sortzetiko malformazioak dituzten pertsonak, 185
 - Transexualak, 184
 - Ugalkortasun arazoak dituzten pertsonak, 185
 - Zentzumen urritasuna duten pertsonak, 184, 190
- Osasunerako eskubidea, 181, 762
 - Adingabeak, 732
 - Baztertuak, 497

Burutik gaixo dauden adingabeak, 395
 Burutik gaixo daudenak, 543
 Kontaminazioak eragindako pertsonak, 153, 156
 Tabakismoa jasaten duten pertsonak, 190

Gizarte eta ekonomi politikaren printzipio gidariak

Adinekoak, 259, 769
 EEE, 195
 Egoitzak, 43, 277
 Zerbitzu soziosanitarioak, 275
 Adingabeak, 47, 283, 284, 322, 378, 623, 730, 755, 759
 Adopzioa, 142
 Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak, 459, 622
 Balioetan oinarritutako hezkuntza, 406, 594
 Droga-mendetasuna, 406, 606
 Harrera, 142
 Kirola, 64
 Baztertuak, 483, 606
 Errolda, 34, 45, 167, 280, 451, 454, 491, 492, 733, 735
 Gizarte zerbitzuak, 485
 Gizarteratzeko diru-sarrerak, 27
 Hiria biziberritzea, 202
 Legeria, 483
 Udal zerbitzu publikoak, 472, 737, 738
 Zerbitzu soziosanitarioak, 497
 Errolda, 34, 167, 280, 451, 454, 733, 735
 Espetxeratuak, 533, 749
 Etorkinak, 441, 622, 745
 Errolda, 45
 Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 213, 766
 Alokairuak, 213, 223, 555
 Babes ofizialeko etxebizitzak, 98, 213, 221
 Eskatzaileen erregistroa, 733
 Hirigintzako antolamendua, 204
 Ijitoak, 472, 476, 738
 Ingurumen egokia izateko eskubidea, 202
 Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 417, 418, 746, 767
 Euskal Herriko Unibertsitatea, 102
 Irigarritasun unibertsala, 205, 429, 581
 Irigarritasuna, 417, 746
 PFEZ, 95, 426, 733
 Prestazio ekonomikoak, 46
 TMIZ, 100, 428, 736
 Familia, 759
 PFEZ, 97
 Gaixo kronikoak, 543
 Burutik gaixo daudenak, 543
 Gizarte zerbitzuak, 606
 Ijitoak, 469, 745
 Udal zerbitzu publikoak, 472, 737, 738
 Ingurumen egokia izateko eskubidea, 153, 764
 Atmosferako kutsadura, 153
 Energia eolikoa, 158

- Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 202
- Industriako kutsadura, 156
- Ingurumen-inpaktua ebaluatzea, 208
- Kutsadura akustikoa, 153, 154, 736
- Telefonia mugikorreko antenak, 158
- Kultura ondarea, 65, 730
- Lanbidea eta familiako bizitza bateratzea, 246, 759
 - Laguntzak, 50
- LGBT pertsonak, 523, 600, 611, 746
- Mendeko pertsonak
 - Gizarte taldeak, 611
 - Legeria, 262
 - Prestazio ekonomikoak, 47
- Osasun zerbitzuak
 - Burutik gaixo daudenak, 187
 - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 435
 - Gaixo kronikoak, 186
 - Sortzetiko malformazioak dituzten pertsonak, 185
 - Transexualak, 184
 - Ugalkortasun arazoak dituzten pertsonak, 185
 - Zentzumen urritasuna duten pertsonak, 184, 190
- Osasunerako eskubidea, 181, 762
 - Adingabeak, 732
 - Baztertuak, 497
 - Burutik gaixo dauden adingabeak, 395
 - Industriako kutsadura, 156
 - Kontaminazioak eragindako pertsonak, 153
 - Tabakismoa jasaten duten pertsonak, 190

Gizarte sareak

- Adingabeak, 405

Gizarte Segurantza, 195**Gizarte taldeak, 611**

- Adingabeak, 411
- Baztertuak, 508
 - Errolda, 508
 - Zerbitzu soziosanitarioak, 508
- Burutik gaixo daudenak, 543
- Espetxeratuak, 533
- Etorkinak, 463
- Gaixo kronikoak, 543
- Gizarte ekintza, 611
- LGBT pertsonak, 527, 611
- Mendeko pertsonak, 611
- Terrorismoaren biktimak, 611

Gizarte zerbitzuak, 27, 606

- Adinekoak, 259
 - Egoitzak, 43
 - Legeria, 273
- Adingabeak, 47, 283, 284, 322, 378, 623, 730, 755, 759
 - Adingabe lege-hausleak, 378
 - Babesik gabeko adingabeak, 284, 322, 730
 - Sasoikako langileen seme-alaba adingabeak, 386

Baztertuak, 485
 Espetxeak, 534
 Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 47, 418
 Adingabeak, 419
 Gizarte taldeak, 611
 Legeria, 27
 Prozedura administratiboa, 41
 Zerbitzu soziosanitarioak
 Baztertuak, 497
 Burutik gaixo daudenak, 543

Gizarteratzeko diru-sarrerak

Legeria, 27

Grebarako eskubidea

Gizarte zerbitzuak, 43, 277

Gune zoologikoak, 177**H****Harrera**

Adingabeak, 142

Haur hezkuntza

Errolda, 69

Hauteskundeak

Hautesmahaiaik, 227

Herri-ekimena

Hirigintza, 206, 207, 734

Herri lanak, 165

Garajeak, 173, 734

Irisgarritasuna, 429

Igogailuak, 581

Herriaren defendatzailea

Tortura, 108

Tratu txarrak, 108

Herriaren defentsa erakundeak

Arartekoa, 641

Europako Kontseilua, 635

Europar Batasuna, 635

IKT, 628

Ombudsmanaren Iberoamerikako Federazioa, 638

Herriarren eskubideak eta betebeharrak

Jabetza pribaturako eskubidea, 758

Hirigintza, 209, 731

Kultura, 64

Zergen arloko berdintasuna, 757

Hezkuntza, 69**Hezkuntza-premia bereziak, 75, 387**

Adingabe atzerritarrak, 387

Adingabe baztertuak, 387

Adingabe ijitoak, 387

Curriculuma norbanakoari egokitzea, 387

Ezgaitasunen bat duten adingabeak, 387, 424

Hezkuntzarako eskubidea, 283, 284, 322, 378, 623, 730, 755, 759

- Adingabeak, 69
 - Balioetan oinarritutako hezkuntza, 406, 594
 - Droga-mendetasuna, 406, 606
- Balioetan oinarritutako hezkuntza, 73
- Eskola-garraioa, 77
- Eskola-jantokiak, 78
- Eskolako indarkeria (bullying-a), 399
- Eskolatzea, 69
 - Adingabe atzerritarrak, 387
 - Adingabe baztertuak, 387
 - Adingabe ijitoak, 387
 - Adopzioa, 69
 - Ezgaitasunen bat duten adingabeak, 387, 424
 - Ikasleak onartzea, 69
- Gazteak, 69
- Hezkuntza-premia bereziak, 75, 387
 - Curriculuma norbanakoari egokitzea, 387
- Hizkuntzen irakaskuntza, 74
 - Euskara eta irakaskuntza, 74
- Ikastetxeak
 - Instalazioak, 72
- Irakaskuntza artistikoak
 - Ikasleak onartzea, 74
- Kirol irakaskuntzak
 - Ikasleak onartzea, 74
- Laguntzak, 72
 - Unibertsitateko hezkuntza, 79
- Unibertsitateko hezkuntza, 79
 - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 79

Hilerrri musulmana, 171, 459**Hiri barruko mugikortasuna**

- Garraio kolektiboa, 171

Hiri Lurren Balioa Gehitzearen gaineko Zerga, 99**Hiria biziberritzea**

- Berriro bizilekua ematea, 202, 476

Hirigintza, 201

- Administrazio errekurtsua jartzeko eskubidea, 208, 734, 736
- Berriro bizilekua ematea, 202
- Ekintza publikoa, 208, 734, 736
- Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 202, 204
- Hiria biziberritzea, 202
 - Ijitoak, 476
- Hirigintzako plangintza, 202
- Informaziorako eskubidea, 207
- Irisgarritasun unibertsala, 205
- Irisgarritasuna, 429
 - Igogailuak, 581
- Jabetza pribaturako eskubidea, 209, 731
- Legeria, 201
- Parte hartzeko eskubidea, 207
 - Herri-ekimena, 206, 207, 734
 - Ingurumen-inpaktua ebaluatzea, 208

Hirigintzako antolamendua

Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 204

Hirigintzako plangintza

Parte hartzeko eskubidea, 202

Historia klinikoa

Informaziorako eskubidea, 181

Hizkuntz eskubideak

Euskara eta administrazioa, 62

Euskara eta Europako Parlamentua, 62

Euskara eta funtzio publikoa, 63

Euskara eta justizia, 61, 135

Hizkuntz irisgarritasuna

Etorkinak, 135, 458, 567

Hizkuntz normalizazioa

Euskara eta administrazioa, 62

Euskara eta Europako Parlamentua, 62

Euskara eta funtzio publikoa, 63

Euskara eta justizia, 61, 135

Hizkuntz oztupoak, 135

Etorkinak, 458, 567

Hizkuntzen irakaskuntza, 74

Euskara eta irakaskuntza, 74

I**Identitate sexualagatiko bereizkeria**

LGBT pertsonak, 523, 600, 611, 746

Ijito herria, 469, 745

Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 472, 476, 738

Ijitoak, 469, 745

Berrito bizilekua ematea, 476

Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 472, 476, 738

Legeria, 469

Udal zerbitzu publikoak

Errolda, 472, 737, 738

Ikasleak onartzea

Haur hezkuntza, 69

Errolda, 69

Irakaskuntza artistikoak, 74

Kirol irakaskuntzak, 74

Ikastaroak

Kultura, 63

Ikastetxeak, 69

Instalazioak

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 72

Ikuskatzea

Atmosferako kutsadura, 153

Kutsadura akustikoa, 153

Industria, 55**Industriako kutsadura**

Jarduera sailkatuak, 153, 156

Informatzeko eta komunikatzeko teknologiak

Giza eskubideak, 628

Informaziorako eskubidea

Hirigintza, 207
 Historia klinikoa, 181
 Ingurumen egokia izateko eskubidea, 166
 Kontsumoa, 57
 Zerbitzu publikoak, 165, 166

Ingurumen egokia izateko eskubidea, 153, 764

Atmosferako kutsadura, 153
 Energia eolikoa, 158
 Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 202
 Industriako kutsadura, 156
 Informaziorako eskubidea, 166
 Ingurumen-inpaktua ebaluatzea, 208
 Kutsadura akustikoa, 153
 Ostalaritza establezimenduak, 154, 736
 Parte hartzeko eskubidea, 166
 Telefonía mugikorreko antenak, 158

Ingurumen-inpaktua ebaluatzea

Hirigintza, 208

Internet

Adingabeak, 405

Intimitaterako eskubidea, 751

Adingabeak, 405
 Espetxeratuak
 Araketak eta gorputz miaketak, 536
 Kontaminazioak eragindako pertsonak
 Atmosferako kutsadura, 153
 Industriako kutsadura, 156
 Norberaren datuak
 Jakinarazpenak, 242

Irakaskuntza artistikoak

Ikasleak onartzea, 74

Irigarritasun unibertsala

Hirigintza, 205
 Osasun zerbitzuak
 Zentzumen urritasuna duten pertsonak, 190

Irigarritasuna

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 417, 746
 Garraioak, 429
 Herri lanak, 429, 581
 Hirigintza, 429, 581
 Hizkuntz irigarritasuna
 Etorkinak, 135, 458, 567
 Ikastetxeak, 72

Itzulketak

Baztertuak, 38

J**Jabetza pribaturako eskubidea, 758**

Hirigintza, 209, 731

Jakinarazpenak

Trafikoa eta bide segurtasuna, 108

Jarduera sailkatuak

- Atmosferako kutsadura, 153
 - Keak eta usainak, 153
 - Ostalaritza establezimenduak, 154, 736
- Industriako kutsadura, 153, 156
- Kutsadura akustikoa, 153
 - Ostalaritza establezimenduak, 154, 736

Jatorriagatiko bereizkeria

- Etorkinak, 441, 622, 745
 - Errolda, 34, 167, 280, 451, 454, 733, 735

Justizia, 131

- Administrazioarekiko auzi prozedura, 140, 574, 732
- Doako justizia
 - Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak, 148, 731
- Euskara eta justizia, 61, 135
- Justizia administrazioarekiko eskubideak, 131, 574
 - Hizkuntz eskubideak, 61, 135
- Prozedura penala
 - Bidegabeko atzerapenak, 144
 - Jakinarazpenak, 144, 145, 730
 - Justizia administrazioarekiko eskubideak, 145, 147, 730, 732
- Prozedura zibila
 - Adopzioa, 142
 - Banantzea eta dibortzioa, 142
 - Harrera, 142
- Tratu egokia, 131, 574

Justizia administrazioa, 131**Justizia administrazioarekiko eskubideak**

- Hizkuntz eskubideak, 61, 135
- Prozedura penala, 145, 147, 730, 732
- Tratu egokia, 131, 574

K**Kirola**

- Adingabeak, 64

Kontsumitzaileen eskubideak, 55

- Erreklamazioak, 57
- Informaziorako eskubidea, 57
- Oinarrizko zerbitzu publikoak, 55, 57, 58

Kontsumoa

- Arbitrajea, 57
- Erreklamazioak, 57
- Informaziorako eskubidea
 - Telefonia mugikorra, 57
- Oinarrizko zerbitzu publikoak, 55, 57, 58

Kultur adierazpenak

- Emakumeen eta gizonen berdintasuna, 65

Kultura

- Herritarren eskubideak eta betebeharrak, 64
- Ikastaroak, 63
- Kultura ondarea, 65, 730

Kultura ondarea, 65, 730

Kulturagatiko bereizkeria

Ijitoak, 469, 745

Kutsadura akustikoa, 153

Administrazioa kontrolatzea, 153

Ikuskatzea, 153

L**Laguntzak**

Hezkuntzarako eskubidea, 72

Lana, 195

Lanbidea eta familiako bizitza bateratzea, 50

Matrikulazio zerga, 98

Prestakuntza, 195

Lan-baldintzak

Funtzio publikoa, 91

Lana, 195

EEE, 195

Etorkinak, 445

Laguntzak, 195

Lanbide, 195

Lanbide, 195**Lanbidea eta familiako bizitza bateratzea, 246**

Laguntzak, 50

Emakumeen eta gizonen berdintasuna, 419, 732

Legeria

Alokairuak, 213

Animaliak babestea, 177

Babes ofizialeko etxebizitzak, 213

Baztertuak, 483

Ehiza, 56

Emakumeen eta gizonen berdintasuna, 252

Gizarteratzeko diru-sarrerak, 27

Gizarte zerbitzuak, 27

Hirigintza, 201

Ijitoak, 469

Mendeko pertsonak, 29, 418, 606

Trafikoa eta bide segurtasuna, 107

Lesbiana, gay, bisexual eta transexualak, 523, 600, 611, 746

Familia, 527

Gizarte taldeak, 527, 611

Udal zerbitzu publikoak, 525, 737

Zerbitzu publikoak, 527

Lurzorua, 201**Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legea, 201****M****Mantenu-pentsioak**

PFEZ, 97

Matrikulazio zerga

Laguntzak, 98

Medikua aldatzea, 182

Mendeko pertsonak

- Adinekoak, 34, 167, 280, 733, 735
- Burutik gaixo daudenak, 543
- Etkez etxeko laguntza, 48, 421
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak
 - Prestazio ekonomikoak, 418, 606
- Ezintasunagatiko pentsioak
 - PFEZ, 426
- Gizarte taldeak, 421, 611
- Legeria, 29, 418, 606
 - Adinekoak, 262
- Prestazio ekonomikoak, 29, 34, 47, 167, 280, 418, 606, 733, 735

Merezimenduak

- Funtzio publikoa, 83, 734

Merkataritza, 55**Migratzeko eskubidea, 441, 622, 745****Musulmanak**

- Hilerri musulmana, 171, 459

N**Nekazaritza, 55****Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea, 749**

- Terrorismoaren biktimak, 515, 589, 611, 622, 747

Norberaren datuak

- Adingabeak, 405
- Intimitaterako eskubidea, 751
- Jakinarazpenak
 - Emakumeak, 242

Norberaren eskubideak

- Burutik gaixo daudenak, 543

O**Oinarrizko eskubideak**

- Adingabeak, 283, 284, 322, 378, 623, 730, 755, 759
 - Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak, 459, 622
- Baldintza beretan sartzeko eskubidea, 752
 - Funtzio publikoa, 83, 734
- Baztertuak
 - Bizileku-askatasunerako eskubidea, 472, 737, 738
- Berdintasunerako eskubidea, 743
 - Baztertuak, 483, 606
 - Emakumeen eta gizonen berdintasuna, 65, 223, 238
 - Emakumeen kontrako indarkeria, 223, 238
 - Etorkinak, 441, 458, 622, 745
 - Familia, 97
 - Ijitoak, 469, 745
- Berriro gizarteratzeko eskubidea
 - Espetxeratuak, 533, 534, 749
- Bizitzeko eskubidea, 747
 - Emakumeak, 236, 743, 747
 - Terrorismoaren biktimak, 515, 589, 611, 622, 747

- Emakumeen eta gizonen berdintasuna, 235, 252, 743
 - Biltokiak, 404
 - Emakumeen kontrako indarkeria, 236, 743, 747
 - Lanbidea eta familiako bizitza bateratzea, 50, 246, 419, 732, 759
 - Legeria, 252
 - Partekatutako zaintza, 142
 - Sexuagatiko bereizkeria, 244
- Espetxeratuak, 533, 749, 754
- Gai publikoetan parte hartzeko eskubidea
 - Hauteskundeak, 227
- Gaixo kronikoak, 543
 - Burutik gaixo daudenak, 543
- Grebarako eskubidea
 - Gizarte zerbitzuak, 43, 277
- Hezkuntzarako eskubidea, 755
 - Adingabeak, 69
 - Balioetan oinarritutako hezkuntza, 73
 - Eskola-garraioa, 77
 - Eskola-jantokiak, 78
 - Eskolako indarkeria (bullying-a), 73, 399
 - Eskolatzea, 69
 - Gazteak, 69
 - Hezkuntza-premia bereziak, 75, 387
 - Hizkuntzen irakaskuntza, 74
 - Irakaskuntza artistikoak, 74
 - Kirol irakaskuntzak, 74
 - Laguntzak, 72, 79
- Intimitaterako eskubidea, 751
 - Adingabeak, 405
 - Espetxeratuak, 536
 - Kontaminazioak eragindako pertsonak, 153, 156
 - Norberaren datuak, 242
- LGBT pertsonak, 523, 600, 611, 746
- Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea, 749
 - Terrorismoaren biktimak, 515, 589, 611, 622, 747
- Norberaren eskubideak
 - Burutik gaixo daudenak, 543
- Osotasun fisiko eta moralerako eskubidea, 747
 - Adinekoak, 261
 - Atxilotuak, 112, 116, 118, 147
 - Emakumeak, 236, 743, 747
 - Espetxeratuak, 537, 747
 - Etorkinak, 113
 - Kontaminazioak eragindako pertsonak, 153, 156
 - Terrorismoaren biktimak, 515, 589, 611, 747
 - Tortura, 108
 - Tratu txarrak, 147
- Parte hartzeko eskubidea
 - Adinekoak, 262
 - Hirigintza, 207
 - Hirigintzako plangintza, 202
 - Ingurumen egokia izateko eskubidea, 166
 - Udalak, 166

Tutoretza judiziala izateko eskubidea, 752
 Administrazio errekurtsua jartzeko eskubidea, 140, 574, 732
 Bidegabeko atzerapenak, 144
 Doako justizia, 148, 731
 Hirigintza, 208, 734, 736
 Jakinarazpenak, 144, 145, 730
 Justizia administrazioarekiko eskubideak, 145, 147, 730, 732
 Zigorrezko prozedura, 108

Oinarrizko zerbitzu publikoak

Administrazioaren erantzukizuna, 58
 Erantzukizun zibila, 58
 Kontsumoa, 55, 57, 58

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga

Balio katastrala, 98

Ondasun publikoak

Eselepena, 169, 735

Ordainsariak

Funtzio publikoa, 90

Ordenamendu juridikoaren printzipio gidariak

Berdintasun printzipioa, 743

Ordezkapenak

Funtzio publikoa, 89

Osakidetzako erabiltzaileen eskubideak, 181

Administrazio egokia, 181
 Informaziorako eskubidea, 181
 Medikua aldatzea, 182

Osasun-garraioa, 188

Osasun laguntza

Espetxeak, 537
 Irisgarritasun unibertsala
 Zentzumen urritasuna duten pertsonak, 190
 Zerbitzuen zorroa, 184
 Burutik gaixo daudenak, 187
 Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 435
 Gaixo kronikoak, 186
 Sortzetiko malformazioak dituzten pertsonak, 185
 Transexualak, 184
 Ugalkortasun arazoak dituzten pertsonak, 185
 Zentzumen urritasuna duten pertsonak, 184

Osasun laguntza unibertsala, 183

Osasun prestazioak

Gurpil aulkiak, 732

Osasun publikoa

Tabakismoa, 190

Osasun zerbitzuak, 181, 184

Administrazio egokia, 181
 Amentzako eta haurrentzako laguntza, 189
 Burutik gaixo daudenak, 187
 Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 435
 Gaixo kronikoak, 186
 Gastuak itzultzea, 182
 Informaziorako eskubidea
 Historia klinikoa, 181

- Irisgarritasun unibertsala
 - Zentzumen urritasuna duten pertsonak, 190
- Medikua aldatzea, 182
- Osasun-garraioa, 188
- Osasun laguntza unibertsala, 183
- Sortzetiko malformazioak dituzten pertsonak, 185
- Transexualak, 184
- Ugalkortasun arazoak dituzten pertsonak, 185
- Zentzumen urritasuna duten pertsonak, 184, 190

Osasuna, 181

- Adinekoak, 259
- Administrazioaren erantzukizuna
 - Administrazio errekurtsua jartzeko eskubidea, 140, 732
- Burutik gaixo dauden adingabeak, 395
- Burutik gaixo daudenak, 543
- Gastuak itzultzea, 182
- Informaziorako eskubidea
 - Historia klinikoa, 181
- Irisgarritasun unibertsala
 - Zentzumen urritasuna duten pertsonak, 190
- Medikua aldatzea, 182
- Osasun laguntza
 - Burutik gaixo daudenak, 187
 - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 435
 - Gaixo kronikoak, 186
 - Sortzetiko malformazioak dituzten pertsonak, 185
 - Transexualak, 184
 - Ugalkortasun arazoak dituzten pertsonak, 185
 - Zentzumen urritasuna duten pertsonak, 184, 190
 - Zerbitzuen zorroa, 184
- Osasun laguntza unibertsala, 183
- Osasun prestazioak
 - Gurpil aulkiak, 732
- Osasun zerbitzuak
 - Amentzako eta haurrentzako laguntza, 189
 - Osasun-garraioa, 188
- Zerbitzu soziosanitarioak
 - Baztertuak, 497

Osasunerako eskubidea, 181, 762

- Adingabeak, 732
- Baztertuak
 - Zerbitzu soziosanitarioak, 497
- Burutik gaixo dauden adingabeak, 395
- Burutik gaixo daudenak, 543
- Kontaminazioak eragindako pertsonak
 - Atmosferako kutsadura, 153
 - Industriako kutsadura, 153, 156
 - Kutsadura akustikoa, 153
- Tabakismoa jasaten duten pertsonak, 190

Osotasun fisiko eta moralerako eskubidea, 747

- Adinekoak
 - Tratu txarrak, 261

- Atxilotuak, 112, 147
 - Bideo grabaketak, 118
 - Tortura, 147
 - Tratu txarrak, 116
- Emakumeak, 236, 743, 747
- Espetxeratuak
 - Burutik gaixo daudenak, 538
 - Gaixotasun terminala duten pertsonak, 537, 747
- Etorkinak
 - Tratu txarrak, 113
- Kontaminazioak eragindako pertsonak
 - Atmosferako kutsadura, 153
 - Industriako kutsadura, 153, 156
 - Kutsadura akustikoa, 153
- Terrorismoaren biktimak, 515, 589, 611, 747
 - Memoria historikoa, 622
- Tortura
 - Herriaren defendatzailea, 108
- Tratu txarrak
 - Polizia, 147
- Ostalaritza establezimenduak**
 - Atmosferako kutsadura, 154, 736
 - Kutsadura akustikoa, 154, 736
 - Tabakismoa, 190

P**Parte hartzeko eskubidea**

- Adinekoak, 262
- Hirigintza, 207
- Hirigintzako plangintza, 202
- Ingurumen egokia izateko eskubidea, 166
- Udalak, 166

Partekatutako zaintza

- Adingabeak, 142

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga

- Baterako aitortpena
 - Familia, 97
- Ezintasunagatiko pentsioak, 733
- Mendeko pertsonak, 426
- Ezintasunagatiko prestazioak, 95

Polizia

- Administrazioa kontrolatzea, 112
- Atxiloteta-zentroak, 118
- Atxilotuak, 112
- Tratu txarrak, 116, 147
 - Administrazioa kontrolatzea, 116
 - Etorkinak, 113

Portuak

- Amarratzeko eskubidea
- Esleipena, 169, 735

Prestakuntza

- Laguntzak, 195

Prestazio ekonomikoak

- Baztertuak, 34, 45, 167, 280, 492, 733, 735
 - Errolda, 472, 737, 738
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 46
 - ljiitoak
 - Errolda, 472, 737, 738
- Mendeko pertsonak, 29, 34, 167, 280, 418, 606, 733, 735

Prezio publikoak

- Euskal Herriko Unibertsitatea, 102
 - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 102
- Udal zerbitzu publikoak, 102

Prozedura administratiboa

- Administrazio erregistroak
 - Errolda, 472, 737, 738
- Administrazio errekurtsua jartzeko eskubidea
 - Ebatzi beharra, 56, 735
- Administrazioaren erantzukizuna, 168
 - Administrazio errekurtsua jartzeko eskubidea, 140, 168, 574, 732, 733, 734
 - Animaliek sortutako kalteak, 56
 - Ebatzi beharra, 168, 733, 734
 - Oinarritzko zerbitzu publikoak, 58
 - Zerbitzu publikoak, 168, 733, 734
- Babes ofizialeko etxebizitzak, 220, 222
- Gizarte ekintza, 41
- Gizarte zerbitzuak, 41
- Hirigintzako plangintza
 - Zaborra, 101, 734
- Zigortzeko prozedura
 - Elkargo ofizialak, 731
 - Jakinarazpenak, 108
 - Trafikoa eta bide segurtasuna, 108

Prozedura administratiboko eskubideak

- Administrazio errekurtsua jartzeko eskubidea
 - Ebatzi beharra, 56, 735
 - Hirigintza, 208, 734, 736
- Informaziorako eskubidea
 - Hirigintza, 207
 - Osasun zerbitzuak, 181
 - Zerbitzu publikoak, 165, 166

Prozedura penala

- Bidegabeko atzerapenak, 144
- Epaiketa azkarrak, 144
- Jakinarazpenak, 144, 145, 730
- Justizia administrazioarekiko eskubideak, 145, 147, 730, 732

Prozedura zibila

- Adopzioa
 - Adingabeak, 142
- Banantzea eta dibortzioa, 142
 - Biltokiak, 404
 - Partekatutako zaintza, 142
- Harrera
 - Adingabeak, 142

S**Sasoikako langileen seme-alaba adingabeak, 386****Sexuagatiko bereizkeria**

Emakumeak, 244

Emakumeen eta gizonen berdintasuna, 235, 743

Sortzetiko malformazioak dituzten pertsonak

Osasun laguntza, 185

T**Tabakismoa**

Ostalaritza establezimenduak, 190

Telefonia mugikorra

Norberaren datuak, 57

Telefonia mugikorreko antenak, 158**Terrorismoaren biktimak, 515, 589, 747**

Gizarte taldeak, 611

Memoria historikoa, 622

Tokiko administrazioen ondasun publikoak

Udalaren lursailak

Etxebizitzak, 170

Tortura

Atxilotuak, 147

Herriaren defendatzailea, 108

Trafikoa eta bide segurtasuna, 108

Aparkalekuak

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 428

Diru zigorrak, 108

Jakinarazpenak, 108

Legeria, 107

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga

Salbuespenak

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 100, 428, 736

Transexualak

Osasun laguntza, 184

Tratu txarrak

Adinekoak, 261

Atxilotuak, 147

Herriaren defendatzailea, 108

Polizia, 116, 147

Etorkinak, 113

Turismoa, 55**Tutoretza judiziala izateko eskubidea, 752**

Administrazio errekurtsua jartzeko eskubidea

Administrazioaren erantzukizuna, 140, 574, 732

Bidegabeko atzerapenak, 144

Doako justizia

Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak, 148, 731

Hirigintza, 208, 734, 736

Jakinarazpenak

Prozedura penala, 144, 145, 730

Justizia administrazioarekiko eskubideak, 145, 147, 730, 732

Zigortzeko prozedura

Jakinarazpenak, 108

U**Udal tasak**

Zaborra, 101, 734

Udal zerbitzu publikoak, 170

Administrazio erregistroak

Elkarteak, 171, 736

Animaliak babestea, 177

Errolda, 34, 45, 167, 280, 451, 454, 472, 491, 492, 733, 735, 737, 738

Eskolatzea, 69

Hilerri musulmana, 171, 459

LGBT pertsonak, 525, 737

Prezio publikoak, 102

Udal tasak

Zaborra, 101, 734

Udal zergak

HLBGZ, 99

OHZ

Balio katastrala, 98

TMIZ

Salbuespenak, 100, 428, 736

Udalak

Parte hartzeko eskubidea, 166

Zerbitzu publikoak, 34, 45, 167, 280, 451, 454, 491, 492, 733, 735

Ugalkortasun arazoak dituzten pertsonak

Osasun laguntza, 185

Unibertsitateko hezkuntza

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 79

Laguntzak, 79

Z**Zaborra**

Udal tasak, 101, 734

Zentzumen urritasuna duten pertsonak

Osasun laguntza, 184

Zerbitzu publikoak, 165

Administrazioaren erantzukizuna

Administrazio errekurtsua jartzeko eskubidea, 168, 733, 734

Administrazioaren isiltasuna, 168, 733, 734

Arrazoitu beharra, 168, 733, 734

Ebatzi beharra, 168, 733, 734

Animaliak babestea

Gune zoologikoak, 177

Informaziorako eskubidea, 165, 166

LGBT pertsonak, 527

Zerbitzu soziosanitarioak

Adinekoak, 259, 275

Baztertuak, 497

Burutik gaixo daudenak, 543

Zerbitzuen zorroa

Osasun zerbitzuak, 184

Zergen arloko berdintasuna, 757

Zigortzeko prozedura

Elkargo ofizialak, 731

Trafikoa eta bide segurtasuna, 108

Jakinarazpenak, 108

Ziurtagiriak

Baztertuak, 38